06

memoria sozioekonomikoa euskal autonomia erkidegoa

EGAB

memoria sozioekonomikoa *euskal autonomia erkidegoa*

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía, 35-1. solairua
48009 Bilbo
Maketazioa eta fotomekanika: Argia Servicios Gráficos, S. L.
Inprenta: Gestingraf, S. A. L.
Lege Gordailua: BI-3370-07
ISSN: 1577-1393

ANTXON LAFONT *Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lehendakaria*

06

EGAB

Orain aurkezten dugun Memoria Sozioekonomikoa 2007ko urriaren 11n onetsi zuen EGABren osoko bilkurak. EGABz kanpoko informazio zentroetatik daturik eskuratzen berandutzeak urteko argitalpen hau atzerarazten segitzen du. Batzordekide guztien lanari, bereziki Memoria Sozioekonomikoko Batzordean ari direnenari (Rafael Aranguren, Aurrezki Kutxa eta Finantza Erakundeetatik, Eduardo Arechaga, CONFEBASKetik, Raul Arza, UGTtik, Mikel de la Fuente, EHUtik, Jaime Fernandez, CONFEBASKetik, Miren Garmendia, Arrantza Elkarteetatik, Rafa Izquierdo, LABetik, Mikel Noval, ELAtik, Fco. Javier Sanz, Kooperatibetatik, Antxon Tomasena, CCOOtik) eta Felicísimo Ayastuy, Iñaki Barrenechea, Antón Borja eta Mª Luz de la Cal adituenari esker (benetako ahalegina egin dutela agerrarazi gura dugu hemen) atera ahal izan dugu argitalpen hau. Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga EGABko teknikarien lana ere goraipatuko dugu, Batzorde horretan aritu baitira.

Ondoko ohartarazpen hauek, erabat pertsonalak, hemen jasotako datuetatik ondorioztatu dira eta, ahal izan denean, estatuko beste autonomi erkidego batzuekin baino, atzerriko herrialdeekin egindako konparazioen ingurukoak dira. Izan ere, mundu globalizatuan, egokiago iritzi diogu horrelako konparazioa egiteari.

Euskal Autonomia Erkidegoan BPG EBn baino %40 gehiago hazi da.

Euskal Autonomia Erkidegoko jaiotza tasa kaskarrak EB-27ko ilararen behealdean kokatzen du. Datu kezkagarria, benetan, lehiakortasun faktorea delako, baita prestakuntza eta I+G+b gastuena ere, EBko beste herrialde batzuetakoen aldean.

Trukeen gai ekonomiko zuzenean, kanpoko merkataritzaren balantzak txarrera egin du, balio erantsia sortzen duten ekipo ondasunen inportazioak gehitu direla azpimarratu behar badugu ere.

Lan merkatuak berresten du aldi baterako kontratuen tasa altua; badirudi EBn lan mota hori izugarri hedatzen ari dela.

Etxebizitzaren sektoreak baiesten du hipoteken zenbatekoa gehitu dela, baina ekonomi jarduera hori moteldu egin da 2005ekoaren aldean; industria, ordea, 2005ean baino azkarrago ibili da.

Osasuna gizartearen lehen kezka faktorea da. Baina badirudi ekarpen publikoak ez duela kezka hori asetzen.

Ingurumenaren alorrean egoera ez da homogeneoa, ekonomiaren sektore desberdinak aztertzen direnean. Ekoefizientzia hazi egin da industriaren sektorean, eta jaitsi garraioa, etxebizitzen eraikuntza eta energiaren transformazioa bezalako jardueretan. Nekazaritzan ere datu aldagarriak ageri zaizkigu.

Ez dugu ahaztu behar kultur alorreko egoera sozioekonomikoa, BPGean duen garrantziak berdin baitirau.

EAEk FOCADen duen parte hartzea ere aipatuko dugu (Lankidetza eta Garapenerako laguntza funtsa), 2005eko parte hartzearen ia berdina baita; larrialdietara bideratutako laguntzak, ordea, %50 gutxitu dira.

Euroaren dolarrari eta yuanari begirako kotizazioak nazioarteko ingurune ekonomikoarekiko gure harremanak egonkorrak izan ez daitezen eragiten du.

Egoera delikatu batean ekonomiako edozein sektoretako agente desberdinek adostasuna bilatu behar dute, beraiek baitaukate gizarte eta lan harremanen giltza, eta dituzten ardurak beren gain hartu behar dituzte, beste inori leporatu barik.

Gure gizarteak jakingo du, berriro ere, argi jokatzen, mundu globalizatuaren ezaugarri berriei aurre egiteko moduan.

Antxon Lafont Mendizabal
Lehendakaria

aurkibidea

1

LABURPENA ETA GOGOETAK

1. LABURPENA 12
2. GOGOETAK 32

2

EAE-N JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK

1. GIZA BALIABIDEAK EAE-N 50
1.1. DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA 50
1.1.1. Udal populazioaren eguneraketa 2004 51
1.1.2. Oinarrizko demografia adierazleen eboluzioa 53
1.1.3. Familiei Laguntzeko Eusko Jaurlaritzako Planak 58
1.1.4. Inmigrazioa EAEn 60
1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA SUSTAPENA 67
1.2.1. Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak 68
1.2.2. Unibertsitateko ikasketen bilakaera 72
1.2.3. Hezkuntza-adierazleak 80
2. PRODUKZIO-EGITURA ETA BERRIKUNTZA EAE-N 96
2.1. PRODUKZIO-EGITURA 96
2.1.1. Enpresa-egitura eta enpresa-demografia 96
2.1.2. Nekazaritza eta Arrantza Sektorea 99
2.1.3. Industria 106
2.1.4. Eraikuntza 110
2.1.5. Serbitzuak 112
2.1.6. Etxeko produkzioa 123
2.2. I+G+B ETA IKT-EN JARDUERAK 123
2.2.1. Euskal I+G+b sistemaren adierazle nagusiak 123
2.2.2. EAEko enpresa sektorearen I+G+b jarduerak 127
2.2.3. Ekipamenduak eta IKTren erabilerak EAEko etxeetan eta biztanleen artean 134
2.2.4. Ekipamenduak eta IKT erabilerak enpresetan 139
2.2.5. EAEko merkataritza elektronikoa. Familiak eta erabiltzaileak 144
2.2.6. Merkataritza elektronikoa EAEn. Enpresak 145
3. INGURU NATURALAREN EGOERA EAE-N 150
3.1. EAE-KO INGURUMEN ESTRATEGIAREN JARRAIPENA: INGURUMEN ADIERAZLEAK 150
3.1.1. Ingurumen kalitatea eta kutsadura 150
3.1.2. Baliabide naturalen kontsumoa 163
3.1.3. Ekoeraginkortasun orokorra eta sektoriala 164
3.2. NEKAZARITZA ETA INGURUMENA: ADIERAZLEAK 166
3.3. INDUSTRIA ENPRESEK INGURUMEN BABESEAN EGINDAKO GASTUA 170
4. EKOIZPEN AZPIEGITURAK 172
4.1. GARRAIOA 172
4.1.1. Errepide bidezko garraioa 173
4.1.2. Trenbideko garraioa 177
4.1.3. Aireko garraioa 178
4.1.4. Itsas garraioa 180
4.2. ENERGIA 181
4.3. TELEKOMUNIKAZIOAK 184

3

EKONOMIA EAE-N

1. KANPOKO EKONOMI INGURUNEA ... 190
1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK ... 190
1.2. BILAKAERA EKONOMIKOA ARLOKA ... 192
1.3. EUROPAKO BATASUNA ... 195
1.4. ESPAINIAKO EKONOMIA ... 198
1.5. AUTONOMI ERKIDEGOAK ... 200
2. EAE-KO EKONOMI ABAGUNEA ... 204
2.1. BILAKAERA OROKORRA ... 204
2.2. BARRUKO ESKARIA ... 207
2.3. KANPOKO SEKTOREA ... 208
2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA ... 212
3. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA ... 216
3.1. SARRERAK ... 217
3.2. GASTUAK ... 220
3.3. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA ... 223
3.4. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK ... 224
3.5. EAE-KO ENPRESA SEKTORE PUBLIKOA ... 226
4. GIZARTE-EKONOMIA ... 230
4.1. GIZARTE EKONOMIAREN 2004KO KONTUAK ... 232
4.2. KOOPERATIBA-SOZIETATEAK ... 234
4.3. LAN-SOZIETATEAK ... 235
5. LAN MERKATUA EAE-N ... 238
5.1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN GARAPENA ... 241
5.1.1. Enplegua eta langabezia sexuaren eta adinaren arabera ... 241
5.1.2. Enplegua eta langabezia sektoreka ... 246
5.1.3. Enplegua eta langabezia geografia-eremuka ... 249
5.2. LAN-MERKATUKO SARREREN ETA IRTEEREN FLUXUA ... 249
5.2.1. Kontratazioaren ikuspegia ... 249
5.2.2. Bakarkako eta taldekako kaleratzeen garapena ... 252
5.3. LAN-HARREMANAK ETA LAN-OSASUNA ... 254
5.3.1. Lan-osasuna ... 254
5.3.2. Lan-gatazkak ... 255
5.3.3. Negoziazio Kolektiboa: Soldataren igoera eta lanaldia ... 255
5.4. ENPLEGU- ETA ZERBITZU-POLITIKAK EAE-N ... 258
5.4.1. Lan Ministeriotik-SPEEtik gauzatutako politika aktiboak ... 259
5.4.2. Eusko Jaurlaritzak Sustatutako politika aktiboak ... 262
5.4.3. Etengabeko prestakuntza profesionala EAEn ... 266
6. PREZIOAK, KOSTUAK, PRODUKTIBITATEA ETA ERRENTAK ... 270
6.1. KONTSUMO-ONDASUNEN PREZIOAK ... 270
6.2. INDUSTRIA-ONDASUNEN PREZIOAK ... 272
6.3. LAN KOSTUAK ... 273
6.4. PRODUKTIBITATEA ... 275
6.5. LAN KOSTU UNITARIOAK ... 276
6.6. ERRENTEN BANAKETA FAKTORIALA ... 277

4

BIZI KALITATEA EAE-N

1. ZENBAIT KOLEKTIBO AHULEN BIZI BALDINTZAK ... 282
1.1. GIZARTE EGOERA ZAILEAN DAUDEN UMEAK ... 282
1.1.1. Gizarte zailtasunak dituzten adingabeen babes figurak ... 283
1.1.2. Gizarte laguntza jasotzen duten adingabekoen kolektiboa Euskal Autonomia Erkidegoan ... 284
1.1.3. Bakarrik dauden adingabeko atzerritarren kasua ... 288
1.1.4. Pobrezian dauden adingabekoak ... 291
1.2. MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK ... 294
1.2.1. Zahartzea eta mendekotasuna ... 294
1.2.2. Mendekotasuna duten pertsonen kolektiboa EAEn ... 296
1.2.3. Zainketa formala eta ez-formala ... 297
2. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA ... 304
2.1. OSASUNAREN PANORAMA OROKORRA ETA LEHENTASUNEZKO ARAZOAK ... 305
2.1.1. Bizi-itxaropen eta hilkortasun adierazleak ... 305
2.1.2. Erikortasun-adierazleak ... 309
2.1.3. Lehentasunezko osasun arazo batzuk ... 311
2.2. OSASUN SISTEMA ETA PRESTAZIOAK ... 318
2.2.1. Laguntzako osasun egitura, baliabideak eta jarduera ... 320
2.2.2. Osasun sistemaren gastua eta finantziazioa ... 327
3. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA ... 330
3.1. LURZORUA ETA ERAIKUNTZA-KOSTUAK ... 330
3.1.1. Lurzorua EAEn ... 330
3.1.2. Eraikuntza-kostuen estatistika ... 332
3.2. ETXEBIZITZA ESKAINTZA EAE-N ... 333
3.2.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak ... 334
3.2.2. Alokairu erregimena ... 338
3.2.3. Eraikuntza-jarduera ... 340
3.3. ETXEBIZITZA BEHARRA ETA ESKARIA, EAE-N ... 342
3.3.1. Beharrak zenbatzea ... 342
3.3.2. Beharra duten pertsonen eta familien ezaugarriak eta arrazoiak ... 344
3.3.3. Behar diren etxebizitzek dituzten ezaugarriak ... 346
3.3.4. Finantza-gaitasuna eta -ahalegina ... 347
3.4. ETXEBIZITZA POLITIKA ... 350
3.4.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika ... 350
3.4.2. Foru Alduendien etxebizitza-politikak ... 352
4. AISIALDIA, KULTURA ETA KONTSUMOA ... 354
4.1. FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN ... 354
4.2. EAE-KO BIZTANLERIAREN OHITURAK DENBORAREN ERABILERA SOZIALARI DAGOKIONEZ ... 356
4.2.1. Komunikabideen erabilera ... 356
4.2.2. Irakurketa ohiturak EAEn. Liburuen irakurketa ... 359
4.3. EAE-N ESKAINTZEN DIREN KULTURA JARDUERAK ETA AISIALDIRAKOAK ... 362
4.3.1. Kultura instalazioetara hurbildutako jende kopurua ... 362
4.3.2. Biltzarra eta azokak ... 363
4.4. ARGITALPENAK ... 366
4.5. KONTSUMOA ETA KONTSUMITZAILEA BABESTEA ... 370
4.5.1. Kontsumoaren inguruko erreklamazioak ... 370
4.5.2. Erreklamazioentzako irtenbidea: Kontsumo arbitrajea ... 371
4.5.3. Merkatuaren gaineko kontrola ... 372
5. POBREZIA ETA GIZARTEKO BAZTERKERIA ... 376
5.1. 2004KO POBREZIA ETA GIZARTEKO DESBERDINTASUNEN INKESTAREN EMAITZAK: POBREZIA OBJEKTIBOA ETA SUBJEKTIBOA ... 376
5.2. 2005EKO BIZI-BALDINTZEN INKESTAREN EMAITZAK ... 379
6. JARDUERA JUDIZIALAREN BILAKAERA EAE-N ... 384
6.1. JUSTIZIAREN ZIFRAK ... 384
6.2. PROZESUAREN ADIERAZLEAK ... 386

5

GIZARTE BABESA EAE-N

1. LANGABEZIAREN AURKAKO BABESA: EIN ETA EEZP ... 396
1.1. PRESTAZIOEN ETA LANGABEZIAREN AURKAKO ESTALDURAREN ONURADUNAK ... 397
1.2. LANGABEZIAREN AURKAKO BABESEKO GASTUA ETA DIRU-SARRERA ... 400
2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK EAE-N ... 402
2.1. GIZARTE SEGURANTZAKO KUDEAKETA ERAKUNDEEK TRANSFERITU GABEKO PRESTAZIOAK ... 403
2.2. GIZARTE SEGURANTZAKO KUDEAKETA ERAKUNDEEK TRANSFERITURIKO PRESTAZIOAK: KOTIZAZIO GABEKO PRESTAZIOAK ... 406
2.2.1. Gizarte Segurantzako kotizazio gabeko pentsioak ... 407
2.2.2. Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntzako pentsioak ... 409
2.2.3. EGIL prestazioak ... 411
3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK ... 414
3.1. OINARRIZKO ERRENTA ... 415
3.2. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK ... 416
3.3. AUZOLAN PROGRAMA ... 418
4. GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA ERAKUNDE MOTAREN ARABERA ... 420
4.1. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA ERAKUNDE MOTAREN ARABERA ... 421
4.1.1. Atxikipenak sistemara ... 422
4.1.2. Ondarea ... 423
4.1.3. Gastua pentsioetan ... 424

6

GARAPENERAKO LANKIDETZA EAE-N

1. GIZA GARAPENA, ZORRA ETA GARAPENERAKO LAGUNTZA MUNDU MAILAN ... 434
1.1. GIZA GARAPENAREN INDIZEA. 2006KO EMAITZAK ... 434
1.2. GARAPENERAKO LAGUNTZA OFIZIALA ETA ZORRAREN ZAMA ... 436
1.3. BIDALKETEN MUNDUKO FLUXUA ... 438
2. EAE-REN GARAPENERAKO LAGUNTZA. LANKIDETZA FONDOA ETA GARAPENERAKO LAGUNTZA (FOCAK). 2006KO DATUAK ... 440

7

LEGEGINTZAKO JARDUERA EAE-N

1. EUSKO LEGEBILTZARRAREN ETA JAURLARITZAREN LEGEGINTZA JARDUERA ... 444
2. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEN LEGEGINTZA JARDUERA ... 450

1

laburpena eta gogoetak

Laburpena

1.1. Demografia eta inmigrazioa

Biztanleen Udal Erroldako azken datuen arabera, 2006ko urtarrilean, EAEn, biztanle kopuruak 2000. urtean hasitako goranzko joerari eutsi dio. Zehatz-mehatz esanda, 2006an 2.133.684 biztanle zeuden (+%0,4 2005. urteari dagokionez), hau da, 2000. urtean baino 35.088 biztanle gehiago.

Ildo horri jarraiki, EAEn erroldaturiko atzerritar kopurua %4koa da eta 2005eko urtarrilaren 1ean %3,4koa zen; horrek +%17,4ko aldaketa erlatiboa adierazten du, aldi berari dagokionez Estatuko batez bestekoaren (+%11,1) gainetik dagoena. Hala ere, EAEko atzerritar kopurua Estatuko %9,3tik —azken errolda gaurkotzean lau milioi atzerritar baino gehiagokoa— urrun dago oraindik, eta are gehiago Madril, Valentzia eta Murtzia bezalako erkidegoen %13 eta Balearren %16 baino handiagoak diren tasetatik.

Era berean, 2005erako behin-behineko datuei erreparatuz, hazkuntza begetatiboa (populazioaren aldaketa, jaiotzak eta heriotzak kontuan hartuta eta migrazio-mugimenduak alde batera utzita) positiboa da bigarren urtez. Hori gure Erkidegoan ez zen 1986tik gertatzen; urte hartan 19.715 jaiotza izan ziren —aurreko urtean baino %0,6 gehiago— eta 19.425 heriotza, 2004an baino %4 gehiago. Horren ondorioz, hazkuntza begetatiboa +290 izan zen edo, beste hitz batzuetan, milako 0,1. Ordura arte, EAEko hazkuntza begetatiboak 14 urtez beheranzko joera izan zuen eta, behin betiko datuen zain, badirudi 2004an, azkenik, gelditu egin zela. Zilegi da zifrek geldialdirako joera izatea, baina hori hurrengo urteetan egiaztatu beharko dugu. 60. hamarkadan eta 70. hamarkadaren hasieran izandako saldo begetatibo garrantzitsuen ostean, 1990. urtean saldoa negatiboa izan zen, 1937tik ordura arte gertatu ez bezala. Ildo beretik, gutxienekoa 1996an lortu zen. Urte hartan, EAEk 2.000 biztanle baino gehiagoko hazkuntza begetatiboa izan zuen.

Bestetik, Udal Erroldako behin betiko datuei erreparatuz, 2005. urtean zehar atzerritar kopuruak gora egin zuen nabarmen. 2005ean gure Erkidegoan 72.894 etorkin bizi ziren (populazio osoaren %3,4); urtebete beranduago, erroldaturiko atzerritarren kopurua 85.542 pertsonakoa zen, hots, %17,4 gehiago. Era berean, 2005ean zehar EAE izan zen atzerritarren kopuruari dagokionez urteko aldaketa handiena izan zuen erkidegoa; izan ere, hazkundea %16,9koa izan zen bertan.

Berez, atzerritarren ekarpena erabakiorra izan da balio demografikoetan. 1998 eta 2006 bitartean, populazio autoktonoa 35.829 biztanlera murriztu da gure Erkidegoan. Baina, aldi berean, populazio osoa 32.520 biztanle hazi da. Gertakari hau ezinezkoa litzateke atzerriko herrialdeetatik etorritako 68.349 pertsonengatik izan ez balitz. Beste hitz batzuetan esanda, populazio atzerritarraren saldo positiboak populazio autoktonoaren beherakadari aurre egin dio.

1

1.2. Hezkuntza

Eusko Jaurlaritzaren 2006ko aurrekontuko likidazioaren datuen arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zuzendutako gastu partida %5,8 hazi zen 2005eri dagokionez. Hala ere, hazkunde hau 2004 eta 2005 artean gertatukoa (%6,8) baino txikiagoa da. BPGri dagokionez, gastua %3,5eko tasan mantentzen da.

MEC-en datuen arabera, Eusko Jaurlaritzako Hezkunta Sailaren gastu publikoa 2.052 milioi eurokoa izan zen 2005ean (1.667,3 milioi unibertsiatatekoa ez den irakaskuntzan, 344,8 milioi unibertsitateko irakaskuntzan eta gainontzekoa beketan) eta, Estatuan, berriz, irakaskuntzako gastu publikoa 38.932 milioi eurokoa izan zen (27.244,4 milioi unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan eta 7.620,9 milioi unibertsitateko irakaskuntzan). Horren ondorioz, BPGren gaineko gastua %3,69koa izan zen EAEn (%3 unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, %0,62 unibertsitateko irakaskuntzan eta gainontzekoa beketan) eta %4,3koa Estatuan (%3,01 unibertsitekoa ez den irakaskuntzan eta %0,84 unibertsitateko irakaskuntzan).

Eustaten behin-behineko datuen arabera, unibertsitate aurreko matrikulazioa EAEn, 2006-2007 ikasturtean, %1,4 hazi da. Hala eta guztiz ere, mailaka aztertuta ikus daiteke hazkundeak ez diola aurten ere DBHri eragin. Bertan, matrikulazio kopuruak behera egin du, baina aurreko ikasturtean baino proportzio txikiagoan (–%0,6, aurreko urteko –%1ekin alderatuta).

EAEn, irakaskuntza ertainetan diharduten ikasleen %53,8k Batxilergoa hautatzen du derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan; gainontzeko %46,2k Lanbide Heziketara jotzen du eta bertan, oraindik ere, gizonezkoen kopurua emakumeena baino handiagoa da, azken hauenak goranzko joera erakutsi arren.

Titulartasunean eta hizkuntza-ereduetan oinarritutako hezkuntza sareen banaketak, garrantzi handiagoa du EAEn, geroz eta jende gehiagok B eta D ereduen alde egiten baitu eta sare pribatuak ere esangura berezia duelako. Azkenaldian, aipatu bi ezaugarrien inguruko eztabaidak piztu dira eta horietako batzuk Memoria honen "Gogoetak" epigrafean aztertu ditugu.

EINen datuen arabera, Goi Hezkuntzako (lehen bi zikloetan) matrikulazio kopuruak beheranzko joera izaten jarraitzen du Estatuan nahiz EAEn. Hala ere, unibertsitateko populazioak, 18 eta 25 urte bitarteko guztizko populazioarekiko, gora egin du. Horrela bada, 1998-89 eta 2005-2006 ikasturte bitartean, EAEn, %30,3tik %32,2ra igaro da. Joera bera errepikatu da Estatuan, baina hazkundea txikiagoa izan da (portzentajezko 6 hamarren EAEko 2,1 puntuekin alderatuta). Eustaten datuek titulazio ezberdinen matrikulazioen bilakaerari buruz adierazten

dutenaren arabera, 2002-03 eta 2005-06 ikasturte bitartean, lizentziaturen, diplomaturen eta goi ingeniaritza ikasketen matrikulazio kopuruak behera egin du. Arkitektura, ingeniaritza eta arkitektura teknikoa ikasteko matrikulazio kopurua, aldiz, hazi egin da.

Bestetik, 2001-02 ikasturtetik aurrera unibertsitateko hirugarren zikloan (doktoretza) matrikulatzeko goranzko joera gelditu da 2005-06an.

Hezkuntza-adierazleei dagokienez:

Goi hezkuntza[1] bukatu duen populazio helduaren kopurua %40,9koa zen 2005. urtean EAEn eta Estatuan, berriz, %27,5ekoa. 2003an, aipatu kopuruak %35,9 eta %25,2 ziren, hurrenez hurren. EAEko ehunekoa ELGAren batez bestekoaren gainetik dago (%25), ELGAren "Education at a Glance, 2006" txosteneko 2004ko datuen arabera. Ratiorik altuenak Kanadakoak (%44), Japoniakoak (%38) eta Estatu Batuetakoak (%38) dira.

ELGAren datuetan oinarrituta, eskolatze itxaropena edo batez besteko eskolatzea herrialdeen araberakoa da, baina herrialde askotan (Espainia barne) batez bestekoa (17,4 urte) baino baxuagoa da. Aipaturiko batez bestekoaren gainetik honako herrialde hauek daude: Australia (20,7), Belgika (19,6), Danimarka (19), Finlandia (20), Hungaria (17,6), Islandia (19,7), Zeelanda Berria (19,1), Norvegia (18,4), Suedia (20,3) eta Erresuma Batua (20,7). Espainian, ELGAren metodologiaren arabera, 17,2 urtetan dago, 0,2 hamarren batez bestekoaren azpitik. MEC-en datuei erreparatuz, Estatuko eskolatze itxaropena 14,5 urtekoa da azterketaren muga 6 urteren eta helduaroaren artean jartzen den kasuetan, hots, 15,5 urte 5[2] urtetatik aurrera. EAEn, berriz, handiagoa da, 16,5 urtekoa baita, muga 5 urteren eta helduaroaren artean ezartzen den kasuetan.

CRUEren (Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia), "Espainiako Unibertsitatea zifratan, 2006" txostenaren arabera:

- Euskal Herriko Unibertsitateak, bere jarduera ikertzailearen ondorio gisa, 7.625 euro sartu zituen arduraldi osoko baliokidetasunezko irakasle bakoitzeko (AOBI-PETC). Estatuko batez bestekoa 9.851 €/AOBI-koa da unibertsitate publikoetan.
- AOBIko (MZI/AOBI) matrikulaturiko zenbakizko ikasle kopurua 14,5ekoa da unibertsitate publikoetan. UPV-EHU, 12,82 MZI/AOBIrekin, postu onean dago. Aitzitik, Euskal Herriko Unibertsitatearen administrazio eta zerbitzuetako langileekiko matrikulaturiko zenbakizko ikasleen ratioa (MZI/AZL) eta administrazio eta zerbitzuetako langileekiko arduraldi osoko baliokidetasunezko irakasle kopurua (AOBI/AZL) azterturiko guztien gainetik daude.
- UPV-EHUk 5.534 euro bideratzen ditu gastu arruntetarako, matrikulaturiko ikasle bakoitzeko. Gastu handienetarikoa duten unibertsitate publikoen artean honakoak daude: Nafarroakoa (7.130 eurorekin), Aragoikoa (5.553 eurorekin), Kataluniakoa (5.520 eurorekin) eta Kantabriakoa (5.478 eurorekin). Matrikulaturiko ikasle bakoitzeko pertsonal gastuari dagokionez, UPV-EHUk 4.073 euro gastatzen ditu. Bere gainetik ondorengoak daude: Nafarroakoa (4.495 eurorekin), Aragoikoa (4.413 eurorekin), Kantabriakoa (4.321 eurorekin) eta Kanarietakoa (4.112 eurorekin). Ondasun eta zerbitzuen arloan UPV-EHUk 1.198 euroko gastua du ikasle bakoitzeko; Nafarroako Unibertsitateak soilik gainditzen du zifra hori.
- Ikasle bakoitzaren inbertsio errealerako UPV-EHUk, 2004. urtean, 839 euro bideratu zituen ikasleko. Gastu txikiagoa dutenen artean daude Gaztela-Mantxako Unibertsitatea (766 eurorekin), Errioxakoa (629 eurorekin) eta Extremadurakoa (600 eurorekin).

Bestetik, EAE ez dago lehendabizikoz lehen eta bigarren zikloetan matrikulaturiko kredituaren prezio publikoa historikoki gehien hazi den autonomia-erkidegoen artean. MECen eta Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren arabera, egun (2006-07 ikasturtean), EAE, espezialitate garestienari dagokionez lehen eta bigarren zikloko lehen matrikulazioaren kreditua preziorik onenean (13,45 euro) eskaintzen duten bost autonomia-erkidegoen artean dago, ondorengo hauen atzetik: Andaluzia (10,5 euro), Valentzia (11,71), Kanariak (11,79) eta Galizia (12,23). Bestetik, espezialitate merkeenen artean ere prezio (8.73 euro) baxuenak ditu, honakoen atzetik: Kanariak (7,47 euro), Valentzia (7,97), Extremadura (8,56) eta Galizia (8,64).

[1] MEC-INECSEren metodologiaren arabera, Goi Hezkuntzak (CINE 5 eta 6), barne hartzen ditu goi teknikari titulua dutenak (goi mailako heziketa zikloak), unibertsitateko diplomatuak, lizentziatuak, doktoreak eta titulazio baliokideak edo parekoak. Horren ondorioz, Goi Mailako Lanbide Heziketa kontuan hartzen da.

[2] 5 urte dituztenean eskolatze tasa %100ekoa baita.

Hirugarren zikloko kredituaren prezio publikoari dagokionez, espezialitate garestienari erreparatzen badiogu, EAE, 2006-07 ikasturtean, aipaturikoa preziorik baxuenean eskaintzen duten hiru atonomia-erkidegoen artean dago. Espezialitate merkeenari erreparatuz gero, ordea, prezioa garestia duelako nabarmentzen da, Valentziako, Andaluziako, Nafarroako eta Kataluniako prezioaren atzetik bakarrik.

Zentzu honetan eta graduondoko ikasketetan kredituak duen prezio publikoarekin lotuta, aipatu beharra dago, alde batetik, 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren (Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluarena) arabera, graduondoko unibertsitateko ikasketa berrien (56/2005 Errege Dekretuak, urtarrilaren 21ekoak, erregulaturikoak eta 1509/2005 Errege Dekretuak, abenduaren 16koak, aldatutakoak) prezio publikoak krediduko 13 eta 28 euroen artean finkatzen direla, ezohiko kasuetan AAEEk goiko muga hori kostuaren %30eri dagokion gehienezko kopuruan alda badezakete ere. Eta, beste alde batetik, EAEk espezialitate garestienaren prezioa mugarik altuenean finkatu duela (%30eko aldaketarik gabe), Aragoiko, Gaztela eta Leongo, Kataluniako eta Madrilgo unibertsitateek egin dutenaren ildo beretik (Valentziak soilik, 47,06rekin, aplikatu du aldaketa aukera). Espezialitate merkeenaren prezioa, berriz, 20,09 eurotan finkatu du, Kanarietako, Balearetako, Madrilgo, Nafarroako, Gaztela eta Leongo eta Andaluziako unibertsitateen azpitik.

1.3. I+G+B eta IKT izenekoen jarduerak

EUSTATek argitaraturiko azken datuen arabera, 2005ean I+G jardueretan egindako gastua 823,5 milioi eurokoa izan zen. Horrek %7,1eko hazkundea adierazten du aurreko urteari dagokionez. Gastu hori BPGren %1,43 da, aurreko ekitaldiko ehuneko bera, hain zuzen ere. Horrela, EAE Estatuko batez bestekoaren (%1,13) gainetik dago I+G ahaleginari dagokionez, baina EB-25en batez bestekoaren (%1,85), EB-27renaren (%1,84) eta ELGArenaren (%2,24) azpitik.

I+G-ren gastuaren zatirik handiena enpresek gauzatzen dute (I+G-ren gastuaren %79,4). EINen arabera, enpresak eta zentro teknologikoak bananduta aztertuta, enpresa-gauzatzea %57,6koa da, Estatukoa (%53,8) gainditzen duen ehunekoa. Hala ere, zifra hori oraindik txikia da lehen postuetan dauden herrialdeen ehunekoekin alderatuz gero: Luxenburgo %80, Japonia %75, Suedia %70 eta Finlandia %69.

Sektore pribatuak aipaturiko gastuaren %63,8 finantzatzen du eta Administrazioak, berriz, %32,4. Estatuan, proportzioa 47-43koa da, hurrenez hurren, eta EB-25en, 55-35ekoa. EAEren finantza-balantzak Bartzelonako helburuetatik gertu dauden proportzioak ditu: sektore publikoak I+G gastuaren heren bat finantzatzea. Finantziazio pribatuaren ehuneko handienak ondorengo herrietan aurkitzen ditugu: Luxenburgo (%80), Japonia (%75), Suitza (%70), Finlandia (%69), Txina (%66) eta Estatu Batuak (%63).

I+G jardueretan dagoen langile kopuruak hazten jarraitzen du, arduraldi osoko baliokidetasunaren aldetik neurtuta, eta 2005ean 12.506 pertsonakoa zen. Horrek landunen ‰ 13,1 adierazten du, (‰12,8 aurreko urtean) Estatuan (‰9,2) eta EBn (‰10,3) erregistratutakoa baino mila handiagoa. Herrialde dinamikoenetako balioengandik gertu eta, kasu batzuetan, horien gainetik ere badago: Frantzia (‰13,8), Alemania (‰12,9) eta Japonia (‰12,9).

Gutxi gorabehera, I+Gn manufakturatzen duen industriaren gastuaren %68, I+G erdi-goi mailako intentsitateko sektoreetan biltzen da, eta %23, berriz, erdi-behe mailako intentsitateko sektoreetan. Aurreko urteko ehunekoak, hurrenez hurren, 70 eta 21 izan ziren. Zerbitzu-sektoreari dagokionez, "goi intentsitateko" gisa sailkatutako jarduerek, hau da, informatika jarduerek eta I+Gkoek, beren pisua mantentzen dute gastu osoan, eta bien artean %19,3 ingurura iristen dira.

Eustaten arabera, jarduera berriztatzaileei dagokienez, 2003-2005 aldian, 9 langiletik gorako enpresen %33,3 berriztatzaileak ziren, eta ehuneko hori 2002-2004 aldikoa baino 1,4 puntu handiagoa zen. EINen datuen arabera, Estatuan, 2003-2005 aldian, 9 langiletik gorako enpresen %27 berriztatzaileak ziren produktuari edo prozesuari dagokionez; EAEn, ehuneko hori %29,11koa da. Horrenbestez, enpresa berriztatzaileen kopurua portzentajezko 2,11 puntu handiagoa da EAEn Estatuan baino. Eurostaten datuen arabera, EB-27n, 2002-2004 aldian, 9 langiletik gorako enpresen %42 berriztatzaileak ziren produktuari edo prozesuari dagokionez.

Eustaten arabera, 2005. urtean berriztapen teknologikorako jardueren gastu guztia 2.161 milioi eurokoa izan zen, hau da, BPGren %3,8. Ehuneko hori 2004ko bera da eta 2003koa (%3,9) baino txikiagoa.

EINen datuen arabera, EAEn, 250 baino langile baino gutxiagoko enpresek jarduera berriztatzaileen gastuan

izan duten parte hartzeak gora egin du eta 2003ko %38,4tik %52,8ra igaro da 2005ean. Estatuan, berriz, kopuru horrek behera egin du, 2003ko %46,3tik 2005eko %40,4ra jaitsi baita. Balio absolutuetan, 2005ean, ETEek 1.348,1 milioi eurotatik 636,7 milioi gastatu zituzten aipaturiko jardueretan; horrek %18ko hazkundea adierazten du 2004ri dagokionez.

Finantzazio publikoa jaso duten enpresa berriztatzaileen kopurua murriztu egin da berriro ere, eta 2001-03 aldiko %36,8tik 2002-2004ko %29,8ra igaro da, eta kopuru horretatik 2003-2005eko %27,9ra. Berrikuntzetan egindako kooperazioari dagokionez, ia ez da kooperaziorik egon 10 langile baino gutxiagoko establezimenduetan. Hala eta guztiz ere, jarduera berriztatzaileren bat egin duten 10 langileko edo langile gehiagoko establezimenduetan, kooperazioa %20koa izan da. Eurostaten datuen arabera, 2002-2004 aldian, EB-27n 9 langile baino gehiago dituzten enpresa berriztatzaileen %26k kooperatu egin du berriztatzeko unean. Mailarik altuenak Lituanian (enpresa berriztatzaileen %56), Eslovenian (%47) eta Finlandian (%44) topatzen ditugu. Baxuenak, berriz, Italian (%13) eta Alemanian (%16).

Eustatek egindako Europako Berrikuntza Indizearen (SII) arabera, EAE 13. postuan dago EB-27ri dagokionez, eta 0,35eko SII du (1,00ko maximotik). EB-27ren batez bestekoa 0,45ekoa izan da 2006an. Lehen postuetan dauden herrialdeen artean Suedia (0,73), Finlandia (0,68), Danimarka (0,63) eta Alemania (0,59) daude. Europar Batasunetik kanpo, Suitza (0,69) eta Japonia (0,61) ere nabarmentzen dira.

Bestetik, eskualdeen araberako berrikuntza adierazle sintetikoak (RIS) EAE 55. postuan kokatzen du aztertutako Europako 203 eskualdeen artean. Madrilgo Komunitatea 31. postuan dago, Nafarroa 76. postuan eta Katalunia, berriz, 82. postuan. Suediako Stockholm eta Västsverige eta Alemaniako Oberbayen eskualdeak, eskualdeen araberako rankig-aren lehen postuetan daude.

IKT izenekoei dagokienez, esan beharra dago EAE IKT-ak barneratzerako autonomia-erkidego dinamikoenen artean dagoela; halaxe erakusten dute IKT hornikuntzak dituzten etxeen ehunekoen datuek, Autonomia Erkidegoen araberakoek eta EINen 2006ko bigarren boladari dagozkionak. Hedatuen dagoen IKT hornikuntzak telefonoa izaten jarraitzen du (finkoa zein mugikorra), atzetik ordenagailua duela. Zehatz-mehatz esanda, EAE telefono finkoa duten etxebizitzen (%92,4) ranking-eko lehen postuan dago. Laugarren postuan dago ordenagailua duten etxebizitzen ehunekoari (%60) dagokionez, Madril, Katalunia eta Melillaren atzetik; bosgarren postuan telefono mugikorrari dagokionez, Madril, Katalunia, Murtzia eta Valentziaren atzetik; eta seigarren postuan interneterako sarbideari dagokionez, Madril eta Melillaren atzetik.

Eustaten 2006ko lehen hiruhilekoari buruzko datuen arabera, EBn, 16 eta 74 urte bitarteko pertsona bat gutxienez bizi den etxeen %51k interneterako sarbidea du eta %32ak banda zabaleko konexioa. Horren ondorioz, EAE postu onean dago banda zabaleko konexioari dagokionez (%33,1) eta batez bestekoaren azpitik dago interneterako sarbideari dagokionez (%45,7).

Oro har, seme-alabak dituzten familiek joera handiagoa izan ohi dute etxean IKT delakoez hornitzeko, eta honako faktoreek ere badute zerikusia: adinak (ordenagailu kopurua eta interneten erabilera handiagoak dira 15 eta 24 urte bitartean), heziketa mailak (zenbat eta heziketa maila altuagoa orduan eta ordenagailu eta internet gehiago) eta lan egoerak (ikasten edota lanean dauden biztanleen artean izan ohi dira ordenagailu kopuru eta interneten erabilera handienak). Desberdintasun horiek kolektiboen arteko haustura digitalaren murrizketa zail bihurtzen dute.

Enpresetako IKT hornikuntzei dagokienez, Eustatek 2006ri buruz dituen datuen arabera, 2004. urtean enpresetan IKT hornikuntzak sartzeko prozesua moteldu egin zen, baina azken bi urteotan hazkundeak indartsu egin du gora berriro ere. Hedatuen dagoen hornikuntza telefono mugikorra (establezimenduen %72,8) da oraindik ere, atzetik ordenagailu pertsonala (%68,6), interneterako sarbidea (%56,4) eta posta elektronikoa (%52) dituela. Jarduera-sektoreen arabera, industria nabarmentzen da argi eta garbi gainontzeko sektoreen gainetik, baina aipagarria da eraikuntzan telefono mugikorrak bereganatu duen garrantzia (aurreko urteari dagokionez portzentajezko 1,4 puntu galdu arren).

Gainera, enpresaren tamainak ezaugarri erabakiorra izaten jarraitzen du desberdinketa hori egiteko. Horrela, hornikuntza prozesuak lanaren arlo guztietan gora egin badu ere, establezimenduek, zenbat eta handiagoak izan ahala, orduan eta hazkunde txikiagoa dute, beren hornikuntzetan hobekuntzak egiteko duten marjina txikiaren eraginez. Hala eta guztiz ere, aipatu desberdintasunak nabarmenagoak dira establezimenduei dagozkien balioetan, enpleguari lotutakoetan baino. Hori, beste arrazoi

batzuen artean, establezimendu txikien garapen handiagoaren ondorioz gertatzen da. Gainera, establezimendu handietan, langile guztiek ez dute hornikuntza hauetaz baliatzeko aukerarik.

Interneten edo baliabide elektronikoen bitartez egin ohi diren merkataritza-akordioei dagokienez, EINek 2006ko lehen seihilekoari buruz duen lehen datu multzoaren arabera, EAEn, inkestaren erreferentziazko azken hiru hilabeteetan, interneten erabiltzaile kopuruak behera egin du (2005 eta 2006 artean), eta, balio absolutuetan, internet bidez erosketak egin dituen jende kopurua ere murriztu egin da; hala ere, aipatu erosketa operazioak egin dituztenen ehunekoak goranzko joera du. Bilakaera bera antzematen da Estatuko batez bestekoei dagokienez. Autonomia-erkidegoen arabera, internet bidez erosteko joerarik handiena Madrilen (%18,6) dago. EAE (%14,2) laugarren postuan dago estatuko batez bestekoaren (%11,7) gainetik, eta Balearren (%17,3) eta Kataluniaren (%14,7) atzetik.

Bestetik, Eustaten datuen arabera, enpresek baliabide elektronikoen bitartez egiten duten merkataritzak ere goranzko joera du, zifra ekonomikoei zein parte hartzen duten enpresei dagokienez.

1.4. Natur ingurunea

Uren kalitateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, *ibaien* esparruan, IBMWP (Iberian Biological Monitoring Working Party)[3] indizearen emaitzen bilakaerak, oro har, EAEko egoerak hobera egin duela adierazten du 90eko hamarkadari dagokionez. Dena dela, egun, oraindik ere egoerako txarreko tarte asko daude, batez ere Nerbioi-Ibaizabalen, Debaren eta Oriaren ibarretan; gainera, 2006ko kanpainan 2004en eta 2005en antzeko datuak bildu dira, eta horrek zalantzan jartzen du hoberako joera orokorra. *Estuarioen* arloan, nagusiak dira kutsadura maila desberdinak dituzten laginketa guneak; hain zuzen ere, %72ra iristen dira (%66ra aurreko urtean) 1999ko emaitzei dagokienez (estazioen %53). Joera negatibo hau orokortu egin da azken bost laginketa kanpainetan. *Itsasertzean* egon da, berriro, bilakaerarik onena. 2006an estazioen %56 kutsadura gabekotzat kalifikatu dira eta 1999an, berriz, %15 soilik kalifikatu ziren kutsadura gebekotzat. Bainua hartzeko zonei dagokionez, 2003an Prestigeren hondamendia jasan zuten bainurako 31 zonek erreferentziako balioak bete dituzte 2006an.

Aireari dagokionez, 2005ean, airearen kalitatea neurtzeko EAEn zortzi zona kontuan hartu ziren. Urte horretan egindako ikerketen ostean, EAE hamaika zonatan banatzea erabaki zen. Gainera, airearen kalitate indizearen mailak 4 (ona, onargarria, txarra eta oso txarra) izatetik 6 (ona, onargarria, moderatua, txarra, oso txarra eta arriskutsua) izatera igaro ziren. Airearen kalitate indize txar edo oso txarreko egunen batez bestekoari dagokionez, 2005ean 19,5ekoa zen eta 5,3ra jaitsi da 2006an. Hala eta guztiz ere, zifra horri airearen kalitate moderatuko egunak gehitzen bazaizkio, batez bestekoa 25,6ra igotzen da. Bilakaera negatiboa alde batera utzita, airearen kalitatea ona edo, behintzat, onargarria da; eta ez da airearen kalitate arriskutsuko egunik erregistratu.

Eustatek argitaraturiko azken datuek, 2004koek, agerian jarri dutenez, EB-15eko estatu gehienek zailtasunak dituzte NEG-en isurpenari dagokionez harturiko konpromisoari eusteko. Salbuespenak Frantzia, Grezia, Erresuma Batua eta Suedia dira. Egoera kezkagarriena aurkezten duten herrialdeak, lehenik eta behin, Espainia (32,9 portzentajezko puntu konpromisoaren gainetik), Austria (28,7 puntu bere konpromisoaren gainetik) eta Luxenburgo (28,3 puntu gainetik) dira; eta, bigarren lekuan, Danimarka (19,2 puntu bere konpromisoaren gainetik) eta Italia (18,6 puntu gainetik) daude. EAE, konpromisoaren gainetik 20 puntu dituen aldetik, bigarren talde honen hasieran egongo litzateke.

"Ingurumen Adierazleak 2006" txosteneko datuen arabera, *hiri hondakinen* (HH) per capita sorrera 560 kg ingurukoa izan da EAEn 2005ean. Horrek nolabaiteko egonkortzea adierazten du 2004ri dagokionez (559 Kg per capita). Hala ere, helburua 2012an 527 kg (per capita) -ra iristea da. *Hondakin arriskutsuen* sorrerari dagokionez, 2004an 390.898 Tm-raino hazi zen; horrek %13ko hazkundea adierazten du 2003ri dagokionez, eta %34koa 1994ri dagokionez. Helburua, 2006an sorrera hori 2001eko mailara jaistea da, hots, 321.415 Tm-ra.

[3] IBMWP indizeak ibaietako makroornogabe bentonikoen komunitateen egoera neurtzen du, eta uretako organismoek jasaten duten ingurumen estresa erakusten du. Era berean, adierazle fisiko-kimikoei, biologikoei eta hidromorfologiko batzuei buruzko alderdiak islatzen ditu. Urari dagokionez, bost kalitate maila sailkatzen ditu, hiru taldetan bilduta daudenak: garbiak edo kutsatu gabeak; kutsaduraren bat dutenak; eta kutsatuak edo oso kutsatuak.

Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategian jasota dagoen beste konpromiso bat, 2006rako hondakindegira zuzendutako *hiri hondakinen* sorrera %75era murriztea da; eta gai honi dagokionez, balorazioa positiboa da; izan ere, 1998ko %85etik %56ra igaro gara 2005ean; %29 birziklatu egin da eta %15 erraustu. Era berean, beste helburuetako bat 2006an *hondakin arriskutsu* guztien %51 balorizatzea da. Eskura dauzkagun azken datuek, 2004ri buruzkoek, aldiz, hori baino ehuneko handiagoa adierazten dute, HA guztien %55 balorizatzen baitira.

Iraunkortasun kontzeptu berriak baliabideen kontsumoa eta horien erabileraren eraginkortasun maila kontuan izatea eskatzen du. Gai honi agokionez esan beharra dago, EINen datuen arabera, banaketa sarean galdutako ur kopuruak murrizten jarraitzen duela. Hala ere, uraren per capita kontsumoak hazten jarraitzen du eta eguneko 150 litrokoa da. Horrela, Estatuaren batez bestekoaren azpitik gaude, bertan per capita kontsumoak gora egin baitu berriro ere eta 171 litro/egunekoa da. EAE nahiko postu onean dago autonomia-erkidegoen ranking-ean, kontsumoari dagokionez atzetik baitauzka Kanariak (144), Nafarroa (144), Ceuta eta Melilla eta Balearrak (biak 142rekin), eta Errioxa (141).

EAEn uraren batez besteko prezioa, 2004an, 0,83 euro/m^3 -koa da, hots, %27,8 murriztu da 2003ko batez besteko prezioari dagokionez (guztizkoaren %7,5). Estatuan, batez besteko prezioa 0,96 euro/m^3 -koa da. 2003an EAE hirugarren postuan zegoen uraren batez besteko preziorik garestienari zegokionez, Kanarien eta Balearren atzetik. Orduan ez bezala, 2004an zortzigarren postuan egon da, Gaztela eta Leonen (0,61 euro/m^3), Gaztela-Mantxaren (0,63), Asturiasen (0,65), Kantabriaren (0,69), Extremaduraren (0,72), Galiziaren (0,78) eta Aragoiren (0,82) atzetik.

Bestetik, EEEren (Energiaren Euskal Erakundea) arabera, energiaren azken kontsumoa, 2005ean, 5.648 Ktep.-koa izan zen, eta horrek, %1,3ko hazkundea adierazten du. Horretarako arrazoi nagusiak petrolioaren deribatuen eta gas naturalaren konsumoaren hazkundea izan dira. Barne Produktu Gordin errealari dagokion azken kontsumo gisa neurtutako energia intentsitateak, argi adierazten du berau 1995ekoaren %89koa dela. Parametro hau bost urtez egonkor mantendu ostean, 2005ean bi puntutan hobera egin du, BPGren hazkundea energiaren azken kontsumoarenaren gainetik egon baita.

1.5. EAEren egoera ekonomikoa eta kanpoko testuingurua

NMFren ustez, 2006an munduko BPG %5,4 haziko da, hots, aurreko urtean baino puntu erdia gehiago. Ekonomia aurreratuek, oro har, %3,1eko hazkundea izan dute, 6 hamarren gainetik aurreko ekitaldiari dagokionez. AEBetako BPG hamarren bat handitu da, eta, horrek, %3,3ko hazkunde erreala adierazten du. Dirudienez, indarra galtzen ari da, besteak beste, etxebizitza merkatuaren dezelerazioaren eraginez; Euro Zonako BPG %2,7 hazi da, aurreko urtean baino 7 hamarren gehiago. Japoniakoa, berriz, %2,2, hiru hamarren gainetik 2005eko hazkundeari dagokionez. Industrializazio berriko Asiako lau herrialdeetan, hazkundea %5,3koa izan da (%4,7 2005ean).

Langabezia-tasak herrialde aurreratuetan murrizten jarraitzen du eta produktibitateak goranzko joera mantentzen du. NMFren arabera, horretarako arrazoiak ondorengoak dira: garapen teknologikoen batasuna, munduko merkataritzaren azelerazioa, kapitalaren mugaz haraindiko mugimenduen hazkundea, eta politika makroekonomiko esparruen eta finantza sistemen erresilientzia[4].

Euro Zonako produktibitatearen hazkundea AEBetakoa baino txikiagoa da, eta horren arrazoietako bat teknologia berriak (IKTen aurrerapenei dagozkienak, batik bat) modu motelean barneratu izatea da. Europako Banku Zentralak eta NMFk orain dela gutxi egindako azterketen arabera, IKTen hornikuntzetan egindako inbertsioak txikiagoak izan dira eta faktoreen guztizko produktibitatea ez da AEB bezainbat hazi IKTak erabiltzen dituzten zerbitzu-sektoreetan. Azken horien artean honako hauek ditugu: txikizkako merkataritza, handizkako merkataritza eta finantza jarduerak.

Petrolioaren prezioari dagokionez, 2002an hasitako hazkundeak gora egin du berriro ere. Brent-aren batez besteko prezioa, 2006n, 65,15$/b -ekoa izan da, eta 2005ean 54,46$/b -ekoa.

Interbentzio-tasek hazten jarraitzen dute. Estatu Batuetako Erreserba Federalekoak %4,25ekin hasi zuen 2006. urtea eta harrez geroztik 4 aldiz igo dira (25 oinarrizko puntuetan aldi bakoitzean). Azkenik, diruaren prezioa %5,25ean finkatu da, 2001eko erdialdetik gaur egunera arteko ehunekorik altuena. Europako Banku Zentralak 2005eko azaroan hasitako goranzko joerari eu-

[4] Baldintzak txarrak izan arren, azken horiek gainditu eta horiengandik ikasiz gauzak ondo giteko gaitasuna.

tsi dio eta harrez geroztik sei igoera aplikatu ditu. Azken igoeraren ostean, %3,5ean zegoen. Horrela, 2005 eta 2006 artean, bi ekonomien arteko (Europa eta AEB) interes-tasen diferentziala murriztu egin da portzentajezko bi puntutatik 1,75era.

Dibisen merkatuan, AEBetako dolarraren balioak behera egin du, euroari eta libera esterlinari dagokienez batik bat. Yenak ere balioa galdu du.

Espainiako ekonomiari dagokionez, EINen datuen arabera, BPGk goranzko joera mantentzen du eta 2006an batez besteko %3,9 hazi da, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago. Era berean, hazkunde hori EB-15en batez bestekoaren gainetik dago 1,1 puntutan. Lanaldi osoko lanpostuak %3,1 hazi dira eta ehuneko hori aurreko urtekoaren antzekoa da. Lanaren itxurazko produktibitatea %0,8ko erritmoan hazi da, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago. Bestetik, inflazioa, KPIren bitartez neurtutakoa, %3,5 hazi da, 2005ean baino hamarren bat gehiago.

BPGk 2006an Autonomia-erkidegoetan izan duen hazkunde erreala (EINen Eskualdeko Kontabilitatearen datuen arabera) Europako batez bestekoaren (EB-15en %2,8 eta EB-27n %2,9) gainetik dago kasu guztietan. Hazkunde hori lau autonomia-erkidegok zuzendu dute: Murtziak, Kantabriak, Galiziak eta EAEk, hain zuzen ere. Aipaturiko horiek BPGren %4,1eko hazkundea izan dute balio errealetan, Estatuaren batez bestekoaren bi hamarren gainetik. Lau autonomia-erkidego horien ezaugarri komuna 2006ko industria eta energia arloen hazkunde handia izan da.

EAEko ekonomia, Eustaten Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen 2007ko otsailaren 9ko lehen datuen arabera, 2006. urtean batez besteko %4,2 hazi da balio errealetan, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago. Emaitza hau, azken sei urteetako altuena, Estatukoaren gainetik dago, azken hori batez besteko %3,9 hazi baita, eta baita EB-15eko emaitzaren gainetik ere, berau %2,8 hazi baita. (EB-25: %2,9 eta EB-27: %3).

Hazkunde hori barne-eskariaren (inbertsioa faktore dinamikoagogoa duena, eta %6 baino gehiagoko tasetaraino hazten dena) eta kanpo-eskariaren eraginezkoa da. Kanpoko saldoak BPGri egin dion ekarpena ez da aurreko urtekoa bezain negatiboa eta lau hamarrekoa izan da.

Energetikoak ez diren EAEko esportazioei dagokienez, eremu geografikoen arabera, ELGAra zuzendutakoek eta, esparru honetan, EB-15era iristen direnek, izan dute bilakaerarik onena; izan ere, azken horiek esportazio guztien % 68,3 dira eta %13,1eko hazkunde-tasa izan dute. Frantziarako eta Alemaniarako esportazioek aipamen berezia merezi dute, EAEk EB-15era egiten dituen esportazioen %52 bi herrialde horietara zuzenduta baitago.

Eskaintzari dagokionez, eraikuntzak izan du hazkunderik handieena, batez besteko %5,1eko hazkunde-tasarekin. Hala ere, sektore horren dezelerazioa ere nabarmentzekoa da. Industriak aurreko urtean baino dinamismo gehiago izan du eta batez besteko %4,8 hazi da (aurreko urtean %4,4 hazi zen), ekipamendu-ondasunen eraginez. Bestetik, zerbitzu-sektoreak %3tik gorako hazkundea izaten jarraitzen du, merkatuko zerbitzuen bolada onaren eraginez.

Lanari dagokinez, urteroko batez besteko hazkundea %2,3koa da (aurreko urtekoaren berdina). Langabezia-tasa, berriz, BJAren arabera, %4,1ekoa da (aurreko urtean %5,7koa zen).

Lanaren itxurazko produktibitateak[5] hazten jarraitzen du eta 2006an %1,9 hazi da (2005ean baino 2 hamarren gehiago); ehuneko horrek azken 15 urtetako batez bestekoa hiru hamarrenetan gainditzen du.

Bestetik, inflazioa izan da alderdi negatiboenetariko bat. BPGren deflaktatzailea %3,2ra iritsi da eta kontsumorako prezioaren batez besteko hazkundea %3,4koa izan da (2005ean baino hamarren bat gehiago), produktu energetikoen eta etxebizitzako alokairu eta zerbitzuen prezio altuen eraginez. Gainera, Europako Banku Zentralak helburu gisa ezarritako %2ren gainetik egon da. Azpiko inflazioa (produktu elaboratuak eta produktu energetikoak salbuetsita) %2,9 hazi da.

Horrela, EBrekiko (EB-13: euro zona) prezioen diferentziala handitu egin da berriro ere, urteko inflazioa, EICPak (European Index of Consumer Prices) 2006ko abenduan neurturikoa, aurreko urtekoaren parean mantendu den neurrian; hau da, %2,2an, Eustaten datuen arabera.

Amaitzeko, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroan oinarrituta, EAEk atzerrian egin duen inbertsioak, 2005ean oso maila apaletaraino jaitsi bazen ere, %60 hazi da 2006ko (urtarrila-

[5] Landun bakoitzeko produktua. Azken urteko BPGren eta landun kopuruaren arteko kozientea da. Izendatzaileak lanaldi osoari dagozkion lanpostu kopurua izan beharko luke, baina ez dugu eskura datu hori.

abendua) behin-behineko datuen arabera. Horrela, 2005ean, EAE seigarren postuan zegoen inbertsioen bolumenari dagokionez, Madrilen, Kataluniaren, Andaluziaren, Valentziaren eta Balearren atzetik; 2006an, berriz, hirugarren postuan kokatu da, Kataluniaren eta Madrilen atzetik. Hazkunde hau Latinoamerikako (zehatz-mehatz, Brasilgo) eta Japoniako inbertsioek gora egitearen ondoriozkoa izan da. EAEk atzerrian egindako inbertsioa asko hazi da eta 2005 eta 2006 urte bitartean 1.221 milioi eurotatik 2.455 milioi eurotara igaro da. Horrela, EAE laugarren postuan dago autonomia-erkidegoen atzerriko inbertsioari dagokionez, beti bezala Madrilen eta Kataluniaren atzetik eta, azken urte honetan, baita Kantabriaren atzetik ere. Gure kanpoko inbertsioaren helburu nagusia, aurreko urtean bezala, AEB izan da. Aurtengoan, inbertsio hori bikoiztu egin da eta EAEko kanpoko inbertsioaren %68,4 izan da. Sektoreka, eta energia-sektorea aintzat hartu gabe, Banka eta Finantza Bitartekotza nagusitu da oraingoan ere. Horrela bada, 2006an, azken hori EAEren kanpoko inbertsioaren %68,4 izan da kasik.

1.6. Sektore publikoa

Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Alduendiek likidaturiko guztizko sarrerek %8,2ko hazkundea izan dute 2006an. Honela, 5 puntuko aldearekin gainditu dute aurreko urteko hazkundea, zuzeneko zergetan (%12,5) nahiz zeharkako zergetan (%10,6) gertatu ziren hazkunde garrantzitsuen eraginez, bien artean administrazio hauen guztizko sarreren %93,8ra iristen baitira. Zuzeneko zergak gora egitearen ondorioz, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren sarreren hazkundearen arteko aldea hazi egin da, %11,6an Foru Aldundientzako (%13,2, 2005ean) eta % 6,2an Eusko Jaurlaritzarentzako (%10,4 2005ean). Laburbilduz, Euskal Sektore Publikoaren sarrera kopurua, EAEko BPGari dagokionez, 2003ko %20,7tik %21era igaro da 2004an, %21,5era 2005ean eta %21,6ra 2006an.

Zerga Itunduei dagokienez, 2006an EAEn 12.552 milioi euro bildu dira. Horien %30 PFEZari dagokio, %37,2 BEZari (bertako kudeaketakoen eta barne eragiketa eta aduanen eraginez egindako doikuntzetakoak), %13,5 Sozietate-zergari eta gainontzeko %22,3 Zerga Berezi ezberdinei. Esan dugun bezala, bertako kudeaketako Zerga Itunduen artean nabarmendu behar da, lehenik eta behin, zuzeneko zergen hazkunde handia (%12,7 hazi direnak, 2005eko %26,4ren aldean) eta, horien artean, PFEZ eta Sozietate-Zerga ere asko hazi direla (%10,3 eta %17,5, hurrenez hurren). Azken bi horiek dira bolumen handiena dutenak.

Bestetik, EAEko Sektore Publikoaren gastu osoa (Toki Erakundeak aintzat hartu gabe) 2006an %9,6 hazi da, aurreko urtean baino 3,1 puntu gehiago. Honela, magnitude horrek BPGri dagokionez duen ehunekoa lau hamarren handiagoa da aurreko urtean baino, eta %20,1etik %20,5era igaro da. 2006an, gastuaren hazkundea askoz handiagoa izan da Foru Aldundien artean eta bertan %12,9 hazi da. Eusko Jaurlaritzan, berriz, %6,3 hazi da. Horrenbestez, BPGren gaineko gastu publikoaren ratioa %20,2tik %21,2ra igo da Foru Aldundientzako eta Eusko Jaurlaritzarentzako, ostera, %12,7tik %12,5era murriztu da.

Eusko Jaurlaritzaren gastuari erreparatuz gero, 2006ko likidazioak %6,3ko hazkundea erakusten du, oso hazkunde handiekin ondorengo sailetan: Lehendakaritza (%12,7), Lehendakariordetza (%21,1), Etxebizitza eta Gizarte Gaiak (%16,5), Industria, Merkataritza eta Turismoa (%12,7) eta Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza (%14,2). Beren gastuaren bolumenari dagokionez, bi sail nagusiak ondorengoak dira: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa (guztizko kopuruaren %27,5), gastu globalarena baino hazkunde txikiagoarekin, %5,8Arekin, eta Osasuna (guztiaren %33,9), batezbestekotik gora hazi dena, %8,7, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago. Kultura ere %11,1 hazi da. Gainontzeko sailetan gastuek hazkunde txikiagoak izan dituzte, edo kasu batzuetan murriztu ere egin dira.

EAEko sektore publikoaren zorpetze garbiak behera egin du 2006an, aurreko hiru urteetan gertatzen ez zen bezala. Urte amaieran Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 3.035 milioi euroko zorra izan dute, 2005ean (%4,1 hazi zen urtea) baino %4,3 gutxiago. Behera egite hau, —%9,1ekin Eusko Jaurlaritzan, zorraren %60 irudikatzen duenean, zein Foru Aldundietan, —%4,3rekin, gertatzen da.

2006ko Aurrekontua betetzeko Estatistikaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, 2006an, ez du zorrik izan, eta 183 milioi amortizatu ditu, 2005ean baino %20,6 gutxiago. Honela, saldo biziaren zorra 184 milioi eurotara murriztu du urte amaieran. Zor bizia 1.821 milioi eurokoa izan da guztira eta BPGrekiko txikitu egin da, 2005eko %3,48tik %2,94ra igaro baita 2006an. Bestetik, kontuan izan behar da, 2006ko ekitaldirako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-likidazioari buruzko datu zehatzik ez dugunez gero, aurreko bostetako likidazioetan zor publikoaren "jaulkipen gor-

din" gisa agertzen den kopurua (300 milioi euro 2005ean), hasiera batean beharren eta bonoen ondoriozko sarrera gisa aurkezten bazaigu ere, gero kreditu-erakundedun zor bezala agertzen zaigula. Zor horiek, gainera, kontabilitatearen ikuspuntutik erregistratuta geratzen dira, erabiltzen ez diren onartutako eskubide gisa. Azken finean, benetan existitzen ez diren irekitako kreditu-lineak dira.

EAEko Administrazio Nagusiaren partizipazioa duen enpresa sektore publikoari buruz dauden azken datuak 2005ekoak dira, eta emaitza positiboa adierazten dute; urte horretan 13,7 milioi euroko irabaziak egon ziren, 2004an baino 11 gehiago. Eusko Jaurlaritzaren partizipazioa duen enpresa sektore publiko honen egiturak egonkor jarraitzen du eta SPRI, EEE, EITB taldeak eta Eusko Trenbideak, Ejie, Euskadiko Orkestra, Neiker eta Mendikoi sozietateak dira bertan nabarmentzen direnak, euren lan eta partizipazio bolumena aintzat hartuta. Horien negozio-zifrak 479 milioi eurotara iritsi ziren 2005ean, aurreko ekitaldian baino %25,5 gehiago, batik bat enpresa sektorearen hazkundearen (+%101) ondorioz eta, neurri txikiagoan, energia-sektorearen hazkundearen (+%43,2) ondorioz.

Foru Aldundiei dagokienez, 2005ean 28 sozietate publiko ditugu (2004koen berdinak), 8 Araban, 4 Gipuzkoan eta gainontzeko 16ak Bizkaian. Azken horien emaitzei dagokienez, eta azken urteotan gertatu den bezala, orokorrean Bizkaian eta Gipuzkoan A-8 Autobidea kudeatzeko sortu ziren sozietateen (Interbiak eta Bidegi) eraginpean egon dira. 71,9 milioi euroko irabaziak izan dituzte, aurreko urtean baino %37 gehiago, baina bi sozietate horiek alde batera utzita, Foru Aldundien partizipazio nagusia izan duten merkataritza sozietateek 1,7 milioiko irabaziak besterik ez zituzten izan 2005ean (kalkulu honen arabera, aurreko bi ekitaldietan 15 milioi euroak gainditzen dituzten galerak gertatu baziren ere).

1.7. Gizarte-ekonomia

Gizarte-Ekonomia kontzeptu orokorrak izaera eta helburu ezberdineko hainbat entitate barne hartzen ditu. Hala eta guztiz ere, kasu honetan, eta aurreko urteetan egin dugun bezala, Memoria Sozioekonomikoan aurkezten ditugun datuek merkaturako onsasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzten entitateen errealitatea soilik jasotzen dute. Horrela, ez ditugu gizarte-jardueretara soilik mugatzen direnak uztartuko. Kooperatibek eta lan-sozietateek, besteak beste, gizarte-ekonomiaren atal produktiboa osatzen dute; haien nondik norakoak aztertzeko, datuei erreparatu besterik ez dugu. Izan ere, kooperatibak eta lan-sozietateak balio erantsiaren %5 inguru dira eta EAEko enpleguaren %6,5. Hala ere, %13 baino gehiago dira industria-sektoreari erreparatzen badiogu, eta baita EAEk atzerrira esportatzen duen guztiaren %14 ere. (Gizarte-Ekonomiako Kontuen 2004ko azken datuen arabera).

2006 urte amaieran, EAEn, Gizarte Segurantzan 1.466 sozietate zeuden erregistratuta, izaera juridikoa duten kooperatibei dagokienez; hau da, aurreko urtean baino 5 gutxiago, eta bertan 54.523 langilek lan egiten zuten (2005ean baino %1,7 gutxiago). Horien %60, kasik, autonomoen erregimen berezian kotizatzen zuten asoziaturiko lan-kooperatibetako kide langileak ziren. Iturri beraren arabera, kotizatzen zuten lan-sozietateen kopurua 1.062koa da, 2005ean baino 41 gutxiago. Lan-sozietate horietan 13.585 langile zeuden, 2005ean baino 229 gehiago. Zifra horiei erreparatuz gero, balio absolutuetan gizarte-ekonomiako enpresak EAEko enpresen %1,5 dira eta enpleguaren %7,7. Enpresa kooperatibo bakoitzeko batez besteko 37 langile daude, eta 13 langile lan-sozietate bakoitzeko, EAEko batez bestekoa baino 7,2 eta 2,5 aldiz gehiago, hurrenez hurren.

1994-2005 artean Estatuan Gizarte Segurantzan alta emanda egon diren sozietateei buruzko ikerketa baten arabera, kooperatibek (autonomo erregimenekoak kontuan hartu gabe) eta lan-sozietateek urtetik urterako batez besteko %10etik hurbil dagoen hilkortasun-tasa dute. Aldi horretako erdiko urteren bat hartuz gero eta bost urte igarotzen utzita, ikus daiteke enpresen %51,4k Gizarte Segurantzan alta egoeran jarraitzen dutela eta hasierako lanpostu guztien %90,9 berean mantentzen direla. Are gehiago, aurrera jarraitzen duten enpresek, 10 urte igaro ondoren, kopuru hori bikoiztu ohi dute (enpresen %30ek kasik bizirik jarraitzen dute eta eskaintzen duten lan-bolumena %66koa da, hasieran zegoen lanpostu kopuruari dagokionez).

Bestetik, 2006ko abenduaren 31n, EAEn, 3.788 kooperatiba eta lan-sozietate zeuden. Hala dago jasota Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiari buruzko Zuzentaritzaren Erregistroan. 2005eko datuekin alderatuta, 2006an geroz eta gehiago dira gizarte-ekonomiako enpresak, hain zuzen ere, 22 gehiago. Beste aldean, lan-sozietate anonimoak daude. Pixkana-pixkana murrizten ari dira eta 2006an 20 gutxiago daude. Azkenik, lan-sozietate mugatuak eta kooperatibak kontuan izan behar ditugu; 2006an 21 gehiago daude.

1.8. Lan-merkatua

Eustaten "Biztanleria Jardueraren Arabera" (BJA) inkestaren datuen arabera, 2006an, okupazioa %1,4 hazi da. Horren ondorioz, 13.000 lanpostu berri sortu dira.

Beste lan-adierazle batzuek, Eustaten hiruhilekoko kontuek edo Gizarte Segurantzaren afiliazio datuek, besteak beste, %2,3ko hazkundea adierazten dute eta joera positibo hori nahiko antzekoa izan da lau hiruhilekoek aurre egin ahala. Bestetik, BJAk enpleguaren hazkunde txikiagoen berri ematen du, eta azken horiek hilabeteteetan zehar aurkeztu duten oszilazioa handiagoa da, baina laugarren hiruhilekoan hiru estatistiken emaitzek bat egin dute.

BJAtik ondorioztatzen den enplegu-tasa 16 eta 65 urte bitarteko populazioaren %66,5ekoa da. Beste hitz batzuetan, ehuneko hori Lisboako Estrategiak 2010erako zehaztutako helburutik (%70) hiru puntu eta erdira dago. Horrenbestez, badirudi geroz eta gertuago gaudela helburu hori betetzetik. Aurrerapen honetan zeresan handia izan dute emakumezko langileek, horien lan-tasa bi puntu hazi baitzen kasik eta urteko batez besteko %57ra iritsi zen. Kasu honetan, beraz, kopuru hori ere emakumeentzako zehaztutako Europako helburutik hiru puntura dago. Denboraren poderioz bi sexuen arteko diferentzialak behera egin duen arren, oraindik ere esanguratsua izaten jarraitzen du. Zehatz-mehatz esateko, gizonezkoek emakumezkoek baino 145.700 lanpostu gehiago dituzte eta, horrenbestez, haien lan-tasa ia 19 puntu handiagoa da. Hala eta guztiz ere, alderdi honetan gertatu den hobekuntza oso nabarmena da, hamarkada honen hasieran bi sexuen lan-tasaren arteko aldea 28 puntu baino handiagoa baitzen.

Bestetik, lanean dagoen populazio kopurua handiagoa da 24 urtetik aurrera, 24 eta 44 urte bitartean, batik bat. Gainontzeko adinetan lan-merkatuan parte hartzen dutenen kopurua eskasagoa da. 2006an lan ordaindu bat egin zuen populazio gazteari dagokionez, heren batek besterik ez zuen LANEK-ek zehazten dituen baldintzetan (erreferentziazko astean gutxienez lanordu bat) lan egin. Beste muturrean, erdiko adin tartea adin horretako pertsonen %80a baino lanerako inkorporazio maila handiagora iritsi da, emakumezkoen geroz eta parte hartze handiagoaren eraginez. Azkenik, urte gehien dauzkan taldearen lan-tasak hobera egin du, Lisboako Estrategiak adin tarte horretarako zehaztu zuen helburua betetzetik (%50eko tasara iristea) oraindik ere urrun dagoen arren (%43,4 laugarren hiruhilekoan eta %41,8 urte guztirako).

Gainera, landunen populazioak gora eta aktiboak, berriz, behera egin duenez gero, langabezian zeuden pertsonen kopurua asko murriztu da 2006an. Zehatz-mehatz esanda, jaitsiera hori %28,9koa izan da eta langabetuen urteko batez bestekoa 40.500koa izan da. Aldi berean, batez besteko langabezia-tasa 2005eko %5,7tik 2006ko %4,1ra jaitsi da. Zifra hori historiako onena da eta, gainera, beste ezaugarri positibo batzuk ere baditu, esaterako bi sexuen arteko desberdintasuna desagertu egin dela kasik. Izan ere, emakumezkoen tasa gizonezkoenaren gainetik dago, baina puntu batean soilik. Datu horiek Eurostatek Europar Batasuneko herrialdeei buruz dituen datuekin alderatuz gero, ohartuko gara 2006an Danimarkak soilik izan duela batez besteko langabezia-tasa txikiagoa (%3,9). %4,5-5 inguruko tasarekin Austria, Luxenburgo, Zipre eta Irlanda ditugu. EBren batez bestekoa, Euro zonaren parekoa ia, %8,3koa da. Bestetik, gazteen langabezia-tasa modu esanguratsuan murriztu da EAEn, 2005eko %13,5etik 2006ko batez besteko %8,1era jaitsi baita. (Europan Danimarkak eta Herbehereek soilik gainditzen duten zifra).

BJAren arabera, kontratu mugagabea duen soldatapeko populazioaren kopurua hazi egin da, eta hazkunde hori %9,5koa izan da 2006ko laugarren hiruhilekoan eta batez besteko %2,8koa urte guztian. Horren ondorioz, aldi baterako kontratua duen populazioaren kopurua murriztu egin da, baina oso gutxi, urteko batez besteko datuak alderatuz gero (%25,3 2006an eta %25,6 en 2005ean) ikusi dezakegun bezala. Hala ere, jaitsiera esanguratsuagoa da laugarren hiruhilekoan kopuru hori %23,3ra murriztu zela kontuan hartzen badugu. Gainera, soldatapeko populazioaren %3,6k ez du kontraturik. Adierazle honi dagokionez, alde izugarriak daude Eropar Batasuneko herrialdeen artean. Bertako batez bestekoa EAEkoa baino askoz baxuagoa den arren (%14,4 EB-27n eta %16,7 EDBn), behin-behinekotasuna ez da apenas existitzen Errumaniako, Lituaniako edota Irlandako lan-merkatuetan, %27,3koa da Polonian eta %34koa Espainian (2005eri dagokionez gora egin duela kontuan hartuta).

EEZPren (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) estatistikaren arabera, mugagabe bihurtutako kontratuak %72,6 hazi dira (63.648tik 79.809ra), behin behineko kontratuak mugagabe bihurtzeko konbertsioen ohiz kanpoko hobari-prozesuaren eraginez. Horrela, kontratu mugagabeen kopurua 2005eko %7,9tik 2006ko %9,4ra igaro da. Era berean, 2006an sinatutako kontratu mugagabeak behin behinekoak baino gehiago hazi dira (%12,4 eta %2,4, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, lan-errotazio sistema-

ri buruzko datuek 2006ko hazkundea nabarmentzen dute, eta 2005ean kontrataturiko pertsona bakoitzeko batez besteko 2,56 kontratuetatik 2006ko 2,64ra igaro garela adierazten dute. Hazkundeak gizonezkoen (9 ehunen) zein emakumezkoen (8 ehunen) artean gertatu dira, baina azken hauen lan-errotazioak gizonezkoenak baino askoz handiagoa izaten jarraitzen du.

Azkenik, EAEko laneko ezbehar-kopuruari dagokionez, Osalanek jasotako datuen arabera 2006an 53.782 lan-istripu gertatu dira, 2005ean baino %3,2 gutxiago (urte horretan ezbehar-kopuruak gora egin zuen, aurreko urteetako joerarekin bat ez zetorrena). Denbora tarte zabalagoa aztertuz gero, azken bost urteetan lan istripuak murriztu egin dira esparru guztietan (batez besteko –%8), eta kasurik larrienei dagokienez batik bat (–%31,8 istripu larrienetan eta –%23,5 heriotza eragin dutenetan).

1.9. Zenbait talde ahulen bizi-baldintzak

Lehenik eta behin, 2006ko Memoria Sozioekonomikoaren edizioak EAEn gizarte arazoak dauzkaten adingabeen bizi-baldintzak ikertu ditu. Hasteko, azpimarratu beharra dago ezinezkoa dela babesik gabeko egoeran dagoen adingabe kopurua zehaztea; izan ere, aipatu egoeretariko asko ez dira ezagutzen, beharrezko neurriak hartu ahal izateko antzematen ez direlako. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren "Haurren babeserako estatistikaren" arabera, Estatuan, gaur egun, batez besteko 1.000 adingabetatik 15 nolabaiteko tratu txar edo axolagabekeria fisiko edo psikikoak nozitzen egon litezke.

Gure Erkidegoko Administrazioaren babesari atxikitako adingabeen adinari eta sexuari dagokionez, Foru Aldundien informazioak, oro har, gizonezkoenganako (55/45) zabarkeria islatzen du, jatorri afrikarra duten eta bakarrik datozen adingabeen kolektiboaren eraginez ziur asko. Adinari dagokionez, lehenik eta behin, babes-espedientea irekita duten adingabeen batez besteko adina geroz eta altuagoa dela nabarmendu beharra dago, informazio eguneraturik ez dugun arren. Eskura dauzkagun datuen arabera, Bizkaian trataturiko adingabeen batez besteko adina 9,6koa da. Kontuan hartu beharreko beste datu bat adingabeak eskatutako babes motaren araberako adina da; izan ere, egoitzetako harrera egoeran dauden adingabeak zaharrenak izan ohi dira orokorrean eta Bizkaiko Lurraldean egoera honetan dauden adingabeen %70 baino gehiago 11 urtetik gorakoak dira. Beste muturrean, adopzio aurreko familia-harrera egoeran dauden adingabeen %69,1 7 urtetik beherakoak dira.

Gizarte arazoak dituzten adingabeen kolektiboari dagokionez, azkenaldian garrantzi berezia irabazi du bakarrik datozen adingabe atzerritarren gaiak. Azken hau nahiko berria da gure Erkidegoan eta erronka handiak planteatzen dizkie adingabeak babesteko eskumena duten administrazioei. Esku hartzeko larritasunak eta beharrak, egoera hauek berriak direla kontuan hartuta, zaildu egin dute beharrezkoak liratekeen baliabideen plangintza. Arartekoaren "Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera EAEn" (2005) ikerketak nabarmentzen du EAEko babeserako zerbitzuek trataturiko adingabe atzerritarrak, orain arte eta oro har, Marokotik datozela. Hala eta guztiz ere, kolektibo hau ez da homogeneoa eta bere baitan profil ezberdinak antzeman daitezke. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuek, adibidez, profilari dagokionez aldaketa bat gertatzen ari dela azpimarratzen dute, gazte hauek geroz eta urte gutxiago baitituzte: 2006an trataturikoen %32k 15 eta 17 urte bitartean zituzten; eta %22k 12 eta 14 urte bitartean. Mantentzen den gauza bat bakarrik datozen mutilen eta nesken arteko aldea da, mutil kopurua (%95 ingurukoa) izugarria baita neskenarekin alderatuz gero.

Gainera, gizarte aurreratuetan, adingabeen babes eza eta ongizatearen gabezia balio ekonomikoetan bata besteari ezinbestean estekatzerik ez badago ere, errealitatean bi arazoak elkarri lotuta daude, eta eskuarki gizarte arazoak dituzten adingabeek pobreziazko egoera bizi dute beren familia ingurunean, eta horri tratu txarrak, droga-menpekotasunak eta minusbaliotasunak gehitzen zaizkio. Zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzaren "2004ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen inguruko Inkestak" ondorioztatzen duenez, pobrezian erortzeko arrisku handiena duten kolektiboen artean, bakarrik bizi diren pertsonen atzetik, guraso bakarreko familietako kideak daude (ongizaterik ez duten pertsona guztien %13,6 eta populazioaren baitan pobrezia-arriskua dutenen %30,4). Bakarrik dauden pertsonak, guraso bakarreko familietako kideekin batera, gure Erkiedegoan eskasia egoeran bizi diren pertsona guztien erdia baino gehiago dira.

Bestetik, Memoria Sozioekonomikoak menpeko pertsonen kolektiboa ere ikertu du, eta baita beren zainketaz arduratzen direnena ere. Horrela bada, honako ondorioetara iritsi dira EAEko zahartzea-menpekotasuna bikoteari dagokionez:

- Urteek gora egin ahala menpekotasuna ere haziz doa eta berau nozitzeko arrisku nagusiak honako hauek dira: emakumezkoa izatea, alarguna, eta diru-sarrera eskasak izatea.

- Eguneroko jarduerak egiteko beste pertsona baten laguntza izatea beharrezkoa zaio zaharren %12 (menpekotasun moderatua eta larria) eta %26 arteri (menpekotasun arina ere aintzat hartuta).
- 75 urtetik aurrera, populazioaren erdiak kasik arazoak ditu eguneroko jarduera batzuk (oinarrizkoak eta instrumentalak) egiteko eta bost pertsonatik batek arazo larriak ditu. Menpekotasuna eta laguntza beharra batez besteko 72 urterekin hasten dira.
- Gizarte aldaketen eraginez, zerbitzu formalen eskaera handiagoa izango lukeen etorkizuna izan genezake. Laguntza informala menpeko pertsonei laguntzeko eredu nagusia izango da hurrengo urteetan, baina denboraren poderioz joera horrek behera egingo du.

Testuinguru honetan, menpeko pertsonak zaintzeko beharrak modu esanguratsuan hazten jarraituko du hurrengo hamarkadetan, demografia-, medikuntza- eta gizarte-ezaugarrien konbinazioaren eraginez. Horien artean aipaturiko populazioaren zahartzea nabarmentzen da, askotan zahartzea eta menpekotasuna elkar lotuz laburbildu ohi dena. Hala ere, sortzetiko alterazioak, gaixotasunak edota istripu larriak izan dituzten pertsonen biziraupen-tasa handiagoak, eta lan eta trafiko istripuen gorakada ere arrazoi gisa kontuan hartzekoak dira.

2006an Eusko Jaurlaritzak "Zainketa informalak EAEn. Pertsona zaintzaileen beharrak" ikerketa egin du eta bertan gure Erkidegoko menpeko pertsonen gutxi gorabeherako kalkulua aurkeztu du. Kalkulu horren arabera, EAEn, egun, 70.000 menpeko pertsona (milako 33) inguru daude eta Eustaten proiekzio demografikoetan oinarrituta, uste da pertsona kopuru hori milako 40koa izango dela 2015ean (urte horretan 87.438 menpeko pertsona egongo dira, eta horien %64,5 emakumezkoak izango dira)

Gaur egun, menpeko pertsonen beharrei buruzko datuek islatzen dutenez, pertsona horien zainketa formala ez da erabatekoa zerbitzu guztietan, menpeko pertsonen beharren estaldura-datuetan oinarrituta, emakume zaharrak kasurik gehienetan. 2005eko EAEko Memoria Sozioekonomikoan argi eta garbi adierazi zen bezala, EAE, menpeko pertsona zaharrentzako gizarte zerbitzuen eskaintzari dagokionez, Estatuaren batez bestekotik hurbil dago. Teleasistentzia-zerbitzuen estaldura (65 urtetik gorakoen %2,3), eguneko zentroak (milako sei) eta egoitza-zerbitzuak (%3,9) batez bestekoaren gainetik daude, baina etxeko arreta zerbitzua (zaharren %1,8) Estatuko batez bestekotik (%3,1) urrun dago. Laburbilduz, zerbitzu nagusien estaldura EAEko zaharren %8,5eraino iristen da eta Estatuan, berriz, batez besteko hori %9koa da. Gaztela-Mantxa (%14,1), Nafarroa (%14), eta Madril (%13,2) dira, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak ikerketa hau egin zuen unean (2004ko urtarrila, eta 2005ean Menpekotasunaren Liburu Zurian argitaratua) posturik onenetan zeuden autonomia-erkidegoak.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren "Familien Inkesta 2004"-ren arabera, zaharrak zaindu beharrarekin lotutako arazoak dauzkaten familiak %8,7 dira EAEn, hots, 64.900 pertsona inguru. Gainera, menpeko pertsonak zaintzearekin lotutako arazoek, azken finean, zainketen karga areagotzen dute eta zaintzaile rolaren gehiegizko saturazioa eragiten, askotan zaintzaileek dinamika estresagarriek itoa sentitzen baitute beren burua. "Zainketa informalak EAEn" aipatu ikerketak ondorioztatzen du zaintzaileen arazoak, zentzu hertsiago batean, familien %6,1eri eragiten diola EAEn, hots, 46.000 pertsona ingururi. Familia horiek "guraso zaharrak zaintzearen ondoriozko gehiegizko lan karga" sentitzen zutela adierazi zuten 2004ko Familien Inkestan.

Argi dago menpeko senideen zainketa ahaidetasunezko harremanen baitan gertatzen dela orokorrean. Nolanahi ere, zainketa horiek arreta osoa eskatzen dute familia ingurunean eta denboraren eta bitartekoen erabilgarritasuna gainditu ohi dute maiz.

Gai honi buruz egindako ikerketa ezberdinak bat datoz etengabe errepikatzen diren eta menpeko pertsonaren zein zaintzailearen profilak zehazten dituzten ezaugarri batzuetan. Lehenengoaren profilari dagokionez, zainketak behar dituen pertsona emakumea izan ohi da gehienetan eta menpekotasunaren hasiera batez besteko 70 eta 75 urte bitartean finkatu ohi da gutxi gorabehera. Laguntza behar hau adinaren araberakoa da, baina eguneroko laguntza beharrak %10 eta %15 bitartean eragiten die pertsona gazteei (65-80) eta %35 eta %40 bitartean 85 urtetik gorako pertsonei.

Zaintzeaz arduratzen diren pertsonei dagokienez, egindako ikerketen arabera, kolektibo honen %77 emakumezkoak dira. 50 urtetik gora izan ohi dituzte eta zainketa-lanak beste lan batzuekin (etxekoak, profesionalak...) batera egiten dituzte. Gainera, zainketa informalak ahaidetasunezko harremanen baitan egiten dira eta denbora asko eta ardura maila handia eskatzen dute normalean. Inkesta bete zuten pertsonen %86,3 zaintzen zituzten pertsonen senideak ziren eta 2 zaintzaileko 1 zaindutakoen seme-alabak izan ohi dira. Eredu hau Euro-

pa Hegoaldeko herrialdeekin bat dator; izan ere, bertan zaharrek familia handia izaten dute eta senideak zaintzeko eta haietaz arduratzeko moduak ere tradizionalagoak dira, Europako iparraldeko eta erdialdeko herrialdeen aldean. Azken horietan estaldura publikoak hedatuago daude.

1.10. Osasuna eta osasun-sistema

Eusko Jaurlaritzaren 2006ko aurrekontua likidatzeko datuen arabera, Osasun Sailaren gastuaren partida %8,8 hazi da aurreko urtearen aldean. Horrela, Osasun Sailak lehenengo postuan jarraitzen du baliabideen ehunekoari dagokionez, EAEko Administrazio Orokorraren guztizkoaren %33,9. Gure Erkidegoan, programa nagusia Osakidetzaren transferentziekin lotutakoa da. Bestetik, Osasun Sailak BPGrekiko duen gastua 2005eko %4,21etik 2006ko %4,25ra igaro da.

Osakidetzak 2006rako zuen aurrekontuko datuen arabera, gastua %0,8 hazi da 2005ean egindakoari dagokionez. Hazkunde hori ustiapen-gastuen hazkundeak eta, bereziki, langileria-gastuenak (%2,3an) eragin du, inbertsioetarako aurrekontua %11,8 murriztu baita 2005eko likidazioari dagokionez. Aurrekontu-plangintzako joera bera errepikatu zen aurreko aldian ere. Osakidetzak BPGrekiko duen gastua 2005eko %3,1etik 2006ko %2,9ra igaro da.

Nazioarteko joerarekin bat etorriz, EAEn zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta neoplasia gaiztoak dira heriotzaren eragile nagusiak. Hilkortasun goiztiarraren eragileei dagokienez, 2005ean, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, honako hauek izan ziren emakumeen artean: bularreko tumore gaiztoak; motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak, buruaz beste egitea eta autolesioak, eta trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak. Gizonen kasuan, berriz, hilkortasun goiztiarren eragile nagusiak honako hauek izan ziren: trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak; motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak, kardiopatia iskemikoa, buruaz beste egitea eta autolesioak.

Asistentzia-jarduera ospitalekoa edota ospitalez kanpokoa izan daiteke eta biak ala biak publikoak edo pribatuak dira. Hori kontuan hartuta, honakoa esan behar dugu:

Baliabideekin eta langileriarekin lotutako adierazleei dagokienez, argitaraturiko azken datuek ondorengoa adierazten dute:

- EAEn, EB-27ko herrialde gehienetan bezala, 100.000 biztanleko doktore eta psikiatra kopuruak goranzko joerari eutsi dio, eta 2000 urtean genituen 261,9 medikuetatik 2005eko 366,1etara igaro gara (Eustaten datuak).
- Ospitaleko ohe kopuruak, EBn (EB-15 eta EB-25), Estatuan nahiz EAEn beheranzko joera aurkezten du. 1998 eta 2002 bitartean, 100.000 biztanleko ohe kopurua 648,9tik 611,3ra igaro da EB-15ean eta 677,4tik 639,1era EB-25en. EAEn, 1998 eta 2004 bitartean, 403,6tik 383,8ra jaitsi da (Eurostaten datuak).
- 100.000 biztanleko dentista kopurua hazi egin da berriro ere, eta EAEn, 2001 eta 2003 bitartean, 60,4tik 64,5era igaro da. Kozienteak Estatukoa (51,5, 2005ean) baino altuagoa izaten jarraitzen du, baina EB-15eko herrialde gehienena eta Europa hedatua osatzen duten herrialdeena baino txikiagoa da (Eurostaten datuak).

Ospitaleko (publikoa eta pribatua) jardueretara mugatuz, Eustaten datuek honakoa erakusten dute:

- Baliabideei dagokienez, 2004 eta 2005 bitartean, ospitale kopurua hazi egin zen, unitate batean, 45 ospitale izatera iritsi arte (18 publiko eta 27 pribatu, aurreko urtean baino bat gehiago); ohe kopurua %1,3 hazi zen, eta guztizko pertsonala %1,8. Guztizko pertsonal sanitarioaren %71 emakumezkoak dira eta %29, berriz, gizonezkoak. Sektorearen feminizazioa pertsonal sanitarioan zein ez sanitarioan mantentzen da, sanitarioan nabarmenagoa den arren (%74,4 eta %61,9, hurrenez hurren).
- Asistentzia-jarduerari dagokionez, jarduera guztiak hazi egin dira, ebakuntza kirurgikoak eta ospitalez kanpoko kontsultak salbu. Bi horiek %2,7 eta %0,7 murriztu dira, hurrenez hurren.
- 100 oheko mediku kopuruak hazten jarraitzen du, ospitale publikoetan zein pribatuetan; 2005ean 100 oheko 45,5 mediku zeuden ospitale publikoetan eta 21,9 pribatuetan. 100 oheko erizaintzako pertsonalak sare pribatuan gora egin ahala, publikoan alderantzizkoa gertatzen ari da.
- 1.000 biztanleko ohe kopurua aurreko urteko ehunekoetan (3,8) mantentzen da. Zifra hori, 2004an, Estatuaren gainetik (3,4) zegoen, Eustaten datuen arabera.
- Ospitaleko okupazio-indizea berriro ere jaitsi da (%84,3tik %83,1ra) eta baita ospitalean egon beharreko batez besteko egun kopurua ere (8,6 egunetatik 8,5era); hala ere, egonkor mantentzen da ginekologian (3,1 egun).

Ospitale publikoaz kanpoko jarduerari dagokionez, Eustaten arabera, aldagaiek duela urte batzuk hasi zuten goranzko joerari eutsi diote.

2005ean, 13,2 milioi kontsulta egon ziren, aurreko urtean baino %2,3 gehiago eta 2002an baino %6,3 gehiago. Hazkunde hori enplegu sanitarioaren hazkundea baino handiagoa da, %1,9an 2004 eta 2005 artean eta %4,3an azken lau urteotan.

- Beste behin, mediku kopuruak gora egin izanak mediku bakoitzeko biztanle kopurua murriztea eragin du medikuntza orokorrean (1.498tik 1.445era igaro gara). Hala eta guztiz ere, joera hori ez da pediatrian errepikatu, bertan mediku bakoitzeko biztanle kopuruak gora egin baitu berriro ere (830etik 834ra).
- Biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua batez besteko 6,2koa da, eta zifra horrek hazkunde berri bat adierazten du aurreko urteei dagokienez. Hazkundea medikuntza orokorrean (biztanleko 4,2 kontsultatik 4,4ra) nahiz pediatrian (6,2tik 6,3ra) gertatu da.

Osakidetzaren ospitaleko eta ospitalez kanpoko jarduerari dagokionez,

- 2006ko batez besteko okupazio-indize orokorrak handia izaten jarraitzen du (%83), 2003ri (%84,4) dagokionez murriztu baldin bada ere. Indize altuenak dituzten espezialitateak ondorengoak dira: digestioarena (%108,1), barne-medikuntza (%105,4), kardiologia (%93,8), kirurgia orokorra (%92,2), traumatologia (%86,6), kirurgia kardiobaskularra (%86,5), psikiatria (%85,6), toraxeko kirurgia (%85,4), kirurgia baskularra (%85) eta neumologia (%83,8).
- Batez besteko egonaldia, egunen arabera, 7,1tik 6,7ra murriztu da.
- Itxaronzerrendan dauden gaixoei eta luzapen-denborari buruzko datuen azterketak ondorengoa adierazten du:
  - Kanpoko kontsultei dagokienez, 2005 eta 2006 artean itxaronzerrendan zeuden gaixoen kopurua murriztu egin da eta 102.069tik 83.027ra igaro da; horrek %18,7ko murriztapena adierazten du. Hala ere, urte tarte zabalagoa aztertuz gero, 2003 eta 2006 bitartean, besteak beste, itxaronzerrendan zeuden gaixoen kopurua %2,12 hazi zen. Gora egite hori honako espezialitate hauen hazkundean oinarrituta egon zen: anestesiologia (%39,91), digestioarena (%21,81), otorrinolaringologia-ORL (%16,1) eta ginekología (%14,21).
  - Luzapen-denborari dagokionez, datuak positiboak dira denborazko bi ikuspuntuetatik, 3 hilabete baino gehiago zein hilabete 1 eta 3 artean itxaron behar duten biztanleen kopurua murriztu egin baita. Horrenbestez, hilabete 1 baino gutxiago itxaron behar dutenen ratioa hazi egin da.
  - Kirurgiarako itxaronaldiari dagokionez, 2005 eta 2006 bitartean gaixo kopurua %1,5 hazi da, eta 15.706 pertsonatik 15.944ra igo da. Hala ere, luzapen-denboraren batez besteko egun kopurua murriztu egin da (55,17 egunetik 51,9ra). Bestetik, ebakuntza eguna iritsi bitartean 3 hilabetetik gora zain egon behar duen pertsona kopurua ere murriztu egin da (%18,25tik %15,5).

Urte tarte zabalagoa aztertuz gero, 2003 eta 2006 bitartean, kirurgiarako itxaronzerrendan zeuden gaixoen kopurua %15,9 hazi da, eta 13.759 pertsonatik 15.944ra igaro da. Luzapen-denboraren batez besteko egun kopurua zertxobait murriztu da, eta 53,8tik 51,9ra igaro da. Bestetik, ebakuntza eguna iritsi bitartean 3 hilabetetik gora zain egon behar duen pertsona kopurua hamarren bat soilik hazi da.

1.11. Hirigintza eta etxebizitza

Eusko Jaurlaritzako Etxebitza eta Gizarte Gaietako Sailaren "Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta EAEn" ikerketaren datuen arabera, azken urtean etxebizitzaren guztizko eskaintza (salmenta eta alokairua) %11,8 hazi da, aurreko urteko %7,9ri dagokionez. Horrela, 18.000 unitateak gainditu ditu laugarren hiruhilekoan. 2004an hasitako eskaintzaren goranzko joera, beraz, 2002-03 biurtekoan merkatuko etxebitza kopuruak bizi izan zuen beherakadaren ostean, egonkortu egin da eta honako ezaugarriak ditu:

- Salgai dauden etxebizitza eraiki berri libreen eskaintza 8.977 unitatekoa da, 2005ean baino %11,1 gehiago. Etxebizitza horien batez besteko prezioa 3.646 €/m^2-koa zen 2006ko laugarren hiruhilekoan, 2005eko batez bestekoa baino %8,2 garestiago. Azterketa etxebizitzako batez besteko prezioetan zentratuz gero, zifra hori 312.000€-koa da EAEn. Prezioa 322.000 €/etxebizitzako da Bizkaian eta 298.000€/etxebizitzako Gipuzkoan. Bien artean dago Araba, 317.000€/etxebizitzako prezioarekin.
- Merkatu babestuari dagokionez, salgai zeuden gizarte-laguntzako etxebizitzen eskaintza amaitu egin da eta etxebizitza horiek alokairuan eskaintzen dira orain.

BOE ereduari dagokionez, guztira 5.065 unitate zeuden eta euren batez besteko prezioa 1.285€/m^2 -koa zen (+%3,2 2005eri dagokionez). Ez dago alde nabarmenik Lurralde Historikoen artean. Etxebizitzako prezioari dagokionez, batez bestekoa 101.000€ -koa da, 105.000 €/etxebizitzako Araban eta 91.000€/etxebizitzako Gipuzkoan. Bizkaiko batez bestekoa 97.000 €/etxebizitzako da.

- Eredu-etxebizitzari erreparatuz gero, bere batez besko prezioa (3.154€/m^2) %13,5 txikiagoa da etxebizitza eraiki berri libreen aldean. Urteko bilakaerari dagokionez, hazkundea gainontzeko eskaintzarena baino zertxobait txikiagoa izan da (+%6,5, %8,2ren aldean). Bestetik, hiriburuetan dauden eredu-etxebitzen batez besteko prezioa 3.739 €/m^2 -koa da, hots, %14,5 txikiagoa hiriburuetan dauden gainontzeko etxebizitza berrien eskaintzari dagokionez.
- Bestetik, bigarren eskuko 6.936 etxebizitzako eskaintza egon da, aurreko urtean baino %6,3 gehiago. Etxebizitza hauek honela banatuta egon dira lurraldeen arabera: Bizkaian %53, Araban %31 eta Gipuzkoan gainontzeko %16. Banaketa hau aurreko urtekoaren antzekoa da. Batez besteko azalerari dagokionez, 88 m^2 -koa da EAEn. Bere batez besteko prezioa 3.637 €/m^2 -koa da, aurreko urtean baino %6 garestiago. Emaitza honek azken urtean prezioek etengabe igotzeari utzi diotela adierazten du, 2005eko urteko tasa %15,7koa baitzen. Etxebizitzaren prezioari dagokionez, EAEko batez bestekoa 321.000 €/etxebizitzako da, 335.000 €/etxebizitzako Gipuzkoan eta 308.000 €/etxebizitzako Araban. Bizkaiaren batez bestekoa 324.000€/etxebizitzako da.
- Gainera, babestutako 1.555 etxebizitzako eskaintza egon da alokairuan, aurreko urtean baino %53 gehiago. Hazkunde garrantzitsu horren arrazoia (portzentajezko balioetan, balio absolutuetan 540 etxebizitza gehiago besterik ez baitira), dagoenekoz esan bezala, 2006ko laugarren hiruhilekoan gizarte-laguntzako etxebizitzak alokairuan bakarrik eskaini izatea da, eta BOEkoak salmentara zuzendu izatea. Eskaintza babestu guztia kontuan hartuta, alokairuaren pisuaren hazkundea nabarmen liteke, salmentari dagokionez. Horrela, 2006ko laugarren hiruhilekoan, eskaintza babestuaren %23,5 alokairurako zen, 2005eko azken hiruhilekoan ehuneko hori %21ekoa zen, eta 2004ko azken hiruhilekoan, berriz, eskaintzaren %11koa. Batez besteko errenta hilabeteko 263€ -koa da. BOE eredua 385 €/hilabeteko da eta gizarte-laguntzako etxebitzen batez bestekoa 141ekoa da. Bilakaerari erreparatuz gero, errenta murriztu egin dela esan daiteke, BOE ereduari (–%3) zein gizarte-laguntzako etxebizitzari (–%4,5 2005ekin alderatuta) dagokionez.
- Bestetik, 2006ko laugarren hiruhilekoan alokairuan eskainitako etxebitza libreen kopurua 578 unitatekoa izan da, aurreko urtean baino 57 gehiago (+%10,9). Lurraldeen araberako banaketa ondorengoa da: Bizkaian %42, Araban %32 eta Gipuzkoan gainontzeko %26. Partikularrenak izanda higiezinen jabetzako agenteen bidez alokairuan eskainitako etxebizitzek hilabeteko batez besteko 820€ -ko errenta dute; kopuru hori aurreko urtekoa baino %1,5 handiagoa da. Horrela, zifra horiek hazkundea moteldu egin dela adierazten dute, salmenten esparruan ere gertatu den bezala. Errenta zati handien araberako etxebizitza-banaketari dagokionez, eskaintza segmentu altuenetara iristeraino desplazatu da, eta hilabeteko 600 euroren (guztizkoaren %12) azpitik dagoen eskaintza oso eskasa da dagoenekoz.

Bestetik, EAEn eraikitzen hasitako etxebizitzen kopuru osoa %2,4 hazi zen 2005ean eta %10 murriztu da kasik 2006an. Guztira, 14.963 etxebizitza eraikitzen hasi dira; horietatik 9.815 (%65,6) libreak dira, 4.828 (%32,3) babes ofizilaekoak eta 320 (%2,1) gizarte-laguntzakoak. Gainera, EAEn 2006an zehar amaitutako etxebizitzak 14.623 dira, aurreko urtean baino %5,9 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen murriztapenaren (–%15) eraginez. Izan ere, azken horiek ez dute lortzen babestutako etxebizitzen datu positiboak berdintzea: 2006an 4.829 etxebizitza babestu amaitu ziren (+%20); horien %82,8 babes ofizialekoak ziren eta gainontzeko %17,2 (guztira 828 etxebizitza, 2005ean baino %21,8 gehiago) gizarte-laguntzakoak. 2006ko datuen arabera, azkenik, etxebizitza babestuak EAEko etxebizitza-merkatuan joera positiboa du. Horren ildotik, amaitutako etxebizitzen artean babestutako etxebizitzen pisua %25,9koa izatetik %33koa izatera igaro da eta, aldi berean, azken urte honetan hasitako babes ofizialeko eta gizarte-laguntzako etxebizitzen pisua %27,8tik %34,4ra igaro da.

Datu horiekin lotuta, etxebizitza eskaria edo beharra ia %20 hazi zen 2005ean, baina 2006an %7,2 murriztu da balio orokorretan. Izan ere, Eusko jaurlaritzaren "EAEko Etxebizitzaren Beharren eta Eskariaren Oinarrizko Inkestaren (2006)" arabera, eskaria egonkortu egin da, honako adierazleei erreparatuz gero egiazta daitekeen moduan: beren lehenengo etxebitza lortu nahian dabiltzan familien ehunekoa (%11), ohiko etxebitza utzi eta beste batera bizitzera joan nahi dutenen ehunekoa (%6), eta birgai-

tze-lanak behar dituzten etxebizitzen ehunekoa (%14,4). Hori guztia zehaztasun osoz jasota dago Gogoetak -eko 2.11 atalean eta Memoria honetako "Hirigintza eta Etxebizitza" kapituluan.

Finantza-esfortzuari dagokionez, interes-tasen beherakadak (2005eko erdialdera arte) izan lezakeen efektu garbia eta etxebizitza libreen prezioen hazkundea baloratzea ez da lan erraza, baina egon badaude etxebizitza bat eskuratzeko ahalegina handitu egin dela azpimarratzen duten adierazleak. Beren lehenengo etxebizitzaren atzetik dabiltzan gazteen kasuan, nabarmentzeko modukoa da, Oinarrizko Inkestan erantzun zutenaren arabera beti ere, 2006an 8 urtetako soldata eskaini beharko lioketeela arrazoizko prezioa duen etxebizitza bat erosteari; 1996an, berriz, 5,5 urtetako soldata eskaini behar zioten.

1.12. Pobrezla eta gizarte-baztertzea

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak lau urtez behin "Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta" (PGDI) egiten du. Horri esker, pobreziak gure gizartean duen pisua ezagut dezakegu, pobrezia bera eragiten duten arrisku-faktoreak eta baita bere banaketa geografikoa ere. Balio absolutuetan, 2004ko Inkestaren emaitzen arabera, 45.000 etxebizitza nolabaiteko pobrezia egoeran daude, eta horietan guztietan 100.000 pertsonatik gora bizi dira. Egiazko pobreziak 25.000 familia ingururi eragiten dio EAEn eta muturreko pobreziak, berriz, 4.000 familiari. 175.000 etxebitza eta 400.000 pertsona baino gehiago ongizaterik ez izateko arriskuan daude.

Inkesta honek, era berean, pobreziaren maila objektiboak eta EAEko populazioak pobreziaz daukan ideia alderatuz, bi adierazleen artean korrelazio zuzena dagoela adierazten du. Horrela, adibidez, objektiboki mantenu-pobrezian erortzeko arriskuan dauden pertsona gisa definiturikoen %3,2k eta ongizaterik ez izateko arriskuan dauden pertsona gisa definiturikoen %13,7k soilik lotzen dute euren burua egoera erosoan sentitzen diren etxeekin, baina ehuneko hori %51,8koa da ongizatearen atalasaren gainetik dauden etxeetako pertsonei dagokienez. Bestetik, ongizate egoeran dauden etxeetako pertsona gehienak eroso sentitzen diren bezala, pobreak ez izan arren diru-sarrerekin arazoak dituzten pertsona gehienak aurrera egiteko "ahal duten moduan moldatzen diren" etxeetakoak dira (%69,3).

Mantenuaren pobrezia-ongizatea eskalaren baitan dauden taldeen arteko desberdintasunak nabarmenak dira beste adierazle batzuk erabiltzen baditugu ere. Horrela, pertsona pobreen %53,8 hilabete amaierara iristeko zailtasun batzuk edo asko dituztela esaten duten familietakoak (%89,7) diren moduan, pobreak izan ez arren ongizatearen atalasearen azpitik dauden pertsona gehienek (%45,1) zailtasun gutxi batzuk badituztela adierazten dute (%26,3); bestetik, ongizate egoeran dauden etxeetako %69k hilabete amaierara erraz iristen direla diote. Horrenbestez, mantenuaren pobrezia-ongizatea eskalan ezarritako egoera objektiboek zehaztasun handi samarrez diskriminatzen dituzte biztanleak, pobrezia gainditzeko eta ongizatezko mailetara iristeko duten egiazko gaitasunaren arabera.

Testuinguru honetan, ongizatezko maila bakoitzeko oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko diru-sarrerakin lotuta, goieneko taldean pobreziaren gutxienekoa dena, ongizatearen gutxienekotik gertu dago azpiko hurrengo taldean. Horrela, unitate baliokide bakoitzeko 584,88 euroek, pobrezian erortzeko arriskuan dauden etxeek hilabetearen amaierara iristeko finkatzen dituzten gutxieneko diru-sarrrerek, oso gutxigatik gainditzen dituzte 553,67 euroak, ongizaterik gabeko egoeran erortzeko arriskuan dauden etxeek oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko bezala finkatzen dituzten diru-sarrerak. Aipatu ezaugarria, mailarik gorenenetan dauden bi taldeen diru-sarrerak aztertzean ere ageri da. Horrela, unitate baliokide bakoitzeko 744,73 euroek, ongizate egoeran ez dauden etxeek hilabete amaierara iristeko gutxieneko diru-sarrera gisa finkatzen dituztenek, gutxigatik gainditzen dituzte 733,32 euroak, laguntza gutxieneko etxeek oinarrizko premiak asetu ahal izateko finkatzen dituzten diru-sarrerak.

Azkenik, pilaketa-adierazleko datu objektiboen eta pertzepzio subjektiboaren arteko asoziaziorik nabarmenena, etxebizitzako erosotasunen balorazioa aztertzerakoan antzematen da. Zentzu honetan, etxe bakoitzak pobreziaren eskalan duen postuaren arabera, halakoxea izango da etxe bakoitzaren erosotasunen maila. Zehatzmehatz esanda, pilaketazko pobreziako etxeetan bizi diren pertsonen %93,8ak etxebizitzaren egoerak eskas edo guztiz desegokitzat (%22,2k eskasak direla uste du eta %71,7k guztiz desegokiak direla dio) dituzte. Gauza bera diote erdi mailako egoeran dauden etxeetako pertsonen %12,2k eta guztizko ongizate egoeran dauden etxeetako pertsonen %0,6k.

1.13. Gizarte-babesa

2006. urtean, EAEn, langabeziarengatik 44.900 pertsona izan ziren prestazioen onuradun, hau da, aurreko urtean baino %0,9 gehiago. Seigarren urtez pertsona hartzaileen kopurua hazi egin da, 90eko hamarkadan asko murriztu ostean. Estatuan, berriz, 2006an hartzaileen kolektiboa %3,8ko tasaraino hazi da. Horrenbestez, pertsona onuradunen zenbateko osoan EAEk duen parte hartzea murriztu egin da, eta %4tik %3,9ra igaro da. 44.900 pertsona horietatik, %54,1 Bizkaian bizi dira, %31,8 Gipuzkoan eta gainontzeko %14,1 Araban. 2006ko datuen arabera, pertsona hartzaileen %67 ordaindutakoaren araberako prestazioen hartzaileak ziren, %32 subsidioen hartzaileak eta gainontzeko %1ek Birgizarteratzerako Errenta Aktiboa jasotzen zuen.

Prestazioen onuradunak izan diren pertsonen bilakaerak, langabeziarekin lotutako zifrekin batera, gizonezko zein emakumezkoen langabeziaren estaldura-tasak handitzea eragin dute, eta tasa horiek %72,1ekoak dira gizonezkoen kasuan eta %52koak emakumezkoen kasuan (aurreko urtean %65,7koak eta %45,2koak izan ziren, hurrenez hurren). Guztira, %60,2ko estaldura-tasa erdietsi da, aurreko urteko %54koaren aldean.

Era berean, 2006an, EAEn, 476.542 pertsona Gizarte Segurantzaren pentsio ezberdinen onuradun izan dira. Zifra horrek %3,2ko hazkundea adierazten du 2005eri dagokionez. Aurreko bi urteetan, berriz, kopuru hori tasa txikiagoetaraino hazi zen, %0,9tik %1,7ra, hurrenez hurren. Azken urteotan gertatzen ari den bezala, hazkunde hori ordaindutakoaren araberako prestazioen onuradunak diren pertsonen bilakaerak (+%3,4) eragiten du. Izan ere, bestelako modalitateetan, intentsitate desberdinak dauden arren, pertsona hartzaileen kopurua murrizten ari da. Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoek EAEn guztira %21,7 pertsona estaltzen zituzten 2005ean eta 2006an, berriz, %22,3.

Ordaindutakoaren araberako pentsioen batez besteko zenbatekoa, 940,5 euro, %4,5 hazi da 2006an, aurreko urteko %5,3rekin alderatuz gero. Guztira 5.261 milioi euro gastatu dira, hau da, 2005ean baino %7,2 gehiago. Ordaindutakoaren araberakoak ez ziren pentsioen zenbatekoa 40,7 miloi eurokoa izan da. Beste hitz batzuetan, %3,9 hazi dan eta, era berean, hilabeteko batez besteko zenbatekoa %4,8 hazi da 2005eri zegokionez. Azkenik, laguntzako pentsioak batez besteko %0,7 hazi dira beren balio orokorretan, eta beren zenbatekoa %6,5 murriztu da 2006an. Horien hartzaile kopuruak behera egin du berriro ere, 2005ean baino proportzio txikiagoan izan arren (–%7,1, 2005eko –%13,6ren aldean). LISMI (Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legea) Subsidioei dagokienez, onuradunen kopurua %8,2an murriztu da eta guztizko zenbatekoa %15ean.

Guztira, pentsioen gastua 5.307 milioi eurotaraino hazi zen 2006an, hasiera bateko behin-behineko hurbilketa baten arabera. Zifra horrek %7,1eko hazkundea adierazten du 2005eri dagokionez eta, beraz, BPGren gainean islatzen duen proportzioa lau ehunekotan murriztu da (2005eko %8,61tik %8,57ra).

Bestetik, EAEn, pobreziaren, marjinazioaren eta gizarte-esklusioaren aurka borrokatzeko baliabide nagusien artean, Oinarrizko Errenta eta GLL-ak (gizarte-larrialdietarako laguntzak) ditugu, hau da, Pobreziaren aurkako Plan integralean jasota dauden gutxieneko dirusarrerak bermatzen dituzten programak. Horietaz gain, gizarte-, heziketa- eta lan-txertatzearekin lotutako programak ere badaude, esku hartzen duten aldeen (txertatze-enpresak sortzea aztertzen ari dira), udalen eta esklusio egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko akordioen bidez.

2006an Oinarrizko Errenta jasotzen zuten etxeen kopurua 33.824koa izan da, eta horrek %6,8ko hazkundea adierazten du aurreko urteari dagokionez (2005ean bizikidetzako 31.654 unitatez arduratu ziren). Lurraldeka, Bizkaian daude titular hartzaile gehienak, hots, 24.218, EAEko guztien %71,6. Gainera, 2005ekin alderatuta unitate hartzaileen kopuruak izandako hazkundea Bizkaian nabarmendu da baita ere. Horrela, kopuru hori %8,9 hazi da aurreko urteari dagokionez. Araban, berriz, %0,6 murriztu da eta Gipuzkoan %3,9 hazi da.

2006an Oinarrizko Errentari dagokionez ordaindutako zenbateko guztia 153,7 milioi eurokoa izan da (2005ean baino %14,35 gehiago). Bizikidetzako Unitate hartzaile bakoitzeko batez besteko zenbatekoa hilabeteko 461,21eurokoa izan da, eta hori 2006rako ezarritako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren %73 da (ohiz kanpoko ordainketen hainbanatzearekin batera). Oinarrizko Errentari dagokionez ordaindutako zenbatekoen lurraldekako banaketa, logikoki, unitate hartzaileen kopuruekin bat dator, eta, horrenbestez, exekutaturiko gastuaren ehunekorik handiena Bizkaiari dagokio (guztiaren %76), atzetik Gipuzkoa (%14,5) eta Araba (%9,5) dituela.

Azkenik, 2006an Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak jaso zituzten 26.094 titular hartzaile egon ziren, aurreko urtean baino %7,4 gehiago. Aipatu titular hartzaile horietatik, 15.765 (guztien %60,4) Bizkaian zeuden, 5.976 (%22,9) Gipuzkoan eta 4.353 (%16,7) Araban. 2006an Gizarte-Larrialdietarako Laguntzei zuzendutako zenbatekoa (Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren aurrekontuen kargura) 35 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino 5 milioi gehiagokoa; horrek %16,6ko hazkundea adierazten du aurreko urteari dagokionez. Onuradun bakoitzeko 2006an ordaindutako batez besteko zenbatekoa 1.341 eurokoa izan da, 2005ean baino %8,5 gehiago.

Gogoetak

2.1. Demografia eta inmigrazioa

Amatasuna etengabe atzeratzea, azken urteotan EAEko jaiotza-tasaren murriztapena eragin duen arrazoietako bat da. 2005ean joera berari eutsi zaio eta gure Erkidegoko amen adina aurreko urtekoa baino altuxeagoa da. 2005ean seme-alabak izan zituzten emakumezkoen %76,6k 30 urte baino gehiago zituen. Talderik ugariena 30 eta 34 urte bitarteko emakumezkoena (%45,6) da, 2004an ere gertatu zen bezala. 35 urte baino gehiago dituzten ama kopurua (jaiotzen %31), berriz, hazi egin da. Ama guztien batez besteko adina 32,2 urtekoa da eta beren lehendabiziko seme-alaba duten amena 31,1 urtekoa. Horrenbestez, EAEn bizi direla lehen seme-alaba duten amak EBko zaharrenak dira.

Izan ere, azken urteotan, familiak bizi izandako aldaketek eta azken horiek ugalkortasun-tasetan izandako efektuak geroz eta interes publiko handiagoa piztu dute, horrek guztiak eragin lezakeenaren ondorioz. Emakumezko gazteek erabaki zaila hartu beste erredиorik ez dute seme-alabak edukitzeari dagokionez, umeak izateko adinik aproposenak eta lanean aritzekoak bat baitatoz.

2003an, etxebizitzen %44an seme-alaba adingabeak bizi arren, bikoteko bi kideak lanean ari ziren. Hala ere, tasa hori EBren batez bestekoaren (%59) oso azpitik dago oraindik. Egoera horrek bizikidetzako unitateetan arazo berriak eragin ditu, ordaindutako lana eta familia bateragarri egiteari buruzkoak. Lanaren eta familiako bizitzaren arteko auzi horrek bi momentutan du pisu berezia: alde batetik, umeak txikiak direnean, baina, beste aldetik, geroz eta ohikoagoa den moduan, baita menpeko pertsona zaharrak zaindu behar direnean ere.

Arazo horiek arintzeko, Eusko Jaurlaritzak "Seme-alabak dituzten gurasoei laguntzeko I Erakunde arteko Plana" martxan jarri zuen 2002an. Planaren helburua, nahi adina seme-alaba izateko gurasoek dituzten ekonomia-, gizarte- eta lan-oztopoak gainditzen laguntzea zen. Planaren iraunaldia amaitu ostean egindako balantzearen arabera, 2002 eta 2005 artean 220 milioi eurotik gora gastatu dira ondorengo hiru neurrien esparruan: haur-eskolak finkatzeko gastua (%34), euren seme-alaben jaiotzaren edota adopzioaren ondorioz, familei emandako laguntza ekonomikoak, (%30,7) eta lana eta familia bateragarri egiteko langileei emandako laguntzak (%23,9). Gainontzeko neurriak —sentsibilizazioa, enpresei emandako laguntza ekonomikoak, eta haur-hezkuntzako zentroetara sartu ahal izateko prestazioak— Planak eragindako gastuen zati txikia dira. Gainera, nabarmentzekoa da estaldurarik handiena jaiotako haurrekin lotutako laguntza ekonomikoek dutela eta atzetik daude haur-hezkuntzako zentroetako plazak. Hala ere, esan beharra dago tarteen arteko desberdintasunak handiak direla eta, gainera, plaza horiek bateragarritasuna ahalbidetzen duten prestazio nagusiak diren arren, Plana indarrean egon den bitartean neurriei zegokienez zuten pisua arian-arian murriztuz joan dela

2

(%57tik %52ra). Horrenbestez, hainbat gizarte agentek arlo honetan gabezia bat dagoela ohartarazi dute, eta Kontseilua bat dator gizarte agente horiekin.

Bestetik, denbora tarte laburrean, nazioarteko migrazioak nazioarteko garapenerako agenda politikoaren gai nagusienetakoa izatera igaro dira, eta hori gaur egungo gizarteko etaparen eta munduko ekonomiaren adierazle bihurtu da. Migrazioak EAEri ere eragiten dio, eta bertako kultura-aniztasuna hazten ari da, azken urteotan gure Erkidegora geroz eta populazio-talde gehiago etorri baitira. Oraindik ez gara hurbileko beste gizarte batzuen mailara iritsi, baina atzerriko etorkinen kopurua asko hazi da azken urteotan EAEn. Horrek lurraldeen arabera zehatzmehatz banatuta dagoen aniztasuna eragin du.

Eusko Jaurlaritzak egin berri duen Txosten baten arabera, EAEko biztanleen %42k uste dute beste herrialde batzuetatik etorri eta EAEn bizi diren pertsonak "nahikoa direla, baina ez gehiegi", %36k uste dute "gehiegi" direla, eta %8k uste dute "gutxi" direla. EAEn bizi diren pertsonen batez besteko %21 atzerritarrak dira, eta Estatuan ere antzeko ehunekoa errepikatzen da (%20). EAEren zein Espainiaren kasuan, tasa horiek etorkin kopuruari buruzko datu errealen oso gainetik daude.

EAEko biztanleok atzerriko etorkinak tratatzeko dugun jokabideari dagokionez, mesfidantzaz (%37), adeitasunez (%28) eta axolagabetasunez (%16) trataten ditugu batik bat; askoz proportzio txikiagoan, EAEkoak balira bezala (%5), mespretxuz (%4) edo agresibitatez (%1). Era berean, EAEko biztanleen %90k pertsona orok edozein herrialdetan bizitzeko eta lan egiteko askatasuna izan beharko lukeela diote, herrialde hori berea izan ez arren. Orokorrean, biztanleen %40ren arabera, inmigrazioak EAEn abantaila gehiago ditu desabantailak baino, %17ren arabera abantaila bezainbeste desabantaila ditu, eta %26ren arabera desabantaila gehiago ditu abantailak baino.

Gainera, EAEko biztanleak, oro har, atzerriko etorkinek izan litzazketen eskubideen aldekoak dira; hala eta guztiz ere, eskubide batzuekiko onespena beste batzuekikoa baino zabalagoa da. Hezkuntzari dagokionez, %60k uste dute etorkin guztiek eskubide hori izan beharko luketela; osasun-laguntzari dagokionez, tasa hori %54ra murrizten da. Beste eskubide batzuei dagokienez, azken horien alde dagoen jendearen ehunekoa txikiagoa da: %29k uste dute etorkin guztiek gizarte-laguntzak eskuratzeko eskubidea izan beharko luketela (bekak, laguntzak seme-alabengatik, oinarrizko errenta, langabeziako sorospena...) eta %20k soilik uste dute babes ofizialeko etxebizitzen zozketatan gainontzeko biztanleek dituzten baldintza berekin parte hartzeko eskubidea izan beharko luketela. Bestetik, populazioaren erdiak baino gehiagok uste du etorkin atzerritarrek euren familiak ekartzeko eskubideak (%65) eta bozkatzeko eskubideak (%64) legezkoak izan beharko luketela.

2.2. Hezkuntza

Pozgarria da jakitea, Eustaten datuen arabera, unibertsitate aurreko matrikulazioak, EAEn, goranzko joerari eutsi diola, suspertze demografikoak 12 urtetik gorakoei eragin ez dien arren.

LHn matrikulaturiko nesken kopurua hazten ari da, baina, tamalez, oraindik ere mutilena baino txikiagoa da eta Ile-apainketa eta estetika, Gizartearentzako zerbitzuak, Osasuna, Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza eta Administrazioa espezialitateetan biltzen da.

Titulartasunean eta hizkuntza-ereduetan oinarrituta-ko hezkuntza sareen banaketak, garrantzi handiagoa du EAEn honako ezaugarrien arabera:

- B eta D ereduetan ikasteko eskaria. Hala ere, gaur egungo eztabaida ez da unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan euskararen normalkuntza linguistikoa egiteari buruzkoa (horrek goranzko joera izan baitu), emaitzei buruzkoa baizik. Euskarazko kurrikuluaren eremua aztertzeko hainbat probatan emaitza txarrak lortu dira, baina ISEI-IVEIk (Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) azpimarratzen duen bezala, ezin esan daiteke hizkuntz-ereduak direnik emaitza txar horien arrazoi bakarra. Izan ere, hizkuntza baten ikaskuntza-prozesua ezaugarri pertsonalei, emotiboei, afektiboei, erlaziozkoei eta motibagarriei oso lotuta dago, eta baita hizkuntza erabilgarria den erreminta gisa ikusteko moduari ere.

  Laburbilduz, pertsona eleaniztunez osatutako gizarte euskaldun baten jarraipena bermatzeko, eskolako lanari gizarteko eragileon ahalegin bateratuak gehitu beharko zaizkio.
- Sare pribatuaren esangura berezia.

  Sare bakoitzari zegozkion ehunekoak 1994an kuantifikatu ziren, Hezkuntza Erreforma martxan jartzeko eskola-plangintza egin zenean. Sare publikoaren kasuan, 3-16 urte tarterako %48,8ko kuota finkatu zen eta %58,9koa derrigorrezko hezkuntzaren ondoko tarterako. Eustatek argitaraturiko azken datuen arabera, sare publikoko heziketa ziklorik baxuenetan matrikulaturiko ikasleen ehunekoa (haur eta lehen hezkuntza, eta DBH) hazten ari da azken urteotan, eta %47,5koa izan da 2005-06 ikasturtean. Mailaren arabera, ikus daiteke Lehen Hezkuntza dela, matrikulazio publikoaren %48,4rekin, aipatu helburura gehien gerturatzen dena. DBHOri dagokionez, helburura iritsi bitarteko tartea (%58,9) 6 puntukoa da. Egia esan, erdi mailako LHko matrikulazioa hurbiltzen zaio soilik, sare publikoan matrikulaturiko ikasleen %57,4rekin.

Goi Hezkuntzako matrikulazio kopuruak (lehenengo, zein bigarren eta hirugarren zikloetan) behera egin du; . Hala ere, unibertsitateko populazioak, 18 eta 25 urte bitarteko guztizko populazioarekiko, gora egin du eta hori pozgarria da.

Hezkuntza-adierazleei dagokienez, Kontseiluak honakoak nabarmendu nahi ditu:

- Goi hezkuntza bukatu duen populazio helduaren kopurua, 2005. urtean, EAEn, ELGAren batez bestekoaren gainetik dago, ELGAren "Education at a Glance, 2006" txosteneko 2004ko datuen arabera; era berean, BAIn oinarrituta (Biztanleria Aktiboaren Inkesta) 2005ean erdietsitako heziketa mailaren araberako langabeziatasei erreparatuz gero, aipatu tasak, heziketa mailarekin batera, beheranzko joera duela ikus dezakegu. Aurreko urteetan ezaugarri hori ez zen hain nabarmena Lehen Hezkuntzatik Bigarrenera edota Lehenengotik Goikora igarotzeko orduan.
- AOBIko matrikulaturiko zenbakizko ikasle kopurua (MZI/AOBI), UPV-EHUn, Estatuko batez bestekoaren azpitik dago (12,82 eta 14,5, hurrenez hurren), CRUEk 2006an argitaraturiko txosten baten arabera.
- EAE ez dago lehendabizikoz lehen eta bigarren zikloetan matrikulaturiko kredituaren prezio publikoa historikoki gehien hazi den autonomia-erkidegoen artean; MECen eta Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren arabera, egun (2006-07 ikasturtean), EAE, espezialitate garestienari zein merkeenari dagokion kreditua preziorik onenean eskaintzen duten bost autonomia-erkidegoen artean dago.
- Hirugarren zikloko kredituaren prezio publikoari dagokionez, espezialitate garestienari erreparatzen badiogu, EAE, 2006-07 ikasturtean, aipaturikoa preziorik baxuenean eskaintzen duten hiru atonomia-erkidegoen artean dago.
- Eusko Jaurlaritzaren 2006ko aurrekontuko likidazioaren datuen arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zuzendutako gastu partida %5,8 hazi zen 2005eri dagokionez. Hala ere, BPGri dagokionez, gastua %3,5eko tasan mantentzen da.
- Dagoenekoz aipatu dugun CRUEren txostenaren arabera:
  - Euskal Herriko Unibertsitateak, bere jarduera ikertzailearen ondorio gisa, 7.625 euro sartu zituen arduraldi osoko baliokidetasunezko irakasle bakoi-

tzeko (AOBI-PETC). Estatuko batez bestekoa 9.851 €/AOBI-koa da unibertsitate publikoetan.
  – EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileekiko matrikulaturiko zenbakizko ikasleen ratioa (MZI/AZL) eta administrazio eta zerbitzuetako langileekiko arduraldi osoko baliokidetasunezko irakasle kopurua (AOBI/AZL) azterturiko guztien gainetik daude.
- 2004. urtean UPV-EHUk ikasle bakoitzaren inbertsio errealerako bideratu zuen zenbatekoaren (839) azpitik, honako erkidegoetako unibertsitate publikoak besterik ez daude: Gaztela-Mantxa, Errioxa eta Extremadura.
- Espezialitate merkeenari erreparatuz gero, hirugarren zikloko kredituaren prezio publikoa garestienetarikoa da, Valentziakoaren, Andaluziakoaren, Nafarroakoaren eta Kataluniakoaren atzetik.
- MECen datuen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak BPGrekiko duen gastu publikoa %3,7koa da EAEn. Estatuaren batez besteko gastu publikoa, berriz, %4,3koa da.

2.3. I+G+B ETA IKT IZENEKOEN JARDUERAK

I+G+Ben adierazle nagusiek (ahalegina, gastuari dagokionez enpresa sareak duen dinamismoa, jarduera hauetarako langileria...) EAE Estatuko autonomia-erkidego dinamiko eta berritzaileenen artean kokatzen dute.

- Eustaten datuen arabera, sektore pribatuak (zentro teknologikoak salbu) I+G gastuaren zatirik handiena gauzatzen jarraitzen du eta finantza-iturri nagusia ere bada. Enpresek gastuaren %57,6 gauzatzen dute eta finantza-balioetan Bartzelonako helburutik hiru puntura daude: sektore pribatuak gastuaren %66 finantzatzea.
- Pozgarria da I+G jardueretan dagoen langile kopuruak hazten jarraitzen duela ikustea. Are gehiago, kopuru hori Estatuan eta EBn erregistraturiko balioen gainetik dago, arlo honetan dinamikoenak diren herrialdeetaik gertu. AOPn (Arduraldi osoko baliokidetasuna) neurtuta, 2005ean biztanle okupatuen ‰13,1 -era iritsi zen Estatuan eta EBn, berriz, ‰10,3 -era.
- EINen datuen arabera, azken urteotan, Estatuan 250 baino langile baino gutxiagoko enpresek jarduera berriztatzaileen gastuan izan duten parte hartzeak behera egin du, 2003ko %46,3tik 2005eko %40,4ra igaro baita. EAEn, berriz, ETE-ek duten pisua 2003ko %38,4tik %52,8ra igaro zen 2005ean.

Hala ere, Eustaten datuen arabera, azken urteotan I+Gren ahalegina mantendu egin da EAEn, %1,44 gaindi-tzen ez duten ehunekotan egonkor, oro har. Berrikuntza teknologikorako jardueren gastu guztia egonkor mantendu da 2004 eta 2005 artean; BPGren %3,8 adierazten du, 2003koa baino ehuneko (%3,9) txikiagoa.

Era berean, 2004. urtean, gutxi gorabehera, I+Gn manufakturiko gastuaren %70 I+G erdi-goi mailako intentsitateko sektoreetan biltzen zen, eta %21, berriz, erdi-behe mailako intentsitateko sektoreetan. 2004 eta 2005 artean, erdi-goi mailako intentsitateko sektoreek 2 puntu galdu zituzten erdi-behe mailakoen mesederako. Bestetik, informatika jarduerek eta I+Gkoek, zerbitzu-sektoreari lotuta daudenek, beren pisua mantentzen dute gastu osoan, eta bien artean %19,3 ingurura iristen dira.

2001-2003 tartean, berrikuntzarako kooperazioa oso txikia da 10 langiletik beherako establezimenduetan; 10 langilekoetan edo hortik gorakoetan txikia izaten jarraitzen du, berrikuntzak egin dituzten establezimenduen %20ri soilik eragiten baitio. Eurostaten datuen arabera, 2002-2004 tartean, EB-27n, ehuneko hori, %26koa zen.

Eustatek egindako Europako Berrikuntza Indizearen (SII) arabera, EAE ondorengo arrazoiengatik nabarmentzen da:

- Zientzia eta ingeniaritza ikasketak (bigarren mailako LH barne) egin dituztenen ratioa oso handia da, 20 eta 29 urte bitarteko mila gazteko 26,1ekoa, hain zuzen ere. Europako tasa milako 12,7koa da.
- Enpresa berritzaileek Europako batez bestekoaren gainetik dagoen finantziazio publikoa jasotzen dute (%13,6koa, Europako %10,6rekin alderatuta). Hala ere, Eustaten datuen arabera, finantziazio publikoa jaso duten enpresa berritzaileen kopurua murrizten ari da, eta 2001-2003 aldiko %36,8tik 2002-2004ko %29,8ra igaro da, eta hortik 2003-2005 aldiko %27,9ra.
- 10 eta 249 langile bitartean dituzten enpresa berritzaileek barneko berrikuntzak egiten dituzte Europako batez bestekoaren gainetik (%26,7 eta %25,4, hurrenez hurren). 10 langile edo 10 langiletik gora dauzkaten enpresek salmenten gaineko berrikuntzetan egiten duten gastua zertxobait txikiagoa da (%1,6 eta %2 EB25ean).
- 25 eta 64 urte bitartean heziketa iraunkorra jasotzen duten biztanle-tasarik baxuena du (EAEn %4,9k eta EB-27n %11k).
- Industrian erdi eta goi mailako teknologiako I+G inbertsioa, I+Gren gastu osoaren aldean, txikiagoa da: %71koa EB-27ko batez besteko %89,2rekin alderatuz gero.

- Europako instituzio publikoek BPGren %0,65 I+Gn gauzatzen dute, eta EAEren kasuan ehuneko hori erdira murrizten da (%0,3). Dena dela, sektore pribatuan, gauzatze hori nahiko antzekoa da bien kasuan; %1,14koa EAEn eta %1,20koa Europan.
- Beste enpresa eta instituzio batzuekiko kooperazioa eta goi-teknologiako enpresen esportaziorako joera txikiagoak dira EAEn Europan baino.
- Inskribaturiko diseinuak eta markak Europako batez bestekoaren gainetik daude (%24 eta %18 gehiago), baina Europako patenteen bulegoan (EPO) inskribaturiko patenteei dagokionez, EAE europako tasaren erdira iristen da, bosten bat bihurtzen dena patenteen bulego amerikarrean (USPTO) formalizatzen direnak kontuan hartuz gero.

Horrenbestez, komenigarria dela uste dugu, berrito ere, I+G+Bri baliabide publiko gehiago eskaintzea. Baliabide horiek, gure ustez, hurrengo ezaugarriak aintzat izan beharko lituzkete:

- EAEko egitura ekonomikoaren oinarrian dagoen produkzio-sarearen beharrak ezagutzea eta, beraz, ahaleginak emaitzak lortzera bideratzea.
- Gure Erkidegoak arrakastarik handiena zein sektore gainerakorretan izan lezakeen zehaztea, eta ahaleginak sektore horien inguruan biltzea, sakabanatzea saihestuz.
- Helburuak betetzen direla ziurtatzeko, ekintza-lerroen jarraipena egiteko beharra, eta beharrezkoa den kasuetan, helburuak egokitzea.

IKT izenekoei dagokienez, asko pozten gaitu EAE IKT-ak biztanleen artean barneratzeko autonomia-erkidego dinamikoenen artean dagoela jakiteak; gainera, EAE postu onean dago Europar Batasuneko banda zabaleko konexioari dagokionez (15 urtetik gorako biztanleen %33,1 EAEn eta %32 EBn). Hala ere, batez bestekoaren azpitik dago interneterako sarbideari dagokionez (%45,7, Europako %51ren aldean) eta urrun dago lehen postuetan dauden herrialdeetatik: Suedia, Finlandia, Danimarka, Alemania eta Erresuma Batua; urrun dago, halaber, Europar Batasunean sartu berri diren herrialde batzuetatik ere, horien artean Eslovenia eta Malta.

Horregatik guztiagatik, uste dugu geroz eta garrantzitsuagoa dela informaziorako eta komunikaziorako teknologia berrien *erabilera* kolektibo pasiboenen artean (seme-alabarik gabeko familiak edo bakarrik bizi diren pertsonak, zaharrak, eta kualifikazio eta lan-egonkortasun eskasak dituzten taldeak) sustatzea. Gainera, konexiorako aukera egokien, edukien eta banaketaren arteko konbinazioan oinarritutako politika publiko batek, IKTen irabaziak handiagoak izatea ahalbidetuko luke.

Enpresetako IKT hornikuntzei dagokienez, 2004. urtean enpresetan IKT hornikuntzak sartzeko prozesua moteldu egin zen, baina azken bi urteotan hazkundeak indartsu egin du gora berriro ere. Hala ere, establezimenduek, zenbat eta handiagoak izan ahala, orduan eta hazkunde txikiagoa dute, beren hornikuntzetan hobekuntzak egiteko duten marjina txikiaren eraginez.

Interneten edo baliabide elektronikoen bitartez egin ohi diren merkataritza-akordioei dagokienez, horien kopurua biztanleen artean zein enpresa sarean hazi izana positiboa dela uste dugu, eta joera horrek bide beretik jarraituko duela espero dugu.

2.4. Natur ingurunea

Azken urteotan hobekuntzak gertatu dira ingurumenaren egoera orokorrari dagokionez. Aurrerakuntza horiek, gizartearen kontzientziazio orokorrari eta garapen iraunkorra lortzeko egin diren aktuazio publikoei esker izan dira zilegi.

Hala eta guztiz ere, elementu guztien (urak, airea, lurzoruak, basoko suteen eragina, etab.) azterketa xeheak lehentasuna eskatzen duten gai batzuk badaudela erakutsi digute. Horien artean honako hauek aipa daitezke:

- Ibaietako eta estuarioetako uren kalitatea,
- airearen kalitate moderatuko, txarreko edo oso txarreko egunen kopurua,
- negutegi efektuko gasen-NEG zuzeneko isurpenak,
- hondakinen sorrera (hirikoak zein arriskutsuak),
- uraren kontsumoa eta bere batez besteko prezioa,
- energiaren azken kontsumoa,
- eta nekazal ingurunearekin lotutako gai batzuk: produktu fitosanitarioen kontsumoa, energia-kontsumoa, nekazaritzako lurzoruaren erabilera aldatzea, eta NEGen isurpenak, besteak beste.

Horrenbestez, ahaleginak ez dira gutxitu behar, indartu baizik. Eta, horretarako, EAEko EGL-k (Ekonomia eta Gizarte Lantaldea) uste du beharrezkoa dela prozesu produktibo garbiagoak martxan jartzearen alde lan egiten jarraitzea. Produktu horiek hiru aldagaien (ingurumena, gizartea eta ekonomia) integrazioa bilatu behar dute eta helburu hori lortzeko bide ezberdinak daude: berrikuntza teknologikoari laguntzea, kolektibo ezberdinen artean ingurumenarekiko sentsibilizazio jarduerak bultzatzea, etab.

2.5. EAEren egoera ekonomikoa eta kanpoko testuingurua

EAEren joera makroekonomikoak positiboa izaten jarraitzen du, bilakaera hori baldintza dezaketen ezaugarri batzuk ere badauden arren. Azken horiek ahuleziak izan daitezke eta etorkizunari begira mehatxu bihur litezke.

Eustaten Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen[6] lehen datuen arabera, 2006. urtean, EAEko ekonomia batez besteko 4 hamarren hazi da aurreko urteari dagokionez, eta bere BPG batez besteko %4,2 hazi da balio errealetan (azken 6 urteetako hakunderik handiena). Zifra hori Estatuaren (+%3,9) eta EBren (EB-15: +%2,8; EB-25: +%2,9 eta EB-27: +%3) batez bestekoaren gainetik dago.

Hazkunde horri esker EAEk 28.346 euroko per capita BPG erdietsi du, eta horrela Estatuaren batez bestekoa %28an gainditu du. EAE Madrilen (28.850 euro per capita eta %30,2an batez bestekoaren gainetik) azpitik dago soilik.

Hala ere, hiruhiletako datuek urtean zehar gertatutako dezelazioaren berri ematen dute. Izan ere, EAEko urtea BPGren %4,4ko hazkunde-tasa errealarekin hasi zen, baina %4,1eko hazkundearekin bukatu zen. Joera bera nabari da munduko ekonomian. Horrela, NMFk munduko BPGren hazkundea %5,4koa zela zehaztu zuen, 2005ekoa baino puntu erdia handiagoa, baina bigarren seihileko dezelerazioa nabarmendu beharra dago. Izan ere, urteko lehendabiziko seihilekoak iraun bitartean eremu geografiko nagusietan hazkunde indartsua nagusitu zen, baina bigarren sehilekoan dezelerazio arina gertatu zen, AEBetan batik bat.

AEBetako hazkunde ekonomikoaren dezelerazioak etxebizitzako merkatuaren bilakaera negatiboa adierazten du, eta horrek ia 2006 osoan zehar egoitzako inbertsioa murriztea (–%19) eragin du. Kontsumo pribatuak efektu hori arindu du. Etxebizitzako merkatuaren dezelerazioak eta energiaren prezio altuek etxeetako gastuari modu negatiboan eragin badiote ere, lan-errenten hazkundeak eta aldeko finantziazio-baldintzek beren babesa eman diote.

EAEko eskariari dagokionez, hazi egin da eta hazkunde hori barneko zein kanpoko eskariaren bilakaeraren ondoriozkoa da. Barneko eskariari dagokionez, nabarmentzekoa da inbertsioaren (%6,3 hazi da berriro ere) eta kontsumo pribatuaren (%4,1 hazi da, aurreko urtean bezala, baina hiruhilekoko bere profilak dezelerazioa adierazten du) hazkundea. Horrela bada, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren arabera, kontsumo pribatuaren egoeraren araberako adierazle nagusienetariko batzuek dinamismo maila txikiagoa adierazten dute 2006an. 2006. urte amaieran EAEko Kontsumitzailearen Konfidantza Indizearen lau osagarriak aztertuz, ondorioztatzen da lau horietatik hiruk (egoera ekonomiko orokorraren inguruko igurikimenak, etxearen inguruko igurikimenak eta langabeziaren gaineko igurikimenak) joera negatiboa dutela eta etxeko aurreztearen inguruko igurikimenak du soilik joera positiboa. Bestetik, kanpoko saldoak BPGri egindako ekarpena ez da aurreko urtekoa bezain negatiboa, eta lau hamarrenekoa izan da.

Eskaintzari dagokionez, eraikuntzak izan du hazkunderik handieena, batez besteko %5,1eko hazkunde-tasarekin. Hala ere, AEBetako kasuan bezala, sektore horrek bigarren hiruhilekotik aurrera izan duen dezelerazioa ere nabarmentzekoa da; are gehiago, bere hazkundea aurreko urtekoa baino geldoagoa izan da, 2005ean, hazkunde errealaren batez besteko tasa %5,4koa izan baitzen. Industriak aurreko urtean baino dinamismo handiagoa izan du eta batez besteko %4,8 hazi da (aurreko urtean %4,4 hazi zen). Hala ere, hiruhilekotik hiruhilekorako hazkundea ere murriztu egin da. Bestetik, aipagarria da 2006an hazkunderik handienak izan dituzten lau autonomia-erkidegoetan (Murtzia, Kantabria, Galizia eta EAE), EINen arabera eta lauek komunean duten irizpide gisa, industria eta energia espezialitateetako ehunekoak asko hazi izana. Azkenik, zerbitzu-sektoreak urteko hiruhilekoko %3tik gorako hazkundea izaten jarraitzen du, merkatuko zerbitzuen bolada onaren eraginez.

Nabarmendu beharreko beste gertakari makroekonomikoetariko bat enpleguaren hazkundea da. Azken horren urteko batez besteko hazkundea %2,3koa izan da. Bestetik, BPG enplegua baino gehiago hazi izanak lanaren itxurazko produktibitatearen hazkundea indartzea eragin du, 2005 eta 2006 artean, %1,7tik %1,9ra igaro dena. Hazkunde-tasa hori Estatukoa (%0,5) eta EB-25ekoa (%1,4) baino handiagoa da, baina, NMFren arabera, ekonomia aurreratuek dutena (%3,7) baino txikiagoa.

EAEko lanaren itxurazko produktibitatearen bilakaera Espainiakoaren gainetik egon da 2006an, eta baita azken hamarkadako urte guztietan ere, ekonomia orokorraren esparruan zein industria-sektorean. 2006an, EAEn, bi ho-

[6] 2007Ko otsailaren 19koa.

riei dagozkien ehunekoak ondorengoak dira, hurrenez hurren: %1,9 eta %5,4. Estatuan, berriz: %0,5 eta %3,5.

Hala eta guztiz ere, maila teknologikoaren araberako esportazioak eta inportazioak aztertzeko orduan, 2004tik aurrera erdi-goi eta goi mailakoek geroz garrantzi gutxiago dute erdi-behe eta behe mailakoen guztizko mozkinekiko, eta hori kezkagarria iruditzen zaigu. Horrela, 2004. urtean, EAEk egiten zituen esportazioen %52,5 goi eta erdi-goi mailakoak ziren; behin behineko datuen arabera, 2006an, ehuneko hori %47,8an zegoen. Inportazioen kasuan, berriz, 2004ko %42,6tik 2006ko %35,7ra igaro gara. Izan ere, industriaren eduki teknologikoa aztertuz gero, goi eta erdi-goi mailako edukia duten sektoreak murriztu egin direla antzeman dezakegu, behe eta erdi-behe mailako sektoreei dagokienez. Bilakaera horrek langileei, balio erantsiari zein salmentei eragin die.

EAEko EGL-ren ustez, beharrezkoa da lehiakortasunerako erabakiorra den aldagai hau, hots, produktibitatea, kontuan hartuta aurrera egitea. Horretarako, garrantzi handiagoa eskaini behar zaie honako ezaugarri hauei: ezagutza, berrikuntza, teknologia hedatzea eta transferitzea, eta balio erantsi eta kalitate handia duten ondasun eta zerbitzuen ekoizpena. Horiek guztiak aurrera atera ahal izateko, beharrezkoa da, oro har, enpresa-sarearen konpromisoa, baina baita, bereziki, Gobernuarena eta ingurune zientifiko-teknologikoarena ere, I+G+B eta IKTen jarduerei buruzko epigrafean zehaztu dugun bezala.

Euro zonako produktibitatea AEBetakoa baino gutxiago hazi izana azal lezakeen arrazoietako bat, teknologia berriak, IKTen aurrepenei dagokienez batik bat, sartzeko prozesu motela da.

Era berean, gure lehiakortauna hobetzeko beste ezaugarri kezkagarrietako bat euro zonan izaten jarraitzen dugun inflazio diferentziala da. EAEn, kontsumoko prezioen batez besteko hazkundea %3,4koa izan da (2005ean baino hamarren bat gehiago), produktu energetikoen eta etxebizitzako produktuen prezio altuen eraginez; hazkunde hori Estatuko inflazioaren (%3,6) azpitik dago, baina euro zonako inflazioaren gainetik (%2,2) eta baita Europako Banku Zentralak helburu gisa ezarritako %2ren gainetik ere.

Prezio diferentzial horrek, gure lehiakideen gainetik dagoenak, gure produktuen lehiakortasuna murrizten du eta esportazioa zailtzen du, (kanpoko sektoreak BPG handitu dadin ekarpen garrantzitsuak egin baditu ere) hazkunde ekonomikoarekin eta enpleguarekin batera. Hori dela eta, arlo honetako autoritateek beren ardurapean dituzten esparruetan, eta bereziki prezioen gainean presiorik handiena duten sektoreetan, inflazioaren aurkako politika ezarri beharko luketela aldarrikatu nahi dugu berriro ere.

EAEk atzerrian egindako inbertsioari dagokionez, gure erkidegoak atzerrian duen produkzio-gaitasuna hazi egin da (atzerriko baloreak dauzkaten enpresak-ABDE kontuan izan gabe eta energia-sektorea alde batera utzita), baina oraindik ere Banka eta finantza-bitartekotza nagusitzen dira. Horiek, 2006an, EAEren kanpoko inbertsioaren %68,4 ahalbidetu dute eta Estatuak atzerrian egindako inbertsio guztien %17,8.

2.6. Sektore publikoa

EAEko sektore publikoari dagokionez, lehenik eta behin, 2006an sarrera publikoak %8,2 hazi direla (aurreko urtean %13,2) azpimarratu beharra dago; hazkunde hori zuzeneko zergak (+%12,5) zein zeharkakoak (+%10,6) ere haztearen eraginezkoa izan da. Horrela bada, EAEko sektore publikoaren sarrerak, BPGri dagokionez, hamarren bat hazi dira, eta 2005eko %21,5etik %21,6ra igaro dira.

Bestetik, EAEko Sektore Publikoaren gastu osoa %9,6 hazi da, aurreko urtean baino 3,1 puntu gehiago. 2006an, gastuaren hazkundea askoz handiagoa izan da Foru Aldundien artean (+%12,9) Eusko Jaurlaritzan (+%6,3) baino. Horrenbestez, magnitude horrek BPGri dagokionez duen ehunekoa lau hamarren handiagoa da aurreko urtean baino eta %20,5ekoa da. Hala ere, eta gastu publikoko partidekin lotuta, 2006an sektore publikoaren beraren funtzionamendu gastuak %10,6 hazi dira (%7, 2005ean), eta inbertsio errealetara zuzendutako kopuruek hazkunde txikiagoa izan dute (%7koa 2006an eta %4,4koa 2005ean). Hala ere, horien aplikazioa beharrezkoa da gure komunitatearen ongizatea hobetzeko eta desberdintasunak murrizteko, eta ekonomiaren lehiakortasuna areagotzeko.

Horren ondorioz, 2006an, EAEko Sektore Publikoan gehiago hazi dira sarrerak (eragiketa arruntetan, kapitalezko eragiketetan ez delako gauza bera gertatzen) gastuak baino. Horrek, aurrezki publikoa %21,9an hazi izana (+%33, 2005ean) eragin du, 2.600 milioi euroak gainditzeraino, hain zuzen ere. Era berean, administrazioen suberabit publikoa ere haztea eragin du, 2004ko BPGren %0,7tik, 2005eko %1,5era eta 2006ko %2ra igaro dena; kopuru horrek 1.156 milioi euro adierazten ditu guztira.

364.354 milioi euroko zorraren amortizaziotik haratago, finantza-gaitasun horren (superabita) etorkizuna zein izango ote den galdetzen diogu geure buruari.

2.7. Lan-merkatua

Enplegu-tasak goranzko joerari eutsi dio 2006an ere, eta berri hori pozik egoteko modukoa da; Okupazio osoko tasa 1,2 puntu hazi da, %66,5era iristeraino. Lurraldeka, Gipuzkoako enplegu-tasa handia (%69,7koa) nabarmentzekoa da. Ratio hau, gainera, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako hazi da, intentsitate ezberdinekin bada ere: emakumeen artean %57ra iritsi da, 2,2 puntu hazi ostean. Gizonezkoen artean, ostera, hamarren bat besterik ez da hazi, %75,8raino. Adinaren arabera, ratiorik handiena 25 eta 44 urte bitarteko pertsonei dagokie (%81,3), eta pertsona gazteenen artean (25 urtetik behera) portzentajezko puntu erdia murriztu da.

Lanaren ikuspuntutik, 2006ko ezaugarririk nabarmenenetariko bat, EAEko langabetuen eta langabezia-tasaren murriztazpena izan da, ezbairik gabe. 2005ean, batez besteko 21.600 pertsona gutxiago zeuden langabezian eta, 2006an, 16.500 pertsona gutxiago. Horrenbestez, 2006an langabezian zegoen pertsona kopurua 40.500ekoa izan da (34.400 azken hiruhilekoan). Langabezia-tasa 2005eko %5,7etik 2006ko %4,1era jaitsi zen (%3,4 azken hiruhilekoan). Horrela, EAE euro zonaren eta EB-15en batez besteko tasen azpitik (%8,3koa eta %7,8koa, hurrenez hurren) kokatu da berriro ere.

Sexuen arabera, murriztapenak orekatuak izan dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean, emakumezkoen langabezia-tasa %4,5ekoa (aurreko urtean baino 2,5 puntu gutxiago) eta gizonezkoena %3,7koa (2005ean baino baino 1,1 puntu gutxiago) izan arren. Urte amaieran, tasa horiek %3,9 eta %3,0koak izan dira, hurrenez hurren. Horrenbestez, sexuen arteko diferentziala 0,9koa izan da, minimo historikoa adierazten duen zifra. Adinaren arabera ere, langabezia-tasen diferentzialak murriztu egin dira. Gazteen langabeziaren bolumena urteko batez besteko –%46,5 murriztu da, eta gainontzeko adin tarteetakoak –%26,4 eta –%20,4 artean murriztu dira. Horri esker, 24 urtetik beherako pertsonek %8,2ko langabezia-tasa dutela ondoriozta dezakegu (aurreko urtean baino 5,3 puntu gutxiago eta langabetu guztien %13,3), 25 eta 44 urte bitarteko pertsonek %4,7ko langabezia-tasa dute (1,7 puntu gutxiago) eta 44 urtetik gorako pertsonek %2,2koa (2005ean baino 6 hamarren gutxiago). Gainera, iraupen luzeko langabezia murrizteko joerak berean jarraitzen du (azken hiruhilekoan 9.100 pertsona urte 1 eta 2 bitarteko langabezia egoeran zeuden, aurreko urtean baino 3.300 pertsona gutxiago, eta beste 400 pertsona bi urtetik gorako langabezia egoeran). Beren lehendabiziko lana bilatzen duen pertsona kopurua ere %36,5 murriztu da (batez besteko 3.300 pertsona 2006an, aurreko urtean baino 1.900 gutxiago).

Hala eta guztiz ere, BJA inkestak langabeziari buruz emandako datuak kontu handiz aztertu behar dira, azken horiek SPEE-INEMen datuekin alderatuz gero, bi informazio iturrien artean desberdintasun handiak baitaude. SPEE-INEMen arabera, 2006an batez besteko 80.793 pertsona zeuden langabezian (2005ean baino 4.015 gutxiago), hau da, BJAk kalkulaturiko zifraren bikoitza. SPEE-INEMen langabetu gisa izena emanda duten pertsonen %59 emakumezkoak dira.

Tenporaltasunari dagokionez, 2006ko joera positiboa da, baina datuak kezkagarriak dira oraindik ere. Horrela, BJAren arabera, aldi baterako kontratua duen soldatapeko populazioaren kopurua laugarren aldiz murriztu da, oraingoan %25,3raino (2005ean baino 3 hamarren gutxiago). Hala ere, sexuen araberako bilakaera desberdina da, emakumezkoen artean murriztu (%27,7, 2005ean baino 1,1 puntu gutxiago) egin baita, eta gizonezkoen artean, berriz, apur bat hazi da (%23,4, 2 hamarren gehiago). Horrenbestez, bi sexuen arteko diferentziala 4,3 puntutaraino (2005ean baino 1,3 gutxiago) murriztu da. Bestetik, kontraturik gabeko egoerak eta bestelako egoerak, batik bat emakumezkoei eragiten dietenak, (gizonezkoen %0,9ri eragin diete 2006an) jasotzen dituen tasa, aurten ere murriztu egin da. Emakumezkoarena %6,5ekoa da, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago eta hamarkada honetako tasarik txikiena dena.

Era berean, azpimarratu nahi dugu, adin-taldeen arabera, aldi baterako kontratua dutenen eta kontraturik ez dutenen tasarik handienak gazteenenak direla. Zehatz-mehatz esanda, 16 eta 24 urte bitartean dituztela lanean ari diren emakumezkoen %67,4k eta gizonezkoen %68,7k aldi baterako kontratua dute. Adin tarte berean, soldatapeko lanean ari direnen "kontraturik gabekoen eta bestelakoen" tasak %4,7koak eta %1,8koak dira, hurrenez hurren.

Bestetik, Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) datuen arabera, EAEn 224 greba egon dira, 62.577 parte hartzaile izan dituztenak, eta lan egin gabeko 168.433 lanaldi. Zifra horiek %27ko hazkundea islatzen dute greba kopuruari dagokionez, %17,8koa parte hartzaileei dagokienez, eta %58,6koa lan egin gabeko lanaldiei dagokienez.

Bestetik, baieztatzen dugu lan-merkatuaren bilakaera positiboa den esparru honetan, lan-gatazkak ugaritu egin direla 2006an.

Greben %53,6, hitzarmen kolektiboak negoziatzeko prozesuen inguruko gatazkek eragin dituzte. Greba horiek parte hartzaileen %88ri eragin diete eta lan egin gabeko lanaldien %91,5en arrazoia izan dira. 2006an, negoziazio kolektiboan egon diren desadostasunak aurreko urtekoak baino handiagoak izan dira, lan egin gabeko lanaldiei dagokienez batik bat (+%72,8). Era berean, 2006an negoziazio kolektiboen ondorioz gertatutako 120 grebetatik, 6 sektore arlokoak izan dira, eta bertan inplikaturiko pertsonen %26,3k parte hartu dute. Gainera, lan egin gabeko lanaldi guztien %32,8 eragin dituzte.

Zentzu berean, eta 2006ko "Negoziazio Kolektiboaren Balantzearen" arabera, urte horretan zehar gure Erkidegoan lan egiten aritu diren pertsonen %65,6ri eragiten dieten hitzarmen kolektiboak berritzekoak ziren. Aipatu ehunekoa oso altua da eta horren arrazoia, neurri batean, azken urteotan negoziazio kolektiboaz arduratu diren gizarte agenteek adostasunik lortu ez izana da.

2006ko negoziazio kolektiboan, langileen %24,6rentzat soilik lortu dira akordioak. Laburbilduz, 2006 urte amaieran 336.235 pertsonari (pertsona horien %77,4k sektore-hitzarmenak dituzte eta gainontzeko %22,6k, berriz, enpresa-hitzarmenak) eragiten zieten 630 hitzarmen berri zeuden eta 233.654 langileri eragiten dieten 335 hitzarmen berriketzeke daude oraindik. Urtea, dagoenekoz, amaitu da eta negoziazio kolektiboak eragindako langileen %41ek oraindik ez du berritutako hitzarmen kolektiborik.

2.8. Lan-osasuna

2006an 53.782 lan-istripu gertatu dira, 2005ean baino %3,2 gutxiago (urte horretan ezbehar-kopuruak gora egin zuen, aurreko urteetako joerarekin bat ez zetorrena). Denbora tarte zabalagoa aztertuz gero, azken bost urteetan lan istripuak murriztu egin dira esparru guztietan (batez besteko –%8), eta kasurik larrienei dagokienez batik bat (–%31,8 istripu larrienetan eta –%23,5 heriotza eragin dutenetan).

Lanaldiko baja eskatzea eragin duten lan-istripuak 46.730 izan dira, 2005ean baino %2,4 gutxiago. Horien artean, lan-istripu arinak %2,2 murriztu dira, istripu larriak (322ra igo dira) eta heriotza eragiten dutenak (52) baino askoz gutxiago. Bestetik, "in itinere" gertatutako istripuak, guztien %9,3 dira eta %4,9 murriztu dira. 2005ean, aldiz, azken horiek %16, 1 hazi ziren.

Sektoreka, eta aurreko urteari dagokionez, laneko ezbehar-kopurua eskasagoa izan da sektore guztietan lehen sektorean izan ezik, azken horretan 1.044 istripu gertatu baitira, 2005ean baino %13 gehiago. Bestetik, industria-sektorean 18.585 istripu (bajarekin) gertatu dira, guztien %40, baina 2005ean baino %2,7 gutxiago. Era berean, eraikuntzan ere istripuen %40 gertatu dira, eta %3,5 murriztu dira, batez bestekoaren gainetik. Azken bost urteko bilakaerari dagokionez, sektore guztietan ezbehar-kopurua asko murriztu da, eraikuntzan batik bat (–%17,5). Bestetik, aipagarria da heriotza eragiten duten istripuen %11 (52tik 6) lehen sektorean gertatzen direla, datu orokorretan, sektore horren istripuak (1.044, 2006an) guztien %2 soilik direla kontuan hartuta.

Bestetik, laneko ezbehar-kopuruaren tasek, istripu kopurua eta sektore bakoitzean lan egiten duten pertsonen bolumena lotzen dituztenek, adierazten dutenez, 2006an, tasa orokorra (mila landuneko 49 istripu, 2005ean baino %3,8 gutxiago) murriztu izana zerbitzu-sektoreko istripuen murriztapenaren ondoriozkoa izan da. Murriztapen hori industria-sektorekoa eta eraikuntzakoa baino askoz handiagoa (–%4,9koa, mileko 29,7 ratioraino) izan da. Horrela bada, istripu gehienak eraikuntzan gertatzen dira, bere tasa mila landuneko 107,9 istripukoa baita.

Dena dela, azken bosturteko honetan laneko ezbehar-kopuruaren joera positiboa izan bada ere, aurtengoan ere azpimarratu behar dugu oraindik asko dagoela prebentzio-kulturaren sentsibilizazioaren eta sustapenaren inguruan eta gaiari buruzko heziketan (enpresariaren zein langileen aldetik) egiteko. Era berean, ezinbestekoak dira konpromiso publiko handiagoa eta aurrekontuko zuzkidura egokiak, agente ekonomiko eta sozialek modu irekian kritikatzen dituzten segurtasun eta lan-osasuneko aldizkako planetatik haratago.

Bestetik, erakunde publiko eskudunek lan-istripuei buruz ematen duten informazio estatistikoa eskasegia dela uste dugu. Izan ere, ondorio garrantzitsuagoetara iristeko beharrezkoa izango litzaiguke adinaren, antzinatasunaren etab.en araberako istripuei buruzko datu gehiago izatea.

Hala ere, kontratu motaren arabera lanaldian baja eragindako istripuei buruzko informazioa eskuratu dugu. Datu horiek 2005ekoak dira eta kontratuak aldi baterakoak edo mugagabeak gora-behera, lan-istripuen artean desberdintasun handiak daudela erakusten dute. Zehatz-mehatz esanda, kontratu mugagabea zuten pertsonen ez-

behar-kopuruaren indizea ‰46,2koa izan zen; aldi baterako kontratua zuten pertsonen ezbehar-indizea, berriz, ‰99,5ekoa izan zen. Horrenbestez, aldi baterako kontratua zuten pertsonen ezbehar-kopuruaren indizea kontratu mugagabea zutenenaren bikoitza baino handiagoa da. Nolanahi ere, pertsona horiek sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera duten lan-banaketa ezagutu beharko genuke behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Arrazoi horregatik, gure ikerketa egitea errazagoa izan dadin OSALAN eta EUSTATi beren aldetik gehiago lagundu dezaten eskatu nahi diegu.

2.9. Zenbait talde ahulen bizi-baldintzak

Arartekoak egin berri duen "Eusko Jaurlaritzaren Txostena 2006"-k ondorioztatzen duenez, azken bi urteotan 2004an egindako txosten monografikoan jasotako arazo gehienek bere horretan jarraitu dute, honako hauek besteak beste: harrera-baliabideen eskasia, eskolatze-arazoak, izapideen prozesu motela... Beste arazo batzuk, berriz, berriak dira edo azkenaldian garrantzi berezia bereganatu dute: EAEko gizarteak adingabe horiek hartzeko duen gaitasunari buruzko gizarte-eztabida, baliabideak sortzeko gatazka eta errefusatze irudia, beharrezko bermerik ez duten aberriratze prozesuak... horrek guztiak, gure iritziz, oso errealitate kezkagarria islatzen du.

Arartekoaren ustez, bakarrik datozen adingabe atzerritarren gatazken inguruko gizarte-alarmak ez du, gehienetan, inongo oinarririk. EAEn etorkinekin lan egiten duten erakundeek ere, kolektibo horren inguruan okerreko pertzepzioa eta nolabaiteko alarma daudela azpimarratzen dute. Izan ere, EAE etorkin gutxien duten Estatuko hiru erkidegoen artean dago. Era berean, saturaziozko eztabaida bultzatzea kritikatzen dute, eta, beste aldetik, premiazko harrera-baliabideak eta egoitzazkoak oso gutxi direla nabarmentzen dute.

Gainera, adingabe hauek heziketa-programa publikoekiko, eta lanean txertatzeari buruzko programekiko batik bat, jarrera positiboa dutela egiaztatu da. Adingabe asko lan egiteko asmoarekin etortzen dira, beren adinak eta egoerak gure herrialdean hori lortzea galarazten dutela jakin gabe. Hala ere, etorri aurretik zituzten itxaropenen eta bertan topatzen duten errealitatearen arteko kontraesanak, batzuetan, instituzioen, langileen eta gazteen arteko harremana zailtzen du. Gainera, ez dago pertsona bakoitzari egokitutako esku-hartze plan bat prestatzeko nahikoa denborarik, askotan hemezortzi urte betetzear dituztela etortzen baitira, eta horrek instituzioen aldeko erantzunaren jarraipena oztopatzen du. Hemezortzi urte betetzeaz batera lehen zuten babesa galtzen dute eta horrek, laguntzen dieten adituen arabera, pikutara botatzen ditu aurreko ahalegin guztiak.

Era berean, Arartekoaren iritziz, atzerritarren araudia aplikatzeak segurtasunik eza eragiten du eremu juridikoan, adingabeen aberriratzeei eskaini behar zaien tratamenduari dagokionez interpretazio desberdinak, eta maiz kontraesankorrak, baitaude. Horri beren herrialdeetara itzultzeko bermeak betetzearen arazoak gehitu behar zaizkio; izan ere, adingabeen ezaugarri pertsonalei buruzko informazioa eskuratzea ez da lan erraza, eta, gainera, Maroko bezalako herrialdeetan ez dago haurren babesaz arduratzen den instituzio egokirik. Kontseiluak uste du gai horiek guztiak oso kezkagarriak direla.

Testuinguru honetan, Adingabekoaren Legea garatzeko aukerari buruz hausnartzea beharrezkoa dela uste dugu.

Bestetik, eta Memoria honek aztertu duen bigarren kolektiboari dagokionez, Nazio Batuek uste dute 2050ean Espainia populaziorik zaharrena duen herrialdea izango dela, eta populazioaren batez bestekoa 55 urtekoa izango dela. Atzetik izango ditu, oso gertu, Italia, Eslovenia eta Austria (batez besteko 54 urte). Uste denez, urte horretan, Espainian zein Italian, 60 urtetik gorako lau pertsona egongo dira ume bakoitzeko. Era berean, hamar herrialdetan populazioaren %10 baino gehiagok 80 urtetik gora izango ditu.

Testuinguru honetan, bilakaera demografikoak, menpeko pertsona kopuruaren hazkundeak eta familiaren eta gizartearen baitan gertatutako aldaketek ez dute egun dugun iraupen luzerako zainketa sistema mantentzen lagunduko. Azken horren pisua familiarena da, eta emakumezkoena bereziki, baina azken horiek, eskaini ditzaketen zainketen mugan daude eta ezin dute zahartzearen eta menpekotasunaren karga beren bizkar gainean bakar-bakarrik eramaten jarraitu.

Gaur egun, EAEko menpeko pertsona gehienak (%66,2) emakumezkoak dira eta, gainera, joera hori handitu egiten da adinean gora egin ahala. Adina geroz eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da menpekotasuna ere, eta hortik abiatuta aipatu joera lortutako datuetan islatzen da: 70-90 urte bitarteko 10 zaharreko 7k laguntza behar dute. Ikerketa honek 90 urtetik gorakoen %12,4 nabarmentzen du. Pertsona hauen gehiengoak laguntza behar du etxeko lanak egin ahal izateko (garbitu, lisatu, ja-

naria prestatu) (%86,7) eta eguneroko jarduerak egiteko (kalera irten, erosketak egin...) (%81,5). Zainketa pertsonalekin lotutako laguntza (bainatu, bere burua garbitu, jan...) nahiko urrun dago aurrekoetatik (lagundutako pertsonen %51,6). Datu horiek menpeko pertsonek behar duten laguntzaren intentsitatea erakusten dute: erdiak baino gehiagok laguntza behar du eguneroko jarduera guztiak egin ahal izateko.

Are gehiago, argi dago orain dela gutxi arte norberaren eta familiaren arazoa zena gizarte osora hedatu dela eta, horrela, "gizarte arrisku" bihurtu dela, Europako gizarteek zerbitzu sozial eta teknikoen eta zaintzaileentzako laguntzen bitartez konpontzen dutena. Hori guztia gure gizartean ere garatu beharko da. Horregatik guztiagatik, menpekotasuna oinarrizko gai bihurtu da agenda politikoetan eta 2006an arreta publiko handia erakarri du. Izan ere, beste gauza batzuen artean, Kongresuaren Osoko Bilkurak azaroaren 30ean onetsi zuen Autonomia Pertsonala eta Menpeko Pertsonenganako Arreta Sustatzeko Estatuko Legea (Menpekotasun Legea)-ren tramitazioa.

Eustaten "Gizarte Zerbitzuen Estatistika 2004"-k honako datuak aurkeztu ditu menpeko pertsonekiko arreta formalari dagokionez:

- Egoitza-zentro gehienak, 356 (guztien %50), hirugarren adinari zuzenduta daude, 15.038 plazarekin (guztien %77) eta 14.016 erabiltzailerekin (%78). Eskaintza horren arabera, 3,9 plaza daude 65 urtetik gorako 100 pertsonako eta, 2004an, EAEko gizarte-zerbitzuen gastu guztien (1.196 milioi euro) %25 da.
- 2004an 488 plaza berri sortu ziren 11 egoitza-zentrotan zehar banatuta, eta horrek 2003koa baino hazkunde txikiagoa adierazten du. Populazioaren zahartzeak eragin ditzakeen aukera berriek erakarrita, enpresa-sektorea sisteman sartu da eta azken hamarkadan finkatu egin da; horren ondorioz, sektore pribatuan zentro kopurua batez besteko %11 hazi da urteko, eta eskainitako plaza kopurua %7 hazi da. Sektore publikoan, berriz, emaitzak baxuagoak izan dira, %5eko eta %2ko tasekin, hurrenez hurren.
- Oso egoitza-zentro gutxi, 32 guztira, daude menpeko pertsonen zainketara zuzenduta, 2.139 plazarekin (%14); gainontzekoak laguntzarik behar ez duten zaharrentzako (78) eta mistoak (246, %69) dira. Horiek guztiak hirugarren adinekoei zuzendutako egoitzazko plazen %78 dira. Egoitzetan dauden zaharrei dagokienez, azken hamar urteotan, menpeko pertsonak (%67) %8 ugaritu dira, eta laguntzarik behar ez duten zaharren kopurua berean mantendu da.
- Pertsona minusbaliatuentzako egoitza-zentroen eskaintza 109 zentrokoa eta 1.641 plazakoa da, eta horien %58 establezimendu pribatuek eskaintzen dituzte. Establezimendu eta plaza gehienak minusbaliatu psikikoak zaintzera zuzenduta daude eta zentroen %14 eta plazen %13 soilik daude minusbaliatu fisikoei zuzenduta.
- Nabarmendu beharreko beste partida bat etxez etxeko laguntza-zerbitzuarena da; azken horren gastua 57,8 milioi eurokoa izan zen, 2003an baino %15 handiagoa. Era berean, BPGren %0,1 da, aurreko ekitaldiko ehuneko bera. Zerbitzu honen %90 Administrazio Publikoak aldi berean finantzatu zuen eta gainontzeko %10 erabiltzaileek berek, ordainketen bitartez. 19.000 pertsona tratatu zituzten, batez besteko 3.036 euroko kostuarekin. Onuradunen %90 zaharrak izan ziren.
- Gaur egun, EAEn, zaintzaile formalen kopurua nahikoa ez dela ikusita, menpeko pertsonak zaintzeko lana familiena da batik bat. Are gehiago, menpeko pertsonen ongizateaz gain, zaintzaileen bizi-baldintzek ere kezkatzen gaituzte. Zaintzaile horiek, oro har, menpeko pertsonen alabak izan ohi dira, emantzipatu gabeko seme-alabak guraso zaharrekin batera zaindu behar dituztenak. Menpeko pertsonari eskainitako zainketa oso handia da, maiztasunari (kasuen %71,8an eguneroko da) zein intentsitateari (kasuen %36,8an 8 ordu baino gehiago) eta denborari (batez besteko 6 urte) dagokionez. Intentsiate hori menpeko pertsona zahartu ahala handituz doa eta, horren eraginez, zaintzaileen %70,9k ondorio negatiboak pairatzen ditu bere eguneroko bizitzan.

Aipagarria da gizonezkoak ez direla apenas zaintzelan hauetaz arduratzen, baina Eusko Jaurlaritzak uste du zainketa-eredu hori urteekin batera handituz joango dela; ez bakarrik jokabideen eta balioen aldaketengatik, baizik eta baita gizonezkoak luzaroago bizitzeak bikotearen minusbaliotasun egoera maizago konpartitzea eragingo duelako ere.

2.10. Osasuna eta osasun-sistema

EAE jaiotzean Bizi-Itxaropen (BI-EV) handiena duten herrialdeen artean dago, baina aztertzeke dago hilkortasun-tasaren bilakaera positiboak populazioaren osasunmaila hobetzearekin zerikusi zuzena duen. Zentzu honetan, esan beharra dago osasun-adierazle klasikoak,

hilkortasunean soilik oinarriturikoak, ez direla nahikoak herrialde aurreratuetako populazioaren osasun-egoeraren bilakaera deskribatzeko. Horrenbestez, beharrezkoa da hilkortasunaz gain erikortasuna eta ezgaitasuna ere aintzat hartuko dituzten adierazleak erabiltzea, horien artean Kalitateari Egokitutako Bizi-Itxaropena (KEBI-EVAC).

Eusko Jaurlaritzak 2006ko irailean argitaraturiko lan baten arabera, 1999-2003 aldian, BI eta KEBI, 15-19 urte bitarteko gizonezkoengan 61,8 eta 51,6 urtekoak izan ziren, hurrenez hurren, eta emakumezkoengan, berriz, 69,3 eta 54,9 urtekoak, hurrenez hurren. Horrenbestez, deigarria iruditu zaigu emakumezkoak, oro har, urte gehiagoz bizi direla, baina baita osasun-txarragoarekin ere, balio absolutuetan (14,4 urte emakumezkoak eta 10,2 urte gizonezkoak) zein balio erlatiboetan; hau da, beren bizitzako zati handiagoan dute osasun txarra (%21 emakumezkoek eta %17 gizonezkoek). Gainera, nabarmentzekoa da BI eta KEBI-ren arteko aldeak adinak gora egin ahala handituz doazela. Horrela, 15-19 urte bitartean gizonezko batek osasun txarrarekin biziko duen bizitza zatia %17koa da, eta emakumezko batek biziko duena, berriz, %21ekoa; 65-69 urte bitartean proportzio hori %22koa da gizonezkoen artean eta %28koa emakumezkoen artean.

Baliabideei eta asistentzia-jarduerari dagokienez, honakoa adierazi nahi dugu:

- Europako joerekin bat etorriz, Eurostaten datuen arabera, 100.000 biztanleko doktore eta psikiatra kopuruak hazten jarraitzen du. Gainera, nabarmendu nahi dugu, Eustaten datuen arabera, beste behin, ospitalez kanpoko jardueran mediku kopuruak gora egin izanak mediku bakoitzeko biztanle kopurua murriztea eragin duela medikuntza orokorrean. Hala ere, joera hori ez da pediatrian errepikatu, espezialitate horretan mediku bakoitzeko biztanle kopurua hazi egin baita.
- Ospitaleko ohe kopuruak, EBn (EB-15 eta EB-25), Estatuan nahiz EAEn beheranzko joera aurkezten du, ospitalean egoteko denbora ere murriztu egin delako. 100.000 biztanleko ohe kopurua 648,9tik 611,3ra igaro da EB-15ean eta 677,4tik 639,1era EB-25en. EAEn, 1998 eta 2004 bitartean, 403,6tik 383,8ra jaitsi da (Eurostaten datuak).
- 100.000 biztanleko dentista kopurua hazi egin da berriro ere, baina zifra hori EB-15eko herrialde gehienena eta Europa hedatua osatzen duten herrialdeena baino txikiagoa izaten jarraitzen du.
- Ospitale publikoaz kanpoko jarduerari dagokionez, Eustaten arabera, jardueraren hazkundea enpleguaren hazkundearen azpitik dago (%1,9, 2004 eta 2005 bitartean, eta %4,3 azken lau urteetan).

Itxaronzerrendei eta luzapen-denborari dagokienez, Osakidetzaren datuen arabera, 2005 eta 2006 artean aurrerapausoak eman dira, baina beharrezkoa dela uste dugu eremu honetan aurrerapenak egiten jarraitzea. Izan ere, denbora tarte luzeagoa aztertuz gero, 2003-2006, esaterako, luzapen-denborarekin lotutako datuak positiboak dira, itxaron beharreko denbora murriztu egin baita (kanpoko kontsultetan zein kirurgiarako itxaroteean), baina itxaronzerrendan dauden gaixoen kopurua handiagoa da.

2.11. Hirigintza eta etxebizitza

EAEko higiezin-merkatuaren bilakerari dagokionez, 2006an etxebizitza-eskaintza %16,4 (+%3,7 2004-2005 aldian) hazi da, oro har. Aldeak daude etxebizitza berriaren (+%11,1), erabilitako etxebizitzaren (+%6,3), alokairuan dagoen etxebizitza librearen (+%10,9), salgai dagoen etxebizitza babestuaren (+%29,2) edota alokairuan dagoen etxebizitza babestuaren (ekitaldiko daturik nabarmenena, %53,2 hazi baita) artean.

Bestetik, etxebizitza eskaria edo beharra %7,2 murriztu da 2006an, eta aurreko ekitaldian kasik %20 hazi zen. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzak 2006an egindako "EAEko etxebizitza beharrei eta eskariari buruzko inkesta"-ren emaitzek eskaria egonkortzen ari dela adierazten dute, aurreko edizioetan ere gertatu izan den bezala. Egonkortze horrek honako ezaugarri hauek ditu:

- Beren lehendabiziko etxebizitza izateko beharra duten pertsonaz osatutako familien proportzioa %11koa da, azken bosturtekoari dagokion fluktuazio-bandaren azpiko aldean dagoen proportzioa. Zifra absolutuetan, lehendabiziko etxebitza izateko beharra adierazten duten pertsonen kopurua 93.308koa da. Eskariarekin lotutako balioetan, 57.500 etxebizitzakoa da, lau urtetako epean, eta 19.735koa, urtebeteko epean.
- Etxebizitzen beharrei dagokienez, EAEko familen %6k ohiko etxebizitzaz aldatzeko beharra du, eta kopuru hori, zifratan, 48.119 etxebizitzakoa da. Eskariarekin lotutako balioetan, aurreikuspena 19.500 etxebizitzakoa da lau urtetako epean, eta 8.100ekoa, berriz, urtebeteko epean.
- Bestetik, beren etxebizitza birgaitzeko beharra dutenen proportzioa, azken urte honetan, %14,4tik %17ra igo da, hots, kasik 135.000 etxebizitzakoa da.

- Finantza-esfortzuari dagokionez, pertsona gazteek beren diru-sarreren herena, gutxi gorabehera, etxebitza ordaintzeari zuzenduko diotela aurreikusten dute. Etxebizitzaz aldatzeko beharra dutenen proportzioa apur bat txikiagoa da, baina, nolanahi ere, bi ehunekoak aurreko ekitaldikoen antzekoak dira. Horrela bada, interestasek 2005eko amaierara arte finantza-esfortzuarekin lotuta izan duten murriztapenen efektu garbia eta etxebizitza librearen prezioen gorakada baloratzea erraza ez den arren, adierazle batzuek azpimarratzen dute etxebizitza bat eskuratzeko beharrezkoak diren ahaleginak handitu egin direla. Are gehiago, inkestan erantzun zutenaren arabera, beren lehendabiziko etxebizitza erosteko beharra duten gazteek, teorikoki, 8 urtetako soldata eskaini beharko liokete arrazoizko prezioa duen etxebizitza bat erosteari; 1996an, berriz, 5,5 urtetako soldata eskaini behar zioten.

Babes daitezkeen beharrak diskriminatzeko balio kritikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak bi erreferentzia eremu planteatzen ditu: alde batetik, 96.000 euroko muga BOEen prezioei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsonentzako, eta, beste aldetik, 150.000 euroko muga etxebizitza libre bat erosteko zailtasunak dituztenetzako. Lehendabiziko mugari dagokionez, lehenengo etxebizitza erosteko beharra duten pertsona gazteen %8k uste dute ezin dutela horrelako prezioa duen etxebizitza erosi. Gainera, aldatzeko beharra duten etxebizitzen %10 egoera berean daude.

Gainera, babes daiteeken segmentua asko handitzen da 150.000 euroko bigarren mugari erreparatzen diogunean. Horrela, lehen etxebizitzaren beharra dutenen %41,3k eta aldatzeko beharra dutenen %24,5ek ez lukete prezio honetako etxebitza bat erosteko gaitasunik izango. Horrenbestez, Inkestak identifikaturiko behar guztien %65,8k zailtasun handiak ditu etxebizitza libre bat eskuratzeko (2005eko %40,5en aldean).

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Etxebizitza Programan egindako gastua asko hazi da azken urteotan, eta 171,6 milioi eurokoa izan da 2006an, aurreko urtean baino %9 gehiago. Behin-behineko datuen arabera, gastu hori EAEko BPGren %0,28 da, azken urteotan oso gutxi aldatu den tasa (%0,27 2005ean). Aldi berean, programa honen inguruan egindako inbertsio bolumena handitu egin da, eta berau 135,6 milioi eurokoa izan da 2006an.

2006-09 Etxebizitzako Plan Zuzentzailea onesteak eta martxan jartzeak baldintzatu du 2006. urtean Eusko Jaurlaritzaren etxebitza-politika. Eraikuntzari dagokionez, aurten, berriro ere, etxebitza babestu gehiago eraiki dira. Zehatz-mehatz esanda, 5.273 etxebizitza eraikitzen hasi dira, 2005ean baino %14 gehiago, BOEen (+%26) eraginez, gizarte-laguntzako etxebizitzak %60 murriztu baitira. Aurten, gainera, berritasun gisa, 195 dotaziozko etxebizitza eraikitzen hasi dira. Bestetik, Sailak eraikuntzara zuzendutako lurzorua eskuratzeko egin dituen aktuazioak %6,8 murriztu dira; 3.625 etxebizitza berri eraikitzeko lurzorua eskuratu du, 2005ean baino 265 gutxiago.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak sustaturiko etxebitza-politikaz gain, interesgarria da Foru Aldundiek etxebizitza esparruan esku-hartze publikoko bitarteko gisa dituzten gastu fiskalen zifra handiak ezagutzea. Hiru Foru Aldundien PFEZen likidazioetan oinarrituta, eta Euskadiko Zerga-koordinaziorako Organoaren "Euskal Herriogasuntzak egindako lanez osatutako txostenetik" abiatuta, eskura ditugun azken datuek, 2004ko ekitaldiari buruzkoek, adierazen dute ohiko etxebizitzetako dedukzioen zenbatekoa (alokairua, inbertsioa eta etxebizitza-errentamendua), oro har kuantitatiboki lehendabiziko dedukzioa (dedukzioen %38,4) izan zirenen zenbatekoa, 2004an 376 milioi eurokoa izan zela, aurreko urtean baino %5,4 gehiago. Kopuru hori Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programak urte horretan egindako gastuaren %244 da, eta PFEZen likidazioen bitartez eskuratutako informazioaren arabera, dedukzioak geroz eta handiagoak dira deklaraturiko errenta maila ere handiagoa den neurrian.

2.12. Pobrezla eta gizarte-baztertzea

EINek duela gutxi aurkeztu ditu 2005eko Bizi-Baldintzei buruzko Inkestaren emaitzak, Europar Batasunaren Errentari eta Bizi-Baldintzei buruzko estatistiken bateratze prozesuaren atal gisa, horrela Europar Batasunak pobreziari eta gizarte-baztertzeari buruz ikertu dezan. Pobrezia fenomeno dimentsioaniztuna da eta ez du definizio bakarra. Ikuspuntuaren arabera, neurketa eta interpretazio asko ere izan ditzake. Lan honetan pobreziaren azterketa deskribatzailea egiten da, pobrezia pobrezia monetario erlatibo gisa aztertuta. Horretarako, populazioa pobreen eta pobreak ez direnen artean sailkatzeko erabili dugun metodoa pobrezia monetario erlatiboaren muga finkatzean oinarritu da.

Horrela bada, "pobrea" dela diogu "pobrezia atalase" mailaren azpitik dauden unitate kontsumoko diru-sarrerak dituen pertsona oro (horrenbestez, etxe bateko pertsona guztiak talde berean sailkatuko ditugu, pobre edo

ez pobre gisa). Atalase hori Europar Batasun mailan kalkulatu da herrialde guztietarako, eta horren eraginez, herrialde bakoitzaren ikuspegi erlatiboa izan dezakegu. Hala ere, ezin dugu ikuspegi hori herrialdeen artean zuzenean alderatu.

Inkesta honek gure Erkidegoari dagokionez islatzen dituen datuen artean, lehenik eta behin, 2004an etxe bakoitzaren batez besteko errenta 25.217 eurokoa zela nabarmendu beharra dago, Estatuaren batez bestekoa (22.418 euro) baino %12,5 handiagoa. Kopuru hori Madrilgo eta Nafarroako (28.300tik gora) Erkidegoek soilik gainditzen dute. Pertsonako batez besteko errentari erreparatuz gero, inkestaren arabera, zifra hori urteko 9.495 eurokoa da EAEn, Estatuaren batez bestekoa baino %20 handiagoa. Ranking-aren beste muturrean daude, bi aldagaiei dagokienez, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia.

Gainera, errenta tarteen araberako etxeen banaketari dagokionez, %42,4k urteko 25.000 eurotik gorako dirusarrerak ditu (horien artean, %21,6k urteko 35.000 euro baino gehiagokoak), %27k 14.000 eta 25.000 euro bitartekoak eta gainontzeko %26,1ek urteko 14.000 eurotik beherako diru-sarrerak (horien erdiak 9.000 eurotik beherakoak). Estatu mailan, %34,3k 25.000 eurotik gorako errentak ditu, %30,9k 14.000 eta 25.000 euro bitartekoak eta etxeen heren batek baino gehiagok, hots, %34,5ek, urteko 14.000 eurotik beherakoak.

Etxeen bizi-baldintzak eta errenta-maila adierazten dituen beste adierazle bat hainbat gasturi erantzun ezin dioten etxeen proportzioari buruzkoa da. Horrela, EAEn, %27,2k diote urtean astebeko oporraldia ere izan ezin dutela. Tasa hori %40,4koa da Estatu mailan, eta %50en gainetik dago Andaluzian, Murtzian eta Extremaduran. Beste muturrean, Nafarroan etxeen %18,6 soilik daude egoera horretan. Era berean, etxeek ezusteko gastuei aurre egiteko duten gaitasunari dagokionez, EAEn etxeen %24k ez dute horretarako gaitasunik eta tasa hori %33,8koa da Estatu mailan. Kanarietan, Ceutan eta Melillan etxeen erdia baino gehiago egoera horretan daude.

Bestetik, EUSTATen Bizi-Baldintzei buruzko Inkestak EAEko egungo pobreziaren bilakaeraren berri ematen du. Izan ere, aztertutako aldagaiak bestelakoak badira ere, hamabost urtetako tartearen ikuspegia dugu, 1989 eta 2004 bitartean. Ordukoak dira azken datuak. Horrela, esaterako, alderdi batzuekin lotuta (elikadura, etxearen hornikuntza edota aisia) murrizketa ekonomikoak dituzten familien ehunekoa aldatu egin dela nabarmentzekoa da. Elikaduran murrizketa ekonomikoak izan dituzten familien tasa baxuagoa izan zen 1994an (%31,5), baina hobera egin zuen 1999an, eta 2004ko azken datuekin batera 1989ko balioak berreskuratu zituen. Nolanahi ere, %24,5eko tasa hau kontuan hartzekoa da. Era berean, familien %59k murrizketa ekonomikoak pairatzen ditu arropa eta oinetakoen gastuan, eta %65,4k aisiaren inguruan. Etxeko hornikuntzaren murrizketa ekonomikoari dagokionez, %73,6koak ziren 1989an, baina %44ra murriztu dira.

Era berean, Inkesta honen arabera, familien %7,7k instituzioei nolabaiteko laguntza ekonomikoak eskatu zizkieten 2004an. Tasa hau %13,4koa zen 1989an eta murriztuz joan da urtetik urtera. Pertsona garrantzitsuena langabezian duten familiak soilik kontuan hartuz gero, tasa hori %20,9koa da (%33,5 1989an). Halaber, kezkagarriak iruditzen zaizkigun beste emaitza batzuk dira, azken iturri horren arabera, EAEko hiru familiatik batek uste izatea egun bere diru-sarrerak nahikoak ez direla, eta horien erdiak, berriz, azken hiru urteotan bere egoera ekonomikoak okerrera egin duela. Gainera, zazpi familiatik batek bere diru-sarrerak "ezegonkorrak" direla dio.

2.13. Gizarte-babesa

EAEko Gizarte-Babesean erantzukizuna duten instituzio guztien gastuari buruzko azken datuek, Eustaten 2005ekoek, adierazten dute urte horretan gizarte-babesean gertatutako gastu guztia 10.894 milioi eurokoa izan zela, aurreko urtean baino %7,5 handiagoa (%4,2 balio errealetan, ekitaldi horretako prezio efektua kentzen badiogu). Gizarte-Babesaren gastuari eskainitako ahalegin mailari dagokionez, txikiagoa izan da BPGren hazkunde bizkorragoarekin alderatuta. Horrela, 1995ean BPGren %22,3 izan zen, 1997an %21,4, 1999an %20,1, 2003an %19,06, eta BPGren %18,9 2005ean.

Gizarte-Babeserako gastu osotik, gizarte-prestazioen balioa (etxeek gizarte-babeserako instituzioengandik jasotzen dituzten transferentziak, kontigentziak gertatuta ere horiengandik babestuta daudenean), guztizkoaren %97,8 islatzen duena, 10.646 milioi eurokoa izan zen 2005ean, eta hazi besterik ez da egin 1995etik aurrera. Ordukoak dira EAEko gizarte-babesaren kontuarekin lotuta dauzkagun lehendabiziko datuak. Hazkundea %7,5ekoa (%4,2koa balio errealetan) izan zen 2004ko ekitaldiari dagokionez. Bestetik, BPGri dagokionez duen pisua ez da aldatu 2004 eta 2005 bitartean, eta %18,5ean mantendu da.

Emaitza horiek Estatuaren datuekin alderatuz gero, bien artean desberdintasun nabarmenak daude. Biztanle bakoitzeko gizarte-prestazioetan egindako gastua handiagoa izan da EAEn aldi guztian zehar eta, gainera, EAEren eta Estatuaren arteko aldea handitu egin da denborak aurrera egin ahala. Horrela, 1995ean biztanle bakoitzeko gastua %9 handiagoa izan zen EAEn eta 2004an, berriz, %22 handiagoa izan da. Bestetik, BPGri dagokionez, gizarte-babeseko gastuaren proportzioa txikiagoa izan da tradizionalki EAEn Estatuan baino, alde hori murriztuz joan bada ere, 2000tik aurrera batik bat.

EB-15ekin alderatuz gero, EAEko zifrak geroz eta gertuago daude Europako mailengandik, biztanle bakoitzeko gastuari dagokionez. 1995ean, adierazle horren arabera EAE Europar Batasuneko batez besteko balioaren %65ean zegoen, eta 2004an, berriz, indize berak %75 gainditu du. Hala ere, Europar Batasunarekiko aldea geroz eta handiagoa da BPGri dagokionez gizarte-babesean egindako gastuaren ehunekoa kontuan hartzen badugu; 2003an (konparaziozko datuak eskaintzen dizkigun azken urtea) EAE EB-15ean egindako batez besteko gastuaren %68 izan zen, eta 1995ean, berriz, EB-15en batez bestekoaren %79 zen.

Bestetik, Eurostatek 2004ri buruz dituen lehendabiziko datuen arabera, urte horretan BPGri dagokionez gizarte-babesean egindako gastua murriztu egin zen Europan; hamar herrialdek, 2003an EB-25eko gizarte-babeseko gastuaren %49,7 eragiten zutenek, 2004rako dituzten gastu-kalkuluak aurkeztu zituzten eta, erantsiriko datuak jasotzen dituzten lehen txostenen arabera, gizarte-babeserako gastua BPG baino gutxiago hazi zen. Horrenbestez, ratioa 2003ko %27tik %26,8ra igaro zen 2004an.

Azkenik, gizarte-prestazioetako gastua zortzi funtziotan banatuta dago eta, horien artean, zahartzaroa eta gaixotasuna/osasun laguntza nabarmentzen dira. Zahartzaroko gastuari dagokionez, pentsioez gain etzez etxeko laguntza-zerbitzua eta zaharren ostatua kontuan hartzekoak dira, eta gastu hori 4.605 milioi eurokoa izan zen 2004an. Horrek 11.949 euro adierazten ditu 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko, eta %6,3ko aldaketa hori positiboa da 2003ri dagokionez. Gaixotasuna/osasun laguntza funtzioak urteko %7,3ko hazkundea adierazten du biztanleko prestazioen esparruan, eta gizarte-prestazio guztien %30,1 da. Gizarte-bazterkeria funtzioari dagokinez, urteko %21eko hazkunde handia izan zuen, eta 231,4 milioi eurokoa izan zen 2004an. Etxebizitza funtzioaren gizarte-prestazioak 23,5 milioi eurokoak izan ziren, eta horrek %10eko murriztapena adierazten du 2003ri dagokionez. Gainontzeko funtzioei dagokienez, gastua handitu egin da, %8,3 bizirik atera direnekin lotuta, %7,5 familia eta seme-alaben inguruan, %5,6 baliaezintasunean, eta %4,2 langabezian.

2

EAEn jarduera ekonomikoa garatzeko baliabideak

Giza baliabideak EAE-n

1.1. Demografia eta inmigrazioa

2007ko urtarrilaren 1eko azken balioespenen arabera, EBko estatu kideek[1] 494,7 milioi biztanle dituzte guztira. Horrek agertzen du populazioa 1,8 milioi biztanle (+%0,37) hazi zela 2006. urtean.

1980tik gaur egunera arteko batez bestekoa baino handiagoa bada ere, aipatu hazkundea aurreko urteetakoa baino apalagoa izan da (%0,4 2005. urtean eta %0,46 2006. urtean). Honenbestez joera egonkortzen doala baiezta daiteke: Batasuneko hazkunde demografikoa moteltzen ari da.

Aurreikuspenek agertzen duten moduan, populazioak nagusiki honako herrialdeetan egingo du behera: Alemania, Bulgaria, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Polonia eta Errumanian. Eslovenian eta Eslovakian, aldiz, migrazioaren balantze positiboak hazkunde begetatibo negatiboa konpentsatuko du. Ikuspuntu geografikotik, EBko ekialdean jaitsiko da populazioa gehien. Izan ere, bertako herrialde askotan jaiotakoen eta hildakoen arteko aldea nahiz migrazioen arteko aldea negatiboak izango baitira.

2006an, oraindik orain, eboluzio demografikoaren bi osagai horiek nahiko parekaturik egon dira herrialde gehienetan. Egoera horretaz gozatu ez duten herrialdeetan, oro har, guztizko hazkunde tasa baxuagoa izan da. Etorkin kopuru handiari esker, Irlandako populazioa, esaterako, %2,7 hazi da. Bulgariak, aitzitik, 1.000 pertsonatik 7 galdu ditu: bi emigrazioarengatik eta bost jaiotza kopuru baxuaren eta heriotza tasa handien arteko balantze negatiboarengatik.

EAEko populazioa 2000. urtean hazten hasi zen eta, udal erroldako behin betiko datuen arabera[2], 2006ko urtarrilean hazten doa.

2006an, hain zuzen, 2.133.684 biztanle zeuden EAEn (2005ean baino %0,4 gehiago), hau da, 2000. urtean baino 35.088 biztanle gehiago.

Aipatu zenbatekotik, gainera, %4 EAEn erroldatutako atzerritarrak izan dira. Aipatutako azken datu hori 3,4koa zen 2005eko urtarrilaren 1ean. Horrek esan nahi du aldaketa erlatiboa +%17,4 izan dela. Denbora tarte horretan bertan, Estatu mailan izan den batez bestekoa baino han-

[1] Kontrakoa adierazten ez den bitartean, EB-27ri egingo diogu erreferentzia, Bulgaria eta Errumania orain gutxi sartu baitira.

[2] Udal Erroldako zifrak ez dira biztanleei eta etxebizitzari buruzko erroldarekin alderagarriak, bestelako metodologia baliatzen baitute. Udal Errolda administrazio erregistro bat da. Espainian 8.000 udaletik gora dago eta horietako bakoitzari bere errolda osatzea, mantentzea eta kudeatzea dagokio. Erroldak udal barrutian bizi zarela eta etxebizitza bertan duzula frogatzen dute. Hartara, errolda ziurtagiriak dokumentu publikoak eta fede emaileak dira administrazio izapide guztietarako. Biztanleei buruzko errolda, aitzitik, Estatistikako Institutu Nazionalak egiten duen estatistika da. Biltzen dituen datuak estatistika sekretuaren babesa dute. Erroldan, aitzitik, pertsonak identifikatzea ezinbestekoa da.

1

II.1.1. KOADROA. EAE-KO POPULAZIOAREN EBOLUZIOA AZKEN URTEOTAN 2000-2005

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Araba	286.497	288.793	291.860	294.360	295.905	299.957	301.926
Bizkaia	1.132.729	1.132.616	1.133.444	1.133.428	1.132.861	1.136.181	1.139.863
Gipuzkoa	679.370	680.069	682.977	684.416	686.513	688.708	691.895
EAE Guztira	**2.098.596**	**2.101.478**	**2.108.281**	**2.112.204**	**2.115.279**	**2.124.846**	**2.133.684**

Iturria: EIN. Udal Errolda Biztanleen udal-errolda.

diagoa izan da aldaketa hori (+%11,1). Biztanle atzerritarrei dagokienean, gure Komunitatea urrun dago Estatu mailako %9,3 horretatik —erroldaren azken eguneraketak utzi dituen datuen arabera, lau milioitik gora atzerritar daude Estatu osoan. Madrilek , Valentziako Erkidekoak eta Murtziak %13tik gorako tasa dute; Balear Uharteek, aldiz, %16tik gora.

Lurralde Historikoei dagokienean, datuek agertzen dute populazioa nabarmen hazi dela Araban (15.429 pertsona gehiago 2000 eta 2006 urteen artean) eta nahikotxo hazi dela Gipuzkoan(12.525 pertsona gehiago) Bizkaian, bestalde, biztanle kopurua ez da aldatu denbora tarte horretan (+7.134)

1.1.1. Udal populazioaren eguneraketa 2004

Eustatek EAEko udal populazioaren azken eguneraketa gauzatu zuen, 2004ko abenduaren 31ko egoerari buruzkoa, hain zuzen. EAEn 80. hamarkadaren hasieran, populazioak behera egin zuen eta aipatu ikerketak beheranzko joera hori moteldu egin dela erakusten du. Horrela, gure Erkidegoko errolda arteko hazkunde tasak € errolda azkenekoz eguneratu zenetik populazioa urtean batez beste zenbat aldatu den adierazten duenak— ikurra aldatu du azken aldi honetan. Errolda arteko hiru garai aztertu dira (1981-86, 1986-91 eta 1991-96). Horietan guztietan tasak –%0,1eta –%0,3 artekoak izan dira. Errolda arteko azken aldian (1996ko maiatzaren 1etik 2004ko abendura arte) aipatu tasa % 0,09 izan da.

1981 eta 2004ko amaiera artean, EAEk 26.963 pertsona galdu ditu, hau da, biztanleen %1,3. Araba da etengabe populazio hazkundea bizi duen hiru lurralde historikoetan bakarra. Errolda arteko aldi guztietan Arabako biztanleen kopuruak gora egin du. Horrela, 1981 eta 2004ko abendua artean 40.239 pertsona irabazi ditu Arabak (+%15,6). Denbora tarte horretan bertan, Bizkaiko eta Gipuzkoako populazioak behera egin zuen. Bien artean Bizkaia nabarmentzen da 51.453 pertsona (–%4,3)

II.1.1. Grafikoa. Errolda arteko hazkunde tasa, eskualdeka (%). 1996-2004



Iturria: Eustat.

II.1.2. Grafikoa. EAEko populazioaren egituraren eboluzioa, adin taldeka (%)



Iturria: Eustat.

galdu bai zituen; Gipuzkoak, aldiz, 15.751 biztanle (–%2,3).

EAEko herritarren egiturari dagokionean, populazioa adin talde handietan banatu eta euren eboluzioari erreparatzen badiogu, gazte kopurua gero eta murritzagoa dela ikusiko dugu; zaharrena, aldiz, gora doa. 1981 eta 2004 urteen artean 0 eta 19 urte arteko populazioak behera egin du EAEn; populazioaren %34 izatetik %17ra. Bestalde, aipatu urteetan 65 urte eta gehiagoko biztanleen kopurua bikoiztu egin da; %9 izatetik %18 izatera. Lurralde banaketari dagokionean, Bizkaiak EAEko pertsona guztien erdia baino zertxobait gehiago zituen, %54. Gipuzkoan, aldiz, %32 eta Araban gainontzeko %14.

Bestalde, esan beharra dago 2000. urtean populazioa hazten hasi zela, eta gorako joera hori 2004ko urteko aldaketan nabarmentzen da. Aipatutakoa xehetasunez ikusiko dugu oinarrizko adierazle demografikoei buruzko atalean. Udal biztanleria azkenekoz eguneratu zenetik (2003ko abenduaren 31tik, hain zuzen), EAEko biztanleen kopuruak gora egin du %0,5, 9.934 biztanle, alegia. Migrazio saldo positiboari esker hazi da EAEko demografia. Ikus dezakegun moduan, mintzagai dugun urteko bariazioa positiboa da hiru lurraldeetan. Hala ere, alde txikiak daude bariazio bat eta bestearen artean: Arabako eta Bizkaiko populazioak gora egin du migrazio saldoa positiboa izan delako; Gipuzkoan, aldiz, populazioak gora egin du hazkunde begetatiboa gertatu delako (jaiotakoak ken hildakoak).

Eskualdeei dagokienean, probintzia hiriburuak dituzten eskualdeek Erkidegoko populazio osoaren bi herenak hartzen dute: Arabako Lautadan EAEko biztanleen %11 dago; Donostian %15 eta Bilbo Handian %41.

Errolda berritu zenetik azken eguneratzera arteko hazkunde tasek agertzen duten moduan, EAEko hogei eskualdeetako hamahiruk garapen demografiko positiboak izan dituzte. Guztien artean honakoak gailentzen dira: Arabako Ibarrak, Gorbeako inguruak eta Plentzia-Mungia; horiek guztiek %2tik gorako tasak dituzte. Kontrako aldean Deba Beherea aurkitzen da, –%1 inguruko tasa baitu. Lau eskualde izan dira 2004. urtean populazioa galdu dutenak: Deba Beherea, Deba Garaia, Donostia eta Markina-Ondarroa. Guztien artean 414 biztanle galdu dituzte (–%0,1). Gainontzeko eskualdeetan populazioa hazi egin da. 10.347 pertsona gehiago dituzte, hau da, populazioaren %0,6.

Populazioren aldaketa eragiten duten elementuei dagokienean, populazioa hazi den eskualde guztietan migrazio saldoak positiboak izan dira; jaiotakoen eta hildakoen arteko aldea, berriz, ez da beti positiboa izan. Aipatu berri duguna, honako eskualdeetan gertatu da: Arabako ibarrak, Arabako Mendialdea, Arrati-Nerbioi, Bilbao Handia, Enkartazioak, Arabar Errioxa eta Gernika-Bermeo. Markina-Ondarroa izan ezik, populazioa galdu duten eskualde guztiek migrazio saldo negatiboak dituzte.

Azkenik, udal mailan, nabarmendu beharra dago 2004. urtean biztanle gehien jaso dituzten udalerriak Euskadiko hiru hiriburuak izan direla: Vitoria-Gasteizek 2.463 biztanle gehiago ditu, Bilbok 1.394 eta Donostia-San Se-

II.1.3 GRAFIKOA. BIZTANLERIAREN BARIAZIOAREN OSAGAIEN BILAKAERA



Iturria: Eustat.

bastianek 498. Erdi mailako kategoriatan, halaber, Durango (+297), Mungia (+229) eta Leioako (+203) hazkundea nabarmendu beharra dago.

EAEko 250 udalerriak lau kategoriatan banatzen baditugu (handiak, ertainak, tartekoak eta txikiak), argi ikusiko dugu Lurralde Historikoen hiru hiriburuak udalerri handiak direla (100.000 biztanletik gora). Hiru hiriburuetan, gainera, Euskadiko populazioaren %36 bizi da. Errolda arteko hazkunde tasa positiboa izan da Donostia-San Sebastianen (%0,03) eta Vitoria-Gasteizen (%0,6); Bilbon, aldiz, negatiboa izan da (–%0,2). Gainera, 2004. urtean, udalerri talde horren bariazioa positiboa izan da (%0.6). Bilbon eta Vitoria-Gasteizen biztanle gehiago dago (+2.071 eta +2.873 hurrenez hurren); Donostia-San Sebastianen, aldiz, 242 biztanle gutxiago daude.

EAEn, bestetik, sei udalerri ertain daude (40.001 eta100.000 biztanle artekoak). Azken horietan populazio osoaren %18 bizi da. Horietako lauk errolda arteko hazkunde tasa negatiboak dituzte: Barakaldo Basauri (–%0,6), Portugalete (–%1) eta Santurtzi (–0,6%). Gainontzeko biek, aldiz, hazkunde positiboa izan dute: Getxo (+%0,2) eta Irun (+%0,8).

Euskadin, bestalde, badira tarteko udalerriak ere. Bederatzi dira eta 20.001 eta 40.000 biztanle artean dituzte. Azken horietan Erkidegoko populazioaren % 12 biltzen da. Durangok (+%1,2), Leioak (+%1,2) eta Zarautzek (+%1,5) errolda arteko hazkunde tasa positiboak lortu dituzte. Aipatu udalerrietako nahiz Erandioko eta Galdakaoko populazioa hazi egin da 2004. urtean. Arrasaten, Eibarren, Errenterian eta Sestaon, aitzitik biztanle galera absolutuak izan dituzte. Azken horien artean Sestao nabarmen da, beherakada erlatiborik handiena izan baitu (%1etik gorakoa). Era berean, EAEko populazioaren %15 10.001 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan bizi da. Aipatu udalerri kategoriak 1.461 biztanle (+%0,4) irabazi ditu errolda arteko azken aldian. Nabarmentzeko modukoak dira Sopelana, Arrigorriaga, Mungia eta Hondarribiko hazkundeak.

Azkenik, gainontzeko 210 udalerriek 10.001 biztanle baino gutxiago dituzte eta multzo horretan Euskadiko populazioaren %19,5 biltzen da. Udalerri txiki horietako 142k errolda arteko hazkunde tasa positiboak dituzte; 68k, aldiz, negatiboak. 1.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako batzuk %3tik gorako tasa positiboak dituzte, hala Dulantzi nola Zuia, Okondo, Irura, Loiu, Bakio eta Gorliz. Udalerri txikiek, 3.116 biztanle irabazi dituzte guztira 1996tik.

1.1.2. Oinarrizko demografia adierazleen eboluzioa

(a) Populazioaren mugimendu naturala

2005erako behin-behineko datuek agertzen duten moduan, hazkunde begetatibo positiboa gertatuko da

(jaiotakoen eta hildakoen arteko aldea, migrazioak kontuan hartu gabe). 1986tik da Euskadin horrelakorik gertatu bi urte jarraian. Urte horretan 19.715 haur jaio (aurreko urtean baino %0,6 gehiago) eta 19.425 pertsona hil ziren (2004an baino %4 gehiago). Ondorioz +290ko hazkunde begetatiboa gertatu zen, hau da, milako 0,1. Euskadiko hazkunde begetatiboak 14 urtez behera egin zuen eta, behin betiko datuak lortu ez diren arren, badirudi 2004. urtean geratu egin dela. Baliteke hazkundea bere horretan geratzeko joera izatea, heldu diren urteetan egiaztatu beharko. 60. hamarkadan eta 70. hamarkadaren hasieran hazkunde begetatibo ikaragarria egon zen. 1990. urtean, aldiz, ikur negatiboa agertu zen. Ez zen horrelakorik gertatzen 1937. urtetik. Hortik aurrera, joerak behera egin du. Euskadi minimora historikora heldu zen 1996. urtean, 2.000 biztanletik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan baitzuen.

Aurreko urteetan gertatu bezala, 2005. urtean ere lurralde historikoek bilakaera ezberdina dute. Bizkaiak du Euskadiko saldo negatiboa (–689 biztanle). Aipatu zenbatekoa aurreko urtekoa baino handiagoa da (–392). Gipuzkoak eta Arabak, aitzitik, populazioa irabazi dute. Biek milako 1eko tasa dute, hots, 685 eta 294 pertsona gehiago hurrenez hurren.

Jaiotzek, bestetik, oso bestelako bilakaera dute 2005ean lurraldetik lurraldera: Araban, esaterako, 2.792 haur jaio ziren (–%0,6); Bizkaian, aldiz, 10.122 haur jaio ziren (2004an baino %1,3 gehiago) Gipuzkoan datua ez da aldatzen 2004tik 2005era: 6.801 (–%0,2 inguru) Emaitza horiek Euskadiko jaiotza tasa ‰ 9,3 dela agertzen dute. Aipatu datua aurreko urtekoaren berdina da. Gainera, 1995ean jaiotzetan egondako gorakadatxoa finkatu da eta 80. hamarkadaren erdi aldeko mailan gaude orain. Zifra hori ‰20tik gorakoa zen eta Estatu mailako batez bestekoa gainditzen zuen. Naiz eta gorakadatxoa izan, Euskadiko tasa Estatuko (‰10,6) nahiz EBko (10,5) batez bestekoen azpitik dago.

Aurten ere, nabarmendu behar dugu ezkondu gabeko ama asko dagoela, geroz eta gehiago. 2005eko datuen arabera, EAEn jaiotzen diren haurren %23,2k ezkongabeko gurasoak dituzte. Ratio hori hazi egin da azken hamasei urteotan, 1990. urtean jaiotako haurren %7,7 ezkondu gabeko gurasoen fruitu izan baitziren. Aipatu datua Estatu mailako eta EBko batez besteko ratioen azpitik dago (%26,6 eta % 33, hurrenez hurren). Europari dagokionean, 2005eko datuek muturreko mailak agertu dituzte: Suedia (%55,4), Estonia (%58,5), Zipre (%4,4) edo Grezia (bizirik jaiotakoen %5,1). Batasunetik kanpo, Islandiako tasa altua nabarmendu beharra dago. Aipatu lurraldean jaiotako haurren %65,7 ezkondu gabeko amaren seme-alabak dira.

UE 2006ko behin behineko datuek, bestalde, EBn 5,2 milioi haur jaio direla agertzen dute[3]. Un 1,1% más que en 2005, y alrededor del 3,9% más que en 2002.2005ean baino %1,1 gehiago eta 2002an baino %3,9 gehiago inguru. 2002an, esaterako, Bigarren Munduko Gerratik lortzen ez zen mailara heldu zen. 60. hamarkadan, 2 milioi haur baino gehiago jaiotzen ziren urtean. 1965etik 1995era, ordea, ugalkortasun tasek behera egin dute. Irlandak du jaiotza tasarik altuena (15,1 milako). Bazuena, aitzitik, Alemaniak du (8,2 milako).

Aski ezagun da apurka-apurka amatasuna atzeratzen ari dela eta, beste arrazoi batzuen artean, horregatik jaiotako haurren kopuruak behera egin duela. 2005ean tendentzia mantendu da, eta EAEko amen adina 2004koa baino zertxobait altuagoa izan da. 2005ean seme-alabak izan zituzten emakumeen %76,6k 30 urtetik gora zuen.

II.1.2. Koadroa. Populazioaren mugimendu naturala EAE-n

	Bizirik jaiotakoak	Tasa	Hildakoak	Tasa	Hazk.begetatiboa	Tasa
1975	39.646	19,1	14.699	7,1	24.947	12,1
1981	27.255	12,7	14.628	6,8	12.627	5,9
1986	20.094	9,4	15.094	7,1	5.000	2,4
1991	16.228	7,7	16.766	8,0	–538	–0,3
1996	15.987	7,6	18.031	8,6	–2.044	–1,0
2001	17.647	8,5	18.087	8,7	–440	–0,2
2002*	18.133	8,7	18.619	8,9	–486	–0,2
2003*	19.267	9,2	19.305	9,2	–38	0,0
2004*	19.594	9,3	18.684	8,9	910	0,4
2005*	19.715	9,3	19.425	9,2	290	0,1

(*) Behin-behineko datuak. Tasak, mila biztanleko.
Iturria: Eustat "Estadística de Nacimientos y de Defunciones" eta guk geuk egindakoa.

[3] Aldi osorako, 2006ko maiatzaz geroztik Batasunean izan diren jaiotza guztiak hartu dira kontuan, Errumania eta Bulgariakoak barne.

II.1.3. Koadroa. Europako populazioaren mugimendua 2006an. Lehen zenbatespenak

	06.1.1eko populazioa (milakotan)	Tasa gordinak 1.000 biztanleko			07.1.1eko populazioa (milakotan)
		Jaiotakoak	Hildakoak	Migrazioa	
EB-27	492.852,4	10,5	9,7	2,9	494.674,8
EB-25	463.523,4	10,5	9,5	3,1	465.437,7
Belgika	10.511,4	11,5	9,7	3,9	10.570,5
Bulgaria	7.718,8	9,4	14,7	–1,5	7.666,5
Txekiar Errepublika	10.251,1	10,2	10,2	3,7	10.288,9
Danimarka	5.427,5	12,0	10,3	1,7	5.445,7
Alemania	82.438,0	8,2	10,2	0,5	82.311,7
Estonia	1.344,7	11,0	13,1	–1,4	1.339,9
Irlanda	4.209,0	15,1	6,3	18,7	4.326,7
Grezia	11.125,2	9,7	9,4	3,7	11.169,1
Espainia	43.758,3	10,7	8,6	14,4	44.484,3
Frantzia	62.886,2	13,0	8,4	2,5	63.336,3
Italia	58.751,7	9,7	9,3	2,7	58.933,8
Zipre	766,4	11,2	6,8	8,1	776,0
Letonia	2.294,6	9,5	14,6	–1,1	2.280,5
Lituania	3.403,3	9,1	13,3	–1,0	3.385,7
Luxenburgo	459,5	12,1	7,7	6,1	464,4
Hungaria	10.076,6	9,9	13,1	1,4	10.057,9
Malta	404,3	9,4	7,5	6,3	407,7
Herbehereak	16.334,4	11,3	8,4	–2,2	16.346,2
Austria	8.265,9	9,2	9,0	3,4	8.295,9
Polonia	38.157,1	9,7	9,9	–1,2	38.101,8
Portugal	10.569,6	10,4	9,7	2,9	10.609,0
Rumanía	21.610,2	10,2	12,0	0,0	21.570,6
Eslovenia	2.003,4	9,1	9,2	3,6	2.010,3
Eslovaquia	5.389,2	9,8	9,8	0,5	5.391,6
Finlandia	5.255,6	11,1	9,1	2,0	5.277,1
Suecia	9.047,8	11,6	10,1	6,4	9.119,8
Reino Unido	60.393,1	12,2	9,7	2,6	60.707,1
CAPV 2005	2.124,8	9,3	9,2	9,0	2.133,7

Fuente: Elaboración a partir de Eurostat, INE y Eustat.

2004an gertatu bezala, 30 eta 34 urte artekoak ziren gehienak (%45,6). 35 urtetik gorako ama kopuruak, aitzitik, gora egin du (jaiotakoen %31).

Batez beste 32,2 urteko amak izaten dira. Lehendabiziko haurra duten amena, aitzitik, 31,1 da. Horrela, EAEn bizi diren lehenerdiak EBko zaharrenak dira.

Euskadin izan diren jaiotzen datuekin amaitzeko, nazioarteko adopzioen fenomenoa aipatu behar dugu, nahiz eta kantitateari dagokionean garrantzi berezirik ez izan. Gero eta haur gehiago ekartzen dira atzerritik eta, horri esker, gero eta bikote gehiagok oinordekotza izateko euren desioa bete dezakete.

Foru Diputazioek eman dituzten datuen arabera, 2004an 633 aldeko txosten igorri ziren nazioarteko adopzio espedienteetan, 2001ean baion %52 gehiago.

Gizarte zailtasunak dituzten haurren inguruko kapituluan azaltzen den moduan, 285 adopzio burutu ziren. Adinez txiki horien erdiak baino gehiagok (%54) Ekialdeko Europatik dator eta %32 Asiatik, Txinatik batez ere.

Hildakoei dagokienean, 2005ean 19.425 pertsona hil ziren. Horietatik %53,2 gizonezkoak izan ziren eta %46,8 emakumezkoak. Behin betiko datuak eman ez badira ere, 2004an baino 741 hildako gehiago egon ziren.

2005ean zendutako pertsonen %30,3 (5.891 hildako) zirkulazio sistemako gaixotasunek jota hil ziren.Bigarren lekuan tumoreak aurkitze dira (heriotzen %28,1) eta hirugarrenean, urrunago oraindik, arnasbideetako gaixotasunak (heriotzen %11,4)[4].

Era berean, EAEn Hildakoen Estatistikako behin betiko datuek agertzen dute 2004an hildakoen batez besteko adina 76,2 urte direla (2003ko bera); 72,2 urte gizonezkoen kasuan eta 80,6 emakumezkoen kasuan. Emakumeak, beraz, gehiago bizi dira. 82 urteak arte, ia adin guztietan hildako gizonezkoen kopurua emakumezkoena baino handiagoa da. Nolanahi ere, 83 urteetatik aurrea aipatu pro-

[4] Txosten Sozioekonomiko honetako osasunari buruzko atalean Euskadiko herritarren heriotzaren zioak xehetasun handiz aztertu dira.

II.1.4 GRAFIKOA. EAE-KO NAZIOARTEKO ADOPZIOEN KOPURUAREN BILAKAERA, UMEAREN JATORRIZKO ZONAREN ARABERA



Iturria: Geuk egina, foru aldundiek emandako datuetan oinarrituta.

portzioa aldatu egiten da, eta hiltzen diren emakumezkoen kopurua gizonezkoenaren bikoitza da (inflexio puntu hori, 2002ko datuen aldean, urtebete lehenago ematen da). Emakumezkoak gizonezkoak baino urte gehiagoz bizi dira. Ondorioz, hildako gizonezkoen %62,5 ezkonduta zegoen eta %17,9 alargun. Emakumezkoei dagokienean, hildakoen %61,3 alargunak dira, eta ezkondutakoak %22,4. 2004. urtean 8.104 bikote apurtu ziren ezkontideetako bat zendu zelako, 2003an baino 379 gutxiago.

Europako Batasuneko datuei dagokienean, 2003. urtean kopururik altuenera iritsi zen: 5 milioi pertsona inguru hil ziren, milako 10,5eko tasa gordina; EAEk 9,2koa izan zuen urte horretan bertan. Zendutako pertsonen kopuruak behera doan arren, EBko zifrek urtez urte gainbehera handiak izaten dituzte. Ondorioz, zenbait urtez zain egon beharko dugu aipatu joera ziurtatzeko. 2006ko behin-behineko datuek 4,8 milioi hildako egon direla agertu dute; 2005ean baino %1 gutxiago.

(b) Migrazio mugimenduak

Eustatek Migrazio Mugimenduei buruzko Estatistika gauzatu zuen 2005. urtean. Estatistika horretan, Euskadik 13.321 pertsona irabazi zituela adierazten da (2004an baino %47,6 gehiago); 6. urtez, migrazio saldo positiboa. Lurraldeka, Bizkaiak du, zifra absolutuetan, migrazio saldo positiborik handiena, 7.660 pertsona irabazi baitzituen (2004an baino %50 gehiago). Arabak, bere aldetik, 271 pertsona galdu zituen (–%8,2) eta Gipuzkoak 2.004 irabazi (+%320,1).

Eurostatek 2006rako iragarpenean agertu zuen moduan, Europako Batasuneko nazioarteko migrazio fluxuen saldo positiboa, 90. hamarkadan beherakada handia bizi

II.1.5. GRAFIKOA. JAIOTZEN EBOLUZIOA EAE-N, AMEN ADINAREN ARABERAKOA



Iturria: Eustat "Estadística de Nacimientos".

ondoren, ia bi milioi pertsonatan handitu zen 2003. urtean. Aipatu datuok finkaturik daude jada. 2006an, aldiz, migrazio saldoak apur bat egin du behera (1,42 milioi pertsona). EB-27ko migrazio tasa gordina milako 2,9 izan da; EB-25ekoa, aldiz, milako 3,1. Hiru herrialderi dagokie fluxuen %67tik gora: Espainia, Frantzia eta Erresuma Batua. Bestalde, Batasuneko kide berriek, Poloniak eta Estoniak migrazio saldoko tasa gordinik altuenak dituzte.

2005ean, bestetik, 192.714 pertsona (2004an baino %6,9 gehiago) etxez aldatu ziren. Horietatik %48,2 udalerriko leku batetik bestera mugitu zen eta %23,5 EAEko udalerri batetik bestera. Gainontzekoan, 33.993 kanpo immigrazioak izan ziren (Euskaditik kanpo EAEra) eta 20.672 kanpo emigrazioak (EAEtik kanporantz).

EAEren eta gainontzeko autonomia erkidegoen arteko mugimenduak kontuan hartuta, 2005ean 2004an baino 740 (+%4,4) pertsona gehiago heldu ziren EAEra. Hala ere, Euskadiren eta Estatuko gainontzeko eskualdeen arteko migrazio saldoa negatiboa da oraindik: 1.497 pertsona galdu ditu. Bestetik, atzerritik etorritako pertsonen migrazio saldoa positiboa da: 14.818 pertsona gehiago (aurreko urtean baino %27 gehiago). 2005eko kanpo mu-

II.1.4. KOADROA. EAE-KO MIGRAZIO MUGIMENDUEN EBOLUZIOA

	Estatutik EAEra	EAE-tik Estatura	Kanpoko Migrazio Saldoa*			
			EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1990	10.930	15.771	–4.841	128	–3.648	–1.321
1995	11.316	16.130	–4.814	108	–3.637	–1.285
1999	16.103	17.291	–1.188	279	–1.624	158
2000	20.022	17.462	2.560	1.463	804	293
2001	22.914	24.252	7.079	2.316	3.184	1.579
2002	22.121	25.774	6.237	2.710	3.425	103
2003	24.157	27.188	6.251	1.828	3.617	806
2004	23.777	26.417	9.024	3.299	5.099	626
2005	24.517	26.014	13.321	3.028	7.660	2.633

(*) Guztizko migrazio saldoa, Estatuarekiko nahiz atzerriarekiko.
Iturria: Eustat "Estadística de Movimientos Migratorios".

II.1.5. KOADROA. LURRALDE ETA MAILAKO MIGRAZIOAK. 2005

	Inmigrazioak	Emigrazioa	Kanpoko Mig. Saldoa	Barne Mig. Norakoa	Barne Mig. Jatorria	Barne Mig. Saldoa	Udal arteko Migrazioak
EAE	**33.817**	**20.553**	**13.264**	**44.523**	**44.523**	**0**	**92.352**
Lurralde Historikoak							
Araba	6.390	3.362	3.028	4.091	4.094	–3	15.634
Bizkaia	18.919	11.316	7.603	26.881	27.144	–263	50.335
Gipuzkoa	8.508	5.875	2.633	13.550	13.286	264	26.383
Eskualdeak							
Arabako Ibarrak	185	118	67	268	230	38	111
Arabako Lautada	5.087	2.584	2.503	2.322	2.402	–80	13.448
Arabako Mendialdea	51	38	13	138	127	11	128
Arratia Nerbioi	275	110	165	744	707	37	719
Bidasoa Beherea	1.518	938	580	1.444	1.313	131	3.390
Bilbo Handia	15.070	9.615	5.455	18.538	18.739	–201	40.973
Deba Beherea	558	372	186	1.041	1.137	–96	2.371
Deba Garaia	734	488	246	876	988	–112	1.897
Donostialdea	3.310	2.970	340	5.791	5.537	254	12.597
Durangaldea	1.242	665	577	2.463	2.428	35	3.464
Enkartazioak	463	250	213	833	761	72	843
Errioxa Arabarra	536	337	199	196	178	18	420
Gernika-Bermeo	726	198	528	1.072	1.083	–11	1.802
Goierri	936	432	504	1.488	1.453	35	1.893
Gorbeia Inguruak	152	58	94	322	315	7	306
Kantauri Arabarra	379	227	152	845	841	4	1.221
Markina-Ondarroa	387	141	246	607	964	–357	1.021
Plentzia-Mungia	756	337	419	2.624	2.461	163	1.513
Tolosaldea	594	253	341	1.465	1.464	0	1.405
Urola-Kostaldea	858	422	436	1.446	1.394	52	2.830

Iturria: Eustat "Estadísticas de Movimientos Migratorios".

II.1.6. GRAFIKOA. MUGIMENDUEN ETA MIGRAZIO SALDOEN EBOLUZIOA EAE-N



Iturria: Eustateko datuak oinarri egindakoa. Estadística de Movimientos Migratorios.
Oharra: immigrazioei eta emigrazioei buruzko datuak 1988an oinarritutako zenbaki indizeak dira.

gikortasun geografikoari edo komunitatetik kanpoko mugikortasun geografikoari dagokionean, EAEko mila biztanletatik 25,7ri eragin die (Araba milako 32,8 eta Gipuzkoa milako 21). Tasa horiek nahiko txikiak dira gainontzeko komunitate autonomoekin alderatzen baditugu. Azken horietan, batez beste, mila biztanletatik 43 mugitzen dira.

EAEko emigrazio tasa milako 10ekoa izan zen 2005ean (milako 10,1ekoa 2004an). Horri atzerriranzko emigrazioen datuak kentzen badizkiogu, aipatu tasa milako 9koa litzateke (9,2koa 2004an), lau puntu Estatu mailako batez bestekoaren azpitik. Madril, Errioxa, Balearrak eta Gaztela eta Leongo tasak Estatu mailako batez bestekoaren gainetik daude; milako 15eta 38 artean. Kataluniatik, Madrildik, Kanarietatik eta Balearretatik jende gehiago etortzen da EAEra, EAEtik hara joaten dena baino. Atzerriari dagokionean, 14.818 pertsonako saldo positiboa izan zen 2005ean. Hona hemen, hurrenez hurren, EAEko emigrante gehien jaso dituzten erkidegoak: Kantabria, Gaztela eta Leon, Katalunia, Madril eta Nafarroa. Bost erkidego horietako batetara doa Euskadi uzten duten bi pertsonetatik bat.

2005. urtean atzerriko nazionalitatedun 19.877 pertsona etorri ziren (2004an baino 6.314 gehiago). Aipatu zifra Euskadira etorritakoen %58 da. 2000tik nabarmen handitu da atzerriko nazionalitatea duten immigranteen etorrera EAEn. Balio absolutuei dagokienean, 2000an 7.328 pertsona etorri ziren; 2005ean, aldiz, 20.000 (bost urtetan hirukoiztu egin da). Gainera, kontuan izan behar dugu atzerriko immigrante horietako batzuk beste autonomia erkidegoetatik etortzen direla (5.093 pertsona).

Azkenik, titulazioari dagokionean esan behar dugu trebakuntza mailarik apalena dutenek immigrazioen %51,1 eta emigrazioen %50 osatzen dutela; goi mailako ikasketek, aldiz, emigrazioen %19,8 eta immigrazioen %19,1. Horrez gain, immigranteen eta emigranteen batez besteko adila ezberdina da (31,4 eta 35,7 urte hurrenez hurren); aurreko urtean, aitzitik, immigranteen eta emigranteen batez besteko adina ia berdina zen.

1.1.3. Familiei Laguntzeko Eusko Jaurlaritzako Planak

Familia gizartean funtsezko elementu bat da gizartean gauzatzen dituen funtzioen garrantzia dela eta, eta zehazki, neska-mutilek gizartean daukaten kokapen eta identifikaziorako, menpeko haurrak zaintzeko, familiako kideak mantentzeko, kide guztien sozializaziorako, afektibitatearen euskarriari eta euskarri emozionalari dagokienez eta batak bestea lagundu eta babesteko orduan.

Azken urteotan, familiaren instituzioak jasan dituen eraldaketen ondorioz eta horrek ugalkortasun-tasetan

II.1.6. KOADROA. EMAKUMEEK LANEKO BIZITZA ETA FAMILIAKOA BATERATZEKO ZAILTASUNEN ERAGINA

Etxe motak	Familiak	Lana uzten dute	Lana eteten dute	Ezin dute lanik egin	60 ordu baino gehiago lan egiten dute	70 ordu baino gehiago lan egiten dute
Pertsona bakarrekoa	1.087	1,7	0,0	0,8	19,5	5,4
Pertsona anitzekoa familia ez dena	54	0,0	0,0	0,0	1,8	1,8
Familiakoa nukleorik gabekoa	110	3,3	0,0	0,0	2,6	0,0
Ezkontideak guraso izan aurrekoak	397	1,4	0,3	0,5	17,0	6,3
Gurasoak menpeko seme-alabekin	2.392	13,6	7,2	4,6	25,3	15,3
Gurasoak menpekoak ez diren seme-alabekin	892	4,5	1,1	1,0	7,5	5,0
Conyugal posparental	1.222	3,4	0,6	0,4	21,2	13,6
Posconyugal con prole depend.	311	5,8	3,7	2,1	20,2	13,5
Poscony.con prole no depend.	381	5,5	1,8	1,3	13,5	8,0
Guraso bakarrekoak menpeko seme-alabekin	29	3,1	3,1	10,3	27,3	22,7
Guraso bakarrekoak menpekoak ez diren seme-alabekin	4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Nukleo anitzekoak	129	9,6	5,6	3,9	8,4	5,9
Guztira	7.008	8,4	4,0	2,9	18,5	10,8

izan duen eragina dela eta, eta horren eraginen ondorioz, gero eta interes publiko gehiago piztu da familiaren inguruan. Ugaltzeko joera gehiago daukaten adin-tartea eta lan mundura sartu eta sustapenak lortzeko adin-tartea bat etortzearen ondorioz, emakumeentzako seme-alabak izateko erabakia hartzea zaila da. Ama izan nahi duten emakume gehienak lanarekin bateratu nahi izaten dute eta gero eta gehiago dira 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dauzkaten eta kide biek lan egiten duten bikoteak.

2003an %44 ziren adingabeko seme-alabak izanik, bikoteko kide biak aktiboak zirenak, eta tasa hori artean, EBko tasatik oso urrun zegoen, EBkoa %59koa baita. Egoera hori dela eta, elkarrekin bizi direnen unitateen barruan arazo berriak sortu dira ordaindutako lana eta familiako zaintza lanak bateratzeko beharren inguruan. Lana eta familiako lanaren arteko liskar hori bi unetan areagotzen da: umeak txikiak direnean, baina gero eta sarriago ere, menpekoak diren adineko pertsonak zaindu behar direnean (egoera hori Memoria Sozioekonomiko honetako "Zaurgarriak diren multzo jakin batzuen bizitzaren baldintzei" buruzko atalean xeheago landuko dugu).

Egoera horiek arintzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak 2002an "*Seme-alabak dituzten Familiei laguntzeko Erakunde arteko I. Plana*" martxan jarri zuen familiei modu askean seme-alaba kopurua erabakitzea galarazten dieten oztopo ekonomikoak eta sozio-laboralak ezabatzeko.

Planaren indarraldia bukatu ostean, horren emaitzen arabera, 2002 eta 2005. urteen artean 220 milioi euro baino gehiago gastatu dira hiru motako neurrietan modu orekatuan: garrantziaren arabera honako hauek dira: haur-eskolak finkatzeko gastua (%34), familiei seme-alabak jaio edo hartzearen ondorioz ematen zaizkien diru-laguntzak (analizatutako ekitaldietako gastu osoaren %30,7), eta langileei laneko bizitza eta familiakoa bateratzeko eman zaizkien laguntzak (%23,9). Gainontzeko neurriek (sentsibilizazioa, enpresei emandako diru-lagun-

II.1.7. KOADROA. EUSKO JAURLARITZEKO FAMILIEI LAGUNTZEKO I. PLANEAN GASTUEN BILAKAERA NEURRI MOTA ETA HORIEN BANAKETAREN ARABERA (MILA €)

Laguntza Mota	2002	2003	2004	2005	Guztira	Distrib. %	Increm. 2002/05
Sentsibilizazio neurriak	325	401	1.006	1.000	2.733	1	208
Bateratzea. Langileei emand. diru-lag.	6.401	14.201	15.066	16.880	52.548	24	164
Conciliación. Subv. a empresas	651	2.095	2.408	2.760	7.914	4	324
Familiei emandako diru-laguntzak	15.020	15.903	17.484	19.300	67.707	31	29
Familiari laguntzeko zerbitzuak: Haur-eskolak	5.442	17.327	25.008	27.000	74.776	34	396
Familiari laguntzeko zerbitzuak: Diru-laguntzak	3.000	3.604	3.916	4.000	14.520	7	33
Guztira	**29.470**	**53.532**	**64.888**	**70.940**	**220.197**	**100**	**130**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Familiei laguntzeko II. Plana 2006-2010.

II.1.8. KOADROA. FAMILIEI LAGUNTZEKO I. PLANAREN NEURRIEN ESTALDURA TASEN BILAKAERA

Neurri mota	2002	2003	2004	2005
Kontziliazio neurriak. Langileei eskainitako laguntzak[1]	3,9	10,3	12,2	13,7
Kontziliazio neurriak. Enpresei emandako diru-laguntzak[2]	11,1	13,1	12,6	13,0
Familiei emandako diru-laguntzak[3]	96,1	94,0	86,9	71,3*
Familiei laguntzeko zerbitzuak. Haur-eskolak[4]	48,0	49,0	51,0	54,7*
Familiei laguntzeko zerbitzuak. Diru-laguntzak[5]	—	0,2	0,21	0,21**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Familiei laguntzeko II. Plana 2006-2010.
(1) Okupatu bat ala gehiago eta gutxienez 4 urte baino gutxiagoko seme edo alaba bat daukaten familiei emandako laguntzen %.
(2) Haztatu gabeko ordezkapen indizea. Langileentzako bateratzeko neurriekin sortu diren lanpostuen %.
(3) urte bakoitzeko jaiotza kopuruaren arabera emandako diru-laguntzen %.
(4) haur-hezkuntza sarean plazen eskaera potentzialari dagokionez eskuragarri dauden plazen %.
(5) Haurrentzako arreta sarean okupatutako plaza bakoitzeko emandako diru-laguntza kopurua.
*** Son resultados calculados estimando que las personas nacidas en 2005, en ausencia de datos publicados, son las mismas que las de 2004.**
**** En ausencia de datos sobre las plazas ocupadas en la red de atención infantil en el curso 2005/2006 para niños/as de 0 a 3 años, se ha utilizado el nivel de ocupación del curso anterior.**

tzak eta haur-hezkuntzako zentroetara sartzeko zerbitzuak) Planak eragindako kostuaren zati txiki bat suposatzen dute.

Zerbitzurik erabilienak haur-hezkuntzako zentroetako plazak direla ikusten da; hala ere, Planaren indarraldian zehar horrek neurrien multzoaren barruan daukan garrantzia pixkanaka gutxitzen joan da %57tik %52ra.

Halaber, familiei emandako diru-laguntzen (bigarren neurria da onuradunen kopuruaren araberako garrantziaren arabera) garrantzi erlatiboak ere behera egin du; neurrien multzoarekin alderatuta gutxien hedatuta dauden zerbitzuen ehunekoak, aldiz, gora egin du. Hortaz, ikuspuntu horretatik, neurrien dibertsifikazio prozesu bat bizi izan dela eta ondorioz, zerbitzu eta prestazioen banaketa orekatuagoa egon dela esan daiteke.

Neurri desberdinen aplikazioa beren eskatzaile izan litezkeen pertsonekin eta/edo erabiltzaileekin alderatuz aztertuz gero, estaldurarik handiena jaiotzen ondoriozko diru-laguntzen alorrean dagoela ikus daiteke. Horren atzetik doaz haur-eskoletako plazak. Hala ere, tarteen arteko desberdintasunak garrantzitsuak dira.

1.1.4. Immigrazioa EAEn

Nazioarteko migrazioak denbora tarte laburrean nazioarteko agenda politikoan eta garapenekoan gai erabakigarrietako bat bilakatu dira, eta gizarteak eta munduko ekonomiak gaur egun bizi duen etaparen bereizgarrietako bat dira. 1850-1910 arteko epean jada mundu mailako lehenengo migrazio etapa bat bizi izan zen eta XX. mendeko 90. hamarkadatik Bigarren Mundu Gerraren ostean hasi zen bigarren migrazio etapa handia ari gara bizitzen.

Fase honek aurreko faseetatik bereizten duten zenbait elementu dauzka[5]: Migrazioa, gaur egun, kausa anitzeko fenomeno bat da. Bertan, jatorriko eta helmugako herrialdeetako eskaera eta eskaintzari lotutako faktoreek eragina daukate eta nagusiki, ibilgu irregularretatik gauzatzen da, izan ere, fluxuen kontrolerako migrazio politikak gero eta zorrotzagoak dira. Halaber, migrazioaren ibilbideak dibertsifikatu eta globalizatu egin dira, eta hori hegoaldeiparralde migrazioari nahiz hegoaldeko herrialdeen artekoari aplika dakieke. Antolatutako migratzaileak azaleratzen ari diren gizarteko subjektu bilakatzen ari dira, eta aldi berean, gizartean beste fenomeno batzuk gertatzen ari dira, esate baterako, nazioez haraindiko familiak.

Bestalde, jatorriko herrialdeetako "burmuinen ihesa" deritzon fenomenoaren ondoriozko eragin negatiboak gertatzen ari dira, eta horrez gain, beren gaitasunak helmugako herrialdean alferrik galtzen dira, izan ere, ohikoena beren prestakuntzarekin bat ez datozen lanpostuetan aritzea baita. Azkenik, garapenerako kooperazioa, gaur egun, migrazioen eremuan garapenerako sortzen diren aukerak aprobetxatzeko esku hartzeko aukera aintzakotzat hartzen ari da.

EAE ez dago fenomeno horietatik at, eta kultura aniztasuna igotzen ari da, biztanle talde berriak gero eta gehiago, eta duela gutxi, sartzen hasi direla kontutan hartuta. Hurbil dauden beste gizarte batzuen mailara oraindik iritsi ez bada ere, atzerritarren immigrazioa gure Erkidegoan asko igo da azken urteotan, eta lurraldeka oso banatutako aniztasun panorama osatu da.

[5] Atienza, Jaime (2007): Nazioarteko migrazioak eta garapena. ECONOMISTAS aldizkaria, 111. zkia. "España 2006. Un balance" extra.

(a) Bilakaera demografikoa

Udal Erroldan definitutako datuen arabera, 2005ean zehar, EAEn biztanle atzerritarren kopuruak modu garrantzitsuan egin zuen gora. 2005ean geure Erkidegoan 72.894 immigrante bizi ziren (kopuru osoaren %3,4); urtebete geroago, erroldatutako atzerritarren kopurua 85.542 iritsi zen, hau da, %17,4 gehiago. Halaber, 2005ean zehar, EAE biztanle atzerritarren kopuruak urte batetik bestera aldaketa gehien jasan duen autonomia erkidegoa izan zen: %16,9ko hazkuntza, hain zuzen ere.

Demografiari dagokionez, atzerritarren ekarpenak berebiziko garrantzia izan du. 1998tik 2006ra, bertako herritarren kopuruak behera egin du (35.829 pertsona gutxiago). Baina, epe berean, biztanle kopuru osoak gora egin du eta 32.520 biztanle gehiago daude. Hori ezinezkoa izango zatekeen atzerriko nazionalitateko 68.349 pertsona etorri ez balira. Hau da, biztanleen galera atzerriko herritarren kopuru positiboak konpentsatu du. Immigrante kopuruaren hazkuntza herritarren kopuru osoaren barruan daukan garrantzian ikusten da: 2006. urtean, EAEn atzerritarren garrantzia %4koa da, eta Estatu mailan %9,3koa da.

Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) egin duen Erroldako datuen aurrerapenen analisiak[6] Bizkaiak atzerritar gehien daukan lurraldea izaten jarraitzen duela azaleratu du, izan ere, 42.707 atzerritar daude bertan. Gipuzkoa da bigarrena eta Araba hirugarrena, lurralde horietan 24.516 eta 16.324 biztanle atzerritar baitaude erroldatuta. Hala ere, Araba da immigrazio ehunekorik altuena daukana: %5,5, alegia. Bizkaian %3,9koa da eta Gipuzkoa da ehunekorik baxuena izaten jarraitzen duen lurraldea: 3,4%. Laburbilduz, EAEko biztanle atzerritarren erdia Bizkaian bizi da eta Araba da immigrazio ehunekorik altuena daukan lurraldea.

EAEko biztanleria atzerritarra zati berditsuetan zatitzen da sexuaren arabera: %50,8 gizonezkoak dira eta %49,2 emakumezkoak. Osaketa horri dagokionez, EAEn emakumeen kopurua pixka bat altuagoa da Estatukoa baino, izan ere, han %53 gizonezkoak dira. Desberdintasuna EAEn Latinoamerikako biztanle gehiago daudelako ikusten da, izan ere, Bizkaian nagusiki, emakumezkoen ehunekoa altuagoa da beste lurraldeekin alderatuta.

EAEn erroldatutako pertsonen nazionalitate taldeetan zentratuz gero, Amerikako nazionalitateek nagusitzen jarraitzen dute izan ere, EAEn bizi diren atzerritarren %50 suposatzen baitute. Latinoamerikarren kasuan, bolumena hazi egin da, baita beren ekarpenaren ehunekoa ere, 2003. urtetik. Iparramerikak (Kanada eta AEB) bere ekarpena egonkor mantentzen du %1aren inguruan.

Nazionalitateen arabera, hamar herrialde garrantzitsuenen artean, bost Latinoamerikakoak direla ikusten dugu (Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Argentina), beste biz Magrebekoak dira (Maroko eta Aljeria), Asiako bat (Txina) eta Europar Batasuneko bi kide (Portugal eta Errumania).

Azken urteotan gero eta gehiago antzematen ari gara "Gainontzeko nazionalitateak" deritzonaren ehunekoa, eta aldi berean, nazionalitate garrantzitsuenen garrantzia behera egiten ari da. Fenomeno horiek gure artean ikusten diren nazionalitateak gero eta gehiago direla ikusiz azaltzen dira. EAEn gehien ikusten den nazionalitatea Kolonbia da eta hemen bizi diren atzerritarren %13a suposatzen du, hala ere, 2003. urtetik atzerritar kopuru osoari

II.1.8. GRAFIKOA. EAEKO SEI ATZERRITAR NAGUSIEN EZARPEN JARRAIBIDEAK



Iturria: EINaren datuetatik abiatuz landuta.

[6] Analisi horretako balore absolutuak ez datoz behin betiko datuetako guztiekin bat. EINak 2006an, desberdintasunak, ehunekotan, txikitzat iritzi zituela eta, aurkeztu zituen lehenengo estimazioetatik ikuspegik gauzatutako ustiaketa sartzen da. Nolanahi ere, behin betiko datuek erakusten dutena aurrerakuntzak atzerritarrek biztanleria osoaren barruan daukaten garrantzia (bai EAEn, baita Estatu mailan ere) gutxietsi zuela da.

II.1.7. GRAFIKOA. NAZIONALITATE GARRANTZITSUENEN BANAKETA ESKUALDEKA



Iturria: EINaren datuetatik abiatuz landuta.

dagokionez %4 jaitsi da. Ekuadorrek eta Marokok beren kuotak mantendu dituzte, baina pixka bat jaitsi dira, eta bigarren eta hirugarren tokian daude. Horien atzetik Europako herrialde bi azaltzen dira: Portugal eta Errumania. Lehenengoa pixkanaka garrantzia erlatiboa galtzen doa, bigarrena aldiz, gora egiten ari da.

Errumania eta Bolivia arretarekin begiratzeko moduko herrialde bi dira, izan ere, aurrekariri kez daukan igoera jasan baitute, bai bolumenari dagokionez, baita termino erlatiboetan ere. 2003. urtetik Errumania immigrazioaren kopuru osoari dagokionez %4 igo da eta Bolivia %6,3. 2003. urtean 400 boliviar zeuden EAEn eta 2006an 6.000 boliviar egon dira. Hamalau aldiz biderkatu da eta nagusiki Bizkaian bizi izan da hazkuntza hori. Errumaniak ere antzeko bilakaera izan du, baina ez da horren sakona izan: 1.500 biztanle izatetik erroldatutako 6.200 errumaniar izatera igaro da.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko datuek erakusten dutenaren arabera, 2005eko abenduaren 31n EAEn bizitzeko baimena zeukaten atzerritarrak 57.395 ziren, aurreko urtean baino %55 gehiago, alegia. Horien artean, %52 Bizkaian bizi da eta gizonezkoak ere %52 dira. Datu horiek 2006ko urtarrilean erroldatutakoekin alderatuz gero, lortzen dugun tasa edo indizeak erroldatutako atzerritarren %69ak, egun hartan, hemen bizitzeko baimena zeukala erakusten du. Datu esanguratsua da urtebete lehenago ta-

II.1.9. Grafikoa. Atzerriko immigrazio eremu nagusien bilakaera. EAE. 1999 eta 2006. Kopuru absolutua eta ehunekoak



Iturria: EINaren eta LGGMaren datuetatik abiatuz landua.

II.1.10. Grafikoa. Atzerritarrek EAE-n eta estatu mailan daukaten garrantziaren bilakaera



Iturria: EINaren eta LGGMaren datuetatik abiatuz landua.
Oharra: Erregularizazio indizea egoitza-baimena daukaten atzerritarren kopurua eta erroldatuen arteko kozientea da.

sa hori 15 puntu baxuagoa dela kontutan hartzen baldin badugu (aldagai horrek bilakaera berbera izan du Estatu mailan). Hazkuntza horretan erabakigarria izan da 2005eko udaberrian egin zen erregularizazio prozesua, izan ere, horri esker, posible izan da 2001eko erregularizazio mailara itzultzea, izan ere, gure Erkideagoan atzerritarren presentzia egungoaren herena zen, erroldari dagokionez.

(b) Lan merkatua

2006ko laugarren hiruhilabetekoan Euskal Enplegu Zerbitzuan lan eskatzaile gisa inskribatutako immigranteei buruzko informazioaren arabera, guztira 3.248 atzerritar ziren, hau da, inskribatutako pertsonen kopuru osoaren %8,9a. Horien artean, %49 gizonezkoak dira eta %51 emakumezkoak. Horrek enpleguaren eskaeran EAEko herritarren multzoan baino gizonezkoen nagusitasun gehiago dagoela erakusten du (izan ere, han, %58 emakumezkoa dira), ekonomia normalizatuari dagokionez, behintzat. Nolanahi ere, Lanbidek "*Immigrazioa eta lan merkatua*"ri buruz argitaratutako azken txotenean, emakume atzerritarrek ezkutuko ekonomian presentzia handiagoa daukaten arren, Euskal Enplegu Zerbitzura gero eta sarriago jotzen dutela adierazten da.

Emakume horiei dagokienez, hamarretik zazpi Latinoamerikakoak dira, gizonezkoak aldiz, batzuk Latinoamerikakoak dira (%32,9) eta beste batzuk Afrikako iparraldekoak dira (%35,7). Lanbiden izena eman duten atzerritarren batez besteko adina bertokoen adinaren antzekoa da (33,7 urte), eta oso gutxi dira 20 urte baino gutxiago daukatenak. Horrez gain, emakumezkoak (34,2) gizonezkoak (33,2) baino pixka bat zaharragoak dira. Jatorriaren arabera, enplegua eskatzen dutenen erdia ia (%48,1) Latinoamerikakoak dira, bigarren tokian Sahara azpiko afrikarren kolektiboa dago (%17,9) eta hirugarren tokian Afrikako iparraldekoak daude (%16,5). Horrez gain, talde bakoitzaren barruan, sexuaren araberako banaketa desberdina da: Latinoamerikatik etorritakoen artean, emakumezkoak gehiago dira (hirutik bi), Afrikako kolektiboen artean, bostetik lau gizonezkoak dira.

Bestalde, Lanbideren txostenak enplegua eskatzen duten immigranteen hezkuntza maila baxua dela erakusten du: bi bosten baino gehiago ez dira lehen hezkuntzara iristen, eta gutxi dira lanbide heziketako (%10) edo unibertsitateko (%8,7) prestakuntza jaso dutenak; bertokoen arteko ehunekoak %26,8 eta %47,7 dira hurrenez hurren. Egia da immigranteen %20ak ez duela ikasketei buruzko informaziorik eskaintzen, eta Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuen artean ehuneko hori %2,2koa da. Eskatutako enplegu motari dagokionez, ekonomia aurreratuak dauzkaten herrialdeetatik datozen immigranteek askoz ere enplegu kualifikatuagoak eskatzen dituzte,

II.1.11. GRAFIKOA. LANBIDEN LANA ESKATZEN DUTEN PERTSONA GISA INSKRIBATU DIREN ATZERRITARREN BATEZ BESTEKO ADINA. 2006KO IRAILA.



Iturria: Lanbide.

II.1.12. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZARA ATXIKITAKO GUZTIEN ARTEKO ATZERRITARREN EHUNEKOAREN BILAKAERA



Iturria: LGGMaren datuetatik abiatuz landuta.

menpeko ekonomiak dauzkaten herrialdeetatik datozenek, aldiz, askoz ere oinarrizkoagoak diren lanpostuak eskatzen dituzte. Latinoamerika da zerbitzu eta administrazio moduko esparruetan lana gehien eskatzen duena, Afrikakoek aldiz, zerbitzuen esparruan lan gutxi eskatzen du eta askoz ere gehiagotan jotzen dute profil industrialago batera. Hona hemen sarrien eskatzen diren enpleguak garrantzia ordenaren arabera: garbiketa arloko langilea, etxeko langilea, zama-lanetarako langilea, eraikuntzako peoia, industriako peoia... Kualifikatutako profilak, berriz, eraikuntzarekin lotuago daude.

Gure Erkidegoan Gizarte Segurantzara inskribatutako atzerritarren datuei dagokienez, datuek lan merkatuan daukaten presentzia erakusten dute. 2006ko abenduaren 31n EAEn guztira 39.347 atzerritar egon ziren Gizarte Segurantzara atxikita, hau da, aurreko urtean baino %10 gehiago. Urteko neurriak kontuan hartuz gero, 2006an 38.855ekoa zen, hau da %22,4 eta 2005ekoa eta EAEn atxikitakoen kopuru osoaren %5,4 (tasa hori aurreko urtekoarekin, hau da, 2005ekoarekin alderatuta %19,1 igo da). Ehuneko hori estatukoarekin alderatuta (2006an %9,8) askoz baxuagoa da, baina gora egiteko joera mantentzen du. Jatorriaren arabera, kotizatzen duten immigranteen %74,5a erkidegokoak ez diren herrialdeetatik datoz, eta aldi berean, horien %70,2 erregimen orokorrera atxikita daude, %10,4 autonomoenera, %14,1 etxekora eta %5,3 nekazaritzako eta itsasoko erregimenekoak dira. Horrez gain, lau atzerritar afiliatutik hiru gizonezkoak dira, halere, emakumezkoen parte-hartzea gero eta handiagoa izateko joera dauka, "normalizatutako" ekonomiarako gero eta sarbide gehiago daukatela eta. Bukatzeko, EAEko afiliatu atzerritarrak Estatuko atzerritar afiliatuen kopuru osoaren %2,13 suposatzen dute, eta ratio hori EAEn erroldatutako atzerritarren %2,06a da Estatuko zenbateko osoarekin alderatuta.

(c) EAEko herritarrek immigrazioaren aurrean daukaten jarrera

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoko Kabinetearen txostenean "*Iritziak 12.*", 2006ko bigarren seihilabetekoari buruzkoan, EAEko biztanleek geure Erkidegoan bizi dugun immigrazioaren fenomenoari buruzko pertzepzioa aztertzen duen atal bat jaso da. Hasteko, azterlanak EAEko biztanleriaren %36ak, aipatutako epe horretan, beste herrialde batzuetatik etorri diren eta EAEn bizi diren pertsonak "gehiegi" direla uste duela erakusten du, eta tasa hori Estatu mailan gai horren inguruan lortu den tasa (%59) baino askoz baxuagoa da. Halaber, gehixeago dira "nahikoa baina ez gehiegi" direla uste dutenak (%42), eta %8ak, aldiz, "gutxi" direla uste du.

Bestalde, biztanleen %20aren ustez, atzerritarrak ez dira gure Erkidegoko biztanleria osoaren %10era iristen; %18aren ustez, aldiz, %10 eta %19aren artean daude; %11ren ustez, %20 eta %29aren artean; %7aren ustez, %30 eta %39aren artean; %4aren ustez %40 eta %49aren artean; eta %9aren ustez, immigranteak EAEko biztanleria osoaren %50a edo gehiago dira. Gainontzekoak inkestatuen herena dira eta ez dakite ala ez dute erantzun. Hortaz, euskal herritarrek batez beste EAEko biztanleen %21a atzerritarrak direla uste dute, eta Estatu osoan ere ia berdinak diren ehunekoak (%20)[7] ikusi dira, eta kasu bietan immigranteen benetako datuetatik oso urrun daude. Gauza bera gertatu zen bi urte lehenago, Ikuspegiko azterlanaren datuen arabera: 2004ean, euskal herritarrek, batez beste, immigranteek geure Erkidegoan suposatzen zuen kopurua %11koa zela kalkulatzen zuten, baina egiatan, erroldatuen ehunekoa ez zen ezta %3ra ere iristen. Herritar gehienek azken urteotan atzerritarren presentzia EAE "asko edo nahiko" igo dela (%86) uste du, %13aren ustez, "pixka bat edo gutxi" igo da eta %1era ere ez da iristen ezer ez dela igo pentsatzen dutenen kopurua.

[7] CIS (Ikerketa Soziologikoen Zentroa), 2.625 zkiko barometroa, 2005eko azaroa.

II.1.13. GRAFIKOA. ATZERRIKO IMMIGRANTEEK ONDORENGO ESKUBIDE HAUEK EAE-KO GAINONTZEKO BIZTANLEEN BALDINTZA BERBERETAN IZAN BEHARKO AL LITUZKETE? 2006



Iturria: IRITZIAKen datuetatik abiatuz landuta, Eusko Jaurlaritza.

Euskaldunok immigranteak nola tratatzen ditugun hoberen definitzen duen jarrerari dagokionez, eskainitako izenondo zerrenda baten artean aukeratuz, nagusiki mesfidantzaz (%37) tratatuak izan ohi direla uste dute, adeitasunez tratatuak izan ohi direla uste dutenak %28 dira eta axolagabetasunez tratatuak izan ohi direla uste dutenak %16 dira; askoz gutxiago dira euskaldunak izango balira bezala (%5), mespretxuz (%4) edo indarkeriaz (%1) tratatuak izan ohi direla uste dutenak. Halaber, EAEko biztanleen %90aren iritziaren arabera, pertsona orok izan beharko luke edozein herrialdetan bizi eta lan egiteko askatasuna, beren herrialdea ez izan arren. Iritis hori pixka bat hedatuago zegoen 2001. urtean (garai hartan %96ak baietz erantzuten zuen). Adostasun maila ia berdina da Estatu mailan (%89).

Euskal Herriko biztanleriak immigrante atzerritarrek izan behar dituzten eskubideei erakusten dien babesa ez da berbera kasu guztietan, eta eskubide batzuen onarpena beste batzuena baino handiagoa da. Hezkuntza eskubideari dagokionez, %60aren ustez, immigrante guztiek izan beharko lukete eskubide hori, %34aren ustez, legezko immigranteek soilik izan beharko lukete eta %2aren ustez, ez batzuek eta ez besteek ez lukete izan beharko. Osasun asistentzia eskubideari dagokionez, %54aren ustez, immigrante guztiek izan beharko lukete eskubide hori, %37aren ustez, legezko immigranteek soilik izan beharko lukete eta %3aren ustez, ez batzuek eta ez besteek ez lukete izan beharko. Beste eskubide batzuei eskainitako babesaren ehunekoa baxuagoa da: %29aren ustez, denek izan beharko lukete gizarte laguntzak jasotzeko eskubidea (diru-laguntzak, seme bakoitzeko laguntzak, oinarrizko errenta, langabezia subsidioa...), %53aren ustez, legezko immigranteek soilik izan beharko lukete eta %8aren arabera, ez batzuek, ez besteek, ez lukete eskubide hori izan beharko. %20aren arabera, denek izan beharko lukete babes ofizialeko etxebizitzen zozketan baldintza berberetan sartzeko aukera, gainontzeko biztanleek bezala, alegia; %54aren ustez, legezko immigranteek soilik izan beharko lukete eta %17raino iristen dira horietako batek ere ez lukeela zozketa horietan parte hartu beharko uste dutenak. Ehuneko horiek 2004an Ikuspegiren azterlanean eskuratu zirenen oso-oso antzekoak dira[8]. Bestalde, biztanleen er-

II.1.9. KOADROA. EAE-N BIZI DIREN 100 PERTSONATIK, ZURE USTEZ, ZENBAT JAIO DIRA ATZERRIAN? 2006

	EAE			Estatua Azaroa 05*
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	
%10 baino gutxiago	20	29	12	16
%10 eta 19 artean	18	23	13	21
%20 eta 29 artean	11	11	10	13
%30 eta 39 artean	7	7	8	8
%40 eta 49 artean	4	3	5	4
%50 edo gehiago	9	7	10	7
ED-EE	31	20	42	32
Batez bestekoa	*21*	*18*	*25*	*20*

Iturria: Eusko Jaurlaritza.
(*) CIS Estaturako datuak.

[8] Informazio gehiago eskuratzeko, EAEko 2004ko Memoria Sozioekonomikoko Demografia eta Immigrazioari buruzko atalburua begiratu.

diak baino gehiago uste du atzerriko immigranteei beren familiak ekartzeko eskubidea onartu beharko litzaiekeela (%65), baita bozkatzeko eskubidea ere (%64).

Oro har, immigrazioak desabantaila baino abantaila gehiago eskaintzen ditu EAErentzat biztanleen %40aren arabera, %17aren arabera, dakartzan abantailak desabantailak beste dira eta %26aren arabera, abantaila baino arazo gehiago dakartza. Euskal Herriko ekonomiari buruz galdetzean, %46aren ustez, immigrazioak abantaila gehiago dauzka, %9aren ustez, dakartzan abantailak desabantailak beste dira eta %27aren ustez, abantaila baino arazo gehiago dakartza. Geure Erkidegoaren bizitza kulturalerako abantailak pixka bat txikiagoak direla uste da, %43aren ustez, abantailak dakartza, %10aren ustez, dakartzan abantailak desabantailak beste dira eta %31ren ustez, abantaila baino arazo gehiago eragiten ditu.

Atzerriko immigranteak gure herrialdean sartzeko orduan jarraitu beharreko politikari dagokionez, euskal herritarren bi herenen (%76) ustez, lan-kontratuak dauzkatenei soilik erraztu beharko litzaieke sarrera, %12aren ustez, denei erraztu beharko litzaieke sarrera, %3aren ustez, sartze asko zaildu beharko litzateke eta %35aren ustez, guztiz debekatu beharko litzateke sartzea.

1.2. Hezkuntza eta hezkuntza sustapena

Eusko Jaurlaritzaren 2006ko gastuetarako aurrekontuaren behin betiko likidazioa aztertzen badugu (finantzaketa iturri nagusia hori baita), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailerako partida, guztira 2.140.099 milako eurokoa, garrantzian bigarren dagoela ikusiko dugu, Osasunaren ostean (2.632.903 milako euro). Horrek esan nahi du aurreko ekitaldian baino %5,8 xedatu zaiola, 2004 eta 2005 artean izandako igoera, %6, baino gutxiago hazi arren.

Hezkuntza Sailari Eusko Jaurlaritzaren multzoaren gastu osoan esleitu zaion zenbatekoko parte hartze portzentajea %27,5ekoa da, 2004an hasitako beherako joerarekin segituz. Izan ere, aurreko ekitaldian baino 0,3 hamarren gutxiago izan da. BPGri dagokionez, gastuak %3,5eko tasari eusten diola ikusten da.

II.1.10. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza sailaren gastu likidatuaren bilakaera

Urteak	Milako € arruntak	% EGk likidatutako gastu osoan	% BPGn	Oinarria 2001=100	Ikasleak denera	Gastua ikasleko
2001	1.589.487	27,5	3,6	100,0	404.413	3.930
2002	1.700.753	28,2	3,7	107,0	397.540	4.278
2003	1.819.806	28,5	3,7	114,5	395.486	4.601
2004	1.892.843	28,1	3,5	119,1	430.202	4.400
2005	2.022.057	27,7	3,5	127,2	402.341	5.026
2006	2.140.099	27,5	3,5	134,6	404.970	5.285

Iturria: Berton prestatua, Eustaten eta EAEko Kontu Orokorretako datuetan oinarrituta.

II.1.11. Koadroa.- Hezkuntzan likidatutako gastua programaka xehatuta. Zenbatekoa milako eurotan

	2002	2004	2005	2006	Banaketa.	%04-05	%05-06	2002
Egitura eta sostengua	41.568	38.888,6	38.193,7	41.060,6	1,9	–1,8	7,5	41.568
Haur eta lehen hezkuntza	555.067	648.955,5	698.872,4	760.166,3	35,5	7,7	8,8	555.067
Bigarren hez, konpents, eta Lanbide hez.	718.083	769.752,9	802.801,4	840.599,1	39,3	4,3	4,7	718.083
Unibertsitateko hezkuntza	203.952	221.543,9	252.237,4	261.965,1	12,2	13,9	3,9	203.952
Erregimen bereziko irak, eta helduen hez. iraunkorra	41.603	63.144,1	77.930,4	72.188,2	3,4	23,4	–7,4	41.603
Bere aurrekontua		55.926,1	70.743,0	71.904,5	3,4	26,5	1,6	55.926,1
Ekonomi eta Gizarte Inbertsioen Plan Berezitik		7.218,0	7.187,5		0,0	–0,4		7.218,0
Irakasleen prestakuntza iraunkorraren berrikuntza, prestakuntza eta hezkuntza	23.023	25.927,1	24.720,6	26.712,7	1,2	–4,7	8,1	25.927,1
Hezkuntza promozioa	65.132	71.556,2	80.866,2	85.535,5	4,0	13,0	5,8	71.556,2
Kirol irakaskuntzak (kulturatik)	—	2.738,3	1.472,3		0,0	–46,2		2.738,3
Hezkuntza sistema euskalduntzea	37.509	33.138,3	33.727,0	30.985,1	1,4	1,8	–8,1	33.138,3
Ikerkuntza	9.860	11.671,0	11.235,3	16.292,5	0,8	–3,7	45,0	11.671,0
Euskadi Informazioaren Gizartean Plana		5.527,3	8.495,2	4.878,1	0,2	53,7	–42,6	5.527,3
GUZTIRA	**1.700.753(1)**	**1.892.843,2(2)**	**2.022.056,7(3)**	**2.140.099,5**	**100,0**	**6,8**	**5,8**	**1.892.843,2**

(1) Euskadi Informazioaren Gizartean Planeko 5.520 milako euro barne.
(2) Euskadi Informazioaren Gizartean Planeko 4.956 milako euro barne.
(3) Euskadi Informazioaren Gizartearen Planeko 6.618 milako euro barne.
Iturria: EAEko Kontu Orokorrak.

Hezkuntza Sailaren ikasleko gastuaren ratioa berriro igo da, azkeneko urte honetan ikasleak gehitu direnean.

Aurrekontuaren zatirik handiena xurgatzen duten programak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH dira oraindik ere, denek batera Sailaren gastuaren %74,8 hartzen baitute. Bereziki aipagarriak dira Ikerketa Programan ikusten den gorakada (+%45) eta Euskadi Informazioaren Gizartea Planean izandako jaitsiera (–%42,6).

HZMen datuen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastu publikoa 2.052 milioi eurora igo da 2005ean (1.667,3 milioi unibertsitatekoa ez den hezkuntzan, 344,8 milioi unibertsitate hezkuntzan eta gainerakoa beketan), Estatuaren multzoan hezkuntzako gastu publikoa 38.932 milioi euro izan direnean (27.244,4 milioi unibertsitatekoa ez den hezkuntzan, eta 7.620,9 milioi unibetsitate hezkuntzan). Ondorioz, BPGren gaineko gastua[9] %3,69koa izan da EAEn (%3 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan, %0,62 unibertsitate hezkuntzan, eta gainerakoa bekatan) eta %4,3 Estatuan (%3,01 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan, %0,84 unibertsitate hezkuntzan).

1.2.1. Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak

1.2.1.1. Ikasleriaren bilakaera, hezkuntza mailaka

2006-07 ikasturtea Estatu Espainiarrean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren arabera, 7.049.762 ikasle ingururekin hasi da. Matrikulazioa %1 gehitu da (72.191 pertsona) aurreko urtearen aldean, igoerarik handiena Haur Hezkuntzan izan delarik (%3,7%); ondoren Lehen Hezkuntza (%1,5) letorke. Aitzitik, DBH, Batxilergo eta LHko matrikulazioak %0,7, %0,4 eta %0,8 gutxitu dira, hurrenez hurren.

EAEn 2006-2007 ikasturtea, Eustaten behin behineko datuen arabera, guztira unibertsitatekoa ez den erregimen orokorreko irakaskuntzan 314.736 ikasle matrikulatuta hasi da (Helduen Hezkuntza Iraunkorra sartu barik). Horrek esan nahi du hazkundea finkatuz doala, zehazki aurreko ikasturtearen aldean %1,4 igo baita (2005-2006an baino 4.427 ikasle gehiago).

Igoera hori beheko mailetako gehikuntzarengatik gertatu da (Haur eta Lehen Hezkuntzetan), non hezkuntza berezia kenduta, 2006-2007 ikasturtean, Eustaten behin behineko datuen arabera, 187.666 ikasle matrikulatuta zeuden, 84.057 Haur Hezkuntzan eta 103.609 Lehen Hezkuntzan. Azkeneko ikasturte honetako hazkundea, aurreko urtean bezala, handiagoa izan da haur hezkuntzan lehen hezkuntzan baino, baina haurrena motelduz doan bitartean, lehen hezkuntzarena biziagotu da. Horrela, 2005-06 ikasturtean Haur Hezkuntzako hazkundea %6,6koa izan bazen, 2006-07an %3,4an jarri da, Lehen Hezkuntzan %2ko hazkundetik %3,1era igaro denean.

Igoera hori ez da DBHra heldu, hor matrikulazioak jaitsi baitira, aurreko ikasturtean baino gutxiago jaitsi badira ere (–%0,6 –%1en aldean). Bestela esanda, hobekuntza demografikoa ez da, antza, 12 urtetik gorako adinetara heltzen.

II.1.12. KOADROA. IKASLEAK TITULARITATE ETA MAILEN ARABERA[1]

	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07 (B. behin.)	2004-05/ 05-06 (%)	2005-06/ 06-07 (%)
Hezkuntza berezia daukaten zentro guztiak	302.663	300.525	301.497	305.708	310.309	314.736	1,5	1,4
Beheko mailak, hezkuntza berezirik barik	235.457	235.266	238.776	244.948	251.249	256.709	2,6	2,2
Haur Hezkuntza	60.996	63.980	68.754	76.255	81.273	84.057	6,6	3,4
Lehen Hezkuntza	96.827	97.139	97.802	98.502	100.497	103.609	2,0	3,1
Hezkuntza Berezia (Haur, Lehen hezkuntza)	419	404	412	382	397	408	3,9	2,8
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	77.634	74.147	72.220	70.191	69.479	69.043	–1,0	–0,6
Hezkuntza Berezia (DBH.)	162	172	168	186	201	184	8,1	–8,5
Derrigorrezkoaren osteko Irakaskuntza Ertain edo Bigarrenak (ESPO) hezkun. berezirik barik	66.218	64.298	61.734	59.815	58.087	57.024	–2,9	–1,8
Batxilergoa	36.699	34.469	32.631	31.667	30.719	30.659	–3,0	–0,2
Gradu ertaineko Lanbide heziketa	11.023	11.203	10.999	11.050	11.023	10.721	–0,2	–2,7
Goi mailako Lanbide heziketa	18.496	18.626	18.104	17.098	16.345	15.644	–4,4	–4,3
Zereginen ikasketa (Hezkuntza bereziko lanbide heziketa)	407	385	407	377	375	411	–0,5	9,6
% Batxilergoa ESPO guztian	55,4	53,6	52,9	52,9	52,9	53,8	—	—
% Lanbide heziketa ESPO guztian	44,6	46,4	47,1	47,1	47,1	46,2	—	—

(1) Unibertsitatekoak ez diren erregimen bereziko irakaskuntzak. Ez da Helduen Hezkuntza Iraunkorra sartu, ez eta erregimen bereziko irakaskuntzarik ere (arteak eta ofizioak, hizkuntzak eta musika). Iturria: Eustat.

[9] INEren datuen arabera.

II.1.13. KOADROA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK

Familia		2003-04 ikasturtea		2004-05 ikasturtea		2005-06 ikasturtea	
		Gradu ertaina	Goi gradua	Gradu ertaina	Goi gradua	Gradu ertaina	Goi gradua
Jarduketa fisikoak eta kiroletakoak	Guztira	131	386	118	401	108	434
	% emakume	36,6	36,3	24,6	35,7	27,8	28,8
Administrazioan	Guztira	1.308	2.166	1.073	2.075	1.003	2.023
	% emakume	80,0	76,2	81,6	76,1	82,5	77,2
Merkataritza eta marketinga	Guztira	535	971	447	892	366	837
	% emakume	84,1	61,8	78,5	58,3	77,3	55,1
Elikadura industriak	Guztira	27	24	31	15	22	19
	% emakume	29,6	20,0	35,5	80,0	31,8	68,4
Informatika	Guztira	0	2935	341	2.274	547	1.807
	% emakume		30,8	24,0	27,0	21,9	25,1
Mantentzea eta zerbitzuak ekoizpenari	Guztira	734	898	758	966	787	1.032
	% emakume	2,0	7,7	3,7	13,1	4,2	13
Oihalgintza, arropagintza eta larrua	Guztira	22	39	25	47	16	71
	% emakume	100	84,6	92,0	93,6	93,8	90,1
Nekazaritza/nekazaritza jarduerak	Guztira	164	150	176	149	163	141
	% emakume	24,4	26,7	22,2	28,9	22,7	23,4
Arte grafikoak	Guztira	250	322	231	336	219	319
	% emakume	46,0	58,7	48,5	55,7	46,1	53,3
Autogintza/manten. Ibilgailu autopropultsioko ibilgailuak	Guztira	930	345	943	393	970	420
	% emakume	1,9	3,8	2,8	2,5	2,1	2,9
Eraikuntza eta obrak/ eraikinak eta obra zibila	Guztira	148	619	145	640	125	672
	% emakume	6,1	29,4	5,5	30,3	10,4	34,4
Elektrizitatea eta elektronika	Guztira	1.409	2.340	1.325	2.201	1.325	2.116
	% emakume	1,3	10,3	2,0	10,1	3,7	9,1
Ostalaritza eta turismoa	Guztira	667	689	640	695	628	680
	% emakume	48,4	69,5	45,2	67,9	42	64,9
Irudia eta soinua/komunikazioa, irudia eta soinua	Guztira	92	326	78	321	72	344
	% emakume	57,6	47,5	56,4	43,3	48,6	42,7
Egurra/egurra eta altzariak	Guztira	228	79	229	62	247	43
	% emakume	8,3	20,3	5,7	21,0	6,5	20,9
Itsaso-arrantza/ itsas eta arrantza jarduerak	Guztira	72	58	58	98	71	144
	% emakume	1,4	3,4	1,7	8,2	1,4	13,2
Metala/fabrikazio mekanikoa	Guztira	2.248	2.391	2.104	2.145	1.884	1.976
	% emakume	3,8	11,2	3,7	11,9	4,8	13,4
Ile apainketa eta estetika/ irudi pertsonala	Guztira	737	210	830	204	841	195
	% emakume	99,1	99,5	98,4	100,0	98,3	100
Kimika	Guztira	146	828	110	745	97	643
	% emakume	70,5	59,7	66,4	58,0	39,1	58
Sanitarioa/Osauna	Guztira	1.151	1.183	1.264	1.152	1.317	1.091
	% emakume	92,3	83,0	93,2	83,2	92,6	84,6
Zerbitzuak komunitateari/zerbitzu soziokulturalak komunitateari	Guztira	0	1.145	124	1.287	215	1.338
	% emakume		92,7	94,4	92,5	93,5	92,7
Guztira	Guztira	10.999	18.104	11.050	17.098	11.023	15.313
	% emakume	37,9	42,8	38,2	43,1	38,6	45,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.

Derrigorrezko hezkuntzaren osteko goi irakaskuntzan (DOGI) zein Irakaskuntza ertainetan matrikulatutako ikasleen kopuruak behera egin du berriro. 2005-2006tik 2006-2007ra %1,8 jaitsi da, eta Goi Graduko LHko matrikuletan izandako jaitsierak bereziki deigarria izaten segitzen du (–%4,3).

II.1.14. GRAFIKOA. MATRIKULAZIOETAN 2005-06 IKASTURTEAREN ALDEAN AURREIKUSITAKO ALDAKETA ESTATU ESPAINIARREAN



Iturria: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Datuak eta zenbakiak. 2006-07.

2006-07 ikasturtean irakaskuntza ertainetan ari diren 57.024 ikasleetatik 30.659k, hau da, %58k Batxilergora jo dute derrigorrezko irakaskuntza amaitu eta gero; %46,2 Lanbide Heziketara joan dira, eta gainerakoak Zereginak Ikastera. Ondorioz, hiru urteko egonkortasunaren ostean, Batxilergoak goraka egin du, DOGIko bere pisua 9 hamarren gehituz, Lanbide heziketak galdu dituen hamarrenak, alegia.

Eskaririk handieneko titulazio profesional ertainak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren datuen arabera, Metala eta Fabrikazio mekanikoa dira, oraindik ere (ikasleen %17, aurreko urteko %19aren aldean), gero Elektrizitatea-elektronika %12rekin (aurreko urteko proportzio berbera), Osasuna %11,9rekin (%11,4 aurreko urtean) eta Administrazioa %9,1ekin (aurreko urtean %9,7) datoz. Bigarren multzoan, ez hain nabarmen, Autogintza, eta ibilgailuen mantentzea %8,8rekin, Ile apainketa eta estetika %7,6rekin, Mantentzea eta produkziorako zerbitzuak %7,1ekin eta Turismoa %5,7rekin leudeke.

Goi graduko titulazioen artean Elektrizitatea eta Elektronika daude, %13,8rekin (beren pisu erlatiboa 0,9 puntu igo da), gero Administrazioa %13,2rekin (aurreko ikasturtean %12,1), Metala eta Fabrikazio mekanikoa%12,9rekin (erlatiboki 3 hamarren gehitu da), eta Informatika %11,8rekin (jaitsiera nabarmena izan du, 2003-04 ikasturtean familia profesionalik eskatuena baitzen, eta ikasleen %13,3 beretzen baitzituen).

Emakumeak ikasketa profesionaletan gizonak baino gutxiago parte hartzen du, aurten ere gorako joera izan duen arren. Horrela, 2003-04 ikasturtean ikasleen %37,9 soilik ziren emakumeak Lanbide Heziketa ertainean, eta %42,8 goi mailako Lanbide Heziketan, baina 2004-05ean, %38,2ra eta %43,1era eta 2005-06an %38,9 eta %45,2ra igo dira proportzioak, hurrenez hurren. Alabaina, emakumeak segitzen dute Ile apainketa eta estetika, komunitaterako zerbitzu, osasun, oihalgintza, jantzigintza eta larrugintza, eta administrazioaren adarretan pilatzen. Bigarren multzo batean elikagai industriak, ostalaritza eta turismoa, eta merkataritza eta marketinga leudeke. Hirugarren taldean arte grafikoak, irudia, eta soinua eta komunikazioa, eta kimika leudeke.

Aitzitik, emakumeen presentzia oso urria da oraindik ere mantentzea eta produkziorako zerbitzuak, automobilgintza eta ibilgailuen mantentzea, elektrizitatea eta elektronika, itsaso-arrantza eta metala-fabrikazio mekanikoa alorretan.

Eta, azkenik, ohartarazi gura dugu emakumearen eraikuntzako adar profesionalean, ertain zein goikoan, gero eta parte hartze handiagoa izaten ari dela.

1.2.1.2. Ikasleriaren bilakaera sare eta hizkuntz ereduen arabera

(a) Ikasleak zentroen titularitatearen arabera

Sare bakoitzari esleitu behar zitzaizkion portzentajeen zenbakiak 1994an Hezkuntza Erreforma abiarazteko egin zen eskola plangintzaren garaian zehaztu ziren. Kuota horiek, sare publikoaren kasuan, %48,8an finkatu ziren 3-16 adin tarterako (Haur hezkuntzaren bigarren zikloa, lehen hezkuntza eta DBH); derrigorrezkoaren osteko irakaskuntzan, berriz %58,9 izango zen.

Aurreko txosten sozioekonomikoetan aipatu izan dugun bezala, Eskola Mapa diseinatzeko moduak sare publikoan 12 urtetik aurrerako ikasleen galera azkarra ekarri zuen. Horrela, Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2005eko txostenaren arabera, 2001-02 ikasturtera arte ia 4 portzentaje puntu galdu ziren 3-16 adin tartean, eta zazpi 16-19koan. Bilakaera horren arrazoi modura zentro pribatuen ituntzea gehitu dela, eta faktore soziologiko batzuk, hala nola, ikastegien ideiak, ikasketa eskaintza handiagoa eta eskolaz kanpoko jarduerak iradoki dira.

EUSTATek argitaratu dituen azkeneko datuen arabera. sare publikoan hezkuntza ziklorik baxuenetan matrikulatu-

II.1.14. KOADROA. IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA, ZENTROEN TITULARITATEAREN ARABERA

	2003/2004			2004/2005			2005/2006		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
Guztira*	**362.244**	**47,4**	**52,6**	**998.694**	**48,4**	**51,6**	**336.704**	**48,5**	**51,5**
Beheko mailak	**238.776**	**46,0**	**54,0**	**244.948**	**47,3**	**52,7**	**251.249**	**47,5**	**52,5**
Haur hezkuntza	68.754	48,9	51,1	76.255	51,4	48,6	81.273	50,6	49,4
Lehen hezkuntza	97.802	47,2	52,8	98.502	47,8	52,2	100.497	48,4	51,6
DBH	72.220	41,6	58,4	70.191	42,1	57,9	69.479	42,6	57,4
ESPO mailak	**61.734**	**52,8**	**47,2**	**693.931**	**53,1**	**46,9**	**27.368**	**52,9**	**47,1**
Batxilergoa	32.631	54,1	45,9	31.667	53,9	46,1	30.719	53,3	46,7
ertaina	10.999	58,4	41,6	11.050	57,7	42,3	11.023	57,4	42,6
LH gorena+	18.104	47,1	52,9	17.098	48,8	51,2	16.345	49,1	50,9

***Helduen Hezkuntza Iraunkorrik eta Hezkuntza berezirik barik. Iturria: Eustat.**

ta dauden ikasleen portzentajea (haur eta lehen hezkuntzak eta DBH) goraka doa azkeneko urteotan, eta 2005-06an %47,5ean jarri da. Mailaka xehatuta, ikusten da Lehen Hezkuntza dela, matrikulazio publikoaren %48,4rekin, arestian esandako helburura gehien hurbiltzen dena.

DOGIren kasuan, helbururako (%58,9) 6 puntukoa da eta, izan ere, lanbide heziketa ertaineko matrikulazioa baino ez da helburura hurbiltzen, sare publikoan matrikulatutako ikasleen %57,4 daudelako.

(b) Ikasleak hizkuntz ereduen arabera

Oraingo eztabaidak unibertsitatekoa ez de hezkuntzako euskararen normalizazioaren inguruan baino gehiago (hor goraka joan baita) emaitzak ditu hizpide.

Horrela, 2005-06 ikasturtean, unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan matrikulatuta zeuden ikaslerik gehienak D ereduan zeuden (%48,5); ondoren A (%29,7) eta B ereduak (%21,2) leudeke.

Eta Eskola Kontseiluak Hizkuntz Ereduei buruzko 2007ko otsaileko Akordioan dioenez, biztanle elebidunak %10 gehitu dira azkeneko urteotan eta, gaur egun, 16 eta 24 arteko adineko gazte bitik bat elebiduna da, eta hezkuntza sistema da aurrerapen horren eragile nagusia.

Alabaina, oraingo ereduen sistemak kritikak jaso ditu, batez ere bi alderditatik. Lehena, ez dituela legean aurreikusten diren[10] eta erdietsi gura diren hizkuntz helburuak lortzen eta bigarrena, gizarte eta kultur kohesiorik ere ez duela lortzen, hizkuntz komunitate nolabait bereiztuak mantentzen baititu, helburua gizarte elebiduna iristea den arren.

Aurreko memorian esan genuenez, DBHko 4. mailako ikasleentzako B mailaren[11] ebaluazioak[12] erakusten du ikasleen herenak soilik lortzen duela mailaren idatzizko atala gainditzea, eta pixka bat gehiago dira ahozkoa gainditzen dutenak. Emaitza orokor horretatik, D ereduan matrikulatutako ikasleen bi herenak gainditzen zuen proba, eta B ereduko herena baino apur bat gutxiagok; A eredukoei ez zitzaien egin, aurretiaz egindako test batean ezarritako mailara heltzen ez zirela egiaztatu baitzen.

ISEI-IVEIk duela gutxi Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzendu zaien curriculumeko ikasgai desberdinen beste ebaluazio proba baten emaitzak argitaratu ditu. Euskararen arloari dagokionez (ahozko azterketarik gabe), aurreko emaitza horiek berretsi eta zehazten dira:

- B ereduko errendimenduak Dkoetatik gertuago daude Akoetatik baino; Akoetan, oro har, oso baxuak dira.
- B ereduaren barruan diferentzia handiak daude, eta ikasle askok euskaraz ikasteko gomendagarria dena baino maila baxuagoa daukate; D ereduan ere halako ikasle multzo esanguratsua dago.

[10] Euskaren erabilpena normalizatzeko 1982ko legeak "bi hizkuntzak erabiltzeko gaitasuna" planteatzen du, eta Euskal Eskola Publikoaren 1993ko legeak "bi hizkuntzetan ulertu eta hitz egin eta idazteko benetako gaikuntza" planteatzen du, gutxienez harreman eta erabilpen arruntetarako baliatzeko beste."

[11] Hezkuntzaren Ebaluazio eta Ikerketarako Euskal Institutuak (ISEI-IVEI) egiten du.

[12] Ikaslea gai da gai zehatz eta abstraktuen inguruko testuetako ideia nagusiak ulertzeko, bere espezialitateko eztabaida teknikoak sartuta. Gai da elkarrizketa batean erraz samar moldatzeko, zailtasun barik; horrela, gai da jatorrizko euskaldunekin tentsiorik sortu barik hitz egiteko. Testu argi eta zehatzak idazten ditu gai askoren gainean, eta gai da gai bati buruzko bere iritzia azaltzeko, beste ikuspegi batzuen aldeko eta kontrako alderdiak argudiatuz. Ingeleseko First mailaren antzekoa.

II.1.15. GRAFIKOA. IKASLEEN BANAKETA DERRIGORREZKO HEZKUNTZAN HIZKUNTZ EREDUEN ARABERA



Iturria: Eustat eta Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritza.

Hortik ez da ondorioztatzen hizkuntz ereduak direnik defizit horien erantzule bakarrak. Gizarte eleanitzaren eraikuntza oso prozesu konplexua da, aldagai askorekin zerikusia duena. ISEI-IVEIren B2 txostenak berak dioenez, hizkuntza bat ikastea oso lotuta doa faktore pertsonal, emoziozko, afektibo, harremanetako eta motibaziozkoekin, baita erabilgarritasunaren pertzepzioarekin ere. Azken batena, pertsona eleanitzez osatutako gizarte euskalduna lortuko bada, eskolako lanaz gain aldi berean gizartean baterako beste ahalegin batzuk ere egin beharko dira.

1.2.2. Unibertsitateko ikasketen bilakaera[13]

Eustaten datuen arabera, EAEn Goi mailako Irakaskuntzako matrikulazioa (unibertsitate publiko eta pribatuen multzorako) etengabe jaisten ari da 2000-01 ikasturtetik hona, eta joera berbera ikusten da generoaren arabera xehatuta ere. 2004-05 ikasturteko datuek ikasleak aurreko urtean baino %3,4 gutxiago izan direla erakusten dute (gizonezkoak %2,8 gutxiago eta emakumezkoak %4 gutxiago).

"Unibertsitate publikoetan eta pribatuetan lehenengoz sartzeko eskaintza, eskaria eta matrikula" azterlana. 2005-06 ikasturtea[14]" Unibertsitateko Koordinazio Kontseilua-HZMek argitaratuak erakusten du aurrez aurreko unibertsitate irakaskuntzen eskaintzarik handiena duten Unibertsitate Publikoak hauek direla: Andaluzia 509, Katalunia 387, Madril 328, Gaztela eta Leon 267 eta Valentzia 251. Euskal Herriko Unibertsitate Publikoa, 113rekin erdian dago.

Eskaria eta eskaintza ia-ia bat datoz Madrilen eta Gaztela Mantxan, eskaintzen dituzten tokien %92 eta %96 betetzen baitzaizkie, hurrenez hurren. EAEren kasuan, eskaria (11.514) eskaintza baino handiagoa da (10.535) eta, ondorioz, %109ko ratioa ateratzen da. Hala ere, matrikula errealaren ratioa, eskaintzaren gainean, %95ekoa da, matrikula erreala (10.044 ikasle matrikulatuta) eskaintza baino txikiagoa baita.

2005-06 ikasturterako balioak hauek dira: eskaintza 10.807, eskaria 11.831 eta matrikula 10.467. Hau da, 2005-06an matrikulatutako ikasleen kopurua aurreko ikasturtekoa baino txikiagoa da.

[13] EAEn unibertsitate egitura funtsean lau unibertsitatek osatzen dute: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon unibertsitatea eta UNED, kidetutako bere zentroen bitartez.

[14] Unibertsitate pribatuen eta elizaren azterlanean, hiru kasutan ez da informaziorik lortzerik izan; bat Deustuko Unibertsitatea da, hain zuzen.

II.1.15. KOADROA. GOI HEZKUNTZAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN BILAKAERA, SEXUARI ETA EPEARI ADITUZ

	1994-95	1995-96	1996-97	1997-98	1998-99	1999-2000	2000-01	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05
Guztira	86.939	90.369	95.282	97.351	100.725	102.811	100.573	96.830	95.215	92.661	89.492
Gizonak	41.719	42.731	44.849	45.863	47.874	49.178	48.210	46.267	45.454	43.992	42.779
Emakum.	45.220	47.638	50.433	51.488	52.851	53.633	52.363	50.563	49.761	48.669	46.713

Iturria: Eustat.

II.1.16. KOADROA. ADIERAZLEAK UNIBERTSITATE PUBLIKOETAN, 2005-06 IKASTURTEA

	Aurrez aurreko unibertsitate irakaskuntzen eskaintza	Ratioak[1] (%)		Matrikula					
		D/O	M/O	Guztira	Osasun zientziak	Zientzia. esperiment.	Gizarte eta lege zientziak	Irakaskuntza teknikoak	Humanitateak
					Portzentaje horizontalak				
Andaluzia	509	81	76	42.672	11	6,4	54,4	19,9	8,4
Aragoi	75	111	77	5.918	12	6,1	48,5	26,3	7
Asturias	76	100	81	4.985	8,8	6,7	49	30,1	5,3
Balearrak	57	112	81	3.123	7,7	5,4	68,1	19,9	7,8
Kanariak	110	121	88	8.141	10,7	3,6	51,8	24,8	9,1
Kantabria	36	161	87	2.055	13	1,9	44,4	37,2	3,4
G.-Leon	267	150	80	12.899	12,3	7,2	47,4	24,4	8,7
G.-Mantxa	92	96	75	5.699	11,6	2,9	55	20,3	10,1
Katalunia	387	113	93	33.164	11,4	8,2	44,8	25,3	10,3
Extremadura	91	84	56	4.078	16,8	5	49,1	25,6	3,4
Galizia	168	103	82	12.410	12,6	6,8	50,1	23,6	7
Madril	328	92	89	37.736	8,2	7,5	52,4	24,6	7
Murtzia	79	134	83	5.984	10,9	6,5	56,4	17,5	8,7
Nafarroa	23	143	94	1.631	6,2		54,8	39,1	
EAE	113	109	95	10.044	8,7	7,1	49,6	27,4	7,2
Errioxa	26	115	78	923	7,6	4,7	59,6	24,6	3,6
Valentzia	251	107	84	22.370	9	7,1	46,8	27,8	9,2
Guztira	**2.668**	**103**	**83**	**213.832**	**10,4**	**6,7**	**50,6**	**24,1**	**8,1**

(1) E/E: eskaria/eskaintza; M/E: matrikula/eskaintza.
Iturria: Unibertsitateen Koordinazio Kontseilua-HZM

Autonomia erkidego guztietan matrikulazioa batez ere bi jakintza arlotan pilatzen da: Gizarte eta Lege Zientziak, eta Irakaskuntza Teknikoak. Bien artean autonomia erkidego guztietako matrikula osoaren %74,7 hartzen dute: Gizarte eta Lege zientziek %50,6 eta Irakaskuntza Teknikoek %24,1 betetzen dute. Osasun Zientziak %10.4, Humanitateak %8,1 eta Zientzia Esperimentalak %6,7rekin geratzen dira.

EAEren kasuan, Gizarte Zientziek %49,6 hartzen dute, Irakaskuntza Teknikoek %27,4, Osasun Zientziek%8,7, Humanitateek %7,2 eta Zientzia Esperimentalek %7,1.

1.2.2.1. EAEko lehen eta bigarren unibertsitate zikloak

INEren Unibertsitate Estatistikaren Aurrerapenaren datuen arabera, 2005-06an 1.422.561 ikasle matrikulatu dira Estatuko Unibertsitatean, aurreko ikasturtean baino %1,8 gutxiago, alegia. EAEn %4,7 gutxiago izan dira. Horrela Estatuan 2000-01ean eta EAEn bi ikasturte lehenago hasitako unibertsitateko ikasleen kopuru absolutuaren beherako joera berresten da (taula honetan jasotako datuak 1998-99an hasten dira, aurreko ikasturteetako informaziorik ez daukagulako); jaitsiera adin horietako biztanleak ere gutxitu direlako da, nagusiki.

Alabaina, gero eta unibertsitateko ikasle gehiago dira 18 eta 25 urte arteko herritarrak. Horrela, 1998-99 eta 2005-06 ikasturteen artean EAEn %30,3tik %32,2ra igaro dira. Estatuan ere joera berbera dago, baina hazkundea txikiagoa da, 6 hamarren, EAEn 2,1 puntu izan diren bitartean

Eustateko Unibertsitate Estatistikaren datuen arabera, 2005-06 ikasturtean 66.322 ikasle matrikulatu ziren EAEko Unibertsitateetan, berriro gutxiago, aurreko urtean baino %5,2, eta 2001-02an baino %13,9 gutxiago. Horrela, eta azkeneko bosturtekoan biztanleria gehitu den arren, 80etan eta 90etan izandako jaitsiera orain ari da unibertsitateko irakaskuntzetako matrikulazioetan islatzen.

Emakumeen matrikulazioa gizonenaren antzera jaitsi da eta, ondorioz, emakumeen matrikulazioaren pro-

II.1.17. KOADROA. UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA HISTORIKOA

Ikasturtea	EAE		Estatua		% EAEko ikasleria/ estatukoa denera
	ikasleak	% ikasleak 18-25 urteko biztanleen artean	ikasleak	% ikasleak 18-25 urteko biztanleen artean	
1998-99	80.670	30,3	1.580.158	30,2	5,1
1999-00	78.225	30,4	1.587.055	30,8	4,9
2000-01	74.958	30,4	1.554.972	30,4	4,8
2001-02	70.905	30,1	1.526.907	30,3	4,6
2002-03	69.386	31,2	1.507.147	30,3	4,6
2003-04	66.649	31,6	1.488.574	30,8	4,5
2004-05	64.178	32,1	1.449.118	30,6	4,4
2005-06 aurrerapena	61.182	32,2	1.422.561	30,8	4,3

Iturria: INE.

portzioa matrikulazio osoarenaren aldean %50etik gorakoa da orain ere. 2005-06an matrikulazioen %54,4 emakumeenak ziren, aurreko urtean antzera. Begiratu zer alde dagoen zentro publikoen eta pribatuen artean bereiztean (2000-01 ikasturtean sare pribatuko matrikulazioen %53,3 emakumeenak badira, 2005-06an %49,8ra jaitsi da).

Zentroen titularitateari adituz aztertzen segituz, hauxe esango dugu:

- ikasleen %78 zentro publikoetan matrikulatuta dago, aurreko ikasturteko portzentajea baino hiru hamarren gehiago, alegia. Estatuan, INEren datuen arabera, ikasleen %88 zentro publikoetan matrikulatu dira, eta %12 pribatuetan.
- matrikulazioa zentro publikoetan zein pribatuetan jaitsi da, pribatuan gehiago publikoan baino (–%6,1 eta –%4,5, hurrenez hurren).

Matrikulazioak titulazioen arabera zelan bilakatu diren aztertzean, Eustaten datuen arabera, ikusten da denak jaitsi direla, arkitektura ezik (goi mailakoa zein teknikoa) 2004-05 eta 2005-06 artean.

Analisia informazioa dagoen azkeneko lau urteetara hedatzen bada, 2002-03 eta 2005-06, matrikulatutako ikasleen kopurua 36.215etik 29.383ra jaitsi da lizentziaturetan, 15.583tik 15.057ra diplomaturetan, eta 9.046tik 8.212ra goi mailako ingeniaritzetan. Arkitekturan eta arkitektura eta ingeniaritza teknikoetan, ordea, matrikula gehiago izan dira, lehenean 1.352tik 1.539ra; bigarrenean 11.818tik 11.847ra; eta hirugarrenean 76tik 284ra.

Alabaina, azkeneko hamarkadan (ikus titulazioen araberako matrikulazioa 1995-96 eta 2005-06 artean zelan bilakatu den jasotzen duen taula),

- beherako joera jarraitua argi ikusten da lizentziaturetan (53.647 matrikulazio 1995-96 ikasturtean 29.383 2005-06an);
- beherako joera ez da hain jarraitua izan goi mailako ingeniaritza ikasketetan (5.316 matrikulazio 1995-96an eta 9.494 urtebete geroago, ondoren 8.212 2005-06an, baina gorabeherekin) ez eta diplomaturetan ere (15.541 matrikulazio 1995-96an eta 15.057 2005-06an, eta urtez urte gorabeherekin);
- ingeniaritza eta arkitektura teknikoetako ikasketetan aldaketen mendeko igoera ikusten da. Lehenean 1995-96an 9.546 matrikulaziotik 2005-06an 11.847 izatera, eta bigarrenean 1995-96an 993 eta 2005-06an 1.539 izatera igaro dira;
- arkitektura teknikoetan, 2002-03 hasi baitziren, matrikulazioen gorako joera jarraitua da, 76 ikasle izatetik 284 izateraino.

II.1.18. KOADROA. MATRIKULAZIOEN BILAKAERA ZENTROEN TITULARITATEAREN ARABERA

	2002-03		2003-04		2004-05		2005-06	
	Guztira	% emakume	Guztira	% emakume	Guztira	% emakume	Guztira	% emakume
Guztira	74.197	54,8	71.960	55,1	69.696	54,5	66.322	54,4
Publikoa	55.958	55,5	54.943	56,2	54.180	55,6	51.758	55,7
Pribatua	18.239	52,4	17.017	51,4	15.516	50,5	14.564	49,8

Iturria EUSTAT, datu basea.

II.1.19. Koadroa. Lehen eta bigarren zikloetan matrikulatutako ikasleen bilakaera

	95-96	96-97	97-98	98-99	99-00	00-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06
Denera	**85.043**	**88.914**	**88.557**	**87.386**	**85.202**	**80.336**	**76.129**	**74.197**	**71.960**	**69.696**	**66.322**
Arkitektura	**993**	**1.291**	**1.359**	**1.380**	**1.401**	**1.379**	**1.370**	**1.352**	**1.318**	**1.320**	**1.539**
Ingeniaritza gorena	**5.316**	**9.498**	**8.467**	**8.479**	**9.130**	**9.254**	**9.036**	**9.153**	**9.046**	**8.700**	**8.212**
Telekomunikazioak	646	4.847	787	818	847	971	1.032	1.086	1.111	1.125	1.092
Industriala	4.670	3.753	4.88	4.821	4.776	4.578	3.962	3.748	3.584	3.356	3.184
Informatikoa		765	2.25	2.354	2.385	2.245	1.973	1.960	1.871	1.790	1.638
Autom eta elektr. industriala		52	138	189	239	293	396	447	455	431	413
Elektronikoa					209	273	278	221	170	113	99
Antolamendu industriala		69	129	282	349	424	778	986	1.112	1.135	1.064
Kimikoa					306	454	554	592	610	623	624
Materialak		12		15	19	16	63	113	133	127	98
Lizentziaturak	**53.647**	**50.485**	**50.225**	**47.660**	**44.892**	**41.232**	**38.282**	**36.215**	**33.882**	**31.807**	**29.383**
Medikuntza eta kirurgia	1.532	1.494	1.418	1.321	1.315	1.255	1.200	1.240	1.228	1.194	1.231
Farmazia	646	705	733	719	736	728	721	751	801	771	772
Politika zientziak eta soziologia	2.581	1.588	836	569	212	47	325	292	276	269	246
Politika zientziak			178	186	216	165					
Ekonomia	2.209	2.382	2.403	2.386	2.346	2.213	2.035	1.782	1.549	1.297	1.113
Merkatu ikerketa eta teknikak								72	137	162	174
Enpresen admin. eta zuzendaritza	8.041	8.218	8.138	7.611	7.387	7.182	6.959	6.601	6.249	5.861	5.476
Informatika	4.358		658	175	55						
Informazio zientziak	3.750	2.772	1.85	1.224	465	106					
Kimika	2.430	2.612	2.739	2.779	2.453	2.230	1.906	1.529	1.311	1.158	996
Fisika	1.164	1.177	1.044	954	770	577	428	385	364	335	331
Matematika	647	693	625	590	503	418	373	333	293	270	242
Biologia	1.458	1.510	1.582	1.531	1.504	1.421	1.246	1.147	1.089	971	855
Geologia	436	475	501	505	507	484	484	410	359	325	278
Itsasketa zibila	83	85	85	113	138	157	177	136	114	102	132
Arte ederrak	1.705	1.743	1.746	1.578	1.542	1.540	1.487	1.552	1.515	1.539	1.481
Heziketa fisikoa	423	436	447	465	471	456	454	463	446	462	392
Psikologia	3.644	3.728	3.472	3.295	3.341	3.049	2.903	2.862	2.822	2.792	2.712
Zuzenbidea	10.825	10.6	10.070	9.369	8.410	7.178	6.023	5.127	4.203	3.658	2.964
Filosofia	491	532	546	582	551	516	555	648	562	512	437
Pedagogia	1.865	1.786	1.759	1.635	1.387	1.139	862	691	540	440	424
Geografia eta historia	1.770	502	482	420	406	384	208	162	118	55	28
Filologia	2.628	365	154	69	61	60	83	56	16	25	24
Euskal filologia		630	632	641	608	542	493	454	410	361	297
Historia		984	985	987	980	893	993	1.037	967	1.036	977
Ortodontzia	309	315	292	282	294	271	272	293	305	293	304
Biokimika	93	110	130	152	161	133	123	116	105	106	118
Politika eta administrazio zientziak		232	419	451	490	488	475	443	385	366	321
Soziologia		782	1.069	1.098	1.057	1.006	711	593	457	426	368
Publizitatea eta harreman publikoak		259	403	516	577	590	598	631	633	618	625
Filologia klasikoa		42	54	49	56	53	50	46	45	37	31
Frantses filologia		55	68	80	90	84	79	77	79	76	54
Filologia hispanikoa		210	300	341	331	316	219	232	256	208	183
Ingeles filologia		1.301	1.266	1.179	1.030	886	832	793	702	638	603
Filologia erromanikoa		43	34	17	8	3	1				
Alemaniar filologia					51	114	129	145	125	110	94
Itzulpengintza eta interpretazioa	0	0	0	0		64	127	213	294	325	326
Geografia eta historia		168	207	190	178	151	141	137	126	124	109
Artearen historia		249	341	422	438	429	407	357	324	310	264
Gizarte eta kultur antropologia	159	270	285	293	299	307	274	280	548	509	528
Elikagaien zientzia eta teknologia	130	108	125	130	141	138	134	165	207	188	164
Ikus-entzunezko komunikazioa			253	326	389	378	379	390	386	394	410
Kazetaritza		537	816	1.033	1.190	1.199	1.210	1.281	1.235	1.235	1.203
Humanitateak		110	274	495	740	860	944	913	829	739	612
Psikopedagogia	120	458	609	717	782	797	938	934	926	842	803
Zientzia aktuarial eta finantzazkoak			38	84	108	129	124	127	139	118	90
Ingurumen zientziak	0	0	0	0			115	226	317	471	509
Teologia	150	123	124								26
Eliz ikasketak				101	118	96	85	93	90	79	56
Diplomaturak	**15.541**	**16.925**	**17.347**	**18.168**	**18.089**	**17.074**	**15.837**	**15.583**	**15.276**	**15.405**	**15.057**
Itsasketa zibila	194	227	261	280	251	245	237	252	271	292	287
Erizaintza	1.251	1.180	1.177	1.117	1.163	1.133	1.132	1.109	1.101	1.185	1.172
Gizarte lana	784	797	800	850	854	825	752	702	652	780	834
Enpresa zientziak	4.876	5.060	5.136	5.430	5.521	4.955	4.545	4.484	4.258	4.110	3.966
Gizarte graduatua	2.191		528	128							
Lan harremanak		2.252	1.630	1.974	1.836	1.507	1.196	965	791	637	532

II.1.19. KOADROA. LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN BILAKAERA

	95-96	96-97	97-98	98-99	99-00	00-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06
Gizarte hezkuntza	681	1.025	1.329	1.506	1.578	1.479	1.409	1.440	1.451	1.480	1.472
Haur hezkuntzako irakaslea		1.250	1.445	1.583	1.636	1.616	1.732	1.839	1.872	1.883	1.837
Lehen hezkuntzako irakaslea	3.769	1.849	1.731	1.559	1.506	1.447	1.251	1.330	1.518	1.587	1.634
Atzerriko hizkuntzaren irakaslea		270	341	433	467	507	477	528	591	649	647
Hezkuntza fisikoaren irakaslea		469	403	511	528	491	524	578	638	743	763
Musika hez. irakaslea		536	518	601	606	522	428	345	273	317	254
Maestro Ed. Especial		187	390	500	483	542	509	478	445	429	418
Entzuketa eta hizkuntza hez. irakaslea	0	0	0	0						47	70
Turismoa	1.546	1.558	1.466	1.452	1.374	1.466	1.307	1.163	1.040	881	802
Giza nutrizioa eta dietetika	204	220	153	213	239	279	280	312	315	323	314
Teologia diplomatura	45	45	39	31	47	60	58	58	60	62	55
Arkitekto teknikoa								**76**	**148**	**231**	**284**
Ingeniaritza teknikoa	**9.546**	**10.715**	**11.159**	**11.699**	**11.690**	**11.397**	**11.604**	**11.818**	**12.290**	**12.233**	**11.847**
Meategien ustiapena	966	1.044	702	624	528	425	176	143	172	163	162
Topografia	282	291	274	280	281	266	265	280	281	301	334
Mekanika			742	2.075	2.384	2.627	3.076	3.030	3.121	3.175	3.123
Elektro. industriala		295	956	2.270	2.514	2.720	2.875	2.747	2.676	2.528	2.351
Diseinu industriala				119	147	242	265	278	302	314	327
Kudeaketa informatika	478	724	1.068	1.498	1.699	1.878	2.018	2.107	2.155	1.969	1.742
Erregai eta lehergaien instalazioa	0	0	0	0			64	9			
Sistemen informatika		291	517	433	553	633	808	949	983	973	931
Telekomunikazioak							145	352	555	613	632
Industriala	7.655	7.904	5.614	2.878	1.993	995	116				15
Kimika industriala			246	390	538	636	746	720	740	749	730
Elektrizitatea			596	638	616	591	631	563	579	625	638
Instalazio elektrom. meategietakoak			100	111	83	69	55	32	22	7	
Erregai eta lehergai energi baliabideak		172	217	222	231	256	250	246	243	230	
Mineralurgia y Metalurgia			58	70	83	84	108	96	88	89	72
Herri lanak								262	370	484	560
Papergintza	165	166	114	96	49						

Iturria: Eustat.

2005-06 ikasturtean titulazioen araberako eskaria sakon aztertuta, ikusten da lehenengo 15ak honelaxe geratu zirela:

- 2000 matrikulazio baino gehiagorekin: enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentziatura (5.476 ikasle, eta aurreko ikasturtean baino %6,6 gutxiago), enpresa zientzietako diplomatura (3.966, %3,5 gutxiago), industri ingeniaritza (3.184, eta %5,1 gutxiago), ingeniaritza tekniko mekanikoa (3.123 eta %1,6 gutxiago), zuzenbideko lizentziatura (2.964, %19 gutxiago), psikologiako lizentziatura (2.712 matrikulazio eta %2,9 gutxiago), eta ingeniaritza tekniko industriala.
  Aurreko ikasturtean 2000 matrikulazio baino gehiago izan zituztenen artean ordena hauxe izan zen, enpresen administrazioa eta zuzendaritza lizentziatura, enpresa zientzien diplomatura, zuzenbide lizentziatura (jaitsi egin da, beraz), industri ingeniaritza, ingeniaritza tekniko mekanikoa, psikologia lizentziatura eta ingeniaritza tekniko elektroniko industriala.
- 2000 lizentziatura baino gutxiagorekin: haur hezkuntzako maisu-maistra (1.837 matrikulazio), kudeaketako informatikako ingeniaritza teknikoa (1.742), informatika ingeniaritza (1.638), lehen hezkuntzako maisu-maistra (1.613 matrikulazio, aurreko urtean baino %3 gehiago), arkitektura (1.539, %16,6 gehituz), arte ederretako lizentziatura (1.481), gizarte hezkuntzako diplomatura (1.472) eta medikuntza eta zirugiako lizentziatura (1.231, %3,1 gehiago).

2004-05etik 2005-06ra bitartean izandako gorabeherek erakusten dute gehien-gehienek ikasleak galdu dituztela, salbuespenak arkitektura, medikuntza eta kirurgia eta lehen hezkuntzako maisu-maistrena soilik lirateke.

Emakumeak halako titulazioetan duen parte hartzeari dagokionez, hiru multzo ikusten dira:

- Emakumeen presentzia oso handia dutenak (%70etik gora emakumeak dira), haur hezkuntzako maisu-maistrak, psikologiako lizentziatura, gizarte hezkuntzako diplomatura, medikuntza eta kirurgiako lizentziatura, eta arte ederretako lizentziatura.
- Emakumeen presentzia %50 eta 60 artean dutenak, zuzenbideko lizentziatura, enpresen administrazioko lizentziatura, arkitektura eta enpresa zientzietako diplomatura.
- %32 gainditzen ez dutenekoa, kudeaketako informatikako ingeniaritza teknikoa (%31,8), industria ingeniari-

II.1.16. Grafikoa. Matrikulazioaren bilakaera titulazioen arabera



Iturria: Eustat.

II.1.20. Koadroa. Ikasleen bilakaera 2005-06ko eskaririk handieneko titulazioetan

	2001-02		2002-03		2003-04		2004-05		2005-06		04/05 eta 05/06 ald.
	Denera	% emak.	Denera	% emak.	Denera	% emak.	Denera	% emak.	Denera	% emak.	
Enpr. admin. eta zuzen. liz.	6.959	58,4	6.601	58,9	6.249	58,8	5.861	58,7	5.476	57,7	–6,6
Enpresa zientzien diplo.	4.545	54,0	4.484	54,1	4.258	53,7	4.110	53,1	3.966	52,4	–3,5
Ingeniari industriala	3.962	24,7	3.748	25,5	3.584	25,8	3.356	26,3	3.184	25,5	–5,1
Ing. tekniko mekanikoa	3.076	15,6	3.030	16,9	3.121	16,9	3.175	17,4	3.123	17,6	–1,6
Zuzenbide liz.	6.023	59,1	5.127	59,5	4.203	60,5	3.658	58,8	2.964	59,4	–19,0
Psikologia liz.	2.903	78,9	2.862	79,3	2.822	81,8	2.792	79,5	2.712	80,0	–2,9
Ing. tekniko elektro-industr.	2.875	20,2	2.747	20,7	2.676	19,6	2.528	19,3	2.351	18,8	–7,0
Haur hez. irakaslea	1.732	88,5	1.839	89,3	1.872	89,7	1.883	91,4	1.837	91,0	–2,4
Ing. tekn. Kudeaketa inform.	2.018	31,1	2.107	32,0	2.155	34,0	1.969	33,6	1.742	31,8	–1,5
Informatika ingeniaria	1.973	25,7	1.960	25,4	1.871	25,9	1.790	24,5	1.638	25,2	–8,5
Lehen hez. irakaslea	1.251	70,4	1.330	72,2	1.518	73,1	1.587	72,7	1.634	73,7	3,0
Arkitektura	1.370	52,3	1.352	53,5	1.318	54,0	1.320	53,8	1.539	54,1	16,6
Arte ederren liz.	1.487	70,0	1.552	69,8	1.515	70,2	1.539	71,0	1.481	70,9	–3,8
Gizarte hez. diplo.	1.409	87,0	1.440	84,4	1.451	83,7	1.480	82,3	1.472	82,1	–0,5
Medikuntza eta kirurgia liz.	1.200	78,8	1.240	78,6	1.228	78,5	1.194	77,6	1.231	77,3	3,1

Iturria: Eustat, datu basea.

tza (%25,5), informatika ingeniaritza (%25,2), ingeniaritza tekniko elektroniko industriala (%18,8) eta ingeniaritza tekniko mekanikoa (%17,6).

1.2.2.2. Hirugarren unibertsitate zikloa EAEn

Eustaten datuen arabera, unibertsitateko hirugarren zikloko (doktoregoa) matrikulazioaren 2001-02 ikasturtetik aurrerako gorako joera hautsi egin da "005-06 ikasturtean. Horrela, 2004-05 urtean 2698 ikasle ari baziren hirugarren zikloan (2003-04an baino 101 gehiago), 2005-06an 2602ra jaitsi ziren (%3,6ko jaitsiera). Gehienek (%84,4) segitzen dute hirugarren zikloko ikasketak sare publikoko zentroetan egiten.

Sexuari dagokionez, emakumeak gehiago dira gizonezkoak baino (1.341 eta 1.261, hurrenez hurren).

HZMek argitaratzen dituen Unibertsitateen Koordinazio Kontseiluaren datuen arabera, EAEn graduatu osteko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleen kopurua ere jaitsi da

II.1.21. KOADROA. HIRUGARREN ZIKLOAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN BILAKAERA

	2004-05 behin behinekoak			2005-06 aurrerapena			Denerakoen aldaketa 2004-05 eta 2005-06an	Emakum. aldaketa 2004-05 eta 2005-06an
	DENERA	EMAKUMEAK	%	DENERA	EMAKUMEAK	%		
Estatua	72.729	36.948	50,8	73.541	37.482	51,0	1,1	1,4
Unibertsitate publikoak	69.516	35.462	51,0	70.107	35.895	51,2	0,9	1,2
Unibertsitate pribatuak	3.213	1.486	46,2	3.434	1.587	46,2	6,9	6,8
UPV-EHU	2.276	1.206	53,0	2.196	1.159	52,8	–3,5	–3,9
MONDRAGON	73	29	39,7	84	33	39,3	15,1	13,8
DEUSTO	251	123	49,0	195	98	50,3	–22,3	–20,3
EAE	2.600	1.358	52,2	2.475	1.290	52,1	–4,8	–5,0
Unibertsitate publikoak (1)	2.276	1.206	53,0	2.196	1.159	52,8	–3,5	–3,9
Unibertsitate pribatuak (2)	324	152	46,9	279	131	47,0	–13,9	–13,8

(1) UPV-EHU barne.
(2) Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea barne.
Iturria: Unibertsitateen Koordinazio Kontseilua. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

II.1.17. GRAFIKOA. HIRUGARREN ZIKLOKO IKASLEEN BILAKAERA TITULAZIO ETA SEXUEN ARABERA



Iturria: Eustat, datu basea.

2004-05 ikasturtean (behin behineko datuak) eta 2005-06an (datu aurrerapena), kasu honetan %4,8. 2475 pertsona daude matrikulatuta, zeinetatik 1.290 (%52,1) emakumeak diren. Bestela esanda, emakumeak gizonak baino gehiago dira, baita Estatuan ere (%51 emakumeak dira).

Alabaina, Estatuan hizpide ditugun azkeneko bi urteetan emakumeen presentzia areagotu den bitartean, EAEn alderantziz gertatu da.

Zentroen titularitateari dagokionez, matrikulaziorik gehienak sare publikoan dira, bai EAEn bai Estatuan. Hala ere, pisua galdu dute, sare pribatuaren mesedetan, EAEn Mondragon Unibertsitatearen esparrura mugatzen bada ere, zeren Deustuko Unibertsitatean graduatu osteko ikasleak %22,3 jaitsi baitira.

1.2.2.3. Goi mailako hezkuntzaren Europako Eremua

Goi mailako Hezkuntzaren Europako Eremua La Sorbonako Adierazpenarekin hasitako prozesua da (1998), Boloniako Adierazpenarekin sendotu eta hedatua (1999), non Europako hezkuntza ministroek Europako Batasuneko kide diren estatuei beren lurraldeetan hainbat jarduketa garatu eta ezartzeko eskatzen dieten (jo beza irakurleak 2003ko Memoria Sozioekonomikoa).

Hona hemen, besteak beste, Boloniako Adierazpenaren helburu nagusiak:

- Europako kreditu sistema bat ezartzea, ikasketen konparagarritasuna sustatu eta ikasle eta tituludunen mugikortasuna bultzatzeko (1125/2003 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, unibertsitateko titulazio ofizial eta nazio lurralde osoan balio dutenetan Europako kreditu sistema eta kalifikazio sistema ezartzen dituena).
- Europako gehigarri bat ezartzea goi mailako hezkuntzako erakundeek luzatutako tituluei[15] (1044/2003 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, Unibertsitateek Tituluaren Europako Gehigarria luzatzeko prozedura ezartzen duena).
- Titulazioen sistema nazionalen harmonizazioa, funtsean, bi ziklo nagusi, graduatu eta graduatu ostekoa, dituena (55/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa,

[15] Lortutako tituluaren argibideak eransten dituen dokumentua, Europako herrialdeetan ematen diren goi mailako hezkuntzako titulazio desberdinen gardentasuna areagotzeko, eta erakundeei horien aitortza akademiko eta profesionala errazteko.

II.1.22. KOADROA

AGINDUA, 2006ko otsailaren 22koa, Hezkuntza,Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, zeinen bidez,Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen graduondoko programa ofizialak ezartzeko baimena ematen baita. EHAA, 2006/03/07

Ingurumen eta baliabide naturalen graduondoko programa ofiziala
- Masterra ingurumen agrobiologian eta
- European Master in marine environment and resources
- Masterra ingurumen poluzioa eta toxikologia
- Doktorea

Molekula biologiako eta biomedikuntzako graduondoko programa ofiziala
- Masterra molekula biologian eta biomedikuntzan
- Doktorea

Kimika aplikatuko eta material polimerikoetako graduondoko progama ofiziala
- Masterra kimika aplikatuan eta material polimerikoetan
- Doktorea

Prozesu kimikoen eta garapen iraunkorraren ingeniaritzako graduondoko programa ofiziala
- Masterra prozesu kimikoen eta garapen iraunkorraren ingeniaritzan
- Doktorea

Sare mugikorretako komunikazioetako eta informazioaren teknologietako graduondoko programa ofiziala
- Masterra sare mugikorretako IKTetan
- Doktorea

Proiektuen zuzendaritzako graduondoko programa ofiziala
- Masterra euro MPM proiektuen zuzendaritzan
- Doktorea

Kazetaritza mutlimediako graduondoko programa ofiziala
- Masterra kazetaritza multimedian. El Correo UPV/EHU

Soziologia juridikoko graduondoko programa ofiziala
- International Master in sociology of law
- Doktorea

Ekonomiako graduondoko programa ofiziala
- Master in economics: empirical applicattions and policies
- Masterra banka eta finantza kuantitatiboetan
- Doktorea

Psikologiako graduondoko programa ofiziala
- Masterra psikologian: norbanakoa, taldea, antolam. eta kultura
- Doktorea

AGINDUA, 2006ko otsailaren 15ekoa, Hezkuntza,Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, zeinen bidez, Mondragon Unibertsitatean graduondoko programa ofizialak ezartzeko baimena ematen baita.EHAA, 2007/03/06.

Ingeniaritzako graduondoko programa ofiziala
- Masterra jokamolde mekanikoan eta materialetan
- Masterra informazioaren eta komunikazioen teknologietan
- Doktorea

Enpresetako kudeaketa aurreratuko graduondoko prog. ofiziala
- Masterra enpresa zuzendaritzan - MBA
- Doktorea

Hezkuntzako graduondoko programa ofiziala
- Masterra XXI. mendeko hezkuntzaren erronkan: kultur aniztasuna eta hizkuntz aniztasuna
- Masterra hezkuntzako ikerkuntzan
- Doktorea

Kooperatibismo eta gizarte ekonomiako graduondoko prog. ofiziala
- Masterra kooperatiba enpresen kudeaketan
- Masterra kooperatiba-gizarte garapenean
- Doktorea

unibertsitateko egiturak ezarri eta Gradu ikasketa ofizialak araupetzen dituena, eta 56/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, graduatu osteko unibertsiate ikasketa ofizialak arautzen dituena).

Lehen mailak (graduatua) lehen zikloko unibertsitate ikasketak hartzen ditu, eta helburua ikasleak Europako lan esparruan zuzenean prestakuntza profesional egokiarekin sar daitezen gaitzea lortzea da[16].

Bigarren mailan graduatu osteko irakaskuntzak sartzen dira, eta ikasketen bigarren zikloa, hezkuntza aurreratua, eta master titulua ateratzera bideratua, eta hirugarren zikloa, Doktore titulua ateratzera daramana eta goi mialako hezkuntza mailarik gorena dena hartzen ditu[17].

[16] Graduko titulu ofizialak ateratzera daramaten kredituen kopurua, guztira, 180 eta 240 artean dago. Oro har, diziplinetako oinarrizko prestakuntza akademikoko 180 krediduko egitura proposatzen da, non ikasgai komunak sartuko liratekeen, eta 60 kreditu gehigarriak lirateke, ikaslearen perspektiba profesionalak hobetu eta bere paper independente eta aktiboagoa indartzera begira. Horretarako, 60 kreditu horien artean karrera amaierako lan edo proiektua egitea sartuko litzateke, edo praktika bereziak egitea, diziplinen arabera. Ikasketa komunen edukiak biltzen dituzten 180 krediduak osatu dituen edozein ikaslek graduatu osteko ikasketak egin ahal izango ditu Europako edozein herrialdetan.

Prestakuntza eduki komunak biltzen dituzten 180 krediduak ateratzea mugarri garrantzitsua izan daiteke, unibertsitateek beren Tituluak luzatu ahal dizkietelako lortzen dutenei.

Prestakuntza eduki edo ikasgai komunak jakintza, gaitasun eta trebezia terminotan azaltzen dira; ez dira gai edo eduki zehatzen zerrenda hutsa. Deskribapen horrek, jakintza, gaitasun eta trebezien terminoetan, malgutasun faktorea gehitzen du, ikasgai bakoitzaren ardura duen irakaslearri bere irizpidearen araberako programazio irekia atontzeko aukera ematen baitio, baina ikasgai bakoitzean zerrendatzen diren baldintzez jabetzearen mende edo lotuta beti.

Bestalde, komenigarria da gradu bakoitzean dena delako diziplinarekin bai, baina ez bere muinarekin zuzenean lotuta dauden gai bat edo gehiago derrigor ikasaraztea (*materia antzekoak*). Margen handia uzten zaio unibertsitate bakoitzari, esandako helburu hori errespetatuz, gai antzeko horiek eskaintzen den graduaren tituluaren berezko perfilera ondoen egokituko diren eduki eta egitura zehatzez hornitzeko.

[17] Master titulu ofiziala ateratzeko bigarren zikloko unibertsitate ikasketek gutxienez 60 kreditu eta gehienez 120 izango dituzte. Ikasleak, gutxieneko 60 krediduak atera dituenean, graduondoko programa ofizialetan, edo master titulu ofiziala daukanean, hirugarren zikloan (doktoregoan) onar dezaten eskatu ahalko du, betiere gradu eta graduondoko bere unibertsitate ikasketen multzoan gutxienez 300 kreditu osatu baditu. Zikloa gainditzeak doktore titulua ateratzeko eskubidea emango dio. Doktorea da goi mailako hezkuntzako titulu gorena, maila akademikorik handiena adierazten du, eta unibertsitateko irakaskuntzarako eta ikerkuntzarako ahalmena ematen du.

Lehen zikloen jarraipen zuzena ez diren bigarren zikloetara sartzeko prestakuntza aldetik parekotasun nahikoa egon behar du, arrakastarik izango bada. Horregatik, edozein lehenengo ziklotatik ezin da edozein bigarren ziklotara sartu, eta titulazio batek bide bakarra baino ez dauka. Batzuetan, titulazio baten lehen ziklotik beste baten bigarren ziklora zuzenean pasatzen da, baina beste batzuetan kreditu gehigarri batzuk atera behar izaten dira (*pasabide* deritzen horiek).

Espainiako unibertsitateak hain ugari eta desberdinak direnez, eta unibertsitateen barruan, jakintza esparru desberdinak daudenez, graduatu osteko ikasketak malguago izatea komeniko litzateke, beren autonomiaren esparruan, unibertsitateek beren estrategiak zehaztu eta garatu, eta espezialitate eta ikerketako beren prestakuntza antolatu ahal izan ditzaten. Horregatik, egitarau horiek antolatzeko ardura unibertsitateei dagokie, beraiek zehaztuko baitute zelan eratuko den eta zelan funtzionatuko duen graduatu osteko ikasketen batzordeak, eta zein unibertsitate zentro arduratuko den hori guztia garatzeaz.

5. artikuluak dioenaren haritik (56/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21a), graduatu osteko programa ofizialak ezartzeko dagokion Autonomia Erkidegoaren eta Unibertsitateen Koordinazioko Kontseiluaren baiezko txostenak behar dira eta, Unibertsitateen Koordinazio Kontseiluaren Idazkaritzaren 2006ko ekainaren 22ko Ebazpenaren arabera, 2006.07 ikasturtetik EAEn ezartzea adostu diren eta alboko koadroan ageri diren graduatu osteko programak eta titulu ofizialak ere bai.

1.2.3. Hezkuntza-adierazleak

1.2.3.1. Testuinguru-adierazleak

(c) Helduen prestakuntza maila

Nolabaiteko ikasketa maila iritsi duten helduen prestakuntza (25-64 adinekoak, ELGErako eta 20-34 Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarentzat) zenbatekoa den giza kapitalaren adierazgarri modura erabiltzen da.

EAEren kasuan, HZM-INECSEren datuen arabera (Hezkuntza Sistemaren Ebaluazio eta Kalitaterako Institutu Nazionala), goi mailako ikasketak dituzten helduen portzentajea[18] %35,9koa zen 2003an, Estatu Espainiarrekoa, %25,2, baino handiagoa. 2005ean portzentaje horiek gora egin zuten, EAEn %40,9raino eta Estatuan %27,5eraino.

EAEn erregistratutako portzentajea ELGEko batez bestekoa (%25) baino handiagoa da, 2004ko datuei buruzko "Education at a Glance, 2006 ELGEren txostenaren arabera (gogoan izan ELGEren kasuan adin tartea 25-64 dela). Ratiorik altuenak Kanadan (%44), Japonian (%38) eta Estatu Batuetan (%38) aurkituko ditugu.

Txosten horrek ondoko hauek ere erakusten ditu:

- ELGEko helduek Hezkuntza Sistema Formalean egindako urteen kopurua, batez beste, 11,9 urtekoa dela; eta balio horretatik gora 17 herrialde daude. Estatu Espainiarra urruti dago, batez beste 10,6 urteko kopuruarekin.

II.1.18. GRAFIKOA. 20-64 ADINEKO HELDUEN IKASKETA MAILA AUTONOMIA ERKIDEGO DESBERDINETAN 2005EKO DATUAK. PORTZENTAJEAK



Iturria: HZM, INECSE
Autonomia erkidegoak derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntzaren eta hezkuntza gorenaren %en batuketaren arabera ordenatuta daude.

[18] INECSEren metodologiaren arabera, Goi mailako hezkuntzak (CINE 5 eta 6) goi mailako teknikari tituludunak (goi mailako prestakuntza zikloak), unibertsitateko diplomatuak, lizentziatuak eta doktoreak eta horien pareko edo antzeko titulazioak hartzen ditu. Ondorioz, Goi Mailako Lanbide Heziketa zenbatzen da.

II.1.19. GRAFIKOA. HELDUEK HEZKUNTZA SISTEMA FORMALEAN EGIN DITUZTEN PRESTAKUNTZA URTEAK BATEZ BESTE. 2004



Iturria: ELGE, Education at a Glance, 2006 (1) 2003ko datua.

- A eta B titulazioak bereiztuta, A motako hirugarren ikasketak ondo burutu dituzten helduen proportzioa desberdina da herrialde batzuen eta besteen artean; horrela, Austria eta Turkiaren %9tik Zeelanda Berriko %30era doa. Portzentaje altuak AEBk (%29), Danimarkak (%25) eta Islandiak (%24) ere badituzte. B mailako titulazioa duten helduena %10 edo gehiagokoa da Alemanian, Frantzian, Italian eta Suitzan (denek %10), Suedian (%15), Belgikan (%17) eta Kanadan (%22). Herrialde hauek 2002an ere tasarik altuenak eman zituzten.

1.2.3.2. Eskolatze-adierazleak

(a) Eskolatze tasa eta itxaropena

Eskolatzearen tasa garbia adin multzo eta maila bakoitzeko eskola efektiboen eta adin multzo horretako biztanleen arteko erlazioa da[19].

2004ko datuei buruz "*Education at a Glance, OCDE 2006*" txostenak dioenez, ELGEko herrialderik gehienetan ia erabateko eskolatzea (%90etik gorakoa) 5-6 urterekin hasten da. Alabaina, Belgikan, Txekiar Errepublikan, Danimarkan, Frantzian, Alemanian, Hungarian, Islandian, Italian, Japonian, Zeelanda Berrian, Norvegian, Portugalen, Espainian, Suedian eta Erresuma Batuan haurren %70 baino gehiago eskolatuta daude 3 edo 4 urte dituztenerako, haur eta oinarrizko hezkuntzan. Eustaten datuen arabera, ikusten da 2003-04 ikasturtean EAEn 3 eta 5 urte arteko ikasleen %100,7 eskolatuta zeuden; 2004-05ean 100,6koa zen portzentaje hori, eta 2005-06an, berriz, %100ekoa.

"Las cifras de la Educación en España" txostenak 2006ko edizioan 2003-04 eta 2004-05 ikasturteetako datuekin, dioenez (2006ko bertsio eguneratua), EAEn eskolatze tasa garbia gora doa hezkuntza mailaren aldi berean 15 urtera arte, eta estatuko batez bestekoa baino altuagoa da 17 urtera arte.

Bizitza itxaropen klasikoan oinarritutako "eskolatze itxaropena" gaurko 5 edo 6 urteko haur batek zenbat urteko eskolatzearen itxaropena izan dezakeen litzateke, baldin eta *bere eskolatze bizitza*n, adinaren araberako oraingo inskripzio mailari eusten bazaio. 5 edo 6 urtetik aurrera heldu aroa amaitu arte adin bakoitzean dauden eskolatze tasen batuketa litzateke (ez du, beraz, haur hezkuntza kontuan hartzen).

[19] Eskolatzearen adinaren araberako tasa garbiak kalkulatzeko Eustatek berak egindako biztanleria piramide eguneratua erabiltzen da, proiekzioen datua aplikatzen den azkeneko ikasturtean ezik.

II.1.23. KOADROA. HELDUEN PRESTAKUNTZA MAILA, 2004 (25-64 ADINEKO BIZTANLERIA PORTZENTAJE HORIZONTALETAN BANATUTA)

	Eskolaurrea eta lehen hezkuntza	Bigarreneko lehen zikloa	Bigarreneko bigarren zikloa	Bigarrenaren ostekoa eta hirugarrena ez dena	HIRUGARRENA		
					B mota	A mota eta goi mailako programak	Hirugarrenak, denera
Australia	—	36	31	3	9	22	31
Austria	—	20	53	9	9	9	18
Belgika	16	19	33	1	17	13	30
Kanada	5	11	27	12	22	22	44
Txekiar errep.	—	11	76	—	—	12	12
Danimarka	1	16	51	—	7	25	32
Finlandia	13	10	43	—	17	17	34
Frantzia	15	20	41	—	10	14	24
Alemania	2	14	52	6	10	15	25
Grezia	31	11	29	8	6	14	20
Hungaria	2	23	57	2	—	16	16
Islandia	3	29	37	3	4	24	28
Irlanda	18	19	24	10	10	17	27
Italia	19	32	36	1	—	11	11
Japonia (1)	—	16	47	—	17	21	38
Korea	13	13	44	—	8	22	30
Luxenburgo	19	3	48	6	9	13	22
Mexiko	51	26	6	—	2	14	16
Holanda	8	21	38	4	2	26	28
Zeelanda Ber.	—	22	43	10	8	18	26
Norvegia	—	11	53	3	2	30	32
Polonia	—	16	65	4	—	16	16
Portugal	61	14	12	1	—	13	13
Eslov. errep.	1	15	72	—	1	12	13
Espainia	28	27	18	—	7	19	26
Suedia	7	10	48	—	15	19	34
Suitza	3	12	49	7	10	18	28
Turkia	64	10	17	—	—	9	9
Erres. Batua	—	15	56	—	9	20	29
AEB	5	8	43	—	9	29	38
	Eskolaurrea, lehen hezkuntza eta bigarreneko lehen zikloa		Bigarreneko bigarren zikloa	Bigarrenaren osteko eta hirug. ez dena	Hirugarrena		
ELGE b.b.	30		42		25		
EB 19 b.b.	29		45		23		
HZMren datuak (20 - 64 urte)							
	Eskolaurrea eta lehen hezkuntza	DBH	Derrigorrezkoaren osteko bigarrena	—	Goi mailako hezkuntza		
EAE, 2003	27,8	18,6	17,7	—	35,9		
Estatua, 2003	29,7	27,2	18,0	—	25,2		
EAE, 2005	16,4	21,4	21,2	—	40,9		
Estatua, 2005	22,6	27,2	22,7	—	27,5		

(1) Erreferentzia urtea 2003.
Iturria: Education at a glance, ELGE, 2006 eta HZM-INECSE (2004 eta 2006ko adierazleen estatuko sistema).

Ondorioz, herrialde bateko benetako eskolatze urteen, edo hezkuntzarako bidea nola garatzen den adierazle ona da.

ELGEk emandako datuek adierazten dute itxaropen hori desberdina dela herrialde batzuetan eta besteetan; gehienetan 17,4ko batez bestekotik beherakoa da (Espainian ere bai). Kopuru horretatik gora Australia (20,7), Belgika (19,6), Danimarka (19), Finlandia (20), Hungaria (17,6), Islandia (19,7), Zeelanda Berria (19,1), Norvegia (18,4), Suedia (20,3) eta Erresuma Batua (20,7) daude. Espainia, ELGEren metodologiaren arabera, 17,2 urtean legoke, batez bestekoa baino bi hamarren beherago, alegia.

Sexuka bereiztuz, emakumeek gizonek baino 0,8 urte gehiagoko hezkuntza jasotzen dute. Estatu Espainiarrean sexu bien arteko aldea are handiagoa da, 1,1 urte emakumeen alde.

EAEko egoera zein den jakiteko, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako datuak azalduko dira. Meto-

II.1.24. KOADROA. ESKOLATZE TASAK[1] ELGE-KO HERRIALDEETAN. 2004

	Derrigorrezko eskolatzea amaitzen den adina	Biztanleriaren %90etik gora eskolatuta dagoen urte kopurua	Biztanleriaren %90etik gora eskolatuta dagoen adin tartea	Ikasleen adina: 4 urtera arte 3 eta 4 urteko biztanleen % modura	5 - 14 urte artean, 5 eta 14 arteko biztanleen % modura	15-19 urte artean, 15 eta 19 arteko biztanleen % modura	20-29 urte artean, 20 eta 29 arteko biztanleen % modura	30-39 urte artean, 30 eta 39 arteko biztanleen % modura	40 urte edo gehiagokoak, 40 urte edo gehiagoko biztanleen % modura
Australia	15	12	5-16	42,4	98,5	81,6	32,6	14,0	6,1
Austria	15	13	5-17	65,8	98,5	79,0	18,9	3,2	0,3
Belgika[2][3]	18	16	3-18	120,8	100,4	95,7	28,0	7,9	3,0
Kanada	16	—	—	—	—	—	—	—	—
Txekiar Err.	15	15	4-18	84,3	99,7	91,4	18,6	3,5	0,3
Danimarka	16	12	4-16	87,6	98,0	84,5	36,0	7,2	1,6
Finlandia	16	13	6-18	41,9	95,1	86,7	41,1	11,5	2,5
Frantzia[2]	16	15	3-17	116,3	101,6	87,1	20,8	2,6	—
Alemania	18	12	6-17	76,9	97,9	88,8	27,9	2,9	0,2
Grezia	14,5	12	6-19	28,3	97,2	85,5	28,0	0,4	—
Hungaria	16	13	4-16	81,4	100,5	85,5	23,7	5,6	0,5
Islandia	16	14	3-16	94,1	98,8	84,4	37,3	11,1	3,0
Irlanda	15	12	5-16	24,7	100,9	86,9	22,6	3,7	—
Italia[2]	15	13	3-15	104,9	101,6	78,8	19,4	3,1	—
Japonia	15	14	4-17	81,4	100,7	—	—	—	—
Korea	14	12	6-17	20,3	93,5	85,2	27,4	1,9	0,4
Luxenburgo	15	11	5-15	60,7	96,4	75,4	7,1	0,5	—
Mexiko	15	9	5-13	44,5	97,7	41,6	10,0	3,2	0,5
Holanda	18	12	5-16	36,6	99,6	86,1	25,5	2,9	0,8
Zeelanda B.	16	12	4-15	88,7	100,5	72,5	30,0	12,0	4,7
Norvegia	16	12	6-17	83,1	98,3	85,7	29,4	7,2	1,8
Polonia	16	12	6-17	32,2	94,5	89,8	30,2	4,7	—
Portugal	14	11	5-15	72,0	104,1	72,7	22,6	4,0	0,7
Eslovak. err.	16	11	6-16	74,8	97,3	83,3	14,5	2,2	0,3
Espainia[2]	16	14	3-16	118,4	101,8	79,6	22,2	3,3	0,9
Suedia	16	13	6-18	85,1	99,1	87,5	35,8	13,5	3,1
Suitza	15	12	5-16	23,1	99,6	83,3	21,5	3,7	0,4
Turkia	14	6	8-13	2,6	81,2	39,8	9,6	1,5	0,2
Erres. Batua	16	13	4-16	76,7	100,4	79,0	27,8	15,6	7,8
AEB	17	11	6-16	52,9	97,3	76,5	23,4	5,2	1,5
ELGE b.b.	16	12		66,3	98,3	80,5	24,7	5,6	1,6
EB19 b.b.	16	13		73,5	99,2	84,7	25,1	5,3	1,5

Datuak, Eustaten arabera	0-2	3-5	6-11	12-15	16-17	18-21	22-25	26-29
EAE 03-04	30,9	100,7	99,5	99,2	87,0	64,7	26,9	7,4
EAE 04-05	28,8	100,6	100,9	100,6	87,8	65,4	27,6	7,6

Datuak, HZMren arabera	3 urterekin	15 urterekin	16 urterekin	17 urterekin
EAE 2004-05[4]	94,4	98,4	87,8	74,8
Estatua 2004-05[4]	99,5	98,4	97,8	92,6

(1) Eskolatze tasa, adin multzo bakoitzeko eskola efektiboen eta adin multzo horretako biztanleen arteko erlazioa.
(2) "4 urtera arte 3-4 urteko biztanleen % modura" ratioa askoetsia dago, ikasle askok 3 urte baino gutxiago baitauka.
(3) Alemanez mintzo den komunitatea kenduta.
(4) "Las cifras de la Educación en España" txostenak 2006ko edizioan 2003-04ko datuekin dioena. HZM.
Iturria: Education at a glance, ELGE, 2006; Eustat eta HZM.

dologia ELGEk erabiltzen duenaz bestelakoa bada ere, badago ondoriorik ateratzeko aukerarik. Lehen begiratuaren ostean, ondorioztatzen dugu Estatuan eskolatze itxaropena 14,5 urtekoa dela, analisiaren mugak 6 urtetik heldu arora jartzen direnean, hau da, 15,5 urte 5 urtetik hasita[20], eta itxaropena handiagoa dela EAEn, mugak 5 urte eta heldu adina direnean, 16,5 urte baitira.

Azkenik, interesgarria da gauza batez ohartaraztea: eskolatze itxaropena handia izateak ez du ezinbestean esan

[20] 5 urterekin eskolatzea %100ekoa delako.

II.1.25. KOADROA. ESKOLATZE ITXAROPENA HEZKUNTZA SISTEMAN (2004)

	Maila guztiak			Mailak (denbora guztira)			
	Denera (a+b)	Gizona	Emak.	Lehena eta bigarrenaren lehen zikloa	Bigarrenaren bigarren zikloa	Bigarrenaren osteko baina ez hirugarrena	Hirugarrena
Australia	20,7	20,4	20,9	11,7	4,4	0,6	3,6
Austria	16,3	16,1	16,4	8,2	3,8	0,7	2,3
Belgika(1)	19,6	19,0	20,2	9,4	5,7	0,4	3,0
Kanada	M	M	M	M	M	0,3	2,9
Txekiar err.	17,0	16,9	17,1	9,0	3,7	0,6	2,1
Danimarka	19,0	18,1	19,8	9,6	4,3	N	3,2
Finlandia	20,0	19,3	20,7	9,0	4,7	0,2	4,5
Frantzia	16,8	16,5	17,1	9,5	3,3	N	2,8
Alemania	17,4	17,5	17,3	10,2	3,0	0,5	2,3
Grezia	16,9	16,6	17,3	9,0	3,0	0,2	3,9
Hungaria	17,6	17,2	18,0	8,1	4,2	0,6	2,9
Islandia	19,7	18,5	20,9	9,9	5,3	0,1	3,5
Irlanda	17,2	17,0	17,5	10,8	2,4	1,1	2,9
Italia	17,0	16,6	17,3	8,4	4,7	0,1	2,9
Japonia	m	m	m	9,1	3,0	m	M
Korea	16,6	17,5	15,7	8,9	2,9	a	4,3
Luxenburgo	14,2	14,1	14,3	9,2	3,6	0,2	M
Mexiko	13,4	13,2	13,6	9,7	1,6	a	1,2
Holanda	17,4	17,5	17,3	10,4	3,2	n	2,7
Zeelanda B.	19,1	18,2	20,1	10,2	4,0	0,6	4,2
Norvegia	18,4	16,7	18,2	9,9	3,9	0,1	3,6
Polonia	17,0	16,6	17,5	9,0	3,4	0,4	3,3
Portugal	17,1	16,6	17,6	10,5	3,0	n	2,6
Eslovak. err.	15,7	15,5	15,9	8,8	3,7	0,1	1,9
Espainia	17,2	16,6	17,7	11,0	2,2	A	3,0
Suedia	20,3	18,8	21,8	9,8	4,7	0,1	3,8
Suitza	16,8	17,1	16,5	9,6	3,2	0,3	2,1
Turkia	12,6	13,3	11,2	7,7	3,1	A	1,5
Erres. Batua	20,7	19,2	22,2	9,1	8,8	X(5)	2,8
AEB	16,9	16,3	17,6	9,1	2,7	0,1	4,1
ELGE, b.b.	17,4	17,0	17,8	9,5	3,8	0,3	3,0
EB19 b.b.	17,6	17,1	18,1	9,4	4,0	0,3	2,9
	Denera (a+b)	**Gizona**	**Emak.**	**Unibertsitatekoa ez den hezkuntza**		**Unibertsitate hezkuntza**	
Espainia (2)	14,5	14,1	14,9	12,7		1,7	
EAE(2)	15,5	15,4	15,7	13,3		2,2	

(1) Ez dira aleman hiztunak sartzen.
(2) 6 urtetik aurrera adin bakoitzean dauden eskolatze tasen batuketa ehuneko batean kalkulatuta.
Iturria: Education at a glance, ELGE, 2006 eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (Las cifras de la educación en España. Estadísticas e Indicadores, 2006), (2) modura kalkulatutako datuetarako.

gura gazte guztiak luzaro eskolatuta egoten direnik. Berbarako, Australian, Finlandian, Erresuma Batuan eta Suedian, non eskolatze itxaropena 20 urtetik gorakoa baita, eskolatze tasak ez dira %90 baino handiagoak 13 ikasturte baino gehiagotan. Beste herrialde batzuetan, Txekiar Errepublikan eta Frantzian, esaterako, eskolatze tasak %90erainokoak dira 15 urtera arte, eta Belgikan, 16 urtera arte.

(b) Goi mailako hezkuntzara heltzea: Unibertsitateko sarrera probetan onartutako ikasleak

INEren datuen arabera, 2006an 10.219 pertsonek egin zuten sarrera proba Euskal Herriko Unibertsitatean (9.755ek ekain eta iraileko deialdietan eta 464k 25 urtetik gorakoen deialdian); aurreko urtean baino %4,2 gutxiagok, alegia. Horien guztien %92,6k gainditu zuten proba, aurreko urtean baino gehiagok, proportzioan 2,6 gehiagok. 25 urtetik gorako ikasleak kenduta, onartuen portzentajea (ekain eta irailean) %94,1ekoa da.

Estatuko unibertsitate publikoen multzoan, berriz, 182.698 pertsonek eman zuten azterketa egiteko izena, aurreko urtean baino %1,5 gutxiagok, alegia. Horietatik %82,7 gainditu zuten proba, Euskal Herriko Unibertsitatean baino portzentaje gutxiagok, alegia.

Eustaten datuen arabera, 2006an EAEn 9755 pertsonek egin zituzten unibertsitatera sartzeko probak (INEk

II.1.26. KOADROA. MATRIKULATU ETA GAINDITUTAKO IKASLEAK DEIALDIKA

	2005		2006		Aldaketa	
	Estatua	EAE-EHU	Estatua	EAE-EHU	Estatua	EAE-EHU
Matrikulatuta					Tasa	
Denera	222.633	10.666	220.954	10.219	–0,8	–4,2
Ekain eta irailean	202.741	10.044	201.705	9.755	–0,5	–2,9
25 urtetik gora	19.892	622	19.249	464	–3,2	–25,4
Gaindituta						
Denera	181.849	9.607	182.698	9.467	0,5	–1,5
Ekain eta irailean	170.865	9.330	171.926	9.183	0,6	–1,6
25 urtetik gora	10.984	277	10.772	284	–1,9	2,5
% gaindituta					Diferencia	
Denera	81,7	90,1	82,7	92,6	1,0	2,6
Ekain eta irailean	84,3	92,9	85,2	94,1	1,0	1,2
25 urtetik gora	55,2	44,5	56,2	61,2	0,7	16,7

Iturria: INE.

ekain eta iraileko deialdietarako zenbatutako kopuru berbera). Horietatik, Eustaten arabera, 7.943 deialdi arruntekoak lirateke, 1.812 deialdi berezikoak. Lehenengoan ikasleen %97k gainditu zuten eta bigarrenean, berriz, %81ek.

1.2.3.3. Hezkuntza eta ikerkuntza emaitzen adierazleak

(a) Langabezi tasa ateratako prestakuntza mailaren arabera

Hezkuntza maila lortutako prestakuntzaren adierazlea dela onartzen den neurrian, enplegu emaileek enplegu baterako izangaien gaitasunak eta jakintza zenbatekoak diren jakin dezake, gutxi gorabehera. Hezkuntza maila desberdinetako jendeak dituen enplegu perspektibak lan merkatuaren beharren eta prestakuntza maila desberdinetako lanesku eskariaren mende daude. Oro har, prestakuntza mailarik gutxieneko pertsonek marjinazio ekonomikoaren arriskuetatik bereziki gertuago daude, lan bila dabiltzanean lanik aurkitzeko aukera gutxiago izaten dutelako.

ELGEren datuek agerian uzten dute 1995ean eremuaren multzoan, 25 eta 64 urte arteko jendeak, hezkuntza ertainera heltzen ez zenak, hezkuntza ertaineko ikasketak burutu zituztenak baino 3,5 portzentaje puntu gorako langabezi tasa zutela, eta goi mailako ikasketak zituztenak baino 6,2 puntu gehiagokoa. Dauzkagun azkeneko datuen arabera (hezkuntza maila bakoitzean langabezi tasak behera egin duen arren) prestakuntza handiagoa den heinean langabezi tasa txikiagoa dela ez eze, 1995ean ikusitako diferentziak orain handiagoak ere badela ikusten dugu. Hezkuntza ertainera heltzen ez den prestakuntza mailarekin, hezkuntza ertaina amaitu zuten pertsonena baino 4,2 portzentaje puntu handiagoa zen langabezi tasa, eta goi mailako ikasketak dituztenena baino 6,5 puntu handiagoa.

Diferentzia horiek bereziki nabarmenak dira Europako Ekialdeko herrialde batzuetan, eta Belgikan, Danimarkan,

II.1.27. KOADROA. LANGABEZI TASAK ADIN MULTZOKA

	EAE		Estatua	
	2002	2004	2002	2004
DENERA. 16 urte eta gehiago	9,58	9,7	11,47	10,97
16 - 64 urte	9,62	9,74	11,53	11,02
25 urtetik behera	22,22	24,5	22,27	22,04
25 eta gehiago	8,23	8,28	9,87	9,47
16 - 19 artean	36,68	36,57	29,8	30,58
20 - 24 artean	20,23	22,74	20,29	19,89
25 - 64 artean	8,77	8,71	10,25	9,82
55 eta gehiago	3,78	4,78	6,9	6,78

Iturria: BJA, INE.

II.1.28. KOADROA. LANGABEZI TASEN BILAKAERA HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA (25 ETA 64 ADIN TARTEKO LANGABEAK, 25-64 ADINEKO BIZTANLEEN PORTZENTAJE MODURA, HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA, BJARI BURUZKO DATUAK EZIK, HOR 16 URTETIK GORAKO BIZTANLERIA HARTZEN BAITA)

	1995			2004				
	Bigarren hezkuntzaren azpitik (gure DBH)	Bigarrena eta bigarrenaren osteko baina ez hirugarrena (batez bestekoak)	Hirugarrena (gorena)	Bigarren hezkuntzaren azpitik (1)	Bigarrena eta bigarrenaren osteko eta hirugarrena ez dena (batez bestekoak) (2)	Hirugarrena (gorena)	(2-1)	(3-1)
Australia	8,7	6,2	4,0	6,2	3,9	2,8	–2,3	–3,4
Austria	5,7	2,9	2,0	7,8	3,8	2,9	–4,0	–4,9
Belgika	13,4	7,5	3,6	11,7	6,9	3,9	–4,8	–7,8
Kanada	13,1	8,3	6,2	9,9	6,1	4,7	–3,8	–5,2
Txekiar errep.	7,7	2,1	0,7	23,0	6,4	2,0	–16,6	–21
Danimarka	14,6	9,9	4,6	7,8	4,8	3,9	–3,0	–3,9
Finlandia	21,6	16,7	9,1	12,0	8,2	4,7	–3,8	–7,3
Frantzia	13,7	9,0	6,5	12,1	7,5	6,1	–4,6	–6
Alemania	13,3	7,9	4,9	20,5	11,2	5,5	–9,3	–15
Grezia	6,3	9,0	8,1	8,4	9,7	6,9	1,3	–1,5
Hungaria	—	—	–	10,8	5,0	1,9	–5,8	–8,9
Islandia	—	—	–	3,1	2,8	1,0	–0,3	–2,1
Irlanda	16,4	7,6	4,2	6,4	3,2	2,1	–3,2	–4,3
Italia	9,1	7,9	7,3	7,8	5,3	4,8	–2,5	–3
Japonia	—	—	—	—	—	—	—	—
Korea	1,0	1,6	2,0	2,6	3,5	2,9	0,9	0,3
Luxenburgo	—	—	M	5,0	3,8	3,0	–1,2	–2
Mexiko	4,2	5,2	4,7	1,9	2,8	3,0	0,9	1,1
Holanda	7,9	4,8	4,1	5,7	3,9	2,8	–1,8	–2,9
Zeelanda B.	8,2	3,3	3,2	4,2	2,4	2,4	–1,8	–1,8
Norvegia	6,5	4,0	2,4	3,6	3,8	2,4	0,2	–1,2
Polonia	13,9	11,1	2,8	27,8	17,4	6,2	–10,4	–21,6
Portugal	62	6,4	3,2	6,4	5,6	4,4	–0,8	–2
Eslovakiar Err.	24,0	9,6	2,7	47,7	14,6	4,8	–33,1	–42,9
Espainia	30,6	18,5	14,5	11,0	9,5	7,3	–1,5	–3,7
Suedia	10,1	8,7	4,5	6,5	5,8	4,3	–0,7	–2,2
Suitza	5,8	2,8	C	7,2	3,7	2,8	–3,5	–4,4
Turkia	4,8	6,9	3,3	8,1	10,1	8,2	2	0,1
Erres. Batua	12,8	7,5	3,7	6,6	3,7	2,2	–2,9	–4,4
AEB	10,0	5,5	2,7	10,5	5,6	3,3	–4,9	–7,2
ELGE bat-best.	10,8	7,3	4,6	10,4	6,2	3,9	–4,2	–6,5
EB 19 bat-best.	12,8	8,7	5,1	12,9	7,2	4,2	–5,7	–8,7

Iturria: Education at a glance, ELGE, 2006.

Finlandian, Frantzian, Alemanian, Suitzan, AEBn eta Erresuma Batuan.

Bestalde, hezkuntza maila ertaina duten eta ez duten pertsonen langabezi tasen artean dauden diferentziak maila altuko bigarren hezkuntza osatzeraino ikasten segitzeak dakarren onuraren neurria dira, bigarren maila horretan lortzen baitira lan merkatuan lanpostu asegarria lortzeko behar diren oinarrizko gaitasunak.

Joera orokor horren salbuespenak Turkian, Mexikon, Korean eta Grezian ikusiko ditugu, non langabezia handiagoa da hezkuntza ertaineko jendearen artean oinarri-oinarrizko prestakuntza dutenen artean baino; izan ere, prestakuntzarik gutxieneko jendeak goi mailako ikasketak dituztenak baino langabezi tasa txikiagoa ere badauka.

BJAren datuetatik langabezia prestakuntza mailaren arabera zenbatekoa den aztertzen badugu, 2005 urteari begiratuta, adierazgarria da, prestakuntza mailak gora egin ahala tasa horrek beherako joera *garbia* duela erakusten baitu, eta alderdi hori aurreko urteetan ez zen hain agerikoa Lehen Hezkuntzatik Bigarrenera, edo Lehen Hezkuntzatik Gorenera igarotzean (2005eko Memoria Sozioekonomikoan aipatu genuen bezala); Estatu Espainiarrean oraindik gertatzen da Lehen Hezkuntzatik Bigarreneko Lehen Etapara igarotzean.

Komeni da kontuan hartzea BJAk langabeen kopuruari buruzko informazioa ematen duela (16 urtetik aurrera) lortutako hezkuntza mailaren arabera, baina ez du adin eta prestakuntza mailaka xehatzeko aukerarik ematen. Ondorioz, ondokoak zenbatzen ari dira:

II.1.29. KOADROA. LANGABEZI TASAREN BILAKAERA II HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA

	2002		2003		2004		2005	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
DENERA	11,5	9,6	11,5	9,5	11,0	9,7	9,2	7,3
Analfabetoak	21,1	0,0	24,2	11,1	25,3	6,7	21,6	18,8
Lehen hezkuntza	12,1	8,1	12,3	9,3	12,1	9,3	10,5	9,8
Bigarren hezkuntza Lehen etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	13,1	12,2	13,1	12,0	12,6	13,4	11,1	8,9
Bigarren hezkuntza Bigarren etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	11,5	11,0	11,5	8,9	11,0	9,8	8,8	7,7
Prestakuntza eta laneratzea bigarreneko tituluarekin (2. etapa)	12,3	0,0	14,1	0,0	13,8	0,0	6,9	0,0
Goiko hezkuntza, doktoregoa ezik	9,2	8,5	9,0	8,7	8,4	8,1	6,9	6,0
Doktoregoa	4,9	8,8	3,8	5,0	3,0	13,9	1,7	0,0

Iturria: BJA, INE.

- 16 eta 25 urte arteko gazteak, ELGEk ez bezala, eta horrek analisia nabarmen desitxuratzen baitu, EAEn dagoen 25 urtetik beherakoen langabezi tasa, lehen enpleguaren bila ari diren eta prestakuntza mailarik altuena dutenena, alegia, oso altua baita (autore batzuek gazteak hezkuntza aroa luzatzera jotzen dutelako dela diote); eta
- 64 urtetik gorakoak, analisirako ondore okerrik ez dutenak, antza, 16 urte eta gehiago dituztenen multzoaren langabezi tasa eta 16 eta 64 urte artekoena ia berdinak baitira.

(b) Ikerketako diru sarrerak denbora osoko irakasleko Unibertsitate Publikoan

CRUEk (Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia) egindako "La Universidad española en cifras, 2006" txostenean dioenez, 2004an unibertsitate pu-

II.1.20. GRAFIKOA. DIRU SARRERAK IKERKUNTZAN UNIBERTSITATE PUBLIKOAN/PETC, 2004



Iturria: "La universidad española en cifras". 2006. CRUE.

blikoari, ikerketa jardunaren ondorioz, denbora osoko irakasle zen bakoitzarengatik batez beste 9.581 euro sartu zitzaizkion (PETC). Balio horretatik gora Kantabriako Unibertsitate Publikoa (17.319 €/PETC), Kataluniakoa (15.274), Galiziakoa, Aragoikoa, Valentziakoa eta Gaztela Mantxakoa (11.501) leudeke. Euskal Unibertsitate Publikoak 7.625 €/PETC hartu zituen. Diru sarrerarik txikiena Errioxako Unibertsitate Publikoarena izan zen, 5.018 €/PETC.

1.2.3.4. Finantzazkoak ez diren baliabideen adierazleak

(c) Informazio eta komunikazio teknologiak hezkuntza sistemara sartzea

ELGEk 2006an 2003ko datuekin argitaratu zituen "Are students ready for a technology-rich world?" eta "Education at a Glance" txostenen arabera, alde handia dago 15 urteko ikasleko dagoen ordenagailu kopuruetan herrialde desberdinen artean: ordenagailu bat hiru ikasleko Amerikako Estatu Batuetan, eta ordenagailu bat 42 ikasleko Brasilen. Estatu Espainiarra ordenagailu bakoitzeko 10 ikaslerekin, erreferentziako balio horietatik urrun dago.

Bestalde, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren "Estadística de la Sociedad de la Información y la Comunicación en los centros educativos, 2006" txostenak dio 2004-05 ikasturtean estatuan irakaskuntzara xedatutako ordenagailuko ikasleen batez bestekoa 10,3 zela —ELGEk emandakoaren antzekoa—(9,3 publikoetan eta 13,6 pribatuetan. Eta iturri berberak dioenez, EAE bigarren dago batez ere irakaskuntzan erabiltzen diren ordenagailuko 6,9 ikaslerekin (6 zentro publikoetan eta 8 pribatuetan), Extremaduraren atzetik.

Bestalde, interneterako konexiorik duten zentroen portzentajea ia %100 da (%99,8 ikastetxe publikoetan eta %100 pribatuetan), Estatuko batez bestekoa %98,5ean dagoenean (%98,9 zentro publikoetan eta %97,3 pribatuetan). Web orrialdea daukaten zentroen portzentajeari dagokionez, gaian ahaleginak egiten segitu behar dela adierazten du, zeren EAEn web orrialdea daukaten zentro pribatuak Estatuan baino gehiago diren arren (%73,3 eta %63,4 hurrenez hurren), ez baita berdin gertatzen zentroak publikoak direnean (%45,2 EAEn, eta %50,3 Estatuan).

(d) Ikasleak/ irakasle, ikasleak/adminstrazio langile eta Irakaslea/administra

CRUEk (Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia) eginidako "La Universidad española en cifras, 2006" txostenean dioenez, denbora osokoaren pare-

CUADRO II.1.30. INDICADORES DE SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN EN CENTROS EDUCATIVOS, CURSO 2004-05

	Ikasleen irakaskuntzara xedatutako ordenagailu bakoitzeko ikasle kopurua, batez beste			Interneterako konexiodun ikastegien portzentajea, zentroaren titularitatearen arabera			Web orrialderik daukaten zentroen portzentajea		
	Denera	Zentro Publikoak	Zentro Pribatuak	Denera	Zentro Publikoak	Zentro Pribatuak	Denera	Zentro Publikoak	Zentro Pribatuak
Denera	**10,3**	**9,3**	**13,6**	**98,5**	**98,9**	**97,3**	**53,2**	**50,3**	**63,4**
Andaluzia	11,5	10,4	17,0	99,5	99,5	99,4	52,1	49,5	63,1
Aragoi	9,6	9,0	10,9	100,0	100,0	100,0	68,4	69,1	66,1
Asturias	9,3	8,6	11,4	99,8	99,7	100,0	76,1	74,6	81,5
Balearrak (Irlak)	16,4	15,0	19,6	99,7	100,0	99,0	47,9	43,4	59,8
Kanariak	15,2	14,6	17,7	98,3	98,1	99,3	17,5	14,1	38,3
Kantabria	11,1	10,5	12,4	98,0	99,5	93,9	46,0	43,6	53,2
Gaztela Leon	10,1	9,2	12,6	99,7	99,9	99,2	66,3	67,2	63,1
Gaztela Mantxa	11,3	10,5	17,4	99,2	99,1	100,0	48,5	48,6	48,1
Katalunia	9,0	8,2	10,9	99,5	99,4	99,7	79,2	78,9	80,1
Valentziako Erkidegoa	13,9	12,8	17,4	98,8	98,7	99,1	40,3	35,6	54,3
Extremadura	2,8	2,3	2,4	99,3	100,0	94,7	40,9	39,5	51,4
Galizia	12,9	12,1	15,8	88,4	92,6	71,4	33,8	31,9	43,9
Madril	13,6	12,6	15,0	99,1	100,0	97,6	55,0	50,9	62,5
Murtzia	12,1	10,7	19,5	99,8	99,8	100,0	38,3	37,5	42,2
Nafarroa	9,8	9,4	10,6	100,0	100,0	100,0	40,8	33,0	70,0
EAE	**6,9**	**6,0**	**8,0**	**99,9**	**99,8**	**100,0**	**55,5**	**45,2**	**73,3**
Errioxa	9,3	8,2	13,0	99,1	98,8	100,0	91,9	91,5	93,1
Ceuta	14,4	11,8	45,2	100,0	100,0	100,0	63,0	71,4	33,3
Melilla	17,0	16,1	24,9	95,5	94,7	100,0	66,7	66,7	66,7

Iturria: HZM. Informazioaren eta komunikazioaren gizartearen estatitista ikastegietan.

II.1.21. Grafikoa. 15 urteko ikasle kopurua ordenagailuko, 2003



Iturria: ELGE.

II.1.22. Grafikoa. AMN/PETC, AMN/PAS eta PETC/PAS Irakaskuntza publiko gorenean, 2004



Iturria: "La universidad española en cifras". 2006. CRUE.

ko irakasle bakoitzeko matrikulatuta dauden ikasle kopurua (AMN/PETC), unibertsitate publikoen multzoan, 14,5 da. Euskal Herri Unibertsitatea, 12,82 AMN/PETCrekin toki erlatibo onean dago.

Aitzitik, Euskal Herriko Unibertsitate Publikoko matrikulatutako ikasleen administrazio eta zerbitzuetako langileen aldeko zenbakizko ratioak (AMN/PAS) eta denbora osoko irakasleen parekoen administrazio eta zerbitzuetako langileen aldeko ratioak (PETC/PAS) altuenak dira. Lehen ratioa 32.1 da eta bigarrena 2,5; Estatuaren multzoan, unibertsitate publikoaren batez bestekoak 24,88 eta 1,72 dira, hurrenez hurren.

1.2.3.5. Finantzazko baliabideen adierazleak

(a) Unibertsitate publikoko gastuaren portzentajezko egitura

"La Universidad Española en Cifras, 2006" txostenean jasotzen denez, unibertsitate publikoko gastuaren portzentajezko banaketa, gastu arrunt, finantzazko gastu eta kapital gastuen artean, 67,5-12,5-20 da eta, gainera, ikusten da azkeneko urteetan kapital eragiketetakoa gehitu dela, bere jarduketa esparru handi bietan: I+G+b eta azpiegitura eta ekipamenduetan.

Unibertsitatez unibertsitate aztertuz gero (unibertsitate publikoa), agerian geratzen da 2004an Euskal Herriko Unibertsitate Publikoko inbertsio gastua batez bestekoa baino portzentajezko 6,6 puntu beherago egon zela, atzetik Gaztela Mantxa eta Errioxako Unibertsitate Publikoak soilik zituela. Aitzitik, Euskal Herriko Unibertsitate Publikoa lehenengoa dago gastu arruntetara bideratutako gastu osoaren proportzioaren aldetik, %86,6rekin.

Gastu arruntaren portzentajezko egituraren azterlanean (langileria + funtzionamendua + transferentzia arruntak) ikusten da Euskal Unibertsitate Publikoak gastu arruntaren %75 langileria gastuetara bideratzen duela. Andaluzia, Gaztela Mantxa eta Nafarroako unibertsitate publikoetan soilik bideratzen dira hori baino portzentaje txikiagoak, %73,6, %71 eta %62,9, hurrenez hurren. Estatuko batez bestekoa %77,9koa da.

Funtzionamendu gastua, berriz, gastu arrunten %22 dira Euskal Unibertsitate Publikoan, gainetik Nafarroako, Gaztela Mantxako eta Balearretako Unibertsitate Publikoak daude. Estatuko batez bestekoa %19koa da.

(b) Finantzazko adierazleak Unibertsitate Publikoan matrikulatutako ikasleko

"La Universidad Española en Cifras, 2006" azterlaneko datuetatik ondorioztatzen da 2004an Euskal Unibertsitate Publikoak 5.534 euro xedatu zituela, matrikulatutako ikasleko, gastu arruntetara. Gasturik handieneko unibertsitate publikoen artean Nafarroa, 7.130 eurorekin, Aragoikoa, 5.553 eurorekin, Katalunia-

II.1.23. GRAFIKOA. GASTUAREN PORTZENTAJEZKO EGITURA ESPAINIAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN, 2004



Fuente: La Universidad Española en cifras, 2006 CRUE.

II.1.24. Grafikoa. Gastu arruntaren portzentajezko egitura Espainiako unibertsitate publikoan, 2004



Fuente: La Universidad Española en cifras, 2006 CRUE.

II.1.31. Koadroa. Finantzazko adierazleak unibertsitate publikoan matrikulatutako ikasleko, 2004

	Ikasleko gastu arrunta (€)	Ikasleko langileria gastua (€)	Ikasleko gastu arrunta ondasun eta zerbitzuetan (€)	Ikasleko izatezko inbertsioa (€)
Andaluzia	4.081	3.243	663	989
Aragoi	5.553	4.413	1.103	1.369
Asturias	4.361	3.422	813	1.297
Balearrak	4.477	3.360	1.036	1.259
Kanariak	4.867	4.112	633	942
Kantabria	5.478	4.321	1.023	1.811
Gaztela Mantxa	4.446	3.120	1.128	796
Gaztela Leon	4.752	3.711	881	971
Katalunia	5.520	4.058	1.125	1.578
Valentzia	4.851	3.260	925	2.088
Extremadura	3.575	3.047	471	600
Galizia	4.026	3.148	743	1.525
Madril	5.248	4.055	952	1.501
Murtzia	4.287	3.460	728	1.497
Nafarroa	7.130	4.495	2.238	2.360
EAE	5.434	4.073	1.198	839
Errioxa	4.461	3.400	913	629
Estatua	4.751	3.643	891	1.346

Iturria: La universidad española en cifras, 2006. CRUE.

koa, 5.520 eurorekin eta Kantabriakoa 5.478 eurorekin daude. Matrikulatutako ikasleko langileria gastuen terminoetan, 4.073 euro gastatzen ditu; gainetik Nafarroakoa, 4.495 eurorekin, Aragoikoa 4.413 eurorekin, Kantabriakoa 4.321 eurorekin eta Kanarietakoa 4.112 eurorekin dauzka. Ondasun eta zerbitzuetako gastuari dagokionez, Euskal Unibertsitate Publikoak ikasleko 1.198 euro gastatzen ditu, eta horretan Nafarroak soilik dauka gastu handiagoa.

Ikasleko izatezko inbertsioaren aldetik, Euskal Unibertsitate Publikoak 839 euro xedatu zituen 2004an. Gastu txikiagorekin Gaztela Mantxakoa, ikasleko 796 eurorekin, Errioxakoa 629 eurorekin eta Extremadurakoa 600 eurorekin leudeke.

(c) Unibertsitateko prezio publikoak

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Unibertsitateen Koordinazio Kontseiluaren datuen arabera, 1992-93 ikasturtean lehen eta bigarren zikloko espezialitaterik garestienean estreinako matrikulatutako kredituaren prezio publikoa 7,95 eurokoa zen EAEn, autonomia erkidego guztietako baliorik altuena, beraz. 2006-07 ikasturtean, ordea, EAE preziorik oneneko eskaintza daukaten bost erkidegoen artean dago (13,45 euro), Andaluzia (10,5 euro), Valentzia (11,71 euro), Kanariak (11,79 euro) eta Galiziaren (12.23) atzetik. Beste alde batetik, 1992-93 ikasturtean lehen eta bigarren zikloko espezialitaterik merkeenean estreinako matrikulatutako kredituaren prezio publikoa 5,04 eurokoa zen EAEn; Katalunia eta Valentziak (biak 5,15 euro), Nafarroa (5,48 euro) eta Andaluzian (6,01 euro) hemen baino gehiago. Eta 2006-07 ikasturtean EAE berriro izan da preziorik oneneko eskaintza duten bost erkidegoetako bat (8,73 euro), Kanariak (7,47 euro), Valentzia (7,97 euro), Extremadura (8,56 euro) eta Galiziaren (8,64) atzetik.

Ondorioz, EAE ez dago lehen eta bigarren zikloan estreinako matrikulatutako kredituaren prezio publikoa historikoki gehien hazi den Autonomia Erkidegoen artean, arestian esandakoan eta 1992/93 oinarria 100 deneko prezio publikoen indizeen bilakaera jasotzen duen taula irakurtzean ikusten duenez.

Espezialitaterik garestieneko doktorego kredituaren prezio publikoari dagokionez, EAEn, 2000-01 ikasturtean 39,68 eurokoa zen, hiru erkidegok soilik gainditzen zutelarik: Kataluniak (non irakaskuntza kreditua 93,16 euro ateratzen baitzen, eta ikerkuntzakoa 105,78 euro), Nafarroak (49,23 euro) eta Valentziak (42,71 euro). 2006-07 ikasturtean, ordea, EAE izan zen preziorik baxuena izan zuten hiru erkidegoetako bat (26,6 euro Extremaduran, 41,7 Balearretan eta 43,31 EAEn). Espezialitaterik merkeeneko doktorego kredituaren prezio publikoa, berriz, 28,33 eurokoa zen EAEn, eta Valentzian, Katalunian eta Nafarroan baino ez zuten balio hori gainditzen (Valentzia: 30,33 euro; Nafarroa 35,14 euro eta Katalunia 33,66 euro, irakaskuntzako kreditua bada eta 46,28 euro ikerkuntzakoa bada), eta bost ikasturte geroago, prezio publiko horrek segitzen du garestia delako nabarmentzen, Valentzia, Andaluzia, Nafarroa eta Katalunian erregistratutako prezioaren atzetik.

II.1.31. KOADROA. MATRIKULATUTAKO KREDITUAREN PREZIO PUBLIKOAK, ESPEZIALITATEAREN ARABERA (GARESTIA ALA MERKEA) (EUROTAN)

	Lehenengoz lehen eta bigarren zikloko irakaskuntza berriztatuetan				Doktoregoan				Graduondoko ikasketetan	
	1992-93		2006-07		2000-01		2006-07		2006-07	
	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena
Andaluzia	6,01	6,01	10,50	10,50	17,47	12,60	44,00	44,00	25,00	25,00
Aragoi	7,73	4,99	14,88	9,53	37,06	20,49	47,94	27,13	28,00	16,00
Asturias	7,73	4,99	14,20	8,95	35,76	19,77	45,69	25,26	26,00	16,00
Balearrak	7,73	4,99	14,44	9,25	35,85	19,82	46,43	26,76	25,00	21,00
Kanariak	7,04	4,97	11,79	7,47	19,26	19,26	26,60	26,60	20,50	20,50
Kantabria	7,73	4,99	13,73	8,78	35,96	19,88	44,13	24,99	—	—
Gaztela eta Leon	7,73	4,99	13,86	8,80	35,76	19,95	44,70	24,94	28,00	24,00
Gaztela Mantxa	7,73	4,99	13,70	8,84	33,36	21,46	41,70	26,52	21,93	14,15
Katalunia	7,30	5,15	14,08	9,69	—	—	—	—	28,00	15,00
Irakaskuntza krediuak dok.	—	—	—	—	93,16	33,66	122,51	44,22	—	—
Ikerkuntza krediuak dok.	—	—	—	—	105,78	46,28	139,15	60,86	—	—
Extremadura	7,73	4,99	13,60	8,56	35,68	19,73	43,77	24,20	23,50	13,00
Galizia	7,09	5,01	12,23	8,64	35,95	25,37	45,93	32,41	26,15	17,77
Madril	7,73	4,99	14,97	9,59	37,35	21,47	48,91	28,12	28,00	22,00
Murtzia	7,73	4,99	13,69	8,89	35,27	20,46	43,31	25,12	26,00	18,00
Nafarroa	7,75	5,48	15,92	11,25	49,23	35,14	66,89	47,75	23,00	23,00
EAE	7,95	5,04	13,54	8,73	39,68	28,33	51,69	37,09	28,00	20,09
Errioxa	7,73	4,99	14,94	9,41	37,08	20,49	47,31	26,54	—	—
Valentzia	7,30	5,15	11,71	7,97	42,71	30,33	53,57	38,06	47,06	13,00
U.N.E.D.	7,73	4,99	14,84	9,35	36,39	20,45	47,70	26,38	28,00	13,50

Iturria: Unibertsitateen Koordinazio Kontseilua eta HZM.
Urdinezko datuak prezio publikoen alorrean eskuduntzarik ez daukaten autonomi erkidegoenak dira.
Eskuduntzen jabetze urteak: 1985, Katalunia eta EAE; 1986: Andaluzia eta Valentzia; 1987: Kanariak; 1988: Galizia; 1989: Nafarroa; 1995: Asturias, Gaztela Leon; Extremadura, Madril eta Murtzia; 1996: Aragoi, Kantabria, Gaztela Mantxa, Balearrak eta Errioxa.

II.1.33. KOADROA. IRAKASKUNTZA BERRIZTATUETAN LEHENENGOZ MATRIKULATUTAKO KREDITUAREN PREZIO PUBLIKOEN INDIZEA. (*) (**). ESPEZIALITATERIK GARESTI ETA MERKEENAK. OINARRIA 1992/93 =100

	1992-93		1993-94		1994-95		1995-96		1996-97		1997-98		1998-99		1999-00	
	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena
Andaluzia	100	100	110	110	115	115	121	121	126	126	130	130	133	133	136	136
Aragoi	100	100	115	112	120	118	127	124	133	130	138	134	141	138	145	141
Asturias	100	100	115	112	120	118	127	124	132	129	137	134	136	133	140	136
Balearrak	100	100	115	112	120	118	127	124	134	131	133	130	136	132	139	135
Kanariak	100	100	110	110	112	112	118	118	122	123	111	74	111	103	111	103
Kantabria	100	100	115	112	120	118	127	124	132	129	134	131	137	134	141	137
Gaztela eta Leon	100	100	115	112	120	118	127	124	131	128	133	130	136	133	139	136
Gaztela Mantxa	100	100	115	112	120	118	127	124	132	129	134	131	136	136	140	140
Katalunia	100	100	110	110	115	115	121	121	130	127	132	129	137	134	142	138
Extremadura	100	100	115	112	120	118	127	124	131	128	133	130	136	133	139	136
Galizia	100	100	108	108	113	113	119	119	123	123	126	125	128	128	131	131
Madril	100	100	115	112	120	118	127	124	132	129	138	134	140	138	144	142
Murtzia	100	100	115	112	120	118	127	124	129	129	133	134	137	138	140	141
Nafarroa	100	100	110	110	115	115	123	123	131	131	137	136	141	140	144	144
EAE	100	100	105	105	108	108	113	113	117	118	120	121	123	124	126	127
Errioxa	100	100	115	112	120	118	127	124	133	129	136	133	140	137	143	140
Valentzia	100	100	112	112	104	101	111	103	115	107	118	110	121	113	124	115
U.N.E.D.	100	100	115	112	120	118	127	124	134	131	136	133	141	138	144	141

	2000-01		2001-02		2002-03		2003-04		2004-05		2005-06		2006-07	
	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena	Gares-tiena	Mer-keena
Andaluzia	140	140	146	146	151	151	156	156	160	160	166	166	175	175
Aragoi	149	145	155	151	161	157	166	165	173	171	182	180	193	191
Asturias	144	141	150	146	156	152	162	158	169	165	176	172	184	179
Balearrak	144	141	152	148	158	157	165	164	172	171	179	178	187	185
Kanariak	114	112	125	117	131	121	139	127	148	133	159	141	167	150
Kantabria	145	141	150	149	156	155	161	159	165	164	171	169	178	176
Gaztela eta Leon	144	140	149	147	155	152	160	158	165	162	173	170	179	176
Gaztela Mantxa	144	143	149	149	155	155	160	160	165	165	171	171	177	177
Katalunia	147	143	153	149	161	157	168	164	175	171	184	179	193	188
Extremadura	143	140	149	146	155	151	159	156	164	160	169	165	176	172
Galizia	135	135	140	140	146	146	152	152	158	158	164	164	172	172
Madril	148	147	157	155	164	163	171	169	178	177	185	183	194	192
Murtzia	144	145	150	151	155	156	160	161	165	166	170	171	177	178
Nafarroa	151	151	157	157	169	169	177	177	184	184	194	194	205	205
EAE	131	131	137	139	143	145	149	152	156	159	163	166	170	173
Errioxa	149	146	155	152	161	148	169	165	177	173	186	181	193	189
Valentzia	128	119	133	123	138	128	143	133	149	138	154	143	160	149
U.N.E.D.	149	145	155	151	163	159	171	167	176	172	184	179	192	187

(*) 1991-92tik bi ikasketa sistema uztartzen dira (tradizionala eta berriztatua)
(**) Urdinezko datuak prezio publikoen alorrean eskuduntzarik ez daukaten autonomi erkidegoenak dira. Eskuduntzen jabetze urteak: 1985, Katalunia eta EAE; 1986: Andaluzia eta Valentzia; 1987: Kanariak; 1988: Galizia; 1989: Nafarroa; 1995: Asturias, Gaztela Leon; Extremadura, Madril eta Murtzia; 1996: Aragoi, Kantabria, Gaztela Mantxa, Balearrak eta Errioxa.
Iturria: HZM.

Azkenik, graduatu osteko ikasketetako kredituaren prezio publikoari dagokionez, aipatu behar dugu, lehenik eta behin, Unibertsitateen Koordinazio Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko akordioaren arabera, abenduaren 1509/2005 EDk aldarazitako urtarrilaren 21eko 56/2002 EDk araupetutako graduatu osteko unibertsitate ikasketa berrien prezio publikoak krediduko 13 eta 28 euro artean egongo lirateke, nahiz eta, inoiz

gauza berezi modura, Autonomia Erkidegoek goiko muga gehienez kostearen %30eraino aldatzea izango luketen. Eta bigarren, erantsitako taulako datuen arabera, EAEk espezialitaterik garestieneko prezioa goiko mugan jarri du (%30eko aldaketarik egin barik), Aragoi, Gaztela Leon, Katalunia eta Madrileko erkidegoen ildotik (Valentziak soilik jo du aldatzeko aukerara, 47.06 eurorekin), eta merkeena 20,09 eurotan, Kanariak, Balearrak, Madril, Nafarroa, Gaztela Leon eta Andaluziaren azpitik.

II.1.34. Koadroa. Espezialitaterik garesti eta merkeenetako doktoregoan matrikulatutako kredituaren prezio publikoen indizea. Oinarria 2000-01=100

	2000-01		2001-02		2002-03		2003-04		2004-05		2005-06		2006-07	
	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena	Garestiena	Merkeena
Andaluzia	100,00	100,00	208,01	288,41	215,51	298,81	222,21	308,10	228,22	316,43	241,90	335,40	251,86	349,21
Aragoi	100,00	100,00	104,02	104,00	107,77	107,71	111,66	114,30	116,11	118,89	122,15	125,04	129,36	132,41
Asturias	100,00	100,00	104,00	104,00	108,17	108,14	110,85	112,49	117,56	117,55	122,26	122,26	127,77	127,77
Balearrak	100,00	100,00	105,19	105,20	109,43	112,16	114,37	117,20	119,27	124,32	124,04	129,31	129,51	135,02
Kanariak	100,00	100,00	106,49	106,49	110,75	110,75	116,46	116,46	123,05	123,05	130,43	130,43	138,11	138,11
Kantabria	100,00	100,00	104,00	106,59	107,76	110,41	111,10	113,83	114,10	116,90	118,10	120,98	122,72	125,70
Gaztela eta Leon	100,00	100,00	104,03	104,26	107,75	107,77	111,74	111,78	114,77	114,79	120,33	120,35	125,00	125,01
Gaztela Mantxa	100,00	100,00	103,78	104,19	107,61	107,92	111,51	111,84	114,48	114,91	118,62	118,97	123,20	123,58
Katalunia														
Irakaskuntza kredituak	100,00	100,00	104,51	104,43	109,42	109,33	114,59	114,47	119,29	119,16	125,20	125,13	131,50	131,37
Ikerkuntza kredituak	100,00	100,00	104,54	104,54	109,45	109,44	114,62	114,59	119,32	119,27	125,24	125,24	131,55	131,50
Extremadura	100,00	100,00	104,01	104,00	107,76	107,75	111,10	111,10	114,10	114,09	115,27	118,04	122,67	122,66
Galizia	100,00	100,00	103,98	103,98	108,15	108,16	112,49	112,50	116,83	116,99	121,67	121,68	127,76	127,75
Madril	100,00	100,00	106,00	106,01	110,87	110,85	115,42	115,42	120,62	120,63	124,85	124,87	130,95	130,97
Murtzia	100,00	100,00	104,00	104,01	107,74	107,72	111,09	111,05	114,09	114,08	118,06	118,04	122,80	122,78
Nafarroa	100,00	100,00	104,00	103,98	111,90	111,90	116,94	116,93	121,61	121,63	128,30	128,32	135,87	135,89
EAE	100,00	100,00	104,51	105,05	109,22	109,78	114,14	114,72	119,28	119,87	124,65	125,27	130,27	130,92
Errioxa	100,00	100,00	102,48	104,00	106,18	107,76	111,60	113,27	116,83	118,59	122,68	124,55	127,59	129,53
Valentzia	100,00	100,00	104,00	104,02	108,05	108,08	112,18	112,20	116,09	116,12	120,60	120,64	125,43	125,49
U.N.E.D.	100,00	100,00	104,00	104,01	109,19	109,19	114,65	114,67	118,09	118,09	123,41	123,42	128,95	129,00

Iturria. HZM.

Produkzio-egitura eta berrikuntza EAE-n

2.1. Produkzio-egitura

2.1.1. Enpresa-egitura eta enpresa-demografia

Eustaten Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendan jasotako azken datuen arabera EAEn 168.231 enpresa aktibo eta horienak diren 186.306 establezimendu daude (lehen sektorekoak ez dira kontuan hartu), 2005ean baino 4.773 establezimendu eta 4.145 enpresa gehiago.

Datu horiek esan nahi dute enpresa kopurua %2,5 hazi dela EAEn 2006an (fabrikak, dendak, bulegoak...), aurreko urtean baino bederatzi dezima gutxiago. Lanak, berriz, %3,1 egin du gora, 2005ean baino puntu bat gutxiago. Beraz, bataz besteko neurriak egonkor irauten du 5,2 lanpostutan enpresako.

Egoitza EAEn duten enpresen ehunekoa 2005ean %97,76 izatetik 2006an %97,71 izatera igaro da, beren egoitza soziala Estatuko beste eremuren batean duten enpresak hazi egin direlako (%5,12 hazi dira).

Sektoreka, enpresa gehien bitartekari finantzarioen sektorean sortu dira (%8,6), baita enpresei zerbitzuak emateko sektorean ere, %7,8 eta eraikuntzarenean, berriz, %7,3. Horren ondotik, %2,9 gutxitu dira ostalaritzako enpresak, %1,5 industriakoak eta %1 merkataritza eta konponketa sektorekoak. Hala ere, sektore guztietan laneskaintza gehiago izan da, industriaren sektorean izan ezik. Horrek 2004ko mailei eutsi die.

Lehen esan dugunez, 5,2 lanpostu dituzte bataz beste enpresek. Industria eta energiak eta enpresei zerbitzuak emateko enpresak (administrazioaz, hezkuntzaz, osasunaz eta gizarte zerbitzuez gain) dira bataz besteko neurri hori gainditzen duten sektoreak; hurrenez hurren, 15,8 eta 8,3 lanpostu izaten dituzte enpresako. Nortasun juridikoari begira, eta tamaina txikiko enpresak alde batera utzita, hau da, titularra pertsona fisiko bat duten enpresak alde batera utzita (bataz beste 1,4 pertsona dituzte enpresako), enpresaren bataz besteko neurria 10,9 pertsona da (11,1 aurreko urtean). Sozietate anonimoek 30,3 langile dituzte bataz beste (29,6 aurreko urtean), eta kooperatiek, berriz, 40,4 langile (39,9 aurreko ekitaldian).

Azterketa-unitate gisa establezimendua hartuta, kopurua %2,6 hazi dela ikus dezakegu, eta lana, berriz, %3,1 hazi dela. 186.306 establezimendu dago eta 880.002 lanpostu; establezimenduko, bataz beste, 4,7. Balio hori konstantea da azken urteetan. Establezimenduei eta lanari dagokionez gehien hazi diren sektoreak enpresei zerbitzuak ematekoak eta eraikuntza izan dira. Lehena %7,8 hazi da establezimendu kopuruari dagokionean, eta %7,4 lanari dagokionean. Bigarrena, berriz, %7,6 eta %4,3 hurrenez hurren.

Aurreko urteetan bezala, lan neurriaren araberako egitura ez da aldatu. 2.315 establezimenduk, guztien

%1,2k baino ez dute 50 langile edo gehiago; guztira, 334.031 lanpostu, guztiaren %38. Aitzitik, 138.702 establezimendu, guztiaren %74,4, ez da 3 lanpostura iristen, eta lan guztien %18,6 baino ez dute biltzen.

Establezimendu kopuru gehiago dago 17.921 establezimendu berrik hasi dutelako beren jarduera, aurreko urtean baino %12 gutxiago. Establezimendu berri horiek 38.662 pertsonei eman die lana (49.814ri aurreko ekital-

II.2.1. Koadroa. Enpresa kopuruaren eta lanaren eboluzioa EAEn jarduera adarreko eta pertsonalitate juridikoa kontuan hartuta

	Enpresa kopurua					Lana					Lana bataz beste				
	2004	2005	2006	04-05	05-06	2004	2005	2006	04-05	05-06	2004	2005	2006	04-05	05-06
Guztira	**158.709**	**164.086**	**168.231**	**3,4**	**2,5**	**820.043**	**853.835**	**880.002**	**4,1**	**3,1**	**5,2**	**5,2**	**5,2**	**0,0**	**0,5**
Industria eta energia	14.579	14.461	14.248	–0,8	–1,5	225.077	225.062	225.038	0,0	0,0	15,4	15,6	15,8	0,1	1,5
Eraikuntza	23.452	24.547	26.347	4,7	7,3	79.570	83.319	86.979	4,7	4,4	3,4	3,4	3,3	0,0	–2,7
Merkataritza eta konponketak	40.055	41.775	41.344	4,3	–1,0	126.360	132.627	137.843	5,0	3,9	3,2	3,2	3,3	0,0	5,0
Ostalaritza	14.003	13.884	13.476	–0,8	–2,9	42.257	44.526	44.968	5,4	1,0	3,0	3,2	3,3	0,2	4,1
Garraioak eta komunikazioa	13.791	13.909	13.966	0,9	0,4	46.940	48.063	49.684	2,4	3,4	3,4	3,5	3,6	0,1	3,0
Bitartekotza finantzarioa	2.402	2.433	2.643	1,3	8,6	21.745	21.815	21.908	0,3	0,4	9,1	9,0	8,3	–0,1	–7,6
Zerbitzuak enpresei	28.777	31.182	33.606	8,4	7,8	99.590	112.307	119.556	12,8	6,5	3,5	3,6	3,6	0,1	–1,2
Admin., hezkuntza, osasuna, gizarte zerb.	10.006	10.305	10.673	3,0	3,6	144.245	148.737	153.628	3,1	3,3	14,4	14,4	14,4	0,0	–0,3
Zerbitzuen beste jarduera batzuk	11.644	11.590	11.928	–0,5	2,9	34.259	37.379	40.398	9,1	8,1	2,9	3,2	3,4	0,3	5,0
Pertsona fisikoa	97.585	99.435	100.155	1,9	0,7	135.955	138.170	141.101	1,6	2,1	1,4	1,4	1,4	0,0	0,0
Sozietate anonimoa	9.395	9.380	9.111	–0,2	–2,9	269.294	278.069	276.478	3,3	–0,6	28,7	29,6	30,3	1,0	0,7
Sozietate mugatua	34.194	36.966	39.696	8,1	7,4	203.328	220.031	239.659	8,2	8,9	5,9	6,0	6,0	0,0	0,1
Beste sozietate eta elkarte batzuk	16.180	16.944	17.919	4,7	5,8	100.989	104.913	108.709	3,9	3,6	6,2	6,2	6,1	0,0	–0,1
Beste sozietate bat*	7.259	7.866	8.450	8,4	7,4	39.031	41.779	42.860	7,0	2,6	5,4	5,3	5,1	–0,1	–0,2
Ondasun erkidegoa	7.837	7.978	8.345	1,8	4,6	19.287	19.232	20.463	–0,3	6,4	2,5	2,4	2,5	–0,1	0,0
Sozietate kooperatiboa	1.084	1.100	1.124	1,5	2,2	42.671	43.902	45.386	2,9	3,4	39,4	39,9	40,4	0,5	0,5
Beste forma juridiko batzuk	1.355	1.361	1.350	0,4	–0,8	110.477	112.652	114.055	2,0	1,2	81,5	82,8	84,5	1,2	1,7
Toki entitatea	383	389	386	1,6	–0,8	22.295	23.574	24.222	5,7	2,7	58,2	60,6	62,8	2,4	2,1
Erak. auton. edo antzekoak. Inst. erlij.	914	913	905	–0,1	–0,9	24.168	24.482	24.189	1,3	–1,2	26,4	26,8	26,7	0,4	–0,1
Estat. eta Auton. Erkid. administ. erak.	58	59	59	1,7	0,0	64.014	64.596	65.644	0,9	1,6	1.103,7	1.094,8	1.112,6	–8,8	17,8

(*) Erregular kolektiboa, komanditarioa, elkartea, sozietate zibila edota definitu gabeko besteren bat.
Iturria: Eustat. DIRAE.

II.2.2. Koadroa. Establezimendu kopuruaren eta lanaren eboluzioa EAEn

	Establezimenduak				Lana				Lana bataz beste		
	2004	2005	2006	Var. %	2004	2005	2006	Var. %	2004	2005	2006
Guztira	175.412	181.533	186.306	2,6	820.043	853.835	880.002	3,1	4,7	4,7	4,7
Industria eta energia	15.120	15.004	14.768	–1,6	222.501	223.599	222.392	–0,5	14,7	14,9	15,1
Eraikuntza	23.990	25.133	27.039	7,6	79.819	83.459	87.062	4,3	3,3	3,3	3,2
Merk. eta ibilg. motord. konp.	45.972	48.098	47.911	–0,4	127.478	133.524	138.980	4,1	2,8	2,8	2,9
Ostalaritza	14.879	14.654	14.267	–2,6	42.495	44.484	45.611	2,5	2,9	3,0	3,2
Garraioa	14.906	15.067	15.154	0,6	47.013	48.180	49.851	3,5	3,2	3,2	3,3
Bitartekotza finantzarioa	4.409	4.454	4.714	5,8	21.016	20.729	20.960	1,1	4,8	4,7	4,4
Enpresei zerbitzu-ematea	30.061	32.619	35.166	7,8	100.684	112.525	120.808	7,4	3,3	3,4	3,4
Admin., Hezkuntz., Osasuna eta Gizarte Zerbtz.	13.141	13.571	14.015	3,3	143.863	148.575	152.773	2,8	10,9	10,9	10,9
Zerbitz. beste jarduera batzuk	12.934	12.933	13.272	2,6	35.174	38.760	41.565	7,2	2,7	3,0	3,1

Iturria: Eustat.

dian). 13.146 establezimendu itxi dira (aurreko urtean baino %7,8 establezimendu gutxiako), eta 32.918 pertsona geratu dira lanik gabe (2005ean baino %10,9 gutxiago). Horrela bada establezimendu berrien eta jarduera utzi dutenen arteko lanpostuen saldo garbia 5.774 pertsona dira. 2005ean beren jarduerari eutsi dioten establezimenduetan 20.459 lanpostu betetan hazi da lanpostu-kopurua, eta 26.203 lanpostu sortu dira. Establezimendu berrien (sarrerak) bataz besteko neurria, daudenak bataz beste dutena baino txikiagoa da (2,17 dagoeneko daudenak duten 4,7ren ondean), baita jarduerari utzi diotenena baino txikiagoa ere (2,5 pertsona establezimenduko).

Establezimenduen txandatze handiena banketxeen arloan, aseguruen eta enpresa-zerbitzuen arloan, eraikuntzaren arloan eta merkataritza eta konponketen arloan gertatzen da. Arlo horiek, guztira, establezimenduen alta-emateen %70,6 egiten dute eta baja-emateen %63,7, eta lanpostuen %66,4 biltzen dute. Bestalde, industriak establezimendu eta lanpostu kopuruan behera egin du.

Neurri txikieneko enpresak dituzte txandatze gehienak: 2 edo lanpostu gutxiago dituzten establezimenduek txandatze guztien %77,4 osatzen dute establezimenduei daogkienean, eta %20,4 lanpostuei dagokienean. Dena dela, beste behin ere aipatu behar da zer nolako dinamika

II.2.1. Grafikoa. Establezimenduetan lanak izandako eboluzioa lanpostu mailaren arabera



Iturria: Eustat.

II.2.3. KOADROA. LANA GEHITZEKO EKARPENA JARDUERA ADARREKO ETA LANPOSTU MAILAKO. TXANDATZEAK. 2005-2006 ARTEKO ALDAKETAK

	Establezimenduak					Lana				
	Gehitzeak, guztira	Ekarpena	Establezimenduak gehitzea			Gehitzeak guztira	Ekarpena	Lana gehitzea		
			sarreragatik	daudenak	irteeragatik			sarreragatik	daudenak	irteeragatik
Guztira, 2005ean	6.121	100.0	20.374	0	14.253	33.792	100	49.814	20.934	36.956
Guztira, 2006an	4.775	100,0	17.921	0	13.146	26.203	100,0	38.662	20.459	32.918
Aldaketa 2005-06 (%)	–22,0		–12,0		–7,8	–22,5	0,0	–22,4	–2,3	–10,9
Industria eta energia	–236	–4,9	616	–14	838	–1.207	–4,6	3.007	856	5.070
Eraikuntza	1.906	39,9	4.682	–2	2.774	3.603	13,8	8.832	471	5.700
Merkataritza eta konponketak	–186	–3,9	3.186	6	3.378	5.491	21,0	6.972	5.241	6.722
Ostalaritza	–387	–8,1	784	1	1.172	1.127	4,3	2.085	1.268	2.226
Garraioa eta komunikazioak	88	1,8	1.179	9	1.100	1.672	6,4	2.611	1.061	2.000
Bitartekotza finantzarioa	260	5,4	456	10	206	231	0,9	1.465	–647	587
Zerbitzu emateak enpresei	2.547	53,3	4.779	–10	2.222	8.283	31,6	8.682	4.226	4.625
Admin, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	444	9,3	1.305	–7	854	4.198	16,0	3.321	5.006	4.129
Zerbitzuen beste jard. batzuk	339	7,1	934	7	602	2.805	10,7	1.687	2.977	1.859
≤2	3.699	77,5	16.207	–1.173	11.335	5.347	20,4	18.929	–1.126	12.456
3-5	221	4,6	884	418	1.081	898	3,4	3.333	1.511	3.946
6-9	253	5,3	408	161	316	1.962	7,5	2.930	1.317	2.285
10-14	140	2,9	158	125	143	1.681	6,4	1.834	1.535	1.688
15-19	130	2,7	85	107	62	2.200	8,4	1.429	1.798	1.027
20-49	262	5,5	127	280	145	7.270	27,7	3.659	7.763	4.152
50-99	57	1,2	34	66	43	4.087	15,6	2.233	4.951	3.097
100-249	1	0,0	11	6	16	–960	–3,7	1.464	–99	2.325
250-499	17	0,4	6	15	4	5.650	21,6	2.060	4.875	1.285
≥ 500	–5	–0,1	1	–5	1	–1.932	–7,4	791	–2.066	657

Iturria: Eustat. DIRAE.

II.2.2. GRAFIKOA. EAEKO ESTABLEZIMENDUETAN LANAK IZAN DUEN EBOLUZIOA NEURRIAREN ARABERA



Iturria: Guk egindakoa Eustat "DIRAE"tik abiatuta

duten lanpostuak sortzeko, lehen aipatutakoek gain 20tik 49 arteko lanpostuak dituztenek (+7.270), 250 lanpostutik 499 lanpostura dituztenek (+5.650) eta 50tik 99 arteko lanpostuak dituztenek (+4.087), batez ere, irauten duten establezimenduetan lanpostu gehiago sortu direlako.

2.1.2. *Nekazaritza eta Arrantza Sektorea*

Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, 2006an, lehen sektorea EAEko prezio arrunten arabera BPGaren %0,87 baino ez da izan (2005ean baino lau ehunen gutxiago), eta lan guztiaren %2,7 (aurreko urteko ehuneko bera). Horrela bada, lehen sektorearen balio erantsia 541.797 mila euro da eta lanpostuak, berriz, 25.915 lanpostu.

2005 eta 2006 artean lehen sektorearen BPGa %1,3 hazi da, EAEn, eta lana, berriz, %0,8. Baina Gizarte Segurantzaren urte bukaerako afiliazio-datuek beherakada izan dela erakusten digute, %3,1 egin du behera, hain zuzen ere. Antzeko eboluzio hori izan du nekazaritza-sektoreak, afiliazioak %3,2 egin du behera eta Itsasoko Erregimen Bereziko afiliazioek, berriz, %2,9 egin dute behera.

Nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapena

Nekazaritza errenta nominala edo balio korronteetan (VAN). Nekazaritza errentaren balioa %4,1 hazi da modu nominalean 2005etik 2006ra (%2,7 2005ean). Hori, batez ere, ekoizpenak (%2,5) gora egin duelako gertatu da, nahi zeta prezioetan ere igoera gertatu den

II.2.3. Grafikoa. Gizarte segurantzara afiliatutakoak, bataz beste (urteko abenduan)



Iturria: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.

II.2.4. Grafikoa. Amaierako ekoizpenaren eta nekazaritzako errentaren eboluzioa



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

(%1,6). Nekazaritza-errenta 330,2 milioi eurotan ezarri da, 2002tik izan den zifrarik handienean.

Gehitze hori nekazaritzako amaierako ekoizpena handitu delako izan da (nekazaritzako, abeltzaintzakoa, baso-ekoizpena eta beste ekoizpen batzuk), baita erdiko kontsumoak gehitu direlako (%2,6 gasolioaren prezioa eta pentsuena igo delako), diru-laguntza gehiago izan delako (esne-hobaria ezarri den azken urtea izan delako eta erremolatxaren prezioari dagokionez ordainketa bakarra izan delako), eta amortizazioak handitu direlako ere.

Nekazaritza errenta balio errealetan (deflaktatua). Nekazaritza Errenta nominalak azken bi urteetan izan duen eboluzio baikor hori konparazioa Estatuko gainerakoekin eta EB-25ekoekin modu errealean (inflazioa kenduta) egiten dugunean ere antzematen da. Horrela bada, 2006an EAEko Nekazaritzako Errenta erreala (baso-sektorea sartu gabe) %0,8 hazi da. Estatuan, berriz, behera egin du errenta horrek %3,7 eta EB-25ean igoera txikiago aizan da (%0,4).

Behin deflaktatzailea aplikatuta, Nekazaritzako Amaierako Ekoizpena %0,6 txikitu da EAEn (Estatuan, berriz, %3,3 eta EB-25n ez da aldaketarik izan), erdiko kontsumoek %0,1 egin dut egora (EB-25n %0,8 eta Estatuan, berriz, %2,5 txikitu dira), eta diru-laguntzak %7 hazi dira, EB-25n %0,8 eta Estatuan %3,5 murriztu.

Nekazaritzako Amaierako Ekoizpenaren azpisektoreei dagokienez aldeak daudela esan behar da: nekazaritzakoa %2,5 txikitu da eta abeltzaintzakoak, berriz, gora egin du kopuru horretan.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta IKTren datuen arabera, Europar Batasuneko diru-laguntzak, 2006an, nekazaritza errenta guztiaren %20,5 izan dira. Estatuan, berriz, %27,7.

II.2.4. Koadroa. Nekazaritza errenta errealaren eboluzioa (deflaktatua) eta biztanleria okupatua

	2005			2006		
	EAE	Estatua	EB-25	EAE	Estatua	EB-25
Nekaz. errenta (erreala)	0,2	–12,7	–8,7	0,8	–3,7	0,4
Labor. bukaerako ekoizp.	–1,5	–8,6	–8,4	–0,6	–3,3	0
Nekaz. bukaerako ekoizp.	1,5	–12	–12,2	–2,5	–6,7	–0,1
Abeltz. bukaerako ekoizp.	–6	–1,6	–2,6	2,5	2,7	0,2
Erdiko kontsumoak	–4,5	–3,3	–1,6	0,1	–2,5	0,2
Diru-laguntzak	–3,1	–6,8	87,3	7	–3,6	0,8
Biztanleria okupatua	—	—	—	1,96	–4	–2,2
Nekaz. errenta langileko	—	—	—	–1,1	0,3	2,6

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Saila.

II.2.5. KOADROA. NEKAZARITZAKO TAMAINAK (MILIOI EURO)

	2005*	2006*	% aldaketa 2005-2006		
	Balioa	Balioa	Balioa	Ekoizp.	Prezioak
Nekazaritzako amaierako ekoizpena	**465,3**	**477,4**	**2,6**	**0,5**	**2,1**
Nekazaritz. amaierako ekoizp.	**249,5**	**249,2**	**–0,1**	**–0,3**	**0,2**
Zerealak	26,3	25,1	–4,6	–6,6	2,1
Lekadunak	2,2	3,3	50,0	37,1	–89,1
Patata	9	15,1	67,8	11,7	50,4
Erremolatxa	11,4	5,5	–51,8	–18,9	–40,2
Beste batzuk, industrialak	0,4	0,7	75,0	88,7	–5,7
Barazkiak	62,7	64,2	2,4	4,8	–1,9
Frutak	12	13,9	15,8	17,4	–0,8
Mahastiak	101	97,4	–3,6	–5,7	2,2
Beste batzuk	24,4	23,7	–2,9	4,2	–6,7
Abeltzaintz. Amaierako ekoizp.	**156,4**	**164,2**	**5,0**	**–1,7**	**6,8**
Animaliak/Behi-haragia	41,8	44,9	7,4	–3,7	11,6
An./ardi-ahuntz haragia	7,4	7,7	4,1	–0,2	5,5
Animaliak/Txerri-haragia	3,2	4	25,0	10,1	14,6
Behi-esnea	68,9	66,7	–3,2	–2,4	–0,8
Arrautzak	21,5	27	25,6	1,2	23,8
Beste batzuk	13,6	13,9	2,2	–0,4	2,5
Basoko amaierako ekoizpena	**48**	**52,4**	**9,2**	**12,4**	**–2,8**
Insignis pinuaren egurra	39,6	45,2	14,1	18,1	–3,3
Beste batzuk	8,4	7,2	–14,3	–14,6	0,8
Beste ekoizpen batzuk	**11,5**	**11,5**	**0,0**	**0**	**0,1**
ERDIKO KONTSUMOAK	**175,5**	**180,1**	**2,6**	**–1,5**	**4,2**
DIRU-LAGUNTZAK	61,9	67,8	9,5	4,9	4,5
AMORTIZAZIOAK	34,5	34,9	1,2	0,4	0,8
VAB pm	**289,8**	**297,3**	**2,6**	**1,8**	**0,8**
NEKAZARITZA ERRENTA (VAN)	**317,2**	**330,2**	**4,1**	**2,5**	**1,6**

***Aurrerapena.**
Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Saila.

EAEko nekazaritzako biztanle landunak %1,96 hazi dira 2005etik 2006ra. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak emandako datuek, oso bestelako egoera azaltzen dute Estaturako, hau da, biztaleria landuna %4 murriztu da, eta EB-25en kalkuluek, berriz, eremu horretan %2,2 murriztu dela adierazten digute.

Nekazaritzako Amaierako Ekoizpena (nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa, baso-sektorekoa eta beste ekoizpen batzuk). Nekazaritzako amaierako ekoizpenaren balioak gora egin du 477.4 milioi eurotan, hau da, %2,6 2006an, batez ere, abeltzaintzako eta baso-sektoreko ekoizpenaren balioa handitu egin delako. Bi azpi sektore horiek hazi egin dira balioari dagokionean, %5 eta %9,2 hurrenez hurren. Lehen kasuan, prezioak igo direlako (%6,8) izan da hanzkundea eta ez ekoizpena handitu delako (txikitu egin da %1,7). Bigarren kasuan, berriz, kontrakoa gertatu da, hau da, ekoizpena handitu %12,4 (*insignis* pinuaren egurraren ekoizpenean hazkundea izan delako) eta prezioak %2,8 murriztu.

Nekazaritza azpi sektorean ekoizpenaren balioa murriztu egin da pixka bat 2005ekoarekin alderatuta (%0,1), ekoizpena murriztu egin delako (%-0,3) prezioak %0,2 igo baitziren.

II.2.6 KOADROA. ZEREALEN ETA ERREMOLATXAREN EKOIZPENEAN ALDAKUNTZAK 2005-06

	Aldakuntzak, %					Milioi €
	Azalera	Etekina	Ekoizpena	Prezioa	Balioa	Ekoiz. amai. 06ko
Zerealak	**–0,7**	**–3,9**	**–6,6**	**2,1**	**–4,6**	**25**
Garia	–11,4	–4,6	–15,5	2,2	13,6	15
Garagarra	20,6	2,1	23,1	2,6	26,3	7
Oloa	4,2	–10	–6,2	0,4	–5,9	3
Artoa eta beste	–4,5	–8,3	–12,5	18,7	3,9	0,05
Erremolatxa	**–16,1**	**–3,3**	**–18,9**	**–40,2**	**–51,5**	**6**

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Nekazaritzako amaierako ekoizpena. Nekazaritzako produkzio anitzen artean (guztira 249,2 milioi euro egiten dute) zerealen ekoizpena murriztu egin da (%-6,6), baita erremolatxarena (%-18,9) eta mahastiena (%-5,7) ere. Gainerako laboreen ekoizpena, berriz, hazi egin da. Bestalde, zerealen eta mahastien prezioak igo egin dira, %2,1 eta %2,2 hurrenez hurren.

IKTren datuen arabera, zerealak (garia, garagarra, oloa, artoa eta beste batzuk) normal erein ziren eta garaiz hazi ziren, baina ereindako azalera txikiagoa izan zen 2006an 2005ean baino, %0,7 txikiagoa, alegia (hala ere, garagarra ereindako azalera %20,6 handitu zen). Horrek eta metereologiak biltzea pentsatzen zen uzta murriztu zuela jakinda, zerealen kanpaina ez da batere erregularra izan, eta Arabako hegoaldeko eremuetan nahiko eskasa izan da. Horrela bada, ekoizpen-balioa %4,6 murriztu da aurreko urtearekin alderatuta.

Erremolatxari buruz egin diren azken balioespenek etekinean %3,3ko galera izan dela adierazten digute, horri ereindako azaleran izan den %16,1eko galera gehitu behar zaio. Horrek esan nahi du, lehen aipatutakoari jarraiki, erremolatxaren ekoizpenean %18,9ko galera izan dela. Horrek eta erremolatxaren prezioak izan duen murrizketak, izan ere, zati bat ordainketa bakarrera[1], igaro da, ekoizpenaren balioa %51,5 erortzea eragin du.

Beste kontu batzuetara igaroz, Rioja Jatorri-Deitura (JD) Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileak dituen datuen arabera, JDren azpi eremuetan Arabar Errioxak baino ez du handitu mahats produkzioa urte honetan. Dena dela, 2006rako Rioja ardoaren[2] amaierako ekoizpenaren balioa 84,7 milioi euro da, hau da, 2005ean izan zen balioa baino %4,6 gutxiago. Hori 2006an merkaturatu den ardo kopurua 2005ean merkaturatu zen guztiarekin alderatuta murriztu egin delako gertatu da (%6,5 gutxiago) eta prezioa %2,1 hazi delako.

Abeltzaintzako amaierako ekoizpena. Abeltzaintzako amaierako ekoizpenerako ekonomikoki garrantzitsuak diren produkzio eta prezio aldeak hiru dira, batez ere: behi-esnea %2,4 gutxitu dela, arrautzen prezioa %24 handitu dela eta behi-haragiaren prezioa %12 hazi dela.

Beste urte batez esne-behi gutxiago dago, aurten %8 gutxiago (azken bost urtetan EAEko esne-behien erroldak %29 egin d ubehera), eta horregatik behi-esne gutxiago ekoitzi da, 2005ean baino %2,4 gutxiago. Horretaz gain, behi-esnearen prezioa %0,8 jaitsi da. Bi eragin horiengatik behi-esnearen ekoizpen-balioa murriztu egin da %3,2 aurreko urtearen ondoan.

Baso-sektoreko amaierako ekoizpena. 2006an baso-sektorearen ekoizpen-balioak zuen beheranzko joera hautsi egin da, izan ere, %9,2 handitu da eta 52,4 milioi eurora iritsi da. Hori gehiago ekoitzi delako gertatu da, ezen prezioek behera egiten jarraitzen baitute Asiako eta Txileko egurra sartzen ari delako. Arbolak botatzeko baimen gehiago izan da, aurreko urtean baino %71 gehiago, eta guztira 1,5 milioi moztu dira; horietatik %95,7 mendi pribatuetan.

Arrantza

Arrantza sektoreko ekoizpen balioak behera egin du 2005etik 2006ra %15 modu nominalean. Zati batean gasolioaren prezioak izan duen igoerak eragin du hori, izan ere, sektore horren errentagarritasunari eragiten dio zuzenean. Kostu horri unitate produktiboak etengabe murrizten ari dela ere gehitu behar zaio, eta horiek maila absolutuan produkzio gutxiago dakarte.

Euskadiko arrantza sektorearen egitura produktiboak azken hamarkada honetan guztian duen beheranzko bidearekin jarraitzen du.

2006. urtea 300 ontzi izanda itxi da. Txikitze garbia %6,25 izan da 2006an, eta ateratzeko 20 unitate gutxiago izan dira (13 baxurakoak eta zortzi altura handikoak: 6 freskoen alturakoak eta 2 bakailao-ontziak). Atun-ontzi izozgailuak dira unitate bat irabazi duten bakarrak (23tik 24ra).

Ontzi kopuru gutxiago izateak lan kopuruan ere izan du eragina. Horrela bada, 2005ean baino 182 tripulatzaile gutxiago izan dira. Horrek, %5,9 murriztu dela esan nahi du, eta Euskadiko arrantza-flotaren tripulatzaile gisa 2.902 langile daude.

[1] Ustiategiko ordainketa bakarrak —Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) azken erreformak ezarri du— ordezkatu egiten du, zati batean edo osoan, nekazariek azalera unitateko edo ganaduko jasotzen zituzten diru-laguntzak. Ordainketa ez egokitua da, hau da, ekoizpenetik bereizia dagoena, eta kopurua ezartzeko nekazari bakoitzak jasotzen dituen laguntzak edo dituen erreferentzia historikoak hartzen dira kontuan. Hauek dira ordainketa bakarraren erregimeneko zati diren laguntza-erregimenak: labore belarkarak, behi-haragia, esnea, ardia eta ahuntza, lekadun aleak, oliba olioa, arroza, bazka onduak, tabakoa, kotoia, lupulua, patata fekula eta azukrea.

[2] Urte bateko arduaren produkzioa hurrengo urtean bihurtzen da ardo merkaturatua, eta 2005eko ardo-uztari buruzko lehenengo kalkuluek adierazi zuten gutxitu egin zirela zertxobait 2004ko ekoizpenak izandako emaitza onak.

II.2.7. Koadroa. Arbolak mozteko baimenak, 2006an

	Mendi publikoak	Mendi partikularrak	Guztira
Koniferoak	52.344	1.008.854	1.061.198
Pinu gorria	0	2.297	2.297
Larizio pinua	2.865	13.193	16.058
Pinaster pinua	0	24.300	24.300
Radiata pinua	47.580	949.897	997.477
Beste konifero b.	1.899	19.167	21.066
Hostozabalak	9.827	393.753	403.580
Makala	0	2.842	2.842
Eukaliptoa	8.542	62.427	70.969
Kerzineak	0	1.963	1.963
Beste batzuk	1.285	326.521	327.806
Egurra guztira	62.171	1.402.607	1.464.778

Iturria: IKT. Mendi publikoen baimenak falta dira (2006) eta Arabako mendi partikularren baimenak (4. hiruhilekoa).

II.2.5. Grafikoa. Baso-sektoreko amaierako ekoizpenaren balioa (milioi euro)



Iturria: IKT.

Baxurako flotalotak 150 erregistro gordineko tona baino gutxiago duten ontziek osatzen dute, eta EGTa batez beste 62,26 tona da. Arrantza itsasertzetik gertu egiten duten ontziak dira, eta arrantza egiteko beste modu batzuen artean honako hauek erabiltzen dituzte:

- *Arte xeheak* (izen hori arte horiek beste modalitateekin alderatuta dituzten neurri txikiengatik hartzen dute). Arte xeheak erabiltzen dituzten ontziek luzera eta potentzia txikiak dituzte. Horien artetik nabarmendu mailasare arteak, mailabakar eta tresmailak, adibidez, tranpa-sareak, otarrea keta alkatruzeak, adibidez, eta amu-arteak, palangrilloak eta korainak, adibidez.
- *Kazako arrantza*, berdela eta atunak arrantzatzeko,
- *Inguraketa arrantza* (arrain-sarda handietan igeri egiten duten espezieak harrapatzeko erabiltzen da arte mota hau, arrainak inguratzen dituen biribil handi batean edukitzen dira eta biribila txikitu egiten dute. Sareak arlinga flotatzaileak ditu goi aldean eta berunezkoak behe aldean, eta horren bidez mataza ixten da beheko partean *jatea* deitzen den soka bati tiraka), pelagiko txikiak arrantzatzeko, adibidez antxoa. Eta azkenik,
- *beita bizia*, atunak arrantzatzeko.

II.2.6. Grafikoa. EAEko arrantza-flotaren eboluzioa



Iturria: SEAS. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

GRÁFICO II.2.7. EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE TRIPULANTES DE LA FLOTA PESQUERA DE LA C.A.E.



Fuente: SEAS. Dpto. Agricultura, Pesca y Alimentación. Gobierno Vasco.

Ontzi gehien dituen sektorea da, 231 ontzi (flotaren %77). Baina 2005etik %5,33 gutxitu da ontzi kopurua. Tripulatzaile kopuru handiena ere hemen dago, 1.655 pertsona (tripulazio guztiaren %57). Lana %4,61 gutxitu da aurreko urtearekiko.

Alturako flotak 2006an 69 ontzi izan ditu (%9,21 gutxitu dira aurreko urtearekiko) eta 1.247 tripulatzaile (2005ean baino %7,56 gutxiago). Lau azpi sektore tradizional izan ditu, baina, 2003tik ez dago arraste-ontzi izozgailurik EAEn. Bakailao-ontzien kasuan, gaur egun 6 ontzi daude eta Pasaia dut ekai-basea (2 ontzi eta 54 tripulatzaile galdu ditu). 24 atun-ontzi izozgailu dago (ontzi 1 eta 33 tripulatzaile irabazi ditu) eta Bizkaian dute basea, zehazkiago esatearren, Bermeon. Azkenik, freskoen alturan 39 ontzi aritzen dira (6 ontzi eta 81 tripulatzaile gutxiago) eta, batez ere, Ondarroa eta Pasaia dituzte base.

Euskadiko portuetan baxurako arrantzan 41.895,4 tona arrain arrantzatu da, 2006an, 2005ean baino %18,5 gutxiago. Urte horretan 51.429,6 tona arrain jarri zen enkantean. 2006an 78,1 milioi euro bildu da. 2005ean, berriz, 80,3 milioi euro. Horren diru-sarrerak %2,8 murriztu direla esan nahi du. Baxurako sektoreak harrapatu duen arraina kiloko 1,9 eurotan saldu da, 2005ean baino %19,4 gehiagoan, izan ere, urte hartan kiloa 1,6 eurotan saldu zen. 2006a, baxurako azpisektorearentzat ezin okerrago aizan da antxoaren kanpainari

II.2.8. GRAFIKOA. LEHORRERATUTAKO BAXURAKO HARRAPAKETEN KOPURUA ETA BALIOA



Iturria: SEAS. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

dagokionez. Puntu baikor gisa, aipatu, hegaluzeak arrantza-aldi bikaina izan duela.

Prezioen eboluzioak 2003an %20ko igoera izan zela adierazten digute, Prestigeren hondamendiagatik askoz ere gutxiago arrantzatu baitzen. 2004an %5,3 hazi ziren prezioak, baina 2005ean batez besteko prezioak %21 egin zuen behera atun, hegaluze eta berdel gutxiago ha-

II.2.9. Grafikoa. Lehorreratutako arrantzaren batez besteko prezioa, 2006



Iturria: SEAS. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

II.2.8. Koadroa. EAE-ko portuetan baxurako flotak lehorreratu duen arrantza

	2004			2005			2006				% aldak. 2005-2006		
	Q	V	P	Q	V	P	Q	V	%	P	Q	V	P
Antxoa	6.620	26,2	4,0	165	0,9	5,7	781	8,8	11,3	11,3	374,0	834,9	97,4
Atuna	1.472	5,7	3,9	2.860	8,7	3,0	937	4,3	5,6	4,6	–67,2	–50,1	52,3
Hegaluzea	8.261	23,7	2,9	10.553	29,6	2,8	14.128	32,6	41,7	2,3	33,9	10,1	–17,5
Txitxarroa	4.728	3,6	0,8	4.545	3,3	0,7	2.464	2,0	2,6	0,8	–45,8	–40,2	9,5
Berdela	13.186	5,0	0,4	19.407	6,8	0,4	12.613	6,2	8,0	0,5	–35,0	–8,3	40,0
Legatza*	3.661	14,9	4,1	3.413	14,5	4,2	2.448	11,1	14,2	4,5	–28,3	–23,8	6,2
Bisigua	5	0,1	22,4	4	0,1	19,2	0	0,0	0,0	17,1	–95,8	–96,2	–10,7
Gainerako espez.	10.475	16,4	1,6	10.483	16,4	1,6	8.525	13,0	16,7	1,5	–18,7	–20,3	–2,0
Guztira	48.407	95,7	2,0	51.430	80,3	1,6	41.895	78,1	100,0	1,9	–18,5	–2,8	19,3

Q: TM kopurua; V: balioa milioi €; P: prezioa €
(*) tarteko legatz eta merlenkak barne.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

rrapatu zelako. 2006an, berriz, prezioek %19,4 egin dute gora eta 2004ko balioetatik gertu kokatu dira.

Prezio igoera handiena atunak eta berdelak izan dute. Lehena kiloko 4,6 eurotan saldu da (aurreko urtean baino %52,3 garestiago), eta berdela, berriz, kiloko 0,49 eurotan (%40 handitu du balioa 2005ekiko). Hegaluzearen prezioa, berriz, jaitsi egin da arrantza-aldi handia izan duelako, eta aurreko urteko prezioarekin alderatuta %17,5 jaitsi da; horrela bada, prezioa 2,31 euro/kiloko izan du. Bisiguaren prezioak ere behera egin du 2005ekoarekin alderatuta; prezioa 17,13 euro/kiloko izan du, eta, beraz, %10,65 merkeago saldu da. Azkenik, txitxarroaren prezioak gora egin du %9,46 eta kiloko 0,81 eurotan saldu da, eta legatzaren prezioa, berriz, 4,51 euro/kiloko izan da eta %6,23 igo da. Igoera horiek gainerako espeziek izan duten beherakada orekatzen lagundu dute hein batean.

2007rako urteko harrapaketa-kopurua (TAC) jaitsi egin da Estatu osoan %8,68. Jaitsiera neurritsuagoa da 2005ean eta 2006an izan zena baino, epe horretan %35 izan baitzen. Kontuan izan behar da 2005ean %40 hazi zirela. Jaitsiera handiena Bizkaiko Golkoko atxoaren kasuan dugu. Euskal arrantzaleek azken bi arrantza-aldi txarrak kontuan hartuta, 0 tasa eskatu zuten, eta EBk tasa

II.2.9. KOADROA. EUROPAKO BATZORDEAK ESPAINIARI ESLEITUTAKO ARRANTZA KUOTAK (TAC) (TONAK)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2001-05	2005-06	2006-07
Atlantikoko bakailaoa. I, II *	8.952	8.952	8.951	11.025	10.683	10.364	9.294	19,34	–3	–10,32
Abadira	1.640	903	729	1.045	899	835	835	–45,18	–7,1	0,00
Fletan beltza (NAFO)	10.964	10.964	11.512	5.482	5.218	5.080	4.402,5	–52,41	–2,6	–13,34
Sakoneko krabarroka	2.068	3.713	2.240	2.259	3.326	3.113	2.848	60,83	–5,8	–8,51
Liba. VIII	2.240	2.240	2.240	1.800	1.440	1.440	1.440	–35,71	0	0,00
Legatza VI,VII,XII,XIV	4.100	4.456	4.959	6.463	7.042	7.257	8.708	71,76	3,1	19,99
Legatza VIIIa,b,d,e	2.179	3.103	3.452	4.499	4.902	5.052	6.062	124,97	3,1	19,99
Legatza VIIIc,IX,X, COPACE	5.690	5.119	4.480	3.807	3.819	4.263	3.922	–32,88	11,6	–8,00
Mihi-arraina	770	762	611	580	467	467	468	–39,35	0	0,21
Zapoa	6.950	5.610	4.578	3.690	3.662	3.917	4.064	–47,31	7	3,75
Oilarra VIIIa,b,d,e	1.000	858	921	1.163	1.238	1.176	1.176	23,80	–5	0,00
Oilarra VIIIc,IX,X,COPACE	4.620	3.692	2.215	1.233	1.233	1.171	1.330	–73,31	–5	13,58
Oilarra, gainerakoa	5.000	4.500	4.796	5.839	6.106	5.817	5.817	22,12	–4,7	0,00
Platuxa leuna	95	93	75	75	75	75	75	–21,05	0	0,00
Zigala	2.395	1.828	1.593	1.582	1.676	1.830	2.043	–30,02	9,2	11,64
Antxoa VIII	29.700	29.700	29.700	29.700	27.000	4.500	0	–9,09	–83,3	–100,00
Antxoa IX,X, COPACE	4.780	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	–19,96	0	0,00
Hegalaburra (Atlantiko E.-Mediterraneoa)	6.365	6.365	6.384	6.317	6.277	6.266	3.133	–1,38	–0,2	–50,00
Ezpata-arraina	10.046	10.046	11.229	11.171	13.137	10.988	12.002	30,77	–16,4	9,23
Bakalada	79.910	44.166	44.166	86.203	195.030	91.328	74.073	144,06	–53,2	–18,89
Sardinzarra	80	80	41	82	89	70	79	11,25	–21,3	12,86
Txitxarroa	61.660	47.095	44.062	44.249	44.382	44.263	44.289	–28,02	–0,3	0,06
Berdela	33.140	33.894	28.866	26.645	20.520	21.594	24.425	–38,08	5,2	13,11
GUZTIRA	284.344	231.965	221.626	258.735	362.047	234.692	214.312	27,33	–35,2	–8,68

Iturria: Europako Batzordea.

hori onartu badu ere, izaera esperimentaleko arrantza ahalbidetu du. Hegalaburraren tasak ere %50 egin du behera, eta honako espezi hauetan ere jaitsierak izan dira: bakalada –%18,89, fletan beltza –%13,34 eta Atlantikoko bakailaoa –%10,32. Bestalde, Bizkaiko Golkoko eta iparraldeko legatzaren tasek izandako igoerak nabarmendu behar dira (%19,99), baita Atlantikoko erdi ekialdeko oilarraren (%13,58), berdelaren (%13,11), sardinzarraren (%12,86) eta zigalaren (%11,64) tasa-igoerak ere.

2.1.3. Industria

Hiruhileko Ekonomia Kontuen behin-behineko datuen arabera, industria sektorea EAEko balio erantsi gordin osoaren %29,4 izan da, 2006an, 2005ean baino bi hamarren gehiago, eta enplegu guztiaren %25,4 da (2005ean baino zazpi hamarren gutxiago).

Era berean, datu horiei jarraiki, aipatu 2005ean izan zen susperraldia eta gero, 2006an ekoizpenaren hazkuntza-tasak ahuldu egin direla urteak aurrera egin ahala. Beste era batera esateko, industria ekoizpenaren hazkuntza geldotu egin da.

Edonola ere, industriako BPGa, 2006an, aurreko urtean baino 4 hamarren handiagoa da. %4,8ra iritsi da, eta guztira, 16.174 milioi euro dira.

Bestalde, sektore horretako lan-zifrei dagokienez (247.505 lanpostu Hiruhileko Ekonomia Kontuen arabera), lanpostuak %0,6 jaitsi direla adierazten diute urteko batez besteko moduan (1.483 lanpostu gutxiago). 2005ean, berriz, %0,9 erori zen lanpostu-kopurua. Ondorioz, aurreko urtean industria sektorean izandako lan gutxitzeak, azken hamarkada honetan lehen aldiz, joera horri eutsi dio nahiz eta neurri txikiagoan. Horregatik, sektoreko produktibiatea %5,4 izan da batez beste, urte horretan (aurreko urtekoa baino hamarren bat gehiago).

Industria-produkzioaren Indizeak (IPI) urteko batez bestekoa gisa %4,2 egin du gora EAE guztia hartuta, 2005ean baino lau hamarren gehiago. Datuek adierazten digute Gipuzkoan hobetze garrantzitsua izan dela, izan ere, IPIa %5,4 hazi da (2005ean baino 1,4 puntu gehiago). Bizkaia ere nabarmentzekoa da, indize hori %4,3 hazi baita (aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago, dena den). Aranban izan da hazkunderik txikiena, %1,7, eta, gainera jaitsi egin da aurreko urtearekin alderatuta, %3,2 izan baitzen.

Behin-behineko datuen arabera, indize horren aurrerakada handiagoa da EAEn Estatuan eta EBn baino. Egutegi eraginetatik zuzendutako Industria-produkzioaren Indizea %3,8 hazi da Estatuan eta %5,4 EAEn, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) datuen arabera. EB-25eko ki-

II.2.10. Grafikoa. Adierazle nagusienen eboluzioa, industrian. Zuzendutako datuak



Iturria: Hiruhileko Ekonomia Kontuak. 2006ko behin-behineko datuak.

deentzat, berriz, %0,9 hazi da urteko batez bestekoa (%1,1 EB-12an), Eurostaten datuen arabera.

Beste urte betez, hobekuntzari ekipo-ondasunek eman diote bultzada; izan ere, urteko batez besteko hazkude-tasak finkatzen jarraitzen dute: %3,9 2004an, %7,4 2005ean eta %8,5 2006an. Energiak ere tasa handi adu, %5,1 baina aurreko urtean baino txikiagoa, orduan %8,5 izan baitzuen, eta oso urrun geratu da 2004ko hazkunde.-ehunekotik, %15,9 izan baitzuen. Erdiko ondasunek haskunde neurritsua dute, baina, aurreko urtean baino handixeagoa: %2,5 2006an eta %1,6 2005ean. Azkenik, kontsumo ondasunei dagokienean, aurreko urtean indizeak %1,5 egin bazuen gora, aurten %1,3 jaitsi da. Datuek irauteko kontsumo ondasunen eta irauten ez duten kontsumo ondasunen artean desberdintasunak daudela adierazten digute: lehenak %0,3ko igoera-tasa izan dute, eta bigarrenak, berriz, %2,1 jaitsi dira.

IPIren sektore-azterketa eginda (datu gordinak kontuan hartuta) EAErako hiru industria-sektore nagusienak, metalurgia, makinariak eta garraiorako materialak, goraka hasi direla ikus daiteke aurreko urtean izandako jaitsieraren ondoren. Metalurgia-sektorearen indizeak %5,4 egin du gora, 2005ean baino 3,9 puntu gehiago. Makina-sektorea %4,4 hazi da 2006an, aurreko urtean baino 1,4 puntu gehiago eta garraiorako materialen sektorea %7,3 hazi da urteko batez besteko gisa, hau da, 2005ean izandako hazkuntza ia bikoiztu egin du.

II.2.10. Koadroa. Lurralde historikoari eta ondasunen xede ekonomikoari begira IPI-k izan duen eboluzioa (Urteko batez besteko gehitzea)

	Guztira, EAE	Lurralde historikoak			Ondasunen xede ekonomikoa					
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Kontsumo ondasunak		Ekipo ondasunak	Erdiko ondasunak	Energia
						Irautekoa	Ez irautekoa			
2002	**–1,2**	1,2	–2,7	–1,1	2,5	3	2,2	–4,7	–0,1	–3
2003	**2**	2,6	2,3	1,4	–1,2	–5	0,9	1,1	0,7	14
2004	**3,2**	6,3	2	2,7	–0,8	–3,4	0,5	3,9	1,8	15,9
2005	**4**	3,2	4	4,4	1,5	0,8	1,8	7,4	1,6	8,5
2006 p	**4,2**	1,7	5,4	4,3	–1,3	0,3	–2,1	8,5	2,5	5,1

Produkzioaren egutegi eraginetik jasotako datuak. Behin-behinekoak.
Iturria: Eustat. IPI. (2007ko martxoa).

II.2.11. KOADROA. IPI-A JARDUERA SEKTOREKO (URTEKO BATEZ BESTEKO GEHITZEA)

	2002	2003	2004	2005	2006 p
4. Mineral metalikoak eta ez metalikoak	2,9	6	–11,8	–3,5	6,3
5. Elikaduraren industria	6,6	5,7	–0,6	–0,2	–4,8
6. Ehungintza eta jantzigintza	–3,9	–1,3	–3	–10,2	–9,7
7. Larruaren eta oinetakoen industria	–0,9	–22,6	–14	–14,5	–19
8. Egurgintza	4,5	1,1	0,1	–3,7	5,4
9. Papergintza, argitalpenak eta grafikak	–1,4	–3,5	1,9	5,8	–1,2
10. Petrolio finketa	–14,2	22,2	7	–5,9	2,2
11. Industria kimikoak	6	3	–0,5	0,5	4,3
12. Kautxua eta plastikoak	–1,1	6	5,2	0	–0,7
13. Industria ez metalikoa	1,2	–2,1	–10,4	–2,9	–1,4
14. Metalurgia eta gai metalikoak	–2	1,2	2,1	1,5	5,4
15. Makinak	–4,4	0,6	6,2	3,2	4,4
16. Material elektrikoa	–7,2	–2,1	5,2	10,3	9,5
17. Garraio-materiala	4,7	0	5,2	3,8	7,3
18. Beste manufaktura-industria batzuk	1,4	–3,6	–6,8	–0,3	3
19. Energia elektrikoa, gasa eta ura	2,2	11,2	20,7	11,1	6,7

p. behin-behinekoak.
Iturria: Eustat, IPI (2007ko martxoa).

Gainerako sektoreetan, nabarmentzen jarraitzen dute energia elektrikoaren, gasaren eta uraren sektoreko tasa handiek, nahiz eta 2005ekoak baino txikiagoak izan diren (%6,7 aurten eta %11 2005ean), eta material elektrikoaren tasek (%9,5). Horiei, urte honetan mineral metalikoen eta ez metalikoen sektorea (%6,3), egurraren industria (%5,4), industria kimikoa (%4,3) eta petrolio finketa (%2,2) sektoreak gehitu ahal dizkiegu. Gainerako sektoreen indizeek behera egin dute.

Ondasun industrialen prezioak, 2005ean %5,2 hazi ziren, eta 2006an ere hazi egin dira, baina gutxixeago, %4,9 batez beste (Eustateko Industria Prezioen indizearen datuak dira). Osagai energetikoak markatu du igoera hori, bereziki (urte honetan %11,9 hazi da), nahiz eta au-

II.2.12. KOADROA. IPRI-A ONDASUNEN XEDE EKONOMIKOARI ETA JARDUERA SEKTOREARI BEGIRA (URTEKO BATEZ BESTEKO GEHITZEA)

	2002	2003	2004	2005	2006 p
Indize orokorra	**0,3**	**1,9**	**4,3**	**5,2**	**4,9**
Ondasunen xede ekonomikoa					
Kontsumo-ondasunak	2,2	1,6	1,9	1,7	2,7
Irauteko kontsumo-ondasunak	1,1	0,3	0,9	2,2	0,7
Irauten ez duten kontsumo-ondasunak	2,7	2,7	2,4	1,5	3,7
Ekipo-ondasunak	0,7	3,4	1	1,8	0,9
Erdiko-ondasunak	0,9	1,8	6,8	5,2	5,6
Energia	–4	0	5,5	17	11,9
Jarduera-sektoreak					
Ateratzeko industriak (mineral metalikoak eta ez metalikoak)	1,5	4,4	9,5	11,5	1,9
Manufaktura-industriak	0,7	2	4,6	5,3	4,3
Elikadura	2,9	2,6	3,1	1,1	3,5
Ehungintza eta jantzigintza	4,3	–1,6	0,5	2,8	5,1
Larruaren eta oinetakoen industria	0,4	0,1	–4,8	–1	3,1
Egurgintza	0	–1,2	0,3	0,1	0,9
Papergintza, argitalpenak eta grafikak	0,7	3	–0,3	0,3	3,8
Petrolio finketa	–4	1,8	9,6	23,7	8,7
Industria kimikoak	–0,2	0,8	2,7	4,4	3
Kautxua eta plastikoak	0,6	2,5	1	1,7	3,3
Industria ez metalikoa	2,6	2	1,4	2,4	3
Metalurgia eta gai metalikoak	1	2,8	10,7	6,9	7,3
Makinak	0,9	4,1	0,1	2,9	2,8
Material elektrikoa	0,9	0,1	0,7	0,5	0,1
Garraio-materiala	0,4	1,4	0,3	0,5	–2,7
Beste manufaktura-industria batzuk	2,2	0	2,5	3,8	1,5
Energia elektrikoa, gasa eta ura	–4,1	–3,9	–2	3,4	19,8

p behin-behinekoak Oinarria 2000.
Iturria: Eustat. IPRI (martxoaren 27a).

II.2.13. KOADROA. INDUSTRIA SEKTOREAREN GARRANTZIA, SEKTOREKA

	% banaketa (industria = 100)					Inberts. /lana	Emaitz. /lana	BEG		Lana		Inbertsioa		Emaitzak zergak ordaindu ondoren	
	BEG	Lana	Inberts.	Salmenta garbiak	Emaitz. zerg.ord. ondoren			%ko aldak. 01-05	%ko aldak. 04-05	%ko aldak. 01-05	%ko aldak. 04-05	%ko aldak. 01-05	%ko aldak. 04-05	%ko aldak. 01-05	%ko aldak. 04-05
	2005	2005	2005	2005	2005	2005	2005								
GUZTIRA INDUSTRIA	15.701.676 100,00	245.573 101,68	2.763.023 100,00	48.205.587 100,00	3.837.609 100,00	11,3 —	15,6 —	27,61 —	17,43 —	0,98 —	–2,23 —	–12,80 —	9,82 —	36,70 —	17,82 —
4. Min. Metalik. eta ez metalik.	0,74	0,32	0,70	0,45	1,62	24,81	79,24	82,32	–12,61	–8,41	–13,56	52,15	1,07	17,82	–17,78
5. Elikaduraren industria	6,10	6,84	14,01	6,98	6,68	23,03	15,25	47,93	28,97	6,20	3,10	140,55	56,27	42,08	–12,30
6. Ehungintza eta jantzigintza	0,56	1,43	0,33	0,45	0,64	2,59	7,00	7,40	–1,40	–8,00	–1,01	–41,09	–20,60	–26,15	–5,62
7. Larruaren eta oinetak. ind.	0,03	0,11	–0,01	0,05	–0,11	–1,07	–15,41	–58,07	–53,89	–38,20	–28,20	–52,81	–231,84	–332,55	–376,75
8. Egurgintza	1,60	2,71	1,59	1,54	1,01	6,60	5,85	13,72	7,27	–1,16	3,03	–9,94	1,66	–42,19	4,58
9. Papergintza, argit. eta graf.	4,88	5,86	4,36	4,03	3,84	8,37	10,24	15,36	3,83	3,84	–1,52	–52,43	–32,58	–29,72	–25,58
10. Petrolio finketa	3,41	0,39	2,99	9,12	8,39	86,97	338,76	42,33	204,21	21,64	9,20	68,70	100,57	84,18	47,94
11. Industria kimikoak	3,63	2,50	3,81	4,19	5,26	17,10	32,84	24,18	6,79	–2,86	1,49	29,98	4,46	42,40	5,56
12. Kautxua eta plastikoak	7,19	7,72	5,05	6,09	6,69	7,35	13,54	33,59	19,72	8,38	2,86	9,40	–0,82	60,75	23,12
13. Industria ez metalikoa	3,70	3,17	3,15	3,02	5,54	11,16	27,26	26,06	5,72	–3,24	–1,14	–36,68	–3,31	–1,28	33,07
14. Metalurg. eta gai metalik.	29,78	34,95	29,75	29,32	21,57	9,58	9,64	22,14	16,41	5,07	–0,99	–10,72	21,30	119,93	–2,81
15. Makinak	11,39	13,45	8,06	10,82	8,38	6,74	9,73	17,52	10,03	2,15	–0,43	–11,27	13,94	6,21	23,10
16. Material elektrikoak	6,09	7,57	3,03	4,91	6,25	4,51	12,90	12,71	9,12	–2,71	0,15	–45,54	2,01	–4,52	7,68
17. Garraio-materiala	8,21	8,41	5,61	9,02	5,82	7,50	10,81	20,25	3,95	0,80	–3,84	–71,14	–29,53	–30,45	22,59
18. Beste manufak.-ind. batzuk	2,97	4,55	1,93	2,47	2,33	4,78	8,00	11,92	–2,27	–3,18	–6,41	–17,89	36,75	–30,30	–3,45
19. Energia elek., gasa eta ura	9,72	1,68	15,65	7,55	16,09	104,85	149,76	94,44	54,82	8,02	6,73	21,49	0,84	223,72	98,28

Iturria: Eustat.

rreko urteko tasarekiko dezelerazioa gertatu den, %17 izan baitzen. Erdiko ondasunen prezioaren tasa %5,6 hazi da batez beste, kontsumo ondasunak %2,7 eta ekipo-ondasunen prezioak %0,9 hazi dira.

Sektoreka, EAEko hiru industria-sektoren nagusienen IPRIek desberdintasunak ageri dituzte. Industria metalurgikoaren IPRIak goranzko joera izaten jarraitzen du, izan ere, batez besteko hazkundea %6,9 izatetik %7,3 izatera igaro da 2005etik 2006ra. Makinen idustriak hazi egin da gaina gutxiago %2,9tik %2,8ra, eta garraio-materialen sektoreak behera egindu %2,7.

INEren behin-behineko datuen arabera, indize horren aurrerapena handiagoa da EAEn Estatuan baino. IPRIa %3,6 hazi da Estatuan eta %4,3 EAEn.

Eustaten Industria-inkestaren azken datuen arabera (2005ekoa da) metalurgia eta gai metalikoen sektorea, makina eta garraio-materialen sektoreak gure ekonomian gako izaten jarraitzen dute produkzioari eta lanari dagokionean. Industriaren Balio Erantsi Gordinaren (BEG) %49,4 dira eta enpleguaren %56,8 biltzen dute. Baina 2005ean (2004an bezalaxe) aktiboenak, balio erantsia hazi dutelako, petrolio finketa(%204,2 hazi da), energia elektrikoa, gasa eta ura(%54,8), elikadura (%29) eta metalurgia(%16,4) sektoreak izan dira.

Kautxuak eta plastikoak (%19,8), makinak (%10), material elektrikoak (%9,1), egurraren industriak (%7,3), industria kimikoak eta garraio-materialek oraindik ere gahitze positiboak izan dituzte. Baina hainbat sektorek atzerakada izan dute balio erantsi arruntari dagokionez: larruaren eta oinetakoen industriak, mineral metalikoek eta ez metalikoek eta ehungintzak eta jantzigintzak.

Orotara, 2004 eta 2005 artean, industria sektoreko balio erantsiak %17,4ko hazkunde tasa nominala izan du, baina lana %2,2 gutxitu da. Inbertsioa, berriz, aurreko urtearekin alderatuta, hazi egin da %9,8 (aurreko ekitaldian %7,4 gutxitu zen).

Eduki teknologikoari dagokionez, eta Ekonomia Lankideta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) egiten duen sailkapenari jarraiki, hori baita Eustatek erabiltzen duena, maila teknologiko handian daude sartuta, aireontziak eta espazio-ontziak, famazia-produktuak, bulego-makinak eta ekipo informatikoak, material elektronikoa eta medikuntza-kirurgiako ekipo eta instrumentuak eta doitasunezkoak. Maila teknologiko baxuan, berriz, manufaktura hainbat eta birziklatzea, papererako egurra eta paperezko produktuak, elikadura produktuak, edariak eta tabakoa, ehun-produktuak, jantzigintza, larruzko produktuak eta oinetakoak daude. Maila ertain-garaian, berriz, makinak eta ekipo elektrikoak, motordun ibilgailuak, pro-

II.2.14. KOADROA. EAE-KO INDUSTRIAREN EDUKI TEKNOLOGIKOA

	Langileak (kopurua)			BEG cf			Salmenta garbiak			Δ 03-04 itxurazko produkt.
	2003	2004	Δ 03-04 %	2003	2004	Δ 03-04 %	2003	2004	Δ 03-04 %	
Guztira	**248.922**	**251.179**	**0,9**	**13.371.649**	**14.588.107**	**9,1**	**43.768.410**	**48.205.587**	**10,1**	**8,1**
Maila tekn. handia/ertain-handia	30,7	30,5	–0,6	31,1	29,9	–3,8	30,2	29,5	–2,1	4,7
Maila teknologiko handia	4,5	4,6	3,3	4,3	4,1	4,0	3,5	3,3	5,3	0,6
Maila teknologiko ertain handia	26,2	25,9	–0,2	26,7	25,8	5,2	26,7	26,2	8,2	5,4
Maila tekn. ertain baxua/baxua	67,5	67,6	0,2	60,6	60,9	0,6	63,8	64,3	0,8	8,6
Maila teknologiko ertain baxua	46,1	46,4	1,6	43,4	44,3	11,2	46,7	47,6	12,2	9,4
Maila teknologiko baxua	21,4	21,2	–0,2	17,1	16,7	6,0	17,0	16,7	7,7	6,2

Iturria: Eustat. Industria Estatistika.

duktu kimikoak famazioakoak izan ezik, garraiorako beste material batzuk eta makinak eta ekipo mekanikoak daude, eta maila ertain-baxuan, itsasontziak, kautxuzko produktuak eta material plastikoak, petrolioa fintzeko produktuak, burdinazko metalak eta burdinazkoak ez direnak, produktu metalikoak eta produktu mineral ez metalikoak.

Horrela, 2004an, Eustateko datuen arabera, beste atzerakada erlatibo bat izan dugu (2003an ere izan zen) sektore garai eta ertain-garaietan sektore baxu eta ertain-baxuekin alderatuta, bai langileei dagokienez bai balio erantsi eta salmentei dagokienez. Izan ere, lanaren produktibitate itxurazkoaren hazkundea eduki teknologiko garai eta ertain-garaiko sektoreetan eduki teknologiko ertain eta ertain-baxuko sektoreetan izandakoaren erdia da.

2.1.4. *Eraikuntza*

Eraikuntza, Hiruhileko Ekonomia Kontuen behin-behineko datuen arabera, BPGaren %8,1 izan da EAEko prezio arruntetan, 2006an, hau da, 5.012.228 mila euro, 2005ean baino bi hamarren gehiago, eta enplegu guztiaren %10 biltzen du, gutxi gorabehera (98.532 lanpostu).

Datu horien arabera, eraikuntzaren sektorea, berriz ere, BPGaren hazkuntzari dagokionez, lehenengo sektorea izan da, %5,1ekin, hau da, 5.012 milioi eurora iritsi da. Dena dela, aurreko urtean antzeman zen hiruhileko-soslaia galdu egin du, eta badirudi aurreko beste hiru urteetako joeretara itzuli dela. 2005ean %5,3 hazi zen.

EAEn eraikuntzaren BPGak Estatuan baino hazkunde txikiagoa izan du, izan ere, Estatuan %5,3 hazi da. Eremu

II.2.11. GRAFIKOA. ADIERAZLE NAGUSIENEN EBOLUZIOA, ERAIKUNTZAN. ZUZENDUTAKO DATUAK



Iturria: Hiruhileko Ekonomia Kontuak. 2006ko behin-behineko datuak.

II.2.12. Grafikoa. Jardueraren eboluzioa eraikuntza-sektorean
Urtetik urterako aldaketa-tasak



Zuzendutako datuak.
Iturria: Eustat 2006. Behin-behineko datuak.

II.2.15. Koadroa. Eraikuntza sektorearen eboluzioa

	Eraikuntzako egoera-indizea (ez egonkortua). Uteko batez besteko hazkuntza				Hiruhileko Ekonomia Kontuak (Zuzendutako datuak) Urtetik urterako aldaketa-tasak			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibilal	Lana	BPG arrunta	BPG bolumen kateatua	BPGren deflaktorea	Lanpostuak
1997-2002	11,3	9,9	14,6	3,8	11,3	6,5	4,5	8,7
2003	6,0	6,5	5,0	0,7	16,7	4,7	11,4	6,3
2004	7,4	7,8	6,6	1,3	9,8	4,4	5,0	5,1
2005	7,7	8,8	5,5	0,9	10,5	5,3	4,9	4,0
2006 p	7,7	8,1	6,6	1,3	9,6	5,1	4,3	4,4

p: behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

horretan ere, 2005ean baino aktibitate txikiagoa izan da, orduan %5,4 hazi baitzen. Dena dela, EAEn antzemandako joera berari eutsita, Estatuan ere, 2006an, eraikuntza izan da hazkunderik handiena lortu duen sektorea.

Eurostaten datuen arabera, eraikuntzako produkzio-indizea %4,5 hazi da EB-25ean, 2005etik 2006ra.

Era berean, hiruhilekoaren ikuspuntutik, BPGaren deflaktoreak beheraka egin duela antzeman daiteke, nahiz eta urteko batez bestekoak %4,3ko hazkundea izan duen, aurreko urtean baino 6 hamarren gutxiago. Horrela, etxebizitza berri eta librearen metro koadroaren prezioak gora egiten jarraitzen du, nahiz eta erritmo motelagoan: %8,2 aurreko urtean izandako %15,9ren ordez.

Lanari dagokionez, Hiruhileko Ekonomia Kontuek lan gutxiago izan dela adierazten digute bigarren lauhilekotik aurrera. Hori horrela izanagatik ere, urtetik urterako batez besteko aldaketak gainditu egin du lau hamarrenetan 2005ekoa. Horrela, 2006an lana %4,4 hazi da eta 98.532 lanpostu izan dira sektore honetan, 2005ean baino 4.171 gehiago. Bestetik, *"Eraikuntzako Egoeraren Indizeak"* erregistratu duen okupazioari buruzko hazkuntza-tasa %1,3 izan da, aurreko urtean erregistratutakoa baino 4 hamarren gehiago.

Eraikuntzako Egoeraren Indizeak (ICC) eraikuntzako produkzioaren balio korronteak, 2006an, %7,7 egin duela gora adierazten digu, aurreko urtean izan zuen gora-

II.2.16. KOADROA. ESKAINTZA OFIZIALA ERAKUNDEEN ARABERA, EAEN

	EAE		Estatua Aldaketa 2005-06	% Estatuarekiko	
	2006 milioi €	Aldaketa 2005-06		2005	2006
Eraikuntza	652	58,3	15,9	3,3	4,5
Obra Zibila	2.638	87,2	20,4	5,3	8,2
Admin. orokorra	603	280,1	33,8	1,3	3,8
Admin. Autonomikoa	303	–6,6	30,4	2,7	1,9
Toki admin.	2.362	76,5	–1,7	8,8	15,8
Guztira, EAE	**3.289**	**80,6**	**18,9**	**4,6**	**7,0**

Iturria: Seopan.

II.2.13. GRAFIKOA. ESKAINTZA PUBLIKOA ADMINISTRAZIOEN ARABERA ETA OBRA MOTEN ARABERA



Iturria: Seopan.

kada bera. Hori, batez ere, eraikuntzaren azpi sektorean izan diren hazkuntzek eragin dute, izan ere, %8,1 hazi da, 2005ean baino 7 hamarren gehiago, baita obra zibilaren balio korronteak izan duen gorakadagatik ere, aurreko urtean baino gehiago hazi baita, 1,1 puntu gehiago, alegia.

EAEko eskaintza publikoak gora egiten jarraitu du. 2004an %53,4 egin zuen gora, 2005ean %15,1 eta 2006an, berriz, %80,6 hazi da, kopurua: 3.289 milioi euro. Hazkunderik handiena obra zibilen arloan gertatu da, %87,2 hazi baita (2004an %93 eta 2005ean %12). Eraikuntzaren arloa era asko hazi da (%58,3). Bestalde, EAEn egindako eskaintza publikoaren ehunekoa gehiago hazi da Estatu mailan egindakoa baino, izan ere, %4,6 izatetik %7 izatera igaro da. Estatuan eskaintza %18,9 hazi da (%20,4 eraikuntza eta %15,9 obra publikoa); 2005ean, berriz, %24 hazi zen.

2.1.5. *Zerbitzuak*

Eustaten Hiruhileko Ekonomia Kontuen datuen arabera, zerbitzuen sektorea balio erantsiaren %60,5 da (33.341.301 mila euro), eta EAEko enpleguaren %61,8 biltzen du (603.419 lanpostu batez beste 2006an). Merkatu-zerbitzuak sektore honen %83,2 dira. Sektoreko produkzioa, guztira, 33.341 milioi euro izan zen 2006an (prezio arruntak).

Urte honetan sektoreak, BEGaren, enpleguaren eta prezioen eboluzioari dagokionez, azken urteetan izan duen joerari eutsi dio (hazkunde-tasak %2,9 eta %3,7 artean kokatu dira).

Zehazki, balio erantsi erreala edo zerbitzu sektorearen bolumen kateatua, EAEn, %3,5 hazi da 2006an, 2005ean erregistratu zena baino hamarren bat gehiago. Merkatu-zerbitzuak %3,7 hazi dira (aurreko urtean baino hamarren bat gehiago), eta merkatukoak ez direnak %2,6, aurreko urtean, berriz, %3,4. Sektoreko enpleguak gora egin du %3,3, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago. Bestalde, zerbitzu sektorearen balio erantsiaren deflaktoreak %3,3 egin du gora, 2005ekoak baino 4 hamarren gehiago.

Zerbitzu sektorearen BEG EAEn Estatuan baino gutxixeago hazi da, izan ere, INEren behin-behineko datuen arabera %3,6 hazi da Estatuan. Horretaz gain, jarduera txikiagoa izan da 2005ean baino, orduan %4,4 hazi baitzen.

Zerbitzu sektorearen barruan, enpresei zerbitzu-emateak du pisu gehien, bai BEGari eta bai lanari dagokionean. 1980tik 2005era BEG guztiaren %10,2 izatetik %16,2 izatera igaro da, eta urtean batez beste %4,9 hazi da 2001etik 2005era; eta lanari dagokionez, %5etik %11,2ra, horrek esan nahi du urtean batez beste %4,9 hazi dela lana 2001etik 2005era. Beste talde nagusi bat garraio eta komunikazioen azpi sektoreak dira; 1980tik

II.2.17. KOADROA. ZERBITZU SEKTOREAREN EBOLUZIOA (ALDAKETA- TASAK)

		Zerbitzuen BEG. Bolumen-indizea			Langileak	Deflaktorea
		Guztira	Merkatu-zerbitzuak	Merkatu ez diren zerbitzuak		
2004	Guztira	3,2	3,4	2,0	2,8	3,4
	t1	3,2	3,4	1,3	2,8	3,0
	t2	3,5	3,7	2,2	2,9	3,2
	t3	3,0	3,3	2,4	2,7	3,6
	t4	3,0	3,1	2,2	2,7	3,9
2005	Guztira	3,6	3,6	3,4	3,5	2,9
	t1	3,3	3,3	3,1	3,0	3,2
	t2	3,5	3,6	3,2	3,5	2,9
	t3	3,7	3,7	3,3	3,6	2,9
	t4	3,7	3,7	3,8	3,7	2,8
2006	Guztira	3,5	3,7	2,6	3,3	3,3
	t1	3,4	3,6	2,6	3,4	3,5
	t2	3,4	3,6	2,4	3,2	3,4
	t3	3,5	3,7	2,5	3,3	3,2
	t4	3,6	3,7	2,7	3,1	2,9

Zuzendutako datuak. Urtetik urterako aldaketa tasak.
Iturria: Eustaten Hiruhileko Ekonomia Kontuak.

II.2.18. KOADROA. ZERBITZU SEKTOREAREN EGITURA ETA EBOLUZIOA, EAE-N

	Egitura										% urteko aldaketa		
	BEG arrunta					Enplegua					BEG*	Prezioak	Enpleg.
	1980	1990	2000	2004	2005	1980	1990	2000	2003	2004	2001-2005		2001-04
Merkataritza eta konponk.	11,2	13,8	10,7	10,8	10,7	14,1	15,4	14,0	13,6	13,8	3,7	2,6	2,5
Ostalaritza	4,0	3,6	3,7	3,7	3,7	3,8	4,9	5,3	5,2	5,1	1,8	4,2	1,1
Garraioak eta komunik.	6,5	6,5	7,2	7,3	7,2	4,9	5,5	5,6	5,4	5,4	3,9	2,2	1,5
Bankuak eta aseguruak	4,5	4,9	7,4	7,0	7,0	2,8	2,4	2,4	2,2	2,2	–0,2	5,3	0,4
Enpresei zerbitzu-ematea	10,2	11,7	15,2	16,1	16,2	3,8	5,0	10,6	10,9	11,2	4,9	2,9	4,3
Administrazio Publikoa	5,0	5,5	5,1	5,0	4,9	2,5	6,5	5,8	5,7	5,6	2,0	3,4	1,5
Hezkuntza	2,3	3,8	4,0	4,0	4,0	4,5	6,8	6,4	6,3	6,2	2,7	3,0	1,4
Osasuna eta gizarte zerb.	2,7	4,6	4,3	4,2	4,3	3,1	3,9	5,0	4,8	4,8	3,0	3,1	1,7
Zerbitzu pertsonalak	2,5	2,4	2,5	2,4	2,4	2,0	4,9	3,8	3,7	3,7	2,4	2,9	2,3
Etxe-zerbitzuak	0,4	0,5	0,5	0,4	0,5	2,7	2,5	2,5	2,5	2,5	4,2	3,0	2,1
GUZTIRA ZERBITZUAK	**49,2**	**57,4**	**60,6**	**60,9**	**60,8**	**44,1**	**57,9**	**61,4**	**60,3**	**60,5**	**2,9**	**3,5**	**2,2**
GUZTIRA EAE	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**3,1**	**3,3**	**2,2**

(*) Balio Erantsi Gordin erreala (bolumen indizea).
Iturria: Eustat "Ekonomia Kontuak" eta Input-Output taulak.

2005era BEG guztiaren %6,5 izatetik %7,2 izatera igaro da, eta urtean batez beste %3,9 hazi da 2001etik 2005era. Banketxeak eta aseguruen sektorea ere aipatzekoa da,1980tik 2005era %4,5 izatetik %7 izatera igaro baita, nahiz eta 2001 eta 2005artean sektorearen urteko batez besteko aldaketa –%0,2 izan den.

Zerbitzuen sektorean, prezioen urteko batez besteko igoera %3,5 izan da 2001etik 2005era, eta indize orokorra, berriz, %3,3 da.

Merkataritza

Merkataritza eta konponketen sektorea EAEko balio erantsiaren %11 inguru da eta lanaren %14 biltzen du. Sektore horrek 2006an salmentetan gorabeherak izan ditu, gehiago prezioen jaitsieragatik kontsumo pribatuagatik baino, izan ere, horrek %4ko hazkuntza-tasan iraun du. Barne Merkataritzaren Indize Orokorra, prezio konstanteetan, %3,5 hazi da, eta aurreko urtean, berriz, %0,3. 2005ean prezioak %3,8 hazi ziren eta 2006an, berriz, %3,5.

Bestalde, Barne Merkataritzaren Indizeak emandako okupazio-datuen arabera, enpleguak gora egin du sektorean, baina aurreko urtean baino gutxiago. 2005ean %2,2 egin zuen gora lanak eta 2006an, berriz, %1,3. Horretaz gain, bi merkataritza motetan, hau da, handizkakoan eta txikizkarian, enplegu-indizea aurreko urtean baino gutxiago hazi da.

Merkataritzako salmenta errealen eboluzioak desberdintasunak ditu bere barruko dimentsio[3] desberdinetan nahiz eta, aurreko urterekin alderatuta biak positiboak izan. Txikizkako merkataritzaren salmentak 2005ean baldintza errealetan (prezio konstanteetan) %1,6 hazi ziren, eta 2006an, berriz, %2,7. Lurraldeka, Eustaten datuen arabera, Arabak izan du hazkunderik handiena urte osoan (%6,5), ondoren Bizkaiak (%2,5) eta azkenik, Gipuzkoak (%1,7).

Sektore espezializatuak eboluzio hobea izan du ez espezializatuak baino. Merkataritza espezializatuko salmentak %4,7 hazi dira (2005ean gutxiago hazi ziren, %2,1). Nabarmentzekoa da, 2004an gertatu zen bezala, pertsonaren ekipamenduetarako azpi sektorea, %10 hazi baita. Kontsumoko beste ondasun batzuk %3,6 egin dute gora, 2005ean baino 1,7 puntu gutxiago, eta beste bi azpi sektoreen indizeak jaitsierak izan ditu. Elikadurak beherantz jarraitzen du, baina aurten jaitsiera %0,5 baino ez da izan (hamarkada honetan behin baino ez du izan tasa positiboa azpi sektore horrek, 2002an). Etxeekipamenduetan ere beste jaitsiera bat izan da, %0,9koa (azken hamar urteetako lehenengo jaitsiera 2005ean izan zen). Merkataritza ez espezializatua txikiagotu egin da 2006an, eta gainera, lehenengo aldiz azken hamarkadan, %1,3, bai elikaduraren merkataritzan (azken hamarkadan izan duen lehen beherakada) eta elikadurakoa ez den merkataritzan izan den beherakadagatik. Horrela, lehenengoa %1,3 txikitu da, eta bigarrena, berriz, %1,4.

Handizkako merkataritzari dagokionez, iaz %0,4 txikitu bazen, aurten %3,9 egin du gora. Eboluzioa zertxobait hobea da makinen eta ekipo ondasunen sektorean, izan ere, hazten jarraitzen du tasa handietan, %6,5 2006an, baita erdilandutako produktuen eta txatarraren sektorean eta elikadurakoak ez diren beste kontsumo artikuluen sektorean ere, %4,5 eta %3,7 hazi baitira hurrenez hurren. Nekazaritza eta elikadura produktuek ez dute hain eboluzio ona izan, izan ere, hazkunde-tasa positiboa badute ere (%1,5), aurretik aipatutako sektoreek izan dutena baino txikiagoa da.

II.2.19. KOADROA. BARNE MERKATARITZAREN SALMENTA-INDIZEAREN ETA MERKATARITZAKO LANAGILEEN EBOLUZIOA*

	Salmenta-indizea					Langileen indizea		
	Indize orokorra	Handizkakoa	Txikizkaria	Prezioak	Kontsumo prib.	Guztira	Handizkakoa	Txikizkaria
2003	1,9	1,5	2,8	2,4	3,7	1,8	1,3	2,2
2004	3,0	2,3	4,3	5,0	4,4	1,6	1,1	1,9
2005	0,3	–0,4	1,6	3,8	4,1	2,2	2,2	2,1
2006 p	3,5	3,9	2,7	3,5	4,1	1,3	1,8	1,1

(*) Aldaketa tasak prezio konstantetan (hau da, baldintza errealetan). p. Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "Barne Merkataritzaren Indizea" eta "Ekonomia Kontuak".

II.2.20. KOADROA. HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMENTA-INDIZEAREN EBOLUZIOA, SEKTOREKA*

	Handizkako merkataritza				Txikizkako merkataritza							
	Prod. nekazaritza eta elikadura	Ez elikadurako kontsumo artikuluak	Prod. Erdilanduak; txatarra	Makinak eta ekipoak	Espezializatua	Elikadura	Pertsonarentzako ekipamenduak	Etxeekipamenduak	Beste kontsumo ondasun batzuk	Ez espezializatua	Elikadura nagusi	Gainerako produktuak nagusi
2003	1,1	9,3	–0,7	–0,5	3,0	–3,2	5,7	2,5	2,9	2,3	2,3	2,6
2004	3,4	4,4	–0,6	6,0	5,7	–1,6	9,7	2,6	6,3	1,6	2,2	–1,6
2005	0,2	–3,6	–1,0	4,5	2,1	–2,3	4,3	–3,6	5,6	0,4	0,7	–1,1
2006 p	1,5	3,7	4,5	6,5	4,7	–0,5	10,0	–0,9	3,9	–1,3	–1,3	–1,4

(*) Indizearen aldaketa tasa prezio konstantetan. p: Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "Barne Merkataritzako Indizea".

[3] Establezimenduen neurriaren arabera honela desberdintzen dira:
– Establezimendu txikiak salmenta azalera 120 eta 400 m^2 artekoak.
– Supermerkatu ertainak eta handiak salmenta azalera 400 eta 2.500 m^2 artekoak (262 bat EAEn. Azalera batez beste 757m^2 eta guztira 198.349 m^2).
– Hipermerkatuak, salmenta azalera 2.500 m^2 baino handiagoa dutenak (32 establezimendu EAEn, hiriguneetan daudenak barne, 4 Araban, 12 Gipuzkoan eta 14 Bizkaian).

II.2.14. Grafikoa. Azalera handiko saltokietan salmenten indize zuzenduen aldaketa-tasen eboluzioa. (Prezio konstanteak)



Iturria: Eustat.

Bestalde, Azalera Handiko Merkataritzaren Indizeak[4] (ICGS), behin egutegi-akatsa zuzenduta, azalera handiko merkataritzan salmentak igo egin direla adierazten digu prezio konstantean, %1,6, alegia, baina 2005ean izan zena baino askoz ere gutxiago, %9,6 2005ean, 2002kotik oso gertu (%2, elikadurakoak ez diren produktuen salmenta ez zelako oso handia izan, aurreko urtearekin alderatuta –%1,9 %15en aldean-). Lanak %2,3 egin du gora azalera handiko denda hauetan, aurreko urtean izandako hazkuntza baino askoz ere gutxiago (%11,7).

Turismoa eta Ostalaritza

Turismoa, Eustaten 2004ko Kontu Satelitearen datuen arabera, 2.786 milioi eurora iritsi zen. Horrek EAEko BPGari %5,2ko ekarpena egin diola esan nahi du. Jarduera horri lotutako langileak 47.000 baino gehiago izan dira (enplegu guztiaren %5). Turismo-gastuaren %55,6 EAEtik kanpo (Estatutik eta atzerritik) datozen bisitariek egiten dute, eta gainerako %44,4 erkidegoan bizi diren turistek eta txangozaleek egiten dute. Dena dela, EAEn turismo-igorleak hartzaileak baino garrantzia handiagoa dauka, eta horrek 2004ean 2.324 milioi euroko defizita eragin zuen, BPGren %4,4. Ehuneko hori etengabe handitu egin da 2000tik 2004ra.

Eustateko establezimendu turistiko hartzaileen inkestan jasotako datuek —hotel, ostatu eta pentsioetan ostatu hartzen duten bidaiariak jasotzen ditu— EAEra geroz eta bidaiari gehiago datorrela azaltzen dute. EAEko ostatu-sarean 1,6 milioi pertsonek hartu dute ostatu 2006an (EAEko bidaiariak kontuan hartu gabe), aurreko urtean baino %9,8 gehiagok. Atzerriko turismoa %8,8 hazi da eta Estatukoa %10,4.

Egindako gauen ehunekoa %12 hazi da (EAEkoak egindakoak izan ezik), horrela batez beste 1,96 egun izaten dira bidaiariak EAEn, baina ez dute 2 eguneko muga gainditzen.

EAE bertako bidaiariak eta egindako gauak kontatuta, bataz beste 1,92 egun egoten dira, eta ostatu-okupazio maila, turismo adierazle horrek ere gora egin du azken lau urteetan, %48,34koa da plazako urteko batez besteko gisa, eta %57,55ekoa logelako.

[4] Egoera-adierazlea azalera handiko merkataritza sektoreko salmenten eta okupazioaren merkataritza eboluzioarekiko (salmenta azalera 2.500 metro koadro edo gehiago duten merkataritza establezimenduak: hipermerkatuak, superpermerkatuak, erostetxe handiak eta txikizkako merkataritza egiten duten establezimendu ez espezializatuak, adibidez, kontsumo kooperatibak).

INEren Ostatu Okupazioaren Inkestako[5] datuek erakusten digute —aldameneko erkidegoekin edota antzekoekin konparatzeko aukera ematen digu (Asturias, Kantabria, Nafarroa, Galizia eta Errioxa)— EAEra 2.110 mila pertsona sartu direla, 1.517,5 pertsona aldameneko erkidegoetara batez beste (Galizia sartzen badugu) eta 996,1 sartzen ez badugu. Jendetza hori aurreko urtean izan zena baino %13,8 gehiago da. Aldameneko erkidegoetan berriz, turista kopurua %8,4 hazi da Galizia kontuan hartuta, eta %14,89 kontuan hartzen ez badugu (komeni da gogoratzea 2006ko udan Galizian sute handiak izan zirela). Datuek argi erakusten digute EAEn atzerritar bidaiari gehiago sartu dela beste antzeko erkidegoetan baino (%13,5. Gainerakoek Galizia sartuta %6,7 eta sartu gabe %8,99).

Emandako gauak —horiek ere EAEn gehiago dira aldameneko erkidegoetako batez besteko aritmetikoa baino— gehitu egin dira (%10,72 EAEn eta %5,6 aldameneko erkidegoetan Galizia sartuta eta %9 sartu gabe). Baina bidaiariak baino gutxiago hazi direnez, bidaiariek hemen egindako denbora jaitsi egin da, 1,93 egun izatetik 1,88 egun izatera. Aipatu, EAEn denbora gutxiago pasatzen dutela bidaiariek batez beste, aldameneko erkidegoetan pasatzen dutena baino.

INEren datuen arabera, plaza-okupazio mailari dagokionez 2,7 puntuko igoera izan da beste behin, eta 50,9ra iritsi da. Antzeko erkidegoen batez besteko aritmetikoa txikiagoa izan da, 41,5 Galizia sartuta eta 52,69 sartu gabe. Ostatu prezioen indizea (IPH[6]), berriz, EAEn txikiagoa da antzeko aldameneko erkidegoetan baino baita Estatuko gainerakoetan baino. Horrela bada, 2006an IPHren behin-behineko datua EAEn 111,2 da, eta aldameneko erkidegoetako batez bestekoa, berriz 115,1 Galizia sartuta eta 114,3 sartu gabe.

Horretaz gain, EAEn ostatu-jardueran aritzen diren establezimendu, plaza eta langile kopuruak gora egiten jarraitzen du. Ostatu-establezimendu kopurua (hotelak eta ostatuak) hazi egin da 16tan, eta urteko %4,5 plaza gehiago dituzte. Sektore honetako langile kopurua %5,8 hazi da, eta batez beste urtean 3.895 langile ditu sektoreak.

EAEko landa-turismo establezimenduetan 103.639 bidaiari izan dira 2006an, aurreko urtean baino %8 gehiago. Emandako gau kopurua 310.955 izan dira, hau da,

II.2.15. GRAFIKOA. BIDAIARIEN SARRERAK IZAN DUEN EBOLUZIOA, EAEN



Iturria: Eustat.

II.2.21. KOADROA. BIDAIARI, GAUA EGIN ETA BATEZ BESTEKO EGOTE KOPURUAREN EBOLUZIOA EGUNETAN EAE-N

	2003			2004			2005			2006		
	Bidaiariak	Gauak	Egoteak	Bidaiariak	Gauak	Egoteak	Bidaiariak	Gauak	Egoteak	Bidaiariak	Gauak	Egoteak
Guztira, EAE gabe	1.318.461	2.510.542	1,90	1.467.102	2.801.668	1,91	1.532.435	2.954.000	1,93	1.683.154	3.307.097	1,96
Estatua EAE gabe	865.854	1.650.213	1,91	966.039	1.852.163	1,92	1.013.431	1.948.813	1,92	1.118.647	2.204.831	1,97
Atzerritarrak	452.607	860.329	1,90	501.063	949.505	1,89	519.004	1.005.187	1,94	564.507	1.102.266	1,95
EAE bertakoak	266.760	452.651	1,70	283.332	487.990	1,72	292.608	505.802	1,73	324.394	551.343	1,70

Iturria: Eustat "Establezimendu turistiko hartzaileen ikesta".

[5] Ostatu-hartzeen Okupazio Inkestaren balioespenak hobetzeko INEk bi aldaketa metodologiko egin ditu:
– Autonomia Erkidegoen Turismo Kontseilaritzetatik datozen eta inkestaren esparru diren direktorioak eguneratu.
– Informazioa jasotzeko sistema aldatu du, horrek banatutako informazioa hobeto bereizten laguntzen du, eta biltzeko denbora-eremua zabaldu egiten du dagokion hilabetera.

2006ko urtarriletik aurrera argitaratu diren datuak, beraz, ezin dira 2005eko abendura arte argitaratutakoekin zuzenean konparatu. Hobetogo konpara daitezen urte desberdinen arteko datuak elkartzea ahalbidetzen duten koefizienteak egin dira.

[6] Enpresaburuek Espainiako hoteletan ostatu hartzen duten bezeroei aplikatutako prezio multzoaren eboluzioaren neurri estatistikoa. Sektoreko prezioen eboluzioa neurtzen du eskaintzaren ikuspuntutik.

II.2.22. KOADROA. EGONALDIA BATEZ BESTE ETA OKUPAZIO MAILA

	Egonaldia batez beste egunetan	Okupazio maila plazako	Okupazio maila gelako
2002	1,88	45,76	56,50
2003	1,87	44,18	53,31
2004	1,88	46,86	56,13
2005	1,90	47,63	57,29
2006	1,92	48,34	57,55

*** EAE bertakoak barne.**
Iturria: Eustat.

2005ean baino %16 gehiago. Batez besteko egonaldia bidaiariko 2005ean 2,78 egun izan bazen, aurten 3 egun izan dira, eta okupazio maila hobetu egin da hiru puntutan, eta 2005ean %28,04 izatetik %28,95 izatera igaro da, 2006an.

Azkenik, osatalaritzaren sektorea (hotelak, jatetxeak, tabernak eta kafetegiak eta abar), 2004ko azkeneko datuen arabera, EAEko balio erantsiaren %4 baino gutxixeago da eta lanaren %5. 48.000 langile baino gehiago ditu sektoreak, baina azken urteetan sektoreko BEGren geldialdia eta baita beherakada izan da, horri sektore ho-

II.2.23. KOADROA. ADIERAZLE KONPARATZAILEAK EAEN ETA ESTATUAN

	Bidaiari kopurua (milaka)						Emandako gauak(milaka)						Egonaldia batez beste (egunak)					
	Guztira		Espainian bizi direnak		Atzerrian bizi direnak		Guztira		Espainian bizi direnak		Atzerrian bizi direnak		Guztira		Espainian bizi direnak		Atzerrian bizi direnak	
	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p
Estatua	70.629	82.032	41.600	47.539	29.029	34.492	245.637	266.588	106.875	114.825	138.762	151.763	3,48	3,25	2,57	2,42	4,78	4,40
Asturias	1.287	1.523	1.160	1.364	127	160	3.032	3.282	2.741	2.936	291	346	2,36	2,15	2,36	2,15	2,29	2,17
Kantabria	1.050	1.184	883	1.013	167	171	2.616	2.802	2.243	2.443	373	359	2,49	2,37	2,54	2,41	2,23	2,10
Galizia	3.530	3.603	2.903	2.946	627	657	7.595	7.756	6.393	6.515	1.201	1.241	2,15	2,15	2,20	2,21	1,92	1,89
Nafarroa	662	752	521	605	142	147	1.309	1.443	1.079	1.197	230	246	1,98	1,92	2,07	1,98	1,63	1,67
EAE	1.854	2.110	1.304	1.486	550	624	3.575	3.958	2.488	2.769	1.087	1.189	1,93	1,88	1,91	1,86	1,98	1,91
Errioxa	468	524	398	450	70	75	871	943	703	820	114	122	1,74	1,80	1,77	1,82	1,62	1,64
Antzeko Erkidegoak*	1.399,6	1.517,5	1.172,9	1.275,7	226,7	241,9	3.073,8	3.245,2	2.631,7	2.782,3	442,1	462,9	2,20	2,14	2,24	2,18	1,95	1,91
Antzeko Erkidegoak* Galizia gabe	867,0	996,1	740,3	858,0	126,7	138,1	1.943,5	2.117,6	1.691,2	1.849,2	252,3	268,4	2,1	2,1	2,2	2,1	1,9	1,9

Aldaketak	2005-2006 (%)						Diferencia 2006-2005		
EAE	13,80	13,94	13,48	10,72	11,30	9,39	–0,05	–0,04	–0,07
Antzeko Erkid.*	8,43	8,76	6,70	5,58	5,72	4,71	–0,06	–0,06	–0,04
Antzeko Erkid.* Galizia gabe	14,89	15,90	8,99	8,96	9,34	6,41	–3,85	–4,28	–2,39

*** Asturias, Galizia, Kantabria, Nafarroa eta Errioxako batez besteko aritmetikoa.**
Iturria: INE "Ostatu-okupazioaren Inkesta".

II.2.24. KOADROA. BATEZ BESTEKO OKUPAZIOA ETA OSTATU-PREZIOEN INDIZEA EAEN ETA ESTATUAN

	Okupazioa maila plazako**		Ostatu prezioen indizea (IPH)		Irakitako establezimendu kopurua***		Balioetsitako plaza kopurua***		Langileak***	
	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p	2005	2006p
Estatua	54,25	56,43	110,4	112,4	13.991	14.033	1.212.598	1.260.462	178.435	190.971
Asturias	36,35	38,43	106,3	109,4	638	647	22.536	23.140	2.786	2.888
Kantabria	42,41	44,88	109,9	110,9	373	377	16.547	16.766	2.356	2.444
Galizia	35,91	36,77	113,1	116,1	1.491	1.452	57.156	57.135	7.149	7.455
Nafarroa	38,87	40,55	117,7	119,9	244	242	9.173	9.677	1.366	1.498
EAE	48,20	50,90	109,9	111,2	367	383	20.167	21.068	3.680	3.895
Errioxa	40,20	46,88	116,8	119,0	110	105	5.528	5.467	905	980
Antzeko erkidegoak*	38,75	41,50	112,7	115,1	571,20	564,60	22.188,00	22.437,00	2.912,40	3.053,00
Antzeko erkidegoak* Galizia gabe	39,46	42,69	112,6	114,3	341,25	342,75	13.446,00	13.762,50	1.853,25	1.952,50

p. behin-behinekoak*.
Asturias, Kantabria, Galizia, Nafarroa eta Errioxako batez besteko aritmetikoa. ** Plazako okupazio maila haztatua. * Urteko batez bestekoa.**
Iturria: INE "Ostatu Okupazioaren Inkesta".

II.2.25. KOADROA. OSTALARITZA SEKTOREAREN MAKROTAMAINAK. 2004

	EAE	Hotelak	Jatetxeak	Edariak
Establezimenduak(kop)	15.964	528	3.908	10.978
Langileak (kop.)	47.656	4.416	17.859	19.625
Autonomoak (%)	31,8	9,8	16,5	57,5
Soldatapekoak (%)	68,2	90,2	83,5	42,5
BEGcf (milioi €)	1.810,9	249,3	643,4	711,2
BEG /Langileak (€)	37.999	56.462	36.026	36.238

Iturria: Eustat "Ostalaritza Sektoreko Inkesta Ekonomikoa".

netan izandako prezio gehitzeak eutsi dio, izan ere, azken hamarkadan %5,5 gainditu du urteko batez besteko gisa.

2004ko Ostalaritza Sektoreko Inkesta Ekonomikoan datozen azken datuek adierazten digute sektoreko BEGa 1.810 milioi euro izan zela, ekonomia guztiaren %3,8, eta enplegua, berriz 47.656 lanpostu zela, EAEko langile guztien %5,1. Sektoreko hiru azpi sektoreei dagokienez, bolumenagatik edari-establezimenduak nabarmendu behar dira (kafeak, tabernak eta abar), ia horrelako 11.000 establezimendu dago eta sektoreko %41ek hemen lan egiten dute. Jatetxeena dugu, garrantziari dagokionean, bigarren jarduera nagusia: establezimenduen %24,5 ditu eta langileen %37,5. Ostalaritza azpi sektoreak berriz, langileen %9,3 hartzen du, guztira horrelako 528 establezimendu dago, baina produktibitate handiagoa dute. Sektorean lan egiten dutenen %51k Bizkaian egiten du lan, %34,7 Gipuzkoan eta gainerako %14,3k Araban.

Finantza-sektorea

Euorpako Banku Zentralak interes-tasa ofizialak historikoki izan diren mailarik baxuenean izan dituen bi urte eta erdi igaro ondoren, 2005eko abenduan, Gobernu Kontseiluak oinarrizko 25 puntu igo zituen interes-tasa ofizialak, eta 2006an beste oinarrizko 25 puntu hazi zituen beste bost alditan. 2006ko urtarrilean %2,5ean zeuden eta urte bukaeran, %3,5ean.

Bestalde, Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalaren partaidetza-motak goraka hasi ziren urte hasieratik, eta 2006ko amaieran 2004ko amaieran zutena baino puntu bat gehiago ziren (%5,25, 2004ko %4,25en ordez).

Igoera horiei jarraiki, moneta-merkatuko interes-tasak ere gora egin zuten pixkanaka urte osoan zehar eta epe guztietan. Zehazki esatearren, hiruhileko Euriborra 1,17 puntu hazi da 2006ko hamabi hilabeteetan, eta urtarrilean %2,51n bazegoen abenduan %3,68ra iritsi zen. Urte baterako Euriborrak, berriz, 1,09 puntu egin du gora, eta 2006ko urtarriletik abendura %2,83 izatetik %3,92 izatera igo da. Hipoteka-merkatuari dagokionez, urte beterako Euriborrak izandako igoeraz gain, CECA erreferentzia-tasak ere gora egin du portzentajezko 0,38 puntu (urtarrilean %2,83n zegoen eta abenduan %5,13n), baita erakunde finantzario guztien 3 urte baino gehiagorako etxebizitza libreetarako hipoteka-tasen batez besteko tasak ere, portzentajezko 0,89 puntu (urtarrilean %2,76 eta abenduan berriz %3,65).

II.2.26. KOADROA. KREDITU ERAKUNDEEK SEKTORE PUBLIKO ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUAK (SALDOAK ABENDUAREN 31N)

	Milioi euro				EAE banaketa 2006	Estatua 2006	% Estatu-arekiko	% aldaketa		
	2003	2004	2005	2006				2003-04	2004-05	2005-06
Guztira	**46.844**	**52.647**	**62.351**	**72.772**	**100,0**	**1.483.280**	**4,9**	**12,4**	**18,4**	**16,7**
Admin.. publikoa	1.242	1.331	1.344	1.477	2,0	37.981	3,9	7,2	1,0	9,9
Sektore pribatua	45.602	51.316	61.007	71.295	98,0	1.445.298	4,9	12,5	18,9	16,9
Bancos	**20.893**	**22.716**	**26.225**	**30.113**	**41,4**	**681.685**	**4,4**	**8,7**	**15,4**	**14,8**
Admin.. publikoa	449	491	469	573	0,8	23.696	2,4	9,4	–4,5	22,2
Sektore pribatua	20.444	22.226	25.756	29.541	40,6	657.988	4,5	8,7	15,9	14,7
Aurrezki kutxak	**19.959**	**23.024**	**27.837**	**32.666**	**44,9**	**723.144**	**4,5**	**15,4**	**20,9**	**17,3**
Admin.. publikoa	771	814	839	857	1,2	13.738	6,2	5,6	3,1	2,1
Sektore pribatua	19.188	22.209	26.998	31.809	43,7	709.406	4,5	15,7	21,6	17,8
Kreditu-koop.	**5.992**	**6.907**	**8.289**	**9.992**	**13,7**	**78.449**	**12,7**	**15,3**	**20,0**	**20,5**
Admin.. publikoa	22	26	36	47	0,1	547	8,6	18,2	38,5	30,6
Sektore pribatua	5.970	6.881	8.253	9.945	13,7	77.902	12,8	15,3	19,9	20,5

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika buletina.

II.2.27. KOADROA. LANDA-ETA HIRI-FINKEN HIPOTEKAK, EAE-N

	2004			2005			2006 (behin-behineko datuak)			Aldaketa 2004-05			Aldaketa 2005-06		
	Kopurua	Zenbat (Milioi €)	Zenbat b.beste(€)	Kopurua	Zenbat (Milioi €)	Zenbat b.beste(€)	Kopurua	Zenbat (Milioi €)	Zenbat b.beste(€)	Kopurua	Zenbat (Milioi €)	Zenbat b.beste(€)	Kopurua	Zenbat (Milioi €)	Zenbat b.beste(€)
Hipotekak guztira	54.511	8.557	156.977	57.893	9.592	165.685	57.285	10.895	190.189	6,2	12,1	5,5	–1,1	13,6	14,8
Landa-finkak	1.427	308	215.837	1.550	424	273.548	1.428	428	299.720	8,6	37,7	26,7	–7,9	0,9	9,6
Hiri-finkak	53.084	8.249	155.395	56.343	9.169	162.735	55.857	10.467	187.389	6,1	11,2	4,7	–0,9	14,2	15,1
Etxebizitzak	37.208	4.776	128.359	41.316	5.835	141.229	42.797	6.607	154.380	11,0	22,2	10,0	3,6	13,2	9,3
Orubeak	1.557	1.528	981.374	1.597	1.379	863.494	1.819	1.885	1.036.284	2,6	–9,8	–12,0	13,9	36,7	20,0
Beste hiri-finka batzuk	14.317	1.945	135.852	13.428	1.954	145.517	11.241	1.975	175.696	–6,2	0,5	7,1	–16,3	1,1	20,7

Iturria: INE Hipoteken Estatistika (Espainiako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Elkargoa).

EAEn kreditu-erakundeek emandako krediduak, guztira, gora egin du berriz ere 2006an. Guztira 72.772 milioi euro eman dituzte krediduetarako. Baina, dena dela, hazkundea moteldu egin dela antzematen da, izan ere, 2005 eta 2006 arteko urteko hazkuntza-tasa txikiago da aurreko urtekoa baino, %16,7 batean eta %18,4 bestean. Moteltze hori azaltzeko bertako beste sektore batzuei emandako krediduak izandako portaera hartu behar da kontuan (aldaketa-tasa +%18,9 izatetik +%16,9 izatera pasatu da), izan ere, administrazio publikoei emandako kreditua ia %10 hazi da.

Erakunde finantzario mota desberdinak kontuan hartuta bertako beste sektore batzuei emandako krediduaren hazkunde-tasak aztertuta, antzeman daiteke banku eta aurrezki kutxek emandako kreditu-saldoa aurreko urtean baino gutxiago hazi dela (hau da, hazkundea moteldu egin da), eta kreditu-kooperatibenak berriz, zabaltze joera duela. Dena dela, lehenego bi erakunde motek biltzen dituzte emandako kreditu gehienak. Horrela bada, aurrezki kutxek 2006ko itxialdian bertako beste sektore batzuei emandako krediduaren saldu guztiaren %43,7 bildu dute beren balantzeetan, bankuek, berriz, emandako kreditu guztiaren %40,6 eta kreditu-kooperatibek gainerako %13,7.

Bertako beste sektore batzuei emandako kreditu-saldoen hazkuntza moteldu egin da, eta horretan eragina

II.2.28. KOADROA. SEKTORE PRIBATUAREN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN GORDAILUAK, GORDAILU-ERAKUNDEETAN (SALDOAK ABENDUAREN 31N)

	Milioi euro			Banaketa	Estatua	% Estatuko guztia-rekiko	% aldaketa	
	2004	2005	2006 p				03-04	04-05
Guztira pribatua eta publikoa	**48.060**	**48.870**	**55.272**	—	**992.808**	**5,6**	**1,7**	**13,1**
Guztira sektore pribatua	**45.017**	**45.117**	**50.463**	**100,0**	**927.017**	**5,4**	**0,2**	**11,8**
Ageriko gordailuak	8.937	10.437	11.904	23,6	265.769	4,5	16,8	14,1
Aurrezki-gordailuak	10.633	11.918	13.137	26,0	186.432	7,0	12,1	10,2
Epekako gordailuak	25.447	22.763	25.422	50,4	474.816	5,4	–10,5	11,7
Bankuak	**12.269**	**13.001**	**15.870**	**31,4**	**395.408**	**4,0**	**6,0**	**22,1**
Ageriko gordailuak	4.237	4.918	5.731	11,4	130.197	4,4	16,1	16,5
Aurrezki-gordailuak	2.644	3.331	4.058	8,0	59.092	6,9	26,0	21,8
Epekako gordailuak	5.388	4.752	6.081	12,1	206.119	3,0	–11,8	28,0
Aurrezki kutxak	**24.434**	**24.693**	**25.842**	**51,2**	**468.837**	**5,5**	**1,1**	**4,7**
Ageriko gordailuak	3.345	4.027	4.512	8,9	123.031	3,7	20,4	12,0
Aurrezki-gordailuak	6.088	6.561	6.923	13,7	108.565	6,4	7,8	5,5
Epekako gordailuak	15.001	14.106	14.407	28,5	237.241	6,1	–6,0	2,1
Kreditu-kooperatibak	**8.314**	**7.424**	**8.750**	**17,3**	**62.772**	**13,9**	**–10,7**	**17,9**
Ageriko gordailuak	1.355	1.493	1.661	3,3	12.541	13,2	10,2	11,3
Aurrezki-gordailuak	1.902	2.026	2.156	4,3	18.775	11,5	6,5	6,4
Epekako gordailuak	5.057	3.905	4.933	9,8	31.456	15,7	–22,8	26,3
Guztira sektore publikoa	**3.043**	**3.753**	**4.810**	**100,0**	**65.790**	**7,3**	**23,3**	**28,2**
Bankuak	971	1.173	1.428	29,7	29.175	4,9	20,8	21,7
Aurrezki kutxak	1.778	2.224	2.868	59,6	33.851	8,5	25,1	29,0
Kreditu-kooperatibak	294	355	514	10,7	2.764	18,6	20,7	44,8

p. Behin-behineko datuak.
Iturria: Espainiako Bankua "Estatistika Buletina".

II.2.29 KOADROA. BILBOKO BURTSAREN INDIZEA 2000

	Azkena	Gehiena	Gutxiena	Aldak.% (azken./ aurr. azk.)
2003	1.381,8	1.393,7	976,2	26,76
2004	1.633,1	1.638,5	1.361,1	18,18
2005	1.921,5	1.956,4	1.611,6	17,66
2006	2.577,5	2.635,8	1.611,6	34,14

2000ko oinarria, 1999ko abenduaren 31.
Iturria: Bilboko burtsa.

izan du, seguruenera, etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duen kreditua ere gutxiago hazteak. Espainiako Bankuak Estaturako emandako datuen arabera (autonomia erkidegoei buruzko daturik ez dago) eremu hori 2005 eta 2006 artean %22,3 hazi da, eta 2004 eta 2005 artean, berriz, %34,1 (%21,3 2003 eta 2004 artean).

Espainiako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Elkargoak emandako datuek —INEren Hipoteken Estatistikan argitaratu ziren— azaltzen digute EAEn egindako hipoteka kopurua %1,1 txikiagotu dela, aurretik beti gora egin dutela kontuan hartuz. Bestalde, hipoteka duten gero eta etxe gehiago dago, baina lehen baino ehuneko txikiagoan, hau da, %3,6, aurreko urtean izan ziren %11ren alboz albo.

Hipotekatutako finka bakoitzeko utzitako kopuruak %14,8 egin du gora 2006an, eta 165,6 mila eurotik 190,2 mila euro izatera igaro da. Hipotekatutako etxebizitza bakoitzeko maileguan utzitako batez besteko kopuruak ere gora egin du, baina aurreko urtean baino gutxiago, %9,3, eta 2005ean, berriz, %10, eta 154,3 mila euro utzi dira, batez beste; aurreko ekitaldian, 141,2 mila euro.

EAEn 2005eko itxieran, finantza-erakundeetan Administrazio Publikoek egindako gordailuei dagokienez, Espainiako Bankuaren Estatistika Buletinean datozen behin-behineko datuen arabera, esan 4.810 milioi euroko saldoa zutela. Kopuru horren arabera urteko hazkuntza-tasa %28,2 da. Bertako beste sektore batzuek 50.463 milioi euroko gordailua egin zuten, urteko hazkuntza-tasak, beraz, %11ko igoera izan du sektore horretan.

Bertako beste sektore batzuek egindako gordailuak aztertzen baditugu modalitateak kontuan hartuta (agerian, aurrezkian eta epeka), hauxe antzemango dugu: ageriko gordailuak 11.904 milioi euro egiten dutela eta 2006an %14,1 hazi direla, aurrezkirako gordailuen saldoa 13.137 milioi euro izan zela, eta %10,2 hazi zela. Eta epekako gordailuak, berriz, 2004ean eta 2005ean izan zuten beherakadaren ondoren, 2006an 25.422 milioi eurotan kokatu ziren, baina 2004an erregistratutako 25.447 milioi eurora ez ziren iritsi.

Azkenik, Bilboko burtsaren kontratazio-bolumenak (erkosketak eta salmentak) gora egin du %78,3 2006an, 79.112,5 milioi euro, alegia. Hazkunde hori errenta aldakorra (%92,6) handitu delako izan da, izan ere, errenta finkoa %28,3 gutxitu delako. Kontratazio guztitik, %49,5 erosketenak dira. Erosketak %79,1 hazi dira aurreko ekitaldiarekiko.

II.2.30. KOADROA. BILBOKO BURTSAREN KONTRATAZIO-BOLUMENA (*)

	2003		2004		2005		2006		Ald. % 2004-05		Ald. % 2005-06	
	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira	Erosketak	Guztira	Erosketak
Guztira, burtsa	84.134,2	43.277,1	100.698,9	51.243,3	101.094,6	49.766,2	180.207,1	89.132,9	0,4	–2,9	78,3	79,1
Errenta aldakorra	70.614,3	36.518,4	88.401,5	45.094,1	89.101,6	43.769,7	171.612,1	84.835,2	0,8	–2,9	92,6	93,8
Merkatu jarraia: SIBE	70.319,2	36.370,9	87.973,4	44.880,0	88.618,2	43.528,0	170.805,9	84.432,1	0,7	–3,0	92,7	94,0
Merk.tradizion.: Parquet (viva voz)	295,1	147,5	428,1	214,1	483,4	241,7	806,2	403,1	12,9	12,9	66,8	66,8
Errenta finkoa	13.519,9	6.758,7	12.297,4	6.149,2	11.993,0	5.996,5	8.595,0	4.297,7	–2,5	–2,5	–28,3	–28,3
Merkatu jarraia: Elektronikoa	25,1	11,2	32,7	16,8	23,9	11,9	22,2	11,4	–26,9	–29,2	–7,1	–4,2
Merk.tradizion.: Parquet (viva voz)	15,2	7,7	16,7	8,4	15,3	7,7	14,7	7,3	–8,4	–8,3	–3,9	–5,2
Kontuan idazteko zerbitzuak (SAC)	13.479,6	6.739,8	12.248,0	6.124,0	11.953,8	5.976,9	8.558,1	4.279,0	–2,4	–2,4	–28,4	–28,4

(*) Milioi euro.
Iturria: Bilboko Burtsa.

2000ko Bilboko Burtsaren indizea 2,577,5 puntu zen 2006ko abenduan, aurreko urtean baino %34,14 gehiago. Hazkunde tasa horrek, portzentajezko 16,48 puntutan gainditu du aurreko urtean erregistratutakoa. Hura 1.921,5 puntutako indizearekin itxi zen. Era berean, Estatuan erregistratutakoa baino gehixeago da, *Ibex 35ek* urtea %31,8ko igoerarekin itxi zuen, eta 14.146,5 punturekin.

Zerbitzu profesionalak eta enpresa-zerbitzuak

Zerbitzu profesionalen eta enpresa-zerbitzuen sektoreko Ekonomia Inkesta bi urtean behin argitaratzen da. Azkena 2006ko uztailean argitaratu zen (2004ko datuak ditu jasota), eta ez dago 2004ko Memoria Sozioekonomikoan jasotako informazioa eguneratzeko datu berririk. Irakurleak, beraz, argitalpen hartara jo dezake EAEn sektore horrek dituen datu nagusiak ezagutu nahi baditu.

II.2.31. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUEN MAGNITUDE NAGUSIENAK, EAE-N

	2002	2003	2004	2005	%02-05	% 04-05
Gastuak						
Gastua (mila €)	915.747	1.073.054	1.196.320	1.297.642	41,7	8,5
gastu arrunta	671.719	786.287	876.216	956.488	42,4	9,2
transferentziak familiei	202.511	232.086	270.046	274.566	35,6	1,7
kapital-gastua	41.517	54.681	50.057	63.993	54,1	27,8
Gastua /biztanleko (€)	444,5	506,1	562,0	606	36,4	7,9
Gastua/BPG (%)	2,0	2,2	2,2	2,3		
Finantzaketa						
publikoa	642.289	741.894	837.714	903.157	40,6	7,8
pribatua	273.458	331.160	258.606	394.485	44,3	52,5
Giza baliabideak						
Guztira langileak	30.621	32.657	36.221	40.616	32,6	12,1
bertakoa	16.797	18.855	20.613	21.941	30,6	6,4
boluntarioak	13.824	13.802	15.608	18.675	35,1	19,7
Baliabide materialak						
erakunde kopurua	1.224	1.266	1.304	1.318	7,7	1,1
zentro kopurua	2.305	2.388	2.512	2.544	10,4	1,3
egoitza kopurua	633	666	715	734	16,0	2,7
egoiza-plazak	17.188	18.750	19.596	20.212	17,6	3,1

Iturria: Eustat "Gizarte Zerbitzuen Estatistika".

II.2.16. GRAFIKOA. GIZARTE ZERBITZUEN GASTUAREN EBOLUZIOA, EAEN



Iturria: Eustat "Gizarte Zerbitzuen Estatistika".

II.2.17. GRAFIKOA. EAEN GIZARTE ZERBITZUTAN LANEAN ARI DIREN LANGILEEN, LANGILE GEHI BOLUNTARIOAK, EBOLUZIOA



Iturria: Eustat "Gizarte Zerbitzuen Estatistika".

II.2.18. GRAFIKOA. GIZARTE ZERBITZUEN GASTUAREN EBOLUZIOA, GASTUA ZUZENDUTA DAGOEN BIZTANLE-TALDEA KONTUAN HARTUTA. OINARRI URTEA: 1990



Iturria: Eustat "Gizarte Zerbitzuen Estatistika".

Gizarte Zerbitzuak

Eustaten 2005eko Gizarte Zerbitzuei buruzko Inkestan jasotako datuen arabera, EAEn Gizarte Zerbitzuen gastua 1.298 milioi euro da, hau da, euskal BPGren %2,3 (2003ko eta 2004ko tasa baino hamarren bat gehiago). Biztanleko batez besteko gastua 606 euro da, 2004an baino %7,9 gehiago.

Lurraldeka, 2005ean gastua %10 igo zen Bizkaian, %8 Gipuzkoa eta %4 Araban.

Adminsitrazio publiko desberdinen ekarpena 903 milioi euro izan zen, gastu guztiaren %69,6 eta aurreko urtean baino %52,5 gehiago. Sektore pribatuak eman du gainerako %30,4; kopuru horretatik nabarmendu erabiltzaileek jasotako zerbitzua ordaintzeko eman dituzten 162 milioiak. Kopuru hori gastu arruntaren %13 izan zen.

Guztira, sektorean 2005ean 21.941 langile izan ziren, EAEn urte horretan lana zutenen %2,3 (%2,1 2003an eta %2,2 2004an). Langileetatik %68 emakumezkoak dira. Zuzeneko harretara dedikatzen diren langile azpi kontratatuak daudela kontuan hartzen badugu, guztira lan jardun osoan ari diren beste 4.411 langile direla zenbatu behar da, gizarte zerbitzuetako lan guztia %20 haziko zen (%21 aurreko urtean). Azpi kontratatutako langileen erdiak oraingutxi ezarri den etxez etxeko laguntza zerbitzuan egiten du lan.

Gizarte zerbitzuek 18.675 boluntario ere izan zituzten (langileen %46), eskuzabaltasunez egin zuten lan, eta 2004an baino %19,7 gehiago izan ziren eta 2002an baino %35,1 gehiago. Grafikoan ikus daiteke azken hamazazpi urteetan gizarte zerbitzuetako langileak %285 baino gehiago hazi direla. Epe horretan bertan, boluntarioak ere 1989an %42,4 izatetik 1995ean %50,7 izatera pasa direla, eta urte horretan izan zen orain arteko gehiengo historikoa.

Gizarte zerbitzuak zuzentzen diren biztanle-taldeak kontuan hartuta, biztanleria orokorrari eta pertsona helduei emandako zerbitzuak dira baliabide gehien zuzentzen zaien eremuak, izan ere, bien artean gastuaren %67 hartzen dute. Biztanleria orokorrari zuzendutako baliabideei dagokienez "familiei egondako transferentziak" dira nagusienak bai kopuruari dagokionez bai izan duen hazkundeari dagokionez. Hor dadue Oinarrizko Errentaren programak, 145 milioi eurorekin (+%15) eta Gizarte Beharrizan Larrietarako Laguntzak (AES), 39 milioi eurorekin (%16).

2.1.6. Etxeko produkzioa

Etxeko produkzioaren Kontu Satelitea bost urtez behin argitaratzen da, eta Denbora Aurrekontuen ikesta dugun urteekin egiten du bat. Estatistika hori ezinbestekoa da etxeko produkzioaren berri jakiteko, izan ere, jendeak etxeko lanak egiten zenbat denbora igarotzen duen esaten digu, besteak beste.

Azkena 2004ko ekainean argitaratu zen (2003ko datuak zituen jasota). 2004ko Memoria Sozioekonomikoan jaso zen informazioa eguneratzeko beste daturik ez dugunez, irakurleak argitalpen horretara jo dezake EAEn sektore honek dituen datu nagusienen berri izateko.

2.2. I+G+B eta IKT-en jarduerak

2.2.1. Euskal I+G+b sistemaren adierazle nagusiak

I+G gastua. 2005. urtean, Eustat-en datuen arabera, EAEn 823,5 milioi euro inbertitu ziren Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %7,1 gehiago. Gastu horretatik Bizkaiari 390,2 milioi dagozkio (%47,4), Gipuzkoari 318,3 (%38,7) eta Arabari 114,9 (%14).

I+G esfortzua[7]. Eustat-en datuen arabera, azken urteotan 2000. urtean iritsitako %1,44 gainditzen ez duten portzentajeei eutsi zaie gutxi gorabehera.

2005. urtean, esfortzua %1,43an kokatu da (aurreko urteko portzentaje bera), Estatuan gertatutakoaren gainetik (%1,13 2005ean, INEren datuen arabera), baina EB-25eko (%1,85), EB-27ko (%1,84) eta ELGAko (%2,24) batez bestekoaren azpitik.

Gipuzkoan %1,71ekoa izan zen; Bizkaian %1,34koa; eta Araban %1,18koa. INEren datuen arabera, I+G intentsitate zifrak Estatuko batez bestekoaren gainetik dauzkaten erkidego autonomoak Madril (BPGd-ren %1,82), Nafarroa (%1,67), EAE (%1,48) eta Katalunia (%1,35) dira.

Eurostat-en (*Statistics in focus, Science and Technology, 2007*) datuen arabera, BPGd-ren %2,5 gainditzen duten herrien artean, berriro ere Suedia (%3,86), Finlandia (%3,48), Japonia (%3,18), Txina (%2,93), Islandia (%2,83), AEB (%2,68) eta Alemania (%2,51) daude. Suedia eta Finlandia dira Lisboako Estrategian finkatu zen %3ko tasa erdiesten duten bakarrak. Esfortzu ertaina, BPGd-ren %1,5 eta %2,5 artekoa, egiten dutenen artean, Danimarka, Austria, Frantzia, Belgika, Erresuma Batua, Holanda, Luxenburgo, Suitza eta Norvegia daude.

Jarduera sektoreen araberako I+G gastua. Eustat-en arabera, I+G gastuaren zatirik handiena (%79,4)

[7] BPGd-ren gaineko I+G gastuaren portzentajea.

enpresa sektoreak egiten du, baina enpresen eta zentro teknologikoen artean bereizten badugu[8], enpresen gauzatzea %57,6 inguruan kokatzen da. Berriro eta nahiko urrun zentro teknologikoak (%21,8), unibertsitatea (%17,2) eta Administrazioaren mendeko erakunde publikoak (%3,4) kokatzen dira.

Gauzak horrela, EAEn jasotako I+G enpresen gauzatzeak espainiar Estatuan emandakoa gainditzen du, azken horretan, INEren arabera, enpresek I+G gastuaren %53,8 gauzatu baitzuten, baita EBn topatzen dugun batez bestekoa ere; baina Luxenburgon (%80), Japonian (%75), Suitzan (%70) eta Finlandian (%69) jasotzen diren portzentajeetatik urrun dago oraindik.

2004. eta 2005. urteen arteko aldakuntzak erakusten du zentro teknologikoak direla hazkunde handiena daukatenak, gastuari dagokionez, %21,5eko tasarekin; haien atzetik datoz Administrazioa %12,7rekin, Goi Mailako Irakaskuntza %4,3rerkin eta enpresak %3rekin.

I+G gastuaren finantzaketa (Fondoen jatorriaren araberako gastua). Sektore pribatuak I+G gastuaren zifra osoaren %63,8 finantzatzen du (525,7 milioi euro) eta Administrazioak %32,4 (266,9 milioi euro). Estatuan, INEren datuen arabera, sektore pribatuak %47,2 finantzatzen du eta Administrazio Publikoak %43. EB-25ean, Eurostat-en datuen arabera, portzentaje horiek %55 eta %35ekoak dira.

Hortaz, sektore pribatua da I+G gastuaren finantzazio iturri nagusia, eta EAE Lisboako helburutik 3 puntu baino gertuago dago: I+G gastu osoaren %66 fondo pribatuek finantzatua izatea.

I+G gastuen finantzazio pribatuaren portzentajerik altuenak, Eurostat-en arabera, Luxenburgon (%80), Japonian (%75), Suitzan (%70), Finlandian (%69), Txinan (%66) eta AEBn (%63) jasotzen dira.

I+G gastua jakintzagaiaren arabera. Berriro ere ingeniaritza eta teknologia nabarmentzen dira (gastu osoaren %75,4), eta haren oso atzetik datoz zientzia zehatzak %8,9rekin, medikuntza zientziak %8rekin, gizarte zientziak %4,1ekin, eta nekazal zientziak %3,6rekin. Hortik ikus daiteke 2004 eta 2005 artean nekazal zientzietan

II.2.19. GRAFIKOA. I+G ESFORTZUAREN ETA ENPLEGUAREN EBOLUZIOA EAEN



Iturria: Eustat.

[8] Kontuan hartu behar dugu Eustat-ek I+Gri buruzko estatistikak (ELGAko Frascatiren Eskuliburuan oinarrituak) egiteko darabilen metodologiak, enpresa sektorearen barruan, I+G jardueren atalean, hain zuzen ere, jarduera nagusia I+G daukaten erakundeak sartzen dituela, eta haien artean zentro teknologikoak, ingeniaritzak, etab. daude. Dena dela, hobe da zuhurra izatea, zaila baita Europako beste lurralde batzuetan EAEn dagoen zentro teknologikoen sarea bezalakorik aurkitzea. EITE zentroak pribatuak dira, eta adibidez, CSIC espainiar zentroak Administrzioaren mendeko zentro publikoak dira.

hazkunde nabarmena egon dela (+%60,2), aurreko urteko jaitsiera konpentsatuz, eta berriro ere medikuntza zientzietan hazkundea egon dela (+%26,7), aurreko urtekoa sendotuz.

I+G gastua jakintzagaiaren eta fondoen jatorriaren arabera. Ingeniaritza eta teknologiako ikerketa gehien bat sektore pribatuak finantzatzen du oraindik ere (enpresek eta zentro teknologikoek alor horretako gastuaren %74 finantzatzen dute). Gizarte zientzietan, medikuntza zientzietan eta zientzia zehatz/naturaletan kontrakoa gertatzen da; izan ere, Administrazioak, hurrenez hurren, %64, %65,8 eta %69,5 finantzatzen du.

Nekazal zientziei dagokienez, joera aldaketa ikusten da; haren arabera, sektore pribatuaren parte-hartzea garrantzitsuagoa bilakatu da gastuaren finantzazioari dagokionez. 2004. urtean sektore pribatuak gastuaren %17 besterik finantzatzen ez bazuen, 2005ean %43,2ra jaso da; Administrazioaren finantzazioa, bere aldetik, %75,3tik %50era pasatu da.

AOBko langileak I+Gn. Gorako bidean jarraitzen du. Horrela, 2005. urtean 12.506 pertsona izateraino iritsi da, hau da, biztanleria okupatuaren ÅÒ13,1 (‰12,8 aurreko urtean); Estatuan (‰9,2) eta EBn (‰10,3) jasotako milakoak baino altuagoa; eta herririk dinamikoenetan jasotzen diren balioetatik gertu eta are haien gainetik: Frantzia (‰13,8), Alemania (‰12,9), Japonia (‰13,5). Gertaera hau oso eragingarria da, aurreko urtearekiko jauzi kualitatibo handia egin baita.

AOBko[9] langileak I+Gn jakintzagaiaren arabera. 2004 eta 2005 bitartean, I+G jardueretako arduraldi osoko langileak berriro ere areagotu dira, %4,9, eta 2005. urtean, arestian aipatu legez, 12.505,5 langile izatera iritsi dira.

Haietarik, %62,5 (7.819,7 langile) ikertzaileak dira. EB-25ean, Eurostat-en datuen arabera, portzentaje hori %60 ingurukoa da. Alemanian, Italian eta Frantzian portzentaje txikiagoa da, baina erreferentziako beste herri batzuetan %65 baino gehiagokoa da: Finlandia eta Suedia (%69), Japonia (%77) eta Txina (%79).

EAEn arduraldi osoan lan egiten duten 12.205,5 plangile horietarik %71,6k ingeniaritza eta teknologiari lotutako jardueretan egiten dute lan, eta gainontzekoak zientzia zehatz eta naturalen (%10,7), gizarte zientzien (%6,3), medikuntza zientzien (%8,4) eta nekazal zientzien (%3) artean banatuta daude.

Ikerkuntzan emakumeak daukan lekuak gorantz jarraitzen du (2004. urtean baino portzentaje-puntu bat gehiago) baina oraindik dago gizonaren lekuaren azpian (%31,7 %68,3ren aurrean). Estatuan, INEren arabera, %37,8ra heltzen da. EAEn, emakumearen parte-hartzea oso deigarria da nekazal eta medikuntza zientzietan; ho-

II.2.32. KOADROA. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK, 2005 (*)

	Frantzia	Alemania	Italia	Japonia	Portugal	Espainia	Erres. Bat.	AEB	EB-25	ELGA	EAE 2004	EAE 2005
I+G gastuak												
EAP guztira (milioi)	34.059,4	53.186,1	15.318,9	96.382,8	1.423,8	11.197,1	28.154,9	267.146,8	184.939,6	679.782,8	854,9	913,0
BPGd-ren gain.(%)	2,13	2,51	1,10	3,20	0,81	1,13	1,77	2,67	1,85	2,24	1,43	1,43
Per cápita (PPS)	546,1	644,7	262,0	755,2	135,2	260,2	469,0	917,8	400,9	588,7	401,6	431,7
Gastuaren finantzaketa (%)												
Enpresak	51,7	66,8	43,0	74,5	31,7	46,3	43,9	61,4	54,3	61,6	66,0	63,8
Administrazioa	37,6	30,4	50,8	17,7	60,1	43,0	31,3	30,4	34,9	30,5	29,7	32,4
Beste iturriak	1,9	0,3	0,0	7,5	3,2	5,0	5,4	5,5	2,3	4,9	0,1	0,3
Atzerria	8,8	2,5	6,2	0,3	5,0	5,7	19,4	2,7	8,5	3,0	4,2	3,5
Gastuaren gauzatzea (%)												
Enpresak	62,9	70,4	47,3	75,0	35,6	53,8	64,9	70,1	63,5	67,3	79,1	79,4
Enpresak soilik											59,8	57,6
ZT											19,3	21,8
Administrazioa	16,7	13,2	17,5	9,3	15,2	17,0	9,9	12,2	13,3	10,9	3,2	3,4
Unibertsitatea	19,1	16,3	33,9	13,7	37,8	29,0	21,9	13,6	22,2	18,7	17,7	17,2
IAGEP	1,3	0,0	1,4	2,0	11,4	0,1	3,3	4,1	1,1	3,1	0,0	0,0

(*) 2005. urteko datuak edo eskuragarri dagoen azken urtekoak.
EAP= Eroste Ahalmenaren Parekotasuna
Iturria: Eustat "Ikerketa zientifikoari eta garapen teknologikoari buruzko Estatistika" eta Eurostat.

[9] Arduraldi osoarekiko baliokidea.

II.2.33. KOADROA. ARDURALDI OSOKO LANGILEAK I+G-N, 2005 (*)

	Frantzia	Alemania	Italia	Japonia	Portugal	Espainia	Erres. Bat.	AEB	EB-25	ELGA	EAE 2004	EAE 2005
Langileak (AOB)												
Guztira	346.078	469.100	161.828	882.414	27.385	174.773	—	—	2.040.667	—	11.925	12.506
Biztanleria okupatua (‰)	13,8	12,9	7,2	13,5	5,3	9,2	—	—	10,3	—	12,8	13,1
Ikertzaileak (AOB)												
Guztira	192.790	269.500	70.332	675.330	21.748	109.720	157.662	1.261.227	1.217.524	3.380.903	7.414	7.820
Biztanleria okupatua (‰)	7,7	7,4	3,1	10,4	4,2	5,8	5,6	9,0	6,2	6,6	8,0	8,2
I+Gko langileen (AOB) gaineko ikertzaileen %	55,7	57,5	43,5	76,5	79,4	62,8	—	—	59,7	—	62,2	62,5

(*) 2005. urteko datuak edo eskuragarri dagoen azken urtekoak.
AOB= Arduraldi osoarekiko baliokidea
Iturria: Eustat "Ikerketa zientifikoari eta garapen teknologikoari buruzko Estatistika" eta Eurostat.

II.2.34. KOADROA. AOB-KO LANGILEAK ZIENTZIA ARLOAREN ETA LANPOSTUAREN ARABERA

	2004		2005						aldakuntza %. 2004-2005				
	Guztira	emak.(a) %	Guztira z	Guztira %	emak.(b) %	Iker.	Teknik.	Lagun.	Guztira	emak. (b-a)	Iker.	Teknik.	Lagun.
Guztira	11.925,1	30,7	12.505,5	100,0	31,7	7.819,7	3.412,7	1.273,1	4,9	1,1	5,5	5,9	–1,3
Zientzia zehatz/naturalak	1.408,0	42,1	1.343,0	10,7	44,7	1.155,3	137,1	50,6	–4,6	2,7	0,4	–1,4	–1,9
Ingeniaritza/teknol.	8.518,2	25,1	8.953,3	71,6	25,6	4.954,4	2.965,3	1.033,6	5,1	0,5	6,2	5,1	–1,6
Medikuntza zientz.	906,4	48,0	1.044,4	8,4	49,4	809,6	138,4	96,4	15,2	1,4	7,0	1,6	2,6
Nekazal zientz.	271,9	44,2	380,3	3,0	49,7	242,7	94,1	43,5	39,9	5,5	63,1	0,7	–0,7
Gizarte zientz.	820,6	45,0	784,5	6,3	47,1	657,7	77,7	49,1	–4,4	2,0	–5,4	–0,1	0,4

Iturria: Eustat "I+G jarduerei buruzko Estatistika".

II.2.35. KOADROA. AOB-KO EMAKUMEAK ZIENTZIA ARLOAREN ETA HAIEN LANPOSTUAREN ARABERA, 2005

	Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak		2004-05 Aldakuntza		
	Guztira	emak.%	Guztira	emak.%	Guztira	emak.%	Ikertzaileak	Teknikariak	Laguntz.
Guztira	7.819,7	34,2	3.412,7	23,1	1.273,1	39,6	8,9	14,1	–0,7
Zien. zehatzak	1.155,3	44,0	137,1	39,2	50,6	75,3	5,3	–18,0	–13,0
Ingeniaritza	4.954,4	27,4	2.965,3	19,7	1.033,6	33,7	7,9	13,7	–4,4
Medik. zientz.	809,6	47,5	138,4	50,8	96,4	63,6	12,0	60,5	27,4
Nekazal zientz.	242,7	50,6	94,1	49,9	43,5	44,1	78,9	38,6	7,9
Gizarte zientz.	657,7	45,3	77,7	43,4	49,1	77,0	–1,0	–2,6	10,5

Iturria: Eustat "I+G jarduerei buruzko Estatistika".

rietan, hurrenez hurren, langile guztietarik %49,7 eta %49,4 emakumeak dira.

Lanpostua kontuan hartzen bada (ikertzaileak, teknikariak edo laguntzaileak), langile guztien gaineko emakume ikerlarien proportzioa oso deigarria da, berriro ere, nekazal zientzietan (%50,6), medikuntza zientzietan (%47,5) eta gizarte zientzietan (%45,3). Emakume ikertzaile eta teknikarien hazkundea esanguratsuagoa izan da nekazal eta medikuntza zientzietan.

Langileak I+Gn gauzatze-sektorearen arabera. 2004 eta 2005 bitartean %5,4 areagotu da, 19.331 langile izateraino. Enpresa sektorea da langile gehien darabilena. Horrela, I+G jardueretan diharduten langile guztien %48,4k enpresan egiten dute lan (aurreko urtean %49,3k), %31,5ek goi-mailako irakaskuntzako erakundeetan, %15,4k zentro teknologikoetan (aurreko urtean portzentajea %13,3koa zen) eta %4,7k Administrazio Publikoan.

EB-25ean, Eurostat-en datuen arabera eta arduraldi osoan, %53,7k enpresa sektorean egiten dute lan, %31k goi-mailako irakaskuntzako erakundeetan eta %14,3k Administrazioan.

Eustat-en datuen arabera, 2004. urtean emakumeen proportzioa %31,2koa zen eta 2005ean puntu bat egin zuen gora (%32,2 arte). Oro har sektore guztietan gora

egin arren, gauzatze-sektore bakoitzaren langile guztien gainean dagoen emakumeen proportzioa handiagoa da, berriro ere, unibertsitatean, zentro teknologikoetan eta administrazioan, baina kontrakoa gertatzen da enpresan (portzentajea %21,8koa da).

Ikertzaile-langile laguntzaile (teknikariak eta laguntzaileak) erlazioari dagokienez, datu hauek dauzkagu: Administrazioan 82-19; Goi-Mailako Irakaskuntzan 89-11; enpresa sektorean 47-53; eta zentro teknologikoetan 75-25.

2.2.2. EAEko enpresa sektorearen I+G+b jarduerak

Enpresa egitura guztiaren I+G adierazleak, zentro teknologikoenak izan ezik

Eustat-en datuen arabera, I+G jarduerak burutzen dituzten enpresak (zentro teknologikoak kontuan hartu barik) 1.053 dira (aurreko urtean 923 izan ziren); haietarik 635 industria sektorearen baitakoak dira eta 405 zerbitzuen sektorearen baitakoak. Hortaz, datuak eskuragarri dauden azken bi urteetan industrian eta eraikuntzan enpresa kopurua %8,6 handitu den bitartean, zerbitzuen sektorean hazkundea %19,2koa izan da.

2004. urtean, manufaktura-industriaren I+G gastuaren %70 gutxi gorabehera I+G intentsitate handi-ertaineko sektoreetan biltzen zen eta %21 intentsitate txiki-ertaineko sektoreetan gauzatzen zen. 2005ean, intentsitate handi-ertaineko sektoreek euren pisuaren puntu bi galdu dituzte txiki-ertainekoen mesedetan. Zerbitzuen sektorearen kasuan, "intentsitate handiko" jotzen diren jardueren multzoak, jarduera informatikoek eta I+Gkoek, alegia, euren pisuari eutsi diote gastu osoaren baitan, eta bien artean %19,3 inguru batzen dute.

Nabarmentzekoa da Eustat-en datuen arabera, EB-15ek esportaturiko high-tech produktuen EB-15en esportazio guztien gaineko portzentajeak beheranzko joera izan duela 2000. eta 2004. urteen artean: %20,6tik %17,7ra jaitsi da. Joera bera errepikatu da EB-25 osoaren baitan; bertan portzentajeak %21etik %18ra igaro dira. Espainiar Estatuari dagokionez, jaitsiera ehuneko puntu batekoa da: %8tik %7ra.

Beste urte batez, I+G jardueretan langile gehien darabiltzaten sektoreak honakoak dira: I+G jarduerak, bertan sektorean lan egiten duten langileen %20,4k zehazki jarduera horietan dihardute; doitasun-materiala, %9,41; material elektronikoa eta makina-erreminta, bietan %7; eta jarduera informatikoak, %5,22.

II.2.36. KOADROA. SEKTOREEN ZERRENDA I+G INTENTSITATEAREN ARABERA INE, ELGA ETA EUROSTAT-EN ZERRENDEN KONBINAZIOA

Handia	Industria farmazeutikoa Bulegoko makineria eta tresna informatikoak Osagai elektronikoak Irrati, telebista eta komunikazio gailuak Tresna medikuak, doitasunezkoak, optikoak eta erlojugintzakoak Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala
Ertaina-handia	Industria kimikoa industria farmazeutikoa izan ezikfarmacéutica Makineria eta tresneria Makineria eta tresna elektrikoak Automobilgintza Itsasontzigintza, trenbidegintza, motorgintza, bizikletagintza eta beste garraio-materialen eraikuntza
Ertaina-txikia	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa Kokearen, petrolio fintzearen produktuen eta erregai nuklearren fabrikazioa Itsasontzien eta beste ontzien eraikuntza eta konponketa Metalez egindako produktuen fabrikazioa, makineria eta tresneria izan ezik Metal arrunten fabrikazioa Kautxuzko eta plastikozko produk. fabrikazioa
Txikia	Papergintza eta paperezko produktuen fabrikazioa eta argitalpen eta inprimatze eta grabaketen erreprodukzio jarduerak Elikagaigintza, edarigintza eta tabakogintza Zurgintza eta zurezko eta kortxozko produktuen fabrikazioa, altzariak izan ezik Lastozko artikuluen eta material kordagarrien fabrikazioa Ehungintza, larru-zurraketa eta larru-adobatzea, maletagintza, esku-poltsen, talabarteria eta kuarnizioneriazko artikuluen fabrikazioa eta zapatagintza Altzarigintza, manufaktura-industriak ncp eta birziklatzea
Goi-teknologiaren edo puntakoaren zerbitzuak	Posta eta telekomunikazioak Jarduera informatikoak Ikerketa eta garapena

Iturria: INE (Metodología).

I+G jarduera arloa alde batera utzita —horren barruan jarduera nagusia I+G jarduerak burutzea daukan enpresa-jarduera (ingeniaritzak eta aholkularitza teknologikoak, alegia) sartzen da, eta hori dela eta bestelako profila, helburuak eta finantziazioa dauzkate—, ikusten da, batez beste, euskal enpresek neurri handi batean enpresaren beraren funtsen bitartez finantzatzen dituztela gastu horiek oraindik ere. Hala ere, zuhur jokatu behar da holako datuokin, ezin baita proiektu askoren finantzaketaren benetako jatorria zehaztu. Eustat-en hitzetan, gerta

daiteke enpresek elkarlanean diharduten proiektu jakin batzuetan finantzaketaren jatorria publikoa izatea.

Dena dela, adierazi behar dugu Administrazio Publikoaren finantzaketa (batez ere estatala eta autonomikoa) eta beste enpresetatik datorren finantzaketa gora doazela eta maila oso garrantzitsuak erdiesten ari direla.

Oso deigarria da "industria ez-metalikoaren" azpisektorearen kasua: 2005. urtean funtsen %53,1 kanpokoak dira (%34,2 Estatu Administrazioari dagozkio, %4,5 Autonomikoari eta %14,4 beste enpresei).

Enpresa sarearen berriztapena

Metodologiari dagokionez, kontuan hartu behar da:

- berriztapenaz hitz egiten denean, hori atal hauetan bereizi ohi dela: produktuarena, prozesuarena, unekoa eta huts egindakoa; baina enpresa berritzaileez ari garenean produktu eta prozesu berriztapenak dauzkaten enpresei buruz baino ez dugula hitz egiten, ez uneko berriztapenak edo huts egindakoak dauzkatenei buruz
- enpresa berritzaileen (hots, merkatuan produktu edo prozesu berriak edo hobetuak sartzen dituztenak) eta jarduera berritzaileak dauzkaten enpresen arteko desberdintasuna[10].

Jarduera berritzaileak produktu edo prozesu teknologikoki berriak edo hobetuak egitera zuzentzen diren edo zuzendu nahi diren lan zientifiko, teknologiko, antolakuntzazko, finantzario eta komertzialen multzoa da, ezagutza berrietarako inbertsioa barne. Haien artean zazpi hauek kokatzen dira: barneko I+G; I+Gren eskuratzea (edo kanpoko I+G); makineria eta tresneriaren eskuratzea; kanpoko beste ezagutzen eskuratzea, lizentzia, patente eta *copyright* moduan; prestakuntza; berriztapenen merkatu-

II.2.37. KOADROA. ENPRESA SEKTOREAREN I+G ADIERAZLEAK ZENTRO TEKNOLOGIKORIK GABE JARDUERA ARLOAREN ARABERA

	Enpresa kop.		AOB langileak. (a)		Barne Gastuaren banaketa (guztira eurotan eta zutabeak % bertikala da)		Berariazko funtsak %		Kanpoko funtsak %		EAEko enplegu osoa (b)	I+Gn erabilitako langileak EAEn a/b (%)
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2005	2005
Guztira	**923**	**1.053**	**6.403,30**	**6.613,10**	**460.366**	**474.322**	**80,1**	**73,7**	**19,9**	**26,3**	**858.620**	**0,77**
Nekazaritza, abeltzain. eta arrantza, erauzk. eta energia	12	13	72,8	64	2,0	1,1	93,7	74,4	6,3	25,6	4.708	1,36
Industria eta eraikuntza	585	635	4.013,30	4.092,70	64,6	63,2	86,8	79,9	13,2	20,1	302.988	1,35
Kimika eta petrolio fintzea	42	53	276,9	299,1	3,8	3,9	92,3	81	7,7	19	6.568	4,55
Kautxua eta plastikoa	33	46	134	195,4	1,7	2,6	89,7	89,9	10,3	10,1	17.507	1,12
Industria ez-metalikoa	19	16	67,8	71,7	1,5	1,1	86,4	47	13,6	53	6.449	1,11
Metalurgia	48	53	221,3	248	4,7	4,6	82,4	83,8	17,6	16,2	22.721	1,09
Metalezko artikuluak	98	113	505,3	533,8	5,9	6,6	92,1	89,1	7,9	10,9	53.656	0,99
Makina-erreminta	30	34	286,8	317,2	4,0	3,9	86,8	82,1	13,2	17,9	4.534	7,00
Etxeko tresnak	6	7	254	245,2	4,4	4,6	85,9	95,2	14,1	4,8	6.576	3,73
Bestelako makineria	81	84	370,4	372,6	8,8	6,0	96,1	88,8	3,9	11,2	19.157	1,94
Material elektrikoa	42	42	323,4	327,8	4,0	4,2	88,6	88,2	11,4	11,8	9.496	3,45
Material elektronikoa	13	13	240,5	233,3	2,8	2,7	92,3	90,6	7,7	9,4	3.332	7,00
Doitasunezko materiala	31	35	351	413,4	4,4	5,7	90,1	83,3	9,9	16,7	4.392	9,41
Garraio-materiala	36	34	714,1	627,5	15,9	14,7	77	59,2	23	40,8	21.125	2,97
Bestelako manufaktur.	75	83	165,8	173,4	2,3	2,1	83,8	85,9	16,2	14,1	44.040	0,39
Eraikuntza	19	22	29,2	34,3	0,4	0,5	72,7	84,3	27,3	15,7	83.435	0,04
Zerbitzuak	338	405	2.390,00	2.456,40	33,2	36,7	66,8	62,7	33,2	37,3	550.924	0,45
Jarduera informatikoa	78	92	513,5	593,3	5,4	6,0	73,8	65,7	26,2	34,3	11.370	5,22
I+G jarduerak	39	35	785	673,8	14,0	13,3	71,5	62,9	28,5	37,1	3.305	20,39
Bestelako enpresa-jarduerak	127	150	640,7	655,7	8,8	9,7	52,6	53,7	47,4	46,3	87.971	0,75
Bestelako zerbitzuak	94	128	450,8	533,6	5,0	6,6	71,1	73	28,9	27	448.278	0,12

Iturria: Eustat "I+G jarduerei buruzko Estatistika".

[10] Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Nazoiz Gaindiko Sare Atlantikoaren (RTA) Berriztapen Taldean daukan partaidetza dela eta uste batzuk baiezta ditzakegu; uste horiek gureak ez ezik berriztapenaren azterketari lotuta dagoen talde multzo garrantzitsu batenak ere badira. Enpresa askok berriztapena bakar-bakarrik zientzia eta teknologiari lotutako kontzeptu jotzen dute. Era horretan, haietako askok, produktuaren etengabeko hobekuntzarako prozesuan, are produktu berrien garapenerako prozesuan egoteagatik berriztatu arren, ez dute horren kontzientziarik. Horren ondorioz, enpresa horiek ez dira berriztapenaren estatistiketan kontuan hartzen eta euren burua integratu zitezkeen zirkuitu berritzaileetatik kanpo uzten dute.

ratzea; eta diseinua, ekoizpenerako edota banaketarako bestelako prestaketak.

Eustat-en arabera[11], 2003-2005 aldian enpresen %16,9 dira berritzaileak (2002-2004 aldian, %16,8). Bizkaia eta Gipuzkoa lurralde historikorik berritzaileenak dira, eta bertan, hurrenez hurren, enpresen %17,6k eta %16,5ek adierazten dute berriztapen teknologikoak garatu dituztela.

9 langilez gorako enpresak baino ez baditugu kontuan hartzen, enpresa berritzaileen portzentaje globala %33,3ra iristen da (%31,9 2002-2004 aldian).

INEren datuen arabera[12], 2003-2005 aldian Estatuan 9 langilez gorako enpresen %27 dira produktu edo prozesu berritzaileak eta EAEn %29,11. Gauzak horrela, EAEn enpresa berritzaileen portzentajea Estatukoena baino 2,11 puntu gorago dago.

EB-27n, Eurostat-en datuen arabera, 2002-2004 aldian, 9 langilez gorako enpresen %42 ziren produktu edo prozesu berritzaileak. Enpresa berritzaileen proportziorik handiena daukaten herrien artean Alemania (%65), Austria (%53), Danimarka, Irlanda eta Luxenburgo (%52 bakoitza), Belgika (%51) eta Suedia (%50) daude. Portzentajerik txikienak Bulgarian (%16), Letonian (%18), Errumanian (%20), Hungarian eta Maltan (%21 bakoitza) gertatzen dira. Espainiar estatuan, iturri horren arabera, %35era iristen da.

Ikuspuntu sektorial batetik, 2003-2005 aldian, eta aurrekoan (2002-2004) ikusitakoaren ildotik, industriak jarduera-sektore garrantzitsuena izaten jarraitzen badu ere (establezimendu guztien %23,1 eta 9 langilez gorakoen %39,9 berritzaileak dira), zerbitzuen sektorea posizioak irabazten doa: establezimendu guztien %17,4 eta 9 langilez gorakoen %35,7 berritzaileak dira.

II.2.20. Grafikoa. Produktu edo prozesuen berriztapenerako jarduerak dauzkaten enpresen %, 2002-2004 (9 langilez gorako enpresak)



Iturria: Eurostat.

[11] Berriztapen Teknologikoari buruzko Inkesta hau edozein tamaina eta jarduera-sektoretako euskal enpresei zuzendutakoa da, lehen sektorea, administrazio publikoa eta etxeko zerbitzua izan ezik (kontuan hartu INEk ez bezala irakaskuntza **osoa** hartzen duela). Hots, populazio eremua honakoa da: edozein tamainatako eta jarduera-sektore hauetako establezimentuak, CNAE-93 Rev.1 delakoaren arabera: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Hortaz, kanpoan uzten ditu: lehen sektorea (A eta B), administrazio publikoa (L) eta etxeko zerbitzua (P).

[12] Enpresetako Berriztapen Teknologikoari buruzko Inkestak 2005 arte ez zuen Irakaskuntza arloa aintzat hartzen, eta urte horretan Irakaskuntza arloko enpresak ere sartzen dira (0. Atala, CNAE-93ren arabera), 8030 arloko enpresak izan ezik (Goi-Mailako Irakaskuntza). Eustat-ek, aitzitik, irakaskuntza sektore **osoa** hartu du tradizioz. Ondorioz, 2005. urtera arte, INEren Estatistikarekin erkatzerakoan desitxuratzeko elementu garrantzitsua izan da, eta 2005. urtean hori zuzendu bada ere, ez da erabateko zuzenketa ez baitu 8030 arloa bere baitan hartzen.

II.2.38. KOADROA. BERRITZAILEAK DIREN ENPRESA/ESTABLEZIMENDUEN % LURRALDE HISTORIKOAREN, JARDUERA SEKTOREAREN ETA BERRIZTAPEN TEKOLOGIKO MOTAREN ARABERA (P). 2003-2005

	Establezimendu/enpresa guztiak						9 langilez gorako establezimenduak/enpresak					
	Berriztapen teknologiko mota					Establez. berri-tzaileak	Berriztapen teknologiko mota					Establez. berri-tzaileak
	Guztira	Produk-tukoa	Proze-sukoa	Bidean	Huts egindakoa		Guztira	Produk-tukoa	Proze-sukoa	Bidean	Huts egindakoa	
Guztira	17,1	5,7	15,4	2,3	1,7	16,9	35,2	14,3	27,7	11,2	4,1	33,3
Lurralde Historikoa												
Araba	15,4	5,1	13,5	1,9	1,9	15,1	35,9	14,1	29,2	13,1	5,6	33,8
Bizkaia	17,8	5,4	16,0	2,1	2,1	17,6	34,4	14,0	26,4	10,5	3,6	32,4
Gipuzkoa	16,7	6,3	15,2	2,7	1,2	16,5	36,1	14,8	28,9	11,2	4,1	34,3
Jarduera sektorea												
Industria	23,9	10,9	16,6	7,1	2,1	23,1	42,8	22,7	29,4	19,0	6,9	39,9
Eraikuntza	10,8	2,8	10,7	2,9	0,0	10,7	8,9	1,9	6,8	2,6	0,5	7,3
Zerbitzuak	17,5	5,6	16,1	1,7	2,0	17,4	37,1	12,6	31,6	8,9	3,4	35,7
Irakaskuntza	37,8	4,7	37,2	3,7	1,6	37,4	81,5	17,2	79,3	13,7	5,8	80,0

(p) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "Berriztapen Teknologikoari buruzko Inkesta-BTI".

II.2.21. GRAFIKOA. BERRIZTAPENAREN ERAGIN EKONOMIKOA, 2003-2005



Iturria: Eustat.

Jarduera azpi-sektoreen arabera, berriro ere nabarmentzen dira, industrian: Papergintza, argitalpena eta inprimatzea (establezimenduen %47,4) eta Industria kimikoa (%44,3). Zerbitzuei dagokienez: Irakaskuntza (%37,4) eta Enpresentzako zerbitzuak (%24,8)

Berriztapen teknologikoaren motaren arabera bereiziz gero, prozesu berriztapenak berriro ere nagusitzen zaizkie produktu berriztapenei, bai 9 langilez gorako establezimenduetan bai 9z azpikoetan. Zehazki, establezimendu guztietatik, prozesu berriztapenak egin izana adierazten dutenen portzentajea %15,4koa da (%14,9 aurreko aldian), eta produktu berriztapena egin dutenena %5,7koa baino ez da. 9 langilez gorako establezimenduen portzentaje horiek handiagoak dira, baina berriro nagusitzen zaizkie prozesu berriztapenak produktu berriztapenei (%27,7 prozesu berriztapenei dagokienez, eta %14,3 produktukoei dagokienez).

Hirugarren CISen (Community Innovation Survey[13]) datuek guztiz kontrako emaitza adierazten dute. Produktu berriztapenak dauzkaten enpresen portzentajea %10ekoa da eta prozesu berriztapenak dauzkaten enpresena %7koa da. Laugarren CISek ez du holako informaziorik jaso.

Produktu berritzaileak burutzen dituzten enpresetan haiek daukaten eragina negozio guztien gaineko %22koa da; aldaketarik gabeko edo oso aldaketa txikiko produktuena, ostera, gainontzeko %78koa. Produktu berriztapenaren kasuan, enpresarentzat izateaz gain merkatuarentzat ere baldin bada, batez besteko eragin ekonomikoa %14,8koa da.

10 langilez gorako enpresetan portzentaje horiek apur bat desberdinak dira: produktu berriek edo hobekuntza nabarmenekoek negozio guztien gainean daukaten batez besteko eragina %20,4koa da. Produktua merkatuarentzat ere berria bada, batez besteko eragin ekonomikoa %7,9koa da.

[13] Lau urtean behin egiten da, azkena laugarrena da eta haren emaitzak hedatzeko bidean daude.

2005ean berriztapen teknologikorako jardueren gastu osoa, Eustat-en arabera, 2.161 milioi eurotara iritsi zen, BPGd-ren %3,8, alegia; portzentaje hori 2004. urteko bera da eta 2003koaren azpitik dago (%3,9).

Gastu horren zatirik handiena, barneko I+Gra eta makineriaren erosketara doa (%38,4 bakoitzean), eta bakoitza BPGd-ren %1,4 da. Industria eta zerbitzuen sektoreak gastu bolumenik handiena daukatenak dira berriz ere, 1.007 milioi euro bakoitzak. Hala ere, industriaren gastuak %4,5 gora egin duen bitartean, zerbitzuen sektoreak %2,2 behera egin du.

Eustat-en datuek adierazten dute enpresaren tamainak gora egin ahala gastuak ere gora egiten duela, baina aldi berean ikusten da batez ere 3 eta 9 langile bitarteko enpresak direla aktiboak (seguruenik enpresei zerbitzuak ematen dizkieten enpresak dira, bereziki berritzaileak izan ohi baitira) eta 50 eta 99 bitartekoak ez direla hain aktiboak.

INEk horretaz eskainitako informazioak banatzeko bestelako maila darabil (250 langile baino gutxiago dauzkaten enpresak eta 250 langile edo gehiago dauzkatenak) eta haren arabera ikusten da Estatu osoan ez bezala, bertan 250 langilez azpiko enpresek berriztapen jardueretako gastu osoari egiten dioten ekarpena jaisten ari baita (2003an %46,3 izatetik, 2005ean %40,4 izatera igaro da), EAEn kontrakoa gertatzen dela. ETEen pisua 2003an %38,4koa izatetik 2005ean %52,8koa izatera igaro da. Balio absolutuetan, 2005ean ETEek 1.348,1 milioi euroetatik 636,7 gastatu zuten holako jardueretan; hori 2004koarekiko %18ko igoera da.

Eustat-en datuen arabera, finantzaketa publikoa jaso duten enpresa berritzaileen portzentajeak behera egin du 2001-2003 eta 2003-2005 aldietan, eta %36,8tik %27,9ra pasatu da. Laguntzen jatorriaren arabera, establezimendu kopuru handienari laguntzen dion administrazioa Eusko Jaurlaritza da, haren pisua Administrazio Zentrala eta EB bezalako beste iturrien alde jaitsi bada ere.

Berriztapen lankidetzari dagokionez, adierazi behar da tamaina txikiko establezimenduetan ez dela ia gertatzen. Berriztapena burutu duten establezimenduen %3,4k baino ez dute I+G berriztapen jardueretarako lankidetza akordiorik sinatu.

Berriztapena egin duten 10 langilez gorako establezimenduetan, ordea, lankidetza haietako %20ra iritsi da. Langile kopuru hori dutenetan aipagarria da Zentro teknologikoekin (%66,6), ekipamendu, material, etab. hornitzaileekin (%41,5), enpresa beraren beste establezimenduekin (%34,5) eta Unibertsitate eta beste institutuekin (%33,1) egiten den lankidetza.

Eursotat-en datuen arabera, EB-27ko 9 langilez gorako enpresa berritzaileen %26k lankidetza egiten dute berritzerakoan, 2002-2004 aldian. Lankidetza mailarik altuenak Lituanian (enpresa berritzaileen %56), Eslovenian (%47) eta Finlandian ikusi dira, eta baxuenak Italian (%13) eta Alemanian (%16).

Lankide ohikoenak hornitzaileak dira (enpresa berritzaileen %17k baieztatzen dute) eta ondoren bezeroak (%14). Oro har, euren artean goi-mailako irakaskuntzako

II.2.39. Koadroa. Berriztapen tegnologikoko jardueretarako gastua jarduera arloaren, tamainaren eta jarduera motaren arabera (gastuaren gaineko %)

	Guztira (mila €)		Barneko I+G		Kanpoko I+G		Makineria		Bestelako ezagutzak		Trebakuntza		Merkatura.		Diseinua eta prest.	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
Guztira	2.010.243	2.161.666	38,3	38,4	11,4	13,5	39,6	38,4	2,8	3,3	2,1	1,7	4,6	2,7	1,2	1,9
BPGd-ren gaineko gastu osoa (%)	3,8	3,8	1,4	1,4	0,4	0,5	1,5	1,4	0,1	0,1	0,1	0,1	0,2	0,1	0,0	0,1
Jarduera sektorea																
Industria	964.631	1.007.745	28,5	31,9	11,9	13,1	53,6	47,0	1,1	3,0	1,1	0,9	2,6	2,5	1,2	1,6
Eraikuntza	15.840	146.746	2,0	1,8	9,3	1,8	72,3	95,4	8,2	0,1	7,0	0,2	1,2	0,0	—	0,7
Zerbitzuak	1.029.772	1.007.176	48,0	50,2	11,0	15,7	26,0	21,4	4,2	4,2	2,9	2,8	6,6	3,3	1,2	2,4
Langile kopurua																
0 - 2	53.055	53.438	0,9	0,0	0,1	2,8	91,3	90,8	3,0	0,7	1,6	3,9	2,8	0,7	0,4	1,1
3 - 9	393.607	430.432	41,0	23,0	10,6	21,6	26,0	44,3	4,9	1,1	2,8	2,3	14,4	6,0	0,2	1,7
10 - 19	157.962	125.724	31,9	34,9	20,7	21,4	32,5	30,0	6,9	4,4	2,9	2,6	2,9	3,3	2,2	3,5
20 - 49	204.095	304.981	28,8	37,1	12,0	11,2	47,3	41,5	2,8	2,4	3,5	2,7	4,1	3,1	1,4	1,9
50 - 99	153.839	184.519	47,6	52,9	15,3	8,4	24,3	23,4	4,8	6,1	3,1	2,2	3,6	2,5	1,3	4,6
100dik gora	947.685	1.062.573	44,8	44,8	11,3	11,4	38,9	36,0	0,8	4,1	1,3	0,9	1,4	1,4	1,5	1,4

Iturria: Eustat "Berriztapen Teknologikoari buruzko Inkesta-BTI".

II.2.22. GRAFIKOA. JARDUERA BERRITZAILEETAKO GASTUAREN BANAKETA ENPRESA TAMAINAREN ARABERA



Iturria: INE.

erakundeekin, gobernuarekin edo ikerketa zentroekin baino askoz lankidetza gutxiago daukate.

Berritzeko zailtasunei dagokienez, euskal enpresa berritzaileen erdiek uste dute zailtzen duten eragileak daudela. 10 langile edo gehiago dituzten enpresen artean horrelako zailtasunak ikusten dituztenen portzentajea %64,5eraino iristen da.

Oro har, enpresa berritzaileen sarearentzat oztopo nagusiak honakoak ageri dira: eragile ekonomikoak (enpresen %44,3k aipatzen dituzte), berriztapena egiteak dakartzan kostu handiak (%41,1ek), gehiegizko arrisku ekonomikoak (%34,7k), barne eragileak (%31,7k) eta berriztapen iturri falta (%30,5ek).

Europar Berriztapen Indizea

Europar Berriztapen Indizeak (European Innovation Scoreboard) herrien ekonomiek berritzeko daukaten gaitasunaren eta berriztapen jarduerak burutzearen gradua neurtzen du. Bost dimentsiotan egituratzen da: haietariko hiruk berriztapenerako elementu eragileak edo inputa balioesten dituzte: abiarazleak, ezagutza sorkuntza eta berriztapenerako enpresa ekimena; beste dimentsio biek emaitzak edo outputa ebaluatzen dituzte: berriztapenaren erabilera eta jabego intelektuala.

Horrek berak 25 adierazle darabiltza, indize konposatu batean, aipatu dimentsioen pisua islatzeko.

Eustat-ek ateratako datuen arabera, EAE 13. postuan dago kokatuta, EB-27ren baitan, eta haren SII 0,35 da (gehienezko 1,00 gainean). EB-27ren batez bestekoa 2006an 0,45 dela kalkulatzen da.

Berriztapenean aitzindari diren herrien artean, honakoak daude: Suedia 0,73rekin, Finlandia 0,68rekin, Danimarka 0,63rekin, eta Alemania 0,59rekin. Europar Batasunekoa izatea aintzat hartu ezean, multzo horretan Suitza, 0,69, eta Japonia, 0,61, ere badaude.

Bigarren multzo batean, 0,48 eta 0,54 bitarteko puntuazioekin, europar batez bestekoaren gainetik, alegia, Frantzia, Erresuma Batua, Herbehereak, Belgika, Irlanda, Luxenburgo, Austria eta Islandia daude; Estatu Batuak multzo horren buru leudeke.

"Berriztapenaren eragileak" dimentsioan, EAE hauengatik nabarmentzen da:

- Zientzia eta ingeniaritza ikasketa tituludunen ratio handia (Bigarren Graduko LH barne), 26,1 20 eta 29 urte bitarteko mila gazteko, Europako tasa milako 12,7koa den bitartean.
- Etengabeko prestakuntza jasotzen duen 25 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren tasa txikiagoa: %4,9 EB-27ko %11ren aurrean.

"Ezagutzaren sorkuntza" dimentsioan, gure erkidegoa hauengatik nabarmentzen da:

- Euskal enpresa berritzaileek Europako batez bestekoak baino finantzaketa publiko gehiago jasotzen dute (%13,6 %10,6 aurrean).

II.2.40. KOADROA. JARDUERA BERRITZAILEETARAKO GASTU TOTALAK ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (MILA EURO)

	2003		2004		2005		2004-05 aldakuntza	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Guztira	11.198.505	1.062.815	12.490.813	1.186.154	13.635.950	1.348.099	9,2	13,7
250 langile baino gutxiago	5.180.224	408.296	5.569.910	602.591	5.502.355	711.316	–1,2	18,0
250 langile edo gehiago	6.018.281	654.519	6.920.903	583.562	8.133.595	636.783	17,5	9,1

Iturria: INE.

II.2.41. KOADROA. BERRIZTAPENA ETA BERRIZTAPENERAKO ELKARLANA 2002-04

	Berriztapen jarduerak dauzkaten enpresen %	Berriztapenean lankidetza daukaten enpresa berritzaileen %	Bazkideak			
			Hornitzaileak	Bezeroak	Unibertsit. eta Goi-Mailako Irakask. Erakundeak	Gobernuak edo Ikerketa Zentro Publikoak
		berriztapenerako lankidetza daukaten enpresen %				
EB27	42	26	17	14	9	6
Belgika	51	36	26	21	13	9
Bulgaria	16	22	16	13	6	4
Txekiar Errepublika *	38	38	31	26	13	7
Danimarka	52	43	28	28	14	7
Alemania	65	16	7	8	8	4
Estonia	49	35	23	23	9	6
Irlanda	52	32	23	25	10	6
Grezia	36	24	11	8	6	2
Espainia	35	18	9	4	5	5
Frantzia	33	40	26	20	10	7
Italia	36	13	7	5	5	1
Txipre	46	37	24	4	2	2
Letonia	18	39	33	29	14	12
Lituania	29	56	45	35	12	10
Luxenburgo	52	30	24	22	10	8
Hungaria	21	37	26	20	14	5
Malta	21	32	22	17	4	4
Herbehereak	34	39	30	22	12	9
Austria	53	17	7	8	10	5
Polonia	25	42	28	16	6	9
Portugal	41	19	14	12	8	5
Errumania	20	17	14	10	4	4
Eslovenia	27	47	38	33	19	13
Eslovakia	23	38	32	30	15	11
Finlandia	43	44	41	41	33	26
Suedia	50	43	32	28	17	6
Erresuma Batua	43	31	23	22	10	8
Islandia	52	29	20	20	5	13
Norvegia	37	33	23	22	15	16

Txekiar Errepublikaren datua 2003-05i dagokio.
*** 10 langilez azpiko enpresak izan ezik.**
Iturria: Fourth Community Innovation Survey.

II.2.42. KOADROA. BERRIZTAPENA OZTOPATZEN DUTEN ERAGILEAK EAE-N, 2003-2005 (ENPRESEN %)

	Guztira	10 langile edo gehia.
Berriztapena zailtzen duten eragileak daude	50,0	64,5
Eragile ekonomikoak	44,3	54,9
Gehiegizko arrisku ekonomikoak	34,7	40,7
Berriztapen kostu handiak	41,1	50,1
Berriztapen iturri falta	30,5	34,9
Barne eragileak	31,7	45,6
Antolakuntza zurrunak	15,3	21,2
Langile kualifikatu falta	19,3	26,5
Teknologiari buruzko informazio falta	18,4	24,2
Merkatuei buruzko informazio falta	16,9	22,6
Bestelako eragileak	29,7	33,9
Arauen malgutasun falta	18,3	21,9
Bezeroen sentsibilitate falta	23,5	25,3

Iturria: Eustat "Berriztapen teknologikoari buruzko Inkesta-BTI".

- Industriako teknologia ertaineko eta goi-teknologiako I+G inbertsioa txikiagoa da I+G gastu osoaren gainean: %71 EB-27ko batez besteko %89,2 aurrean.
- Europako erakunde publikoek BPGd-ren %0,65 I+Gn gauzatzen dute, portzentaje hori euskal erakundeen kasuan erdira murrizten den bitartean, %0,3. Hala ere, sektore pribatuan kontzeptu berari dagokion gauzatzea ez dago oso urrun: %1,14 EAEn eta %1,20 Europan.

"Enpresa ekimena eta berriztapena" dimentsioan aldeak oro har ez dira esanguratsuak:

- Arrisku Kapitalari eskainitako BPGd-ren portzentajea hasierako faseetan berdin-berdina da (%0,02).
- 10 eta 249 langile bitarteko euskal enpresa berritzaileek Europako batez bestekoak baino barne berriztapen gehixeago burutzen du (%26,7 %25,4 aurrean),

II.2.23. GRAFIKOA. FINANTZAZIO PUBLIKOA JASOTZEN DUTEN ENPRESEN % JATORRIAREN ARABERA



Iturria: Eustat.

II.2.24. GRAFIKOA. BERRIZTAPENAREN DIMENTSIOAK EAE-N ETA EB-25EAN. EUROPAR BERRIZTAPEN INDIZEA 2006 (SII)



Iturria: Eustat eta Maastrich Economic Research Institute on Innovation and Technology eta EB.

baina salmenten gaineko berriztapenerako gastua, 10 langile edo gehiagoko enpresetan, apur bat txikiagoa da (%1,6 eta %2 EB-25ean).

Beste enpresekiko edo erakundeekiko lankidetza, eta goi-teknologiako enpresen esportatzeko joera txikiagoak dira EAEn Europan baino.

"Jabego intelektuala" azken dimentsioari dagokionez, Europako batez besteko proportzioaren gainetik erregistratzen dira diseinuak eta markak (%24 eta 18 gehiago); baina europar bulegoko (EPO) patente erregistroari dagokionez, europar tasaren erdira besterik ez da iristen, eta bosten batera amerikar patente bulegoa (USPTO) kontuan hartzen badugu.

Bestalde, 7 berriztapen adierazle besterik ez daukan azpimultzo bat erabilita, Maastricht Economic Research Institute on Innovation and Technology-k (MERIT) eta Europako Batzordeak eskualdekako beste berriztapen adierazle sintetiko bat (RIS) garatu dute. Aztertutako 203 europar eskualdetatik, EAE 55. tokian dago, Madrilgo Erkidegoa 31.ean, Nafarroa 76. tokian geratzen da, eta Katalunia 82.ean. Suediako Estokolmoko eta Västsverigeko eskualdeak eta Alemaniako Oberbayenekoa eskualdekako sailkapenaren buruan daude.

2.2.3. Ekipamenduak eta IKTren erabilerak EAEko etxeetan eta biztanleen artean

Etxeak

IKT ekipamendu maila familietan. Eustat-en Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak erakusten du, beste urte batez, etxeko IKT ekipamenduen mailak gora jarraitzen duela, bideoaren kasuan izan ezik, DVDa beza-

II.2.25. GRAFIKOA. EUROPAR BERRIZTAPEN INDIZEA, 2006 (SII). EAE ETA EB-27



Iturria: Eustat eta Maastrich Economic Research Institute on Innovation and Technology eta EB.

lako ordezkoen agerpena dela-eta. Gora egin dute ordenagailuaren barneratzeak (2003ko hirugarren hiruhilekoan %46,2koa zen eta 2006ko hiruhileko berean %53koa), internetenak (%30,8tik %40,6ra), teletestuarenak (%70,9tik %79,6ra), ordainpeko telebistarenak (%6,1etik %15,2ra) eta telefono mugikorrarenak (%75,1etik %85,6ra). Antena parabolikoak, bere aldetik, LTG[14] bezalako ordezko produktua egon arren eta aurreko aldi bietan ikusitako murrizketaren aurrean (2004ko laugarren hiruhilekoa eta 2005eko laugarren hiruhilekoa), 2005 eta 2006ko azken hiruhilekoan 1,4 puntu egin du gora.

INEren bigarren boladako datuen arabera, 2006. urtean telefono finkoa daukaten etxeen portzentajeari dagokionez EAE erkidegoen sailkapeneko lehen tokian dago (%92,4); ordenagailua daukatenei dagokienez, laugarrena da (%60), Madril, Katalunia eta Melillaren atzetik; telefono mugikorrari dagokionez, bosgarrena, Madril, Katalunia, Murtzia eta Valentziaren atzetik; interneteko sarbideari dagokionez, seigarrena, Madril, Melilla, Katalunia, Ceuta eta Balear Uharteen atzetik; eta bederatzigarrena banda zabaleko sarbidea daukaten etxeen portzentajeari dagokionez.

2006ko lehen hiruhilekoari dagozkion Eustat-en datuen arabera, gutxienez 16 eta 74 bitarteko kide bat daukaten EBko etxeen %51ek interneteko sarbidea daukate, eta %32k banda zabaleko sarbidea daukate. Horren ondorioz, EAEk kokapen erlatibo ona dauka banda zabaleko sarbideari dagokionez (%33,1) eta batez bestekotik apur bat azpitik dago interneteko sarbideari dagokionez (%45,7). Bestalde, erreferentzia diren Suedia, Finlandia, Danimarka, Alemania eta Erresuma Batua bezalako herrien balioetatik urrun dago oraindik; are EBn sartu berri diren Eslovenia eta Malta bezalako batzuetatik.

IKT ekipamendu maila familia motaren arabera. Aurreko urteetan ikusitako joerari jarraitzen dio, eta horrela, ordenagailuaren, interneten eta telefono mugikorraren barneratzea seme-alabadun zein seme-alabarik gabeko familietan areagotzen da; oraindik seme-alabadun familiak dira ekipamendu mailarik altuenak dauzkatenak. Izan ere, 2005eko laugarren hiruhilekoan seme-alabadun familien %96,1k daukate telefono mugikorra, %71,7k ordenagailua eta %53,5ek internet; urtebete geroago, portzentajeak %97,6, %74,7 eta %58,4koak dira.

[14] Lurreko Telebista Digitala.

II.2.26. GRAFIKOA. FAMILIAK ETXEKO IKT EKIPAMENDUEN ARABERA



Iturria: Eustat, IGIF

Seme-alabarik gabeko bikoteak bigarren tokian daude, baina lehengo familietatik urrun daude aipatu ekipamenduei dagokienez, baita telefono mugikorrari dagokionez ere (hurrenez hurren, %81,5, %34,1 eta %25,5).

Bestalde, kide bakarreko etxeak hirugarren tokian daude, baina aurreko aldian ez bezala, barneratze tasa gora doa hiru ekipamenduei dagokienez. Gauzak horrela, telefono mugikorraren kasuan %62,2ra iristen da, ordenagailuaren kasuan %20,4ra eta Interneten kasuan %13,8ra.

15 urte edo gehiagoko biztanleria. Ordenagailuaren, interneteko sarbidearen eta erabileraren barneratzea

IKT ekipamenduen etxe/familietako barneratzearekin gertatutakoaren ildo beretik, 14 urtez gorako biztanleen arteko barneratzeak zabaltzeko bidean jarraitzen du, bideoaren kasuari eta antena parabolikoen hegazkortasunari dagokienez izan ezik.

PCaren eta interneteko sarbidearen esparruetara mugatuz, ikusten da 2003ko azken hiruhilekoaren eta 2005eko azkenaren artean, ordenagailuaren barneratzeak 6,7 puntu egin duela gora eta biztanleria horren %62,7renganaino iritsi da. Etxean interneterako sarbidea daukaten 15 urte edo gehiagoko biztanleei dagokienez, portzentajea %39,5etik %49,3ra igaro da.

Interneten erabiltzaileak[15] 15 urte edo gehiagoko biztanleen %41,6 dira, eta horrek aurreko urtearekiko (37,6%) lau puntuko igoera esan nahi du.

INEren datuen arabera, EAEk erabilerari dagokionez[16] gora jarraitzen du, %50era iritsiz, baina toki bat

II.2.43. KOADROA. ETXEBIZITZEN GARAPENARI BURUZKO DATUAK (2006 2. BOLADA) ERKIDEGO AUTONOMOAREN ETA EKIPAMENDU MOTAREN ARABERA

	Ordenagailu	Interneteko sarbidea	Banda zabaleko sarbidea	Telefono finkoa	Telefono mugikorra
Estatu osoa	58,4	41,1	32,6	82,8	89,1
Andaluzia	54,6	35,3	28,7	75,3	87,4
Aragoi	57,1	42,0	33,0	90,6	87,3
Asturias (Printzerria)	57,1	41,4	34,5	84,8	89,1
Balear Uharteak	58,0	45,8	39,6	84,3	89,4
Kanariar Uharteak	58,4	41,3	35,1	79,2	88,3
Kantabria	58,0	43,6	33,6	84,8	88,6
Gaztela eta Leon	52,9	34,2	25,1	83,2	84,2
Gaztela-Mantxa	53,5	33,2	24,7	76,5	87,3
Katalunia	62,1	48,1	39,4	86,0	91,4
Valentziako Erkidegoa	54,9	36,5	28,7	78,4	90,0
Extremadura	48,3	25,5	17,7	75,7	86,8
Galizia	52,9	30,7	21,9	83,7	83,5
Madril	69,6	54,3	44,3	91,1	93,9
Murtzia	56,4	33,4	26,8	71,2	90,2
Nafarroa	57,5	42,6	29,5	91,1	88,8
EAE	60,6	45,7	33,1	92,4	89,8
Errioxa	58,6	40,2	28,7	83,3	86,2
Ceuta	56,4	48,1	45,1	74,0	85,9
Melilla	60,8	48,2	43,0	73,0	88,7

Iturria: INE.

[15] Azken hiru hiletan inoiz konektatu direnak, hau da, hori eta etxean konexioa daukaten pertsona kopurua ez dira gauza bera, bi aldagai desberdin sartzen baitira: konektatzea eta etxea ez diren beste puntu batzuetatik konektatu ahal izatea.

[16] Kasu honetan azken 3 hiletan internet erabili duten pertsona guztien kopuruari dagokio.

II.2.44. KOADROA. EB-KO HERRIETAKO EMAITZAK. 2006 (ETXEEN %)

	EB	BE	BUL	CZ	DK	DE	EE	GR	ES	FR	IR	IT	CH	LV	LT	LU	HU	MA	NL	AT	PL	PT	SI	SK	FI	SE	UK
Internet sarbidea	51	54	17	29	79	67	46	23	39	41	50	40	37	42	35	70	32	53	80	52	36	35	54	27	65	77	63
Banda zabal. sarbidea	32	48	10	17	63	34	37	4	29	30	13	16	12	23	19	44	22	40	66	33	22	24	34	11	53	51	44

Iturria: Eurostat eta INE.

II.2.27. GRAFIKOA. ETXEAN ORDENAGAILUA, INTERNET ETA TELEFONO MUGIKORRA DAUZKATEN FAMILIEN % FAMILIA MOTAREN ARABERA



Iturria: Eustat, IGI

II.2.28. GRAFIKOA. 15 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA ETXEKO IKT EKIPAMENDUEN ARABERA (%)



Iturria: Eustat, IGIF

galdu du, bosgarrenetik seigarrenera igaro baita. Gauzak horrela, Estatuako batez bestekoaren gainetik (%48,6) kokatzen da, baina Madrilen (%60,9), Kataluniaren (%53,9), Balear Uharteen (%53,7), Melillaren (%53,6) eta Nafarroaren (2006ko bigarren boladan EAE gainditu du, %50,2rekin) azpitik.

Eurostat-en (2006ko 2. bolada) eta INEren datuak gurutzatuz, atera daiteke, interneteko sarbidearekin gertatu bezala, erabilerari dagokionez EAEk EB-25eko batez bestekotik gertuko kokapen erlatiboa daukala, gutxienez 16 eta 74 urte bitarteko kide bat daukaten etxeen %47 (EB-25), baina EB-15etik urrunagokoa: %49; eta oraindik bide luzea dauka Holandan, Danimarkan, Suedian, Luxenburgon, Alemanian edo Finlandian ematen diren portzentajeetara iristeko: %70 gainetik daude.

Aurreko urteetan bezala, generoaren, adinaren, ikasketa mailaren eta lan egoeraren araberako ikerketatik zera atera daiteke: oraindik ere aldeak daude, bai barneratzeari zein erabilerari dagokionez, eta horrek taldeen arteko arrail digitala iraunarazten du eta gizarte talde desberdinen ongizatea baldintza dezake.

Generoaren araberako barneratzea: Ordenagailuaren eta interneten barneratze tasek gora egin dute 2006. urtean aurreko urtearekiko, 15 urte edo gehiagoko bai gizonezkoen bai emakumezkoen artean. Hala ere, barneratze tasak handiagoak dira gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. Izan ere, 2004. urteko laugarren hiruhilekoan ikusitako tasa biak gerturatzeko joeraren ondoren, 2005eko hiruhileko berean desberdintasuna 5,7 puntukoa izan zen, gizonezkoen alde, ordenagailuari dagokionez, eta 3,8 puntukoa interneteko sarbideari dagokionez. 2006ko laugarren hiruhilekoari dagozkion datuek berriro erakusten dute sexu bien arteko desberdintasuna, gizonezkoen alde, aurreko urtekoa baino txikiagoa izan arren. Horrela, gizonezkoen kasuan ordenagailuaren barneratze tasa %64,5ekoa da, eta emakumezkoen kasuan %61ekoa (3,5 puntuko aldea); interneteko sarbideari dagokionez, tasa %50,9koa da gizonezkoen kasuan eta %47,7koa emakumezkoen kasuan (3,2 puntuko aldea).

II.2.29. GRAFIKOA. INTERNETEKO OHIKO ERABILTZAILEEN % AZKEN 3 HILETAN



Iturria: Eurostat eta INE.

Interneten erabilera generoaren arabera: Tasek genero bientzat egiten dute gora eta bien artean dagoen aldea murriztu egin da 2005. urtearekiko, baina 2004an ikusitako mailetara iritsi gabe. Beraz, oraindik ere gizonezkoak dira kokapen hobea daukatenak (2004. urtean desberdintasuna 6,1 puntukoa bazen, gizonezkoen alde, 2005ean 7,8 puntukoa izan zen, eta 2006an 7,1ekoa). 2006ko azken hiruhilekoan, erabilera tasa %45,3ra iritsi da gizonezkoei dagokienez, eta %38,1era emakumeei dagokienez.

EBn, Eurostat-en 2006rako datuen arabera, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea, interneten erabilerari dagokionez, handiagoa da: 9 puntukoa gizonezkoen alde, bai EB-15ean (%53 eta %44) bai EB-25ean (%51 eta %42). Alde baikorrari begira, aipa daiteke 2005. urtean gizonezkoen aldeko desberdintasunak handiagoak zirela, 11 EB-25i dagokionez, eta 12 EB-15en kasuan.

Adinaren araberako barneratzea: Berriz ere, ordenagailua eta interneteko sarbidea dauzkan biztanleriaren portzentajeek adinarekin batera egiten dute behera (tasek urtez urte hobera egin arren, adin talde bakoitzeko). Horrela, oso handiak dira 15-24 urteko adin tartean, hurrenez hurren 2,3 eta 3,3 puntu egiten dute gora 2005 eta 2006 urteen artean, eta %89,3 eta %72,8ra iristen dira hurrenez hurren. 25 eta 44 urte bitartekoen taldea bigarren tokian kokatzen da, eta aldakuntza tasak gorakoak dira oraindik; horrek ordenagailuaren kasuan %70 eta interneten kasuan %50 gainditzen duten barneratze tasak dakartza. 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokionez, berriz, barneratzea oso murritza da oraindik, %49,1 eta %39,6 hurrenez hurren.

Interneten erabilera adinaren arabera: Erabilera ratioek ere behera egiten dute adinarekin batera, baina kasu honetan adin txikiagoko eta handiagoko tarteen arteko aldeak nabarmenagoak dira. Horrela, EAEko 15 eta 24 urte bitarteko biztanleen %83,1 erabiltzaile dira, 45 urtez gorakoen artean %19,4 diren bitartean; gainera, talde bien arteko aldeak apur bat gora egin du aurreko urteko aldi berarekiko, 61,5 puntutik 63,7 puntura.

Ikasketa mailaren araberako barneratzea: Ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan handiagoa da ordenagailuaren eta interneten barneratzea, eta bakoitzaren tasak gora egin du aurreko urtearekiko. Horrela, goi-mailako ikasketak dauzkaten 15 urtez gorako biztanleen %86,4k (%84,1ek aurreko urteko aldi berean) ordenagailua daukaten bitartean, portzentaje hau %71,8ra jaisten da bigarren mailako ikasketak dauzkaten biztanleen kasuan (%69,4 aurreko urtean) eta %34,3ra (%32,7 2005ean) lehen mailako ikasketak baino ez dauzkatenen kasuan. Interneteko sarbideari dagokionez, portaera antzekoa da, portzentajeak txikiagoak badira ere: %73,1 goi-mailako ikasketak dauzkatenei dagokienez, %54,9 bigarren mailako ikasketak dauzkatenei dagokienez, eta %39,6 lehen mailako ikasketak baino ez dauzkatenei dagokienez.

Interneten erabilera ikasketa mailaren arabera: Oso deigarria da ikustea azken urte bietako (2005 eta 2006) erreferentzia-aldi berberak (laugarren hiruhilekoa) erkatzerakoan, lehen mailako ikasketak dauzkaten biztanleen taldean erabilera tasak behera egin duela (%4,1etik %3,9ra jausi da). Beste kasu bietan, bigarren mailako eta goi-mailako ikasketetan, portzentajeak handiak eta gorakoak dira —ikasketa mailarekin batera eta aurreko urteko aldi berarekiko—.

Lan egoeraren araberako barneratzea: Ikasten edota lanean diharduten taldeak dira, berriz ere, ordenagailuaren eta interneteko sarbidearen barneratze tasa handienak dauzkatenak, eta bakoitzaren tasak jaitsi egiten dira pertsona ez-aktibo edota langabetuei dagokie-

II.2.45. KOADROA. EAE-KO 14 URTEZ GORAKO BIZTANLERIARI DAGOKION ORDENAGAILUAREN ETA INTERNETEKO SARBIDE ETA ERABILERAREN BARNERATZEA EZAUGARRIEN ARABERA (%)

		Ordenagailua etxean					Internet									
							Interneteko sarbidea etxean					Erabilera				
		IV 2005	IV 2006	Urteko aldea	Batez best. rekiko aldea 2005	Batez best. rekiko aldea 2006	IV 2005	IV 2006	Urteko aldea	Batez best. rekiko aldea 2005	Batez best. rekiko aldea 2006	IV 2005	IV 2006	Urteko aldea	Batez best. rekiko aldea 2005	Batez best. rekiko aldea 2006
15 urte edo gehiagoko biztanleria		60,1	62,0	1,9	0,0	0,0	45,1	48,6	–60,1	0,0	0,0	37,6	41,6	4,0	0,0	0,0
Sexua	Gizon	63,0	64,5	1,5	2,9	2,5	47,0	50,9	3,9	1,9	2,3	41,6	45,3	3,7	4,0	3,7
	Emakume	57,3	61,0	3,7	–2,8	–1	43,2	47,7	4,5	–1,9	–0,9	33,8	38,1	4,3	–3,8	–3,5
Adina	15-24	87,0	89,3	2,3	26,9	27,3	69,5	72,8	3,3	24,4	24,2	78,5	83,1	4,6	40,9	41,5
	25-34	72,9	76,1	3,2	12,8	14,1	52,7	58,3	5,6	7,6	9,7	59,7	69,7	10,0	22,1	28,1
	35-44	68,4	72,1	3,7	8,3	10,1	49,8	53,7	3,9	4,7	5,1	47,2	52,0	4,8	9,6	10,4
	45 eta gehi.	46,4	49,1	2,7	–13,7	–12,9	35,1	39,6	4,5	–10,0	–9,0	17,0	19,4	2,4	–20,6	–22,2
Ikasketa maila	Lehen m.	32,7	34,3	1,6	–27,4	–27,7	22,9	25,6	2,7	–22,2	–23,0	4,1	3,9	–0,2	–33,5	–37,7
	Bigarren m.	69,4	71,8	2,4	9,3	9,8	49,7	54,9	5,2	4,6	6,3	43,9	50,2	6,3	6,3	8,6
	Goi-maila	84,1	86,4	2,3	24,0	24,4	70,6	73,1	2,5	25,5	24,5	77,5	80,6	3,1	39,9	39,0
Lan egoera	Ikaslea	93,0	95,0	2,0	32,9	33,0	76,3	82,4	6,1	31,2	33,8	87,5	93,6	6,1	49,9	52,0
	Lanean	72,4	75,3	2,9	12,3	13,3	54,5	59,0	4,5	9,4	10,4	49,6	55,4	5,8	12,0	13,8
	Ez-aktib. /langab.	36,6	39,4	2,8	–23,5	–22,6	25,8	29,4	3,6	–19,3	–19,2	10,7	12,5	1,8	–26,9	–29,1

Iturria: Eustat "IGIF".

nez. Ikasleei dagokienez, ordenagailuaren barneratze tasa %95ekoa eta interneteko sarbidearena %82,4koa diren bitartean, ez-aktibo/langabetuei dagokienez, %40koa eta %30ekoa dira, hurrenez hurren.

Interneten erabilera lan egoeraren arabera: Arestian adierazitako egoeraren antzekoa ikusten da interneten erabilerari buruz; ikasten diharduten pertsonen %93,6 interneten erabiltzaile dira; aitzitik, langabezian edo egoera ez-aktiboan daudenen %12,5ek baino ez dute erabiltzen. Oso nabarmena da ikustea ikasleen erabilera ratioa sarbidearena baino handiagoa dela (%93,6 eta %82,4), eta horren azalpena da etxea ez diren puntuetatik sartzen direla.

Bestalde, ikusten da gizarte talde guztietan interneten erabileraren portzentajeek gora egiten duten arren, gizarte taldearen araberako aldeak oraindik direla handiagoak erabilerari dagokionez sarbideari dagokionez baino (beste era batera esanda, gizarte talde bakoitzean internet erabiltzen duten biztanleen portzentajearen eta internet erabiltzen duten 15 urte edo gehiagoko biztanle guztien portzentajearen arteko aldea beti da sarbideari dagokion haien aldea baino handiagoa), eta egoera hori areagotzen ari dela dirudi (batez bestekoarekiko aldeak handiagoak dira 2006an 2005ean baino). Laburbilduz, aurreko urteetan zera ikusi ahal izan dugu: "sarbide arrailari" "erabilera arrail" konplexuagoa batzen zaiola; kroniko bihurtzeko joera dauka talde behartsuenetan.

2.2.4. Ekipamenduak eta IKT erabilerak enpresetan

IKT oinarrizko hornidura (PC, posta elektronikoa, internet eta telefono mugikorra) enpresetan

Enpresetan egindako Informazioaren Gizarteari buruzko azken Inkestak (IGI-Enpresak) —seigarren urtez jarraian 2006. urteko lehen hiruhilekoan burutu du Eustatek[17]— erakutsi du, 2004. urtean euskal enpresetan IKT ekipamenduak sartzeko prozesua moteldu ostean, azken urte bietan hazkundeak berpiztu egin direla.

Oraindik ere ekipamendurik hedatuena telefono mugikorra da, eta haren atzetik datoz ordenagailu pertsonala, interneteko sarbidea eta posta elektronikoa. Horrela, establezimendu mailan, euren langileen esku telefono mugikorra jartzen dutenen portzentajea %72,8koa da

[17] Haren populazio eremua beren jarduera EAEn burutzen duten edozein tamainatako eta edozein jarduera sektoretako establezimenduak dira, lehen sektorea eta etxeko zerbitzua izan ezik.

II.2.30. Grafikoa. IKT ekipamenduen eboluzioa EAEko establezimenduetan jarduera sektorearen arabera (establezimenduen %)



Iturria: IGI enpresak.

(gogoratu behar da 2003 eta 2004 artean haren barneratzea murriztu egin zela). Ordenagailu pertsonala daukatenena %68,6koa da. Internet daukatenena berriro hazi da, kasu honetan 4,5 puntu, eta %56,4ra iritsi da, eta posta elektronikoa daukatenena ere 4 puntu hazi da eta %52ra iritsi da. Jarduera sektoreen arabera, berriz ere industria nagusitzen da beste guztien artean, baina deigarria da telefono mugikorraren barneratzeak eraikuntzan daukan hedapena, aurreko urtearekiko 1,4 puntu gora egin badu ere.

II.2.46. Koadroa. Informazioaren teknologietarako enpresen ekipamendua (IKTak dauzkaten langileen %)

	Ordenagailu pertsonala				Posta elektronikoa				Internet			
	2004	2005	2006	ald.	2004	2005	2006	ald.	2004	2005	2006	ald.
Guztira (% langile)	53,1	55,8	58,9	3,1	38,6	43,0	47,3	4,3	38,6	42,9	47,2	4,3
Industria	40,9	41,7	44,6	2,9	29,6	31,9	37,0	5,1	26,8	28,2	33,2	5,0
Eraikuntza	34,8	38,8	43,8	5,0	22,7	27,4	30,8	3,4	23,9	31,2	35,7	4,5
Zerbitzuak	61,3	64,4	67,4	3,0	45,0	50,1	54,3	4,2	46,1	51,1	54,9	3,8

Iturria: Eustat IGI-Enpresak.

Cuadro II.2.47. Enpresen IKT ekipamendua tamainaren arabera (IKTak dauzkaten establezimendu edo langileen %)

	Ordenagailu pertsonala				Posta elektronikoa				Internet			
	% establ.		% langile		% establ.		% langile		% establ.		% langile	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Guztira	64,5	68,6	55,8	58,9	48,0	52,0	43,0	47,3	51,9	56,4	42,9	47,2
0 - 2	55,3	59,9	49,6	52,4	38,3	42,1	33,2	35,4	42,7	47,5	37,5	40,9
3 - 9	82,4	84,3	57,2	60,3	63,9	67,6	41,3	43,5	67,8	70,7	44,1	46,3
10 - 19	96,4	96,5	55,4	57,4	88,0	89,4	41,3	45,6	86,8	90,2	43,4	47,3
20 - 49	96,9	97,9	54,9	61,2	93,7	94,1	41,7	49,9	92,9	93,9	45,3	53,7
50 - 99	99,6	99,6	57,4	58,9	98,9	99,0	49,5	52,0	99,4	98,6	51,5	50,9
≥ 100	99,3	99,5	58,3	61,3	99,2	99,2	48,4	54,7	98,5	98,2	39,9	46,7

Iturria: Eustat IGI-Enpresak.

Lurralde historikoei dagokienez, aldeak oso esanguratsuak izan ez arren, Araba da hazkunde portzentajerik handienak izan dituena eta azkenean lortu du bere establezimenduetan teknologia horien ekipamendu maila handiagoa.

Bestalde, teknologia horiek darabiltzaten langileen kopurua ere hazi egin da. Langileen ia %59k ordenagailu pertsonala daukate, %47,3k posta elektronikoa eta %47,2k internet. Jarduera sektoreen arabera, beste urte batez, eta aurreko urtean ez bezala, zerbitzuen sektorea nabarmentzen da, langile gehienak bulegoan baitaude, eta bertan egiten baita holako ekipamenduen erabilerarik handiena. Hori, batez ere, zerbitzuen sektorean ekipamendu maila oso handiak dauzkaten jarduerak daudelako gertatzen da. Haien artean aipatzekoak dira teknologia berriei, finantza-bitartekaritzari eta enpresentzako zerbitzuei lotutakoak.

Langile kopuruaren araberako azterketak zera erakusten du: hasteko, langile kopuru guztietan hazkunde esanguratsuak gertatu arren, establezimenduek, langile kopurua handitzen den heinean, hazkunde txikiagoak dauzkatela, ekipamenduak hobetzeko aukera murritza dela-eta. Bestalde, aipatu aldeak gehiago ikusten dira establezimenduei begira langileei begira baino. Beste arrazoien artean, hori establezimendu txikien aurrerakuntza handiagoagatik eta handietan langile guztiek ekipamendu horiei heltzerik ez edukitzeagatik gertatzen da.

Joera hori Europa mailan ere ikusten da; bertan, "*Use of the Internet among individuals and enterprises", Eurostat 12/2006*" txostenaren arabera, 2005. urtean, europar herri gehienetan, interneteko barneratzea asetze puntura iritsia zen bai enpresa handietan zein ETEetan.

IKT espezializatuagoen hornidura

Aurreko urteetako ildo beretik, eta IKT espezializatu gehienen[18] barneratze mailak oraindik txikiak diren arren, guztien erabileran ikusten da hazkundea. Oraindik ere erabilienak fondoen transferentzia elektronikoa (establezimenduen %33,5ek daukate), sare lokala edo zabaldua (establezimenduen %32,9k) eta intranet (establezimenduen &15,5ek) dira. Haririk gabeko sarearen (wireless) edo estraneten hedapena oraindik hasi berriak dira, hurrenez hurren, establezimenduen %8,1ek (jauzi kualitatibo handia eman du, aurreko urtean haren barneratzea %5 ingurukoa baitzen) eta %6,6k.

Teknologia horiek hedatuago daude industria eta zerbitzuen sektoreetan eraikuntzan baino. Izan ere, industriak eta zerbitzuek gutxi gorabehera antzeko portaera daukate, aldaketa txikiekin teknologia motaren arabera.

II.2.48. KOADROA. ESTABLEZIMENDUEN % SARE EKIPAMENDUAREN ETA TRUKAKETA INFORMATIKO ETA ELEKTRONIKOAREN ARABERA

	Sare lokala edo zabaldua		Haririk gabeko sarea (wireless)		Sare birtual pribatua edo balio gehigarri.		Intranet		Estranet		Funtsen transferentzia elektronikoa		Datuen trukaketa elektronikoa (EDI)	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Guztira	27,6	32,9	4,8	8,1	6,4	7,2	13,6	15,5	5,5	6,6	30,6	33,5	7,7	10,3
Industria	38,3	42,7	5,7	10,1	9,3	9,1	17,4	17,0	5,6	6,3	31,4	35,9	9,0	13,0
Eraikuntza	17,0	19,8	2,3	2,3	1,5	2,0	4,8	6,5	2,4	2,4	14,8	13,9	3,7	3,5
Zerbitzuak	28,1	34,3	5,1	8,9	7,0	7,9	14,6	17,0	6,0	7,4	33,2	36,9	8,2	11,3
Langile kopurua														
0 - 2	15,4	21,2	2,7	5,5	3,3	3,6	5,9	8,0	2,4	3,6	23,4	26,5	4,1	6,4
3 - 9	48,4	51,3	7,3	11,2	9,7	10,8	24,9	25,9	9,5	10,1	45,3	46,4	12,6	15,0
10 - 19	70,2	73,9	10,8	16,0	17,2	19,7	43,0	41,4	16,9	18,0	52,8	53,2	19,8	23,4
20 - 49	84,8	85,8	19,7	21,8	31,1	28,8	52,3	50,8	23,6	23,2	51,6	55,6	28,5	31,8
50 - 99	94,8	93,0	26,4	31,1	38,2	43,9	73,3	67,1	30,2	33,3	56,8	62,2	36,0	48,3
≥ 100	97,8	97,1	32,9	44,1	51,3	60,7	84,4	82,0	47,4	45,1	67,6	66,4	55,9	57,9

Iturria: Eustat IGI-Enpresak.

[18] Sare lokalak (LAN: Local area network) edo sare zabalduak (WAN: Wide area network), intranet (barne komunikazioetarako sarea, Interneten protokolo berean oinarritua eta barne komunikazioak ahalbidetzen dituena), estranet (intranet baten luzapen babestua, kanpoko erabiltzaileei bere elementu batzuetara iristen uzten diena), funtsen transferentzia elektronikoa, terminal baten, telefono baten, ordenagailu baten edo banda magnetiko baten laguntzaz; datu informatizatuen trukaketa (EDI: e-merkataritza errazten duten aplikazioen lehen generazioa jotzen dira, eta enpresen eta hornitzaileen datu trukaketa automatikoa ahalbidetzen dute, baina behar den azpiegituraren kostuak direla-eta, enpresa handietara mugatu dira).

Establezimenduen tamaina berriro bihurtzen da horrelako teknologien barneratzea azaltzeko funtsezko aldagaia. Izan ere, horrelako teknologiak, euren ezaugarriak direla-eta, tamaina handiagoko erakundeei lotuta doaz. Horrela, 99 langilez gorako enpresetan sare lokalaren barneratzea %97,1era iristen da, eta 3 langilez azpikoetan %21,2koa baino ez da; sare birtuala 99 langilez gorako enpresen ia %61ek darabilte, eta haren erabilera ez da %4ra iristen 3 langilez azpikoetan; antzeko portaera ikusten da datuen trukaketa elektronikoari dagokionez.

IKTen erabilera enpresetan: interneten erabilera

Euskal enpresek interneti ematen dizkioten erabilera motei dagokienez, lehen tokian dokumentazioaren bilaketa daukagu (%92,7), bigarrenean banku- edo finantza-informazioaren eskuratzea (%66,9), eta hirugarrenean banku- edo finantza-transferentzien burutzea (%60,7). Bigarren multzo batean Administrazio Publikoarekin egindako tramiteak (%42,2), hornitzaile-bezeroen datu baseetarako sarbidea (%39,5) eta produktu digitalen jasotzea edo jaistea (%37,7) daude.

Kasu horietan guztietan, tamaina handiagoko enpresen artean bizitasun apur bat handiagoa ikusten da, 9 langile baino gehiago dauzkatenen artean, alegia.

Ikusten da establezimenduen portzentajeak gora egiten duela erabilera mota guztietan salbuespenik gabe, 2005 eta 2006 bitartean.

Jarduera sektoreen artean bereiziz, atera daiteke industria dela beste guztien artean nagusitzen dena erabilera guztietan, dokumentazioa bilatzeko interneten erabileran (horretan eraikuntza sektoreak jarraitzen du nagusi izaten), prestakuntza materialetarako sarbidean (batez ere zerbitzuen sektorea nabarmentzen da), ondasun eta zerbitzuen erosketan (horri dagokionez zerbitzuen sektorea eta eraikuntza nabarmentzen dira), eta saldu osteko zerbitzuen eskuratzean (honetan ere zerbitzuen sektorea eta eraikuntza nabarmentzen dira) izan ezik.

Teknologia berriez enpresek egiten duten erabilera aztertzerakoan beste adierazle garrantzitsu bat da enpresok interneten daukaten presentzia, euren zerbitzarian daukaten webgune baten zein kanpoko zerbitzari bateko webgune baten bitartez. Eustat-ek kaleratu dituen azken datuek 3,3 puntuko hazkundea erakusten dute 2005 eta 2006 bitartean, aurreko hazkundearen ia berdina, 3,4 puntukoa izan baitzen. Horrela, interneteko sarbidea daukaten establezimenduen %23,1ek web orria daukate. Haietarik %10,4k kanpoko zerbitzari batean daukate.

Portzentaje horiek establezimenduen tamainarekin batera handitzen dira (0 eta 3 langile bitarteko establezimenduen %13,5etik, 100 langilez gorakoen %89,7raino - %48k euren ostalarian-) eta jarduera sektoreen arabera aldatzen dira: industriak webguneak izateko daukan eskuragarritasuna zerbait handiagoa den bitartean, eraikuntzan haien presentzia murritza da.

Establezimenduen webguneek eskaintzen dituzten zerbitzuei dagokienez, Eustat-en datuen arabera, gehien-gehienek (%97k) enpresari buruzko informazio orokorra eta enpresari buruzko zerrenda edo katalogo orokorra (%86,4k) eskaintzen dituzte. Bigarren tokian,

II.2.49. KOADROA. INTERNETERAKO SARBIDEA DAUKATEN ESTABLEZIMENDUEN % EAE-N ERABILERA MOTAREN ARABERA

	Guztira								9 langilez gora	
	% establ.		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak		% establ.	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Dokumentazioaren bilaketa	91,7	92,7	90,9	94,1	92,0	96,4	91,8	91,9	94,1	94,6
Hornitzaile-bezeroen datu baseetarako sarbidea	33,9	39,5	37,0	44,3	30,2	38,3	34,1	39,2	41,4	48,4
Prestakuntza materialetarako sarbidea	21,1	25,1	15,5	20,0	16,5	15,6	22,5	27,2	28,6	37,0
Ondasun eta zerbitzuen erosketa	13,1	16,9	12,5	18,0	7,8	9,4	13,9	18,0	12,0	18,5
Ondasun eta zerbitzuen salmenta	3,2	3,4	5,6	5,8	0,2	0,3	3,3	3,6	4,5	5,4
Admin. Publikoarekin egindako tramiteak	39,5	42,2	46,2	49,4	31,7	34,7	39,7	42,5	66,0	71,3
Banku- edo finantza-informaz. eskuratzea	61,5	66,9	75,5	80,5	54,9	63,5	60,5	65,7	73,7	76,9
Lehiakideen azterketa	19,2	22,4	27,2	30,7	12,3	14,4	19,1	22,6	30,1	36,0
Langileak biltzea	8,0	10,1	7,9	12,0	5,4	6,7	8,3	10,4	17,1	21,3
Saldu osteko zerbitzuak eskuratzea	10,5	14,5	11,8	15,6	5,3	7,5	11,1	15,5	18,1	20,1
Produktu digitalak jaso edo jaistea	33,4	37,3	36,5	39,2	24,0	26,1	34,3	38,8	45,3	47,9
Banku/finantza-eragiketak burutzea	55,4	60,7	70,9	75,6	48,6	58,8	54,2	59,1	70,3	75,2

Iturria: Eustat "IGI-Enpresak".

II.2.50. KOADROA. ESTABLEZIMENDUAK SEKTOREAREN ETA LANGILE KOPURUAREN ARABERA ETA WEBGUNEAREN ESKURAGARRITASUNA DE PAGINA WEB

	Guztira			Norberarena			Ostalarian		
	2002	2005	2006	2002	2005	2006	2002	2005	2006
Guztira	**9,6**	**19,8**	**23,1**	**6,7**	**11,7**	**12,7**	**2,9**	**8,1**	**10,4**
Jarduera sektorea									
Industria	15,0	26,4	30,5	9,5	13,0	13,0	5,5	13,4	17,6
Eraikuntza	1,6	9,4	9,7	1,1	5,7	4,4	0,5	3,8	5,3
Zerbitzuak	10,2	20,8	24,7	7,3	12,5	14,2	3,0	8,3	10,5
Langile kopurua									
0 - 2	4,8	10,7	13,5	3,3	5,9	7,6	1,6	4,8	6,0
3 - 9	16,5	33,7	37,0	11,8	21,3	20,7	4,6	12,4	16,3
10 - 19	30,8	55,2	57,5	21,6	31,8	29,5	9,2	23,4	28,0
20 - 49	42,4	64,9	67,5	31,6	36,4	34,9	10,8	28,5	32,6
50 - 99	64,5	80,7	84,2	43,2	46,0	43,1	21,3	34,7	41,1
100 ≤	74,5	87,1	89,7	53,0	54,9	48,0	21,5	32,3	41,7

Iturria: Eustat "IGI-Enpresak".

II.2.51. KOADROA. WEBGUNEA DAUKATEN ESTABLEZIMENDUEN % SEKTOREAREN, TAMAINAREN ETA ESKAINITAKO ZERBITZUEN ARABERA

	Guztira								9 langilez gorako establezim.	
	Guztira		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak			
	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Enpresari buruzko informazio orokorra	97,3	96,9	98,3	95,3	95,5	96,3	97,3	97,1	98,7	97,2
Ondasun edo zerbitz. zerrenda edo katal.	85,2	86,4	85,1	82,2	65,3	83,0	86,8	87,2	88,7	88,5
Produktu/zerbitzuen ordainketa zuzena	9,0	11,2	5,0	4,8	0,1	0,8	10,3	12,8	8,3	9,1
Eskarien jarraipena	11,2	15,3	8,7	7,5	10,7	6,8	11,6	17,0	11,2	13,0
Saldu osteko zerbitzua	19,7	24,0	13,5	18,7	9,9	9,8	21,3	25,8	19,0	23,7
Produktu digitalen banaketa zuzena	7,3	8,1	4,2	4,5	5,2	6,2	7,9	8,7	7,7	8,0
Transakzio babestuak	22,8	20,5	13,3	11,7	11,3	12,6	25,0	22,2	25,7	21,2
Informaz. pribatutasunaren adierazpena	35,7	37,2	23,5	25,0	10,0	22,7	39,4	39,9	39,0	41,2
Lan eskaintzari buruzko informazioa	19,4	21,5	5,5	7,3	13,1	13,6	21,8	24,0	26,6	27,3

Iturria: Eustat "IGI-Enpresak".

establezimenduen %21,5-%37,2k eskaintzen dituzten beste zerbitzu batzuk daude: transakzio babestuak, lan eskaintzari buruzko informazioa, saldu osteko zerbitzua eta informazioaren pribatutasunaren adierazpena. Eta hirugarren tokian establezimenduen webguneen %8-%15ek dauzkaten bestelako zerbitzu eta edukiak daude, hala nola produktuen banaketa zuzena, produktu/zerbitzuen ordainketa zuzena eta eskarien jarraipena. Azken batean, azken urtearen eta aurrekoen artean ez da ikusten aldaketarik zerbitzu batzuen eta besteen arteko nagusitasunari dagokionez.

Zerbitzuen sektoreko establezimenduek zerbitzu eskaintzaren ezarpen eta ugaritasun handiagoa eskaintzen dutela ikusten da, industria sektorearen oso gainetik. Eraikuntza sektorekoek, berriz, lehen eduki multzokoak baino ez dituzte eskaintzen, eta gainera haien ezarpena batez bestekoaren azpitik dago, enpresari buruzko informazio orokorrari eta enpresaren zerrenda edo katalogoari dagokienez izan ezik.

Bukatzeko, berriro adierazi behar dugu enpresen sarbide tasa altua izan arren, IKTek ahalbidetzen dituzten merkataritza digitalaren prozesuetara eta lerroko jardueretara gutxi jotzen dela. Izan ere, enpresa askok oraindik ere internet informatzeko eta lerroko banku-operazioak egiteko baino ez darabilte. Eskaera elektronikoetarako sistemen eta beste funtzioen edota hornitzaile eta bezeroen integrazioaren barne integrazioa oraindik da ezohikoa eta 9 langilez gorako enpresetan baino ez da ohikoa.

Horren ondorioz, ELGAk "Information Technology Outlook 2004" bere txostenean, aplikazio aurreratuenekiko "arrail digitala" sortzeko arriskuaz ohartarazten zuen.

2006ko txostenean, aipatzen du sareen, softwareren eta hardwareren etengabeko hobekuntzek, zerbitzu mugikorrak eta haririk gabekoak barne, eta edukien babeserako sistemek eduki digital berrien garapena ahalbidetu dutela, baina etorkizunerako erronka edukien garatzaileen, tresnen ekoizleen eta banatzaileen arteko elkarlana dela. Horren ondorioz, elkarreragingarritasuna eta bateragarritasuna irtenbide azkarra behar duten arazoak dira.

Bestalde, aipatu txostenean, ELGAk adierazi du IKTen inguruko estatu estrategiak gero eta horizontalagoak direla, hau da, garapen ekonomikorako gainontzeko politikekin uztartzen direla. Herriek IKTetarako sarbide, kualifikazio eta eduki maila handiagoak lortzen dituzten heinean, helburua alderdi horietan gehiago sakontzea da, banda zabalaren, kualifikazio aurreratuagoen eta eduki sofistikatuagoen bitartez. Horren ondorioz, lehentasunak honakoei daude lotuta: I+G berriztapena, teknologiaren hedapena, IKTko kualifikazioa, eduki digitalak, industria eskubideen babesa eta banda zabala.

2.2.5. EAEko merkataritza elektronikoa[19]. Familiak eta erabiltzaileak

2006ko lehen seihilekoari dagokion INEren lehen datu boladaren arabera, EAEn, inkestaren erreferentziazko azken hiru hilabeteetan interneteko erabiltzaileen kopuruak behera egin badu ere (2005 eta 2006 bitartean), eta zenbaki absolutuetan, interneten bidez erosketak egin dituzten pertsonen kopuruak ere behera egin duen arren, horrelako erosketa operazioak egin dituztenen guztien gaineko portzentajeak goranzko joera dauka. Portaera berbera ikusten da estatuari dagozkion neurri horietan ere.

Erkidego Autonomoen arabera, azken hiru hilabeteetan interneten bidez erosteko ohitura handiena Madrilen dago (%18,6), eta hauek ere estatuko batez bestekoaren gainetik (%11,7) daude: Balear Uharteak (%17,3), Katalunia (%14,7), EAE (%14,2), Errioxa (%13,4) eta Nafarroa (%12,6).

EAEko merkataritza elektronikoaren hedapena EBn dagoenetik urrun dago: Eurostat-en arabera, EB-25ean azken hiru hilabeteetan interneten bidez erosi zuten pertsonen portzentajea %21ekoa da, eta EB-15ean %23koa. Eurostat-ek Estaturako ematen duen datua %10ekoa da; beraz, erkaketa arrazoizkoa da, datuak guztiz homogeneoak izan ez arren. Horrelako merkataritzarako joerarik han-

II.2.31. GRAFIKOA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOAREN HELBURU PRIBATUETARAKO EDO ETXERAKO ERABILERA AZKEN 12 HILETAN, 2006KO 1. BOLADA



Iturria: INE.

II.2.52. KOADROA. INTERNET ERABILI DUTEN ETA EROSI DUTEN PERTSONAK (% BERTIKALAK)

	2005eko 1. bolada (1. seihilekoa)		2006ko 1. bolada (1. seihilekoa)	
	Estatua Guzt.	EAE	Estatua Guzt.	EAE
Azken 3 hilabeteetako interneteko erabiltzaile guztiak	15.131.420	819.771	15.970.998	668.758
Inkesta aurreko azken hilabetean erosi duten pertsonen %	9,73	10,35	13,0	15,3
Inkesta aurretik hilabete 1 eta urtebete bitartean %	7,72	6,16	9,7	14,0
Inkesta aurretik urtebete baino lehenago erosi duten pertsonen %	3,67	2,92	5,0	5,9

Iturria: INE.

[19] Atal honetan aztertzen den merkataritza elektronikoa interneten bidez egiten denari dagokio bakar-bakarrik.

diena dutenen herrien artean honakoak daude: Suedia (%39), Erresuma Batua eta Alemania (%38 bakoitzean), Holanda (%36), Luxenburgo (%35) eta Danimarka (%31).

Generoaren arabera desberdintasunak ikusten dira: azken hiru hilabeteetan interneten bidez erosi zuten 16 eta 74 urteko gizonezkoen portzentajeak EB-25ean %24koa eta EB-15ean %26koa diren bitartean, emakumeei dagozkien portzentajeak, hurrenez hurren, %18koa eta %20koa dira.

INEk 2006ko lehen seihilekoan batu dituen datuen arabera, azken 12 hilabeteetan erabilera pribaturako edo etxerako gehien erosi diren produktuak aurreko urtean ikusitako ia berberak dira: bidaiak edo oporretarako ostatuak (erositako produktu guztien gaineko %65,3), ikuskizunetarako sarrerak (%38,1), liburuak, aldizkariak edo ikasketa elektronikorako materiala (%18,4), arropa edo kirolerako materiala (%17,1), material informatikoa (%15,4), ekipamendu elektronikoa (%14,3) eta etxerako produktuak (%13,8).

2.2.6. Merkataritza elektronikoa EAEn. Enpresak

Eustat-en datuen arabera, enpresa sareak burututako merkataritza elektronikoak goranzko joerari eusten dio, bai zifra ekonomikoei dagokienez, bai parte hartzen duten enpresei dagokienez.

2005. urteko sarearen edo beste sistema elektronikoen (EDI, datu elektronikoen trukaketa, etab.) bitarteko negozio kopurua 5.008,1 milioi eurotara iritsi zen, salmenta elektronikoei dagokienez, eta 2.371,7 milioi eurotara erosketei dagokienez. Horrek aurreko urtearekiko %16,1eko hazkundea adierazten du salmentei dagokienez, eta %17,9koa erosketei dagokienez.

Merkataritza elektronikoa (zentzu zabalean) burutzen duten establezimenduen[20] portzentajeak ere gora egin du azken urteotan, eta 2003. urteko guztiaren gaineko %5,9tik %13,8ra iritsi da 2005ean. Hala ere, zifra ekonomikoetan salmentek erosketak bikoiztu arren, parte hartzeari dagokionez produktuak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzen dituzten establezimenduen kopurua askoz handiagoa da.

Beste era batera esanda, parte hartzeari dagokionez, hazkundearen jatorria bide elektronikoen bitartez erosten duten enpresen areagotzean datza: haietariko %12,1 dira 2005. urtean, 2003. urtean %4,4 ziren bitartean. Izan ere, salmentak bide berberen bitartez gauzatzen dituzten enpresen portzentajea, 2003 eta 2005 artean gora egin bazuen ere, maila txikiagoetan geratu da eta gutxiago hazi da, %2,7 izatetik %3,9 izatera pasatuz.

Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen portzentajeari eragiten dion beste aldagai bat tamaina da. Beste urte batez, 9 langilez gorako establezimenduak dira dinamikoenak agertzen direnak. Horrela, 2005. urtean 9 langilez gorako establezimenduen %21,6k merkataritza elektronikoa egiten dute; hori aurreko urtearekiko 6,7 puntuko aurrerapena da, eta aldeko 7,8 puntuko desberdintasuna establezimendu guztien portzentajearekiko (%13,8). Erosketei dagokienez, 9 langilez gorako establezimenduen portzentajea %18,8ra iritsi da, eta salmentei dagokienez, %6,5era.

II.2.53. KOADROA. EROSKETAK ETA SALMENTAK JARDUERA SEKTOREAREN ETA LANGILE KOP. ARABERA (MILIOI EURO). 2002-2005

	Erosketak				Salmentak			
	2002	2003	2004	2005	2002	2003	2004	2005
Guztira	**1.509,5**	**1.794,7**	**2.012,5**	**2.371,7**	**2.834,0**	**3.702,5**	**4.311,8**	**5.008,1**
Jarduera sektorea								
Industria	919,3	840,7	1.003,3	1.249,2	1.890,8	2.379,4	2.780,2	3.289,6
Eraikuntza	0,6	7,6	4,9	2,9	0,0	0,0	0,6	2,4
Zerbitzuak	589,7	946,3	1.004,3	1.119,6	943,2	1.323,1	1.531,0	1.716,1
Langile kopurua								
0 - 9	176,5	469,1	511,4	705,0	100,4	370,0	507,2	656,1
10 eta gehiago	1.333,0	1.325,6	1.501,1	1.666,7	2.733,6	3.332,5	3.804,6	4.352,0

Iturria: Eustat "Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta" IGI Enpresak.

[20] Inkestaturiko unitatea establezimendua eta ez enpresa izateak aldagaiaren azterketari beste zailtasun bat gehitzen dio, zeren, sarritan, enpresa jakin batek burutzen dituen salerosketa elektronikoen guztirakoa, establezimendu batzuk dauzkanean, haietariko batean zentralizatzen baitu. Hortaz, datuen tabulazioak emaitza desberdinak ematen ditu hautatutako unitatearen arabera.

II.2.32. GRAFIKOA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA DAUKATEN ESTABLEZIMENDUAK, ADLIAREN, MERKATARITZA MOTAREN ETA LANGILE KOPURUAREN ARABERA (%)



Iturria: Eustat "IGI-enpresak".

Merkataritza elektronikoa egiterakoan establezimenduaren tamainak daukan garrantzia are argiago geratzen da elkarrengandik urrunen dauden langile kopuruei erreparatuz gero. Izan ere, alde batetik 100 langile edo gehiagoko establezimenduak eta bestetik 3 langilez azpikoak aztertzen badira, ateratzen diren portzentajeak, 2005. urtean, lehen taldearen %25etik bigarren taldearen %8ra aldatzen dira.

Eurostat-en datuen arabera, erosketa aginduak on line (internet, EDI edo bestelako sareen bitartez) jaso zuten enpresen portzentajea[21], 2006. urtean, %15era iritsi da EB-25ean eta %16ra EB-15ean. Hortaz, EAEn elektronikoki saltzen duten enpresen portzentajea (9 langilez gorakoak) EB osokoaren antzekoa da, orriaren oinean jaso diren desberdintasun metodologiko txikiak aintzat hartzea komeni bada ere.

Jarduera sektoreen arabera, ikusten da, 2005. urtean, industria eta zerbitzuak direla merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen portzentaje handienak dauzkatenak: establezimendu guztien %13,8 (%9,5 2004. urtean) eta %11,3 (%8,1 aurreko urtean), hurrenez hurren. Haien atzetik dator eraikuntza, %4,6rekin (%3,5 aurreko urtean).

9 langilez gorako establezimenduei dagokienez, hurrenkera antzekoa da, baina espero zitekeenez, portzentajeak askoz handiagoak dira: %21,6 industrian, %20,2 zerbitzuetan, eta, azkenik, %11 eraikuntzan. Salmentak eta erosketak, eta sektoreak bereiziz gero, ikusten da erosten duten establezimenduen portzentajeak, 2004 eta 2005 artean, hiru sektoreetan egin duela gora: industrian, %8tik %12ra; zerbitzuetan, %7,3tik %10,3ra; eta eraikuntzan, %3,5etik %4,6ra. Dena dela, deigarria da ikustea eraikuntzan erosten duten 9 langilez gorako establezimenduen portzentajeak 2 hamarren egin duela behera aldi horretan. Bestalde, saltzen duten establezimenduen portzentajeak, maila txikiagoetan geratu arren, sektore guztietan egin du gora haien tamaina gorabehera, eraikuntzako 10 langilez azpiko establezimenduetan izan ezik; azken horiek %0,1 inguruan jarraitzen dute.

[21] Inkesta egin aurreko urtean. On line %1 baino gehiago saltzen duten eta arduraldi osoko 9 langile baino gehiago dauzkaten enpresak baino ez dira kontuan hartu.

II.2.33. GRAFIKOA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA DAUKATEN ESTABLEZIMENDUAK JARDUERA SEKTOREAREN, LAN KOPURUAREN, MERKATARITZA MOTAREN ETA ALDIAREN ARABERA (%)



Iturria: Eustat "IGI-enpresak".

II.2.35. GRAFIKOA. SALMENTA ELEKTRONIKOAK DAUZKATEN ESTABLEZIMENDUEN PORTZENTAJEA BEZERO MOTAREN ETA URTEAREN ARABERA



Iturria: Eustat "Informazioaren Gizartea eta enpresak. Emaitzen aurrerapena. 2005" eta 2006ko prentsa oharra

Establezimendu bakoitzeko salerosketa guztien totalaren gaineko salerosketa elektronikoen batez besteko portzentajeari dagokionez, ikusten da 2004 eta 2005 artean industrian (%11,2tik %9,2ra) eta eraikuntzan (%9,4tik %4,6ra) lehenek (erosketak) behera egiten duten bitartean, bigarrenek (salmentak) goranzko joera daukatela sektore guztietan: zerbitzuetan %22,7tik %25era, industrian %19,5etik %23,4ra eta eraikuntzan %0,1etik %10era. Establezimendu eta tamainaren araberako salerosketen guztizkoari erreparatu ondoren, sumatzen da establezimendu guztien erosketetan ageri den beheranzko joera 9 langilez gorakoetan ere gertatzen dela, eta kasu horretan hiru sektoreetan.

Merkataritza elektronikoko salmentak egin zaizkion bezero motari dagokionez, Eustat-en arabera[22], 2004. urtean, salmenta elektroniko guztien %86,9 beste enpresei (B2B) eginak dira, %12,5 kontsumitzaile partikularrei (B2C), eta gainontzeko %0,6 Administrazio Publikoak, etab. bezalako jasotzaileen artean banatu zen (B2G). Zifra horiek 2005. urtekoekin erkatuz gero, salmenten birbana-

[22] "Informazioaren Gizartea eta enpresak, Emaitzen aurrerapena, 2005" Eustat eta 2006ko prentsa oharra.

II.2.34. Grafikoa. Merkataritza elektronikoaren garapena oztopatzen duten eragileak enpresaren tamainaren eta jarduera sektorearen arabera (establezmienduen %). 2006



Iturria: Eustat "IGI-enpresak".

II.2.36. Grafikoa. Salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko portzentajea establezimenduaren, lan kopuruaren eta sektorearen arabera



Iturria: Eustat "IGI-enpresak".

keta txikia ikusten da kontsumitzaileen kaltetan (B2C); jasotzaile horiek 0,6 puntu galdu dute. Beste enpresei bideratutako salmentek (B2B), ordea, %86,9 izaten jarraitzen dute.

Merkataritza elektronikoa oztopatzen duten eragileen artean, establezimenduen %54,4ren ustez (2005ko datuen arabera) merkataritza mota horretan parte ez hartzeko arrazoi nagusia haien produktu eta zerbitzuak transakzio mota horretarako egokiak ez izatea da. 2004. urtean, oztopo nagusia berbera zen, baina portzentajea txikiagoa, %50.

Jarraian, denak iritzi kopuru oso antzekoekin, honakoak ageri dira: bezeroak horretarako prestatuak ez egotea, %37,9; ordainketek oraindik dauzkaten segurtasun arazoak (%34,9); eta merkatu mota hori arautzen duten legeei buruzko zalantzak, erositakoa emateko epeak eta ustekabeetarako bermeak (%34,2).

Azken arrazoi gisa, %23,4k uste dute oraindik arazo logistikoak daudela eta, konpontzen ez diren bitartean, oso zaila izango dela merkataritza mota horrek dimentsio handia hartzea, bai burututako transakzioei bai parte hartzen duten enpresen kopuruari begira.

Ez dirudi alde handirik dagoenik 9 langilez gorako eta azpiko establezimenduen iritzietan; ezta jarduera sektoreen arabera ere, eraikuntzako 9 langilez gorako establezimenduen kasuan izan ezik; azken horiek batez bestekoak baino zailtasun handiagoak dauzkatela dirudi, batez ere euren produktu eta zerbitzuen egokitzapenari dagokionez.

Inguru naturalaren egoera EAEn

Kapitulu honetan aurkezturiko ingurumen adierazleen artean honako hauek dira lehentasunezkoak: ur kontinentalen eta estuarioko uren kalitatea, Negutegi Efektuko Gasen isurpenak-NEG, hondakinen sorrera (hiri hondakinak zein hondakin arriskutsuak), uraren kontsumoa eta horren batez besteko prezioa, eta baita nekazal ingurunearekin lotutako gaiak ere, ondorengoak bereziki: produktu fitosanitarioen kontsumoa, energia kontsumoa, nekazaritzako lurzoruaren erabileraren aldaketa, NEGen isurpena, EAEko ustiategien titularren %64k 55 urte baino gehiago dituela, benaunaldi berrien errelebo faltak jarraipenerako eragiten duen arazoarekin; eta ustiategien %85ek gutxieneko errentagarritasun-atalasa (urteroko 7.200 eurotan finkatua) baino txikiagoak diren diren marjina gordinak eskuratzen dituela.

Airearen kalitateari dagokionez, 2006an burututako metodologia aldaketa kontuan izan behar da. Horrela, 2005ean kalitate txarreko edo oso txarreko egunen batez bestekoa 19,5ekoa izan zen, baina 5,3ra jaitsi da 2006an. Hala ere, zifra horri aireraren kalitate moderatua aurkeztu duten egunak gehituz gero, (2005ean existitzen ez zen maila eta ustez kalitate txar edo txarreko baremoan zehaztutakoa) batez bestekoa 25,6era igo da. Bilakaera negatibo hori dugun arren, airearen kalitatea ona da, edo, behintzat, onargarria. Bestetik, ez da airearen kalitate arriskutsuko egunik antzeman.

EAEko enpresek ingurumenarekiko duten jarrera hizpide, 2004an Erkidegoa bosgarren postuan zegoen BP-Gren gaineko ingurumen gastuari dagokionez (%0,39), Asturiasen (%0,58), Nafarroaren (%0,43), Gaztela eta Leonen (%0,42) eta Kataluniaren (%0,4) atzetik; 2003an gertatu ez bezala, Asturiasek eta Nafarroak ez ezik Gaztela eta Leonek eta Kataluniak ere EAEk baino esfortzu handiagoa egin dute arlo honetan.

3.1. EAEko ingurumen estrategiaren jarraipena: ingurumen adierazleak

3.1.1. Ingurumen kalitatea eta kutsadura.

(a) Uren kalitatea

Ur kontinentalen eta itsasoko uren egoera. Makroornogabe bentonikoak[1]

EAEko Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategiak (2002-2020) eta lehenengo Ingurumen Esparru Programak

[1] Halako organismoak ibaien nahiz erreken lurzoruan eta haitzetan zein hostoetan bizi dira. Uretako gorputzetan duten presentzia eta aniztasuna, izatez ere, kalitate ekologikoaren adierazle bikaina da, oso sentikorrak baitira aldaketa fisikoetara, kimikoetara eta fisiko-kimikoetara, eurak bizi diren inguruan. Adierazle onak dira, laginak lortzea erraza delako eta aldaketetarako sentikortasun handia dutelako.

3

(2002-2006) 2012rako gainazaleko ur-masen %80k "egoera" ekologiko eta kimiko ona edo oso ona izatea finkatu zuten konpromiso gisa.

"Egoera" kontzeptu hori, 2000/60/EE Zuzentarauaren arabera (Uren Politikaren arloan jarduketa esparru komunitarioa ezarri duena), uretako ekosistemen funtziona-

II.3.1. KOADROA. INGURUMEN ADIERAZLEEN LABURPENA, EAEKO INGURUMENARI BURUZKO TXOSTENAREN ARABERA, INGURUMEN ADIERAZLEAK, 2006*

Adierazlea	Lortu nahi den helburua edo joera	Urteko egoera	Helburua betetzeko aukera
1. Uren kalitate indizea	2012rako, gainazaleko ur-masen %80k egoera ekologiko eta kimiko ona edo oso ona izatea. (Helb.: %80)	%43 (2005)	☺
2. Kontinenteko eta itsasertzeko uretan karga kutsagarriak: **Elikagaiak:** P guztira PO_4P N guztira Nitratoak Amonioa **Metal astunak:** Kobrea Merkurioa Kadmioa Zinka Beruna	2006rako EAEko ubide publikoetara edo itsasertzera isuritako karga kutsagarrien kopurua %50ean murriztea, 2001ari dagokionez (Helb.: -%50)	(2005) –%77 +%88 –%46 +%78 +%63 –%83 +%12 +%10 –%70 +%459	😐
3. Airearen kalitatea	Europar Batasunak airearen kalitateari dagokionez ezarritako helburuak betetzea. (Helb.: airearen kalitateko txarreko egun kopurua murriztea)	59 (2005)	☺
4. Kutsagarri atmosferikoen isurpenak a. SO_2 b. NO_X c. COV	2010erako helburuak –%66 –%31 –%7	(2004) –%41 +%15 –%47	😐

Continúa en página siguiente

II.3.1. KOADROA. INGURUMEN ADIERAZLEEN LABURPENA, EAEKO INGURUMENARI BURUZKO TXOSTENAREN ARABERA, INGURUMEN ADIERAZLEAK, 2006*

Adierazlea	Lortu nahi den helburua edo joera	Urteko egoera	Helburua betetzeko aukera
5. Kutsaturiko lurzoruak. Kutsaturiko lurzoru publikoak suspertzea (balio absolutuetan)	2006rako EAEko lurzoru publiko kutsatuen %20 suspertzea, 2001ari dagokionez (Helb.: 34 lurzoru)	33 (2005)	☺
7. Negutegi efektuko gasen isurpenak	2012rako negutegi efektuko gasen isurpenak murrizteko helburua betetzen laguntzea; Kyoton hitzarturiko helburua. (Espainia +%15 2008-2012 bitartean, 1990ari dagokionez)	+%24 (2005)	☹
8. Hondakinen sorrera a. Hiri hondakinak b. Hondakin arriskutsuak	2012rako hiri hondakinen sorrera (per capita) egonkortzea, 2001eko mailan. (Helb.: 527kg.) 2006rako hondakin arriskutsuen sorrera egonkortzea, 2000ko mailan (Helb.: 321.415 tona)	560 kg. (2005) 346.491 tona (2003)	☹ ☹
9. Hondakinen kudeaketa a. Hondakindegirako hiri hondakinen tasa (%) b. Hondakin arriskutsuen balioztatze tasa (%)	2006rako hondakindegirako hiri hondakinen kopurua murriztea, sorturiko kantitate osoaren %75eraino (Helb.: <%75) 2006rako hondakin arriskutsuen balioztatze tasa %51raino handitzea.	%56 (2005) %55 (2005)	☺ Lortuta ☺ Lortuta
10. Zarata	Zarata maila altuen eraginpeko biztanle kopurua murriztea.	Errepideak %13 (2005) Trenbidea %5 (2005)	☹
13. Ur kontsumoa	Biztanle bakoitzeko ur kontsumoaren goranzko joera aldatzea.	Egonkortzea (2005)	😐
14. Energia kontsumoa a. Energia kontsumoa b. Eraginkortasun energetikoa	Murriztapena Hazkundea	+%39 (1990-2005) +%18 (1990-2005)	☹ ☺
15. Materialen kontsumoa a. Materialen Beharrizan Osoa b. Eraginkortasun materiala	2006an MBO per capita 1998ko mailetan mantentzea. (Helb.: 81 tona) Hazkundea	96 tona (2004) +%29 (1990-2003)	☹ ☺
16. Lurzoruaren artifizializazioaren intentsitatea (lurzoru kontsumoa)	Hazkunderik ez	+%25 (1994-2005)	☹
18. Nekazaritza arloko jarduketak	2006rako, nekazaritza ekologikorako azalera 300 ha.tan handitzea, 2012rako 600 ha.tan, eta 2020rako 2.000 ha.tan. (Helb.: 300 ha)	1949 (2005)	☺ Lortuta
19. EAEko udalerrietan 21. Toki Agendak	2006rako, 5.000 biztanletik gorako udalerri guztiek diseinatuta edukiko dute 21. Toki Agendaren programa. (Helb.: 64)	64 (2006)	☺ Lortuta
20. Ingurumen Kudeaketako Sistemak enpresetan (balio absolutuetan)	2006rako, Ingurumen Kudeaketako Sistemen 600 ziurtagiri edukitzea (EMAS edo ISO 14001)	870 (2005)	☺ Lortuta
22. Ekoeraginkortasuna	Erabateko desegokitzapena	Desegokitzapen erlatiboa (2005)	☹

☺ Oraingo politikekin lortzeko moduko helburuak.
😐 Hain erraz lortuko ez diren edo zalantzazkoak diren helburuak.
☹ Oraingo politikekin nekez lortzeko moduko helburuak.

*** Kapitulu honetan, kasu batzuetan, datu gaurkotuagoak agertzen dira eta horiek ez dira hemen sartu, bestela azken zutabean egiten den balorazioa subjektiboa izango litzatekeelako.**
1. oharra: Finkatutako helburua duten ingurumen adierazleen bilakaera dago jasota, helburu horretarako erreferentziako urtean oinarrituz (EAEko 2002-2020 Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategiak edo Europako politikek zein zuzentarauek ezarritako helburuak).
2. oharra: Taulan jasotako balio guztiak EAEko Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategiatik atera dira, 4. eta 7. edierazlei dagozkienak izan ezik, eta horien helburuak EBk finkatu ditu Espainiako estaturako.
3. oharra: Ez dira jaso 6., 10., 11., 12., 17., 21. adierazleak, horiei buruzko datu edo helburu kuantitatiborik ez dagoelako. 19. adierazlea 2005eko uztailekoa da.
Iturria: EAEko ingurumena. Ingurumen Adierazleak, 2006.

mendua modu integratuan islatzen duten faktore guztiak aintzat hartu ondoren zehaztu da. Horrela, hiru adierazle mota erabili dira: Biologikoak, Fisiko-Kimikoak eta Hidromorfologikoak.

Aipaturiko Zuzentarauaren arabera, egoera biologikoaren balorazioa adierazle biologiko guztietan txarrenari dagokio. Beste bi adierazleek, egoera biologikoaren emaitzarekin batera, egoera ekologikoa zehazten laguntzen dute.

Aurreko urteetan bezala, egoera biologikorako hurbilketa egin nahi da, azterketa partzial baten bitartez. Berau makroornogabe bentonikoen —Zuzentarauak zehaztutako adierazle biologikoetariko bat— emaitzetan oinarrituta egongo da.

Bai ibaietan eta bai trantsizioko nahiz kostaldeko uretan, laginketa, banaketa, identifikazio eta kalifikazio metodologia ongi finkatuta dagoelako eta zaintza sareak bildutako kopuru handia dagoelako aukeratu da adierazle hau, beste batzuekin ez baita halakorik gertatzen.

Ur kontinentalen egoera: ibaiak

EAEko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen Sareak azterturiko adierazle biologikoen artean, makroornogabe bentonikoak dira erabilgarrienak ibaietako uren egoera baloratzeko; eta, horiei dagokienez, aztertuko den adierazle biologikoa IBMWP' indize biotikoa da (Iberian Biological Monitoring Working Party).

IBMWP indizeak ibaietako makroornogabe bentonikoen komunitateen egoera neurtzen du, eta uretako organismoek jasaten duten ingurumen estresa erakusten du. Era berean, adierazle fisiko-kimikoei, biologikoei eta hidromorfologiko batzuei buruzko alderdiak islatzen ditu. Urari dagokionez, bost kalitate maila sailkatzen ditu, hiru taldetan bilduta daudenak: garbiak edo kutsatu gabeak; kutsaduraren bat dutenak; eta kutsatuak edo oso kutsatuak.

IBMWP indizearen bilakaerak, EAE osoari dagokionez, hobekuntza orokorra islatzen du 90eko hamarkada amaierarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, oraindik ere egoera txarrean dauden tarte asko daude, bereziki Nerbioi-Ibaizabalen, Debaren eta Oriaren arroetan; eta gainera, 2006ko kanpainan 2004 eta 2005en antzekoak izan diren emaitzak lortu dira, eta horrek zalantzan jartzen du hobekuntzarako joera orokorra.

Ez dago arrazoi argirik emaitzen txarrerako joera edo emaitzen egonkortzea azaltzeko. Orain dela gutxi arazketa sistemak martxan jarri badira ere, Urolako arroan gertatu den bezala, ez da emaitza onik mantendu. Hori ulergarria izan daiteke gure ibaietan, gehienek prezipitazioekiko oso sentikorra den erregimen hidrologikoa jarraitzen dutelako.

II.3.1. GRAFIKOA. IBMWP INDIZEAREN BILAKAERA



Iturria: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Uren Zuzendaritza.

Estuarioko eta itsasertzeko uren egoera

Ibai sarearekin gertatzen den bezala, aldagai fisiko-kimikoak aztertzeaz gain, Itsasertzeko Uren Kalitatearen Zaintza eta Kontrol Sareak uraren kutsaduraren adierazle biologikoak ere erabiltzen ditu. Horrela, koefiziente biotikoa (KB) eta indize biotikoa (IB) sortu dira, geruza biguneko makroornogabe bentonikoen komunitateetan oinarrituta. EAEko kostaldearen kalitate biologikoaren bilakaera zehazten laguntzen du, ondorengo bien arteko kutsaduraren sailkapenaren bidez: "kutsadurarik gabe" eta "kutsadura oso handia".

II.3.2. GRAFIKOA. ESTUARIOAK: INDIZE BIOTIKOAREN BILAKAERA



Iturria: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza.

II.3.3. GRAFIKOA. ITSASERTZEA: INDIZE BIOTIKOAREN BILAKAERA



Iturria: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza.

Estuarioan, 2006an kutsadura maila desberdinak dituzten laginketa guneak nagusitzen dira; azken horiek %72koak dira (%66koak aurreko urtean) 1999ko emaitzei dagokienez (%53).

Joera negatibo hori orokortu egin da azken bost laginketa kanpainetan, hots, estuarioen barruko aldean kontrolerako leku berriak jarri zirenetik hona. Arazo handienak aurkezten dituzten egoerak barruko lekuetan eta, beraz, ibaien eraginik handieneko lekuetan daude. Aipagarria da 2005 eta 2006 kanpainetan estuario–estazio guztiak kutsatuta egon direla, eta egoera hori 1999koaren antzekoa da.

Urumearen, Debaren eta Artibairen estuarioek izan dituzte 2006ko kanpainan (aurreko urtekoan bezala) emaitzarik txarrenak.

Itsasertzean gertatu da, berriro ere, bilakaerarik onena. 2006an estazioen %56 kutsadura gabeko gisa kalifikatu dira; 1999ean, berriz, estazioen %15 soilik kalifikatu ziren kutsadura gabekotzat.

Bestetik, 2006ko kanpainan ez da kalifikazio ertaina edo txarragoa izan duen estaziorik egon.

Bainua hartzeko uren kalitatea

Bainua hartzeko uren gutxieneko kalitate irizpideak 76/160/EEE (75-XII-8) Kontseiluaren Zuzentarauan eta 734/1988 (88-VII-1) Errege Dekretuan jasota daude. Derrigorrezko balio batzuk finkatu dira (derrigorrez bete beharrekoak), eta baita erreferentziako beste balio batzuk ere; horiek betetzea osasun egintzaren helburuetako bat da. Hiru kalifikazio mota finkatu dira:

2. mota: derrigorrezko balioak eta erreferentziako balioak betetzen dituzte.

1. mota: derrigorrezo balioak betetzen dituzte, baina erreferentziako balioak ez.

0. mota: ez dituzte derrigorrezko balioak betetzen.

2003an Prestigeren hondamendia jasan zuten bainurako 31 zonek erreferentziako balioak bete dituzte 2006an. Plentzia, Gorliz eskuina, Gorliz erdia eta Gorliz ezkerra hondartzek, Bizkaian; Antilla hondartzak eta Kontxa-Nautikoak Gipuzkoan; 2004an ez zuten lortu, baina 2005ean lortu dute. Eta Zarautz erdia eta Gros hondartzek Gipuzkoan 2006an lortu dute, hain zuzen ere.

2005 eta 2006 bitartean gertaturiko bilakaerari dagokionez, esan beharra dago Ondarbeltz (Mutriku), Santiago (Zumaia), Zarautz (erdia eta eskuina) eta Gros hondartzen bainurako zonek hobera egin dutela. Ullibarri-Ganboa Urtegikoak (Zuaza Irla) okerrera egin du eta gainontzeko zonak egonkor mantendu dira.

Hondartza inguruko eremuari dagokionez, Bizkaiko 30 zonetatik 20 ontzat kalifikatu dira 2006an (17, 2005ean) , 10 hobetzeko modukotzat (12, 2005ean) eta bakar bat ere ez txartzat (1 aurreko urtean). Beste hitz batzuetan, hoberako joera nabarmentzen da, 3 hobetzeko modukotik onak izatera igaro baitira, bat txarretik hobetzeko modukora eta bakar batek soilik egin du txarrera, onetik hobetzeko modukora. Gipuzkoaren kasuan, bertako 23 zonetatik 19 ontzat kalifikatu dira (18, 2005ean), 1 hobetzeko modukotzat (2 aurreko urtean) eta 3 txartzat (2005ean bezala). Aurreko urtean txarren artean sailkatutako batek bilakaera positiboa izan du eta ontzat kalifikatua izatera igaro da, eta beste bat, berriz, hobetzeko modukotzat kalifikatua izatetik txarrera igaro da. Azkenik, Araban, hondartza inguruko 5 eremuetatik 4 hobetzeko modukoak dira, eta bat ontzat kalifikatu da. Ez da aldaketarik gertatu aurreko urteari dagokionez.

(b) Airearen kalitatea eta kutsagarri atmosferikoen isurpena

Urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretuaren helburua "mugako balioak" eta "alerta atariak" zehaztea eta finkatzea da, airean dauden sufre dioxidoaren (SO_2), nitrogeno dioxidoaren (NO_2), partikulen (PM_{10}), berunaren (Pb), bentzenoaren eta karbono dioxidoaren (CO) pilaketei dagokienez; halaber, substantzia horiekin lotuta, airearen kalitatearen ebaluazioa, mantenimendua eta hobetzea erregulatu behar ditu eta, azkenik, biztanleei eta Europar Batasunari informazioa eman behar die, erregulaturiko substantziek gizakien osasunean eta ingurumenean izan litzaketen ondorio kaltegarriak ekiditeko, aurreikusteko eta murrizteko.

II.3.3. KOADROA. LURRALDEAREN ZONA-BANAKETA

2005era arte	2006tik aurrera
1. Urbazterra	1. Araba Hegoaldea
2. Kostaldea	2. Arabako Lautada
3. Donostialdea	3. Arabako Errioxa
4. Gohierri-Urola	4. Kostaldea
5. Debagoiena-Ibaizabal	5. Donostialdea
6. Nerbioi Garaia-Enkarterriak	6. Oria Garaia
7. Arabako Lautada	7. Urola Garaia
8. Nerbioio Behea	8. Ibaizabal - Debagoiena
	9. Nerbioi Garaia
	10. Enkarterriak
	11. Nerbioi Behea

II.3.2. KOADROA. BAINURAKO UREN KALITATEA EAEN, ITSASOKO URAK

Probintzia	Udalerria	Bainurako zona	Laginketa lekua	Bainurako uren kalifikazioa				Hondartza inguruko eremuaren kalifikazioa (*)		
				2002	2003	2005	2006	2003	2005	2006
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	Arena hondartza	(1) Eskuina	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	Arena hondartza	(2) Erdia	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	Arena hondartza	(3) Ezkerra	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereaga hondartza	(1) Erdia	1	1	2	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Getxo	Ereaga hondartza	(2) Ezkerra	1	1	2	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Getxo	Arrigunaga hondartza	(1) Erdia	1	1	2	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Ona
Bizkaia	Getxo	Azkorri hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandotes hondartza	(2) Eskuina	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandotes hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(1) Eskuina	2	1	2	2	Ona	Hob. mod.	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(2) Erdia	2	1	2	2	Ona	Hob. mod.	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(3) Ezkerra	2	1	2	2	Ona	Hob. mod.	Ona
Bizkaia	Plentzia	Plentziako hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(1) Eskuina	2	1	2	2	Ona	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(2) Erdia	2	1	2	2	Ona	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(3) Ezkerra	2	1	2	2	Ona	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Bakio	Bakioko hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Bermeo	Aritxatxu hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Mundaka	Laidatxu hondartza	(1) Erdia	1	1	1	1	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Pedernales (Sukarrieta)	Toña hondartza	(1) Erdia	0	0	0	0	Txarra	Txarra	Hob. mod.
Bizkaia	Pedernales (Sukarrieta)	San Antonio hondartza	(1) Erdia	1	1	1	1	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Ibarrangelua	Laida hondartza	(1) Itsasoa	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelua	Laida hondartza	(2) Itsasad.	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelua	Laga hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelua	Laga hondartza	(2) Eskuina	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ea	Eako hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Hob. mod.
Bizkaia	Ispaster	Ogeia hondartza	(1) Ezkerra	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Lekeitio	Isuntza hondartza	(1) Eskuina	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Mendexa	Karraspio hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ondarroa	Arrigorri hondartza	(1) Erdia	1	1	1	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Mutriku	Saturraran hondartza	(1) Erdia	0	0	0	0	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Mutriku	Mutrikuko hondartza	(1) Erdia	1	1	1	1	Hob. mod.	Hob. mod.	Txarra
Gipuzkoa	Mutriku	Ondarbeltz hondartza	(1) Erdia	1	1	0	1	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Deba	Debako hondartza	(1) Erdia	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Itxurun hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Santiago hondartza	(1) Erdia	0	0	0	1	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Gipuzkoa	Getaria	Gaztetape hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Getaria	Malkorbe hondartza	(1) Erdia	0	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarauzko hondartza	(1) Eskuina	0	0	0	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarauzko hondartza	(2) Erdia	2	1	0	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarauzko hondartza	(3) Pasealekua	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Antilla hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Oribarzar hondartza	(1) Erdia	0	0	0	0	Txarra	Txarra	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarreta hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarreta hondartza	(2) Ezkerra	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa hondartza	(2) Ezkerra	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa – Nautiko hondartza	(3) Nautikoa	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/La Zurriola hondartza	(1) Eskuina	2	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/La Zurriola hondartza	(2) Erdia	2	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/La Zurriola hondartza	(3) Ezkerra	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiako hondartza	(1) Eskuina	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiako hondartza	(2) Erdia	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Ullibarri-Ganboa urt. (Landa)	(1) Eskuina	1	1	1	1	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Ullibarri-Ganboa urt. (Landa)	(2) Ezkerra	1	1	2	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Ullibarri-Ganboa urt. (Zuaza Irla)	(1) Eskuina	1	2	2	1	Hob. mod.	Ona	Ona
Araba	Barrundia	Ullibarri-Ganboa urt. (Garaio)	(1) Eskuina	1	2	0	0	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Araba	Barrundia	Ullibarri-Ganboa urt. (Garaio)	(2) Ezkerra	2	2	2	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.

(*) Hondartza inguruko eremuaren kalifikazioa hondartza osoari dagokionez egin da, lekuen araberako bereizketarik (urarekin egiten den moduan) gabe. Horrenbestez, hondartza bateko leku guztiek kalifikazio bera izango dute, euren artean desberdintasunak egon arren.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Urriaren 8ko 1073/2002 EDren arabera, "ebaluazio" kontzeptuaren definizioaren barruan, airean dagoen kutsadura maila neurtzeko, kalkulatzeko edo aurreiskusteko edozein metodo sartzen da, eta horrek guztiak *airearen kalitate indizea* adierazten du.

II.3.4. KOADROA. EAEKO AIREAREN KALITATEA 2006AN (EGUN BAKOITZEAN NEURTUTA)

	Ona	Onargarria	Moderatua	Txarra	Oso Txarra
Araba Hegoaldea	163	190	12	0	0
Arabako Lautada	184	163	15	3	0
Arabako Errioxa	200	159	4	0	0
Kostaldea	212	149	4	0	0
Donostialdea	207	152	6	0	0
Oria Garaia	128	187	38	12	0
Urola Garaia	174	162	15	11	3
Ibaizabal - Debagoiena	131	148	69	17	0
Nerbioi Garaia	183	164	17	1	0
Enkarterriak	184	175	4	1	0
Nerbioi Behea	151	164	40	10	0
EAE GUZTIRA (egunak)	**1.917**	**1.813**	**224**	**55**	**3**
EAE GUZTIRA %	**47,8**	**45,2**	**5,6**	**1,4**	**0,1**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontroleko Zuzendaritza.

II.3.5. KOADROA. AIREAREN KALITATE TXARREKO, OSO TXARREKO EDO MODERATUKO EGUNEN KOPURUA, ZONALDEEN ARABERA

	2001	2002	2003	2004	2005		2006	
	Oso txarra edo txarra (ez dago informaziorik moderatuen inguruan)						Txarra edo oso txarra	Txarra, oso txarra edo moderatua
Ibaizabal–Debagoiena	6	4	19	22	46	Ibaizabal–Debagoiena	17	86
Nerbioi Behea	5	4	15	10	30	Nerbioi Behea	10	50
Arabako Lautada	2	6	14	12	15	Arabako Lautada	3	18
Nerbioi Garaia-Enkarterriak	2	3	5	3	5	Nerbioi Garaia	1	18
						Enkarterriak	1	5
Kostaldea	0	3	2	6		Kostaldea	0	4
Donostialdea	1		10	20	14	Donostialdea	0	6
Gohierri-Urola	3	2	13	26	37	Urola Garaia	14	29
						Oria Garaia	12	50
Urbazterra	4	0	0	1	3	Araba Hegoaldea	0	12
						Arabako Errioxa	0	4
Egunen batez bestekoa	2,9	2,6	9,9	12,0	19,5	Egunen batez bestekoa	5,3	25,6

Iturria: guk egina Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontroleko Zuzendaritzan oinarrituta; urte ezberdinetako Ingurumen Adierazleen Txostena.

Airearen kalitate indizea lortzeko, EAEn kontrolerako eta zaintzarako sare bat dago, parametro batzuk denbora errealean neurtzen dituena. Azken horien artean, ondorengo kutsagarri hauek: sufre dioxidoa (SO_2), nitrogeno dioxidoa (NOx), karbono monoxidoa, 10 µm-ko ebaketa partikulak (PM_{10}) eta troposferako ozonoa (O_3). Neurketa EAEko zenbait lekutako estazioetan egiten da.

2005era arte, airearen kalitate indizea kalkulatzeko EAEn zortzi zona hartzen ziren kontuan. Urte horretan egindako ikerketen ostean, EAE hamaika zonatan banatzea erabaki da. Gainera, airearen kalitate indizearen mailak 4 (ona, onargarria, txarra eta oso txarra) izatetik 6 (ona, onargarria, moderatua, txarra, oso txarra eta arriskutsua) izatera igaro dira.

Zona bakoitzak, halaber, sentsoreak edo azterketarako gailu automatikoak dituzten *estazioak* ditu, eta horiek denbora errealean neurtzen dituzte kutsagarriak (SO_2, NO_2, PM_{10}, O_3 eta CO); horrela, indizea kalkulatzen da.

Estazio bakoitzean kutsagarri bakoitzerako banakako indizea kalkulatzen da, eta horri *indize partzial* deritzo. Estazio bakoitzerako indize orokorra bat dator jokabiderik txarrena duen kutsagarriaren indize partzialarekin. Horrela, estazio bakoitzerako indize orokor bat dago. Era berean, zona bateko estazioen indize orokorren baliorik txarrena zona horretako airearen kalitatea zehazten duena da.

Indizearen balioa 0 da kutsagarrien pilaketarik ez dagoenean, eta bere balioa 100 da pilaketa aipatu Errege Dekretuan zehaztutako mugako balioarekin bat datorrean. Indizearen balioa, beste edozein pilaketa balioari dagokionez, interpolazio linealaren bitartez lortzen da.

Airearen kalitate indizeak balio bat izango du esleituta, eta horrela, balio hori zenbat eta handiagoa izan zona

horretako airearen kalitatea hainbat eta txarragoa izango da. Eguneroko indizea da, hots, egunero indizearen balioa aldatu egiten da eta, beraz, baita kasuan kasuko zonako airearen kalitateari buruzko informazioa ere. Horrek justifikatzen du airearen kalitate indize ezberdineko zonak topatu ahal izatea.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontroleko Zuzendaritzak emandako informazioan oinarrituta, esan daiteke aurten ere airearen kalitatea ona edo, behintzat, onargarria dela azpizona guztietan.

Airearen kalitate indize txar edo oso txarreko egunen batez bestekoari dagokionez, 2005ean 19,5ekoa zen eta 5,3ra jaitsi da 2006an. Hala eta guztiz ere, zifra horri airearen kalitate moderatuko egunak gehitzen bazaizkio, batez bestekoa 25,6ra igotzen da. Bilakaera negatiboa alde batera utzita, airearen kalitatea ona edo, behintzat, onargarria da; eta ez da airearen kalitate arriskutsuko egunik erregistratu.

2006an, zehatz mehatz, Debagoiena-Ibaizabal (airearen kalitate txar edo oso txarreko 17 egunekin eta kalitate moderatuko 59rekin), Oria Garaia (airearen kalitate txar edo oso txarreko 12 egunekin eta kalitate moderatuko 38rekin), Nerbioi Behea (airearen kalitate txar edo oso txarreko 10 egunekin eta kalitate moderatuko 40rekin), eta Urola Garaia (airearen kalitate txar edo oso txarreko 14 egunekin eta kalitate moderatuko 15ekin) nabarmentzen dira berriro ere. Beraz, 2005eko zona berdinak nabarmentzen dira.

2006ko Ingurumen Adierazleen Txosteneko datuen arabera, eta EAEn azken urteotan **PM_{10}** -ren legezko mugak soilik gainditu direnez gero, kutsagarri honen urteroko batez besteko maila monitorizatzea erabaki da, zaintza eta kontroleko estazio guztien adierazgarri. Azken urteotako datuak aztertuz, argi ikusten da oraindik ere baimendutako egunak (35 egun), eguneroko mugatik goragokoak, gainditzen dituzten zona batzuk daudela, eta kasu batzuetan urte guztirako zehaztuta dagoen batez bestekoa ere gainditu egiten dela. Hala eta guztiz ere, aipaturiko kutsagarriaren isurpen mailak, oro har, beheranzko joera duela ikus daiteke.

Ozonoari dagokionez, 2005ean zazpi aldiz gainditu zen informazio ataria, uztailaren 13an eta 14an guztiak ere, EAE osoan erregistratu ziren tenperatura altuekin bat etorriz.

1990 eta 2004 artean **substantzia azidotzaileen** (NO_x eta SO_2) **zein troposferako ozonoaren aurrendarien substantzien** isurpenak (NOx, COV[2] eta CO) %11 eta %6,4 murriztu dira, hurrenez hurren. Lehenengoen ka-

II.3.4. GRAFIKOA. KUTSAGARRI ATMOSFERIKOEN ISURPENAK EAEN



Iturria: Ingurumena EAEn, Ingurumen Adierazleak, 2006.

[2] Osagai organiko hegazkorrak.

suan, garraioan erabilitako erregai fosilen sufre kantitatea murriztearen ondorioz; bigarren kasuan, berriz, katalizatzaileen erabilera dela-eta garraioan COV isurpenak murriztearen eraginez.

SO_2 -ren eta COV -ren isurpenen bilakaeran ikusten denez, badirudi EBk Espainiako estaturako 2001/81 Zuzentarauan finkaturiko helburuak bete egingo direla. Izan ere, SO_2 -ren isurpenak 1990 eta 2004 artean %39 murriztu dira (helburua %66ko murriztapenera iristea da), eta COV-en isurpenak, berriz, %47 (helburua –%77 da). Ezin daiteke gauza bera esan Nox-en isurpenei buruz, azken horiek 1990etik hona %15 hazi baitira, helburua %31n murriztea izan arren.

Zehatzagoak izateko, 2004 urtean, SO_2 -ren eta COV -ren isurpenak %4,8 eta %6,7 murriztu ziren, hurrenez hurren. Nox-ren isurpena, aldiz, %3,8 handitu zen.

(c) Negutegi efektuko gasen isurpenak (NEG)

Kyotoko Protokoloan oinarrituta, Espainiako estatuak ***zuzeneko isurpenak*** %15ean murrizteko konpromisoa du, 2008-2012 urte bitartean eta 1990eko mailari dagokionez. Hazkunde horren arrazoia EBko gainontzeko estatu kideekin alderatuta Espainiako estatua, CO_2 -ren isurpen mailari dagokionez bosgarren postuan badago ere, CO_2 -ren per capita isurpenetan oinarrituta azken aurreko postuan egotea da, Portugalen aurretik bakarrik.

NEG-en guztizko isurpenak (zuzenekoak nahiz zeharkakoak, hots, inportaturiko elektrizitateari dagozkionak barne) hazi egin ziren 2005ean EAEn eta "EAEko negutegi efektuko gasen isurpenen Inbentarioa 1990-2005"-ren arabera, CO_2 -ren 25,9 milioi tonako isurpenen parekoak izatera igaro ziren. Horrek esan nahi du %1,2 hazi direla 2004ko isurpenekiko eta %23,8 oinarri-urtekoei (1990) dagokienez.

Zuzeneko isurpenei soilik erreparatuz gero, iturri beraren arabera, azken horiek 23,3 milioi tona CO_2 hazi ziren 2005ean. Beste hitz batzuetan, %11,2 hazi ziren 2004ko isurpenei dagokienez, eta %45 oinarri-urteari dagokionez. Hazkundea, 2004ko zuzeneko isurpenekin alderatuta, 1990-2005 aldi guztiko handienetarikoa izan zen eta energiaren transformazioaren sektoreak eragin itzela izan zuen gertakari horretan. Zehatz mehatz, EAEn[3] elektrizitatea sortzeko potentzia handitzeak eragin zuen aipaturiko hazkundea.

Sektoreka,

- Energia sektorearen zuzeneko isurpenak %199 hazi dira 1990ekoei dagokienez eta 2005ean EAEko NEG isurpen guztien %37 eragin ditu. Esan beharra dago, sektore hau NEG isurpenen eragile nagusienetarikoa bada ere, isurpen horiek beste sektoreen eskariaren menpe daudela.
- Garraioari dagokionez, bere zuzeneko isurpenak %101 hazi dira 1990ekoei dagokienez, eta 2005ean EAEko NEG isurpen guztien %23 eragin ditu.
- Industriaren azken kontsumoari dagokionez, bere zuzeneko isurpenak %28 murriztu dira 1990ekoei dagokienez eta 2005ean EAEko NEG isurpen guztien %22,7 eragin ditu. Kontuan izan behar dugu energia elektrikoaren eskatzailerik handiena dela (2005ean EAEn kontsumituriko elektrizitatearen %60 baino gehiago).
- Egoitzarekin eta merkataritzarekin lotutako sektoreek zuzeneko isurpenen %5,5 eragiten dituzte eta beren zuzeneko isurpenak hazi egin dira 1990ekoei dagokienez (%197 zerbitzuen sektorean eta %149 egoitza sek-

II.3.5. GRAFIKOA. 1990-2005 BITARTEKO ALDAKETA NEG ISURPENETAN SEKTOREKA (%)



Iturria: EAEko NEG-en isurpenen Inbentarioa 1990-2005.

[3] Kontuan izan behar dugu historikoki EAE elektrizitatearen produkzioari dagokionez defizitarioa izan dela eta, horrenbestez, energia bektore hori kantitate handietan inportatu duela. Elektrizitatea bere kasa sortzeko gaitasunak gora egin ahala energia mota hau lortzeko kanpo menpekotasuna murriztu egin da eta bi urteko tartean (2003-2005) kontsumo elektrikoaren %65 inportatzetik %31 inportatzera igaro da.

torean). Sektore hauek batera EAEko energia elektrikoaren azken kontsumoaren %33 bereganatzen dute.

Eustatek argitaraturiko azken datuek, 2004koek, agerian jarri dutenez, EB-15eko estatu gehienek zailtasunak dituzte NEG-en isurpenari dagokionez harturiko konpromisoari eusteko. Salbuespenak Frantzia, Grezia, Erresuma Batua eta Suedia dira. Egoera kezkagarriena aurkezten duten herrialdeak, lehenik eta behin, Espainia (32,9 portzentajezko puntu konpromisoaren gainetik), Austria (28,7 puntu bere konpromisoaren gainetik) eta Luxenburgo (28,3 puntu gainetik) dira; eta, bigarren lekuan, Danimarka (19,2 puntu bere konpromisoaren gainetik) eta Italia (18,6 puntu gainetik) daude. EAE, konpromisoaren gainetik 20 puntu dituen aldetik, bigarren talde honen hasieran egongo litzateke.

(d) Biodibertsitatea

ELGAk honako definizioa ematen du *dibertsitate biologikorako:* ingurune guztiak, lurra, itsasoa, uretako beste ekosistemak eta eremu ekologikoak osatzen dituzten izaki bizidunen barietate-maila.

Dibertsitate Biologikoari buruzko Munduko Hitzarmenak, Rio de Janeiron 1992an egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarrean sinaturikoak, biodibertsitateak berezko balioa duela adierazten zuen eta bere kontserbaziorako, baliabide horien erabilera iraunkorra eta bidezkoa bultzatzen zuen.

EAEko 2002-06 Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategian jasota dauden konpromisoen artean honakoak aurki ditzakegu:

- 2003rako, EAEko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoa egitea.
- 2004rako, biodibertsitate-behatokien sarea ezartzea.
- 2006rako, EAEko naturari eta biodibertsitateari buruzko datuak eta informazioa bilduko dituen programa sortzea.
- 2006rako, korridore ekologikoak sortzea.
- 2006rako, galzoriko espezie bezala sailkatuta daudenen %100entzat kudeaketa-planak ezartzea.

Zentzu honetan esan beharra dago Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2004an ***Biodibertsitatearen Behatokia*** martxan jarri zuela, EAEko biodibertsitatearen egoeraren inbentarioa egiteko, aztertzeko eta interpretatzeko bitarteko gisa.

Era berean, eskuragarri dugun azken informazioak EAEn **babeserako 6 Sailkapen talde** daudela adierazten digu. EAE bezalako eremu txiki batean babeserako hainbeste sailkapen talde edo bitarteko edukitzeak, azaleraren ehuneko handi bat (%22,7) baten edo bestearen barruan egotea eragiten du alde batetik, eta, bestetik, babeserako sailkapenak bata bestearekiko gain jartzea. Horrela, eremu bera (edo eremuaren zati bat) sailkapen batean baino gehiagotan sartuta egon liteke. Hona hemen sailkapenok:

II.3.6. GRAFIKOA. 2010RAKO CO_2-REN ISURPENERAKO KONPROMISOA ETA 2004KO EGOERA (EHUNEKOTAN)



Iturria: Eustaten datuetan oinarrituta guk egindakoa.

- ***2000 Natura Sarea***: biodibertsitatearen kontserbazio eremuen Europako sare ekologikoa, Kontserbazio Zona Bereziak (KZB) (Estatu kideek Habitat Zuzentarauararen arabera izendaturikoak) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Zonak (HBBZ) (79/409/EEE Zuzentarauaren, basoko hegazkien babesari buruzkoaren, arabera izendaturikoak) barne hartzen dituena.

  EAEk apustu ausarta eta asmo handikoa egin du, eta, horren harira, eremu eta habitat asko sarearen barruan sartzea proposatu du, horien azalera %20,3 izateraino (Espainiako estatuan azaleraren %25,6). Hemendik aurrera, beharrezkoa izango da 6 urte igaro baino lehen beharrezko kontserbazio neurriak hartzea.

- ***Ramsar Zerrenda: Nazioarte mailan garrantzia duten Hezeguneak***. Hasiera batean Ramsar Konbentzioa "*uretako hegaztientzako habitat gisa*" zentratu zen hezeguneen kontserbazioan. Hala eta guztiz ere, muga hori zabalduz joan da, hezeguneen kontserbazioarekin eta zentzuzko erabilerarekin lotutako ezaugarriak barne hartzeko. Era berean, biodibertsitatearen kontserbazio orokorrerako eta giza komunitateen ongizaterako ekosistema hauek biziki garrantzitsuak direla azpimarratu du.

  Egun 6 dira Ramsar Zerrendaren barruan dauden EAEko hezeguneak. Horietako bi kostaldean daude: Urdaibai eta Txingudi, eta gainontzeko lauak barrualdean: Guardiako aintzira txikiak, Ullibarri-Ganboa urtegiko adarrak, Salburua eta Gesaltza-Añana - Arreo/Caicedo-Yusoko Lakua. Horiek guztiak naturalak dira Ullibarri urtegia, Prao de Paul aintzira, Guardiako aintzira txikien artean, eta Gesaltza-Añana izan ezik.

- ***Euskadiko Naturgune Babestuen Sarea (NBS):*** sailkapen honen baitan daude ekainaren 30eko 16/1994 Legean (Euskadiko Naturaren Babesari buruzkoa) zehazturiko helburu eta ezaugarriren bat betetzen duten lekuak eta, horrenbestez, Legean finkatzen diren babes-estatuturen baten laguntza dutenak.

  NEB Sarearen helburua, alde batetik, EAEko ekosistema eta natura formazio nagusiak islatzea da eta, beste aldetik, kudeaketa sistema orokorrak koordinatzea. Babeserako sailkapen taldeak Parke Naturalak, Biotopo Babestuak eta Zuhaitz Apartekoak osatzen dituzte. Horiek batera EAEko azaleraren %10,6 dira.

- ***Urdaibaiko Biosfera Erreserba***: UNESCOk 1984an izendatu zuen Erreserba eta EAEko natura eremurik garrantzitsuena izateaz gain, gure erkidegoan izendatutako lehen gune natural babestua ere bada (5/1989 Legea, uztailaren 6koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babesari eta Antolamenduari buruzkoa). Azken urteotan, aipatu Legearen onespenari gehitu zaizkion nazioarteko merezimenduak jaso ditu. Garrantzitsuenak honakoak dira:
  - 1992an Ministro Kontseiluak emandako baimena, Mundaka-Gernika itsasadarra Ramsar Hitzarmeneko Nazioarteko Garrantziako Hezeguneen artean sartzeko.
  - 1994an, HBBZ sarean sartzea. Horrek 2000 Natura Sarean sartzen du zuzenean.

- ***Korridore ekologikoetako Sarea***: zientzialarien ustez, habitat naturalen eta basoko organismoen populazioen fragmentazio-prozesuak dira herrialde industrializatuetan biodibertsitatea galtzeko arrazoi nagusia. 2005eko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzaren eskariz, *EAEko Korridore Ekologikoetako Sarea* diseinatzeko proposamen teknikoa aurkeztu zen. Ikerketa hau abiapuntu garrantzitsua da, gai honetan inplikaturiko agenteen artean eztabaida sortzen duelako. Egun, korridore ekologikoak lurraldeen eta sektoreen antolamenduaren esparruan ezartzeko lan egiten ari dira.

- ***Natura Intereseko Guneak EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (LAA)[4].***

[4] 4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, Euskadiko Lurraldearen Antolamenduari buruzkoak, ondorengoa finkatzen du LAA-ek bere egin behar duten zehaztapen gisa: "babes berezia behar duten eremu edo zonak mugatzea eta zehaztasunez definitzea, beren balio ekologikoak, kulturalak edota ekonomikoak zaintzeko eta, beharrezkoa den kasuan, bertan dauden baliabide naturalen zentzuzko ustiapena bermatzeko, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria berezituaren arabera."

Hori kontuan hartuta, 1997an onetsitako LAA-ek, EAEko lurzoru urbanizaezinerako kategorizazio proposamen bat egin dute. Aipatu proposamenaren Kategoriarik murriztaileena "Babes Berezi"-ari dagokiona da, honakoei aplikatuko zaiena: "ondo kontserbaturiko baso autoktonoei, itsasadarrei eta estuarioei, egoera onean dauden ibai-sistemei, hondartzei, barrualdeko hezeguneei, kostaldeko labarrei, aparteko landaderia duten eremuei, eta, oro har, ekologiaren, kulturaren, paisaiaren edo horien batasunaren ikuspuntutik baliotsuak izan daitezkeen elementu guztiei.

Aipatu eremuentzako araudi bat ere badago, izaera loteslea duena eta leku horietan debekatzekoak, onartzekoak edota sustatzekoak diren erabilerak eta jarduerak jasotzen dituena. Zehatz mehatz, honakoak dira debekatuta daudenak: olgeta luzeegiak, nekazaritza, nekazaritza-industriak, erauzketa-jarduerak, garraiorako bideak, A Motakoak ez diren zerbitzuetako azpiegitura tekniko ez linealak, hondakindegiak eta zabortegiak eta eraikuntzarekin lotutako edozein erabilera, Onura Publikoko eta Gizarte Intereseko eraikinak salbu.

Gainera, LAA-etan "Interes Naturalistikoko Guneen Zerrenda Irekia" ere badago; zerrenda horretan lurralde-, sektore- eta udal-plangintzak kontuan izan beharko lituzkeen guneak aipatzen dira, azken horien balio ekologiko, kultural eta ekonomikoak babeste aldera.

Azkenik, eta EAEko 2002-06 Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategian jasota dagoen azken konpromisoarekin lotuta, ***galzoriko espezientzako Kudeaketa Planak*** delakoarekin, hain zuzen ere, *2006 Ingurumen Adierazleen Txostenaren* arabera, 2006 urtean zehar 8 plan onetsi dira, orain arte onetsitakoen bikoitza baino gehiago.

(e) Hondakinen sorrera eta kudeaketa. Hiri Hondakinak eta Hondakin Arriskutsuak

"Ingurumen Adierazleak 2006" txosteneko datuen arabera, ***hiri hondakinen (HH)*** per capita sorrera 560 kg ingurukoa izan da EAEn 2005ean. Horrek nolabaiteko egonkortzea adierazten du 2004ri dagokionez (559 Kg per capita). Hala ere, helburua 2012an 527 kg (per capita) -ra iristea da.

EIN-ek argitaraturiko azken datuen, 2004ri buruzkoen, arabera, EAEn HHen sorrera 456 Kg -koa (per capita) zen, estatuko batez bestearen (491) azpitik. EAEk baino HH gutxiago sortzen dituzten erkidegoen artean honakoak ditugu: Galizia (370 Kg per capita), Errioxa (388), Extremadura (391), Katalunia (451) eta Murtzia (456).

Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategian jasota dagoen beste konpromiso bat, 2006rako hondakindegira zuzendutako hiri hondakinen sorrera %75era murriztea da; eta gai honi dagokionez, balorazioa aldekoa da; izan ere, 1998ko %85etik %56ra igaro gara 2005ean; %29 birziklatu egin da eta %15 erraustu.

Bestetik, etxeko hondakinen gaikako bilketaren (gero birziklatuak izateko) bilakaerak ere joera positiboa izan du; izan ere, 1998an 85.774 Tm bildu ziren eta 2005ean, berriz, 180.851. Horien artean, gehienak papera eta kartoia (guztizko kopuruaren %40,7) eta beira (%14,7) dira.

II.3.7. GRAFIKOA. HONDAKINEN SORRERAREN BILAKAERA EAEN



Iturria: Ingurumen Adierazleak, 2006.

Hondakin arriskutsuen sorrerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera 2004an 390.898 Tm-raino hazi zen; horrek %13ko hazkundea adierazten du 2003ri dagokionez, eta %34koa 1994ri dagokionez. Helburua, 2006an sorrera hori 2001eko mailara jaistea da, hots, 321.415 Tm-ra.

Era berean, aipaturiko Estrategiaren beste helburuetako bat 2006an hondakin arriskutsu guztien %51 balorizatzea da. Eskura dauzkagun azken datuek, 2004ri buruzkoek, aldiz, hori baino ehuneko handiagoa adierazten dute, HA guztien %55 balorizatzen baitira.

Bestetik, EINen *Industria sektoreko hondakin sorrerari buruzko Inkesta*-ren azken datuek, 2004ri buruzkoek, adierazten dute hondakin arriskutsuen sorrerak EAEn, 2002 eta 2003 bitartean behera egin ostean, berriro ere gora egin duela 2003 eta 2004 bitartean, %1,9, zehatz mehatz. Horrela, EAE (327.327 Tm-rekin) industria sekto-

II.3.6. KOADROA. HONDAKINEN SORRERA SEKTOREKA (*) (TONAK)

	Estatua					EAE				
	2001	2002	2003	2004	2003-04 Aldaketa	2001	2002	2003	2004	2003-04 Aldaketa
HH										
HH nahastuta	24.019.377	24.015.152	24.583.907	21.207.615	–13,7	1.072.391	1.039.789	1.042.390	952.375	–8,6
RU gaikako bilkaeta	2.596.519	2.580.646	3.002.795	6.385.527	112,7	110.994	93.828	137.737	465.146	237,7
Industria-hondakinak										
Arrisku gabeak	57.434.183	57.464.734	57.404.557	54.261.461	–5,5	1.744.876	2.484.410	2.465.130	2.568.362	4,2
Arriskutsuak	1.364.420	1.575.538	2.145.411	1.970.360	–8,2	215.207	325.876	321.219	327.327	1,9

Iturria: EIN "Hiri hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkesta" eta "Industria sektoreko hondakin sorrerari buruzko inkesta".
(*) Zerbitzu sektoreko hondakin sorrerari buruzko Inkestak ez du erkidegoen araberako bereizketarik egiten.

II.3.8. GRAFIKOA. HONDAKIN ARRISKUTSUEN KUDEAKETA



Iturria: EAEko Ingurumen Adierazleen Txostena, 2006.

rean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen bigarren erkidegoa da, Kataluniaren atzetik (437.635 Tm).

3.1.2. Baliabide naturalen kontsumoa.

(a) Ur gezako baliabideak: ur erakarpena eta kontsumoa

EAEn, hornidura publikorako ur erakarpena 285,3 Hm^3 -koa izan zen 2004an, *EINen Ur hornidurari eta tratamenduari buruzko inkestan* adierazitakoaren arabera, eta horrek %31,1eko beherakada adierazten du 2003ri dagokionez. Erakarpen osoa enpresak[5] berak egin du, hau da, bertan sorturikoa da, beste unitate batzuei eskuraturiko ur bolumenik ez baita egon aurten.

2003 eta 2004 urte bitartean gertatu den bilakaeraren arabera, enpresak berak egindako erakarpenei mugatuz eta azken horiek gainazaleko eta lurpeko gisa sailkatuz, esan beharra dago gainazalekoek guztizko kopuruarekiko gora egin dutela (%87,8tik %97,6ra igaro dira). 2003an gainazaleko erakarpen hauek balio absolutuetan gora egin zuten (%11,1), baina 2004an apur bat txikiagoak izan dira (%0,3). Gainazalekoekin gertatzen ez den bezala, lurpeko erakarpenek 2002an hasi zuten beheranzko joera mantentzen dute.

EAEn hornidura publikorako kontrolaturiko eta banatutako ur osoaren bolumena 214,2 Hm^3 -koa izan da 2004an, eta horrek %2,2ko hazkundea adierazten du 2003ko bolumenari dagokionez. Hala ere, hazkunde hori aurreko urtekoa baino txikiagoa da. Bolumen horretatik, 115,9 Hm^3 (%54,1 eta aurreko urtean %53,6) etxeak hornitzeko erabiltzen dira; 66 Hm^3 (%30,8 eta aurreko urtean %35,7) sektore ekonomikoak hornitzeko; 28,8 Hm^3 (%13,4 eta aurreko urtean %8,8) udal kontsumoetarako, eta gainerakoa beste erabilera batzuetarako. Nabarmentzeko modukoa da udal kontsumoetan gertatu den hazkundea, kasik %53koa 2003 eta 2004 bitartean; eta ezin aipatu gabe utzi sektore ekonomikoetan gertatu den kontsumo murriztapena (–%13,5).

Banaketa sarean galdutako ur kopuruak murrizten jarraitzen du, %28,7 2004an; 21,5 Hm^3 dira eta aurreko urtean 30 Hm^3; hori 2004ko guztizko erabilgarriaren %7,5 da eta, 2003an, berriz, %9,5koa zen. Estatuan, banaketako sare publikoetan (ihesen, apurtzeen eta abarren eraginez) ur erabilgarri osoaren %17,9 galdu zen.

Bestalde, 2004an, egunero bildutako hondakin uren 991.548 m^3 -etatik, %91 (%93,7 aurreko urtean) tratatu egiten da, eta hortik ez da ezertxo ere berriro erabili (2001ean %14 erabili zen berriro, 2002an %7,9, eta 2003an %1,6). Hondakin uren bilketa eta tratamendu lan hauek 7.768 euroko gastua eragin dute inbertsioetan (39.127 euro aurreko urtean).

Uraren per capita kontsumoari dagokionez, hazten jarraitzen du eta eguneko 150 litrokoa da. Horrela, Estatua-

[5] Erakarpenean, ura naturatik erauzi edota hartu eta bildu egiten da, gero erabili ahal izateko. Honen barruan urtegi zerbitzuak sartzen dira, baita oinarrizko arterietatik eta hodietatik egindako eramatea ere. Besteak beste, gainazaleko uren erakarpena eta lurpeko uren erakarpena bereizten dira, eta azken hori zundaketen edo zulaketen bidez egiten da.

Gainazaleko ur kontinentalak gainazaleko korrontea dutenak dira, edo lurrazalean bilduta daudenak, hau da, urtegiak. Gainazaleko korrontea duten uren barruan, ubide naturaletako (ibaiak eta errekak) urak eta ubide artifizialetakoak (ureztaketarako, industriarako eta nabigaziorako kanalizazio-sistemak, drainatze sistemak eta erreserba artifizialak) bereizten dira.

Inkesta honen helburuetarako, ibaien ertzetan gertatzen diren iragazpenak gainazaleko uren artean sartzen dira, eta trantsizioko urak, urtegi gaziak eta estuarioak, berriz, ez dira gainazaleko urtzat hartzen eta baliabide hidrikoen beste mota batzuen barruan sartzen dira.

Lurpeko urak, orokorrean, lurpeko erauzketa batetik edo horren bidez erauzten dira, hau da, akuifero batetik ateratzen dira. Akuiferoak, berriz, lurpean dauden ur-biltegi iraunkorrak edo aldi baterakoak dira, bai modu artifizialean eta bai modu naturalean betetzen direnak, eta erabilera jakinerako kalitate nahikoa dute. Atal honetan, iturburuetatik ateratako ura sartzen da. Salbuetsita dago iragazpenetatik ateratako lurpeko ura, horiek gainazaleko uren multzoan sartuko baitira.

II.3.7. KOADROA. EAEKO HORNIDURA PUBLIKORAKO KONTROLATURIKO ETA BANATURIKO UR BOLUMENA

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	02/03ko ald. %	03/04ko ald. %
Edatekoa ez den uraren erabilgarritasun osoa (m³-ak milatan)								
Guztira	**231.117**	**244.038**	**366.719**	**361.692**	**414.212**	**285.251**	**14,5**	**–31,1**
Enpresak berak egindako erakarpen osoa	227.453	244.038	329.469	310.034	318.494	285.251	2,7	–10,4
Beste unitate batzuei eskuraturiko ur bolumena	—	—	37.249	51.658	95.718	0	—	—
Beste enpresa batzuei horniturikoedateko ur bolumena	3.664	—	—	—	0	0	—	—
Enpresak berak egindako ur erakarpenak (m³-ak milatan)								
Guztira	**231.117**	**244.038**	**329.469**	**310.034**	**318.494**	**285.251**	**2,7**	**–10,4**
Gainazaleko urak	229.048	242.879	256.256	251.387	279.258	278.541	11,1	–0,3
Lurpeko urak	2.069	1.159	33.083	26.574	17.963	6.710	–32,4	–62,6
Uraren banaketa erabiltzaile multzo handien arabera (m³-ak milatan)								
Hornidura publikorako kontrolaturiko eta banaturiko ur bolumen osoa	172.363	187.378	202.231	195.723	213.770	214.180	9,2	0,2
Sektore ekonomikoak	53.311	55.765	69.502	63.611	76.315	66.045	20,0	–13,5
Etxeak	106.364	117.751	114.528	112.832	114.660	115.853	1,6	1,0
Udal kontsumoak	12.502	13.206	13.976	15.595	18.831	28.801	20,8	52,9
Beste batzuk	186	656	4.225	3.685	3.964	3.481	7,6	–12,2
Banaketa sarean galdutako ura (a)	71.724	77.691	71.040	65.371	30.108	21.479	–53,9	–28,7
Edateko ez den uraren erabilgarritasun osoa (b)	227.453	244.038	329.469	310.034	318.494	285.251	2,7	–10,4
Banaketako sare publ. galdutako uraren % (a/b)	31,5	31,8	21,6	21,1	9,5	7,5		
Banaturiko uraren zenbateko osoa (€ milatan)	103.380	126.297	129.205	126.297	147.501	81.677	16,8	–44,6
Hornidura zerbitzuetako inbertsioaren zenbateko osoa (euroak milatan)	11.197	1.965	13.344	1.965	1.285	4.948	–34,6	285,1

Iturria: EIN "Ur-horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta".

II.3.8. KOADROA. HONDAKIN UREN BILKETA ETA TRATAMENDUA EAEN (m³/EGUN)

	2001	2002	2003	2004	02/03ko ald. %	03/04ko ald. %
Bildutako hondakin uren bolumena	499.427	485.494	550.531	991.548	13,4	80,1
Trataturiko hondakin uren bolumena	433.841	422.389	515.848	902.268	22,1	74,9
Isuritako uraren bolumen osoa	389.155	374.676	542.108	991.457	44,7	82,9
Berriro erabilitako uraren bolumen osoa	98.500	33.340	8.423	0	–74,7	–100,0
Hondakin uren bilketan eta tratamenduan egindako inbertsio gastuen zenbateko osoa (euroak milatan)	87.624	26.913	39.127	7.768	45,4	–80,1
Saneamenduko eta arazketako kuoten zenb. osoa (euroak milatan)	90.709	84.725	97.356	96.011	14,9	–1,4

Iturria: EIN "Ur-horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta".

ren batez bestekoaren azpitik gaude, bertan per capita kontsumoak gora egin baitu berriro ere eta 171 litro/egunekoa da. EAE nahiko postu onean dago autonomia-erkidegoen ranking-ean, kontsumoari dagokionez atzetik baitauzka Kanariak (144), Nafarroa (144), Ceuta eta Melilla eta Balearrak (biak 142rekin), eta Errioxa (141).

EAEn uraren batez besteko prezioa, 2004an, 0,83 euro/m³ da, hots, %27,8 murriztu da 2003ko batez besteko prezioari dagokionez. Estatuan, batez besteko prezioa 0,96 euro/m³ da, hots, %11,6 hazi da. 2003an EAEk hirugarren postua zuen uraren batez besteko preziorik garestienari zegokionez, Kanarien eta Balearren atzetik. Orduan ez bezala, 2004an zortzigarren postuan egon da, Gaztela eta Leonen (0,61 euro/m³), Gaztela-Mantxaren (0,63), Asturiasen (0,65), Kantabriaren (0,69), Extremaduraren (0,72), Galiziaren (0,78) eta Aragoiren (0,82) atzetik.

3.1.3. *Ekoeraginkortasun orokorra eta sektoriala.*

Jarduera ekonomikoak eragina dauka ingurumenean; izan ere, gizarteak eskatzen dituen ondasunen nahiz zerbitzuen produkzio eta kontsumo prozesuen eraginez baliabide naturalak kontsumitu eta hondakinak, isurpenak eta isurketak sortzen dira, eta horiek eragin handia dute ingurumenaren egoeran.

II.3.9. KOADROA. ETXEETAKO URAREN BATEZ BESTEKO UR KONTSUMOA ETA URAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA

	B. besteko kontsumoa (litroak/biztanle/egun)				B.besteko prezioa (€/m³)			
	2002	2003	2004	% var. 03/04	2002	2003	2004	% var. 03/04
Andaluzia	184	184	189	2,7	0,69	0,79	0,94	19,0
Aragoi	170	169	162	–4,1	0,62	0,66	0,82	24,2
Asturias	158	161	172	6,8	0,59	0,65	0,65	0,0
Balearrak	127	130	142	9,2	1,48	1,42	1,31	–7,7
Kanariak	134	135	147	8,9	1,67	1,68	1,64	–2,4
Kantabria	182	185	187	1,1	0,55	0,60	0,69	15,0
Gaztela eta Leon	155	168	172	2,4	0,49	0,53	0,61	15,1
Gaztela-Mantxa	185	184	179	–2,7	0,52	0,57	0,63	10,5
Katalunia	182	183	174	–4,9	0,98	1,04	1,92	84,6
Valentziako Erkideg.	158	163	178	9,2	0,78	0,83	1,20	44,6
Extremadura	165	163	178	9,2	0,76	0,73	0,72	–1,4
Galizia	131	143	155	8,4	0,61	0,62	0,78	25,8
Madril	166	166	171	3,0	0,81	0,86	1,00	16,3
Murtzia	146	149	161	8,1	1,08	1,08	1,41	30,6
Nafarroa	148	152	144	–5,3	0,63	0,73	1,11	52,1
EAE	147	149	150	0,7	1,14	1,15	0,83	–27,8
Errioxa	140	136	141	3,7	0,44	0,54	0,96	77,8
Ceuta eta Melilla	146	139	142	2,2	0,68	0,74	0,91	23,0
Estatua	164	167	171	2,4	0,81	0,86	0,96	11,6

Iturria: EIN "Ur-horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta".

II.3.10. KOADROA. EKOERAGINKORTASUN OROKORRA ETA SEKTORIALA EAEN: EGOERA, BILAKAERA ETA BALORAZIOA

Adierazlea	Egoera eta joera	Joera
Ekonomia orokorrean	1990-2005 aldia. 2005ean ere ezegokitze erlatiboko prozesua ikusten da, hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren artean; izan ere, ingurumen presio nagusiak (NEG isurpenak, hiri hondakinen sorrera, energia kontsumoa, materialen kontsumoa) hazi egin dira, baina BPG baino gutxiago.	😐
Garraioa	2005ean, sektoreko ingurumen presio nagusiek goranzko joera berari eutsi diote. EAEko ekonomiak 1990-2005 aldian izandako BPGren hazkundearekin batera, hazkunde handiagoak egon dira garraioak sorturiko ingurumen presio batzuetan. Honela, garraio sektoreko energia-kontsumoaren hazkundearen eraginez (%98), bertako NEG isurpenek ere hazkundea izan dute (%101). Aldi berean, autobide eta autobia sarearen luzerak ere %44ko hazkundea izan du.	☹
Industria	1990-2005 bitarteko aldian, industria sektoreko balio erantsi gordinak %76ko hazkundea izan du, eta sektore horrek sorturiko ingurumen presio nagusiek behera egin dute. NEG isurpenek behera egin dute (–%28), eta hondakin arriskutsuen sorrerak ere behera egin du (–%2). Azken urteko bilakaera aztertuta ikusten denez, BEGen hazkundearekin batera, industria sektorean, hazkundea egon da hondakin arriskutsuen sorreran eta NEGen isurpenetan, baina energia kontsumoak behera egin du 2004ri dagokionez.	☺
Egoitza sektorea	1990-2005 bitarteko aldian, etxeetako gastuan izandako hazkundea (%47) estu lotuta egon da ingurumen presioek sektore honetan izandako hazkundeari. 1990etik aurrera, energia-kontsumoak %58eko hazkundea izan du, NEG isurpenek %49eko hazkundea eta hiri hondakinen bolumenak %28ko hazkundea. 2005ean, energia kontsumoa (+%2,1) zein sektoreko NEG isurpenak (+%1,7) hazi egin dira.	☹
Energiaren eraldaketa	1990-2005 bitarteko aldian, energia eraldatzeko sektorean (petrolioaren fintzea eta elektrizitatearen sorrera) produkzioak %11ko hazkundea izan du. Sektoreko jardueran izandako hazkunde horrekin batera, NEG isurpenetan %199ko hazkundea egon da, batik bat zentral termiko konbentzionaletako produkzioaren hazkundearen eta ziklo bateratuko planta berriak martxan jartzearen eraginez.	☹

☺ Joera positiboa, helburua lortzeko bidean.
😐 Aurrerapauso batzuk eman dira, baina ez da nahikoa helburuak betetzeko edota joera kontrajarriekin adierazlean.
☹ Joera negatiboa, helburua lortzeko aurkako bidean.
Iturria: Ingurumena EAEn. Ingurumen Adierazleak, 2006.

Garapen iraunkorreko politika publikoek planteaturiko helburuetariko bat hazkunde ekonomikoaren eta horrek sorturiko ingurumen eragin kaltegarrien arteko erlazioa apurtzea da (ezegokitzapen fenomenoa). Erlazio hori aztertzeko, *ekoeraginkortasun* kontzeptua sortu da, eta, berorren bidez, erabilitako "ingurumen" unitate bakoitzeko sorturiko "jarduera ekonomikoaren" kantitatea aipatzen da.

II.3.9. GRAFIKOA. EKOERAGINKORTASUNA EAEKO EKONOMIAN



Iturria: Ingurumena EAEn. Ingurumen Adierazleak, 2006.

Ekoeraginkortasuna hobetzeko bi bide nagusiak honako hauek dira:

- Produkzioan: hobekuntza teknologikoak edota materialen ordezpena (itxuraz hain kaltegarriak ez diren materialekin).
- Kontsumoan: etxeko kontsumoaren murriztapena.

Gehien erabiltzen diren adierazleak ondorengoak dira: ekonomia orokorraren ekoeraginkortasuna eta sektorearen ekoeraginkortasuna; horren egoera, joera eta balorazioa ondoko taulan jasotzen dira.

3.2. Nekazaritza eta ingurumena: adierazleak

EAEko Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategiak 2002-2020 planteatzen dituen bost baldintzetako bat "ingurumen aldagaia beste politika batzuetan integratzea" da. Helburu hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzak ikerketa bat egin du, *"Nekazaritza eta Ingurumena EAEn. Adierazleak 2006"* deiturikoa eta ingurumen kontuek EAEko nekazaritza-sektorean duten integrazio maila neurtzen duena. Horretarako, EBk homologaturiko adierazle batzuez baliatzen dira.

Kapitulu honetan EAEren berezko 19 nekazaritza eta ingurumen adierazleen berri ematen da. Azken horiek Europako adierazleen taulatik (IRENA proiektuak zehaztutakoak) aukeratu dira, EAErako nekazaritza eta ingurumen gai esanguratsuenen eta informazioaren erabilgarritasunaren eta aldi baterako serieen arabera; bata zein bestea beharrezkoak dira adierazleei buruzko informazioa osatzeko.

EBk adierazleen identifikazio eta garapenerako aukeratu duen metodologia indar eragile-presioa-egoera-eragina-erantzuna delakoa da; Berau maiz erabiltzen dute Europako Ingurumen Agentzian eta ELGAren ingurumen lanetan. Metodologia honek ingurumenaren gaineko eraginak zuzeneko eta gertuko kausekin lotzen ditu, baina baita kausa ekonomiko, sozial eta instituzional sakonenekin —indar eragileak— ere. Era berean, Administrazio publikoetan, enpresa munduan eta sozietate zibilean sortzen diren arazoentzako erantzun eredua barne hartzen du.

(a) Indar eragileak

Ongarrien kontsumoa. Nitrogenoa (N) eta fosforoa (P) oinarrizko elikagaiak dira landareak haz daitezen, baina biek ala biek ingurumenean aldaketa handiak eragiten dituzte, ingurune urtarraren oreka ekologikoa aldatzen baitute.

2000 eta 2003 artean, EAEn, nitrogenodun ongarrien erabilera %11,2 murriztu da eta, fosforodunena, berriz, %3,6. Gure erkidegoan hori gertatzearen arrazoiak honakoak dira: alde batetik, legeriaren (91/676/EEE Nitratoen Zuzentaraua eta 2000/60/EE Uraren Zuzentarau Espa-

rrua) aplikazioa, eta bestetik, EB-15ean gertatu ez bezala, ongarriak modu intentsiboan erabiltzen diren laborantza lurrak 5.000ha-tan baino gehiago txikitu izatea. Horrenbestez, murriztapena ez da hobea den aplikazio baten eraginezkoa, laborantza lurrak ongarritzearen eraginezkoa baizik.

Produktu fitosanitarioen[6] kontsumoa. Produktu hauek izurriteek eragindako kalteei aurre egiten laguntzen dute. Dena dela, arazoak ere sor ditzakete: substantzia toxikoak diren aldetik, gehiegi eta gaizki erabiltzeak uretako zein lurreko ingurumen eragina dakar eta, gainera, biodibertsitatea murrizten du. Bestetik, produktuak behar ez bezala erabiltzeak elikaien kalitean eragina izan lezake, eta, kasu batzuetan, baita produktuekin aritzen diren nekazarien edota bestelako pertsonen eta azken kontsumitzaileen osasunean ere. Horregatik, 1991tik aurrera, Erkidegoan legeria zorrotza existitzen da.

II.3.11. KOADROA. EB-REN NEKAZARITZA ETA INGURUMEN ADIERAZLEEN LABURPENA (IRENA PROIEKTUA) EAEN

Arloa	Adierazlea	Joera
Indar eragileak	1. Ongarrien kontsumoa	☺
	2. Produktu fitosanitarioen kontsumoa	☹
	3. Uraren erabilera (intentsitatea)	😐
	4. Energia-kontsumoa	☹
	5. Nekazaritzako lurren erabilera galtzea	☹
	6. Labor. eredua eta abereak edukitzea	😐
	7. Intentsifikazioa/estentsifikazioa	☹
	8. Espezializazioa/dibertsifikazioa	😐
	9. Marjinazioa	☹
Presioak	10. Aldaketak landare-estalkian	😐
	11. Negutegi efektuko gasen isurpenak	☹
	12. Amoniako isurpenak (NH_3)	☺
	13. Lurzoruaren higadura	☺
Egoera / Eragina	14. Lurzoruaren kalitatea	😐
	15. Nitratoak uran	😐
Erantzunak	16. Nekazaritza eta ingurumena babesteko neurriei atxikitako azalera	😐
	17. Natura babesteko programei atxikitako azalera	☺
	18. Nekaz. ekologikora zuzendutako azalera	☺
	19. PEFC ziurtapenari atxikitako basoko azalera	☺

☺ **Joera positiboa, helburua lortzeko bidean**

😐 **Aurrerapauso batzuk eman dira, baina ez da nahikoa helburuak betetzeko edota joera kontrajarriekin adierazlean.**

☹ **Joera negatiboa, helburua lortzeko aurkako bidean.**

Iturria: Nekazaritza eta Ingurumena EAEn, Adierazleak 2006. IKT.

Ditugun azken datuek adierazten dutenez, EAEn, pestiziden kontsumoa %1,6 hazi da 2000 eta 2003 artean; joera, beraz, negatiboa da.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Estatistika eta Azterketa Sektorial Zerbitzuak EAEko nekazaritzako fitosanitarioen erabilerari buruzko ikerketa sakona egiteko beharra planteatu du. Informazio hau ezin da oraindik kontsultatu.

Uraren erabilera (intentsitatea). Ur kontsumoaren eraginkortasuna modu esanguratsuan hobetu da industrian, baina nekazaritzarako eta etxerako kontsumoaren aurrerapausoak motelak dira. Ureztapen sistemek, ura behar izateaz gain, berau gidatzeko eta banatzeko prozesuan eraginkortasun txikia izan ohi dute askotan.

1989 eta1999 artean (ditugun azken datuak), ureztapenerako azpiegitura duen azaleraren %11,7ko hazkundea gertatu zen, baina badirudi aurrerapenak ez direla nahikoak.

Energia-kontsumoa. 1993 eta 2003 artean, NAEko (nekazaritzako azalera erabilgarria) hektarea bakoitzeko energia-kontsumo zuzena[7] %70 hazi da, petrolioaren deribatuen kontsumoaren hazkundearen eraginez, batik bat.

EBko estatu kideen arteko kontsumoaren konparaketa egiteko, kontsumo zuzena zein kontsumituriko ongarriak produzitzeko energia kalkulatzen dira. Kontsumoa ulertzeko modu zabalago honen arabera, EAEko nekazaritza sektorearen energia-kontsumoa NAEko 15,7 Gj[8]/ha -koa da, eta horrek EB-15-eko Estatu kideen batez bestetik gora gaudela adieraten du. Izan ere, EAEko nekazaritza sektorea hirugarren postuan dago energia-kontsumoaren ranking-ean, Herbehereen eta Belgikaren atzetik bakarrik.

Nekazaritzako lurren erabilera galtzea (Artifizializaturiko nekazaritzako lurren azalera). Hirigintzarekin, zerbitzuekin eta olgetarako lekuekin, industria eta merkataritza guneekin, eta garraiobideentzako apiegiturekin lotutako jardueren garapen bizkorrak eragin

[6] Biozidak eta desinfektatzaileak ez dira aintzat hartzen.

[7] Kontsumituriko ongarriak produzitzeko beharrezkoa den energia kontuan hartu gabe.

[8] Energia unitatea. 1 GJ (gigajulio) = 10^9 J.

handia izan du ingurumenean eta nekazaritzako paisaian. Aldi berean, nekazaritzara zuzendutako azalera asko murriztea eragin du.

Zehatz mehatz, 1990 eta 2000 artean EAEko nekazaritzako lurren azaleraren %1,5 artifizializatu egin da; ehuneko hori EB-15-eko Estatu kideena baino askoz altuagoa da, Herbehereak salbuetsita.

Laborantza eredua eta abereak edukitzea. Laborantzarako eta abereak edukitzeko irizpideek garrantzia berezia dute ingurumenarekin lotuta nekazaritza sektorearen joerak aztertzeko. Adibidez, larre iraunkorren erabilera estentsiboak landare-espezie espezializatu eta animali-espezie gehiago dituen habitata eragiten ditu. EAEn, ardi eta behien artzaintza estentsiboak gaur egun gure lurraren adierazgarriak diren paisaia eta habitat aniztasuna sortzea ekarri du historian zehar. Erabilera horrekin amaitzeak aniztasun hori desagertzea eragingo luke.

1990 eta 2003 artean larre iraunkorren eta laborantza iraunkorren azalera handitu egin da, eta, aldi berean, joera intentsiboko ustiaketak murriztu egin dira. Txerrientzako eta hegaztientzako etxola kopurua izugarri murriztu da 1994-2004 aldian, %40 eta %56, hurrenez hurren. Behientzako etxola kopurua %3an murriztu da eta ardientzakoa %13 hazi da. Laburbilduz, aurrerapausoak eman dira baina ez planteaturiko helburuak betetzeko nahikoak.

Intentsifikazioa/Estentsifikazioa. Ur kontsumo handia, mekanizazio esanguratsua eta produktu agrokimikoen erabilera nekazaritza intentsiboaren berezko ezaugarriak dira. Nekazaritza eredu horrek azken hamarkadetan gora egin izateak lurren gaineko presioaren eta degradazioaren hazkundea eragin du. Aldi berean, nekazaritza intentsiboak nekazaritza paisaia pobreagoa, ibaiak eta errekak kutsatzea eta negutegi efektuko gasen hazkundea ere eragiten ditu. Hala eta guztiz ere, ingurumenaren ikuspuntutik intentsifikazioak ezaugarri negatiboak baditu ere, profesionaltasun handiagoarekin lotu ohi da eta horrek, gerora, ustiategi horiek behar bezala kudeatzeko eta kontrolatzeko aukera gehiago eskaintzen du. Gainera, orokorrean eraginkortasun ekonomiko handiagoa du, produkzioak gora egiten baitu azalerako unitate bakoitzeko, eta hori erabakiorra da ustiategiek bizirik jarraitu ahal izateko.

Ditugun azken datuek adieraten dutenez, 1995 eta 2004 artean, EAEko abere sektorean intentsifikazio handia gertatu da behien kopuruari dagokionez, hots, ustiategien kopurua hazi egin du. Ardien kopurua egonkor mantendu da.

Espezializazioa/Dibertsifikazioa. Espezializazioak eraginkortasun handiagoa eragiten du, produkzioak gora egiten baitu azalerako unitate bakoitzeko. Kontua da espezializazio horrek faunari eta landarediari lotutako nekazaritzako habitaten aniztasuna galtzea eragin lezakeela, eta baita laborantza barietateak eta ganaduko arrazak galtzea ere. Hala eta guztiz ere, espezializazioa, karga gaitasuna kontuan hartu duen kasuetan, positiboa izan da ingurumenarentzat. EAEn, adibidez, mendi aldeko ardien artzaintzak eragin positiboa izan du balio natural handiko eta biodibertsitate maila altu bati lotuta dauden paisaiak eta habitatak babesteko.

Ustiategien espezializaziorako edo dibertsifikaziorako joera aztertzeko, azalerako datuak erabilitako nekazaritza-azalerako ha bakoitzeko marjina gordinaren datuekin (garatutako jarduera bakoitzak eskainitakoak) alderatzen dira. Datuek adierazten dutenez, laborantza espezializatua (%54) eta abeltzaintza espezializatua (%28) ustiategien marjina gordin osoaren %82 dira.

Marjinazioa. Marjina gordineko maila baxua duten ustiapenen ehuneko gisa definitzen da, erretiratzeko adinetik hurbil dauden titularren ustiapenen ehunekoarekin batera. EAEko ustiapenen titularren %64k 55 urte[9] baino gehiago ditu eta ustiapenen %85ek urteko 7.200 eurotik[10] beheragoko marjina gordina eskuratzen du. Horregatik guztiagatik, EAEko egoera kezkagarria da.

(b) Presio Adierazleak

Aldaketak landare-estalkian. Basoko/seminatural izatetik nekazaritzakoa izatera igarotzen den azalerari *sarrera* deritzo eta nekazaritzakoa izatetik basoko/seminatural izatera igarotzen denari, berriz, *irteera*. Bazkarako lurraren edo basoko lurraren gainetik goldagarria den lurra nagusitzeak berau higatzeko arrisku handiagoa eragiten du. Hala eta guztiz ere, EAEn, nekazaritzara zuzendutako azaleratan pinu-sailak ezarri ohi dira maiz eta arraseko mozketek (mozketa osoak egiteko metodoa) higadura eragin handia dutenez gero, lurzoruaren higadu-

[9] EBn 55 urteetatik gora ustiapenak marjinazio arriskua du belaunaldi berrien errelebo falta dela-eta.

[10] Ustiapen baten gutxieneko errentagarritasun-atalasak urteroko 7.200 eurotik gorakoa izan behar du.

rari dagokion ondoriozko presioa handiagoa da. Laburbilduz, aurrerapausoak eman dira, baina ez nahikoak.

Negutegi efektuko gasen isurpenak. EAEko sektoreak NEG isurpenei dagokienez duen parte hartzea EB-15-eko Estatu gehienena baino txikiagoa den arren, 1990-2003 artean isurpenak %13,6 hazi dira. Hori horrela, egoera ez da batere positiboa.

Amoniako isurpenak. Amoniakoak kalte ezberdinak eragin ditzake ingurumenean (landaredia-sistemen balantze ekologikoa aldatzea, azidifikazioa, PM partikula bihur daiteke —arnas-sistemarekin lotutako osasun-arazoak eragiten dituzten partikulak—).

EAEn, nekazaritza sektoreak eragindako amoniako isurpenak murriztu egin dira. 1990-2004 artean, simaurraren erabilerarekin zerikusia dutenak %26,3; eta 2000-2003 artean, ongarrien erabilerarekin lotutakoak %11,2. Joera, beraz, positiboa da.

Lurzoruaren higadura. Higadura fenomeno natural a da, urak edota haizeak lurreko partikulak askatu eta beste leku batean jartzearen ondorioz gertatzen dena. Dena dela, giza jarduera jakin batzuek higadura mailak neurri handi batean bizkortu ditzakete. Nekazaritza intentsifikatu izanak higadura prozesuak okerrera egitea eta eremu babesgabeenen desertifikazio arriskua handitzea eragin ditu. Hala eta guztiz ere, EAEn, zehatz mehatz, nekazaritzak eragindako ur-higadura oso txikia da.

(c) Egoera/Eragina Adierazleak

Lurzoruaren kalitatea (karbono organiko kopurua lurzoruaren lehen 30 cm-etan). Karbonoa lurzoruan pilatzen da eta berau ezinbestekoa da klima aldaketaren prozesuan, atmosferako karbonoa "*harrapatzeko*" funtzio garrantzitsua betetzen baitu. Horretarako, lurzoruko materia organikoaren osagaiak aldatzen dituen prozesu batez baliatzen da. Beste hitz batzuetan, lurzoruko karbonoak izugarrizko garrantzia du karbonoaren ziklo orokorrean eta, horrenbestez, CO_2 bidezko amosferaren kutsaduran. Hala ere, lurzoruan pila daitekeen materia organiko eta, beraz, karbono kopurua, mugatua da.

Lurzoruaren kalitatea, duen karbono organiko kopuruari dagokionez, ona da EAEko lekurik gehienetan. Hala eta guztiz ere, Arabako zereal eta mahastien eremuetan karbono kantitatea txikiagoa da. Laburbilduz, aurrerapausoak eman dira, baina oraindik ez nahikoak.

Nitratoak uran. Nitratoa, nitrogenoak lurrean hartzen duen aldaeretariko bat da. Nitrogenoa oinarrizko elementua da landareen garapenerako, eta ongarrien bitartez gehitu behar izaten da laboreen produkzioa mantentzeko. Nitrogenodun ongarritzearekin eta nitrogeno kopuru handiko hondakinak (nekazaritza edo abeltzaintza jarduerak eragindakoak) deuzestatzearekin lotutako ekintza batzuek gainazaleko eta freatikoko uretan segurtasunaren mugatik goragoko nitrato kontzentrazioak eragin ditzakete.

EAEn, gainazaleko eta lurrazpiko uretan legeriak ezarritako estandarrrak gainditzen dituzten nitrato kontzentrazioak Arabako Lautadan besterik ez daude.

(d) Erantzunak

Nekazaritza eta ingurumena babesteko neurriei atxikitako azalera. Egun, nekazaritza eta ingurumen neurriak, nekaziak nekazal ingurumena babestera eta hobetzera bultzatzeko helburua dutenak, bitarteko garrantzitsuenetarikoa dira ingurumenarekin zerikusia duten gaiak Nekazaritzako Politika Bateratuan (NPB) integratzeko.

EAEn, nekazaritza eta ingurumen irizpideei atxikitako azalera handitu egin da, baina oraindik ere EB-15-en batez bestearen azpitik dago, NAEren proportzioari dagokionez (%7, %25en aldean). Luxenburgo eta Finlandia bezalako herrialdeak aipatu neurri hauei atxikitako NAEren %100tik hurbil daude.

Natura babesteko programei atxikitako azalera (2000 Natura Sarea). Sarearen barruan nekazaritza habitat estentsibo eta intentsibo ezberdinak daude. Erabilera horiek habitat jakin batzuentzako kaltegarriak ez badira existitzen jarraitu ahalko dute soilik.

EAEn, 2000 Natura Sarearen baitan nekazaritza estentsiboaren menpe dagoen habitat kopurua Europako batez bestekoaren gainetik dago (%27,7, %17ren aldean); bestetik, EAEn, 2000 Natura Sareak Erkidegoaren guztizko azalerarekiko duen proportzioa Europako batez bestekoaren gainetik dago. Hala ere, kontuan izan beharra dago EAEn adierazle honetan Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL) bakarrik barne hartzen direla, eta ez Hegaztientzako Babes Bereziko Zonak (HBBZ).

Nekazaritza ekologikora zuzendutako azalera. 1998 eta 2004 artean nekazaritza ekologikora zuzendutako azalera %163 hazi da eta 2004an NAEri zegokionez zuen proportzioa %0,38koa zen. Europa mailan, 1998-2002 artean, nekazaritza ekologikora zuzendutako azale-

ra %114 hazi da eta 2002an nekazaritza eredu horri zuzendutako NAEren proportzioa %3,76koa zen. Bilakaera positiboa da, baina Europako estandarrak betetzera iristeko lan handia egin beharra dago oraindik.

PEFC[11] ziurtapenari atxikitako basoko azalera . EAE tokiko ziurtapen sistema garatu duen lehen erkidegoa izan da Espainiako estatuan. Kudeaketarako lehen urtean (2004), ziurtapen horri atxikitako basoko azalera 28.000 ha-koa izan da, basoko azalera osoaren %7. Dena dela, aipatu ziurtapenari atxikitako basoko azalera, EAEn, urrun dago Austria, Finlandia eta Norvegia bezalako herrialdeetan existitzen diren balioetatik. Bertan basoko azaleraren %100 dago ziurtapenari atxikita. Hala ere, aintzat hartu behar dugu Estatu mailan ziurtapen sistema beranduago garatu dela.

3.3. Industria enpresek ingurumen babesean egindako gastua

Industria enpresek ingurumen babesean egindako gastuari buruzko inkestako (EINek egindakoa) azken datuek adierazten dutenez, enpresa horiek 2004an EAEn egindako gastu osoa 198 milioi eurokoa izan da, eta horrek %8,2ko hazkundea adierazten du 2003ko gastuari dagokionez.

198 milioi euro horietatik, 79.842.531 euro, hots, %40,3, inbertsioetako gastuei dagokie (%41 aurreko urtean) eta %59,7 gastu arruntei. Inbertsioetara bideratuko 79,8 milioi eurotatik, %44,6 ekipo eta azpiegituretako inbertsioak egitera bideratu zen (%54,1ra iritsi ziren).

Gastua BPGren ehunekotzat neurtuta, %0,39 (%0,38 aurreko urtean), EAE bosgarren postuan dago Asturiasen (%0,58) eta Nafarroaren (%0,43), Gaztela eta Leonen (%0,42) eta Kataluniaren (%0,4) atzetik.

Aurreko urtean ez bezala, Extremadurak, arlo honetako ahalegina berean mantendu duen bakarrak, izan ezik, gainerako autonomia erkidego guztiek ahalegin hori handitu egin dute. Hala eta guztiz ere, eta 2003an gertatu ez bezala, Asturias eta Nafarroarekin batera Gaztela eta Leonek eta Kataluniak ere EAEk baino ahalegin handiagoa egin dute.

II.3.10. GRAFIKOA. AAEETAKO INGURUMEN BABESERAKO GASTUA, BPGRI DAGOKIONEZ, INDUSTRIA ENPRESETAN (EHUNEKOTAN)



Iturria: EIN.

[11] Baso Ziurtapeneko Sistema Pan-Europarra. Sistema hau baso sektore pribatuaren ekimena da; horren arabera, bitarteko independiente batek ziurtatzen du basoko produktu jakin bat ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik irizpide iraunkorrak errespetatuz kudeatu den baso batetik datorrela.

II.3.12. Koadroa. Industria enpresek ingurumen babesean egindako gastu osoa (€)

	2001	2003	2004
Andaluzia	231.339.509	236.224.390	260.729.994
Aragoi	57.257.383	62.785.906	66.423.193
Asturias	102.420.216	86.437.063	100.763.912
Balearrak	6.321.902	4.402.474	8.578.446
Kanariak	30.894.920	33.576.869	46.940.256
Kantabria	28.610.173	22.325.280	28.556.244
Gaztela eta Leon	147.524.197	153.536.263	184.800.061
Gaztela-Mantxa	51.312.231	68.330.462	91.943.337
Katalunia	482.249.139	528.891.058	580.469.271
Valentzia	182.700.670	199.326.426	214.494.486
Extremadura	14.246.357	12.685.038	14.519.322
Galizia	130.559.777	115.730.330	148.397.658
Madril	118.788.493	115.928.496	129.760.216
Murtzia	64.776.432	70.503.028	72.434.016
Nafarroa	50.903.937	54.084.921	58.617.935
EAE	174.542.038	183.329.517	198.277.508
Errioxa	16.457.690	15.205.304	16.738.346

Iturria: EIN.

Ekoizpen azpiegiturak

Azpiegitura fisikoak eremu jakin bat garatzeko beharrezko diren ekipamendu, egitura eta laguntzako zerbitzu guztiak dira. Bi azpiegitura mota bereizten dira, ekoizpen-garapenarekin lotutakoak (azpiegitura ekonomikoa edo oinarrizkoa), eta honen barruan ur, elektrizitate eta gasa hornitzeko, zaborra biltzeko eta hondakinak arazteko, garraio eta telekomunikazioetako zerbitzuak eta lurzoruaren kudeaketarekin lotutakoak (uholdeen prebentzioa, drainadurak, higadura, baso-berritzea,...) jasotzen dira,, eta azpiegitura soziala esaten zaiona, azken hau laguntza, osasun, hezkuntza, kultura, ingurumen prebentzio, segurtasun eta administrazioko zerbitzuak herritarrei eskaintzera zuzenduta dago.

Zentzu horretan, EAEk orografia zaila eta biztanleriaren dentsitate handia ditu, eta honekin batera populazioaren banaketa hirigune askotan sakabanatuta dago, horregatik, azpiegitura mota honetan inbertsio handia behar da, bai espazioko kantitate handi samarra hartu behar duelako bai bere eraikuntzak dakartzan kostuengatik (ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak).

4.1. Garraioa

Bere kokaleku estrategikoagatik zein bere jarduera industrial handiagatik, EAE era guztietako trafiko mailarik handiena duen Europako eskualdeetako bat da. Eusko Jaurlaritzaren Garraioaren Behatokiaren datuen arabera,

II.4.1. KOADROA. OBRA ZIBILAREN LIZITAZIOA EAE-N (MILAKA EUROTAN)

	2005	2006	2005-06
Admin. Nagusia	158.659	623.570	293,03
Admin. Autonomikoa	324.519	303.342	–6,53
Tokiko Admin.	1.337.929	2.334.084	74,45
GUZTIRA	**1.821.107**	**3.260.996**	**79,07**
Eraikuntza	411.757	623.362	51,39
Obra Zibila	1.409.350	2.637.634	87,15

Iturria: SEOPAN.

EAEn egunero 580.000 tona salgai baino gehiago garraiatzen dira, eta hauetatik %80a errepide bidez garraiatzen da, %16a itsasoz eta gainerakoa trenbidearen bidez, aireko trafikoa oso bakana baita alderdi honetan.

Errepide-sare sarria, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu barneko zein kanpoko trafikoaren beharrizanak betetzen eta egunez egun zerbitzu hobeak eta kalitate handiagokoak eskaintzen saiatzen dira.

2006. urtean hiru proiektu handi abiarazi ziren: abiadura handiko trenbide-sarearen lehen zatiak, Super-hegoalde Bilbotarra - Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren lau zati eta Donostiaren ertzetik ibiliko den A8-ren ingurubidea.

Proiektu horiek bere isla dute Estatuko Administrazioak, berau baita Europa Barneko eta Penintsulako Trenbi-

4

II.4.2. KOADROA. EAE-KO ADJUDIKAZIOAK SUSTAPEN MINISTERIOAREN ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN INGENIARITZA ZIBILAREN ARLOAN (MILAKA EUROTAN)

	2003	2004	2005	2006
Guztira	**80.549**	**80.928**	**36.910**	**201.052**
Ministerioa eta Erakunde Autonomoak	1.292	47.270	425	—
Estatuko Erakunde Publikoak	79.257	33.658	36.485	201.052
AENA	5.419	10.052	7.623	7.371
FEVE	7.500	1.908	10.572	20.963
ADIF	—	—	3.398	173.681
Portuak	60.212	15.447	21.727	32.447
RENFE	8.849	9.304	823	641

Iturria: Sustapen Ministerioa

deko Sareko eskumenaren titularra; eta Tokiko Administrazioek (Errepide Sarea Foru Aldundien eskumena delako) egindako obra zibilaren lizitazioaren bolumen handian.

Zehazki, Estatuko Sozietate Publikoak ADIF[1] izenekoari, EAEko ingeniaritza zibilean, egindako adjudikazioek, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, gehikuntza handia erakusten dute 2005. urtetik 2006. urtera bitartean, 3.398 mila eurotatik 173.681 mila eurotara. Eta azkenean egindako inbertsioak, berriz, 31.886 mila eurotakoak dira aurreko ekitaldian egondako 9.175 mila euroen aldean.

4.1.1. Errepide bidezko garraioa

(a) Azpiegitura

N-1 errepideak EAE Iparraldetik Hegoaldera zeharkatzen du, errepide hau Lehen Mailako Europako Errepidearen barruan jasota dago (E-5 erreferentziako errepidea Glasgow-París-Algeciras) eta Ekialdetik Mendebaldera zeharkatzen duten A-8 Bilbo-Behobia (honetan barrena E-70 A Coruña-Bordele errepidea doa) eta A-68 Bilbo-Zaragoza (E-80 Lisboa-Pau) bidesariko autobideekin batera

[1] Trenbide Azpiegituren Administratzailea (ADIF) enpresa-entitate publikoa da. 2005eko urtarrilaren 1ean Trenbide Sektorearen Legea indarrean sartu ondoren sortu zen. ADIFen eginkizunak, besteak beste, trenbidezko trafikoaren kudeaketa, azpiegituraren administrazioa eta estatuko gobernuak eskatzen dion azpiegitura egitea dira. Bere erantzukizuna da gobernuak eskatzen dizkion azpiegitura berriak eraikitzea, eta bere titularitatekoa den trenbide sare osoa (arrunta eta abiadura handikoa) mantentzea, garraioko zerbitzuek erabili ahal izateko.

II.4.3. KOADROA. GARRAIOAREN AZPIEGITURETAKO INBERTSIOAK LURRALDEKO ESPARRUAREN, GARRAIOKO ERAREN ETA URTEAREN ARABERA

	EAE			Estatua		
	2003	2004	2005 (bb)	2003	2004	2005 (bb)
ERREPIDEA GUZTIRA	**333.753**	**339.998**	**352.734**	**7.360.304**	**7.244.489**	**8.318.691**
Estatua	—	—	—	2.836.237	2.836.144	3.153.269
Autonomia Erkidegoak	—	—	—	2.090.543	2.081.009	2.694.519
Aldundiak	311.917	336.011	347.784	775.899	807.236	898.730
Bidesariko Autobideen Emakidadunak	21.836	3.987	4.950	1.657.625	1.520.100	1.572.173
TRENBIDEA GUZTIRA	**153.511**	**89.150**	**117.702**	**4.185.745**	**4.828.743**	**6.258.495**
Trenbideen ZN	20.082	12.629	21.121	534.776	562.429	1.308.566
ADIF	12.249	9.175	31.886	2.157.893	2.311.955	3.532.083
Autonomia Erkidegoak	—	—	—	224.080	359.945	301.393
RENFE	23.020	22.294	1.186	925.200	1.270.411	743.582
ALDIRIKOAK GUZTIRA	**51.955**	**45.052**	**63.509**	**343.796**	**324.003**	**372.871**
FEVE	5.750	9.560	8.150	71.340	72.190	75.880
Autonomia Erkidegoen konpainiak	46.205	35.492	55.359	272.456	251.813	296.991
AIREKOA GUZTIRA	**11.025**	**21.082**	**21.069**	**2.212.052**	**2.020.161**	**1.512.441**
Abiazio zibilaren ZN	—	—	—	3.356	5.154	5.811
AENA	11.025	21.082	21.069	2.208.696	2.015.007	1.506.630
ITSASOKOA GUZTIRA	**59.318**	**57.704**	**79.117**	**1.023.037**	**1.065.944**	**1.203.371**
Merkataritzako Ontzidiaren ZN	37	103	264	4.568	7.352	9.549
Kostaldeen ZN	3.911	9.442	3.060	208.658	145.881	140.899
Estatuko Portuen Erakunde Publikoa	35.279	40.878	57.088	18.932	31.935	52.168
Itsasoko Salbam. eta Segurtas. Estatuko Zerbitzua S.	6	149	0	102.277	103.114	134.468
Portu Autonomikoak	20.085	7.132	18.705	688.602	777.662	866.287

(bb) behin-behinekoak. Unitatea: Milaka eurotan.
Iturria: 2003ko EAEko datuak: OTEUS Euskadiko garraioaren Behatokia. Gainerako datuak: Sustapen Ministerioa. Estatistikako urtekariak.

II.4.4. KOADROA. EAE-KO GARRAIO SISTEMAREN OSAERA

Sistema	Azpiegitura	Organo titularra	Erakundea/Operadorea
Bide Sistema	Errepideen Sare Nagusia	Foru Aldundiak	Garraioko Zerbitzu Publikoaren emakidaduna/mailegaria
	Herri Barruko Sarea	Udalak	
	A-68 autobidea	Estatua	
Trenbide Sistema	Europa Barneko Sarea Penintsulako Sarea	Estatua	Renfe
	Sare Metrikoa	EAE	Eusko Tren
		Estatua	FEVE
	Metroa/Tranbia	EAE	Metro Bilbao, Eusko Tren
	Zubi Eskegia	Bilboko Portuko Agintaritza	Pribatua
Portu Sistema	Interes Orokorreko Portuak	Estatua	Portuko Agintaritza
	Portu Autonomikoak	EAE	EAE
Aireko Sistema	Interes Orokorreko Aireportuak	Estatua	AENA
Kableko Sistema	Igogailuak eta funikularrak	EAE	Pribatuak Publikoak
Garraio Intermodaleko Sistema	Garraio eta Logistikako Zentroak	Partzuergo/Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

Iturria: Garraioaren Plan Zuzentzailea 2002-2010.

Iberiar Penintsulak Europako gainerakoarekin komunikatzeko bide nagusietako bat da.

Nazioarteko trafikoaren bide hauetaz gainera, 4.000 kilometro baino gehiagoko errepide sareak EAEko barneko komunikazioa osatzen du, hauen titularitatea Foru Aldundiei dagokie (baita A8 autobidearen titularitatea ere).

Eskualdeen arteko konexiorako bide nagusietako batzuk Debako ibarreko korridorea eta Durango-Beasain zeharkako ardatza, azken hau eraikitze bidean dago eta Bizkaiko eta Gipuzkoako barnealdeko udalerri industrial nagusi eta populatuetako batzuen arteko komunikazioa ahalbidetzen du, eta Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituen

II.4.1. Grafikoa. Errepideetako inbertsioa EAEn



Iturria: Eustat.

II.4.5. Koadroa. Errepide sarea (Km) mota eta lurraldearen arabera

	1995	2000	2003	2004	2005
Guztira Estatuan	**162.617**	**163.557**	**164.584**	**165.152**	**165.646**
Edukiera handiko bideak (1+2)	8.133	10.443	12.009	12.444	13.156
Sarearen gainerakoa (3)	154.484	153.114	152.575	152.575	152.490
Guztira EAE-n	**4.358**	**4.353**	**4.263**	**4.250**	**4.218**
Bidesariko autobideak (1)	187	196	201	206	211
Autobide libreak, autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak (2)	240	299	318	316	325
Galtzada bakarreko errepideak (3)	3.931	3.858	3.744	3.728	3.682
Guztira ARABAN	**1.494**	**1.470**	**1.470**	**1.478**	**1.478**
Bidesariko autobideak (1)	61	62	62	62	62
Autobide libreak, autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak (2)	100	112	112	112	112
Galtzada bakarreko errepideak (3)	1.333	1.296	1.296	1.304	1.304
Guztira GIPUZKOAN	**1.336**	**1.356**	**1.358**	**1.361**	**1.371**
Bidesariko autobideak (1)	70	75	77	81	86
Autobide libreak, autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak (2)	69	83	85	85	91
Galtzada bakarreko errepideak (3)	1.197	1.198	1.196	1.195	1.194
Guztira BIZKAIAN	**1.528**	**1.527**	**1.435**	**1.411**	**1.369**
Bidesariko autobideak (1)	56	59	62	63	63
Autobide libreak, autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak (2)	71	104	121	119	122
Galtzada bakarreko errepideak (3)	1.401	1.364	1.252	1.229	1.184

Iturria: Eustat eta Sustapen Ministerioa

Leitzarango autobia dira. Finean, sare hau hirurogeita hamarreko hamarkadatik eraikita dago, baina inbertsioak bideak hobetzera edo arazo gehien sortzen zituzten gunean ezabatzera zuzenduta egon dira.

Momentu hauetan Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidearen eraikuntza, Garraioen Europa Barneko Sarearen barruan dagoena bere E-5 Ipar-Hegoa ardatzean, errepideen arloan EAEn egiten ari den obrarik garrantzitsuena da, eta burutzeko kostua, gutxi gorabehera, 650 milioi eurokoa izatea estimatu da 46,2 km-tarako. Zerbitzuan sartzea, berriz, 2007. urterako aurreikusita dago.

EAEko errepideetan batez besteko inbertsioa (eraikuntza, kontserbazio eta ustiapenean), Eustat-en datuen arabera, 2005. urtean 347 milioi euroko zenbatekoa gain-

II.4.6. Koadroa. EAE-ko salgaien barneko garraioa (Milaka Tn)

	1995	2000	2005	2006	1995-00	2000-06
Garraiatutakoa [a+b+c]	**55.724**	**79.627**	**107.109**	**108.243**	**42,9**	**35,9**
Kargatutakoa (a+b)	41.812	61.526	83.661	83.999	47,1	36,5
Deskargatutakoa (a+c)	41.721	60.064	83.083	82.878	44,0	38,0
Lekualdaketa mota						
Eskualde barruan (a)	**27.809**	**41.963**	**59.635**	**58.634**	**50,9**	**39,7**
Eskualdeen artean Guztira (a+b)	**27.915**	**37.664**	**47.474**	**49.609**	**34,9**	**31,7**
Luzatutakoa (b)	14.003	19.563	24.026	25.365	39,7	29,7
Jasotakoa (c)	13.912	18.101	23.448	24.244	30,1	33,9
Eskualdeen arteko ratioa Guztira [(b+c)/(a+b+c)]	50,0	47,3	44,3	45,8	–2,7	–1,5
Luzatutakoa [b/(a+b)]	33,4	31,7	28,7	30,1	–1,7	–1,6
Jasotakoa [c/(a+c)]	33,3	30,1	28,2	29,2	–3,2	–0,9

Iturria:Sustapen Ministerioa.

II.4.7. Koadroa. Errepide sarea (Km) mota eta lurraldearen arabera

	1995	2000	2003	2004	2005	Estatua 2005
Sare osoa (km) / azalera	0,60	0,60	0,59	0,59	0,59	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanleko	2,08	2,09	1,99	2,00	1,99	3,70
Ibilgailu kopurua / sare osoa	202	242	259	268	278	167
Ibilgailu kopurua / biztanleko	0,4	0,5	0,5	0,5	0,6	0,6
Batez besteko inbertsioa biztanleko eurotan	88,2	108,2	145,7	157,8	164,0	150,7
Batez besteko inbertsioa km sareko milaka eurotan	42,5	51,7	73,2	79,1	82,5	40,7
Errepideen km	4.358	4.353	4.263	4.250	4.218	165.646
Biztanleak	2.099.115	2.079.210	2.140.908	2.128.801	2.120.384	44.708.964
Ibilgailu kopurua	879.243	1.051.537	1.102.418	1.138.201	1.170.574	27.657.276
Batez besteko inbertsioa (milaka eurotan)	185.220	224.905	311.917	336.011	347.784	6.737.748*

*** 2004ko datua.**
Iturria: EIN eta Eustat.

ditzen duen gastu publikoa da, 164 euro inguru biztanleko eta 82,5 euro sareko km bakoitzeko, Estatuan aldi berean biztanleko egondako batez bestekoa baino %8 gehiago eta bikoitza baino gehiago kilometro bakoitzeko neurtzen badugu.

Horrek esan nahi du Europako sarerik trinkoenetakoa dela, izan ere, azalerako dentsiteterik handienetakoa du (0,6 km errepide azalerako km^2 bakoitzeko, Estatukoaren bikoitza, baina biztanleko dentsitate txikiagoa), eta %12 baino gehiagotan edukiera handiko bideek osatuta (eta hauetatik %40a bidesariko autobideak dira), Estatuan, berriz, %8 baino ez dira (13.156 km, eta hauetatik 2.648 km bidesariko autobideak dira). Estatuko edukiera handiko bide guztien %4,1 eta bidesariko autobideen ia %8a EAEn daude.

Bestaldetik, sare kopurua ezagutzeaz gainera bere kalitatea ezagutzea ere garrantzitsua da, eta horretarako, bideek zirkulaziorako ematen duten segurtasuna edo hauetan egoten diren istripu kopurua baloratu beharreko elementuak dira. Istripu kopùrua EAEko ibilgailu kopuruarekin erlazionatzen duen tasak Estatukoa gainditzen duen balorea erakusten du, 1.000 ibilgailu bakoitzeko 5,4 3,3ren aldean.

Azkenik, aipatu behar dugun egun EAEn garraioko lau zentro intermodal daudela: Vitoria-Gasteizko Garraio Gunea, Arasur (Rivabellosa, 2006. urteko urtarrilean inauguratuta), Zaisa (Irun) eta Aparkabisa (Trapaga), hauek "Europlataforms" izeneko Garraioko Plataformen Europako Taldearekin elkartuta daude. Honen helburua garraioen gune logistikoen erabilgarritasun ekonomikoa sustatzea da.

(b) Trafikoaren bilakaera

2005. urterako errepide sareko edukierekin estimatutako trafikoari buruz erabilgarri dauden datuek aurten trafikoaren etengabeko hazkundea egon dela erakusten dute, batez beste %1,4 hazi da EAEko errepide guztietarako (Estatuko titularitatekoak zein titulartzat Foru Aldundiak dituztenak). Tasa hau Estatu osoan baino handiagoa da. Guztira, EAEko errepideetan, gutxi gorabehera, Estatuan ibiltzen diren kilometro bakoitzeko ibilgailu kopuruaren %4,3 ibiltzen dira.

II.4.8. KOADROA. ERREPIDE SAREAN EDUKIEKIN ESTIMATUTAKO IBILGAILUEN TRAFIKOA TITULARITATEAREN ARABERA (MILIOIKA IBILGAILU KM BAKOITZEKO)

	2002		2003		2004		2005		2002-05		2004-05	
	Estatuko sarea	EAEko sarea	Estatuko sarea	EAEko sarea	Estatuko sarea	EAEko sarea	Estatuko sarea	EAEko sarea	Estatuko sarea	EAEko sarea	Estatuko sarea	EAEko sarea
EAE	**632**	**9.282**	**654**	**9.469**	**676**	**9.814**	**688**	**9.945**	**8,9**	**7,1**	**1,8**	**1,3**
Araba	374	1.440	388	1.463	403	1.490	409	1.534	9,4	6,6	1,5	3,0
Bizkaia	258	4.684	266	4.768	273	4.811	279	4.897	8,1	4,5	2,2	1,8
Gipuzkoa		3.159		3.238		3.514		3.514		11,2		0,0
Estatua	**114.890**	**113.730**	**119.634**	**100.906**	**122.645**	**119.070**	**125.823**	**119.250**	**9,5**	**4,7**	**2,6**	**0,2**

Iturria: Sustapen Ministerioa.

II.4.9. KOADROA. ERREPIDE BIDEZKO SALGAIEN GARRAIOA EAE-N JATORRI ETA DESTINOAREN ARABERA (MILAKA TONATAN)

	2004		2005	
	Destinoa EAE	Jatorria EAE	Destinoa EAE	Jatorria EAE
GUZTIRA	**96.774**	**93.170**	**nd**	**nd**
Espainia	**93.612**	**90.830**	**102.570**	**103.147**
Gaztela eta Leon	6.408	4.949	4.866	5.028
Nafarroa	5.366	3.731	4.792	3.307
Katalunia	2.193	2.449	2.095	2.400
Kantabria	2.473	1.841	2.750	2.958
Madril	1.598	2.118	1.605	2.305
Errioxa	*	*	1.576	1.579
Aragoi	1.678	1.777	1.453	1.446
Valentziako K.	1.036	1.059	758	981
Gainerakoa	4.883	4.929		
EAE	**67.978**		**79.122**	
Europa 15	3.154	2.321	nd	nd
Bestelako herriak	7	19	nd	nd

*** Gainerakoan sartuta.**
Iturria: Eustat.

Errepide bidezko salgaien trafikoak (bertan ez da jasotzen igarotzeko nazioarteko trafikoa) hazteko joerari eusten dio, eskualdeen arteko garraioa (%31,7ko hazkundea) zein eskualdeen barruko (+%39,7) garraioaren hazkundearen ondorioz.

Hala ere, Estatu osoan errepide bidez garraiatutako salgai guztien gaineko ratioa pixkanaka jaisten joan da hamarkadan zehar. 1995. urtean EAE guztiaren %9,47a zen, 2000. urtean %8,77a, 2004. urtean %7,32a, 2005. urtean %7,16a eta 2006. urtean %6,8a.

Eskualdeen arteko trafikoari begiratuz gero, auzoko komunitateekin egiten da truke-bolumen handiena (Gaztela eta Leon, Nafarroako Foru Komunitatea, Madril, Katalunia eta Kantabria).

Azkenik, EAEn hiri-autobusetan garraiatutako bidaiari kopurua %0,75 igo da 2005. urtean, 2003. urtetik 2004. urtera bitartean egondako beherakadaren ostean, eta berau 67.702 milaka pertsonako kopurura iritsi da. Sustapen Ministerioaren Urtekariak jasotzen dituen Ekonomia Ministerioak eskainitako datuek bilakaera honetan portaera aldakorra egon dela erakusten dute.

4.1.2. Trenbideko garraioa

(a) Azpiegitura

EAEko trenbide sarea 589 kilometrok osatuta dago. Hauetatik %51 RENFEkoa da (honek Madril-Irun eta Bilbo-Miranda izeneko bi linea nagusiak kudeatzen ditu), %37a Eusko Trenekoa (honen barruan Bilboko Metroaren oraingo bi lineen 34 km.), honetan ere Bilbo-Donostia-Hendaia linea ere dago, eta geratzen den %12a FEVEko bide estuko trenbideena, azken honek, berriz, Bilbo-Santander, Bilbo-Leon lineak eta Bilbo Handiko aldeko eskualdeen arteko konexio-lineak kudeatzen ditu.

Ibilbide luzeko lineei eta nazioarteko bere konexioei dagokienez, Irunek Frantziako TGV trenarekin duen ko-

II.4.10. KOADROA. EAE-KO TRENBIDEKO AZPIEGITURA OPERADOREAREN ARABERA (2005)

Renfe (1)	
Linea kopurua	3
Tren kopurua lanegun batean	436
FEVE	
ESKUALDEKO LINEAK	
Linea kopurua	2
Eskainitako tren kopurua (2)	3.684
Eskainitako trenak km-ko (2)	537.295
Eskainitako plazak km-ko (2)	39.595.499
ALDIRIKO LINEA	
Linea kopurua	1
Eskainitako tren kopurua	16.982
Eskainitako trenak km-ko	548.014
Eskainitako plazak km-ko	90.006.242
Eusko Tren (3)	
Linea kopurua	3
Linea arrunten luzera (km)	210,9
Bide bakarreko linea arrunten luzera (km)	151,4
Bide bikoitzeko linea arrunten luzera (km)	59,5
Eskainitako tren kopurua	198.809
Eskainitako plaza kopurua	48.610.768
Eskainitako km kopurua	4.556.315
Eskainitako plazak km-ko	1.184.835.092
Metro Bilbao	
Linea kopurua	2
Geltoki kopurua	34
Sarearen luzera (km)	36,39
Edukiera erosotasun egoeran (pertsonak)	523
Eskainitako km kopurua	3.979.773
Eskainitako bagoi-km	15.919.092
Eskainitako plazak km-ko	2.340.106.524

(1) Bilboko aldiriko zerbitzuei dagokie.
(2) Trenaren jatorri-destinoari dagokio, EAE-n arabera banatu gabe.
(3) Ez da Bilboko Tranbia sartzen, Eusko Tran.
Iturria: RENFE, FEVE, Eusko Tren eta Metro Bilbao OTEUSen.

nexioa eta Euskal Y-aren proiektua aipatu behar ditugu, azken hori EAErako trenbide berria da abiadura handiko trenarekin lotuta, honek, bestalde, erkidegoko hiru hiriburuak 30 minututan lotu nahi ditu eta Madril eta Bordele 2 ordu baino gehixeagotan. Horretarako hasiera batean estimatutako inbertsioa, berriz, 3.000 milioi eurokoa da.

Azkenik, EAEn geltoki intermodal bakarra dago, Jundizko geltoki arabarra RENFEren mendekoa. Honek Europako trafikoa lortzeko lehiatzen da Baiona-Mugerreko pleitaren zentro europarrarekin, Baionatik gertuko aldean, 20 Ha-koa da gehi erreserbako 59 Ha baino gehiago lur eta trenbideko loturak eta autobiderako sarbideak ditu.

(b) Trafikoaren bilakaera

Bilboko Metro eta Euskotreneko bidaiarien trenbidegarraioan (datuak bi hauen gainean baino ez ditugu), berriro ere igoerak gertatzen dira. Bilboko Metroan garraiatutako bidaiari kopurua, berriro ere, hazi da azkeneko ekitaldian, %2,5 hain zuzen ere, guztira, 79,8 milioi lagun izan dira. Eusko Trenari dagokionez, berriz, hazkundea %2,3koa izan da azkeneko urte honetan, halere, portaera hau ez da gertatu linea guztietan. Bizkaiko kasuan, esan genezake ere gehikuntzari eutsi zaiola Bilboko Tranbiak izan duen funtzionamendu onari esker, eta neurri txikiagoan Bilbo-Ermua lineari esker. Gipuzkoan, aldiz, linea guztietan handitu da garraiatutako bidaiari kopurua.

4.1.3. Aireko garraioa

(a) Azpiegitura

EAEn hiru aireportu daude, denak hiriburuetako bakoitzetik hurbil kokaturik (Loiu, Hondarribia eta Foronda), hortaz, 70 km.ko erradioan bost aireportu daude (Noain Iruñean eta Miarritze erantsita).

Loiuko aireportua (Bizkaia) bidaiarien eragiketetan espezializatuta dago, eta Estatuko merkatuan kapilaritate sare handia du eta konexioa Europako *hub* nagusiekin.

II.4.11. KOADROA. EUSKO TREN ETA METRO BILBAO-KO BIDAIARIAK

	2000	2002	2004	2005	2006	2000-06	2005-06
Guztira Eusko Tren	**18.139.002**	**18.031.909**	**18.896.716**	**20.580.367**	**21.045.775**	**16,0**	**2,3**
Bizkaia	7.602.391	7.399.323	9.124.769	10.139.300	10.167.450	33,7	0,3
Deustua - Lezama	2.379.388	2.309.525	2.107.986	2.202.550	2.146.331	–9,8	–2,6
Bilbao - Bermeo	2.444.836	2.326.543	2.199.683	2.305.143	2.274.004	–7,0	–1,4
Bilbao - Ermua	2.557.661	2.501.093	2.421.431	2.606.211	2.614.081	2,2	0,3
La Reineta Funikularra	220.506	214.914	203.973	203.666	198.182	–10,1	–2,7
Bilboko Tranbia		47.248	2.191.696	2.821.730	2.934.852		4,0
Gipuzkoa	10.536.611	10.632.586	9.771.947	10.441.067	10.878.325	3,2	4,2
Ermua - Amara	3.537.602	3.862.839	3.711.414	3.857.550	4.028.910	13,9	4,4
Lasarte Oria - Hendaia	6.973.967	6.743.713	6.026.775	6.551.220	6.812.493	–2,3	4,0
Azpeitia – Lasao bapore-trena	25.042	26.034	33.758	32.297	36.922	47,4	14,3
Metro Bilbao	**54.173.349**	**66.705.570**	**73.088.978**	**77.801.841**	**79.780.094**	**47,3**	**2,5**

Iturria: Euskotren eta Metrobilbao.

II.4.2. Grafikoa. Bidaiari eta salgaien aireko trafikoaren bilakaera EAEn



Iturria: Eustat.

II.4.12. Koadroa. Aireko trafikoaren bilakaera kontzeptu, esparru eta aireportuaren arabera

	EAE				Foronda				Loiu				Hondarribia				2000-06			
	2000	2004	2005	2006	2000	2004	2005	2006	2000	2004	2005	2006	2000	2004	2005	2006	EAE	Foronda	Loiu	Hondar.
Aireontziak guztira	**58.933**	**63.403**	**66.899**	**69.540**	**13.210**	**10.560**	**8.461**	**9.015**	**40.254**	**46.606**	**51.345**	**51.712**	**5.469**	**6.237**	**7.093**	**8.813**	**18,0**	**–31,8**	**28,5**	**61,1**
Nazionala	39.038	42.167	48.565	49.155	7.883	6.734	5.249	4.860	25.772	29.313	36.336	35.729	5.383	6.120	6.980	8.566	25,9	–38,3	38,6	59,1
Nazioartea	19.895	21.236	18.334	20.385	5.327	3.826	3.212	4.155	14.482	17.293	15.009	15.983	86	117	113	247	2,5	–22,0	10,4	187,2
Bidaiari guztiak (milaka)	**2.936**	**3.766**	**4.218**	**4.389**	**119**	**92**	**90**	**172**	**2.539**	**3.386**	**3.831**	**3.857**	**278**	**288**	**297**	**360**	**49,5**	**44,5**	**51,9**	**29,5**
Nazionala	2.095	2.596	3.227	3.295	102	86	81	81	1.715	2.222	2.850	2.855	278	288	296	359	57,3	–20,6	66,5	29,1
Nazioartea	841	1.170	991	1.094	17	6	9	91	824	1.164	981	1.002	0	0	1	1	30,1	435,3	21,6	
Salgaiak guztira (Tn)	**37.812**	**47.952**	**48.049**	**47.356**	**33.599**	**43.684**	**34.785**	**31.575**	**4.037**	**4.153**	**3.951**	**3.391**	**176**	**115**	**414**	**281**	**25,2**	**–6,0**	**–16,0**	**59,7**
Nazionala	6.379	11.165	11.380	10.698	3.783	8.296	—	—	2.421	2.755	2.670	2.132	175	114	414	270	67,7	—	–11,9	54,3
Nazioartea	31.433	36.787	36.669	36.658	29.816	35.388	—	—	1.616	1.398	1.281	1.259	1	1	0	11	16,6	—	–22,1	1000,0

Fuente: Eustat y AENA.

Hobetzeko bere aukerak oraingo sarearekin iristerik ez dagoen Europako destinoetara maiztasun berriak abiaraztean dautza. Hautatutako destinoak 2 orduko hegaldiaren ratioan egon behar dira eskualdeko aireontzien bidez operatibo izateko. Esate baterako: Erroma, Munich, Stuttgart, Ginebra, Luxenburgo, Amsterdam eta Manchester… Hala ere, eredu honek hazkunde geldoak dakartza, izan ere, *hinterland* izenekoaren eskariaren bilakaeran oinarritutako hazkundeetan oinarritzen da.

Hondarribikoak (Gipuzkoa) zerbitzua ematen dio funtsean Estatukoak diren bidaiarien trafiko erregularrari eta bere ingurunean sortzen diren barneko trafikoaren beharrizanei erantzuten die. Jatorri/destino nagusiak Madril eta Bartzelonako hiriak dira.

Forondako aireportua (Araba) salgaien garraioan espezializatuta dago. Horrela bada, aireportuko jardueretara zuzendutako 15 Ha horietatik karga-eremuak 5,13 Ha hartzen ditu (azalera osoaren heren bat baino gehiago), zerbitzuen eremuak 3,05 Ha, bidaiarienak 1,36 Ha hartzen dituen terminala eta 1,95 Ha-ko aparkalekua ditu; eta gainerakoa abiazio orokorreko (0,59 Ha) eta hornidura energetikoko eremuak (2,92 Ha) hartzen dute. Fokalizatze honek azkeneko urteotan hazkunde maila nabarmenak lortzea ahalbidetu dio karga-bolumenari dagokionez.

(b) Trafikoaren bilakaera

Loiuko aireportutik, 2006. urtean, guztira, 3,8 milioi bidaiari igaro ziren, hau da, 2000. urtetik aurrera %51,9ko hazkundea egon da, hortaz, Estatuko iparraldeko aireportu handienetako baten moduan finkatu da. Salgaien trafikoari dagokionez, bere bolumena %16 murriztu da aldi berean.

Forondako aireportuak, Estatuko lau zama-aireportu garrantzitsuenetako bat denak (Madril eta Bartzelonaren atzetik, eta azkenaldian, hau da, 2004. urtetik Kanaria Handikoaren atzetik) ,2005. eta 2006. urte bitartean, salgaien bere trafikoaren %9,2ko beherakada izan zuen (Estatuan beherakada %0,5ekoa izan zen AENAren datuen arabera). Bidaiarien trafikoari dagokionez, 2006. urtean %91eko hazkundea izan zuen, horrela, 172 mila lagun egon ziren, hots, 2000. urtetik %44,5eko gehikuntza egon da.

Hondarribiko aireportuan, 2005. eta 2006. urte bitartean, bidaiarien trafikoa berriro handitu da baina salgaiena, berriz, murriztu da. 2000. eta 2006. urte bitartean %29,5eko gehikuntza egon da bidaiariei dagokienez, 360 mila lagun guztira; eta hazkundea %59,7koa izan da salgaietan, guztira 281 tona.

4.1.4. Itsas garraioa

(a) Azpiegitura

EAEko itsas portuak hiru talde handitan sailka daitezke. Aurreneko taldearen barruan Bilbo eta Pasaiako interes orokorreko bi merkataritza-portu handiak sartuko lirateke (hauek Portuko Agintaritzak kudeatzen ditu Estatuaren titularitatepean daudelako); bigarrena arrantzako portuek osatzen dute eta hauen eskumena autonomiako gobernuari dagokio; eta hirugarren taldean, berriz, jolaseko eta kirol arrantzako jarduera nautikoekin lotutakoak sartuko lirateke; jarduera hauek, bestalde, oro har, hasi berriak dira EAEn. Gure arreta gure erkidegoko bi portu handietan jarriko dugu: Bilbo eta Pasaia.

(b) Trafikoaren bilakaera

Tradizioari jarraiki, Bilboko Portua, Estatuko merkatuan, nagusiki lehengaien eta, zehazkiago, soltean garraiatutako produktu likidoen portu inportatzailea izan da, eta portaera honen salbuespen bakarra edukiontzietan eramandako salgaien fluxua izan da.

Sustapen Ministerioaren datuen arabera, Bilboko Portua, 2005. urtean, salgaien trafikoari dagokionez, Estatuko laugarren porturik garrantzitsuena zen Algeciras, Bartzelona eta Valentziako portuen ondoren, horrela, guztira 34,1 milioi tonako bolumena izan du.

2005. eta 2006. urte bitartean, Bilboko Portuko salgaien trafikoa %4,4 handitu zen eta 35,6 milioi tonatara iritsi zen. Azken horietatik 27,3 milioi tona soltean ziren, eta azken hauen %81,7a (222,3 milioi tona), berriz, likidoak ziren. Bestela esanda, gaur egun garraiatutako salgaien %62,6a, oraindik ere, solteko likidoak dira, batez ere petrolioko produktuak.

Pasaiako Portua askoz kota apalagoetan mugitzen da eta erregresioko azkeneko bi urteen ostean, 2006. urtean

II.4.3. GRAFIKOA. EAEKO PORTUETAKO ONTZI KOPURUA ETA GARRAIATUTAKO SALGAIAK



Iturria: Sustapen Ministerioa.

II.4.13. KOADROA. ITSAS GARRAIO BIDEZ MUGITUTAKO SALGAIAK MOTEN ARABERA SAILKATUTA

		Milaka tona							Aldakuntza %	
		batezbest. 1992- 2003	1995	2000	2004	2005	2006	%	04-05	05-06
Bilbo	**Guztira**	**27.360**	**27.901**	**28.745**	**33.214**	**34.090**	**38.590**	**100,0**	**2,6**	**13,2**
	Solteko gai likidoak	13.988	13.066	14.835	18.596	19.685	22.290	57,8	5,9	13,2
	Solteko gai solidoak	4.671	5.435	4.495	5.030	4.251	4.989	12,9	–15,5	17,4
	Edukiontziak	3.565	3.041	4.389	4.941	5.468	5.629	14,6	10,7	2,9
	Salgai konbentzionalak	3.237	3.604	3.957	3.940	3.824	4.300	11,1	–3,0	12,4
	Bestelako trafikoa	1.900	2.755	1.069	708	863	1.382	3,6	22,0	60,1
Pasaia	**Guztira**	**4.411**	**4.134**	**4.530**	**5.736**	**5.409**	**5.512**	**100,0**	**–5,7**	**1,9**
	Solteko gai likidoak	350	470	202	100	2	0	0,0	–98	—
	Solteko gai solidoak	2.441	2.219	2.716	3.479	3.274	3.253	59,0	–5,9	–0,6
	Salgai konbentzionalak	1.549	1.365	1.550	2.099	2.081	2.202	39,9	–0,9	5,8
	Edukiontziak	961	731	0	0	111	0	0,0		–99,8
	Bestelako trafikoa	71	79	61	58	53	57	1,0	–9,3	7,5

Iturria: Sustapen Ministerioa.

salgaien trafikoan, berriro ere, hazkundea egon da, %1,8koa hain zuzen ere, horrela, guztira, 5,5 milioi tonakoa izan da. Gehikuntza hori salgai orokorraren (konbentzionala zein edukiontzietan) hazkundeak azaltzen du, izan ere, solteko salgai solidoaren trafikoa (nagusiki txatarrak eta siderurgiako produktuak), portu honen trafikoaren %60a dena, oraindik ere murrizten ari da.

4.2. Energia

(a) Azpiegitura

Inportatutako energiaren eraldaketa EAEko jarduera ekonomikoaren barruan garrantzi nabarmena duen industria da, petrolioa fintzeko eta argindarra sortzeko sektoreekin. Azkeneko urteotan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriak sortzeak euskal energia eskaintzaren kalitatea indartzeko xedea du.

Gaseko azpiegitura

Petronor enpresaren findegiak urtean 11 milioi tona petrolio gordin prozesatzeko ahalmena du eta oliobide batzuen bidez konektatuta dago CLH enpresaren biltegiratze-zentroekin Rivabellosa eta Valladolid herrietan eta Bilboko Portuarekin, honek, gainera, neurri handiko petroliontziak atrakatzeko instalazioak ditu (EAEko bestelako gune batzuetan dauden biltegiratzeko eta banaketa-logistikako bestelako instalazioez gainera). Petrolio gordina eta bere deribatuak biltegiratzeko ahalmena gure erkidegoan, Petronor eta bestelako operadoreen artean, 2,9 milioi m^3koa da.

Gasaren sektoreak gas natural likidotuko (GNL) inportazio-terminala du Bilboko Portuan kokaturik (2003. urtetik eta biltegiratzeko 300.000 m^3ko ahalmenarekin, metanoontzietarako deskarga-nasarekin, gehienez ere 140.000 m^3, biltegiratzeko 150.000 m^3ko bi tanga eta birgasifikatzeko 800.000 Nm^3/h-ko ahalmena), bai eta gasa garraiatu eta banatzeko oinarrizkoa ere, 3.700 km ingurukoa, eta Estatuko gas-sistemarekin lotuta Hegoaldean eta Europako sarearekin Irunen (eraikitzeko fase aurreratuan).

Bermeoren aurrean dagoen "Gaviota" izeneko gas naturaleko meatoki zaharra biltegiratze estrategiko gordailu bihurtu da (780 milioi Nm^3 gaseko bolumen erabilgarria).

Azpiegitura elektrikoak

Sektore elektrikoa gaur egun modernizatzen ari den elektrizitatea sortzeko parkeak osatzen du. Izan ere, Santurtzi (I eta II taldeak, fuel-olio edo gas naturalekoa) eta Pasaiako (inportazio-harrikatzekoa) planta termoelektriko zaharrak apurka-apurka ixtea aurreikusita dago, eta ziklo konbinatuko hiru zentral abiarazi dira: Bahia Bizkaia Electricidad 800 MW-koa Bilboko Portuan (2003. urtean), Iberdrolaren zentral termikora erantsita dagoen 400 MW-koa Santurtzin (2004. urtean), eta Bizkaia Energía Boroan (Amorebieta-Etxano) 800 MW-koa, 2005. urtean. Horretaz gainera, ekoizpena osatzen da neurri handiko bi instalazio hidraulikorekin (Sobrón eta Barázar, bien artean 113 MW-ko ahalmena dutenak), 100 instalazio minihidrauliko baino gehiago (10 MW baino gutxiago potentzia dutenak), guztira, 60 MW inguruko ahalmena dutenak, eta 3 instalazio mikrohidrauliko txiki.

Garraio sarea, berriz, hainbat gunetan Estatuko sarearekin eta Frantziarekin konektatuta dago (220Kv eta

II.4.14. KOADROA. EAE-KO BALANTZE ENERGETIKOA

Kteps	2005							2004-05 aldakuntza						
	Erregai solidoak	Petrolioa eta derib.	Gas naturala	Energia deribat.	Energias berrizt.	Energia Elektrik.	GUZTIRA	Erregai solidoak	Petrolioa eta derib.	Gas naturala	Energia deribat.	Energias berrizt.	Energia Elektrik.	GUZTIRA
Lehen mail. energ. ekoizpena	**0**	**8**	**0**	**40**	**350**	**0**	**398**		**–14,0**		**–0,5**	**–0,6**		**–0,9**
Barneko konts. gordin erabilg.	**512**	**3.074**	**3.335**	**40**	**343**	**486**	**7.790**	**4,9**	**2,4**	**34,7**	**–0,5**	**–2,8**	**–46,2**	**7,3**
Transformazioko sarrerak	443	9.340	1.883	37	54	0	11.757	5,9	–6,9	65,0	3,1	41,0		0,8
Transformazioko irteerak	84	9.038	0	205	0	1.121	10.448	–11,6	–7,3		–2,7	–100,0	55,7	–3,0
Energiaren amaierako konts.	**153**	**2.170**	**1.397**	**152**	**228**	**1.548**	**5.648**	**–7,2**	**3,6**	**4,6**	**–2,1**	**–11,7**	**–1,1**	**1,3**
Industria	153	47	1.073	141	193	1.012	2.619	–7,2	–8,7	4,6	–1,8	–14,0	–3,5	–1,5
Garraioa		1.777	0	0	5	18	1.800		5,1			19,0	16,9	5,2
Nekazaritza eta arrantza		169	0	4	0	4	177		–0,1	–100,0	21,2			–0,2
Zerbitzuak		43	97	8	0	275	423		–5,9	3,6	15,9	–100,0	3,8	2,8
Egoitzazkoa		133	227	0	30	239	629		–2,8	5,4		1,4	2,6	2,3

Iturria: EEE.

II.4.4. GRAFIKOA. ENERGIAREN AZKEN KONTSUMOAREN BANAKETA EAEN ARLOEN ARABERA



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea.

400Kv-ean eta 486 Km-ko luzera), eta osatzen da azpiestazio eta transformadore egokiekin eta energia elektrikoa ekoizletik banaketa-sareraino bideratzen duen banaketa-sarearekin, horrek, gainera, amaierako kontsumitzaileari ere horniketa egiten dio erdi eta beheko tentsioan. Bestaldetik, Frantziarekin elkartrukeak daude 400 kV-ko Hernani-Cantegrit eta 220 kV-ko Arkale-Mugerre lineekin.

Azpiegitura energetikoak energia berriztagarrien arloan

Eolikoan, funtzionamenduan dauden lau parke daude eta ezarritako potentzia, guztira, 134 MW-koa da (Elgea 27 MW-koa, Urkila 32 MW-koa eta Badaia 49 MW-koa Araban, eta Oiz 26 MW-koa Bizkaian), horietaz gain, geroz eta instalazio "minieoliko" gehiago daude (400 W-etik 45 kW arte).

Biomasa eta hondakinak balorizatzearen arloan zabortegiko biogasaren sei instalaziok funtzionatzen dute (BioArtigas Bilbon, BioSanmarkos Donostian, BioGardelegi Vitoria-Gasteizen, BioSasieta Beasainen, Jata eta Igorre) eta araztegiko lokatzen instalazio bat (Galindo Sestaon), guztira, 8,7 MW.

Artigasko zabortegitik gertu, Bilbon, 2005. urtean Zabalgarbiko hiri-hondakin solidoen berreskurapen energe-

II.4.15. KOADROA. EKOIZPEN ENERGETIKOA-TRANSFORMAZIOKO IRTEERAK ZENTRAL MOTAREN ARABERA EAE-N

	2003	2004	2005		2003-04	2004-05
	n	n	n	% bertikala	Aldaketa	
Guztira	**10.429**	**10.774**	**10.448**	**100,0**	**3,3**	**–3,0**
Findegiak	9.633	9.756	9.045	86,6	1,3	–7,3
Zentral termoelektrikoak	311	514	911	8,7	65,3	77,2
Aldibereko ekoizpena	376	384	378	3,6	2,1	–1,6
Kokeriak	107	117	104	1,0	9,3	–11,1
Sorkuntza termoelektriko berriztagarria*	3	3	10	0,1	0,0	233,3

*** 2004. urtea arte biogaseko plantak bakarrik jasotzen dira.**
Iturria: EEE.

II.4.5. GRAFIKOA. INTENTSITATE ENERGETIKOAREN BILAKAERA



Iturria: EEE.

tikoko planta abiarazi zen, HHS ziklo konbinatu eta gas naturaleko instalazioa, eta potentzia elektriko osoa, guztira, 95 MW-koa izanik.

Gainera, ***aldibereko ekoizpeneko*** 90 instalazio inguru zenbatzen dira, guztira, 440 MW-ko potentzia dutenak, gehienak industrialak, eta plaka ***fotovoltaikoko*** 770 instalazio baino gehiago, guztira, energia elektrikoaren ekoizpeneko 1,6 MWp-eko potentzia dutenak (autokontsumorako edo sare elektrikoarekin konektatuta sistemari horniketa egiteko) eta ***eguzki-kolektore*** teknikoen 240 instalazio (ur beroa ekoizteko).

(b) Energiaren ekoizpena eta kontsumoa

Energiaren Euskal Erakundearen 2005. urteko EAEko sektore energetikoaren ekoizpenari buruz erabilgarri dauden azkeneko datuek adierazten dute EAEren barruan egindako lehen mailako energiaren ekoizpena 398 Ktep[2]-koa dela (401,6 Ktep 2004. urtean), hortaz, %0,9ko beherakada egon da, eta beherakadak ekoizpen guztietan gertatu dira: petrolioa eta deribatuak –%14 (9,3 Ktep-etik 8 Ktep-ra); energia deribatuak –%0,5 (40,2 Ktep-etik 40 Ktep-era); eta energia berriztagarriak, iturri propìo nagusia, –%0,6 (351,1 Ktep-etik 350 Ktep-era).

[2] Ktep: Petrolioko milaka tona baliokide.

Lehen mailako energiaren ekoizpen propio urri honek EAEko eskari energetikoaren %5,1ari baino ez dio erantzuten[3], 7.790 Ktep-ekoa, aurreko urteko 7.287 Ktep-en aurrean (%6,9ko hazkundea). Energiaren amaierako kontsumoa, berriz, hazi ere egin da, aurten %1,3, eta 5.648 Ktep-era iritsi da, hazkunde hori azaltzen da petrolioaren deribatuen eta gas naturalaren kontsumoa handitu delako.

EAEko ekoizpen energetiko osoa (transformazioko irteerak deitutakoa), 2004. urtean %3,3 hazi zena eta 2003. urtean %19,2 murriztu zena, 2005. urtean %3 murriztu da findegien jarduera (EAEko energia transformatuaren %87a dena), kokeriak (–%11,1) eta aldibereko ekoizpena, energia deribatua (–%1,6) jaitsi direlako, halere, termoelektrikoen artean gehikuntzak gertatzen dira: %77,2 zentral termoelektrikoei dagokienez eta %233 sorkuntza energia berriztagarrietan oinarritzen denean.

Energiaren amaierako kontsumoan egondako hazkundea, aurretik ere aipatu dugun bezala 5.548 Ktep-ekoa izan dena, hurrengo sektore hauetan egondako kontsumoaren gehikuntzagatik azaltzen da: garraioa (%5,2), zerbitzuak (%2,8) eta egoitzazkoa (%2,3). Kontsumo industriala %1,5 murriztu da, halere, sektore hau eta garraioaren sektorea dira, oraindik ere, aipatutako kontsumo horretan eragin handiena dutenak. Lehenengoak kontsumo osoaren %46,4a ordezkatzen du eta bigarrenak %32a.

Energia motaren araberako amaierako kontsumoari dagokionez, berau interes handikoa da ingurumeneko ikuspegitik, izan ere, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdinak dakartza; petrolioaren deribatuek, oraindik ere, EAEko eskari energetikoaren gehiena ematen dute (%38,4), ondoren elektrizitatea (%27,4) eta gas naturala (%24,7) daude eta distantzia handira energia berriztagarriak, erregai solidoak eta energia deribatuak aurkitzen ditugu (honen barruan, nagusiki, prozesu industrialetatik edo aldibereko sorkuntza bezalako transformazio energetikotik berreskuratutako beroa sartzen da).

Azkenik, Balio Erantsi Gordin errealari dagokion amaierako kontsumotzat neurtutako intentsitate energetikoaren analisiak agerian uzten du berau 1995. urtekoaren %89a dela. Parametro honetan egonkortasuna bost urtez egon ondoren, 2005. urtean bi puntuko gorakada izan du BPGd energiaren amaierako kontsumoak izandako hazkundearen gainetik hazi baita.

4.3. Telekomunikazioak

(a) Azpiegitura

Telekomunikazioetako azpiegiturak Informazioaren Gizartearen hainbat zerbitzu asentatzen diren oinarria dira, horrela bada, hiritarrei sarearen testu, hiritarrei irudi edo soinuko zerbitzuetara jo ahal izatea ahalbidetzen dien medioa dira.

Informazioa eta bere tratamendu, analisi eta transmisioarekin lotutako teknologiak edozein gizarteren garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako baliabide estrategikoa dira. Ezagutzaren aro berri honetan herrialde honek duen postua ingurune berri honetara egokitzeko bere azpiegituren araberakoa izango da, kapital fisikoaz gainera baita giza kapitalarena ere.

Horregatik, beharrezkoa da telekomunikazioetako modu guztiak hartzen dituen informazioa tratatu eta igortzeko azpiegitura, batetik, beharrezkoa da (edukiera handiko telefonoko lineak, kablea, ordenagailuen azpiegiturak, Internet... adibidez), bai eta azpiegitura soziala ere, hau da, informazioa askatasunak mugi dadin ahalbidetzen duen gizartea.

Horrela, arlo honetako inbertsioak ezinbestekoak dira garapenerako, horien mende baitago gainerako jarduera ekonomikoen lehiatzeko garapena. Ondorioz, telekomunikazioetako sektorea balio erantsi handiko industria gisa egituratzen ari dela (zerbitzuen operadore eta kudeatzaileak, ekipoko ondasunen, edukien enpresa fabrikatzaileak/hornitzaileak,...), eta enpleguak eta aberastasuna sortzen ditu.

Telekomunikazioen maparen konfigurazioa konplexua da, izan ere, teknologiaren etengabeko aldaketak, baldintza berrietara moldatu eta askotan definizio zaila duten produktu eta zerbitzuak araupetzen saiatzen diren legeriaren aldaketak eta esparru hauetan ikusten diren enpresako etengabeko, mugimenduak direla kausa uneoro zerbitzu berriak eskatzen dira.

[3] Balantze energetikoetan barneko kontsumo gordinaren edo energiaren eskariaren eta amaierako kontsumoaren artean bereizten da. Energiaren eskaria edo barneko kontsumo gordina, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazio, exportazio eta galeren arteko balantzearen berdina da (garraio, biltegiratze, banaketa…bidez). Amaierako kontsumoa amaierako sektore kontsumitzaileen kontsumoaren batura da, hau da, industria, garraioa, lehen mailako sektorea, zerbitzuak eta egoitzazkoa.

Azkeneko urteotan zerbitzu tradizionalaren geldialdia eta sakelako telefoniarekin lotutakoen gehikuntza ikusten ari gara, halaber, banda-zabaleraren eskaria ere hazten ari da. Izan ere, banda zabala azkeneko urteotako telekomunikazioen merkatuaren protagonista izaten ari da, batez ere ADSLren garapenaren bidez.

Etorkizunean garapena ere izango duten bestelako negozio berriak Operadore Mugikor Birtualak-OMB izango dira (sakelako telefono-deien zerbitzua bere sarearen bidez eskaintzeko maiztasun-espektrorik ez duten enpresak, ondorioz, sakelako telefono-deien zerbitzuak bere markapean birsaltzen dituztenak zerbitzu mugikorraren bestelako operadore baten sarea erabilita), bai eta Internet bidezko telefonia ere, hau IPren gaineko Ahotsa, VozIP, VOIP (ingelesezko siglengatik) edo IP Telefonia, honek ahotsa Internet bidez igortzea ahalbidetzen du, horrela, erabiltzaileek deiak egin ditzakete datu-sare batekin konektatuta dauden bere ordenagailuen bidez.

Gure erkidegoan telekomunikazioetako azpiegituren ahalmena garatzen eta sare oso eta operatiboa (enpresa, ikerketa-zentro eta administrazio publikoarentzat zein erabiltzaile partikularrentzat) bermatzen saiatzen ari dira. Azpiegitura hauek telefonoko sare tradizionalak, mikrouhinen sareak eta banda zabaleko sareak eratuta daude, hauek zerbitzuak eskaintzen dizkiete gure erkidegoan dauden telekomunikazioetako enpresei.

Euskadiko Administrazio Publikoak EAEn Informazioaren Gizartea garatzeko planteatutako hainbat ekintzen artean Informazio Gizarteko Euskadi Plana (2001-2005) aipatu behar dugu. Plan honen barruan lau ardatz estrategiko jasotzen dira: prestakuntza eta kultura-aldaketa , On-lineako Administrazioa, e-Business eta Azpiegiturak. Horren gainean informazio gehiago eskuratzeko, irakurlea 2005. urteko Memoria Sozioekonomikora igortzen dugu, bai eta atal hau zein *I+G+I-ko Jarduerei eta IKTei* buruzkoa begiratzera ere.

(b) Bilakaera

EINaren datuen arabera, Internetera konektatzen diren enpresa guztietatik, %90a banda zabalaren bidez konektatzen da, eta zehazki, XDSL lineen bitartez, eta konexio finkoak, kablea adibidez, salbuespenak salbuespen, ez dira %10era ere iristen.

EAEko etxebizitzen telefoniako estaldurak, finkoak zein mugikorrak, 2006. urtean Estatuko batez bestekoa gainditzen du. Ordenagailuaren eta Interneteko sarbidearen penetrazioa ere EAEn Estatuan baino handiagoa da. Hala eta guztiz ere, banda zabalari dagokionez (ADSL, RDSI, kableko sarea), batez bestekoa gainditzen badu ere, postu asko galtzen dira Estatuko beste Autonomia Erkidego batzuekin alderatuta, hala nola Ceuta banda za-

II.4.16. KOADROA. ENPRESETAKO IKT-EN ERABILERAREN ALDAGAIAK (2006KO URTARRILEAN)
ALDAGAI ETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	Sare Lokalarekin (LAN)	"Hairirik gabeko' Sare Lokalarekin	Sakelako telefo-niarekin	IKT eginkizun zehatzak dituzten langileekin	Interneteko sarbidea ondoko honekin					
					Módem	RDSI	Banda zabala	XDSL (ADSL, SDSL,...)	Bestelako konexio finkoak (Kablea, LMDS,...)	Telefonia mugikorra (GSM, GPRS, UMTS, ...)
Andaluzia	65,8	15,5	93,1	26,3	15,6	19,6	95,5	93,1	5,6	28,9
Aragoi	72,3	18,6	90,9	24,3	13,1	22,6	93,1	90,4	7,0	25,7
Asturias	67,7	16,1	94,8	25,4	12,4	20,0	95,3	87,2	12,0	21,9
Balearrak	73,7	22,7	89,4	24,3	16,0	17,7	93,9	92,5	5,2	20,1
Kanariak	67,7	16,2	86,3	24,6	18,3	17,5	96,5	95,6	4,1	28,4
Kantabria	66,3	20,8	94,4	31,7	19,2	33,3	93,0	91,1	4,9	24,3
Gaztela eta Leon	70,2	14,6	91,1	24,9	16,2	21,6	92,4	89,5	7,3	26,9
Gaztela- Mantxa	58,2	11,7	92,9	23,9	22,6	22,0	87,4	81,7	8,3	21,7
Katalunia	73,2	18,4	90,2	28,3	14,5	16,3	95,1	91,8	9,3	27,5
Valentziako Erkidegoa	70,5	15,0	92,0	27,5	18,1	22,0	91,3	89,0	4,9	23,6
Extremadura	65,5	15,0	94,6	29,7	20,1	19,4	94,3	93,5	3,4	24,6
Galizia	66,8	14,8	94,2	21,7	14,1	18,5	91,4	82,3	12,2	24,5
Madril	78,4	24,1	93,8	37,1	16,0	19,8	96,6	92,0	12,3	31,3
Murtzia	70,6	14,2	94,7	26,6	15,2	21,3	88,5	86,2	4,5	21,5
Nafarroa	74,1	15,8	93,5	28,7	17,9	17,5	93,3	89,0	7,3	24,0
EAE	**70,8**	**12,0**	**94,4**	**29,1**	**15,8**	**16,9**	**95,3**	**91,5**	**7,7**	**28,3**
Errioxa	73,1	12,2	95,8	21,8	15,1	29,9	94,9	93,7	4,1	22,5
Ceuta eta Melilla	73,6	10,2	91,6	34,3	15,6	24,4	97,4	97,1	1,4	17,6

Iturria: EIN.

II.4.6. GRAFIKOA. IKTEN EKIPAMENDUAK DITUZTEN ETXEBIZITZEN EHUNEKOA



Iturria: EIN.

balaren %45,1eko penetrazioarekin, Madrilgo Komunitatea %44,3rekin, Melilla %43rekin, Balearrak %39,6rekin, Katalunia %39,4rekin, Kanariak %35,1ekin, Asturias %34,5arekin eta Kantabria %33,6rekin.

Eurostaten datuen arabera, 2006. urtean, banda zabaleren bidezko konexioa zuten etxebizitzen ehunekoa %30ekoa zen EB-27an, %32koa EB-25ean eta %34koa EB-15ean. Espainiar Estatuan, berriz ehunekoa, iturri beraren arabera, %29koa da. Ratiorik handienak Holandan (%66), Danimarkan (%63), Finlandian (%53), Suedian (%51) eta Luxenburgon (%44) daude. Islandia eta Norvegiak, berriz, %72 eta %57koa dute, hurrenez hurren.

90ko hamarkadaren bukaeran pentsatzen zenaren aurka, ez da aldaketa gogorrik egon Informazioaren Gizartearen zerbitzu berriak garatzeko beharrezko diren banda zabaleko komunikazio sare berrien, mugikor eta finkoen, hedapen fisikoari dagokionez. Telekomunikazioetako operadoreek Estatu osoan egindako inbertsio guztiak murrizten joan dira 2000. urtetik aurrera, funtsean telefonia finkoarekin eta banda zabala garatzeko inbertsiorik ezarekin lotuta.

Banda zabaleko konexioetan estaldura txikiago egoteak Administrazio Publikoak eta, hauen artean, Europako Batzordea, kezkatzen ditu. Azken horrek estrategia abiarazi du banda zabaleko Interneteko konexioek erkidegoko lurraldearen 5100eko estaldura lor dezaten eta etxebizitzetan %50eko penetrazio-tasa izan dezaten 2010. urtean. Horretarako erkidegoko fondoak, egiturazko fondoak eta landa garatzeko fondoak esate baterako, baliatu ditu landako eskualde eta eskualde behartsuen teknologia-arraila murrizteko xedez .

Eta, Memoria honen *I+G+I eta IKTen Atalean* aipatzen den bezalaxe, OCDEk "Information Technology Outlook 2006" izeneko bere txostenean azaltzen du sare, software eta hardwareko etengabeko hobekuntza teknologikoek, zerbitzu mugikorrek eta haririk gabekoek barne, bai eta edukiak babesteko sistemek ere, eduki digital berriak garatzea ahalbidetu dutela; baina etorkizuneko erronka edukien garatzaileen, erreminten ekoizleen eta banatzaileen arteko lankidetza da. Ondorioz, elkarreragingarritasuna eta bateragarritasuna konponbide azkarra ere behar duten arazoak dira.

7 8 9 DEL AC
4 5 6 × ÷
1 2 3 + −
0 . x10^x Ans =

3

ekonomia EAEn

Kanpoko ekonomi ingurunea

1.1. Faktore ekonomiko nagusiak

Munduko ekonomiak indartsu hedatzen segitu zuen 2006an, hazkunde tasak arian-arian baretu diren arren. Urteko lehen seihilekoan eremu geografiko nagusietan hazkunde sendoa ikusi ostean bigarrenean pixka bat moteldu zen, AEBetan bereziki. Aldi berean, azaleratzen ari diren ekonomiarik handienetako zenbaitetako hazkunde indartsuak, kanpoko merkataritzaren dinamismoarekin batera, ondo etorri da munduko ekonomiaren hazkunde sendo horrentzat.

Munduko BPG 2006an %5,4 hazi da, FMIren kalkuluen arabera, aurreko urtean baino puntu erdi gehiago, alegia.

Ekonomia aurreratuek, multzoan, %3,1eko hazkundea izan dute (%2,5 aurreko urtean), eta AEBetako BPG hamarrena azkartu da (badirudi hazkundea indarra galtzen ari dela, besteak beste, etxebizitzen merkatuaren desazelerazioaren ondorioz); euro eremukoa %2,6 hazi da, aurreko urtean baino zazpi hamarren gehiago, eta Japoniakoa %2,2, 2005ean baino hiru hamarren gehiago. Industrializatu berri diren Asiako lau herrialdeetan (Korea, Txinako probintzia Taiwan, Singapur eta Hong-Kongeko RAE), %5,3 hazi zen (%4,7 2005ean).

Azaleratu eta garatzen ari diren ekonomiek, berriz, dinamismo ekonomikoa erakusten segitzen dute, beren izatezko BPG %8 inguruko tasaraino igo baita. Horrela, Afrika, Latinoamerika, Estatu Independenteen Erkidegoa eta Ekialde Ertaina lehengoratzen, hobetzen ari direla nabarmendu behar da, iazko dezelerazioaren ostean; Asia, Txina eta Indiarekin, etengabe gorantz doala ere azpimarragarria da, %9tik gora hazi baita.

Langabezi tasak beherantz segitzen du herrialde aurreratuetan, eta produktibitateak gorako bideari eusten dio, aurrerapen teknologikoak, munduko merkataritza sistema irekitzeak (munduko merkataritza 1,8 puntu azkartu da 2005 eta 2006 artean, eta %9,2ra heldu da), kapitalen mugez gaindiko fluxu gorakorrak eta politika makroekonomikoen eta finantza sistemen markoek, kontrako baldintza batzuk izan arren, gauzak ondo egiteko gaitasun handiagoa izateak lagunduta, FMIk dioenez.

Kontu korrontearen defizita, ekonomia aurreratuak erregistratu izan duten BPGren portzentaje gisa, bi hamarren gehitu da 2005 eta 2006 artean, BPGren %1,6 izateraino. Azaleratu eta garatzen ari diren ekonomiek, ordea, %4,4ko superabita daukate, batez ere, petrolio esportatzen duten herrialdeen superabitarengatik.

Prezioei dagokienez, petrolioaren prezioek 2002an hasitako prezioen igoera azkartu egin da. 2006an, abuztuaren hasieran upeleko 78$en goren historikoa izan ondoren, Brentaren prezioak behera egin zuen abenduan upeleko 60,86 $eraino. Horrela, batez besteko prezioa 2006an upeleko 65,15 $ izan da (2005ean upeleko 54,46 $ izan zen).

1

Gainera, esan behar da manufakturetarako funtsezkoak diren beste lehengai batzuen prezioek ere aurten igoera handiak izaten segitu dutela, batez ere metalenak, %56,5 garestitu baitira.

2006ko lehen seihilekoan izandako hazkundearen kemenak eta petrolioaren prezioen igoerak inflazioari buruzko kezkak piztu zituzten (kontsumo prezioekin neurtzen den inflazio orokorra gorenera heldu zen 2006ko udan), baina presioa jaitsi egin zen abuztutik aurrera, petrolioa merkatu zenean.

Interbentzio tasei dagokienez, banku zentral nagusiek aukera desberdinei aurre egin behar izan diete eta, oro har, gorako joerak segitzen du.

2006a %4,25ean hasi zuen Estatu Batuetako Erreserba Federaleko interbentzio tasa 4 bider igo da urtean (oinarrizko 25 puntu bakoitzean) eta, ondorioz, diruaren prezioa, urtearen erdian, %5,25ean jarri da, inoizko goren 2001aren erdialdetik. Ordutik urte amaierara arte Fedek egonkor eutsi die, ekonomia hozteko arriskua eta inflazioaren inguruko kezka iraunkorra orekatzearren.

Europako Banku Zentralak eta Europàko beste banku zentral batzuek interbentzio tasak igotzen segitu dute. Europako Banku Zentralak jarraitu du 2005eko azaroan hasitako gorako joerarekin (urteko mugimendu bakarra horixe izan zen), eta ordutik hona hiru igoera aplikatu ditu, azkenaren ostean (2006ko abenduaren 7an) %3,5ean ipiniz. Horrela, Europako eta AEBetako ekonomien arteko interes tasen diferentziala bi portzentaje puntutik 1,75era jaitsi zen 2005 eta 2006 artean.

Japoniako Bankua interbentzio tasa pixkana igotzen ari da 2006ko uztailean zero tasako politika alboratu zuenetik. Eta azaleratzen ari diren zenbait herrialdek ere (hala nola, Txina, India eta Turkia) beren moneta politika gogortu zuten.

Dibisen merkatuan, AEBko dolarraren balioak indarra galdu zuen, batez ere euroaren eta libera esterlinoaren aurrean. Yenak ere berriro galdu zuen balioa (neurri batean, interes tasek baxu iraungo zutelako perspektibek kapitalak irtetea ekarri zuelako).

Finantza merkatuei dagokienez, eta AEBko arrisku handiko hipoteken merkatuaren egoeraren ondorioz gero eta kezka handiagoa izan arren, errenta aldakorreko merkatuek goren historikoak erakutsi zituzten 2006an ere. Izan ere, baikortasuna nagusitu zen nazioarteko Burtsa guztietan, azaleratzen ari diren herrialdeetan emaitza bikainak eta Europan zein Estatu Batuetan amaierako oso saldo positiboa lortuz.

*Ibex 35*ak urtea ia %32ko igoerarekin itxi zuen (%31,795), 14.146,5 punturaino. 1998tik izandako igoerarik handiena izan da, eta indize hori garatutako Burtsetakoenetan onena eta mundu osoan gehien igotako bat izateraino. Urteko batez besteko hazkundea %24,7koa izan zen.

III.1.1. KOADROA. ALDAGAI MAKROEKONOMIKO NAGUSIAK

	2003	2004	2005	2006
BPG (urteko portzentaje aldaketa)				
Munduan	4	5,3	4,9	5,4
Ekonomia aurreratuetan	1,9	3,3	2,5	3,1
AEB	2,5	3,9	3,2	3,3
Japonia	1,4	2,7	1,9	2,2
Euro eremua	0,8	2	1,4	2,6
Beste ekonom. aurreratu batzuk (aurreko horiek kenduta)	2,4	4,1	3,2	3,6
Azaleratu eta garatzen ari diren ekonomiak	6,7	7,7	7,5	7,9
Afrika	4,7	5,8	5,6	5,5
Amerika	2,4	6	4,6	5,5
Estatu independenteen erkidegoa (Mongolia barne)	7,9	8,4	6,6	7,7
Erdiko eta ekialdeko Europa	4,8	6,6	5,5	6
Ekialde Ertaina	6,5	5,6	5,4	5,7
Asian garatzen ari diren herrialdeak	8,4	8,7	9,2	9,4
Txina	10	10,1	10,4	10,7
India	7,3	7,8	9,2	9,2
Munduko merkataritza (ondasun eta zerbitzuen munduko esportazio eta inportazioen %en aldaketa, batez beste)	**5,4**	**10,6**	**7,4**	**9,2**
Kontu korronterako ordainketen balantza (% BPGren gainean)				
Ekonomia aurreratuak	—	—	–1,4	–1,6
Azaleratu eta garatzen ari diren ekonomiak	—	—	4,1	4,4
Langabezi tasa (%)				
Ekonomia aurreratuak	6,5	6,3	6	5,5
Produktibitatea (urteko portzentaje aldaketa)				
Ekonomia aurreratuak	4,4	3,3	3,4	3,7
Kontsumitzailearentzako prezioak (urteko portzent. aldaketa)				
Ekonomia aurreratuak	1,8	2	2,3	2,3
Azaleratu eta garatzen ari diren ekonomiak	5,8	5,6	5,4	5,3
North Sea Brent petrolioaren prez. ($/upela, urteko b. bestek.)	**28,81**	**38,23**	**54,46**	**65,15**
Lehengai ez erregarrien prezioak (urteko portzentaje aldaketa)	**6,9**	**18,5**	**10,3**	**28,4**
Metalak	12,2	36,1	26,4	56,5
Interbentzioko interes tasa (epearen amaieran)				
UEM	2	2	2,25	3,5
AEB	1	2,25	4,25	5,25
Japonia	0,1	0,1	0,1	0,4
Euroaren truke tasa (moneta unitateak euroko)				
Dolarra	1,131	1,243	1,245	1,256
Libera esterlina	0,692	0,679	0,684	0,682
Yen japoniarra	139,97	134,4	136,87	146,06
Burtsa: kotizazio indizea (urteko portzentaje aldaketa)				
Dow Jones (New York)	–1,8	14,5	2	9
Nikkei	–7,7	20,9	12,1	29,3
Eurotoxx zabala	–17,7	18,2	17,4	22,3
Ibex 35	–4,5	21,9	20,8	24,7

(1) Ekonomia aurreratuak (30 herrialde): AEB, Kanada, Japonia, Euro eremua, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Txipre, Asiako ekonomiak, duela gutxi industrializatutakoak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Duela gutxi industrializatutako Asiako ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong,Singapur.
Iturria: FMI "Perspectivas de la economía mundial" (2007ko apirila), Ekonomia Ministerioa eta BCE.

Euro Stoxx zabala Europako indizea urtean batez beste %22,3 igo zen, aurreko urtean (%17,4) baino gehiago. New Yorkeko Burtsako *Dow-Jones* indizea urtean batez beste %9 hazi zen, eta Tokiko Burtsako Nikkei indizea %22,3 igo zen, batez beste.

1.2. Bilakaera ekonomikoa arloka

FMIk eta Europako Banku Zentralak emandako datuen arabera, honelaxe joan da munduko ekonomiaren bilakaera, arloka.

Estatu Batuak. Hainbat urteko hedapen azkarraren ostean, Estatu Batuetako ekonomiak hazkunde motelagora jo du. Lehen hiruhilekoko gorakadaren ondoren, izatezko BPGak %2,25-2,5eko hazkunde erritmoa izan du. Horrela, 2006an, oro har, izatezko BPGren batez besteko hazkundea %3,3koa izan zen.

Hazkunde ekonomikoaren moteltze horrek etxebizitzaren merkatuak txarrerako bilakaera izan duela erakusten du; horrela, 2006an, ia urte osoan, bizitokietarako inbertsioa izugarri uzkurtu da (urteari buruzko igoera tasa: –%19). Ondore hori kontsumo pribatuaren gastuaren

erresistentziak arindu du, nolabait. Izan ere, etxebizitzaren merkatuaren moteltzea eta energiaren prezio garestiak familien gastuetarako txarrak izan ziren arren, gastuak lan errenten hazkunde sendoaren eta finantzaketa baldintza onen babesa izan zuen. Bizitokietarako ez zen enpresen inbertsioak, bere aldetik, hazkunde handia izan zuen, finantza egoera onak eta enpresen errentagarritasun handiak lagunduta. Kanpoko eskari garbiak ez zuen inolako ekarpenik egin 2006an.

Lan merkatuak bere dinamismoari eutsi zion, eta langabezi tasak egonkor iraun zuen, %4,5ean.

Kontsumo prezioekin neurtzen den urte arteko inflazioa pixkana moteldu da. Horrela, udan gorenera heldu ondoren, inflazioaren presioak leundu ziren, eta PIK neurtzen duen urte arteko inflazioa %2,5ekoa izan zen abenduan. PKIren urte arteko aldaketa tasa, urtearen multzorako, %3,2koa izan zen. Elikagaiak eta energia kenduta, urte arteko inflazio tasak antzeko bidea egin zuen, irailean %2,9ko gorena iritsiz; azkeneko hamar urteetako tasarik altuena izan zen hori, 2007ko urtarrilean %2,7ra jaitsi arren; horrela, ondorioztatzen dugu inflazioaren presioak pixkana jaisten ari direla.

Funts federalen erreferentziako interes tasa, lehenengo seihilekoan, guztira oinarrizko 100 puntu igo zen hogeita bosna puntuko ondoz ondoko lau gorakadatan. %5,25ean jarri zen uztailaren 29an, eta horrela iraun zuen urtearen gainerakoan. Alde horretatik esan behar dugu finantza sektorea, oro har, osasuntsu dagoela, eta krediturak erabat eskuragarri daudela. Arrisku handiko hipoteketako berankortasun tasek nabarmen gora egin duten arren, lehen lerroko hipotekenek, kontsumitzailearentzako beste kreditu modalitate batzuenek eta titulu korporatiboek baxu eutsi diote.

Kontu korronteko ordainketen balantzak okerrera egin zuen aurreko urtearen aldean. Okertzearen faktore nagusia ondasunen balantzaren defizitaren igoera izan zen, familien kontsumoaren hazkunde sendoaren ondorioz. Alabaina, esportazioek hoberako zantzuak erakutsi zituzten, munduaren gainerakoan izandako hazkunde ekonomikoaren eta dolarraren izatezko truke tasaren balio galeraren ondorioz.

Azkenik, defizit publikoak behera egin zuen 2006an, 2005aren aldean, sozietate zergetatik eta pertsona fisikoen errentatik etorritako diru sarrerak gehitu zirelako, batez ere, eta BPGren %1,9an jarri zen.

Japonia. Jarduera ekonomikoa hobera doa, pixkana, izatezko BPG %2,2 hazita, 2005eko %1,9aren aldean. Hazkundearen bi faktore erabakigarriak esportazio sendoak eta barruko eskari iraunkorra dira. Azkeneko hori etxebizitzetarako ez den inbertsio pribatuak babestuta (batez ere enpresena), zeren kontsumo pribatua moteldu baita. Esportazioentzat yenaren balio galeraren pizgarria eta makineria eta ekipoen eskari handiagoa onerako izan dira.

Lan merkatuari dagokionez, enpresek gaitasuna hedatzen eta langileak kontratatzen segitzen dutenez, langabezia azkeneko bederatzi urteetan ezagutzen ez ziren gutxienetara jaitsi zen, eta lan eskaintza eta eskarien arteko erlazioak 1992tik zegoenik eta mailarik gorena iritsi zuen.

Inflazioak maila moderatuetan eutsi dio. Urtearen multzoa hartuta, kontsumo prezioen urte arteko aldaketa tasa %0,3ko aizan da, 2005ean –%0,3 izan zen bitartean.

Interes tasei dagokienez, Japoniako Bankuak (gogoan izan 2006ko martxoan amaiera eman ziola bere zero politikari), uztailean, bermerik gabeko egun bateko interes tasarako helburua 0tik %0,25era igo zuen. Alde horretatik, aipatu behar dugu, FMIk dioenez, ia inflaziorik ez dagoenean, etorkizunera begira, eta interes tasak maila neutralagoetara igoko diren arren, bilakaera horrek pixkana joan beharko lukeela, hedapenaren sendotasun jarraituaren datu adierazgarrietan oinarrituta.

Ordainketen balantza korrontearen superabita BPGren %4 ingurura arte igo zen, esportazioen hazkunde sendoaren eta kanpoko aktiboetatik sartutako dirutza oparoaren ondorioz, zuzenean, yena azkeneko 20 urteotako mailarik baxuenera jaitsi zen arren.

Defizit fiskala (gizarte segurantza kenduta), diru sarrerek hobera egitearen ondorioz, BPGren 0,8 portzentaje puntu inguru gutxitu zen, berriro ere, 2006an BPGren %4,3 izateko. Alabaina, eta sendotze fiskala kronograma ofizialak aurreikusten duena baino azkarrago doala dirudien arren, zor publikoaren indizea altua da (BPGren %96), eta goraka doa, etengabe.

Azaleratzen ari diren Europako ekonomiak (Turkia, Estatu Baltikoak, Erdiko Europa, Hego eta Hegoekialdeko Europa, eta Eslovenia). BPGren hazkunde tasak gorakorrak dira Estatu guztietan. Izan ere, Turkia, Hungaria eta Lituaniak baino ez dituzte 2006an 2005ean baino BPGaren hazkunde tasa txikiagoak eman. Oro har, PKIren arabera neurtutako inflazioak maila baxuetan eusten dio (%4,9tik %5,1era igaro da 2005 eta 2006 artean), baina hazkundea egunero gertatzen da herrialde guztietan, Letonia, Polonia, Kroazia eta Errumanian ezik. Kontu ko-

rronteko defizitek goraka segitzen dute, herrialderik gehienetan nasai finantzatuta dauden arren.

Azaleratzen ari diren Asiako ekonomiak: 2006an hazkundea, batez beste, 2005ean baino sendoagoa izan zen (%9,4 %9,2ren aldean), Txinaren eta Indiaren hazkunde indartsuak bultzatuta.

Oro har, hazkundea barruko eskariaren erresistentziatik etorri da, bigarren seihilekoan ekonomiarik handienetako batzuetan moderazio pixka bat igarri ahal izan zen arren, batez ere kanpoko eskaria moteldu zelako.

Txinan, hazkundea, 2006 urtearen multzoan, %10,7koa izan zen (aurreko urtean %10,4), inbertsioaren indarrari eta esportazioen dinamismoari esker. Indian, izatezko BPG %9,2 hazi zen (2005ean bezala), kontsumoaren indarrak, inbertsioak eta esportazioek bultzatuta. ASEAN-4 herrialdeentzat (Indonesia, Tailandia, Filipinak eta Malasia) hazkundea desberdina izan zen, baina guztiguztiek izan zituzten balorazio tasa positiboak eta, hartara, hazkundea eremu horren multzoan %5,4koa izan zen (%5,2 aurreko urtean).

Inflazioaren presioek, oro har, eutsi egin zioten, batez ere eskualde osoan moneta politika murriztaileak aplikatu zirelako (%3,7 aurreko urteko %3,5en aldean). Truke tasen bilakaera desberdin joan zen: termino errealetan, Tailandia eta Indonesiako moneten balioa gehitu zen, eta Txina, India eta Malasiakoek, ordea, beren horretan iraun zuten.

Gainera, eremuko superabit korrontea puntu bat baino gehiago igo zen (BPGren %4,1etik %5,4ra), esportazioen hedapenari esker, batez ere Txinan eta ASEAN-4 eremuan.

Estatu independenteen erkidegoa (CEI). Azkar hedatzen segitzen du, energia esportatzen duten herrialdeen jardunari eta energia inportatzen dutenen jarduketaren igoerari esker. Komunitate honetako BPG 2005ean %6,6 haztetik 2006an %7,7 haztera igaro da. Eremu horretako inflazioa jaitsi eta bi digituak utzi ditu, 2005eko %12,4tik 2006ko %6,6ra igaroz; hala ere, eremu horretan erregistratzen dira, oraindik ere, munduko inflazio mailarik altuenetako batzuk (Uzbekistan, %19,5; Moldava, %12,7, Errusia %9,7). Kontu korronteko saldoak sendoak dira zenbait Estatutan, bereziki Errusian (+%9,8), Turkmenistanen (+%9,8), Azerbaiyanen (%15,7) eta Uzbekistanen (%19,4) eta, ondorioz, eremu horren multzoan %7,7ko superabita izan dute.

Amerika Latinoa: Jarduketa ekonomikoak gorako martxa sendoa darama. Izatezko BPG %5,4 hazi da %4,5 2005ean), kanpoko ingurune mesedegarriaren iraunkortasunak (eskualdeak esportatzen dituen lehengaien prezio garestiak barne), eta barruko eskariaren sendotasunak babestuta; ekonomia nagusiek dituzten hazkunde tasak oraindik pixka bat asimetrikoak diren eta Argentina, Txile eta Ekuador bezalako herrialde batzuek 2005ean baino hazkunde tasa txikiagoak dituzten arren.

Epe luzeei begiratuta, 2004-2006 hiru urtekoa hirurogeita hamargarren hamarkadaren amaieratik honako hazkunderik oparoenekoa izan da, eta izugarri aurreratu da politika makroekonomikoaren markoen indartzean. Inflazioaren zenbakiak onak izan dira normalean (2005 eta 2006 artean %6,2tik %5,2ra jaitsi ziren), zor publikoa murriztu da, eta eskualdeko kontu korronteak superabitean iraun du lau urtez (BPGren %1,9 2006an).

Afrika: 2006an BPG %5,5 gehitu da, aurreko urtean baino portzentajezko hamarren bat gutxiago; inflazioa hazi egin da, %8,4tik %9,5era eta kontu korronteen balantza hobetu egin da, petrolioa esportatzen duten herrialdeen superabit handien ondorioz.

Azpi-arloka bereiztuz, Magrebeko herrialdeetan BPGren hazkundea %4,5ekoa da, aurreko urtean baino 4 hamarren gehiago; inflazioak gorako joera dauka, aurreko urtean baino 1,1 puntu gehiagora joan da, %3,1eraino, eta kontu korronteko saldoaren superabita gorakorra da, BPGren %14,4 izatera helduz. Saharatik beherako BPGren hazkunde tasaren martxa moteldu da, 6tik %5,7ra jaitsiz eta inflazioak gora egin du, 10,5etik %11,5era. Bereziki deigarria Zimbabweren kasua da, BPGren hazkundeak behera zelan egiten duen ikusten segitzen baitu, gero eta gutxiago bada ere, 2005ean –%5,3 izatetik 2006an %4,8 izatera igaroz; inflazioa %1.017koa da.

Ekialde Ertaina. Ekialde Ertaineko herrialdeek segitzen dute hazkunde tasa handiekin, %5,7, 2005ean baino hiru hamarren gehiago, eta BPGren %18,1eko merkataritza superabita daukate 2006an. Petrolioa esportatzen duten herrialdeek hazkunde handiko beste urte bat izan dute, saldo fiskal eta kontu korronteetako saldo sendoekin; inflazio presioek iraunkor diraute, baina politika fiskal hedatzaileek Irango Islamiar Errepublikan inflazioa igoarazi dute (%12,1etik %14,6ra). Petroliokoa ez de sektoreak, bere aldetik, bulkadari eutsi zion, Mashreqeko eskualdeko herrialde ez esportatzaileetan, hazkundea azkartu zen 2006an atzerriko inbertsio zuzenaren pizkundeari eta kanpoko baldintza mesedegarriei esker.

III.1.2. KOADROA. IZATEZKO BPG, KONTSUMO PREZIOAK ETA KONTU KORRONTEKO SALDOAK (FMI)

	Izatezko BPGren urteko portzentaje aldaketa		PKIren urteko portzentaje aldaketa		Saldoa kontu korrontean BPGren % gisa	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Ekonomia aurreratuak- 30 herrialde (1)	**2,5**	**3,1**	**2,3**	**2,3**	**–1,4**	**–1,6**
AEB	3,2	3,3	3,4	3,2	–6,4	–6,5
Japonia	1,9	2,2	–0,6	0,2	3,6	3,9
Euro eremua (13 herrialde, Eslovenia barne)	1,4	2,6	2,2	2,2	0,1	–0,3
Beste ekonomia aurreratu batzuk (aurreko horiek kenduta)	3,2	3,6	3,6	4	3,3	3,6
Duela gutxi industrializatutako Asiako ekonomiak (4 herrialde: Korea, Taiwaneko probintzia txinatarra, Hong-Kongeko RAE eta Singapur)	4,7	5,3	2,3	1,6	5,6	5,6
Azaleratzen eta garatzen ari diren ekonomiak	**7,5**	**7,9**	**5,4**	**5,3**	**4,1**	**4,4**
Azaleratzen ari diren Asiako herrialdeak	9,2	9,4	3,6	4	4,1	5,4
Txina	10,4	10,7	1,8	1,5	7,2	9,1
Hego Asia (India, Pakistan eta Bangladesh)	8,7	8,7	5	6,4	–0,9	–2,2
India	9,2	9,2	4,2	6,1	–0,9	–2,2
ASEAN-4 (Indonesia, Tailandia, Filipinak eta Malasia)	5,2	5,4	7,3	8,2	2,1	4,8
Amerika Latinoa (32 herrialde)	4,6	5,5	6,3	5,4	1,4	1,7
Hego Amerika (10 herrialde) eta Mexiko	4,5	5,4	6,2	5,2	1,7	1,9
Ertamerika (6 herrialde)	4,3	5,7	8,4	7	–4,8	–4,8
Karibea (15 herrialde)	6,5	8,3	6,7	8	—	2,1
Europa, erdiko eta mendebaldeko Europako ekonomiak (14 herrialde)	5,5	6	4,9	5,1	–5,3	–6,7
Turkia	7,4	5,5	8,2	9,6	–6,3	–8
Estatu Baltikoak	9	9,7	4,2	4,8	–9,6	–15,3
Erdiko Europa	4,4	5,7	2,4	2,1	–3,4	–3,9
Hegoaldeko eta hego-mendebaldeko Europa	4,4	6,7	7	6	–8,7	–10,7
Estatu Independenteen Erkidegoa(12 herrialde +1)	6,6	7,7	12,4	9,6	8,8	7,7
Errusia	6,4	6,7	12,7	9,7	10,9	9,8
Afrika	5,6	5,5	8,4	9,5	1,8	2,2
Magreb	4	4,5	1,5	3,1	11,9	14,4
Saharatik beherakoa	6	5,7	10,5	11,5	–1,1	–1,3
Petrolio esportatzaileak	4,8	5,9	8,9	5,9	11,1	12,6
Petrolio inportatzaileak	4,8	5,3	8,2	11,1	–3,4	–4,2
Ekialde Ertaina	5,4	5,7	7,1	7,9	18,8	18,1
Petrolio esportatzaileak (10)	5,7	5,5	6,8	8,9	21,7	20,9

(1) Ekonomia aurreratuak (30 herrialde): AEB, Kanada, Japonia, Euro eremua, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Txipre, duela gutxi industrializatutako Asiako ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur, Estatu Independenteen Erkidegoa- (12+1 herrialde): Sobiet errepublika ohiak, 13 Mongolia ere sartzekotan.
Iturria: FMI "Munduko ekonomiaren perspektibak" (2007ko apirila).

1.3. Europako batasuna

Euro eremuko ekonomiak sendoki hedatu da 2006an. 2005eko bigarren seihilekoan ekonomikoki pixkana, neurritsu, hobetu ondoren, euro eremuko ekonomi jardueraren hedapenak indarra hartu zuen 2006ko lehen seihilekoan. Hazkunde ekonomikoa denera zabalduz joan zen, arian-arian, gero eta iraunkorrago bihurtuz; bultzatzaile nagusia barruko eskaria izan zen, bereziki kapital finkoko inbertsioa. Horrela, euro eremuko izatezko BPGk (lanegunen kopuruak doituta) gora egin du, %2,8, BCEren datuen arabera, aurreko urteko %1,5en aldean; 2000 urtetik honako hazkunderik handiena, alegia.

Bien bitartean, munduko hazkunde kementsuak esportazioak babestu zituen. Alabaina, kanpoko sektoreak hazkunde ekonomikoari egin dion ekarpena neutrala izan da, batez ere, barruko dinamika ekonomiko indartsuak bulkada handia eman zielako munduko gainerako lurraldeetako inportazioei.

Ikuspegi sektorialetik, 2006an ekonomi jardueraren azelerazioa nabarmenagoa izan zen industrian (eraikuntza kenduta), merkatuko zerbitzuen sektorean balio erantsiaren igoera neurritsuagoa izan zen bitartean. Horrela, lehena %4ko tasan hazi zen eta bigarrena, berriz, %2,9an. Bilakaera hori bateragarria da 2005eko bigarren seihilekotik konfiantza industrialean izandako hobekuntza esanguratsuekin, zerbitzuen konfiantzan izandako hobekuntzak ez baitira hain nabariak izan.

Lan merkatuaren egoera, bestalde, nabarmen hobetu zen 2006an, enpleguaren urte arteko tasa %0,3 eta %0,5

artean gehitu baitzen. Langabezi tasa 2004ko erdialdera jaisten hasi, eta 2006an ere bide horretatik segitu zuen, urteko laugarren hiruhilekoan %7,5ean jarriz. Aipagarria da 1993an hasi zenetik ez dela halako maila alturik lortu.

Azkenik, lan produktibitatearen igoerak, ekonomia guztirako, azkartuz segitu zuen 2006an. Azkartzea batez ere industriak bultzatu zuen, zerbitzuetan egonkor iraun zuen bitartean, industriako produktibitatearen hazkundearen azpitik, nabarmen.

FMIk dioen bezala, euro eremuko produktibitatea Estatu Batuetakoa baino txikiagoa izatea dakarren faktoreetako bat teknologia berriak, batez ere IKTetako aurrerapenei dagokienez, astiro-astiro sartzen direla da. Europako Banku Zentralak eta FMIk duela gutxi egin dituzten analisien arabera, ekipo horietako inbertsioa txikiagoa da eta faktoreen produktibitate osoa ez da Estatu Batuetan beste hazi IKTak erabiltzen dituzten zerbitzu sektoreetan, hala nola, txikizkako, handizkako saleroskete-tetan eta finantza jardueran.

Europako Batasuneko Estatuetan egoerak desberdinak dira. EB-15en barruan, hazkunde ratiorik handienak (%3,5etik gorakoak) dituzten herrialdeen artean bi multzo bereizten dira: batetik, PPStan neurtutako BPG bereziki altua duten eta nabarmen goraka segitzen dutenek (Luxenburgo, Finlandia eta Suedia) eta, bestetik, hazkunde handia izaten ari diren baina EB-15eko batez bestekotik beherako BPG mailak dituztenak (Espainia eta Grezia). Hazkunde ratio horren azpitik, baina EB-15eko %2,8ko batez bestekoa baino gorago, den-denek PPStan neurtutako BPG per capita EB-15erako dagoen erreferentziako balioaren (100) gainekoa dutela, hauek daude: Austria, Belgika, Holanda, Danimarka eta Erresuma Batua. Eta, azkenik, EB-15eko batez bestekoa baino hazkunde tasa txikiagoekin, Alemania, Frantzia, Italia eta Portugal aurkituko ditugu.

EBko kide berrien artean, PPStan neurtutako BPG per capita EB-25ekotik beherakoa izanik, BPGren hazkunde tasak %3,8tik gorakoak dira kasu guztietan (Maltan ezik);

III.1.3. KOADROA. EURO EREMUKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK

	2004	2005	2006	I	II	III	IV
URTE ARTEKO GORABEHERA TASAK. URTARORIK KONTUAN HARTZEN EZ DITUZTEN DATUAK							
BPG merkatu prezioetara	**1,8**	**1,5**	**2,8**	**2,2**	**2,8**	**2,7**	**3,3**
BARRUKO ESKARIA	**1,6**	**1,8**	**2,5**	**2,2**	**2,5**	**2,8**	**2,3**
Kontsumo pribatua	1,4	1,5	1,8	1,8	1,7	1,7	2,1
Kontsumo publikoa	1,4	1,4	2,3	2,5	2,0	2,1	2,5
FBC finkoa	1,7	2,7	4,3	3,6	4,7	4,0	4,8
KANPOKO SALDOA	**0,0**	**-0,2**	**0,3**	**0,0**	**0,3**	**0,0**	**1,1**
Esportazioak	6,4	4,5	8,1	8,4	7,5	6,7	9,8
Inportazioak	6,3	5,4	7,5	8,8	6,9	7,0	7,3
VAB erreala, zeinetan:							
Industria (eraikuntza kenduta)	1,5	1,7	4,0	3,5	4,1	4,3	4,2
Eraikuntza	1,5	1,1	3,7	2,4	3,5	4,1	4,8
Merkatu zerbitzuak	1,9	2,0	2,9	2,2	3,0	2,9	3,4
AURREKO EPEAREN ALDEKO GORABEHERA TASAK. LAU HILEKOAK HIRUHILEKOEN ARTEKOAK DIRA							
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA							
Enplegua	0,8	0,8		0,5	0,5	0,3	
Langabezi tasa	8,8	8,6	7,8	8,2	7,8	7,7	7,5
URTE ARTEKO GORABEHERA TASAK							
LAN PREZIOAK ETA KOSTEAK							
Inflazioa (IAPC) Indize orokorra	2,1	2,2	2,2	2,3	2,5	2,1	1,8
Soldatapeko bakoitzeko lansaria	2,1	1,6	2,2	2,2	2,4	2,3	1,8
Lan produktibitatea (izatezkoa)	1	0,7	1,4	1,2	1,4	1,2	1,8
Unitateko lan kostea, erreala	1,1	0,9	0,8	1	1	1,1	0
PORTZENTAJEAK							
MONETA MERKATUAREN TASAK (bankuen artekoak)							
1 hilerako gordailuak: Euriborra 1 hilera	2,08	2,14	2,94	2,5	2,74	3,06	3,46
3 hilerako gordailuak. Euriborra 3 hilera (*)	2,11	2,18	3,08	2,61	2,9	3,22	3,59
1 urterako gordailuak. Euriborra 1 urtera	2,27	2,33	3,44	2,95	3,32	3,62	3,86

(*) Liborrarekin alderatzeko erabiltzen da.
Iturria: Europako Banku Zentrala. Urteko txostena, 2006ko apirila eta Maiatzeko Buletina, 2007.

%6tik gorako igoerak dituzten herrialde multzo bat ere badago (Txekiar Errepublika, Estonia, Letonia, Lituania eta Eslovakia; baita Bulgaria eta Errumania ere).

Lan merkatuari dagokionez, langabezi tasa jaitsi egin da 2005 eta 2006an EBko ia estatu guztietan. EB-15ean Luxenburgo, Portugal eta Erresuma Batuetan soilik igo dira langabezi tasak, eta konpromiso horri duela gutxi atxiki zaizkion herrialdeen artean Hungarian eta Maltan baino ez da halakorik ikusi.

Inflazioa, Kontsumoko Prezioen Indize bateratuaren arabera, urtean, batez beste, %2,2an jarri da euro eremuan[1], aurreko urteko portzentaje berberean, eta Alemanian, Austrian, Belgikan, Grezian, Luxenburgon eta Eslovenian soilik jaitsi da.

Interes tasei dagokienez, Europako Banku Zentralak interbentzio tipoak bi urte eta erdiz maila historikoki txikietan mantendu ostean, 2005eko abenduan oinarrizko 25 puntu igo zituena, eta 2006an ere 25 oinarrizko puntu gora egin zien beste bost aldiz, 2006ko urtarrileko %2,25etik urte amaierako %3,5eraino. Ondorioz, euriborra gehitu egin zen, bere epe guztietan. Zehazki, hiru hilabeterako euriborra 2005eko %2,18tik 2006ko %3.08ra igaro zen.

Langile bakoitzeko produktibitateak bilakaera positiboa izan zuen Estaturik gehienetan. Alabaina, joera orokor horren salbuespenak ere ikusten dira Italian (–%1,5), Espainian (–%1), Irlandan (–%0,8), Portugalen (–%0,5), Danimarkan eta Frantzian (–%0,2).

III.1.4. Koadroa. Europako Batasunaren bilakaera ekonomikoa

	BPG per cápita[1]		Izatezko BPGren hazkundea		Langabezi tasa[2]		Enpleguaren hazkundea		Inflazioa (IAPC)			Produktibitatea/ langilea [3]		% izatezko unitate kost. aldaketa[4]	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2004	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Euroeremua EB-13 (5)	**106,2**	**105,8**	—	—	—	—	**0,8**		**2,1**	**2,2**	**2,2**	**106,4**	**106,1**	**–0,8**	**–0,8**
Euroeremua EB-12 (5)	**106,2**	**105,8**	—	—	—	—	**0,8**		—	—	—	—	—	**–0,8**	**–0,8**
EB-15	**108,2**	**107,8**	**1,5**	**2,8**	**7,9**	**7,4**	**0,8**		—	—	—	**106,4**	**106,3**	**–0,4**	**–0,7**
Alemania	110,0	110,2	0,9	2,7	9,5	8,4	–0,1		1,8	1,9	1,8	102,5	102,9	–1,7	–1,5
Austria	122,9	123,0	2,0	3,1	5,2	4,8	0,5		2,0	2,1	1,7	116,0	116,2		
Belgika	118,0	118,3	1,1	3,1	8,4	8,2	1		1,9	2,5	2,3	128,8	129,6	0,3	
Espainia	97,9	97,6	3,5	3,9	9,2	8,6	3,8		3,1	3,4	3,6	97,1	96,1	–1,8	–1,1
Frantzia	10,81	107,1	1,2	2,2	9,7	9,4	0,4		2,3	1,9	1,9	118,9	118,7	0	
Finlandia	110,5	113,1	2,9	5,5	8,4	7,7	1,3		0,1	0,8	1,1	106,1	108,6	2,0	–1,8
Grezia	84,0	85,2	3,7	4,3	9,8	8,9	0,9		3,0	3,5	3,3	101,4	102,7	0,4	
Holanda	125,5	125,6	1,5	2,9	4,7	3,9	0		1,4	1,5	1,7	109,5	109,6	–2,4	–1,4
Irlanda	138,8	138,9	5,5	5,3	4,3	4,4	4,6		2,3	2,2	2,7	129,2	128,4	0,6	
Italia	100,7	99,5	0,1	1,9	7,7	6,8	0,2		2,3	2,2	2,2	106,4	104,9	0,8	0,6
Luxenburgo	251,0	257,0	4,0	6,2	4,5	4,7	3,0		3,2	3,8	3,0	163,9	165,4	–1,9	–5,7
Portugal	71,7	70,3	0,5	1,3	7,6	7,7	0		2,5	2,1	3,0	66,1	65,6	0,2	
Danimarka	121,8	122,1	3,1	3,2	4,8	3,9	0,7		0,9	1,7	1,9	104,7	104,5	–2,2	0,2
Suedia	114,7	116,1	2,9	4,4	7,4	7,0	0,4		1,0	0,8	1,5	105,1	106,2	–0,5	–2,4
E. Batua	117,6	117,2	1,9	2,8	4,8	5,3	0,9		1,3	2,1	2,3	108,1	108,7	1,6	
EB-25	**100,0**	**100,0**	**1,7**	**2,9**	**8,7**	**7,9**	**0,9**		—	—	—	**100,0**	**100,0**	**–0,6**	**–0,8**
Txekiar E.	73,6	76,0	6,1	6,0	7,9	7,1	1,6		2,6	1,6	2,1	66,0	68,4	–0,9	
Txipre	88,9	88,4	3,9	3,8	5,2	4,7	3,6		1,9	2,0	2,2	80,8	81,3	–1,1	
Eslovakia	57,1	60,2	6,0	8,3	16,3	13,4	1,4		7,5	2,8	3,9	64,8	67,5	0,1	–1,4
Eslovenia	81,9	83,6	4,0	5,2	6,5	6,0	0,3		3,7	2,5	2,4	78,5	80,4	–1,8	–0,9
Estonia	59,8	65,0	10,5	11,4	7,9	5,9	2,0		3,0	4,1	4,4	58,5	60,9	–3,8	–0,4
Hungaria	62,5	63,4	4,2	3,9	7,2	7,5	0		6,8	3,5	4,0	71,3	72,5	0,1	–1,4
Letonia	48,6	53,3	10,6	11,9	8,9	6,8	1,5		6,2	6,9	6,6	47,9	50,4	4,8	2,4
Lituania	52,1	54,8	7,6	7,5	8,3	5,6	1,4		1,2	2,7	3,8	53,4	55,6	–2,3	0,2
Malta	71,7	71,5	3,0	2,9	7,3	7,4	1,6		2,7	2,5	2,6	83,1	83,4	–2,4	–3,2
Polonia	49,7	51,3	3,5	5,8	17,7	13,8	2,3		3,6	2,2	1,3	59,0	59,5	–1,7	
EB-27	96,1	96,0	1,7	3,0	8,7	7,9	0,9		—	—	—	97,5	96,5	–0,6	–0,8
Bulgaria	33,7	35,0	6,2	6,1	10,1	9,0	1,5		6,1	6,0	7,4	32,7	33,3	–1,3	–3,4
Errumania	34,2	35,9	4,1	7,7	7,2	7,4	0,2					38,9	41,1	6,1	

(1) PPStan. EB-25=100 (2) 15 eta 74 urte artean. (3) BGP ppc-n enplegatutako pertsona bakoitzeko, EB-25i dagokionez. Hu da, EB-25=100 eta ez dago EB-15=100 aurreko oinarriarekin alderatzerik. (4) Langile eta produktibitateko lansaria aldaratzen du: ratioaren hazkunde tasa [soldatadunaren lansaria, prezio arruntetan / enplegatuko BPG prezio arruntetan]. (5) Euroeremua (EB-13): Belgika, Alemania, Grezia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxemburgo, Holanda, Austria, Portugal, Eslovenia eta Finlandia. Eslovenia 2007eko urtarrilean sartu da.
Iturria: Eurostat. Economy and finance.

Azkenik, finantza publikoei dagokienez, euroeremuko herrialdeetako defizit publikoa jaitsi egin da, 2005eko BPGren %2,5etik 2006ko %1,6ra.

EB-15eko herrialde batzuek, berbarako, Italia edo Portugalek, berriro gainditu dute 2006an Egonkortasun eta Hazkunde Itunean ezarritako BPGren %3aren muga; superabita izan dutenen artean, berriz, Danimarka (+%4,2), Finlandia (%3,9), Suedia (+%2,2), Espainia (+%1,8), Holanda (+%0,6), Belgika (+%0,2) eta Luxenburgo (+%0,1) daude. Beste alde batetik, BPGren gaineko zor publikoa ere jaitsi da %70,5etik %60ra 2005 eta 2006 artean; eta Espainia, Finlandia, Holanda, Irlanda, Luxenburgo, Danimarka, Suedia eta Erresuma Batuan kenduta, gainerako Estatuetan %60a gainditu dute.

EB-27n ere jaitsi da defizit publikoa, 2005eko BPGen %2,4tik 2006ko %1,7ra, eta zor publikoa %62,9tik %61,7ra. Defizit publikoaren BPGren %3aren muga gainditzen duten EBko estatu berrien artean Hungaria (–%9,2), Polonia (–%3,9) eta Eslovakia (–%3,4) daude. Eta BPG gaineko zor publikoaren %60tik gora daukatenen artean Txipre, Hungaria eta Malta daude.

1.4. Espainiako ekonomia

INEren hiruhilekoko kontabilitate datuen arabera, Espainiako ekonomiaren BPGk gorako joera garbia erakusten segitzen du. 2006an, batez beste, %3,9 gehitu da, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago, alegia, eta EB-15eko batez bestekotik 1,1 puntu gora; gainera, urtea joan ahal, hiruhilekoko bere perfila ere gorakorra izan da. Horrela, 2005eko azkeneko hiruhilekoan produktua %3,6 gehitu bazen, 2006aren amaieran %4 igoko zen.

Gastuaren ikuspegitik, aurreko hiru urteetako barruko eta kanpoko eskariek izandako joeraren aldean haustura nabaritu zen. Horrela, barruko eskariak BPGren hazkundeari ekarri diona hiru hamarren moteldu da (%5,2ko hazkundetik %4,9ra jaitsi da), amaierako kontsumoko (publiko eta pribatu) gastua gutxitzearen eta kapital finkoko inbertsioaren eraginez, azkeneko kasu honetan produktu guztiak ildo beretik ibili ez ziren arren. Izan ere, ekipo ondasunetako inbertsioa azkarrago hazi zen 2005 eta 2006 artean urtean batez beste %9 izatetik %9,7ra igaroz, hiru hiletik hiru hilera goraka, 2006ko azkeneko lauhilekoan %114 iristeraino. Ibilbide hori bat dator halako ondasunen inportazioarekin zein produkzioarekin, eta kapital ondasunen negozio kopuruen eta eskarien sarreren adierazleen bilakaerarekin.

Kanpoko sektoreak, bere aldetik, zazpi hamarren behera egin du BPGrako bere ekarpenean, 2005eko –%1,7tik 2006ko –%1era igaroz, esportazio jarduera inportaziokoa baino biziago azkartzearen ondorioz.

Eskaintzaren aldetik, aurreko urtean ez bezala, eta eraikuntza 2006 urtean hazkunderik biziena izan zuen arloa izan arren (%5,3), industria arloek hazkunde azkarra erakutsi dute hiruhileko guztietan, eta batez besteko hazkunde tasa %0,3tik %3,3ra igaro zen 2005 eta 2006 artean. Zerbitzuen sektorearen igoera, bere aldetik, mantsotu egin zen (%3,6 %4,4ren aldean) merkatu zerbitzuen

III.I.5. KOADROA. FINANTZA PUBLIKOAK EBN

	% gobernuak duen BPGren gaineko zor publikoa		% BPGren gaineko defizit/superabita (moneta nazionaletan)	
	2005	2006	2005	2006
Euroeremua (EB-13)	**70,5**	**69,0**	**–2,5**	**–1,6**
EB-15	**64,4**	**63,3**	—	—
Alemania	67,9	67,9	–3,2	–1,7
Austria	63,5	62,2	–1,6	–1,1
Belgika	93,2	89,1	–2,3	0,2
Espainia	43,2	39,9	1,1	1,8
Frantzia	62,2	63,9	–3,0	–2,5
Finlandia	41,4	39,1	2,7	3,9
Grezia	107,5	104,6	–5,5	–2,6
Holanda	52,7	48,7	–0,3	0,6
Irlanda	27,4	24,9	1	2,9
Italia	106,2	106,8	–4,2	–4,4
Luxenburgo	6,1	6,8	–0,3	0,1
Portugal	63,6	64,7	–6,1	–3,9
Danimarka	36,3	30,2	4,7	4,2
Suedia	52,2	46,9	2,1	2,2
Erresuma Batua	42,2	43,5	–3,1	–2,8
EB-25	**63,3**	**62,2**	—	—
Txekiar Errepublika	30,4	30,4	–3,5	–2,9
Txipre	69,2	65,3	–2,3	–1,5
Eslovakia	34,5	30,7	–2,8	–3,4
Eslovenia	28,4	27,8	–1,5	–1,4
Estonia	4,4	4,1	2,3	3,8
Hungaria	61,7	66,0	–7,8	–9,2
Letonia	12,0	10,0	–0,2	0,4
Lituania	18,6	18,2	–0,5	–0,3
Malta	72,4	66,5	–3,1	–2,6
Polonia	47,1	47,8	–4,3	–3,9
EB-27	**62,9**	**61,7**	**–2,4**	**–1,7**
Bulgaria	29,2	22,8	1,9	3,3
Errumania	15,8	12,4	–1,4	–1,9

Iturria: Eurostat.

[1] Euro eremua (EB-13): Belgika, Alemania, Grezia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Holanda, Austria, Portugal, Eslovenia eta Finlandia. Eslovenia 2007ko urtarrilaren 1ean sartu da.

hazkundea moteltzearen ondorioz. Eta azkenik, oinarrizko arloek, hiru urtez jarraian erregistro negatiboak izan ondoren, gorako bideari ekin diote, bereziki urteko azkeneko hiruhilekoan (%4,3).

2006an ekonomiaren hazkundearen erritmoa azkartu ez eze, enpleguaren hazkundea ere egonkortu da. Urtean sortu eta denbora osoz betetako lanpostuen kopurua, guztira, %3,1 gehitu zen, aurreko urtean antzera, eta horrek, INEren datuen arabera, pareko 550 mila lanpostuen sortze garbia ekarri zuen. Soldatapekoak %3,25 gehitu ziren, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago. INEren Biztanleria Aktiboen Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezi tasa puntuko bederatzi ehunen soilik jaitsi eta %9,07an jarri zela.

Jarduketa agregatuaren eta enpleguaren hazkundearen ondorioz, ekonomiaren lan faktorearen itxurazko produktibitatea %0,8ko martxan igo zen, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago. Produktu unitateko lan kostea (CLU) %2,7raino azkartu zen 2006an, aurreko urtean baino bost hamarren gehiago.

Kontsumoko Prezioen Indizearen bitarteaz neurtzen den inflazioa %3,5eraino igo zen, INEren datuen arabera, 2005ean baino hamarren bat gehiago. Alabaina eta aurreko urtean ez bezala, beherako joera izan zuen urtea joan ahala; %4an hasi eta %2,6an amaitu baitzen. Hala ere, UEMrekiko prezioen diferentziala igo egin zen, 2005eko 1,2 puntutik 1,3ra igaroz (PKI, Eurostaten datuen arabera, %3,6 hazi zen Espainian, euro eremuan %2,2 igo zen bitartean) eta, horrela, Espainia berriro izan zen euro eremuko inflaziorik handieneko herrialdea.

Kanpoko sektorearen BPGrako ekarpen negatiboa txikiagoa izan arren, Espainiako ekonomiaren finantza egoerak okertzen segitu du, munduko gainerakoen aldean. Ekonomiak duen finantza beharra (defizita) 2005eko BPGren %6,5etik 2006ko %7,8ra igo da, 76,5 mila milioi euro gehiago, aurrekoan baino 17,4 mila miloi euro gehiago, alegia.

Estatuko Administrazio Publikoen multzoak superabitarekin amaitu zuen 2006a; Kontabilitate Nazionaleko terminoetan, 15.575 milioi eurokoa (behin behineko da-

III.I.6. Koadroa. Estatuko eszenatoki makroekonomikoa (Urte arteko aldaketa tasak)

	2005					2006				
	media	I	II	III	IV	media	I	II	III	IV
Kateatutako bolumena, 2000ko erreferentzia. Urtaro eta egutegi ondoreak zuzendu zaizkien datuak.										
Barruko eskaria (*)	**5,2**	**5,4**	**5,3**	**5,2**	**5,0**	**4,9**	**4,8**	**4,8**	**4,8**	**4,9**
Familien kontsumo pribatua	4,2	4,4	4,4	4,1	3,8	3,7	3,7	3,6	3,6	3,7
Kontsumo publikoa	4,8	6,6	6,0	6,3	4,6	4,4	4,6	4,8	4,6	5,8
Kapital eratze gordina	7,0	6,8	7,4	7,1	6,6	6,3	6,3	6,2	6,4	6,4
Ekipo ondasunak	9,0	9,2	9,8	8,3	8,6	9,7	8,6	9,1	9,6	11,4
Eraikuntza	6,0	6,0	6,2	6,3	5,6	5,9	5,8	5,8	6,2	5,7
Kanpoko saldoa (*)	**–1,7**	**–2,0**	**–1,8**	**–1,6**	**–1,4**	**–1,0**	**–1,1**	**–1,0**	**–1,0**	**–0,9**
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa	1,5	–0,8	1,8	2,5	2,3	6,2	9,5	4,9	3,4	7,3
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa	7,0	5,9	7,7	7,7	6,6	8,4	11,6	7,3	6,0	8,8
BPG merkatu prezioetan	**3,5**	**3,4**	**3,5**	**3,6**	**3,6**	**3,9**	**3,7**	**3,8**	**3,8**	**4,0**
Nekazaritza eta arrantzu arloak	–10,0	–14,1	–10,6	–9,2	–6,2	0,3	–3,2	0,1	–0,5	4,3
Energi arloak	3,8	3,6	3,4	3,9	4,3	2,0	3,2	3,2	3,9	–2,1
Industri arloak	0,3	0,1	–0,3	0,5	0,7	3,3	1,9	2,8	4,0	4,4
Eraikuntza	5,4	5,3	5,4	5,7	5,3	5,3	5,3	5,0	5,8	5,0
Zerbitzuen arloak	4,4	4,5	4,7	4,3	4,1	3,6	3,9	3,5	3,3	3,5
Merkatu zerbitzuak	4,6	5,1	4,6	4,6	4,1	3,4	3,9	3,5	3,2	3,3
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	3,5	2,4	4,7	3,3	3,8	4,0	3,9	3,6	3,8	4,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	5,7	5,8	5,1	5,6	6,4	6,3	6,2	6,7	5,5	6,7
Lan merkatua										
Denbora osoko pareko lanpostuak										
Landunak	3,1	3,1	2,9	3,1	3,3	3,1	3,2	3,1	3,0	3,0
Soldatapekoak	3,4	3,0	3,5	3,7	3,6	3,2	3,5	3,1	3,0	3,2
Langabezi tasa (EPA**)	9,16	10,19	9,33	8,42	8,70	8,51	9,07	8,53	8,15	8,30
Errentak (prezio arruntak)										
Produktibitatea, langileko	0,4	0,5	0,4	0,3	0,4	0,8	0,6	0,7	0,8	1,0
Unitateko lan kostea (CLU)	2,2	2,3	2,3	1,9	2,3	2,7	2,3	2,7	2,7	2,8
PKI	**3,4**	**3,3**	**3,2**	**3,4**	**3,6**	**3,5**	**4,0**	**3,9**	**3,5**	**2,6**

(*) BPGaren hazkunderako ekarpena merkatu prezioetan. (**) Metodologia berria 2005eko lehen hiruhilekotik.
Iturria: INE Hiruhileko kontabilitatea eta BAI.

tuak); horrek esan nahi du 2005etik 2006ra BPGren %1,09tik %1,8ra igaro zela, diru sarrerek eta, gutxiago, gastu publikoek izandako aurrerapenen ondorioz. Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioaren "Adierazle Ekonomikoen Laburpena, 2007ko martxoa" hiruhileko txosteneko datuen arabera, diru sarrerak %10.3 gehitu ziren, BPGren %40,13 izateraino; gastuak, berriz, %8,4 igo ziren, %38,4raino helduz.

Zergarik garrantzitsuenetan diru gehiago bildu da 2006an, %11,6 gehiago (%8,3 2004an, eta %14 2005ean), Autonomi Erakundeen eta Tokiko Korporazioen parte hartzea barne. Horrela, zerga zuzenenak %14,6 gehitu ziren (PFEZ %14,7 eta Sozietateena %14,5 hazi ziren), zeharkakoen %7,9a baino gehiago (BEZ %9,6 gehitu zen, baina zerga bereziak %3,2 baino ez ziren gehitu).

Gastuak, berriz, %7,6 hazi ziren, aurreko urtean baino 3,4 puntu gehiago. Igoerarik nabarienak transferentzien, eta ondasun eta zerbitzuen erosketen atalean (arrunt zein kapitalekoetan), %11 inguru, eta langileenean, %7,9, izan ziren. Inbertsioak ere %7,4 gehitu ziren.

1.5. Autonomi erkidegoak

BPGk Autonomi Erkidego desberdinetan izan duen hazkunde erreala, 2006an ere, INEren Eskualdeetako Kontabilitateko datu ofizialen arabera, Europako batez bestekoa baino handiagoa da, kasu guztietan (EB-15ean %2,8, eta EB-25ean %2,9). Aurten lau autonomi erkidego izan dira hazkundearen buruan: Murtzia, Kantabria, Galizia eta EAE, BPGren hazkundea, termino errealetan, %4,1 izan baita, Estatuko batez bestekoa baino bi hamarren gehiago; ondoren Valentzia eta Aragoi datoz, %4rekin. Estatuko batez bestekoa %3,9an geratu da, eta Autonomi Erkidego guztietan BPG %3tik gora hazi da.

2006an dinamikoen ibili diren lau autonomi erkidegoak bat etorri dira industri arloen eta energiaren arloaren hazkunde nabarmenean, INEren Eskualdeetako Kontabilitatearen datuen arabera, Galizian %5,5, EAEn %4,8, Murtzian %4,4 eta Kantabrian %3,8 hazi baitira. Estatuko batez bestekoa %3,1 izan da.

BPG per capitari adituz, lehenengo Madril dago, biztanle bakoitzeko 28.850 euroko BPGrekin, batez bestekoa

III.1.7. Koadroa. Espainiako ekonomiaren merkataritza saldoa eta defizita (milioi eurotan)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
BPG pm	**680.678**	**729.206**	**782.531**	**840.106**	**905.455**	**976.189**
Finantzaketa ahalmena / beharra	**–23.829**	**–19.421**	**–23.020**	**–40.717**	**–59.093**	**–76.451**
BPGren gainean (%)	**–3,5**	**–2,7**	**–2,9**	**–4,8**	**–6,5**	**–7,8**
Ordainketa balantzaren saldoa	**–21.434**	**–16.102**	**–19.311**	**–35.736**	**–58.680**	**–78.561**
Kontu korrontea	–26.823	–23.764	–27.476	–44.164	–66.860	–84.736
Ondasunak	–38.601	–36.510	–39.839	–53.660	–68.603	–80.142
Zerbitzuak	22.957	22.609	23.301	21.753	22.240	22.143
Errenta eta transferentzia arruntak	–11.179	–9.863	–10.939	–12.256	–20.496	–26.737
Kapital korrontea	5.389	7.662	8.165	8.428	8.180	6.175
Finantza saldoa	**21.703**	**15.381**	**17.825**	**34.851**	**60.818**	**81.471**
Inbertsio zuzena	–5.250	6.915	–2.568	–28.809	–13.517	–55.531
Balore zorroko inbertsioa	–18.924	4.726	–26.592	85.808	58.734	198.314
Bestelako inbertsio eta eratorriak	28.402	179	45.410	–8.138	17.715	–35.512
Espainiako Bankuko aktiboak (erreserbak)	17.475	3.561	1.575	–14.010	–2.114	–25.800

Iturria: Espainiako Bankua "Finantza kontuak".

III.1.8. Koadroa. Defizit publikoa eragilez eragile* (milioi eurotan)

	Milioi €				% BPG			
	2003	2004	2005	2006	2003	2004	2005	2006
Admin. publik. -Finantz. ahalmen eta beharrak	**–375**	**–1.633**	**9.858**	**17.575**	**–0,05**	**–0,19**	**1,09**	**1,80**
Administrazio Zentralak	5.357	–1.121	13.647	19.393	0,68	–0,13	1,51	1,99
Estatua eta Autonomiadun Erakundeak	–2.652	–9.634	3.810	7.712	–0,34	–1,15	0,42	0,79
Gizarte Segurantza	8.009	8.513	9.837	11.681	1,02	1,01	1,09	1,20
Lurralde erakundeak	–5.732	–512	–3.789	–1.818	–0,73	–0,06	–0,42	–0,19
Autonomi Erakundeak	–3.829	–624	–2.815	186	–0,49	–0,07	–0,31	0,02
Tokiko korporazioak	–1.903	112	–974	–2.004	–0,24	0,01	–0,11	–0,21

(*) Finantzaketa ahalmen eta beharrak, Espainiako Kontabilitate Nazionalaren arabera.
Iturria: Espainiako Bankua.

III.1.9. Koadroa. Estatuaren aurrekontu gauzapena (autonomi erkidego eta tokiko korporazioen parte hartzea barne) milioi eurotan

	Zerga zuzenak				Zeharkako zergak				Denera		
	Denera	PFEZ	Sozietateak	Besterik	Denera	BEZ	Bereziak (1)	Besterik	Estatua	Auton. erkid. eta toki korporazioak	Denera
2002	67.593,1	44.333,8	21.416,5	1.842,8	54.977,8	36.903,3	16.114,3	1.960,2	93.552,4	29.018,5	122.570,9
2003	70.132,5	46.445,7	21.912,6	1.774,2	59.590,4	40.569,3	16.853,1	2.168,0	95.596,3	34.126,6	129.722,9
2004	75.978,8	47.715,3	26.018,8	2.244,7	64.497,5	44.491,8	17.512,6	2.493,2	100.019,5	40.456,8	140.476,3
2005	89.434,1	54.722,6	32.495,3	2.216,2	70.701,0	49.870,1	18.017,9	2.813,0	115.277,3	44.857,8	160.135,1
2006	102.448,1	62.768,9	37.207,0	2.472,2	76.262,1	54.652,2	18.601,3	3.008,6	129.457,2	49.253,0	178.710,2

(1) Ez da garraiabide jakin batzuen matrikulazio zerga sartu.
Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. Adierazle Ekonomikoen laburpena.

III.1.10. Koadroa. Aurrekontuaren gauzapena: estatuak aitortutako betebeharrak

	Langileria	Ondasun eta zerbitzuen erosketa	Interesak	Transferentzia arruntak	Kapital transferentziak	Inbertsioak	Denera
2002	17.573,7	2.801,3	18.792,6	58.168,6	6.293,3	6.821,3	110.450,8
2003	18.425,5	3.196,8	19.802,0	58.042,8	6.690,0	7.269,1	113.426,2
2004	19.490,1	3.411,7	17.426,8	61.288,4	7.102,7	7.356,0	116.075,7
2005	20.649,2	3.459,7	16.978,0	64.003,9	7.136,7	8.752,7	120.980,2
2006	22.276,0	3.853,0	15.619,7	71.061,4	7.943,6	9.401,5	130.155,2

Iturria. Ekonomi eta Ogasun Ministerioa. Adierazle Ekonomikoen Laburpena.

III.1.11. Koadroa. BPG, enplegu eta langabezi tasen hazkundea autonomi erkidegoetan (urteko batez bestekoak)

	Aldaketa enpleguan (1)			Aldaketa langabe kopuruan (1)			Langabezi tasa (1)			BPG Bolumen aldaketa (2)			BPG per cápita (2)		
	1995-2004	2004-2005	2005-2006	1995-2004	2004-2005	2005-2006	1995-2004	2005	2006	2000-06 b.b. hazk.	2004-2005	2005-2006	2005 Estat. = 100	2006 Estat = 100	2006 €/biz.
Andaluzia	4,9	7,1	5,1	–5,2	–16,3	–5,0	–16,8	13,9	12,7	3,7	3,7	3,9	77,6	77,9	17.251
Aragoi	3,0	5,1	1,5	–9,5	9,3	–3,7	–10,4	5,8	5,5	3,3	3,5	4,0	106,8	107,4	23.786
Asturies	2,0	3,8	4,5	–6,6	2,4	–5,8	–10,0	10,2	9,3	2,8	3,1	3,7	88,2	89,7	19.868
Baleareak	5,8	4,3	6,0	0,0	–19,0	–5,8	–5,2	7,2	6,5	2,3	2,6	3,5	111,6	110,4	24.456
Kanariak	5,8	3,7	5,3	–3,4	1,4	4,9	–11,6	11,7	11,7	3,4	3,0	3,4	90,8	89,9	19.924
Kantabria	3,8	6,3	4,4	–6,1	–16,1	–21,2	–11,9	8,5	6,6	3,4	3,3	4,1	98,1	98,8	21.897
Gaztela Leon	2,2	6,6	2,2	–6,4	–14,8	–5,5	–10,2	8,7	8,1	3,2	3,1	3,6	94,6	95,9	21.244
Gaztela Mantxa	4,0	6,5	4,5	–5,6	2,0	0,1	–10,7	9,2	8,8	3,5	3,2	3,9	78,4	78,3	17.339
Katalunia	4,0	5,9	3,9	–5,2	–26,3	–1,7	–10,0	7,0	6,6	3,2	3,4	3,8	118,8	117,9	26.124
Valentziako Erkidegoa	4,7	5,2	4,8	–5,4	–12,5	–0,8	–12,1	8,8	8,4	3,3	3,1	4,0	91,9	91,4	20.239
Extremadura	3,0	4,0	3,2	–5,4	–6,2	–14,5	–13,6	15,8	13,4	3,5	3,6	3,5	67,6	68,0	15.054
Galizia	1,4	4,3	3,0	–2,3	–26,8	–13,6	–4,4	9,9	8,5	3,1	3,2	4,1	81,4	82,8	18.335
Madril	5,3	5,7	4,1	–8,6	7,3	–2,9	–13,8	6,8	6,4	3,5	4,3	3,9	131,0	130,2	28.850
Murtzia	5,7	5,0	4,9	–4,9	–23,3	2,6	–12,9	8,0	7,9	3,9	3,8	4,1	83,6	83,1	18.400
Nafarroa	3,6	5,2	3,4	–6,8	7,5	–3,0	–7,6	5,7	5,3	3,2	3,3	3,9	126,2	125,8	27.861
EAE	3,0	3,9	2,8	–7,8	–23,4	–2,6	–12,8	7,3	7,0	3,1	3,9	4,1	126,5	128,0	28.346
Errioxa	4,4	9,7	2,1	–8,5	22,8	2,2	–10,6	6,2	6,2	2,9	2,8	3,4	107,0	106,1	23.495
Ceuta	3,8	1,0	–10,7	–7,1	29,9	–3,1	–16,7	19,7	21,0	3,4	3,5	3,3	91,1	91,1	20.171
Melilla	3,8	1,0	3,6	–7,1	29,9	–2,8	–16,7	14,0	13,4	3,2	3,5	3,3	89,8	90,0	19.929
Denera	**4,1**	**5,6**	**4,1**	**–5,6**	**–13,6**	**–3,9**	**–11,9**	**9,2**	**8,5**	**3,3**	**3,5**	**3,9**	**100,0**	**100,0**	**22.152**

Iturria: (1) EPA berria (2) INEren Eskualdeetako Kontabilitatea.

baino %30,2 gehiago; ondoren, EAE, BPG per capita 28.346 euro duela (batez bestekoa baino %28 gehiago), Nafarroa (27.861 euro per capita), Katalunia (26.124 euro biztanleko) eta Balearrak (24.456). Extremadura, ordea, estatuko batez bestekoaren %70etik behera dago, Andaluzia %80tik behera eta Galizia eta Murtzia %85etik behera.

Lan merkatuari dagokionez, langabezi tasarik txikieneko autonomi erkidegoak Nafarroa (%5,3) eta Aragoi (%5,5) dira. %6 eta 7 bitarteko tasekin Balearrak, Kantabria, Katalunia, Madril, EAE eta Errioxa daude. Altuenak Ceuta eta Melillan, Extremaduran, Kanarietan eta Andaluzian aurkituko ditugu, bi digituko tasak baitituzte. Enplegu aldetik hazkunderik handienak, 2006an, Andaluzian, Balearretan eta Kanarietan ikusten dira, denak %5etik gorakoak. Estatuko %4,1eko batez bestekotik gora Asturias, Kantabria, Gaztela Mantxa, Valentzia eta Murtzia daude.

EAE-ko ekonomi abagunea

2.1. Bilakaera orokorra

EAEko ekonomia 2006an termino errealetan batez beste %4,2 hazi zen, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago, Eustaten Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen lehen aurrerapenean, 2007ko otsailaren 19koan dioenez[1]. Emaitza hori, azkeneko sei urteetan lortutako handiena, Estatuarena eta EB15ena baino handiagoa ere bada, urtean, batez beste, %3,9 eta %2,8 hazi baitziren, hurrenez hurren (EB-25: %2,9 eta EB-27: %3).

Alabaina, hiru hilekoetako datuek urtea aurrera joan ahala motelduz joan dela erakusten digute; izan ere, lehen hiruhilekoan urte arteko hazkunde tasa %4,4 bazen, laugarren hiruhilekorako %4,1era jaitsi zen.

Horrela, BPG merkatu prezioetara 61.934,6 milioi eurotara heldu zen.

Eskariaren aldetik, igoera hori barruko eskariaren eta kanpoko eskariaren jokabideek azalduko lukete.

Horrela, barruko eskariak BPGren hazkundeari dakarkiona urtean batez beste %4,6 inguru da (aurreko urtean baino hamarren bat gehiago), inbertsioa (barruko eskari horren faktorerik dinamikoena) %6tik gorako tasetara igoz. Familien amaierako kontsumoko gastuaren (kontsumo pribatua) hazkunde tasa aurreko urtean izandakoaren berdina izan da (%4,1), baina hiru hilekoetako perfilean motelduz joan dela ikusten da; Administrazio Publikoen gastua (kontsumo publikoa) %2,9 hazi zen, 2005ean baino bi hamarren gehiago.

Kanpoko saldoak BPGri dakarkiona ez da aurreko urtean bezain negatiboa, eta puntu baten lau hamarrenera mugatu da. Esportazioak[2] %7,4 hazi dira, eta inportazioak[3] %7,9. Ondorioz, urratsa egin da merkataritza saldoaren orekarantz.

Eskaintzaren alderditik, eraikuntzaren sektorearen bulkada hor dago oraindik, hazkundearen buruan, berriro ere, urte arteko batez besteko %5,1eko hazkundearekin,

[1] Esan behar da 2005eko bigarren hiruhilekoan Hiruhilekoetako Kontu Ekonomikoek eta Urteko Kontu Ekonomikoek neurketarako metodo berria sartu zutela, orain arte erabili diren bolumeneko balioen edo oinarri finkoko prezio konstanteen ordez. Metodologia berriarekin epe bakoitzeko agregatu desberdinek ez dute hazkundean oinarriko urteko prezioetan deflaktatzen, epe bakoitzean agregatu desberdinen balioa aurreko urteko prezioetan adierazita etorriko baita eta, horrela, oinarri mugikorra izango baitu. Oinarri mugikor honekin zenbaki indizeen denborazko segida bat ateratzen da, "Bolumen Kateatuaren Indizea" deritzona".

[2] Ondasun eta zerbitzuen esportazioak egoileek ez-egoileei ondasun eta zerbitzuak ematen dizkieteneko eragiketak dira (salmenta, opari, dohaintzak).

[3] Ondasun eta zerbitzuen inportazioak ez-egoileek egoileei ondasun eta zerbitzuak ematen dizkieteneko eragiketak dira (erosketa, truke, opari, dohaintzak).

III.2.1. TAULA. EAEKO ESZENATOKI MAKROEKONOMIKOA

	2004	2005	2006	I	II	III	IV
	Bolumen kateatuko indizearen urte arteko aldaketa tasak*						
Kontsumo pribatua	4,4	4,1	4,1	4,2	4,1	4,1	3,9
Kontsumo publikoa	3,5	2,7	2,9	2,8	3	2,7	2,9
Kapital gordina eratzea	7,5	6,3	6,3	6,4	6,2	6,2	6,3
Barruko eskaria (BPGrako ekarpen)a (b)	5,1	4,5	4,6	4,7	4,6	4,5	4,5
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa	4,9	5,1	7,4	7,9	5,4	8,2	8,3
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa	7,3	6	7,9	8,2	6	8,7	8,8
Kanpoko eskaria (BPGrako ekarpena) (a-b)	–1,5	–0,6	–0,4	–0,3	–0,4	–0,3	–0,4
BPG merkatu prezioetan (a)	**3,6**	**3,9**	**4,2**	**4,4**	**4,2**	**4,2**	**4,1**
Lehendarra	29,9	–11,5	1,3	–8,2	3,7	3,8	7,5
Industria	2,9	4,4	4,8	5,4	4,5	4,6	4,6
Eraikuntza	4,4	5,4	5,1	5,2	5,5	5	4,9
Zerbitzuak	3,2	3,6	3,5	3,4	3,4	3,5	3,6
Merkatu zerbitzuak	3,4	3,6	3,7	3,6	3,6	3,7	3,7
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	2,1	3,4	2,6	2,6	2,4	2,5	2,7
Balio erantsi gordina	**3,6**	**3,8**	**4,0**	**4**	**3,9**	**4**	**4**
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,5	5,0	6,0	7,3	6,9	5,6	4,1
BPG prezio arruntetan	**8,2**	**7,3**	**7,6**	**7,9**	**7,6**	**7,6**	**7,4**
BPGren deflaktorea	4,3	3,3	3,2	3,3	3,2	3,3	3,1
Lanpostuak	2,5	2,3	2,3	2,2	2,3	2,5	2,1
Lanaren itxurazko produktibitatea (irabaziak)	1,1	1,7	1,9	2,2	1,9	1,6	1,9
Langabezi tasa (PRA)	7,8	5,7	4,1	5,1	4,2	3,6	3,4
PKI	3,0	3,3	3,4	3,9	3,8	3,4	2,5
Azpiko inflazioa	2,7	2,7	2,9				

*** Urtaro eta egutegi ondoreak zuzendutako datuak.**
Iturria: Hiruhilekoetako Kontu Ekonomikoak-oinarriak, PRA eta INE.

bigarren hiruhilekotik aurrera moteldu eta urtea %4,9ko hazkunde tasarekin amaitu arren.

Aurreko urtearen aldean ere, motelago doala igarri da, 2005eko hazkundea %5,4koa izan baitzen. Hala ere, esan daiteke ez dirudiela oraindik interes tasen igoerak eta hipoteka maileguen garestitzeak sektoreari asko eragin dionik.

Industriak, bere aldetik, aurreko urtean baino dinamismo handiagoa erakutsi du, eta urtean batez beste

III.2.1. Grafikoa. Eskaintza agregatuen bilakaera (bolumen indizearen urte arteko aldaketa tasak)



Iturria: CET. Eustat.

III.2.1. Grafikoa. Inflazio tasen bilakaera



Iturria: INE.

%4,8 hazi da (aurreko %4,4aren aldean), ekipo ondasunen bulkadari esker; eta zerbitzuen sektoreak urtean %3tik gorako igoerei eusten die, merkatu zerbitzuen une onarengatik.

Multzoan, VABen hazkundea aurreko urtean izandako tasaren aldean bi hamarren hobetu da (%4 %3,8ren aldean), eta lau hiruhilekoetan %4 inguruko tasetan mantentzeak lehen lerroaldean aipatutako BPGren hiru hiletik hiru hilerako moteltzea erlatibizatzen du, eskaintzaren aldetik, hazkundea zerga garbien moteltzearen ondorioz jaitsi den neurrian; izan ere, zerga garbi horiek oso tasa altuetara helduak ziren eta ekonomiaren hazkunde errealetik gertuko tokietara itzuli dira.

Enpleguan ere hazkunde tasak erregistratu dira; igoera urtean batez beste %2,3koa izan da (aurreko urtekoaren berdina). Horrek esan nahi du aurreko urtean baino 21.983 lanpostu gehiago egon direla, eta 975.371 enplegutara heldu dela. Langabezi tasa, PRAren datuen arabera, %4,1ekoa izan da, aurreko urtean %7,5ekoa izan denean.

Lanaren itxurako produktibitateak[4] goraka segitzen du, eta 2006an %1,9 hazi zen (2005ean baino bi hama-

[4] Produktua landun bakoitzeko. Adierazitako azkeneko urteko BPGren eta landunen kopuruaren arteko zatiketaren emaitza litzateke. Izendatzailea denbora osoko pareko lanpostuen kopuruak beharko lukeen arren, datu hori ez dago eskuragarri.

rren gehiago); azkeneko 15 urteotako batez bestekoa baino hiru hamarren gehiago da hori.

Inflazioa, bestalde, alderdirik okerrenetakoa izan da. BPGren deflaktorea %3,2ra heldu da, eta kontsumoko prezioen batez besteko igoera %3,4koa (2005ean baino hamarren bat gehiago), energi produktuen eta etxebizitzaren prezio garestien eraginarengatik; Europako Banku Zentralak helburu duen %2a baino nabarmen gehiago. Azpian dagoen inflazioa (prestatu bako elikagaiak eta energi produktuak kenduta) %2,9 igo da.

Horrela, EBrekiko (EB 13:euroeremua) prezioen diferentziala berriro handitu da, urteko inflazioa, EICP (European Index of Consumer Prices)[5] bidez neurtuta, 2006ko abenduan, aurreko urtean bezala dago, hau da, %2,2an, Eurostaten datuen arabera.

2.2. Barruko eskaria

Eustatek *Hiruhilekoetako Kontu Ekonomikoetako* datuen arabera, barruko eskariak 2006an BPGren hazkundeari ekarri diona 2005ean erregistratutako balioa baino hamarren bat gehiago izan da; %4,5etik %4,6ra igaro da. Alabaina, hiruhilekoetako datuek urtea joan ahala apur bat moteldu dela erakusten dute.

Aipagarria da, berriro ere, inbertsioak izandako hazkundea %6,3 (aurreko urteko aldaketa tasaren berdina), 18.247,9 milioi eurotara eta kontsumo pribatuari %4,1eko hazkundearekin eustera helduta (hemen ere aurreko urteko tasaren berdina). Kontsumo publikoak, bere aldetik, aurreko urteko batez besteko hazkunde tasa baino bi hamarren gehiago hartu ditu, %2,9ra iritsiz.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintzarako Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, **kontsumo pribatuaren** abaguneko adierazle nagusietako batzuek dinamismo txikiagoa izan dute 2006an.

Horrela, kontsumo ondasunen industri jardueraren indizea urte batetik bestera batez beste %2,7 hazi da, 2005ean baino 0,6 puntu gutxiago, eta kontsumo ondasunei buruzko produkzio indizea aurreko urtean baino gehiago jaitsi da; %1,4 batez beste, bigarren hiruhilekotik ikusten diren jokabide okerren ondorioz. Saltoki handietako salmenten hazkunde errealaren tasa %1,2koa izan da, 2005ean izandakoa baino ia 8,2 portzentaje puntu gutxiago, azkeneko hiruhilekoan %1,2ko jaitsierarekin.

Alde onean turismoen matrikulazioak jarri behar dira, 2005ean baino jaitsiera txikiagoa izan baitzuten (–%2,8 –%4,4ren aldean), eta barruko merkataritzako indizea, %3,4 hazi zena, aurreko urtean baino 3,1 puntu gehiago, alegia.

Egoera horren ildotik, 2005eko hirugarren hilekotik 2006ko laugarrenera arte, EAE eta Nafarroako Aurrezki

III.2.2. TAULA. BARRUKO ESKARIAREN ZENBAIT ADIERAZLEREN BILAKAERA (URTE ARTEKO ALDAKETA TASA)

	2004	2005	2006				
	batez beste	batez beste	batez beste	I	II	III	IV
Kontsumo pribatuaren adierazleak							
IPI kontsumo ondasunak	–0,5	–0,2	–1,4	7,0	–4,5	–4,6	–3,3
IAI kontsumo ondasunak	2,0	3,3	2,7	7,9	–1,1	2,3	2,2
Turismoen matrikulazioa	3,9	–4,4	–2,8	5,2	–3,8	–8,5	–3,9
Barruko merkataritza indizea (p.ctes.)	3,0	0,3	3,4	6,2	2,0	2,9	2,7
Saltoki handietako salmentak (p.ctes.)	4,0	9,4	1,2	3,5	0,6	2,2	–1,2
Enplegua (PRA)	1,6	1,3	1,4	0,7	1,3	1,3	2,1
Lan eta lanbide etekinen atxikipenak (*)	4,0	8,2	8,7	9,1	8,7	8,8	8,7
Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak (*)	–4,8	17,3	13,7	4,1	5,7	8,9	13,7
Konbenioetako soldata igoerak (*)	4,0	4,5	4,9	4,6	4,9	4,8	4,9
Kontsumo publikoaren adierazleak							
Eusko Jaurl. eta Foru Ald. gastu arrunta (*)	7,5	7,2	—	13,4	10,9	10,1	—
Inbertsioaren adierazleak							
IPI inbertsio ondasunak	4,6	6,2	8,4	6,1	6,3	11,1	6,2
IAI inbertsio ondasunak	2,0	1,5	4,0	7,5	0,5	3,4	4,8
Zamalanetako ibilgailuen matrikulazioa	14,9	12,1	–5,4	–1,3	–12,7	–3,6	–3,0
Ekipo ondasunen inportazio balioa	17,5	4,0	16,2	15,7	–13,2	–3,7	17,4
Sektore pribatuko kreditua	11,8	16,0	16,8	16,8	15,6	18,0	16,9

(*) Metatua.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

[5] EICP EBren agregatu ofiziala da. EB15 2004ko maiatzera arte hartzen du, EB-25 2004ko maiatzetik, eta EB27 2007ko urtarriletik.

III.2.3. GRAFIKOA. KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA INDIZEAREN BILAKAERA



Iturria: EAE eta Nafarroako Aurrezki Kutxen federazioa.

Kutxen Federazioaren Kontsumitzailearen Konfiantza Indizea (ICC) –3 eta –6 artean ibili zen, gora eta behera. Erantsitako grafikoan ikusten denez, 2006a itxi orduko, EAEko ICCk Estatuaren multzokoak (–11), eta Europako Batasunekoak (–6) baino baikorragoak diren mailetan segitzen du; eremu geografiko horietan ere kontsumitzaileen konfiantzak hobera egin du aurreko hiruhilekoaren aldean. EAErako 2006ko urteko batez bestekoa –3,75 izan da, 2005eko –2,5aren aldean, eta Estatuko –12,2 eta EBko –7,8 balioen aldean.

2006aren amaieran EAEko ICCaren lau osagaiak zelakoak ziren aztertzean, ikusten da bi negatiboak direla (ekonomia orokorrari buruz espero dena, familiei buruz espero dena eta langabeziari buruz espero denak), eta bat soilik dela positiboa (familien aurrezpenari buruz espero dena). Urtean izandako bilakaera alderantzizkoa izan da: lehen hiruek hobera egin dute urtea aurrera zihoala, baina balio negatiboak utzi barik; laugarrenak, ordea, positiboa izaten segitu arren, balioa galdu du. Langabeziari buruz espero direnak dira denetan ezkorrenak, baina apur bat hobera egin dute (2005eko abenduan –19 izatetik 2006ko abenduan –8 izatera igaro dira). Izan ere, egoera ekonomiko orokorrari eta langabeziari buruzko ezkortasunak antzera bilakatu dira azkeneko hiruhilekoetan. Era berean, inflazioaren bilakaerari buruz espero direnak, ICC indizea prestatzeko kontuan hartzen ez direnak, EAEko kontsumitzaileen ezkortasuna sistematikoki igoarazi eta hobetzeko itxurarik ez dutenak dira (2005eko abenduan –40, eta 2006ko abenduan –41).

Inbertsioari dagokionez, ekipoko ondasunen Produkzio Industrialaren Indizea, Jarduketa Industrialaren Indizea eta ekipo ondasunen inportazioaren balioa dira bilakaera gorakorra dutenak. Lehena, batez beste, %8,4 hazi da 2006an, aurreko urtean baino portzentajezko 2,2 puntu gehiago, bigarrena %4, 2005ean baino 2,5 puntu gehiago; eta ekipo ondasunen inportazioaren balioaren hazkunde tasa nabarmen gehitu da, %16, aurreko urtean %4 izan zenean. Zamalanetarako ibilgailu industrialen matrikulazioa, aitzitik, %5,4 jaitsi da, aurreko urtean %12,1 hazi zen arren.

2.3. Kanpoko sektorea

Eustateko Hiruhilekoetako Kontu Ekonomikoen datuen lehen aurrerapenean, Estatuari eta munduko gainerakoari saldutako ondasun eta zerbitzuen gainean, esportazioa, urtean, batez beste, %7,4 hazi dela (2005ean erregistratutako tasa baino 2,3 puntu gehiago), eta inportazioa 7,9 (aurreko urtean baino 1,9 puntu gehiago). Bi aldagaien hiruhilekoetako perfila antzekoa da, lehenean %8 inguruko hazkundearekin, bigarrenean behera egin eta hirugarren eta laugarrenean berriro gora eginez; urtea %8,3 eta %8,4ko hazkundeekin amaitu zuten, hurrenez hurren.

III.2.4. GRAFIKOA. KANPOKO SEKTOREAREN BILAKAERA EAEN (BOLUMEN INDIZEAREN ALDAKETAREN URTE ARTEKO TASA)



Iturria: Eustat. CET.

Xede merkatu berrien susperraldiak esportazioak bizkortu ditu urtearen bigarren erdian, azkeneko sei urteotako erritmorik bizienak lortuz. Eta ekipo ondasunak fabrikatzeko behar diren bitarteko ondasunen artean dagoen elkarloturak lehenengoen inportazioak izugarri gehiarazi zituen.

Ondorioz, lehenago esan bezala, kanpoko sektorearen BPGrako ekarpen negatiboa pixka bat jaitsi da.

EAEko ekonomiaren irekipen graduak[6] igotzen segitu du, %124,7tik %129,5era, ondasun eta zerbitzuen esportazioaren estaldura gradua inportazioarekin lau hamarren jaitsi bada ere, 2005etik 2006ra, %94,8tik %94,4ra igaroz.

Aduanen Erregistroetatik ateratzen den Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak ematen dituen Atzerrira doazen ondasunen kanpoko merkatuaren datuen arabera, esportazioaren balio arrunta 2006an %15,5 hazi zen, 2005ean baino 9,7 puntu gehiago, energetikoak %56,9 eta ez-energetikoak %12,8 igota. Inportazioak, denera, %18 gehitu ziren (2005ean baino 2,4 puntu gehiago), eta horietan inportazio energetikoen balioa, denaren ia %35, %32,7 hazi zen (aurreko urtean %52,1ekoa izan zen); ez-energetikoak, berriz, %11,5 gehitu ziren (%4,4 2005ean).

EAEko esportazio ez-energetikoen muga zergen taldekako analisiak agerian uzten du ekipo ondasunak berriro nabari direla, lehen postuan, esportatutako guztiaren %43,6 baitira (makina eta aparatuen (3.410,8 milioi euro) eta garraio materialaren (3.786,4 milioi euro) banatuta; horrek esan nahi du %9,5 gehitu direla 2006an, 2005ean %0,3 gutxitu zirenean; makina eta aparatuen atala %8,9 hazi da (%5,7 aurreko urtean), eta garraio materiala %10,1 jaitsi da (aurreko urtean %5,2 gutxitu zen). Bigarren, metal arrunten eta beren manufakturen esportazioa nabari da, denaren %25,9 baita, aurreko urtean jada igartzen zitzaien hazkunde tasa altuei eutsiz: 2005ean %13,1 gehitu baziren, 2006an %16,3 hazi dira. Hirugarren plastikoen eta kautxuaren esportazioa legoke, denaren %7,9, hazkunde tasa altuarekin berriro ere (%34, aurreko urteko %21,9aren aldean. Kontrako aldean, produktu kimikoen esportazioen beherakada (%1,2) litzateke aipagarriena, 2005ean %20,1 gehitu baitziren.

Inportazio ez-energetikoen aldetik, metalak eta beren manufakturak nabarmenduko dira berriro ere, inportazio guztien %24,5 baitira eta %24,7 gehitu baitira. Hau da, 2005ean behera egin ondoren, %6,2 soilik igota, berriro itzuli ziren 2004an izandako %32,4ko hazkundearen bidera. Bigarren, ekipo ondasunak leudeke, %2,8 igota, garraio materialaren inportazioaren ondorioz (%8,1 gehitu zen), makineriarena %6,5 gutxitu baitzen. Gainerako muga zergen multzoetan plastiko eta kautxu inportazioak,

[6] Irekipen gradua: Prezio arruntetako esportazio eta inportazioen batuketaren portzentajea, prezio arruntetako BPGren gainean.

III.2.3. TAULA. EAETIK ATZERRIRAKO ONDASUN ETA ZERBITZUEN MERKATARITZA (MILIOI EUROTAN)

Muga zergazko Multzoak	Esportazioak 2004 milioiak	Esportazioak 2005 milioiak	Esportazioak 2006 p milioiak	Esportazioak 2006 p % bertikala	Esportazioak Aldaketa 05-06	Inportazioak 2004 milioiak	Inportazioak 2005 milioiak	Inportazioak 2006 p milioiak	Inportazioak 2006 p % bertikala	Inportazioak Aldaketa 05-06	Saldoa 2004 milioiak	Saldoa 2005 milioiak	Saldoa 2006 p milioiak
Denera	**13.508,8**	**14.296,7**	**16.513,8**	**100,0**	**15,5**	**12.573,2**	**14.536,7**	**17.156,5**	**100,0**	**18,0**	**935,6**	**–240,0**	**–642,7**
Energetikoak (Produktu eta mineral energetikoak)	785,9	881,7	1.383,3	8,4	56,9	2.956,8	4.497,6	5.966,6	34,8	32,7	–2.171,0	–3.615,9	–4.583,3
Ez energetikoak	**12.723,0**	**13.415,0**	**15.130,5**	**91,6**	**12,8**	**9.616,4**	**10.039,1**	**11.189,9**	**65,2**	**11,5**	**3.106,6**	**3.375,9**	**3.940,6**
Nekazaritzako produktuak	485,5	485,1	520,7	3,2	7,3	806,4	812,7	804,0	4,7	–1,1	–320,9	–327,5	–283,3
Produktu kimikoak	354,8	425,9	420,6	2,5	–1,2	444,4	450,1	494,8	2,9	9,9	–89,7	–24,2	–74,2
Plastikoak eta kautxua	800,0	975,2	1.306,4	7,9	34,0	603,7	643,1	745,0	4,3	15,8	196,3	332,1	561,5
Papera	412,0	428,7	448,7	2,7	4,7	322,7	330,9	366,3	2,1	10,7	89,3	97,7	82,4
Metal arruntak eta beren manufakturak	3.256,5	3.681,5	4.282,6	25,9	16,3	3.177,2	3.374,6	4.209,1	24,5	24,7	79,3	307,0	73,5
Ondasun ekipoak	6.594,0	6.571,4	7.197,1	43,6	9,5	3.320,9	3.433,7	3.529,5	20,6	2,8	3.273,1	3.137,8	3.667,6
Beste manufatkrua batzuk	720,6	716,1	805,5	4,9	12,5	896,3	953,4	1.022,8	6,0	7,3	–175,7	–237,2	–217,3
Sailkatu bakoak	99,7	131,0	148,9	0,9	13,7	44,7	40,7	18,5	0,1	–54,5	54,9	90,3	130,4

p: behin behinekoak.
Iturria: Eustat "Kanpoko Merkataritzaren Estatitstika".

%15,8arekin, paperarenak, %10,7rekin, eta produktu kimikoenak, %9,9rekin nabarmentzen dira.

Maila teknologikoaren arabera, ikusten da 2004tik teknologia maila ertain-altu eta altuko inportazioak pisua galtzen ari direla esportazio eta inportazioen guztirako kopuruetan, maila ertain-baxu eta baxukoen mesedetan. Horrela, 2004an EAEk egiten dituzten esportazioen %52,5 maila altu eta ertain-altukoak baziren, 2006an (behin behineko datuak dira) portzentajea %47,8koa litzateke. Inportazioen kasuan, 2004an %42,6 izatetik 2006an % 35,7 izatera igaro da.

EAEko esportazio ez-energetikoen xede diren eremu geografikoei adituz, OCDEra doazenak, eta esparru horren barruan EB-15era doazenak dira ondoen ari direnak, denaren %68,3rekin, eta %13,1eko hazkunde tasarekin. Bereziki azpimarragarriak dira Frantziara eta Alemaniara doazen esportazioak, EAEtik EB-15era doazen esportazioen %52 baitira, baita Belgika, Austria eta Italiara doaze-

III.2.5. GRAFIKOA. EAEKO KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA EDUKI TEKNOLOGIKOAREN ARABERA



p: behin behineko datuak.
Iturria: Eustat.

nen igoerak ere; Luxenburgo, Portugal eta Erresuma Batura doazenak, ordea, gutxi hazi dira, edo jaitsi egin dira.

Aldi berean, deigarria da, berriro ere, herrialde kide berrietara zuzendutako esportazioaren hazkundea %26,3 (Poloniaren pisu nabariaz).

OCDEren eremuan, baina EBtik kanpo jada, Japoniarako esportazioak nabarmen gutxitu dira, Mexikorakoak ere, hainbeste jaitsi ez diren arren; dena dela, bi herrialde horiek gure kanporako merkataritzaren oso proportzio txikia hartzen dute.

OCDEtik kanpora, hazkunde tasa altuengatik, Txina, Errusia eta Asiako ekonomia dinamikoetarako (EDA) esportazioak nabari dira, berriro ere. MERCOSUR eremurako esportazioek, ordea, behera egin dute.

Inportazioei dagokienez, gehien-gehienak OCDEtik datoz eta, zehazki, EBko herrialdeetatik, bereziki Alemania, Frantzia eta Italiatik, EB-15eko inportazio guztien %57,9 baitira.

Aipagarriak dira Belgikatik (%21,7) eta EBko kide berrien multzotik (UE-NMUE) (%33) datozen inportazioak; batasunetik kanpoko OCDEko herrialdeetatik datozenak, bereziki Mexikokoak (–%28,4), ordea, gutxitu egin dira.

OCDEtik kanpoko jokabideari dagokionez, garrantzitsua da Erdiko eta Ekialdeko Europako herrialdeetatik (PECO) datozen inportazioen beherakada, eta Asiako ekonomia dinamikoetatik (%38,3) eta Txinatik (%37,7) datozenen gorakada.

Ondasun ez-energetikoen estaldura tasak pixka bat gora egin du, %133,6tik %135era, Frantzia, Alemania, Portugal, AEB eta Mexikok daukaten bilakaera onari esker.

2006ko merkataritza saldoak –642 milioi euroko defizita adierazten du, produktu energetikoen ondorioz, horietan defizita –4.583 milioi eurokoa baita, 2005ean baino %26,7 gehiago, alegia. Produktu ez-energetikoen superabita, ordea, %16,7 gehitu da, eta 3.940,6 millioi eurokoa litzateke (BPGren %6,3, aurreko urtean (%5,89) baino lau hamarren gehiago). Eremu eta herrialdeka Europako Batasunarekiko kanpoko saldoak goraka segitzen du, Alemania, Frantzia, Portugal eta Batasuneko Kide Berriekin onerako bidetik doalako; OCDEko gainerako herrialdeekin ere goraka doa, erakunde horretakoak ez diren herrialde batzuekin, bereziki Txina, Errusia eta Asiako Ekonomia Dinamikoekin (EDA) okerrera egin arren.

III.2.4. TAULA. EAEKO ONDASUN EZ ENERGETIKOEN MERKATARITZA, EREMU GEOGRAFIKOKA (MILIOI EUROTAN)

	Esportazioak				Inportazioak				Saldoa		
	2004	2005	2006 p	Ald. 05-06	2004	2005	2006 p	Ald. 05-06	2004	2005	2006 p
Denera	**12.723**	**13.415**	**15.131**	**12,8**	**9.616**	**10.039**	**11.190**	**11,5**	**3.107**	**3.376**	**3.941**
OCDE	**10.574**	**11.170**	**12.605**	**12,9**	**8.037**	**8.284**	**8.610**	**3,9**	**2.536**	**2.886**	**3.995**
EB-15	8.735	9.148	10.347	13,1	6.884	7.109	7.872	10,7	1.851	2.039	2.476
Alemania	2.062	2.045	2.487	21,6	1.699	1.737	1.763	1,5	363	308	724
Austria	130	146	185	26,3	101	114	134	17,7	29	33	51
Belgika	332	387	504	30,2	282	331	403	21,7	49	55	100
Frantzia	2.610	2.708	2.909	7,4	1.575	1.505	1.682	11,7	1.035	1.202	1.227
Italia	908	1.122	1.381	23,0	962	1.020	1.088	6,7	–53	102	293
Luxenburgo	30	22	20	–8,7	35	33	36	8,0	–5	–11	–16
Portugal	699	695	727	4,6	241	232	271	17,0	458	463	456
Erresuma Batua	1.065	1.074	1.088	1,3	938	921	936	1,6	127	153	152
NMUE	412	488	616	26,3	201	262	350	33,3	211	225	266
Polonia	168	193	266	37,8	49	59	67	13,3	119	134	199
OCDE EB ez	1.476	1.595	1.716	7,6	1.033	1.004	533	–46,9	443	591	1.183
AEB	534	552	643	16,5	263	222	253	14,3	271	330	389
Japonia	99	74	53	–28,1	136	159	157	–1,7	–36	–86	–104
Mexiko	305	397	327	–17,8	23	19	14	–28,4	281	378	313
PECO	**492**	**576**	**128**	**–77,8**	**253**	**326**	**65**	**–80,1**	**239**	**249**	**63**
MERCOSUR	**249**	**300**	**288**	**–4,0**	**177**	**196**	**223**	**13,9**	**71**	**104**	**65**
Brasil	203	234	227	–3,0	149	169	185	9,6	54	66	42
EDA	**130**	**161**	**178**	**10,4**	**246**	**242**	**334**	**38,3**	**–116**	**–80**	**–156**
Errusia	**63**	**62**	**96**	**53,2**	**379**	**366**	**420**	**14,7**	**–317**	**–304**	**–324**
Txina	**165**	**194**	**246**	**26,5**	**423**	**567**	**780**	**37,7**	**–258**	**–372**	**–535**

p: Behin behineko datuak.
NMUE: EBko kide berriak. MERCOSUR: Hego Amerikako Merkatu Erkidegoa.
PECO: Erdiko eta Ekialdeko Europako herrialdeak. EDA:Asiako ekonomia dinamikoak.
Iturria: Eustat "Kanpoko merkataritzaren estatistika".

2.4. Atzerriko inbertsioa

Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroko datuen arabera, EAEko atzerriko inbertsioa hazi egin da 2006ko behin behineko datuen arabera (urtarriletik abendura), 2005ean beheraka egin ondoren. Zehazki, atzerriko inbertsio gordinaren EAErako fluxua, balio atzerritarrak dituzten enpresak kenduta (ETVE)[7], ia %60 gehitu zen. EAEk, guztira, 1.272 milioi euroko inbertsio gordina jaso du, eta ETVE kendua 304 milioi euro dira.

Atzerriko inbertsioa estatuaren multzoan (ETVE kenduta) aurten %0,8 jaitsi dela kontuan hartuta, EAEri guztirako kopuru horretan dagokion proportzioa 2005eko %1,4tik 2006ko %3,2ra igo da, eta Madrilgo Erkidegoak hartzen duena kentzen badugu, 2005eko %1,9tik 2006ko %5,6ra joango litzateke portzentaje hori. 2005ean EAE inbertsio bolumenetan seigarren geratu bazen, Madril, Katalunia, Andaluzia, Valentziako Erkidegoa eta Irla Balearren atzetik, 2006an hirugarren egin du, Kataluniaren atzetik; Kataluniak 2.521 milioi euro jaso ditu, ETVE kenduta, %1 hazita, eta Madril, 4.118 milioi eurorekin, %9 igo da.

Igoera hori Elikagaien eta Edari eta Tabakoen manufaktura sektoreetan, eta Garraio eta Komunikazioen sektoreetan izandako igoera handiek azalduko lukete; gutxiago Industria kimiko, eta kautxu eta plastikoen transformazioenak, eta metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioenak. Hazkunde garrantzitsuak ikusi dira, era

III.2.5. Koadroa. Inbertsio atzerritar gordina autonomi erkidego Desberdinetan (milioi eurotan)

	2003	2004	2005	2006
DENERA	**9.668,7**	**8.840,8**	**13.768,2**	**9.524,1**
EAE	135,8	288,7	190,4	303,9
Andaluzia	257,5	312,6	301,8	228,2
Aragoi	52,4	43,4	57,0	90,3
Kantabria	0,7	24,7	1,1	4,5
Gaztela Leon	10,1	3,0	20,7	30,6
Gaztela Mantxa	32,5	28,4	18,1	236,8
Katalunia	1.313,0	1.522,4	2.498,0	2.521,5
Madril	6.114,9	3.492,6	3.772,5	4.115,8
Valentzia	260,9	682,4	216,6	160,9
Extremadura	93,8	3,8	8,9	3,7
Galizia	34,9	391,0	190,3	91,9
Irla Balearrak	325,6	121,4	205,6	97,4
Irla Kanariarrak	45,4	338,6	26,7	40,0
Errioxa	16,2	1,6	3,8	0,5
Nafarroa	12,4	17,3	11,3	136,4
Asturias	49,6	696,0	8,3	32,6
Murtzia	875,7	323,5	41,5	93,4
Ceuta eta Melilla	6,1	16,7	5,4	8,9

*** ETVE kenduta.**
Iturria. Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

III.2.6. Grafikoa. Atzerriko inbertsio gordina* EAEn



*** ETVE kenduta.**
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa.

[7] Oso aldakorrak, ez iraunkorrak.

III.2.6. KOADROA. INBERTSIO GORDINA* EAEN SEKTORE ETA HERRIALDEEN ARABERA (MILLAKO €TAN)

		2004	2005	2006 p	Estatua 2006 p	Banaketa EAE (%bertik.)	% Estatu gainean	%04-05	%05-06
Nek, abel, ehiza, oihan eta arrantza		6,5	7,0	1.257,2	64.357,4	0,4	2,0	7,5	17.860,57
Argindar, gas eta ur produkzioa eta banaketa		78.926,0	8.045,4	303,0	176.463,6	0,1	0,2	–89,8	–96,23
Petrolioa erauzi eta fintzeko industria		0,0	0,0	0,0	238.222,7	0,0	0,0		
Elikadura, edariak eta tabakoa		215,9	13,0	22.197,8	274.791,6	7,3	8,1	–94,0	170.521,14
Ehungintza		150,0	0,0	80,0	88.006,7	0,0	0,1	–100,0	–100,00
Papergintza, edizioa eta arte grafikoak		15,2	19.419,9	0,0	357.309,3	0,0	0,0	127.327,4	–100,00
Ind. kimikoa eta kautxu eta plastikoen transfor.		550,8	386,8	681,5	399.867,7	0,2	0,2	–29,8	76,19
Metalurgia, eta produk. metalikoen fabrikazioa		31.258,3	88.629,3	166.427,0	299.653,5	54,8	55,5	183,5	87,78
Makineria eta ekipo mekanikoen eraikuntza ind.		6.345,3	26.693,5	8.481,1	324.980,1	2,8	2,6	320,7	–68,23
Altzarien fabrik., beste manufaktura ind. batzuk		1.320,4	3.197,2	280,0	17.635,0	0,1	1,6	142,1	–91,24
Beste manufaktura batzuk		0,0	0,0	0,0	133.479,5	0,0	0,0		
Eraikuntza		538,3	2.560,2	2.416,6	122.777,4	0,8	2,0	375,6	–5,61
Salmenta eta merkataritza		154.610,9	28.128,3	15.440,9	955.625,4	5,1	1,6	–81,8	–45,11
Ostalaritza		1.072,0	3,0	31,5	703.548,9	0,0	0,0	–99,7	950,33
Garraioa eta komunikazioak		441,3	34,2	7.823,2	2.196.759,5	2,6	0,4	–92,3	22.808,46
Finantza bitartekaritza, banka eta aseguruak		1.414,2	31,4	147,4	513.942,8	0,0	0,0	–97,8	369,63
Higiezinen bitartekariak eta zerbitzuak		11.753,4	12.984,0	78.251,8	2.252.548,9	25,7	3,5	10,5	502,68
Besterik		74,8	250,7	124,2	404.131,9	0,0	0,0	235,1	–50,48
Inbertsioa guztira		**288.693,3**	**190.383,9**	**303.943,3**	**9.524.101,9**	**100,0**	**3,19**	**–34,1**	**59,7**
Inbertsioaren amaierako titularraren egoitza lurraldea	O.C.D.E.	286.741,9	184.997,3	114.883,1	8.586.335,1	37,8	1,3	–35,5	-37,9
	EB15	132.512,8	150.941,5	90.921,5	6.488.569,1	29,9	1,4	13,9	-39,8
	EB25	132.512,8	150.945,1	90.927,5	6.498.602,3	29,9	1,4	13,9	-39,8
	Ipar Amerika	154.225,4	33.733,4	3.916,0	1.793.480,1	1,3	0,2	–78,1	-88,4
	AEB	154.179,6	33.716,9	3.903,0	1.693.787,9	1,3	0,2	–78,1	-88,4
	Mexiko	45,8	16,5	13,0	65.565,8	0,0	0,0	–63,9	-21,2
	Latinoamerika	772,4	4.130,4	188.644,3	434.936,3	62,1	43,4	434,8	4.467,2
	Argentina	0,8	1.215,1		36.819,6	0,0	0,0	155.680,8	-100,0
	Brasil	6,2	2.791,2	166.208,0	239.957,1	54,7	69,3	44.919,2	5.854,7
	Txile	200,0	100,0	24,0	2.440,2	0,0	1,0	–50,0	-76,0
	Asia eta Ozeania	161,3	4,6	1.463,4	193.304,9	0,5	0,8	–97,2	31.992,1
	Txina	25,0			916,2	0,0	0,0	–100,0	
	India				7.426,1	0,0	0,0		
	Japonia	0,6	0,0	1.329,3	104.446,3	0,4	1,3	–100,0	100,0
	Afrika		914,9	1,5	186.636,6	0,0	0,0	100,0	-99,8
	Zerga paradisuak	1.501,9	338,9	408,4	211.397,0	0,1	0,2	–77,4	20,5

(*) Inbertsio gordina ETVE barik.
p: Behin behineko datuak.
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia Ministerioak Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren webean.

berean, finantza bitartekaritzan, banketxe eta aseguruetan; baita higiezinen bitartekaritzan eta zerbitzuetan ere.

Horrela, sektore industrialetako inbertsioen artean, guztirakoan duten pisuarengatik, bereziki deigarriak dira Metalurgiaren eta produktu metalikoen fabrikazioaren sektorekoak, EAEk jasotako inbertsio guztiaren %54,8 eta Estatuan sektore honetan egindakoaren %55,4 baitira. Beste sektore aipagarri batzuk Elikadura, Edari eta Tabakoena sektoreak dira, EAEko inbertsioaren %7,3 eta Estatuan sektore horretan egindakoaren %8,08 beraiengana baitoa, eta makineria eta ekipo mekanikoen eraikuntzaren industriarena, EAEko inbertsioaren %2,79 eta Estatuaren multzoan sektore horretan egindako inbertsioaren %2,61 bereganatzen baitu.

Eta zerbitzuen sektoreko inbertsioen artean, eta higiezinen bitartekariak eta zerbitzuak albo batera utzita, salmenta eta merkataritzakoak sektoreak EAEn jasotako inbertsio osoaren %5,1 hartzen du, eta garraio eta komunikazioenak %2,8.

Lurralde ikuspegitik, inbertsioaren *amaierako* titularraren egoitza lurraldea, kasuen %68an, EB-15eko bat da, halako inbertsioak aurreko urtean baino %39,76 jaitsi diren arren. Herrialde inbertsiogile nagusiak Herbehereak (56,9 milioi euro), Irlanda (12,5 milioi euro), Erresuma Batua (8,4) eta Frantzia (7,6) dira.

EAEn inbertsio gordinean igarritako igoera osoa Latinoamerikatik, zehazki, Brasiletik, eta Japoniatik datozen inbertsioen hazkundeak azaltzen du.

III.2.7. KOADROA. EAEREN INBERTSIO GORDINA ATZERRIAN SEKTORE ETA HERRIALDEEN ARABERA (MILAKO €TAN)

		2004	2005	2006 p	Estatua 2006 p	Banaketa EAE	% Estatutik	%04-05	%05-06
Nek, abel, ehiza, oihar eta arrantza		1.450,3	603,3	85,9	157.415,8	0,0	0,1	–58,4	–85,8
Argindar, gas eta ur produkzioa eta banaketa		5.227,7	41.615,4	453.300,0	1.002.148,1	18,5	45,2	696,1	989,3
Petrolioa erauzi eta fintzeko industria		0,0	0,0	0,0	33.957,6	0,0	0,0		
Elikadura, edariak eta tabakoa		11.895,3	51.966,6	54.785,8	1.407.038,0	2,2	3,9	336,9	5,4
Ehungintza		100,0	0,0	0,0	7.621,7	0,0	0,0	–100,0	
Papergintza, edizioa eta arte grafikoak		0,0	857,0	0,0	486.468,4	0,0	0,0	100,0	–100,0
Ind. kimikoa eta kautxu eta plastikoen transfor.		35.188,9	2.427,1	2.201,1	430.696,0	0,1	0,5	–93,1	–9,3
Metalurgia, produktu metalikoen fab.		47.964,9	30.078,5	4.172,7	147.597,9	0,2	2,8	–37,3	–86,1
Makineria eta ekipo mekanikoen eraikuntza ind.		140.357,1	29.543,6	9.462,1	958.277,6	0,4	1,0	–79,0	–68,0
Altzarien fabrik., beste manufaktura ind. batzuk		0,0	878,9	0,0	12.426,0	0,0	0,0	100,0	–100,0
Beste manufaktura batzuk		30.900,0	31,9	74.156,3	649.547,8	3,0	11,4	–99,9	232.364,9
Eraikuntza		584,5	5.107,0	4.000,0	2.492.393,7	0,2	0,2	773,8	–21,7
Salmenta eta merkataritza		30.315,5	8.092,0	8.604,4	1.440.919,5	0,4	0,6	–73,3	6,3
Ostalaritza		0,0	0,0	0,0	632.557,5	0,0	0,0		
Garraioa eta komunikazioak		1.545,2	64.717,4	45.755,0	30.342.397,7	1,9	0,2	4.088,4	–29,3
Finantza bitartekaritza, banka, aseg.		3.428.572,8	973.646,4	1.680.159,1	9.421.465,8	68,4	17,8	–71,6	72,6
Higiezinen bitartekariak,zerbitzuak		9.317,0	7.574,5	118.088,7	3.482.045,4	4,8	3,4	–18,7	1.459,0
Besterik		0,0	3.557,3	0,0	2.828.019,5	0,0	0,0	100,0	–100,0
Inbertsioa guztira		**3.743.418,9**	**1.220.696,9**	**2.454.771,1**	**55.932.993,9**	**100,0**	**4,4**	**–67,4**	**101,1**
Inbertsioaren berehalako herrialdea	O.C.D.E.	3.686.736,0	1.150.784,8	2.414.097,3	53.141.419,8	98,3	4,5	–68,8	109,8
	EB-15	265.520,9	432.786,4	689.004,7	46.442.649,9	28,1	1,5	63,0	59,2
	EB-25	265.248,3	426.617,2	679.432,2	44.839.484,3	27,7	1,5	60,8	59,3
	Ipar Amerika	3.371.286,5	689.077,4	1.724.408,5	6.290.516,3	70,2	27,4	–79,6	150,2
	AEB	3.725,1	688.242,1	1.678.292,3	5.889.175,6	68,4	28,5	18.375,6	143,9
	Mexiko	3.367.561,4	835,3	46.116,2	373.363,8	1,9	12,4	–100,0	5.421,2
	Latinoamerika	23.276,6	57.144,7	21.253,9	1.464.539,0	0,9	1,5	145,5	–62,8
	Argentina	6.713,8	43.728,9	47,1	313.202,7	0,0	0,0	551,3	–99,9
	Brasil	9.506,8	7.158,4	6.982,2	793.561,6	0,3	0,9	–24,7	–2,5
	Txile	0,0	5.924,2	0,0	117.160,0	0,0	0,0	100,0	–100,0
	Asia eta Ozeania	49.598,7	30.413,7	5.440,9	269.072,7	0,2	2,0	–38,7	–82,1
	Txina	197,1	1.161,0	5.048,2	90.775,4	0,2	5,6	488,9	334,8
	India	152,5	1.334,4	10,9	128.066,7	0,0	0,0	775,3	–99,2
	Japonia	47.144,7	24.886,9	0,0	27.492,8	0,0	0,0	–47,2	–100,0
	Afrika	26.361,9	2.510,2	5.579,1	537.708,4	0,2	1,0	–90,5	122,3
	Zerga-paradisuak	3.925,3	2.686,7	124,8	237.622,6	0,0	0,1	–31,6	–95,4

(*) Inbertsio gordina ETVE barik.
p. Behin behineko datuak.
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia Ministerioak Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren webean.

EAEtik atzerrira doan inbertsioari dagokionez, ETVE kenduta, nabarmen igo dira 1.221 milioitik 2.455 milioi eurotara igaroz 2005etik 2006ra bitartean[8]. Estatuaren multzoan, ia bikoiztu da, 28.948tik 55.933 milioi eurotara igaro baita.

EAE atzerrirako inbertsioengatik laugarrena da Estatuan, aurretik, beti bezala, Madril eta Katalunia dituela, eta azkeneko urte honetan baita Kantabria ere. Zehazki, EAEren atzerriko inbertsioa Estatuko osoaren %4,4 da (%17,8, Madril kenduta, Madrilek guztiaren %75,2 hartzen baitu).

Sektoreka, eta energiaren sektorea albora utzita, Banketxe eta finantza bitartekaritza nabarmentzen dira, oraindik ere; 2006an EAEko kanpoko inbertsioaren ia %68,4 izan ziren, eta Estatuak sektore honetan eta higiezinen bitartekaritza eta zerbitzuetan kanpoan egindakoaren %17,8. Bigarren, Elikadura, Edari eta Tabakoaren sektoreak (EAEko kanporako inbertsioaren %2,23, eta Estatuko sektore honetako %3,9). Eta hirugarren, makineria eta ekipo mekanikoen eraikuntzaren industriaren sektorea, EAEren kanporako inbertsioaren %0,39 eta Estatuko sektore honetakoaren %1 baita.

Herrialdeka, kanporako gure inbertsioaren xede nagusia, aurreko urtean bezala, AEB izan da, ia bikoiztu eta EAEren kanporako inbertsioaren %68,4 izatera heldu baita. Bigarren xedea, garrantziaren aldetik, EB€15 litzate-

[8] Komeni da gogoan izatea 2004ko inbertsioaren %91 BBVAk Bancomer (Mexiko) erosteko egindako EEPrengatik izan zela.

ke, EAEko kanporako inbertsioaren %28,1 baino gehiago (kide berriak %0,4a baino ez). Xede herrialde nagusiak Portugal (454,9 millioi euro), Belgika (88,7 milioi euro), Italia (59,8) eta Danimarka (53,7) dira. Gainera, Mexikoko eta Latinoamerikako inbertsioak ere aipatu behar dira; Mexikokoa denaren %1,9 da (nabarmen hazita), eta Latinoamerikakoa %0,9.

EAEko sektore publikoa

EAEko sektore publikoarekin lotuta, lehenik eta behin, 2006an sarrera publikoetan hazkunde nabarmena egon dela azpimarratu beharra dago, %8,2koa, hain zuzen ere. Berau aurreko urteko %13,2koa baino txikiagoa izan arren, zuzeneko zergetan (+%12,5) nahiz zeharkakoetan (+%10,6), izandako hazkundeen eraginez gertatu da. Honela, BPGari dagokionez EAEko sektore publikoko sarreren kopurua hamarren batean hazi da, eta 2001eko %21,5etik %21,6ra igaro da.

EAEko sektore publikoaren gastua, bestalde, %9,6an hazi da, aurreko urtean baino 3,1 puntu gehiago, eta modu nabarmenagoan Foru Aldundietan (+%12,9) Eusko

III.3.1. GRAFIKOA. EAEKO SEKTORE PUBLIKOKO MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA BPGARI DAGOKIONEZ



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egindakoa.

3

Jaurlaritzan (+%6,3) baino. Horrenbestez, magnitude honek BPGari dagokionez duen ehunekoa lau hamarren hazi da aurreko urtekoarekin alderatuz gero, eta %20,5ean kokatu da. Horren ondorioz, sarrerak gastuak baino gehiago hazi izateak (eragiketa arruntetan, kapitalarekin lotutakoetan ez baita gauza bera gertatu) aurrezpen publikoa %21,9koa izatea eragin du (+%33 2005ean), eta baita administrazio guztien superabit publikoa haztea ere. Azken hori 2004an BPGaren %0,7koa izatetik %1,5ekoa izatera igaro da 2005ean eta %2koa izatera 2006an.

Bere aldetik, EAEko sektore publikoaren (Toki Erakundeak salbu) zorpetze garbia murriztu egin da 2006an, aurreko urteetan gertatu ez bezala. Urte amaieran zor bizia 3.035 milioi eurokoa zen, 2005ean baino % 4,3 txikiagoa.

3.1. Sarrerak

Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Alduendiek likidaturiko guztizko sarrerek %8,2ko hazkundea izan dute 2006an. Honela, 5 puntuko aldearekin gainditu dute aurreko urteko hazkundea, zuzeneko zergetan (%12,5) nahiz zeharkako zergetan (%10,6) gertatu ziren hazkunde garrantzitsuen eraginez, bien artean administrazio hauen guztizko sarreren %93,8ra iristen baitira.

Hazkunde garrantzitsuak izan dituen beste kapitulu bat, EAEko sarreren baitan proportzio txikiagoa duen arren, ondarezko sarrerak dira (+%54,9). Horren atzetik Tasei dagokiena eta beste sarrera batzuk (+%19,6) ere badaude. Transferentzia arruntak, ostera, modu esanguratsuan murriztu dira (–%28,5) eta kapitalaren transferentziekin (–%23,4) gauza bera gertatu da. Finantza sarrerek ere beherakada nabarmena izan dute, % 62,8ekoa, (2005eko –%13arekin alderatuta) eta, honela, aurreko urteetako murriztapen ibilbideari eutsi zaio, zor gutxiago jaulkitzearen ondorioz.

Zuzeneko zergak gora egitearen ondorioz, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren sarreren hazkundearen arteko aldea hazi egin da, %11,6an Foru Aldundietarako (%13,2, 2005ean) eta % 6,2an Eusko Jaurlaritzarentzako (%10,4 2005ean). Laburbilduz, Euskal Sektore Publikoaren sarrera kopurua, EAEko BPGari dagokionez, 2003ko %20,7tik %21era igaro da 2004an, %21,5era 2005ean eta %21,6ra 2006an.

Lurraldeka, 2005ean (hiru Foru Aldundietako informazio ofizial bereiztua eskaintzen digun azken urtea) Bizkaiko Foru Aldundiaren sarreren hazkundea nabarmendu zen, %14,3koa, zuzeneko eta zeharkako zergek (zor txikiagoarekin batera) bilakaera hobea izan baitzuten Gipuzkoako (+%12,6) eta Arabako (+%11,3) Foru erakundeen sarrera txikiagoekin alderatuta.

Zerga Itunduak zuzeneko eta zeharkako sarreren zati handiena eta guztizkoaren % 90 baino gehiago dira.

III.3.2. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren eta FF.AAen sarreren bilakaera BPGari dagokionez (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egindakoa.

Haien bilketari dagokionez, 2006ko behin-behineko datuek 2005ekiko % 11,4ko hazkundea gertatu dela ziurtatzen dute. Hazkunde horren baitan, bertako kudeateta zergak gehiago hazi dira (%12,8, aurreko urtean baino 3 puntu gehiago) eta BEZaren eta Zerga berezien eraginez gertatuko doikuntzak %0,3 eta %7,1 txikiagoak dira, hurrenez hurren. Horrenbestez, Zerga Itunduen bitartez euskal sektore publikoak lortutako sarrerak %11,7 hazi dira 2005 urtearekiko eta EAEren BPGaren %20,8ra iritsi dira, historikoki altuena izan den tasa. Honekin lotuta, zuzeneko zergak (%12,5) zein zeharkakoak (%10,6) eta gainontzeko zerga eta tasak ere (%19,6) hazi egin dira.

Lurraldeka, azken datu zehatzak 2005eko ekitaldiari dagozkionak dira. Urte horretan Bizkaiko hazkunde tasa altua nabarmendu zen, %16,5koa, eta berau PFEZean, Sozietateetan eta, bereziki, BEZean (%32,8ko hazkundea, Arabarentzat %13,7koa eta Gipuzkoarentzat %16,4koa) nagusitu zen. Gipuzkoaren (%11) eta Arabaren (%10,5) hazkunde tasak, berriz, apalagoak izan ziren. Izan ere, sektore publikoaren sarrerak 1,5 puntu hazi ziren Bizkaian eta puntu erdia beste bi lurraldeetan. Horrenbestez, EAEn zerga-presiorik handiena aurkeztera igaro zen (%20koa beste bi lurraldeen %19,21arekin alderatuta), 2004an Arabaren eta Gipuzkoaren azpitik egon zela ahaz-

III.3.1. Koadroa. Euskal sektore publikoaren sarreren kitapena. 2005-2006 (Euroak miletan)

	2005			2006			Ald. % 2005-06		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP
Sarrerak guztira	**7.765.678**	**11.951.224**	**12.354.055**	**8.247.648**	**13.338.529**	**13.368.735**	**6,2**	**11,6**	**8,2**
Zuzeneko zergak		5.110.120	5.110.120		5.748.225	5.748.225		12,5	12,5
Zeharkako zergak	6.986	6.111.917	6.118.903	6.422	6.762.176	6.768.598	–8,1	10,6	10,6
Tasak eta bestelako sarrerak	116.756	168.541	285.297	135.370	205.794	341.164	15,9	22,1	19,6
Transferentzia arruntak	7.224.206	276.416	209.875	7.984.065	300.561	150.139	10,5	8,7	–28,5
Ondarezko sarrerak	36.569	26.925	63.495	57.342	41.024	98.366	56,8	52,4	54,9
Inbertsio Errealen bester.	1.897	12.620	14.517	1.116	11.293	12.410	–41,2	–10,5	–14,5
Kapital transferentziak	69.892	115.713	113.504	48.856	121.059	86.958	–30,1	4,6	–23,4
Finantzaz best. sarrerak guzt.	**7.456.306**	**11.822.252**	**11.915.711**	**8.233.171**	**13.190.132**	**13.205.860**	**10,4**	**11,6**	**10,8**
Finantza aktiboen aldaketa	9.371	2.972	12.343	14.479	21.181	35.660	54,5	612,7	188,9
Fin. pasib. aldak. (Zorra)	300.000	126.000	426.000		127.215	127.215		1,0	–70,1
Finantza sarrerak guztira	**309.371**	**128.972**	**438.343**	**14.479**	**148.396**	**162.875**	**–95,3**	**15,1**	**–62,8**
Sarrera / BPG (%)	**13,5**	**20,8**	**21,5**	**13,3**	**21,5**	**21,6**	**–1,3**	**3,7**	**0,5**

Iturria: Eusko Jaurlaritza "Aurrekontua betetzeko Estatistika".

III.3.2. Koadroa. Foru Aldundiak: Sarreren kitapena zuzeneko eta zeharkako zergen bitartez (Euroak miletan)

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira FF.AA.	
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Zeharkakoak
2000	591.081	694.835	1.934.718	2.187.969	1.168.896	1.396.367	3.694.695	4.279.171
2001	622.881	720.074	2.063.386	2.116.194	1.234.710	1.424.338	3.920.977	4.260.606
2002	652.444	781.103	2.139.690	2.186.585	1.312.127	1.519.033	4.104.261	4.486.721
2003	660.512	818.995	2.171.351	2.414.507	1.381.476	1.644.585	4.213.339	4.878.087
2004	711.438	958.821	2.262.421	2.703.629	1.405.910	1.816.043	4.379.769	5.478.493
2005	818.845	1.023.691	2.660.239	3.091.806	1.603.713	1.977.315	5.082.797	6.092.812

Iturria: Zerga-Kideketarako Saila.

tu gabe. Datu hauek baloratzeko orduan, kontuan hartu behar da 2005eko erdialdetik aurrera foru ogasunak inportazioari[1] asimilaturiko eragiketen BEZa biltzen hasi zirela (hidrokarburoen, alkoholaren eta tabakoaren BEZa) eta horrek eragin berezia izan du Bizkaian, lurralde horretan baitago Petronorren findegia.

III.3.3. Koadroa. EAEko Foru Aldundien zerga itunduen araberako diru-bilketa (Milioika eurotan)

	2005				Banaketa % 2005	Behin behinek. 2006		Ban. % 2005-2006
	AFA	BFA	GFA	EAE		EAE	% banaketa	
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	**1.836**	**5.817**	**3.613**	**11.265**	**100**	**12.552**	**100**	**11,4**
ZUZENEKO ZERGAK	**807**	**2.665**	**1.604**	**5.076**	**45,1**	**5.721**	**45,6**	**12,7**
ERRENTAREN GAINEKO ZUZ. ZERGA	*786*	*2.561*	*1.543*	*4.890*	*43,4*	*5.516*	*43,9*	*12,8*
P.F.E.Z.	549	1.727	1.128	3.404	30,2	3.754	29,9	10,3
Lanaren eta jarduera profesionalen atxik.	560	1.775	1.120	3.455	30,7	3.755	30,1	8,7
Kap. higigarriaren errendimenduaren atx.	23	64	47	134	1,2	152	1,2	13,7
Kapital higiezinaren atxikipena	7	8	16	30	0,3	33	0,3	8,3
Ondarezko irabazien atxikipena	2	9	5	16	0,1	21	0,2	35,7
Prof. eta enpr. egind. zatikako ordaink.	29	68	67	165	1,5	175	1,4	5,9
Kuota diferentzial garbia	–71	–196	–128	–396	–3,5	–381	–3,0	3,7
Sozietateak	234	795	411	1.440	12,8	1.692	13,5	17,5
Errentaren gaineko zerga Ez-egoiliarrak	3	38	4	46	0,4	70	0,6	53,3
KAPITALAREN GAINEKO ZUZ. ZERGA	*21*	*105*	*60*	*186*	*1,7*	*203*	*1,6*	
Oinordetzak eta dohaintzak	9	46	25	79	0,7	76	0,6	–3,5
Ondarea	12	59	36	107	0,9	127	1,0	18,8
ZEHARKAKO ZERGAK	**823**	**2.505**	**1.595**	**4.924**	**43,7**	**5.575**	**44,4**	**13,2**
BEZ (bertako kudeaketa)	517	1.508	948	2.974	26,4	3.465	27,6	16,5
Ondare eskualdaketak	34	167	106	307	2,7	368	3,1	19,7
EJD	19	55	41	115	1	137	1,1	18,4
Zerga bereziak eta aseguru-primak	253	772	500	1.524	13,5	:	:	:
Garraiobideen zehazt.	10	35	19	65	0,6	70	0,6	8,4
Fabrikaz.: Hidrokarburoak	164	493	323	979	8,7	716	5,7	6,2
Fabrikaz.: Elektrizitatea	9	28	18	55	0,5	716	5,7	6,2
Fabrik: Alkohola, garagardoa, tabakoa	51	154	101	306	2,7	716	5,7	6,2
Hidrok. txik. salm. Gaineko zerga	8	24	16	48	0,4	50	0,4	5,2
Aseguru-primen gaineko zerga	10	37	23	71	0,6	72	0,6	1,4
TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK	**11**	**62**	**32**	**105**	**0,9**	**104**	**0,8**	**–1,6**
Jolasaren tasa	8	44	20	72	0,6	:	:	:
Beste sarrera batzuk (errek., beran. inter)	3	18	12	33	0,3	:	:	:
BERTAN KUD. ZERGA ITUND. GUZT.	**1.642**	**5.232**	**3.231**	**10.105**	**89,7**	**11.399**	**90,8**	**12,8**
BEZa ETA ZERGA BEREZ. ERAG. DOIK.	**194**	**584**	**382**	**1.160**	**10,3**	**1.153**	**9,2**	**–0,6**
Aduanen eta barruko eragiketen BEZa	203	610	399	1.213	10,8	1.209	9,6	–0,3
Zerga Bereziak	–9	–26	–17	–52	–0,5	–56	–0,4	–7,1

Iturria: Zerga-Kideketarako Saila.

[1] Ordura arte, Estatuko Ogasun Sailak zegokion dirua biltzen zuen, eta gero, doikuntza bat egiten zuen Foru Aldundiekin, lurralde bakoitzaren kontsumoaren arabera. Dirua biltzeko administrazio aldaketa hau Europako Batzordearen irizpen baten ondoriozkoa izan zen (zerga horiek jatorrian bildu behar zirela zioen irizpena) eta baita 87/2005 Errege Dekretuaren, urtarrilaren 31koaren, ondoriozkoa ere. Dirubideen Euskal Kontseiluaren kalkuluen arabera, bilketa berri honen %85 Bizkaian egiten da.

III.3.4. KOADROA. GASTU FISKALEN ETA EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUAN AURREIKUSITAKO SARRERREN ARTEKO ALDEA

Kontzeptu inpositiboak	Gastu fiskala (milioi €)			Ald. Gastu fisk.%		Gastu fiskala %/ Aurrek. Sarrera		
	2003	2004	2005	03-04	04-05	2003	2004	2005
PFEZ	1.442	1.667	1.869	15,6	12,1	33,2	34,6	34,5
Ondarea	98	130	126	33,7	–3,5	48,6	57,6	52,7
Sozietateak	471	511	526	8,4	2,9	31,4	32,2	27,3
BEZ	369	532	2.936	44,2	452,3	15,7	13,5	41,5
Ondarezko esk. eta EJD *	52	64	108	22,6	68,0	26,7	28,1	20,2
Zerga bereziak, Hidrokarburoen txikizkako salmenta eta aseguru-primak	169	179	229	5,7	28,1	12,0	12,1	13,0
GUZTIRA*	**2.623**	**3.117**	**5.794**	**18,8**	**85,9**	**26,1**	**25,3**	**34,2**

*** Bizkaiko daturik gabe 2003 eta 2004rako Ondorengotza eta Ondarezko Transmisioen gaineko Zergen inguruan.**
Iturria: Zerga kideketarako Saila.

Zerga Itunduei dagokienez, 2006an EAEn 12.552 milioi euro bildu dira. Horien %30 PFEZari dagokio, %37,2 BEZari (bertako kudeaketakoen eta barne eragiketa eta aduanen eraginez egindako doikuntzetakoak), %13,5 Sozietate-zergari eta gainontzeko %22,3 Zerga Berezi ezberdinei. Esan dugun bezala, bertako kudeaketako Zerga Itunduen artean nabarmendu behar da, lehenik eta behin, zuzeneko zergen hazkunde handia (%12,7 hazi direnak, 2005eko %12,7ren aldean) eta, horien artean, PFEZa eta Sozietate-Zerga ere asko hazi direla (%10,3 eta %17,5, hurrenez hurren). Azken bi horiek dira bolumen handiena dutenak, baina gainontzekoen artean ere hazkunde garrantzitsuak gertatu dira. Zeharkako zergetan ere %10,6eko hazkundea gertatu da, kasu honetan garrantzia berezia bertako kudeaketa BEZak izan arren. Berau %16,5 hazi da, bildutako bolumenaren zein hazkunde-tasaren eraginez.

Bestetik, Eustat-en "*Sektore Publikoaren Aurrekontu-Estatistika 2004-2005*"-en oinarrituta, EAEko Administrazioek bermaturiko likidazioaren ondorioz gure Erkidegoko Administrazioen sarrera inpositiboak ezagut ditzakegu. 2005ean 11.734 milioi eurotara iristeraino hazi ziren (+%13 2004rekin alderatuta) eta hori urte horretako BPGaren %20,4 da. Zifra horri Gizarte Segurantzaren kuoten bilteka osoa gehitzen badiogu (6.636,6 milioi euro, BPGaren %11,5), lortzen dugun emaitza 18.371,1 milioi eurokoa da, gure Erkidegoko BPGaren %31,9 dena.

Sarrerak murriztea eragiten duten sailei dagokienez, 2005erako —informazio zehatza (hau da, bertako zergei eta Foru Aldundien Ekarpenetan zenbaturiko zergei eragiten dieten etekin fiskalen kopuruak, salbuespenak, gastu kengarriak, murriztapenak, urritzeak, hobariak, diferimentuak etab. izan daitezkeenak) eskaintzen digun azken urterako— aurrekontuan finkatu zen gastu fiskala 5.794 milioi eurotara iritsi da, 2004an baino %86 gehiago (kontuan izan behar dugu aurreko bi urteetan Bizkaiari zegozkion gastu batzuk zenbatu gabe zeudela) eta hori, irudi hauetan (hots, aurrekontuan zehaztutako sarreretan eta aurreikusitako gastu fiskalean) zerga itunduen bitartez aurreikusitako sarreren %34,2 da.

Gastuaren %51 BEZaren ondoriozkoa da (gastu fiskalak dira %16ko tasa orokorrean zergapetu ez diren eragiketen eraginezkoak, horren %65, eta salbuetsitako eragiketak —posta-, osasun-, hezkuntza-zerbitzuak etab.—), %32PFEZaren ondoriozkoa da (1.869 milioi euroetatik, %40 laneko errendimenduen hobarien ondoriozkoak dira, %21 BGAEri egindako ekarpenen ondoriozkoak, %22 batik bat etxebizitzan egindako murriztapenen ondoriozkoak eta %9 Sozietateen gaineko Zergaren ondoriozkoa.

3.2. Gastuak

Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa (Toki Erakundeak izan ezik, horiei buruz ez baitago konparaziorako moduko daturik) 2006an %9,6 hazi da, aurreko urtean baino 3,1 puntu gehiago —eta 8 hamarren gehiago sarreren hazkundearekin alderatuta—. Honela, magnitude horrek BPGari dagokionez duen ehunekoa lau hamarren handiagoa da aurreko urtean baino, eta %20,1etik %20,5era igaro da.

Gastuaren hazkundea askoz handiagoa izan da 2006an Foru Aldundien artean eta bertan %12,9 hazi da. Eusko Jaurlaritzan, berriz, %6,3 hazi da. Horrenbestez, BPGaren gaineko gastu publikoaren ratioa %20,2tik %21,2ra igo da Foru Aldundientzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat, ostera, %12,7tik %12,5era murriztu da.

III.3.5. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. 2005-2006. EUROAK MILETAN

	2005			2006			Ald. % 2005-06		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP
Gastua guztira	**7.312.910**	**11.623.818**	**11.573.883**	**7.770.938**	**13.126.107**	**12.680.144**	**6,3**	**12,9**	**9,6**
Langileria gastuak	1.468.518	278.485	1.747.003	1.553.899	291.884	1.845.784	5,8	4,8	5,7
Funtzionam. gastuak	2.256.781	252.906	2.509.687	2.461.989	312.559	2.774.548	9,1	23,6	10,6
Finan. gast. (interesak)	60.129	48.624	108.754	42.363	51.170	94.073	–29,5	5,2	–13,5
Transferentzia arruntak	2.290.310	10.241.622	5.241.185	2.480.230	11.387.376	5.733.120	8,3	11,2	9,4
Inbertsio errealak	271.505	488.746	760.251	280.434	532.763	813.197	3,3	9,0	7,0
Kapital transferentziak	569.532	184.963	682.395	634.024	238.252	789.319	11,3	28,8	15,7
Ez finantz. gastuak guzt.	**6.916.775**	**11.495.346**	**11.049.275**	**7.452.939**	**12.814.004**	**12.050.041**	**7,8**	**11,5**	**9,1**
Finantza aktiboen aldak.	165.416	60.908	226.325	134.817	130.931	265.749	–18,5	115,0	17,4
Finan. Pasiboen ald. (amort. zorra)	230.719	67.564	298.283	183.182	181.172	364.354	–20,6	168,1	22,2
Finantza gastuak guztira	**396.135**	**128.472**	**524.608**	**317.999**	**312.103**	**630.103**	**–19,7**	**142,9**	**20,1**
% Kitaturiko gastua/BPG	**12,7**	**20,2**	**20,1**	**12,5**	**21,2**	**20,5**	**–1,3**	**4,9**	**1,8**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Aurrekontua betetzeko Estatistika.

Euskal Sektore Publikoaren gastu-kapituluen aldaketa garrantzitsuenak aurreko bi urteetakoen antzekoak izan dira. Batezbestekotik goragoko hazkundeak gertatu dira funtzionamendu gastuetan (+%10,6), kapital transferentzietan (batezbesteko %15,7, baina %28,8 Foru Aldundietan) eta amortizaturiko zorrean (%22,2 hazi da, aurreko urtean baino askoz gehiago). Horien atzetik datoz, batezbestekotik beheragoko hazkundeekin, langileria gastuak (%5,7, 2005ean baino bi hamarren gehiago) eta inbertsio errealak (%7 hazi direnak, aurreko urteko %4,4ren aldean). Behera egin dute, ordea, kapital gastuek (%13,5, Eusko Jaurlaritzan gertatzen den murriztapen handiaren eraginez, %29,5koa).

Eusko Jaurlaritzaren gastuari erreparatuz gero, 2006ko likidazioak %6,3ko hazkundea erakusten du, oso hazkunde handiekin ondorengo sailetan: Lehendakaritza (%12,7), Lehendakariordetza (%21,1), Etxebizitza eta Gizarte Gaiak (%16,5), Industria, Merkataritza eta Turismoa

III.3.6. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUAREN BILAKAERA, SAILEN ARABERA. AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK

	Euroak miletan				Ban. %	Aldaketa %		
	2003	2004	2005	2006		03-04	04-05	05-06
GUZTIRA	**6.392.506**	**6.725.309**	**7.312.911**	**7.770.938**	**100,0**	**5,2**	**8,7**	**6,3**
Eusko Legebiltzarra	21.520	21.520	23.617	25.786	0,3	0,0	9,7	9,2
Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza	19.043	18.789	20.510	23.111	0,3	–1,3	9,2	12,7
Lehendakariordetza	9.510	10.357	12.553	13.861	0,2	8,9	21,2	10,4
Ogasuna eta Herri Administrazioa	159.389	161.509	171.829	188.429	2,4	1,3	6,4	9,7
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	1.819.806	1.882.886	2.021.892	2.140.099	27,7	3,5	7,4	5,8
Herrizaingoa	492.447	528.255	526.690	555.618	7,1	7,3	–0,3	5,5
Industria, Merkataritza eta Turismoa	256.221	251.938	285.864	298.286	3,8	–1,7	13,5	4,3
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	187.138	225.385	209.721	244.353	3,1	20,4	–6,9	16,5
Justizia, Lana eta eta Gizarte Segurantza	341.496	363.555	410.777	469.077	6,0	6,5	13,0	14,2
Osasuna	2.073.046	2.226.584	2.421.574	2.632.903	33,9	7,4	8,8	8,7
Kultura	200.223	203.297	209.021	232.235	3,0	1,5	2,8	11,1
Lurraldearen Antolamendua eta Ingurumena	110.149	109.672	114.616	120.197	1,5	–0,4	4,5	4,9
Garraioa eta Herri Lanak	195.399	176.506	182.424	188.236	2,4	–9,7	3,4	3,2
Nekazaritza eta Arrantza	188.124	177.899	190.704	173.916	2,2	–5,4	7,2	–8,8
Ekon. eta Giz. Inbertsioetarako Plan Berz.	0	55.475	67.207	27.828	0,4		21,1	–58,6
Lan Harremanen Kontseilua	2.140	2.140	2.338	2.384	0,0	0,0	9,2	2,0
Ekonomia- eta gizarte-kontseilua	1.560	1.560	1.624	1.678	0,0	0,0	4,1	3,3
Kooperatiben Goren Kontseilua	715	715	745	769	0,0	0,0	4,2	3,3
Kontuen Euskal Epaitegia	5.085	5.085	6.144	6.353	0,1	0,0	20,8	3,4
Datuak babesteko Euskal Bulegoa	0	120	1.161	1.666	0,0		867,7	43,5
Zor Publikoa	191.218	176.883	281.918	217.288	2,8	–7,5	59,4	–22,9
Baliabide Instituzionalak	116.795	124.856	149.754	206.867	2,7	6,9	19,9	38,1
Sail ezberdinen gastuak	1.484	321	229	—	—	–78,4	–28,8	—
% BPGmp	**12,9**	**12,6**	**12,7**	**12,5**		**–2,3**	**0,9**	**–1,3**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. EAEko Aurrekontu Orokorrak betetzea 2006.

III.3.3. Grafikoa. EAEko gastu publikoaren bilakaera BPGari dagokionez



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egindakoa.

III.3.7. Koadroa. EAEko Sektore publikoaren aurrezpena eta superabita. 2005-2006. Euroak miletan

	2005			2006			Aldak. % 2005-06		
	EJ	FF.AA	ESP	EJ	FF.AA	SPV	EJ	FF.AA.	ESP
SARRERAK GUZTIRA	**7.765.624**	**11.951.225**	**12.354.055**	**8.247.649**	**13.338.529**	**13.368.735**	**6,2**	**11,6**	**8,2**
Eragiketa arruntak	7.384.518	11.693.920	11.787.691	8.183.198	13.057.780	13.106.492	10,8	11,7	11,2
Kapital erag.	71.789	128.333	128.021	49.972	132.352	99.368	–30,4	3,1	–22,4
Finantza erag.	309.317	128.972	438.343	14.479	148.397	162.875	–95,3	15,1	–62,8
GASTUAK GUZTIRA	**7.312.911**	**11.623.818**	**11.573.882**	**7.770.939**	**13.126.647**	**12.680.143**	**6,3**	**12,9**	**9,6**
Eragiketa arruntak	6.075.739	10.821.637	9.606.629	6.538.482	12.043.529	10.447.524	7,6	11,3	8,8
Kapital erag.	841.037	673.709	1.442.646	914.457	771.015	1.602.516	8,7	14,4	11,1
Finantza erag.	396.135	128.472	524.607	318.000	312.103	630.103	–19,7	142,9	20,1
AURREZP. GORDINA	1.308.779	872.283	2.181.062	1.644.716	1.014.251	2.658.968	25,7	16,3	21,9
FINANTZ. BEH./GAIT.	539.531	326.907	866.437	780.231	375.588	1.155.820	44,6	14,9	33,4
Aurrezpena % / BPG	**2,3**	**1,5**	**3,8**	**2,7**	**1,6**	**4,6**	**16,8**	**8,0**	**21,9**
Superabita % / BPG	**0,9**	**0,6**	**1,5**	**1,3**	**0,6**	**2,0**	**34,4**	**6,8**	**33,4**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Aurrekontua betetzeko Estatistika.

(%12,7) eta Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza (%14,2). Beren gastuaren bolumenari dagokionez, bi sail nagusiak ondorengoak dira: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa (guztizko kopuruaren %27,5), gastu globalarena baino hazkunde txikiagoarekin, %5,8arekin, eta Osasuna (guztiaren %33,9), batezbestekotik gora hazi dena, %8,7, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago. Kultura ere %11,1 hazi da.

Gainontzeko sailetan gastuak gutxiago hazi dira, edo murriztu ere egin dira, Nekazaritza eta Arrantza Sailean (–%8,8) gertatu den moduan. Gainera, nabarmentzekoak dira, era berean, Baliabide Instituzionalek (%38,1) eta Datuak babesteko Euskal Bulegoak (+%43,5) izan dituzten hazkundeak eta 2004-2007 Ekonomia eta Gizarte Inbertsioetarako Plan Bereziaren[2] jaitsiera (–%58,6, 2005eko %21,1ekin alderatuta), zor publikoaren ia

[2] Ogasun eta Herri Administrazio Sailak sustaturiko plana, Sociedad Naturcorp-en pribatizazio prozesua amaitzearen ondoriozko funtsekin, (pribatizazio horretatik abiatuta Eusko Jaurlaritzak 232,5 milioi euroko sarrerak izan zituen) gizarte eta kultura, teknologia, energia eta ingurumen azpiegituratan inbertitzeko proiektu batzuk finantzatzeko.

%23ko jaitsierari lotuta. Azkenik, Eusko Legebiltzarra hazi egin da, 2005ean egin zuen moduan, %9ren gainetik, eta Kontseiluak (LHK, Euskal EGK eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua) ere hazi egin dira, baina Kontuen Euskal Epaitegiarekin gertatu den antzera, batezbestekoaren azpitik.

Horren ondorioz, 2006an Euskal Sektore Publikoaren sarrera gastua baino gehiago hazi izateak (eragiketa arruntetan, kapitalarekin lotutako eragiketetan ez baita gauza bera gertatu) aurrezpen publikoa %21,9an haztea (+%33 2005ean) eragin du, 2.600 milioi euroak gainditzera iristeraino, eta baita administrazioen superabit publikoa haztea ere, 2004an BPGaren %0,7tik 2005eko %1,5era eta 2006ko %2ra igaro dena. Zifra bidez adierazita, hori 1.156 milioi euro izango litzateke.

3.3. Sektore publikoaren zorpetzea

EAEko sektore publikoaren zorpetze garbiak behera egin du 2006an, aurreko hiru urteetan gertatzen ez zen bezala. Urte amaieran Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 3.035 milioi euroko zorra izan dute, 2005ean (%4,1 hazi zen urtea) baino %4,3 gutxiago. Behera egite hau, –%9,1ekin Eusko Jaurlaritzan, zorraren %60 ordezkatzen duenean, zein Foru Aldundietan, –%4,3rekin, ematen da. Zor publikoa modu esanguratsuan murriztu da aurreko urtearekin alderatuta, 127 milioi eurotan, hain zuzen ere, eta, ditugun datuen arabera, Foru Aldundiei dagokie soilik. Bestetik, amortizazioa 2005ean baino %22 altuagoa izan da, Foru Aldundietako amortizazio handiagoen eraginez batik bat. 2006ko Aurrekontua betetzeko Estatistikaren arabera, Eusko Jaurlaritzak ez du zorrik aurkeztu 2006an, eta 183 milioi amortizatu ditu, 2005ean baino %20,6 gutxiago. Honela, saldo biziaren zorra 184 milioi eurotara murriztu du urte amaieran. Zor bizia 1.821 milioi eurokoa izan da guztira eta BPGarekiko txikitu egin da, 2005eko %3,48tik %2,94ra igaro baita 2006an.

Bestetik, kontuan izan behar da, 2006ko ekitaldirako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-likidazioari buruzko datu zehatzik ez dugunez gero, aurreko bostetako likidazioetan zor publikoaren "jaulkipen gordin" gisa agertzen den kopurua (300 milioi euro 2005ean), hasiera batean beharren eta bonoen ondoriozko sarrera gisa aurkezten bazaigu ere, gero kreditu-erakundedun zor bezala agertzen zaigula. Zor horiek, gainera, kontabilitatearen ikuspuntutik erregistratuta geratzen dira, erabiltzen ez diren onartutako eskubide gisa. Azken finean, benetan existitzen ez diren irekitako kreditu-lineak dira.

Bere aldetik, Foru Aldundien zorra 127 milioi eurotara iritsi da, 2005ean baino 1,2 milioi gehiago.

Foru Aldundien arabera, ditugun azken datuak 2005i buruzkoak dira. Urte horretan, eragindako zorraren %90 (126 milioi euro) Bizkaiko Foru Aldundiari zegokion (Arabako Foru Aldundiaren zorra, aurreko urtean bezala, 12 milioikoa izan zen eta Gipuzkoakoak, ez zuen, hirugarren urtez, zorrik izan). Hala ere, Foru Aldundien zorraren amortizazioa 2004koa baino %58 txikiagoa izan zen, 67,6 milioi eurotan. Bizkaiko Foru Aldundiari horren %84 dagokio, Gipuzkoakoari %7 eta Arabakoari gainontzeko %9. Horrenbestez, Foru Aldundien zor bizia %4,8 hazi zen aurreko urtearekiko eta Gipuzkoan besterik ez zen murriztu, BPGari zegokionez ere murriztu egin zen arren, 2004ko %2,27tik 2005eko %2,21ra jaitsi zelako.

III.3.8. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZOR PUBLIKOAREN BILAKAERA (MILAKA EUROAN)

	Jaulkipen gordina		Amortizazioa	Zor garbia		Zor bizia urte amaiera	
	(1)	Aldaketa %	(2)	(1)-(2)=(3)	Aldaketa %	Guztira	Aldaketa %
Eusko Jaurlaritza							
2002	366.900	52,9	222.461	144.439	–195,9	1.514.613	10,5
2003	390.000	6,3	128.922	261.078	80,8	1.775.691	17,2
2004	275.000	–29,5	115.935	159.065	–39,1	1.934.756	9,0
2005	300.000	9,1	230.719	69.281	–56,4	2.004.037	3,6
2006	**—**	**—**	**183.182**	**–183.182**	**–165,8**	**1.820.855**	**–9,1**
Foru Aldundiak							
2002	241.500	97,7	54.114	187.386	191,4	1.226.780	18,0
2003	61.000	–74,7	61.195	–195	–100,1	1.226.585	0,0
2004	146.001	139,3	162.471	–16.470	8.338,6	1.210.115	–1,3
2005	126.000	–13,7	67.564	58.436	–454,8	1.268.551	4,8
2006	**127.215**	**1,0**	**181.172**	**–53.957**	**–208,3**	**1.214.594**	**–4,3**

Iturria: Zerga-Kideketarako Saila.

III.3.4. GRAFIKOA. ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOAREN ZORPETZEAREN BILAKAERA ERAKUNDEEN ARABERA (BPGREN %)



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat eta guk landuta.

3.4. Erakundeetako transferentziak

EAEn bertako jarduera finantzatzeko sistema berezia dago; izan ere, zerga gehienak biltzeko ahalmena du eta EAEren eskumenekoak ez diren kontuetan Estatuko gastuetan laguntzen du kupoaren bitartez. Erkidegoaren eskumenenen banaketari dagokionez, Foru Aldundiak dira bilketaren zati handiena egiten dutenak. Azken horiek, bestalde, Eusko Jaurlaritza eta lurralde historiko bakoitzeko udalak finantzatzen dituzte Ekarpenen bitartez. EAEtik jasotzen dituzten baliabideak ez ezik, Administrazio Publikoek Europako Batasunetik eta Estatutik funts ezberdinak jasotzen dituzte, BEZaren eta Zerga Berezien bilketa eta baita hurrengoei lotutako zergen bilketa egokitzeko ere: Foru Aldundiek eta Udalek itundu gabeko zergetan dituzten partizipazioari lotutakoak, Kirol eta Ongintzako Apustuen eta Estatuko Loterien eta Apustuen Erakunde Nazionalaren bilketan duten partizipazioari lotutakoak, eta Estatuko Administrazioen eta Erakunde Autonomoen artean ezarritako finantzazio akordioei eta hitzarmenei lotutakoak.

Lehenik eta behin, beren bolumena dela-eta, Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak nabarmentzen dira. Ekarpenei buruzko 2002-2006 Legean zehaztuta dagoen baliabideen banaketa metodologiaren arabera, Foru Aldundiek bildutako zerga itunduen %70,44 Eusko Jaurlaritzari tranferitzen zaizkio, gastu komunentzako laguntza gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak dituen sarrera guztien %88 ekarpen horietan oinarritzen dira). 2006an, ekarpen horien behin-behineko kopurua 7.883 milioi eurokoa izan da eta %11,2 hazi dira, aurreko urteko +%14,7ren aldean. Lurraldeka, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak[3] urtero zehazten ditu ekarpenen koefizienteak.

Bestetik, EAEak 2000-2006 aldian Europako Batasuneko Egitura Funtsetan parte hartzea (Eskualde Garapeneko Europako Funtsa —EGEF— eta Europako Gizarte Funtsa —EGIF—) 2. helburuaren bitartez gertatu da batez ere (egitura aldetik hutsuneak dauzkaten eskualdeen ekonomia eta gizarte birmoldaketari laguntzea). Egiturazko funts horiek onartutako laguntza 587,6 milioi eurokoa izan zen. Kopuru horretatik, %95 EGEFri dagokio eta gainontzeko %5 EGIFri, eta guztizko partizipazio publikoa 1.316,2 milioi eurokoa da. Gainera, 3. helburuari (guztientzako lan hobea lortzeko giza baliabideak garatzea)

[3] 2007 urte hasieran Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak aldaketa batzuk adostu ditu baliabideen banaketari eta Foru Aldundiek 2007-2011 epealdian erakunde komunak finantzatzeko ekarpenei dagokienez. Horien artean, nabarmentzekoa da koefiziente bertikala 70,44tik %70,04ra murriztuko dela, eta neurri horrekin ondorengo helburuak bilatzen dira: toki entitateen partaidetza handitzea, Foru Aldundien artean BEZa biltzeko egokitzapen berri bat sortzea, eta Egokitzapenerako Funts Orokorra —lehen Elkartasun Funtsa zena— eratzea, Lurralde Historikoentzako berme mekanismo gisa, zeinen kopurua EAEko erakundeen artean banatu beharreko 0,75tik %1era igarotzen baiten.

III.3.9. Koadroa. Foru Aldundiek EAEko erakunde komunei egindako ekarpenen bilakaera 2002-2005. Euroak miletan

Kontzeptua	2002	2003	2004	2005	2006	Ald. % 04-05	Ald. % 05-06
Ek. orokorra	5.451.548	5.764.518	6.181.796	7.085.585	7.865.095	14,6	11,0
Ek. bereziak	13.200			2.760	17.968	—	551,0
Guztira	**5.464.748**	**5.764.518**	**6.181.796**	**7.088.345**	**7.883.063**	**14,7**	**11,2**
Ek. Araba	906.602	964.980	1.028.033	1.185.171	1.287.304	15,3	8,6
Ek . Bizkaia	2.743.303	2.898.400	3.112.534	3.568.273	4.001.443	14,6	12,1
Ek . Gipuzkoa	1.814.843	1.901.138	2.041.229	2.334.901	2.594.316	14,4	11,1
% Araba	16,59	16,74	16,63	16,72	16,33	0,5	–2,3
% Bizkaia	50,2	50,28	50,35	50,34	50,76	0,0	0,8
% Gipuzkoa	33,21	32,98	33,02	32,94	32,91	–0,2	–0,1

Iturria: Kupo eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritzako datuetan oinarrituta. Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

III.3.10. Koadroa. Eusko Jaurlaritzak jatorriaren arabera kitaturiko sarrerak 2003-2005. Euroak miletan

	2003	2004	2005	Dist. % 2005	Ald. % 03-04	Ald. % 04-05
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	**5.764.518**	**6.181.796**	**7.088.345**	**91,3**	**7,2**	**14,7**
Ekarpen Orokorra	5.764.518	6.181.796	7.085.585	91,2	7,2	14,6
Ekarpen Zehatzak	—	—	2.760	0,0	—	—
2. ERAKUNDEEN BESTE SARRERA BATZUK	**189.580**	**132.910**	**196.546**	**2,5**	**–29,9**	**–100,0**
EAEko erakundeen Transferentziak	14.552	14.256	7.205	0,1	–2,0	–49,5
Estatuaren Transferentziak	2.846	3.787	43.615	0,6	33,1	1.053,3
ISAF Bekak	72	31	—	—	–56,9	—
Akordioen araberako transferentziak	1.276	3.366	—	—	163,8	—
Beste Transfer. batzuk (NAEM eta NBEF)	1.498	389	—	—	–74,0	—
Europako Batasunaren Funtsak	**172.182**	**114.867**	**145.726**	**1,9**	**–33,3**	**26,9**
EGIF	18.890	19.720	21.485	0,3	4,4	9,0
EGEF	69.581	9.232	38.798	0,5	–86,7	320,3
NBBEF - Orientazioa			1.391	0,0		
NBBEF - Bermea	60.028	58.282	61.224	0,8	–2,9	5,0
ABFT	14.356	17.525	14.223	0,2	22,1	–18,8
Kohesio Funtsa	8.455	8.669	8.283	0,1	2,5	–4,5
Beste funts batzuk	871	1.439	322	0,0	65,2	–77,6
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	**569.570**	**717.614**	**480.787**	**6,2**	**26,0**	**–33,0**
Zor Publikoa	390.000	275.000	300.000	3,9	–29,5	9,1
Zeharkako Zergak	6.893	6.838	6.986	0,1	–0,8	2,2
Ondarezko Sarrerak	43.091	230.050	36.569	0,5	433,9	–84,1
Inbertsio Errealak besterentzea	353	2.184	1.897	0,0	518,7	–13,1
Beste Transferentzia batzuk	14.085	7.082	9.207	0,1	–49,7	30,0
Variación de Activos Financieros	12.346	74.379	9.371	0,1	502,5	–87,4
Tasak eta beste sarrera batzuk	102.802	122.081	116.756	—	18,8	–4,4
SARRERAK GUZTIRA	**6.523.668**	**7.032.320**	**7.765.678**	**100,0**	**7,8**	**10,4**

Iturria: Zerga-Kideketarako Sailean oinarrituta.

laguntzeko, Europako Esparruan 222,6 milioi euro daude, 9 ardatzetan banatuta. Europako Urban II eta Interreg III ekimenetarako, berriz, 10,5 eta 7,2 milioi euro daude, hurrenez hurren, 2000-2006 programazio aldirako. Azkenik, Kohesio Funtsak 2000-2002 urteetan EAEn gauzatu beharreko proiektuentzako onetsi zuen laguntza 68,5 milioi eurokoa izan zen 2001ean eta 100,2 milioi eurokoa 2002an.

2002tik aurrera EBeko Funtsen guztizko kopuruak beherakada handia izan du, baina 2005ean % 27ko hazkundea izan zuen. 2006an behera egin du berriz ere —aurreko urtearekiko %15,5— eta, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren kitapenaren datuen arabera, 123,12 milioi eurokoa izan da.

Beste gauza aipagarri bat Estatuari eman beharreko kupoa da. Dagokion zenbateko likidoa, urtero 2002-2006 Bosturteko Legearen bitartez zehaztutakoa, 1.367 milioi eurokoa izan da 2006an, 2005ekiko %13,8 hazi dena.

Azkenik, Estatuari egin beharreko ordainketa horietaz gain, beste batzuk ere badaude. Horien artean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eraginezko Doikuntza nabarmentzekoa da, barne-merkatuan egindako eragiketa eta inportazioen ondoriozkoa (azken hau Estatuko Ogasun Sailak soilik egin dezake). Berau Estatuko Administrazioaren eta EAEkoaren arteko finantza doikuntza bat da, Zerga Administrazioen artean diru-bilketa teorikoak eta errealak egokitzeko beharretik sortutakoa.

III.3.5. GRAFIKOA. KUPOAREN ZENBATEKOEN BILAKAERA. EUROAK MILETAN



Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren datuetan oinarrituta.

III.3.6. GRAFIKOA. BEZAREN ARABERAKO DOIKUNTZAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: Zerga-Kideketarako Saila.

Izan ere, Zerga Administrazioek dagokien lurraldeetan jarduten dute, zerga-mugarik gabeko eremu batean. Doikuntza horiei 1997an beste bat gehitu zitzaien, zerga bereziei lotutakoa; zergapeturiko produktuen azken kontsumoa produktua fabrikatu ez zen beste lurralde batean ematen denean distortsioa gertatzen da eta doikuntza berriaren helburua distortsio hori konpontzeko neurriak hartzea da.

2005ean, datuak eskaintzen dizkigun azken urtean, 1.160 milioi euroetara iritsi ziren, aurreko urtean baino %1,5 gutxiago. Sail honen baitan, aduanetako diru-bilketa zela-eta egindako doikuntza guztizko kopuruaren %65 zen. Honela, guztizko dohikuntzaren bilakaerak zehazten ditu inportazioen urtetik urterako aldaketak. Lurraldeen araberako banaketari dagokionez, berau urtero egiten da koefiziente horizontalak jarraituz.

3.5. EAEko enpresa sektore publikoa

a) Eusko Jaurlaritza

EAEko Administrazio Nagusiaren partizipazioa duen enpresa sektore publikoari buruz dauden azken datuak[4] 2005ekoak dira, eta emaitza positiboa adierazten dute; urte horretan 13,7 milioi euroko irabaziak egon ziren, 2004an baino 11 gehiago. Eusko Jaurlaritzaren partizipazioa duen enpresa sektore publiko honen egiturak egonkor jarraitzen du eta SPRI, EEE, EITB taldeak eta Eusko Trenbideak, Ejie, Euskadiko Orkestra, Neiker eta Mendikoi sozietateak dira bertan nabarmentzen direnak, euren lan eta partizipazio bolumena aintzat hartuta.

EAEko enpresa sektore publikoaren sailkapen ekonomikoak honako taldeak bereizten ditu:

- EEE Taldea: produkzioarekin, banaketarekin, ikerketarekin eta energia aurrezpenarekin lotutako sozietateak.
- EITB Taldea: hedabideekin lotuta EAEk dituen eskumenei erantzuteko sortu ziren sozietateak.
- SPRI Taldea: Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial S.A.-ren mendekoak diren enpresak. Sektore ezberdinetako enpresek osatzen dute eta Sprilur S.A. sozietate filialean integratuta dauden Industrialdeetako sustatzaileak nagusitzen dira. Bestalde, Sprilur S.A.-k enpresa talde garrantzitsua osatzen du. Bereziki euskal enpresari zuzendutako zerbitzuak eskaintzeko helburua duten beste sozietate batzuek ere SPRI taldea osatzen dute. Garrantzi berezia dute SPRI S.A-k sustatutako Parke Teknologikoek eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroek, teknologia aurreratuko enpresetan ekimen eta inbertsio industriala suspertu eta bultzatzen dutenek.

[4] Kontuan hartu behar da 1998tik Osakidetza zuzenbide pribatuko Erakunde Publikoa dela, eta beraz, enpresa publikorik handiena dela, langile kopurua eta eta aurrekontuak aintzat hartuz; hala eta guztiz ere, ez da atal honetan sartu, EAEko osasunari eta osasun sistemari buruzko atalean baizik.

III.3.11. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN PARTIZIPAZIOA DUTEN ERAKUNDE ETA SOZIETATE NAGUSIAK EHUNEKOAREN ETA PARTIZIPAZIO-MODUAREN ARABERA. 2005

	Zuzenean	Zeharka
100%	ET-FV S.A. EITB S.A. EVE Euskadiko Kirol Portua S.A. EJIE S.A.	ETB S.A.
%50 eta %100 artean	SPRI S.A. VISESA S.A.	SPRILUR S.A. Parke Teknologikoa S.A. Donostiako Parke Teknologikoa S.A. Arabako Parke Teknologikoa S.A.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enpresa sektore publikoa EAEn. 2005.

- Eusko Trenbideak Taldea: ET-FV S.A. sozietateak eta Euskotren Participaciones S.A. bere filialak osatzen dute.
- Gainontzeko erakunde eta sozietateak: EAEren partizipazio zuzenekoa eta handia dutenak.

Enpresa gehienetan, sektore publikoaren partizipazioa zeharka gertatzen da. 2005ean, Eusko Jaurlaritzak 55 erakunde eta sozietate publikotan parte hartu zuen, horietako 40tan zeharka, aurreko urtean baino bi gutxiago (Osatek, Osakidetzaren menpekoa zena %100ean, eta Biosanmarcos, EEEren menpekoa zena %80an. 2005ean biak ala biak partizipazioa duten entitateen taldetik kanpo geratu ziren). Horietako 21etan Eusko Jaurlaritzak %100eko partizipazioa zuen (12tan zuzenean eta 9tan zeharka) eta 34tan %50aren eta %100aren artean. (3tan zuzenean eta 31tan zeharka).

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren partizipazio nagusia duten sozietateen langileria egonkor mantendu da 2.800-2.900 enplegatu ingururekin, urtetik urterako aldaketa txikiekin (2005ean 47 enplegu berri sortu ziren, Visesa eta Mendikoi sozietateek eta ETS erakundeek, Gainontzekoen artean sailkaturikoek, bizi zuten hazkundearen ondorioz batik bat, beren langileak 435 izatetik 488 izatera igaro baitziren). Enpresen langile kopurua beren aktiboen bolumenarekin alderatuta, enpresa sektore publikoa osatzen duten enpresen tamainaren ikuspegi orokorra izan dezakegu: enpresen %82ak 50 baino langile gutxiago ditu eta guztizko aktiboen %43 pilatzen dute, 2.058 milioi eurorekin. Beste muturrean, bi enpresek soilik (ETB eta Eusko Trenbideak) dituzte 250 langile baino gehiago, eta guztizko aktiboen %20 pilatzen dute.

III.3.12. KOADROA. EAEko ENPRESA SEKTORE PUBLIKOKO LANGILERIA. 2005

Sozietatea edo taldea	2005	%	2004	%
Eusko Trenbideak Taldea	949	33	955	34
EITB Taldea	915	32	917	33
SPRI Taldea	186	7	185	7
EJIE	168	6	167	6
NEIKER	152	5	152	5
Gainontzekoak	488	17	435	15
Guztira	**2.858**	**100**	**2.811**	**100**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enpresa sektore publikoa EAEn. 2005.

Datu hauek 2004koekin alderatuz gero, argi ikusten da enpresa kopurua, beren tamainaren arabera, oso gutxi aldatu dela; 50 eta 250 langile arteko enpresa kopurua 1ean jaitsi da EEEren batezbesteko langileak murriztearen ondorioz. Bestetik, Biosanmarcos S.A. sozietatea, 2005ean izaera publikoa galdu ostean, tarte horretatik irten izateak egoera egokitzea eragin du. Gertakari honek guztizko aktiboen banaketaren aldaketa esanguratsua eragin du eta 50 baino langile gutxiago dituztenen artean dauden enpresen kopurua hazi egin da, 50 eta 250 langile artean dituzten enpresa kopurua murriztearen ondorioz.

Erantsitako magnitude nagusiei dagokienez, dagoenekoz aipatu ditugu 13,7 milioi euroko irabazi garbiak, 3,7 milioi euroko zergak aplikatu ostekoak. Irabazi hauek %6.841 hazi dira 2004rekiko, orduan 197.231 eurotara besterik ez baitziren iritsi. Bestetik, negozio-zifrak 479 milioi eurotara iritsi ziren 2005ean, aurreko ekitaldian baino %25,5 gehiago, batik bat enpresa sektorearen hazkundearen (+%101) ondorioz eta, neurri txikiagoan, energiaren sektorearen hazkundearen (+%43,2) ondorioz.

b) Foru Aldundiak

Foru Aldundiei dagokienez, 2005ean 28 sozietate publiko ditugu (2004koen berdinak), 8 Araban (Araba Garapen Agentzia, Arabako Kultura Ondare Eraikia kudeatzeko Sozietate Anonimoa "Arabarri", Arabako Kalkulu Zentroa, Fernando Buesa Arena, Naturgolf, Arabako Lanak, Araba Uraren Agentzia eta Arabako Bideak), 4 Gipuzkoan (Uliazpi Fundazioa, IZFE, Etorlur eta Bidegi) eta gainontzeko 16ak Bizkaian (Aparcabisa, Azpiegitura, Basalan, Beaz, Bizkaiko Bideak, Bizkailur, Boroa, Industri Diseinurako Zentroa, Euskalduna Jauregia, Garbiker, Lantik, Meaztegi, Bizkaiko Seed Capital, Rekaldeko Erakusketa Aretoa, Abanto eta Zierbenako Industri Parkea eta Interbiak).

III.3.13. KOADROA. EAEko enpresa sektore publikoko enpresen tamaina. 2005

Langileak 2005	Enpresa kopurua	Langile kopurua	Guztizko aktib. (€)	Guztizko aktib. %
< 50 langile	45	372	884.692.559	43
50 eta 250 langile artean	8	919	758.533.353	37
> 250 langile	2	1.567	415.426.142	20
Guztira	**55**	**2.858**	**2.058.652.054**	**100**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enpresa sektore publikoa EAEn. 2005.

III.3.14. KOADROA. EAEko enpresa sektore publikoko negozioen kopuru garbia. €

Jarduera sektorea	2004	2005	Ald. 04/05
Enpresa sustapena	67.331.809	135.335.870	101,0
Etxebizitzak eta merkataritzako lokalak	117.782.138	111.101.238	–5,7
Energia	68.591.000	98.222.000	43,2
Informatika zerbitzua	59.082.762	58.063.979	–1,7
Publizitatea irratian eta telebistan	36.768.629	38.166.003	3,8
Trenbide eta errepideko garraioa	18.000.351	23.276.191	29,3
Hedabide azpiegiturak	8.717.732	9.093.755	4,3
Beste batzuk	5.483.287	5.839.075	6,5
Guztira	**381.757.708**	**479.098.111**	**25,5**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enpresa sektore publikoa EAEn. 2005.

III.3.15. KOADROA. Foru Aldundien partaidetza duten sozietate publikoen emaitzak. Euroak miletan

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Ald. %
2001	520	3.529	–6.792	–2.743	—
2002	1.808	392	–8.769	–6.569	139,5
2003	–4.553	22.461	1	17.909	–372,6
2004	–3.283	47.237	8.530	52.484	193,1
2005	8.565	48.171	15.145	71.881	37,0

Iturria: Foru Aldundien datuetan oinarrituta.

Enpresa publiko hauen emaitzei dagokienez, eta azken urteotan gertatu den bezala, orokorrean Bizkaian eta Gipuzkoan A-8 Autobidea kudeatzeko sortu ziren sozietateen (Interbiak eta Bidegi) eraginpean egon dira. 71,9 milioi euroko irabaziak izan dituzte, aurreko urtean baino %37 gehiago, baina bi sozietate horiek alde batera utzita, Foru Aldundien partizipazio nagusia izan duten merkataritza sozietateek 1,7 milioiko irabaziak besterik ez zituzten izan 2005ean (kalkulu honen arabera, aurreko bi ekitaldietan 15 milioi euroak gainditzen dituzten galerak gertatu baziren ere).

Arabako foru sozietateek, 2004an beren galerak %28an murriztu zituzten eta 2005ean, berriz, 8,6 milioi euroko irabaziak izan zituzten. Hona hemen horretarako arrazoi nagusiak: Arabako Bideak-ek lehenengo aldiz emaitza positiboak izan dituela eta Naturgolf-en irabaziak asko hazi direla. Gipuzkoaren kasuan, bertako sozietate guztiek —Etorlur-ek salbu— irabaziak izan dituzte eta euren emaitza orokorrak aurreko urtekoen antzekoak izan dira, 481,1 milioi euroko etekinarekin, aurreko ekitaldian baino % 2 gehiago. Azkenik, Bizkaian, 16 foru sozietateetatik 10ek emaitza negatiboak izan dituzte, baina 2004 urtearekiko etekinak ia bikoiztu egin dira. Izan ere, 8,5 milioi eurotatik 15 (+%77,5) baino zerbait gehiago irabaztera iritsi dira.

Gizarte-ekonomia

Gizarte-ekonomia deritzonak oro har egitura eta helburu desberdinak dituzten hainbat erakunde biltzen ditu bere baitan. Dena dela, aurreko urteetan bezala, oraingoan ere merkatuarentzat ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzten erakundeek irudikatzen duten errealitatea baino ez dugu aintzat hartuko atal honetan. Beraz, alde batera utziko ditugu soilik gizarte-ekintzak burutzen dituzten erakundeak.

Gizarte- ekonomiaren produkzio-arloaren €hau da, kooperatiba eta lan-sozietateen€ tamaina erlatiboa ze-

III.4.1. Grafikoa. Gizarte ekonomiako sozietate-kopuruaren bilakaera



Iturria: Gizarte-ekonomiaren erregistroa, Eusko Jaurlaritza.

4

hazteko, honako datu hauek ditugu: gutxi gorabehera, kooperatiba eta lan-sozietate horiek EAEko balio erantsiaren %5a eta enpleguaren %6,5a hartzen dute (%13a ere gainditzen dute industria-sektorea baizik ez badugu kontuan hartzen). Esportazio-ahalmenari dagokionez, EAEren atzerrirako esportazioen %14a hartzen dute. Hori guztia adierazten dute gizarte ekonomiaren kontuetako datuek, jarraian ditugun hauek, hain zuzen).

2006 urte amaieran, Gizarte Segurantzaren erregistroan, EAEko 1.466 erakunde daude, aurreko urtean baino 5 gutxiago. Izaera juridikoari dagokionez, erakunde horiek alta-egoeran dauden kooperatibak dira. Bestalde, 54.523 langilerentzat sortzen dute enplegua (2005ean baino %1,7 langile gutxiagorentzat), eta horietatik ia %60 langile autonomoen erregimen berezian kotizatzen duten lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak di-

III.4.1. Koadroa. Gizarte ekonomiaren enplegu adierazleak (06.12.31ko datuak)

	Biztanleria okupatua Gizarte ekonomia.	Gizarte ekonomía / EPA (Milakoak)	Batez besteko tamaina	
			Kooperatibak	Lan sozietateak
Andaluzia	92.306	29,3	11,1	6,3
Aragoi	10.848	18,4	8,8	4,3
Asturias	6.899	16,3	12,2	6,3
Balearrak	3.678	7,5	13,8	4,9
Kanariak	10.205	11,5	17	5
Kantabria	2.755	10,9	14,1	8,6
Gaztela-Mantxa	24.298	29,8	9,1	6,1
Gaztela eta Leon	16.571	15,6	7,8	5
Katalunia	53.618	15,5	7,2	6,5
Valentziako Erkid.	68.470	31,2	18,1	6,1
Extremadura	10.160	25	10	5,8
Galizia	14.375	12,3	9,1	5,5
Madril	26.976	8,9	13,4	5,9
Murtzia	26.635	44	11,6	7
Nafarroa	9.199	32	19	8,1
EAE	**68.108**	**68,5**	**37,2**	**12,8**
Errioxa	2.409	16,8	11,8	5,7
Ceuta eta Melilla	496	10,7	9,9	5,5
Guztira	**448.006**	**22,4**	**12,4**	**6,4**

Iturria: MTAS.

ra. Iturri bereko datuek adierazten dute 1.062 lan-sozietate ari direla kotizatzen, 2005ean baino 41 gutxiago; bestalde, lan-sozietate horiek 13.585 langileri ematen diete enplegua, 2005ean baino 229 langile gehiagori. Zifra horien arabera, termino erlatiboetan, gizarte-ekonomiak EAEko enpresen %1,5 hartzen du, eta enpleguaren %7,7. Halaber, kooperatiba bakoitzaren batez besteko dimentsioa 37 langilekoa da, eta lan-sozietate bakoitzarena 13 langilekoa, EAEko batez bestekoaren 7,2 eta 2,5 aldiz handiagoa, hurrenez hurren.

Orobat, 1994-2005 denboraldian Gizarte Segurantzan alta egoeran dauden Estatu osoko erakundeei buruzko ikerketa batek honako hau adierazten du: kooperatibek (langile autonomoen erregimenekoek salbu) eta lan-sozietateek ia %10eko urtetik urterako heriotza-tasa dute. Aipatutako denboraldiaren erdiko urtea kontuan izanik, zera ikus dezakegu: enpresen %51,4k Gizarte Segurantzan altan egoten jarraitzen dute lehenengo bost urteak igaro ondoren. Bestalde, hasieran zeuden lanpostu kopuru osoaren %90,9 gordetzen da.. Areago, irauten duten enpresek, 10 urte igaro ondoren, bikoiztu egiten dute kopurua (enpresen ia %30ek irauten dute, eta ematen duten enplegu-bolumena hasierako enplegu kopuru osoaren %66aren baliokidea da). Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren erregistroan 3.788 kooperatiba eta lan-sozietate daude orotara. Ikusiko dugunez, 2005. urtearekin alderatuz, gizarte-ekonomiako 22 enpresa gehiago daude. Bestalde, lan-sozietate anonimoek gutxitzen jarraitzen dute geldiro (2006an 20 gutxiago dira). Azkenik, 21 sozietate mugatu gehiago daude, eta 21 kooperatiba gehiago ere bai.

III.4.2. KOADROA. EAEKO GIZARTE EKONOMIAREN PISUAREN EBOLUZIOA (%)

	1996	1998	2000	2002	2004
Enplegua	5,8	6,0	6,5	6,8	6,5
BEG	5,3	5,6	5,6	5,6	5,1
Fakturazio osoaren gaineko esportaz.	20,3	22,7	22,4	24,1	21,1

Iturria: Gizarte ekonomiaren kontuak.

4.1. Gizarte ekonomiaren 2004ko kontuak

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egindako gizarte ekonomiaren kontuen arabera (2003-04 biurtekoari dagozkion kontuak), gizarte-ekonomia honela itxuraturik dago: orotara 2.366 enpresa daude, eta 3.315 establezimendu dituzte EAEn; gainera, guztira 60.949 enplegu biltzen dituzte, eta beren Balio Erantsi Gordina 2.451 milioi eurokoa da; alegia, Euskal Autonomia Erkidegoaren urte horretako BEGaren %5,1. Gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz gero, EAEko gizarte-ekonomiak du pisu espezifiko handiena bere produkzio-bilbearen barruan. Gainera, Estatuko gizarte-ekonomia osoaren %15,1 EAEkoa da; beraz, gainerako autonomia-erkidegoen aurretik kokatzen da, tarte handiarekin. 2003-04 biurtekoan gizarte-ekonomiako esta-

III.4.2. GRAFIKOA. JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERAKO ENPLEGU-BANAKETAREN BILAKAERA 1994-2004



Iturria: Gizarte-ekonomiaren kontuak. 1994-2004.

III.4.3. GRAFIKOA. GIZARTE-EKONOMIAREN LURRALDEKAKO ENPLEGU-BANAKETA



Iturria: Gizarte ekonomiaren kontuak.

blezimendu kopuruaren hazkunde-tasa %3,1ekoa izan zen EAEn, eta enpleguarena %0,5ekoa. Bestalde, sortutako BEGa %4,75 hazi zen termino nominaletan neurtuz gero; alabaina, termino errealetan 2002ko balioen azpitik dago. Horrela, bada, 1994tik hona gizarte ekonomiaren hazkunde-tasak azkenengo biurtekoetan nabarmen hazi badira ere, azken biurtekoan nolabaiteko geraldia izan da.

EAEko BEG osoa kontuan hartzen badugu, azken bi urte hauetan 5 hamarren jaitsi da gizarte- ekonomiaren BEGak duen pisua, ehunekoetan neurturik. Horrela, bada, 2002an %5,6ko pisua bazuen, 2004an %5,1ekoa izan zuen. EAEko neurrizko hazkunde-tasak gorabehera, gizarte-ekonomiaren portaera leunagoa izan da, neurri handi batean bere industria espezializazioa dela eta.

Horren harira, 2003-04 biurtekoaren ezaugarri nabarmenena honako hau da: 1994. urtetik hona, industriako enplegua biurteko horretan jaitsi zen lehenengo aldiz: 2002koarekin alderatuz, %5,2 gutxiago da; aitzitik, 2000 eta 2002 bitartean, %6,4 hazi zen. Neurri handi batean eboluzio horrek azaltzen du BEGaren neurrizko hazkundea, eta baita ageriko produktibitatearen portaera ere. Enplegua zerbitzuen sektorean sortu da gehiago; beraz, aurreko urteetan nabaritutako hirugarren sektorearen gorakadak jarraitu egiten du. Balio absolutuetan, zerbitzuen sektoreko enplegua %8,8 hazi da 2002. urtearekiko (2000 eta 2002 bitartean %20,8 hazi zen).

Koiuntura ekonomiko ez hain egokiak eragina izan zuen gizarte-ekonomiako enpresek 2004an izan zituzten emaitza ekonomikoetan: irabazi agregatua 368 milioi eurokoa izan zen, termino errealetan 2002koa (334 milioi) baino zertxobait handiagoa. Emaitza horrek 2000 eta 2002 bitartean izandako dinamika aldatu zuen, emaitzak nabarmen murriztu baitziren orduan.

Bestalde, gizarte-ekonomiako enpresen esportazio-jarduerek aurreko biurtekoetan baino emaitza kaskarragoak izan dituzte; izan ere, termino nominaletan esportazioen bolumena %6,4 jaitsi da. Horrela, fakturazio osoaren barruan esportazioek duten pisu erlatiboa jaitsi egin da %24, 1etik %21,1era. Kontuan hartzekoa da enpresa esportatzaile handienek gizarte-ekonomian daukaten eragina: asko eta asko industria-kooperatibak dira, eta horietatik askok atzerrian lantegi berriak zabaltzen inbertitu dute. Horrela, esportazioen bolumena murriztu egin da, eta enplegu kopurua ez da aurreko biurtekoetan adina igo.

Gizarte-ekonomiaren bilbe enpresarialaren eboluzioari dagokionez, eta bere establezimenduen dimentsioren araberako profilari dagokionez, zera esan dezakegu: tamaina txikiko lan-sozietate mugatu berriak sortzeko joerari eutsi zaio 2003-2004 biurtekoan; joera hori 1998. urtetik hona antzematen da. Eboluzio-dinamika horrekin bat dator honako datu hau: enpresa horiek txikiagoak direla kontuan izanik, 2002. urtearekin alderatuz, murriztu egin da gizarte-ekonomiaren establezimenduen batez besteko dimentsioa. Aurreko edizioetan enpresa handiek bultzada handia izan bazuten ere, badirudi biurteko horretan enplegua tamaina txikiagoko establezimendu berrietan sortu dela neurri handi batean. Horrela, hazkunde handia izan dute ETEek zein mikroenpresek —bereziki lan-sozietate mugatuek—. Horrek guztiak gizarte-ekonomiako establezimenduen batez besteko tamaina murriztea ekarri du. Lan-sozietate mugatuen hazkunde horrek eragina izan du gizarte ekonomiako establezimenduen forma juridikoaren araberako osaeran. Aitzitik, enpresa horien tamaina txikia dela eta, eragin txikiagoa izan du sortutako enplegu bolumenean.

Enplegu-hazkundearen profila lurraldeka aztertuz gero, ikus dezakegu Gipuzkoan pisu handiagoa izateko joera hartu duela. Aldi berean, azken biurtekoan Arabako enpresen pisu eskasa areagotu murriztu da. Bilbe enpresarialak lurralde bakoitzean profil desberdina edukitzearen emaitza dira ratio hauek. Gizarte ekonomiaren

industria kooperatiba handi gehienak Gipuzkoan daude; gizarte ekonomiako hirugarren sektoreak pisu espezifiko handiagoa du Bizkaian, bai establezimenduei dagokienez, bai enpleguari dagokionez. Bestalde, ekonomiaren multzoarekin alderatzen badugu, gizarte-ekonomiaren pisu erlatiboa hiru lurraldeetan jaitsi da, baina batez ere Bizkaian. Dena dela, oraindik ere gizarte-ekonomiak Gipuzkoan duen pisua gainerako lurraldeetan duena baino handiagoa da, nabarmen.

4.2. Kooperatiba-sozietateak

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren Erregistroko datuek (abenduaren 31koek) adierazten dute 2006an kooperatiba kopurua hazi egin zela: 21 kooperatiba gehiago daude; beraz, %1,3ko hazkundea izan zuten aurreko urtearekin alderatuz gero (urte horretan 79 kooperatiba berri sortu ziren, %5,3ko hazkundea izanik). Urte amaieran guztira 1.601 kooperatiba-sozietate daude.

Azken urteetan ohikoa den bezala, hazkundea batez ere lan elkartuko kooperatibei zor zaie: mota horretako 10 kooperatiba gehiago daude (2005ean 43 gehiago); beraz, sozietate-bolumen handiena izaten jarraitzen dute (guztira %63,5). Bestalde, etxebizitzen sektoreak hazten jarraitzen du: 2005ean baino 15 sozietate gehiago daude. Areago, kopuruz nahikoa eskasak diren bitariko kooperatibak alde batera utzita, azken sei urte hauetan, etxebizitzaren sektoreko kooperatiba kopuruak izan duen hazkunde-tasa da handiena sektore guztien artean (%130,3koa). Tasa hori EAEko kooperatiben multzoak izan duen batez besteko hazkundea (%37,1ekoa) baino askoz gorago dago. Ondotik jarraitzen diote zerbitzuen sektoreko kooperatibek (%49ko hazkundearekin) eta lan elkartukoek (%29,2koarekin). Gainerako sektoreetan 2006an ez dago aldaketa nabarmenik: landa-kooperatibek, zerbitzuen sektorekoek eta irakaskuntzakoek ez dute aurreko urtearekiko inolako aldaketarik; bestalde, kontsumo-kooperatibek, kreditu-kooperatibek eta bigarren gradukoek kooperatiba bat gutxiago dute, hurrenez hurren.

III.4.3. KOADROA. EAEko KOOPERATIBA KOPURUA. KOOPERATIBA MOTAREN ARABERAKO SAILKAPENA (XII-30A)

	2004	2005	2006	%	Hazkundea 05-06	% ald. 00-06
Guztira	**1.501**	**1.580**	**1.601**	**100,0**	**21**	**37,1**
Landa koop.	89	95	95	5,9	0	8,0
Kontsumo koop.	32	32	31	1,9	–1	10,7
Zerbitzu koop.	69	73	73	4,6	0	49,0
Lan elkartukoak	964	1.007	1.017	63,5	10	29,2
Irakaskuntzakoak	94	96	96	6,0	0	12,9
Etxebizitzakoak	196	215	228	14,2	13	130,3
Kreditukoak	3	3	2	0,1	–1	100,0
Bitarikoak	10	12	13	0,8	1	225,0
Bigarren gradukoak	44	47	46	2,9	–1	70,4

Iturria: Kooperatiben erregistroa. Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza saila.

III.4.4. KOADROA. KOOPERATIBA KOPURUA LURRALDE HISTORIKOETAN. KOOPERATIBA MOTAREN ARABERAKO SAILKAPENA (XII-30A)

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006
Guztira	**290**	**312**	**332**	**596**	**627**	**625**	**615**	**641**	**644**
Landa-koop.	40	47	49	25	24	22	24	24	24
Kontsumo-koop.	2	2	2	17	17	16	13	13	13
Zerbitzu-koop.	8	8	11	29	29	29	32	36	33
Lan elkartukoak	133	137	142	427	453	451	404	417	424
Irakaskuntzakoak	9	9	9	43	43	44	42	44	43
Etxebizitzakoak	89	97	108	46	52	53	61	66	67
Kreditukoak	0	0	0	1	1	1	2	2	1
Bitarikoak	1	2	2	1	1	1	8	9	10
Bigarren gradukoak	8	10	9	7	7	8	29	30	29

Iturria: Kooperatiben erregistroa. Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza saila.

Orain arte EAEri buruz esandakoa lurralde historiko bakoitzari buruz esan daiteke, bai sozietate kopuruaren gorakadari dagokionez, bai sektore nagusiei dagokienez. Gipuzkoan 3 dira sortutako kooperatiba-sozietate berriak; aurreko urtean, aldiz, 26. Bizkaian, ordea, bi sozietate gutxiago daude 2005. urte amaieran baino, nahiz eta aurreko aldian 31 berri sortu ziren. Araba da hazkunderik handiena izan duen lurraldea: 20 sozietate berri sortu dira bertan. Hazkunde hori batez ere etxebizitzaren sektorean sortutako kooperatiba-sozietateei zor zaie (11 kooperatiba berri).

EAEko kooperatibetako bazkideei dagokienez, Gizarte Segurantzako kotizazioei buruzko datuek adierazten dute beren batez besteko adina Estatuko altuenetako bat dela: 25 urtez azpikoak %5,9 besterik ez dira (proportzio hori Estatu osoko txikiena da). Bestalde, 55 urtetik goragokoen proportzioa handiena da: %12 dira adin horretakoak. Azkenik, 40 urte baino gehiago dituztenen proportzioa handienetako bat da. Gainera, EAEko bazkideen artean daude emakume gehien: %44,2 (Bizkaiko kooperatiben plantillan %53 baino gehiago dira). Estatuan emakumeak %39,6 dira, batez beste. Azkenik, denbora-mugarik gabeko enplegua EAEn dago hedatuen: Estatuan batez beste enpleguen %66,9 baldin bada denbora-mugarik gabekoa, EAEn %77,6 da (Gipuzkoa eta Bizkaian %78 baino gehiago)

4.3. Lan-sozietateak

Lan-sozietateak (anonimoak zein mugatuak) dira gizarte ekonomiako enpresen beste forma juridiko bat. Horietan kapital sozial gehiena bazkide langileena da.

Bazkide bakoitzak gehienez izan dezakeen kapital sozialak ezin du gainditu kapital osoaren herena (alde batera utzita partaidetza publikoko zenbait kasu); beraz, gutxienez hiru bazkide izango dira. Kapital soziala akzio izendunetan zatitzen denean, lan-sozietate anonimoa izango da. Aitzitik, bazkideen partaidetza denean, juridikoki erantzukizun mugatuko lan-sozietatea izango da. Dena dela, akzio eta partaidetza guztiak motaren arabera bereziten dira: bazkide eta bazkide langileen akzio eta partaidetzak, eta bazkide eta bazkide langileenak ez diren akzio eta partaidetzak.

2006an EAEn guztira 2.187 sozietate daude erregistraturik, mota batekoak zein bestekoak; 2005ean, aldiz, bat gutxiago zegoen. Bestalde, Sozietate anonimoak baino 65 sozietate mugatu gehiago daude.

III.4.4. Grafikoa. Lan sozietateen eta haien bazkide-kopuruaren bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Sozietate mugatuek gorakadari eusten diote: aurreko urtean baino 21 gehiago dira. Sozietate anonimoek, aldiz, gutxitzen jarraitzen dute (20 gutxiago dira).

Lan-sozietateen plantillari dagokionez, daturik eguneratuena Lan Ministerioak eman diezaguke, ez baitaukagu Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren informazio eguneratua eskuratzerik. Lan Ministerioren datu horren arabera, 2006ko abenduaren 31n, lan sozietate bakoitzak 12,8 langile ditu batez beste. Estatuan, berriz, batez besteko hori 6,4 langilekoa da.

III.4.5. KOADROA. EAEko LAN-SOZIETATEAK (2006- XII-30) [1]

	Guztira				Mugatuak				Anonimoak			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Sozietate kopurua	**2.187**	**233**	**1.188**	**766**	**1.126**	**132**	**657**	**337**	**1.061**	**101**	**531**	**429**
Landa	20	2	12	6	10	1	6	3	10	1	6	3
Industria	796	69	384	343	248	26	129	93	548	43	255	250
Eraikuntza	351	48	201	102	200	25	114	61	151	23	87	41
Zerbitzuak	1.020	114	591	315	668	80	408	180	352	34	183	135

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza saila.

[1] 2005eko memoria sozioekonomikoaren edukiari dagokionez, ezinezkoa izan da Euskadiko Lan-Sozietateen Erregistroan inskribatutako lan-sozietateei buruzko informazioa eguneratzea, bai bazkideei buruzkoa, bai haien kapital sozialari buruzkoa. Erregistro horren arabera ez dago datu fidagarririk; izan ere, nahiz eta nahitaezkoa izan kapital sozialaren osaera eta zenbatekoari buruzko aldaketen berri ematea, praktikan sozietateek ez dute halakorik egiten, merkataritza erregistroan inskribatzeko ez bada.

Bestalde, hainbat sozietate, EAEra transferitu aurretik, zegokien Lan Ministerioaren erregistroan inskribaturik zeuden, eta transferentzia egitean ez zen estatistika-daturik eman. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak aplikazio informatiko bat ezarri zuen lan-sozietateen inskripzio liburua eramateko. Aplikazio horrek jasotzen dituen datuak aplikazioa bera martxan jarri ondorengoak dira. Beraz, aurretik inskribaturiko sozietateen bazkide kopuruari buruzko datu fidagarririk ez dugu gaur egun, eta erregistroaren arabera hori da datu horiek ez ematearen arrazoia.

Lan-merkatua EAE-n

Eustat-en *"Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta"* (BJA) arabera, okupazioa %1,4 hazi da 2006an; beraz, enpleguak 13.000 pertsonako hazkundea izan du.

Enpleguaren beste adierazle batzuek, esaterako, Eustat-en hiruhileko kontuek edo Gizarte Segurantzaren afiliazio-datuek, %2,3ko hazkundea adierazten dute, oso antzeko progresioarekin hurrenez hurreneko hiruhilekoetan. Bestalde, BJAk okupazio-hazkunde txikiagoak eta denboran oszilazio handiagoarekin adierazi ditu; dena den, laugarren hiruhilekoak bateratasun handiagoa erakutsi du hiru estatistiken emaitzekiko.

BJAtik abiatuta lortutako enplegu-tasa 16 eta 65 urte bitarteko biztanleriaren %66,5ekoa da, hau da, 2010erako Lisboako Estrategiaren helburutik hiru puntu eta erdira dago (%70), beraz, helburura heltzea gero eta posibleagoa dela dirudi. Aurrerapen hori emakumezkoen enpleguaren eraginez sortu da, haien enplegu-tasak ia bi puntu egin baitu aurrera, urteko %57ko batez bestekora iritsi arte; kasu horretan ere, Europak pertsona-multzo horretarako ezarritako helburutik hiru puntura baino ez. Bi sexuen arteko diferentziala nabarmen murrizten joan bada ere, oraindik ere nahiko handia da. Zehazki, gizonezkoek emakumezkoak gainditzen dituzte, 145.700 gizonezko-enplegu gehiago daudelako eta, beraz, horien enplegu-tasa ia 19 puntu handiagoa da. Alabaina, arlo horretan izandako hobekuntza nabarmena da, hamarkadaren hasieran bi se-

III.5.1. KOADROA. EAE-KO LAN-MERKATUAREN GARAPENA "BJA"REN ARABERA (URTEKO NEURRIAK)

		Milaka	Diferentzia (milaka)		hazkundea%	
		2006	04-05	05-06	04-05	05-06
Bi generoak	Aktiboak	994,7	–9,6	–3,5	–1,0	–0,4
	Okupatuak	954,2	+12,0	+13,0	+1,3	+1,4
	Langabetuak	40,5	–21,6	–16,5	–27,5	–28,9
Emakumezkoak	Aktiboak	423,5	–5,3	+3,1	–1,2	+0,7
	Okupatuak	404,3	+5,8	+13,4	+1,5	+3,4
	Langabetuak	19,2	–11,2	–10,3	–27,5	–35,0
gizonezkoak	Aktiboak	571,2	–4,2	–6,6	–0,7	–1,1
	Okupatuak	549,9	6,3	–0,4	1,2	–0,1
	Langabetuak	21,3	–10,5	–6,2	–27,6	–22,5

Iturria: Eustat "BJA".

5

xuen arteko enplegu-tasaren aldea 28 puntu baino gehiagokoa baitzen.

Bestalde, lan-bizitzaren kontzentrazioa nabari da 24 urtetik gorako adin-tartean, bereziki 24 eta 44 urte artean; aldiz, gainerako adinetan lan-merkatuan izaten den parte-hartzea murritzagoa da. Biztanleria gaztearen artean, herenak soilik gauzatu zuen ordainpeko jardueraren bat Lanaren Nazioarteko Erakundeak aurreikusitako baldintzetan (edo, gutxienez, erreferentzia-astean lanordu bat). Beste muturrean dago erdibideko adin-tartea, tarte horretako biztanleriaren %80 gainditzen baitu dagoeneko lanean hasitakoen maila, gorantz doan emakumezkoen parte-hartzeari

III.5.1. Grafikoa. Okupazioaren garapena EAE-n zenbait iturriren arabera



Iturriak: Eustat, EIN, Lan Ministerioa.

esker, nahiz eta Lisboako Estrategiaren helburua adin-tarte horretarako (%50eko tasara iristea) urrun dagoen oraindik (%43,4 laugarren hiruhilekoan eta %41,8 urte osoan).

Bestalde, biztanleria okupatuaren hazkundearen eta aktiboen beherakadaren eraginez, langabezian dauden pertsonen kopuruak nabarmen jarraitu zuen murrizten 2006an. Zehazki, beherakada %28,9koa izan zen eta pertsona langabetuen urteko batez bestekoa 40.500 pertsonakoa izan zen; bestalde, langabeziaren batez besteko tasak behera egin zuen, 2005eko %5,7eko tasatik 2006ko %4,1era. Hori da serie historikoko daturik onena eta, gainera, beste alde positibo batzuk ere baditu, esaterako, bi sexuen arteko aldeak desagertu direla, emakumezkoen tasa gizonezkoena baino puntu eskas bat baino handiagoa besterik ez baita. Beraz, emakumezkoen langabezia ere langabezia teknikoaren mugan da, langabezian emakumezkoak baino gizonezko gehiago izanda, zenbaki absolututan. Datu horiek eta Europako Batasunerako Eurostat-etik datozenak alderatzen baditugu ikusiko dugu Danimarkak soilik izan duela, batez beste, langabezia-tasa txikiagoa (%3,9). %4,5-5 arteko tasa izan dute, esaterako, Austriak, Luxenburgok, Ziprek eta Irlandak. EBko batez bestekoa, euro-lurraldeen parekoa, gutxi gorabehera, %8,3koa izan da.

Azkenik, gazteen langabeziak nabarmen egin du behera geure Komunitatean, 2005eko %13,5eko langabezia-tasatik 2006ko batez besteko %8,1era (datu hori Europan Danimarkak eta herbehereek soilik hobetu dute).

Gainera, BJAren arabera, kontratu mugagabeko soldatapeko biztanleriak %9,5 egin du gora 2006. urteko laugarren hiruhilekoan eta %2,8, berriz, urte osoko batez bestekoaren arabera. Horren ondorioz, behin-behinekotasun tasan murrizketa izan da, murrizketa txikia urteko batez besteko datuekin alderatuta (%25,3koa zen 2006an eta %25,6koa, berriz, 2005ean), baina nabarmenagoa da, laugarren hiruhilekoan %23,3ra murriztu zela kontuan hartzen badugu. Gainera, soldatapeko biztanleriaren %3,6 kontraturik gabe dabil. Adierazle horri dagokionez, alde handiak daude Europako Batasuneko zenbait herrialdeen artean. Batez bestekoa EAEko datua baino de-

III.5.2. Koadroa. Enpleguaren adierazleak Europako Batasunean 2005-2006

	Jarduera-tasa		Langabezia-tasa		Gazteen langabezia-tasa		Behin-behinekotasun tasa	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006
EB-27	**56,8**	**57,1**	**8,9**	**8,2**	**18,7**	**17,4**	**13,9**	**14,4**
EB-25	57,1	57,3	9,0	8,2	18,6	17,2	14,5	14,9
EB-15	57,3	57,7	8,2	7,8	16,8	16,1	14,3	14,7
EDB-13	**56,2**	**56,5**	**8,9**	**8,3**	**17,8**	**16,6**	**16,2**	**16,7**
Belgika	53,3	53,1	8,4	8,2	21,5	20,5	8,9	8,7
Bulgaria	49,7	51,3	10,1	9,0	22,3	19,5	6,4	6,2
Txekiar Errep.	59,4	59,3	7,9	7,1	19,2	17,5	8,6	8,7
Danimarka	65,6	65,9	4,8	3,9	8,6	7,7	9,8	8,9
Alemania	58,4	59	11,2	10,3	15,5	13,8	14,2	14,5
Estonia	58,5	60,4	7,9	5,9	15,9	12,0	2,7	2,7
Irlanda	62,0	63,0	4,3	4,4	8,6	8,6	3,7	3,4
Grezia	53,2	53,4	9,8	8,9	26,0	25,2	11,8	10,7
Espainia	**56,7**	**57,6**	**9,2**	**8,5**	**19,7**	**17,9**	**33,3**	**34,0**
Frantzia	56,1	56	9,1	9,1	21,5	22,6	13,3	13,5
Italia	49,1	49,2	7,7	6,8	24	21,6	12,3	13,1
Zipre	63,2	63,5	5,3	4,5	13,9	10,0	14,0	13,1
Letonia	57,8	59,4	8,9	6,8	13,6	12,2	8,4	7,1
Lituania	56,6	55,9	8,3	5,6	15,7	9,8	5,5	4,5
Luxenburgo	55,6	55	4,5	4,7	13,7	16,2	5,3	6,1
Hungaria	50,2	50,6	7,2	7,5	19,4	19,1	7,0	6,7
Malta	49,5	50,4	7,3	7,3	16,8	16,1	4,5	3,8
Herbehereak	64,9	65,3	4,7	3,9	8,2	6,6	15,5	16,6
Austria	59,4	60,2	5,2	4,7	10,3	9,1	9,1	9,0
Polonia	54,9	54	17,7	13,8	36,9	29,8	25,7	27,3
Portugal	62,2	62,5	7,6	7,7	16,1	16,3	19,5	20,6
Errumania	53,9	55	7,2	7,3	20,2	21,4	2,4	1,8
Eslovenia	59,2	59,3	6,5	6,0	15,9	13,9	17,4	17,3
Eslovakia	59,5	59,1	16,3	13,4	30,1	26,6	5,0	5,1
Finlandia	60,7	61	8,4	7,7	20,1	18,7	16,5	16,4
Suedia	63,2	63,4	7,8	7,1	22,8	21,5	16	17,3
Erres. Batua	62,1	62,4	4,7	5,3	12,8	14,1	5,7	5,8
Kroazia	49,6	:	12,6	:	32,3	:	12,4	:
EAE	**54,8**	**54,6**	**5,7**	**4,1**	**13,5**	**8,1**	**25,6**	**25,3**

Iturria: Eurostat-eko (2007ko maiatzaren 14ko datuak) eta Eustat-eko datuen arabera osatuta.

zente txikiagoa bada ere, (%14,4 EB-27rako, %16,7 ED-Brako), behin-behinekotsunari dagokionez, alde handiak daude; esaterako, ia ez dago zenbait herrialdetan, adibidez, Errumanian, Lituanian eta Irlandan eta, aldiz, %27,3koa da Polonian eta %34koa, berriz, Espainian –gainera, gorantz egin du 2005etik).

Azkenik, nabarmentzekoa da SPEEren estatistikak adierazi digutela mugagabe bihurtutako kontratuek gora egin dutela, %72,6, hain zuzen ere, aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzeagatiko hobarien aparteko prozesuaren ondorioz. Talka-plan horren indarraldia 2006. urtea amaitzearekin batera iraungi zen. Beraz, 2006an gorantz egin zuen enpleguaren egonkortasunak, izan ere, kontratu mugagabeen kopurua gehiago hazi da aldi baterako kontratuena baino (%12,4 hazi dira mugagabeak eta %2,4, berriz, aldi baterakoak).

5.1. Jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren garapena

5.1.1. Enplegua eta langabezia sexuaren eta adinaren arabera

EAEko biztanleria aktiboa murriztu egin da 2006an bigarren urtez jarraian, bost urteko hazkunde-epealdiaren ostean, nahiz eta 2005ean baino indar txikiagoarekin izan den. Urte horretan pertsona aktiboen kopuruak %1 egin zuen behera gure Komunitatean eta oraingoan, aldiz, %0,4ko beherakada izan du. Bestetik, 2005ean bai gizonezko, bai emakumezko aktiboen kopuruak egin zuen behera; aldiz, 2006an, gizonezko aktiboen kopuruak %1,1 egin zuen behera eta emakumezko aktiboen kopuruak, berriz, %0,7ko gorakada izan du, lan-merkatuan 3.100 emakumeko saldo garbia barneratu izanaren eraginez. Pertsona aktiboen kopuruaren beherakada bereziki nabarmena da, gainera, eraikuntzaren sektorean (–%4koa, guztira, 3.600 pertsona) eta, arinago bada ere, industriaren sektorean (–%1,9koa). Alabaina, hirugarren sektorean, langile aktiboen kopuruak 5.800 pertsonako hazkundea izan du (+%0,9).

Adinak kontuan hartuta, 25 urtetik beherako pertsona aktiboen kopuruak (66.000 pertsona, batez beste) %11,8ko beherakada izan du 2005. urtearekin alderatuta. Aldiz, 25 eta 44 urte arteko tartean, batez bestekotik beherako murrizketa izan da: %0,3koa. Bestalde, 45 urtetik gorako pertsona aktiboetan 7.100 pertsonako gorakada izan da, hau da, %2,1ekoa.

Beraz, EAEko jarduera-tasak[1] 0,2 puntuko beherakada izan du eta, sexuaren arabera, garapen desberdina izan

III.5.2. GRAFIKOA. JARDUERA-TASAREN GARAPENA TALDEKA



Iturria: Eustat "BJA".

[1] Talde jakin baten *jarduera-tasa* biztanleria aktiboko partaide diren talde horretako kideen portzentajea da. Talde baten *langabezia-tasa*, berriz, langabezian dauden talde horretako pertsona aktiboen portzentajea da.

III.5.3. Koadroa. Jarduera-tasen garapena sexuaren eta adin-taldeen arabera. Urteko batez bestekoak

	Jarduera-tasa			Langabezia-tasa		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006
16 urte baino +	**55,4**	**54,8**	**54,6**	**7,8**	**5,7**	**4,1**
16-24	40,7	37,7	34,9	20,5	13,5	8,2
25-34	89,2	86,5	87,0	10,3	7,4	5,6
35-44	83,8	83,7	83,7	5,7	5,4	3,8
45-54	76,6	76,6	77,2	4,4	3,2	2,3
55-64	41,1	42,5	42,7	3,2	2,3	2,2
+64	1,1	1,1	0,9	0,0	0,0	0,0
Gizonezkoak Guztira	**65,8**	**65,3**	**64,4**	**6,5**	**4,7**	**3,7**
16-24	43,8	41,5	37,5	18,2	11,9	7,5
25-34	91,8	89,8	90,3	10,2	6,5	5,7
35-44	96,6	93,8	93,7	4,1	4,6	3,3
45-54	92,7	93,3	92,7	2,6	2,2	2,0
55-64	56,9	59,2	57,5	3,6	2,1	1,9
+64	1,4	1,6	1,3	0,0	0,0	0,0
Emakumezkoak Guztira	**45,5**	**44,9**	**45,2**	**9,6**	**7,0**	**4,5**
16-24	37,3	33,7	32,2	23,3	15,7	9,0
25-34	86,5	83,1	83,5	10,5	8,4	5,5
35-44	70,6	73,6	73,4	8,0	6,3	4,5
45-54	60,7	60,1	62,3	7,0	4,7	2,8
55-64	25,8	26,4	28,1	2,3	2,7	2,5
+64	0,8	0,7	0,5	0,0	0,0	0,0

Iturria: Eustat "BJA".

du: gizonezkoetan ia puntu bateko beherakada izan da eta emakumezkoetan, berriz, ia hiru hamarreneko hazkundea. Funtsean, gora egin du 45 urtetik gorako adin-tarteetan eta, aldiz, talderik gazteenean, biztanleriaren gainontzeko multzoan bezala, jarduera-tasa murriztu egin da.

Bestalde, enpleguaren garapenak 2006an azken urteetako joerari jarraitu dio, %1,4ko okupazioaren hazkunde-tasarekin (2005. urtean baino hamarreneko bat gehiago) eta 13.000 pertsona okupatu gehiagorekin. Enpleguak, funtsean, 45 urte baino gehiagoko pertsonen taldean egin du gora (+%2,7), nahiz eta aurreko urtean baino maila txikiagoan. Aldiz, 25 urtetik beherako okupatuen kopurua %6,3 murriztu da (4.100 pertsona gutxiago).

Pertsona okupatuen egoera profesionalaren arabera, gora egin du soldatapeko enpleguak, bai sektore pribatuan, baita publikoan ere, nahiz eta ez hazkunde hori bietan ez den maila berean izan: sektore pribatuko soldatapekoen kopuruak %1,9ko hazkundea izan du (batez bestekoaren gainetik) eta sektore publikokoenen kopuruak, berriz %1,1ekoa (batez bestekotik behera). Enplegatzaileen kopuruak %1,4ko murrizketa izan du eta soldatapeko pertsona okupatuen kopuru osoaren %2,9 betetzen du.

Okupazio-tasak[2] goranzko joera mantendu du eta 1,2 puntuko hazkundea izan du, %66,5era heldu arte. Lurraldeka, nabarmentzekoa da Gipuzkoako okupazio-tasa altua, %69,7koa baita. Ratio horrek gora egin du, gainera, bai emakumezkoetan, bai gizonezkoetan, nahiz ez den maila berean izan: emakumezkoen taldean, %57koa da, 2,2 puntuko hazkundea izan ondoren. Gizonezkoen artean, aldiz, hamarreneko bat baino ez da hazi, %75,8koa izan baita. Adin-taldeka, ratio handiena, esan dugun moduan, 25 eta 44 urte arteko pertsonen taldeak dauka (%81,3) eta nabarmentzekoa da adin gutxieneko taldeen artean (25 urtetik beherakoen artean) portzentaje-puntu erdiko murrizketa izan dela.

Gainera, trebakuntza-mailaren araberako enpleguak ere, oro har, azken urteetan izandako joera mantendu du; okupazioaren hazkunderik handiena goi mailako ikasleen artean izan da (2005ean %8,7ko hazkundea izan zuten eta 2006an, berriz, %4,6koa, beraz, 12.000 pertsona okupatu gehiago). Bigarren mailako ikasketak dituztenek 2005ean beherakada izan zuten eta 2006an gora egin zuten berriz (+%5,1). Azkenik, 2006an %11ko murrizketa izan da lehen mailako ikasketak dituzten pertsona okupatuen kopuruan (–14.300 pertsona langile).

[2] Okupazio-Tasa, LNEren definizioaren arabera, bat dator pertsona okupatuen eta lan egiteko adinean diren pertsonen kopuru osoaren arteko batuketaren emaitzarekin.

III.5.4. Koadroa. 16 urteko eta hortik gorako ordainpeko biztanleria okupatuaren garapena egoera profesionalaren arabera

		Balio absolutuak (milaka)				Aldakuntza %tan		Kop. osoaren gaineko %	
		2003	2004	2005	2006	% 04-05	% 05-06	2005	2006
Guztira	Guztira	914,5	929,1	941,2	954,2	1,3	1,4	100	100
	Gizonak	546,8	544	550,3	549,9	1,2	–0,1	100	100
	Emakum.	367,7	385,1	390,9	404,3	1,5	3,4	100	100
Enplegatzaileak	Guztira	28,4	29,7	28,4	28	–4,4	–1,4	3,0	2,9
	Gizonak	22,8	22,4	20,6	20,3	–8,0	–1,5	3,7	3,7
	Emakum.	5,5	7,3	7,9	7,7	8,2	–2,5	2,0	1,9
Autonomoak	Guztira	122,4	115,4	117,8	117,3	2,1	–0,4	12,5	12,3
	Gizonak	82	76,4	81,7	81,3	6,9	–0,5	14,8	14,8
	Emakum.	40,4	39	36,1	36	–7,4	–0,3	9,2	8,9
Familia-laguntzak eta beste egoera batzuk	Guztira	5,7	4,8	7,2	5,1	50,0	–29,2	0,8	0,5
	Gizonak	1,8	1,4	2,2	1,6	57,1	–27,3	0,4	0,3
	Emakum.	3,9	3,4	5,1	3,4	50,0	–33,3	1,3	0,8
Kooperatibetako kideak	Guztira	27,8	25,6	18,3	20,6	–28,5	12,6	1,9	2,2
	Gizonak	17,8	14,7	10,9	10,8	–25,9	–0,9	2,0	2,0
	Emakum.	10	10,8	7,4	9,9	–31,5	33,8	1,9	2,4
Sektore publikoetako soldatapekoak	Guztira	127,3	131,7	131,9	133,4	0,2	1,1	14,0	14,0
	Gizonak	55,7	55,8	57,1	57,7	2,3	1,1	10,4	10,5
	Emakum.	71,7	75,9	74,8	75,7	–1,4	1,2	19,1	18,7
Sektore pribatuetako soldatapekoak	Guztira	602,8	621,9	637,6	649,8	2,5	1,9	67,7	68,1
	Gizonak	366,7	373,3	377,8	378,2	1,2	0,1	68,7	68,8
	Emakum.	236,2	248,7	259,8	271,6	4,5	4,5	66,5	67,2

Iturria: Eustat "BJA".

III.5.3. Grafikoa. Biztanleria okupatuaren banaketa adin-tarteen eta mailaren arabera ikasketak. Milaka. 2006.



Iturria: Eustat "BJA".

Soldatapeko pertsonek gauzatzen duten lanaldiari dagokionez, beste hazkunde bat aurkitu dugu pertsona okupatu hertsietan (14 eta 44 ordu arteko lanordu egiten dutenak), %2,5eko igoera izan baitute (%3koa 2005ean) eta murrizketa nabarmena gain-okupatuetan (44 ordutik gorako lanegunak dituztenak), %20,6ko murrizketa izan

III.5.4. Grafikoa. Biztanleria okupatuaren garapena (milaka) lan egindako orduen arabera



Iturria: Eustat "BJA".

III.5.5. Koadroa. Biztanleria langabetua. aldagai nagusien garapena

	Perts. Kop.	Diferentzia		Ald. %		Langabezia-tasa	
	2006	04-05	05-06	04-05	05-06	2005	2006
Guztira	**40.500**	**–21.625**	**–16.500**	**–27,5**	**–28,9**	**5,7**	**4,1**
Gizonezkoak	21.300	–10.475	–6.100	–27,6	–22,3	4,8	3,7
Emakumezkoak	19.200	–11.150	–10.300	–27,4	–35,0	7,0	4,5
Adina 16-24	5.400	–7.450	–4.700	–42,4	–46,5	13,5	8,2
Adina 25-44	27.300	–10.900	–9.800	–22,7	–26,4	6,4	4,7
Adina +45	7.800	–3.275	–2.000	–25,1	–20,4	2,8	2,2
Lehen mailako ikasketak	3.700	–2.225	–1.500	–30,2	–28,8	3,4	2,8
Erdi mailako ikasketak	26.500	–15.525	–8.700	–30,6	–24,7	6,4	4,7
Goi mailako ikasketak	10.300	–3.875	–6.300	–18,9	–38,0	5,6	3,5
Aurretik lan egindakoak	37.300	–16.400	–14.500	–24,0	–28,0	—	—
Lehen lanaren bila	3.300	–5.200	–1.900	–50,1	–36,5	—	—

Iturria: Eustat "BJA".

baitute (–%19ekoa 2005ean). Beraz, azken urteetako joera mantendu da. Azpi-okupatuta, okupazio marjinalean edo ia-langabetuta (erreferentzia-astean 15 lanordu baino gutxiago egin dituztenak) dauden pertsonen bolumenak %18ko hazkundea izan du; iaz, esaterako, %2,1 murriztu zen.

Urte honetan lan-mailan izan den ezaugarri garrantzitsuena, zalantzarik gabe, pertsona langabetuetan eta EA-Eko langabezia-tasan izan den murrizketa izan da. 2005ean 21.600 pertsona gutxiago zeuden langabezian batez beste urtean eta 2006an, berriz, murrizketa hori 16.500koa izatera iritsi zen; beraz, orotara, langabezian dauden pertsonen kopuru osoa 40.500ekoa da (34.400 azken hiruhilekoan). Langabezia-tasa 2005eko 5,7tik 2006ko 4,1era igaro da (%3,4koa izan da laugarren hiruhilekoan); beraz, EAE euro-guneko eta EB15eko batez besteko tasatik behera dago (%8,3ko eta %7,8ko tasa dute besteak beste).

Sexuei dagokienez, beherakadak orekatuak izan dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean; dena den, langabezian dauden emakumeen tasa %4,5ekoa da (2005ean baino 2,5 puntu gutxiago) eta gizonezkoena %3,7koa (2005ean baino 1,1 puntu gutxiago). Tasa horiek urte amaieran %3,9ra eta %3,0ra iritsi dira hurrenez hurren eta, beraz, sexuen arteko diferentziala 0,9 puntukoa da; gutxieneko historikoa da hori. Adinak kontuan hartuta

III.5.6. KOADROA. SPEE-REN BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (ABENDUA)

	2005eko abendua	2006ko abendua	2005-06 dif.	% 2005-06
Guztira	**83.390**	**76.203**	**–7.187**	**–8,6**
Gizonezkoak	35.931	31.317	–4.614	–12,8
Emakumezkoak	47.459	44.886	–2.573	–5,4
Adina < 25 urte	7.817	5.957	–1.860	–23,8
Adina 25-44 urte	42.645	38.062	–4.583	–10,7
Adina 45 urte eta gehiago	32.928	32.163	–765	–2,3

Iturria: SPEE .

III.5.5. GRAFIKOA. BIZTANLERIA LANGABETUAREN GARAPENA (MILAKA) IKASKETA-MAILAREN



Iturria: Eustat "BJA".

ere, tasen diferentzialen murrizketa handia ikus daiteke adin-tarteen artean. Gazteriaren langabeziaren bolumenak –%46,5eko murrizketa izan du eta, gainerako adin-taldeetan –%26,4 eta –%20,4 arteko murrizketa izan da. Horren eraginez, 24 urtetik beherakoen langabezia-tasa %8,2koa izan da (5,3 puntu gutxiago aurreko urtean baino eta langabetuen kopuru osoaren %13,3), %4,7koa 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen tartean (1,7 puntu gutxiago) eta %2,2koa 44 urtetik gorakotan (2005ean baino 6 hamarreneko gutxiago). Gainera, epe luzeko langabeziaren murrizketarako joera mantendu da (azken hiruhilekoan 9.100 pertsona izan dira urtebete eta 2 urte arteko langabezian, aurreko urtean baino 3.300 gutxiago, eta beste 400 bi urtetik gorako iraupenekoan). Lehen lanaren bila ari zen pertsonen taldean %36,5 murriztu da langabezia (2006an 3.300 pertsona batez beste, aurreko urtean baino 1.900 gutxiago).

Nabarmentzeko moduko beste datu bat da kide aktibo guztiak langabezian dauden familien kopuruak %26,5eko murrizketa izan duela azken hiruhilekoan eta murriztu egin dela egoera horretan zeuden pertsonen kopurua 2005eko 11.600etatik 2006ko 8.300era. Gainera, kide guztiak lanean dituzten familien kopuruak %4,2ko hazkundea izan du urtean zehar; azken hiruhilekoan 513.100koa zen kopuru hori.

Azkenean, SPEEn erregistratutako langabeziak beheranzko joera sendoa erakusten dute (azken urtean %8,6ko beherakada izan dute), nahiz eta oraindik ere BJAk zenbatetsitako langabeziak baino bolumen askoz handiagoarekin mantentzen bada ere (1,8 aldiz). Lehenean murriztu egin da emakumezko langabetuen kopurua %5,4, batez bestekotik beherako tasa; aldiz, gizonezkoen artean, beherakada hori handiagoa izan da: %12,8koa. Datu horiek alde handia erakusten dute BJA inkestak emandako emaitzekiko. Adinak kontuan hartuta eta urteko erreferentzian, gazteenen artean egin du behera gehien langabeziak termino erlatibotan, termino absolutuetan beherakada handiena 25 eta 44 urte arteko tartean gertatu baita. 45 urtetik gora beherakada arinagoa izan da (–%2,3koa) eta horrek agerian uzten du egiturazko langabeziaren osagai handiagoa dagoela adin helduenetan.

Aldizkakotasuna kontuan hartuta, BJAren datuek adierazten duenaren arabera, aldizkakotasun hori laugarren urtez jarraian murriztu da eta aldi baterako kontratua duen soldatapeko biztanleriaren portzentajea %25,3koa da, 2005ean baino 3 hamarreneko txikiagoa. Alabaina, sexuaren bilakaera desberdina izan da, murriztu egin baita emakumeetan (%27,7, 2005ean baino 1,1 puntu gutxiago) eta gizonezkoetan, berriz, apur bat igo baita (%23,4, 2 hamarreneko gehiago); beraz, sexuen artean aldizkakotasunean dagoen zatiketa murriztu egin da eta 4,3 puntukoa da (2005ean baino 1,3 puntu gutxiago). Bestalde, kontraturik gabeko egoerak eta beste batzuk biltzen dituen eta, funtsean, emakumezkoen taldean eragina daukan tasak (gizonezkoen tasa 2006an %0,9koa izan da) ere behera egin du urte honetan. Emakumeen tasa

III.5.7. KOADROA. 16 URTE ETA GEHIAGOKO SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUA KONTRATU-MOTAREN ARABERA

		Balio absolutuak (milaka)					Ald. %-tan		Osoaren gaineko %	
		2002	2003	2004	2005	2006	% 04-05	% 05-06	2005	2006
Guztira	Guztira	722,9	730,2	753,7	769,5	783,2	2,1	1,8	100,0	100,0
	Gizonak	430,5	422,3	429,1	434,9	435,9	1,4	0,2	100,0	100,0
	Emakum.	292,4	307,8	324,6	334,5	347,3	3,0	3,8	100,0	100,0
Mugagabea-finkoa	Guztira	478,2	490,9	516,1	543,4	558,5	5,3	2,8	70,6	71,3
	Gizonak	309,8	303,9	317,8	327,5	330,1	3,1	0,8	75,3	75,7
	Emakum.	168,4	187	198,4	215,8	228,4	8,8	5,8	64,5	65,8
Aldi baterakoa	**Guztira**	**210,9**	**209,6**	**203,1**	**197,1**	**198,2**	**–3,0**	**0,6**	**25,6**	**25,3**
	Gizonak	**117,5**	**114,9**	**106,9**	**100,8**	**101,9**	**–5,7**	**1,1**	**23,2**	**23,4**
	Emakum.	**93,4**	**94,7**	**96,2**	**96,3**	**96,3**	**0,1**	**0,0**	**28,8**	**27,7**
Kontraturik gabe eta beste	Guztira	33,8	29,6	34,4	29,0	26,4	–15,7	–9,0	3,8	3,4
	Gizonak	3,2	3,5	4,4	6,6	3,8	50,0	–42,4	1,5	0,9
	Emakum.	30,6	26,1	30	22,4	22,6	–25,3	0,9	6,7	6,5

Iturria: Eustat "BJA".

III.5.8. KOADROA. SOLDATAPEKO PERTSONEN BANAKETA ADINAREN, SEXUAREN ETA KONTRATU-MOTAREN ARABERA. ADIN-TARTE ETA SEXU BAKOITZAREN GAINEKO PORTZENTAJE-DATUAK

		2005			2006		
		Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	16 urtetik 24ra	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	25 urtetik 44ra	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	45 urte eta gehi.	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Mugagabea	Guztira	70,6	75,3	64,5	71,3	75,7	65,8
	16 urtetik 24ra	30,1	30,7	29,3	28,7	29,4	27,8
	25 urtetik 44ra	66,7	70,5	62,3	68,4	71,6	64,6
	45 urte eta gehi.	87,2	92,3	79,0	85,6	91,6	77,1
Aldi baterakoa	Guztira	25,6	23,2	28,8	25,3	23,4	27,7
	16 urtetik 24ra	64,6	65,6	63,4	68,1	68,7	67,4
	25 urtetik 44ra	29,7	27,7	32,1	28,5	27,2	30,1
	45 urte eta gehi.	9,0	7,1	12,2	10,4	8,1	13,7
Kontraturik gabe eta beste	Guztira	3,8	1,5	6,7	3,4	0,9	6,5
	16 urtetik 24ra	5,2	3,7	7,1	3,2	1,8	4,7
	25 urtetik 44ra	3,6	1,8	5,7	3,1	1,1	5,3
	45 urte eta gehi.	3,7	0,6	8,8	4,0	0,3	9,2

Iturria: Eustaten datuen arabera egindakoa "BJA".

hori %6,5ekoa da, aurreko urtekoa eta hamarkadako gutxieneko tasa baino bi hamarreneko txikiagoa.

Adin-taldeka, nabaria da aldi baterako kontratuak dituzten eta kontraturik ez duten pertsonen tasa handienak direla adin txikienekoak, nahiz eta murriztu egin diren aurreko urtekoekin alderatuta. Zehazki, 16 eta 24 urte arteko emakumezkoen %67,4k eta adin-tarte horretako gizonezkoen %68,7k daukate aldi baterako kontratu bat. Adin-tarte horretarako "kontraturik gabe edo beste" egoeran dauden soldatapeko pertsonen tasak %4,7koa eta %1,8koa izan dira, hurrenez hurren.

5.1.2. Enplegua eta langabezia sektoreka

Enpleguaren sektore-garapena aztertzerakoan ikus daiteke aurten ere, funtsean, zerbitzuetako sektorea izan dela sostengua. Sektore horrek dagoeneko EAEko enpleguaren %64,6 betetzen du, industriak berriz ere beherakadak izan baititu (azken bi urteetan 5,.700 enplegu galdu ditu, horietatik 2.100 2006an) eta gauza bera gertatu da eraikuntzan, hirugarren urtez jarraian (–2.000 enplegu).

Beraz, zerbitzuetako enpleguek gora egin dute 2006an, 15.600 pertsona gehiago aritu baitira sektore horretan lanean; beraz, urteko batez besteko tasa %2,6koa

III.5.6. Grafikoa. Behin-behinekotasun eta kontraturik gabeko enpleguaren eta beste batzuen tasak sexuaren arabera



Iturria: Eustat "BJA".

III.5.7. Grafikoa. Biztanleria okupatuaren garapena(milaka) sexuaren eta sektore-jardueraren arabera



Iturria: Eustat "BJA".

izan da eta aurreko urtean, berriz, +%4koa. Aldiz, sektore horretako pertsona langabetuen kopuruak 9.800eko murrizketa izan du. Bestalde, industrian okupazioak %0,9ko murrizketa izan du eta, guztira, 7.400 pertsona daude langabezian sektore horretan.

Aipatu dugun moduan, eraikuntzak enplegua galdu du aurten eta aurreko urteko tasa baino txikiagoan, gainera: 2005ean –%3,9koa izan zen eta 2006an, berriz, –%2,4ko beherakada izan zuen. BJAren langabeziaren kopuruek erakusten dute sektorean 4.700 pertsona langabetuko taldea

III.5.9. KOADROA. BIZTANLERIA OKUPATUA ETA LANGABETUA SEKTOREKA

	Pertsona kopurua (milaka)		Hazkundea (milaka)		Urtetik urterako aldaketa-tasa	
	2005	2006	04-05	05-06	04-05	05-06
Okupazioa - BJA	**941,2**	**954,2**	**12,2**	**13,0**	**1,3**	**1,4**
Lehen mailakoa	11,2	12,5	–4,9	1,3	–43,6	11,6
Industria	246,6	244,5	–3,6	–2,1	–1,4	–0,9
Eraikuntza	82,7	80,7	–3,2	–2,0	–3,9	–2,4
Zerbitzuak	600,8	616,4	23,9	15,6	4	2,6
Langabezia - PRA	**57,0**	**40,5**	**–21,7**	**–16,5**	**–38,1**	**–28,9**
Lehen mailakoa	0,4	0,3	–0,6	–0,1	–164,3	–25,0
Industria	10,2	7,4	–5,2	–2,8	–51,5	–27,5
Eraikuntza	6,3	4,7	–3,1	–1,6	–49,6	–25,4
Zerbitzuak	34,6	24,8	–7,9	–9,8	–22,8	–28,3
1. lanaren bila	5,5	3,3	–4,9	–2,2	–87,8	–40,0

Iturria: Eustat "Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta" eta SPEE.

dagoela, 2005ean baino 1.600 gutxiago. Bestalde, lehen sektoreak aurten 1.300 pertsonako batez besteko igoera izan du eta aurreko urtean, berriz, 4.900 galdu zituen nahiz eta, aurreko aldi batzuetan adierazi izan den moduan, EAEn sektore horrek duen bolumen txikiaren eraginez, datu horiek estatistika errore[3] maila handia izaten duten eta, beraz, kontuz hartu behar dira datu horiek. Lehen enpleguaren bila dabiltzan pertsona langabetuei dagokienez, BJAk 2006an adierazi du talde horretan murrizketa handia izan dela (–2.200) eta, beraz, praktikan, 3.300 pertsonako taldea izatera murriztu da (pertsona langabetuen %8,1).

Azkenik, 2005ean atzerakada txiki bat izan zen emakumeen presentzia minoritarioa den sektoreetako okupazioan presentziak atzerakada txiki bat izan zuen, funtsean, industrian eta eraikuntzan. Aldiz, 2006an presentzia hori guztietan handitu da, nahiz eta ez den guztietan maila berean izan. Emakumezkoen enpleguak industrian %4,3ko gorakada izan du (–%5,8koa 2005ean) eta emakumezkoen enpleguaren %12,5 osatzen du. Aldiz, eraikuntzan %8,1 egin du gora, emakumezko enpleguaren %1,7 baino ez du osatzen eta hamarreneko bat baino ez du irabazi. Gainera, zerbitzuetako sektorean emakumezkoen okupazioa %3,1

III.5.8. GRAFIKOA. LANGABEZIA-TASAREN GARAPENA LURRALDE HISTORIKOKA



Iturria: Eustat "BJA".

[3] 15.000 pertsonatik beherako balioak dituzten gurutzaketek laginketa-akats maila handia izaten dute (%30etik gorakoa).

hazi da eta aurreko urtean, aldiz, %2,9. Beraz, emakumezkoen enpleguak sektore horretan kontzentratuta jarraitzen badu ere, emakumezko enplegu osoaren %85,3 izan zen 2005ean eta %85,1, berriz, 2006an.

5.1.3. Enplegua eta Langabezia geografia-eremuka

Aurten euskal lan-merkatuak izandako garapenaren ildotik, langabezia-tasek behera egin dute, Lurralde Historikoka, Bizkaian eta Gipuzkoan, baina ez Araban, BJAren datuen arabera.

Langabezia-tasa Bizkaian, tradizionalki, altuena da eta, beste urte batez ere, bere horretan mantendu da, baina gutxieneko historiko batera iritsi da (%5), 2,4 puntu jaitsi baita 2005arekiko. Langabezia-tasak Gipuzkoan behera egin du eta %2,9koa da. Gipuzkoa da langabezia gutxien duen lurraldea eta, gainera, ia bi puntu murriztu da aurreko urteko datuekin alderatuta. Aldiz, Arabako langabezia-tasa puntu erdi igo da, eta %3,5era iritsi da. Beraz, badirudi beste urte batez mantendu egin dela hiru lurraldeetako langabezia-tasen arteko konbergentziarako joera.

Langabeziaren datuek lurraldeka izan duten garapenari dagokionez, argi ikusten da SPEEn 2006an erregistratutako pertsona langabetuen kopurua, 2005ean gertatutakoa ez bezala, murriztu egin dela %5,4ko tasan. Urtearen amaieran 76.201 eskatzaile izan dira.

2006ko laugarren hiruhilekoan bi eskualdetan soilik, Tolosaldean eta Bidasoa Beherean, egin du gora pertsona langabetuen kopuruak. Ezkerraldeak, historikoki, erregistratutako langabeziaren rankingean posturik okerrenak bete izan ditu eta, aldi honetan, %13,2ko murrizketa izan du. Aldiz, emaitza honen zerrendaren buruan daude Arabako Lautada, Durangaldea eta Txorierri eskualdeak. Lurralde Historikoka bereizita, Bizkaiko emaitzarik kaskarrenak Bilboko metropoli eremua osatzen duten eskualdeetan topatu ditugu, nahiz eta gainerako eskualdeekiko aldeak murrizteko joera nabarria den. Arabako egoera okerrena Araian dago, Bilbo Handiaren eragin-eremuan dagoena, Arabako hiriburuak baino puntu bat goragoko langabezia-tasarekin. Araban ere aldeak murrizteko joera dago eta, beraz, Araian langabetuen kopuruak %12,7ko beherakada izan du azken urtean; Arabako hiriburuan, berriz, %3,2 baino ez da murriztu. Gipuzkoan, azkenik, Tolosaldea eta Bidasoa Beherea dira, esan dugun moduan, garapen okerrena izan dutenak eta Urolaren arroan, berriz, izan dira emaitzarik onenak.

5.2. Lan-merkatuko sarreren eta irteeren fluxua

5.2.1. Kontratazioaren ikuspegia

2006an, lan-merkatuko beste adierazle batzuen garapenaren ildotik, kontratazioak gora egin du EAEn, zehazki, %5,4ko tasarekin (aurreko urtean %2,1eko hazkundea izan zuen). Hazkunde horren onurarako izan da, esan bezala, 2006an gertatutako[4] aldi baterako kontratuak mu-

III.5.10. KOADROA. EAE-KO ESKUALDEETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (HANDIENETIK TXIKIENERA) (2006-4. HIRUHIL.)

	2006	% hazk.05-06		2006	% hazk.05-06
EAE-ko osoa	**76.201**	**–5,4**			
Tolosaldea	1.612	3,5	Urola Garaia	679	–9,7
Bidasoa beherea	3.618	1,7	Arratia-Zornotza	715	–9,8
Donostia	6.005	–1	Bilbo	14.055	–10,4
Arabar Errioxa	165	–1,8	Uribealdea	1.942	–11,2
Gasteiz	8.349	–3,2	Gobela	3.677	–11,3
Arabar Errioxa	208	–4	Nerbioi erdialdea	919	–11,5
Urola Kosta	1.256	–4,8	Gorbeia Inguruak	158	–11,7
Arabako lautada	328	–6	Aiara bailara	1.443	–12,7
Oarsoaldea	2.545	–6,1	Ezkerraldea	11.401	–13,2
Deba Beherea	1.869	–6,7	Urola Erdia	735	–13,4
Donost. mendebaldea	2.526	–7	Busturialdea	1.342	–15,9
Enkarterriak	980	–7,2	Lea-Artibai	690	–16,8
Deba Garaia	1.663	–8,5	Txorierri	1.204	–17,3
Ibaizabal	3.283	–8,9	Durangaldea	1.810	–17,8
Goierri	955	–9,1	Arabako Mendialdea	69	–31,6

Iturria: Lanbide, SPEE-INEMen datuen arabera.

[4] 5/2006 Erret Lege Dekretua onetsi zenean aparteko plan bat jarri zen martxan 2006. urteko ekaina aurretik egindako aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko, urtearen barnean egitekotan, hiru urtetan oroharreko hobari ekonomiko bat barneratuta.

III.5.11. Koadroa. Lan-kontratuen garapena modalitatearen eta sexuaren arabera 2005-2006

	2005				2006				% Ald. 2005-06		
	Gizon	Emakume	Guztira	% bertik.	Gizon	Emakume	Guztira	% bertik.	Gizon	Emakume	Guztira
Mugagabe bihurtuak	15.839	10.945	26.784	3,3	26.303	19.926	46.229	5,4	66,1	82,1	72,6
Aldi baterako lanaldi partziala	66.044	161.845	227.889	28,3	70.276	167.936	238.212	28,0	6,4	3,8	4,5
Mugag. Arrunt / Mugag.12/2001-24/2001 Leg.	8.986	3.404	12.390	1,5	9.672	4.128	13.800	1,6	7,6	21,3	11,4
Minusbaliatuen lanaldi osoko mugag.	191	63	254	0,0	227	66	293	0,0	18,8	4,8	15,4
Lanaldi osorako mugaga. Hobariarekin	3.004	5.067	8.071	1,0	4.009	4.569	8.578	1,0	33,5	–9,8	6,3
LP Mugag. / LP Mugag. 5/2001 ELD	2.207	2.086	4.293	0,5	2.328	2.771	5.099	0,6	5,5	32,8	18,8
Minusbaliatuen Lanaldi Partzialeko Mugagabea	35	22	57	0,0	44	58	102	0,0	25,7	163,6	78,9
Lanaldi Partzialeko Mugagabea Hobariarekin	187	3.066	3.253	0,4	538	3.106	3.644	0,4	187,7	1,3	12,0
Finko Etenduna / Finko Etenduna 5/2001 ELD	663	330	993	0,1	818	979	1.797	0,2	23,4	196,7	81,0
Minusbaliatuen Finko Etenduna	1	2	3	0,0	2	3	5	0,0	100,0	50,0	66,7
Kontratu Finko Etenduna Hobariarekin	79	485	564	0,1	82	180	262	0,0	3,8	–62,9	–53,5
Lanaldi Osoko Obra edo Zerbitzua	138.923	54.186	193.109	24,0	139.255	53.593	192.848	22,7	0,2	–1,1	–0,1
Lanaldi Osoko Kontratu Ebentuala Ekoizpen-gorabeherengatik	124.553	98.475	223.028	27,7	129.176	101.062	230.238	27,1	3,7	2,6	3,2
Lanaldi Osoko Bitarteko Lan-kontratua	27.383	63.270	90.653	11,2	28.058	65.711	93.769	11,0	2,5	3,9	3,4
Lanaldi Osoko Praktikak	3.781	2.209	5.990	0,7	3.812	2.455	6.267	0,7	0,8	11,1	4,6
Prestakuntza	1.496	923	2.419	0,3	1.349	869	2.218	0,3	–9,8	–5,9	–8,3
Lanaldi Osoko Aldi baterako Kontratua Minusbaliatuentzat	653	312	965	0,1	532	221	753	0,1	–18,5	–29,2	–22,0
Lanaldi Osoko Laneratze-kontratua	4	10	14	0,0	—	—	—	0,0	–100,0	–100,0	–100,0
Lanaldi Osoko Errelebo-kontratua	2.810	786	3.596	0,4	3.189	815	4.004	0,5	13,5	3,7	11,3
Gizarte-lankidetzako kontratua	62	11	73	0,0	38	5	43	0,0	–38,7	–54,5	–41,1
Erretiro Berezia 64 urtetan	60	23	83	0,0	45	28	73	0,0	–25,0	21,7	–12,0
Beste batzuk	1.039	656	1.695	0,2	970	664	1.634	0,2	–6,6	1,2	–3,6
Guztira	**398.000**	**408.176**	**806.176**	**100 %**	**420.723**	**429.145**	**849.868**	**100 %**	**5,7**	**5,1**	**5,4**

Iturria: SPEE.

III.5.12. Koadroa. Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratua sexuaren eta motaren arabera (2006)

	Balio absolutuak			Portzentajea		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Lanaldi partzialeko Obra-kontratua	27.782	56.117	83.899	42,1	34,7	36,8
Lanaldi Partz. Kontratu Ebentuala Ekoizpen-gorabeherengatik	29.910	62.827	92.737	45,3	38,8	40,7
Lanaldi Partz. Laneratze-kontratua	8	18	26	0,0	0,0	0,0
Bitarteko Kontratua	4.584	41.456	46.040	6,9	25,6	20,2
Lanaldi Partzialeko Praktikak	234	594	828	0,4	0,4	0,4
Lanaldi Partzialeko Aldi Baterako Kontratua Minusbaliatuentzat	29	48	77	0,0	0,0	0,0
Erretiro Partziala	3.360	619	3.979	5,1	0,4	1,7
Lanaldi Partzialeko Erreleboa	137	166	303	0,2	0,1	0,1
Guztira	**66.044**	**161.845**	**227.889**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Fuente: SPEE.

gagabe bihurtzeko aparteko hobari-prozesua, %72,6ko hazkundea izan baita (2005ean baino ia 20.000 kontratu gehiago) aldatutako aldi baterako kontratuetan. Beraz, aldaketa horiek kopuru osoaren zati txikia osatzen jarraitzen dute eta 2006an SPEEk EAEn erregistratutako kontratuen %5,4 baino ez dira izan.

III.5.9. GRAFIKOA. EAEn ERREGISTRATUTAKO KONTRATUEN GARAPENA, MODALITATEAREN ARABERA



Iturria: SPEEren datuetan oinarrituta egindakoa.

III.5.10. GRAFIKOA. IRAUPEN JAKIN BATEKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA EAEn (EGUNAK)



Iturria: SPEE-INEM. Zerbitzu teknikoen Zuzendariordetza.

2006an, guztira, SPEE-INMEen 849.868 kontratu erregistratu dira (berriak eta aldaketak kontuan hartuta), 2005ean baino 43.692 gehiago. Horietatik, %50,5 emakumezkoek sinatu dituzte; aurreko urteko portzentajearen antzekoa izan da. Lurraldeka, kontratazioak, batik bat, Bizkaian egin du gora (%6, guztira, 460.500 kontratu), ondoren, Gipuzkoan (+%5,5) eta Araban (+%3,4).

Nabarmentzekoa da aurten hainbat mailakoa izan dela kontratazio-modalitate anitzen erabilpena. Esaterako, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuek, sinatutako hamar kontratutatik ia hiruk lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak izaten jarraitzen dutela (kopuru osoaren %28), %4,5eko hazkundea izan dute batez bestekotik behera. Horien barnean duten garrantziagatik nabarmentzekoak dira lanaldi partzialeko obra-kontratuak, ia 84.000 izan baitira; ekoizpen-gorabeherengatik egiten diren lanaldi partzialeko kontratu ebentualak ere 93.000 kontratu izan baitira.

Bitarteko kontratuek, halaber, pisu garrantzitsua daukate, baina, kasu honetan, soilik emakumezkoen artean (lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuen %25,6 sinatzen dituzte emakumezkoek; batez besteko kopurua, berriz %6,9koa da).

Gainera, lanaldi osoko aldi baterako kontratazioak, orotara, EAEn erregistratutako kontratuen %62,6 osatzen du (2005ean %64,7 zen) eta %2ko hazkundea izan du. Guztira, mota horretako 531.847 kontratu erregistratu dira, 2005ean baino 10.222 gehiago. Horien artean pisu

III.5.13. Koadroa. Lan-txandakatzea EAE-n

	2003	2004	2005	2006
Kontratuak guztira	742.386	788.803	806.103	846.868
Gizonezkoa	370.947	391.729	398.030	420.723
Emakumezkoa	371.439	397.074	408.073	429.145
Kontratatutako pertsona guztira	292.219	298.131	314.553	320.806
Gizonezkoa	163.134	165.686	173.673	176.860
Emakumezkoa	129.085	132.445	140.880	143.806
Bi sexuen txandakatzea	2,54	2,65	2,56	2,64
Gizonezkoa	2,27	2,36	2,29	2,38
Emakumezkoa	2,88	3,00	2,90	2,98

Iturria: Lanbide eta SPEE.

III.5.14. Koadroa. EAE-n kontratatutako pertsonen banaketa (2006)

Sinatutako kontratu kop.	Guztira	Gizonak	Emakumeak	<20 urte	20-24	25-29	30-44	45 urte +
Kontratu 1	187.433	108.769	78.664	11.974	34.813	41.856	69.078	29.712
2-3 kontratu	91.750	49.667	42.083	5.393	20.818	21.559	32.968	11.012
4-5 kontratu	22.973	11.087	11.886	1.298	5.612	5.475	7.941	2.647
6-10 kontratu	16.490	7.287	9.203	829	4.107	3.776	5.768	2.010
11-20 kontratu	6.962	2.771	4.191	339	1.761	1.499	2.397	966
21-50 kontratu	2.898	1.108	1.790	111	715	615	1.000	457
+ 50 kontratu	540	264	276	10	107	123	195	105
Guztira	**329.046**	**180.953**	**148.093**	**19.954**	**67.933**	**74.903**	**119.347**	**46.909**

Iturria: SPEE. Zerbitzu teknikoen Zuzendariordetza Nagusia.

nahiko garrantzitsua daukate obrako kontratuek eta *"ekoizpen-gorabeherengatik"* epigrafearen pean erregistratutako kontratuek (kontratuen kopuru osoaren %22,7 eta %27,1, hurrenez hurren).

Dauden aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, aipatzekoa da, beste urte batez ere, iraupen txikiagoranzko joera dagoela eta behera egin duela kontratu-mota guztietarako, kontratua amaitzeko batez besteko egun kopuruak laneratze-kontratuetan izan ezik, 162 eguneko batez bestekotik 179 egunekora igaro baita.

Bestalde, 2006an mantendu egin da 2004an kontratazio mugagabean ikusten hasi zen goranzko joera positiboa, funtsean, kontratu mugagabe arrunten eraginez, %12,7 egin baitute gora. Orotara, kontratazio mugagabeak azken urtean %12,4ko hazkundea izan du (aurreko urtean ozta-ozta mantendu egin ziren); aldiz, aldi baterako kontratuek %2,4ko hazkundea izan dute. Alabaina, ezin dugu ahantzi kontratu mugagabeek, oraindik ere, geure komunitatean SPEEk erregistratutako kontratuen kopuru osoaren %4,2 baino ez dutela osatzen.

Amaitzeko, lan-txandakatzeari buruzko datuek hazkundea adierazi dute 2006an; 2005ean 2,56 kontratu ziren batez beste kontratatutako pertsonako eta 2006an, berriz, 2,64. Hazkundea bai gizonezkoetan (9 zentesima), bai emakumezkoetan (8 zentesima) izan da, baina, dena

III.5.11. Grafikoa. Kaleratzeen garapena EAEn



Iturria: Lan ministerioa "Lan-estatistiken Aldizkaria".

den, emakumezkoentzat askoz ere kopuru handiagoa da gizonezkoetan baino.

5.2.2. Bakarkako eta taldekako kaleratzeen garapena

Lehenik eta behin, gogoratu beharra dago gertatutako bakarkako kaleratzeak komunitate autonomoko Lan-agintaritza eskudunaren (Eusko Jaurlaritzaren Justizia,

III.5.15. KOADROA. KALERATZEEN GARAPENA EAEN

	Balio absolutuak			Aldakuntza %		
	2004	2005	2006	03/04	04/05	05/06
GUZTIRA Kaltetutako langileak	**8.851**	**7.282**	**7.160**	**–22,8**	**–17,7**	**–1,7**
Bitartek., Arbitrajea eta Adiskidetz.	2.752	2.183	1.989	–33,5	–20,7	–8,9
Gizarte mailako gai judizialak	2.885	2.586	2.688	–1,4	–10,4	3,9
Enplegu erregulazioa	3.214	2.513	2.483	–27	–21,8	–1,2
Adostasunez amaitutako bakarkako kaleratzeen adiskidetzeetan hitzartutako kopuruak.						
Kopurua guztira (Milaka €)	**90.855**	**75.613**	**84.046**	**–18,7**	**–16,8**	**11,2**
Bitartek., Arbitrajea eta Adiskidetz.	88.916	72.678	81.482	–15,2	–18,3	12,1
Gizarte mailako gai judizialak	1.939	2.935	2.564	–71,8	51,4	–12,6
Batez besteko kopurua (€)	**16.118**	**15.855**	**17.970**	**1,8**	**–1,6**	**13,3**
Bitartek., Arbitrajea eta Adiskidetz.	32.310	33.293	40.966	27,4	3,0	23,0
Gizarte mailako gai judizialak	672	1.348	954	–71,4	100,6	–29,2

Iturria: Lan eta Gizarte gaietako Ministerioa. Lan-estatistiken Aldizkaria.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailak ordezkatzen duena) aurrean egindako adiskidetzeen ondorioz gertatutakoak dira eta aldeen adostasunarekin amaitzen dira, eta Lan-arloko epaitegien bitartez bideratzen dira.

Bestalde, taldekako kaleratzeak dira enpresak edo langileen legezko ordezkariek enplegu-erregulazioko espediente baten bitartez gauzatzen diren lan-harremanak amai daitezen eskatzeko egiten direnal(laneguna eteteko edo murrizteko ere eska daitezke) arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntza arloko arrazoiak, ekoizpen arlokoak, ezinbesteko arrazoiak direla medio edo kontratatzailearen pertsonalitate juridikoa iraungi delako, eta lan-agintaritza eskudunak ebazten ditu. Agintaritza Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Zuzendaritza da eta arlo horretan funtzioak besterenduta ditu. Edonola ere, kontuan hartu beharra dago gai honen inguruan Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak argitaratzen dituen estatistikek ez dituztela jasotzen gauzatutako kaleratze guztiak, ez baita baimen administratiboa behar arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntza arlokoak edo ekoizpen mailakoak direla eta kaleratzeak egiteko, kaleratzeak taldekako kaleratzeetarako[5] ezarritako langile-kopurua baino txikiagoan badu eragina. Aintzat hartzekoa da, halaber, enplegu erregulazioko hitzarmenen ondorioz sortutako erretiro aurreratuak, estatistikoki, iraungitze gisa hartzen direla.

Edonola ere, EAEn izandako kaleratzeen kopuru osoak 2002tik beherazko joera du eta 2006an 7.610ekoa izan da. Joera hori bera da, halaber, Estatu osoan eta, gainera, EAEko kaleratzeek kopuru osoan daukaten pisuak ere beheranzko joera dauka, nahiz eta azken urte honetan apur hazi den, %4,5ekoa izatetik, %5,1ekoa izateraino, EAEn izan den beherakada, %1,7koa, aurreko urteetakoa baino txikiagoa baita.

Aurreko urteetan beherakadak Lan-agintaritzak baimendutako espediente kopuru txikiagoan (bitartekaritza, arbitrajea eta adiskidetzea) zuen oinarria eta, aldiz, 2005ean, enplegu-erregulazio bidez egindako kaleratze-kopuruaren antzeko mailan eta, are gehiago, baita aurreko urteetan murrizteko joera zutela ziruditen organo judizialek baimendutakoen antzeko mailan ere. 2006an, aldiz, %3,9ko hazkundea izan zuten organo judizialek baimendutako kaleratzeek eta, aldiz, beste bi motek beheranzko joerarekin jarraitu dute, nahiz eta aurreko urteetan baino maila apalagoan izan.

Kaleratzeen arloan kalte-ordain gisa hitzartutako zenbateko osoei dagokienez, 2006an, batuketa osoa 84 milioi eurokoa da, 2005. urtean baino %11,2 handiagoa. Hazkunderik ez da gertatu orain arte azken urteetan eta lan-agintaritzak baimendutako espedienteetan hitzartutako kopuruek izan duten %12,1eko hazkundearen eraginez sortu da. Azken horiek osatzen dute kalte-ordainen kopuru osoaren %97kalte-ordainen batez besteko zenbatekoa ia 18.000 eurokoa da eta %13,3ko hazkundea izan du kopuru horrek 2005. urtearekiko; izan ere, kaltetutako langileen kopuru osoak, esan dugun bezala, behera egin du.

[5] Kaleratze kolektibo gisa hartzen da 5 langile baino gehiagoko langile-talde oso batean eragina duenean enpresaren jarduera erabat eteteren ondorioz edo, laurogeita hamar eguneko epealdian, 100 langile baino gutxiagoko enpresetan gutxienez 10 soldatapeko langile kaleratzea edo, aldiz, 100 eta 300 langile arteko enpresetan langile-taldearen %10 edo 300 langile baino gehiagoko taldea duten enpresa batean 30 soldatapeko langile kaleratzea.

III.5.12. GRAFIKOA. EAEN BAJA DAKARTEN ISTRIPUEN GARAPENA. URTEA 2000= 100



(*) bertan barneratuta daude gaixotasun profesional guztiak.
Iturria: OSALAN oinarri gisa hartuta osatutakoa.

5.3. Lan-harremanak eta lan-osasuna

5.3.1. Lan-osasuna

Osalanen jasotako EAEko lan-ezbeharren gaineko datuek erakusten dute 2006an 53.782 lan-istripu gertatu zirela, 2005ean baino %3,2 gutxiago (urte horretan ezbeharrek gora egin zuten, aurreko urteetako joeraren kontra). Denbora-ikuspegi zabalagoa kontuan hartuta, esan daiteke azken bost urteetan lan-istripu modalitate guztiek behera egin dutela (–%8 batez beste) eta, bereziki, larritasun handieneko kasuetan (–%31,8 istripu larrietan eta –%23,4 hilgarrietan).

Lanaldian baja eragin duten istripuak 46.730 izan dira, 2005ean baino %2,4 gutxiago. Horien artean, larritasun gutxieneko istripuek (arinek) %2,2 egin dute behera, larriek (322) eta hilgarriek (52) baino askoz ere gutxiago, esan dugun moduan. Bestalde, "in itinere" gertaturiko istripuek kopuru osoaren %9,3 betetzen dute eta %4,3ko beherakada izan dute; aldiz, 2005. urtean %16,1eko igoera izan zuten.

Sektoreak kontuan hartuta, argi ikusten da sektore guztietan aurreko urtearekin alderatuta, lan-ezbeharrek behera egin dutela lehen sektorean izan ezik. Lehen sektorean 1.044 istripu gertatu dira, 2005ean baino %13 gehiago. Bestalde, industriaren sektorean baja ekarri duten 18.585 istripu gertatu dira, zenbateko osoaren %40, baina 2005ean baino %2,7 gutxiago. Halaber, eraikuntzaren arloak istripuen %40 betetzen du eta aurten gertatutakoek %3,5eko murrizketa izan dute, batez bestekotik gora. Azken bost urteetako garapenera itzulita, sektore guztietan murriztu da nabarmen ezbeharren kopurua, bereziki eraikuntzan (–%17,5). Bestalde, deigarria da heriotza eragin duten istripuen %11 (6, 52ko kopuru osotik) lehen sektorean gertatu direla. Datu globalak kontuan hartuta, berriz, lehen sektoreko istripuek (1.044, 2006an) zenbateko osoaren %2 baino ez dute betetzen.

Bestalde, lan-ezbeharren tasek istripu-kopurua eta sektore bakoitzeko pertsonen bolumena lotzen dute eta azken urteetan tasa orokorraren murrizketak (49 istripu okupatutako 1.000 pertsonako, 2005ean baino %3,8 gutxiago) zerbitzuen sektorean ezbeharrek izan duten beherakadan du oinarria, industriaren eta eraikuntzaren sektoreetan izandako murrizketak baino askoz ere beherakada handiagoa izan baitute (–%4,9, milako 29,7ko ratio arte). Beraz, eraikuntzaren sektorea da ezbehar handienak izaten dituena, 107,9ko tasa baitu mila pertsona okupatuko. Azkenik, lehen sektorean, balio absolutuekin gertatzen den moduan, ezbeharren tasak gora egin du: 2005. urtean milako 82,5eko tasa zuen eta azken urtean, berriz, 83,5ekoa mila pertsonako.

Azkenik, kontratu-motaren araberako lan-istripuetako datuek erakusten dute ezbeharren tasa bikoitza dela aldi

III.5.16. KOADROA. EAEKO LAN-EZBEHARREN GARAPENA: KALTETUTAKO LANGILEAK LAN-BAJAREKIN

	Lanaldian baja dakarten istripuak								In itinere	Enf. Profes.	Guztira
	Guztira	Larritasunaren arabera			Sektorearen arabera						
		Arinak	Larriak	Hilgarriak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak			
2000	50.585	50.029	471	85	1.212	22.302	9.690	17.381	4.492	1.657	56.734
2001	51.652	51.112	472	68	1.099	21.999	10.550	18.004	4.940	1.874	58.466
2002	51.266	50.700	493	73	1.120	21.210	11.090	17.846	4.999	2.356	58.621
2003	48.912	48.413	431	68	975	19.546	10.372	18.019	4.909	2.610	56.431
2004	43.857	43.431	373	53	850	17.651	8.480	16.876	4.508	2.159	50.524
2005	47.881	47.403	416	62	924	19.198	9.027	18.732	5.233	2.439	55.553
2006	46.730	46.356	322	52	1.044	18.686	8.709	18.291	4.977	2.075	53.782

Fuente: OSALAN.

III.5.17. Koadroa. Ezbeharren tasaren garapena kontratu-motaren arabera EAEn

	2001	2002	2003	2004	2005	%02-03	%03-04	%04-05
Kontratu mugagabeak								
Soldatapekoak (BJA)	473.500	478.200	490.900	516.100	543.380	2,7	5,1	5,3
Baja dakarten istripuak	26.003	26.033	24.239	23.914	25.131	–6,9	–1,3	5,1
Ezbeharren tasa (milako) (A)	54,9	54,4	49,4	46,3	46,2	–9,3	–6,2	–0,1
Aldi baterako kontratuak								
Soldatapekoak (BJA)	192.500	210.900	209.600	203.100	197.100	–0,6	–3,1	–3,0
Baja dakarten istripuak	24.570	24.334	24.377	20.073	19.621	0,2	–17,7	–2,3
Ezbeharren tasa (milako) (A)	127,6	115,4	116,3	98,8	99,5	0,8	–15,0	0,8
B / A	**2,32**	**2,12**	**2,36**	**2,13**	**2,15**			

Iturria: Lan Ministerioaren "Lan-istripuen Estatistika" txosteneko eta Eustaten "BJA"ko datuetan oinarrituta.

III.5.13. Grafikoa. Istripua izandakoen indizea 1.000 okupatutatik, sektoreen arabera



Iturria: OSALANen eta Eustaten datuak.

baterako kontratua duten pertsonen artean kontratu mugagabea dutenen artean baino. Hori adierazi dute Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren 2005. urteko datuek. Zehazki, kontratu mugagabea zuten pertsonen artean ezbeharren tasa %46,2koa izan zen eta aldi baterako kontratua dutenek, berriz, %99,5eko ezbehar-tasa izan zuten.

5.3.2. Lan-gatazkak

2005. urtean geratutakoaren kontra, lan-gatazkek gora egin dute 2006ean. Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) datuen arabera, ekitaldi honetan EAEn 224 greba izan dira; greba horiek 62.577 parte-hartzaile izan dituzte eta lan ez egindako 168.433 lanaldi izan dira. Zenbateko horiek adierazten dutenez, greben kopuruak %27ko hazkundea izan du, %17,8koa parte-hartzaileen kopuruak eta %58,6koa lan ez egindako lanaldiek.

Greben %53,6 hitzarmen kolektiboen negoziazio-prozesuetan sorturiko gatazken ondorioz etorri dira. Greba horiek parte-hartzaileen %88n izan du eragina eta lan ez egindako lanaldien %91,5 sortu ditu. 2006an, negoziazio kolektiboan sortu diren gatazkak aurreko urtean baino gehiago izan dira, bereziki lan ez egindako lanaldiak (+%72,8). Gainera, 2006an negoziazio kolektiboko arrazoiak direla eta sortutako 120 grebetatik, 6 sektore-mailakoak izan dira eta tartean zeuden pertsonen %26,3k hartu zuten parte horietan. Beraz, lan ez egindako lanaldien kopuru osoaren %32,8 betetzen dute horiek.

EAEn lan-gatazken hazkunde hori Araban (+%58,5) eta Bizkaian (+%28,2) izan da batik bat eta maila apalagoan izan da Gipuzkoan (+%5,5). Alabaina, lan-gatazka horien eraginpean dauden langileen bolumenak gora egin du, batik bat, Gipuzkoan (+%66,2), batez bestekoa baino askoz ere maila altuagoan. Galdutako lanaldiei dagokienez. Nabarmentzekoa da Arabako datua, %3,5 egin baitu behera, nahiz eta batez bestekotik gora hazi den greben kopurua. Arrazoia: grebak, asko izan ziren arren, laburrak izan zirela.

Estatuko datuei dagokienez, gatazken kopuruak behera egin du 2006an. Gatazken kopuruak, baina, %0,7 soilik egin du behera (2005ean %5eko beherakada izan zuen), baina lan ez egindako lanaldien bolumenak %8,8ko beherakada izan du. Pertsona parte-hartzaileen kopuruak, dena den, %32koa izan du. Guztira, 664 greba izan ziren eta 431.271 parte-hartzaile (659 gatazkako; 2005ean 495 ziren gatazkako). Galdutako lanaldiak 691.766 izan ziren (12,6 ordu parte-hartzaileko; 18 izan ziren aurreko urtean).

5.3.3. Negoziazio Kolektiboa: Soldataren igoera eta lanaldia

2006. urteari dagokion LHKren *"Negoziazio Kolektiboaren Balantzea"*ren arabera, urte horretan zehar ekin

III.5.14. Grafikoa. Lan-gatazken garapena EAEn



Iturria: LHKren datuen arabera osatutakoa.
(*) Urte horretako greba orokorraren eragina deskontatuta.

III.5.18. Koadroa. Greben, horien eraginpean izandako langileen eta galdutako lanaldien kopurua EAEn

		Kopurua			Hazkunde-tasa %		
		Greben eta ugazab. itxieren kopurua	Greben eraginpean izandako langileak	Galdutako lanaldiak	Greben kopurua	Greben eraginpean izandako langileak	Galdutako lanaldiak
EAE	2004	243	101.058	606.155	10,0	35,1	78,4
	2005	176	53.116	106.188	–27,6	–47,4	–82,5
	2006	**224**	**62.577**	**168.433**	**27,3**	**17,8**	**58,6**
Araba	2004	41	11.681	47.338	7,9	69,7	7,6
	2005	36	6.274	32.990	–12,2	–46,3	–30,3
	2006	**57**	**6.359**	**12.036**	**58,3**	**1,4**	**–63,5**
Bizkaia	2004	116	47.639	197.233	–1,7	98,1	53,2
	2005	85	39.817	56.673	–26,7	–16,4	–71,3
	2006	**109**	**44.543**	**122.216**	**28,2**	**11,9**	**115,7**
Gipuzkoa	2004	86	41.738	361.584	32,3	–4,9	116,1
	2005	55	7.025	16.525	–36,0	–83,2	–95,4
	2006	**58**	**11.675**	**34.181**	**5,5**	**66,2**	**106,8**

Iturria: Lan-harremanetako Kontseilua.

behar zitzaion geure Komunitateko pertsona langileen %65,6engan eragina duten hitzarmen kolektiboak berritzeari. Urte honetan berriz ere portzentajea altua da eta, hein batean bederen, azken urteetan negoziazio kolektiboetan ohikoa den gizarte eragileen arteko adostasun ezaren ondorioz izan da. 2006an, negoziazio kolektiboan, pertsona langileen %24,6entzat soilik lortu dira hitzarmenak. Urtearen amaieran pertsona langileen %41ek izan dute berritu gabeko hitzarmen kolektiborik gabeko negoziazio kolektiboaren eragina.

Datuak eremu funtzionalen (enpresa- eta sektore-hitzarmenak) arabera banakatzen baditugu, ikus dezakegu sektore-hitzarmenetan dela handiena berritze-falta. Sektore-hitzarmenen eragina duten pertsonen %43,4 daude akordioa egiteko eta, aldiz, enpresaren arloan portzentajea %31koa da. Zehazki, sektore-mailan nabarmentzekoa da hitzarmen-kopuru (eta beraz, pertsona langileen kopuru) handi bat hiru urte baino gehiagotan ezin dira berritu. EAEn egindako 121 sektore-hitzarmenetatik 30 berritzeko daude 2004tik. Hitzarmen horiek 108.089 per-

III.5.19. KOADROA. 2005. ETA 2006. URTEETARAKO HITZARTUTAKO SOLDATA-IGOERAK

	Berrikuspen-klausularik gabeko igoera		Berrikuspen-klausulen eraginak		Soldata-igoera orotara	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Araba	3,66	4,04	0,83	0,31	4,49	4,35
Bizkaia	4,27	5,06	0,37	0,08	4,64	5,14
Gipuzkoa	4,30	4,77	0,02	0,01	4,32	4,78
Lurralde-artekoa	4,62	4,75	0,02	0,00	4,64	4,75
EAEn egindakoak	4,23	4,78	0,28	0,08	4,51	4,86
Estatu mailan	2,76	2,59	1,29	0,63	4,05	3,22

Iturria: LHK.

III.5.15. GRAFIKOA. EAEN EGINDAKO HITZARMENEN ERAGINA IZAN DUTEN PERTSONAK. DATUAK EHUNEKOTAN DAUDE



Iturria: LHK.

tsonengan daukate eragina eta, beraz, sektore mailako negoziazio kolektiboaren eragina duten langile guztien %28,3engan.

Oro har, atzerapen handiena Bizkaiko (langileen %56,3 daude hitzarmena berritu gabe) eta lurralde-arteko eremuko (%79,5) hitzarmenetan izan da; azken eremu horretan, gainera, ez da hitzarmen bakar bat ere berritu irakaskuntzaren arloan (irakaskuntza arautuan eta ikastoletan). Alabaina, Gipuzkoan urtea berritzeke dauden hitzarmena duten pertsonen portzentaje txikiagoarekin hasi zen (%44,1), izan ere, 2006. urterako indarrean jarraitzen zuen siderometalurgiako hitzarmenak. Edonola ere, oso gutxi izan dira 2006. urtean sinatutako hitzarmenak eta, horren ondorioz, epealdiaren amaieran berritzeko gelditu dira lurralde-eremu horretan barneratutako pertsonen %25,9engan eragina duten hitzarmenak. Bestalde, aipatu negoziazio kolektiboaren geldialdia askoz ere maila txikiagoan gertatu dela EAEn eragina duten Estatu mailako hitzarmenetan (%17,3koa, hitzarmen horien eraginpean dauden pertsonen mailan).

Laburbilduz, 2006. urtearen amaieran, eta eskuragarri dauden azken datuen arabera (2006/12/31 arte egindako hitzarmenak), 630 hitzarmen zeuden berrituta eta 336.235 pertsonarengan zuten horiek eragina (pertsona horien %77,4 sektore-hitzarmenen babesean zeuden eta gainerako %22,6, berriz, enpresa-hitzarmenen babesean). Eta berritzeko, berriz, 233.654 pertsona langilerengan eragina duten beste 335 hitzarmen zeuden.

Orotara, 2006. urterako hitzartutako batez besteko soldata igoera %4,42koa da (%4,86koa geure Komunitatean egindako hitzarmenetarako eta %3,22koa, berriz, EAEn eragina duten Estatu mailako hitzarmenetarako). Halaber, enpresa-hitzarmenetan, soldata-igoera %3,73koa izan da eta %4,62koa sektore-hitzarmenetan. Oro har, nabarmentzekoa da goranzko joera arina izan dutela 2006. urterako hitzartutako soldatek 2005erako hitzartutakoekin alderatuta (%4,38koa); bestalde, urte horretan garrantzi nabarmena izan du berrikuspen-klausulen eraginak. 2006an, berrikuspen-klausulei edo soldata-bermeari dagozkien klausulei KPIari dagokionez izan dituzten doikuntzek %0,23ko batez besteko eragina izan dute (2005an %0,57koa), 2006ko abenduan inflazioa 2005eko abenduan baino txikiagoa izan baita (%3,5koa). 2006rako berritutako hitzarmenen %46k, gutxi gorabehera (eta aipatu hitzarmen horiek erregulatzen dituzten pertsonen %35,6engan dute eragina), dute berrikuspen-klausula.

Bestalde, berritzen ari diren hitzarmenak lanaldiaren murrizketarako joera izaten ari dira azken urteetan, nahiz eta kopuru txikiagoan izan. Lanaldia murriztu duten hitzarmenen portzentajea nahiko nabarmena izan bada ere (%40,1ekoa), aurreko urteetakoak baino txikiagoa izan da (2005. urtean %45,9koa izan zen). EAEn eragina duten hitzarmen berrituak osotasun gisa hartuta, urteko 2,9 ordu-

ko batez besteko murrizketa izan da eta EAEn soilik egindako hitzarmenetan, berriz, murrizketa hori apur bat handiagoa izan da: 3,6 ordukoa.

Abendura arte berritutako hitzarmenetatik lortutako datuek urteko 1.707 orduko batez besteko lanaldia finkatzen dute. Datu horiek ez dira oso adierazgarriak, negoziatzeko dauden hitzarmen garrantzitsuak falta baitira, esaterako, siderometalurgiarena Araban eta Bizkaian, Bizkaiko eta Gipuzkoako merkataritzaren zati handi bat, irakaskuntza pribatua eta ikastolak.

5.4. Enplegu- eta zerbitzu-politikak EAE-n

Enplegu-politikak langileak lanpostuaren galerak sor ditzakeen arazoen aurrean babesteko eta ziurtatzeko helburuarekin jaio ziren eta lan-barneratze azkarragoa eta aktiboagoa ahalbidetzera zuzendutako zenbait neurriren bitartez garatzen dira. Enplegu-politika Aktiboen (EPA) barnean zenbait motatako neurrien talde heterogeneo bat dago bilduta, prestakuntzatik, enpleguaren sustapenetik, lan-malgutasunetik eta balioaniztasunetik hasi eta informazioraino eta orientazioraino, pertsona horien "enplegAgarritasuna" sustatzen ahaleginduta.

EPAen gaineko eskumenaren titulartasuna Komunitate Autonomoarena baldin bada ere, Autonomia Estatutuaren ondorioz, horiek Estatuko Administrazio Zentralak gauzatzen ditu, ez baitzaio horren eskumena administrazio autonomikoari eskualdatu, Estatu espainiarreko gainerako 16 Komunitate Autonomoetan gertatu den moduan (Enpleguaren eta Lanerako Enplegu-prestakuntzaren Babeserako programen eta Enplegu Zerbitzu Publikoaren funtzioen kudeaketa hauen gain hartu baitute horiek).

III.5.16. GRAFIKOA. PREZIOEN, LANBIDE ARTEKO GUTXIENEKO SOLDATAREN ETA HITZARMEN BIDEZ HITZARTUTAKO SOLDATEN URTEKO HAZKUNDEEN GARAPENA. %



Iturria: LHKren eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren datuen arabera egindakoa.

Beraz, enplegu-politikaren osaketa eta finantzazioa, lehenik eta behin, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak gauzatzen ditu eta kudeaketa hori Estatuko Enplegu-zerbitzu Publikoaren (SPEE) esku utzita dauka. SPEEk kudeatzen du EAEn enplegu-politika aktiboetan egindako gastuaren %75 baino gehiago, Administrazio Zentralak eta Gizarte Segurantzak eta Europako Gizarte-funtsak finantzatuta[6].

Gainera, EAEn Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Udalerriek eta Eskualdeetako Garapen-agentziek ere gauzatzen dituzte zenbait ekintza helburu hori betetze aldera. Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzak, funtsean, Justizia,

III.5.20. KOADROA. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-POLITIKAK EAEN

	Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa-SPEE	Eusko Jaurlaritza
Bitartekaritza, erregistroa eta informazioa	Enplegu-bulegoak	Langai, Lanbide
Orientazioa	OPEA - SIPE	Euskal Orientazio Zerbitzua
Lanerako prestakuntza	INEM, Zentro laguntzaileak	Zentro laguntzaileak
Enplegu-prestakuntza programak, esperientzia-progr., laneratze-programak	Lantegi-eskolak, Lanbide-etxeak, INEM-Tokiko Udalbatzen Programa	Dekretuak (Sustatzaile berriak, Txandakako prestakuntza, Junior-enpresa…).
Diru-laguntzak kontrataziorako	G.S. hobariak, minusbaliatuak, autonomoak, …	Enplegu-programen Dekretuak
Prestakuntza Iraunkorra	Fundazio Tripartita eta HOBETUZ	HOBETUZ

[6] Espainian Europako Gizarte-funtsak (EGF) Komunitate Autonomoen artean banatzea kudeatzen duen Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren mende dagoen Europako Gizarte-funtsaren Unitate Administratzailearen eta Estatuko Administrazio Nagusiaren kudeaketa-erakundeen bitartez. EGFk Espainiako enplegu-politika aktiboei 1997-2003 epealdian egindako finantza-ekarpena %25ekoa izan dela kalkulatzen da.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bitartez, Enplegu eta Prestakuntzako zenbait programa kudeatzen ditu. Bigarrenik, zenbait orientazio- eta bitartekaritza-jarduera gauzatzen ditu, halaber, Egailan SAren mende dagoen Lanbideren bitartez. Administrazio Autonomoak kudeatutako politika aktibo guztiek EAEn gauzatutako EPAen kopuru osoaren %11 inguru osatzen dute eta Gobernu Autonomoak horien %55 eta EGFk %40 finantzatzen du.

Foru Aldundiei dagokienez, alde handiak daude lurralde historikoen artean ekintza-mota horiei dagokienez. Esaterako, batetik, Araban eta Gipuzkoan esku-hartze maila txikiagoa da eta Bizkaian, aldiz, bai ekintzaK, bai sortutako egituraK, zabalagoak dira. Edonola ere, instituzioek finantzatzen dituzten EPA guztien %80 zuzenean kudeatzen dituzte (beraz, EAEko EPAen %5 inguru) eta gainontzeko %20 entitate kolaboratzaileekin egiten dute, funtsean, prestakuntza arlokoak direnak, edo Eusko Jaurlaritzarekin, Udalarekin edo beste administrazioekin batera finantzatzen dituzte.

Tokiko Erakundeak (tokiko garapen-agentziekin batera) dira, funtsean, enplegu-politika aktiboen kudeatzaileak. EAEn egindako gastu osoaren ia %3 finantzatzen badute ere, hiru bider bolumen handiagoa kudeatzen dute Eusko Jaurlaritzak, Administrazio Zentralak-SPEEk eta, kopuru txikiagoan, Foru Administrazioak jasotako finantzazio-kidetzari esker.

Azkenik, eta kudeaketaren alderik garbienean, irabazi asmorik gabeko elkarte eta instituzio pribatuak, enpresa eta sindikatu mailako erakundeak eta arlo horietan ekintzak kudeatzen dituzten prestakuntza-zentroak daude, nagusiki, prestakuntzari, barneratzeko arazoak dituzten gizarte-taldeen eta pertsonen gizarteratzeari eta laneratzeari dagokienez.

5.4.1. Lan Ministeriotik-SPEEtik gauzatutako politika aktiboak

a) Lan-bitartekaritza

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SPEE), lehen INEM zena, da lan-merkatuan bitartekaritzaren lehen erakunde erantzulea, politika pasiboen arduraduna izateaz gain (langabeziako diru-laguntzen aitortza eta ordainketa). 2005an, informazioa daukagun azken urtean, gauzatutako kontratuen edo SPEEk EAEn erregistratutako enpleguen kopuru osoak %2,1eko hazkundea izan du, aurreko urtean baino lau puntu gutxiago. Beraz, 786.447 enplegu erregistratu dira (zenbateko hori ez dator bat kontratuen kopuruarekin, erregistro-data —sisteman sartzeko data— eta kontratua indarrean jartzeko data ez baitatoz bat).

Enplegu gehienak SPEEri jakinarazten zaizkio erregistratzearen aurreko urrats gisa eta, aldiz, erakunde horrek

III.5.17. GRAFIKOA. SPEE-INEMEN ERREGISTRATUTAKO ENPLEGUAK, ENPLEGATZEKO BIDEAREN ARABERA



Iturria: SPEE-INEM (Informatika eta Estatistika Azpizuzendaritza Nagusia).

III.5.21. KOADROA. ENPLEGURAKO ETA AUTOENPLEGURAKO LAGUNTZARAKO ORIENTAZIO PROFESIONALEKO EKINTZEN ONURADUNAK

	SPEE			Erakunde laguntzaileak			Guztira		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006
Araba	703	2.637	3.415	3.196	2.094	514	3.899	4.731	3.929
Bizkaia	1.453	2.250	0	10.459	4.616	4.799	11.912	6.866	4.799
Gipuzkoa	807	5.417	710	4.895	8.105	7.923	5.702	13.522	8.633
EAE	**2.963**	**10.304**	**4.125**	**18.550**	**14.815**	**13.236**	**21.513**	**25.119**	**17.361**

Iturria: SPEE (Zerbitzu Teknikoen Azpizuzendaritza Nagusia),

zuzenean kudeatutakoek[7] behera egin dute bosgarren urtez jarraian. 2005. urtean, guztira, 63.680 enplegu izan ziren, 2004an baino –%22 gutxiago. Horren eraginez, SPEEren azken urteetako enpleguen kopuru osoaren proportzioak behera egiten jarraitu du eta 2005. urtean %8,1ekoa baino ez da izan. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa eta Komunitate Autonomoetako EZPak badira ere pertsona langabetuak lanean jartzeko zerbitzuko lanak gauzatzen dituzten eragile publiko nagusiak, badira lan hori aurreikusten duten eta legez lan-merkatuko bitartekaritza-ekintzak gauzatzeko errekonozituta dauden irabazi asmorik gabeko erakunde laguntzaile batzuk. Zehazki, EAEn funtzio horiek garatzen dituzte 12 enplegu-agentziek.

b) Orientazioa: irabazi asmorik gabeko enplegu-agentziak eta enplegurako eta autoenpleguaren laguntzarako orientazio-zerbitzuak

Enplegu-zerbitzu Publikoek gauzatzen duten beste zerbitzuetako bat orientazioa da; SPEEk haren Enplegu-bulegoen bitartez eta komunitate autonomoek haien zerbitzuen bitartez eskualdatutako kudeaketaren bidez gauzatzen du zerbitzu hori. SPEEz eta erakunde laguntzaileez gain, badira irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuk, esaterako, enplegurako lan-orientazioko eta autoenplegurako laguntzarako zentroak (OPEA). Enplegu-zerbitzu Publikoekin batera egiten dute lan bertako Enplegu-bulegoen izena emandako eskatzaileen enplegu-aukerak hobetzeko ekintzak gauzatzeko.

17.361 enplegu-eskatzailek laguntza-motaren bat jaso zuten enplegurako orientaziorako; aurreko urtearekin alderatuta, %30,8ko beherakada izan da, Beherakada horren arrazoia, funtsean, SPEEk zerbitzua emandako pertsonen beherakadan datza /–%60); aldiz, horrelako ekintzak gauzatzen dituzten Erakunde Laguntzaileen kopuruak %10,7 egin du behera.

c) Lanerako prestakuntzako eta enplegu-prestakuntzako ekintzak, esperientziako ekintzak eta laneratze-ekintzak

Langabetutako langileentzako lanerako prestakuntzako ekintzak Prestakuntza- eta Laneratze-plan Nazionalaren eta Lantegi-eskolen eta Lanbide-etxeen, Promozio- eta Garapen-unitateen eta Enpresa-ekimeneko Zentroen bitartez gauzatzen dira. SPEEk lanerako prestakuntzako ekintzak egiten ditu eta haren zentroetan gauzatzen ditu horiek (EAEn bi dauzka, bat Lasarten eta bestea, berriz, Sestaon), eta, nagusiki, Zentro Laguntzaileetan homologatutako prestakuntza-espezialitateetan gauzatutakoak finantzatzen ditu kontratu-programen edo lankidetza-hitzarmenen bitartez. Are gehiago, prestakuntza-ekintza horien %95 baino gehiago finantzatzen ditu. Jarduera horien zati bat Europako Gizarte-funtsak finantzatzen du eta doakoak dira ikasleentzat. 16 eta 65 urte bitartean izan behar dituzte eta ondorengo talde hauetakoren batean egon beharko dute:

- 25 urtetik beherako langabetuak: prestakuntza-profesional eskasak edo desegokiak dituzten iraupen laburreko eta luzeko langabetuei eta emakumeek ordezkaritza txikia duten espezialitateetan emakumeei zuzenduta.

[7] Kontuan hartuta kudeaketa zuzeneko izendapena INEMeko zerbitzuak pertsonei enplegua modu aktiboan lortzea izateaz gain, beste egoera batzuetan ere badatzala, esaterako, enplegua lortzea aurkezpen-txartelarekin edo INEMeko iragarki-oholaren bitartez, INEMek gauzatu ez dituen kontratazioak baina azken sei hilabeteetan INEMeko bulegoekin nolabaiteko harremana izan duten pertsonenak direnak, eta abar. Gainera, datu horiek aurkezteko modua aldatu egin da 2005eko maiatzetik SISPE martxan jarrita, enplegu-politika aktiboen kudeaketa-eredu mistoa; enplegu-politika aktibo horiek enplegu-kudeaketarako zerbitzu autonomikoei eskualdatu zitzaizkien, SPEE-INEmen eskumena den langabeziako prestazioei dagozkiena barne, eta serie estatistiko berri bat abiatu zen horrela, sistema berriaren bitartez lorturiko datuen arabera. Sistema hori martxan jartzeak eragin estatistiko handia izan du langabezia erregistratua neurtzerakoan, datuak maiztasun handiagoan eguneratuta definituriko prozesu berrien ondorioz.

III.5.23. Koadroa. Lanerako prestakuntzako ikastaroetan prestatutako ikasleak (FIP plana) 2006 EAEn. Behin-behineko datuak

Ebaluazio positiboarekin prestat.[1]	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Iraupen luzeko langabetuak	**1.227**	151	705	371
25 urtetik beherakoak	**1.841**	331	925	585
30 urtetik beherakoak	**4.132**	688	2.105	1.339
Emakumezkoak[2]	**803**	135	292	376

[1] Baztertuta daude ebaluazio negatiboa izan duten ikasleak, baja sortu dutenak ikastaroak iraun zuen bitartean lana lortu dutelako edo prestakuntzan jarraitu dutenak 2006. urtea amaitutakoan ere.
[2] Ordezkaritza txikia daukaten familia profesionaletan prestakuntza jasotzen ari diren emakumeak soilik kontatuko dira.
Iturria: SPEE-INEM (Zerbitzu Teknikoetako Azpizuzendaritza Nagusia).

III.5.22. Koadroa. INEMek EAE-n ematen dituen datuak ikastaroak, horiek emateko zentroen arabera banatuta[1]

		Guztira	Lanerako Prest. Zentroak	Zentro Laguntzaileak
2003	**EAE**	**1.006**	**109**	**897**
2004	Araba	132	4	128
	Bizkaia	689	40	649
	Gipuzkoa	291	4	287
	EAE	**1.112**	**48**	**1.064**
2005	Araba	139	3	136
	Bizkaia	542	39	503
	Gipuzkoa	300	14	286
	EAE	**981**	**56**	**925**

(1) 2005ean amaitutako guztiak. Ez dira kontatu 2006an martxan jarraitzen duten ikastaroak.
Iturria: SPEE (Informatika eta Estatistika Azpizuzendaritza Nagusia).

- 25 urtetik gorako langabetuak: oinarrizko prestakuntzaren eta hobekuntza edo birziklapen profesionalaren bila dabiltzan iraupen laburreko eta luzeko langabetuei eta emakumeei zuzenduta (bai epe labur, bai luzeko langabetuak izan, 5 urtetan lanik egin gabeak, ordezkaritza txikia duten espezialitateetan eta familia mailako erantzukizunak dituztenentzat).
- Beste multzo batzuk: Minusbaliatuak (Gizarte Zerbitzuetako Institutu Nazionalarekin lankidetzan); migratzaileak eta haien senideak (Emigrazioaren Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiak edo hark beste erakunde batzuekin egina); askatasunaz gabetutako egoeran dauden pertsonak, eta abar.
- Hezitzaileak: Plan honetan parte hartzen duten irakasleen prestakuntza edo eguneratze tekniko-pedagogiakora zuzendutakoak.

Orotara, SPEEk 981 prestakuntza-ekintza finantzatu zituen 2005. urtean **(urte horretakoa da daukagun azken informazioa);** ekintzen bolumenak %12ko beherakada izan du aurreko urtearekin alderatuta (soilik Bizkaiko zentro laguntzaileetakoen bolumenak, SPEEren berezko zentroetan egindakoen bolumenak %17ko hazkundea izan baitu). Halaber, parte-hartzaileen (ebaluazio positiboarekin prestatutakoak) kopuruak ere beherakada izan du, %18koa, lehen aipatu dugun bezala, Bizkaian gertaturiko beherakadaren eraginez, Araban eta Gipuzkoan mantendu egin baitziren aurreko urteko datuak. Orotara, 16.394 alta eman dira aurten (gehitutakoak) eta 15.541 baja (ebaluazio positiboarekin amaitu duten ikasleak 11.541, gehi 428 ebaluazio negatiboarekin amaitu dutenak eta ikastaroa amaitu ez duten 3.578 pertsona lanean hasi direlako edo beste arrazoiren bat dela medio).

Enplegu eta prestakuntzako prestakuntza-jarduera gisa, SPEEk EAEn dauden Lantegi-eskolak, Enplegu-lantegiak eta 3 Lanbide-etxeak finantzatzen ditu. Horiek laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten 25 urtetik beherako gazte langabetuei zuzenduta daude. Lantegi-eskolak eta Lanbide-etxeak enplegu-prestakuntzako programak dira eta haien helburua laneratzea da presta-

III.5.24. Koadroa. EAE-n lantegi-eskoletan eta Lanbide-etxeetan parte hartzen dutenak

	Guztira			Lantegi-eskola			Lanbide-etxea*-enplegu-lantegia		
	Guztira	Gizonezk.	Emakum.	Guztira	Gizonezk.	Emakum.	Guztira	Gizonezk.	Emakum.
2003	1.103	610	493	254	213	41	849	397	452
2004	1.112	634	478	226	188	38	886	446	440
2005	1.122	595	527	151	133	18	971	462	509
2006	**1.219**	**623**	**596**	**154**	**118**	**36**	**1.065**	**505**	**560**

Iturria: SPEE-INEM (Zerbitzu Teknikoetako Azpizuzendaritza Nagusia).

kuntzaren eta jardun profesionalaren aldizkatzearen bitartez, ondare historikoa, kulturala edo naturala berreskuratzearekin lotura duten eginbeharretan. Enplegu-lantegiak laneratzeko zailtasunak dituzten 25 urte edo gehiagoko langabetuei zuzenduta daude (epe luzeko langabetuak, 45 urte baino gehiagoko langileak, emakumezkoak, pertsona ezgaituak), interes orokorreko edo gizarte mailako intereseko enplegu-eremuetan. Azkenik, SPEEk tokiko udalbatzekin batera ere egiten du lan gizarte mailako intereseko enplegu-programen barruan eta aurreikusita daude horietarako diru-laguntza publikoak laneratze-esperientziako planak gauzatzeko, tokiko udalbatzek interes orokorreko edo gizarte mailako intereseko edo tokiko Administrazio baten mendeko edo hari lotutako erakundeetako lanetarako eta zerbitzuetarako kontratatuko dituen langile langabetuen taldeen lanerako gaitasuna hobetze aldera.

d) Enplegua Sustatzeko Programak

Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren enplegua pizgarri ekonomikoarekin sortzea bultzatzeko programen artean, nabarmentzekoa da enplegua sustatzearen hobaria; funtzio honetan baliabide gehien biltzen duena izateaz gain, EAEn gauzatutako PAESen multzotik baliabide gehien biltzen duena ere bada. Kontratazio mugagabea sustatzera eta, aldi berean, zailtasun handienak dituztenen taldeei (iraupen luzeko langabetuak, emakumeak, gazteak, pertsona ezgaituak eta berrogeita bost urtetik gorako langileak), arreta ematera zuzendutako laguntza horiek 1997ko[8] lan-erreformaren ostean gauzatu ziren. Bestalde, 45/2002 Legeak 2002ko enplegu-sustapeneko Programako zenbait talde langabeturen kontratazio mugagabeagatiko hobariak handitu zituen eta hiru programa berri ezarri zituen (langabeziako laguntzak jasotzen dituztenen kontratazioa bultzatzeko, prestakuntzan dauden langileak ordezkatzen dituzten bitartean; langabeziako laguntzak eta besteren konturako lana bateragarri izan daitezen ahalbidetzeko; eta langabetuen mugigarritasun geografikoa sustatzeko).

III.5.18. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOAN HOBARIAK ENPLEGUA SUSTATZEAGATIK



Iturria: SPEE (Zerbitzu Teknikoen Azpizuzendaritza Nagusia).

Orduan, etengabeko hazkunde bat sortu zen kontratazioaren hobari-mota horietan. 2006an 207.988 mila eurokoak dira, iazkoak baino %14,5 handiagoak. Onura horiek jasotako langileak 215.532 dira (+%11,9, 2005. urtearekin alderatuta); horrek esan nahi du pertsona onuradun bakoitzak batez besteko 965 euroko hobaria izan duela, aurreko urtean baino 22 euro handiagoa.

Beste programa osagarri batzuek Tokiko garapena Sustatzeko enplegua eta I+E gisa kalifikatutako proiektuak eta enpresak bultzatzea eta enplegu autonomoaren sustapena eta minusbaliatuaren Laneratzea dituzte helburu. 2006. urteko datuek adierazten dute guztira 34,1 milioi euro eman zirela ekintza horiek guztiak garatzeko. Horien banaketa oso egonkorra izaten ari da azken urteetan. 2006an, laguntza horien %87 Minusbaliatuaren Laneratzera zuzendu ziren, %8 Enplegu Autonomoaren Sustapenera eta gainontzeko %5 Tokiko Ekimenetara; azken horiek, oinarrian, kontratazio mugagabeak eta tokiko enpleguko eragileak diruz laguntzeko.

5.4.2. Eusko Jaurlaritzak Sustatutako politika aktiboak

a) Enplegua sustatzeko programak

Eusko Jaurlaritzak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren bitartez gauzatzen dituen enplegu-poli-

[8] "Enpleguaren Egonkortasunerako Konfederazio arteko Hitzarmena", maiatzaren 16ko 8/1997 Erret Dekretuan, Lan-merkatua Hobetzeko eta Kontratazio Mugagabea Sustatzeko Presazko Neurrien gaineko abenduaren 26ko 63/1997 Legean eta kontratazio mugagabea sustatzeko Gizarte Segurantzako eta izaera fiskaleko hobariak arautu dituen abenduaren 26ko 64/1997 Legean jasotakoa. Enplegua sustatzeko programak 1999tik 2003. urtera arte, Neurri fiskalen, administratiboen eta gizarte mailakoen Legean barneratuta daude eta urtero, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearekin batera, hobarien sistema eguneratzen dute aldizka (Neurri Fiskalen, Administratiboen eta Gizarte Mailakoen gaineko abenduaren 30eko 53/2002 Legea —2002ko abenduaren 31ko EAO—).

III.5.25. Koadroa. Lan eta gizarte gaietako ministerioaren enplegua sustatzeko programak EAE-n (milaka euro)

	Guztira*	Tokiko garapenaren Sustapena eta I+E proiekt. eta enpres. bultzat.	Enplegu Autonomoaren Sustapena	Minusbaliatuaren Laneratzea
2002	22.271	2.513	2.937	16.820
2003	22.934	2.638	3.024	17.233
2004	26.467	2.294	2.820	21.353
2005	28.322	2.295	2.565	23.462
2006	**34.141**	**1.885**	**2.722**	**29.533**

(*) Kopuru osoaren eta programen batuketaren arteko diferentzia Kooperatibetan eta SLetan Enplegua Babesteko programari dagokio.
Iturria: SPEE (Zerbitzu Teknikoen Azpizuzendaritza Nagusia).

tika aktiboak nabarmen aldatu ziren 2003. urtean *enplegurako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuaren eta Kultura Ekintzailea eta Enpresak Sortzea Babesteko abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren onespenarekin*.

2003-2006 Instituzioen arteko Planean oinarria duen lehen Dekretuak laneratzeko zailtasunak dituzten talde langabetuen kontrataziorako laguntza berriak arautzen ditu eta Dekretu horrek indargabetuko dituen zenbait arautan bilduta zeuden aurreko ekintzak pilatzen ditu. Bestalde, *328/2003 Dekretuak* langabetuek osatutako enpresak sortzea babesteko diru-laguntzak ezartzen ditu eta indargabe utzi du *autoenplegua sustatzeko neurriak arautzen zituen abenduaren 24ko 305/1996 Dekretua.*

Dekretu horiek gauzatzen dituzten Enplegurako Laguntzak bost ekintza-lerrotan kokatu behar dira:

- Lehen laguntza-lerroa lan merkaturako sarbide-arazo handienak dituzten taldeen laneratzearen alde egitera eta kontratazio mugagabea eta aldi baterako lana mugagabe bihurtzea sustatzera bideratuta dago.
- Laguntzen bigarren lerroak enpresetan langile-taldeak berritzea babesten du txandakatze-kontratuei laguntzak emanda, bai langabetu gisa inskribatuta dauden pertsonekin, esaterako, baita enpresarekin iraupen jakin bateko kontratua sinatuta daukaten langileekin ere. Bigarren lerro honek, gainera, laguntzak ematen ditu sozietate-kooperatibatan langile-taldeak berritzeko.

III.5.26. Koadroa. Eusko Jaularitzaren enplegua sustatzeko programak 2006an. (Diruz lagundutako langileak, Diru-laguntzak milaka eurotan eta batez besteko Diru-laguntza eurotan)

	EAE			Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
Enplegu-zerbitzuaren Programak	Langil. Kop.	Diru-lag. guztira	Diru-lag. batez b. (€)	Langil. Kop.	Diru-lag. guztira	Langil. Kop.	Diru-lag. guztira	Langil. Kop.	Diru-lag. guztira
Kontratazioa (1)	1026	4.470,5	4.357	418,4	587	2.654,8	355	1.397,2	1026
Pertsona toxikomano ohien kontratazioa (1)	54	674,5	12.491	30,5	38	490,7	13	153,1	54
Langile-taldeak berritzea (2- txandako kontratua)	1061	5.366,3	5.058	845,6	449	2.265,8	436	2.254,9	1061
Langile-taldeak berritzea koop. (2- laguntzak erretiroa hartzen duen bazkidearentzat)	52	272,1	5.233	4,5	2	12,0	49	255,6	52
Langile-taldeak berritzea koop. (2- sozietate-kontratu berriak)	80	729,3	9.116	22,7	8	58,1	69	648,5	80
Lanerako denboraren banaketa (3)	67	127,3	1.900	7,9	23	42,5	40	76,8	67
Prestakuntza enplegu-program. (4)	387	2.761,2	7.135	524,4	231	1.657,2	85	579,5	387
Laneko eta familiako bizitzen arteko oreka (5-Pertsona langileak)	10.706	19.197,	1.793	3.968,0	4.933	9.000,6	3.518	6.229,0	10.706
Laneko eta familiako bizitzen arteko oreka (5-Enpresak)	1.002	2.208,6	2.204	380,8	396	880,5	441	947,1	1.002
Enpresen sorkuntza (6)	1.477	8.862,0	6.000	1.182,0	713	4.278,0	567	3.402,0	1.477
Programak guztira	**15.912**	**44.688,8**	**2.808**	**7.384,8**	**7.380**	**21.340,2**	**5.573**	**15.943,7**	**15.912**

329/2003 Dekretua: (1). II. Kap; (2). III. Kap.; (3) IV. Kap.; (4) V. Kap.; (5) VI. Kap.; 328/2003 dekretua: (6) IV. Kapitulua
Iturria: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

III.5.19. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ENPLEGU-PROGRAMEN EMAITZEN GARAPENA



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

- Laguntzen hirugarren lerroak lan-denboraren banaketa bultzatzen du eta, horretarako, laguntzak ematen dira aparteko lanorduak ezabatzeko eta lanaldia murrizteko edo libratzeko kasu jakinak hitzartu ahal izan dituzten langileak, bazkide langileak edo laneko bazkideak ordezkatzeko kontratazioetarako.
- Laguntzen laugarren lerro bat toki-mailan enplegu-maila hobetzera eta laneratzea sustatzera zuzenduta-ko neurriak arautzen dituen Dekretuak zehazturikoaren arabera diru-laguntza jaso duen prestakuntza-fasea duten Enplegu-Prestakuntza Proiektuen barruko lan-kontratuak diruz laguntzera zuzenduta dago.
- Laguntzen bosgarren lerroa laneko eta familiako bizitzen arteko orekan laguntzera zuzenduta daude, sei urtetik beherako edo adin horretatik gorakoak diren baina minusbaliotasunen bat duten seme-alaben zainketarako eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzen duten besteren konturako pertsona langileei laguntzak emanda, baita horiek ordezkatzeko pertsona langabetuak kontratatzen dituzten erakunde pribatuei laguntzak emanda ere.

Enplegu-programa horien emaitzak 2006an 15,912 onuradunengana iritsi dira pertsonak eta erakundeak kontuan hartuta (2005. Urtean baino 673 gehiago); beraz, BJAren arabera dagoen pertsona langabetuen %26,7ko zenbatekotik %39,3ra pasatu da eta 44,7 milioi euroko diru-laguntzak eman dira (aurreko urtean baino bi gehiago). Kasu horretan, bai langile parte-hartzaileek, bai diru-laguntzen zenbatekoek %4,4ko hazkundea izan dute 2005. urtearekin alderatuta; aurreko bi urteetan parte-hartzaileen kopuru handiagoa zen diru-laguntzena baino eta, horren eraginez, diruz lagundutako batez besteko zenbatekoa murrizten ari zen.

Programa horien emaitza asko laneko eta familiako bizitzaren arteko orekaren atalak zehazten ditu, langileen eta enpresen artean onuradunen %73,6 (%70 ziren 2005. urtean) eta diruz lagundutako zenbatekoen %48 (%46 2005. urtean), nahiz eta bi kasuetan gainontzeko programek baino gutxiago egin duten gora.

b) Lanerako Prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren prestakuntza-prometan aldaketa nabarmenak gertatu ziren 2004. urtetik, *enplegu-maila hobetzera eta laneratzea sustatzera zuzendutako neurriak arautu dituen abenduaren 23ko* ***327/2003,*** *enplegurako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 eta Kultura Ekintzailea eta Enpresak Sortzea Babesteko abenduaren 23ko 328/2003 dekretuen onespenarekin,* indarrean mantenduta *Enpresa-elkartetarako eta Erakunde Sindikalei haien jarduketa-eremuko berezko gaietan haien giza-baliabideen kualifikazioa hobetzera zuzenduta diru-laguntzak ematea arautu duen uztailaren 19ko*

III.5.27. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren enplegu- eta trebakuntza-zuzendaritzaren prestakuntza-programak eta -ekintzak

	2005			2006		
	Ekintza/ espediente kop.	Bertaratutakoak	Diru-laguntza (€)	Ekintza/ espediente kop.	Bertaratutakoak	Diru-laguntza (€)
Enplegu-maila hobetzeari lotutako prestakuntza/ prestakuntza teoriko-praktikoa (II. Kapitulua, 327/2003 Dekretua)	333	3.183	7.606.157,39	409	5.139	10.452.853,06
Enplegu-maila hobetzeari lotutako prestakuntza/ praktikak enpresetan (II. Kapitulua, 327/2003 Dekretua)	42	369	205.295,82	104	767	447.108,26
Enpresa-sustapena babesteko prestakuntza (III. Kapitulua, 328/2003 Dekretua eta diru-laguntza zuzena)	231	3.584	1.436.887,27	254	4.044	1.525.587,97
Kultura ekintzailea zabaltzea (II. kapitulua, 328/2003 Dekretua eta pertsona ekintzailearen eguna)	59	5.545	299.884,28	58	5.500	284.350,00
Junior enpresa	87	401	111.720,70	1	15	762,30
Pertsona unibertsitarioen enplegu- eta laneratze-zentroak				2	800	348.500,00
Terrorismo-biktimak	1	20	60.000,00	1	30	60.000,00
Enplegurako orientazio-zerbitzua (I. Kapitulua, 327/2003 Dekretua)	30	34.802	6.280.476,51	31	45.405	5.278.490,40
Prestakuntza enpresa-erakundeetan	191	4.015	303.832,30	189	6.451	394.200,80
Prestakuntza sindikatu-erakundeetan	103	12.028	789.932,15	107	12.432	807.799,19
Guztira			**17.094.186,42**			**19.599.651,98**

Iturria: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

191/2003 dekretua eta Junior-Enpresa programa arautu zuen abenduaren 26ko 303/2000 Dekretua.

Guztira, Enplegu- eta Prestakuntza-zuzendaritzaren Programak eta Ekintzek 2006an 19,6 milioi euroko ordainketa ekarri zuten, aurreko urtean baino %14,7 gehiago. Funts horien erdiak enplegu-maila hobetzeko Prestakuntza teoriko-praktiko atalera bideratu ziren eta horien ekintzetan, guztira, 5.139 pertsonak hartu zuten parte; beraz, 2.000 euro baino gehixeagoko ordainketa ekarri zuen horrek. Garrantziaren ordena jarraituta, horren ondoren daude enplegurako orientazio Zerbitzuaren eginbeharrak, 45.000 pertsona baino gehiago hartu baitzituen (2005. urtean baino +%30,5 gehiago) eta 5,3 milioi euroko gastua ekarri zuen, zenbateko osoaren %26,9koa, alegia.

Hurrengo postuan, nabarmentzekoak dira enpresetan praktikak eginez enplegu-mailaren hobekuntzari lotuta dauden Prestakuntza-ekintzak, parte-hartzaileko 583 euroko batez besteko gastua baitute eta ia milioi erdi euroko ordainketa egitea ekarri baitzuten. Maila horretan, nabarmentzekoak dira 2005. urtearekiko izandako hazkundeak, bai parte-hartzaileen kopuruarekiko (+%108), baita horretara bideraturiko zenbatekoarekiko (+%108).

c) Enplegu-zerbitzuak: Lanbide

"Lanbide- Euskal Enplegu-zerbitzua" orientaziokoa, laguntzakoa eta lanerako prestakuntzakoa da eta 2003-2006ko Instituzioen arteko Planetik abiatuta jarri zen martxan. Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren mende dago eta, bitartekaritza-zerbitzu horiek emateaz gain, Informazioko, Orientazio profesionaleko eta Enplegu-sustapeneko beste zerbitzu batzuk ere ematen ditu.

Lanbidek 2006. urteko laugarren hiruhilekoan 36.359 enplegu-eskaera[9] jaso zituen eta, iturri horren arabera, horien %79,2 langabezia egoeran daude (hau da, 28.781 pertsona; aldiz, BJAren datua 2006ko laugarren hiruhilekorako 34.300 pertsonakoa da). Gainera, zerbitzu horren

[9] Ez daude eskuragarri 2006. urteko datu bateratuak. 2005. urteari buruzko informazioari dagokionez, irakurlea urte horretako Memoria Sozioekonomikora bideratuko dugu.

III.5.28. KOADROA. ENPLEGU-ESKATZAILE AKTIBOAK LANBIDEN, IV. HIRUHIL. 2006

	Guztira	% s/ guztira	% langabezia BJA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
16-24	7.032	19,3	8,1	3.630	3.403
25-34	14.731	40,5	5,6	5.855	8.876
35-44	9.129	25,1	3,8	3.636	5.493
45-54	4.612	12,7	2,3	1.818	2.794
55 eta +	848	2,3	2,2	381	467
Guztira	**36.359**	**100,0**	**4,1**	**15.324**	**21.035**

Iturria: Lanbide.

eta horren laguntzaileak diren beste zentro batzuen bitartez, 24.802 lanpostuko eskaintza dute (2005. urtean baino 11.097 gehiago). Lanbideren bitartez gehien eskainitako eta eskatutako postuei dagokienez, aurreko urteko titulazio baxuko edo/eta espezializazio eskaeraren beheranzko joera mantendu da, batik bat zerbitzuen sektorean (ohikoa izaten da enplegu-zerbitzu publikoetan, "kalitatezko" enpleguak aukeraketa pertsonaleko enpresa pribatuen bitartez bideratzen baitira). Nabarmentzekoak dira, bestalde, dituen enplegagarritasun-maila altuengatik, makineria-konpontzaile mekaniko eta elementu elektrikoen muntatzaile postuak, industriarekin eta eraikuntzarekin lotura daukatenak.

5.4.3. *Etengabeko prestakuntza profesionala EAEn*

Etengabeko prestakuntza profesionala 2006. urtean geure herrialdeko Prestakuntza Profesionaleko Sistema osatzen duten hiru azpisistemetariko bat da, langile enplegatuei etengabeko prestakuntza eta birziklapena emate aldera.

Pertsonen eta enpresen arteko etengabeko prestakuntzako ekintzak EAEn Etengabeko Prestakuntza Profesionaleko Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Enpleguko Prestakuntzarako Fundazio Tripartitaren[10] bitartez kudeatzen dira. Dena den, 2006. urteari zegokion Etengabeko Prestakuntzako Deialdien kudeaketa ez zuen HOBETUZek gauzatu, Eusko Jaurlaritzaren Etengabeko Ikaskuntzaren Zuzendaritzak baino, eta HOBETUZen lana Eusko Jaurlaritzak onetsitako 2005eko deialdiak kudeatzera mugatu da.

Ekintza horien finantzazioa pertsona soldatapekoen nominen gaineko prestakuntza profesionaleko kuotekin, Europako Gizarte-funtsak horretarako bideraturiko kopuruekin eta Aurrekontu publikoetatik, bai Administrazio Zentralarenetatik (SPEEk ezarritakoak), baita Eusko Jaurlaritzarenetatik ere, HOBETUZen kasuan, esaterako, bideraturiko diru-kopuruekin gauzatzen da. 2004. urtetik HO-

III.5.30. KOADROA. ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO EKINTZAK EAE-KO ENPRESETAN EPFT-REN BITARTEZ SOLDATAPEKOEN MAILAREN ARABERA

	Enpresa prestatzaileak				Jakinaren gainean jarritako parte-hartzaileak			
	2005	2006	Bar. %	Estatua %	2005	2006	Bar. %	Estatua %
1etik 5era	524	732	39,7	2,2	826	1.298	57,1	2,7
6tik 9ra	279	365	30,8	3,2	842	1.212	43,9	4,9
10etik 49ra	1.117	1.486	33,0	5,0	8.449	10.323	22,2	6,4
50etika 99ra	382	447	17,0	6,5	6.499	7.356	13,2	7,4
100etik 249ra	245	289	18,0	6,4	7.997	8.647	8,1	6,3
250etik 499ra	94	113	20,2	7,3	5.740	6.627	15,5	6,8
500etik 999ra	38	41	7,9	6,1	4.657	4.724	1,4	5,1
1.000tik 4.999ra	32	34	6,3	7,0	8.640	11.117	28,7	5,4
4.999 baino geh.	3	3	0,0	3,6	7.582	9.006	18,8	3,2
Guztira	2.717	3.514	29,3	4,0	51.298	60.455	17,9	5,3

Iturria: Enplegurako prestakuntzarako Fundazio Tripartita.

[10] 2004. urteko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zen Etengabeko Prestakuntza Profesionalerako Azpisistema (1046/2003 Erret dekretuak arautzen duena) eta 2004. urteko azaroan gertatu zen FORCEM eta Espainiako Etengabeko Prestakuntzaren kudeaketaz arduratzen den Enplegurako prestakuntzarako Fundazio Tripartitaren arteko fusioa eta, beraz, Enplegurako Prestakuntzarako Estatu-fundazioa osatu arte (1046/2003 Erret Dekretuak aurreikusita dauka aldaketa hori eta haren patronatuan barneratzen ditu Komunitate Autonomoetako ordezkariak), hark hartuko ditu bere gain, aldi baterako bederen, Eredu Berrian eskatuko zaizkion ekintzak.

III.5.29. Koadroa. Puestos de trabajo más ofertados y demandados a través de Lanbide. IV trimestre 2006

Lanbidea	Eskaintzak	Eskaria	EI*
Eskaera handiena dutenak			
Garbiketako langileak edo garbitzailea, oro har	884	6.668	13,3
Saltoki bateko saltzailea, oro har	282	5.801	4,9
Administrazioko langilea, oro har	469	5.431	8,6
Hipermerkatuko apal-betetzailea	215	3.993	5,4
Bulegoetarako harreragile-telefonista, oro har	100	3.320	3,0
Industria metalurgikoko langile	417	3.088	13,5
Eskaera handiena dutenak (aurrekoak ez daude sartuta)			
Merkataritzako agentea	861	1.025	84,0
Elkarrizketatzailea / inkestagilea	687	219	313,7
Zerbitzaria, oro har	542	1.329	40,8
Administrazioko langilea, oro har	469	5.431	8,6
Sukaldaria, oro har	451	585	77,1
Zamalanetako langilea	371	3.051	12,2
Enplegagarritasun-indizearen arabera (aurrekoak ez daude sartuta)			
Eraikuntzako makineriaren mekaniko konpontz.	23	3	766,7
Nekazaritz. makineriaren mekaniko konpontz.	5	1	500,0
Aseguru-agentea	266	58	458,6
Elementu elektrikoen muntatzailea	8	2	400,0
Fakturen, zorren edo alokairuen kobratzaileak	4	1	400,0
Barne-medikuntzan mediku espezialista	3	1	300,0

(*) Enplegagaritasun-indizea, enpresek 100 lan-eskaintzaileko eskatutako postu-kopurua.
Iturria: Lanbide.

III.5.31. Koadroa. Programa-kontratuak: parte-hartzaile prestatuak izendapen teknikoaren arabera EAE-n *

	2004		2005		2006*		Guztira 2004-06*	
	Ziurtatutako parte-hartzaileak	Gauzatutako Prestakuntza orduak	Ziurtatutako parte-hartzaileak	Gauzatutako Prestakuntza orduak	Ziurtatutako parte-hartzaileak	Gauzatutako Prestakuntza orduak	Ziurtatutako parte-hartzaileak	Gauzatutako Prestakuntza orduak
Laneko arriskuen prebentzioa	152	3.901	1.134	140.420	1.225	250.709	2.511	395.030
Hizkuntzak.	184	10.240	1.615	120.952	1.124	112.989	2.923	244.181
Erabiltzaile-mailako informatika/ Ofimatika	105	2.904	2.707	113.846	2.559	113.434	5.371	230.184
Lan-osasuna eta gaixotasun profesionalak	—	—	263	65.404	192	57.834	455	123.238
Makineria-lanak Eraikuntza	—	—	360	52.608	240	41.390	600	93.998
Giza-baliabideen kudeaketa	565	13.229	1.359	37.573	1.107	32.423	3.031	83.225
Ibilgailuen, aireontzien eta trenen gidaritza eta pilotajea	—	—	151	14.783	384	35.681	535	50.464
Soldadura	47	3.280	442	30.320	215	12.665	704	46.265
Elikadura-segurtasuna: manipulazioa eta kontrola	51	810	1.814	19.261	1.638	17.238	3.503	37.309
Diseinu industriala	97	5.236	354	18.649	278	12.520	729	36.405
Kalitatea	156	3.437	539	13.753	482	12.782	1.177	29.972
Legedia eta araudia	32	662	234	11.810	180	16.413	446	28.885
Gizarte-ekonomiako enpresen kudeaketa	138	5.340	712	19.643	228	3.776	1.078	28.759
Bezeroarentzako Arreta/ zerbitzu-kalitatea	45	746	670	16.028	230	10.038	945	26.812
Zerbitzu pertsonalak	—	—	504	11.600	601	12.935	1.105	24.535
Segurtasuna eta zaintza	—	—	318	12.341	461	12.131	779	24.472
Garapen-informatika	209	13.276	140	6.460	24	1.900	373	21.636
Kontularitza	—	—	193	11.375	123	9.960	316	21.335
Produktuaren ezagutza	52	3.389	154	5.200	255	12.333	461	20.922
Gainontzeko izendapenak	641	13.486	4.248	177.962	3.917	174.597	8.806	366.045
Guztira	**2.474**	**79.936**	**17.911**	**899.988**	**15.463**	**953.748**	**35.848**	**1.933.672**

Iturria: Enpleguko Prestakuntzarako Fundazio Tripartita.
(*) Behin-behineko datuak, 2006/10/05ekoak.

III.5.32. Koadroa. EPFT-ren programa-kontratuak. EAE-ko parte-hartzaileak sexuaren eta adinaren arabera. 2004-06* Balantzea

		2.004		2.005		2.006*		Guztira 2004-06*	
		Ziurtatutako parte-hartzaileak	Gauzatutako Prestakuntza orduak	Ziurtatutako parte-hartzaileak	Gauzatutako Prestakuntza orduak	Ziurtatutako parte-hartzaileak	Gauzatutako Prestakuntza orduak	Ziurtatutako parte-hartzaileak	Gauzatutako Prestakuntza orduak
Gizonezkoak	16 urtetik 25era	106	3.276	1.023	49.057	809	49.058	1.938	101.391
	26 urtetik 35era	541	19.113	4.039	219.138	3.236	230.104	7.816	468.355
	36 urtetik 45era	458	14.513	2.709	132.849	2.322	139.908	5.489	287.270
	46 urtetik 55era	220	6.360	1.569	61.347	1.255	56.638	3.044	124.345
	55 urte baino geh.	28	709	285	9.444	258	9.897	571	20.050
	Guztira	**1.353**	**43.971**	**9.625**	**471.835**	**7.880**	**485.605**	**18.858**	**1.001.411**
Emakumezk.	16 urtetik 25era	108	3.729	1.164	61.406	907	55.698	2.179	120.833
	26 urtetik 35era	606	20.253	3.788	236.751	3.432	273.963	7.826	530.967
	36 urtetik 45era	299	9.038	2.074	87.103	1.937	89.901	4.310	186.042
	46 urtetik 55era	86	2.273	1.044	36.255	1.065	39.933	2.195	78.461
	55 urte baino geh.	22	672	216	6.638	242	8.648	480	15.958
	Guztira	**1.121**	**35.965**	**8.286**	**428.153**	**7.583**	**468.143**	**16.990**	**932.261**
Guztira	16 urtetik 25era	214	7.005	2.187	110.463	1.716	104.756	4.117	222.224
	26 urtetik 35era	1.147	39.366	7.827	455.889	6.668	504.067	15.642	999.322
	36 urtetik 45era	757	23.551	4.783	219.952	4.259	229.809	9.799	473.312
	46 urtetik 55era	306	8.633	2.613	97.602	2.320	96.571	5.239	202.806
	55 urte baino geh.	50	1.381	501	16.082	500	18.545	1.051	36.008
	Guztira	**2.474**	**79.936**	**17.911**	**899.988**	**15.463**	**953.748**	**35.848**	**1.933.672**

(*) Behin-behineko datuak, 2006/10/05ekoak.
Iturria: Enpleguko Prestakuntzarako Fundazio Tripartita.

III.5.33. Koadroa. HOBETUZen deialdien emaitzak

	Onetsitako planak.				Bertaratutako langileak.				Diru-laguntzak (milaka €)			
	2003	2004	2005*	2006	2003	2004	2005*	2006	2003	2004	2005*	2006
GUZTIRA	**910**	**83**	**469**	**0**	**104.293**	**12.293**	**61.174**	**0**	**21.169**	**5.575**	**10.517**	**0**
Enpresako eta taldeko plana.	695	0	386	0	67.765	0	39.113	0	12.197	0	7.160	0
Plan taldekatuak.	48	0	0	0	9.298	0	0	0	1.589	0	0	0
Sektore arteko planak eta zuzenek.	17	0	0	0	9.111	0	0	0	2.071	0	0	0
Bakarkako planak eta katalogoa.	150	83	83	0	18.119	12.293	22.061	0	5.312	5.575	3.357	0

Iturria: Hobetuz fundazioa.

BETUZek ez du finantzaziorik jasotzen prestakuntza profesionaleko kuotetatik eta 2006. Urtean ez du Etengabeko Prestakuntza kudatzeko Eusko Jaurlaritzak dituen Aurrekontu Publikoetatik datorren funtsik jaso.

2001. urtean Europako araudi berriaren eraginez izandako aldaketaren ondorioz, etengabeko prestakuntzarako laguntzak bi deialdi-motaren bitartez finkatzen dira: enpresetara zuzendutakoak eta horietan nabarmentzekoa da kofinantzazioa eman behar dela eta langile enplegatuari bakarka zuzendutakoak (hainbat prestakuntza-plan motarako programa-kontratuen bitartez —Sektore artekoak, Sektorialak, Gizarte Ekonomia eta Langile Autonomoak—, diru-laguntza publikoen deialdien bitartez finantzatutakoak. Gainera, badira beste Ekintza Osagarri eta Prestakuntzaren Lagungarri batzuk.

Enpleguko Prestakuntzarako Fundazio Tripartitaren prestakuntza-ekintzei dagozkien datuek adierazten dute sozietatearen helbidea EAEn duten enpresetara zuzendutako Etengabeko Prestakuntzako Ekintzetan, lehen Eskaera-plan gisa izendatzen ziren horietan, enpresa prestatzaileak 2006an 3.514 izan direla, aurreko urtean baino %29,3 gehiago eta Estatuaren kopuru osoaren %4 adierazten dute —2005. urtean 4,4koa izan zen kopuru hori—. Hazkunde hori bereziki garrantzitsua da tamaina txikieneko enpresen mailan. Beraz, 10 langile baino gutxiago dituzten enpresek kopuru osoaren herena betetzen dute. Langile parte-hartzaileei dagokienez, guztira 60.455 dira, eta Estatu osoko kopuruaren %5,3 betetzen dute. Hemen ere ikus daiteke parte-hartze mailako hazkunderik handienak tamaina txikieneko enpresetan gertatzen ari direla.

Langileen etengabeko prestakuntzarako Programa-Kontratuei dagokienez (Sektore arteko Prestakuntza-planetarako, Plan Sektorialetarako, Gizarte-ekonomiako Planetarako eta Langile Autonomoen Planetarako), azken hiru urteetako balantzeko datuek adierazten dute ia 36.000 langile ziurtatuen parte-hartzea izan da epealdi osoan eta horien %47,4 emakumezkoak izan dira; ordezkaritza handiena 26 eta 35 urte arteko adin-tartean izan dute emakumezkoek. 2004 eta 2005 urte artean hazkunde handiak izan ziren, bai prestakuntza-orduetan, baita parte-hartzaileei dagokienez ere, eta 2006an egonkortu egin da egoera (dena den, kontuan hartu beharra dago balantzea 2006ko urriaren 5ean itxi dela eta, beraz, urteko azken hiruhileko datuak faltako liratekeela gaineratzeko). Azken batean, 2006. urtetik aztertutako epealdian 953.748 prestakuntza-ordu gauzatu ziren (2005. urtean baino +%6 gehiago) eta guztira, 15.463 parte-hartzaile ziurtatu izan ziren orotara (aurreko urtean baino %13,7 gutxiago). Ikastaroen 120 izendapen teknikoetatik, ikus daiteke 2004. urtearen eta 2006ko urriaren artean emandako ia bi milioi orduetatik erdia lau ikastarotara zuzenduta egon direla: laneko arriskuen prebentzioa (%20,4), hizkuntzak (%12,6), erabiltzaile-mailako informatika /ofimatika (%11,9) eta lan-osasuna eta gaixotasun profesionalak (%6,4). Lau gai horietan prestakuntza jaso zuen langile parte-hartzaileen herenak.

Bestalde, EAEn pertsona enplegatuen etengabeko prestakuntzaren kudeaketa bere gain hartzen duen Etengabeko Prestakuntza Profesionalerako Euskal Fundazioaren (HOBETUZen) bitartez gauzatzen diren etengabeko prestakuntzako ekintzei dagokienez, haren Patronatuak (patronaleko, sindikatuetako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariek osatutakoa), 2004an Espainiako Etengabeko prestakuntza-sistemaren erreformaren osteko finantzazio-arazoekin jarraituta (eta hobarien sistema berriarekin horrelako prestakuntza-ekintzetako Gizarte Segurantzako kotizazioetan), 2005ean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren[11] erakunde laguntzaile gisa, Euskadiko Kualifikazio-sistemari lotutako deialdia (moduluzko katalogoa) eta Enpresa-planen bitartez enpresetara zuzendutakoa argitaratu zituen soilik. 2006. urtean, Fundazioko bertako iturrien arabera, ez da deialdi bakar bat ere argitaratu.

[11] 2004rako, Hezkuntza Sailak, Prestakuntza Profesionaleko eta Ikaskuntza Etengabeko Sailburuordetzaren bitartez, beharrezkotzat jo zien langileen etengabeko prestakuntzara bideraturiko laguntza ekonomikoetarako deialdia harne izenean egitea eta Hobetuz ezarri zuen laguntza horiek kudeatzeko erakunde lagunztaile gisa. 2006. urtean bere gain hartu zituen erabat prestakuntzarako laguntzen deialdi guztiak.

Prezioak, kostuak, produktibitatea eta errentak

6.1. Kontsumo-ondasunen prezioak

Petrolioaren prezio hegazkorrak 2006ko inflazioan eragin handia izan du. Hala, urtearen lehenengo 8 hilabeteetan lehengai horren prezioa garestitzen joan zen nazioarteko merkatuetan, eta horrek inflazio-tasaren maila ia %4ra igo zuen. Alabaina, irailean hasitako petrolio gordinaren prezio-beherakadaren ondoren, prezio-adierazleek beren urtetik urterako hazkunde-tasak moderatu zituzten.

Zehazki esateko, kontsumo-prezioak %3,8 hazi ziren uztailean, eta abenduan %2,4. Urteko batez besteko hazkunde-tasa %3,4koa izan zen, 2005ean baino hamarren

III.6.1. Grafikoa. Kontsumoko Prezioen Indizea. Urteko aldakuntza tasak. EAE eta estatua



Iturria: EIN.

6

bat gehiago; alabaina, 2005eko hazkunde-profila goranzkoa izan zen, eta 2006koa beheranzkoa.

KPIren osagai nagusiak banakatzen baditugu, nabarmentzekoa da aipatutako petrolioaren garestitzeak eragin handiagoa izan zuela produktu energetikoen multzoan. Produktu energetikoen urteko batez besteko hazkunde-tasaren balioa oso altua da (%7,9), nahiz eta 2005ekoa baino puntu erdi beherago egon (%8,4). Alabaina, aipagarria da lehenengo hiruhileko beherakada nabarmena (%6,3). Azkenean, urte amaierarako, hazkunde-tasaren balioak %0,5eko aldaketa baino ez du izan.

Bestalde, industria-ondasunen prezioek moderatuki igotzen jarraitu dute. Aitzitik, zerbitzuen eta elikagai landuen prezioen bilakaera oso bestelakoa da: ez dute moderatzeko joerarik agertu, eta %3,5aren gainetik mantendu dira. Bilakaera horien ondorioz, azpiko inflazioaren urtetik urterako tasa bi hamarren bizkortu zen, %2,9ra iritsiz (indize orokorra baino puntu erdi gutxiago). Sailkapen honetan agerikoa da hondar-inflazioa (landu gabeko elikagaiak eta energia) izan dela urteko batez bestekoan igoera handiena izan duena, nahiz eta egoera hori urte amaieran erabat aldatu den. Zehazki esateko, petrolio gordinaren prezio-beherakadari esker eta produktu freskoek prezioei eutsi dietelako, hondar-inflazioa (%0,9koa) moderatu egin da.

Halaber, aipagarria da produktu-taldeek agertzen duten portaera desberdina, inflazioari dagokionez. Alde batetik, tabakoaren prezio-igoera daukagu, eta irakaskuntzaren eta ostalaritzaren taldeek ere prezioak igotzen jarraitzen dute, %4aren gainetik kokatuz. Bestalde, etxebizitzak eta bestelako ondasun eta zerbitzuen taldeak %3a gainditzen dute. Alabaina, igoera moderatuak dituzte honako talde hauek: komunikazioak, aisia eta kultura,

III.6.1. KOADROA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKATZEA: URTETIK URTERAKO ALDAKETA-TASAK ETA EKARPENAK

	2002	2003	2004	2005	2006	Ekarpena
Inflazio osoa (100%)	3,7	2,8	3,0	3,3	3,4	2,4
Azpiko inflazioa (82,9%)	4,0	2,7	2,7	2,7	2,9	2,2
KPI Elikagai landuak (15,6%)	4,3	3,0	3,7	3,5	3,6	0,6
KPI Industriako ondasunak (28,6%)	2,4	1,6	0,5	0,7	1,4	0,2
KPI Zerbitzuak(38,7%)	5,2	3,4	4,0	3,9	3,7	1,4
Hondar inflazioa (17,1%)	2,2	3,7	4,6	6,3	6,1	0,2
KPI Landu gabeko elikagaiak (8,5%)	4,6	5,9	5,1	4,3	4,3	0,3
KPI Energia (8,6%)	–0,2	1,4	4,2	8,4	7,9	–0,1

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

III.6.2 Koadroa. Kontsumoko Prezioen Indizea. EAE eta estatua

	EAE						Estatua	
	Urteko batez bestekoa			Abendua			Batez beste	Abendua
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2006	2006
Indize orokorra	**3,0**	**3,3**	**3,4**	**3,2**	**3,7**	**2,6**	**3,5**	**2,7**
Elikagaiak eta alkohol gabeko edariak	4,3	3,6	4,1	3,4	4,3	3,0	4,1	3,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,7	4,7	2,0	4,9	4,9	1,6	1,8	1,4
Arropa eta oinetakoak	0,7	0,7	1,1	1,6	1,0	1,7	1,3	1,3
Etxebizitza	4,2	5,0	6,2	3,6	6,4	4,0	6,5	4,9
Etxeko tresneria eta zerbitzuak	2,2	2,2	3,0	2,4	2,2	3,5	2,6	2,6
Mediku zerbitzua eta osasuna	0,7	1,0	1,9	1,2	1,5	1,8	1,3	1,7
Garraioak	4,0	5,6	4,2	5,3	6,0	1,6	4,5	1,8
Komunikazioak	–1,1	–1,6	–1,3	–0,7	–1,7	–1,5	–1,3	–1,5
Aisia eta kultura	–0,2	–0,3	0,4	0,3	0,1	–0,5	0,1	–0,6
Irakaskuntza	4,4	4,2	4,5	4,6	4,1	4,7	4,0	4,4
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	4,0	4,4	3,9	4,2	4,3	3,9	4,5	4,4
Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2,6	3,1	3,0	2,7	3,5	3,3	3,7	3,9

Iturria: EIN.

III.6.3. Koadroa. Urteko KPI: batez bestekoen eboluzioa. Oinarri berria 2005 urtea

	2004	2005	2006
EB	**2,0**	**2,2**	**2,2**
EMB	**2,1**	**2,2**	**2,2**
Belgika	1,9	2,5	2,3
Bulgaria	6,1	6,0	7,4
Txekia	2,6	1,6	2,1
Danimarka	0,9	1,7	1,9
Alemania	1,8	1,9	1,8
Estonia	3,0	4,1	4,4
Irlanda	2,3	2,2	2,7
Grezia	3,0	3,5	3,3
Espainia	**3,1**	**3,4**	**3,6**
Frantzia	2,3	1,9	1,9
Italia	2,3	2,2	2,2
Chipre	1,9	2,0	2,2
Letonia	6,2	6,9	6,6
Lituania	1,2	2,7	3,8
Luxenburgo	3,2	3,8	3,0
Hungaria	6,8	3,5	4,0
Malta	2,7	2,5	2,6
Holanda	1,4	1,5	1,7
Austria	2,0	2,1	1,7
Polonia	3,6	2,2	1,3
Portugal	2,5	2,1	3,0
Errumania	11,9	9,1	6,6
Eslovenia	3,7	2,5	2,5
Eslovakia	7,5	2,8	4,3
Finlandia	0,1	0,8	1,3
Suedia	1,0	0,8	1,5
Erresuma Batua	1,3	2,1	2,3

Iturria: Eurostat.

eta garraioak. Horien guztien hazkunde-tasaren balioak negatiboak dira, edo 0tik gertu daude. Euroaren zonako inflazio-diferentziari dagokionez, 2006an izan duen bilakaera oso onuragarria izan da: urtarrilean 1,8 puntuko balioa zuen; abenduan, berriz, 0,6koa besterik ez. Inflazio-diferentziaren ia erdia tabakoaren gaineko zergen igoerak justifikatzen du, baina gainerako taldeek ere (garraioak eta aisiak ezik) euroaren zonako batez bestekoaren gainetik igotzen dituzte beren prezioak. Azkenik, 2006ko behin-behineko datuen arabera, Kontsumo Armonizatuko Prezioen Indizeak (KAPI)[1] urteko batez besteko %3,6ko hazkundea adierazten du Estatuan, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago. EMBn %2,2ko hazkundea adierazten du, 2005eko tasa bera. 2006an herrialde gutxik lortzen du bere inflazio-tasa murriztea; besteak beste, Errumaniak (balio oso altuetatik abiatzen da) eta Polonia, Austria eta Luxenburgok. Aitzitik, Bulgaria, Lituania eta Eslovakiak nabarmen igotzen dituzte beren ratioak (Bulgariaren kasuan inflazioak %7a gainditzen du).

6.2. Industria-ondasunen prezioak[2]

Industria-ondasunen prezioei dagokienez, Eustaten IPRIren baliorik altuenak urteko erdiko hilabeteei dagozkie. Hortik aurrera, energiaren prezio-beherakadari esker,

[1] *Kontsumo Armonizatuko Prezioen Indizeak* (KAPI) Europar Batasuneko inflazioaren neurri komuna eskaintzen du. Konparazio homogeneo hori lortzeko, KPIn jasotako kontsumo partiden salbuespenak egin behar izan dira (partida horiek KPIren %5 inguru dira). *Esaterako, KAPItik salbuetsita daude Osasun zerbitzuak, Arauturiko irakaskuntza*, Diru-laguntza duten sendagaiak eta produktu farmazeutikoak, eta abar. Oraintsu aldatu da oinarri-urtea, 1996tik 2005era igaroz.

[2] Txosten sozioekonomiko honen *III.2.1.3. atalean, "Produkzio-egitura: industria"* izenekoan, zehatz-mehatz aztertzen da industriako prezioek EAEn 2006an izan duten bilakaera.

III.6.2. GRAFIKOA. IPRIREN BILAKAERA HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERA. OINARRI URTEA: 2000



Iturria: Eustat "IPRI".

III.6.3. GRAFIKOA. SOLDATEN KOSTU OSOAREN BILAKAERA



Iturria: Geuk egina EINeko eta Eurostateko datuekin.

indize horrek beheranzko ibilbidea hasiko du urrira arte; azaroan eta abenduan goranzko joera txikia hasten du. Batez beste, industriako ondasunen prezioak %4,9 hazi dira EAEn 2006 urtean (%5,2 2005ean). Abenduko urtetik urterako hazkundea, berriz, %5ekoa izan da (%4,4koa 2005ean).

Urteko batez bestekorik altuenak energia sektorekoak dira (elektrizitatea, gasa eta ura): sektore horren urteko batez besteko hazkundea %19,8koa da (+ %17,9 abenduko urtetik urterakoan). Atzetik dago petrolioaren fintzea, %8,7arekin (hala ere balio hori 2005eko %23,7ko baliotik oso urrun dago). Hirugarren postuan daude metalurgia eta metalezko gaiak: %6,9ko hazkundea dute, 2005ekoa (%10,9) baino txikiagoa. Beste muturrean daude prezio-hazkunderik txikiena duten sektoreak: zurgintza (+%01); papera, edizioa eta grafikoak (+%0,3) eta larrugintza eta zapatagintza. Azken sektore horretan jarraian bigarren urtez beheratu da batez besteko prezioa (–%1 2006an eta –%4,9 aurreko urtean).

Ondasunen helburu ekonomikoaren ikuspegitik, esan daiteke urtetik urterako tasaren beherakada honako honek eragin duela: alde batetik, aipatutako energiaren prezioen murrizketak (prezio horiek urtetik urterako %12,5eko hazkundea dute 2006an, eta %17koa 2005ean); eta, beste alde batetik, neurri txikiagoan bada ere, kontsumo ondasunen prezioen beherakada leunak (kontsumo iraunkorreko ondasunen prezioek batez beste %0,2ko hazkundea baino ez dute, nahiz eta iraunkorra ez den kontsumoaren prezioen hazkundea 2005ekoa baino handiagoa izan). Bestalde, ekipamendu-ondasunek eta bitarteko ondasunek prezioen azelerazio-prozesua adierazten dute, ondasun mota horien eskaeraren dinamikotasunari esker. Dinamikotasun hori batez ere 2006ko azkenengo hilabeetan antzematen da (bereziki bitarteko ondasunen kasuan: horien abenduko urtetik urterakoa %8,5era iristen da).

6.3. Lan kostuak

Lan kostuaren goranzko edo beheranzko ibilbidea zehazterakoan, EAEn kostuen adierazleak ez datoz bat 2006an (kontuan hartzen duguna EAE izan, Estatua izan ala EB izan). Hainbat adierazle ditugu:

- Lehenengo adierazlea da indarreko hitzarmenetan itundutako soldaten hazkundea. Adierazle horren arabera, gure erkidegoan 2006an soldaten hazkunde berrikusia egon[3] da, %4,81ekoa (datu horrek 2005ekoak baino ia 6 hamarren gehiago ditu, eta Lan eta Gizarte

[3] *"Zaintzako klausularen"* eraginezko soldata berrikuspenak jatorrian itundutako soldata igoeran sartzearen ondoriozkoak. Aintzat hartu behar da adierazle partziala dela; izan ere, alde batetik, azken urte hauetan batez besteko igoera horiek itundu diren hitzarmenek soldatapekoen %50 inguru babesten dituzte, eta bestetik, soldata igoera *"arruntei"* buruzkoak dira, hau da, ez dute kontuan hartzen aparteko orduen ordainketaren efektua, eta lan egindako ordu kopurua ere ez dute aintzat hartzen, eta ez dituzte soldatakoak ez diren beste kostu batzuk jasotzen.

III.6.4. Koadroa. Lan kostuaren adierazle makroekonomikoak

	EAE[1]			Ordainketa lanpostu bakoitzeko (% ald.)				Hitzarmen. itund. soldaten hazkund.[4]	
	Soldatapekoen ordainketa (milioi €)	Lanpostuak	Ordainketa lanpostu bakoitzeko (€)	EAE[1]	Estatua[2]	EB25[3]	EMB[3]	EAE (% ald.)	Estatua (% ald.)
2002	22.905	891.647	25.689	4,1	3,8	2,9	2,5	4,03	3,85
2003	24.308	910.971	26.683	3,9	3,7	0,5	1,8	4,23	3,68
2004	26.198	933.380	28.067	5,2	3,4	3,0	2,1	3,78	3,60
2005	27.979	953.388	29.347	4,6	2,5	2,7	1,9	4,22	4,04
2006	—	975.371	—	—	3,4	2,2	1,7	4,81	3,57

Iturriak: (1) Eustaten hiruhileko kontuak. (2) EINen hiruhileko kontabilitatea. (3) Eurostat. (4) Lan Ministerioa.

III.6.5. Koadroa. Lanaren kostu-adierazlearen bilakaera. EAE-Estatua konparazioa

	Kostua langileko (€ urteko)						Kostua orduko (€ orduko)					
	Estatua			EAE			Estatua			EAE		
	KO	SKO	OSK	KO	SKO	OSK	KO	SKO	OSK	KO	SKO	OSK
2002	22.935	17.104	14.959	26.655	19.922	17.316	13,7	10,2	9,0	16,8	12,6	10,9
2003	23.909	17.762	15.403	27.519	20.495	17.668	14,4	10,7	9,3	17,5	13,0	11,2
2004	24.619	18.251	15.722	28.276	21.084	18.123	14,9	11,1	9,5	18,2	13,6	11,7
2005	25.321	18.722	16.141	29.426	21.849	18.809	15,4	11,4	9,8	19,0	14,1	12,1
2006	26.203	19.364	16.780	30.111	22.328	19.156	16,1	11,9	10,3	19,5	14,4	12,4
% ALDAKETA												
2002	4,4	3,9	3,9	4,3	4,2	3,3	4,6	4,1	4,2	5,4	5,4	4,5
2003	4,2	3,8	3,0	3,2	2,9	2,0	4,7	4,3	3,4	4,0	3,6	2,8
2004	3,0	2,8	2,1	2,8	2,9	2,6	3,8	3,6	2,8	3,9	4,0	3,7
2005	2,9	2,6	2,7	4,1	3,6	3,8	3,5	3,2	3,4	4,3	3,8	4,0
2006	3,5	3,4	4,0	2,3	2,2	1,8	4,5	4,4	5,1	2,6	2,1	2,5

KO: Kostu osoa; SKO: Soldaten kostu osoa; OSK: Ohiko soldaten kostua[4].
Iturria: EIN "Lan kostuaren hiruhileko inkesta".

Gaietarako Ministerioaren arabera, Estatuan itundutakoen oso gainetik dago).

- Bigarren adierazlea da Soldatapekoen ordainketa, lanpostu bakoitzeko[4], eta hori Eustaten Kontu Ekonomikoetan eta EINen estatistikan oinarrituz kalkulatzen da; adierazle horrek dioenez, ordainketa horrek % 5,2ko hazkundea izan du 2004an, eta %4,6koa 2005ean; gainera, handitu egin da Estatuarekiko aldea, bertan urte horretan %2,5eko hazkundea baino ez baita egon. Gainera, Estatuan 2006rako dagoen datuak adierazten duenez, aldagai horretan hazkunde handia egon da, %3,4ko hazkundea izan baitu, aurreko urtean baino ia puntu bat gehiago. Bestalde, Eurostatek EBrako dituen datuek adierazten dute hazkunde txikiagoa izan dela lanpostu bakoitzeko ordainketan. Zehazki esateko, EB-27n hazkundea %2,3koa izan da; EB25ean %2,2koa eta euroaren zonan %1,7koa; beraz, nolabaiteko moteltzea izan da 2005arekin alderatuz.
- Lan-kostuaren hirugarren adierazlea abagunearen araberakoa da: *Laneko kostuaren hiruhileko Inkesta*[5]. Adierazle horrek osagaien arteko banaketa egiteko aukera ematen du. Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkestaren datuek adierazitakoaren arabera,2006an EAEn langile bakoitzeko lan-kostuek % 2,3ko hazkundea izan zuten (2005ean baino 0,9 puntu gutxiago eta Estatuan baino 1,2 puntu gutxiago). Sektoreka aztertu-rik, industriak eta zerbitzuek kostuen hazkunde moderatua izan dute (+%2,9 eta +%2,2, hurrenez hurren).

[4] Lan kostu osoa (LKO) da enplegatzaileak "lana" faktorea erabiltzeagatik eragiten duena (soldaten kostua eta soldatena ez dena). Soldaten kostu osoan (SKO) sartzen dira oinarrizko soldata,osagarriak, aparteko orduak, haborokinak eta gauzazko soldata (kalte-ordainak eta dietak kenduta), eta termino gordinetan neurtzen da (atxikipenak eta langileak Gizarte Segurantzari eginiko ordainketak kenduta). Ohiko Soldaten Kostuak (OSK) ez ditu barnean hartzen aparteko haborokinak (aparteko ordainsariak, mozkinen parteak, primak, eta abar) eta atzeratutako ordainketak.

[5] Datu zuzena soldatapeko lanpostuena da, baina Eustaten hiruhileko Kontuak lanpostu kopurua baino ez du eskaintzen.

Eraikuntzak, berriz, hazkunde handia izan du, batez ere urtearen lehenengo erdian (batez beste +%4,9) 2005ean langile bakoitzeko kostu osoa 30.111 €-koa da, (Estatuan baino %16 gehiago). Lan-ordu bakoitzeko kostu osoa %2,6 hazi da EAEn 2006an (aurreko urtean baino 1,7 puntu gutxiago eta Estatuan baino ia 2 puntu gutxiago).

Gainera, Estatuko lan-kostuak igo egin dira 2006an, aurreko urtean baino puntu bat gehiagoko tasara iritsiz; beraz, bilakaera hori EAEkoaren kontrakoa da. Euroaren zonan eskura dugun azken datua 2005ekoa da. Urte horretan lan-ordu bakoitzeko kostuek %3,6ko hazkundea izan zuten; EB25ean, berriz, ia ez zuten hazkunderik izan (+%0,3); eta EB27an murriztu egin ziren (–%0,5), Lan Kostu Armonizatuaren Indizearen arabera.

6.4. Produktibitatea

Lanaren ageriko produktibitateak BPGren (2006an %4,2ko hazkundea) eta lanpostutan neurturiko enpleguaren[6] (Eustaten Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera %2,3ko hazkundea azken urtean) zatiduratzat neurtuta, %1,9ko hazkundea izan du 2006an, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago, batik bat industriaren sektorean izandako hazkundearen eraginez, bertako urteko batez besteko tasa %5,4koa izan baita. Gainera, eraikuntzaren sektoreak %0,7ko hazkunde tasa positiboa izan du, positiboa bi urtez jarraian, zazpi urtez jarraian produktibitatea galdu ondoren, eta zerbitzuetan hazkunde-tasa %0,2koa baino ez da izan.

Horrela, EAEko produktibitateak hamarkadako batez bestekotik (%1) gorako hazkundea izan du 2006an, eta industria sektoreari dagokionak ere bai, (bikoitza baino gehiago).

Bestalde, EAEko lanaren ageriko produktibitatea Espainiakoa baino hobea da, ez 2006an bakarrik (Estatuan produktibitatea osoa +%0,5 eta +%3,5 industrian), baita hamarkadako urte guztietan ere, bai ekonomia osoari eta bai industria sektoreari dagokionez (azken kasu horretan 2000-2002 hirurtekoan izan ezik).

EBrekin konparatuz, EAEko ekonomiaren produktibitate osoaren hazkundea handiagoa da 2006an (EB25ean

III.6.4. Grafikoa. Produktibitatearen aldaketaren sektorekako bilakaera EAEn



Iturria: Geuk egina, Eustaten datuetan (HKE) oinarrituz.

III.6.6. Koadroa. Lanaren ageriko produktibitatearen bilakaera (Bolumen Kateatuaren Indizearen urtetik urterako aldaketa-tasak)[8]

	EAE[1]					Estatua[2]		EB25[3]		EMB[3]	
	Osoa	Primarioa	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Osoa	Industria	Osoa	Industria	Osoa	Industria
1995-2000	1,1	0,2	2,7	–1,2	0,3	0,0	0,9	1,7	3,3	0,9	2,7
2001-2005	0,9	6,1	1,2	–0,6	0,7	0,1	0,0	1,0	2,3	0,4	2,0
1995-2005	**1,0**	**3,1**	**1,9**	**–0,9**	**0,5**	**0,1**	**0,4**	**1,4**	**2,8**	**0,7**	**2,4**
2002	0,4	–0,3	–0,2	–1,7	1,1	0,5	–0,6	0,6	1,4	–0,3	0,5
2003	0,9	–3,0	0,0	–1,5	1,0	–0,1	0,5	0,7	1,6	–0,2	1,4
2004	1,1	28	2	–0,7	0,4	–0,2	–0,7	1,6	2,7	–0,4	2,1
2005	1,7	–8,2	5,3	1,3	0,1	–0,3	–0,7	1,0	0,5	–0,6	0,9
2006	**1,9**	**0,5**	**5,4**	**0,7**	**0,2**	**0,5**	**3,5**	**1,4**	**2,1**	**–1,1**	**2,8**

Iturriak: Honako hauetatik abiatuz egina: (1) Eustaten hiruhileko kontuak, (2) EINen hiruhileko kontabilitatea eta (3) Eurostat.

[6] Inkestan oinarrituz, Laneko Kostu Armonizatuaren Indizea lantzen da, lan kostuen neurri konparagarria EB osorako.

[7] Lanaldi osoko lanpostuak izan beharko lukete, baina ez daukagu horri buruzko daturik.

[8] Indize kateatuen adierazpen monetarioa da. Hori kalkulatzeko, indize kateatu guztien saila biderkatzen da erreferentziatzat hartzen dugun urteko aldagaien balioarekin termino korronteetan.

baino puntu erdi gehiago eta EMBn baino hiru puntu gehiago); hala eta guztiz ere, EB25eko hamarkadako batez bestekoa EAEkoa baino lau hamarren handiagoa da, eta hori euroaren zonarekin lerrokaturik dago. Industriaren kasuan ere EAEko datuak gainditu egiten ditu Europako datuak 2006an; hala ere, kasu horretan azken hamar urteetako batez bestekoarekiko aldeek hazkunde handiagoa dute bi arlo horietan, EAEko industria produktibitateari dagokionez: EB25ek ia puntu bat eta EMBk ia bost hamarren.

6.5. Lan kostu unitarioak

Produktibitatearen eta lan kostuen bilakaera aztertu ondoren, EAEko ekonomiako Lan Kostu Unitarioen[7] (LKU) bilakaera ikusiko dugu orain.

Gure ekonomia osoari buruzko 2006ko datuek adierazten dute LKU korronteek aurreko urtean baino hazkunde txikiagoa izan dutela (%0,4 eta %2,4 2005ean); izan ere, lan-kostuek hazkunde txikiagoa izan dute eta produktibitate errealak hazkunde handiagoa. Estatuko lan-kostu unitario korronteek nolabaiteko egonkortasuna adierazten dute azken hiru urteetan, %3 inguruko hazkunde-tasekin. al 3%.

Bilakaera sektoreka azterturik, industriako LKUak bigarren urtez jarraian murriztu ditu, aurreko urteetan hazkunde-tasa positiboak izanik. Prezioen eragina kentzen badugu, lan-kostuen aldaketa-tasak negatiboak dira sektore guztietan (industriaren kasuan gehiago).

Bestalde, EBn eta euroaren zonan LKU korronteak (kalkuluak egiteko kontuan harturik soldatapekoen or-

III.6.7. KOADROA. LAN KOSTU UNITARIOAK: URTEKO ALDAKETA

	Lan kostuen aldaketa		Produktibitatearen aldaketa		LKU Korronteen aldaketa		LKU Errealen aldaketa	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Osoa	4,1	2,3	1,7	1,9	2,4	0,4	–0,9	–2,8
Industria	3,5	2,9	5,3	5,4	–1,8	–2,5	–3,9	–5,2
Eraikuntza	3,9	4,6	1,4	0,7	2,5	3,9	–2,4	–0,3
Zerbitzuak	4,9	2,2	0,1	0,2	4,8	2,0	1,9	–1,3

Iturria: Eustaten eta EINen datuetatik abiaturik osatua.

III.6.6. GRAFIKOA. LAN KOSTU UNITARIOAK: URTEKO ALDAKETA, SOLDATAPEKOEN ORDAINKETAN OINARRITUZ



Iturria: Geuk egina, Eustat, EIN eta Eurostaten datuetan oinarrituz.

III.6.5. GRAFIKOA. LAN KOSTU UNITARIOAK: URTEKO ALDAKETA TASAK. EAE ETA ESTATUA



Iturria: Geuk egina, Eustaten eta EINen datuetan oinarrituz.

[9] *Lan Kostu Unitario korrontea* (LKU) *soldatapeko bakoitzeko lan kostuaren* (6.3 atala) eta *landun bakoitzeko produktibitatearen* (6.4 atala) arteko ratioa da. LKU erreala zatidura hori bera da, baina deflaktatzailea aplikatuz "prezioen eragina" kenduta. Adierazle horien urteko aldaketa aztertzen da epigrafe honetan, Estatuko eta Europako batez bestekoekin konparatuz.

dainketa lanpostu bakoitzeko) 2006an murriztu egin dira; aurreko urteetan hazi egin ziren, nahiz eta EAEko eta Estatukoak baino tasa txikiagoak izan (ez daukagu gure erkidegoari buruzko daturik 2006 urterako). 2006ko datua, EB25erako +%0,8, ia puntu bat murriztu da aurreko urtearekin konparatuz, azken urteko produktibitatearen hazkundea dela eta.

6.6. Errenten banaketa faktoriala

Gure ekonomian sorturiko balio erantsia, lehenengo eta behin, berori sortzeko lagungarriak izan diren produkzio faktoreetan banatzen da: soldatapeko soldataren ordainketa, soldatakoa ez den lanaren nahiz kapitalaren ustiapenaren soberakin garbia, kapital finkoaren kontsumoa (produkzioak urtean zehar izandako balio-galtzea aintzat hartuta) eta, azkenik, produkzioari eta inportazioari loturiko zergak(diru-laguntzen garbiak), herri administrazioari dagozkionak. Bigarrenez, errenta hori pertsona eta familien artean banatzen da, produkzio faktoreen jabetzan izan duten partaidetzaren eta jasotako errenten arabera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, erreferentziatzat prezio korronteko %7,3ko BPG hartuta (2205ekoa), ikusten da zerga garbiek 3,9 puntu gehiagoko hazkunde izan dutela; hau da, horien urteko batez besteko hazkundea %11,2ko izan da, eta soldatapekoen errentaren hazkundea txikiagoa izan da (%6,8), baita kapital finkoaren kontsumoa (%6,3) eta ustiapenaren soberakin garbia ere (%7,1). Horrela, soldatapeko lanaren errentak BPGren %48,6koak dira, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago; ustiapenaren soberakin garbiak, berriz, mantendu egin du bere proportzio erlatiboa, lau urtez jarraian beherakadak izan ondoren, eta BPGren %31koa da. Produkziorako eta inportaziorako zergen kasuan (produkzio sektoreei emandako diru-laguntzak kenduta), BPGrekiko proportzioa gero eta handiagoa da eta %11ra iritsi dira. Bestalde, kapital finkoaren kontsumoak %9,5eko zatiki egonkorra adierazten du, BPGri dagokionez.

Errenten oraintsuko bilakaera hau Estatuarekin konparatuta ikusten denez, 2005ean soldatako errentak zazpi hamarren gehiago hazi dira EAEn, eta ustiapenaren soberakin garbiak, ostera, Estatuan baino 1,2 puntu gutxiago hazi dira, 2003an erritmo berean hazi ondoren. Diru-laguntzen zerga garbiei eta kapital finkoaren kontsumoari dagokienez ere aldeak daude; izan ere, horiek hazkunde handiagoak izan dituzte 2003an eta 2004an Estatuan, eta gainera, 2005ean hazkunde horiek handiagoak dira, eta horrela, handitu egin dira EAErekiko aldeak. Errenten egiturari dagokionez, Estatuan soldatapekoen ordainketak garrantzia galdu du eta ENEn, berriz, mantendu egin da BPGren kuota, zergek eta amortizazioak irabazten dutena, eta hortxe ikusten da EAErekiko alderik handiena (5,9 puntuko aldea).

III.6.7. Grafikoa. Errentaren bilakaera EAEn



Iturria: Eustat "Kontu ekonomikoak".

III.6.8. Koadroa. Errentaren banaketa EAEn, estatuan eta EMBn

	Milioi euro				%			urteko ald. %		
	2002	2003	2004	2005	2003	2004	2005	02-03	03-04	04-05
EAE										
Soldatapekoen ordainketa	22.905	24.308	26.198	27.979	49,0	48,8	48,6	6,1	7,8	6,8
Ustiapenaren soberakin garbia	14.682	15.463	16.638	17.812	31,2	31,0	31,0	5,3	7,6	7,1
Kapital finkoaren kontsumoa	4.357	4.677	5.093	5.414	9,4	9,5	9,4	7,3	8,9	6,3
Diru-laguntzen zerga garbiak	4.616	5.125	5.073	6.344	10,3	10,6	11,0	11,0	11,3	11,2
BGP merkatuko prezioetan	**46.559**	**49.573**	**53.632**	**57.549**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**6,5**	**8,2**	**7,3**
ESTATUA										
Soldatapekoen ordainketa	355.653	378.653	401.878	426.498	48,5	48,0	47,2	6,5	6,1	6,1
Ustiapenaren soberakin garbia	200.109	210.644	223.109	241.662	27,0	26,6	26,7	5,3	5,9	8,3
Kapital finkoaren kontsumoa	102.615	112.666	124.796	138.046	14,4	14,9	15,3	9,8	10,8	10,6
Diru-laguntzen zerga garbiak	70.644	78.587	87.533	98.117	10,1	10,5	10,8	11,2	11,4	12,1
BGP merkatuko prezioetan	**729.021**	**780.550**	**837.316**	**904.323**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**7,1**	**7,3**	**8,0**
EMB										
Soldatapekoen ordainketa	3.551.300	3.636.882	3.733.460	3.835.278	48,9	48,2	48,1	2,4	2,7	2,7
Ustiapenaren soberakin garbia	1.832.691	1.888.050	1.998.421	2.060.015	25,4	25,8	25,8	3,0	5,8	3,1
Kapital finkoaren kontsumoa	1.021.872	1.051.406	1.092.923	1.126.164	14,1	14,1	14,1	2,9	3,9	3,0
Diru-laguntzen zerga garbiak	839.751	867.691	915.768	958.886	11,7	11,8	12,0	3,3	5,5	4,7
BGP merkatuko prezioetan	**7.245.614**	**7.444.029**	**7.740.572**	**7.980.344**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**2,7**	**4,0**	**3,1**

Iturria: Eustat "Kontu ekonomikoak (oinarria2000)", EIN "Espainiako kontabilitate nazionala. Oinarria 2000" eta Eurosat.

III.6.8. Grafikoa. Faktoreen Errenten banaketa EAEn



Iturria: Eustat "Kontu ekonomikoak".

EMBko datuetan, hazkunde-tasak EAEkoak eta Estatukoak baino apur bat txikiagoak dira faktoreen multzo osorako; izan ere, euroaren zonako BPGk 3-4 puntu nominaleko hazkundea izan du. Soldatapekoen ordainketak hazkunde egonkorra izan du azken hirurtekoan, eta azken urte horretan murriztapena izan du ustiapenaren soberakin garbian eta zergetan, EAEn bezala. Hala eta guztiz ere, errentaren ehuneko banaketari dagokionez, alde handiak ikusten dira: ustiapenaren soberakin garbiak EAEn garrantzia handiagoa dauka (EAEn %31, EMBko %26 baino txikiagoa), eta kapital finkoaren kontsumoaren kasuan ere gauza bera gertatu da (%11,4, Estatukoaren antzeko ehunekoa, eta EAEn %9,4). Diru-laguntzen zerga garbietan ere zenbait desberdintasun ikus ditzakegu, baina kasu horretan aurreko aldakuntzetan baino txikiagoak.

4

bizi kalitatea EAEn

Zenbait kolektibo ahulen bizi baldintzak

1.1. Gizarte egoera zailean dauden umeak[1]

Gure herrialdean, Autonomia Estatutuaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du honako arlo hauek kudeatzeko: gizarte laguntza, adingabekoak babestu eta zaintzeko erakunde eta establezimenduen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua, gizarteratzea, eta haur eta gazteei buruzko politika. Eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, indarra duen arautegian hala ezarrita, hiru lurralde historikoetako foru organoak dira gizarte laguntzaren eta haur eta gazteei buruzko politikaren arloko legeria betearazi behar dutenak, bakoitzak bere lurraldean.

Haurraren figurak azken urteetan izan duen bilakaera ikusirik, beharrezkoa zen figura horrek gizartean duen esanahi berriari egokitutako legeria sortzea. Hala, bada, Eusko Jaurlaritzak 2005. urtean *"Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea"* onetsi zuen[2]. Arau horrek, indarra duen eskumen-ereduaren barruan, printzipio substantiboak eta prozedurazkoak ezartzen ditu, euren eskumenak erabili behar dituzten EAEko administrazio publiko guztiek bete ditzaten, eta behar denean beste lege batzuetara jotzeko agintzen du, arlo zibilean, zigor arloan eta arlo prozesalean. Zehatz-mehatz, lege horrek hiru helburu hauek ditu:

1. Haur eta nerabeei euren eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea: Konstituzioan, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan, Haurren Eskubideen Europako Gutunean eta, oro har, antolamendu juridikoan ematen zaizkien eskubideak.
2. Jarduketa esparrua ezartzea haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzen dituzten jarduerak egiteko eta, halaber, haiei laguntza eta babesa emateko helburuarekin esku hartzeko, haien garapena berma dadin familiaren eta gizartearen esparruetan.
3. Jarduteko printzipioak eta eskumen-markoa definitzea arriskuan edo babesik gabe dauden haur eta nerabeen babesaren eskumen- eta erakunde-eremuan, bai eta adingabeko lege-hausleekin egiten diren esku-hartzeen eremuan ere.

Lege horren garapenak —oraindik garatu gabe baitago— bidea eman behar du Haur eta Nerabeen Defendatzailearen erakundea sortzeko, eta horrek, beste eginkizun batzuen artean, haur eta nerabeen eskubideak eta horiei buruzko sentsibilizazioa sustatu behar ditu gizartean. Lege horren ildotik Haur eta Nerabeen Behatokia ere sortu behar da, adingabekoen bizi baldintzak azter ditzan eta haiei lagundu behar dieten erakundeak ahol-

[1] EAEko 2004ko Memoria Sozioekonomikoan ere kolektibo honen egoera aztertu zen; honako honetan zenbait konparazio egiten dira orduko egoeraren eta oraingoaren artean.

[2] 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2005eko martxoaren 30ean argitaratu zen.

katu ditzan. Oraindik egiteke dago, halaber, honako testu hau itxi den egunean behintzat, adingabekoentzako harrera zentroen eta barnetegien arauketa. Aipatutako arau-garapen horiek bete egin beharko dute, gainera, kolektibo honen bizi baldintzak aztertzeko datu bateratu eta alderagarrien egungo gabezia. Izan ere, orain dagoen informazio estatistikoa hauxe baino ez da: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak autonomia-erkidegoka argitaratzen duen laburpena, eta foru aldundiek ematen duten informazioa; azken hori ez da beti homogeneoa EAE mailan[3].

IV.1.1. GRAFIKOA.



Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Haurren babesari buruzko oinarrizko estatistika.

1.1.1. Gizarte zailtasunak dituzten adingabeen babes figurak

Egungo sistema juridikoak guraso biologikoen esku uzten du adingabekoen zainketa fisiko eta morala, edo bestela adopziozko gurasoen esku, familiaren eskemaren barruan. Gurasoak falta direnean, gaitasunik ez dutenean, euren eginkizuna behar bezala betetzen ez dutenean edo ezin bete dutenean, antolamendu juridikoan aurreikusita dauden neurriak har daitezke ohiz kanpoko egoera horiek adingabekoei sarritan ekartzen dizkieten ondorio txarrak arintzeko. Adingabekoak babestearren, arrisku egoerei aurrea hartzen zaie edo konpondu egiten dira. Horretarako, zerbitzu egokiak ezartzen dira, zaintzaren ardura hartzen da eta, adingabekoak babesik gabe dauden kasuetan, tutoretzaren ardura ere hartzen da, legearen ministerioa dela bide. Hori guztia egiten denean, guraso, tutore edo zaintzaileek euren eginkizunak behar bezala bete ditzaten begiratu behar da, eta zerbitzu eskuragarriak eskaini behar dira adingabekoari eragiten dioten arlo guztietan.

[3] Kapitulu honetan dauden datu gehienak iturri hauetatik hartu dira: Gizarte Zerbitzuen, Familien eta Ezinduen Estatu Idazkaritzaren "Haurren babesari buruzko oinarrizko estatistika"tik (eskura dauden datu berrienak 2004koak dira) eta gizarte egoera zailean dauden adingabekoei laguntzeko foru aldundietako arloek emandako informaziotik.

Honela definitzen dira arrisku egoerak: adingabekoaren garapen sozialari kalte egiten dioten egoerak, batzuetan legearen ministerioaren bidez tutoretzaren ardura hartzera behartzen dutenak. Egoera horietan, adingabekoari sortzen zaion kaltea ez da hura familia gunetik bereizteko bezain larria. Erakunde publikoen jarduketak bermatu egin behar ditu, betiere, adingabekoak dituen eskubideak. Arriskuan eta gizarte egoera zailean jartzen duten faktoreak gutxitu behar dira, eta bai adingabekoa bai haren familia babesten dituzten faktoreak sustatu behar dira.

Adingabeko baten zaintza duenak hura jagon behar du, bere ondoan eduki eta mantenua eman behar dio, baita hezkuntza osoa ere. Botere publikoek euren gain hartzen dute zaintza adingabekoa babesik gabe dagoela ikusiz gero (tutoretza eta zaintza), edo, behar den aldirako, guraso zein tutoreek hala eskatzen badute, behar bezala frogatuz ezin dutela adingabekoa zaindu inguruabar larrien ondorioz, edo epaileak hala erabakitzen badu (ezkontideak banantzeko, dibortziatzeko edo ezkontza deuseztatzeko prozeduretan, auzi penaletan edo tutoretza arrunta eratu aurreko aldian, adingabekoaren onerako). Foru aldundietako Gizarte Ekintza sailek hartzen dute zaintza euren gain; zenbait bide daude: adingabekoa egoitza batean sartzea, edo aldundiaren nahiz besteren zentro batean sartzea, edo bere familia zabalak nahiz beste familia batek hartzea.

Bestalde, erakunde publikoek adingabekoaren tutoretza euren gain hartu behar dute babesik gabe badago. Honela definitzen da egoera hori: legeetan adingabekoak babesteko ezarritako betebeharrak ez betetzea edo ezin bete izatea edo behar bezala ez betetzea eta horren ondorioz umeek behar duten laguntza moral edo materialik gabe egotea. Babesik gabeko egoeraren berehalako ondorioak hauek izaten dira: guraso-ahala edo tutoretza arrunta etetea eta erakunde publikoek zaintza euren gain hartzea, egoitza-harreraren edo familia-harreraren bidez.

Adopzioa, azkenik, familia zuzenbideko erakunde bat da; beraren bidez pertsona erabat sartzen da beste pertsona baten edo batzuen familia bizitzan, seme-alabatasun biologikoak sortzen dituen ondorio berberekin, eta adingabekoak jatorrizko familiarekin zituen lotura juridikoak hautsi egiten dira. Ildo horretan, antolamendu juridikoak adopzio nazionala eta nazioartekoa bereizten ditu. Lehenengo kasuan, egiten diren adopzioen kopurua dagoeneko hutsaren hurrengoa da; nazioarteko adopzioen kopurua, aldiz, azken urteetan asko hazi da, gero ikusiko dugun bezala.

1.1.2. Gizarte laguntza jasotzen duten adingabekoen kolektiboa Euskal Autonomia Erkidegoan

Ezinezkoa da zehatz-mehatz jakitea zenbat adingabeko dauden babesik gabeko egoeran. Izan ere, horrelako egoeretariko asko ez dira ezagutzen, ez direlako atzematen behar diren neurriak hartu ahal izan daitezen. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren *"Haurren babesari buruzko estatistika"* azterlanak azpimarratzen duenez, haur eta nerabeekin lan egiten duten irakasleek kalkulatzen dute 1.000 adingabekotik 15, gutxi gorabehera, nolabaiteko tratu txar edo arduragabekeria fisiko zein fisikoen biktima izan litezkeela. Nolanahi ere, kolektibo horretako kide guztietatik, gizarte zerbitzu arduradunek gutxi batzuk baino ez dituzte atzematen. Hortaz, atal honen amaierara arte, eskura dauden datuak aurkeztuko ditugu, hots, gizarte arriskuko egoeran dauden haurren babesari buruz eskuragarri dauden datuak, eta estatuko beste erkidego batzuetako datuekin alderatuko ditugu, hori egin daitekeen kasuetan, behintzat.

Administrazioaren babespean dauden adingabekoen adinari eta sexuari buruz foru aldundiek emandako informazioak erakusten duenez, oro har, mutilak neskak baino apur bat gehiago dira (55/45). Arrazoia, seguru asko, hauxe da: gure herrialdera bakarrik heltzen diren afrikar jatorriko adingabekoak, sarritan adingabekoentzako egoitza-

IV.1.1. KOADROA. EX LEGE TUTORETZAK AUTONOMIA ERKIDEGOKA. ALTAK. 2002-2004.

	2002		2004	
	Kop.	Tasak 100.000ko	Kop.	Tasak 100.000ko
Andaluzia	853	55,0	989	63,3
Aragoi	81	44,6	134	69,8
Asturias	108	77,1	60	44,7
Balearrak	151	93,8	170	94,9
Kanariak	453	127,1	249	67,2
Kantabria	13	15,9	50	60,6
Gaztela eta Leon	196	53,0	195	54,3
Gaztela-Mantxa	213	63,8	212	61,1
Katalunia	1.043	98,3	1.148	99,9
Valentzia	617	82,6	517	64,6
Extremadura	130	60,7	97	47,2
Galizia	379	93,1	396	101,2
Madril	750	80,9	840	81,8
Murtzia	239	96,8	260	97,2
Nafarroa	17	18,7	28	28,6
EAE	**246**	**80,1**	**244**	**79,1**
Errioxa	23	53,0	38	80,8
Ceuta eta Melilla	210	585,7	157	447,7
Estatua guztira	**5.722**	**78,9**	**5.784**	**76,5**

Iturria: LGGM. Haurren babesari buruzko oinarrizko estatistika.

IV.1.2. GRAFIKOA. UMEEN GIZARTE-BABESAREN FIGURA NAGUSIEN BILAKAERA EAE-N. 100.000 ADINGABEKOKO TASAK.



Iturria: LGGMren eta foru aldundien datuak erabili dira.
(*) 2000n daturik ez Bizkaiko familia-harreraz eta Gipuzkoako egoitza-harreraz.
(**) 2003an daturik ez Gipuzkoako familia-harrera judizialaz.
(***) 2005ean eta 2006an daturik ez Bizkaiko familia-harreraz.

erakundeetatik igarotzen direnak, ia-ia guztiak mutilak dira, geroago ikusiko dugunez. Adinari dagokionez, azpimarratzeko datua da, lehenik, apurka-apurka gora egiten ari dela babes espedientea irekita duten adingabekoen batez besteko adina, horri buruzko informazio eguneraturik ez badugu ere. Eskura dauden datuen arabera, Bizkaian laguntza ematen zaien adingabekoen batez besteko adina 9,6 urtekoa da. Kontuan hartu beharreko beste datu bat adinen desberdintasuna da, adingabekoa babesteko aukeratzen den figuraren arabera. Egoitzetan sartzen diren adingabekoak zaharrenak izaten dira; hain zuzen ere, Bizkaiko lurraldean egoera horretan dauden adingabekoen %70 baino gehiago 11 urtetik gorakoak dira. Beste muturrean, adopzioaren aurreko familia-harrera aplikatzen zaien adingabekoak 8 urtetik beherakoak dira kasuen %69,1etan[4].

Azkenik, foru aldundien babespean jartzen diren adingabekoen kasuak zenbait jakinarazpen-iturri desberdinen bitartez igortzen eta deribatzen zaizkie aldundiei. Oro har, azken urteotan jakinarazpenen kopurua etengabe hazi da —%30eko gehikuntza izan du 2003tik 2006ra bitartean, Bizkaiko lurraldean—, eta berriro ere gehikuntza horretan zerikusi handia izan du bakarrik datozen adingabeko atzerritarren helduerak; polizia kidegoek atzeman ohi dituzte horrelako kasuak eta Umeen Atalari jakinarazten dizkiote. Adibidez, Bizkaian 2006an adingabekoak babesteko hasitako espedienteen %64,7tan jakinarazpen-iturria Justizia izan zen (fiskaltza edo epaitegia), eta bigarren lekuan egon ziren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen jakinarazpenek eragindako espedienteak (espediente guztien %18,4). Ez du ematen, ostera, datu horiek argi eta garbi zabaldu daitezkeenik gainerako lurralde historikoetara; izan ere, esate baterako, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak aditzera eman duenez, 2004an (azken datuak urte horretakoak dira) bere lurraldean adingabekoak babesteko hasitako espedienteen %58,8 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen jakinarazpenek eragin zituzten, eta %28,1 fiskaltzaren edo epaitegiaren jakinarazpenek.

(a) Ex lege tutoretzak

Foru aldundiek urtean 250 bat adingabekoren tutoretza hartzen dute euren gain gure erkidegoan (2004an 244

[4] Bestelako familia-harrerak aplikatzen zaizkien adingabekoei buruz, ez dago informaziorik maila honetan.

IV.1.3. GRAFIKOA. EX LEGE TUTORETZAK LURRALDE HISTORIKOKA. ABENDUAREN 31N ZABALIK ZEUDEN ESPEDIENTEAK



Iturria: geuk landua foru aldundien datuekin.

izan ziren), gurasoek ezin dituztelako behar bezala zaindu. Haurren arloko erakunde-politikaren premisetako bat da umeak euren guraso biologikoen ondoan geratu behar direla ahal den guztietan, baina egoera muturrekoa denean hori ezinezkoa da. Normalean udaletako gizarte zerbitzuek atzematen dituzte egoera horiek, eta gehienetan ikastetxeek, bizilagunek edo udaltzainek gizarte zerbitzuei ematen dieten informazioari esker jartzen dira agerian kasuak.

Familientzako laguntzaren arloko teknikariek diote seme-alabak zaintzeko gai ez diren familia guztiek ez dituztela ezaugarri berdinak, baina gehienetan faktore jakin batzuk batzen direla: langabezia, gizarte bazterketa, drogazaletasunak eta/edo buru-gaixotasunak. Gainera, adingabekoak euren familia biologikoengandik banantzeko garaian kontu handiz jokatzen denez, behin bananduta gutxitan itzultzen dira euren familiarengana.

Guztira, foru aldundiek 2006ko abenduaren 31n 1.074 adingabeko zituzten euren babespean, hau da, 100.000 adingabeko 346,4ko tasa zegoen —2004. urtean 317,4koa izan zen, eta orduan ere memoria honek adingabekoen kolektiboari buruzko antzeko balorazioa egin zuen—. Datu horiek estatuko gainerako aldeetan gertatzen denarekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu adingabekoak babesteko espediente berrien urteko kopurua EAEn, 2004. urtean —berdin gertatu zen 2002an ere— estatuko batez bestekoa baino apur bat handiagoa izan zela (100.000 adingabekoko 79,1 eta 76,5, hurrenez hurren) eta beste erkidego batzuetako mailak EAEkoaren antzekoak izan zirela, adibidez Madrilekoa (100.000ko 81,8) edo Errioxakoa (100.000ko 80,8).

Erreferentziako urtearen amaieran zabalik zeuden espedienteen guztizko kopuruari dagokionez, EAEko emaitzak (319,3 espediente 100.000ko) nabarmen gehitu dira azken urte hauetan (%16,1 egin dute gora 2002 eta 2004 bitartean). Estatuko batez bestekoa, ostera, 100.000ko 300-350 inguruan dabil 1999. urteaz gero. EAEko maila batez bestekoaren azpitik dago, beraz, eta Valentziako Erkidegoko edo Balearretako mailen parekoa da.

Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren azterketek agerian jarri dute tutoretzapeko umeen kopurua gero eta handiagoa dela urtetik urtera. Hala, alten kopuruak nahiko egonkor irauten duen arren, urte amaieran tutoretzapean dauden umeen kopuruak gorantz egiten du urtetik urtera, eta horrek esan nahi du bajen kopurua altena baino txikiagoa dela.

(b) Egoitza-harrera eta familia-harrera

Babesik gabe dauden adingabekoen egoitza-harrera aldundien zentroetan edo aldundiekin hitzarmena duten kanpoko zentroetan egin daiteke[5]. Behin-behineko neurria izaten da normalean, familia biologikoarengana itzultzeari, familia-harrerari edo adopzioari begira hartzen dena, baina batzuetan epaileek agintzen dute neurri hori hartzeko, auzi penaletan. Harrera mota hau aldundien zaintzapean dauden adingabekoei aplikatzen zaie. Salbuespenezko kasuetan adin nagusikoei aplikatzen zaie, batez ere neba-arrebak banandu nahi ez direnean, eta halakoetan zentroak eta sailak aldez aurretik aztertu eta baloratzen dute kasua. Nolanahi ere, adin-nagusitasunera heldu baino lehenagotik zaintzapeko egoera horretan egon direnek onuradun izaten jarri dezakete adin-nagusitasunera heltzen diren egunaren ondoko 24 hilabeteetan, Foru Aldundiak baimena emanez gero.

Hemezortzi urte betetzean harrera-egoeran dauden adingabekoei dagokienez, une horretan sortzen zaizkien arazoak nabarmendu behar dira. Izan ere, adin-nagusitasunera heltzen den unetik aurrera gazteari laguntzeko mekanismoak urriak dira. Horren ondorioz gazteak txirotasunean eta gizarte bazterketan erortzeko arriskua izan dezake. Gazte hauek batzuetan zailtasunak izaten dituzte

[5] Gainera, zentroen parekotzat jotzen dira, ondorio hauetarako, tutoretzapeko etxebizitzak, etxe funtzionalak, egoitza txikiak etab.

IV.1.4. GRAFIKOA. EGOITZA-HARRERAK: 100.000 ADINGABEKOKO URTEKO ALTEN BILAKAERA. EAE ETA ESTATUA



Iturria: Geuk landua L. eta Giz. Gaietako Ministerioaren datuekin.

IV.1.2. KOADROA. FAMILIA-HARRERA ADMINISTRATIBOA: TASAK 100.000 ADINGABEKOKO

	1996	1998	2000	2002	2004
Andaluzia	59,2	73,5	96,0	116,7	126,3
Aragoi	20,0	36,2	52,3	49,3	65,6
Asturias	167,5	157,8	210,8	249,4	314,9
Balearrak	148,7	280,5	350,3	387,2	288,6
Kanariak	210,7	323,5	342,4	349,9	312,7
Kantabria	SD	68,3	75,1	87,1	134,6
Gaztela eta Leon	81,3	82,0	86,2	89,2	92,7
Gaztela-Mantxa	29,1	48,1	65,5	58,5	67,7
Katalunia	158,2	186,4	220,7	300,1	295,5
Valentzia	75,2	182,9	265,1	334,6	395,8
Extremadura	97,8	133,3	113,7	180,6	—
Galizia	174,0	218,1	293,6	372,8	381,2
Madril	40,8	61,7	71,9	80,7	102,4
Murtzia	84,0	100,1	118,1	125,4	—
Nafarroa	71,8	78,2	87,7	80,7	120,5
EAE	**19,1**	**67,2**	**28,9**	**95,8**	**108,0**
Errioxa	117,2	139,8	146,2	142,2	161,7
Ceuta eta Melilla	522,1	521,1	315,0	256,2	339,3
Estatua guztira	**92,9**	**129,0**	**155,7**	**191,0**	**206,6**

Iturria: LGGM. Haurren babesari buruzko oinarrizko estatistika.

lana bilatzeko eta ez dute familia-harremanik, beste eragozpen batzuen artean.

Batzuetan adingabekoaren guraso-ahalaren titularrek eurek eskatzen dute egoitza-harreraren alta (horrelakoetan zaintza-neurriak borondatezkoak dira), eta beste batzuetan ex lege tutoretzaren ondorioz edo epaileak hala erabakita. Bajak, berriz, adingabekoa bere familiarengana itzuli delako ematen dira, edo familia-harrera, harrera administratiboa edo harrera judiziala aplikatu zaiolako.

Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren datuek erakusten dutenez, estatu osoan egoitza-harreraren tasak pixkanaka gorantz egiten ari dira, eta familia-harreraren tasek, berriz, urtetik urtera hazkunde handiagoa dute. Euskal Autonomia Erkidegoan ere, egoitza-harreraren urteko tasak hazten ari dira, gorabeherak badituzte ere, eta estatuko batez bestekoaren gainetik daude. Grafikoan ageri den moduan, 1996-1997 biurtekoan, egoitza-harreretarako alten tasak ia-ia berberak izan ziren EAEn eta estatu osoan, 2000. urtean bezalaxe. Bitarteko urteetan eta 2001etik aurrera, ostera, desberdintasun handiak ageri dira, eta EAEk estatuko batez bestekoa gainditzen du. Azken datu konparagarriak 2004. urteari dagozkio, eta tasa hauek erakusten dizkigute: 100.000ko 204,2 alta Euskal Autonomia Erkidegoan eta 100.000ko 118,5 alta estatuan. Bi kasuetan ere 2002ko datuaren aldean izandako gehikuntza garrantzitsua da, baina EAEn izandakoak (%53,4) bikoiztu egiten du estatu osokoa (%23,6).

Familia-harrera egiten denean, bestalde, adingabekoak erabat parte hartu behar du familian eta harrera-egileak zaindu egin behar du, bere ondoan eduki, elikatu eta hezi, eta hezkuntza osoa eman behar dio. Zenbait modalitate bereizten dira, espedientearen jatorriaren arabera (administratiboa edo judiziala, hurrenez hurren, guraso edo tutoreek nahi izan gabe epaileak erabakitzen badu harrera, edo ados jartzen badira erakunde publikoa, harrera-egilea, adingabekoa eta horren senitartekoak), eta lortu nahi diren helburuen arabera: harrera sinplea izan daiteke (behin-behinekoa, adingabekoa familia biologikoarengana itzuliko dela aurreikusten delako, edo beste babes neurri egonkorrago bat hartu behar delako), edo iraunkorra (adinagatik edo adingabekoaren eta familiaren inguruabarrengatik beharrezkoa denean) edo adopzioaren aurrekoa (adopzioaren aurreko fase gisa).

Esan behar da familia-harrera administratiborako espedienteen altak (kopuru erlatibotan) gure erkidegoan estatuko urrienetarikoak direla —Andaluziakoekin, Gaztela-Mantxakoekin eta Murtziakoekin batera—. Hala, esate baterako, 2004. urtean Euskal Autonomia Erkidegoak 100.000 adingabekoko 25,9ko tasa izan zuen, eta estatu osoan, berriz, 100.000 adingabekoko 45eko tasa izan zuten.

Beste alde batetik, epailearen aginduz egiten diren familia-harrerei erreparatzen badiegu, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta estatuko batez bestekoaren arteko aldeak ez dira hain handiak; gure erkidegoan, ordea, gora-

behera handiak izan dira azken urteotan. Nolanahi dela ere, familietan egiten den harrera mota honetarako ratioak harrera administratiboenak baino txikiagoak dira, urteko altei dagokienez —ez, ostera, guztizkoetan—.

(c) Adopzioa

Hirugarrenik, adopzioaren bidez etxe iraunkorra ematen zaie abandonatuta dauden adingabekoei. Adopzioa nazionala edo nazioartekoa izan daiteke. Bi kasuetan ere, foru erakundeek egokitasun ziurtagiria ematen diete eskatzaileei; adopzio nazionala egin nahi denean eurek sustatzen dute kasua epaitegietan, eta nazioarteko adopzioetan, berriz, adingabekoaren jatorrizko herrialdea da eginkizun hori betetzen duena.

IV.1.3. KOADROA. ADOPZIOAREN BILAKAERA EAE-N

	2003	2004	2005	2006
Adopzio nazionaleko autoak	5	7	7	5
Nazioarteko adopzioa				
Egokitasuna baloratzeko eskaerak	678	702	647	654
Egokitasun-txostenak	416	605	637	633
Ezegokitasun-txostenak	4	3	6	7
Azkenean egin diren adopzioak	272	365	374	285

Iturria: Foru Aldundiek emandako datuetan oinarrituta prestatu da.

IV.1.5. GRAFIKOA. ADINGABEKOEN FAMILIA-HARRERA JUDIZIALA: ALTAK URTEAN 100.000 ADINGABEKOKO. EAE ETA ESTATUA.



Iturria: Geuk landua Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren datuekin.

Azken urte hauetan, adopzio nazionaleko prozesuak ia-ia desagertu egin dira, estatuan jaio eta adopzioaren beharra duen adingabekorik ez dagoelako, baina nazioarteko adopzioa urtetik urtera hazten ari da. Foru aldundietako umeen zerbitzuek emandako datuek agerian jartzen dutenez, 2006. urtean adopzio nazionalerako 5 auto baino ez ziren egin gure erkidegoan —3 auto Bizkaian eta 2 Gipuzkoan—. Datu hori positibotzat hartu behar da; izan ere, horren arabera ia ez dago ume bat ere hain babesgabetasun egoera larrian egonda bere jatorrizko familia ez den beste bat behin betiko esleitu behar zaionik, eta horretaz gainera, babes gabezia duten adingabeko horiei laguntzeko gainerako mekanismoek ondo funtzionatzen dute. Beste alde batetik, demografiari buruzko kapituluan zehatz-mehatz azaltzen diren datuek erakusten dutenez, nazioarteko adopziorako espedienteetan eman diren egokitasun-txostenek, goian aipatutako urte horretan bertan, 633 izan ziren, eta azkenean nazioarteko 285 adopzio egin ziren.

1.1.3. Bakarrik dauden adingabeko atzerritarren kasua

Bakarrik dauden adingabeko atzerritarrak gure artean izatea gertaera nahiko berria da gure erkidegoan, eta erronka garrantzitsuak sortzen dizkie adingabekoen babesaren arloan eskumena duten administrazioei. Esku hartzeko presa eta premia larria oztopo izan dira, egoera berri horiei aurre egiteko behar izango ziren baliabideak planifikatzeko orduan. Gainera, adingabeko atzerritarrei laguntzeko esku-hartzeen arloan aldez aurretik esperientziarik ez izatearen ondorioz, etengabe baloratu behar dira lorpenak eta zailtasunak, eta horien araberako doiketak egin behar dira esku-hartzea egokitze aldera.

Arartekoak "*Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn*" izenburuko txostenean (2005) azpimarratu zuenez, Euskal Autonomia Erkidegoko babes zerbitzuen laguntza jasotzen duten adingabeko atzerritarrak, orain arte, Marokotik datoz gehien-gehienak. Hala ere, babesik gabe dauden adingabekoen kolektibo hori ez da homogeneoa eta oso ezaugarri desberdinak dituzten haurrek osatzen dute. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuek, adibidez, ezaugarriak aldatzeko joeraz ohartarazi dute, adingabeko horiek gero eta gazteagoak baitira: 2006an laguntza jaso zutenetatik %32k zituzten 15-17 urte eta %22k 12-14 urte. Aldatu ez dena, dirudienez, mutilen nagusitasun erabatekoa da, nesken aldean: batez

IV.1.6. GRAFIKOA. BAKARRIK DAUDEN ADINGABEKO ATZERRITARREI EGINDAKO ESPEDIENTEEN ETA TUTORETZEN KOPURUAREN BILAKAERA EAEN.



Iturria: Arartekoak foru aldundietatik jasotako datuak.

beste, mutilak, hiru lurralde historikoetan, laguntza jasotzen duten adingabeko atzerritar guztien %95 dira.

Gatazkatsuak omen direla-eta gizartean sortu den kezka funtsik gabekoa da, Arartekoaren iritziz, kasu gehienetan[6], modu positiboan erantzuten baitiete prestakuntza programa publikoei, batez ere eurak laneratzea helburu duten horiei. Izan ere, gazte horietariko asko lan merkatuan sartzeko asmotan datoz, jakin gabe euren adinagatik eta egoeragatik gure herrialdean ezinezkoa izango dutela lan egitea.

Gorago esan denez, babeserako baliabideak gazte hauen beharrizanetara moldatu behar izan dira, beharrizan horiei aurre egiteko behar bezala prestaturik egon gabe, zenbaitetan. Gazteok dakartzaten itxaropenen eta aurkitzen duten errealitatearen arteko desberdintasunak zaildu egiten ditu, gainera, erakundeen, langileen eta gazteen arteko harremanak. Horri gehitu behar zaio banakako ibilbideak garatzeko denbora gutxi dagoela, sarritan ia hemezortzi urterekin sartzen direlako, eta hori oztopo da erakundeen erantzunak jarraipena izateko. Gaur egun, gainera, pertsona horiek berriro geratzen dira babesik gabe eta aurretik egindako ahalegin guztiak azkenean pikutara doaz, laguntzen dieten profesionalen esanetan.

Halaber, Arartekoak ohartarazi duenez, atzerritarrei buruzko arauen aplikazioak segurtasun juridikoaren gabezia larria eragiten du, izan ere, adingabekoen itzulerei eman behar zaien tratamenduari buruzko interpretazioak kasu askotan desberdinak eta are kontrajarriak izaten direlako. Horri gehitu behar zaizkio adingabekoak itzultzeko bermeak betetzea zaila izaten dela: sarritan, nekez lor daiteke adingabekoen inguruabar pertsonalei buruzko informaziorik, eta Maroko bezalako herrietan ez dago haurrak babesteko erakunde egokirik.

Erakundeek adingabeko hauei ematen ari zaizkien erantzunaren balorazioan, Arartekoak hamar arazo nagusi atzeman ditu:

1. Erakundeek ez dute adingabeko hauei laguntza eta babesa emateko irizpide komunik, eta ez dira elkarrekin koordinatzen. Horren ondorioz, adingabekoak batetik

[6] EAEn etorkinekin lan egiten duten erakundeek ere bakarrik dauden adingabeko atzerritarren inguruan sortutako uste okerrak eta halako "alarma sozial" bat aipatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, gure erkidegoa da estatu osoan etorkin gutxien dituzten hiru erkidegoetako bat. Kritikatu izan da, halaber, gainezka egotearen leloa zabaltzen ari dela, nahiz eta benetan atzeman dena larrialdietarako harrera-baliabideen eta egoitzen urritasuna izan.

bestera aldatzen dira, erakunde bakoitzetik lortzen duten edo lortzea espero duten erantzunaren arabera.

2. Adingabeko hauentzat jartzen diren egoitzetako baliabideak mugatuak eta baldintzatuak dira, batez ere erabilgarri dauden plazen kopuruari dagokionez. Horregatik, adingabeko hauentzako harrera-zentroak sarritan gainezka daude.

3. Baliabideen kudeaketaren inguruko arazoak, eta horietan lan egiten duten profesionalen lan egoera (ratioak, prestakuntza, esperientzia, bajak, lan baldintzak...). Zentroak zuzentzen dituzten elkarteek eurek kontratatzen dituzte profesional gehienak.

4. Adingabekoei gizarteratzen lagunduko lieketen prozeduretako atzerapen eta oztopoak, batez ere egoitza baimena eta lan baimena tramitatzerakoan; urteak behar izaten dira, sarritan.

5. Adingabeko hauek eskolatzeko eta hizkuntzaren nahiz lanbide-kualifikazioaren aldetik dituzten beharrizanei hezkuntza sistemaren bidez erantzuna emateko oztopoak.

6. Hemezortzi urte betetzean emantzipatzeko mugak; batez ere, bizilekua eta lana bilatzeko garaian aurkitzen dituzten oztopoak.

7. Barnetegietan dauden adingabeko atzerritar arau-hausleen kopurua gero eta handiagoa izatea azkenaldi honetan.

IV.1.4. KOADROA. LARRIALDIETAN ETA EGOITZA-ZERBITZUETAN HARTUTAKO ADINGABEKO ATZERRITARREN KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N

	Hartutako adingabekoak		Sarrerak egoitza zerbitzuetan	
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak
1996	28	1	16	—
1997	74	2	26	2
1998	93	6	35	2
1999	171	6	53	2
2000	167	5	69	2
2001	486	19	405	11
2002	412	22	381	10
2003	336	15	280	5
2004	399	26	547	23
Guztira 1996-2004	**1.886**	**82**	**1.516**	**37**

Iturria: Geuk landua, foru aldundien eta Arartekoaren datuak erabiliz.

8. Baliteke gure artean babesik gabeko adingabe atzerritarrak egotea, inongo erakunderen babesik jasotzen ez dutenak.

9. Osasun prestazioak eta osasunerako eskubidearen bermea nahikoak ez izatea, batez ere gehiegizko droga kontsumoa edo buru-gaixotasuna dagoen kasuetan.

10. Adingabeko hauetaz gizartean zenbaitek zabaltzen edo indartzen duten irudia; kolektibo homogeneo eta bereziki arazotsutzat aurkezten dute.

Diagnostiko horretatik abiatuta, Arartekoaren azterlanean hainbat gomendio egiten zaizkie erakundeei. Gomendio gehienak hiru foru aldundiei zuzenduta daude, eurek dutelako eskumena babesaren arloan, baina beste aholku batzuen hartzaileak Eusko Jaurlaritzako Osasun, Justizia eta Herrizaingo sailak dira, baita udalak ere, zenbaitetan (adibidez, adingabeko hauek erroldatzeari buruzko aholkuak ematen zaizkie, edo herritarren sentsibilizazioari buruzkoak).

- Lehenengo bost gomendioen helburua da plangintza eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea, beharrezkoak baitira, atzeman diren arazo nagusietako batzuk gainditzeko.

- Zazpi gomendio eman dira egoitza-baliabideen edukiera hobetzeko, ez baita nahikoa, baliabideak dibertsifikatzeko eta zentroen baldintzak eta funtzionamendua hobetzeko.

- Gomendioen beste multzo batean, adingabekoen administrazio egoera erregularizatzeko tramiteak bizkortu egin behar direla aipatzen da: hezur probak egin behar zaizkie heltzen diren unean, erroldatu, haien tutoretza hartu, egoitza eta lan baimenak eman…

- Beste hiru gomendio, Hezkuntza Sailari zuzenduak, adingabeko hauen eskolatzeari edo hezkuntzari buruzkoak dira, eta beste bi, Osasun Sailari zuzenduak, osasun laguntzaren hobekuntzari buruzkoak (batez ere buru-osasuneko arazoak eta gehiegizko droga kontsumoak direla-eta).

- Badira emantzipatzeko aukerei buruzko bi gomendio: hau da, 18 urte betetzean laneratzeko aukera hobeak izan ditzaten eskatzen dutenak.

- Beste bik babes zerbitzuen eta gazteentzako justiziaren arteko lotura edo lankidetza eskatzen dute, adingabeko arau-hausleen kasuan.

- Gainera, babesgabetasun egoerak ikertu eta, behar izanez gero, zuzendu beharra ere aipatzen da (adibidez, kalean dauden adingabekoen egoera edo adingabekoak erabiltzen dituzten prostituzio sareak), baita poliziak adingabeko atzerritarrei tratu ona eman beharra ere.

- Eta, azkenik, hiru gomendio ematen dira informazioaren tratamenduaz eta gizartea arazo honen aurrean sentsibilizatu beharraz.

Azkenik, "*Eusko Legebiltzarrarentzako 2006ko txostena*" agiriaren ondorioetan Arartekoak dio bakarrik dauden adingabeko atzerritarrek EAEn duten egoerari buruz arestian azaldutako diagnostiko hori egin zenetik bi urtera oraindik ere lehengoan daudela atzemandako arazoetariko asko, hala nola harrera egiteko baliabideen saturazioa, eskolatzeko zailtasunak, tramiteen geldotasuna… eta bitartean beste arazo batzuk sortu edo areagotu egin direla: EAEko gizartea adingabeko hauek hartzeko moduan ote dagoen zalantzan jartzen duen eztabaida soziala, irudi gatazkatsua, baliabideak sortzearen aurkako jarrerak, behar adinako bermerik gabeko aberriratze prozesuak... horrek guztiak duen itxura benetan kezkagarria da, Arartekoaren iritziz.

1.1.4. Pobrezian dauden adingabekoak

Gizarte aurreratuetan, adingabekoen babesgabetasun egoerek eta ongizate ekonomikorik ezak ez dute zertan elkarri lotuta egon. Hala eta guztiz ere, egia da bi arazo horiek lotuta egon ohi direla, eta gizarte zailtasunak dituzten adingabekoak, normalean, lehenengo eta behin pobrezia egoerak jasaten dituzte euren familia ingurunean, beste egoera kaltegarri batzuekin batera (esate baterako, tratu txarrak, droga zaletasunak edo ezintasunak).

Hasieratik argi geratu behar da gure gizarteko ume eta nerabe gehienak ondo bizi direla eta euren beharrizanak beteta dituztela, nahiz eta beti egon hobetu beharreko faktoreren bat, UNICEFek 2006. urtean *"Haurren ongizatea herrialde aberatsetan"* izenburuko urteko txostenean baieztatu duen bezala. Txosten horretan, 40 adierazletan oinarrituta, ELGAko 21 herrialdetako adingabekoen bizi baldintzak aztertu dira, hainbat alderdi jorratuz: ongizate materiala, osasuna eta segurtasuna, hezkuntza-ongizatea, familia barruko harremanak eta kidekoen artekoak, jokabide eta arriskuak eta ongizate subjektiboa.

IV.1.5. KOADROA. TXIROTASUN ARRISKUAREN ETA ONGIZATERIK EZAREN INTZIDENTZIA FAMILIA TALDEAREN MOTAREN ARABERA. 2004. BIZTANLERIA (FAMILIA-ETXEAK). (DATUAK EHUNEKOTAN).

	Pobrezia	Ongizaterik eza	Ongizate egoeran
Bak. daudenak	10,7	40,1	59,9
Giz. bakarrik	9,3	28,5	71,5
Ema. bakarrik	11,8	48,4	51,6
Bikotea umeekin	2,6	17,5	82,5
B. umerik gabe	1,8	16,9	83,1
Guraso bakarr. familia	11,3	28,4	71,6
A. s.-alabekin		6,5	93,5
Ama s.-alabe.	12,7	31,1	68,9
Fam. talde hedatuak	1,2	12,7	87,3
Guztira	3,5	19,8	80,2

Iturria: Pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkesta, 2004. Eusko Jaurlaritza.

Azterlan horren arabera, Espainiako estatua bosgarren lekuan dago haurren ongizatearen ranking-ean —aurretik Holanda, Suedia, Danimarka eta Finlandia daude—, puntuazio handiak lortu dituelako, batez ere, ongizate subjektiboaren eremuan (adingabekoek eurek sentitzen dutena da ongizate subjektiboa eta alderdi horretan bigarren postua lortu da, Holandaren atzetik) eta jokabide eta arriskuen atalean (gehiegizko alkohol eta droga kontsumoa edo preserbatiboen erabilera). Oso puntuazio txikiak lortu dira, ostera, beste alor hauetan: ongizate materialean (batez besteko soldataren %50 baino gutxiago sartzen zaien etxeetako adingabekoen portzentajea) eta hezkuntza-ongizatean (eskola-umeen emaitzak, aztertutako gainerako herrialdeetakoen aldean).

Beste alor batean, La Caixa Fundazioaren *"Guraso bakarreko familiak eta haurrak"* azterlanean (2006),[7] INEren *"Bizi baldintzei buruzko 2004ko inkesta"* eta 2001eko biztanle errolda oinarritzat hartuta, zehatz azaltzen da nola guraso bakarreko familiek (gero eta ugariagoak mendebaldeko herrialdeetan) oro har bizi baldintza kaskarragoak dituzten bikotekidearekin bizi diren pertsonek baino, eta esaten da inguruabar horrek neurri handian baldintzatzen dituela seme-alabek bizitzan izango dituzten aukerak. Hain zuzen ere, bertan baieztatzen da Europan guraso bakarreko etxeen kopuruaren hazkundea dela umeen pobrezia areagotzen gehien lagundu duten faktoreetariko bat: Espainiako estatuan, guraso bakarreko hiru familiatik batek urtean 9.000 eurotik beherako diru sarre-

[7] Egileak: Lluis Flaquer, Elisabet Almeda eta Lara Navarro. Fundazioaren Estudios Sociales bilduma, 20 zk.

rekin egin behar du aurrera. Gainera, guraso bakarreko familien multzoaren barruan, ama ezkongabea buru duten familiak dira bazterketa arriskurik handiena dutenak.

IV.1.6. KOADROA. FAM. GASTU SOZIALA* EB-N. GUZTIZKOAREN %.

	2002	2004
EB-25	**8,0**	**7,8**
EB-15	**8,0**	**7,8**
EDB	**8,1**	**7,9**
Belgika	8,8	7,1
Txekiar Errep.	8,4	8,4
Danimarka	13,1	13,0
Alemania	10,6	10,5
Estonia	11,9	12,7
Irlanda	13,6	15,5
Grezia	7,4	6,9
Espainia	**2,9**	**3,5**
Frantzia	9,1	8,5
Italia	3,8	4,4
Zipre	6,3	11,4
Letonia	10,2	10,5
Lituania	8,8	8,8
Luxenburgo	16,6	17,4
Hungaria	13,2	12,1
Malta	7,9	5,2
Holanda	4,6	4,8
Austria	10,7	10,7
Polonia	5,0	4,6
Portugal	5,4	5,3
Eslovenia	9,2	8,6
Eslovakia	9,0	10,7
Finlandia	12,5	11,5
Suedia	9,3	9,6
Erresum. Bat.	6,9	6,7
EEA-28	8,1	7,9
EAE	**1,5**	**1,7**

Iturria: Eustat-en eta Eurostat-en datuak erabili dira.
(*) SEEPROSeko "Familia eta seme-alabak" funtzioaren gastuaren portzentajea, Gizarte Babeserako gastu osoaren aldean.

Emakume horiek jasaten dituzte langabezia tasarik altuenak, haien seme-alabak dira eskola lehenengo uzten dutenak, eta horrelako familiak dira alokatutako etxebizitza batean sarrien bizi direnak.

Halaber, Eurostat eta Unicef[8] erakundeen azterlanetan Europako bizi baldintzei buruz ematen diren datuen azterketan oinarriturik, honako azterlan honetan iradokitzen da guraso bakarreko etxeetan bizi diren adingabekoen ongizatea, neurri handian, herrialde bakoitzeko gobernuak bere gizarte politikei ematen dien norabidearen mende dagoela. Ikerketan ondorio hau atera da: mendebaldeko herrialdeetan haurren pobreziak hainbat kausa izan ditzake, baina arazo horri aurre egiten dioten politika publikoen urritasuna da horietariko bat. Zehatz-mehatz esaten da baliabide publikoen babesa kasu batean ere ez dela iristen arriskuan dauden adingabekoen %15engana ere.

Ildo berean, Eusko Jaurlaritzaren "*Pobreziari eta desberdintasunei buruzko 2004ko inkesta*" izeneko azterlanaren ondorioetako bat hauxe da: pobrezia arriskurik handieneko kolektiboen artean, bakarrik bizi diren pertsonen atzetik datoz guraso bakarreko familietako pertsonak (ongizaterik ez duten pertsona guztien %13,6 eta pobrezian erortzeko arriskuan dauden biztanleen %30,4). Bakarrik dauden pertsonak eta guraso bakarreko familietakoak, batera, gure erkidegoan kolokako egoeran bizi diren pertsonen erdiak baino gehiago dira.

Goian aipatutako inkesta horrek berretsi egiten du, orobat, guraso bakarreko familien kasuan genero faktorea erabakigarria dela; izan ere, emakume bat buru duten

IV.1.7. KOADROA. MANTENTZE-POBREZIAREN ETA METATZE-POBREZIAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA FAMILIA TALDEAREN MOTAREN ARABERA (ETXEEN %)

	Mantentze-pobrezia				Metatze-pobrezia	
	Pobrezia arriskua		Ongizate falta izateko arriskua			
	1996	2004	1996	2004	1996	2004
Bakarrik dauden pertsonak	7,4	10,7	46,6	40,1	2,4	2,1
Gizonezkoak	6,5	9,3	28,8	28,5	3,9	2,6
Emakumezkoak	7,7	11,8	53,0	48,4	1,9	2,7
Bikotea seme-alabarik gabe	4,4	2,6	36,3	17,5	1,0	1,1
Bikotea seme-alabekin	2,6	1,8	24,7	16,9	1,4	1,3
Aita edo ama seme-alabekin	13,0	11,3	40,5	28,4	2,6	10,4
Aita	14,2	0,0	33,4	6,5	0,0	1,4
Ama	12,8	12,7	41,5	31,1	3,0	11,5
Familia talde hedatua		1,2		12,7		1,0

Iturria: EPDS 1996 eta 2004.

[8] Eurostat (2004): *Poverty and social exclusion in the EU: Common indicators for social inclusion. UNICEF (2005): Child Poverty in Rich Countries, 2005.*

IV.1.8. KOADROA. POBREZIA ARRISKUAREN ETA ONGIZATERIK EZAREN EPDS ADIERAZLEEN BILAKAERA, ETXEAN ADINGABEKORIK DAGOEN KONTUAN HARTUTA. DIMENTSIOA: MANTENTZEA. ETXEEN TASAK EHUNEKOTAN

	Mantentzea					
	Pobrezia arriskua			Ongizaterik ez izateko arriskua		
Adingabekoak izatea	1996	2000	2004	1996	2000	2004
Ez	4,8	5,7	4,7	31,6	30,0	22,9
Bai	4,1	4,6	5,6	31,3	24,5	26,4
Guztira	**4,6**	**5,5**	**4,9**	**31,6**	**28,8**	**23,6**

Iturria: EPDS 1996 y 2004.

IV.1.9. KOADROA. METATZE-POBREZIAREN ARRISKUAREN EPDS ADIERAZLEEN BILAKAERA ETXEAN ADINGABEKORIK DAGOEN KONTUAN HARTUTA. ETXEEN TASA EHUNEKOTAN

	Metatzea		
	Pobrezia arriskua		
Adingabekoak izatea	1996	2000	2004
Ez	1,4	1,5	1,4
Bai	2,2	4,5	3,2
Guztira	**1,6**	**2,1**	**1,8**

familien artean nabarmen gehitzen dira bai pobrezia arriskuko egoeren tasa (%12,7, eta gizonezkoen artean, berriz, %0), baita pobrezia egoeren eta ongizaterik gabeko egoeren tasa, batera hartuta (%31,1, eta gizonezkoen artean %6,5). Hain zuzen ere, gizonezkoen artean pobreziaren eta ongizaterik ezaren tasak talde guztietan ikusi diren tasarik txikienak dira, eta guraso bakarreko emakumeenak, aldiz, handienak. Emakumezkoen tasa handiena da, izan ere, pobrezia egoerei dagokienez, eta bigarrena ongizaterik gabeko egoerei dagokienez, bakarrik dauden emakumeen tasen atzetik.

Halaber, 2004ko Txosten Sozioekonomikoan ere azpimarratu egin zen, inkesta horren beraren datuen aurrerapena oinarri hartuta, pobrezia izateko arriskurik handieneko taldeetako bat, oro har, euren pentzura seme-alaba adingabekoak dituzten familien taldea dela, hain zuzen ere. Horrela, bada, pobrezia motaren batekin zerikusia duten arazoak dituzten etxeetako pertsonen proportzioa %4,2koa da adingabekorik ez duten etxeetako pertsonen artean, baina halako arazoak dituztenen tasa hori %7,7ra igotzen da etxean 14 urtetik beherako haurren bat dutenen kasuan. Gainera, etxean adingabekoak izatea pobrezia tasa handiagoari lotuta dago, bai mantentze[9] alderdian eta bai metatze[10] alderdiari dagokionez ere. Lehenengo kasuan, adingabekorik gabeko etxeetako pertsonen artean pobrezia tasa 3,1% da, eta %4,5era igotzen da adingabekoak dituzten etxeetako pertsonen artean. Desberdintasuna, ostera, deigarriagoa da metatze-pobreziaren kasuan, tasa hori %1,3tik %4,4ra igotzen baita etxean adingabekoren bat dagoenean.

Beste alde batetik, mantentze-pobreziaren tasen bilakaerari erreparatzen bazaio familia taldea zein motatakoa den kontuan hartuta, ziklo ekonomikoaren eragin positiboa nabaritzen da. Hori agerian geratzen da, batez ere, ongizaterik gabeko egoeren kasuan; izan ere, familia mota guztietan gutxitu dira horrelako egoerak. Pobrezia jasateko arriskuaren kasuan ere beherakada nabarmena dago, baina badira bi etxe mota halako hobekuntzarik sumatu ez dutenak: emakume bat buru duten guraso bakarreko etxeak, eta pertsona bakarrekoak, gizonezkoak izan nahiz emakumezkoak. Metatze-pobreziari dagokionez, txarrera egin du modu oso nabarmenean guraso bakarreko etxeetan, batez ere emakumezko bat buru duten etxeetan eta, neurri txikiagoan, bakarrik dauden emakumeen artean. Hala, bada, egoera txarrenean zeuden etxeek hobekuntza txikia izan dute ekonomiaren hedaldian, edo ez dute batere hobekuntzarik izan.

Pobreziari buruzko Inkestan gai honetaz ematen diren beste datu batzuek ere adierazten digute adingabekoak dituzten etxeen artean ongizaterik ez dutenen portzentajeek behera egin dutela 1996tik 2004ra bitartean, baina pobrezia arriskua dutenen eta metatze-pobrezia dutenen portzentajeak handitu egin direla.

[9] Pobrezia mota hau duten etxeetan, errenta erabilgarriaren maila nahikoa ez izateagatik, zailtasunak daude ohiko gastu mailei eusteko, hau da, etxekoen beharrizanei aurre egiteko beharrezkoak diren gastuak egiteko.

[10] Kasu honetan, kolokako egoera ekonomikoa gure gizarteko ohiko estandarren azpiko bizi baldintzei lotuta dago, kontsumo iraunkorreko oinarrizko ondasunak, adibidez etxebizitza, eskuratzeari dagokionez; halako ondasunek definitzen dute etxeetako bizimoduak epe luzean izango duen ohiko markoa.

1.2. Mendekotasuna duten pertsonak

Mendekotasunaren hainbat definizio daude eta horien artean Europako Kontseiluarena aipa genezake (Oslo, 2000): *"Mendekotasuna egoera bat da, non pertsonek, autonomia fisikoa, psikologikoa edo adimen-autonomia galdu izanaren ondorioz, nolabaiteko laguntza behar duten euren eguneroko jarduerak egin ahal izateko. Halaber mendekotasuna sortu edo areagotu egin daiteke gizarteraturik ez egoteagatik, edo adinekoen bizimodurako beharrezkoak diren elkartasunezko harremanen, ingurune iritsi errazen eta baliabide ekonomikoen faltagatik"*. Definizio hori oinarri, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak honela azaltzen du zer den mendekotasuna: *"ezgaitasunen bat duen pertsonak laguntza teknikoaren edo pertsonen beharra izatea jarduera jakin bat egiteko"*. Edo, OMEk dioenez, mendekotasunaren funtsa da pertsona ezin dela bere kabuz bizi eta beste batzuen laguntza behar duela etengabe, eguneroko bizitzako jarduerak egin ahal izateko.

Horiek horrela, mendekotasuna duten pertsonentzako osasun laguntza gako-faktorea da, arrazoi hauek tarteko: gaixotasunak dira, alde handiz, mendekotasunaren eragile nagusiak; askotan, aurrea hartu ahal izan zaien gaixotasunak dira (prebentziozko medikuntza), eta gaixotasun horietariko gehienek kontrolak eta tratamenduak egitera behartzen dute, gaixoaren osasun egoerak txarrera egin ez dezan (laguntza-medikuntza). Gainera, sarritan, mendekotasuna duten adineko pertsonen osasun arazoen ondorioz egiten dute gainezka laguntza-egoerek.

1.2.1. Zahartzea eta mendekotasuna

Mendeetan zehar, 65 urtetik aurrerako biztanleak ez dira biztanle guztien %5 izatera iritsi inongo gizartetan. Baina XX. mendean herrialde askok gainditu dute atalase hori, batez ere Europan; hain zuzen ere, gaur egun Saharaz azpiko herrialdeetan bakarrik aurkitzen dira tasa txikiagoak. EAEn, 2006. urtean, 65 urtetik aurrerako biztanleen kolektiboa 393.252 pertsonak osatzen dute (biztanle guztien %18,4), eta 20 urtetik beherakoen segmentua baino handiagoa da (20 urtetik beherakoak 354.130 pertsona dira, biztanle guztien %16,5). Datu horiek gorabehera, EAE, biztanleriaren zahartzeari dagokionez, maila ertainean dago Europako beste eskualde batzuen aldean: bera baino askoz gorago daude Liguria (%26), Limousin (%23,2), Toskana (%22,8) edo Alentejo (%22,6), baina beste batzuk beherago daude, besteak beste Ipar Irlanda (%13,4), Madeira (%13,4), Ile-de-France (%12,4) eta Londres (%12,1).

Gainera, Eustat-en "*2015eko biztanleriaren proiekzioen estatistika*" azterlanean aurreikusten denez, 20 urtetik beherakoen kolektiboa hazi egingo da harik eta 2015ean

IV.1.7. GRAFIKOA. EAEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA ADIN-TALDE HANDIEN ARABERA. PROIEKZIOAK.



Iturria: Eustat. Biztanleriaren proiekzioak, 2015.

%18,6 izan arte, baina bilakaera hori ez da nahikoa izango 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen kopuruaren gehikuntza berdintzeko: 101.000 pertsona gehiago izango dira, hots, 2015erako biztanle guztien %21,3 izango dira. Alabaina, 85 urte edo gehiago dituzten pertsonen taldeak izango du gehikuntzarik handiena, 2000n %9,9 izatetik 2015ean %16,4 izatera igaroko baitira; izan ere, biztanle zaharrenek osatzen duten biztanleria-segmentuak hazkunde erritmo bizkorragoa izango du (+%5,14 urtean) 65 urtetik gorako biztanle guztien multzoak baino (+%1,64 urtean). Erritmo horretan, 85 urte edo gehiago dituzten pertsonak 40.000 gehiago izango dira, hau da, horien kopurua 36.100etik 76.600era igoko da 15 urteren buruan. Proiekzio horiek eurek EAEko biztanleen bizi itxaropena luzatuko dela aurreikusten dute: 2015ean 80,2 urtekoa izango da gizonentzat eta 86,9 urtekoa emakumeentzat.

Hain zuzen ere, Nazio Batuen arabera[11], 2050. urtean Espainia izango da munduan biztanleriarik zaharrena duen herrialdea: batez beste 55 urte. Hurbil izango ditu beste batzuk, esate baterako Italia, Eslovenia eta Austria (54 urte, batez beste). Iragartzen denez, urte horretarako bai Espainian bai Italian 60 urtetik gorako lau pertsona izango dira ume bakoitzeko. Halaber, hamar herrialdetan biztanle guztien %10 baino gehiago 80 urtetik gorakoak izango dira. Gaur egun herrialderik zaharrenean, Japonian, batez besteko adina 41 urtekoa da, eta munduan 26 urtekoa.

IV.1.8. GRAFIKOA. MOLDATZEKO LAGUNTZA BEHAR DUTEN 70 URTETIK GORAKOEN PORTZENTAJEA. 1997-2002.



Iturria: Eusko Jaurlaritza: Osasunari buruzko inkestak, 1997 eta 2002.

Osasun laguntza hobetu egin da, bizi itxaropena handitu, eta pertsona zaharrenek euren kabuz bizitzeko gero eta erraztasun gehiago dituzte. Faktore horiek guztiak direla bide, gero eta gehiago dira adineko pertsonak soilik bizi diren etxebizitzak. Hain zuzen ere, 1981. urtetik 1991. urtera bitartean, 65 urtetik gorako pertsonek osatutako etxeen kopuruari 45.000 unitate gehitu zitzaizkion (+%43). Geroago, 1991. urtetik 2004. urtera bitartean, prozesu hori areagotu egin da, horrelako 91.000 etxe gehitu baitira (epe horretan izandako gehikuntza osoaren %50 baino gehiago dira, guztira 174.900 etxe gehitu baitira bitarte horretan). Horretaz gainera, beste 51.952 etxetan bizi direnak 65 urtetik aurrerako bikoteak dira; horrelakoak dira EAEko etxe guztien %7.

EAEko 2005eko Txosten Sozioekonomikoaren kapitulu batean zaharren bizi baldintzak hartu ziren aztergai. Gure erkidegoaren esparruan, zahartzeak eta mendekotasunak osatzen duten binomioari lotutako alderdi hauek jorratu ziren:

- Mendekotasuna handiagoa da zahartu ahala, eta sarrera txikiak dituzten emakume alargunek dute mendekotasun arrisku handiena.
- Eguneroko jarduerak egiteko inoren laguntzaren beharra duten adinekoen portzentajeak:: %12 (mendekotasun moderatua eta larria) eta %26 (arina barne) bitartekoak.
- Ia biztanleen erdiek, 75 urtetik aurrera, arazoak dituzte eguneroko jardueraren bat (oinarrizkoa eta tresnen bidezkoa) euren kabuz egiteko, eta bostetik batek arazo larriak ditu. Mendekotasuna eta laguntzaren beharra 72 urteko adinarekin hasten dira, batez beste.
- Gizarte aldaketak ikusirik, uste izatekoa da zerbitzu formalen eskaria handiagoa izango dela etorkizunean, nahiz eta laguntza ez-formalak hurrengo urteetan ere mendekotasuna duten pertsonei laguntzeko eredu nagusia izaten segituko duen, behera egin arren.

Gauzak horrela, mendekotasuna duten pertsonen laguntza beharrak hurrengo hamarkadetan ere oso azkar haziko dira, faktore demografikoak, medikuntzaren arloko faktoreak eta gizarte faktoreak direla medio. Faktore horien artean nabarmentzekoa da lehen aipatu dugun biz-

[11] *"Zahartzearen ondorioak gaur egun Espainiako gizartean"*, M. Teresa Bazo. Panorama Social aldizkaria, 1 zenbakia, Funcas, 2005.

tanleriaren zahartzea —sarritan sinplifikatu egiten da, zahartzea eta mendekotasuna elkarri lotuz—, baina baita, horrez gain, sortzetiko alterazioek, gaixotasunek eta istripu larriek jotako pertsonen biziraupen tasa hobeak eta lan istripuen eta trafiko istripuen eragin gero eta handiagoa ere[12].

Orain dela gutxira arte banakoen eta familien arazoa izan dena, hori ez ezik, dagoeneko "arrisku sozial" ere bihurtu da, eta Europako gizarteak euren gain hartzen ari dira arrisku hori, mota askotako gizarte prestazioek, prestazio teknikoek eta zaintzaileentzako laguntzek osatzen dituzten sistemen bitartez. Horregatik, mendekotasuna funtsezko aztergai bihurtu da agenda politiko guztietan eta erakunde publikoen arreta bereganatu du 2006. urtean, beste arrazoi batzuen artean, Mendekotasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko eta haiei laguntza emateko Estatu Legea (Mendekotasun Legea) tramitatu delako, baita Kongresuan onetsi ere, azaroaren 30eko osoko bilkuran[13].

1.2.2. Mendekotasuna duten pertsonen kolektiboa EAEn

Mendekotasuna duten pertsonen kolektiboaren tamaina kalkulatzeko lehenengo iturria INEren "*Ezgaitasunei, urritasunei eta osasun egoerari buruzko inkesta*" da, 1999koa. Bertan daude jasorik pertsonen ezaugarriak (ezinduak izan nahiz ez), etxeenak eta ezgaitasunen bat duten pertsonenak, baita ezgaitasun horien ezaugarriak ere. Inkesta horrek, Eusko Jaurlaritzak hamabost urterik behin egiten duen "*Osasun inkesta*"rekin batera, mendekotasuna duten EAEko pertsonen kopurua eta ezaugarriak estimatzea ahalbidetzen du. Hala eta guztiz ere, kontuan izanik datuak zaharrak direla —batez ere INEren

IV.1.10. KOADROA. JARDUERA-MUGA KRONIKOA DUTENEN EHUNEKOA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2002.

Adin taldeak	Gizonak	Emakum	Guztira	Guztira 1997
< 25	1,9	1,8	1,9	1,9
25-44	4,5	3,3	3,9	4,5
45-64	11,9	8,9	10,4	12,1
> 65	19,2	22,8	21,3	26,8
Guztira	**7,7**	**8,1**	**7,9**	**8,9**

Iturria: Eusko Jaurlaritza: Osasunari buruzko inkesta, 2002.

IV.1.11. KOADROA. MENDEKOTASUNA DUTEN EAE-KO BIZTANLEEN ESTIMAZIOA. INTZIDENTZIA, 2006-2015.

Lurralde historikoak	Generoa	Egoerak									
		2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Araba	Gizonak	3.238	3.318	3.464	3.564	3.669	3.783	3.927	4.057	4.159	4.296
	Emakum.	5.525	5.662	5.942	6.062	6.265	6.429	6.608	6.879	7.061	7.301
Bizkaia	Gizonak	13.478	13.839	14.185	14.521	14.832	15.261	15.552	15.957	16.252	16.711
	Emakum.	25.027	25.670	26.348	26.961	27.759	28.448	29.089	29.805	30.342	31.076
Gipuzkoa	Gizonak	7.775	8.007	8.216	8.406	8.646	8.966	9.161	9.414	9.732	9.985
	Emakum.	14.542	14.877	15.302	15.608	16.045	16.507	16.836	17.295	17.678	18.069
EAE	Gizonak	24.491	25.164	25.865	26.491	27.147	28.010	28.640	29.427	30.142	30.992
	Emakum.	45.094	46.210	47.591	48.631	50.068	51.383	52.533	53.979	55.081	56.446
	Guztira	**69.585**	**71.374**	**73.455**	**75.122**	**77.215**	**79.393**	**81.172**	**83.406**	**85.223**	**87.438**
Intzidentzia zenbatetsia biztan. osoaren aldean ‰		33,03	33,75	34,62	35,29	36,16	37,05	37,74	38,63	39,32	40,17

Iturria: "Zainketa ez-formalak EAEn. Zaintzaileen beharrizanak" (2006). Gizarte Ongizateko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

[12] Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa (2005): Mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza Espainian. Liburu zuria.

[13] Lege honek herritarren eskubide unibertsal eta subjektibo berri bat ezarri du estatuan, mendekotasuna duten pertsonei (adinekoak eta ezinduak) laguntza eta zainketak bermatzen dizkiena. Horretarako, Autonomiarako eta Mendekotasunei Erantzuteko Sistema (SAAD) erabiliko da, zerbitzuak lehenetsiz (etxeko laguntza, eguneko eta gaueko zentroak, telelaguntza, egoitzetako plazak), eta prestazio ekonomikoak ere emango dira, hori guztia autonomia erkidegoekin koordinaturik. Hala, 2007tik aurrera ebaluazioa egingo zaie eskatzen duten pertsona guztiei, euren mendekotasun gradua eta maila eta eman behar zaizkien prestazioak zehazteko.

kasuan— eta azken urte hauetan bizkor eboluzionatzen ari direla ezgaitasuna eragiten duten patologia batzuk (esate baterako, Alzheimer gisako endekapenezko gaixotasunak), zuhurtasunez erabili behar ditugu arestian aipatutako datuak.

Azken osasun inkestan, 2002. urteari buruzkoan, kalkulatu zen pertsonen %7,9k zutela "jardueraren muga kronikoa". Horrek esan nahi du, biztanleriari buruz eskura dauden azken datuen arabera (2005-12-31koak), kolektibo horrek 169.132 pertsona biltzen dituela. Ezgaitasunei buruzko inkestari erreparatuz gero, bertan adierazi zen gure erkidegoan guztira 143.601 pertsonak zutela ezgaitasunen bat eta horietatik 85.900ek mugatuta zeuzkatela eguneroko jarduerak. Jakina, ez dira pertsona horiek guztiak "mendekoak", baina mugak dituen kolektibo horren tamainak aztertzen ari garen arazoaren neurria erakutsi ahal digu.

Duela gutxiago, 2006an, Eusko Jaurlaritzak "*Zainketa ez-formalak EAEn. Zaintzaileen beharrizanak*" azterlana egin du eta gure erkidegoan mendekotasuna duten biztanleen kopuruaren estimazio bat aurkeztu da bertan. Besteak beste, kolektibo horrek ustez nola eboluzionatuko duen kalkulatu da, 2006ko datuan oinarrituta. Estimazio horrek dio ia 70.000 pertsona (milako 33) biltzen dituela mendekotasuna dutenen kolektiboak gaur egun, eta Eustat-en biztanleria-proiekzioak oinarri hartuta, kalkulatzen du pertsona horiek milako 40 izango direla 2015erako (guztira 87.438 pertsona izango dira urte horretan, haietatik %64,5 emakumezkoak).

1.2.3. Zainketa formala eta ez-formala

Bilakaera demografikoa, mendekotasuna duten pertsonen kopuruaren hazkundea eta familietan eta gizartean izandako aldaketak direla eta, ezin zaio eutsi luzaroko zainketen oraingo sistemari. Familiek eramaten dute sistema horren zama, batez ere emakumezkoek.

IV.1.12. KOADROA. ZAINDUTAKO PERTSONAK NON BIZI DIREN, EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA. BANAKETA, PORTZENTAJETAN

	Eremu geografikoa			
	Ipar. herriald.	Herrialde kontinentalak	Europa heg. herrialdeak	Herrialde anglosaxoiak
Zaintzailearen etxean	23,6	55,5	59,2	30,4
Zaintzailearen etxetik kanpo	73,6	43,6	37,8	65,8
Zaintzailearen etxean eta kanpoan	2,8	0,9	3	3,8
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**

Iturria: "Zainketa ez-formalak EAEn. Zaintzaileen beharrizanak" (2006). Gizarte Ongizateko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

IV.1.13. KOADROA. ADINEKOENTZAKO ZENBAIT GIZARTE ZERBITZUREN ESTALDURA INDIZEA. EMAITZAK AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA. 2004KO URTARRILA.

	ELZ	Tele-laguntza	Eguneko zentr.	Egoitza zerbitzuak	Guztira
Andaluzia	3,5	1,8	0,3	2,8	8,5
Aragoi	3,1	2,7	0,3	4,5	10,5
Asturias	3,3	1,8	0,4	4,1	9,4
Balearrak	2,1	1,9	0,2	2,8	7,1
Kanariak	2,7	0,6	0,2	2,9	6,4
Kantabria	1,9	0,5	0,4	4,0	6,8
Gaztela eta Leon	3,1	2,5	0,4	6,1	12,1
Gaztela-Mantxa	4,9	3,9	0,2	5,1	14,1
Katalunia	3,9	0,8	1,0	4,4	10,0
Valentziako erk.	1,7	1,9	0,3	2,5	6,3
Extremadura	7,4	1,3	0,4	3,7	12,9
Galizia	1,9	0,7	0,2	2,1	4,8
Madril	3,4	4,6	0,7	4,6	13,2
Murtzia	1,8	1,4	0,4	2,3	6,0
Nafarroa	3,6	4,7	0,4	5,3	14,0
EAE	**1,8**	**2,3**	**0,6**	**3,9**	**8,5**
Errioxa	3,4	1,3	0,5	4,7	9,9
Ceuta	3,4	0,4	0,3	1,7	5,8
Melilla	3,2	3,0	0,3	2,7	9,2
Estatua guztira	**3,1**	**2,1**	**0,4**	**3,7**	**9,0**

Iturria: IMSERSO. Mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza Espainian. Liburu zuria. 2005.

Familia izan da, gobernuentzat, mendekotasunari aurre egiteko aurrekontuz kanpoko baliabidea. Eredu "mediterranearreko" herrialdeetan —gure erkidegoa eredu horren barruan dago— senitartekoen arteko loturak estuak dira. Horrenbestez, laguntza behar duten adinekoei familiek ia %80raino asetzen dizkiete luzaroko zainketen beharrizanak. Baina familia (benetan "emakumezkoen lana" esan nahi duen termino eufemistikoa den aldetik) bere zaintza-ahalmenaren muga-mugan dago eta ezin du jarraitu zahartzearen eta mendekotasunaren zamari berak bakarrik eusten.

Familien egitura mehartzen ari da: seme-alaba gutxiago, eta familia bereko belaunaldi gehiago batera bizitzen, bizitza luzatu egin delako. Gero eta gehiago dira seme-alabarik ez duten edo ume bakarra duten bikoteak; ume horiek ez dute neba-arrebarik ez lobarik izango. Eta egitura "luzatzen" ari denez, belaunaldi biziak gero eta gehiago direnez, zaharrenen zaintzaileak ere gero eta zaharragoak izango dira: gizartea zahartzen ari da, familiaren egitura zahartzen ari da, zaharrak ere zahartzen ari dira eta zainketa tradizionalaren indarra zahartzen ari da. Gainera, familia-harremanei eta familien zaintza-ahalmenari gehien eragin ahal dien aldaketa soziala, lehen esan denez, emakumeek lan merkatuan parte hartzea da; aldaketa horrek zaintzeko ahalmena gutxitzen du eta kolokan jartzen du mendekotasuna dutenei laguntza emateko eredu tradizionala.

Hala ere, orain arteko politika publikoak familiaren elkartasunean oinarritutako zainketa eredu horren inguruan antolatu dira, funtzio subsidiarioa eta ez-integrala mantenduz. Horrela bidegabeko egoerak sortzen dira, elkartasun handienaz jokatzen duten familiak direlako laguntza gutxien jasotzen dutenak. Beharrezkoa da, beraz, legezko neurriak eta neurri estrategikoak hartzea mendekotasunaren erronkari erantzuteko.

a) Zainketa formala

Gaur egun, mendekotasuna duten pertsonen zainketa formala hutsaren hurrengoa da zerbitzuetako batzuetan; hala erakusten dute, behintzat, mendekotasuna duten pertsonen beharrizanak (zaharren beharrizanak, kasurik gehienetan) asetzeko estaldurari buruzko datuek. EAEko 2005eko Memoria Sozioekonomikoak agerian jarri zuenez, EAE estatuko batez bestekotik hurbil dago, mendekotasuna duten adinekoentzako gizarte zerbitzuen eskaintzari dagokionez. Telelaguntzako zerbitzuen estaldura (65 urtetik gorakoen %2,3), eguneko zentroak (milako 6) eta egoitza-zerbitzuak (%3,9) batez bestekoaren gainetik daude, eta etxez etxeko laguntza zerbitzua, aldiz (adine-

IV.1.14. KOADROA. MENDEKOTASUN EGOEREI ERANTZUTEKO ZENTRO ETA ZERBITZUEN BALIABIDEEI DAGOZKIEN AURREKONTU-GASTUAK, GASTU ZENTROEN ARABERA (2004) (EUROAK, MILAKOTAN)

	Adinekoak						Ezinduak						Guztira
	Egoitz. pla.	E. zentroak	E. laguntza	Telelag.	Bestelak.	**Guztira**	Egoitz. pla.	E. zentroak	E. laguntza	Telelag.	Bestelak.	Guztira	
Andaluzia	147.479	15.365	17.746	1.944	1.914	**184.448**	40.216	9.961	2.217	397	42.582	**95.373**	**279.821**
Aragoi	45.782	2.596	—	—	—	**48.378**	17.556	1.529	—	—	—	**19.085**	**67.463**
Asturias	33.659	9.851	12.330	—	—	**55.840**	9.030	1.827	904	—	—	**11.761**	**67.601**
Kanariak	9.569	900	6.115	113	8.416	**25.113**	7.657	1.096	996	20	3.482	**13.251**	**38.364**
Kantabria	24.504	4.597	2.997	300	3.891	**36.289**	7.806	4.617	59	—	2.246	**14.728**	**51.017**
Gaztela eta Leon	95.050	24.440	25.327	569	7.788	**153.174**	46.399	35.975	1.367	—	9.596	**93.337**	**246.511**
Gaztela-Mantxa	93.918	6.999	24.303	3.898	4.234	**133.352**	30.277	14.195	—	—	3.060	**47.532**	**180.884**
Katalunia	219.344	18.685	15.680	386	73.644	**327.739**	87.825	47.504	—	—	28.819	**164.148**	**491.887**
Extremadura	54.689	1.705	6.757	—	622	**63.773**	10.845	2.453	—	—	—	**13.298**	**77.071**
Galizia	—	—	—	—	—	**—**	16.710	2.772	965	18	—	**20.465**	**20.465**
Errioxa	8.163	436	1.568	39	—	**10.206**	3.772	786	251	6	24	**4.839**	**15.045**
Madril	238.415	10.973	24.800	4.724	4.249	**283.161**	—	—	1.060	63	—	**1.123**	**284.284**
Murtzia	20.866	6.107	3.079	—	2.074	**32.126**	18.394	8	310	—	8.801	**27.513**	**59.639**
Nafarroa	15.528	5.176	6.843	1.095	2.307	**30.949**	16.301	5.434	437	—	3.135	**25.307**	**56.256**
Valentzia	93.320	3.027	2.944	800	6.929	**107.020**	26.606	9.175	2.944	800	23.089	**62.614**	**169.634**
Arabako FA	36.253	4.406	11.334	60	998	**53.051**	9.011	2.225	1.094	2	7.084	**19.416**	**72.467**
Gipuzkoako FA	37.957	4.050	7.825	445	2.698	**52.975**	15.921	3.678	128	—	2.503	**22.230**	**75.205**
Bizkaiko FA	35.651	3.388	154	606	4.569	**44.368**	2.463	6.011	—	—	—	**8.474**	**52.842**
Melilla	260	26	1.406	59	40	**1.791**	405	270	—	—	25	**700**	**2.491**
IMSERSO	12.928	186	1.177	15.701	—	**29.992**	42.396	—	—	—	—	**42.396**	**72.388**
Guztira	**1.223.335**	**122.913**	**172.385**	**30.739**	**124.373**	**1.673.745**	**409.590**	**149.516**	**12.732**	**1.306**	**134.446**	**707.589**	**2.381.335**

Iturria: Administrazio eskudunak. Geuk landua

IV.1.9. GRAFIKOA. FINANTZAKETA, JATORRIAREN ETA TITULARTASUNAREN ARABERA, LURRALDEKA (% 2004)



Iturria: Eustat.

IV.1.10. GRAFIKOA. EGOITZA-PLAZAK, BIZTANLERIA MOTAREN ARABERA (% 2004)



Iturria: Eustat.

koen %1,8) estatuko %3,1eko batez bestekotik urrun dago. Labur azalduta, zerbitzu nagusien estaldura gure erkidegoko adinekoen %8,5engana iristen da, eta estatu osoan, berriz, adinekoen %9rengana. Gaztela-Mantxa (%14,1), Nafarroa (%14) eta Madril (%13,2), erkidego horiek zeuden lehenengo postuetan, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak egindako azterlaneko datuen erreferentziako egunean (2004ko urtarrileko datuak ziren eta 2005ean argitaratu ziren Mendekotasunaren Liburu Zurian).

Eustat-en "*Gizarte zerbitzuei buruzko 2004ko estatistika*"ren arabera, egoitza-zentro gehienak, 356, hain zuzen ere (kopuru osoaren %50) adinekoentzako zentroak dira; 15.038 plaza eskaintzen dituzte (kopuru osoaren %77) eta 14.016 erabiltzaile dituzte (%78). Eskaintza horrek 3,9 plaza eskaintzen ditu 65 urtetik gorako 100 biztanleko (ratio berbera lortzen da Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren Liburu Zuriko datuetatik), eta gure erkidegoak 2004an gizarte zerbitzuetan egindako gastu osoaren (1.196 milioi euro) %25 bereganatu zuen.

Estatistika horren erreferentziako urtean 488 plaza sortu ziren 11 egoitza-zentrotan banatuta: hazkundea 2003. urtekoa baino txikiagoa izan zen. Azken hamarkadan enpresa sektorea indarrez sartu da sistemara, biztanleriaren zahartzeak sortu dituen aukerek erakarrita; horren eraginez, sektore pribatuan, zentroen kopuruaren batez besteko hazkundea urtean %11koa izan da, eta eskaintzen diren plazen kopuruarena, berriz, %7. Sektore publikoan, aldiz, emaitzak nabarmen apalagoak izan dira: urteko batez besteko hazkundearen tasak %5 eta %2 izan dira hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, kontuan hartzen badugu egoitza pribatuetako plazen %43 Administrazio Publikoarekin (gehienbat Foru Administrazioarekin) hitzartuta daudela, plazen %65 erakunde publikoen ardurapekoak izango lirateke.

Adinekoentzako egoitzetan zenbait desberdintasun ageri dira lurralde historikoen artean: Arabak 69 establezimendu ditu, gehienak publikoak (%69), eta lurralde historiko horretan 2.559 plaza eskaintzen dira, orekatuagoak, titulartasunari dagokionez (%54 publikoak dira eta %46 pribatuak). Beste alde batetik, Bizkaian 191 egoitza daude, guztira 7.559 plaza eskaintzen dituztenak, hau da, EAEko eskaintzaren erdia, eta eskema erabat pribatua dute; izan ere, eskaintza publikoak plazen %20 baino ez ditu hartzen. Gipuzkoan 96 zentro eta 4.920 plaza daude, eta lurralde historiko horretan, Bizkaian ez bezala, eskaintza gehienbat publikoa da bai zentroetan (%60) eta bai plazetan ere (%52). Adinekoen mendekotasun mailaren arabera, egoitza gutxi batzuk, 32 guztira, mendekotasuna duten pertsonak zaintzea dute xede bakarra, eta horrelakoetan 2.139 plaza eskaintzen dira (%14); gainerakoak honela banatzen dira: 78 egoitza euren kabuz moldatzen diren zaharrentzat, eta 246 egoitza misto (%69), adinekoentzako egoitzetako plazen %78 biltzen dituztenak. Egoitzetan sartutako adinekoen multzo osoan,

mendekotasuna duten adinekoak (%67) urtean %8 gehitu dira, eta euren kabuz moldatzen diren adinekoen kopuruek lehengoan iraun dute.

Beste alde batetik, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzen eskaintzak 109 zentro eta 1.641 plaza biltzen ditu guztira, eta plazen %58 establezimendu pribatuek eskaintzen dituzte. Establezimendu eta plaza gehienak ezgaitasun psikikoa dutenei laguntzeko dira, eta ezindu fisikoentzat zentroen %14 eta plazen %13 baino ez dira gordetzen. Sektore honetako zentro mota ohikoena hauxe da: ezgaitasun psikiko arina edo ertaina duten pertsonentzako pisu-etxebizitza funtzionalak (%42).

Gizarte Zerbitzuen Estatistikan azpimarratu behar den beste partida bat etxeko laguntza zerbitzuena da: horren gastu osoa 57,8 milioi eurokoa izan zen, 2003an baino %15 gehiago. Zerbitzu hau batera finantzatu zuten Administrazio Publikoak (%90) eta erabiltzaileek (%10). Laguntza eman zitzaien 19.000 pertsonari, eta batez besteko kostua 3.036 eurokoa izan zen. Zerbitzuen onuradunen %90 adinekoak izan ziren.

b) *Zainketa ez-formala*

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren "*Familien 2004ko inkesta*" izeneko azterlanean jasotako datuen arabera, zaharrak zaintzearen inguruko arazoak dituzten familien proportzioa gutxi gorabehera %8,7koa da, alegia, EAE osoan 64.900 bat familiak dituzte horrelako arazoak. Bistan denez, kopuru horiek jarrera subjektiboarekin emandako erantzunetatik atera dira eta ñabardurak egin behar zaizkie. Arazoak dituztela erantzun duten guztiek ez dituzte arazo berdinak, eta haien egoera objektiboa ere ez da berdina; hala eta guztiz ere, abiapuntutzat har daitezke EAEko familientzat mendekotasunaren arazoak zenbateko garrantzia duen modu orokorrean erakutsiko digun lehenengo estimazioa egiteko.

Bigarren urratsean, kontuan izanik mendekotasuna duten pertsonen zainketaren inguruko arazoek azken buruan zaintza lanaren zama handitzen dutela eta zaintzailearen rolaren saturazioa eragiten dutela (zaintzailea ito beharrean aurkitzen baita, sarritan estresa sortzen duten dinamiketan sartuta), lehen aipatu dugun "*Zainketa ez-formalak EAEn*" azterlanak dio zainketaren arazoak, zentzu hertsiagoan, familien %6,1engan duela eragina (hau da, gutxi gorabehera 46.000 familiarengan, EAE osoan), eta horiexek lirateke Familien 2004ko Inkestan esan zutenak "gehiegi lanpetuta" zeudela guraso zaharrak zaindu behar zituztelako.

IV.1.11. GRAFIKOA. ZAINTZAILEAK, LAGUNTZAREN GARRANTZIAREN ETA ADINAREN ARABERA.



Iturria: Geuk landua.

IV.1.15. KOADROA. ZAINTZAILEAK, ADINAREN, GENEROAREN ETA ZAINDUTAKO PERTSONAREKIN DUTEN LOTURAREN ARABERA

	40 edo gutxiago		40-59		60 edo gehiago		Guztira oro har
	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	
Alaba/semea	6,6%	18,1%	10,2%	44,3%	4,8%	16,0%	100,0%
Beste bat	8,2%	29,5%	15,6%	36,1%	4,9%	5,7%	100,0%
Ezkontide edo bikotekidea	1,0%	15,7%	17,6%	35,3%	11,8%	18,6%	100,0%
Erraina/suhia	5,7%	26,1%	14,8%	39,8%	5,7%	8,0%	100,0%
Loba	2,2%	20,0%	11,1%	44,4%	2,2%	20,0%	100,0%
Laguna	5,7%	34,3%	17,1%	31,4%	5,7%	5,7%	100,0%
Etxe-zerbitzaria (ez etorkina)	3,1%	15,6%	3,1%	65,6%	0,0%	12,5%	100,0%
Arreba/neba	3,2%	16,1%	3,2%	38,7%	12,9%	25,8%	100,0%
Etxe-zerbitzaria, etorkina	0,0%	25,0%	4,2%	50,0%	0,0%	20,8%	100,0%
Bizilaguna	6,3%	43,8%	6,3%	18,8%	0,0%	25,0%	100,0%
Elkarte bateko boluntarioa	0,0%	20,0%	10,0%	40,0%	10,0%	20,0%	100,0%
Guztira	**5,0%**	**21,0%**	**12,0%**	**42,0%**	**5,0%**	**15,0%**	**100,0%**

Iturria: "Zainketa ez-formalak EAEn. Zaintzaileen beharrizanak" (2006). Gizarte Ongizateko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

IV.1.16. KOADROA. ZAINDUTAKO PERTSONEK ZEIN MOTATAKO GAIXOTASUNAK DITUZTEN.

	1. aukera
Hezurrak	47,2%
Bihotza	14,7%
Alzheimerra	6,3%
Arnas aparatukoak	6,2%
Beste batzuk	5,6%
Diabetesa	5,4%
Hipertentsioa	3,7%
Buru-nahasmenduak	3,7%
Oroimena	2,4%
Tumoreak, minbizia	2,3%
Depresioa, tristura	1,0%
Digestio aparatukoak	0,8%
Organo genitalak	0,5%
Loezina	0,2%

Iturria: "Zainketa ez-formalak EAEn. Zaintzaileen beharrizanak" (2006).

Argi dago menpekotasuna duten senitartekoak zaintzea, kasurik gehienetan, senidetasun harremanen barruko jarduera dela. Nolanahi ere, lan horiek erabateko dedikazioa eskatzen dute familia ingurunean, eta sarritan gainditu egiten dituzte eskura dauden baliabideak eta denbora.

Gaiari buruz egin diren ikerketa guztietan zenbait ezaugarri behin eta berriz agertzen dira; ezaugarri horiek identifikatzen dituzte mendekotasuna duten pertsonaren profila eta zaintzailearena. Lehenengoari dagokionez, zainketak behar dituzten pertsona gehienak emakumezkoak dira, eta mendekotasuna, batez beste, 70 eta 75 urte bitarteko adinean agertzen da. Laguntzaren beharra aldatu egiten da adinarekin, baina eguneroko laguntzaren beharra dutenak, pertsona gazteagoen artean (65-80), %10-15 dira, eta 85 urtetik gorako pertsonen artean, berriz, %35-40 baino gehiago.

Zainketa horiek egiten dituzten pertsonei dagokienez, egin diren estimazioen arabera emakumezkoak %77 dira kolektibo horretan. Beste alde batetik, zaintzaileek 50 urtetik gorako adina dute, eta zaintza lan horiekin uztartu behar izaten dituzte etxeko beste lan batzuk, lanbidea etab. Horretaz gainera, zainketa ez-formalak senidetasun harremanen esparruan antolatzen dira, eta kasurik gehienetan denbora tarte luzeak eta dedikazio handia eskaini behar izaten zaizkie. Horren haritik, argi ageri da familiaren elkartasunak garrantzi handia duela senitartekoak zaintzeko garaian; izan ere, inkesta egin zaien pertsonen %86,3 zaindutako pertsonen senitartekoak dira. Eredu hori Europako hegoaldeko herrialdeetakoa da; herrialde horietan adinekoek familia sare zabala dute, eta haien harremanak eta jasotzen duten laguntza Europako ipar eta erdialdeko herrialdeetakoak baino tradizionalagoak dira. Bereziki esanguratsua da seme-alabengandik gurasoengana zuzentzen den elkartasuna, horixe baita nagusia zainketak emateko orduan: bi zaintzailetik bat zaindutako pertsonaren semea edo alaba da.

Horrela, bada, zaintzaile gehienak zaindutakoaren alabak dira, eta 50 bat urte dituzte; aditu batzuek "sandwich belaunaldia" esaten dioten talde horretakoak dira, alegia, oraindik emantzipatu ez diren seme-alabak zaindu behar dituzte alde batetik, eta bestetik zahartzen ari diren gurasoei laguntzen diete. Gizonek zertxobait jarduten dute zainketa lanetan 60 urtetik aurrera (%29,5). Eusko Jaurlaritzaren azterlanean iragartzen denez, ziur asko zainketaren eredu hori zabaldu egingo da urteen buruan, ez bakarrik jokabide eta balioak aldatzen ari direlako, baizik eta, horretaz gainera, gizonezkoen bizi itxaropena luzatzen ari delako: luzaroago biziko direnez, bikotekideen ezintasun egoera gehiago partekatuko dituzte. Okupazio motari dagokionez, etxekoandreak zaintzaileen %26,6 dira, baina inkestek agerian uzten dute profil heterogeneoetaranzko aldaketak gertatzen ari direla, izan ere, gazteagoen artean etxeko lanetan diharduten pertsonen kopuruak gero eta txikiagoak baitira.

Egiten den zaintza lana handia da, bai bere maiztasunagatik (kasuen %71,8tan eguneroko zainketak dira) eta bai intentsitateagatik (egunean 8 ordu baino gehiago kasuen %36,8tan) eta iraupenagatik (batez beste 6 urte) ere. Zaintzen ari den pertsona zenbat eta zaharragoa izan, intentsitate hori handiagoa da, eta horren ondorioz, zaintzaileen %70,9k eragin negatiboren bat jasaten dute euren eguneroko bizitzan; are gehiago, haietatik %20,2k ez dute etxetik kanpo lan egiteko inolako aukerarik. Zaindutako pertsonei dagokienez, haietako gehienak (%66,2) emakumezkoak dira, eta gainera gero eta sarriago dira emakumezkoak adinean aurrera egin ahala. Bestalde, adina handitu ahala mendekotasuna areagotu egiten denez, joera horrek isla izan du lortutako datuetan: laguntza behar duten 10 adinekotik zazpik 70-90 urte bitarteko adina dute. Azpimarratzekoa da ikerketa honetan 90 urtetik gorako pertsonak %12,4 izan direla.

Beste alde batetik, pertsona horietatik %20 bakarrik bizi dira, %22 bikotekidearekin eta %23 seme-alabaren batekin, baina 80 urteko adinetik aurrera eta bereziki 90 urtetik gora gertatzen da "familiaren berrelkartzea" deritzona: adinarekin areagotuz doazen osasun arazoen ondorioz, adinekoak euren senitartekoekin bizi dira berriro ere,

batez ere seme-alabekin. Halaber adin horretatik aurrera modu esponentzialean gehitzen da egoitzaren aukera, 90 urtetik gorako pertsonen %26,2 egoitzan bizi baitira.

Azkenik, mendekotasunaren arrazoiei dagokienez, zaindutako pertsona guztiek, ia-ia, (%95,7) gaixotasunen bat dute edo tratamenduren bat jasotzen dute, zaintzen dituzten pertsonek adierazitakoaren arabera. Gehien aipatu diren gaixotasunen artean hezurretakoak, bihotzekoak eta arnas aparatukoak nabarmentzen dira. Kasuen %6,3tan dago dementziaren arazoa, esate baterako Alzheimerren gaixotasuna.

Ondorioz, pertsona horietatik gehienek laguntza behar dute bai etxeko lanak egiteko (garbitu, lisatu, janariak prestatu) (%86,7) eta bai eguneroko bizitzako jardueretarako ere (kalera irten, erosketak egin...) (%81,5). Eguneroko zainketa pertsonaletarako laguntza (bainua, garbitasuna, jatea...) aurrekoetatik nahiko urrun dago, laguntza jasotzen duten pertsona guztien %51,6k bakarrik behar baitute. Datu horiek erakusten dute zenbaterainoko zainketak behar dituzten laguntza jasotzen duten pertsonek: horien erdiek baino gehiagok laguntza behar dute eguneroko jarduera guztiak egiteko.

Osasuna eta osasun sistema

Nazioarteko joerarekin bat etorriz, EAEn zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta neoplasia gaiztoak (minbizia) dira heriotzaren eragile nagusiak. Hilkortasun goiztiarraren eragileei dagokienez, 2005ean, honako hauek izan ziren emakumeen artean: bularreko tumore gaiztoak, motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak, beren buruaz beste egitea eta autolesioak, eta trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak. Gizonen kasuan, berriz, hilkortasun goiztiarren eragile nagusiak honako hauek izan ziren: trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak; motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak, kardiopatia iskemikoa, beren buruaz beste egitea eta autolesioak.

Alde positiboari dagokionez, esan beharra dago, Memoria honen aurreko edizioetan ere adierazi izan dugun moduan, EAE jaiotzean dagoen bizi itxaropen handiena duten herrialdeen artean dagoela; are gehiago, Ezgaitasunik Gabeko Bizi Itxaropena (EGBI) hazi egin da gizon eta emakumeen adin tarte guztietan hilkortasun-tasak murriztearen eta osasun-egoera mantentzearen eraginez.

Kapitulu honen bigarren zatia osasun sistema egituraren eta baliabideen (giza-baliabideak, funtzionamentuzkoak eta finantzazkoak) ikuspuntutik aztertzeari zuzenduta dago. Eurostatek eta Eustatek argitaraturiko azken datuen arabera, EAEn zein EB-15ean eta EB-25ean, profesional kopurua hazi egin da, eta ohe kopurua, berriz, murriztu egin da (biak ala biak 100.000 biztanleko). Hala ere, EAEren kasuan, 2004 eta 2005 bitartean ohe kopurua hazi egin zen.

Mediku kopuruak gora egin izanak mediku bakoitzeko biztanle kopurua murriztea eragin du medikuntza orokorrean (1.498tik 1.445era igaro dira). Hala eta guztiz ere, joera hori ez da pediatrian errepikatu, bertan mediku bakoitzeko biztanle kopuruak gora egin baitu.

Azkenik, osasunari dagokion gastuak hazten jarraitzen du. Ospitaleko (publikoa eta pribatua) zein ospitalez kanpoko (publikoa) osasun gastuek BPG arruntarekiko ekonomia hazkundea baino hazkunde-tasa handiagoak izan dituzte.

EAEko aurrekontua likidatzeko datuen arabera, Osasun Sailaren gastuaren partida 2.632,9 milioi eurokoa izan zen 2006an. Horrek %8,8ko hazkundea (2.421 milioi euro, 2005eko likidazioaren arabera) adierazten du aurreko urteari dagokionez. Horrela, Osasun Sailak lehenengo postuan jarraitzen du baliabideen ehunekoari dagokionez, EAEko Administrazio Orokorraren guztizkoaren %33,9 (proportzio hori 2005eko %33,1 baino apur bat handiagoa da). Ildo beretik, programa nagusia Osakidetzaren transferentziei lotuta dago.

2

Osasun Sailak BPGri dagokionez duen gastua 2005eko %4,21etik 2006ko %4,25era igo da. Osakidetzarena, berriz, %3,1etik %2,9ra igaro da.

2.1. Osasunaren panorama orokorra eta lehentasunezko arazoak

2.1.1. Bizi-itxaropen eta hilkortasun adierazleak

(a) Kalitateari egokitutako bizi-itxaropena

Azken hamarkadatan hilkortasuna izugarri murriztu izanaren ondorioz, herrialde aurreratuetan batik bat, bizi-itxaropena (BI) etengabe luzatu da, eta horrek ondorio garrantzitsuak ditu osasunean zein gizartean; besteak beste, pertsona zaharrenen kopuruaren hazkunde erlatiboa eta gaixotasun kronikoak nagusitzea. Testuinguru honetan, osasun-adierazle klasikoak, hilkortasunean soilik oinarriturikoak, ez dira nahikoak herrialde aurreratuetako populazioaren osasun-egoeraren bilakaera deskribatzeko. Egun, hilkortasun-tasa murriztea biztanleen osasun maila hobetzearekin bat datorren jakitea da kontua. Horretarako, beharrezkoa da hilkortasunaz gain erikortasuna eta ezgaitasuna ere aintzat hartuko dituzten adierazleak erabiltzea, horien artean Ezgaitasunik Gabeko Bizi-Itxaropena (EGBI-EVLI), Kalitateari Egokitutako Bizi-Itxaropena (KEBI-EVAC) edota, oro har, bizi-itxaropen osasungarriari buruzko adierazleak.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta, zehatz-mehatz, Osasun Berrikuntzarako Euskal Institutuak, 2006ko irailean argitaraturiko "Kalitateari Egokitutako Bizi Itxaropenaren Tamaina eta Ezberdintasun Sozioekonomikoak EAEn" ikerketaren arabera, 1994-98 eta 1999-2003 bitartean, BI eta KEBI hazi egin ziren gizon eta emakumeen adin-tarte guztietan, hilkortasun-tasak murriztearen eta osasun-egoera mantentzearen eraginez; berau adierazle jakin baten[1] laguntzaz neurtu zen. BI 1,4 urte hazi zen gizonen artean eta 0,8 urte emakumeei zegokienez. KEBIren hazkundea, berriz, 1,2koa eta 0,6koa izan zen, hurrenez hurren. Horrek guztiak BI gizonen artean %2,3 hazi dela adierazten du, eta %1,2 emakumeen artean. KEBI, berriz, %2,4 eta %1,1 hazi da, hurrenez hurren.

1999-2003 aldian, BI eta KEBI, 15-19 adin tartean, 61,8 eta 51,6 urtekoak izan ziren gizonen artean, eta 69,3 eta 54,9 urtekoak emakumeei dagokienez. Horrenbestez, emakumeak, oro har, urte gehiagoz bizi izan ziren, baina baita osasun-txarragoarekin, balio absolutuetan (14,4 urte emakumezkoak eta 10,2 urte gizonezkoak) zein balio

[1] SF-6D algoritmoaren emaitzazko puntuazioa erabili zen zehatz-mehatz, aldagai batzuetatik abiatuta.

IV.2.1. KOADROA. BI ETA KEBI SEXUAREN ETA ADIN TARTEEN ARABERA. EAE 1999-2003

	BI	(%95eko KT*)	KEBI	(%95eko KT)
Gizonak				
15-19	61,8	(61,7, 61,9)	51,6	(51,3, 51,8)
45-49	33,4	(33,3, 33,5)	26,9	(26,7, 27,1)
65-69	16,8	(16,7, 16,9)	13,1	(13,0, 13,3)
Emakumeak				
15-19	69,3	(69,2, 69,4)	54,9	(54,7, 55,2)
45-49	40,1	(40,0, 40,2)	30,4	(30,2, 30,6)
65-69	21,8	(21,7, 21,8)	15,8	(15,6, 15,9)

*** Konfiantza Tartea.**
Iturria: "Kalitateari Egokitutako Bizi Itxaropenaren Tamaina eta Ezberdintasun Sozioekonomikoak EAEn, 2006".

erlatiboetan; hau da, beren bizitzako zati handiagoan izan zuten osasun txarra (%21 emakumezkoek eta %17 gizonezkoek).

Gainera, BI eta KEBIren arteko ezberdintasun erlatiboak handituz doaz adinak ere aurrera egin ahala. 15-19 urte bitartean, gizonek osasun-egoera txarrarekin biziko duten bizitza proportzioa %17koa da, eta emakumeena, berriz, %21ekoa da. 65-69 urte bitartean proportzio hori %22koa da gizonen artean eta %28koa emakumeen artean.

(b) Hilkortasuna. Heriotzaren zergati nagusiak

Eustaten behin-behineko datuen arabera, EAEko hildakoen kopurua 18.821ekoa izan zen 2005ean; horietatik 9.958 gizonak izan ziren, eta 8.863 emakumeak. Datu horiek aditzera ematen dutenez, urte horretan 2004an baino 137 pertsona gehiago hil ziren, eta horrek %0,7ko hazkundea adierazten du. Hala eta guztiz ere, hazkundea ez da berdina sexuaren ikuspuntutik. Izan ere, emakumeen artean, 51 gutxiago hil ziren, hots, %0,6 gutxiago, baina gizonen artean hildakoen hazkundea %1,9koa izan zen.

Gaixotasunen prebentzioan eta tratamenduan egindako aurrerakuntzen eraginez, azken urteotan hildako asko pertsona zaharrenen artean zeuden. Beste hitz batzuetan, biztanleria "laugarren adina" delakora iristen ari da. Horrela, 70 eta 79 urte bitartean 4.802 pertsona hil ziren, 80 eta 89 urte bitartean 6.617, 90 eta 99 urte bitartean 3.120 eta 99 urtetik gora 143 pertsona.

2004an 99 urtetik gorakoen artean hildako pertsona kopurua murriztu egin zen aurreko urteari zegokionez, baina 2005ean joera hori eten egin zen, eta adin horretatik aurrera hildako pertsona kopurua hazi egin zen berriro ere. Horrela, 99 urtetik gora hildakoen kopurua 143ra iritsi da (26 gizon eta 117 emakume).

Bestetik, urtebetetik beherako haurren heriotza-tasa murriztu egin da 2004ri dagokionez; 79ko 49 hildakoetatik, 33 mutikoak ziren eta 16 neskak. Eurostaten datuen arabera, beheranzko joera bera nabari da EB-25ean 2004 eta 2005 artean; bertan, bizirik jaiotako 1.000 umeko haurren heriotza-tasa 4,6tik 4,5era jaitsi da. EB-12n egonkor mantendu da, 4,1ekin.

Aurreko urteetan bezala, 2005ean gertatutako heriotza gehienak (%30,1) zirkulazio aparatuko gaixotasunek eragin zituzten. Horien ostean, tumoreek (%28,4rekin, hots, 5.341 hildako) eta, hirugarren lekuan, aurrekoetatik urrutiago, arnas aparatuko gaixotasunek (%11,4rekin, 2.155 hildako).

Iazko Memoria Sozioekonomikoan adierazi genuen moduan, heriotzaren zergatiak ezberdinak izan ziren sexuaren arabera; izan ere, gizonen artean, heriotzaren eragile nagusiak tumoreak izan ziren, zirkulazio aparatuko gaixotasunen gainetik. Emakumeei zegokienez, berriz, eragile nagusiak gaixotasun kardiobaskularrak eta, horien atzetik, tumoreak izan ziren.

"Europe in figure-Eurostat yearbook 2006-07" txostenaren arabera, 2004an, EB-25ean heriotzaren eragile nagusiak minbizia (neoplasia gaiztoak) eta kardiopatia iskemikoak izan ziren. Hala ere, gizon eta emakumeen tasa estandarizatuen artean ezberdintasun handiak daude; izan ere, minbiziari dagokionez, gizonen artean 100.000 pertsonako 253 minbiziaren eraginez hil ziren eta emakumeen artean, berriz, 142. Kardiopatia iskemikoen kasuan, gizonen proportzioa (147 pertsona) emakumeenaren (75 pertsona) bikoitza baino handiagoa izan zen.

2005eko behin-behineko datuen arabera, jaiotzak heriotza kopuruaren gainetik daude (763 pertsona gehiago) eta, horrela, EAEren hazkunde begetatiboak positiboa izaten jarraitzen du. Lurraldeka, saldo positiboak egon zi-

IV.2.2. Koadroa. Heriotzak sexuen arabera

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.
1998	18.151	9.648	8.503	2.104	1.157	947	10.071	5.328	4.743	5.976	3.163	2.813
1999	18.396	9.801	8.595	2.272	1.227	1.045	10.110	5.392	4.718	6.014	3.182	2.832
2000	18.242	9.801	8.441	2.191	1.202	989	10.214	5.469	4.745	5.837	3.130	2.707
2001	18.087	9.670	8.417	2.219	1.223	996	10.008	5.351	4.657	5.860	3.096	2.764
2002	18.619	9.875	8.744	2.166	1.134	1.032	10.430	5.524	4.906	6.023	3.217	2.806
2003	19.305	10.050	9.255	2.357	1.229	1.128	10.684	5.584	5.100	6.264	3.237	3.027
2004	18.684	9.770	8.914	2.275	1.197	1.078	10.388	5.483	4.905	6.021	3.090	2.931
2005 (p)	18.821	9.958	8.863	2.382	1.312	1.070	10.465	5.516	4.949	5.974	3.130	2.844
Dif. 2004-2005	137	188	–51	107	115	–8	77	33	44	–47	40	–87
% Ald. 04-05	0,7	1,9	–0,6	4,7	9,6	–0,7	0,7	0,6	0,9	–0,8	1,3	–3,0

(p) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "Heriotzen Estatistikak".

IV.2.3. Koadroa. EAEko heriotzak, adinaren arabera

	<1	1-9	10-19	20-29	30-39	40-49	50-59	60-69	70-79	80-89	90-99	≥100
1997	84	29	68	245	500	719	1.040	2.636	4.397	5.511	2.232	74
1998	99	33	60	235	423	638	1.155	2.607	4.731	5.760	2.351	59
1999	81	17	53	228	376	663	1.190	2.422	4.794	5.852	2.633	87
2000	53	27	67	215	394	646	1.272	2.415	4.855	5.689	2.541	68
2001	60	22	41	181	356	601	1.263	2.305	4.811	5.682	2.667	98
2002	61	23	48	162	327	660	1.280	2.304	4.834	6.020	2.777	123
2003	62	19	43	148	300	696	1.304	2.184	4.955	6.379	3.075	140
2004	79	23	40	122	274	665	1.289	1.997	4.776	6.323	2.986	110
2005 (p)	49	17	30	111	250	561	1.238	1.883	4.802	6.617	3.120	143

(p) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "Heriotzen Estatistikak".

IV.2.4. Koadroa. Urtebetetik beherakoen heriotzak, sexuaren arabera

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.
1998	99	48	51	11	5	6	49	24	25	39	19	20
1999	81	48	33	8	6	2	45	28	17	28	14	14
2000	53	23	30	8	4	4	25	8	17	20	11	9
2001	60	36	24	5	5	0	30	18	12	25	13	12
2002	61	33	28	8	4	4	31	17	14	22	12	10
2003	62	33	29	5	4	1	36	17	19	21	12	9
2004	79	38	41	8	4	4	41	18	23	30	16	14
2005 (p)	49	33	16	8	4	4	21	15	6	20	14	6
% Ald. 04-05	–38,0	–13,2	–61,0	0,0	0,0	0,0	–48,8	–16,7	–73,9	–33,3	–12,5	–57,1

(p) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "Heriotzen Estatistikak".

IV.2.5. Koadroa. Heriotzak zergatiaren arabera

	EAE								
	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005 (p)	
								k	%
Guztira	18.151	18.396	18.242	18.087	18.619	19.305	18.684	18.821	100,0
Tumoreak	5.151	5.180	5.378	5.496	5.467	5.548	5.479	5.341	28,4
Zirkulazio Sistema	6.267	6.070	5.900	5.743	5.891	5.891	5.775	5.666	30,1
Arnas Sistema	1.855	1.956	1.962	1.649	1.944	2.066	1.788	2.155	11,4
Digestio Sistema	957	930	957	979	954	1.041	1.013	916	4,9
Istripuak	894	846	831	760	795	806	745	682	3,6
Bestelako gaixotasun.	3.027	3.414	3.214	3.460	3.568	3.953	3.884	4.061	21,6

(p) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "Heriotzen Estatistikak" eta Eurostat "Health in Europe, 2006".

ren Araban eta Gipuzkoan, 370 eta 786koak, hurrenez hurren. Bizkaian, aldiz, hildako kopurua jaiotzenaren gainetik egon zen (–393).

(c) Hilkortasun goiztiarra. Bizitzeko galdutako ahalezko urteak (BGAU)

Adierazle hau irizpide komunak dituzten eta behaketa epidemiologiko prospektiboaren barruan dauden pertsonen talderako eratu zen, heriotza goiztiarra izan duten pertsonek (70 urte bete baino lehen hil direnak) bizi ez duten urte kopuruan oinarrituta (hiltzeko adinaren eta 70 urteko adinaren arteko kenduren batuketa pilatua). Horrela, Bizitzeko Galdutako Ahalezko Urteek (BGAU), osasun publikoari dagokionez, biztanlerik gazteenen arteko hilkortasunaren ondoriozko eragina islatzen duen neurri ona osatzen dute.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, emakumeen arteko hilkortasun goiztiarraren eragile nagusiak honako hauek izan ziren 2005ean: bularreko tumore gaiztoak; motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak, beren buruaz beste egitea eta autolesioak, eta trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak. Horrenbestez, 2004ko eragile berak dira, baina hurrenkera ezberdinean. Horrela, bularreko tumore gaiztoa lehendabiziko postuan dago (BGAU kopurua murriztu egin bada ere) eta trakeako, bronkioetako eta biriketakoa, berriz, hilkortasun goiztiarraren laugarren zergati nagusia izatera igaro da. Motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak bigarren postuan daude, eta beren buruaz beste egitea eta autolesioak, berriz, hirugarrenean. Horrela, BGAUetan eta hilkortasun tasetan (tasa gordina eta egokitua) hazkundeak egon dira motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuetan zein beren buruaz beste egitean eta autolesioetan, eta murriztapenak bularreko tumore gaiztoei eta trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoei dagokienez. Beste alde batetik, uteroko lepoaren

IV.2.6. KOADROA. BIZITZEKO GALDUTAKO AHALEZKO URTEAK, SEXUAREN ARABERA, ETA ZERGATI NAGUSIAK

	BGAU	T. Gordina*	T. Estand.*	BGAU	T. Gordina*	T. Estand.*
	Gizonak 2004			Gizonak 2005		
TG trakean, bronkioetan eta biriketan	4.645	5,26	4,73	4.645	5,26	4,73
Trafiko istripuak (mot. Ibil.)	3.772	4,24	4,14	3.737	4,23	4,20
Kardiopatia iskemikoa	3.395	3,82	3,41	3.360	3,81	3,47
Buruaz beste egitea eta autolesioak	2.698	3,03	2,64	2.733	3,10	2,60
Zirrosia eta gibeleko gaix. kronikoak	1.905	2,14	1,92	1.693	1,92	1,69
HIESa	1.855	2,09	1,68	1.598	1,81	1,42
Droga bidezko ezusteko pozoitzea	865	0,97	0,77	1.373	1,55	1,31
Burmuin/baskular gaix.	1.815	2,04	1,78	1.280	1,45	1,27
TG ezpainetan, ahoan eta faringean	1.093	1,23	1,11	1.263	1,43	1,27
TG txarto definituriko lek. (2. mailakoak)	1.195	1,34	1,19	990	1,12	1,03
Ezusteko erortzeak	892	1,00	0,91	980	1,11	0,91
TG hestegorrian	878	0,99	0,92	868	0,98	0,91
TG kolonean	1.073	1,21	1,10	773	0,88	0,80
TG laringean	798	0,90	0,84	753	0,85	0,76
TG sabelean	950	1,07	0,95	745	0,84	0,76
	Emakumeak 2004			Emakumeak 2005		
TG bularrean	2.060	2,34	2,02	1.803	2,06	1,76
Trafiko istripuak (mot. Ibil.)	883	1,00	1,10	1.192	1,36	1,53
Buruaz beste egitea eta autolesioak	853	0,97	0,82	973	1,11	0,98
TG trakean, bronkioetan eta biriketan	1.420	1,61	1,37	923	1,06	0,91
TG entzefaloan	510	0,58	0,50	752	0,86	0,95
Burmuin/baskular gaixo.	635	0,72	0,69	740	0,85	0,72
TG obarioetan	358	0,41	0,35	660	0,76	0,65
TG txarto definituriko lek. (2. mailakoak)	543	0,62	0,53	655	0,75	0,64
TG kolonean	613	0,70	0,59	558	0,64	0,54
HIESa	533	0,61	0,48	530	0,61	0,54
Kardiopatia iskemikoa	553	0,63	0,53	465	0,53	0,46
Zirrosia eta gibeleko gaix. kronikoak	575	0,65	0,55	438	0,50	0,43
TG sabelean	390	0,44	0,38	325	0,37	0,32
TG pankreasean				253	0,29	0,25
Leuzemia				225	0,26	0,30
Zirkulazio sistemaren jaiotz. malformaz.	388	0,44	0,68			
TG uteroaren lepoan	333	0,38	0,31			

***1.000ko tasa gordina eta adinaren araberako tasa estandarizatua, Europako biztanleria estandarra kontuan hartuta.**
Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Osasun Planifikazio eta Antolaketako Zuzendaritza.

tumore gaiztoak eta zirkulazio sistemaren jaiotzetiko malformazioak ez daude BGAUren lehen 10 eragileen artean. Pankreaseko tumore gaiztoak eta leuzemiak garrantzi handia beregatu dute. Azkenik, obarioetako tumore gaiztoen kopurua ere hazi egin da.

Gizonei dagokienez, 2005ean, EAEko BGAUen eragile nagusiak 2004ko berdinak izan ziren, hurrenkera berean: trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak, kardiopatia iskemikoa, beren buruaz beste egitea eta autolesioak, zirrosia eta gibeleko gaixotasunak eta HIESa. Egoera 2004koarekin erkatuz gero, BGAU eta hilkortasun tasa (gordina eta egokitua) berak mantendu dira trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoei dagokienez; murriztu egin dira kardiopartia iskemikoarekin, zirrosiarekin eta gibeleko gaixotasunekin, eta HIESarekin lotuta; baina hazkundeak egon dira motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuei eta beren buruaz beste egiteari eta autolesioei dagokienez. Nabarmentzekoa da droga bidezko pozoitzearen eraginezko BGAUen hazkundea.

2.1.2. Erikortasun-adierazleak

(a) Nahitaezko Adierazpeneko Gaixotasunak (NAG)

Osasun Publikoaren eginkizunetariko bat gaixotasun kutsagarrien kontrola da.

EAEko bizi-baldintzen hobekuntzak eta osasun-sistemaren garapenak gaixotasun kutsakor askoren eragina murriztu egin dute, baina horiek oraindik ere arazo han-

IV.2.7. KOADROA. NAHITAEZKO ADIERAZPENEKO GAIXOTASUNEN BILAKAERA EAEN

	Kasu kopurua				Indizeak 2006n	
	2004	2005	2006 p	Dif. 2006-05	1 EI p	2 EI p
Botulismoa	0	0	0	0	—	—
Kolera	0	0	0	0	—	—
Disenteria	13	43	3	–40	1,5	1,5
Sukar tifo-paratifikoa	4	3	4	1	2,0	4,0
Trikinosia	0	0	0	0	—	—
Gaix. meningokozikoak	109	100	37	–63	0,57	0,7
Gripea	22.004	59.593	22.365	–37.228	0,4	0,8
Legionelosia	110	114	31	–83	1,1	1,7
Meningitis tuberkulosoa	10	11	1	–10	0,3	0,3
Tuberkulosia	499	489	179	–310	0,9	0,9
Barizela	13.104	10.752	5.257	–5.495	0,8	0,9
Infekzio gonokozikoa	22	56	8	–48	0,4	1,3
Sifilisa	18	39	9	–30	0,6	1,5
Difteria	0	0	0	0	—	—
Parotiditisa	36	52	75	23	2	4,2
Poliomielitisa	0	0	0	0	—	—
Errubeola	1	15	1	–14	0,1	0,5
Elgorria	0	0	0	0	—	—
Tetanoa	1	1	3	2	3	0
Tosferina	15	5	7	2	3,5	1,8
A hepatitisa	37	99	66	–33	2,4	2,4
B hepatitisa	24	28	8	–20	1	0,7
C hepatitisa	12	11	6	–5	1	1,0
Beste hepatitis biriko batzuk	0	0	0	0	—	—
Bruzelosia	3	0	0	0	—	—
Amorrua	0	0	0	0	—	—
Sukar horia	0	0	0	0	—	—
Paludismoa	19	19	10	–9	2	1,7
Izurria	0	0	0	0	—	—
Tifus exantematikoa	0	0	0	0	—	—
Legenarra	1	0	0	0	—	—
Errubeola kongenitoa	0	0	0	0	—	—
Sifilis kongenitoa	0	0	0	0	—	—
Jaioberriko tetanoa	0	0	0	0	—	—

Iturria: EAEko Aldizkari Epidemiologikoak.
(p) Behin-behineko datuak.
1 E.I. (1 Epidemia Indizea) lauastean (edota lauasteetan, pilaturiko epidemia indizetan) gaixotasun baterako aurkezturiko kasuen eta aurreko urteko aldi berean gaixotasun horretarako aurkeztu diren kasuen arteko erlazioa da.
2 E.I. (2 Epidemia Indizea) lauastean gaixotasun baterako aurkeztu diren kasuen eta aurreko bost urteko kasuen batez bestekoaren arteko erlazioa da.

diak sortzen dituzte. Tuberkulosia (geroz eta eragin txikiagoa duena) edota elgorria (desagertzeko bidean) ez ezik, beste gaixotasun batzuk, gaixotasun sorberriak deiturikoak, aldian behin ere sortzen dira, eta beraz, ezinbestekoa da zaintza epidemiologiko egokia egitea.

Zaintza Epidemiologikoko Sistemaren helburua une-an-uneko informazio fidagarria eskaintzea da, EAEko gaixotasun kutsagarrien eta agerraldien kontrolerako eta prebentziorako ekintzak ahalbidetuko dituena.

EAEko azken Aldizkari Epidemiologikoaren arabera, 2006ko lehendabiziko 20 asteei buruzkoa, parotiditisaren kasuan izandako hazkundea (+23) nabarmena da, Ezkerraldea-Enkarterri eskualdeko agerraldi baten eraginez batik bat. Bestetik, A hepatitisaren kasu kopurua (66) ere esanguratsua izan da. Aipatu Aldizkariaren arabera, gaixotasun horren eragile nagusia itsaskiak jatea izan da.

Bestetik, gripearen (–32.228), barizelaren (–5.495), tuberkulosiaren (–310), legionelosiaren (–83) eta gaixotasun meningokozikoen (–63) kasuan izandako murriztapenak ere nabarmentzekoak dira.

1 epidemia indizearen azterketatik ondorioztatzen denez, tetanoak, tosferinoak, A hepatitisak eta paludismoak oso joera ezberdina izan dute 2006an, aurreko urteari dagokionez. 2 epidemia indizearen arabera, parotiditisaren eta sukar tifo-paratifikoaren kasuek gora egin dute.

(b) Laborategian egiaztatutako palotogia infekziosoak. Jatorri gastrointestinaleko infekzioa ohikoenak EAEn.

EAEko Informazio Mikrobiolo- gikoko Sistemak infekzioei zegozkien 9.350 jakinarazpen erregistratu zituen 2005ean. Horietatik, 6.288 gastrointestinalak izan ziren (guztien % 67,3), 1.253 arnas aparatukoak, 443 mikrobakterietakoak, 27 inmunizazioagatik aurreikusteko modukoak, 41 zoonosisekoak, 132 hepatitisekoak, 367 sexutransmisiozko infekzioak, eta 799 beste mikroorganismo batzuekin lotutakoak.

Jatorri gastrointestinaleko infekzio guztien artean, Campylobacter (2.576 jakinarazpen) eta Salmonella bakteriek (2.154) eta Rotavirus birusak (1.106) eragindakoak nabarmentzen dira.

Campylobacterrak eta Salmonellak traktu gastrointestinala infektatzen dute eta jaki eta ur poluituen bidez kutsatzen dira. Infekzioaren sintoma nagusiak sukarra, abdominaletako kalanbreak eta beherakoa dira.

Salmonellak EBn (EB-15 eta EB-25) izan duen eragina etengabe murriztu da 1995etik hona. Hala ere, Eurostatek Espainiako Estatuari buruz emandako datuek 1994 eta 2003 bitartean Salmonellaren eragina hazi egin zela adierazten dute (salbuespen bakarra 1999 eta 2000 artekoa izan zen). Urte horretatik aurrera, joera aldatu egin da

IV.2.1. GRAFIKOA. JATORRI GASTROINTESTINALEKO HIRU INFEKZIO OHIKOENEN BILAKAERA EAEN



Iturria: Informazio Mikrobiologikoko Sistema, Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

eta bakteriaren eragina murriztu egin da; infekzioaren eraginaren bilakaera hori bat dator EAEko egoerarekin.

Bestetik, Rotavirusak beherako handiak eragin ohi ditu haur eta umeen artean eta oso erraz kutsa daiteke. Izan ere, umeek birusa sintomak izan aurretik ere kutsa dezakete, poluituriko objektuen edota eskuen bitartez oro har.

2.1.3. Lehentasunezko osasun arazo batzuk

(a) Osasun mentala. Buru-nahasteak eta jokabidearenak

Buru-eritasunen zergatiak asko dira eta, kasu batzuetan, ezezagunak. Jakin badakigu burmuinaren kimika edota metabolismoaren beste mekanismo batzuk aldatzea, aldez aurretiko joera genetikoa, ingurumenarekin eta kulturarekin lotutako ezaugarriak, burmuineko lesioak, substantzien kontsumoa etab. bezalako faktoreek buru-eritasunen agerpenean eta bilakaeran eragin handia izan dezaketela, baina ez dugu zehatz-mehatz ezagutzen faktore horietako bakoitzak zein mailatan eragiten dien, eta ezta kasu bakoitzean zein konbinazio esanguratsu gertatzen diren ere.

Buru-nahaste eta jokabidearen CIE-10 Sailkapenak buru-nahasteak eta jokabidearekin lotutako nahaste guztiak biltzen ditu. Hala ere, buru-nahasteen sailkapenak sindromeak edota gaixotasunak sailkatzen ditu, baina ez pertsonak. Azken horiek nahaste bat edo batzuk izan ditzakete beren bizitzako tarte batean edo batzuetan, baina ezingo da pertsona batentzako etiketa diagnostiko bat erabili. Ezingo da inoiz pertsona bat nahaste batekin parekatu, berau organikoa edota burukoa izanda ere.

Nahaste ohikoenak, oro har ezintasun garrantzitsuak eragiten dituztenak, depresio-nahasteak dira, substantzia psikoaktiboen, eskizofreniaren, epilepsiaren, Alzheimerraren, adimen-atzerapenaren eta haurtzaroko eta nerabezaroko nahasteen ondoriozkoak.

BURU-NAHASTEAK ETA JOKABIDEARENAK CIE-10EN ARABERA

- Buru-nahaste organikoak, nahaste sintomatikoak barne hartuta (Alzheimerra, …).
- Substantzia psikoaktiboen (alkoholaren erabilera kaltegarria, opiazeoekiko menpekotasunaren sindromea) eraginezko buru-nahasteak eta jokabidearena.
- Eskizofrenia, nahaste eskizotipikoak eta nahaste deliranteak.
- Umorearen nahasteak (afektiboak).
- Nahaste neurotikoak, estresarekin lotutako nahasteak eta nahaste somatomorfoak (antsietate orokorra eta nahaste obsesibo-konpultsiboak).
- Aldaketa fisiologikoekin eta faktore fisikoekin lotutako (jatekoak, lo egitekoak...) jokabidearen sindromeak.
- Izaeraren eta helduen jokabidearen nahasteak.
- Adimen-atzerapena.
- Garapen psikologikoko nahasteak (irakurmenarena, autismoa).
- Haurtzaroan eta nerabezaroan ohikoak diren nahaste emozionalak eta jokabidearenak (hiperzinetikoak, tikek eragindakoak,...).
- Zehaztu gabeko buru-nahastea.

Iturria: CIE.

Gaixotasun hauek sendatu edo kontrolatu egin daitezke eta duela hamarkada batzuk gertatzen ez zen bezala, gaur egun, gaixo gehienak denboraren zati handiena esparru komunitarioan tratatuak dira; era berean, gizarteratu egin ohi dira, pentsamolde aldaketari eta tratamenduen aurrerakuntzei esker. Arrazoi horregatik, azken datuek egonaldi luzeko unitateetan ohe kopurua murriztu egin dela adierazten dute.

EAEko datuek bilakaera positiboa adierazten dute laguntza psikiatrikorako eta osasun mentalerako zerbitzuan 2004 eta 2005 bitartean. Horrela, kontsulta kopurua %0,8 hazi da, eta 631.477 kontsultetatik 637.165era igaro gara, aurreko aldiko beherakadaren ostean.

IV.2.8. KOADROA. LAGUNTZA PSIKIATRIKOA ETA OSASUN MENTALA - OSPITALEZ KANPOKO LAGUNTZA SAREA

	2002	2003	2004	2005	2003-04	2004-05
Lehen kontsulta	18.295	19.133	19.230	18.491	0,5	–3,8
Berriz ere hasteak	8.071	8.665	8.613	8.600	–0,6	–0,2
Guztira lehenengoak	26.366	27.798	27.843	27.091	0,2	–2,7
Hurrengoak	375.084	407.017	404.114	408.727	–0,7	1,1
Beste jarduera batzuk	220.923	208.662	199.924	201.347	–4,2	0,7
Gaixo ezberdinak	69.337	72.371	74.026	74.095	2,3	0,1
Berriak / Ezberdinak	26,4	26,4	25,98%	24,96%		
Hurrengoak / Lehenengoak	14,2	14,6	14,51	15,09		
Beste batzuk / Gaixoak	3,2	2,9	2,7	2,72		
Berriro hast / Guztira lehen.	31%	31,2%	30,93%	31,74%		
Kontsultak guztira	622.373	643.477	631.881	637.165	–1,8	0,8

Iturria: Laguntza Psikiatrikoko Urteko Txostena. Osasun Laguntzarako Zuzendaritza Sanitarioa, Osakidetza/EOS.

IV.2.9. KOADROA. LAGUNTZA PSIKIATRIKOKO ETA OSASUN MENTALEKO OSPITALEEN EGITURAZKO DATUAK EAEn

	Akutuen Unitateak				Egonaldi Ertaina		Egonaldi Luzea		Geronto Psik.		Guztira	
	2004		2005		2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
	Helduak	Haur-gazt.	Helduak	Haur-gazt.								
Ohe kopurua	239	19	238	19	194	194	236	234	318	318	1.006	1.003
Ospitaleratu kop.guz.	4.948	228	5.099	216	823	831	48	61	25	30	6.072	6.237
Alta kopurua guztira	4.940	220	5.111	222	824	813	50	56	42	51	6.076	6.253
Egonaldi kop. guztira	80.330	3.757	78.395	4.070	66.590	66.263	85.377	83.955	113.303	109.685	349.357	342.368

Iturria: Laguntza Psikiatrikoko Urteko Txostena. Osasun Laguntzarako Zuzendaritza Sanitarioa, Osakidetza/EOS.

IV.2.10. KOADROA. EAEko OSPITALEAK ERKATZEKO DATUAK - 2005

	Unitateko ohe kop. kopurua	Ospitaler. guztizko kopurua	Egonaldi ertaina	Okupazio Indizea	Rotazio Indizea	Lehen kontsulta kopurua	Hurrengo kontsulta kopurua	Atendit. larrialdi kopurua	Ospitaler. larrialdi kopurua
	Heldu akutuen unitateak								
Santiago	32	833	12,67	90,34	26,03	171	2.909	2.960	760
Gurutzeta	21	473	14,25	87,94	22,52	93	370	2.176	396
Basurto	40	858	16,51	97,05	21,45	536	9.565	3.659	754
Galdakao	30	590	17,08	92,02	19,67	334	5.706	1.641	612
Galdakao DESIN	9	315	8,61	86,02	35,00	135	101	—	—
Donostia	66	1282	16,23	86,72	19,42	166	1.056	2.807	1.103
Zamudio	40	748	17,82	91,31	18,7		571	77	46
GUZTIRA	**238**	**5.099**	**15,37**	**90,47**	**21,42**	**1.435**	**20.278**	**13.320**	**3.671**
	Haur eta gazte akutuen unitateak								
Santiago	3	33	20,3	61,19	11,00	—	—	9	9
Basurto	8	106	15,02	54,52	13,25	170	1.809	—	—
Donostia	8	77	23,48	61,92	9,63	58	674	86	57
GUZTIRA	**19**	**216**	**18,84**	**58,69**	**11,37**	**228**	**2.483**	**95**	**66**
	Egonaldi ertaineko unitateak								
Psik. Araba	40	163	80,33	88,72	4,08	—	—	—	—
Psik. Araba UPR	14	39	122,67	97,92	2,79	—	—	—	—
Zaldibar	40	157	97,77	93,36	3,92	29	706	—	—
Zamudio	52	317	57,4	96,62	6,1	—	921	—	—
Zamudio errehab.	48	155	86,75	93,25	3,23	2	345	—	—
GUZTIRA	**194**	**831**	**78,06**	**93,58**	**4,28**	**31**	**1972**	**—**	**—**
	Egonaldi luzeko unitateak								
Psik. Araba	67	9	—	98,68	—	—	—	—	—
Bermeo	123	33	—	97,6	—	—	—	—	—
Zaldibar	44	19	—	99,49	—	—	—	—	—
GUZTIRA	**194**	**831**	**78,06**	**93,58**	**4,28**	**31**	**1972**	**—**	**—**
	Geronto psikiatriako unitatea								
Psik. Araba	115	112	—	89,83	—	—	—	—	—
Bermeo	83	83	—	97,19	—	—	—	—	—
Zaldibar	120	120	—	99,62	—	—	—	—	—
GUZTIRA	**318**	**315**	**—**	**95,51**	**—**	**—**	**—**	**—**	**—**

Iturria: Laguntza Psikiatrikoko Urteko Txostena. Osasun Laguntzarako Zuzendaritza Sanitarioa, Osakidetza/EOS.

Lehen kontsulta kopurua, ostera, %2,7 murriztu da 2005ean aurreko urteari dagokionez. Horrela, aipatu kopurua 27.091koa izan da. Azken horietatik, eta aurreko urteetako joerari eutsiz, gehienak lehen kontsultak (%68,3 2005ean) izan dira, eta gainontzekoak (%31,7) berriz ere hasteak. Bestetik, hurrengo kontsulta kopurua 408.727koa izan da; horrek %1,1eko hazkundea adierazten du aurreko urteari dagokionez.

Ospitaleen egiturazko datueen arabera, ospitaleratuen guztizko kopuruak gora egin du (%2,7), baina baita alta kopuruak ere (%2,9). Dena dela, egonaldi kopurua %2 murriztu da. Horrekin batera, ospitaleko unitateen

ohe kopurua apur bat murriztu da (–3), baina unitate bakoitzaren bilakaera ezberdina izan da: heldu akutuetako eta egonaldi luzeko unitateetan murriztu egin dira eta egonkor mantendu dira haur eta gazte akutuetako, egonaldi ertaineko eta geronto psikiatriako unitateetan. Ospiraleratuen kopuruari dagokionez, gorakadak egon dira unitate guztietan, haur eta gazte akutuen unitatean izan ezik, bertan beherakadak egon baitira. Alta kopuruari dagokionez, horiek ere unitate guztietan hazi dira, haur eta gazte akutuen unitateetan izan ezik.

EAEko Laguntza Psikiatrikoko Sarean dauden ospitale ezberdinak erkatzeko azterketaren arabera, unitate ezberdinen (haur eta gazte akutuen unitateak salbuespena dira) okupazio indizeek, kasu gehienetan, %90 gainditzen dute.

(b) Organo-emateak eta transplanteak

Osasun eta Kontsumo Ministerioak argitaraturiko azken datuen arabera, EAEn, 2006an, 103 organo-emate efektibo gertatu ziren, aurreko urtean baino 11 gehiago. Zifra horretan oinarrituta, EAE Estatu mailan organo-emate indizerik handiena duen autonomia-erkidegoa da, milioi biztanleko 48,4 organo-emailerekin. Atzetik ditu Kantabria, Asturias, Balearrak eta Nafarroa; aipaturiko guztiek milioi biztanleko 40 emailetik gora dituzte, eta kopuru hori antzeman daitekeen zifra handientzat dute nazioartean.

Era berean, EAE emaile ehuneko handiena duten herrialdeen oso gainetik dago: AEB 25,5ekin, Frantzia 22,2, Italia 21, Erresuma Batua 12,8, Irlanda 17,6… (2005eko datuak, Europako Kontseiluaren arabera).

IV.2.2. GRAFIKOA. DONANTES DE ÓRGANOS P.M.P. 2005



IV.2.11. KOADROA. ORGANO-EMATEAREN BILAKAERA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	2004		2005		2006	
	Guztira	m.b*	Guztira	m.b.*	Guztira	m.b*
Andaluzia	260	33,2	259	33,0	259	32,5
Aragoi	34	27,2	43	33,9	31	24,4
Asturias	51	47,5	50	46,3	48	44,4
Balearrak	44	46,1	46	46,9	42	42,0
Kanariak	68	35,5	90	45,7	78	39,0
Kantabria	26	46,9	20	35,7	26	45,6
Gaztela-Mantxa	46	24,9	37	19,6	51	26,4
Gaztela eta Leon	76	30,5	92	36,7	92	36,7
Katalunia	258	37,9	259	37,0	216	30,3
Valentzia	166	36,5	170	36,2	153	31,8
Extremadura	23	21,4	27	25,0	29	26,6
Galizia	79	28,7	80	29,0	92	33,2
Errioxa	6	20,4	9	30,0	11	35,5
Madril	183	31,5	214	35,9	209	34,8
Murtzia	49	37,8	38	28,4	42	30,7
Nafarroa	24	41,0	22	37,3	25	41,7
EAE	101	47,7	92	43,4	103	48,4
Ceuta					1	
Melilla					1	
Estatua guztira	**1.494**	**34,6**	**1.546**	**35,1**	**1.509**	**33,8**

*** Milioi biztanleko tasa.**
Iturria: OKM.

Bilakaeraren ikuspuntutik, 2005 eta 2006 bitartean organo-emateak gutxitu egin dira balio absolutuetan autonomia-erkidego gehienetan. Murriztapen hori motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak eta azken horietan hildako pertsona kopurua murriztearen ondoriozkoa izan da. Gorakada handienak izan dituzten autonomia-erkidegoak honako hauek dira, handienetik txikienera: Gaztela-Mantxa, Kantabria, Errioxa, Galizia, Nafarroa, EAE, Murtzia eta Extremadura.

Bestetik, organo-emateei beren ezezkoa eman dioten familia kopurua ere gutxitu egin da; 2006ko behin-behineko datuen arabera, Estatuan kopuru hori %15,2 jaitsi da, munduko herrialdeen arteko zifrarik baxuena. Bost autonomia-erkidegok, eta EAEk horien artean, %10etik beherako ezezko ehunekoak izan dituzte (Estatu mailan helburu gisa finkatutako zifra). Asturias %9,1ekin, Extremadura %5,9rekin eta EAE %3,4rekin. Nafarroan eta Errioxan ez da ezezkorik izan.

(c) Haurdunaldiaren borondatezko etendura

Eurostaten datuen arabera, 2003an, legezko abortuei buruzko informazioa eskaintzen diguten EB-15eko herrialdeen artean, Espainia bosgarren postuan dago, 79.788rekin, honako herrialde hauen atzetik: Frantzia (212.466), Erresuma Batua (196.687, 2002ko datua), Alemania (128.030) eta Italia (124.118).

Osasun eta Kontsumo Ministerioak Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruz dituen 2005eko datuen arabera (15 eta 44 urte bitarteko 1.000 emakumeko tasak), azken urteotan goranzko joerari eutsi zaio EAEn zein Estatuan. Dena dela, EAEko tasak estatuaren batez bestekoaren azpitik daude oraindik ere. Zehatz-mehatz esanda, 2005ean, EAEko tasa 5,42ko borondatezko etendurakoa da 15 eta 44 urte bitarteko 1.000 emakumeko. Estatuan, berriz, tasa bera 9,6koa da.

EAEk baino tasa txikiagoak dituzten autonomia-erkidegoen artean Ceuta eta Melilla (3,25), Kantabria (4,42), Galizia (4,43), Nafarroa (5,21) eta Extremadura (5,26) daude.

Haurdunaldiaren borondatezko etenduraren arrazoi nagusia, EAEn zein Estatuan, haurdun dagoen emakumearen bizitzaren edota osasun fisikoaren arriskua da (kasu guztien %92,7 EAEn eta %96,7 Estatuan). Bigarren lekuan, fetuak akats larriekin jaiotzeko duen arriskua (%6,8 EAEn eta %3,2 Estatuan) dago. Hirugarren legezko arrazoiak, hots, bortxaketak, ez du inongo pisurik EAEn eta oso pisu eskasa Estatuan. Borondatezko etendurarako arrazoi bat baino gehiago egonez gero, informazioa "arrazoi ezberdinak" kategorian jasota dago.

Haurdunaldia beren borondatez eteten duten emakume gehienek 20 eta 29 urte bitartean dituzte (guztien

IV.2.3. GRAFIKOA. HAURDUNALDIAREN BORONDATEZKO ETENDURAREN TASEN BILAKAERA



Iturria: Osasun eta Kontsumo Ministerioa.

%49,3k EAEn eta %49,4k Estatuan). EAEn, etendura gehieneko adin tartea 25-29 bitarteakoa da (%25,2) eta Estatuan, berriz, 20-24koa (%26). Bigarren talde garrantzitsua 30 eta 34 urte bitarteko emakumeek osatzen dute, EAEn Estatuan baino pisu handiagoa duena.

Beren egoera zibilaren arabera, EAEn zein Estatuan, emakume horien gehiengoa senargabea da (%60,9 EAEn eta %65,8 Estatuan); emakume guztien ehuneko handi bat soldatapeko langileak dira (%61,1 EAEn eta %58,6 Estatuan).

IV.2.4. GRAFIKOA. HBEREN TASA 15-44 URTE BITARTEKO 1.000 EMAKUMEKO, EGOITZAZKO AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA, 2005



Iturria: Osasun eta Kontsumo Ministerioa.

Era berean, eta iturri beraren datuen arabera, ebakuntzen %90 baino gehiago Zentro Pribatuetan egiten dira oraindik ere, haurdunaldiko lehen 8 asteen epean. Nabarmentzekoa da zentro publikoetan, oro har, ebakuntzak ospitaleko erregimenean egiten dituztela, eta zentro pibatuetan, berriz, ospitalez kanpoko erregimenean.

Ospitaleratzeari, hots, ospitalean gaua igarotzeari, dagokionez, kasu gehienetan (%90etik gora) ez da beharrezkoa izan: kasuen %93,1ean EAEn eta %98,4n Estatuan.

(d) Substantzia psikoaktiboen kontsumoaren eraginezko tratamendua

Droga Menpekotasunei buruzko Euskal Behatokiaren (DMEB) datuen arabera, 2002 eta 2003 bitartean, anbulatorioetan eta egoitza-zentroetan artatutako pertsona kopurua hazi egin da, eta baita alkoholaz besteko toxikomanien ondoriozko tratamendurako onarpenak ere. Horrela, eten egin da 2000tik hona arrazoi horiengantik anbulatorioan artatutako pertsona kopuruaren beheranzko joera.

DMEBen 2003ko datuak eta Toxikomaniei buruzko Informazioen Estatu Sistemaren (TIES) azken txosteneko (Osasun Saileko Erregistro eta Informazio Sanitarioko Zerbitzuak 2004ko datuekin argitaratutakoa) datuak elkarrekiko osagarriak dira. Legez kanpoko substantzia guztiak kontuan hartuz gero, EAEn droga menpekotasuneko arazoak dituzten pertsonei laguntza zerbitzuak eskaintzen dizkieten zentro publiko edota itundutakoetan, tratamendurako onarpenak %19 hazi ziren 2002 eta 2003 artean eta %9 2003 eta 2004 artean, 1996 eta 2000 artean behera egin ostean eta 2000 eta 2002 artean, goranzko joera txikiarekin, egonkor mantendu ostean. Horrenbestez, beheranzko joerara itzuli gara berriro ere.

IV.2.12. KOADROA. HBE ARRAZOIAREN, ADINAREN ETA EGOERA ZIBILAREN ARABERA, 2005

	EAE		Estatua	
	k	%	k	%
GUZTIRA	**2.383**	**100**	**91.664**	**100**
Etenduraren arrazoia				
Amaren osasuna	2.210	92,7	88.617	96,7
Arrisku fetala	163	6,8	2.901	3,2
Bortxaketa	0	0,0	11	0,0
Arrazoi ezberdin.	10	0,4	135	0,1
Ez da ageri	0	0,0	0	0,0
Emakumearen adina				
< 15	4	0,2	423	0,5
15-19	244	10,2	12.460	13,6
20-24	575	24,1	23.813	26,0
25-29	600	25,2	22.358	24,4
30-34	483	20,3	16.451	17,9
35-39	339	14,2	11.359	12,4
40-44	128	5,4	4.418	4,8
>44	10	0,4	382	0,4
Egoera zibila				
Senargabea	1.451	60,9	60.347	65,8
Ezkondua	677	28,4	22.935	25,0
Alarguna	5	0,2	561	0,6
Dibortziatua	40	1,7	2.284	2,5
Banandua	127	5,3	5.062	5,5
Ez da ageri	83	3,5	475	0,5
Emakumearen lan egoera				
Enpresaria	35	1,5	2.883	3,1
Soldatap.langilea	1.457	61,1	53.717	58,6
Pentsioduna	6	0,3	315	0,3
Ikaslea	302	12,7	10.599	11,6
Langabea	294	12,3	12.557	13,7
Bere lanak	187	7,8	10.728	11,7
Beste batzuk	14	0,6	1.338	1,5
Ez da ageri	88	3,7	329	0,4
Zentroaren titulartasuna				
Publikoa	167	7	2.668	2,1
Pribatua	2.216	93	88.992	97,1

Iturria: Osasun eta Kontsumo Ministerioa.

Hazkunde horiek kontsumo gatazkatsuak gora egitearen zein kontsumitzaileak laguntza saretik gertuago egotearen ondoriozkoak izan daitezke. Kasu horretan datu positiboa izan liteke, gaixoak tratamenduzko eta kalteak arintzeko zerbitzuetara iristeko eta bertan geratzeko aukera hobetzeak eragin zuzena baitu hilkortasun-tasaren murriztapenean; hala ere, zilegi da iraganean aztertutako kontsumoaren gorakada gaur egungo laguntza eskariaren hazkundean islatzea.

Datuek adierazten dutenez, tratamendua jasotzeko egungo eskaria heroina kontsumotik urruntzen ari da eta geroz eta gehiago gerturatzen kokaina edota beste substantzia estimulatzaile batzuen kontsumora. 2004. urtean, adibidez, tratamendua hasteko eskarien erdiaren atzean kasik kokaina zegoen eta heren batean soilik ziren heroina kontsumoaren ondoriozko eskariak.

Tratamendua hasteko eta drogak kontsumitzen hasteko batez besteko adinari dagokionez, urteek aurrera egin ahala bi aldagaietan hazkunde txikia baina etengabea gertatu da. Horrela, 1987an tratamendua hasteko batez besteko adina 24,3 urtekoa zen, eta 2003an, berriz, 31,6koa. Era berean, artatutako pertsonak legez kanpoko drogak kontsumitzen hasteko adina 19tik 21,2ra igaro da azken 17 urte hauetan. Horrenbestez, handitu egin da

IV.2.13. Koadroa. Tratamendurako onarpena eragiten duen droga nagusia EAEn (%)

	2000	2001	2002	2003	2004
Heroina eta beste opiazeo batzuk	64,7	59,8	49,9	40,1	33,8
Kokaina	23,0	26,3	31,0	42,6	48,4
Anfetaminak eta speed	5,1	4,2	9,2	7,2	7,2
MDMA eta deribatuak	0,9	1,5	1,0	0,3	0,2
Hipnotikoak eta lasaigarriak	1,1	0,6	0,7	0,9	0,9
Cannabis	5,2	7,6	8,2	8,7	9,5

Iturria: DMEB 2006 eta TIES 2006.

drogak kontsumitzen hasteko eta tratamenduari ekiteko adinaren urte tartea: bost urte baino zerbait gehiago 1987an eta ia hamar 2003an.

2003an larrialdietako adierazlearen definizioa aldatu eta zabaldu egin zenez gero, ezinezkoa da drogekin lotuta ospitaleko larrialdiek izan duten bilakaera aztertzea. Nolanahi ere, datuek argi erakusten dute 2004an 49 urtetik beherakoen artean 275 larrialdi gertatu zirela, 2003an baino %40 gehiago kasik.

DMBEk eskainitako datu batzuk positiboak direla esan liteke. Horien artean, nabarmentzekoa da drogenganako erreakzio akutuak eragindako hildako kopurua etengabe murriztu dela, 2004an, gutxienez 1994tik hona, zifrarik baxuena dena –31 hildako– atzeman duen arte. Bestetik, bereziki positiboa da tratamendurako onartuak izan diren pertsonek xiringatzeko bidearen erabilera etengabe murrizten ari dela (%52tik %17ra zortzi urtetan). Horrek agerian utziko luke gaur egun kontsumituriko substantziak beste batzuk direla eta kalteak murrizteko

IV.2.14. Koadroa. Drogaren kontsumoaren eraginezko tratamendua eta hilkortasun-tasa EAEn (1994-2003)

	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Alkoholaz besteko toxikomanien eraginez anbulatorioan artatutako pertsona kopurua	5.203	5.487	5.327	5.457	6.041	6.797	7.368	6.111	5.730	6.086	—
Alkoholaz besteko toxikomanien eraginez egoitza zentroetan artatutako pertsona kop.	774	808	678	624	609	517	637	653	656	704	—
Bizkaian metadona banatzen duten zentroetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera	353	538	707	858	1.124	1.387	1.723	1.976	2.161	2.060	—
Alkoholismoaren eraginez anbulatorioan artatutako pertsona kopurua	—	3.571	3.717	3.962	3.936	4.129	4.276	4.156	4.263	4.456	—
Droga menpekotasunen eraginez tratamenduan onartuak izan diren kasu kopurua EAEn	—	—	2.024	1.715	1.652	1.494	1.408	1.432	1.443	1.728	1.894
Opiazeo eta kokaina kontsumoaren eraginez tratamenduan onartuak izan diren kasu kopurua EAEn	1.852	2.088	1.841	1.502	1.39	1.280	1.233	1.205	1.132	1.428	1.531
Tratamendua hasteko batez besteko adina	28,2	28,8	28,7	29,4	30,2	30,2	31,2	31,3	31,5	31,6	—
Drogak kontsumitzen hasteko batez besteko adina	20,0	20,2	20,1	20,3	20,4	20,8	20,9	20,7	20,8	21,2	—
Drogenganako erreakzio akutuak eragindako hilkortasun-tasa	65	71	85	55	60	46	35	39	34	35	31

Iturria: DMEB 2006 eta TIES 2006.

mezu eta politikek heroina kontsumitzaileen artean ere eragina izan dutela; izan ere, horien %60 ez dira drogaren administraziorako bide nagusi gisa bide parenteralaz edo xiringaturikoaz baliatzen.

2.2. Osasun sistema eta prestazioak

Lurralde jakin bateko osasun sistemaren egoera eta bilakaera baloratzeko oro har onartzen diren baliabide adierazleak ospitale kopurua, ohe kopurua eta langileria (sendagileak, erizaintzako langileak,…) dira.

Eurostatek baliabideei eta pertsonal sanitarioari dagokienez dituen datuen arabera:

- EAEn, EB-27ko herrialde gehienetan bezala, 100.000 biztanleko mediku eta psikiatra kopuruak hazten jarraitzen du. Horrela, 2000an 261,9 izatetik 366,1 izatera igaro dira 2005ean. Hala ere, eta aurreko urtean ere esan genuen moduan, murriztapen bat egon da, 2003 eta 2004 urteen artean oraingoan, Eustaten datuen arabera berriro gertatu ez dena. Izan ere, Eustaten datuek erakutsi digutenez, 100.000 biztanleko mediku kopuruak hazkunde iraunkorra izan du, bai ospitalez kanpoko laguntza-jardueraren estatistikan, bai ospitaleko estatistikan.

Beste batzuetan jada esan dugun moduan, Eustatek darabilen metodologian, ospitaleko eta ospitalez kanpoko laguntzako osasun jarduerak bereizten dira, eta bi horiek ezin dira erantsi, halaxe jokatuz gero mediku kopurua bikoiztu egingo litzatekeelako. Azken batean, esan daiteke fakultatibo kopuruak goranzko joera duela, baina ezinezkoa da kopuru horren benetako hazkundea zein izan den zehaztea.

- Ospitaleko ohe kopuruak, EBn (EB-15 eta EB-25), beheranzko joera aurkezten du, neurri handi batean ospitaleko egonaldia ere murriztu egin delako.
  Zehatz-mehatz esanda, 1998 eta 2004 bitartean, 100.000 biztanleko ohe kopurua 648,9tik 611,3ra igaro da EB-15ean (hau da, 100.000 biztanleko 37,6 ohe murriztu da) eta 677,4tik 639,1era EB-25ean (hau da, 28,3 ohe gutxiago 100.000 biztanleko). Estatuan, urte tarte berean, murriztapen hori 100.000 biztanleko 24,2 ohekoa izan da; eta 2004ra bitartean, murriztapena 100.000 biztanleko 33,4 ohekoa izan da. EAEn joera bera antzematen da. Izan ere, 1998 eta 2004 bitartean, 100.000 biztanleko ohe kopurua 403,6tik 383,8ra jaitsi da. Hala ere, 2003 eta 2004 bitartean ohe kopurua hazi egin da.
  Era berean, datuek argi eta garbi adierazten dute psikiatria arloko ohe kopurua aztertutako lurralde guztie-

IV.2.15. Koadroa. Medikuak EAEn 100.000 biztanleko

	2001	2002	2003	2005	2005
Ospitalez kanpoko laguntza jarduerako medikuak (KLJ)	2.633	2.683	2.703	2.741	2.768
Ospitaleko laguntza jarduerako medikuak (OLJ)	4.051	4.077	4.180	4.247	4.284
Biztanleria	2.111.078	2.116.240	2.120.384	2.128.801	2.140.908
KLJko medikuak 100.000 biztanleko	124,7	126,8	127,5	128,8	129,3
OLJko medikuak 100.000 biztanleko	191,9	192,7	197,1	199,5	200,1

Iturria: Eustat.

IV.2.16. Koadroa. Oheak 100.000 biztanleko

	1988	1999	2000	2001	2002	2003	2004
EAE							
Guztira	403,6	402,7	398	390,6	389,5	382,4	383,8
Psikiatrian	99,6	99,7	99	98,1	97,6	95,6	96,6
EB-25							
Guztira	677,4	656,1	651,9	641,6	639,1	—	—
Psikiatrian	94,2	99,2	90,1	85,7	85,3	—	—
EB-15							
Guztira	648,9	625,0	622,9	612,8	611,3	—	—
Psikiatrian	95,1	101,3	90,6	86,8	86,6	—	—
Estatua							
Guztira	380,9	376,0	372,7	362,5	356,7	347,8	347,5
Psikiatrian	53,6	536	52,6	51,1	50,9	49	47,8

Iturria: Eurostat.

IV.2.17. KOADROA. 100.000 BIZTANLEKO PERTSONAL SANITARIOA

	Psikiatrak eta medikuak				Oheak	Dentistak			Erizainak		
	2000	2003	2004	2005	2004	2003	2004	2005	2001	2002	2003
EB-15											
Belgika	410,5	—	444,1	—	6,8	87,6	91,1	—			
Danimarka	342,5	284,9	—	—	—	85,4	—	—	988	992,9	776,4
Alemania	326,1	336,7	338,9	—	8,6	75	75,5	—	751,1	763,8	770,6
Irlanda	223,4	259,1	276,6	—	—	55,9	55,5	—	1491,3	1547,5	1.519,1
Grezia	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Espainia	349,3	329,2	340,1	379,9	3,5	48,1	49,7	51,5	372,2	414,2	405
Galizia	280,9	262,9	206,9	331,8	3,6	48,7	48,4	49,8	333,7	382,4	348,1
Asturias	341,7	387	254,7	415,4	3,6	53,6	49,6	51,1	357,4	329,6	358,6
Kantabria	284,3	222,6	275,2	508,1	3,8	45,3	42,6	43,7	412,8	411,3	649,4
EAE	261,9	368,7	348,5	366,1	3,8	60,4	62,1	64,5	433,4	576,3	694,3
Nafarroa	391,9	548,7	663,1	620,0	3,9	47,4	46,9	48,1	544	755,5	601,8
Errioxa	417,3	390,2	312,1	305,8	3,4	46,5	48,5	51,0	295,2	361,4	461,1
Aragoi	410,6	485,2	472,0	361,9	4,1	42,7	41,6	42,8	517,4	498,5	608,5
Madril	475,4	—	410,1	558,3	3,4	—	74,6	78,2	293,9	377,8	351,2
Gaztela eta Leon	335,8	362,2	357,4	352,3	4,1	37,7	35,8	36,6	463,7	399,3	419,1
Gaztela-Mantxa	263,5	201,1	230,4	247,7	2,7	29,7	28,8	29,7	362	414,7	318,4
Extremadura	336	397,1	281,4	252,6	3,5	27,5	28,0	29,2	471,7	510,3	453,9
Katalunia	342	317	348,0	398,0	4,5	40,7	52,3	52,9	412	433,5	395,4
Valentzia	419,2	319,8	338,6	309,9	2,6	46,7	47,1	48,2	306,9	348,3	443,5
Balearrak	244	274	343,4	375,8	3,5	46,1	47,3	48,7	376,8	285	308,2
Andaluzia	305,2	329	346,9	346,8	2,7	45,4	45,6	47,4	365,6	433,4	361,3
Murtzia	—	438,2	268,6	361,5	3,1	43,4	49,7	54,4			219,1
Ceuta	—	419,2	839,7	420,3	5,4	48,9	46,2	44,8			1.17,8
Kanariak	—	—	289,6	309,1	4,1	—	38,3	40,6	246,9	294,8	385,5
Frantzia	335,7	333,4	335,1	337,0	7,8	67,2	67,2	67,1	685,3	709	731
Italia	599,4	628	635,6	—	4	65	68,8	—	483,8	495,9	—
Luxenburgo	235,7	245,4	327,7	—	—	70,0	74,8	—	750,8	764,1	920,4
Herbehereak	302,6	—	—	—	—	—	—	—	1287,3	—	—
Austria	312,6	339,8	346,7	—	7,8	50	50,5	—	588,2	588,8	605,2
Portugal	265,1	269,3	—	—	3,7	3,8	—	—	347,7	351,5	347
Finlandia	—	—	—	—	7,1	—	—	—	2174	2168,1	2147,7
Suedia	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Erresuma Batua	192,7	218,5	—	—	—	45,9	—	—	726,9	760,4	797
EB-27											
Bulgaria	336,1	356,5	351,5	—	—	82,1	83,2	—	408,5	404,8	422
Txekiar Errep.	370,2	389	393,1	—	8,6	67	68,5	—	885,2	906,4	908
Estonia	326,3	315,4	319,2	—	4,5	83,1	86,3	—	625,3	640,3	650,1
Zipre	260,7	262,7	269,0	—	—	93,8	95,4	—	424,8	424,4	—
Letonia	286,3	277,8	—	—	—	54,3	—	—	426,9	425,1	433,2
Lituania	379,4	395,1	388,8	—	8,4	68,5	65,9	—	796,9	774,5	757,5
Hungaria	305,6	377	333,4	—	7,8	—	50,9	—	490,4	499,3	506,2
Malta	269,3	—	—	—	7,6	—	—	—	—	552,9	557,5
Polonia	—	243,3	229,0	—	—	29	37,0	—	—	481,2	548,8
Errumania	188,7	215,5	221,8	—	—	41,4	43,7	—	496	520,4	502,3
Eslovenia	215,3	234,1	238,8	—	4,8	61,8	61,4	—	161,7	165,8	—
Eslovakia	335	328	331,8	—	6,9	44	43,5	—	733	713	680
Norvegia	—	328,7	345,7	—	—	81,4	80,6	—	—	1309,8	1328,2

Iturria: Eurostat. Datu-basea.

tan murriztu egin dela 2002ra bitartean (2003ra bitartean Estatuan eta EAEn). Hala ere, 2003 eta 2004 bitartean, EAEn ohe kopurua hazi egin da.

- 100.000 biztanleko dentista kopurua hazi egin da berriro ere, eta EAEn, 2001 eta 2003 bitartean, 60,4tik 64,5era igaro da. Kozienteak Estatukoa (51,5, 2005ean) baino altuagoa izaten jarraitzen du, baina EB-15eko herrialde gehienena eta Europa hedatua osatzen duten herrialdeena baino txikiagoa da.
- 100.000 biztanleko erizain kopuruari dagokionez, Eurostatek ez du datu berririk argitaratu, eta azkenekoek (gure aurreko Memoria Sozioekonomikoan aurkeztutakoek eta hurrengo taulan adierazitakoek) 2001 eta 2003 artean hazkunde nabarmena egon dela adierazten dute, 433,4 izatetik 694,3ra igaro baitira. Aipatu datuak Estatuan jasotakoen gainetik daude (372,2, 2001ean eta 405, 2003an), baina EB-15eko herrialde gehienetakoak baino txikiagoak dira (Austria eta Por-

IV.2.18. KOADROA. OSPITALEZ KANPOKO LAGUNTZA JARDUERA PUBLIKOA EAEN

	2002	2003	2004	2005	Δ 04-05 (%)	Δ 02-05 (%)
Baiiabideak						
Zentro kopurua	439	440	443	444	0,2	1,1
Langileak guztira	6.874	6.966	7.036	7.167	1,9	4,3
Medikuak	2.683	2.703	2.741	2.768	1,0	3,2
Beste sanitarioa	2.808	2.842	2.868	2.924	2,0	4,1
Ez sanitarioa	1.383	1.421	1.427	1.475	3,4	6,7
Laguntza jarduera (milatan)						
Konts. guzt. (milatan)	12.401	12.608	12.889	13.180	2,3	6,3
Medikuntza orokorra	8.630	8.727	8.964	9.248	3,2	7,2
Pediatria	1.429	1.482	1.485	1.551	4,4	8,5
Erradiografiak	461	499	514	530	3,1	15,0

Iturria: Osakidetza. Eustat "Ospitalez kanpoko Estatistika".

tugal izan ezik). Europa hedatuan koziente handiagoak dituzten herrialdeen artean Txekiar Errepublika eta Lituania daude.

2.2.1. *Laguntzako osasun egitura, baliabideak eta jarduera*

Laguntzako osasun jarduera ospitalekoa edo ospitalez kanpokoa izan daiteke (azken horrek ospitalez kanpo ematen diren oinarrizko laguntza eta espezializatua barne hartzen ditu) eta biak publikoak edo pribatuak izan daitezke. Laguntzako osasun jarduera publikoa Osakidetzak eta itundutako zentroek ematen dute, eta pribatua, berriz, zentro pribatuek.

Epigrafe honetan egiten den azterketarako, Eustaten datuak erabili dira, hau da, Eustatek ospitaleko eta ospitalez kanpoko sektorerako emandako datuak. Hala eta guztiz ere, lehenengo kasuan, informazioa erabilgarria da sektore publikorako eta sektore pribaturako, baina bigarrenean (ospitalez kanpokoa), ostera, sektore publikorako bakarrik dauka erabilgarritasuna.

2.2.1.1. *Ospitalez kanpoko jarduera publikoa*

Eustaten datuen arabera, ospitalez kanpoko laguntza jarduera publikoak goranzko joerari eutsi dio.

Horrela, 2005ean, 13,2 milioi kontsulta artatu ziren, aurreko urtean baino %2,3 gehiago eta 2002an baino %6,3 gehiago. Hazkunde hori enpleguaren hazkundearen (%1,9koa 2004 eta 2005 bitartean eta %4,3koa azken lau urteotan) gainetik dago.

Enplegaturiko guztizko pertsonala 7.167 pertsonak osatzen dute. Horietatik, enplegaturikoen %79,4 pertsonal sanitariokoak dira (2.768 mediku —aurreko urtean baino 27 gehiago—, 2.924 eritzaintzako langile eta beste mota batzuetakoak) eta %20,5 pertsonal ez-sanitariokoak.

IV.2.19. KOADROA. OSPITALEZ KANPOKO ADIERAZLE NAGUSIAK EAEN

	2002	2003	2004	2005
EGITURAREN ADIERAZLEAK (mediku bakoitzeko biztanle kopurua)				
Medikuak guzt.	789	784	777	764
Medik. Orokorra	1.524	1.511	1.498	1.445
Pediatria (0-<14 urte)	829	823	830	834
JARDUERAREN ADIERAZLEAK (100 biztanleko kontsultak)				
Kontsulta medik.	586	595	605	623
Kontsultak Med. Orokorra	408	412	421	437
Kontsultak Pediatria	614	627	617	631

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila Ospitalez Kanpoko Estatistika Publikoa.

Ospitalez kanpoko esparruan egiten diren kontsulta medikoen %82 oinarrizko laguntzari dagozkio eta medikuntza orokorra/familiakoak (9,2 milioi) eta pediatriakoak (1,6 milioi) dira. Bi espezialitateen kontsulta bolumena hazi egin da aurreko urteari dagokionez, %3,2 medikuntza orokorrean eta %4,4 pediatrian. Kontsulta medikoen gainontzeko %18 (2,4 milioi), berriz, anbulatorioko laguntza espezializatuarekin lotuta daude. Kontsulta gehien dituzten espezialitateak traumatologia (491.457 kontsulta), tokoginekologia (329.268), psikiatria (279.216) eta oftalmologia (217.473) izan dira.

Bestetik, zentro kopurua 444koa da, eta zifra horrek %1,1eko hazkundea adierazten du 2002ri dagokionez.

Beste behin, mediku kopuruak gora egin izanak mediku bakoitzeko biztanle kopurua murriztea eragin du medikuntza orokorrean. (1.498tik 1.445era igaro dira). Hala ere, joera hori ez da pediatrian errepikatu, espezialitate horretan mediku bakoitzeko biztanle kopurua 830etik 834ra hazi baita.

Biztanle bakoitzeko batez besteko kontsulta kopurua 6,2koa izan zen, eta zifra horrek hazkunde berria adierazten du aurreko urteei dagokienez. Hazkundea medikuntza orokorrean (biztanleko 4,2 kontsultatik 4,4ra) nahiz pediatrian (14 urtetik beherakoek beren osasun zentroko pediatrara jo zuten batez besteko 6,3 aldiz, aurreko urteko 6,2ren aldean) gertatu da.

2.2.1.2. Ospitaleko jarduera publikoa eta pribatua[2]

Eustaten Ospitale Estatistikako datuen arabera, 200 eta 2005 artean ospitale kopurua unitate batean hazi da sare pribatua handitzearen eraginez. Bertan 27 ospitale daude, eta sare publikoan, berriz, 18. Hala ere, ohe (%69,4), mediku (%65,3), erizain (%85,5) OLT eta EUD (%85,5) eta laguntzaileak ez diren langile (%75) gehienak sare publikoan daude. Erizainen kasuan izan ezik, hazkundeak egon dira aztertutako kategoria guztietan. Bestetik, garrantzitsua da nabarmentzea erizain kopuruaren murriztapena sare pribatuan ere gertatu dela.

Aztertutako urte tartean, lehen ere aipatu dugun moduan, ohe kopurua %1,3 hazi da, sare publikoan zein pribatuan. Horrela, ordura arte ospitale pribatuetan errepikatu izan den beheranzko joera eten egin da.

Langile kopuruari dagokionez, %1,8 hazi da berriro ere. Sare publikoa eta pribatua bereiztuz gero, sektore publikoan %1 hazi da, eta pribatuan %4,5. Kategorien arabera (medikuak, erizainak, etab.) erizain kopurua murriztu egin da bi sareetan (%5,8 sare publikoan eta %11,2 pribatuan); mediku kopurua %1,8 hazi da sare publikoan eta %0,8 murriztu da sare pribatuan; OLT eta EUD eta laguntzaileak ez diren langile kopurua sare pribatuan publikoan baino gehiago hazi da. Gogoratu beharra dago aurreko urtean, sektore publikoan, mediku eta erizain kopurua hazi egin zela (%2,3 eta %0,1, hurrenez hurren), baina ez OLT eta EUD edota langile laguntzaileei dagokienez. Azken horiek %0,1 eta %1,4 murriztu ziren, hurrenez hurren.

Eustaten datuen arabera, pertsonal sanitarioaren %71 emakumezkoak dira eta %29, berriz, gizonezkoak. Sektorearen feminizazioa pertsonal sanitarioan zein ez-sanitarioan mantentzen da, sanitarioan nabarmenagoa den arren (%74,4 eta %61,9, hurrenez hurren).

Laguntza jarduerari dagokionez, jarduera guztiak hazi egin dira, ebakuntza kirurgikoak eta kanpo-kontsultak

IV.2.20. KOADROA. OSPITALEKO LAGUNTZA JARDUERAREN BILAKAERA EAEN

	2002			2003			2004			2005			Aldaketa 04-05		
	Guztira	Publik.	Pribat.	Guztira	Publik.	Pribat.	Guztira	Publik.	Pribat.	Guztira	Publik.	Pribat.	Guztira	Publik.	Pribat.
BALIABIDEAK															
Ospitale kopurua	45	18	27	44	18	26	44	18	26	45	18	27	2,3	0,0	3,8
Oheak	8.110	5.403	2.707	7.985	5.445	2.540	8.016	5.565	2.451	8.118	5.635	2.483	1,3	1,3	1,3
Langileak guztira	19.716	15.337	4.379	19.887	15.557	4.330	20.037	15.620	4.417	20.399	15.784	4.615	1,8	1,0	4,5
Medikuak	4.077	2.581	1.496	4.180	2.685	1.495	4.247	2.747	1.500	4.284	2.796	1.488	0,9	1,8	–0,8
Erizainak	5.585	4.773	812	5.633	4.817	816	5.686	4.822	864	5.307	4.540	767	–6,7	–5,8	–11,2
OLT eta EUD	5.144	4.466	678	5.165	4.499	666	5.213	4.494	719	5.307	4.540	767	1,8	1,0	6,7
Laguntz. ez diren langileak	3.917	2.984	933	3.886	2.982	904	3.857	2.941	916	3.941	2.956	985	2,2	0,5	7,5
LAGUNTZA JARDUERA															
Ospitaleratzeak	272.818	198.713	74.105	278.195	204.064	74.131	283.576	207.552	76.024	285.620	206.856	78.764	0,7	–0,3	3,6
Egonaldiak	2.423.647	1.689.171	734.476	2.399.586	1.701.166	698.520	2.435.944	1.737.061	698.883	2.461.245	1.751.250	709.995	1,0	0,8	1,6
Altak	271.944	197.837	74.107	277.387	203.432	73.955	282.255	206.378	75.877	284.296	205.646	78.650	0,7	–0,4	3,7
Kanpo-kontsultak	2.038.678	1.580.188	458.490	2.122.406	1.652.273	470.133	2.194.214	1.705.549	488.665	2.179.236	1.713.994	465.242	–0,7	0,5	–4,8
Larrialdiak	1.000.622	872.910	127.712	1.043.230	901.315	141.915	1.052.006	907.024	144.982	1.074.903	914.249	160.654	2,2	0,8	10,8
Ebakuntza kirurgikoak	209.177	128.787	80.390	214.028	132.714	81.314	219.165	138.177	80.988	213.276	131.278	81.998	–2,7	–5,0	1,2
Erditzeak	18.137	16.040	2.097	19.191	17.001	2.190	19.789	17.375	2.414	19.992	17.512	2.480	1,0	0,8	2,7
Erditze anitzak	340	320	20	384	363	21	379	362	17	387	370	17	2,1	2,2	0,0
Anestesia epiduraleko erditz.	13.517	12.666	851	13.301	12.743	558	14.806	14.416	390	15.113	14.514	599	2,1	0,7	53,6

Iturria: Eustat. Ospitaleko Estatistika. Datu-basea.

[2] Eustaten arabera ospitaleak publikoen (Osakidetza) eta pribatuen (benefiko-partikularra, pribatuak, Gurutze Gorria, beste batzuk) artean sailkatzen dira.

IV.2.21. KOADROA. OSPITALE-ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA EAEN (2001-2004)

	2002			2003			2004			2005		
	Guztira	Publik.	Pribatua	Guztira	Publik.	Pribatua	Guztira	Publik.	Pribatua	Guztira	Publik.	Pribatua
EGITURAREN ADIERAZLEAK (langileak erabilitako 1.000 oheko)												
Medikuak	35,3	43,7	18,5	36,9	45,1	19,2	37,8	45,2	21	38,3	45,5	21,9
Erizainak	66,8	86,8	26,7	67,5	85,6	28,7	67,9	83,7	31,8	68	83	34,2
JARDUERAREN ADIERAZLEAK (1.000 biztanleko adierazlea)												
Oheak	3,9	2,6	1,3	3,9	2,6	1,2	3,8	2,6	1,2	3,8	2,7	1,2
Egonaldiak	1.176,3	819,8	356,5	1.167	827,3	339,7	1.156,1	824,4	331,7	1.163,9	828,1	335,7
Larrialdiak	485,7	423,7	62	507,4	438,3	69	499,3	430,5	68,8	508,3	432,3	76
Ebakuntza kirurgikoak	101,5	62,5	39	104,1	64,5	39,5	104	65,6	38,4	100,9	62,1	38,8
Kanpo-kontsultak	989,5	767	222,5	1.032,2	803,6	228,6	1.041,4	809,5	231,9	1.030,5	810,5	220
FUNTZIONAMENDUAREN ADIERAZLEAK												
Okupazio indizea (%)	81,9	85,6	74,3	82,3	85,6	75,3	83,3	85,5	78,1	83,1	85,1	78,3
Batez besteko egonaldia	8,9	8,5	9,9	8,7	8,4	9,4	8,6	8,4	9,2	8,7	8,5	9
Errotazio indizea	33,5	36,6	27,4	34,7	37,4	29,1	35,2	37,1	31	35	36,5	31,7
Larrialdietako presioa	49,9	61,2	19,7	49,1	59,8	19,7	49	60,2	18,4	50,4	62,5	18,6
Ospitaleraturiko larrialdiak	13,6	13,9	11	13	13,5	9,9	13,2	13,8	9,3	13,3	14,1	8,8
Hilkortasun gordina (%)	3,4	3,8	2,2	3,5	3,9	2,3	3,3	3,8	2	3,5	4	2,1
1.000 hildakoko nekropsiak	48,8	58,9	2,4	40	48,2	1,8	37,8	44,5	2,7	33,7	40	1,8
Batez besteko egonaldia kirurgian eta espezial.	4,5	5,3	3,2	4,3	5,1	2,9	4,3	5,2	2,8	4,2	5,3	2,5
Batez besteko egon. ginekologian	3	2,9	4,1	3,1	3	4	3,1	3	3,9	3,1	3,1	3,3

Iturria: Eustat "Ospitaleko Estatistika". Datu-basea.

salbu; azken horiek %2,7 eta %0,7 murriztu dira, hurrenez hurren. Hala ere, bilakaera ezberdina da sare publikoa eta pribatua bereiziz gero. Horrela, ebakuntza kirurgikoek sare publikoan gertatutako murriztapenaren (%5) eraginez egin dute behera, sektore pribatuan %1,2ko hazkundea egon baita. Eta kanpo-kontsulten murriztapenak sare pribatuaren bilakaeran (–%4,8) du jatorria, sare publikoan %0,5eko hazkundea izan baitute.

Artatutako erditze guztiei (199.992) dagokienez, %1eko hazkundea egon da aurreko urteari dagokionez. Erditze gehienak, hots, %87,6, ospitale publikoetan egin dira. Aurreko urtearekin alderatuta, zesarea bidezko erditzeak %4,7 murrituztu dira eta erditze guztien %14,4 dira. Zifra hori azken hamabost urteotako baxuena da (1991-2005) eta OMEk zesarea kopuru onargarri gisa gomendatzen duen %15-18ko mugaren azpitik dago.

Larrialde kopuruak hazten jarraitzen du EAEko ospitaleetan, ospitalez kanpoko laguntza zentroetan bezalaxe. Horrela, EAEko ospitaleetako larrialdi zerbitzuek 1.074.903 kasu artatu zituzten guztira 2005ean, 2004an baino %2,2 gehiago. Hala ere, hazkunde horren ehunekorik handiena sare pribatuan egon zen (%10,8, sare publikoaren %0,8rekin alderatuta).

Azkenik, sare publikoko ospitaleratze kopurua murriztu egin (–%0,3) da, eta ospitale pribatuetako larrialdien eta anestesia epiduraleko erditzeena, berriz, hazi, %10,8 eta %53,6, hurrenez hurren.

Egituraren ospitale-adierazleen azterketatik ondorioztatzen denez, 100 oheko mediku kopuruak hazten jarraitzen du, ospitale publiko zein pribatuetan; 2005ean, 100 oheko 45,5 mediku zeuden publikoetan, eta 21,9, berriz, pribatuetan. Aitzitik, 100 oheko erizain kopurua hazi egin da sare pribatuan, baina publikoan kontrakoa gertatu da.

Ospitaleek 8.118 ohe izan zituzten (aurreko urtean baino 102 gehiago), eta zifra horrek 1.000 biztanleko 3,8 oheko proportzioa adierazten du. Berau aurreko urtekoaren berdina da, baina, Eustaten arabera, Estatuak 2004an izan zituen 3,4 oheen gainetik dago. Jarduerari buruzko gainontzeko ospitale-adierazleek egonaldiak hazi egin direla erakusten dute (1.000 biztanleko 1.156tik 1.163,9ra) eta baita larrialdiak ere (1.000 biztanleko 499,3tik 508,3ra). Era berean, 1.000 biztanleko kanpo ebakuntza eta kontsultetan murriztapenak egon direla adierazten dute.

Bestetik, ospitaleko okupazio indizea (%84,3tik %83,1era) eta ospitaleko batez besteko egonaldia (8,6

egunetik 8,5era) ostera murriztu dira. Hala ere, azken hori ginekologian 3,1 egunekin egonkor mantendu da.

2.2.1.3. Ospitaleko eta ospitalez kanpoko jarduera Osakidetzan

Baliabideen erabilera

Osakidetzako Osasun Laguntzako Zuzendaritzak eskainitako datuen arabera, Osakidetzako[3] sareak 2006an izandako batez besteko okupazio indize orokorrak behera egin du berriz ere. Zehatz-mehatz esanda, 1,2 puntu murriztu da 2005eri dagokionez; horrela, %83koa izan da eta aurreko urtean, berriz, %84,2koa izan zen.

%100 gaindituz eta, beraz, aipatu batez bestekoaren gainetik, ondorengo espezialitateak daude: digestio aparatua (%108,1 eta 1,7 puntuko hazkundea aurreko urteari dagokionez) eta barne medikuntza (%105,4, aurreko urteari dagokionez, 8,9 puntu murriztu bada ere). %100en azpitik baina batez bestekoaren gainetik honakoak ditugu: kardiologia (%93,8), kirurgia orokorra (%92,2), traumatologia (%86,6), kirurgia kardiobaskularra (%86,5), psikiatria (%85,6), toraxeko kirurgia (%85,4), kirurgia baskularra (%85) eta pneumologia (%83,8).

Batez bestekoaren oso azpitik daude zainketa aringarriak (%61,3) eta urologia (%77,7).

Eguneko batez besteko egonaldia 7,1etik 6,7ra murriztu da. Batez bestekotik gora daude errehabilitazioa (33,5), zainketa aringarriak (18,2), psikiatria (14,7), hematologia (11) eta barne medikuntza (8,9).

Itxaronzerrendak

Kanpo-kontsulten itxaronzerrendetako gaixo kopuruak behera egin du berriro ere 2005 eta 2006 bitartean, eta 102.069tik 83.027ra igaro da; zifra horrek %18,7ko murriztapena adierazten du.

Murriztapena espezialitate guztietan gertatu da digestio-aparatuarenean izan ezik, azken horrek %2,6ko hazkundea izan baitu. Murriztapen handienak izan dituztenak ondorengoak dira: kardiologia (%28,94), kirurgia orokorra (%27,76), traumatologia (%25,1), eta urologia (%23,55).

Hala ere, urte tarte zabalagoa aztertuz gero, 2003 eta 2006 bitartean, besteak beste, itxaronzerrendan zeuden gaixoen kopurua %2,12 hazi zen. Gora egite hori honako espezialitate hauen hazkundean oinarrituta egon zen:

IV.2.22. KOADROA. BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA ESPEZIALITATEAREN ARABERA (BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO INDIZEA)

	B. best. egonaldia (egunak)				Okupazio indizea (%)			
	2003	2004	2005	2006	2003	2004	2005	2006
Medikuntza zerbitzuak								
Barne Medikuntza	9,1	9,0	9,3	8,9	97,6	105,1	114,3	105,4
Kardiologia	5,7	5,6	6,0	5,6	95,8	92,5	97,0	93,8
Digestio-aparatua	8,3	8,3	8,1	7,6	105,6	105,1	106,4	108,1
Hematologia	10,5	11,1	10,6	11,0	79,7	87,2	86,1	82,1
Pneumologia	7,7	7,6	7,9	7,1	85,1	94,2	96,7	83,8
Psikiatria	15,3	16,0	15,1	14,7	86,6	88,4	87,2	85,6
Errehabilitazioa	38,1	35,7	32,8	33,5	88,9	86,8	81,4	81,2
Zainketa aringarriak	20,5	19,3	17,0	18,2	75,1	55,2	54,1	61,3
Kirurgia zerbitzuak								
Kirurgia orokorra	5,3	5,5	6,0	5,4	86,8	93,8	97,7	92,2
Kirurgia plastikoa	5,9	5,6	5,9	5,7	72,0	72,1	66,8	68,2
Kirurgia kardiobaskularra	5,1	5,0	5,2	5,6	62,7	69,1	90,9	86,5
Kirurgia baskularra	5,9	6,4	6,3	6,1	86,5	86,7	79,8	85,0
Toraxeko kirurgia	5,5	5,7	5,5	4,9	86,4	96,6	87,1	85,4
Neurokirurgia	7,0	7,3	7,0	6,8	84,2	87,6	80,9	80,6
Traumatologia	5,9	5,9	6,4	5,9	84,1	87,9	88,7	86,6
Urologia	5,0	5,1	5,1	4,7	76,7	84,9	87,8	77,7
OROKORRA	7,0	7,0	7,1	6,7	84,4	84,3	84,2	83,0

Iturria: Osakidetza. Ospitale Akutuak + Egonaldi Ertaineko eta Luzeko Ospitaleak.

[3] Erantsitako informazioa Osakidetzako ospitale guztiei buruzkoa da. Aurreko Memoria Sozioekonomikoetan akutuen ospitaleetakoa bakarrik kontuan hartzen zen. Oraingoan egonaldi ertaineko eta luzeko ospitaleetako informazioa ere jaso da.

IV.2.23. Koadroa. Kanpo-kontsultetako itxaronzerrendetako berandutze aldiak (%)

	2003	2004	2005	2006
< 1 hilabete	64,2	57,9	61,4	74,6
1 – 3 hilabete	30,8	32,6	27,3	23,2
> 3 hilabete	5,0	9,4	11,3	2,2

Iturria: Osakidetza. Ospitale Akutuak + Egonaldi Ertaineko eta Luzeko Ospitaleak,

anestesiologia (%39,91), digestio-aparatuarena (%21,81), otorrinolaringologia-ORL (%16,1) eta ginekología (%14,21).

Berandutze aldiari dagokionez, 2005 eta 2006 bitartean 3 hilabete baino gehiago itxaroten duten biztanleen ehunekoak behera egin du, eta %11,3tik %2,2ra igaro da. 1 eta 3 hilabete bitartean itxaroten duten biztanleen kopurua ere murriztu egin da. Horrenbestez, hilabete 1 baino gutxiago itxaroten dutenen ratioa hazi egin da, %61,4tik %74,6ra igaro baita.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, 2005 eta 2006 bitartean gaixo kopurua %1,5 hazi da, eta 15.706 pertsonatik 15.944ra igo da. Hala ere, batez besteko berandutze-egun kopurua murriztu egin da (55,17 egunetik 51,9ra). Bestetik, ebakuntza eguna iritsi bitartean 3 hilabetetik gora zain egon behar duen pertsona kopurua ere murriztu egin da (%18,25tik %15,5).

Kirurgia-prozeduraren araberako bereizketa eginez, itxaronzerrendetako gaixo gehienak honako espezialitate hauetan erregistratu dira: begi-lausoak (3.193), herniak (1.395), barizeak (838), artroskopiak (755) eta belauneko protesia (571); Hazkunderik handienak izan dituztenak, berriz, honako hauek dira: Adeno-amigdalektomiak (34,4), barizeak (24,9%) eta Fistula-fisura/kiste pilonidala (19,7%). Azkenik, itxaronzerrendetako gaixo gehienak honako espezialitateetan murriztu dira: aldakako protesia, MEO, artrodesis/artroplastia eta belauneko protesia.

Urte tarte zabalagoa aztertuz gero, 2003 eta 2006 bitartean, kirurgiarako itxaronzerrendan zeuden gaixoen kopurua %15,9 hazi da, eta 13.759 pertsonatik 15.944ra igaro da. Hala ere, berandutze aldiaren batez besteko egun kopurua zertxobait murriztu da, eta 53,8tik 51,9ra igaro da. Bestetik, ebakuntza eguna iritsi bitartean 3 hilabetetik gora zain egon behar duen pertsona kopurua hamarren bat soilik hazi da. Hazkunderik handienak ko-

IV.2.24. Koadroa. Kanpo-kontsultetako itxaronzerrendak (gaixo kopuru handiena duten espezialitateak)

	Gaixo kopurua				Aldaketak			
	2003	2004	2005	2006	Ald. % 03-04	Ald. % 04-05	Ald. % 05-06	Ald. % 03-06
Alergologia	1.801	2.064	1.982	1.664	14,6	–4,0	–16,04	–7,61
Anestesiologia	2.919	4.035	5.002	4.084	38,2	24,0	–18,35	39,91
Kardiologia	2.371	2.922	3.290	2.338	23,2	12,6	–28,94	–1,39
Dermatologia	9.199	9.711	10.564	8.305	5,6	8,8	–21,38	–9,72
Digestio-aparatua	2.898	3.349	3.440	3.530	15,6	2,7	2,62	21,81
Endokrinologia	1.410	2.077	1.873	1.578	47,3	–9,8	–15,75	11,91
Neurologia	3.230	4.229	4.018	3.429	30,9	–5,0	–14,66	6,16
Errehabilitazioa	3.052	3.344	3.164	3.022	9,6	–5,4	–4,49	–0,98
Kirurgia orokorra	4.249	4.712	4.258	3.076	10,9	–9,6	–27,76	–27,61
Oftalmologia	18.106	18.987	22.120	18.135	4,9	16,5	–18,02	0,16
ORL	3.535	4.085	4.630	4.103	15,6	13,3	–11,38	16,07
Traumatologia	11.425	14.695	15.671	11.737	28,6	6,6	–25,10	2,73
Urologia	3.142	3.731	3.456	2.642	18,7	–7,4	–23,55	–15,91
Ginekologia	4.967	7.869	6.583	5.673	58,4	–16,3	–13,82	14,21
Beste batzuk	9.003	10.324	12.018	9.711	14,7	16,4	–19,20	7,86
GUZTIRA	81.307	96.134	102.069	83.027	18,2	6,2	–18,66	2,12

Iturria: Osakidetza: Ospitale Akutuak + Egonaldi Ertaineko eta Luzeko Ospitaleak.

IV.2.25. Koadroa. Kirurgiako itxaronzerrenden bilakaera

	2003	2004	2005	2006
Gaixo kopurua	13.759	15.906	15.706	15.944
B. best. berand. egunak	53,8	56,8	55,17	51,9
Gaixo kop. > 3 hilabete	2.121	2.914	2.878	2.470
Gaixoen % > 3 hilabete	15,4	18,32	18,25	15,5

Iturria: Osakidetza. Ospitale Akutuak.

IV.2.26. KOADROA. BERANDUTZE ALDIAK ITXARONZERRENDETAN PROZEDURA KIRURGIKOAREN ARABERA

	Gaixo kopurua						Batez besteko berandutzea (egunak)					
	2003	2004	2005	2006	Alda.% 05-06	Alda.% 03-06	2003	2004	2005	2006	Ald. 04-05	Ald. 03-06
Begi-lausoak	2.445	2.840	3.059	3193	4,4	30,6	48,4	50,1	47,3	44,09	–2,8	–4,31
Herniak	1.188	1.294	1.218	1385	13,7	16,6	51,8	57,9	55,1	49,51	–2,8	–2,29
Artroskopiak	773	864	934	755	–19,2	–2,3	57,4	56,8	58,1	46	1,3	–11,4
Barizeak	778	908	671	838	24,9	7,7	57,5	62	54,9	53,85	–7,1	–3,65
Aldakako protesiak	427	518	549	403	–26,6	–5,6	62,5	68,1	72	59,92	3,9	–2,58
Hallux valgus	363	435	402	375	–6,7	3,3	59,5	57,6	61	52,22	3,4	–7,28
Belauneko protesiak	535	613	696	571	–18,0	6,7	63,2	66	71,5	55,15	5,5	–8,05
Fistula-fisura/kiste pilonidala	317	359	315	377	19,7	18,9	51,1	52,7	59,4	50,21	6,7	–0,89
Adeno-amigdalektomiak	352	388	340	457	34,4	29,8	49,7	52,5	53,7	47,96	1,2	–1,74
Kolezistekomia laparosk.	267	259	408	405	–0,7	51,7	49,3	46,1	53,4	44,96	7,3	–4,34
Karpo-tunela	298	374	373	342	–8,3	14,8	61,5	61,5	52,2	43,29	–9,3	–18,21
Artrodesis/artroplastia	324	398	396	324	–18,2	0,0	68,6	65,3	71,9	69,64	6,6	1,04
MEO	184	208	213	160	–24,9	–13,0	61,8	59,7	62,3	59,46	2,6	–2,34
Histeroktomiak	294	342	295	287	–2,7	–2,4	57,6	59,9	58	52,89	–1,9	–4,71
Septorrinoplastiak	238	228	256	275	7,4	15,5	53,2	52,1	61,4	61,78	9,3	8,58
Beste batzuk	4976	5878	5.581	5797	3,9	16,5						
GUZTIRA	13.759	15.906	15.706	15.944	1,5	15,9	53,8	56,8	55,17	51,9	–1,63	–1,9

Iturria: Osakidetza. Ospitale Akutuak.

lezistekomia laparoskopikoan (%51,7), adeno-amigdalektomian (%29,8) eta fistula-fisura/kiste pilonidalean (%18,9) egon dira.

2.2.1.4. Osasun laguntza pribatua: medikuntza-farmazia laguntzako aseguru askeko erakundeak

Eustatek argitaraturiko datuen arabera, Aseguru Askeko Erakunde (AAE) kopurua unitate batean murriztu da 2004 eta 2005 bitartean. Horrela, 14 erakunde daude, eta azken horiek lurralde ezberdinetan jardun dezakete. Aipaturikoetatik, 4 igualatorioak dira, 7 aseguru konpainiak eta 3 BGAE eta mutuak.

Aseguru-zorroari dagokionez, poliza kopurua %2,9 hazi da 2004 eta 2005 artean, eta 167.373koa izatera igaro da. Aseguru pribatua kontratatuta duten biztanle kopurua 319.788koa da, 2004an baino %2,8 gehiago. Zifra hori azken zazpi urteotako altuena da.

Horrenbestez, EAEko biztanleen %15,1ek osasun aseguru pribatua du kontrataturik. Lurralde hiztorikoen arabera, urte honetan ere Bizkaian dago aseguraturiko biztanle kopururik handiena (biztanleria osoaren %20,2) eta Bizkaiaren atzetik daude Araba (%12,3) eta Gipuzkoa (%8).

Aseguratu gehienak biltzen dituen poliza modalitatea banakakakoa edo familiakoa da (%48,2). Atzetik ditu taldeko aseguruak (enpresak edota beste talde zehatz batzuk), %34,6rekin, eta mutualitate publikoak (%17,2). Dena dela, hazkundea taldeko aseguruek eragiten dute, azken horiek asko hazi baitira 1999 eta 2005 artean (%54,6 aseguratu gehiago). 2004ko datuei dagokienez, aseguratu kopuruak taldeko aseguruetan izan du hazkunderik handiena, %9,4ko hazkundearekin. Berau Estatukoaren (%9,9) antzekoa izan da. Mutualitate publikoek aseguraturiko kolektiboa ere hazi egin da, baina oso gutxi (%0,3). Banakako edo familiako asegurua duen pertsona kopurua, berriz, murriztu egin da (–%0,7).

Aseguratuen gehiengoak (%98) nahiago du laguntza mediko kirurgikoko estaldura (oinarrizko laguntza, anbulatoriokoa eta ospitaleratzea) duen poliza bat eta %2k soilik kontratatzen ditu laguntza espezifikoko beste batzuk (adib. dentistarako asegurua).

2005ean bildutako prima guztiak 169,7 milioi eurokoak izan ziren; zifra horrek Estatuaren %4,4 adierazten du eta urte horretako EAEko BPGren %0,3. Primen bolumena %7,1 hazi zen aurreko urteari dagokionez, Estatuak izan zuen hazkundearen azpitik (%9,5).

EAEko urteko batez besteko prima 531 eurokoa izan zen aseguratu bakoitzeko, eta %4,1eko hazkundea izan zuen 2004ri dagokionez. Zifra hori Estatuarena (540 euro) baino handiagoa da, eta bertan hazkundea %6,1ekoa izan zen. EAEko primarik baxuena taldeko aseguruena izan zen (509€) eta altuena banakakoa edo familiakoa (544€).

Osasun laguntzako aseguru medikoa zuten pertsonek 1.235.331 anbulatorioko kontsulta egin zituzten AAEen

IV.2.27. Koadroa. Medikuntza-farmazia laguntzako aseguru askeko erakundeen bilakaera EAEn

	2001	2002	2003	2004	2005	Ald. 04-05
Erakundeak guztira*	15	15	15	15	14	–6,7
Igualatorioak	4	4	4	4	4	0,0
Aseguru konpainiak	8	8	8	8	7	–12,5
B.G.A.E. eta mutuak	3	3	3	3	3	0,0
Aseguru-zorroa						
Poliza kopurua	151.849	158.158	156.418	162.627	167.373	2,9
Aseguratu kopurua	299.050	310.796	305.356	311.148	319.788	2,8
% aseguraturiko biztanleria	14,4	14,7	14,4	15	15	3,4
Prima bolumena (euroak milatan)	129.520	137.086	147.946	158.519	169.744	7,1
Aseguratu bak. primak (euroak)	433	441	484	509	531	4,3
Biztanle bakoitz. primak (euroak)	62	65,0	70,0	74	80	8,1
Primak / BPG (%)	0,3	0,3	0,3	0	0	–3,3
Langileak						
Guztira	7.842	8.019	7.902	8.106	7.816	–3,6
Pertsonal sanitarioa	7.722	7.858	7.737	7.938	7.653	–3,6
Fakultatiboak	6.423	6.542	6.445	1.567	1.483	–5,4
O.L.T. / E.U.D.	462	471	451	466	429	–7,9
Laguntza jarduera						
Anbulatorioko kontsulta kopurua	1.128.243	1.164.635	1.145.101	1.197.201	1.235.331	3,2
Ospitaleratzeak	37.281	40.186	43.188	46.922	49.236	4,9
Ebakuntza kirurgikoak	27.893	29.066	30.244	32.185	33.117	2,9
Jarduera ekonomikoa						
Gastuak guztira (euroak milatan)	134.515	138.311	147.950	160.779	168.694	4,9
Sarrerak guztira (euroak milatan)	136.601	144.806	156.578	168.129	179.722	6,9

*** Guztizko kopurua erakunde ezberdinei buruzkoa da, baina azken horiek lurralde batean baino gehiago jardun dezakete.**
Iturria: Eustat. Datu-basea.

kontura (aurreko urtean baino %3,2 gehiago), eta zifra horrek aseguratu bakoitzeko 3,9 kontsulta islatzen ditu. Datu hori aurreko urtekoaren (3,8) antzekoa da eta, Eustaten arabera, sare publikoko (ospitaleak) batez besteko kontsulta kopuruaren (7,2) erdia, gutxi gorabehera. Bestetik, traumatologia, tokoginekologia, pediatria eta oftalmologia izan ziren kontsultarik gehienak izan zituzten espezialitateak.

IV.2.5. Grafikoa. Aseguratu kopuruaren eta aseguratu bakoitzeko primen bilakaera poliza motaren arabera



Iturria: Eustat, Medikuntza-Farmazia Laguntzako Aseguru Askeko Erakundeen Estatistika.

2005ean ospitaleko laguntza ere hazi egin zen. Horrela, aseguru medikoa zuten pertsonetatik 49.236 ospitaleratuak izan ziren, aurreko urtean baino %4,9 gehiago. Beren batez besteko egonaldia 3,1 egunekoa izan zen. Azken horien artetik, %67,3ri ebakuntza kirurgikoa egin zitzaien, eta ebakuntza kopurua 33.117koa izan zen (aurreko urtean baino %2,9 gehiago). Ohikoenak kirurgia orokorrarekin, traumatologiarekin, oftalmologiarekin eta ginekologiarekin lotutako ebakuntzak izan ziren.

2.2.2. Osasun sistemaren gastua eta finantziazioa

2.2.1.5. Ospitaleko jarduera publikoaren eta pribatuaren gastua

Eustaten Ospitaleko Estatistikako datuen arabera, EAEko ospitaleko osasun gastua (zentro publikoak eta pribatuak kontuan hartuta) 1.513,5 milioi eurokoa izan zen 2005ean (1.402 milioi eurokoa aurreko urtean) eta hori EAEAko BPGren %2,6 da. Bestetik, 2004rekin alderatuta %7,9ko hazkundea egon da, euskal ekonomiaren hazkundearen gainetik, urte horretako BPG arruntari (%7,3) dagokionez.

Gastu horretatik, 1.459 milioi gastu korronteekin lotutakoak izan ziren eta 54 milioi, berriz, inbertsioari lotutakoak. Biztanle bakoitzeko gastua 715 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %8,6 gehiago.

Titulartasuna aintzat hartuta, hau da, sare publikoa eta pribatua bereizita, ikusten da gastuaren %84,5 gastu publikoa dela; proportzio hori OMEren Europako Eskualdekoa (%74,2koa 2004an, OMEren datuen arabera) baino handiagoa da, eta Japoniakoaren (%81,3), Danimarkakoaren (%82,3), Islandiakoaren (%83,4), Norvegiakoaren (%83,5) eta Suediakoaren (%84,9) antzekoa. Aitzitik, Erresuma Batuaren (%86,3), Luxenburgoren (%90,4) etab.-en azpitik dago.

2004 eta 2005 bitartean, gastu publikoa eta pribatua hazi egin dira. Hala ere, bigarrena (+%8,5) lehenengoa (%7,8) baino gehiago. Inbertsioak, ostera, sare publikoan hazi dira, baina pribatuan murriztu egin dira.

2.2.1.6. Ospitalez kanpoko jarduera publikoaren gastua

2005ean, EAEko osasun publikoak 382.888 mila euro bideratu zituen ospitalez kanpoko osasun laguntzara eta horrela, %8ko hazkundea egon zen aurreko urteari zegokionez. Zifra hori urte berean EAEko ekonomiak izan zuen %7,3ren gainetik dago (BPGri dagokionez).

Gastu horretatik, 375 milioi euro gastu korronteekin lotutakoak izan ziren eta 8,2 milioi, berriz, inbertsioarekin lotutakoak. Kopuru hori %15,9 murriztu da aurreko urteari dagokionez. Langileriako gastua gastu osoaren %82,8 da, eta zifra hori 2004koa baino 5 hamarren handiagoa da.

Ospitalez kanpoko laguntza jarduera EAEko BPGren %0,67 izan zen (aurreko urtean baino ehunen bat gehiago) eta biztanle bakoitzeko batez besteko 181 euroko gastua, aurreko urtean baino %8,4 gehiago.

2005ean ere, ospitalez kanpoko laguntza jarduera pubikoaren finantziazio iturri nagusia Osasun Saila izan zen. Izan ere, sektoreko gastuaren %90,2 finantzatu zuen, eta

IV.2.28. KOADROA. GASTUAREN BILAKAERA EAEKO OSPITALE-SEKTOREAN

	2002	2003	2004	2005
JARDUERA EKONOMIKOA (euroak milatan)				
Gastu osoa (korrontea+inberts.)	1.227.250	1.318.117	1.402.897	1.513.564
Gastu korronteak	1.178.018	1.257.624	1.350.474	1.459.257
Langileriako gastuak	763.431	807.164	850.760	922.664
Beste gastu korronte batzuk	414.586	450.460	499.714	536.593
Inbertsioa	49.232	60.493	52.423	54.307
Inbertsio osoa	1.161.050	1.229.149	1.331.643	1.440.098
Diru-sarrera korronteak	1.130.550	1.200.097	1.300.697	1.406.996
Salmentak	1.122.503	1.191.669	1.290.505	1.395.618
Diru-laguntzak	8.045	8.428	10.192	11.378
Kapital sarrerak	30.500	29.052	30.946	33.102
ADIERAZLE EKONOMIKOAK				
Gastua/biztanleko (euroak)	560	596	641	716
Gastua/BPG	2,7	2,7	2,8	2,6

Iturria: Eustat eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Ospitaleko Estatistika.

IV.2.29. Koadroa. Gastuaren bilakaera EAEko ospitale-sektorean (euroak milatan)

	2002			2003			2004			2005		
	Guztira	Publikoa	Pribat.	Guztira	Publikoa	Pribat.	Guztira	Publikoa	Pribat.	Guztira	Publikoa	Pribat.
Gastu osoa (korr.+inberts.)	1.227.250	1.042.179	185.071	1.318.117	1.119.170	198.947	1.402.897	1.186.188	216.710	1.513.564	1.278.414	235.151
Erosketak guzt. eta gastu korront	1.178.018	1.000.969	177.048	1.257.624	1.073.054	184.570	1.350.474	1.151.173	199.302	1.459.257	1.239.930	219.327
Langileriako gastuak	763.431	677.493	85.939	807.164	720.432	86.732	850.760	757.265	93.495	922.664	817.558	105.107
Inbertsioak guztira	49.232	41.210	8.023	60.493	46.116	14.377	52.423	35.015	17.408	54.307	38.484	15.824
Salmentak guzt. eta sarrera korr.	1.130.550	953.385	177.165	1.200.097	1.014.446	185.651	1.300.697	1.098.905	201.792	1.406.996	1.180.752	226.244

Iturria: Eustat "Ospitaleko Estatistika".

IV.2.30. Koadroa. Ospitalez kanpoko sektore publikoaren gastua EAEn (euroak milatan)

	2002	2003	2004	2005	% ald. 2004/05
JARDUERA EKONOMIKOA					
Gastuak guztira (€ milatan)	323.169	335.144	354.638	382.888	8,0
Gastu korronteak	307.114	327.817	344.817	374.624	8,6
Langileriako gastuak	262.432	279.323	291.752	317.130	8,7
Beste gastu korronte batzuk	44.682	48.494	53.065	57.494	8,3
Kapital gastuak	16.055	7.327	9.821	8.264	–15,9
ADIERAZLE EKONOMIKOAK					
Langileriako gastuak/ Gastu osoa (%)	81,2	83,3	82,3	82,8	—
Gastua/Biztanleko (€)	153	158	167	181	8,4
Gastua/BPG	0,69	0,68	0,66	0,67	—

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Ospitalez Kanpoko Estatistika Publikoa.

atzetik izan zituen lan-istripuetako mutuak (%9) eta beste batzuk (%0,8).

2.2.1.7. Osakidetzaren gastua ospitaleko eta ospitalez kanpoko jardueran

Osakidetzaren aurrekontuaren likidazioak, EAEko Kontu Orokorretan oinarrituz landutakoak, agerian jartzen du Osakidetzak 2005ean likidaturiko aurrekontu osotik %4,7 Inbertsioetarako izan dela eta %95,3 Ustiapen Gastuetarako; bertan, langileriarako gastuak nabarmentzen dira, erakunde horren gastu osoaren %65,6rekin.

Aurrekontuan jasotako zenbatekoak benetan betearazitakoari dagokionez izan duen desbideratzea 2004koa baino askoz eskasagoa izan da (15.186 eurokoa, aurreko urteko 117.011 mila euroren aldean). Berau inbertsio gastuen (desbideratzea aurrekontuko zenbatekoa baino %21,6 handiagoa da) ondoriozkoa izan da. Ustiapen gastuan ikus daitekeenez, hornidurako desbideratze negati-

IV.2.31. Koadroa. Aurrekontuak eta gastuen likidazioa osakidetzan (euroak milatan)

	2003			2004			2005			Aurrek. 2006
	Aurrekont.	Likidazioa	Aldea	Aurrekont.	Likidazioa	Aldea	Aurrekont.	Likidazioa	Aldea	
INBERTSIOA	62.425	67.239	–4.814	63.109	69.143	–6.034	69.349	84.316	–14.967	74.329
USTIAPEN GASTUA	1.406.181	1.412.303	–6.119	1.507.048	1.561.549	–54.501	1.694.864	1.695.083	–219	1.718.774
Lagileria	1.022.096	1.019.821	2.275	1.059.783	1.081.374	–21.591	1.170.146	1.169.946	200	1.196.485
Hornidura	310.360	316.609	–6.246	315.871	349.244	–33.373	367.015	380.043	–13.028	379.598
Beste batzuk	73.725	75.873	–2.148	131.394	130.931	463	157.703	145.094	12.609	142.691
GUZTIRA	1.468.606	1.479.539	–10.933	1.513.681	1.630.692	–117.011	1.764.213	1.779.399	–15.186	1.793.103

Iturria: Geuk egindakoa, EAEko 2006ko Aurrekontu Orokorren datuetan eta Eusko Jaurlaritzaren EAEko Kontu Orokorrean (2003, 2004 eta 2005) oinarrituta.

boa langileriako eta beste gastu batzuetako desbideratze positiboekin orekatzen da.

2006ko aurrekontuaren datuek %0,8ko hazkundea adierazten dute 2005eko gastuari dagokionez. Hazkunde hori ustiapen gastuak hazi izanaren eraginezkoa izan da, eta, zehatz-mehatz esanda, langileriako gastuak %2,3 hazi izanaren eraginezkoa. Izan ere, inbertsioetarako aurrekontua %11,8 murriztu da 2005eko likidazioari dagokionez. Aurrekontua planifikatzeko joera bera egon zen aurreko aldian ere.

Hirigintza eta etxebizitza

EAEn, 2006an, higiezinen merkatuak izan duen eboluzioari buruz esan, etxebizitzen eskaintzak %16,4 egin duela gora, orokorrean (+%3,7 2004-2005ean). Etxebizitza motaren arabera desberdin egin dute gora, etxebizitza berriek +%11,1, erabiliek +%6,3, alokatzeko etxebizitza libreek +%10,9, salgai dauden etxebizitza babestuek +%29,2 eta alokatzeko dauden etxebizitza babestuak (ekitaldiko daturik deigarriena da hau) %53,2 hazi dira. Horren aurrean, etxebizitza eskaria edo beharra[1] %7,2 murriztu da, eta aurreko ekitaldian, berriz, ia %20 handitu zen.

Bestalde, etxebizitzetarako hipoteka kopurua %3,6 hazi da, eta hipoteken zenbatekoak %13,2 egin du gora. 2006an 42.797 hipoteka egin dira, guztira, 6.607 milioi euro hartu dira hipotekatan. Batez besteko hipoteka-kopuruek gora egin dute hiru lurraldeetan, eta batez beste 154.380 euro eskatu da hipotekan, 2005ean baino %9,3 gehiago. Horretaz gain, hipoteka-merkatuaren interes-tasek gora egin dute: urtebeterako Euriborra urtarrilean 2,83 izatetik abenduan 3,92 izatera igaro da (+1,09 puntu), CECA erreferentzia-tasak, berriz, 0,38 puntu egin du gora eta etxebizitza librerako hiru urterako hipoteka-tasen batez besteko tasak 0,89 puntu[2].

3.1. Lurzorua eta eraikuntza-kostuak

3.1.1. Lurzorua EAEn

Honako hau da etxebizitzak etxebizitzen merkatura iristeko prozesua: lehenik eta behin lurzorua erosi behar da, gero lurzoru hori hiritartu, sustatu, eraiki eta azkenik, saldu edo esleitu. Normalean, prozesu honen amaierako zatiari buruzko informazioa izaten dugu, badakigu zenbat etxebizitza eskaini diren, bai eta zer nolako ezaugarriak dituzten eta salmenta-prezioa zein den, baina aurreko faseei buruz ez da hainbeste informazio izaten, eta iturria kontuan hartuta kontraesanak ere izaten dira.

Etxebizitza Ministerioaren Prezio-estatistikak emandako datuen arabera, EAEn 2006ko azken hiruhilekoan egindako hiri-lurzoruen transakzioek 331,5 €/m^2 prezioa izan zuten batez beste, aurreko urtean izandako batez bestekoa baino %8,5 gutxiago. Estatu mailan

[1] Grafikoan irudikaturik dagoen eskariak aldatzeko edo urte beteko epean eskuratzeko behar diren etxebizitza kopurua islatzen du, eskaintza, berriz, higiezinen agenteek eta sustatzaileek adierazitakoa da. Prezioari dagokionean, salgai dagoen etxebizitzak (berriak eta erabiliak) dituen m^2 erabilgarriak eurotan duen prezioa da.

[2] Orain arte kapitulu hau bukatzeko izaten zen "Egindako hipotekak eta interes-tasa hipotekarioaren eboluzioa"ri buruzko zatia ezabatu egin dugu edukia arintzeko eta "II.2.1. Egitura produktiboa" zatiari ez gainjartzeko. Finantza-aldagai hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, irakurleak Memoria Sozioekonomiko honen "II.2.1. Egitura produktiboa eta Berrikuntza EAEn" kapitulura jo dezake.

3

IV.3.1. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA-MERKATUAREN EBOLUZIOA EAEN



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta INEren datuetatik egindakoa.
(*) 2002 eta 2003 urteen artean egindako hipoteka kopuruaren gorakada arretaz hartu behar da, estatistika eragiketan metodologia aldaketa izan delako.

izandako transakzioak, berriz, 284,6 €/m^2 izan ziren batez beste, 2005eko azken hiruhilekoan erregistratutako transakzioek izan zuten batez besteko prezioa baino %6,5 gehiago.

Modu horretan, Madrilgo Erkidegoak du batez besteko preziorik handiena (495,7 €/m^2, nahiz eta 2005eko laugarren hiruhilekoan zuen prezioaren aldean %15,3 jaitsi den). Bigarren lekuan Valentziako Erkidegoa dugu 423,8 €/m^2. EAE, berriz, 2005ean prezio garestiena zutenen rankingean hirugarren lekuan zegoen, Madril eta Valentziako Erkidegoaren atzetik; oraingo honetan, Estatuko batez bestekoaren gainetik badago ere, gertuago dago horretatik eta Kanariar Uharteek eta Kataluniak duten batez besteko prezioa baino txikiagoa du.

IV.3.1. KOADROA. HIRI-LURREN PREZIOAREN EBOLUZIOA AUTONOMIA ERKIDEGOKO (€/m²) LAUGARREN HIRUHILEKOAK

	2004	2005	2006	% ald. 05/06
Andaluzia	193,4	229,0	252,3	10,2
Aragoi	208,5	223,0	243,8	9,3
Asturias	265,7	233,0	269,9	15,8
Balear Uharteak	255,0	278,7	322,4	15,7
Kanariak	285,8	315,9	370,5	17,3
Kantabria	124,5	163,8	201,6	23,1
Gaztela eta Leon	121,7	132,9	144,0	8,3
Gaztela-Mantxa	118,7	146,6	184,6	25,9
Katalunia	257,8	290,3	348,6	20,1
Valentzia	289,2	374,1	423,8	13,3
Extremadura	137,6	146,7	140,1	–4,5
Galizia	237,2	228,4	214,3	–6,2
Madril	517,5	585,0	495,7	–15,3
Murtzia	273,5	284,3	325,7	14,6
Nafarroa	152,3	169,6	161,6	–4,7
EAE	**343,6**	**362,3**	**331,5**	**–8,5**
Araba	420,2	440,7	487,8	10,7
Gipuzkoa	382,6	408,2	236,0	–42,2
Bizkaia	324,1	317,4	290,3	–8,6
Errioxa	280,1	271,1	266,2	–1,8
Ceuta eta Melilla	566,3	597,7	664,4	11,2
Estatua batez beste	**247,3**	**267,3**	**284,6**	**6,5**

Iturria: Etxebizitza Ministerioa. Lurzoruaren prezioen Estatistika.

Lurralde historikoka EAEn izandako eboluzioari arreta jarrita, Araban prezioek izandako igoera handia aipatu behar da: +%10,7ko eboluzioarekin, 2006ko amaieran 487,8 €/m²ko prezioa lortu zuen lurzoruak, ia Madrilgo Erkidegoak duen maila bera. Bizkaiak eta Gipuzkoak, berriz, murriztu egin dute batez besteko prezioa: lehenengoak Estatuko batez bestekora arte (gure erkidegoak duena baino baxuagoa), eta bigarrenak, berriz, beherakada nabarmena izan du, %42,2 murriztu baita, eta 236€/m²ko prezioan kokatu da, batez bestekoa baino askoz beheragotik, eta Aragoik edo Galiziak dituzten mailetatik gertu.

Bestalde, hiritartzeko jarduerak —dagoen eskaria kontuan hartuta beharrezkoa da— kalte egiten dio ingurumenari, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak iraunkortasunari buruz egindako ikerketek diotenaren arabera. Ingurune-adierazleen sistemaren barnean, *"lurzorua artifizial bihurtzeko intentsitatea"* deitutako adierazleak, eskura ditugun azken datuen arabera, erakusten digu EAEn 1994tik 2005era artifizial bihurtu den azalera, guztira, azalera guztiaren %5,26 izatetik %6,5 izatera igaro dela, hau da, 223 m²/biztanleko. Epe horretan, azalera hori %25 hazi da, hau da, 9.440 Ha[3].

3.1.2. Eraikuntza-kostuen estatistika

Eustaten *"Eraikuntza-kostuen indizea"*[4] egoeraren araberako adierazlea da, eta kostu horien eboluzioa neurtzen du lehengai-kostuen indize bati edo eraikuntza sektoreko bitarteko kontsumoei (lehengai eta material kostuak gehi energia kostua gehi gastu anitzak; ibilbide hori sektoreko lehengai nagusienek duten prezioari jarraiki balioesten da) eta langile-kostuei (soldatak eta soldata gordinak gehi kotizazio sozialak, sektoreko lan-hitzarmen kolektiboak kontuan hartuta balioetsita) jarraiki. Argi dago adierazle horrek ez digula uzten ekoizpenaren amaierako prezioan eragina duten kostu guztiak neurtzen, ezen, enpresa-etekinez gain kapitalarekin zerikusia duten faktoreak ere falta baitira.

2005-2006 aldian eraikuntza-kostuek gora egin dute %6,2, orotara; eskulanaren prezioa %5,3 hazi da eta lehengaiak, berriz, %6,6 igo dira. Eraikuntza eta obra zibila azpi sektoreetan, bietan egin dute gora kostuek, nahiz eta maila desberdinean: eraikuntzako lehengaien kostuek

IV.3.2 KOADROA. EAE-KO ERAIKUNTZA SEKTOREAREN KOSTUEN INDIZEA. URTEROKO GEHIKUNTZA (%)

	Kostuak guztira		Lehengaiak		Lan eskua*
	Guztira*	Eraikuntza	Guztira*	Eraikuntza	
2000	3,5	3,3	3,8	3,5	3,0
2001	3,4	3,7	2,2	2,5	5,5
2002	2,2	2,2	1,0	1,0	4,0
2003	1,4	2,3	0,1	–0,1	5,8
2004	7,2	7,3	8,7	8,9	3,8
2005	3,5	3,5	3,1	3,0	4,6
2006 (p)	6,2	6,4	6,6	6,9	5,3

(*) Eraikuntza eta Obra Zibilaren urteko aldakuntzaren %.
Iturria: EUSTAT. "Eraikuntza Kostuen Indizea".

[3] "2006ko Ingurune-adierazleek" ez dute uzten 2005eko Memoria Sozioekonomikoan sartu zen gai horri buruzko informazioa eguneratzen. Horri buruzko informazioa nahi izanez gero, irakurleak memoria horretara jo dezake.

[4] Indize horrek eraikuntzako bi obra moten arteko desberdintasuna egiten du: alde batetik, eraikuntza (eraikuntza iraunkor, banandu eta independiente guztiak sartzen dira hemen, familia-etxebizitza edo etxebizitza kolektibo gisa erabiltzeko egindakoak izaten dira, edo nekazaritza, industria, zerbitzu-emate edo edozein jarduera egiteko egindakoak, hala nola, eskolak, siloak eta abar); eta, bestetik, obra zibila (azpiegitura obra guztiak, eraikuntzakoak ez direnak, eta kolektiboki edota publikoki erabiltzeko egindakoak).

IV.3.2. GRAFIKOA. ERAIKUNTZA KOSTUEN URTETIK URTERAKO ALDAKETA-TASA, EAEN (%)



Iturria: Eustat. ICCE

IV.3.3. KOADROA. ERAIKUNTZA SEKTOREAREN EREMU NAGUSIENAK (MILA €)

	2005	% 04/05
Langileak	93.176	2,9
BEG fakt. kostuko.	4.566.481	9,1
Ustiapen soberakin gordina	1.694.332	11,0
Egindako inbertsioak	437.565	0,6
Amortizazioak	200.116	–2,8
Negozioen zifra	14.183.643	12,5
Beste sarrera batzuk	1.563.781	–6,4
Ustiapen kontsumoa	9.411.217	13,1
Kanpo zerbitzuak	1.411.170	6,6
Langile kostuak	2.872.149	8,1
Beste gastu batzuk	327.459	–2,0
Zerga aurreko emaitzak	1.329.323	13,2
Cash-Flow	1.529.439	10,6

Iturria: Eustat. Industria eta eraikuntzaren estatistika.

%6,9 egin dute gora, obra zibilekoek, berriz, %5,4. 2006an, sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioetan inflaziotasarik handiena honako hauek izan dute: energia elektrikoak (%24,8), burdinak eta altzairuak (%22), tutu metalikoek (%17,3) eta beirak (%12,8). Horren alderantzizkoa, honako lehengai hauek murriztu dituzte urteko prezioak: petrolio eratorriek (–%4,8), asfalto-produktuek (–%2,7) eta zeramika-produktuek (–%0,1).

Bestalde, Eustatek 2005eko *"Industria eta Eraikuntza Estatistikan"* jaso dituen azken datuek adierazten digute eraikuntza sektoreak %9,1eko hazkunde nominala izan zuela urte horretan (2004an %10,3 igo zen). Eraikuntzako langile kopurua %2,9 hazi zen, eta 93.176 langile izatera iritsi zen sektorea, hau da aurreko urtean baino 2.400 langile gehiago. Sortutako Balio Erantsi Gordina 4.566 milioi euro izan zen, 2004an baino %9,1 gehiago. Ustiapen soberakin gordinak %11 egin zuen gora eta langile-kostuek %8. Bestalde, inbertsioak 438 milioi euro izan dira eta %0,6 egin dute gora, negozioen zifrak, berriz, urteko %12,5. Laburtuz, eraikuntza sektoreak hazten jarraitu du bai sortutako balio erantsiari dagokionean (%9,1) bai langileei dagokienean ((%2,9), baina hazkunde erritmoek 2005ean aurreko urteetan baino profil neurritsuagoa izan dute.

3.2. Etxebizitza eskaintza EAE-n[5]

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak[6] "EAEn etxebizitzen, garajeen eta lokalen eskaintzari buruzko inkestan" jaso diren datuek erakusten digute etxebizitzen eskaintzak, guztira, %11,8 egin duela

[5] Memoria honen aurreko argitalpenen 3.2 (eskaintzak) eta 3.3. (prezioak) atalak bakar batean bildu ditugu bi aldagaiak batera azter daitezen, Etxebizitza Sailak bere argitalpenean egiten duen bezala. Lehenik salgai dauden etxebizitzei buruzko datuak aurkeztu ditugu, eta ondoren, alokairuan daudenenak. Atala bukatzeko azken urtean EAEn izan den eraikuntza jarduerari buruzko idazpurua sartu dugu.

[6] Inkesta etxe sustatzaileei eta etxebizitza eskaintza duten (bost etxebizitza baino gehiagoko sustapenak) higiezinen jabetzako agenteei egin zaie; guztira, 125 bat agenteri. Beraz, litekeena da eskaintza guztia ez jasotzea. Inkestan honen emaitzen garrantzia, datu absolutuetan baino gehiago, aldaketa-datuetan dago.

gora azken urtean (salmentan daudenak eta akuran eman direnak), eta laugarren hiruhilekoan 18.000ko kopurua gainditu du. Aurreko urtean, etxebizitzen eskaintzak %7,9 egin zuen gora. Lagin hori da prezioen estatistikaren oinarri, eta horri jarraiki esan behar da eskaini diren etxebizitzen %41 bigarren eskuko etxebizitzak izan direla (gehienak, gainera, salmentan atera dira –%92—), %22 eraikuntza berriko etxebizitza libreak eta %37 babes ofizialeko etxebizitzak. Datu horiei jarraiki, eskaintzak hazteko joera duela esan behar da, 2004ean hasi zen joera hori, izan ere, 2002-2003 biurtekoan merkaturatutako etxebizitza kopuruak behera egin zuen.

2006rako azpimarratu beharrekoa, etxebizitza babestuen eskaintzaren pisu erlatiboak izan duen hazkundea da, izan ere, eskaini diren 6.620 etxebizitzak, eskaintza guztiaren %36,7 egiten dute, 2005ean baino 6 puntu gehiago. Hori salmentara ateratako Babes Ofizialeko Etxebizitza eskaintza handiagoa izan delako gertatu da (etxebizitza sozialak merkatutik desagertu egin dira urte honetan), bai eta akuran emateko etxebizitza babestu gehiago izan delako ere (mota horretako eskaintzak %53 egin du gora, eta akuran emandako etxebizitza eskaintzaren %73 izan da). Alokairu pribatuak 53 unitate gehiago baino ez dira izan (+%10,9) 2005ekoaren aldean.

Bestalde, 2006ko laugarren hiruhilekoan eskainitako etxebizitza librearen prezioak gora egin du %6,8, 2005ean izandako batez bestekoaren aldean; beraz, aurreko urtean prezioek izandako hazkundea ((+%15,9) baino neurritsuagoa izan da. Eraikuntza berriko etxebizitzen merkatuari dagokionean, prezioek %8,2 egin dute gora urtean, eta bigarren eskuko etxebizitzen arloari dagokionez, prezioak gutxiago igo dira, +%6. Salgai dauden etxebizitza babestuen batez besteko prezioak %3,2 egin du gora, eta babestutako alokairuen prezioa batez beste, 2005ean izandakoa baino txikiagoa da (–%5,4).

IV.3.3. GRAFIKOA. PREZIOEN ESTATISTIKAREN OINARRIA EGITEN DUTEN ETXEBIZITZA LAGINEN BANAKETA



Iturria: Etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta, EAEn. 2006ko 4. hiruhilekoa.

3.2.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak

Lehen lehenik aipatu, salgai dauden eraikuntza berriko etxebizitza libreen eskaintzak gora egin duela 2006ko laugarren hiruhilekoan. 8.977 etxebizitza eskaini dira, 2005ean baino %11,1 gehiago. Lurraldeka honela banatu da eskaintza: Bizkaian egin da eskaintzaren %41, Gipuzkoan %35 eta Araban gainerako %24. Orain urtebete izandako eskaintzarekin alderatzeko, esan behar da Araban eta Gipuzkoan eskaintzak gora egin duela, eta Bizkaian, berriz, behera.

IV.3.4. KOADROA. ETXEBIZITZA ESKAINTZAK EAE-N IZAN DUEN EBOLUZIOAREN LABURPENA

	Etxebizitza librea			Babes ofizialeko etxebizitza				
	Salgai		Akuran	Salgai			Akuran	Guztira
	Erabilia	Berria		B.O.E.	Soziala	Guztira		
2000	5.836	3.136	662	1.456	1.021	2.477	353	2.830
2001	8.532	2.819	409	2.166	793	2.959	421	3.380
2002	7.880	2.672	428	2.192	655	2.847	552	3.399
2003	6.301	3.188	533	2.914	626	3.540	469	4.009
2004	6.110	3.900	512	3.584	347	3.931	500	4.431
2005	6.524	4.159	521	3.849	70	3.919	1.015	4.934
2006 I hiruh.	6.523	4.125	555	4.263	58	4321	1.277	5.630
II hiruh.	6.596	4.026	581	4.650	40	4.695	1.342	6.115
III hiruh.	6.611	4.060	586	4.943	20	4.962	1.419	6.524
IV hiruh.	6.936	3.912	578	5.065	0	5.065	1.555	6.620

Iturria: EAEn etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2005eko 4. hiruhilekoa.
Oharra: Datuek hiruhileko bakoitzean izandako eskaintzen urteko batez bestekoa erakusten digute.

EAEko etxebizitza libre berri gehienek honako ezaugarri hauek dituzte: etxebizitza kolektiboak dira (%87), azalera erabilgarria 90-120 m^2 artean dute (%66k) eta akabera maila arruntekoak dira (%55ek). Etxebizitza txikiagoak askoz ere gutxiago dira, nahiz eta Gipuzkoan egon horrelako gehienak. Horrelako etxebizitzek duten batez besteko azalera 86 m^2 eskainitako etxebizitza guztiak kontuan hartuta; lurraldeka berriz, Araba eta Bizkaia 87 m^2 artean dabiltza eta Gipuzkoa 83 m^2 artean.

Eraikuntza berriko etxebizitza libreen batez besteko prezioak gora egin du 2006ko laugarren hiruhilekoan, eta 3.646 €/m^{2}ko ordaindu da, 2005eko batez bestekoa baino %8,2 gehiago. Dena dela, gorakada ez da berdina izan hiru lurraldeetan: Gipuzkoan gorakada neurritsuagoa izan da, %4, Bizkaian eta Araban, berriz, gehiago igo dira prezioak: %10,3 eta %11,8, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, prezio bateratasun handia dago, eta Bizkaiak du batez besteko handiena (3.646 €m^2), Arabak, ondoren, 3.637 €/m^2 eta, Gipuzkoak azkenik, 3.595 €/m^2. Etxebizitzek batez beste duten prezioari dagokionez esan, EAEn etxebizitza batek 312.000 € balio duela batez beste, eta Bizkaian etxebizitza batek 322.000 € balio badu, Gipuzkoan 298.000 € balio du. Araba bi horien artean dago, 317.000 € ordaindu behar da etxebizitzako.

Babestutako etxebizitzen merkatuari dagokionez esan behar da salgai jarritako etxebizitza sozialen eskaintza desagertu egin dela, eta etxebizitza horien ordez alokairuan jarritakoak eskaini direla. Babes Ofizialeko

IV.3.4. Grafikoa. EAEn, etxebizitza berri libreen banaketa prezio-tarteak kontuan hartuta



Iturria: Etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta, EAEn. 2006ko 4. hiruhilekoa.

IV.3.5 Koadroa. EAE-n salgai dauden etxebizitzen batez besteko prezioaren eboluzioa. €/m^2 erabilgarriko

	Etxebizitza librea				Babestutako etxebizitza *	
	Guztira libreak *	Erabiliak	Berriak	Etxebizitza tipoa	BO	Soziala
2000	2.168,2	2.339,4	1.839,1	1.561,1	901,8	550,0
2001	2.360,5	2.408,4	2.219,7	2.155,6	922,8	520,5
2002	2.530,6	2.594,5	2.345,6	2.242,8	1.007,8	521,3
2003	2.643,9	2.702,9	2.510,0	2.419,7	1.047,4	597,1
2004	2.942,8	2.966,6	2.905,2	2.785,7	1.129,0	670,3
2005	3.409,7	3.431,7	3.369,0	2.960,2	1.245,8	756,5
2006 I hiruh.	3.485,0	3.520,6	3.420,9	2.978,6	1.259,3	766,1
II hiruh.	3.547,5	3.579,6	3.487,4	3.052,4	1.267,8	778,8
III hiruh.	3.600,7	3.605,0	3.587,9	3.114,1	1.277,1	792,6
IV hiruh.	3.640,5	3.637,3	3.646,3	3.153,6	1.285,1	—

*** Etxebizitza libreen, berrien eta erabilien, batez besteko prezioa.**
Iturria: Etxebizitzen, garajeen eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta, EAEn. 2006ko 4. hiruhilekoa.

Etxebizitzen modalitateari dagokionez, esan Arabak duela eskaintzarik handiena (%51), Bizkaiak etxebizitzen %38 eta gainerako %11 Gipuzkoak. Guztira, 5.065 etxebizitza izan dira babes ofizialekoak. Prezioa batez beste 1.285€/m^2 (2005ean baino +%3,2), ez da alde handirik lurraldeka. Etxebizitzako prezioa, berriz, 101.000€ da batez beste. Araban 105.000€ etxebizitzako eta Gipuzkoan 91.000€ etxebizitzako. Bizkaian horrelako etxebizitza batek, batez beste, 97.000€ balio du.

Etxebizitza tipoaren azterketa eginda, batez besteko prezioa eraikuntza berriko etxebizitza libreek duten batez bestekoa baino %13,5 gutxiago da. Urteko eboluzioari buruz esan, hazkunde txikiagoa duela egindako etxebizitza eskaintza guztia kontuan harturik (+%6,5 %8,2ren aldean). Bestalde hiriburuetan dauden etxebizitza tipoen batez besteko prezioa 3.739 €/m^2 da, hiriburuetan dauden etxebizitza berrien eskaintza baino %14,5 gutxiago.

2006ko laugarren hiruhileko Higiezinen Eskaintzari buruzko Inkesta ikusita esan behar da bigarren eskuko 6.936 etxebizitza eskaini direla, aurreko urtean baino %6,3 gehiago. Etxebizitza horiek Prezioen Estatistikaren lagin dira, eta honela banatu dira lurraldeak kontuan hartuta: Bizkaian %53, Araban %31 eta Gipuzkoan gainerako %16. Banaketa hori urtebete lehenago izandakoaren antzekoa da, aipatu Araban eta Gipuzkoan izandako eskaintzak gora egin duela zertxobait eta Bizkaian, berriz, behera. Izandako eskaintza azalera erabilgarria kontuan hartuta aztertzen badugu, esan behar da etxebizitza hauek eraikuntza berriko etxebizitzak baino txikiagoak direla. Horrela bada, erabilitako etxebizitzen %45ek 76 m^2 baino gutxiago dute, etxebizitza berrien kasuan, berriz, ehuneko hori txikiagoa da, %22k baino ez baitute neurri hori. Batez besteko azalerari dagokionez, batez bestekoak gora egiten du 88 m^2 arte, EAE osoa kontuan hartuta.

EAEn salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzen prezioa, batez beste, 3.637 €/m^2 da, aurreko urtean izandako batez bestekoa baino %6 gehiago. Azken urtean, beraz, etxebizitza mota hauek eutsi egin die prezioei, izan ere, 2005ean urteko tasa %15,7 izan zen. Lurraldeka Arabak du batez besteko handiena (3.768 €/m^2), Gipuzkoak ondoren (3.618 €/m^2) eta Bizkaiak azkenik (3.571 €/m^2). Eboluzioari dagokionez, Bizkaian %7,5 hazi da urtean, eta Gipuzkoak EAEko batez bestekoaren antzekoa du (%6,2), Araban berriz hazkunde neurritsuagoa izan da %2,3 urtean. Etxebizitza bakoitzak duen batez besteko prezioari buruz esan, EAEn 321.000 € balio duela horrelako etxebizitza batek batez beste; Gipuzkoan 335.000€ etxebizitzak, eta 308.000€ Araban. Bizkaia tartean dago eta 324.000€ ordaindu behar da horrelako etxebizitza bat, batez beste.

Prezio-banaketari dagokionez, prezio-tarde handiak kontuan hartuta, zatirik garestienetara jotzeko joera dagoela antzeman daiteke. Horrela, aipatu behar da etxebizitzen %28 420.000€ baino gehiagoan eskaintzen dela (urte bat lehenago %20). Bestalde, 180.000 € baino prezio txikiagoa duten etxebizitzak oso gutxi dira (%3 baino ez). Lurraldeka egindako azterketak argi uzten digu etxe-

IV-3.6 KOADROA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIEN EZAUGARRIAK

		Babestuak (%)	Etxebizitza libreak (%)			
			EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
GUZTIRA		**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**
TIPOLOGIA *						
	Familiabakar./Bifamilia.	0,0	13,4	20,6	8,1	13,7
	Kolektiboak	100,0	86,6	79,4	91,9	86,3
AZALERA ERABILGARR.						
	< 60 m^2	7,0	7,3	6,0	11,0	4,9
	61-75 m^2	37,0	15,0	8,7	19,3	14,9
	76-90 m^2	56,0	38,0	33,2	43,9	35,8
	91-120 m^2	0,0	27,6	34,8	18,5	31,1
	>120 m^2	0,0	12,1	17,4	7,3	13,2
ERAIKITZE FASEA *						
	Bukatua	2,4	4,1	2,5	6,3	3,4
	Eraikitzen	51,2	77,8	60,6	78,6	86,8
	Proiektuan	46,4	18,1	36,9	15,1	9,8
AKABERAK						
	Luxuzkoak	0,0	9,3	1,8	2,6	19,1
	Maila altukoak	0,0	35,7	10,5	40,7	46,0
	Normalak	100,0	55,0	87,7	56,7	34,9

*** Higiezinen agentziek merkaturatu dituzten sustatzaileen etxebizitzei buruzko informaziorik ez da jaso.**
Iturria: Etxebizitzen, garajeen eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta, EAEn. 2006ko 4. hiruhilekoa.

IV.3.5. Grafikoa. Salgai dauden etxebizitzek m² erabilgarriko duten prezioaren eboluzio-indizeak. 1994=100



Fuente: Etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta, EAEn. 2006ko 4. hiruhilekoa.

IV.3.7. Koadroa. Babes ofizialeko etxebizitzen salmenta-prezioa, gehienez

	BOE, erregimen orokorra		BOE, erregimen berezia		Prezio tasatuak edo hitzartuak
	Zona garestiena	Zona merkeena	Zona garestiena	Zona merkeena	
EAE	**1.350,56**	**1.180,40**	**825,11**	**620,70**	**2.295,95**
Nafarroa	1.337,60	1.337,60	1.234,71	1.234,71	1.697,73
Katalunia	1.779,68	1.112,30	1.557,22	973,26	2.377,54
Madril	1.474,07	1.052,91	1.063,03	759,31	1.850,00
Valentzia	1.557,23	1.042,78	1.362,75	973,26	1.557,23
Andaluzia	1.119,20	973,27	1.119,26	868,99	1.359,10
Aragoi	1.233,53	1.077,54	945,46	903,75	1.501,61
Asturias	1.323,64	1.0001,07	1.158,19	875,94	1.489,10
Balear Uharteak	1.779,69	1.112,30	1.557,23	973,27	2.377,55
Kanariak	1.223,54	1.376,48	994,12	994,12	—
Kantabria	1.279,15	1.112,30	1.119,26	973,27	1.518,29
Gaztela-Mantxa	1.112,30	973,27	973,27	834,23	1.334,76
Gaztela eta Leon	1.279,15	973,27	1.119,26	834,23	1.439,04
Extremadura	906,06	731,2	815,45	658,07	1.248,00
Galizia	1.279,15	1.008,03	1.119,26	903,75	1.439,04
Errioxa	1.279,15	1.112,30	1.119,26	973,27	1.682,36
Murtzia	1.112,30	908,10	973,27	800,93	1.218,35
Batez beste	**1.319,18**	**1.063,83**	**1.120,95**	**891,47**	**1.552,10**

Iturria: Autonomia Erkidegoen arautegiak. Guk egindakoa.
***Eremu desberdinak badaude, eremu garestiena hartu da kontuan.**

bizitza gehiago dagoela Gipuzkoako segmentu garaienetan. Zehazkiago esatearren, eskainitako etxebizitza erabilien %43k 420.000€ baino gehiago balio du; ehuneko hori Bizkaian %32 da eta Araban %14.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak 2006an Autonomia Erkidegoka etxebizitza babestuek dituzten gehienezko prezioak alderatzeko azterketa egin du. Horren arabera, esan behar da, EAEn babestutako etxebizitzen prezioak gainerako Estatuko erkidegoetan duten prezio-mailaren bide erdi-baxuan daudela. Dena dela, lehen lehenik esan, EAEko prezioek erkidego gehiengoen BOEn erregimen orokorreko mailak gainditzen dituztela, nahiz eta batez besteko balioetatik gertu dauden eta erkidego garestienetik nahiko urrun. Bigarrenik, EAEko etxebizitza sozialen prezioak erregimen bereziko BOEn mailarik baxuenean daude, eta diferen-

tzial handia dute erkidego garestienetatik. Orokorrean, Katalunian, Balear Uharteetan, Madrilen, Kanariar Uharteetan eta Valentzian dituzte babestutako etxebizitzek preziorik handienak, eta kontrako lekuan daude Extremadura, Murtzia eta Gaztela-Mantxa, hau da, Estatuko etxebizitza babestu merkeenak dituzte.

3.2.2. Alokairu erregimena

2001eko Erroldako datuek, Estatu mailan, familien %11,5 alokatutako etxebizitza batean bizi dela adierazten digute. EAEn, berriz, familien %7,3 bizi da horrela, eta Estatuko alokatutako etxebizitzetan bizi direnen ehunekorik txikienetako bat du. Estatuko batez bestekoa Gipuzkoak gainditu du, %8,1 bizi baita alokatutako etxebizitzetan, eta Araban eta Bizkaian, ordea, %6,9.

Bestalde, 2006ko laugarren hiruhileko Higiezinen Eskaintzari buruzko Inkestak akuran emateko babestutako 1.555 etxebizitza-unitate daudela zenbatu du, aurreko urtean baino %53 gehiago. Honakoa da hazkunde nabarmen horren arrazoia (ehunekoari begira, noski, izan ere, zenbaki absolutuetara jotzen badugu 540 etxebizitza gehiago baino ez dira): etxebizitza sozialak alokairuan baino ez dira eskaini 2006ko laugarren hiruhilekoan, eta BOEk saltzeko utzi dira. Alokairuan eskainitako etxebizitza babestuak lurraldeka honela banatu dira: %49 Araban, %47 Bizkaian eta %4 Gipuzkoan. Babes motari begira, etxebizitza sozial gehiago eskaini dira akuran (%55) Babes Ofizialeko Etxebizitzak baino (%45). Lurraldeka, BOEn ehuneko handiena Arabak du (%57), eta Bizkaian, berriz, etxebizitza sozialek bete dute eskaintzaren zatirik nagusiena, %69, eta BOEk %31. Eboluziari dagokionez, etxebizitza sozialen ehunekoak gora egin du eskaintza guztia kontuan hartuta, izan ere, guztiaren %55 da. Urtebete lehenago kontrakoa gertatzen zen (%45 etxebizitza sozialak eta %55 BOE). Babestutako eskaintza guztia kontuan hartuta alokairua pixkanaka indarra hartzen ari dela nabarmen daiteke salmentaren ondoan. 2006ko laugarren hiruhilekoan, alokairuak babestutako eskaintzaren %23,5 hartu du, eta ehuneko hori 2005eko azken hiruhilekoan %21 zen, eta 2004ko amaieran eskaintzaren %11 baino ez.

Bestalde, azalera erabilgarria kontuan hartuta esan behar da alokairuan dauden etxebizitzak normalean txikiagoak izan ohi direla salgai daudenak baino. Zehazkiago, akuran emateko hiru etxebizitza babestuetatik batek 60 m^2 baino gutxiago izan ohi ditu, eta ehuneko hori %7 baino ez da salgai jartzen diren etxebizitzen kasuan. Era berean, alokairu-erregimenean eskaintzen diren neurri handiagoko etxebizitzak geroz eta gutxiago direla azaltzen digu inkestak, 2006ko azken hiruhilekoan eskaintza guztiaren %22 baino ez; mota horretako etxebizitzak orain bi urte akuran eskainitako guztiaren %43 ziren. Ba-

IV.3.6. GRAFIKOA. ALOKAIRU ERRENTAREN BATEZ BESTEKOAREN EBOLUZIOA, EAEN €/HILEKO



Iturria: Etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta, EAEn. 2006ko 4. hiruhilekoa.

IV.3.7. Grafikoa. Babestutako etxebizitzen azalerak izandako eboluzioa



Iturria: Etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta, EAEn. 2006ko 4. hiruhilekoa.

IV.3.8. Koadroa. Akuran emandako etxebizitza libreen banaketa errenta tarteak kontuan hartuta

Hileko errenta	Libreak (%)
120 euro arte	0,1
120,01 eurotik 240 eurora	1,0
240,01 eurotik 360 eurora	0,3
360,01 eurotik 480 eurora	0,9
480,01 eurotik 600 eurora	9,5
600,01 eurotik 720 eurora	14,5
720,01 eurotik 840 eurora	22,6
840,01 eurotik 960 eurora	20,1
960,01 eurotik 1.080 eurora	12,9
1080,01 eurotik 1.200 eurora	9,9
1.200 euro baino gehiago	8,3
GUZTIRA	**100,0**

Iturria: Etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta, EAEn. 2006ko 4. hiruhilekoa.

tez besteko azalera 68 m^2 izan ohi da, eta neurri hori antzera mantentzen da hiru lurraldeetan.

EAEn alokairuan esakintzen diren babestutako etxebizitzen batez besteko errenta hilean 263€ da. BOE motako etxebizitzak, berriz, hilean 385€ kostatzen dira, eta etxebizitza sozialen batez bestekoa 141€ izan ohi da. Eboluzioari dagokionez, erregistratutako errentak bildu egin direla antzeman daiteke bai BOE modalitatean (–%3) bai etxebizitza sozialen kasuan (–%4,5 2005en aldean). Lurralde Historiakoak kontuan hartuta eta BOEk kontuan hartuta, Arabak du errentarik handiena 413€ hilean, Bizkaiak 369€ hilean eta Gipuzkoan alokairuan eskainitako BOEn prezioa 253€ izan ohi da batez beste hilean. Etxebizitza sozialen kasuan, lurraldeen arteko desberdintasunak txikiagoak dira: Arabak du, kasu honetan ere, batez besteko handiena 146€ hilean, Bizkaiak jarraitzen dio ondotik 138€ hilean eta Gizpuzkoan, berriz, 120€ ordaintzen da horrelako etxebizitza bat hilean.

Errenta tarte handiak kontuan hartuta, alokairuan emateko babestutako eskaintzaren banaketa aztertzen badugu, konturatuko gara errenta sakabanaketa handia dagoela, batez ere, bi babes-modalitateen artean alde handiak daudelako. Horrela bada, eta nahiz eta errenta-tarte guztiak adierazita dauden, konzentrazio handiagoa dago hileko 120-240€ko tartean (eskaintzaren %38) eta hileko 360-480€ko tartean (eskaintza guztiaren %23). Eboluzioa kontuan izanik, eskaintza hileko 120-240 euroko tartean geroz eta gehiago konzentratzen ari dela antzeman daiteke, bereziki, geroz eta etxebizitza sozial gehiago eskaintzen delako babestutako alokairuen eskaintza guztiaren artetik.

Bestalde, 2006ko laugarren hiruhilekoan alokairuan eskaini diren etxebizitza libreen lagina 578 unitate izan

IV.3.9. KOADROA. ALOKAIRUAN ESKAINITAKO ETXEBIZITZA LIBREAK ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA

	Etxebizitzak				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2000	662	103	448	112	598,4	700,2	560,4	656,6
2001	409	32	307	70	636,3	750,2	612,0	691,2
2002	429	86	262	81	689,7	761,0	655,0	715,0
2003	533	101	347	86	693,1	815,7	666,6	691,9
2004	512	108	308	96	724,4	828,2	687,4	747,0
2005	511	123	273	116	778,9	850,3	749,3	788,7
2006	**578**	**184**	**241**	**153**	**819,6**	**866,8**	**795,7**	**802,8**

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila. "Etxebizitzen, garajeen eta lokalen eskaintzari buruzko Inkesta, EAEn".

da, aurreko urtean baino 57 gehiago (+%10,9). Lurraldekako banaketari dagokionez, esan, Bizkaian alokatu direla mota horretako etxebizitzen %42, Araban %32 eta Gipuzkoan, berriz, gainerako %26. Eskainitako etxebizitzen azalera erabilgarriari dagokionez, aipatu, tarte handiak kontuan hartuta egindako banaketaren azterketak, guztiak ordezkatuta daudela esaten digula, baina nabarmendu behar da eskaintzaren bolumen handia azalera txikiena duten alorretan egin dela. Horrela bada, etxebizitzen %44 76 m^2 baino neurri txikiagokoak dira (%67 2005ean). Era berean, egiazta daiteke banaketa salgai dauden etxebizitza erabilien eskaintzak duenaren antzeko dela hemen ere. Batez besteko azalerari dagokionean, EAEn eskainitako etxebizitzetan batez bestekoa 76 m^2 da. Lurralde Historikoak kontuan hartuta, Arabak du batez besteko handiena, nabarmen, (98 m^2); Gipuzkoako etxebizitzen batez besteko neurria 82 m^2 da, eta Bizkaikoena, berriz, 70 m^2.

Partikularrek beren etxebizitzak higiezinen jabetzako agenteen bidez alokairuan eskaintzen dituztenean, batez beste, hilean 820€ko errenta izaten dute, aurreko urteko batez bestekoa baino %1,5 gehiago. Badirudi hazkundeak apalagoa izateko joera duela, salmenten alorrean bezalaxe. Lurralde Historikoak kontuan hartuta, Arabak du preziorik handiena, 867€ hilean; ondotik Gipuzkoak jarraitzen dio, 803€ hilean eta azkenik Bizkaia dugu, 796€ hilean. Eboluzioaren azterketak adierazten digu hazkuntza neurtua izan dela Bizkaian eta Gipuzkoan, eta zertxobait bildu dela Araban. Errenta tarte handiei jarraiki etxebizitzen banaketari dagokionez, esakintzak tarte handienetara egin duela antzeman daiteke, eta oso gutxi dira hilean 600€ baino gutxiagoan eskaintzen diren etxebizitzak (guztiaren %12). Bestalde aipatu behar da higiezinen jabetzako agenteen bidez alokairuan eskaintzen diren etxebizitzen %31k hileko 960 euroko errenta gainditzen duela.

3.2.3. *Eraikuntza-jarduera*

EAEn eraikitzen hasitako etxebizitza kopurua, guztira, 2005ean %2,4 gehitu zen, baina 2006an ia %10 murriztu da. Guztira, 14.963 etxebizitza hasi dira eraikitzen, horietatik 9.815 libreak dira (%65,6), 4.828 babes ofizialekoak (%32,3) eta 320 etxebizitza sozialak (%2,1). Etxebizitza motaren arabera, 2005ean izandako eraikitze-jardueran aldean aldaketak intentsitate desberdinekin izan dira: eraikitzen hasitako etxebizitza libreen kopurua %18,1 murriztu da (2005ean %1,6 hazi zen), eraikitzen hasitako etxebizitza batestuak %11,3 hazi dira, nahiz eta modu desberdinean etxebizitza sozialak eta babes ofizialekoak alderatzen baditugu. Eraikitzen

IV.3.10. KOADROA. HASITAKO ETA BUKATUTAKO ETXEBIZITZAK, EAE-N

		2002	2003	2004	2005	2006
Etxebizitza libreak	Hasitakoak	9.692	13.626	11.794	11.987	9.815
	Bukatutakoak	14.974	7.962	10.588	11.522	9.794
Babestutako etxebizitzak	Hasitakoak	5.054	6.625	4.427	4.625	5.148
	BOE	3.954	5.816	3.981	3.830	4.828
	Sozialak	1.100	809	446	795	320
	Bukatutakoak	3.225	3.752	3.647	4.025	4.829
	BOE	2.667	3.193	3.140	3.345	4.001
	Sozialak	558	559	507	680	828

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

hasitako 4.828 babes ofizialeko etxebizitzak +%26,1 hazi dira 2005ekoekin alderatuta, baina, urte honetan eraikitzen hasitako etxebizitza sozialak %59,7 murriztu dira aurreko urtearekin alderatuta.

Bestalde, EAEn 2006an eraikitzen amaitutako etxebizitza kopurua 14.623 unitate izan dira, aurreko urtean baino %5,9 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen kopuruak behera egin duelako (–%15), eta ez da lortu babestutako etxebizitzen alorrak izandako datu positiboak orekatzea: 2006an 4.829 etxebizitza babestu bukatu zituzten (+%20); horietatik %82,8 babes ofizialekoak ziren eta gainerako %17,2 etxebizitza sozialak (guztira 828 etxebizitza, 2005ean baino %21,8 gehiago). 2006ko datuek adierazten digute EAEko eraikuntza-jardueran babestutako etxebizitzek geroz eta parte hartze joera handiagoa dutela: amaitutako etxebizitzen artean babestutako etxebizitzek izandako garrantzia %25,9 izatetik %33 izatera pasatu da, eta azken urte honetan eraikitzen hasitako BOE eta etxebizitza sozialek igo egin duten beren ehuneko pisua %27,8tik %34,4ra.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak orain gutxi Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren datuetan oinarrituta egindako txostenari jarraiki, esan daiteke EAEn azken 40 urteetan etxebizitzen eraikuntzak izan duen eboluzioa lau ziklo handitan dagoela kokatua, eta Estatuko gainerako lekuetan antzemandako antzeko epe eta intentsitatearekin gertatzen dela. Epe horiek, gainera, etxebizitza babestuek merkatuan izan duten pisuaren eboluzio desberdinak adierazi dituzte:

IV.3.11. Koadroa. Etxebizitzen eraikuntzak izandako eboluzioa EAE-n. 1960-2005

	Libreak	Babestuak	Guztira
Batez beste, etxebizitzak urtean			
1960-69	9.619	16.650	26.269
1970-79	7.093	13.633	20.726
1980-89	3.665	2.701	6.366
1990-99	10.113	1.328	11.442
2000-05	13.078	3.810	16.888
B.b., etxebiz. urtean 1.000 bizt.			
1960-69	6,0	10,3	16,3
1970-79	3,5	6,8	10,3
1980-89	1,7	1,3	3,0
1990-99	4,8	0,6	5,5
2000-05	7,4	2,2	9,6

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

1. Lehenengo zikloa, izaera hedakorrekoa, 1960 eta 1973 artean izandakoa da. Epe horretan EAEn 12.200 etxebizitza eraikitzetik 30.000 etxebizitza eraikitzera igaro zen (1968an eraiki ziren etxebizitza gehien, 35.524 hain zuzen ere). Ziklo horretan, gainera, etxebizitza babestu asko eraiki ziren, %50 baino handiagoko kuotak: urtean 16.800 etxebizitza babestu hasten ziren batez beste, eta 8.900 libre (nahiz eta bi segmentu horiek ur-

IV.3.8. Grafikoa. Etxebizitza eraikuntzaren, biztanleria gehitzearen eta etxebizitza parkeak izandako eboluzioaren arteko konparazioa. 1970-1999





te batzuetan 20.000 etxebizitza baino gehiegoko maximoak lortu zituzten).

2. Bigarrena, biltzekoa, 1974 eta 1985 artean izan zen, 73ko eta 79ko petrolioaren *shock*-en eraginek harrapatu zuten. Eraikitzen hasitako etxebizitza kopurua urtean 7.000-8.000 etxebizitza egitera murriztu zen 80ko hasieran. Epe honetan, modu berean moteldu zen babestutako etxebizitzen eraikuntza (7.200 etxebizitza urtean) eta etxebizitza libreen eraikuntza (4.700 etxebizitza urtean). Babestutako segmentuak jarraitu zuen nagusi izaten.
3. Hirugarren zikloa 1986-1993 artekoa da. Aurreko zikloan izan zen eraikuntza maila baxuak iraun zuen epe honetan ere. Epe honetan eraikitzen hasitako etxebizitza kopurua 7.000-8.000 inguru izaten zen. Babestutako etxebizitzen eraikuntza maila txikienetan ezarri zen (urtean 1.700 etxebizitza baino gutxiago batez beste eta 1993an apenas 800 etxebizitza), eta etxebizitza libreak gora egiten hasten dira (urtean 6.500 etxebizitza, batez beste eta urteren batean 10.000 inguru).
4. Laugarren eta azken zikloak eraikuntza-jarduera berreskuratzea ekarri du, eta 1994ean hasi eta gaur egunera arte iraun du. Urtean 15.000-20.000 etxebizitza egiten dira, eta ezaugarria, etxebizitza libreen eta babestutako etxebizitzen kopuruak gora egin duela da. Libreak urtean, batez beste, 13.000 etxebizitza baino gehiagoko kopurua lortu du, orain arte aipatutako zikloetatik batez besteko handiena, eta 2000. urtean, adibidez, 17.000 etxebizitza egitera iritsi ziren, 60ko urteetan izandako zifra-errekorren ondora. Babestutako etxebizitza kopuruak ere gora egin du (batez beste 2.300 etxebizitza). Gorakada hori, batez ere, 2000. urtetik aurrera gertatu da eta 2003an 5.100 etxebizitza baino gehiago egin ziren (baina, dena den, 60 urteetan izandako erritmotik urrun gaude oraindik).

Bestalde, biztanleen eta etxebizitza eraikuntzaren arteko eboluzioa alderatzen badugu eta Estatuko gainerako lekuetan gertatutakoarekin harremanetan jartzen baditugu, antzeman daiteke EAEn biztanleria gehien hazi zen epean (60ko eta 70eko urteak) eraikuntzak ere mailarik gorenak izan zituela, baina ez zen iritsi gehitutako biztanle bakoitzeko etxebizitza bat jasotzera. Modu berean, epe horretan, Estatuan ere, etxebizitzen eraikuntzak gora egin zuen nabarmen, eta biztanleak ere asko gehitu ziren. Estatuan, bi hamarkada horietan hazitako biztanle bakoitzeko etxebizitza berri bat baino gehixeago jaso zen.

Hurrengo bi hamarkadetan EAEko biztanle kopurua murriztu egin zen. Etxebizitzen eraikuntza ere asko murriztu zen 80ko urteetan, eta zati batean behintzat, eraikitze erritmoa berreskuratu egin zen 90eko hamarkadan. Estatuan, alabaina, biztanle kopuruak gora egiten jarraitu zuen, nahiz eta aurreko hamarkadetan baino erritmo dezente apalagoan, eta etxebizitzen eraikuntza ere gelditu egin zen 80ko urteetan, baina 90eko urteetan eraikuntza nabarmen berreskuratu zen. Ondorioz, 90eko urteetan Estatuan gehitutako biztanleko ia 2,5 etxebizitza berri eraiki ziren. Horrela bada, Estatuan azken bi hamarkadetan etxebizitzak eraikitzeko erritmoa izugarri igo da biztanle kopuruan izandako eboluzioaren aldean, eta badirudi hori bigarren etxebizitza parkean izandako gorakadari dagoela loturik.

3.3. Etxebizitza beharra eta eskaria, EAE-n

3.3.1. Beharrak zenbatzea

Eusko Jaurlaritzaren 2006ko *"EAEn etxebizitza beharrei eta eskariari buruzko oinarrizko inkestak*[7]*"* emandako datuen arabera, lehenego etxebizitza izateko beharra dutela dioten pertsonak dituzten familien ehunekoa %11 da. Ratio hori azken bost urtekoaren fluktuazio bandaren beheko aldean kokatu da. Zifra abslolutuei dagokienean, etxebizitza beharra dutela dioten pertsona kopurua 93.308 gazte[8] direla balioetsi da. Eskariari dagokionez, lau urteko epean 57.500 etxebizitza izango direla balioetsi da eta 19.735 urtebeteko epean. Zifra horien arabera eskaria zertxobait egonkortu egin dela esan daiteke, inkesta honen aurreko argitalpenetan esan dugun bezala. Familien beharrei dagokienean, familia euskaldunen %6k ohiko etxebizitza aldatzeko beharra duela adierazten digu inkestak, edo, berdina dena, 48.119 etxebizitza. Eskariari dagokionean, aurreikuspena 19.500 etxebizitza dira lau urteko epean eta 8.100 epe motzean (urte 1). Bestalde, inkestan ageri diren datuen arabera etxebizitzak zaharberritzeko beharra duten familien ehunekoa, azken urtean, %14,4 izatetik %17 izatera igaro da, ia 135.000 familia.

[7] Urtero 1994tik egiten den inkesta EAEn adierazgarri diren 3.200 familiako lagina kontuan hartuta.

[8] Inkesta honen 2006ko edizioan, beharrizanaren eta eskaeraren indizeak EAEko etxebizitzen 2005eko kopuru osoari aplikatu zaizkio, Eustaten datuen arabera. Kopuru horrek erakusten du EAEko etxebizitza kopuruak gora egin duela 2001etik 2005era, %6,2an (+46.283). Horrek gehikuntza bat dakar, estimatutako premia osoen proportzio berean.

IV.3.9. Grafikoa. Behar-indizeen eta behar diren etxebizitzen eboluzioa



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila.

IV.3.12. Koadroa. Arreta eskatzen duen etxebizitza beharra eta segmentu babesgarria. 2006

	Sarrera		Aldaketa		Guztira	
	Etxebizitzak	%	Etxebizitzak	%	Etxebizitzak	%
Guztira beharrak	93.308	100,0	48.119	100,0	141.426	100,0
Arreta eskatzen dutenak	93.308	100,0	24.059	50,0	117.367	83,0
Segmentu babesgarria gehien. prezioak kontuan izanda *						
< 72.000 euro	2.239	2,4	1.829	3,8	4.068	2,9
< 96.000 euro	7.465	8,0	4.812	10,0	12.276	8,7
< 120.000 euro	18.755	20,1	9.143	19,0	27.897	19,7
< 150.000 euro	38.536	41,3	11.789	24,5	50.325	35,6

*** Metatze-zifrak. Mota bakoitzeko behar diren guztiaren %.**
Iturria: EAEn Etxebizitza Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (III-2006).

Ondorioz, etxebizitza izateko eta aldatzeko beharrak egonkortzeko joera duela badirudi, ez da gauza bera gertatzen zaharberritzearekin: behar hori duten familia kopurua %26 hazi da azken urtean.

Etxea eskuratzeko gaitasun finantzario txikia duten kolektiboei buruz zera adierazten digu 2006ko inkestak: etxea eskuratzeko beharra duten %8k baino ezin diola aurre egin 96.000€ baino gutxiago balio duen etxea erosteari, horrek 7.465 etxebizitza esan nahi du. Ehunekoa %10 da etxe aldaketa behar duten familien kasuan (4.812 etxebizitza). Eboluzioari dagokionez, 2006ko datuek erakusten digute etxea eskuratzeko beharra duten pertsonek finantzazio gaitasun hobea dutela, aurre egiteko gehienezko prezioen mugak handitu direla kontuan harturik.

Lurraldeka etxebizitza eskariak joera desbedinak izan ditu 2006an. Aldaketa behar dutenen kasuan indizeak behera egin du, bai EAEn bai Bizkaian eta bereziki Gipuzkoan, baina Araban gora egin du. Araba da, gainera, EAEn etxe-aldaketa beharraren indizerik baxuena duena, ia 6.400 familiek behar dute etxe aldaketa. Kontrako aldean dago Bizkaia, erkidegoko batez bestekoa gainditu egiten baitu (6,2 6,1en aldean), eta etxebizitza aldatzeko beharra duten familia kopurua 26.277 dela balioetsi da. Lehenego etxebizitza eskuratzeko beharrari buruz, esan, egoerak hobera egin duela lurralde guztietan, eta 2006ko inkesta kontuan hartuta behar-indizeak Bizkaiko 10,9tik Gipuzkoako 11,7ra doaz. Arabak du EAEko batez bestekoaren balio bera: 11,2. Zaharberrizeari dagokionez, azke-

IV.3.13. KOADROA. ETXEBIZITZA BEHAR SUBJEKTIBOA ETA ESKARIA EPE MOTZEAN, ETA LURRALDE HISTORIKOKA

	Aldaketa			Sarrera			Zaharberritzea		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006
INDIZEA (1)									
EAE	5,1	6,4	6,1	11,3	12,2	11,2	13,7	14,4	17,0
Araba	4,3	5,6	5,7	11,9	12,6	11,2	13,9	13,9	16,3
Bizkaia	5,3	6,3	6,2	11,0	12,3	10,9	13,8	14,5	16,7
Gipuzkoa	5,2	6,9	6,1	11,5	11,8	11,7	13,5	14,3	17,8
ETXEBIZITZA KOPURUA									
EAE	38.226	47.540	48.119	80.176	87.115	93.308	102.010	106.928	134.780
Araba	4.361	5.649	6.396	11.515	12.320	13.347	14.158	14.123	18.375
Bizkaia	21.169	24.954	26.277	41.789	46.894	48.814	54.728	57.727	71.269
Gipuzkoa	12.696	16.937	15.446	26.872	27.901	31.147	33.124	35.078	45.136

(1) familia guztien gaineko %. Sarrera beharrari dagokionean, unibertsoa beharra dutela adierazi duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18-44 urte arteko pertsonetara murriztu da. Horrela beharrari buruzko zifrak kaudimena dutenen eskarira egokitu dira. Zaharberritzeko beharren kasuan, 3.000 euroko aurrekontua gainditu duten pertsonak baino ez dira sartu.
Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila. "Etxebizitza Beharra eta Eskaria, EAEn".

nik, aipatu ez dagoela desberdintasun handirik lurraldeen artean, eta hiru lurraldeetan, bai indizeari dagokionean bai aldaketari dagokionean, aurreko urtearekin alderatuta, EAEko batez bestekoaren inguruan kokatu dira, hau da, %17an.

3.3.2. *Beharra duten pertsonen eta familien ezaugarriak eta arrazoiak*

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek eta lehenego etxebizitza behar duten gazteek aurreko urteetan izandako ezaugarri sozioresidentzialen nahiko antzekoak dituzte. Lehenengo etxebizitza behar duten pertsonek 28 urte dituzte batez beste, eta kasuen erdiek baino gehixeagok lan-kontratu finkoa dute. Horretaz gain, batez beste 3,8 kide bizi diren familia-taldeko kideak dira, eta, gaur egun, 84 m²ko etxebizitzetan bizi dira.

Bestetik, etxebizitza aldatzeko beharra duten familietako pertsona nagusiak 46 urte ditu batez beste, eta 3,1 kide dituen familiako partaide da. Bizi diren etxeak zaharrak (42 urte) eta txikiak dira (66 m²) gainerako etxebizitzekin alderatuta. Era berean, aldaketa beharra dutela adierazten duten familien ehuneko handi bat maizterra

V.3.10. GRAFIKOA. ALDAKETA BEHARRA DUTEN FAMILIEN BANAKETA GAUR EGUNGO ETXEBIZITZA-AZALERAREN ETA NEURRI BAKOITZERAKO ATERATZEN DEN BEHAR-INDIZEAREN ARABERA



Iturria: Etxebizitza Beharrari eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta, EAEn (III-2006).

IV-3.14 KOADROA. ETXEBIZITZA ALDATZEKO[1] BEHARRAREN ARRAZOIEN BILAKAERA

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Tamaina desegokia	39,2	40,6	28	38,9	42,1	40,6	35,8	38,5
Egoera txarra	7,7	9,8	7,3	7,9	13,4	2,6	3,7	6,2
Kokapen txarra	3,5	7,1	9,4	5,5	4,9	7,0	7,0	5,1
Jabetza nahi du	25,6	11,7	24,6	17	13	18,8	13,6	10,3
Igogailua[2]	—	—	10,7	13,1	15,4	17,4	20,6	16,4
Bestelako arrazoiak	23,4	30,8	20	17,6	11,2	13,6	19,2	23,5

(1) % bertikala (mota bakoitzean behar diren guztiekin kalkulatuta).
(2) Urte batzuetan zehazten da, beste batean "Bestelako arrazoiak" atalean sartu da.
Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrizan eta Eskaerari buruzko Inkesta. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

izan ohi da (talde horretako %33 alokairuan dagoen etxebizitza batean bizi da).

Etxebizitza beharra azaltzeko arrazoien artean, lehen postuan dago gurasoen etxetik irteteko nahia (%77), etxea eskuratu nahi dutenen kasuan (%70 2005ean), eta garrantzia galtzen jarraitzen dute ezkondu edo bikotekidearekin bizitzeko nahiak (%21ek gaur egun, %50ek orain hamar urte). Bestalde, etxe aldaketa behar duten familien kasuan, gaur egun duten etxebizitzak duen neurri txikia izan ohi da arrazoi nagusi (%39), eta igogailu falta, bigarren arrazoi (%10); dena den, arrazoi hori iraganean baino gutxiago aipatzen da orain.

Inkesta honen aurreko argitalpenetan antzeman denari jarraiki, etxebizitza aldaketa behar duten familiak ez dira gustura sentitzen egun duten etxebizitzarekin, maila hori, gainera, gainerako euskal familiek dutena baino askoz ere txikiagoa da. Etxebizitzarekin eta inguruarekin asebeteta sentitzeko batez besteko indizea, familia guztiak kontuan hartuta, 100 puntutik 86 bada, etxebizitza aldatu nahi duten familien artean etxebizitzarekin duten asebetetze-maila 54 puntura jaisten da. Inguruarekin, ordea, gusturago sentizen dira.

Eta batez besteko asebetetze-indizea 79 puntu izaten da, gainerakoek izaten duten 87 punturekin alderatuta.

Bestetik, beharra dagoela aitortu ondoren, aldaketa beharra eta eskuratu beharra dutenetatik askok beren beharra "handia" dela edo "nahikoa" dela adierazten dute. Talde hori, etxea eskuratu nahi duten pertsonen %86 da eta aldaketa behar duten familien %83. Tasa horiek handitzen ari dira azken urteetan, bereziki, etxea eskuratu beharra dutela adierazten duten pertsonetan.

Azkenik, etxea eskuratzeko beharra dutela adierazten dutenen taldea aztertzen badugu generoa kontuan hartu-

IV.3.15. KOADROA. SARRERA BEHARRA DUTEN PERTSONEN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK. 2006.

Ezaugarriak	Sarrera*	
	Emakumea	Gizonezkoa
BEHARRA DUEN PERTSONAREN ADINA		
18-24 urte	34,3	35,7
25-34 urte	54,1	56,9
53 urte eta gehiago	11,6	7,3
Adina batez beste	28,3	27,9
IKASKETA MAILA		
Ikasketarik gabe/lehen mailakoak	14,3	14,7
Lanbide ikasketak	33,0	38,8
Bigarren mailako ikasketak	7,0	16,3
Unibertsitate-ikasketak	45,7	30,2
LAN EGOERA		
Lanean bere kabuz	3,3	8,0
Lanean kontratu finkoarekin	43,4	55,6
Lanean behin-behineko kontratuarekin	44,8	31,1
Langabezian	4,6	4,7
Ikasle	0,0	0,0
Beste bat	4,0	0,5

*** % bertikala (beharra duten pertsona guztien arabera).**
Iturria: Etxebizitza Beharrari eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta, EAEn (III-2006).

rik, emakume eta gizonezkoen artean alde txikiak daudela konturatuko gara. Ezaugarri pertsonalak kontuan hartuta, batez besteko adina 28 urte da bai gizonen kasuan bai emakumeen kasuan, eta desberdintasuna hemen dago: emakume unibertsitarioen ehunekoa handiagoa da gizonezkoena baino, baina gizonek lan-egoera hobea izan ohi dute: %56k lan-kontratu finkoa du, eta emakumeen artean %45ek.

Diru-sarrera maila oso antzekoa da, baina emakumeak ez dira hain baikorrak izaten etxebizitza erosketari aurre egiteko garaian: gizonezkoek baino gehienezko prezio baxuagoa adierazten dute eta hilean ordaintzeko gaitasun txikiagoa azaltzen dute. Gainera, emakume gehienek etxea beste batekin finantzatzeko aukera dutenean erosiko dutela esaten dute. Etxebizitza beharra dutela azaltzeko arrazoirik nagusiena, bai gizon bai emakumeetan, gurasoen etxetik ateratzeko nahia izan ohi da, eta bikotekidearekin bizitzeak edo ezkontzeak jarraitzaile gehiago ditu emakumeen artean.

Etxebizitza beharra duten gizonezkoek esan dute behar handiago dautela lehenengo etxebizitza eskuratzeko, eta egoera horretan lau urte baino gehiago daramatenen kopurua handiagoa da. Hala ere, baikorragoak dira eta pentsatzen dute bilatuko diotela irtenbidea etorkizun hurbileko beharrari. Azkenik, etxea eskuratzeko beharra duten gizonezkoek eta emakumezkoek antzera pentsatzen dute etxeak izan behar dituen ezaugarriei buruz, hau da, berria edo erabilia den eta etxearen neurriari buruz. Alokairuak geroz eta jarraitzaile gehiago ditu gizonezkoen artean, eta talde horretakoak ere prest daude herriz aldatzearekin lehenego etxebizitza eskuratu ahal izateko.

3.3.3. Behar diren etxebizitzek dituzten ezaugarriak

Lehenengo etxebizitza behar duten gazteek batez beste 64m^{2}ko etxebizitzak behar dituzte, eta gazte gehienak jabetzan izan nahi dute etxea. Egia da, dena den, geroz eta gazte gehiago ari dela aztertzen alokairuan dagoen etxebizitza bat errentan hartzeko aukera. Asko prest daude bizitzeko herriz aldatzearekin (%77). Bestalde, etxebizitza aldatzeko beharra duten familietatik gehienek etxe handiagoa behar dute (74 m^2) eta, gainera, jabetzen nahi dute. Kasu hauetan, dena den, herriz gutxiagok aldatu nahi du. Eboluzioaren ikuspegitik nabarmendu behar da, bi talde horietakoek behar dituzten etxebizitzak geroz eta txikiagoak direla, eta, badirudi, geroz eta gehiagok pentsatzen dutela alokairuan bizitzeko modalitate gisa.

Gainera, nabarmendu behar da kasu guztietan ere eskuratu nahi diren etxebizitzek geroz eta azalera txikiagoa dutela. Hori, neurri handi batean, higiezinen merkatuak dituen baldintzetara egokitzeko beharraren emaitza da, baita etxebizitzaren prezioa mugatzeko duten beharra

V.3.11. GRAFIKOA. BEHAR DIREN ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO AZALERAK IZANDAKO EBOLUZIOA. m^2



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila. "Etxebizitzen beharra eta eskaria, EAEn".

IV.3.16. KOADROA. BEHAR DIREN ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

	Aldaketa (1)			Sarrera (1)		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006
Baldintza						
Berria	18,4	24,4	16,5	22,8	19,1	17,9
Erabilia	7,8	1,6	2,2	8,0	3,4	1,9
Bereizi gabe	69,3	71,6	77,1	68,3	74,9	79,5
Ez daki/Ez	0,8	2,4	4,2	0,8	2,5	0,7
Azalera erabilgarria						
40 m^2 baino gutxiago	1,9	1,5	2,0	4,4	3,7	4,3
41 - 60 m^2	9,3	18,1	17,4	17,5	32,6	34,5
61 - 75 m^2	26,2	29,1	37,3	37,7	41,1	36,5
76 - 90 m^2	34,1	31,9	26,8	32,2	17,7	19,4
91 - 120 m^2	21,7	15,7	11,7	3,6	1,3	2,4
120 m^2 baino gehiago	4,6	2,5	3,0	0,2	0,0	0,0
Ez daki/Ez	2,2	1,3	1,8	4,4	3,5	2,9
Erregimen joera						
Jabetza	85,5	82,9	73,4	82,3	75,9	66,2
Alokairuan	7,1	9,1	12,0	4,3	4,8	7,5
Bereizi gabe	7,4	8,0	14,6	13,4	19,3	26,3

(1) % bertikala (mota bakoitzeko behar guztien arabera).
Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila.

ere. Etxe-sarrera nahi duten gazteen kasuan, azken 10 urte hauetan azalera %17,5 murriztu da, eta Eusko Jaurlaritzaren txostenak azaltzen duenez, badirudi barneratu egin dutela, nolabait, gurasoen etxetik ateratzeko lehengo fase batean etxebizitzek neurri txikiagokoa behar dutela izan. Etxe-aldaketen kasuan, azalera %11 murriztu da, nahiz eta neurria izan etxe aldaketa beharraren arrazoi nagusi.

3.3.4. *Finantza-gaitasuna eta -ahalegina*

2006ko Oinarrizko Inkestari jarraiki, etxebizitza behar duten kolektiboen finantza-gaitasuna handitu egin da, baina, dena dela, etxebizitza libreen prezioek pertsona horientzat iristea zaila den mailetan jarraitzen dute, batez ere, lehenengo etxebizitza behar dutenentzat. Lehenengo etxebizitza behar duten pertsonek, 2006an, batez beste

V.3.12. GRAFIKOA. ETXEA EROSTEKO GEHIENEZ ERE ONARGARRIA DEN PREZIO AITORTUA ETA HILEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA KOSTUA. €



Iturria: Etxebizitza Sailaren eta INEren datuetatik egindakoa.

IV.3.13. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA ORDAINTZEKO* SOLDATA OSO-OSORIK ZUZENDU BEHARKO LITZATEKEEN URTE KOPURUA



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila. "Etxebizitzen beharra eta eskaria, EAEn".
(*) Hipoteka-maileguaren interes gisa zuzendu beharko liratekeen kopuruak kontuan hartu gabe.

garbi 1.496 euro irabazi dute hilean (2005ean baino +%9,2 gehiago), eta etxebizitza ordaintzeko hilean 495 euro erabiltzeko prest daude (+%11,2). Aurrekoari jarraiki, etxebizitza ordaintzeko onargarritzat jotzen duten gehienezko prezioa ere igo egin dute, orain etxebizitza baten prezio onargarria 164.455 euro dela uste dute (+%14,8). Bestalde, etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek hilean 1.609 euro irabazten dute (2005ean baino %6,3 gehiago), hilean etxebizitza ordaintzeko 471 euro erabiltzeko prest daude (+%13,2) eta, gehienez ere, etxebizitza berria 209.220 euro ordain dezaketela uste dute (+%6,8).

Alderatzeko, Inkesta horrek adierazten digu orain gutxi (azken 2 urteetan) etxebizitza sarrera izan dutenek orain beharra duten pertsonek baino %16,5 gehiago irabazten dutela, eta etxebizitza aldatu duten familiek aldaketa beharra dutenek baino %25 gehiago irabazten dutela. Horrela bada, egiazta daiteke diru-sarreretan badela eten bat etxebizitza librearen bidez etxe beharra konpondu ahal izateko. Desberdintasun horiek, neurri handi batean, etxebizitza ordaindu ahal izateko beste soldata bat izatearekin dute lotura. Orain gutxi etxebizitza erosi duten familien %55-60k badu beste diru-sarrera iturri bat, eta, horren aldean, etxebizitza sarrera behar duten pertsonen %34,4k eta aldaketa beharra duten familien %45,8k baino ez dituzte baliabide gehigarri horiek.

Era berean, diru-sarrera gehiago izanda, murriztu egin dira tradizionalki babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko aukera eman duten diru-sarrera tarteen barnean dauden pertsona-taldeak. 2006an lehenego etxebizitza behar duten pertsonen %10,4k izan du 15.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera gordin haztatua (etxebizitza soziala), baina, oraindik ere, %70,3 dago 33.000 euroko mailaren azpitik (erregimen orokorreko BOE).

Aurreko urteetan bezala, hipoteka-mailegua da etxebizitza erosteko formula nagusiena. Baliabide hori ezinbestekoa zaie lehenego etxebizitza behar duten gazteei: gazteen %92,4k mailegua eskatzea du pentsatua, eta lautik hiruk etxebizitzaren prezioaren %75etik %100era pentsatzen du modu horretan ordaintzea. Era berean, etxe-aldaketa behar duten familien %64k hipoteka-mailegua eskatzea du aurreikusia. Dena dela, familia horietatik askok beren gaur egungo etxebizitza saltzeko asmoa du, eta, beraz, baliabide gehiago izango dituzte eta finantza-egoera horri esker gazteenek dutena baino kaudimen gehiago dute.

Finantza-ahaleginari dagokionez, gazteek beren sarreren herena etxebizitza ordaintzeko erabiliko dutela aurreikusi dute, eta etxe-aldaketa behar dutenek, berriz, zertxobait gutxiago. Ehuneko horiek aurreko ekitaldietako balioen antzekoak dira. Horrela, nahiz eta interes-tasen jaitsierak (2005eko erdialdera arte) eta etxebizitza librearen prezio igoerak, finantza-ahaleginari dagokionean, zer eragin garbi izan duen balioestea erraza ez izan, etxebizitza erosteko ahalegin handiagoa egin behar dela dioten

IV.3.17. KOADROA. FINANTZA-DATU NAGUSIENEN EBOLUZIOA

	Sarrera						Aldaketa					
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Batez besteko diru-sarrerak	1.143	1.146	1.232	1.220	1.345	1.469	1.202	1.314	1.303	1.396	1.514	1.609
Sarrera 1 baino gehiago dutenen %	37,2	42,4	38,1	34,6	36,9	34,4	42,2	48,8	46,6	41,1	48,5	45,8
LGS < 2,5 sarrerak dituztenen %	25,8	30,4	22,8	22,3	13,8	10,4	31,4	30,6	33,9	23,1	21,8	17,9
LGSren 2,5 eta 5,5 arteko sarrerak dituztenen %	63,4	54,9	57,1	59,1	59	59,9	57,2	49,1	47,5	53,6	44,2	48,4
LGS < 5,5 sarrerak dituztenen %	89,2	85,3	79,9	81,4	72,8	70,3	88,6	79,7	81,4	76,7	66	66,3
Etxebizitzara zuzentzeko hileko kuota	425	394	414	419	445	495	361	404	360	490	416	471
Prezio onargarria, gehienez	102.773	111.105	120.670	130.207	143.215	164.455	111.788	133.110	134.745	171.010	195.900	209.220
gehienezko prezioaren % < 72.000 €	18	18,3	16,6	14,1	3,8	2,5	25	15,5	26,4	9,8	6,7	3,3
gehienezko prezioaren % < 150.000 €	92,4	83,5	74,9	69,4	55,2	41,3	80	64	57,9	45,3	31,9	25,0
Mailegua eskatzea aurreikusi dutenen %	96,8	94,5	96,3	94,6	94,4	92,4	84,5	77,1	80,3	73,7	68,5	64,8

Iturria: EAEn Etxebizitza behar eta eskariari buruzko oinarrizko inkesta.

IV.3.14. GRAFIKOA. FINANTZA-GAITASUN TXIKIKO TALDEAREN LABURPENA

Sarrera beharra duten pertsonak	Aldaketa beharra duten familiak
ARRETA BEHAR DUEN KOLEKTIBOA: %100	**ARRETA BEHAR DUEN KOLEKTIBOA: %39,2**
FINANTZA-GAITASUN TXIKIKO TALDEA, PREZIOAK KONTUAN HARTUTA	**FINANTZA-GAITASUN TXIKIKO TALDEA, PREZIOAK KONTUAN HARTUTA**
• 72.000 € baino gutxiago: %2,4 • 96.000 € baino gutxiago: %8,0 • 120.000 € baino gutxiago: %20,1 • 150.000 € baino gutxiago: %41,3	• 72.000 € baino gutxiago: %3,8 • 96.000 € baino gutxiago: %10 • 120.000 € baino gutxiago: %19 • 150.000 € baino gutxiago: %24,5
FINANTZA-GAITASUN TXIKIKO TALDEA, SARRERAK KONTUAN HARTUTA	**FINANTZA-GAITASUN TXIKIKO TALDEA, SARRERAK KONTUAN HARTUTA**
• 9.000 € baino gutxiago: %2,2 • 15.000 € baino gutxiago: %10,4 • 21.000 € baino gutxiago: %31,7 • 27.000 € baino gutxiago: %63,4 • 33.000 € baino gutxiago: %70,3	• 9.000 € baino gutxiago: %3,5 • 15.000 € baino gutxiago: %15,2 • 21.000 € baino gutxiago: %27,6 • 27.000 € baino gutxiago: %33,7 • 33.000 € baino gutxiago: %37,7

hainbat adierazle badira. Inkestan jasotako erantzunei jarraiki, adierazgarria da egiaztatzea, 2006an, lehenego etxebizitza behar duten gazteek, teorikoki, beren soldata guztia etxea ordaintzeko erabilita, 8 urtetan ordainduko luketela prezio onargarria duen etxebizitza bat, eta 1996an, berriz, 5,5 urtetan erosiko lukete etxebizitza.

Aurrekoari lotuz, aipatu behar da azken hamarkadan hipoteka-maileguaren amortizazio epea asko zabaldu dela: azken 2 urte hauetan etxebizitza erosi dutenen %54,5ek 25 urte baino gehiagorako mailegua eskatu du, eta orain 5-9 urte erosi zutenen artean %17,2k baino ez.

Bestalde, azken urtean izan den interes-tasen igoerak izango duen eraginari jarraiki, badirudi, oraindik ere, azkar samar dela etxebizitza behar duten pertsonek zer finantza-ahalegina egin behar duten jakiteko (etxebizitza librearen prezioen eboluzioaren gain izango duen eragin handiagoaren edo txikiagoaren arabera jakingo da). Dena dela, inkestan jasotako erantzunei jarraiki, egiazta daiteke azken urteetan etxebizitza erosi duten familien ekonomian eragin nabarmena izan duela igoera horrek, bereziki orain gutxi etxebizitza erosi duten familietan (zorrik handienak dituztenak, seguruenera).

Amaitzeko, etxebizitza-politika publikoen harrera merezi duten taldeen barruan, etxebizitza arloan babes.jardueren helburu izan behar duten pertsonak desberdindu behar dira, dituzten muga ekonomiko-finantzarioengatik, aurkeztu berri ditugun parametroak kontuan hartuta. Helburu horretarako, pertsonen egoera ekonomikoa bereizteko adierazle nagusi gisa aitortutako gehienezko prezio onargarria erabiltzen da, izan ere, galdera honi erantzuteko garaian inkesta egin duten pertsonek beren erosteko ahalmena mugatzen duten egoera guztiak hartu dituzte kontuan (sarrerak, ondarea, familia-kargak eta abar). Edonola ere, azterketa honen osagarri da sarreren adierazlea kontuan hartuta egindakoa, izan ere, adierazle hori erabiltzen du indarrean dagoen etxebizitzari buruzko araudiak.

Behar babesgarriak bereizteko balio kritikoei dagokienean, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak bi erreferentzia puntu proposatu ditu: 96.000 euroko muga, BOEren salmenta-prezioei aurre egiteko zailtasunak dituzten

pertsonak identifikatzeko eta 150.000 euroko barrera etxebizitza libre bat erosteko zailtasunak dituzten gainerako pertsona guztientzat. Lehenego mugari dagokionean, 2006ko Oinarrizko Inkestaren emaitzen arabera, lehenego etxebizitza behar duten gazteen %8k uste du ezingo diola aurre egin prezio horretako etxebizitza bat erosteari. Etxe aldaketa behar duten familien %10 ere egoera berean dago; beraz, guztira, etxebizitza arloan, behar horien %18 izaera sozialeneko laguntzen helburu izan beharko litzateke (%14,3 2005ean).

Talde babesgarriak nabarmen egin du gora 150.000 euroko bigarren muga kontuan hartuta; horrela, bada, etxe-sarrera behar duten pertsonen %41,3k eta etxe-aldaketa behar duten familien %24,5ek ez luke prezio honetako etxebizitza bat erosteko gaitasunik izango. Ondorioz, 2006ko Oinarrizko Inkestaren bidez antzeman diren behar guztien %65,8k adierazten du zailtasun handia dutela etxebizitza libre bat erosteko (%40,5ek 2005ean).

Edonola ere, ondorio horiek ez datoz erabat bat familien sarrera gordin haztatuen mailari begira lortzen diren ondorioekin (irizpen hori erabiltzen da ofizialki etxebizitzetarako diru-laguntza publikoak emateko). Horrela bada, etxe sarrera behar duten gazteen %10,4k eta etxe aldaketa behar duten familien %15,2k 15.000 euro baino sarrera txikiagoak dituzte, eta, beraz, izaera sozialeko laguntzen arloan kokatu dira (2005ean %13,8 eta 9,1 hurrenez hurren). Lehenengo etxebizitza eskuratu nahi duten gazteen %70,3k eta etxe aldaketa behar duten familien %37,7k 33.000 euro baino gutxiagoko sarrera gordin haztatuak dituzte, eta, beraz, laguntza ofizialak jasotzeko eskubidea dute eta BOE baten esleipendun izan daitzezke (%72,7 eta 26,3 2005eko inkestako datuen arabera).

3.4. Etxebizitza politika

3.4.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren aurrekontu-gastua aurreko hamarkadan Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu guztiaren %2,8 izan da (1997-2005 epeko batez bestekoa). 1997-2001 epean, Eusko Jaurlaritzaren aurre-

IV.3.18. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA PROGRAMAK GAUZATUTAKO GASTUAREN EBOLUZIOA (MILIOI €)

	2002	2003	2004	2005	Guztira 02-05	Batez besteko gastua 02-05	2006	2006 % BPG/ arabera
ZUZENEKO INBERTSIOAK								
Lurzorua erostea	16,17	9,14	6,13	13,68	45,11	11,28	23,06	0,04
Urbanizatzea	7,05	11,17	8,19	11,16	37,57	9,39	11,45	0,02
Etxebizitzak eraikitzea	33,40	37,01	49,41	42,98	162,80	40,70	37,05	0,06
Higiezinak erostea laborategirako	0,50	0,18	0,53	0,04	1,26	0,31	0,25	0,00
Gainerako inbertsioak	0,00	0,03	0,11	0,02	0,15	0,04	0,06	0,00
Guztira	**57,12**	**57,52**	**64,37**	**67,89**	**246,90**	**61,72**	**71,87**	**0,12**
KAPITAL TRANSF. ETA DIRU LAG.								
Etxebizitzak sustatzeko diru-laguntzak VISESA	10,52	13,43	11,96	16,46	52,36	13,09	19,21	0,03
Hitzartutako sustapenetarako diru-laguntzak	3,32	5,92	6,61	5,78	21,63	5,41	4,85	0,01
Diru-laguntzak eta subsid. familiei	19,70	24,61	24,67	19,67	88,66	22,16	19,24	0,03
Calidad-Eraikal programa	0,99	0,89	0,99	0,81	3,68	0,92	0,45	0,00
Gainerako kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,14	0,00
Lurrak erosteko eta urbanitzatzeko diru-laguntzak	0,32	0,32	0,15	0,00	0,79	0,20	0,25	0,00
Alokairu-sustapenak diruz laguntz.	0,90	2,51	2,54	5,58	11,52	2,88	7,60	0,12
Eremu degradatuak	5,56	7,37	11,39	0,56	24,88	6,22	1,90	0,00
Iristerraztasuna	2,70	2,86	2,16	2,58	10,29	2,57	3,00	0,00
Alokabide diru-laguntzak	0,00	0,00	2,69	3,26	5,95	1,49	6,79	0,01
Orubide diru-laguntzak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Inbertsio finantzarioak eta epe luzerako kredituak	0,00	0,00	0,00	0,03	0,03	0,01	0,00	0,00
BIZIGUNE programa	0,00	2,00	4,50	8,00	14,50	3,62	10,00	0,02
TANTEOA ETA ATZERA-ESKURATZ.	0,27	0,27	0,27	0,51	1,32	0,33	0,50	0,00
Iraunkortasuna	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,02	0,00
Guztira	**44,27**	**60,17**	**67,94**	**63,24**	**235,61**	**58,90**	**73,95**	**0,12**
GUZTIRA KAPITAL GASTUA	101,39	117,69	132,31	131,12	482,50	120,63	145,82	0,24
GASTU ARRUNTA	17,83	19,04	22,03	26,30	85,21	21,30	25,77	0,04
GUZTIRA GAUZATUTAKO GASTUA	**119,22**	**136,73**	**154,34**	**157,43**	**567,71**	**141,93**	**171,59**	**0,28**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren Behatokia.

IV.3.19. KOADROA. ETXEBIDE PLANEAN EGINDAKOAK (JARDUERA KOPURUA)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Hasitako babestutako etxebizitza eraikitzea	4.284	5.054	6.625	4.427	4.625	5.273
– Babes ofizialeko etxebizitzak	3.695	3.954	5.816	3.981	3.830	4.828
– Etxebizitza sozialak	589	1.100	809	446	795	320
– Hornitutako ostatuak	—	—	—	—	—	125
Lurra erostea (etxebizitza kopuruaren arab.)	3.297*	2.277	2.065	3.430	3.890	3.625
Etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzen egindako jarduerak	9.106	12.040	11.159	23.914	15.471	13.905
Etxebiz. libre erabiliak erosteko laguntzak	2.099	n.d.	1.509	2.142	645	31
Etxebiz. hutsak alokatzeko eta alokairuan jartzeko erosketetarako laguntzak	—	n.d.	528	718	889	2.619

(*) 2000an 767 etxebizitzen eta 2001ean 1.207 etxebizitzen urbanizazioa du sarturik.
Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila.

kontu-gastu guztian Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailak %2,2ko parte hartzea izan zuen. 2002ko ekitalditik, aurrekontu mailari dagokioen, egoera hori zuzendu egin da zati batean, eta sailaren aurrekontuak Jaurlaritzaren aurrekontu guztiaren %3 inguruko parte hartzea izan du.

Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren Etxebizitza Progaman gauzatu den gastuak gora egin du nabarmen azken urteetan, eta 2006an 171,6 milioi eurora iritsi da, aurreko urtean baino %9 gehiago. Gastu hori EAEko BPGren %0,28 da, behinbehineko datuak kontuan hartuta, eta tasa hori ez da ia aldatu azken urteetan (%0,27 2005ean).

Programa honen barruan egindako inbertsio-bolumena hazi egin da, eta 135,6 milioi eurora irtsi da 2006an. Horretaz gain, nabarmendu behar da programa honek izaera inbertitzailea izan duela nagusiki urteetan, izan ere, 1987-2006 aldian egindako inbertsioak gastuen bolumen guztiaren %90 izan dira.

IV.3.20. KOADROA. ETXEBIZITZA BIDERATZEKO PLANETIK EMANDAKO MAILEGUAK ETA DIRU-LAGUNTZAK XEDEA KONTUAN HARTUTA

Xedea	2005		2006	
	Etxebizitza kopurua	Kopurua (mila €)	Etxebizitza kopurua	Kopurua (mila €)
MAILEGUAK*	**4.910**	**231.118**	**7.644**	**365.372**
Sustatzailea	2.525	180.194	3.024	278.182
Eskuratzaile babest.	284	18.195	245	43.914
Erabilitak. eskuratz.	6	364	24	1.654
Alokair. eskuratzea	856	24.814	2.831	32.105
Laguntza orokorra	—	—	2	1.670
Zaharberritzea	1.239	7.550	1.158	7.848
DIRU-LAGUNTZAK**	**16.114**	**17.274**	**13.936**	**14.291**
Eskuratzaileak	643	732	31	174
Zaharberritzea	15.471	16.542	13.905	14.117

*** Mailegu onartuak eta gauzatuak (subrogatuak + ez subrogatuak).**
**** Diru-laguntzak:Hasierako laguntzak.**
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila.

2006an Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikaren bidez 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plana onetsi eta abian jarri da, eta proiektu horrek datozen urteetarako etxebizitza politikak izango dituen ildo estrategiko handiak definitu ditu. Babestutako etxebizitza gehiago eskainiko da, eta hori da helburu nagusiena eta horren inguran egituratu da plan berri hau, bai ikuspuntu kuantitatiboa kontuan izanik bai kualitatiboa kontuan izanik. Horretarako etxebizitza beharren profil desberdinak hartu ditu kontuan, tipologia anitzeko erantzunak eta behar bakoitzera egokitutakoak emateko. 2.800 milioi euroko aurrekontua du indarrean dagoen aldi guztirako, eta 2009rako 88.201 unitateko babestutako etxebizitzen parkea lortu nahi da planaren bidez, horietatik %22 alokairukoak.

2006an egindakoa kontuan hartuta, urte honetan ere babestutako etxebizitza gehiago eraiki da: zehazki esateko, 5.273 etxebizitza hasi dira egiten, 2005ean baino %14 gehiago, BOEi esker (+%26), izan ere etxebizitza sozialak %60 murriztu baitira. Berrikuntza gisa, urte honetak 195 ostatu hornitu eraikitzen hasi dira. Bestalde, Sailak etxebizitzak eraikitzeko lurra eskuratzeko jarduerak murriztu egin ditu %6,8: 3.625 etxebizitza berri eraikitzeko lurra lortu da, 2005ean baino 265 gutxiago.

Eskaria eta eskaintza bizkortzeko mailegu eta dirulaguntza gisa emandako laguntzei dagokienean, esan behar da, 2006an, nabarmen gehitu direla laguntzak, izan ere, maileguetarako funtsak handitu egin dira eta diru-laguntzak gutxitu. Guztira 2006an 379.663 milioi erabili dira zeregin horretarako, 2005ean baino %52,8 gehiago, izan ere, urte horretan laguntza hauek %24 murriztu ziren.

Lehen lehenik aipatu azken urtean emandako maileguak %55,7 hazi direla (jarduera edo etxebizitza kopurua 4.910 izatetik 7.644 izatera igaro da), eta, era berean, maileguen guztizko kopurua, 365 milioi, %58,1 hazi

IV.3.15. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BIDERATZEKO PLANA: MAILEGUAK ETA DIRU-LAGUNTZAK LURRALDEKA. MILA €



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila. Etxebideren estatistikak.

da. Sustatzaileei emandako maileguak ere hazi egin dira (horretarako erabilitako kopuruaren +%54), baita erabilitako etxebizitzak erosteko (1,7 milioi euro, 2005ean izandako 364.000 euroren ordez) eta etxebizitza babestuak erosteko maileguak ere (ia 44 milioi euro erabiltzen dira horretarako).

Bestetik, 2006an ere diru-laguntzak murriztu egin dira, %13,5 espedienteei dagokienean eta %17,3 kopuru guztiari dagokionean. Diru-laguntzetarako zuzendutako 14,3 milioietatik %98,8 etxebizitzak zaharberritzeko jardueretarako erabiltzen da. Zaharberritzeko batez beste 1.069 euroko diru-laguntza ematen da, 2005ean emandako kopuru bera. Lurraldeka, Araban emandako maileguetarako funtsen bolumena nabarmen hazi da, izan ere, lurralde horretan 250,5 milioi euro erabili dira maileguetarako, aurreko urtean baino %245 gehiago, eta 2006ko mailegu eta diru-laguntzak batuta ateratako kopurua %66 hazi da. Hazkunde hori are gehiago nabarmentzen da beste bi lurraldeetan helburu bererako funtsak murriztu egin direlako: Bizkaian %33,6 murriztu dira eta Gipuzkoan %23,8. Horrela bada, guztira, esan bezala, murriztu badira ere %17 baino gehiago, berriro ere, Arabarako erabiltzen da.

3.4.2. Foru Alduendien etxebizitza-politikak

Eusko Jaurlaritzak duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da ezagutzea gastu fiskalen zifra handiak, izan ere, Foru Alduendiek etxebizitzaren alorrean duten esku hartze publikoaren instrumentu dira. 2004ko ekitaldikoak dira azken datuak eta iturria Eusko Jaurlaritzaren Zerga Koordinaziorako Erakundearen "*Euskal Ogasunaren urteko txosten osoa*" da.

Hiru Foru Aldundien PFEZ kitapenetatik abiatuta nabarmen daiteke ohiko etxebizitzagatik (etxebizitza alokairua, inbertsioa eta errentamendua) izandako kenketen kopurua —guztiak kontuan hartuta kenketa nagusi izan dira kuantitatiboki (kenketa guztien %38,4)— 2004an 376 milioi euro izan zela, aurreko urtean baino %5,4 gehiago. Kopuru hori Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programaren barruan urte horretan gauzatutako gastuaren %244 da, aurreko atalean ikusi dugun bezala.

Kenkari hauek pisu handiagoa dute errenta ertainetan. Tarte horretan pilatzen dira aitorpenik gehienak. Horrela, 20.400 eurorainoko errenten tarteak kenkari horien %50,6 pilatzen du, eta gehiengoa 20.400 eta 22.800 euro artekoan dago, tarte horretan %53 baino gehiago baitira. Gero, jaitsi egiten dira, errenta-mailak igo ahala. Lurraldeka, Arabako kenkari guztien %46 izan zen, Bizkaikoen %36,6 eta %37,7 Gipuzkoan.

Grafikoan ikusten dugun bezala, ohiko etxebizitzagatik izandako kenkariak geroz eta gehiago izan dira azken

IV.3.21. KOADROA. PFEZ AITORPENETAN ETXEBIZITZAGATIK IZANDAKO KENKETEN KOPURUA. 2004. MILIOI €

	2004				2003	Ald. 03/04
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	EAE	
Ohiko etxebizitzaren akura	5,79	9,60	9,03	24,42	21,10	15,7
Etxebizitzarako aurreztea	6,43	18,56	8,51	33,50	33,40	0,3
Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioa	41,13	127,12	69,46	237,71	221,30	7,4
Ohiko etxebizitza finantzatzea	12,47	38,99	23,01	74,48	74,20	0,4
Etxebizitza alokatzea	1,24	3,33	4,67	9,24	8,40	10,0
Guztira etxebizitza kenkariak	67,06	197,60	114,68	376,01	356,90	5,4
% kenkari guztien gain	46,0	36,6	37,7	38,4	38,8	–1,0

Iturria: Zerga Koordinazioarako Erakundeak emandako datuetatik eginda.

IV.3.16. GRAFIKOA. PFEZN ETXEBIZITZAGATIKO KENKETEN KOPURUAREN EBOLUZIOA ETA KENKETA GUZTIEN GAINEAN DUEN PISUA



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Zerga Koordinaziorako Erakundea.

IV.3.22. KOADROA. BATEZ BESTEKO KENKETA AITORPENEKO, ERRENTA MAILA KONTUAN HARTUTA. 2004KO PFEZ KITAPENA

Likidazio-oinarri tarteak (€)	Batez besteko kenketa aitorpeneko (€)
< 6.000	55,15
6.000 – 18.000	328,31
18.000 – 30.000	512,61
30.000 – 42.000	568,95
42.000 – 54.000	656,21
> 54.000	889,05

Iturria: Euskal Ogasunaren 2005eko Urteko Txosten Osoko datuetatik abiatuta egin da. Zerga Koordinaziorako Erakundea.

urteetan, eta adibidez, 2004koa 1997koaren aldean %353 da (1999-2000 urteetan nabarmen hazi zen kopuru hori, +%40,3, alegia, epigrafe honetan etxebizitza errentamentuagatiko kenketak sartzen hasi zirelako, izan ere, ordura arte familia eta pertsona kenkarien artean sartzen ziren).

Paralekoki, nabarmentzen da ohiko etxebizitzagatiko batez besteko kenketa geroz eta handiagoa dela errenta tarteak handiagoak diren heinean. Horrela likidazio-oinarria 6.000€ baino gutxiago bada, aitorpeneko batez besteko kenketa 55,15€ da, 6.000€ eta 18.000€ arteko tarterako batez besteko kenketa 328,31€ da, eta horrela hazten da tarte desberdinetarako. Errenta-tarte handienerako (likidazio-oinarria 54.000 € baino gehiago) batez besteko kenketa 889€ baino gehiago da, koadroan ikus dezakegun bezala.

Aisialdia, kultura eta kontsumoa

4.1. Finantzazioa eta gastu publikoa kulturan

Aurten ere, datuak eskaintzen ditugu zeharkako iturrien bitartez, Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian nahiz gizartean duen pisua aztertzeko. Zehazki, Kultura Ministerioak, iaz bezala, argitara emandako *Kulturari buruzko Estatistiken Urtekaria* da aurkeztuko duguna[1].

Urtekari horretan bada kapitulu bat non kulturaren arloko finantziazioari eta gastu publikoari buruz hitz egiten den, bai Estatuko Administrazio orokorrari dagokionez, bai Administrazio Autonomikoari dagokionez eta baita toki-administrazioari dagokionez (Tokian tokiko erakundeak: Udalak eta Diputazioak, Kontseiluak edo Kabildoak, menpeko erakunde autonomoak). Estatuko Administrazio Orokorrari dagozkion datuak ez dira Autonomi Erkidegotan banatuta aurkeztu, baina beste bi atalei dagozkien datuak banatuta daude. Datu horiek aurkeztu aurretik, bi ohar: Alde batetik, kontuan hartu beharra dago urtekariko ohar metodologikoek adierazitakoaren arabera Autonomi Erkidegoren batek eskatutako informazio guztia eman ez duenean egokitzat jo diren kalkuluak egin direla. Bestalde, argitalpenean bertan adierazten da ezinezkoa dela iturri ezberdinek emandako datu guztiak bateratzea Erkidego Autonomo guztien informazio orokorra eskaini ahal izateko.

Beste alde batetik, Kultura Ministerioaren Urtekariak Kulturako Gastu Publikotzat jo du *"kulturan gastatutako dirua, administrazio publiko ezberdinek aintzatetsitako betebeharren fasean, finantzatzailearen izaera izango delarik gastuaren izaera publiko edo pribatua zehaztuko duena, eta ez jasotzailearen izaera"*. Beraz, ez dira kendu hainbat kultura erakunde publikok, esate baterako museoek, jasotzen duten jatorri pribatuko dirua. Eta ez dira kulturako gastutzat hartu enpresek edo partikularrek erakunde publikoei babesa, emariak etab. emateagatik izan ditzaketen zerga-arintze fiskalak.

2004. urtean Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioak 74,7 milioi euro gastatu zituen, Kultura Ministerioaren datuen arabera, 2003. urtean gastatukoa baino 0,4 milioi gutxiago, beraz. %0,5eko gutxitzea izan zen. Gastu hori 2004. urtean Estatuko Autonomi Erkidegoetako Administrazioek kulturan gastatutako diruaren %5,6 izan zen (%6,2 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzaren urte horretako gastu osoaren %1,1 (%1,2 urtean). Gainera gure erkidegoko BPGren %0,15 izan zen, Autonomi Erkidego guztien batez bestekoa baino zertxobait baxuagoa (2003 urtean %0,16 izan zen, Autonomi Erkidego guztien batez bestekoa). Adierazle honetan Galizia eta Nafarroa

[1] Ikerketa honetan kontuan hartu diren kulturaren sektoreak honako hauek dira: kultura ondasun eta zerbitzuak (monumentuak, museoak, aztarnategiak arkeologikoak, artxiboak eta bibliotekak), arte plastiko eta eszenikoak (erakusketak, argazkilaritza, musika, dantza, antzerkia), liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinea, bideoa eta grabatutako musika), diziplina artekoak (kultura sustatu eta zabaltzea, administrazioa eta zerbitzu orokorrak eta hizkuntza politika).

4

daude buruan, dituzten ezaugarri bereziak direla eta Melilla alde batera utzita. EAEko biztanleko gastua 35,3 eurokoa izan zen 2004. urtean, 2003an baino 0,3 txikiagoa, eta estatuko batez bestekoa baino %14,6 altuagoa.

Dirua zertan gastatu zen kontuan hartuta, EAEan 74,7 milioi euroren %28,2 kultura ondasun eta zerbitzuetan gastatu zen 2004. urtean (%28,9 aurreko urtean) eta gainontzeko diruaren (%71,8) banaketaren daturik ez dago.

IV.4.1. Koadroa. Autonomia erkidegoetako administrazioek kulturan gastatutako dirua autonomi erkidegoka. 2000, 2003 eta 2004

	Balio Absolutuak (milioi €)		Estatuan kulturan Gastatutako Diruaren % zenbat		Autonomi Erkidegoetan guztira Gastatutako Diruaren % zenbat.			BPG-ren % zenbat			Batez besteko Gastua biztanleko (€)		
	2003	2004	2003	2004	2000	2003	2004	2000	2003	2004	2000	2003	2004
Guztira estatuan	1.217,9	1.329,3	100,0	100,0	1,18	1,09	1,07	0,16	0,16	0,16	23,5	28,5	30,8
Andaluzia	172,4	183,1	14,2	13,8	0,78	0,82	0,80	0,16	0,17	0,16	17,6	22,7	23,8
Aragoi	27,3	34,4	2,2	2,6	1,21	0,78	0,90	0,13	0,12	0,13	20,1	22,2	27,5
Asturias	36,7	34,7	3,0	2,6	1,26	1,29	1,12	0,15	0,23	0,19	19,3	34,1	32.3
Balearrak	15,7	11,4	1,3	0,9	1,06	0,73	0,49	0,07	0,08	0,05	11,8	16,5	11,9
Kanariak	30,8	32,9	2,5	2,5	0,69	0,67	0,62	0,11	0,10	0,10	15,7	16,3	17,2
Kantabria	29,6	23,6	2,4	1,8	2,13	1,92	1,40	0,22	0,31	0,22	31,9	55,8	42,5
Gaztela eta Leon	84,5	121,7	6,9	9,2	1,64	1,17	1,56	0,20	0,20	0,27	28,1	34,0	48,8
Gaztela-Mantxa	46,5	62,4	3,8	4,7	1,55	0,82	0,98	0,23	0,18	0,22	28,1	25,6	33,8
Katalunia	210,4	221,6	17,3	16,7	0,99	1,21	1,02	0,14	0,15	0,14	24,6	31,4	32,5
Valentziako Erkidegoa	118,6	111,1	9,7	8,4	1,76	1,25	1,07	0,23	0,16	0,14	32,3	26,5	24,4
Extremadura	44,6	41,8	3,7	3,1	1,82	1,25	1,13	0,35	0,34	0,30	34,2	41,5	38,9
Galizia	101,7	133,3	8,4	10,0	1,33	1,27	1,57	0,26	0,26	0,31	31,2	37,0	48,5
Madril	141,0	151,6	11,6	11,4	1,12	1,21	1,14	0,06	0,11	0,10	13,1	24,6	26,1
Murtzia	24,3	29,4	2,0	2,2	0,80	0,89	0,97	0,08	0,13	0,14	10,3	19,1	22,7
Nafarroa	38,5	43,1	3,2	3,2	1,65	1,43	1,53	0,36	0,31	0,30	69,1	66,6	73,7
EAE	**75,1**	**74,7**	**6,2**	**5,6**	**1,24**	**1,17**	**1,11**	**0,17**	**0,16**	**0,15**	**31,2**	**35,6**	**35,3**
Errioxa	8,4	11,1	0,7	0,8	1,54	1,00	1,24	0,15	0,15	0,18	26,4	29,3	37,9
Ceuta	7,7	2,6	0,6	0,2	1,74	4,06	1,45	—	0,34	0,21	27,3	102,3	35,4
Melilla	4,2	4,7	0,3	0,4	3,79	2,84	2,93	—	0,35	0,41	71,3	61,0	69,0

Iturria: Kultura Ministerioa. Kulturaren Finantzazio eta Gastu Publikoari buruzko Estatistikak. Kulturari buruzko Estatistiken Urtekaria 2006.

IV.4.2. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ADMINISTRAZIOEK KULTURAN GASTATUTAKO DIRUA ERAKUNDEEN ETA ERABILERAREN ARABERA EUROAK MILIOIKA

	Erakunde mota bakoitzaren gastua						Erabileraren araberako gastua					
	Guztira		Udalak		Foru Aldundiak, Kontseiluak eta Kabildoak		Guztira		Sustapena eta zabaltzea		Ondarearen arkeologia eta babesa	
	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004
Guztira estatuan	2.645,9	2.674,1	2.178,7	2.254,7	527,0	479,0	2.645,9	2.674,1	2.413,1	2.427,7	232,8	246,5
Andaluzia	353,2	364,7	302,7	325,2	58,1	48,7	353,2	364,7	326,4	339,5	26,8	25,1
Aragoi	87,7	86,0	72,5	70,8	21,0	20,6	87,7	86,0	78,0	79,1	9,7	7,0
Asturias	47,3	44,8	47,3	44,8	—	—	47,3	44,8	46,2	41,4	1,1	3,3
Balearrak	67,0	78,6	44,9	54,2	23,3	25,9	67,0	78,6	57,1	70,7	9,9	7,8
Kanariak	199,8	164,8	95,2	84,6	113,1	90,9	199,8	164,8	168,4	146,7	13,4	18,1
Kantabria	21,3	25,5	21,3	25,5	—	—	21,3	25,5	20,1	23,8	1,2	1,7
Gaztela eta Leon	137,2	128,3	116,7	104,2	24,7	27,4	137,2	128,3	130,4	120,3	6,8	8,0
Gaztela-Mantxa	131,6	143,1	117,1	128,9	17,2	16,3	131,6	143,1	126,4	135,8	5,2	7,3
Katalunia	467,6	469,0	399,8	400,3	81,2	81,6	467,6	469,0	426,3	425,8	41,3	43,2
Valentzia	270,0	293,5	231,3	259,4	42,2	36,0	270,0	293,5	235,6	253,4	34,4	40,1
Extremadura	56,6	46,8	46,4	37,0	11,1	11,0	56,6	46,8	48,8	38,5	7,9	8,3
Galizia	162,0	139,0	126,6	114,5	40,3	27,8	162,0	139,0	154,3	125,0	7,8	14,0
MadriL	258,3	281,0	258,3	281,0	—	—	258,3	281,0	237,9	263,8	20,4	17,2
Murtzia	54,7	56,6	54,7	56,6	—	—	54,7	56,6	46,8	47,7	7,9	8,8
Nafarroa	31,4	53,6	31,4	53,7	—	—	31,4	53,6	32,3	53,6	0,0	0
EAE	**272,7**	**285,2**	**184,8**	**200,7**	**94,7**	**92,9**	**272,7**	**285,2**	**237,4**	**250,7**	**35,3**	**34,5**
Errioxa	27,6	13,8	27,6	13,8	—	—	27,6	13,8	23,8	11,8	3,9	1,9

Iturria: Kultura Ministerioa. Kulturaren Finantzazio eta Gastu Publikoari buruzko Estatistikak. Kulturari buruzko Estatistiken Urtekaria 2006.

Autonomi Erkidego guztiak kontuan hartuta, kultura ondasun eta zerbitzuetan gastatutako dirua %38 izan zen (%38,5 aurreko urtean).

Gastuaren izaera ekonomikoa kontuan hartuta, %82,2 ohiko gastuetarako izan zen (estatuko batez bestekoa berriz %57,9 izan zen), %9 kapital-gastuak (estatuan %40,9) eta gainontzeko %8,9a aktibo eta pasibo finantzarioen kontu-sailaren barne zegoen (%1,2 estatuan).

Urtekarian EAEko "Toki-administrazioa" deritzonak 2004. urtean kulturan 285,2 milioi euro gastatu zituela adierazten da, hau da, estatuko kopuru osoaren %10,7 eta aurreko urtean baino %4,6 gehiago. EAEko toki-administrazioaren barruan, 200,6 milioi euro udalei zegozkien (kopuru osoaren %70,3) eta 92,9 milioi Foru Aldundiei[2]. Diruaren erabilerari dagokionez, %87,9 kulturaren sustatzeko eta zabaltzeko erabili zen eta gainontzeko %12,1 ondarearen arkeologiarako eta babeserako.

4.2. EAE-ko biztanleriaren ohiturak denboraren erabilera sozialari dagokionez

4.2.1. Komunikabideen erabilera

AIMC-k (Asociación para la Investigación de los Medios de Comunicación), Komunikabideen Ikerketarako Elkarteak, "Espainiako Komunikabideen Egoera Orokorra" urteroko txostenean jasotakoaren arabera, komunikabideen erabilerak[3] EAEn gutxitzeko joera du aztertutako komunikabide gehienei dagokienez. Are gehiago, interneten erabilera da garapen positiboa izan duen bakarra eta egunkariena, bestalde, oso aldakorra da.

Honako hauek dira komunikabide erabilienak: telebista, irratia, egunkariak, egunkarietako eranskinak eta aldizkariak. 2006. urtean biztanleriaren %87,9k ikusi du telebista, estatuan baino gutxiago eta aurreko urtean baino %1,9 gutxiago. Irratia biztanleriaren %62,2k en-

[2] Ikus daitekeen moduan, administrazioko bi mailak batuta lortzen den emaitza ez da toki-erakundeek duten gastua datu bateratuak baitira.

[3] Komunikabide jakin bat biztanleetatik zenbatek erabili duen neurtzen da. Komunikabidearen arabera, irakurle kopurua, ikusle kopurua, entzule kopurua edo internauta kopurua izango da.

IV.4.3. Koadroa. Komunikabideen erabilera. EAE, estatua eta EB (% horizontalak)

	Biztanleria			Egunkariak			Eranskinak			Aldizkariak		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006
EAE	**1.859**	**1.867**	**1.856**	**55,0**	**59,6**	**57,4**	**55,5**	**52,7**	**47,9**	**51,4**	**51,2**	**43,0**
Guztira estatuan	36.045	37.084	37.439	41,1	41,1	41,8	30,4	27,7	25,4	55,1	53,8	47,7
Andaluzia	6.340	6.433	6.515	30,1	31,3	33,1	21,3	18,0	13,0	48,2	47,9	41,6
Aragoi	1.082	1.094	1.095	45,5	44,3	46,6	37,3	34,5	33,5	56,0	58,0	52,3
Asturias	958	956	953	55,6	57,4	59,4	46,0	41,9	42,0	59,4	59,8	54,3
Balearrak	776	808	840	48,4	44,3	48,6	29,0	28,2	26,0	62,5	62,3	56,2
Kanariak	1.508	1.548	1.648	40,1	38,7	40,5	16,3	17,3	22,5	61,9	58,0	56,7
Kantabria	482	486	491	52,8	52,0	47,1	51,6	47,6	41,2	55,3	52,2	38,1
Gaztela eta Leon	2.191	2.193	2.190	44,8	42,0	43,9	36,8	32,8	30,2	56,7	53,7	49,9
Gaztela-Mantxa	1.555	1.585	1.609	25,7	27,7	27,5	17,0	15,5	18,2	49,0	49,5	46,4
Katalunia	5.774	5.921	5.952	45,8	44,8	45,6	30,8	26,6	24,1	57,5	57,9	51,0
Valentziako Erkidegoa	3.799	3.915	3.974	33,5	30,8	32,8	23,3	20,3	18,1	54,2	51,8	45,8
Extremadura	902	904	918	28,6	26,5	30,0	23,9	16,8	11,1	50,9	39,9	35,9
Galizia	2.415	2.422	2.415	47,9	47,2	52,1	34,2	32,8	34,4	51,5	48,0	49,2
Madril	4.951	5.096	5.104	47,2	49,6	45,2	33,1	34,6	32,1	64,8	61,0	51,5
Murtzia	1.060	1.093	1.110	31,8	30,9	31,8	28,8	21,6	17,9	48,8	51,3	40,8
Nafarroa	498	507	507	57,7	59,0	61,5	55,2	49,6	45,6	52,3	53,4	47,1
Errioxa	252	257	262	48,0	44,6	46,4	44,2	43,1	34,5	52,2	59,2	53,7

	Irratia (*)			Telebista (*)			Zinea (**)			Internet (***)		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006
EAE	**68,1**	**65,2**	**62,2**	**89,3**	**89,8**	**87,9**	**9,7**	**9,4**	**5,5**	**21,7**	**24,5**	**26,4**
Guztira estatuan	56,8	55,5	56,1	89,6	88,9	88,6	8,9	7,1	6,0	16,8	19,7	22,2
Andaluzia	55,9	52,1	52,7	91,5	91,7	91,8	8,4	5,6	4,6	14,3	16,0	17,8
Aragoi	55,7	54,4	58,8	90,6	88,1	90,5	5,9	5,0	4,6	17,3	20,1	23,2
Asturias	59,2	56,9	60,0	90,8	90,1	89,1	7,6	4,2	4,9	16,0	19,8	24,4
Balearrak	56,5	52,4	52,6	89,2	86,8	84,4	10,7	6,3	6,1	20,1	21,3	24,4
Kanariak	53,4	53,8	52,5	86,0	85,6	84,9	9,5	6,0	6,1	15,8	19,9	25,8
Kantabria	63,1	61,0	59,4	86,5	86,9	86,1	8,3	9,2	6,3	20,0	21,5	20,0
Gaztela eta Leon	59,2	56,6	60,9	91,9	88,8	89,3	7,1	5,8	5,9	12,9	14,8	18,9
Gaztela-Mantxa	49,0	53,1	51,8	93,8	92,8	90,4	5,2	4,5	4,9	10,2	13,0	17,5
Katalunia	56,0	55,6	55,1	88,0	88,8	87,7	10,4	8,8	7,9	20,3	23,7	27,8
Valentziako Erkidegoa	55,5	53,5	55,4	90,3	85,5	87,9	9,6	6,8	6,1	15,8	18,8	19,5
Extremadura	50,9	51,2	44,4	93,4	93,0	93,3	5,6	5,2	3,1	11,4	9,1	10,2
Galizia	53,9	52,2	55,8	86,9	87,6	87,9	7,7	4,3	4,5	12,0	12,6	18,2
Madril	60,1	60,6	61,3	88,4	88,5	86,9	11,1	10,6	7,3	22,5	27,5	28,3
Murtzia	55,8	54,7	53,9	88,8	86,7	86,8	5,0	7,2	5,9	13,5	18,2	17,1
Nafarroa	56,5	57,1	59,0	88,2	87,9	87,2	10,3	6,4	8,0	18,1	19,5	21,2
Errioxa	55,6	60,5	59,4	91,9	91,6	88,2	9,5	9,0	13,6	16,5	20,4	18,9

(*) Eguneko entzule kopurua, (**) Gutxienez astean behin, (***) Azken 30 egunetan.
Iturria: AIMC, Komunikabideen Egoera Orokorra, 2005, 2006 eta 2007. Biztanleria milakoetan.

tzun du, estatuko batez bestekoak baino %56,1 gehiagok eta aurreko urtean baino %3 gutxiagok. Egunkarien eta eranskinen erabilera estatuko batez bestekoa baino handiagoa izan da eta aurreko urtekoa baino txikiagoa. Egunkarien kasuan murrizpena %2,2koa izan da eta eranskinen kasuan %4,8koa. Aldizkariei dagokienez, estatuko erabilera baino txikiagoa da erkidegokoa (%43 erkidegoan %47,7 estatutan) eta aurreko urtekoa baino %8,2 txikiagoa.

Bestalde, zinea eta internet askoz gutxiago erabili dira: %5,5 zinea (%9,7 2004 urtean eta %9,4 2005ean) eta %26,4 internet (%21,7 2004ean eta %24,5 2005ean). Zinera joaten den jende kopurua murrizten ari dela nabarmendu beharra dago eta baita erkidegoko ehunekoa estatukoa baino baxuagoa dela ere.

Laburbilduz, AIMC-en datuen arabera, komunikabide ezberdinen erabilera, aldizkariak salbu, azken urteotan EAEn estatuan baino handiagoa izan den arren, 2006 urtean aldaketak izan dira. Egunkariak, eranskinak, irratia eta internet estatuan baino gehiago erabili dira, ez aldizkariak (EAEn erabilera %43 izan zen, estatuan berriz %47,7), eta aurreko urteetan ez bezala, ezta telebista (87,9 erkidegoan eta %88,6 estatuan) ez eta zinema ere (%5,5 erkidegoan eta %6 estatuan).

Telebistaren erabilerari dagokionez, Komunikabideen Egoera Orokorreko datuek adierazten dute batez beste

IV.4.1. Grafikoa. Telebistaren erabileraren bilakaera EAEn eta estatuan. Ikusitako batez besteko minutu kopurua



Iturria: AIMC. Espainiako Komunikabideen Egoera Orokorra 2006.

eguneko 196 minutukoa izan dela 2006. urtean EAEn (%5,7ko murrizpena 2005. urteko 208 minutuekin konparatuz) eta estatuan berriz 222 minutukoa (aurreko urtearekin konparatuz aldaketarik gabe). Grafikoak adierazten duen bezala, aztertutako epean telebistaren erabilera txikiagoa izan da gure erkidegoan, 2002 eta 2006 bitartean murrizpena bereziki nabarmena izan zelarik.

Zinemari dagokionez, EINren datuak eta Kultura Ministerioaren Informazio Buletinaren datuak hartu dira kontuan, izan ere EINren datuak 2004. eta 2005. urteari dagozkie eta buletinak 2006ko egoera ezagutarazten du.

Beraz, EINren datuak kontuan hartuta, 2004 eta 2005 urteetan ikusleen kopurua %14,6 murriztu zen EAEn eta

IV.4.4 Koadroa. Zineari buruzko adierazleak autonomi erkidegoka

	Ikusleak (milioiak)			Areto kopurua			Bildutako dirua (euroak milioitan)			Batez besteko gastua ikusleko (€)			B. besteko gastua biztanleko (€)		
	2003	2004	2005	2003	2004	2005	2003	2004	2005	2003	2004	2005	2003	2004	2005
Estatua	137,5	143,9	127,6	4.253	4.390	4.401	639,4	691,6	634,9	4,7	4,8	5,0	15,0	16,0	14,4
Andaluzia	18,8	20,6	19,4	710	742	766	77,6	87,7	84,8	4,1	4,3	4,4	10,2	11,4	10,8
Aragoi	3,3	3,2	2,8	83	92	89	15,0	15,5	13,9	4,6	4,8	5,0	12,2	12,4	10,9
Asturias	2,7	2,7	2,2	92	91	87	12,9	13,4	11,5	4,7	4,9	5,2	12,0	12,5	10,7
Balearrak	3,4	3,5	3,2	109	108	100	16,9	17,9	16,5	5,0	5,1	5,2	17,8	18,7	16,8
Kanariak	6,2	6,3	5,3	181	181	172	27,1	29,0	25,4	4,3	4,6	4,8	14,3	15,1	12,9
Kantabria	1,6	1,7	1,4	47	41	41	6,8	7,4	6,5	4,3	4,4	4,7	12,4	13,4	11,5
Gaztela eta Leon	6,1	6,4	5,4	258	261	265	25,9	28,0	24,1	4,3	4,4	4,5	10,4	11,2	9,6
Gaztela-Mantxa	2,9	3,3	3,0	135	139	156	12,2	14,6	13,2	4,3	4,4	4,5	6,7	7,9	7,0
Katalunia	28,9	29,0	25,4	780	779	783	144,3	149,8	136,0	5,0	5,2	5,4	21,5	22,0	19,4
Valentzia	15,2	16,7	14,7	482	503	508	68,6	77,9	71,5	4,5	4,7	4,9	15,4	17,2	15,2
Extremadura	1,9	1,9	1,6	93	88	84	7,5	8,0	7,1	4,0	4,1	4,3	7,0	7,4	6,5
Galizia	5,6	5,9	5,1	193	198	213	24,6	27,3	24,7	4,4	4,6	4,9	8,9	9,9	9,0
Madril	27,1	28,4	25,7	636	671	623	137,2	147,4	138,9	5,1	5,2	5,4	24,0	25,4	23,3
Murtzia	3,2	3,5	3,2	106	106	108	13,6	15,5	14,5	4,2	4,4	4,6	10,7	12,0	10,9
Nafarroa	2,1	2,3	2,1	67	91	91	10,0	11,4	10,2	4,8	4,9	4,9	17,2	19,6	17,2
EAE	**7,5**	**7,5**	**6,4**	**239**	**246**	**246**	**35,5**	**36,7**	**32,3**	**4,7**	**4,9**	**5,0**	**16,8**	**17,3**	**15,2**
Errioxa	0,6	0,7	0,6	26	37	50	2,8	3,3	3,2	4,7	4,9	5,0	9,6	11,1	10,5
Ceuta eta Melilla	0,3	0,2	0,2	16	16	19	1,0	0,9	0,9	3,8	3,8	4,0	6,7	6,3	6,1

Iturria: EIN.

IV.4.5. KOADROA. ZINEAK 2006KO ARETO KOPURUAREN, IKUSLEEN ETA IRABAZITAKO DIRUAREN ARABERA AUTONOMIA ERKIDEGOKA

	Cines	Salas	Salas por cine	% espec. s/total estatal	% pobl. s/total estatal	% recaudación s/total estatal
Andaluzia	129	753	5,8	15,02	17,84	13,31
Aragoi	38	78	2,1	2,1	2,86	2,13
Asturias	10	75	7,5	1,69	2,41	1,72
Kanariak	30	167	5,6	3,97	4,46	3,86
Kantabria	11	41	3,7	1,09	1,27	1,00
Gaztela-Mantxa	34	138	4,1	2,42	4,32	2,15
Gaztela eta Leon	63	254	4,0	4,25	5,64	3,8
Katalunia	176	771	4,4	20,21	15,96	21,82
Ceuta	2	14	7,0	0,11	0,17	0,09
Extremadura	22	77	3,5	1,19	2,43	1,02
Galizia	50	205	4,1	3,75	6,19	3,69
Balearrak	24	101	4,2	2,62	2,24	2,63
Madril	101	616	6,1	20,29	13,44	22,02
Melilla	2	4	2,0	0,05	0,15	0,04
Murtzia	38	126	3,3	2,45	3,06	2,24
Nafarroa	19	82	4,3	1,56	1,35	1,53
EAE	**61**	**243**	**4,0**	**4,89**	**4,77**	**4,89**
Errioxa	8	47	5,9	0,58	0,69	0,57
Valentzia	118	507	4,3	11,76	10,75	11,5
Guztira	936	4.299	4,6	100,00	100,00	100,00

Iturria: Kultura Ministerioa eta EIN.

ondorioz, estatuko kopuru osoko ehunekoan 2 hamarren gutxiago izatea eragin zuen, hau da, %5,2 izatetik %5 izatera pasa zen. Bestalde, ikusle bakoitzak egiten duen gastu kopurua hamarren bat igo zen epe berean, 4,9 eurotik 5 eurotara, baina igoera honek ez zuen ikusle kopurua txikitzea orekatu eta ondorioz, bildutako diru kopurua %9 murriztu zen, 36,7 milioi euro izatetik 32,3 milioi izatera pasa zen, beraz, estatu osoan bildutako diru kopuruan EAEren ekarpena %5,3 izatetik %5,1 izatera pasa zen.

Estatuko batez besteko kopuruak aztertuta, EAEn antzeko egoera dagoela ondorioztatzen da eta autonomi erkidegoei buruzko ikerketak antzeko ondorioak dituela dirudi.

Hezkuntza Ministerioaren *Zineari buruzko txosten*ean agertzen denaren arabera, EAEn 61 zinema eta 242 areto zeuden 2006an, hau da, zinemako 4 areto zeuden, estatuan baino batez beste baino gutxiago, non 4,6 areto zeuden zinemako.

Bestalde, EAEko ikusleak estatu osoko %4,89 izan dira 2006 urtean, EAEko biztanleek estatuko biztanleen artean duten kopurua (%4,77) baino zertxobait gehiago, baina EINren arabera 2004 eta 2005 urteetako kopurua baino txikiagoa. Irabazitako diruari dagokionez, estatuko batez bestekoaren berdina da %4,89 eta 2004ko (%5,3) eta 2005eko (%5,1) kopurua baino txikiagoa, lehen esan bezala.

Laburbilduz, EAEko ikusle eta diru portzentajea txikiagoa izan da azken urte hauetan estatuko ikusle eta diru kopuruari dagokionez, nahiz eta euskal ikusle portzentajea estatuko ikusle kopuruari dagokionez handiagoa izan EAEko biztanleria portzentajea estatuko biztanleriari dagokionez baino.

Biztanle kopuruak estatuko biztanle kopuru osoan duen pisua kontuan hartuta, estatuko ikusle kopuru portzentaje handiena duten erkidegoak Madril eta Katalunia dira eta bigarren tokian Valentzia, Nafarroa, Balearrak eta EAE ditugu.

4.2.2. Irakurketa ohiturak EAEn. Liburuen irakurketa

Euskadiko Editoreen Elkarteak 2006 urtean argitaratutako "Liburuak irakurri eta erosteko ohiturak, 2005" ikerketaren arabera, EAEn inkestatutako 14 urtetik gorako pertsonen erdiak (%52,5) irakurtzeko ohitura duela adierazi du[4], estatuko portzentajearen antzeko kopurua (%52,2). Hilero irakurtzen duten hamar pertsonetatik bos-

[4] Hilabetero libururen bat irakurtzen dutenak, alegia.

IV.4.6. KOADROA. LIBURUEN IRAKURKETAREN MAIZTASUNARI BURUZKOA. IRAKURLEEN SAILKAPENA, 2005

Talde bakoitzeko 100 pertsonako	Batez bestekoa (*)	Maiz irakurtzen dutenak	Noizean behin irakurtzen dutenak	Irakurtzen ez dutenak
GUZTIRA 1999	5,8	54,9	20,0	24,9
GUZTIRA 2001	5,8	52,5	25,9	21,6
GUZTIRA 2003	5,6	53,4	17,3	29,3
GUZTIRA 2005	**5,6**	**52,5**	**15,9**	**31,6**
SEXUA				
Gizona	6,3	49,6	15,9	34,5
Emakumea	5,0	55,1	15,9	29,0
ADINA				
14 - 24	4,7	70,1	12,4	17,5
25 - 34	5,4	64,1	15,1	20,8
35 - 44	6,0	57,6	15,1	27,3
45 - 54	6,1	56,6	19,6	23,8
55 edo gehiago	6,1	31,1	16,8	52,1
IKASKETAK				
Ningún Estudio	6,7	26,7	11,6	61,7
Primarios	4,8	38,1	15,5	46,2
Secundarios	5,6	53,8	18,5	27,7
Universitarios medios	5,7	68,3	16,0	15,7
Universitarios superiores	6,5	86,0	11,0	3,0
OCUPACIÓN				
Ocupados	5,8	58,3	17,0	24,7
Estudiantes	4,6	77,4	11,6	11,0
Amas de casa	4,5	41,6	19,1	39,3
Jubilados/pensionistas/ rentistas	7,6	27,4	13,6	59,0
Parados	6,7	70,2	10,1	19,7
HABITAT				
Hasta 10.000	4,6	47,1	14,0	38,9
De 10.001 a 50.000	5,0	49,6	19,0	31,4
De 50.000 a 200.000	6,6	54,2	18,0	27,7
Capitales	6,0	57,2	13,3	29,5
PROVINCIA				
Álava	6,4	56,4	9,6	34,0
Gipuzkoa	5,8	50,1	18,0	31,8
Bizkaia	5,3	52,9	16,3	30,9
CLASE SOCIAL				
Alta/Media-alta	6,1	80,4	13,0	6,6
Media-media	5,6	49,0	17,6	33,4
Media-baja/baja	4,9	35,2	15,5	49,3

(*) Media de horas de lectura a la semana con base hasta lectores semanales = 386. Total = 900
Fuente: Hábitos de lectura y compra de libros, 2003. Gremio de Editores de Euskadi.

tek egunero edo ia egunero irakurtzen dutela adierazi dute, hamarretik hiruk astean behin edo birritan irakurtzen dutela eta hamarretik bik hilean egunen batean irakurtzen dutela. Noizean behin irakurtzen duten irakurleak[5] EAEko irakurleen %15,9 dira, estatukoak (%19,9) baino lau puntu gutxiago. Irakurtzen ez duten pertsonen kopurua %31,6 da, estatuko kopurua (%27,9). baino lau puntu handiagoa.

Aurreko bi urteetan gertatu ez bezala, egunero edo ia egunero irakurtzen duten pertsonen kopurua zertxobait hazi da (+2,5 portzentaje-puntu) eta astean behin edo birritan irakurtzen duten pertsonen eta hilean egunen batean irakurtzen duten pertsonen kopurua txikitu egin da. Bestalde, inoiz irakurtzen ez duten pertsonen kopurua hazi egin da eta ia inoiz irakurtzen ez duten pertsonen kopurua, berriz, txikitu.

Emakumeek, oro har, gizonek baino liburu gehiago irakurtzen dituzte (emakumeen %55,1ek hilero irakurtzen du libururen bat eta gizonen %49,6k), baina 2003 urteko datuekin konparatuta, batzuen eta besteen arteko desberdintasuna, 13,9 puntukoa, txikitu egin da eta egun, 6,3 puntukoa da.

[5] Hiruhilekoan libururen bat irakurtzen duten pertsonak.

IV.4.2. Grafikoa. Irakurketa maiztasunaren bilakaera



Iturria: Liburuak irakurri eta erosteko ohiturak, 2005. Euskadiko Editoreen Elkartea.

Astero irakurtzen duten irakurleen batez besteko irakurketa orduak kalkulatzean, emaitza deigarria izan da, izan ere, nahiz eta irakurtzen duten gizon baino emakume gehiago izan, emakumeek gizonek baino ordu gutxiagoz irakurtzen dute; batez beste, astean 5 orduz emakumeek eta 6,3 orduz gizonek. Batez bestekoa asteko 5,6 ordukoa da, 2003an zegoen berbera eta estatukoaren antzekoa.

Adina kontuan hartuta, normalean irakurtzen duten irakurleen %71,1 16 eta 24 urte bitarteko gazteak dira, hurrengo taldean baino gutxi batzuk gutxixeago (25 eta 34 urte bitartekoak %64,1) eta adinean aurrera egin ahala kopurua gero eta txikiagoa da. Datu hau aurreko urteetan ere antzekoa izan da.

Ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan orduan eta handiagoa da irakurtzeko ohitura duten pertsonen kopurua. Amaitzeko, normalean irakurtzen duten irakurleen kopurua estuki lotuta dago lan egoerarekin, gehien irakurtzen dutenak ikasleak (%77,4) eta lanean ari direnak (%77,4) dira.

Lurralde historikoei dagokienez, Arabak du ohiko irakurle kopuru handiena, nahiz eta ezberdintasuna oso handia ez izan. Noizean behin irakurtzen duten irakurleen kopuruan, ordea, ezberdintasun handiak daude, Gipuzkoan eta Bizkaian kopurua handiagoa da. Araban irakurketa ordu kopurua handiagoa da (6,4) beste bi probintzietan baino (Gipuzkoan 5,8 eta Bizkaian 5,3) eta baita erkidego osoko batez bestekoarekin (5,6) konparatuta ere. Hala eta guztiz ere, ezberdintasunak txikiak dira.

Amaitzeko, gizarte mailari dagokionez, esan beharra dago zenbat eta gizarte maila handiagoa izan orduan eta handiagoa dela irakurtzeko ohitura duten pertsonen ko-

IV.4.3. Grafikoa. Irakurtzeko arrazoiak, EAEn eta Estatuan, 2005 (%)



Iturria: Liburuak irakurri eta erosteko ohiturak, 2006. Euskadiko Editoreen Elkartea.

IV.4.4. Grafikoa. Ez irakurtzeko arrazoiak (elkarrizketatuen %)



Iturria: Liburuak irakurri eta erosteko ohiturak, 2006. Euskadiko Editoreen Elkartea.

purua, 2001 eta 2003 urteetan egindako ikerketetan hauteman zen bezala.

Irakurketen hizkuntzari dagokionez, soilik gaztelaniaz irakurtzen duten elkarrizketatutako pertsonen kopurua txikitu egin da (%69,5% 1999an, %62,6 2003an eta %60,5 2005ean) eta euskaraz nahiz gaztelaniaz irakurtzen duten pertsonen kopurua, berriz, hazi egin da (%20,4tik %26,2).

Zergatik irakurtzen duten galdetuta, elkarrizketatutako irakurleen %94k entretenitzeko irakurtzen duela adierazi du. Emaitza hau, estatukoa (%90,40) baino lau portzentaje-puntu handiago da gutxi gorabehera. Gainontzeko arrazoien artean, ikasketak nabarmendu dira erantzunen %4,8z, estatuko emaitzekin konparatuta (%7,8) kontuan hartzeko moduko datua.

Sarriago zergatik irakurtzen ez duten galdetuta, noizean behin irakurtzen duten pertsona gehienek (liburuak hilean behin baino gutxiago irakurtzen dituztenek) denborarik ez dutela izan da erantzun ohikoena (%72,2 2003ko %69,4aren aldean). %28,6k nahiago ditu bestelako denbora-pasak edo ez du irakurtzea atsegin eta %6,7k ikusmen arazoak edo bestelako osasun arazoak ditu.

Liburuak erosteari dagokionez, elkarrizketatutako pertsonen %51,7k liburu bat erosi du gutxienez azken urtean. Irakurle bakoitzak urtean erositako liburu kopuruaren batez bestekoa 12 da, baina testu liburuak alde batera uzten baditugu batez bestekoa 9 da. 2003 urtearekin konparatuta (%75,8), kopurua gutxitu egin da.

Eskola liburuak ez direnak erosten dituzten erosleen kopurua %42,6 izan da. Erosle hauek 35 eta 44 urte bitartean izan ohi dituzte, bigarren mailako ikasketak edo hortik gorakoak , lanean ari dira, 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrian bizi dira eta goi-mailako edo erdigoi mailako gizarte mailakoak dira.

4.3. EAE-n eskaintzen diren kultura jarduerak eta aisialdirakoak

4.3.1. Kultura instalazioetara hurbildutako jende kopurua

EAE bisitatu beharreko tokitzat bihurtzen da nazioartean, sustatzen ari diren kultura instalazio kopuruagatik eta aniztasunagatik. Instalazio hauek ondare etnografiko, arkeologiko, bibliografiko eta dokumental zabala jasotzen

IV.4.7. KOADROA. KULTURA INSTALAZIOETARA JOATEN DEN BISITARI KOPURUA 1999-2006

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	05/06 hazk. %	hasiera/06 hazk. %
Araba											
Arabako Arte Eder Museoa	49.415	19.156*	12.247*	43.667	54.621	36.260	30.177	34.473	32.568	–5,5	–34,1
Arabako Arkeologia Museoa	22.730	28.664	26.233	27.663	24.375	27.573	24.672	22.875	23.843	4,2	4,9
Artium**	—	—	—	—	101.838	75.800	89.791	92.267	97.106	5,2	–4,6
Arte Sakratuaren Museoa	—	—	—	—	—	—	26.004	32.186	37.141	15,4	42,8
Fournier Karta Museoa	36.084	40.255	39.626	38.913	42.599	32.512	31.315	32.866	39.794	21,1	10,3
Santa María Katedrala Fundaz.	—	70.000	36.945	38.518	56.773	66.422	74.871	87.671	98.790	12,7	41,1
Bizkaia											
Arrantzalearen museoa	29.253	26.775	26.415	22.067	22.408	26.309	28.852	28.878	21.896	–24,2	–25,1
Bilboko Arte Eder Museoa	e.d.	160.207	190.003	119.229	150.065	135.027	155.643	142.067	144.085	1,4	–10,1
Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoa***	—	—	—	—	—	35.296	49.876	115.235	70.124	–39,1	98,7
El Pobaleko burdinola****	—	—	—	—	—	—	7.322	13.700	13.238	–3,4	80,8
Euskal Herria Museoa	29.185	25.481	20.133	16.079	18.420	14.874	18.100	18.414	12.269	–33,4	–58,0
Bilboko Euskal Museoa	51.445	45.559	41.364	43.572	40.292	42.307	44.129	41.756	54.280	30,0	5,5
Gernikako Bakearen Museoa	—	—	—	—	—	14.715	17.187	19.410	25.560	31,7	73,7
Guggenheim Museoa	1.300.274	1.065.459	974.976	930.000	851.628	874.807	909.145	965.082	1.008.774	4,5	–22,4
Gipuzkoa											
Agorregiko burdinola	15.000	11.000	14.000	15.275	15.000	15.000	15.621	14.626	14.510	–0,8	–3,3
Chillida-Leku Museoa	e.d.	e.d.	23.079	95.792	84.791	89.669	91.567	83.603	83.718	0,1	262,7
Donostiako Aquariuma	391.208	574.499	380.500	330.061	309.661	336.453	330.165	301.828	300.256	–0,5	–23,2
Igartubeti baserri museoa	e.d.	e.d.	e.d.	5.284	8.910	7.148	9.428	7.197	6.148	–14,6	16,4
Burdinaren bailara	e.d.	e.d.	21.538	19.226	17.734	14.884	16.019	18.450	20.522	11,2	–4,7
San Telmo Museoa	e.d.	63.824	106.209	49.180	62.506	47.549	56.439	49.413	49.179	–0,5	–53,7
Burdinbidearen Euskal Museoa	24.387	35.866	40.908	37.724	39.210	41.789	41.639	40.017	40.857	2,1	–0,1
Armagintzaren Museoa	27.386	19.927	16.355	15.686	14.418	16.407	14.113	12.447	10.516	–15,5	–35,7
Zientziaren Kutxa Espazioa*****	e.d.	e.d.	e.d.	205.160	123.136	126.640	146.965	135.158	127.344	–5,8	–37,9
Zumalakarregi Museoa	7.292	5.074	7.254	12.707	8.232	12.834	9.373	5.399	9.117	68,9	25,0

*** Museoa itxita egon zen. **ARTIUM 2002an inauguratu zen. ***2003an inauguratua.**
******2004ean inauguratua. ***** 2001eko urtarrilaren 17an inauguratua.**
Iturria: Basque Tour. Turismoaren Euskal Agentzia. Eusko Jaurlaritza.

dute eta horren adibide dira museo, liburutegi eta artxibo anitz eta aberatsak.

Lurralde Historikoetako Kultura instalazio garrantzitsuenak bisitatzen dituzten pertsona kopurua adierazletzat hartuz, eta Basque Tourren, Eusko Jaurlaritzak sortu berri duen Turismoaren Euskal Agentziaren[6], datuak kontuan hartuta, Guggenheim Bilbao Museoa da oraindik ere bisitari gehien erakartzen dituen instalazioa; 2006 urtean 1.008.774 bisitari izan zituen eta beraz, bosgarren urtea da bisitari kopurua hazi egin dela, aurten %4,5 bisitari gehiago izan dituelarik.

Bisitariak erakartzen dituen beste toki bat Donostiako Aquariuma da, aurten 300.256 bisitari izan dituena baina, 2003 urteaz geroztik, gero eta bisitari gutxiago dituena ; aurten %0,5 gutxitu da bisitari kopurua. Bilboko Arte Eder Museoak 144.085 bisitari izan ditu (aurreko urtean baino %1,4 gehiago). Azkenik Zientziaren Kutxa Espazioa dugu, 12.447 bisitari izatetik 10.516 izatera pasa dena, hau da, 2001ean, inauguratu zen urtean, baino %35,7 gutxiago.

Aipatutako bigarren talde honen ostean, Santa María Katedrala Fundazioa dugu, Arituma, Chillida-Leku Museoa eta Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoa. Hauek guztiek honako bisitari kopuru hauek erakarri dituzte 2006 urtean hurrenez hurren: 98.790, 97.106, 83.718 eta 70.124. Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoan izan ezik, gainontzekoetan bisitarien kopurua hazi egin da 2005 eta 2006 urteen bitartean.

Azkenik, aipatutakoek baino bisitari dezente gutxiago dituzten baina oraindik aipagarriak diren hainbat leku ditugu,hau da gutxienez 40.000 bisitari izan dituzten tokiak: Bilboko Euskal Museoa, San Telmo Museoa eta Trenbidearen Euskal Museoa.

4.3.2. Biltzarrak eta azokak

(a) Biltzarrak

Basque Tourren datuen arabera, EAEn antolatutako biltzarren inguruko datuak ezberdinak izan dira 2005 eta 2006 urteen bitartean lurralde historiko ezberdinetan.

IV.4.8. KOADROA. BILTZAR KOPURUAREN BILAKAERA (2004-2006)

	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa*				Estatua 2005
	2004	2005	2006	Ald. %	2004	2005	2006	Ald. %	2004	2005	2006	Ald. %	
Guztira izandako biltzar kopurua	**59**	**81**	**60**	**–25,9**	**735**	**807**	**978**	**21,2**	**80**	**98**	**84**	**–14,3**	**13.969**
Jardunald., mintegiak eta sinposioak	32	35	16	–54,3	587	655	759	15,9	26	45	40	–11,1	7.718
Kongresuak	20	38	37	–2,6	66	78	78	0,0	33	36	27	–25,0	2.374
Batzarrak	1	8	3	–62,5	82	74	141	90,5	21	17	17	0,0	3.755
Bestelakoak	6	—	4	—	—	—	—		—	—	—		—
Guztira etorritako ordezkari kopurua	**13.850**	**17.450**	**12.560**	**–28,0**	**136.144**	**178.254**	**184.589**	**3,6**	**21.416**	**23.679**	**20.585**	**–13,1**	**2.798.388**
Jardunald., mintegiak eta sinposioak	3.900	—	2.560	—	90.067	128.536	113.618	–11,6	3.995	5.995	4.148	–30,8	1.216.393
Kongresuak	5.200	—	9.600	—	28.727	32.408	24.259	–25,1	11.626	15.664	14.675	–6,3	790.945
Batzarrak	250	—	400	—	17.350	17.310	46.712	169,9	5.795	2.020	1.762	–12,8	604.649
Bestelakoak	4.500	—	—	—	—	—	—		—	—	—		—
Biltzareko izandako ordezkari kopurua	**235**	**215**	**209**	**–2,8**	**185**	**221**	**189**	**–14,5**	**268**	**242**	**245**	**1,2**	**200**
Jardunald., mintegiak eta sinposioak	122	—	—	–25,9	153	196	150	–23,5	153,7	133	104	–21,8	158
Kongresuak	260	—	—	—	435	415	311	–25,1	352,3	435	544	25,1	333
Batzarrak	250	—	—	—	212	234	331	41,5	276	119	104	–12,6	161
Bestelakoak	750	—	—	—	—	—	—		—	—	—		—
Biltzarren gaia (%)	**—**	**—**	**—**	**Difer.**				**Difer.**				**Difer.**	
Medikuntza eta osasuna	—	—	—	—	17	19	18	–1,0	13	18	16	–2,0	22
Arlo zientifikoa	—	—	—	—	2	—	0		7	2	6	4,0	5
Kultura arloa	—	—	—	—	4	9	11	2,0	4	7	5	–2,0	14
Ekonomia eta merkataritza arloa	—	—	—	—	13	11	20	9,0	32	33	42	9,0	22
Arlo publikoa	—	—	—	—	14	11	12	1,0	19	16	6	–10,0	13
Teknologia arloa	—	—	—	—	16	22	27	5,0	10	7	8	1,0	6

*** Gipuzkoako biltzarren gaiari buruzko datuak Spain Convention Bureauren irizpideak zorrozki jarraituz jaso dira.**
Iturria: Basque Tour. Turismoaren Euskal Agentzia. Eusko Jaurlaritza.

[6] Basquetour Euskal Turismoaren Agentzia - Agencia Vasca de Turismo izeneko enpresaren sorkuntza 2006ko uztailean onetsi zuen Eusko Jaurlaritzak (159/2006 Dekretua, uztailaren 26koa, EAEren Administrazioari "Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A." deritzon sozietate anonimo publikoa sortzeko eta beronen partaidetzak eskuratzeko baimena eman diona); sozietate hori kudeaketaren arloko tresna gisa sortu da, euskal turismoaren lehiakortasuna areagotzea xedetzat duena; bi arlo nagusi ditu jorratzeko: alde batetik, sustapen-ekintzak, merkaturatze-ekintzak eta publizitatearen alorreko jarduketak burutzea, eta bestetik, lehiakortasun-eragile legez identifikatu izan diren irizpide estrategikoak garatzea.

IV.4.9. KOADROA. ESTATUKO AZOKA ESPARRU GARRANTZITSUENEK ANTOLATUTAKO AZOKA KOPURUA. 2003-2005 URTEAK

Azoka esparrua	Antolatutako azoka kop. 2003	2004	2005	Difer. 05-04	Azoka esparrua	Antolatutako azoka kop. 2003	2004	2005	Difer. 05-04
Palacio de Expos. y Congreso Almería	4	4	2	–2	Feria de Madrid	71	80	71	–9
Institución ferial de Albacete	7	9	9	0	Recinto Ferial Casa de Campo	23	11	9	–2
Feria de Muestras de Armilla (Granada)	9	8	8	0	Palacio de Ferias y Congr. de Malaga	—	13	16	+3
Instituto Ferial de Barbastro (Huesca)	10	5	5	0	Fira de Mollerusa (Lleida)	7	5	5	0
Fira de Barcelona	51	44	54	+10	Fundación Ferias y Expos. de Ourense	12	11	10	–1
Reed Exhibition Iberia (Bartzelona)	9	8	8	0	Fires y Congressos de Balears	12	9	22	+13
BILBAO EXHIBITON CENTRE	20	18	17	–1	Fira de Reus (Tarragona)	6	6	—	—
Fira de Cornellá (Bartzelona)	7	7	6	–1	Institución Ferial de Tenerife	13	8	9	+1
Institución Ferial Alicantina (Elche)	21	22	24	+2	Palacio de Congr. y Exp. de Sevilla	21	18	10	–8
Consorcio proferias y expos. (Ferrol)	5	2	5	+3	Feria Intern. de Galicia (Pontevedra)	4	6	6	0
Feria Intern. de Muestras de Asturias	4	4	5	+1	Feria de Valencia	42	37	42	+5
Fira de Girona	10	9	10	+1	Institución Ferial de Castilla y León.				
Ferias Jaén	6	9	6	–3	Feria de Valladolid	10	11	10	–1
Institución Ferial de Canarias	6	6	5	–1	Instituto Ferial de Vigo	15	9	8	–1
Fira de Lleida	8	10	11	+1	Feria de Zaragoza	8	16	16	0

Iturria: AFE, memoriaren egileek egina.

IV.4.5. GRAFIKOA. BECEKEKO BISITARI KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta BEC.

Antolatutako biltzar kopurua %21,2 hazi da Bizkaian eta murriztu egin da Araba eta Gipuzkoan, hurrenez hurren %25,9 eta %14,3. Araban 60 biltzar izan dira (aurreko urtean baino 21 gutxiago), 84 Gipuzkoan (2005ean baino 14 gutxiago) eta 978 Bizkaian (aurreko urtean baino 171 gehiago).

Gero eta biltzar gehiago antolatzeko joera duen Bizkaian, biltzar gehienak (%77,6) jardunaldiak, mintegiak eta sinposioak izan dira (759). Biltzarretara 184.589 ordezkari joan dira, 2005 urtean baino %3,6 gehiago eta biltzarreko izandako ordezkarien batez bestekoa 189 da, iaz baino kopuru txikiagoa (iaz baino 32 ordezkari gutxiago biltzarreko). Biltzarren gaiari dagokionez, gehienak teknologiari buruzkoak izan dira (%27, 2005ean baino gehiago) eta ekonomia eta merkataritzari buruzkoak (%20).

Gipuzkoan, ordezkari kopurua murriztu egin da, 23.679 izan ziren iaz, aurten, berriz, 20.585 (%13,1 gu-

IV.4.10. Koadroa. Bilbao Exhibition Centre. Oinarrizko adierazleak

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Azoka kopurua	23	14	22	16	19	20
Erakusketariak	2.710	3.006	2.001	3.323	1.978	2.551
Azalera netoa	88.564	136.706	81.392	196.811	120.865	176.720
Bisitari profesionalak	50.092	79.485	49.165	105.086	37.143	89.206
Bisitari ez profesionalak	636.940	722.743	685.471	899.487	891.313	1.118.166

Iturria: BEC.

IV.4.11. Koadroa. 2006 urtean BEC-en izandako azokak eta biltzarrak

	Azokak	Biltzarrak	Bizkaia Arena
Urtarrila	Gabonetako Haur Parkea		CANTO DEL LOCO-ren kontzertua
Otsaila		Afonvi-ren batzar orokorra AECOC kongresua Microsoft Server SQL-ren aurkezpena	
Martxoa	BIEMH	BBVA-ren bilera Athletic Eguna	
Apirila	CONSTRULAN EGURTEK	Gazte Sozialisten 100. urteurrena Eraikuntzari buruzko jardunaldiak Osakidetzako azterketak Grupo Nervión-en 20. urteurrena	Holiday on Ice
Maiatza	EXPOCONSUMO EXPOVACACIONES CREAMODA SALÓN INVENTOS DESEMBALAJE	Maiatzaren 1eko bazk., Arrosaren festa Desembalaje R. Rubial lehiaketaren sari-banaketa Ecodiseño jardunaldia IKASLAN-en 10. urteurrena Medikuntzari buruzko ikastaroa Osakidetzako azterketak	
Ekaina		Instituto Británico-ren azterketak Cecotrans-en batzarra Citisoluciones-en bilera Cluster Conocimiento SPRI jardunaldiak	
Uztaila	EUSKAL ENCOUNTER	EUDEL-en jardunaldia Modorra Pasarela Correos-eko azterketak	MAGO DE OZ-en kontzertua
Abuztua			
Iraila		CORITEL-ACCENTURE-ren batzarra	SILVIO RODRÍGUEZen kontzertua LA OREJA DE VAN GOGH-en kontzert.
Urria	PROMA NAGUSI FOSMINER EXPONATUR INGURALDE	Aerotrenes Proma-ren jardunaldiak Omenaldia Julen Guerrerori Bosque cultivado-ren nazioarteko kong. Ingeniaritza Industrialari buruzko kong.	MUSE kontzertua Lagun Aroren partida
Azaroa	ALMONEDAS BISUTERIA Feria Formación EXPOBODAS	Osakidetzako azterketak SPRI-ren 25. urteurrena CÁRITAS-en 50. urteurrena IFAS-ko azterketak Gizarte Ekintzaren bazkaria	Supercross lehiaketa FERMÍN MUGURUZAren kontzertua Disney on Ice
Abendua	Gaztealdia	DFB-ko azterketak	CARMINA BURANA Opera FITO Y FITIPALDIS-en kontzertua

Iturria: BEC.

txiago). Biltzar gehienak jardunaldiak, mintegiak eta sinposioak izan dira: %47,6, baina ordezkarien %20,2k besterik ez du parte hartu hauetan. Jardunaldi, mintegi eta sinposio baino kongresu gutxiago izan diren arren, —40 jardunaldi, mintegi eta sinposio eta 27 kongresu—, kongresuek erakarri dituzte ordezkari gehienak: 544 ordezkari kongresuko versus 104 jardunaldi, mintegi edo sinposioko. Gaiari dagokionez, ekonomia eta merkataritza

gaien inguruko kongresuak (%42) eta medikuntzari eta osasunari buruzkoak (%16) dira nagusi.

Azkenik, Araban 60 biltzar izan dira; iaz, ordea, 81 izan ziren, beraz, 2004 urtean zegoen egoerara itzuli da. Biltzarretatik 38 (iaz baino 1 gehiago) kongresuak izan dira eta 16 jardunaldiak, mintegiak edo sinposioak, aurreko urtean, aldiz, 35 izan ziren. Guztira 12.560 ordezkari izan dira, 2005 urtean baino %28 gutxiago, eta biltzarreko izandako ordezkarien batez bestekoa 209 izan da, hau da, aurreko urtean baino 6 ordezkari gutxiago biltzarreko.

(b) Azokak

Merkatal azoka eta erakusketak azken urteotan indar handia izaten ari diren sustapen jarduerak dira. Ekonomiaren ikuspuntutik, oro har, ekonomia jarduera sortu dutela esan daiteke, izan ere, produktuak ezagutzera ematen eta saltzen lagundu dute, aurrerapen teknikoa sustatu dute eta elkarlanen sinbolo izan dira, nazioartean eta nazio mailan gure herriaren eta enpresen irudia hobetzen lagunduz. Enpresa munduaren ikuspuntutik, azokak aukera ezin hobea dira, izan ere, azoketan eskaintza (erakusketariak) eta eskaria (bisitariak) inolako bitartekaririk gabe, zuzenean, jartzen dira harremanetan.

Enpresak pozik daude azokek eskaintzen dizkieten zerbitzuekin, euren produktuak erakusgai jartzeko eta kontratazioa sustatzeko duten gaitasunagatik, eta hori dela eta, enpresak azoka esparruetan inbertitzen ari dira eta jarduera ekonomikoa sustatzeko politikaren zati diren azokak antolatzen dituzte. Ondorioz, hiriburu gehienek nazioartean ezagunak diren azokak dituzte, bai erakusketariak erakartzeko duten gaitasunagatik bai hirigintzaren eta teknologiaren bikaintasunagatik. Azokak antolatzen urteetako tradizioa duten hainbat hirik, esaterako Hannover, Birmingham, Milan, Madril, Bartzelona edo Bilbok, instalazioak berritzen, handitzen edo hobetzen jardun dute berriki edo horretan ari dira egun.

Espainiako Azoken Elkartearen (AFE) arabera, Bilbao Exhibition Centre (BEC) Azoka Esparruen rankingean aurreneko postuen artean dago antolatutako jarduera kopuruari dagokionez, Madrilgo Azokaren (71), Bartzelonakoaren (54) eta Valentziakoaren (42) atzetik eta Alacantekoaren (24), Balearretakoaren (22) eta Zaragozakoaren (16) parean.

Bilbao Exhibition Centreko (BEC, 2004 urtean Bilboko Nazioarteko Erakustazokaren lekua hartu zuen proiektua) azokei buruzko datuak aztertuta, bi urtean behin aldaketa dagoela argi eta garbi ikusten da, bai erakusketariei, bai azalera netoari baita bisitari profesionalei erreparatuta ere, izan ere, urte bikoitietan Makina-erreminta eta Ferroforma azokak antolatzen dira[7].

Hala eta guztiz ere, parte-hartzaile profesional gehiago erakartzeko asmoz, Ferroformak azoka antolatzeko data aldatu zuen, nazioarteko egutegian hobeto kokatuta egoteko asmoz. Beraz, 17. edizioa ez zen 2006an izan baizik eta 2007an.

Era honetan, erakundeak berak emandako datuen arabera, 2006 urtean, 20 azoka eta 86 biltzar izan ziren eta guztira 89.206 bisitari profesional, 2004an baino %15,1 gutxiago (kontuan hartu aurreko paragrafoan azaldutakoa), eta 1.118.166 bisitari ez profesional (2004an baino %24,3 gehiago eta 2005an baino %25,5 gehiago).

4.4. Argitalpenak

EINren *Argitalpenen estatistika* txostenaren arabera, EAE, 2006 urtean, argitalpenen rankingeko zazpigarren postuan dago (aurreko urtean baino postu bat beherago). 2006an 2.360 argitalpen izan dira (liburuak eta liburuxkak), Estatuko kopuru osoaren %3,6. Aurretik ditugu Madril (22.629 argitalpen, %34,2), Katalunia (18.384 argitalpen, %27,7), Andaluzia (5.641), Valentzia (3.696), Gaztela eta Leon (2.725) eta Galizia (2.444). 2006 urtean 2005ean baino %4,1 argitalpen gutxiago izan dira, beraz, 2000an hasitako murrizte joera mantendu egin da.

Bestalde, 2006an 5,574 milioi ale argitaratu dira, hau da, aurreko urtean baino %0,7 gutxiago, horrek esan nahi du batez besteko argitaraldia (argitalpeneko inprimatzen den ale kopurua) %3,7 hazi dela, hau da 2.362 aletara iritsi da.

Argitalpen kopuru osoaren %81,4 (1.920) liburuak dira eta %18,6 (440) liburuxkak. Liburuei dagokienez, argitalpen kopurua %5,8 murriztu da, baina aleen kopurua %1,4 hazi da. Ondorioz, batez besteko argitaraldia %7,7 hazi da, hau da 2.320 aletara iritsi da. Liburuxkei dagokienez, argitalpenak %4,5 hazi dira, baina argitaratutako

[7] 2004ko ediziotik aurrera, ohiko sektoreez gain, indar handiko merkatu berriek eurentzako propio antolatutako azokak eskatzen hasi ziren. Hori dela eta, aldi berean ospatu zen Bricoforma. Nazioarteko Brikolaje Azoka.

IV.4.12. KUADROA. EAE-KO ARGITALPENEN BILAKAERA

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	Ald. 2004-05	Ald. 2005-06
KOPURUA GUZTRA											
Argitalpenak	2.489	2.505	2.484	2.338	2.329	2.553	2.485	2.460	2.360	–1,0	–4,1
Aleak (milaka)	5.205	5.579	5.085	5.214	5.098	5.620	5.366	5.613	5.574	4,6	–0,7
Batez besteko argitaraldia	2.091,2	2.227,1	2.047,1	2.230,1	2.188,9	2.201,3	2.159,4	2.281,7	2.361,9	5,7	3,5
Libros											
Argitalpenak	2.243	2.251	2.253	2.008	2.004	2.157	2.024	2.039	1.920	0,7	–5,8
Aleak (milaka)	4.698	4.900	4.411	4.188	4.228	4.510	4.167	4.393	4.456	5,4	1,4
Batez besteko argitaraldia	2.094,5	2.176,8	1.957,8	2.085,7	2.109,8	2.090,9	2.058,8	2.154,5	2.320,8	4,6	7,7
Liburuxkak											
Argitalpenak	246	254	231	330	325	378	461	421	440	–8,7	4,5
Aleak (milaka)	507	678	674	1.026	870	1.110	1.199	1.220	1.117	1,8	–8,4
Batez besteko argitaraldia	2.061,0	2.669,3	2.917,7	3.109,1	2.676,9	2.936,5	2.600,9	2.897,9	2.538,6	11,4	–12,4

Iturria: EIN. Argitalpenen estatistika.

IV.4.13. KOADROA. ARGITALPENEN BANAKETA GEOGRAFIKOA ERREGISTRATUTAKO ISBN-EN ARABERA

	2001	2002	2003	2004	2005	2006 n	2006 %	2004-05 % aldea	2005-06 % aldea
Andaluzia	3.949	4.575	4.966	5.282	5.076	4.733	5,9	–3,9	–6,8
Aragoi	840	1.061	1.487	1.538	1.221	1.225	1,5	–20,6	0,3
Asturias	398	428	599	684	515	497	0,6	–24,7	–3,5
Balearrak	807	679	647	523	744	658	0,8	42,3	–11,6
Kanariak	487	599	744	754	886	899	1,1	17,5	1,5
Kantabria	293	256	283	255	353	339	0,4	38,4	–4,0
Gaztela eta Leon	2.509	2.312	2.291	2.224	2.605	2.878	3,6	17,1	10,5
Gaztela-Mantxa	413	526	519	532	515	560	0,7	–3,2	8,7
Katalunia	23.668	23.952	25.635	25.546	25.896	27.691	34,6	1,4	6,9
Valentzia	3.809	3.644	4.573	3.886	3.904	3.951	4,9	0,5	1,2
Extremadura	277	364	319	360	284	379	0,5	–21,1	33,5
Galizia	1.922	1.934	2.643	2.618	2.770	2.879	3,6	5,8	3,9
Madril	23.281	25.131	28.470	28.072	26.772	26.517	33,1	–4,6	–1,0
Murtzia	405	644	528	536	613	574	0,7	14,4	–6,4
Nafarroa	779	1.007	720	903	653	633	0,8	–27,7	–3,1
EAE	**3.075**	**2.620**	**3.377**	**3.491**	**3.298**	**2.712**	**3,4**	**–5,5**	**–17,8**
Araba	213	313	339	294	328	316	11,7	11,6	–3,7
Gipuzkoa	1.496	1.127	1.652	1.574	1.599	1.103	40,7	1,6	–31,0
Bizkaia	1.366	1.180	1.386	1.623	1.371	1.293	47,7	–15,5	–5,7
Errioxa	80	132	126	138	126	186	0,2	–8,7	47,6
Ceuta	12	18	11	17	14	10	0,0	–17,6	–28,6
Melilla	8	11	12	8	20	9	0,0	150,0	–55,0
Guztira	**67.012**	**69.893**	**77.950**	**77.367**	**76.265**	**80.042**	**100,0**	**–1,4**	**–64,1**

Iturria: Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. ISBNak.

ale kopurua %8,4 murriztu da, ondorioz, batez besteko argitaraldia %12,4 murriztu da.

EAEn, 2005ean, 2.712 liburu argitaratu ziren ISBN[8] datuen arabera (EINk emandako kopurua baino handiagoa, ziur aski, EINk ez dituelako berrargitarapenak kontuan hartzen), beraz, aurreko urtean baino %6,8 gutxiago. Murrizpen hau Gipuzkoako argitalpenen gutxitzeari (–%31) zor zaio neurri handi batean, izan ere, Araban eta Bizkaian ere gutxitzeak izan diren arren, askoz ere txikiagoak izan dira: %3,7 eta %5,7 hurrenez hurren. Bizkaian eta Gipuzkoan egiten dira oraindik argitalpen gehien, EAEko argitalpenen %47,7 eta %40,7 hurrenez hurren. Araban %11,7 besterik ez da argitaratzen.

[8] ISBN - INTERNATIONAL STANDARD BOOK NUMBER delakoa argitaletxe zehatz baten argitalpenak zenbatu eta identifikatzeko sistema internazionala da, softwareari ere aplikatzen zaiona. Identifikazioa ezarri ostean, zenbaki hori lan horri aplika dakioke soilik eta ezin da berriro erabili.

IV.4.14. Koadroa. Estatu osoan hizkuntza guztietan eta euskaraz egindako argitalpenak (liburuak eta liburuxkak) gaka

	2004			2005			2006			Euskara ald.	
		Euskara			Euskara			Euskara			
	Guztira	Kop.	%/eusk. guztira	Guztira	Kop.	%/eusk. guztira	Guztira	Kop.	%/eusk. guztira	2004-05	2005-06
Guztira	**60.492**	**1.041**	**100**	**63.551**	**909**	**100,0**	**66.270**	**962**	**100,0**	**–12,7**	**5,8**
1 Gai orokorrak	1.454	38	3,7	1.796	18	2,0	2.048	14	1,5	–52,6	–22,2
2 Filosofia, psikologia	2.464	16	1,5	2.535	18	2,0	2.645	14	1,5	12,5	–22,2
3 Erlijioa, teologia	2.381	35	3,4	2.614	35	3,9	2.623	42	4,4	0,0	20,0
4 Soziologia, estatistika	1.376	27	2,6	1.234	10	1,1	1.278	9	0,9	–63,0	–10,0
5 Politika zientziak, ekonomi zientziak	2.762	27	2,6	3.012	28	3,1	3.009	23	2,4	2,7	–17,9
6 Zuzenbidea, administrazio publikoa, aurreikuspenak, gizarte laguntza, aseguruak	4.144	10	1,0	3.803	11	1,2	4.278	15	1,6	10,0	36,4
7 Artea eta zientzia militarra	128		0,0	127			141	..			
8 Hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza eta entretenim.	2.253	88	8,5	2.158	61	6,7	2.540	94	9,8	–30,7	54,1
9 Merkataritza, komunikabideak, garraioa, turismoa							..	..			
10 Etnografia, kultura antropol. (ohiturak, folklorea...)	1.416	28	2,7	1.049	26	2,9	1.105	23	2,4	–7,1	–11,5
11 Matematika	822	37	3,6	717	28	3,1	691	21	2,2	–24,3	–25,0
12 Natur zientziak	1.909	67	6,4	2.300	78	8,6	2.537	37	3,8	16,4	–52,6
13 Osasun zientziak, medikuntza	3.431	15	1,4	3.658	10	1,1	3.956	7	0,7	–33,3	–30,0
14 Ingeniaritza, teknologia, industria, lanbideak	4.476	19	1,8	3.604	23	2,5	2.647	9	0,9	21,1	–60,9
15 Nekazaritza, basozaintza, abeltzaintza, ehiza, arrantza	594		0,0	735	1	0,1	680	3	0,3		200,0
16 Etxeko zientzia	951		0,0	1.180	8	0,9	1.007	3	0,3		–62,5
17 Kudeaketa, administrazioa eta antolamendua	1.323	4	0,4	1.357	12	1,3	1.664	5	0,5	200,0	–58,3
18 Lurralde antolamendua, hirigintza, arkitektura	859	3	0,3	824	5	0,6	988	2	0,2	66,7	–60,0
19 Arte plastikoak eta grafikoak, argazkilaritza	3.712	35	3,4	3.881	21	2,3	3.807	18	1,9	–40,0	–14,3
20 Musika, ikuskizun arteak, antzerkia, filmak eta zinea	1.277	17	1,6	1.423	27	3,0	1.500	24	2,5	58,8	–11,1
21 Jokoak eta kirolak	908	16	1,5	969	7	0,8	1.005	17	1,8	–56,3	142,9
22 Filologia, hizkuntzak, hizkuntzalaritza	1.938	82	7,9	1.965	88	9,7	2.063	52	5,4	7,3	–40,9
23 Literatura, historia eta literaturaren kritika	16.168	405	38,9	17.898	327	36,0	18.892	468	48,6	–19,3	43,1
24 Geografia	1.180	26	2,5	1.278	20	2,2	1.401	16	1,7	–23,1	–20,0
25 Historia, biografia	2.566	46	4,4	3.434	47	5,2	3.765	46	4,8	2,2	–2,1

Iturria: EIN. Argitalpenen estatistika.

Autonomi erkidegoen argitalpenen rankingean, EAE zazpigarren postuan dago, 2005 urtean baino bi postu beherago. Beraz, 2005ean Madril, Katalunia, Andaluzia eta Valentziaren atzetik zegoen eta 2006an Gaztela eta Leon eta Galiziaren atzetik ere badago. Estatu osoko argitalpen kopuruaren %3,4 argitaratzen da EAEn, hau da, 2005ean baino gutxiago, iaz %4,3 izan baitzen kopurua. Horretaz gain, lehenengo bi postuetan dauden erkidegoen eta gainontzekoen artean ezberdintasun handia dagoela aipatu behar da. Izan ere, Madrilen, iaz baino %1 argitalpen gutxiago egin badira ere, 26.517 argitalpen egin dira (estatuko kopuru osoko %33,1) eta Katalunian 27.691 argitalpen egin dira (estatuko kopuru osoko %34,6). Bestalde, Andaluzian estatuko argitalpen guztien %5,9 argitaratu dira, Valentzian %4,9 eta Galizian eta Gaztela eta Leonen %3,6.

Argitalpenen hizkuntzari erreparatuta, EINren datuen arabera, 2006 urtean, estatu osoan egindako argitalpenen %1,5 euskaraz egin dira, hau da, 962 liburu eta liburuxka, iaz baino %5,8 gehiago. Horietatik %46,5 Literatura, Historia eta Literaturaren kritika kategoriari dagozkio (2005 urtean baino 12,6 portzentaje-puntu gehiago). Ondoren, Hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza eta entretenimendu kategoria dugu: %9,8; Filologia, hizkuntzak eta

IV.4.15. Koadroa. Argitalpen kopurua (liburuak eta liburuxkak) urteko eta gai kategoriako

	2000			2004			2005			2006			% Euskara ald.		
	Guztira	Euskara n	Euskara %	Guztira	Euskara n	Euskara %	Guztira	Euskara n	Euskara %	Guztira	Euskara n	Euskara %	2004-05	2005-06	2000-06
Testu liburuak	4.896	304	52,5	3.088	203	38,6	3.050	216	6,4	3.066	176	34,0	6,4	–18,5	–42,1
Haurrentzako liburuak	4.009	236	40,8	3.741	245	46,6	3.686	144	–41,2	4.035	217	41,9	–41,2	50,7	–8,1
Argitalpen ofizialak	4.974	33	5,7	8.177	78	14,8	8.757	91	16,7	9.639	71	13,7	16,7	–22,0	115,2
Unibertsitate tesiak	696	6	1	—	—	—	—	—	—	—	—				
GUZTIRA	**14.575**	**579**	**100**	**15.006**	**526**	**100**	**15.493**	**451**	**–14,3**	**17.913**	**518**	**100,0**	**–14,3**	**14,9**	**–10,5**

Iturria: EIN "Argitalpenen estatistika".

IV.4.16. Koadroa. Argitalpen hizkuntzaren arabera erregistratutako ISBN-ak

	2001	2002	2003	2004	2005	2006 Kopurua	2006 %	2004-05 aldea	2005-06 aldea
Gaztelania	52.256	54.160	59.748	59.142	57.779	58.700	78,2	–2,3	1,6
Katalana	6.947	7.300	8.260	7.781	8.577	9.333	12,4	10,2	–1,3
Euskara	1.528	1.221	1.532	1.834	1.731	1.425	1,9	–5,6	–17,7
Galegoa	1.358	1.498	1.828	1.849	1.826	1.805	2,4	–1,2	–1,2
Valentziarra	726	763	962	1.072	881	865	1,2	–17,8	
Espain. beste hizk. batzuk	68	76	172	110	50	44	0,1	–54,5	–8,3
Beste hizkuntza batzuk	4.129	4.875	5.448	5.579	5.421	173	0,2	–2,8	–18,0
Hizkuntza askotakoak	e.d.	2.281	2.384	2.400	2.576	2.724	3,6	7,3	5,8
Guztira	**67.012**	**72.174**	**80.334**	**79.767**	**78.841**	**75.069**	**100**	**–1,4**	**–4,8**

Iturria: Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. ISBNak.

IV.4.17. Koadroa. Beste hizkuntza batzuetara itzulitako euskarazko argitalpenak

	2002	2003	2004	2005	2006
Guztira	**37**	**40**	**55**	**66**	**31**
1 Gai orokorrak		2	4	2	
2 Filosofia, psikologia	1				
3 Erlijioa, teologia			2		
4 Soziologia, estatistika			2	1	2
5 Politika zientziak, ekonomi zientziak		11	2	1	2
6 Zuzenbidea, admin. publikoa, aurreikuspenak, gizarte lag., aseguruak	1	4	5	1	
7 Artea eta zientzia militarra					
8 Hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza eta entretenimendua	2		1	4	1
9 Merkataritza, komunikabideak, garraioa, turismoa					
10 Etnografia, kultura antropologia (ohiturak, folklorea...)	4		2	4	1
11 Matematika					
12 Natur zientziak	1		2	3	1
13 Osasun zientziak, medikuntza					
14 Ingeniaritza, teknologia, industria, lanbideak	1			1	
15 Nekazaritza, basozaintza, abeltzaintza, ehiza, arrantza	1		1	2	
16 Etxeko zientzia			1		
17 Kudeaketa, administrazioa eta antolamendua	1			5	
18 Lurralde antolamendua, hirigintza, arkitektura	2		1	1	
19 Arte plastikoak eta grafikoak, argazkilaritza	5	7	4	13	4
20 Musika, ikuskizun arteak, antzerkia, filmak eta zinea	1		1	1	
21 Jokoak eta kirolak	2			4	
22 Filologia, hizkuntzak, hizkuntzalaritza			1	1	
23 Literatura, historia eta literaturaren kritika	14		22	14	16
24 Geografia	1		1	5	2
25 Historia, biografia			3	3	2

Iturria: EIN "Argitalpenen estatistika".

hizkuntzalaritza: %5,4; Historia eta biografia: %4,8 eta Erlijioa eta Teologia: %4,4. Hainbat kategoriatan hazkunde nabarmena izan da, esaterako Nekazaritza, basogintza eta abeltzaintza kategorian (+%200), Jokoak eta kirolak (+%142,9), Hezkuntza, irakaskuntza prestakuntza eta entretenimendua (+%54,9), Literatura, historia eta literatu-

IV.4.18. KOADROA. ITZULPEN HIZKUNTZEN ARABERAKO ARGITALPENA*

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	% 04-05	% 05-06
Gaztelania	2.109	2.621	3.009	3.161	2.738	3.513	–13,4	28,3
Katalana	505	478	531	513	578	619	12,7	7,1
Euskara	84	61	71	91	125	92	37,4	–26,4
Galegoa	133	99	126	185	131	182	–29,2	38,9

(*) Erregistratutako ISBNen arabera.
Iturria: Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. ISBNak.

raren kritika (+%43,1) eta Zuzenbidea eta administrazio publikoa (+%36,4).

Gai kategoriak aztertuta, euskaraz idatzitako testu liburu gutxiago argitaratu direla ikus dezakegu (–%18,5), iaz kopurua hazi egin zen arren (+%6,4); argitalpen ofizialen kopurua ere murriztu egin da (euskaraz argitaratutakoak %22 gutxitu dira). Haurrentzako euskarazko liburuen argitalpen kopurua, ordea, nabarmen hazi da (+%50,7), iaz izandako murrizketa (–%41,2) orekatu delarik.

Beste urte batzuetako datuak kontuan hartzen baditugu, 2002 eta 2006 urteen bitartean, euskarazko liburuen argitalpena %42,1 murriztu dela ikus dezakegu eta umeentzako liburuena %8,1; euskarazko argitalpen ofizialak, ordea, %115,2 hazi dira.

ISBNren arabera, Estatu Espainiarrean argitaratutako argitalpenen %78,2 gaztelaniaz argitaratu dira (%73,3 iaz), %12, 4 katalanez, %2,4 galegoz eta %1,9 euskaraz. Euskaraz argitaratutako lan kopurua %17,1 murriztu da 2005 urtean argitaratutakoen aldean.

Bestalde, azken urteetan ez bezala, 2006an ez da hazi euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzen diren argitalpenen (liburuak nahiz liburuxkak) kopurua. Izan ere, 2005 urtean 66 argitalpen itzuli ziren, 2006 urtean, ordea, 31 itzuli dira eta beraz, kopurua %53 murriztu da.

Euskaratik beste hizkuntzetara itzulitako argitalpen gehienak literatura lanak dira. 2004ean itzulitako argitalpenen %40 Literatura, Historia eta Kritika kategoriakoak ziren, 2005ean itzulitako argitalpenen %21ataren aldean; are gehiago, 2006an gai honi buruzko argitalpenen itzulpen kopurua izan da hazi den bakarra, iaz 14 egin ziren, aurten, berriz, 16.

Amaitzeko, ISBNren Espainiako Agentziaren arabera, euskarara itzuli den argitalpen kopurua 2004 urtekoaren antzekoa izan da. Beraz, 2006 urtean 92 lan itzuli dira euskarara, iaz baino % 26,4 gutxiago. Ondorioz, euskarara gaztelaniara eta katalanera baino itzulpen gutxiago egin dira, baina baita galegora baino itzulpen gutxiago ere.

4.5. Kontsumoa eta kontsumitzailea babestea

4.5.1. Kontsumoaren inguruko erreklamazioak

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2006 urtean, 7.404 erreklamazio orri aurkeztu dira, iaz baino %16 gehiago; hortaz, aurreko urteetako hazkunde joera mantendu egin da eta duela bost urteko kopurua hirukoiztu. 2006ko abenduaren 31rako jasotako erreklamazio guztietatik 1.480 (%20) ez ziren onartuak izan kontsumoarekin zerikusirik ez zuten gaiei buruzkoak zirelako eta 1.442 (%19,5) erreklamazioa eragin zuen jazoera gertatu zen Autonomi Erkidegora edo beste erakunde batzuetara igorri ziren (abiazio zibila). Gainontzekoetatik (4.482) 2.916 (%65) ebatzi egin ziren eta 1.500 inguru bideratzeke daude oraindik.

Erreklamazio hauetatik batzuk Arbitraje Batzordeari igorri zitzaizkion, sistemari atxikitako enpresekin zerikusia zutelako. Beste hainbat kasutan, eskatzaileek amore eman zuten eta ia 1.000 kasutan adostasunera iritsi ziren alderdiak Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritzari esker. Gainontzeko kasuetan, ezinezkoa izan zen alderdien arteko adostasunera iristea eta, gainera, administrazio arauhausterik izan ez zela ikusita, espedientea itxi egin zen.

Administrazioak 66 enpresari eskatu zien erreklamazioa eragin zuten ekintzak zuzentzeko eta 49 espediente zigortzaile ireki zituen. Hortaz, 2006an ere, mota honetako espediente gehien irekiarazi zituzten arauhausteak honako gai hauekin izan zuten zerikusia: datuak ez ematea edo datuei buruzko araudiak haustea, zerbitzua behar bezala ez ematea eta garantiak aplikatzerakoan arazoak sortzea.

IV.4.6. GRAFIKOA. EAEKO KONTSUMO ERREKLAMAZIOEN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

Aurreko urteetan bezala, erreklamazio hauen helburu ohikoena gailu edo gairen bat aldatzea, akatsen bat zuzentzea, gailu edo gairen bat itzultzea, gailuren edo gairen baten dirua berreskuratzea edo kalte-ordaina jasotzea izan da.

2006 urtean, erreklamazio gehienek izan dituen sektorea garraiobideena izan da: %18,6 (%10,1 iaz). Ondoren turismoa, ibilgailu konponketa, etxetresna elektrikoak eta telefonia eta komunikazioa ditugu.

Azken urteetan, honako sektore hauekin zerikusia duten erreklamazio kopurua izan da handiena: telekomunikazioak eta konponketak, bai ibilgailuenak baita etxetresna elektrikoenak eta etxebizitzetakoak ere. Garraioen sektorean izan da aldaketarik handiena, izan ere, 2001 urtean zazpigarren postuan zegoen eta aurten bigarren postuan dago.

4.5.2. Erreklamazioentzako irtenbidea: Kontsumo arbitrajea

Kontsumo Arbitraje Sistema sistema estrajudiziala da eta kontsumo harremanetan sor litezkeen ezadostasunak konpontzen laguntzen du bi alderdiei, alde batetik enpresari eta profesionalei eta bestetik kontsumitzaile eta erabiltzaileei, parte hartzeko aukera emanez.

Sistema sendotuz doa urtetik urtera eta gero eta gehiago dira kontsumitzaileekin eta erabiltzaileekin sor litezkeen arazoak konpontzeko sistemarengan konfiantza duten atxikitako euskal profesionalak, enpresak eta saltokiak.

Aurten ere, egoera aztertua, emaitza positiboa izan da: 2006an 982 enpresa berri atxiki zaizkio sistemari eta urte amaieran, guztira 13.054 enpresa zeuden atxikita (12.473 aurreko urtean). Atxikipen berriak lotuta daude Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak egindako urteroko kanpainekin. Aurten 1.458 enpresatara egin dira bisita pertsonalizatuak (1.400 iaz), bisitatutako enpresen %63,64 sistemari atxiki zaizkiolarik.

Bestalde, atxikitako enpresen errolda eguneratu denez, lan egiteari utzi dioten 400 establezimendu Kontsumo Arbitraje Sistematik kanpo geratu dira.

Jarduerei dagokionez, atxikipen portzentajea ezberdina da sektorearen arabera. Bitxi eta erloju nahiz ehun eta oinetako sektoreak dira atxikipen kopuru handiena duten sektoreak (%44 eta %32,8 hurrenez hurren, euren jarduna EAEn duten enpresei dagokionez). Ondoren informatika sektorea dugu (%31,1), altzariak (%30,3), ibilgailu salmenta eta konponketa (%30,1) eta telekomunikazioak (%26,2). Bestalde, Kontsumo Arbitraje Sisteman atxikipen gutxien dituzten sektoreak berriz, honako hauek dira: etxez etxeko salmenta (%0,1), energia (%1,2), aseguruak (%1,1), garraioa (%0,4) eta banketxeak, azken honetan ez dago enpresa bat bera ere atxikita.

GRÁFICO IV.4.7. KONTSUMO ARBITRAJEARI ATXIKITAKO ENPRESAK, ARBITRAJE ESKAERAK ETA ALDEKO LAUDOAK



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

IV.4.19. KOADROA. EAE-N KONTSUMO ARBITRAJERA ATXIKITAKO ENPRESAK

	2005	2006
Ibilg., salmenta eta konponk.	1.131	1.123
Telekomunikazioak	78	83
Ehunak, oinetakoak	2.223	2.527
Altzariak	925	975
Bitxiak, erlojuak	353	368
Etxetresna elektrikoak, LTZ	493	456
Zerbitzu jarduerak	700	750
Bidaia agentziak	87	69
Irakaskuntza	255	268
Etxebiz., etxebiz. konponketak	3.076	3.269
Energia	16	16
Aseguruoak	26	27
Garraiobideak	49	51
Etxez etxeko salmenta	1	2
Jakiak		813
Ostalaritza		492
Informatika		174
Tindategiak		111
Banketxeak	0	0
Bestelakoak	3.060	1.480
Guztira	**12.473**	**13.054**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

Arbitraje eskaerei dagokionez, 1994 urtean zerbitzua sortu zenetik 2006 urtera arte, 7.082 eskaera jaso dira guztira. Aurten 842 arbitraje eskaera izan dira (849 2005ean); aurreko urteetan bezala telefoniaren sektorean gora egin du eskaera kopuruak (322 izan dira) eta baita eraikuntza eta etxebizitza sektorean (89) eta ibilgailu sektorean (60).

Egindako eskaera guztietatik 389 (iaz 469) arbitraje laudoek ebatzi dituzte, 251 amaitutzat jo dira erreklamatuak ez duelako auzia arbitraje laudo baten bitartez konpondu nahi izan, 145 kasutan Kontsumo Arbitraje Batzordearen bitartekaritzari esker bi alderdiak adostasunera iritsi dira, 3 amaitutzat jo dira erreklamazioa egin duen pertsonak amore eman duelako, 16 ez dira onartu kontsumo arbitrajearekin zerikusirik ez duten gaiei buruzkoak direlako, 1 beste autonomia erkidego batera igorri da, 4 amaitzear zeuden 2006 urtearen amaieran eta 33 arbitraje laudoaren zain daude oraindik.

Ebazpenei dagokionez, aurreko urteetan gertatu zen antzera, %23,1 kontsumitzailearen aldekoak izan dira erabat eta %44,7 soilik neurri batean; gainontzeko %32,1ean Arbitraje Batzordeak establezimenduari edo enpresari eman dio arrazoia. Arbitraje Batzordearen erabaki edo laudoak aho batez hartu dira kasuen %81,7an.

4.5.3. Merkatuaren gaineko kontrola

Merkatuaren gaineko kontrola izateko, beharrezkoa da etiketen edo araudi zorrotza duten sektoreen ikuskapenak egitea eta baita segurtasuna egiaztatzea eta hainbat produkturen eta zerbitzuren jarraipena egitea sortu ohi dituzten arazoak direla eta. Bestalde, *ikuskatze eta kontrol kanpainak* ere egin behar izaten dira, araudia betetzen dela egiaztatzeko. Bereziki garrantzitsutzat jotzen da araudi zorrotza duten sektoreetan ikuskapen sistema-

IV.4.20. KOADROA. IKUSKAPENAK ARRAZOIEN ARABERA

	2003	2004	2005	2006			
				Guztira	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Kanpainak	659	1.443	1.536	897	291	605	1.761
Salaketa	318	2.086	2.084	2.657	199	363	335
Alertak	132	415	524	832	160	280	392
Bestelakoak	88	358	84	299	31	144	124
Guztira	**1.197**	**4.302**	**4.228**	**4.685**	**681**	**1.392**	**2.612**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

IV.4.21. KOADROA. IKUSKAPENAK PRODUKTUEN EDO ZERBITZUEN ARABERA

	2005	2006
Jostailuak	564	582
Industria produktuak	1.239	572
Etxetresna elektrikoak (Informatika eta ikus-entzun. aparailuak barne)		506
Jakiak	348	375
Telefonia eta komunikazioa		363
Ehunak, oinetakoak eta osag.	299	330
Zerbitzuak	190	306
Material elektrikoa		273
Tindategia, garbitokiak	516	244
Altzariak		218
Ibilgailu konponketa	238	176
Ibilgailuak	97	170
Etxebizitzetako konponketak, gremioak	67	127
Etxetresna elektriko konponk. (Informatika eta ikus-entzun. aparailuak barne)	101	108
Etxebizitza, etxebiz. sustapena	411	107
Telekomunikazioak, telefonia zerbitzuak		102
Garraiobideak	9	43
Hornikuntza zerbitzuak (energia, ura, bestelakoak)	17	28
Produktu kimikoak (kosmetikoak, drogeria produktuak eta lurrinak)	65	22
Bidaiak	3	13
Banketxetako zerbitzuak		10
Osasun eta laguntza zerbitz.	8	10
Olioa eta koipeak	53	
Publizitatea	3	
Guztira	**4.228**	**4.685**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza

tikoak egitea eta zenbait produkturen etiketak ikuskatzea. Bestalde, *osasuna edo segurtasuna arriskuan jar dezaketen produktuak aurkitu, gerarazi eta merkatutik kendu* behar dira.

(a) Ikuskapen eta kontrol kanpainak

2006 urtean Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak 12 *ikuskapen eta kontrol kanpaina* egin ditu (2005an beste eta 2004ean baino 5 gutxiagoa).

IV.4.22. KOADROA. ALERTA DUTEN ETA AURKITU DIREN PRODUKTUAK ETA BAZTERTUTAKO ALEAK, 2006

	Alerta duten produktu kopuruak	Aurkitutako produktu kopurua	Baztertutako aleak
Kirol gaiak	65	4	2.015
Jostailuak	426	27	1.639
Haurtzaintza	106	14	1.181
Etxetresna elektrikoak	195	10	605
Material elektrikoa	369	10	338
Bestelakoak	661	7	309
Guztira	**1.822**	**72**	**6.087**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

- Gozoki, Gozo eta Konfiteen eta bereziki azukrerik gabeko produktuen merkaturatze, etiketatze eta kontrol analitikoen baldintzak.
- Aparkalekuen kontrola.
- Glutenik gabeko jakien laginak hartzea.
- Prezio anitzeko arropak saltzen dituzten establezimenduetako salgaien etiketen eta osagaien kontrola.
- Txakoli ardoaren etiketen kontrola.
- Motortxoen etiketen kontrola.
- Alerta sarean dauden jostailuen kontrola.
- Industria produktuen kontrola: haurrak aldatzeko etxean erabiltzeko mahaiak eta haur-aulki altuak.
- Argidun girnalden etiketen eta segurtasunaren kontrola.
- Jostailuen etiketen eta segurtasunaren kontrola.
- Web orrietan agertzen diren hegazkin tarifen kontrola.

4.658 ikuskapen egin dira (iaz baino 457 gehiago), bai aipatutako kanpainen barruan (%19,1) eta baita hauetatik kanpo ere; azken hauek salaketak izan direlako (%56,7), legez kanpoko produktuak agertu direlako edo beste Autonomi Erkidego batzuetatik jasotako informazioa dela eta egin dira.

Ikuskapen gehienek jostailuekin izan dute zerikusia (%12,4), hainbat industria produkturekin (%12,2), jakiekin (%10,8), telefonia eta komunikazioarekin (%8) eta ehun, oinetako eta osagarriekin (%7).

(b) Produktuen segurtasunaren kontrola

2006an 1.822 alerta izan dira guztira, gehienak jostailuen (%23,4) eta material elektronikoen ingurukoak (%20,3). Ondoren etxetresna elektrikoak, ibilgailuak eta osagarriak ditugu.

Alerta izan duten produktu gehienak Txinatik ekarriak ziren %42,4, %19,8 EBtik eta %5,4 AEBetatik.

1.822 produktutatik 72 aurkitu dira eta 6.087 ale baztertu dira, horien artean 2.015 kirol-gai, 1.639 jostailu, haurtzaintzako 1.181 produktu, 605 etxetresna elektriko eta elektronikako 339 material.

Pobrezia eta gizarteko bazterkeria

5.1. 2004ko pobrezia eta gizarteko desberdintasunen inkestaren emaitzak: pobrezia objektiboa eta subjektiboa

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak lau urtean behin *"Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta"* (PGDI) egiten du. Inkesta horrek pobreziak gure gizartean duen intzidentzia, horretan eragiten duten arriskuko faktoreak eta bere banaketa geografiko desberdina ezagutzea ahalbidetzen du. Pobreziak EAEn duen intzidentzia aldatzen da neurtzeko hautatutako adierazlearen arabera. Inkestak bi dimentsio erabiltzen ditu, metaketako pobrezia eta mantentzeko pobrezia eta, bigarren honen barruan, pobreziaren arriskuko egoerak eta ongizaterik ezaren arriskukoak.

- Metaketako pobrezia da etxebizitzek epe luzean bizitza-maila egokiari eusteko eta oinarrizko ondare-baliabideak pilatzeko beharrezko diren kontsumo iraunkorreko oinarrizko ondasunak eskuratzeko ezintasuna da —etxebizitza adibidez—.
- Mantentzearen dimentsioari dagokionez, pobreziaren arriskuko egoerak beharrizan oinarrizkoenei (elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak) aurre egiteko nahikoak izan ez daitezkeen diru-sarrerak edukitzearen baliokide dira, eta ongizaterik ezaren arriskua, berriz, gizarte jakin batean espero diren ongizate eta erosotasuneko gutxieneko mailei eusteko beharrezko gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikoarik ez edukitzearekin lotzen da. Azken adierazle hau pobrezia erlatiboaren edo EBko diru-sarrera txikien arriskuko tasen baliokidea da, horiek familiako medianaren diru-sarrera baliokideen %60ko mugatik aurrera finkatuta daude ("pobreziaren ataria" deitutakoa).

Oro har, 2004ko Inkestaren emaitzek esan nahi dute 45.000 etxebizitzak pairatzen dutela pobrezia motaren bat, eta hauetan 100.000 lagun baino gehixeago biltzen dira. Pobreziaren egoera errealek EAEn 25.000 sendi baino gehiagotan eragina izango lukete eta muturreko pobreziako egoerek, berriz, 4.000 bat. Ongizaterik ezaren arriskuko egoerek, berriz, 175.000 etxebizitza eta 400.000 lagun baino gehixeago eragiten dituzte.

2004ko La Memoria Sozio-ekonomikoak Inkesta honen emaitza nagusiak aurkeztu zituen, eta ondoren pobreziako arrisku taldeen deskribapenari, aldaketa berrien azterketari eta gure Erkidegoko pobreziaren banaketa geografikoaren bilakaerari ekin zien, eta 2005eko edizioak, eragiketa estatistiko honen Txosten Orokorretatik abiatuta, interes handiko kontu zehatzari ekin zion: eguneroko bizitzaren ikuspegitik pobreziaren arriskuko edo ongizaterik ezeko errealitate batekin lotzen diren egoerek dituzten inplikazio zehatzak.

Oraingo honetan pobreziaren maila objektiboen eta gure Erkidegoan biztanleek bere errealitatearen gainean duten pertzepzioaren beraren arteko kontrasteak aztertzen dira.

5

Horrela, 2004ko Pobrezia era Gizarteko Desberdintasunen Inkestak agertzen du pobreziaren maila objektiboak eta EAEko biztanleek bere errealitatearen gainean duten pertzepzioa bera egiaztatuz gero bi adierazle hauen artean ageriko korrelazioa dagoela ikus daitekeela. Horrela bada, adibidez, mantentzeko pobreziaren arriskuan objektiboki zehaztutako pertsonen %3,2 bakarrik eta ongizaterik ezeko arriskuan sailkatutako lagunen %13,7 jarrera erosoan sentitzen diren etxebizitzetan jasotzen badira ere, proportzioa %51,8ra iristen da ongizateko mailaren gainetik kokaturiko pertsonen artean.

Bestaldetik, ongizateko egoeran dauden etxebizitzetako pertsona gehienak eroso sentitzen badira, behartsuak ez diren baina diru-sarreren arazoak dituzten gehienak aurrera egiteko "moldatzen baino ez diren" etxebizitzetakoak dira (%69,3).

Hala ere, gehien nabarmentzen den kontua da pobreziako arriskuko egoeran dauden pertsonei dagokienez ikus daitekeen sailkapen objektiboaren eta pertzepzio subjektiboaren artean dagoen deskonexioa. Kasu honetan pertsonen %43,5 baino ez dira "behartsu samarrak" direla definitzen duten etxebizitzenak dira. Gehienek (%53,3) diote bere diru-sarrerekin moldatzen direla eta %3,2k dio jarrera erosoan dagoela.

Inkestak zehazten du sailkapen objektiboaren eta pertzepzio subjektiboaren arteko distortsio honen jatorria aztertzea komenigarria dela. Azpimarratu beharreko lehen alderdia da pobrezia/ongizatearen pertzepzioa aztertzen dugun errealitatea dimentsio anitzekoa izateak baldintzatzen duela. Izan ere, metatzeko ongizatearen jarreran ez dauden pertsonak bakarrik kontuan harturik,

IV.5.1. Koadroa. Pobreziaren adierazle orokorrak

	1986	1996		2000		2004	
	familien %	familien %	pertsonen %	familien %	pertsonen %	familien %	pertsonen%
Mantentzeko pobrezia							
Pobrezia larriaren arriskua	4,9	4,6	4,0	5,5	3,6	4,9	3,5
Ongizaterik eza	31,6	31,6	28,3	28,8	20,9	23,6	19,8
Pilaketako pobrezia	2,1	1,6	1,8	2,1	2,6	1,8	2,2
Bi pobrezia motak		5,7		6,8	5,4	6,2	5,2
Ongizate egoera	68,4	68,4	71,7	73,2	79,1	76,4	80,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Pobrezia eta gizarteko desberdintasunen inkesta.

IV.5.2. KOADROA. POBREZIAKO EGOEREN AUTOPERTZEPZIOA JARRERA OBJEKTIBOAREN ARABERA MANTENTZEKO POBREZIAREKIN LOTUTA. ETXEBIZITZA FAMILIARRETAKO BIZTANLERIA. EHUNEKO BERTIKALAK. 2004

	Pobrezia	Ez behartsuak ongizaterik eza	Ongizateko egoeran	Guztira
Behartsua edo oso behartsua	21,8	7,4	1,6	3,2
Behartsu samarra	21,7	9,6	2,6	4,4
Moldatzen da	53,3	69,3	44,1	48,5
Erosoa, zorionekoa edo aberatsa	3,2	13,7	51,8	43,9
Guztira	100	100	100	100

Iturria: 2004ko PGDI.

IV.5.3. KOADROA. GUTXIENEKO DIRU-SARREREN ADIERAZLE EKONOMIKOAK JARRERA OBJEKTIBOAREN ARABERA MANTENTZEKO POBREZIAREKIN LOTUTA. PGDI BALIOKIDETASUNA. BIZTANLERIA ETXEBIZITZA FAMILIARRETAN. EURO PER CAPITA. 2004

	Pobrezia	Ez behartsuak ongizaterik eza	Ongizateko egoeran	Guztira
Benetako batez besteko diru-sarrera	472,37	782,32	1.764,59	1.559,00
Oinarrizko beharrizanei aurre egiteko beharrezko gutxieneko diru-sarrera.	466,21	553,67	733,32	694,63
Oinarria: ongizatea	63,6	75,5	100	94,7
Hil bukaerara iristeko beharrezko diru-sarrera.	584,88	744,73	1.004,01	946,98
Oinarria: ongizatea	58,3	74,2	100	94,3

Iturria: 2004ko PGDI.

pobreziaren agerpenaren pertzepzioa dagoeneko nagusia da (kasuen %51,4a). Gainera, zenbait kasutan metatzeko arazo larriagoak edo ez hain larriak egon arren, bere burua behartsutzat hartzen dutenen proportzioa, argi eta garbi, gutxiengoa da ongizaterik ezeko pertsonen artean edo mantentzeko ongizateko egoeran daudenen artean (%24,3 eta %11,3, hurrenez hurren).

Pobrezia-mantentzeko ongizatea eskalan zehaztutako taldeen artean dauden aldeak ere agertzen dira beste adierazle batzuk erabiltzen baditugu. Horrela, pertsona behartsuen %53,8 hil bukaerara iristeko oso zaila edo zaila duten etxebizitzetakoak diren bitartean (%89,7), behartsu ez diren baina ongizateko mailaren azpitik dauden pertsona gehienek (%45,1) diote apur bat zaila dutela iristeko eta ongizateko egoeran dauden pertsonen %69ak ere bai.

Ondorioz, ikus dezakegu pobrezia-mantentzeko ongizatea eskalan zehaztutako egoera objektiboek biztanleak zehaztasun handiz bereizten dituzte pobrezia gainditzeko eta nahi diren ongizateko mailetara iristeko bere benetako gaitasunaren arabera.

Mantentzeko pobreziaren arriskuak ukituta dauden pertsonen artean bere burua behartsutzat jotzen duten pertsonen ehuneko nolabait txikia baloratzeko orduan, gainera, kontuan hartu behar dugu errealitate propioa hautemateko mailak baldintzatuta daudela auto-exijentziako maila txikiagoa egiten delako diru-sarrerak murriztu ahala. Horrela, bizirauteko edo hil bukaerara iristeko beharrezko denaren gaineko pertzepzioa sistematikoki murrizten da ongizateko eskalan behera egin ahala.

Testuinguru honetan, ongizateko maila bakoitzean oinarrizko beharrizanak betetzeko zehaztutako batez besteko gutxieneko diru-sarrera, batez ere, hil bukaerara iristeko beharrezkotzat hartzen den gutxienekoarekin lotzen da (ongizateko beharrizan orokorrak betez) ongizateko eskalaren aurreko taldean. Goiko taldean pobreziako gutxienekoa dena, horrela, ongizateko gutxienekora hurbiltzen da aurreko taldean. Horrela bada, pobreziako arriskuan dauden etxebizitzek PGDI unitate baliokide bakoitzeko hil bukaerara iristeko beharrezko diru-sarreratzat adierazten dituzten 584,88 euroek ia ez dute gainditzen ongizaterik ezeko arrisku egoeran dauden etxebizitzek oinarrizko beharrizanak betetzeko gutxieneko diru-sarrera gisa zehazten duten 553,67 euroko zenbatekoa. Adierazitako elementua ere agertzen da diru-sarreren jarraituan goiko aldean dauden bi taldeak kontuan hartzean. Horrela, ongizaterik ezeko arrisku egoeran dauden etxebizitzek hil bukaerara iristeko gutxienekotzat finkatutako unitate baliokideko 744,73 euro horiek etxebizitzarik behartsuenen artean oinarrizko beharrizanak betetzeko adierazitako 733,32 euroko zenbatekoa baino handixeago baino ez dira.

Adierazitako berretsita, gutxienekoen adierazleak, behartsuentzat, ongizateko egoeran dauden lagunei dagokien %58 eta 64 bitarteko zenbatekoetan kokatzen dira. Ongizaterik ezeko egoeran dauden pertsonei dagokienez, erlazio hau %74-76ko mailetan kokatzen da. Ondorioz, egiaztatzen da beharrizanak, eskuragarri dauden norberaren baliabideak murriztu ahala, beherantz estimatzeko joera dagoela.

Mantentzeko pobreziaren kasuan ikusitakoarekin ez bezala, metatzeko pobrezia objektiboaren eta pobrezia-

IV.5.4. KOADROA. POBREZIAKO EGOEREN AUTOPERTZEPZIOA JARRERA OBJEKTIBOAREN ARABERA METATZEKO POBREZIAREKIN LOTUTA. BIZTANLERIA ETXEBIZITZA FAMILIARRETAN. PORTZENTAJE BERTIKALAK. 2004

	Pobrezia	Ez behartsuak ongizaterik eza	Ongizateko egoeran	Guztira
Behartsua edo oso behartsua	48,2	5,4	0,5	3,2
Behartsu samarra	12,1	8,7	1,9	4,4
Moldatzen da	27,1	60,5	43,0	48,5
Erosoa, zorionekoa edo aberatsa	12,6	25,4	54,6	43,9
Guztira	100	100	100	100

Iturria: 2004ko PGDI.

IV.5.5. KOADROA. ETXEBIZITZAREN EROSOTASUN MAILA EGOERAREN ARABERA METATZEKO POBREZIAREKIN LOTUTA. BIZTANLERIA ETXEBIZITZA FAMILIARRETAN. PORTZENTAJE BERTIKALAK. 2004

	Pobrezia	Ez behartsuak ongizaterik eza	Ongizateko egoeran	Guztira
Guztiz desegokiak	71,7	1,5		2,1
Ez nahikoak	22,2	10,7	0,6	4,5
Hobegarriak	6,2	52,0	33,4	39,0
Egokiak		35,8	66,0	54,4
Guztira	100	100	100	100

Iturria: 2004ko PGDI.

ren hautemate subjektiboaren arteko lotura askoz garbiagoa da. Horrela, pobrezia objektiboko egoeran dauden pertsonen %60,3a bere burua "Behartsu samartzat" duten etxebizitzetakoa da, portzentaje hori %14,1era jaisten da bitarteko mailetan eta %2,4ra ongizateko jarreran kokatutakoetan.

IV.5.1. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN BANAKETA URTEKO DIRU-SARREREN ARABERA. 2004



Iturria: EIN. 2005eko Bizi-baldintzen inkesta.

Azkenik, metatzeko adierazleko datu objektiboen eta hautemate subjektiboaren arteko loturarik estuena etxebizitzaren erosotasunen gaineko balorazioa aztertzean ikus daiteke. Zentzu horretan, egiaztatu dugu etxebizitzaren erosotasun mailaren ebaluazioa ezberdina dela etxebizitza bakoitzak pobreziako eskalan duen jarreraren arabera. Zehazki, etxebizitzaren baldintzak ez direla nahikoak edo guztiz desegokiak direla jotzen dituzte metatzeko pobrezia egoeran dauden pertsonen %93,8k (%22,2rentzat ez nahikoak eta %71,7rentzat guztiz desegokiak) eta bitarteko egoeran dauden etxebizitzetako %12,2 eta ongizate osoko egoeran dauden etxebizitzetako lagunen %0,6k baino ez. Alderantziz, ongizateko egoeran dauden etxebizitzetako pertsonen %66ak erosotasunen maila guztiz egokia edukiz gero, proportzioa %35,8ra jaisten da bitarteko kolektiboetan, eta ezdeusa da metatzeko etxebizitza behartsuetan.

5.2. 2005eko bizi-baldintzen inkestaren emaitzak

EINek 2005eko Bizi-baldintzen Inkestaren emaitzak berriki aurkeztu ditu[1], Europako Batasuneko Errenta eta Bizi-baldintzei buruzko estatistiken harmonizazioaren

[1] Eragiketa honen emaitzek ez dute erlaziorik Eustaten "Bizi-baldintzen Inkestarekin". Berau EAEko estatistika erakundeak bost urtean behin egiten du —azkenekoa 2004an—. Horrek, pertsonen errenta mailarekin lotutako hainbat alderdiez gainera, bere bizi-kalitatean eragina duten beste aldagai batzuk ere aztertzen ditu, hala nola harreman familiarrak eta sozialak, aisiako ohiturak, bizi den ingurunea,...etab. EINeko inkesta, funtsean, pobreziari buruzko ikerketa da diruzko terminoetan.

prozesutzat, eta berau "Statistics on income and living conditions" (EU-SILC) deitzen da. Inkesta honen helburu nagusietako bat pobrezia eta gizarteko bazterkeriaren analisia egitea ahalbidetzen duen informazioa eskaintzea da. Ematen duen informazioa oso anitza da, etxebizitzari, horrek sortzen dituen gastuei, diru-sarrerei, etxebizitzako ekipamenduari, egoera ekonomikoari, helduen jarduerari, osasunari, osasun-arretarako sarbideari, hezkuntzari eta biografiako datuei buruzko datuak biltzen ditu.

Pobrezia dimentsio anitzeko fenomenoa da, definizio bakarra ez duena eta, horren gainean, neurketa eta interpretazio ugari egin daitezke, hartutako ikuspuntuaren arabera. Pobreziaren analisia egiteko funtsezkoa da erabili beharreko kontzeptuak zehaztea. Lan honetan pobreziaren deskribapen-analisia egiten da, berau dirupobrezia erlatibotzat ulertuta. Horretarako, biztanleak behartsu eta ez behartsuen artean sailkatzeko erabilitako metodoa diru-pobrezia erlatiboko lerroaren eraikuntzan oinarritzen da.

Erabilitako pobreziaren lerroa etxebizitzaren kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarrera garbietan oinarritzen da, horrelakotzat etxebizitzaren diru-sarrera garbi guztiak kontsumoko unitate kopuruaz zatituta ulertuta (errenta erabilgarria). Hortik aurrera, pobreziako lerroa edo pobreziaren ataria pertsonei adjudikatutako diru-sarreren banaketaren batez bestekoaren %60an finkatzen da kontsumoko unitate bakoitzeko[2]. Horrela bada, "behartsutzat" hartzen da kontsumoko unitate bakoitzeko aipatutako atalase hori baino txikiagoko diru-sarrerak dituen pertsona oro (horrela etxebizitza bateko kide guztiak era berean sailkatuko dira behartsu edo ez behartsu gisa). Atalase hau, Batasunean, herrialde bakoitzerako kalkulatu da[3], horregatik, herrialde bakoitzean ikuspegi erlatiboa lor daiteke, baina zuzenean beraien artean konparatu ezin dena.

Inkesta honen emaitzen artean, lehenik, nabarmendu behar dugu 2004. urtean etxebizitza bakoitzeko batez besteko errenta, gure erkidegoan, 25.217 eurokoa zela,

IV.5.6. KOADROA. HAINBAT GASTU EGITERIK EZ DUTEN ETXEBIZITZAK. %. 2004

	Guztira (milatan)	Oporrak astebetez urtean gutxienez	Haragi, oilasko edo arraina jatea bi egunez behin gutxienez	Etxebizitza tenperatura egokiarekin edukitzea	Aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko gaitasuna
Nafarroa	206,7	18,6	0,1	1,5	17,1
Kantabria	189,5	29,6	0,4	2,6	19,5
Asturias	388,8	34,5	3,2	5,8	21,8
Errioxa	104,9	27,7	1,1	2,3	22,4
Gaztela eta Leon	903,0	37,2	0,7	3,9	23,6
Aragoi	461,9	26,6	0,9	5,0	23,9
EAE	**780,9**	**27,2**	**1,5**	**4,9**	**24,0**
Balearrak	352,4	33,8	2,6	11,8	32,1
Gaztela - Mantxa	641,1	41,6	1,8	6,8	32,2
Katalunia	2.481,7	35,4	2,7	7,5	32,4
Madril	2.006,8	28,4	3,7	6,9	33,1
Estatuko batez best.	**15.141,3**	**40,4**	**2,5**	**9,0**	**33,8**
Valentziako K.	1.650,3	45,0	1,8	11,5	35,7
Galizia	952,7	47,5	1,7	16,4	38,5
Andaluzia	2.553,7	56,5	2,0	7,2	39,7
Murtzia	419,2	51,2	1,5	10,5	41,3
Extremadura	374,7	50,3	8,1	12,0	41,8
Kanariak	628,7	46,9	6,3	32,0	50,1
Ceuta eta Melilla	44,4	41,4	2,0	19,8	52,2

Iturria: EIN. 2005eko Bizi-baldintzen Inkesta.

[2] Kontsumoko unitateko diru-sarrera edo diru-sarrera baliokidea etxebizitzaren diru-sarrera osoa da zati "kontsumoko unitateez"; halere, kontzeptu hau per capita diru-sarreratik bereizten da etxebizitza bateko kide guztiei diru-sarrera berbera esleitzen ez zaielako, baizik eta bestelako faktoreak kontuan hartzen direla, eskalako ekonomiak esate baterako. Hau da, etxebizitza bateko kide kopurua handitzeak ez duela esan nahi diru-sarrerak ere proportzionalki handitu behar direnik ongizateko maila berberari eusteko, eta gainera kontsumoko pautak ez dira berdinak etxebizitzako kide bakoitzaren adinaren arabera.

[3] Esan dugun bezala, pertsonei adjudikatutako kontsumoko unitateko diru-sarreren banaketaren medianaren %60an ezarrita dago, EBko herrialde bakoitzean. Hortaz, errentaren banaketa herrialde bakoitzaren barruan aztertzen da, eta ez Batasuna oro har hartuta.

Estatuko batez bestekoa baino %12,5 gehiago (22.418 eurokoa). Madril eta Nafarroako Komunitateek baino ez zuten balio hori gainditzen, azkeneko hori 28.300 euroren gainetik egonik. Pertsona bakoitzeko batez besteko errenta kontuan hartzen badugu, Inkestak EAEn berau urtean 9.495 eurokoa dela agertzen du, Estatuko batez bestekoa baino ia %20 gehiago. Zerrendaren beste muturrean, bi aldagaiontzat, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluziako komunitateak daude.

Gainera, errenta-tarteen araberako etxebizitzen banaketatik ondorioztatzen da hauen %42,4k urtean 25.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituztela (horien artean, %21,6k 35.000 euro baino gehiago urtean), %27k 14.000 eta 25.000 bitartean eta gainerako %26,1ek 14.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak ditu urtean (hauen erdiak 9.000 euro baino gutxiagokoak). Estatu osoa hartuta, %34,3k 25.000 euro baino gehiagoko errentak dituzte, %30,9a errentaren erdiko segmentuan egongo litzateke eta etxebizitzen heren bat baino gehiagok (%34,5) 14.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak ditu urtean[4].

Etxebizitzen bizi-baldintzak eta errenta-maila erakusten dituen beste adierazle bat hainbat gastu egiterik ez duten etxebizitzei dagokie. Horrela, esate baterako, EAEn, horien %27,2ak adierazten du urtean oporraldiko astebete hartzerik ere ez dutela. Tasa hau %40,4ra arte ere igotzen da Estatu osorako, eta %50a ere gainditzen da Andaluzia, Murtzia eta Extremadura bezalako komunitateetan. Beste muturrean, Nafarroan etxebizitzen %18,6a baino ez dago egoera horretan.

IV.5.2. GRAFIKOA. POBREZIAREN ALATASEAREN AZPITIK DAUDEN PERTSONEN EHUNEKOA



Iturria: EIN. 2005eko Bizi-baldintzen inkesta.

Halaber,interesgarria da etxebizitzek aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko duten gaitasuna. EAEn etxebizitzen %24ak ez du horretarako gaitasunik, eta portzentaje hori %33,8ra arte handitzen da Estatua osoki hartuta. Kanarietan, Ceutan eta Melillan etxebizitzen erdia baino gehiago egoera horretan egongo lirateke.

Azkenik, EINaren Bizi-baldintzen Inkestak pobreziaren atalasearen azpitik dauden pertsonen ehunekoa kalkulatzen du. Estatuaren batez bestekorako portzentaje hau ia ez da aldatu estatistikako eragiketak dituen bi urteetan, eta 2004. urtean %19,8ko tasa izan zuen. Gure Erkidegoan, berriz, "behartsu" gisa katalogatutako pertsonen tasa %9,5ekoa da, eta 1,7 puntutan murriztu da urte bakarrean, 2003. urtean %11,2koa izan baitzen.

EAEk eta Estatuak Europako testuinguruan duten posizio erlatiboa aztertzen badugu, ikusiko dugu ezen, dagoeneko esan bezala, EBn atalase bakarra ez dagoenez eta herrialde bakoitzerako bereizita kalkulatzean, pobrezia erlatiboko tasak ez direla nahikoak erkaketak egiteko. Hala ere, herrialde bakoitzaren ideia eman dezakete gutxi gorabehera, atalase guztien monetako atalaseak ere kontuan hartzen badira. Nolanahi ere, Eurostatek ohartarazten du askotan bi neurri hauek ere ez dutela bi herrialderen postu erlatiboa zehaztea ahalbidetzen, izan ere, bata bestea baino postu hobean egon daiteke pobreziaren tasari dagokionez (biztanleria herrialderen atalasearen azpitik), baina postu okerragoan atalasea bera aztertuz gero (monetako balio txikiagoa). Erabilgarri dauden azkeneko datuek, 2003. urtekoek eta 2004ko Inkestatik datozenek, EAE —Estatuaren pobreziaren atalase bera esleituta du, erosteko ahalmenaren unitateetan edo PPStan—, posizio erlatiboki positiboan kokatzen dute, bere pobrezia-tasa erlatiboki txikia dela eta Suedia, Finlandia edo Danimarka bezalako herrialdeen baliokidea dela kontuan harturik. Hala ere, bere pobreziaren atalasea Batasuneko txikienetakoa da, erabilitako metodologiaren arabera.

Bestaldetik, EUSTATen Bizi-baldintzen Inkestaren Egoerari" buruzko atalera jo ahal dugu EAEko pobreziaren

[4] Gainerako etxebizitzak, %100 egin arte, Inkestako "ez dago jasota" kategoriari dagozkio.

IV.5.3. GRAFIKOA. EAE-N HAINBAT ALDERDITAN MURRIZKETA EKONOMIKOAK PAIRATZEN DITUZTELA DIOTEN FAMILIEN EHUNEKOAREN BILAKAERA



Iturria: Eustat "Bizi-baldintzen inkesta".

bilakaera berriaren irudia eskuratzeko, izan ere, aztertutako aldagaiak beste batzuk badira ere, hamabost urteko aldiaren ikuspegia dugu, 1989tik 2004ra bitartean, azken hau azkeneko eragiketaren eguna izanik. Horrela, adibidez, hainbat alderditan (hala nola elikaduran, etxebizitzaren ekipamenduan eta aisian) murrizketa ekonomikoak pairatzen dituztela adierazten duten sendien ehunekoa aldatzen dela ikus daiteke. Grafikoak erakusten du elikaduran murrizketa ekonomikoak dituzten sendiek, 1994. urteko inkestan erlatiboki okerrera egin ostean (%31,5), 1999koan hobera egin zuela eta 2004ko azkeneko datuan, berriz, 1989ko baloreak berreskuratu direla dirudi. Hala ere, e%24,5eko tasa hau kontuan hartzeko modukoa da. Halaber, sendien %59ak murrizketa ekonomikoak pairatzen ditu jantzi eta oinetakoen gastuan, eta %65,4 arte aisiako bere azturetan. Etxebizitzaren ekipamenduen murrizketak, berriz, 1989. urtean %73,6ko tasa kezkagarrian zeuden baina %44 arte murriztu dira.

Era berean, Inkesta honek agertzen du familien %7,7ak 2004. urtean erakundeei laguntza ekonomiko motaren bat eskatu ziela. Tasa hau, 1989. urtean %13,4koa zena, murriztuz joan da hurrengo eragiketetan. Pertsona nagusia langabetua duten familiak bakarrik kontuan hartzen baditugu, tasa hori %20,9koa da (%33,5ekoa 1989. urtean).

Kontuan hartu beharreko bestelako kontuak izan litezke ezen, azkeneko iturri honen arabera, EAEko hiru familietako batek gaur egun ere uste duela bere diru-sarrerak ez direla nahikoak, eta hauen erdiak baloratzen du bere egoera ekonomikoak txarrera egin duela azkeneko hiru urteotan. Gainera, zazpi familietako batek bere diru-sarrerak "ezegonkorrak" direla adierazten du.

IV.5.4. GRAFIKOA. ATALASEEN (PPS UNITATEAK) ETA POBREZIA-TASEN ARTEKO EUROPAKO ERKAKETA. 2003



Iturria: Eustat eta EIN-en oinarriturik egin da. 2004ko Bizi-baldintzen inkesta.

Jarduera judizialaren bilakaera EAE-n

6.1. Justiziaren zifrak

Justiziaren zifren gaineko analisia egiteak, oro har, esan nahi du sartzen diren gaiak, ebazten direnak eta ebazteke gelditzen direnak aztertzea, eta hori azken batean organo judizialen eraginkortasunaren gaineko analisia egitea izango litzateke. Zerbitzu publikoaren eraginkortasuna zehazteko, neurri handi batean erabakigarria da helburuak erdiestea, kasu honetan gaiak berme guztiekin eta ahalik eta eperik laburrenean ebaztea alegia.

Zentzu horretan, hiritarrek Justiziaren zerbitzu publikoaren eraginkortasunari buruz duten balorazioa kontuan hartu behar da. Justiziaren Euskal Behatokiak (Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren mende[1]) 2003. urteko bere txostenean jakinarazten du EAEko justiziaren irudiari buruz egindako azterlanean hiritarrek justiziaren eraginkortasunari buruz egiten duten diagnostikoa "atsekabegarria" dela: Elkarrizketatuen %81ak uste zuen *"Justiziaren Administrazioa oso motela dela eta ahal den guztietan hobe dela horretara ez jotzea"*. Hau da, hiritarren %81ak uste duela Justiziaren moteltasuna hain handia izanik hobe dela babes judizial eragingarria bezalako eskubideari uko egitea, zerbait oinarrizkoa izan arren.

Hala ere, aipatu ere egin behar dugu justiziaren eraginkortasunik ezaren pertzepzioa zehazten dela auziren

---

[1] Autonomiako Estatutuaren I. tituluan, EAEko eskumenei buruzkoan, Justiziari dagokionez, honakoa adierazten da:

13. artikulua

- Justizia Administrazioarekin lotuta, jurisdikzio militarra salbuetsita, Euskal Autonomia Erkidegoak, bere lurraldean, Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren Lege Organikoek aitortzen Gobernuari aitortu, erreserbatu edo egozten dizkioten ahalmenak erabiliko ditu.
- Lege Orokorrekin bat etorriz, Estatuari osoki dagozkio graziako eskubidea eta Ministerio Fiskalaren antolaketa eta funtzionamendua.

14. artikulua

Euskal Autonomia Erkidegoan organo jurisdikzionalen eskumena honako hauei luzatzen zaie:

- Arlo zibilean, auzialdi eta maila guztiei, kasazio eta berrikusteko errekurtsoak barne Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren gaietan.
- Arlo penal eta sozialean, instantzia eta maila guztiei, kasazio eta berrikusteko errekurtsoak izan ezik.
- Administrazioarekiko auzietako arloan, instantzia eta maila guztiei bere legeria esklusiboa Autonomia Erkidegoari dagokion gaietan Euskal Herriko Administrazioak emandako egintzak direnean, eta lehen auzialdian, Estatuko Administrazioak emandako egintzak direnean.
- Euskal Herriko organo judizialen arteko eskumeneko kontuei.
- Jabetzako Erregistroetara jo behar duten Euskal Zuzenbide pribatiboari dagozkion dokumentuak kalifikatzeari buruzko errekurtsoak.

Gainerako arloetan Auzitegi Gorenaren aurrean Legeen arabera bidezkoak diren errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira. Auzitegi Gorenak Euskal Herriko organo judizialen eta Estatuko gainerakoen arteko eskumen eta jurisdikzioko auziak ere ebatziko ditu".

6

bat epaitegietan izan duten lagunei galdetzean. Zuzeneko erabiltzaile hauek prozesuko iraupenen gainean egiten duten argazkia honakoa da: kontsultatutakoen %45ak dio bere auziak iraun duen epea arrazoizkoa zela (%8ak dio laburra izan zela), eta %53ak, aldiz, arrazoizkoa baino denbora gehiago zela irizten dio (%28ak epea gehiegizkotzat jotzen du).

Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluak pertsona orok prozesu publikorako eskubidea duela bermatzen du behar ez diren atzerapenik gabe eta berme guztiekin. Zentzu berean, *"Hiritarren Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutuna"*[2] izenekoak ukitzen dituzten auzien izapidetza arina edukitzeko eskubidea defendatzen du, eta adierazten du horiek legezko epearen barruan ebatzi beharko direla. Hala eta guztiz ere, ez dago zalantzarik "behar ez diren atzerapenik gabeko" prozesu baterako eskubideak ez duela esan nahi ebazpena legeetan ezarritako prozesuko epeen barruan emango denik. Horrela bada, bidegabeko atzerapenik gabeko prozesua arrazoizko epearen barruan izapidetutakoa izango litzateke, betiere kasuaren gorabehera zehatzei jarraiki. Konstituzio Auzitegiaren hainbat epai daude atzerapen judizialak epaitu behar diren irizpideak argitzen dituztenak: auziaren konplexutasuna, era horretako auzien iraupenaren margen arruntak, eskatzailearen prozesuko jarrera eta kasuan nahasitako agintarien jarrera.

Prozesuen berezitasun hauek guztiak ezagutzen ez ditugunez eta zenbakizko datuak baino ez ditugunez, kontua ez da balio-judizioa egitea bidegabeko atzerapenak dauden edo ez ebazteko, beharrezko tresnak edukitzeko beharra agerian uztea organo judizialen ebazteko ahalmen eta eraginkortasunaren gaineko ebaluazioa errealitatearekin bat etor dadin. 2003-2005eko aldiaren Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren Memoriek jarduera judizialaren gaineko datu nagusiak ezagutzea ahalbidetzen dute. Zehazki, sartu, ebatzi eta ebazteke geratutako gaien buruzkoei ekingo diogu orden jurisdikzionalaren arabera, baita ebazpen eta pendentzia tasari ere. *"Ebazpen tasa"* saiatzen da organo judizialen ebazteko ahalmena adierazten, horregatik ebatzitako gaien ehunekoa erakusten da sartutakoei dagokienean. *"Pendentzia tasari"* dagokionez, berriz, kontuan hartu behar dugu ebazteke kontabilizatutako gaiak ez direla aztertutako urtekoak bakarrik, baizik eta urte batzuetatik besteetara doazen pendentzia-burtsak daudela.

[2] Diputatuen Biltzarraren Osoko Bilkurak, parlamentuko talde guztiek aho batez, 2002. urteko apirilaren 16an onetsitako ez legezko proposamena, Justizia Eraberritzeko 2001. urteko maiatzaren 28ko Estatuko Itunaren ondorioz. Itun honen lehentasunen artean hiritarrek justiziaren aurrean dituzten eskubideen gutuna prestatzea da. Gutunak gardentasun, informazioa eta arreta egokiko printzipioei jarraitu behar die, eta erabiltzaileek justiziaren aurrean dituzten eskubideak finkatu behar ditu.

Bukatzeko, eta Justiziaren zerbitzu publikoak EAEn duen garrantzi ekonomikoa estimatzearren, Sail honek EAEko Aurrekontu Orokorren barruan duen gastu erantsiaren datua kontuan hartzen dugu. 2005. urtean gastu hau 104,9 milioi eurokoa izan zen, hau da, Aurrekontu Publiko Osoaren %1,4koa eta urte horretako gure Erkidegoko BPGdaren %0,2a (+%2,9 2004. urtearen aldean). Agregatu honen barruan, doako justizia EAEko Justiziaren aurrekontu osoaren %4koa izan da. Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileak, epaileak, fiskalak eta idazkari judizialak barne, urte horretan 2.905 lagunekoa zen.

6.2. Prozesuaren adierazleak

Jarduera judizialari buruz eskuragarri ditugun azkeneko datuak EAEko organo judizialetan, 2003. urtetik 2005. urtera bitartean, auzi kopuruaren bilakaerari buruzkoak dira. Aldi honetan EAEn, guztira, 926.672 auzi sartu dira, baina 946.892 ebatzi dira. Hortaz, sartutakoak baino 20.220 auzi gehiago ebatzi dira. Honek lagundu du ebazteke dauden auzien proportzioa murrizten (horietako asko aurreko ekitaldietatik datozenak) aztertutakoekin lotuta.

2005. urteari dagokionez, datuek erakusten dute sartzen diren auzien goranzko joera arina (+%1 hain zuzen ere). Ebatzitako auziei dagokienez, hauek ere gehiago izan dira, izan ere, urte honetan aurreko urtean baino 7.683 prozedura gehiago ebatzi dituzte. Gehikuntza honek aldeko eragina izan du pendentzian, hau %10 murriztu baita. Datu hauek Lurralde Historikoen arabera banakatuta, pauta berbera ikus daiteke horietan guztietan: sartutako eta ebatzitako auziei dagokienez, azken bi urteotako joera goranzkoa izan da, eta ebazteke dauden auziak, berriz, murriztu dira.

Hala eta guztiz ere, joera nagusiak auziak areagotu direla adierazten badu ere, sartutako auzien bilakaeran aldeak dauden jurisdikzioaren arabera. Horrela bada, sarreren bolumena gehien murriztu da instrukzioko epaitegietan, lan arlokoetan eta adin txikiko epaitegietan, eta administrazioarekiko auzietako epaitegietan, ordea, nabarmen handitu dira eta, batez ere, jurisdikzio zibilean. Merkataritza arloko epaitegietan (Konkurtsoari buruzko Legea 2004. urtean indarrean sartu zirenean sortuta) zein emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegietan (jardueran 2005. urteko uztailetik aurrera) oraingoz ez dago joerak ezartzerik auzi kopuruaren bilakaerari dagokionez.

a) Instrukzioko epaitegiak: Instrukzioko epaitegiak delituengatiko kausak bideratzeaz eta hutsegiteak kasu jakin batzuetan epaitzeaz arduratzen dira. Jurisdikzio honetan auzi gehienak sartzen dira, baina prozedura hauetako asko, batzuetan %75era ere iristen dira, artxibatu edo largesten dira. EAEn guztira instrukzioko 23 epaitegi daude, eta hauetan 2004. urtetik 2005. urtera bitartean, guztira, 297.123 kasu sartu ziren, eta 301.034 ebatzi ziren. Epaitegi hauek auzi kopurua murrizteko joera dute, neurri handi batean 2005. urtean emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegiak sortzean. Hala eta guztiz ere, 2005. urtean sartutako auzien bolumena guztien %43,5ekoa da.

IV.6.1. KOADROA. EAE-KO JUSTIZIAREN ADMINISTRAZIOA: JARDUERA LABURPENA ORGANO JUDIZIALEN ARABERA. 2003-2005

	2003			2004			2005		
	Sartutakoak	Ebatzitakoak	Ebazteke	Sartutakoak	Ebatzitakoak	Ebazteke	Sartutakoak	Ebatzitakoak	Ebazteke
Instrukzioa	122.198	125.710	13.054	150.226	150.964	24.552	146.896	150.070	21.375
Zigor	5.802	6.059	2.053	16.032	16.568	14.793	16.404	19.754	11.442
1. auzialdia	22.791	23.360	10.382	45.497	46.230	26.506	47.953	49.412	25.044
Familia	7.626	7.212	2.646						
Mistoak Zibila	11.496	11.106	5.150	65.390	67.673	19.517	65781	67.225	18.073
Mistoak Zigor	40.391	41.130	9.010						
Lan Arlokoa	15.744	15.154	5.724	24.057	24.533	12.277	22.879	25.256	9.898
Adm.-Auzietakoa	2.950	3.099	1.649	5.594	4.593	2.924	6.968	6.196	3.697
Adin txikikoak	2.213	2.315	1.461	4.826	4.813	3.597	3.879	3.870	2.889
Espetxeratuen Z.	6.329	6.250	564	5.947	6.887	486	5.993	5.853	626
Entzunaldiak	9.489	9.405	3.987	10.374	11.088	4.157	11.015	10.992	4.181
J.A.N.	7.041	6.899	8.154	6.629	7.908	7.374	6.976	8.223	6.128
Merkaritzako Epaitegiak *				182			1.619		
Emakumearen aurkako Indark. E.*							1.485	1085	409
GUZTIRA	**254.070**	**257.699**	**63.834**	**334.754**	**341.257**	**116.183**	**337.848**	**347.936**	**103.762**

Iturria: Egin da Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren Urteko Memorietan oinarriturik.
(*) 2004. urteko abenduaren 28an Generoko Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 172004 LO onesteak, ondorioz, 2005. urtean Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegiak sortzea ekarri zuen. Halaber, Merkataritza Arloko Epaitegiak 2004. urteko irailean sortu ziren, Konkurtsoko Legea indarrean sartzean (Konkurtso-Antolaketa Ekonomikoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Estatuko Legea).

IV.6.1. GRAFIKOA. EAE-KO JUSTIZIAREN ADMINISTRAZIOA: JARDUERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: Justiziaren Administrazioaren Euskal Behatokia.

b) Zigor arloko epaitegiak: Epaitegi hauek instrukzioko epaitegiek bideratu dituzten delituengatiko kausak izapidetzeaz arduratzen dira. Gure Erkidegoan zigor arloko 14 epaitegi daude, eta 2004-2005 urteetan bere auzi kopuruaren bilakaerak sarrera- eta ebazpen-bolumena handitzeko joera erakutsi du. Azken adierazle hau %19,2 hazi da erreferentziako aldian, eta pendentzia globala 3.351 auzitan murriztu da.

c) Lehen auzialdiko epaitegiak: Epaitegi hauek arlo zibileko gai juridikoak ebazten dituzte. EAEn, guztira, era honetako 28 epaitegi daude, eta 2004. urtetik 2005. urtera bitartean hauetan 93.450 prozedura sartu dira, eta 95.642 ebatzi dituzte, hau da, sartutakoa baino %2,3 baino gehiago. Datuek, aztertutako aldian, igoera txikia egon dela erakusten dute, bai jasotako auziei bai ebatzitakoei dagokienez.

d) Lan arloko epaitegiak: Lan arloko auzitegiek laneko eta gizarte segurantzako gatazkei buruzko demanda arruntak ezagutzen dituzte. Gure Erkidegoan mota honetako 18 epaitegi daude, eta 2004-2005 urteetan, guztira, 46.936 auzi erregistratu dira, eta 49.789 ebatzi dituzte. organo judizial hauetako jardueraren adierazleen bilakaerak erakusten du sartutako auzien bolumenean %4,9ko beherakada egon dela. Era berean, ebazteke dauden auziak ere murriztu direla egiaztatzen da.

e) Administrazioarekiko auzietako epaitegiak: Epaitegi hauek Administrazio Zuzenbidea jarraitu beharreko Herri Administrazioen jarduerarekin, Lege maila baino txikiago xedapen orokorrekin eta Legegintzazko Dekretuekin lotutako auziak ezagutzen dira. Hauek ere arduratzen dira helbideetan eta sartzeko titularraren adostasuna beharrezkoa den gainerako eraikinetan edo tokietan sartzea baimentzeaz, betiere hori bidezkoa denean Administrazioaren egintzen nahitaezko burutzapena gauzatzeko. EAEn, guztira, era honetako 8 epaitegi daude, eta 2004. urtetik 2005. urtera bitartean 12.562 auzi erregistratu dira, eta 10.789 ebatzi dira. Aurreko urteen aldean ebatzitako auzi kopuruan gehikuntza handia egon dela ikusi arren, sartutakoak baino prozedura gutxiago ebazteak pendentzia igotzeko joera eragin du (+%26,4).

IV.6.2. KOADROA. EAE-KO JUSTIZIAREN ADMINISTRAZIOA: PROZESUAREN ADIERAZLEAK

	Ebazpen-tasa			Pendentzia-tasa		
	2003	2004	2005	2003	2004	2005
Instrukzioa	102,9	100,5	102,2	10,7	16,3	14,6
Zigor arloa	104,4	103,3	120,4	35,4	92,3	69,8
1. auzialdia	102,5	101,6	103,0	45,6	58,3	52,2
Familia	94,6			34,7		
Mistoak Zibila	96,6	103,5	102,2	44,8	29,8	27,5
Mistoak Zigor arloa	101,8			22,3		
Lan arloa	96,3	102,0	110,4	36,4	51,0	43,3
Adm.Auzietakoa	105,1	82,1	88,9	55,9	52,3	53,1
Adin txikikoak	104,6	99,7	99,8	66,0	74,5	74,5
Espetxeratuen Z.	98,8	115,8	97,7	8,9	8,2	10,4
Entzunaldiak	99,1	106,9	99,8	42,0	40,1	38,0
J.A.N.	98,0	119,3	117,9	115,8	111,2	87,8
Emakumearen aurkako indarkeria			73,1			27,5
GUZTIRA	**101,4**	**101,9**	**103,0**	**25,1**	**34,7**	**30,7**

Iturria: Egin da Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren Urteko Memorietan oinarriturik.
Ebazpen-tasa: Ebatzitako eta sartutako auzien arteko kozientea.
Pendentzia-tasa: Urte bukaeran ebazteke dauden auzien eta sartutako auzien arteko kozientea.

IV.6.3. KOADROA. EAE-KO AUZITEGI NAGUSIA: AUZIAK SALEN ARABERA

	2004			2005		
	Sartutakoak	Ebatzitakoak	Ebazteke	Sartutakoak	Ebatzitakoak	Ebazteke
Zibila eta Zigor arloa	92	87	24	65	83	6
Lan arloa	3.200	2.865	976	3.252	3.287	941
Adm.auzietakoa	3.337	4.956	6.374	3.659	4.853	5.181
J.A.N. GUZTIRA	6.629	7.908	7.374	6976	8.223	6.128

Iturria: Egin da Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren Urteko Memorietan oinarriturik.

f) Adin txikikoen epaitegiak: 2004. urtetik 2005. urtera bitartean EAEn dauden adin txikikoen lau epaitegiek, guztira, 8.075 auzi erregistratu dituzte, eta 8.683 ebatzi dituzte. Adin txikikoen justiziak zigor arloko jurisdikzioaren barruan duen proportzioa %2,5ekoa da, halere, erreferentziako aldian dagoen joerak sartutako auzien bolumenaren murrizketa handia erakusten du (–%19,6), hau da, ia 1.000 auzi gutxiago. Ebatzitako auziei dagokienez, murrizteko joera dago, baina 2005. urtean ebazpen-ratioa %100 ingurukoa izan da. Ebazteke dauden auziak %21,4 gutxiago izan dira.

g) Espetxeratuen zaintzako epaitegiak: Epaitegi hauek, besteak beste, askatasunaz gabetzeko zigorrak exekutatu, baldintzapeko askatasuna onetsi edo ezeztatzeko eginkizunak eta irteteko baimenei edo presoen sailkapenari buruzkoak egotzita dituzte. Espetxeratuen zaintzako epaitegi bakarra Bilbon dago eta 2004-2005 urteetan, guztira, 11.940 auzi sartu dira, eta 12.740 ebatzi dira. Aztertutako aldian auzi-sarrerak goranzko jarrera arina du, eta ebatzitakoak, berriz, %15 murriztu dira.

h) Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak: Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiek, zigor arloan, delitu eta hutsegite jakin batzuk epaitzen dituzte, betiere gizonezko batek bere emaztea den edo izan den edo berarekin antzeko afektibitate-harremanagatik, bizikidetzarik egon ez arren, lotuta egon den emakumearen aurka egin baditu. Orden zibilean familiako auziak ebazten dira, betiere alderdietako bat biktima edo egilea, induktorea edo laguntzailea bada generoko indarkeriaren ekintzetan. Epaitegi hauek (bana lurralde historikoko hiriburuetan) 2005. urteko ekainean funtzionamenduan sartu ziren eta, urte horri dagokion jarduerako aldi laburrean, guztira, 1.485 auzi sartu ziren, eta horietatik 2005. urtea bukatu baino lehenago %73,1a ebatzi ziren.

i) Lehen auzialdi eta instrukzioko epaitegiak (mistoak): Epaitegi hauek gai zibilez zein zigor arlokoez arduratzen dira. Guztira, 31 dira gure Erkidegoan. 2004. urtetik 2005. urtera bitartean, guztira, 131.171 auzi sartu ziren, ebatzitakoak sartutakoak baino %2,8 gehiago izan ziren. Azkeneko urteotako joera auzi berrien bolumena zein ebatzitakoena apur bat jaistea izan da eta pendentzia, berriz, %10,9 murriztu da.

j) Probintziako entzutegiak: Aldi honetan zehar Entzutegi hauetan, guztira, 21.389 prozedura erregistratu dira, eta 22.080 ebatzi dira. Azkeneko urteotan auzi kopuruak izandako bilakaerak erakusten du sarreren bolumena igotzeko joera egon dela (+%6,1), ebatzitako auziak, berriz, apur bat murriztu dira. Pendentzia ere handitu da, baina honen igoera oso txikia izan da, izan ere, 2005. urtearen bukaeran 2004. urtean baino 24 auzi ebazteko bakarrik zeuden.

k) Justiziako Auzitegi Nagusia: EAEko JANak hiru sala ditu —zibil eta zigor arlokoa, lan arlokoa eta administrazioarekiko auzietakoa—, horietako lehenengoan 2004. urtetik 2005. urtera bitartean jarduera-bolumena sartutako 157 auzi eta ebatzitako 170 auzikoa izan da. Azkeneko urteotako joera sartutako auziak zein ebatzitakoak eta ebazteke daudenak murriztekoa izan da. Horrela bada, ebazpen-tasa 2004. urteko %94,6tik 2005. urteko %127,7ra igaro da. Lan arloko salan, berriz, aztertutako aldian, guztira, 6.452 auzi sartu dira, eta aldi horretan bertan ebatzitakoak, berriz, 6.152 izan dira. Ebazteke dauden auziak %3,5 murriztu dira. Orden jurisdikzional honetan sartutako auzien bolumena egonkortzeko joera dago. Azkenik, administrazioarekiko auzietako salan, guztira, 6.996 auzi berri erregistratu dira, eta 9.809 ebatzi dira, sartutakoak baino %40,2 gehiago. Gorabehera horrek ekarri du 2005. urtean ebazteke zeuden auziak murriztea, hortaz, 2004. urtean baino 1.163 auzi gutxiago egon dira, sarreren bolumena handitzeko joera egon arren.

5

gizarte babesa EAE-n

Gizarte Babeseko Estatistika Integratuen Europako Sistemak (GBEIES) emandako definizioaren arabera, Gizarte Babesa zera da: gizabanakoek dituzten hainbat arrisku eta beharrizanek eragiten dituzten kargak estaltzerakoan sortzen diren gastuen multzoa. Gastu horrek hirugarren baten esku-hartzea eragiten du, eta hirugarren hori agente publikoa nahiz pribatua izan daiteke, edo baita irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua ere (baldin eta gastuak talde batenak badira, eta beraz, produktuen kontsumo pertsonalari loturiko gastu pribatuak ez badira aintzat hartzen). Bestalde, esku-hartze horrek onuradunari ez dio aldi berean kontra-partida baliokiderik ekarriko.

V.1. GRAFIKOA. GIZARTE PRESTAZIOETAKO GASTUAREN BANAKETA, FUNTZIOEN ARABERA. 2004



Iturria: Eustat.

EAEko Gizarte Babesean erantzukizuna duten erakunde-multzoaren gastu osoari buruzko azken datu ofizialen (2005eko datuen) arabera, gizarte babeseko gastu kontsolidatu osoa 10.894 milioi eurokoa izan zen urte horretan, aurreko urtean baino %7,5 gehiago (%4,2 termino errealetan, ekitaldi horretako prezioen eragina kentzen badugu), eta horrek gure erkidegoaren urte horretako BPGren %19,2 adierazten du, Eustaten datuen arabera. Esfortzu maila hori apurka-apurka murriztu da: 1995ean %22,3 zen; 1997an %21,4; 1999an %20,1; 2003an %19,06 eta, azkenik, aipatutako %18,9 2005ean, BPGk izandako hazkunde handiagoaren ondorioz.

Gizarte babeseko gastu osotik, gizarte prestazioen balioa (familiek gizarte babeseko erakundeetatik jasotzen dituzten transferentziak, babesturiko kontingentziak gertatzen direnean) 10.646 milioi eurokoa izan zen 2005ean, (gastu osoaren %97,8), eta gastu hori gero eta handiagoa izan da 1995etik (EAEko gizarte babeseko kontuari buruz ditugun lehenengo datuak urte horretakoak dira). 2004ko ekitaldiari dagokionez, hazkundea %7,5ekoa izan da (termino errealetan %4,2koa).

Emaitza horiek Estatuko emaitzekin konparatuz gero, desberdintasun handiak ikusten dira: denboraldi osoan,

biztanle bakoitzeko gizarte prestazioetako gastua handiagoa da EAEn, eta gainera, aldea handituz joan da; horrela, 1995ean, biztanle bakoitzeko gastua %9 handiagoa zen EAEn, eta 2004an %22 handiagoa zen. Bestalde, gizarte babeseko gastuaren eta BPGren arteko erlazioa beti izan da txikiagoa EAEn Estatuan baino, baina aldea murrizten joan da, batez ere 2000tik aurrera.

Konparazioa EB-15ekin eginez gero, ikusten da biztanle bakoitzeko gastua apurka-apurka Europako mailetara hurbiltzen joan dela; izan ere, 1995ean adierazle horrek Europar Batasuneko batez besteko balioaren %65 inguruan kokatzen zuen EAE, eta 2004an, berriz, adierazle horrek %75eko tasa gainditzen zuen. Hala eta guztiz ere, EBrekiko distantzia gero eta handiagoa da, baldin eta aintzat hartzen badugu gizarte babesean egindako gastua BPGren ehuneko zenbat den: 2003an (konparaketa egiteko azken datuak urte horretakoak dira), EB-15ean batez beste egindako gastuaren %68 zen EAEkoa; 1995ean, berriz, EB-15eko batez bestekoaren %79 zen.

Bestalde, 2004ari dagokionez, BPGrekiko gizarte babeseko gastua murriztu egin da Europan, Eurostaten lehenengo zenbatespenen arabera: hamar herrialdek[1] (EB-25aren 2003ko gizarte babeseko gastuaren %49,7a diren herrialdeak, hain zuzen) 2004rako gastu zenbatespena aurkeztu dute, eta datu agregatuei buruzko lehenengo txostenaren arabera, gizarte babeseko gastua BPG baino gutxiago hazi da; horrela, ratioa 2003an %27 izatetik 2004an %26,8 izatera pasatu da[2].

Bestalde, gizarte prestazioetan egindako gastua zortzi funtziotan banatzen da; horien artean aipagarriak dira zahartzaroa eta gaixotasuna/osasun-laguntza funtzioak. Zahartzaroan egindako gastuaren barruan, pentsioa ez ezik beste prestazio batzuk ere sartzen dira; adibidez, etxez etxeko laguntza edo adineko pertsonen ostatua. 2004an zahartzaroan egindako gastu hori 4.605 milioi eurokoa izan zen; hain zuzen ere, 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko 11.949 eurokoa. Beraz, aldaketa positiboa da 2003ko %6,3ko datuarekiko. Bestalde, gaixotasuna/ osasun laguntza funtzioak urteko %7,3ko hazkundea izan du biztanle bakoitzeko prestazioen balioa kontuan hartuta, eta funtzio horrek gizarte-prestazio osoaren %30,1 hartzen du.

Gizarte bazterkeria funtzioaren urteko hazkundea (%21ekoa), bestalde, oso handia izan zen: 2004an 231,4

[1] Belgika, Danimarka, Grezia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbehereak eta Finlandia.

[2] Kapitulu hau ixteko unean, ez daukagu daturik gizarte babeseko herrialdekako gastuari buruzko informazioa zehaztasun gehiagoz eguneratzeko (2005eko Memoria Sozioekonomikoan agertzen da informazio hori).

V.1. KOADROA. ERAKUNDE-UNITATEEN TALDE BAKOITZEKO GASTUA (MILAKA €) 2003-2004

	2003	2004	% Var. 03/04	% Ald. erreala*
Gizarte segurantzaren sistema eta estatuko administrazioa	5.787.040	6.200.031	7,14	4,14
Euskal administrazioak	2.731.442	2.955.959	8,22	5,22
BGAEak	252.587	267.492	5,9	2,9
Beste erakunde pribatu batzuk	676.402	699.194	3,37	0,37
Gizarte babeseko gastu osoa	**9.447.471**	**10.122.676**	**7,15**	**4,15**

(*) Prezioen eragina kenduta.
Iturria: Eustaten datuetan oinarriturik egina. Gizarte babeseko kontua eta EIN. KPI. (Oinarria 2006).

V.2. KOADROA. EAEKO GIZARTE BABESARI BURUZKO DATU ETA ADIERAZLE NAGUSIAK 1995-2005 (A)

	2003	2004	2005(a)	Aldaketa tasak (%etan)			
				2004/2003		2005(a)/2004	
				Ald. Nom.	Ald. Erreala*	Ald. Nom.	Ald. Erreala*
Gizarte babeseko gastu osoa							
Euroak milatan	9.447.471	10.122.676	10.884.553	7,1	4,1	7,5	4,2
BPGmp %	19,60	18,87	18,91	–0,18		0,04	
Euro biztanleko	4.508	4.813	5.156	6,8	3,8	7,1	3,8
Gizarte-prestazioen gastua funtzioka (Euroak milakotan)							
Guztira	9.238.354	9.901.001	10.646.194	7,2	4,2	7,5	4,2
Gaixotasuna/Osasun laguntza	2.764.502	2.976.577	—	7,7	4,7	—	
Ezintasuna	698.997	737.979	—	5,6	2,6	—	
Zahartzaroa	4.302.065	4.605.381	—	7,1	4,1	—	
Biziraupena	302.852	327.883	—	8,3	5,3	—	
Familia/seme-alabak	156.291	168.083	—	7,5	4,5	—	
Langabezia	796.421	830.231	—	4,2	1,2	—	
Etxebizitza	26.101	23.486	—	–10,0	–13,0	—	
Gizarte bazterkeria	191.125	231.381	—	21,1	18,1		
Adierazleak (eurotan)							
Gizarte prestazioen gastuak biztanleko	4.408	4.708	5.044	6,8	3,8	7,1	3,8
Gizarte prestazioen gastua biztanleko EAPn	5.024	5.309	5.592	5,7		5,3	
Gaixotas./osasun lag. funtzioaren gastuak biztanleko	1.319	1.415	—	7,3	4,3	—	
"Zahartzaroa" funtzioaren gastuak 65 urteko edo hortik gorako biztanle bakoitzeko.	11.243	11.949	—	6,3	3,3	—	
"Langabezia" funtzioaren gastua langabetu bakoitzeko	10.809	11.483	—	6,2	3,2	—	
BPGmp (euroak milakotan)	49.572.859	53.631.771	57.548.541	8,2		7,3	
Biztanleria	2.095.598	2.103.101	2.110.854	0,4		0,4	

Iturria: Eustat eta EINen datuetan oinarriturik egina.
(a) Aurrerapena, (*) Aldaketa errealaren tasak kalkulatzeko urte bakoitzeko prezioen eragina (KPIn oinarrituz kalkulatua) kentzen da.
(—) Ez dago daturik.

milioi eurotara iritsi zen. Urte horretan bertan, etxebizitza funtzioaren gizarte prestazioa 23,5 milioi eurotara iritsi zen. Kontuan izan behar da GBEIESek etxebizitzaren funtzioko gizarte prestazioen barruan EAEko Administrazioaren etxebizitza-programetan egindako gastuen %10 baino ez duela sartzen.

Langabeziaren aurkako babesa: EIN eta EEZP

Langabeziaren prestazioek babestu egiten dituzte lan egin ahal dutenak edo lan egin nahi dutenak, enplegua aldi baterako edo behin betiko galtzen dutenean edo lanaldia nabarmen murrizten zaienean eta, beraz, soldatek ere horren araberako murriztapena edo galera izaten dutenean. Prestazioak izan daitezke ordaindutakoaren araberakoak (langabezia partziala nahiz erabatekoa izan) eta laguntzakoak (langabeziaren eraginezko sorospena). Ordaindutakoaren araberako prestazioen kasuan, langileak kontingentzia horretarako aurretiazko kotizazioa egin behar du Gizarte Segurantzan, eta prestazioak langileen nahiz enpresaburuen kuotekin eta Estatuaren ekarpenarekin fi-

V.1.1. Grafikoa. EAEko langabeziaren eraginezko prestazioen gastu osoa lurraldeka eta estatuaren gastu osoan duen pisua



LGGM. 2006ko datuak behin-behinekoak dira.

1

nantzatzen dira. Langabeziaren eraginezko sorospenaren barruan, prestazio ekonomikoa eta Gizarte Segurantzarako ordainketa (kasuan kasuko kotizazioa) sartzen dira. Langabeziarako sorospena jasotzeko eskubidea dute honako egoera hauetariko edozeinetan dauden langileak.

- Ordaindutakoaren araberako prestazioa agortu eta familia erantzukizunak dituzten langileak.
- Langabeziaren eraginezko 12 hilabeteko prestazioa agortu duten 45 urtetik gorako langileak, familia erantzukizunik eduki ez arren.
- Itzulitako langile emigranteak.
- Langabeziaren legezko egoera gertatzean kotizaziopeko prestazioa lortzeko gutxieneko kotizazio aldia bete ez duten langileak.
- Espetxetik irtendakoak.
- Ezintasun handiko edo ezintasun iraunkor absolutuko (edo erabateko) egoera hobetzearen eraginezko ikuskapen espedienteen ondoren, ohiko lanbidean jarraitzeko gauza izanik, gaitasun osoa duten langileak edo ezintasun partziala duten langileak .

1.1. Prestazioen eta langabeziaren aurkako estalduraren onuradunak

2006an langabeziako prestazioen onuradun kopuru osoa 44.900 pertsonako izan zen EAEn, aurreko urtean baino %0,9 gehiago. Seigarren urtez jarraian, onuradun kopuruak gora egin du, 90eko hamarkadan murriztapen handia izan ondoren. Estatuan, aldiz, 2006an onuradun kopurua tasa handiagora heldu da: %3,8ra. Beraz, onura-

V.1.1. KOADROA. LANGABEZIAKO PRESTAZIOAK. 2006KO ABENDUKO DATUAK

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Estatua	% EAE /Estatua
Onuradunak guztira	6.251	14.483	23.245	43.979	1.391.079	3,16
Ordaindutakoaren araberako prestazioa	4.556	9.741	15.048	29.345	766.059	3,83
Sorospena	1.667	4.472	7.859	13.998	387.156	3,62
Gizarteratzeko Errenta Aktiboa	28	270	338	636	273.864	0,23
ESTALDURA TASA	**75,46**	**77,39**	**72,23**	**74,32**	**78,24**	—
Hileko prestazioa (€-ak milatan)	7.138	15.711	24.986	47.835	1.208.064	3,96
Urtean metatutakoa (€-ak milatan)	90.846	190.246	319.698	600.790	14.036.306	4,28
Onuradun bakoitzeko b.b. gastua (€/hilean)*	1.141,9	1.084,8	1.074,9	1.087,7	943,1	115,33

(*) El dato del Estado incluye también el Subsidio de Eventuales Agrarios.
Fuente: Elaboración a partir de SPEE.

V.1.2. GRAFIKOA. EAEKO LANGABEZIAKO PRESTAZIOEN ONURADUNAK. URTEKO BATEZ BESTEKOAK



Iturria: EEZP.

dun kopuru osoa kontuan izanik, jaitsi egin da EAEkoak direnen kopurua, %4tik %3,9ra. Aipatutako 44. 900 pertsona horietatik %54,1 Bizkaikoak dira, %31,8 Gipuzkoakoak, eta %14,1 Arabakoak.

2006ko abenduko datuen arabera, %67k ordaindutakoaren araberako prestazioak jasotzen zituzten, %32k langabeziaren eraginezko sorospenak, eta %1ek Gizarteratzeko Errenta Aktiboa jasotzen zuen. Abenduan 43.979 jasotzaile egon ziren guztira, eta horrela, estaldura tasa (EINen erregistraturiko langabetuak aintzat hartuta) EAEko langabetu guztien %74,32koa zen (2005eko abenduan %67,75ekoa). Estatuko batez besteko estaldura, berriz, %78,24koa zen. Lurralde historikoen arabera, estaldurarik handiena Gipuzkoan dago (%77,39).

Langabezian egoteagatik prestazioak jasotzen dituztenen urteko batez besteko balioei dagokienez[1], 2006an prestazioak jaso zituztenak 45.910 lagun izan ziren, aurreko urtean baino %1,9 gehiago. Bestalde, batez beste 76.203 pertsona daude langabezian erregistraturik (–%8,6 2005arekin alderatuz). Beraz, estaldura tasa %60,2koa da (%54koa aurreko urtean).

Prestazioen onuradunak sexuaren arabera aztertuz gero, ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten emakumeen kopurua % 5 hazi da aurreko urtearekin konparatuz (2006an 14.631 emakumek jaso zuten prestazioa). Aitzitik, gizonei dagokienez, jasotzaile kopurua jaitsi da: 200ean 16.717 ziren jasotzaileak eta 2006an 15.966; beraz, %4,5 murriztu da kopurua. Laguntzako prestazioak kontuan hartzen baditugu, horiek jasotzen dituzten emakumeen kopurua hazi egin da (%+14,4), gizonen kopurua (%+2,5) baino neurri handiagoan.

Horrela, 2006an berriz ere hazi egin da prestazioak jasotzen dituzten emakumeen kopuru osoa (23.319); ordea, gizonen kopurua murriztu egin da (1.000tik gora gizon gutxiago). Horrela, langabeziako prestazioak jasotzen dituztenen kopuru osoan gizonezkoek duten pisua murriztu egin da: 2000 urtean %60 ziren gizonezkoak, eta %40 emakumezkoak; 2004an, berriz, emakumeak gehiengoa dira (%50,8)[2].

Prestazioen jasotzaileen bolumenean izandako aldaketa horiek, erregistraturiko langabezia zifren bilakaera ere kontuan hartuta, hazkundea eragin dute langabezia

[1] Zifra hauek (EEZPren Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariordetzak berariaz lantzen ditu Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearentzat) ez datoz bat geroago Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak argitaraturikoekin. Beraz, kontuz erabili behar dira iturri bateko zein besteko datuak; metodologikoki ez dira konparagarriak.

[2] Alabaina, langabeziako prestazioen batez besteko zenbatekoak txikiagoak dira emakumezkoentzat gizonezkoentzat baino. 2006rako behinbehineko datuen arabera (Estaturako batez besteko datuak), ordaindutakoaren araberako langabeziako prestazioen onuradunei onarturiko eguneroko batez besteko zenbateko gordina 21,51€-koa da emakumeentzat, eta 26,52€-koa gizonezkoentzat.

V.1.2. KOADROA. EAEKO LANGABEZIAKO PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTENEN BATEZ BESTEKO KOPURUA

	Ordaindutakoaren araberako prestazioak			Laguntzako prestazioak			Prestazioak guztira*			Erregistraturiko langabezia		
	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira
2000	12.059	9.122	21.181	9.829	5.617	15.446	21.888	14.739	36.627	29.218	48.526	77.744
2001	12.234	10.347	22.581	8.595	5.830	14.425	20.829	16.177	37.006	27.254	46.080	73.334
2002	13.248	11.264	24.512	7.918	7.530	15.448	21.166	18.794	39.960	28.833	44.617	73.450
2003	15.129	12.560	27.689	7.300	6.219	13.519	22.442	18.779	41.221	30.437	43.001	73.438
2004	12.401	13.120	25.521	6.856	6.596	13.452	19.527	19.716	39.243	30.315	41.087	71.402
2005	16.717	13.931	30.648	6.464	6.723	13.187	23.617	21.454	45.071	35.931	47.459	83.390
2006	15.966	14.631	30.597	6.625	7.688	14.313	22.591	23.319	45.910	31.317	44.886	76.203

(*) Gizarteratzeko Errenta Aktiboa barne.
Iturriak: EEZP (Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariordetza) eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.

V.1.3. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEKO LANGABEZIAKO PRESTAZIOEN GASTUEN ADIERAZLEAK. 2006KO ABENDUA

	Estaldura gordinaren tasa (1)	Onuradun bakoitzeko batez besteko gastua (€/hilean)	Onuradun bakoitzeko batez besteko gastua (% a/Estatua)
Andaluzia	69,9	848	89,9
Aragoi	88,1	1.017	107,8
Asturias	64,3	917	97,2
Balearrak	—	1.052	111,6
Valentziako Erkidegoa	79,4	936	99,2
Kanariak	71,5	835	88,5
Kantabria	71,6	926	98,2
EAE	**74,3**	**1.088**	**115,3**
Gaztela-Mantxa	65,3	838	88,8
Gaztela eta Leon	61,3	922	97,8
Katalunia	103,5	1.055	111,9
Ceuta	44,2	773	82,0
ESTATUA	**78,2**	**943**	**100,0**
Extremadura	67,7	699	74,1
Galizia	61,2	851	90,3
Errioxa	87,0	1.058	112,2
Madril	88,9	1.062	112,6
Melilla	40,7	756	80,2
Murtzia	85,3	1.049	111,2
Nafarroa	87,1	1.089	115,5

Iturria: LGGMn oinarriturik egina.

tasen estalduran, bai gizonezkoen kasuan (%72,1) eta baita emakumezkoen kasuan ere (%52). 2005eko tasak %65,7 eta %45,2 izan ziren, hurrenez hurren[3].

EEZPko langabeziako prestazioen estalduraren tasak konparatzeko (autonomia erkidegoka) 2006ko abenduko datuak hartu ditugu (Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak argitaratuak). Datu horiek erakusten dute batez beste langabezian erregistraturiko 10 pertsonatik 7k jasotzen duela prestazioren bat. Erreferentziatzat hartutako hilabetean, EAEko tasa %74,3koa zen, eta Estatukoa %78,2koa.

Erkidegoka aztertuz, tasa horrek aldaketa nabarmenak erakusten ditu. Aipagarri da Katalunia: eskura ditugun datuen arabera, langabezian dauden guztiek jasotzen dute prestazioren bat. Kontrakoa gertatzen da Ceuta eta Melillan: langabezian daudenen erdiak baino gutxiagok jasotzen dute prestazioa. EAEn langabeziako prestazioen onuradun bakoitzeko batez besteko gastua 1.088 eurokoa zen 2006ko abenduan, Estatuko batez bestekoa (943€) baino gastu handiagoa (%15 gehiago, hain zuzen ere). EAE eta Nafarroa daude beste guztien gainetik.

[3] 2005ean EEZPk langabezia erregistratzeko metodologia aldatu zuen. Horregatik, aurreko aldietako estaldura tasak aztertzerakoan desitxuratzeak agertzen zaizkigu. Koadroan ikusten denez, urte horretan hazkunde handia izan zen erregistraturiko langabezian (%+18,6); datu hori kontaketan egindako aldaketaren araberakoa da.

V.1.3. GRAFIKOA. ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO PRESTAZIOEN ONURADUNEI ONARTURIKO EGUNEROKO BATEZ BESTEKO ZENBATEKO GORDINAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. ESTATUA



Iturria: LGGM. Lan estatistiken Buletina.

1.2. Langabeziaren aurkako babeseko gastua eta diru-sarrera

Behin-behineko datu guztien arabera, langabeziako prestazioetarako gastua EAEn 598.050 mila eurokoa izan da 2006an, aurreko urtean baino %4,5 gehiago. Gastu hori EAEko BPGren %1ekoa da, behin-behineko datuen arabera, aurreko bi urteetako ehuneko bera. 2006ko abenduan, onuradun bakoitzeko batez besteko gastua 1.087,7€-koa izan da. Gastu hori (aurreko urteko abendukoa baino %1,4 handiagoa) honako hauen batuketa da: prestazioen gastuak (600€ baino zertxobait gehiago) eta EEZPk Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioa. 2006ko gastu osoa Estatuko gastu osoaren %4,3 izan da, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago. Tasa hori etengabe murriztu da 1995etik (urte hartan %5,8koa zen). Gastu horretatik, 90.846 mila euro Arabako lurraldeari dagozkio, eta zenbateko hori batez bestekotik oso gora hazi da (%6,6ko hazkundea). Bizkaiari 319.698 mila euro dagozkio (%+0,9ko hazkundea, 2005arekiko) eta Gipuzkoari 190.246 mila euro (batez besteko hazkundetik nahikoa gora, %+8,9 hain zuzen ere). Onuradun bakoitzeko batez besteko prestazioak %5,8 gora egin du EAEn 2005arekin alderatuz, eta urteko 12.910 eurotik 13.661 eurora pasatu da 2006an.

Bestalde, EINerako gizarte kotizazioetarako diru-sarrera (soldatapekoak eta enpresek ordaindutakoak, EAEn Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak biltzen dituenak) 2005 urtean (azken datu eskuragarria) 1.023 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %5,5 gehiago; horrela, EAEn langabeziaren kontingentzia estaltzeko diru-sarreren eta gastuen arteko aldea hazi egin da, eta urte horretan 451 milioi euroko saldo positiboa izan du, 2004an baino 24 milioi euro gehiago. Bestela esanda, diru-sarrera eta gastuen arteko ratioa 2005ean 1,78koa da, aurreko urteko emaitzaren baliokidea.

V.1.4. GRAFIKOA. LANGABEZIAKO PRESTAZIOEN ESTALDURAREN TASEN BILAKAERA. 2000=100 URTEA



Iturria: EEZPren datuetan oinarriturik egina.

V.1.5. Grafikoa. EAEko langabeziako prestazioen gastuak eta sarrerak



Iturria: Geuk egina EINeko datuetan oinarriturik.

V.1.4 Koadroa. EAEko langabeziako gastu osoa eta EINeko gizarte kotizazioen diru sarrerak (milioi €)

	Gizarte Seg. kuotak* eta PFEZ	Prest. Ekonomiko Garbiak	Gastu osoa (1)	% ald	EINerako bildutako kuota osoak (2)	% ald	Aldea (1) – (2)
1999	113,32	275,03	388,35	–4,2	698,67	7,4	310,32
2000	116,23	276,40	392,63	1,1	751,30	7,5	358,67
2001	122,89	286,68	409,57	4,3	831,99	10,7	422,42
2002	139,28	316,01	455,68	11,2	873,67	5,0	418,38
2003	156,86	339,93	496,35	9,1	925,23	5,9	428,88
2004	178,67	364,25	542,50	9,3	969,91	4,8	427,41
2005	188,86	383,44	572,30	5,5	1.023,38	5,5	451,08
2006	192,44	405,61	598,05	4,5	n.d.	—	n.d.

(*) Kopuru osoa, EINen eta ordaindutakoaren araberako prestazioa duten langabetuen kontura.
Iturria: EEZPren datuetan oinarrituz egina. Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariordetza Orokorra.

V.1.5. Koadroa. Langabeziako gastu osoa eta jasotzaile bakoitzeko urteko batez besteko gastua EAEn

	Gastu osoa (milioi €)					Jasotzaile bakoitzeko b.besteko zenbat. (€)				
	2004	2005	2006	% 05	% 06	2004	2005	2006	% 05	% 06
Ordaindutakoaren araberako prestazio gordinak	**326,88**	**342,58**	**363,71**	**4,8**	**6,2**	**8.329,6**	**7.600,9**	**7.922,2**	**–8,7**	**4,2**
(-) Gizarte Segurantza langabet. kontura	17,9	18,67	18,73	4,3	0,3	456,1	414,2	408,0	–9,2	–1,5
(-) PFEZren atxikipenak	2,39	2,91	3,53	21,8	21,3	60,9	64,6	76,9	6,0	19,1
Ordaindutak. araberako prestazio garbiak	**306,59**	**321**	**341,45**	**4,7**	**6,4**	**7.812,6**	**7.122,1**	**7.437,4**	**–8,8**	**4,4**
Langabeziako sorospenagatiko prestazioak	**57,66**	**62,44**	**64,16**	**8,3**	**2,8**	**1.469,3**	**1.385,4**	**1.397,5**	**–5,7**	**0,9**
EINek Gizarte segurantzari ordaindutako kotizazioak	**157,96**	**167,28**	**170,18**	**5,9**	**1,7**	**4.025,2**	**3.711,5**	**3.706,8**	**–7,8**	**–0,1**
• Ordaindutakoaren araberakoak EINen kontura	144,48	152,41	153,9	5,5	1,0	3.681,7	3.381,6	3.352,2	–8,2	–0,9
• Laguntzakoak EINen kontura	13,48	14,87	16,28	10,3	9,5	343,5	329,9	354,6	–4,0	7,5
LANGABEZIAREN GASTU OSOA	**542,5**	**572,3**	**598,05**	**5,5**	**4,5**	**13.824,1**	**12.697,7**	**13.026,6**	**–8,1**	**2,6**
% BPG	1,01	0,99	0,97	–2,0	–2,0	—	—	—	—	—

Iturria: Geuk egina, EEZPren eta EINen datuetan oinarrituz. Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariordetza Orokorra.

Gizarte segurantzaren prestazioak EAEn

2006an, 476.542 pertsona izan ziren Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen onuradunak, eta zifra horrek %3,2ko hazkundea adierazten du 2005ekoarekiko, aurreko bi urteetan tasa txikiagoetan hazi ondoren (hurrenez hurren, %0,9 eta %1,7). Azken urteotan gertatu den bezala, hazkunde hori kotizaziopeko pentsioen onuradun kopuruak izandako bilakaeraren ondoriozkoa izan da (%+3,4), gainerako modalitateetan (intentsitate desberdinarekin) jasotzaile kopurua murrizteko joera egon baita. Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoekin estalitako EAEko biztanle kopurua 2005eko %21,7tik 2006ko %22,3ra igaro da.

Kotizaziopeko pentsioen batez besteko zenbatekoak (940,5€) %4,5eko hazkundea izan du 2006an (%5,3koa

V.2.1. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOAK EAEN, MOTEN ARABERA. LABURPEN-KOADROA

	2004	2005	2006	% 04/05	% 05/06
Onuradun kopurua (urteko b.b.)					
Kotizaziopeko pentsioak	440.900	449.200	464.400	1,9	3,4
Kotizaziorik gabeko pentsioak	10.036	10.027	9.938	–0,1	–0,9
Laguntzako pentsioak	1.634	1.412	1.312	–13,6	–7,1
EGIL sorospenak **	1.152	972	892	–15,6	–8,2
GUZTIRA	453.789	461.611	476.542	1,7	3,2
Biztanleriaren %	21,4	21,7	22,3	1,4	2,8
Hileko b. besteko zenbatekoa* (€)					
Kotizaziopeko pentsioak	855,4	900,4	940,5	5,3	4,5
Kotizaziorik gabeko pentsioak	313,4	325,8	341,4	4,0	4,8
Laguntzako pentsioak	176,9	183,0	184,2	3,4	0,7
EGIL sorospenak **	160,1	171,5	158,8	7,1	–7,4
GUZTIRA	849,2	894,1	928,0	5,3	3,8
Zenbatekoa guztira (€-ak milatan)					
Kotizaziopeko pentsioak	4.580.986	4.908.668	5.261.417	7,2	7,2
Kotizaziorik gabeko pentsioak	37.744	39.198	40.714	3,9	3,9
Laguntzako pentsioak	3.469	3.100 E	2.900 E	–10,6	–6,5
EGIL sorospenak **	2.214	2.000 E	1.700 E	–9,7	–15,0
GUZTIRA	4.624.429	4.952.968	5.306.731	7,1	7,1
% BPG	8,67	8,61	8,57	–0,7	–0,5

(*) 12 ordainketatan kalkulatuta (aparteko ordainketak hainbanatuta).
(**) Osasun eta farmazia laguntza kenduta, horrek ez baitu zenbatekorik sortzen.
(E) Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailak emandako datuak zenbatetsita.
Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundietan eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioan oinarrituz.

2

izan zuen aurreko urtean). Zenbateko osoa 5.261 milioi eurokoa zian da, 2005ekoa baino %7,2 handiagoa. Kotizazio gabeko pentsioen zenbateko osoa 40,7 milioi eurokoa izan da; beraz, %3,9ko hazkundea izan da. Era berean, hileko batez besteko zenbatekoak %4,8ko hazkundea izan du 2005ekoarekiko. Azkenik, laguntzako pentsioek %0,7ko hazkundea izan dute batez besteko zenbatekoetan, eta zenbateko osoak %6,5eko murriztapena izan du 2006an. Jasotzaile kopuruak behera egin du berriro, baina 2005ean baino gutxiago (–%7,1 eta –%13,6 2005ean). EGIL sorospenei dagokienez, horien onuradun kopuruak %8,2ko murriztapena izan du eta euren zenbateko osoa %15 murriztu da.

Pentsioetako gastu osoa, gutxi gorabeherako behin-behineko kalkuluak eginda, 5.307 eurokoa izan da 2006an, eta %7,1eko hazkundea izan du 2005ekoarekiko; horrela, murriztu egin da BPGrekiko ehunekoa; hain zuzen ere, 2005eko %8,61etik %8,57ra igaro da (BPGri buruzko behin-behineko datuak aintzat hartuta).

2.1. Gizarte segurantzako kudeaketa erakundeek transferitu gabeko prestazioak

EAEri transferitu gabeko Gizarte Segurantzako kudeaketa erakundeek egindako prestazio ekonomikoak (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, orokorrean, eta Itsasoko Gizarte Institutua, Itsasoko Langileen Araubide Bereziaren aplikazioaren kasuan) bi motatakoak dira:

- Kotizaziopekoak; hau da, kotizatutako denboraren eta zenbatekoaren araberakoak. Iraupen mugagabea dute eta Gizarte Segurantzako gastu osoaren %50 inguru dira. Oinarrian, baldintza batzuk beteta prestazio horretarako eskubidea sortu duten pertsonei jarraitasuna bermatzen diete errenten lorpenean, lan-bizitza amaitzeari loturiko kontingentzien eraginez errenta horiek amaitzen zaizkienean.
- Kotizazio gabekoak; adibidez, erretiroagatik, aldi baterako ezintasunagatik, amatasunagatik, eta seme-alaben ardura edukitzeagatik jasotzen direnak.

2005ean (azken datu ofizialak urte horretakoak dira) Gizarte Segurantzaren sistemak 5.460 euro bildu zituen EAEn, 2004an baino %5,7 gehiago (Estatuan guztira bildutakoaren %6,3). Zenbateko horretatik, %90,1 Gizarte Segurantzaren kuotetatik dator, eta gainerako %9,9, berriz, laneko istripuen mutuetatik. Kuota guztien ia %72ren jatorria araubide orokorra da, eta horien guztirakoa 3.924 eurokoa da.

Halaber, Gizarte Segurantzak langabeziari, FOGASAri eta lanbide heziketari dagozkion kuotak ere biltzen ditu, eta horien zenbateko osoa EAEn 1.146 eurokoa izan da 2005ean, aurreko urtean baino 61 gehiago.

V.2.2. Koadroa. Gizarte segurantzako diruzaintza nagusiaren kuoten bilketa EAEn

	Euroak milioitan				%	Aldaketa %			
	2002	2003	2004	2005	2005	01-02	02-03	03-04	04-05
Orokorra	3.376	3.556	3.726	3.924	71,9	5,5	5,3	4,8	5,3
Autonomoak	471	495	524	545	10,0	3,3	5,1	5,9	4,0
Nekazaritza	13	13	14	14	0,3	0,0	0,0	7,7	0,0
Itsasoko langileak	29	28	29	29	0,5	7,4	–3,4	3,6	0,0
Etxeko langileak	14	16	15	20	0,4	7,7	14,3	–6,3	33,3
Ikatzaren meatzaritza	0	0	0	0	—	0,0	0,0	0,0	0,0
Laneko istripuak (Diruzaintza)	7	7	7	7	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
EINen langabetuak eta hobariak	266	304	342	378	6,9	13,2	14,3	12,5	10,5
Gizarte Seg. Kuotak GUZTIRA	**4.176**	**4.417**	**4.658**	**4.917**	**90,1**	**5,7**	**5,8**	**5,5**	**5,6**
Lan-istripu eta gaixotasun profes. mutuak	338	360	382	406	7,4	6,0	6,5	6,1	6,3
Gertakizun arrunten mutuak	96	108	127	137	2,5	10,3	12,5	17,6	7,9
MUTUAK GUZTIRA	***434***	***469***	***509***	***543***	***9,9***	***7,2***	***8,1***	***8,5***	***6,7***
Gizarte Seg. Sistemaren bilketa GUZTIRA	**4.610**	**4.886**	**5.167**	**5.460**	**100**	**6,1**	**6,0**	**5,8**	**5,7**
EINerako bildutako kuotak	874	925	970	1.023	19,2	5,0	5,8	4,9	5,5
FOGASA	43	45	48	50	4,9	4,9	4,7	6,7	4,2
Lanbide Heziketa	88	93	97	103	1,9	4,8	5,7	4,3	6,2

(1) GSDOk EINi, FOGASAri eta Lanbide Heziketari dagozkionak ere biltzen ditu (beste helburu batzuetakoak).
Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren datuekin landuta. GSDOren urteroko memoria.

V.2.1. Grafikoa. Gizarte Segurantzako kotizazioen* eraginezko bilketaren bilakaera EAEn



Iturria: Geuk landuta, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean oinarrituz.

Bestalde, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza orokorrak 2006an pentsioetarako transferentzia arrunten kontzeptuan onarturiko betebeharrak 5.645 milioi eurora iristen dira, 2005ean baino %7 gehiago; zenbateko hori Gizarte Segurantzak gure erkidegoan egindako transferentzia korronte guztien %97,1ekoa da.

Zenbateko hori EAEko BPGren %9,1ekoa izan da 2006an (%9,2koa 2005ean), eta azken bosturtekoan %40ko hazkundea izan du. Pentsioetarako zenbatekoaren %93,2 (5.261 milioi euro) kotizaziopeko pentsioak dira (%+7,2 2005ari dagokionez), eta gainerako %6,8 bestelako prestazioak dira. Horien barruan, gehienak, %67,3 (kotizaziorik gabeko gainerako pentsioak gure erkidegoari transferitu zaizkie), aldi baterako ezintasunerako dira, %22 amatasunerako eta haurdunaldiko arriskurako, eta %10,7 familiako prestazioetarako. Ehuneko horiek ia ez dira aldatu azken urteetan.

V.2.3. Koadroa. Gizarte segurantzak onarturiko betebeharren bilakaera EAEn. Euroak milatan

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	%04/05	%05/06
Transferentzia korronteak	3.989.078	4.204.528	4.443.365	4.714.897	5.082.888	5.436.174	5.814.076	7,0	7,0
Kotizaziopeko pentsioak	3.590.615	3.773.466	4.001.550	4.245.874	4.580.986	4.908.668	5.261.417	7,2	7,2
Kotizaziorik gabeko pentsioak									
- Aldi baterako ezintasuna	157.009	172.611	193.410	212.455	234.008	248.887	257.841	6,4	3,6
- Amatasuna eta haurdunaldiko arriskua	44.156	51.644	56.571	67.154	71.225	78.024	84.514	9,6	8,3
- Familiako prestazioak	29.431	31.282	32.207	34.710	36.100	39.193	41.000	8,6	4,6
- Bestelako transferentziak	167.867	175.525	159.627	154.704	160.569	161.402	169.304	0,5	4,9
PRESTAZIOAK GUZTIRA	3.821.211	4.029.003	4.283.738	4.560.193	4.922.319	5.274.772	5.644.772	7,2	7,0
Prestazioak/ Tr. Korronteak (%)	95,8	95,8	96,4	96,7	96,8	97,0	97,1	0,2	0,1

Iturria: Gizarte Segurantzan oinarrituz egina. Gizarte Segurantzaren aurrekontuaren jarraipena.

V.2.4. Koadroa. Gizarte segurantzaren kotizaziopeko pentsioen jasotzaile kopurua eta batez besteko zenbatekoa EAEn

	2004	2005	2006	% 2006	% s/SMI	04-05	05-06
Jasotzaile kopurua							
Guztira	440.900	449.200	464.400	100,0		1,9	3,4
Ezintasun iraunkorra	41.200	41.800	42.900	9,2		1,5	2,6
Erretiroa	260.900	267.200	279.900	60,3		2,4	4,8
Alarguntasuna	122.100	123.700	125.500	27,0		1,3	1,5
Zurztasuna/familia laguntza	16.800	16.400	16.100	3,5		–2,4	–1,8
Batez besteko zenbatekoa (euro/hilean)							
Guztira	733,2	771,8	806,1	100,0	149,0	5,3	4,4
Ezintasun iraunkorra	867,9	910,5	947,8	117,6	175,2	4,9	4,1
Erretiroa	840,6	882,7	916,9	113,7	169,5	5,0	3,9
Alarguntasuna	515,8	543,2	568,0	70,5	105,0	5,3	4,6
Zurztasuna/familia laguntza	314,5	335,9	357,3	44,3	66,1	6,8	6,4

Iturria: Geuk egina, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioan oinarrituz, "Lan Estatistiken Aldizkaria".

V.2.5. Koadroa. Batez besteko pentsioa araubideen arabera (2006ko abendua). EAE-estatua konparazioa

		Batez besteko pentsioa	
	Pentsio kopurua	Zenbatekoa (€)	Estatuko zenb.%
Orokorra	318.787	947,15	121,8
Autonomoak	56.855	557,18	117,4
Nekazaritza	20.914	401,95	94,0
Etxeko enpleg.	5.859	408,87	100,4
Itsasoa	13.421	881,78	122,9
L.I. eta L.G.	15.533	837,07	111,0
ZEDS	36.873	300,34	98,1
Ikatza	292	800,12	69,3
GUZTIRA	**468.534**	**812,25**	**125,6**

Iturria: GSIN.

Gizarte segurantzako kotizaziopeko pentsioen onuradun kopuruari dagokionez, EAEn kopuru osoa 464.400 pertsonakoa izan da 2006an, aurreko urtean baino 3,4% gehiago. Pentsio motaren arabera, ezintasun iraunkorraren eraginezko kotizaziopeko pentsioaren jasotzaile kopurua %2,6 hazi da azken urtean; pentsioa erretiroagatik jasotzen dutenen kopurua %4,8 hazi da, eta alarguntasunagatik jasotzen dutenena %1,5. Aitzitik, zurztasunagatik kotizaziopeko pentsioa jasotzen dutenen kopurua (16.100 pertsona) murriztu egin da (–1,8%) beste urte batez.

Batez besteko zenbatekoak 34 euro/hileko hazkundea izan du 2006an, eta zenbateko hori hileko 806,1 eurokoa da. Horrek %4,4ko hazkundea adierazten du 2005ari dagokionez. Erretiroaren eraginezko pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituztenen %60,3k jasotzen du pentsio mota hori) honako hau aipatu behar dugu: 2006ko batez besteko zenbatekoa hileko 916,90€-koa da (EINek Lan Kostuaren Urteko Inkestan kalkulatzen duen lan kostuaren "soldatak eta lansariak" osagaiaren EAEko hileko batez besteko zenbatekoaren %49,2). Osagai hori (1.863,31 €/hilean) gutxi gorabehera gure erkidegoko batez besteko soldata da 2006an. Bestalde, pentsioen batez besteko zenbateko guztiek izan dute hazkundea 2006an, baina ez maila berean: ezintasun eta erretiroagatiko pentsioek %4 inguruko hazkundea izan dute (batez bestekoaren azpitik), eta zurztasunaren eraginezko pentsioak (hileko 357,3€-koak) %6,4ko hazkundea izan badu ere, oraindik besteak baino askoz baxuagoa izaten jarraitzen du.

Beste alde batetik, alarguntasun pentsioak batez bestekoak baino hazkunde handixeagoa izan du, eta hile-

V.2-6. KOADROA. KPI, LGS ETA KOTIZAZIOPEKO BATEZ BESTEKO PENTSIOA. EAEKO ETA ESTATUKO BILAKAERA. ABENDUKO DATUAK

	Pilaturiko KPI		LGS		EAEko b.best. pentsioa		Estatuko b.b. pentsioa	
	EAE	Estatua	€ / Hilean	%	€ / Hilean	%	€ / Hilean	%
1998	2,3	1,4	408,93	2,1	546,72	3,8	435,05	3,5
1999	3,0	2,9	416,32	1,8	566,27	3,6	449,08	3,2
2000	3,8	4,0	424,80	2,0	594,52	5,0	471,30	4,9
2001	3,4	2,7	433,45	2,0	629,30	5,8	497,90	5,6
2002	3,9	4,0	442,20	2,0	655,51	4,2	518,89	4,2
2003	2,6	2,6	451,20	2,0	696,77	6,3	549,84	6,0
2004	3,2	3,2	475,65	5,4	739,59	6,1	581,06	5,7
2005	3,7	3,7	513,00	7,9	770,82	4,2	611,68	5,3
2006*	2,6	2,7	540,90	5,4	812,25	5,4	646,76	5,7

(*) Abenduko datua.
Iturria: geuk egina, EINen eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren datuetan oinarrituz.

V.2.2. GRAFIKOA. EAEKO KOTIZAZIOPEKO PENTSIO KOPURUAREN ETA ESTATUKO GUZTIZKOAREN GAINEKO EHUNEKOAREN BILAKAERA



Iturria: Geuk egina, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioan oinarrituz.

ko 568€-tara iritsi da; hala ere, ezintasun iraunkorraren eta erretiroaren eraginezko pentsioak baino txikiagoa da; azken horiek batez bestekoaren gainetik daude, %18an eta %14an, hurrenez hurren.

Batez besteko pentsioa 1983an (EAEn 157,38€ eta Estatuan 138,29€) Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino apur bat txikiagoa bazen (193,29€), azken horrek baino tasa askoz ere handiagoetan egin du gora, eta KPIren gainetik ere hazi da. 2006ko abenduan, EAEko batez besteko pentsioak %5,4ko hazkundea izan du 2005eko abenduarekiko, eta hilabete horretara arteko KPIren urterik urterako aldaketa %2,7koa izan da.

2.2. Gizarte segurantzako kudeaketa erakundeek transferituriko prestazioak: kotizazio gabeko prestazioak

Kotizazio gabeko prestazioak inoiz ere kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko aldi nahi-

koan kotizatu ez duten pertsonei egindakoak dira, pertsona horiek ez baitute biziraupenerako nahikoa baliabide izaten.

Errenta ekonomikoa onartzen zaie, eta gainera osasun nahiz farmazia laguntzarako eta gizarte zerbitzuetarako eskubidea ere onartzen zaie; horrenbestez, beharrizan egoera baten aurrean estaldura integrala eskaintzen da. Pentsio horiek abenduaren 20ko 26/1990 estatuko Legearekin sortu ziren; lege horrekin, Gizarte Segurantzaren Egitura eta Babes Ekintza Arrazionalizatzeko Premiazko Neurriei buruzko 26/1985 Legearekin hasitako erreformak osatu ziren. Hala, babeseko kotizazio gabeko maila bat antolatu zen, beharrizan egoeran dauden eta sistema profesionalean edo kotizaziopekoan sartu ezin diren pertsonei prestazioak emateko. Horrela, adineko pertsonen edo ezinduen aldeko eskubide subjektiboa sortu zen.

Gizarte Babeseko sistema hori unibertsala denez, berori jasotzeko eskubidea erabiltzeko ez da beharrezkoa aurretiaz kotizatzea, eta kotizazio gabeko izaera hori aintzat hartuta, sistemaren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorreko Urteroko Legeetan finkatzen da. Finantziazio osoa Estatuak egiten du, eta bertatik Gizarte Segurantzak transferentziak jasotzen ditu, 16/1990 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, eta Toledoko Itunarekin bat etorriz.

Estatuan IMSERSOk kudeatzen ditu prestazio horiek, eta EAEn Foru Aldundiek eta Administrazioa Nagusiak onartu, kudeatu eta finantzatzen dituzte, IMSERSOren funtzioen eta zerbitzuen transferentzia egin ondoren. Kotizazio gabeko prestazio horiek hiru motatakoak dira: Gizarte Segurantzaren kontribuzio gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta EGIL prestazioak. Jaso beharreko zenbatekoa errentaren eta egoera pertsonalaren arabera ezartzen da.

2.2.1. Gizarte Segurantzako kotizazio gabeko pentsioak

EAEko Foru Aldundiek emandako kotizazio gabeko pentsioak garrantzitsuenak dira kotizazio gabeko prestazio guztien artean, bolumena eta inportantzia kontuan hartzen baditugu. Diru-sarrera nahikorik ez duten pertsonei ematen zaizkie (diru-sarrerak ez dira nahikoak horien urteko zenbatekoen batuketa pentsioaren urteko batez bestekoa baino txikiagoa denean), eta zenbatekoa handiagoa da urtetik urtera.

EAEn bizi diren kotizazio gabeko pentsioen onuradunen artean gehienak emakumeak dira (kopuru osoaren %65 inguru), eta proportzio hori Estatuko batez bestekoa baino ia 6 puntu txikiagoa da. Feminizazio tasa hori Estatuko osokorik txikiena da, Ceutako hiri autonomoaren

V.2.3. GRAFIKOA. KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOAK EAEN. ONURADUNEN ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ZENBATEKOEN BILAKAERA



Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa.

V.2.4A. GRAFIKOA. ERRETIROKO PENTSIOEN BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



V.2.4B. GRAFIKOA. EZINTASUNEKO PENTSIOEN BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



atzetik. Bestalde, IMSERSOk, bere datu-fitxategian oinarrituz, agerian jarri du pentsiodun gehienen egoera zibila "ezkongabea" dela, ia %50 egoera horretan baitago. Datu hori (Errioxako eta Galiziako datuarekin batera) salbuespena da, Estatuko kotizaziorik gabeko pentsiodunik gehienen egoera zibila aintzat hartzen badugu. Gainerako erkidegoetan, jasotzailerik gehienak ezkonduak dira. Hala eta guztiz ere, EAEko emakume pentsiodunik gehienak ezkonduta daude. Gainera, prestazio horiek jasotzen dituztenen %41 inguru bakarrik bizi da, eta berriro ere, EAEko datu hori Estatuko altuena da. Bestalde, erretiroko pentsioaren jasotzaile gehienak 70-79 urte bitartekoak dira, eta ezintasuneko pentsioaren kasuan, gizonezko gehienek 44 urte baino gutxiago dute, eta emakume gehienak 40 eta 64 urte bitartekoak dira. Azkenik, kotizazio gabeko ezintasunagatiko pentsioa jasotzen dutenean artean, hirutik bik %65 eta %74 bitarteko ezintasun maila dute. Autonomia erkidego guztiak kontuan hartuta, proportzio hori baxuenen artean bigarrena da, Gaztela-Mantxaren atzetik

2006an, kotizazio gabeko 9.938,89 pentsio onartu dira, 2005ean baino gutxiago, eta horien jasotzaileak EAEko biztanleen %0,5 izan dira. Abenduan 4.549 erretiroko pentsio izan ziren, eta ezintasunagatikoak 5.389. Oro har, aurreko urtean baino pentsio gutxiago onartu dira, nahiz eta beherakada hori ia hutsala izan. Estatuko pentsioak aintzat hartuta, 9.938 pentsio horiek %2,1 dira. Lurraldekoa aztertuz, Bizkaian %64 jasotzen dira, Gipuzkoan %26 eta Araban %10.

Kotizazio gabeko pentsioen gehieneko zenbatekoak urtero ezartzen dira Estatu osorako. 2006an hileko 301,55€ izan ziren erretirorako eta ezintasunerako (%65eko eta hortik gorako ezintasuna). Halaber, %50eko osagarria onartzen da %75eko edo hortik gorako ezintasuneko pentsioetarako, pertsona horiek beste norbaiten laguntza behar dutenean. Gainera, onuradunak errentak edo diru-sarrerak izanez gero, horien zenbatekoaren arabera murrizten da pentsioa. Murriztapen hori egin arren, onartu beharreko gutxieneko pentsioa ezarritako pentsioaren %25ekoa izango da.

EAEn 2006ko abenduan pentsiodun bakoitzari ordaindutako batez besteko zenbatekoa 308,2€-koa izan zen ezintasunaren kasuan, eta 272,4€-koa erretiroaren kasuan; azken hori baxuagoa izan zen, ezintasunaren barruko batzuek aipaturiko osagarria jasotzen dutelako. Bi pentsioen zenbatekoen batuketa, gutxi gorabehera, kotizaziopekoaren arloan kontzeptu horiek jaso zituzten zenbatekoaren %30ekoa izan zen.

Bestalde, 2006an 40,7 milioi euro gastatu dira EAEn kotizazio gabeko pentsioetan, eta horiek honako banaketa hau izan dute: erretiroko pentsioetan 17,7 milioi, eta 23 milioi ezintasuneko pentsioetan. Pentsio horien zenbatekoa Estatuan egindako gastuaren %2koa da (pentsio kopuruaren ehuneko bera). EAEn pentsio horien jasotzaile kopururik handiena 1999an izan zen (10.972 pertsona guztira). Harrezkero, kopuruak behera egin du, baina ez tasa handietan; adibidez, 2006an 2005ean baino pentsio gutxiago ordaindu dira, baina kopuru hori ia ez da %1era iristen. Alabaina, gastu osoak %3,9ko hazkundea izan du azken urtean (%2,4koa Estatuan), pentsio kopuruaren murriztapen txiki horrek ez baitu euren balio-irabaztea konpentsatzen.

V.2.5. GRAFIKOA. KOTIZAZIO GABEKO ERRETIRO ETA EZINTASUN PENTSIOETAKO GASTUAREN ETA KOPURUAREN BILAKAERA



V.2.7. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOEN BILAKAERA EAEN

	2004	2005	2006	% 03-04	% 04-05	% 05-06
Onuradun kopurua*						
Erretiroa	4.750	4.696	4.549	–0,2	–1,1	–3,1
Ezintasuna	5.286	5.331	5.389	–3,0	0,9	1,1
Guztira	10.036	10.027	9.938	–1,7	–0,1	–0,9
Zenbateko osoa (euroak milatan)						
Erretiroa	16.729	17.358	17.678	–1,4	3,8	1,8
Ezintasuna	21.015	21.840	23.067	–1,0	3,9	5,6
Guztira	37.744	39.198	40.714	–1,2	3,9	3,9
Hileko batez besteko zenb. (14 ordainketa; €)						
Erretiroa	251,6	264,0	277,6	–1,3	4,9	5,1
Ezintasuna	284,0	292,6	305,7	2,1	3,0	4,5
Guztira	268,6	279,2	292,6	0,5	4,0	4,8

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzan eta LGGMan oinarrituz .
(*) 2006ko onuradunen datuak abendukoak dira. Gainerakoak urteko batez bestekoak dira.

2.2.2. Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntzako pentsioak

Gizarte Segurantzako laguntzako pentsioak, Foru Aldundiei transferitutakoak, banakako laguntza ekonomikoak dira, aldian behingoak eta mugagabeak, eta adineko pertsonei (65 urtetik gorakoak) eta ezintasun absolutua duten ezinduei edo gaixoei ematen zaizkie, horiek biziraupenerako baliabiderik ez dutenean (horien diru-sarreren urteko zenbatekoa batez besteko pentsioaren zenbatekoa baino txikiagoa denean). Kotizazio gabeko pentsioen kasuan, berriz, Estatuan legez bizitzeko irizpidea betetzea eskatzen da (gutxienez 10 urte Estatuan bizitzen €ezintasunaren kasuan bost€, eta gutxienez eskabidea egin aurreko bi urteetan Estatuan bizi behar da); eta laguntza horiek jasotzeko, onuradunek EAEko udalerriren batean erroldaturik egon behar dute, eta onuradunen artean atzerritarrak, errefuxiatuak eta aberri gabeak egon daitezke, betiere erkidegoan bizitzeko baimenik badute.

Prestazio horiek apurka-apurka murrizten ari dira; izan ere, 5/1992 Lege Errege Dekretua indarrean sartu ondoren, indargabeturik gelditu ziren, eta data horretatik aurrera ez da berriro altarik egon; horrela, orduan onarturiko pentsioak baino ez dira mantentzen, betiere onuradunek kotizaziorik gabeko pentsioa jasotzea aukeratu ez duten kasuetan, azken horien zenbatekoa gehienetan handiagoa baita.

V.2.6. Grafikoa. Gizarte Ongizateko Fondoko Pentsioak: Onuradunen eta Gastu Osoaren Bilakaera (Euroak milatan)



Iturria: Geuk egina, Foru Aldundietan oinarrituz.

V.2.7. Grafikoa. Kotizazio gabeko pentsioen bilakaera: AZL eta EGIL



2006ko abenduan gure erkidegoan oraindik ere 867 pentsio daude adineko pertsonentzat, eta 445 gaixoentzat. Guztira 1.312 pentsio dira, aurreko urtean baino 100 gutxiago. Laguntzaren zenbatekoa 2006an hilean 149,86€-koa da (1992tik aurrerako zenbateko bera) , eta pertsona horiek, gainera, aparteko bi ordainketa dituzte urtean.

EAEko laguntzako pentsioen hileko batez besteko zenbatekoa 157,88€-koa izan da 2006an, 12 hiletan eta aparteko bi ordainketekin (ekainean eta abenduan). Zifra horrek %0,7ko hazkundea adierazten du aurreko urteare-kiko. EAEko Foru Aldundien Gizarte Ongizateko Fondoko laguntzako pentsioen zenbateko osoa 2,9 milioi eurokoa izan da 2006an, aurreko urtekoa baino %8 txikiagoa.

2.2.3. EGIL prestazioak

Ezinduen Gizarte Integrazioari buruzko 13/82 Legean (EGIL) onarturiko prestazioen jasotzaileek, legearen izenburuak berak adierazten duen moduan, ezintasunen bat izan behar dute, gutxienez %65eko ezintasuna. Horrez gain, 18 urtetik gorakoak izango dira, eta euren urteko baliabideak ezin dira iritsi pertsona bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren %70era (euren ardura izango duen norbait behar badute, ezindu mendeko pertsona bakoitzeko %10ean handitzen da zenbatekoa). Prestazio horiek hileko kuota finkoa dute 1995etik, gutxieneko diru-sarreren bermerako sorospenerako, eta zenbateko hori 149,86 eurokoa da (sorospenaren jasotzaileak antzeko prestazio ekonomikoren bat jasoz gero, sorospenaren zenbatekoak prestazio horren zenbatekoaren araberako murriztapena izango du), eta gainera 58,45 euroko beste laguntza bat dago gainontzeko pertsona baten sorospenerako. Mugikortasunagatiko eta garraioko gastuen konpentsazioagatiko sorospena urtetik urtera eguneratzen da, eta 2006an sorospen hori hileko 49,54 eurokoa izan zen, 2005ean baino 1,74 gehiago. Sorospen guztietan hileko ordainketa eta aparteko beste bi ordainketa egiten dira, bai gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko denean, eta baita beste pertsona baten laguntzarako sorospena denean ere.

Sorospen horiek indargabetuta geratu ziren, kotizaziorik gabeko prestazioak Gizarte Segurantzan ezartzeari buruzko Estatuko 26/1990 Legea indarrean sartu zenean. Hala eta guztiz ere, data hori baino lehen sorospena jasotzen zutenek onuradun izaten jarrai dezakete, edo bestela kotizaziopeko pentsioa eskatu, baina indargabeturiko babes ekintzetan ez da onarpen berririk egongo. Hori dela eta, Gizarte Ongizateko Fondoko laguntza-prestazioen kasuan bezala, EGIL laguntzen jasotzaile kopurua txikiagoa da urtetik urtera.

Laguntza horiek honako lau modalitate hauetan jaso daitezke[1]:

- Gutxieneko Diru-sarrerak Bermatzeko Sorospena. Prestazio honen jasotzaileak dira %65etik gorako ezintasuna duten 18 urtetik gorako pertsonak, baldin eta euren baliabide pertsonalak Ondore Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoaren (OAEAP) %70etik beherakoak badira, edo %100etik beherakoak, euren ardurape-

V.2.8. GRAFIKOA. EGIL PRESTAZIOAK: GDBSREN NAHIZ GLSREN ONURADUN KOPURUAREN ETA GASTU OSOAREN BILAKAERA



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzan oinarrituz.
SGIM: GDBS (Gutxieneko Diru-sarrerak Bermatzeko Sorospena)
GLS: Gainontzekoaren Laguntzarako Sorospena

[1] Foru Aldundiek dagoeneko ez dute daturik ematen garraioko gastuen konpentsazio eta mugikortasun sorospenaren jasotzaile kopuruari eta gastuari buruz, ezta osasun nahiz farmazia laguntzaren jasotzaileei buruz ere; beraz, ezin dira Memoriaren lehenagoko edizioetako denbora-serieak mantendu. Hori dela eta, EGIL prestazioen grafikoan eta koadroan sorospeneko beste bi modalitateetako informazioa baino ez da eskaintzen.

V.2.9. GRAFIKOA. EGIL* PRESTAZIOEN ONURADUN KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzan oinarrituz.
(*) GDBS (Gutxieneko Diru-sarrerak Bermatzeko Sorospena) eta SATP (Gainontzekoari Laguntzeko Sorospena) bakarrik.

ko norbait badute. 2006rako, OAEAPren zenbatekoa hileko 479,10€-koa izan zen. 2006ko abenduan, laguntza hori 850 pertsonak jasotzen zuten, aurreko urtean baino 91 pertsona gutxiagok.

- Gainontzekoaren Laguntzarako Sorospena (GLS). Aldian behingo prestazio honen jasotzaileak , aurreko ataleko baldintzak betetzen dituzten eta %75etik gorako ezintasuna duten pertsonak dira. 2006ko abenduan laguntza hau 91 pertsonak zuten onartuta, aurreko urtean baino 13 gutxiagok.
- Garraioko Gastuen Konpentsazioko eta Mugikortasuneko sorospena (GGMS). %33tik gorako ezintasuna duten pertsonei ematen zaizkie, ohiko etxebizitzatik kanpo lekualdatzen direnean sortutako gastuei aurre egiteko. Horretarako baldintza hauek bete behar dituzte: baliabide ekonomikorik ez izatea, 3 urtetik gorakoak izatea eta taldeko garraioak erabiltzeko zailtasun larriak edukitzea.
- Osasun eta farmazia laguntza. Foru Aldundiek onartzen duten prestazioa da, baina Osakidetzako osasun zerbitzuek eskaintzen dute; beraz, ez dauka kostu ekonomikorik. Jasotzaileak %33tik gorako ezintasuna duten pertsonak dira, Gizarte Segurantzaren sistema aplikatzen den alorretan lekurik ez dutenak. Zehazki esanda, prestazio horien helburua da onuradunen osasuna zaindu eta sendatzea, kasuan kasuko mediku zein farmazia laguntza edo errehabilitazioa eskainiz.

2006an EGILen 892 onuradunak honela banatuta egon dira: 755 pertsona GDBSren prestazioak jasotzen, 91 pertsona GLS prestazioak jasotzen eta 35 GGSMren prestazioak jasotzen. Sorospen horiek murriztapen handia izan dute, orain dela hamarkada bat 5.000 pentsio baino gehiago baitzeuden onartuta. 2006an prestazio horien eraginezko nominen zenbateko osoa ia 1,7 milioi eurokoa izan da, 2005ean ordaindutako baino %11 gutxiago.

Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako neurriak

Pobrezia desoreka ekonomikoekin lotuta egon da beti, eta diru-sarrera txikiak dituzten biztanleei eragiten die. Hala eta guztiz ere, gure gizartean izandako aldaketen eraginez, (aldaketa ekonomikoak, sozialak eta familien barrukoak), bazterkeria mekanismo berriak sortu dira, eta horietan faktore ekonomikoek ez ezik beste faktore batzuek ere gizarte bazterkeriari loturiko prozesuak eragiten dituzte.

V.3.1. GRAFIKOA. OINARRIZKO ERRENTAREN ETA GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZEN JASOTZAILE KOPURUAREN ETA GASTUAREN BILAKAERA URTEKA



Iturria: Gizarteratze Zuzendaritzaren datuetan oinarrituz egina.

3

Gaur egun pobreziari buruz hitz egitea errealitate multzo konplexu eta anitz batera hurbiltzea da; errealitate multzo horren barruan, desoreka ekonomikoak ez ezik, "bazterkeria" kontzeptua ere sartzen da: "gizarte eskubideak erabiltzeko ezintasuna edo ezgaitasuna; batik bat lanerako eskubidea, baina baita beste eskubide batzuk ere, besteak beste, hezkuntza, heziketa, kultura, osasuna, etxebizitza duina, gizarte babesa"[1].

EAEn, pobreziari, bazterkeriari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko dauden tresna nagusien artean (Bazterkeriaren Aurkako Legean, Gizarte Zerbitzuen Legean eta Gizarte Eskubideen Gutunean jasotako tresnak), oinarrizko Errentak eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) daude, Pobreziaren Aurkako Borrokaren Plan Integralean jasotako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak.

Horiek ez ezik, gizarteratzeko, lanerako eta heziketarako programak ere badaude, horietan esku hartzen duten alderdien (txertaketako enpresen sorrera dago jasota), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidezkoak. Tresna horiek AUZOLAN programaren bidez garatzen dira, eta horien onuradunak dira Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubidearen titularrak, Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubidearen titularraren bizikidetza unitate ekonomikoaren barruko kideak edo bazterkeria arriskuko egoeran egonik, gizarteratzeko eta laneratzeko hitzarmena sinatu duen beste edonor.

3.1. Oinarrizko errenta

Oinarrizko Errentak (OE) Gizarteratzeko Oinarrizko Diru-sarrera ordeztu zuen, Gizarte Eskubideen Gutuneko abenduaren 27ko 10/2000 Legea sortu zenean. Errenta hori jasotzeko baldintzak dira EAEn gutxienez urtebetez erroldaturik egotea, eta oinarrizko beharrizanei eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko prozesuak eragindako beharrizanei aurre egiteko baliabide nahikorik ez izatea.

2006an 33.824 familiak jaso du Oinarrizko Errenta, eta kopuru horrek %6,8ko hazkundea adierazten du aurreko urtearekiko, urte horretan 31.654 bizikidetza unitatek jaso baitzuten errenta hori. Lurraldeen arabera, jasotzailerik gehienak Bizkaian daude: 24.218 dira guztira (EAEkoaren % 71,6). Gainera, 2005eko jasotzaile kopuruari dagokionez izandako hazkunderik handiena ere lurralde horretan egon da: %8,9ko hazkundea aurreko urtearekiko. Araban, berriz, %0,6ko murriztapena egon da, eta Gipuzkoan %3,9ko hazkundea.

[1] 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa, Gizarte Bazterkeriari buruzkoa.

V.3.2. GRAFIKOA. OINARRIZKO ERRENTAREN ZENBATEKOAREN BILAKAERA, LANBIDE ARTEKO GUTXIENEKO SOLDATAREN EHUNEKO ZENBAT DEN AINTZAT HARTUTA



Iturria: Gizarteratze Zuzendaritza.

2006an Oinarrizko Errentaren kontzeptuan ordaindutako zenbateko osoa 153,7 milioi eurokoa izan da (2005ean baino %14,35 gehiago), eta bizikidetza unitate jasotzaile bakoitzeko emandako batez besteko zenbatekoa hileko 461,21€-koa izan da; hau da, 2006rako finkaturiko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %73 (aparteko ordainsarien hainbanatzearekin).

Oinarrizko Errentaren bidez ordaindutako zenbatekoen lurraldekako banaketa, jakina, bat dator unitate jasotzaileen banaketarekin; horrela, bada, gasturik handiena Bizkaian egin da (gastu osoaren %76). Ondoren Gipuzkoa dago (14,5%) eta azkenik Araba (9,5%).

3.2. Gizarte larrialdiko laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldian behingo prestazioak, eta euren helburua oinarrizko beharrizanei aurre egitea da, batez ere etxebizitzari lotutakoei, horiek ezustean sortzen direnean eta jasotzaileek gastuei aurre egiteko nahikoa baliabide ez dutenean; horrela, gizarte bazterkeriako egoerak ekidin edo arindu nahi dira. Izaera finalista dute eta kasuan kasuko helburura bideratu behar dira nahitaez.

2006an guztira 26.094 pertsonak jaso zituzten halako laguntzak, aurreko urtean baino %7,4 gehiago; laguntza horietatik 15.765 Bizkaian eman ziren (emandako osoaren %60,4); Gipuzkoan, berriz 5.976 (%22,9) eta Araban 4.353 (%16,7).

2006an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusien Aurrekontuen kontura Gizarte Larrialdiko Laguntzetara bideraturiko zenbatekoa 35 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino 5 milioi gehiago (bestela esanda, %16ko hazkundea egon da). Onuradun bakoitzeko ordaindutako urteko batez besteko zenbatekoa 1.341 eurokoa izan zen (2005ean baino %8,5 gehiago).

V.3.3. GRAFIKOA. GLLEN BANAKETA HELBURUAREN ARABERA, 2003



Iturria: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza saila.

V.3.1. Koadroa. Oinarrizko errentaren eta gizarteko larrialdiko laguntzen erabiltzaile kopuruaren eta gastuaren bilakaera

	Oinarrizko Errenta			GLL		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006
Titular jasotzaile kopurua*						
Araba	3.821	3.958	3.933	4.078	4.884	4.353
Gipuzkoa	5.154	5.457	5.673	4.981	5.630	5.976
Bizkaia	19.914	22.239	24.218	11.719	13.774	15.765
EAE	28.889	31.654	33.824	20.778	24.288	26.094
Gastua (euroak milioitan)						
Araba	13,51	14,81	14,59	3,44	4,42	4,82
Gipuzkoa	18,54	21,50	22,36	5,74	6,84	8,07
Bizkaia	82,06	103,04	116,75	14,82	18,73	22,11
EAE	114,12	139,35	153,70	24,00	30,00	35,00

(*) Bizikidetza unitateen kopurua edo urtean zehar laguntzak jasotzen dituzten familien kopurua.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza saila. Gizarteratze Zuzendaritza.

V.3.4. Grafikoa. AUZOLAN programa: gastuaren bilakaera, onuradun bakoitzeko eta proiektu bakoitzeko



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituz egina.

V.3.2. Koadroa. AUZOLAN programa: emaitzen urtekako bilakaera

	2002	2003	2004	2005	2006
Proiektuak	69	70	79	88	68
Erakundeak	33	40	39	39	36
Onuradunak	615	686	758	801	591
Dirul. / Onuraduna (€)	6.504,07	6.501,46	9.472,30	10.160,41	10.740,13
Dirul. / Proiektua (€)	57.971,01	63.714,29	90.886,08	92.482,85	93.344,39
GASTU OSOA (Milioi €)	4,00	4,46	7,18	8,14	6,35

Iturria: Geuk egina, Gizarteratze Zuzendaritzaren datuetan oinarrituz. Eusko Jaurlaritza.

3.3. AUZOLAN programa

Programa hau prestazio ekonomikoen (Oinarrizko Errenta eta GLL) jasotzaileen eta bazterkeria egoeran dauden beste pertsona batzuen laneratzea bultzatzeko jarri zen martxan. Programa uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren bidez arautzen da, baita abuztuaren 31ko 166/2004 Dekretuak bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak laneratzeko sarturiko aldaketaren bidez ere.

2006an 3 Kontsulta Erakunde berri homologatu dira (2005ean baino bat gutxiago), eta gainera bazterkeria arriskuan dauden 591 pertsona lanerako kontratatzeko laguntzak eman dira (2005ean baino 210 laguntza gutxiago). Guztira 68 proiektu izan dira (aurreko urtean baino 20 gutxiago), eta horiek EAEko 36 erakunderen bidez (udalak edo mankomunitateak eta udal zerbitzuen taldeak) deialdiko laguntzen hobariak jaso dituzte. Erakundeei emandako zenbateko osoa 6,35 milioi eurokoa izan da (2005ean baino %22 gutxiago).

Gizarte aurreikuspeneko sistema osagarriak EAEn. Magnitude nagusien bilakaera erakunde motaren arabera

EAEko BGAEei aplikatzen zaien araudiaren arabera, erakunde horiek derrigorrezko Gizarte Segurantzaren aurreikuspen sistemaren eremutik kanpo daude, eta beren helburua, irabazi asmorik gabekoa, honako hau da: borondatezko aurreikuspen modalitate soziala garatzea, kideak eta horien ondasunak ezustekoak edo aurreikusteko modukoak diren inguruabarretatik edo gertaeretatik babesteko.

V.4.1. Koadroa. BGAEak EAEn: magnitude nagusiak

		2004	2005*	2006*	% 2006	% ald 04-05*	% ald. 05*-06*
GUZTIRA	**Kopurua**	**204**	**207**	**205**	**100**	**1,5**	**–1,0**
	Atxikipenak	1.059.766	1.153.211	1.207.690	100	8,8	4,7
	Kuotak (Milioi €)	1.132,4	1.214,6	1.278,8	100	7,3	5,3
	Ondarea (Milioi €)	12.871,1	14.263,7	15.944,3	100	10,8	11,8
	Kuota/bazk. (€)	1.069	1.053	1.059	100	–1,4	0,6
	Ond./bazk. (€)	12.145	12.369	13.202	100	1,8	6,7
Enplegua eta elkartuak	**Kopurua**	**51**	**51**	**51**	**24,9**	**0,0**	**0,0**
	Atxikipenak	257.573	344.552	358.651	29,7	33,8	4,1
	Kuotak (Milioi €)	396,3	390,5	426,6	33,4	–1,5	9,2
	Ondarea (Milioi €)	6.785,3	7.333,9	8.012,4	50,3	8,1	9,3
	Kuota/bazk. (€)	1.539	1.133	1.189	112,3	–26,3	5,0
	Ond./bazk. (€)	26.343	21.285	22.340	169,2	–19,2	5,0
Banakakoak	**Kopurua**	**47**	**47**	**47**	**22,9**	**0,0**	**0,0**
	Atxikipenak	680.679	687.145	729.039	60,4	0,9	6,1
	Kuotak (Milioi €)	729,9	817,9	846,3	66,2	12,1	3,5
	Ondarea (Milioi €)	6.071,7	6.915,5	7.917,9	49,7	13,9	14,5
	Kuota/bazk. (€)	1.072	1.190	1.161	109,6	11,0	–2,5
	Ond./bazk. (€)	8.920	10.064	10.861	82,3	12,8	7,9
Gainerako BGAEak	**Kopurua**	**106**	**109**	**107**	**52,2**	**2,8**	**–1,8**
	Atxikipenak	121.514	121.514	120.000	9,9	0,0	–1,2
	Kuotak (Milioi €)	6,2	6,2	6,0	0,5	0,0	–3,2
	Ondarea (Milioi €)	14,2	14,2	14,0	0,1	0,0	–1,4
	Kuota/bazk. (€)	51	51	50	4,7	0,0	–2,0
	Ond./bazk. (€)	117	117	117	0,9	0,0	–0,3

(*) 2005eko eta 2006ko datuak behin-behinekoak dira.
Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saila.

4

Kapitulu hau idazteko unean, 2005 eta 2006rako behin-behineko datuak baino ez ditugu eskuragarri EAEko borondatezko gizarte aurreikuspeneko sistemari buruzko oinarrizko adierazle batzuetan. Atal honetan informazio horiek azalduko ditugu, eta horrela Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza sailak emandako datuek ahalbidetzen duten neurrian, osatu egingo dugu 2004ko informazioa, gainerako aldagaiei buruzkoa.

4.1. Magnitude nagusien bilakaera erakunde motaren arabera

Behin-behineko datuen arabera, 2006an EAEn 205 BGAE zeuden EAEko BGAEen Erregistroan inskribatuta (2005ean baino bi gutxiago). BGAE horiek bi kategoriatan banatzen dira, estaltzen dituzten kontingentzien arabera: pertsonalak (erretiroa, ezintasuna, langabezia, heriotza, gaixotasun larria) eta elkartuaren ondasunetan eragina duten kontingentziak (etxebizitza, laneko tresnak, abereak, uztak eta mutualisten beste ondasun batzuk, euren lanbide edo lan-jarduerari lotutakoak).

Lehenengo taldearen barruan, hau da, kontingentzia pertsonalen modalitatearen barruan (kapitulu honetan horixe aztertuko dugu), azken batean pentsioen arloan, bigarren sailkapen bat ere egin daiteke:

- Enplegu sistema: sustatzailea edozein erakunde, edozein korporazio, sozietate edo enpresa izan daiteke, eta bazkideak bertako enplegatuak dira.
- Sistema elkartua: sustatzailea edozein elkarte, sindikatu, gremio edo talde izan daiteke, eta bazkideak, kideak edo afiliatuak Erakundea osatzen dutenak dira. 2006an, Enplegu sistemaren eta sistema elkartu horien barruan, 51 erakunde sartzen ziren, hau da, guztizkoaren laurdena, eta zifra hori egonkor mantendu da azken lau urteetan.
- Banakako sistema: sustatzaileak finantza izaerako erakunde bat edo batzuk izan daitezke, eta bazkideak pertsona fisikoak dira, bertara lan harremanaren eraginez lotuta daudenak izan ezik. 2006an erakunde guztien %22,9 izan ziren, eta zifra hori egonkor mantendu da aurreko urtearekiko.

V.4.2. KOADROA. ENPLEGUKO BGAEETARA ATXIKITAKO EDO ELKARTURIKO TALDEAREN EHUNEKOA, BIZTANLERIA LANDUNARI DAGOKIONEZ. 2004

	Atxikitako taldea	Biztanleria landuna	Sarpena %
Araba	33.625	139.700	24,0
Gipuzkoa	206.099	309.300	67,0
Bizkaia	17.849	489.600	4,0
EAE	257.573	938.600	27,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza saila.

V.4.1. GRAFIKOA. BGAEEN BILAKAERA EAEN. OINARRI URTEA: 1991



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza saila.

V.4.2. GRAFIKOA. BGAEETAN ELKARTURIKO PERTSONAK EAEN



4.1.1. Atxikipenak sistemara

EAEk 1983an aurreikuspenaren arloko eskumena bereganatu zuenetik, sektorearen hazkundea oso positiboa izan da. Atxikipen kopurua, 2006an, behin-behineko datuen arabera, 1.207.690koa da. Banakako modalitatean 729.039 atxikipen egon dira, guztizkoaren %60,4%[1] (%6,1eko hazkundea aurreko urtearekiko). Enplegu modalitatean (orokorrean, enplegu modalitatea esaten dugu-

[1] Atxikipen kopurua ez da parekatu behar banakako sistemara atxikitako pertsona kopuruarekin; izan ere, bikoiztasun handiak daude, pertsona berbera erakunde batera edo gehiagotara atxikita egon daitekeelako .

nean Enplegu eta Elkartuak modalitateen batuketa da) %29,7 biltzen da, eta gainerakoa beste modalitate batzuetan bilduta dago[2].

Atxikipenen datuetatik ondorioztatzen denez, lan merkatuan Enpleguko eta Elkartuko BGAEen indizea oso desberdina da lurralde historikoen arabera. Izan ere, 2004ko datuak aintzat hartuta (urte horretakoak dira eskura ditugun azken datu zehatzak), indizeak Gipuzkoako %67ko gehienekotik Bizkaiko %4ko gutxienekora bitartekoak dira, eta Araba bitarteko posizioan dago, %24ko estaldurarekin[3]. Oro har, BGAEek EAEn duten ezarkuntza maila biztanleria osoaren %54,2koa izan da 2006an (2004an baino 5 puntu gehiago).

2006ko atxikipenen bilakaerari dagokionez, horiek %4,7ko hazkundea izan dute, eta Elkartu kopuruak gora egin du Enplegu (+%4,1) eta Banakako (+%6,1) modalitateetan.

Sistemara atxikitako pertsonek ordaindutako kuotei dagokienez, horiek 1.279 milioi eurokoak izan dira 2006an, 2005ean baino %5,3 gehiago, eta EAEko BPGren %2,1era iritsi dira (aurreko urteko proportzio bera). Bestalde, 1.215 milioi horietako %66,2 Banakako BGAEei atxikitako taldeak eman ditu (partaidetzak %3,5eko hazkundea izan du 2005ekoarekiko); %33,4 Enpleguko taldeak (%9,2ko hazkundea) eta gainerako %0,5 gainerako erakundeek. Datu horietatik ondorioztatzen denez, BGAEra atxikitako pertsona bakoitzeko urteroko ekarpena 1.059 eurokoa izan da 2006an (%+0,6ko hazkundea 2005ekoarekiko); Enplegu modalitatearen kasuan 1.189 eurokoa izan da (%5eko hazkundea); azkenik, Banakako modalitatearen kasuan 1.161 eurokoa izan da (–%2,5 2005arekiko)[4].

4.1.2. Ondarea

EAEko gizarte aurreikuspeneko sistemaren erantsitako ondare orokorra 15.944 milioi eurokoa izan da 2006an,

V.4.3. Grafikoa. BGAEen ondareko inbertsioaren bilakaera, motaren arabera. Euroak milioitan



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Enplegua eta gizarte Segurantza saila.

[2] Jakina denez, BGAEen babes eremua Pentsio Planena baino zabalagoa da, eta erakunde horiek erretirokoak, heriotzakoak, ezintasunekoak eta langabeziakoak ez diren kontingentzien eraginezko prestazioak ematen dituzte; horrela, izaera integrala eta bereizgarria ematen diote EAEko aurreikuspen ereduari. Garrantzia aintzat hartuta, aipagarriak dira ehorzketarako prestazioak ematen dituzten erakundeak: horietara elkarturiko pertsona kopurua 10.617 pertsonakoa zen 2003an; halaber, aipatzekoak dira suteen aurkako babesa eskaintzen dutenak: horiek urte horretan bertan 3.404 pertsona zituzten elkartuta.

[3] Hala eta guztiz ere, Bizkaiko lurralde historikoan Estatuko enpresa handiak daude, eta horietan langileek pentsio planak dituzte (Petronor, Iberdrola; Telefónica, Firestone...).

[4] Enplegu Sailak dioenez, oraingo bikoiztasunen ondorioz (pertsona kopurua baino atxikipen kopuru handiagoa) azken datu hori gutxiegi baloratuta egon daiteke, baina pentsa daiteke atxikipen bikoitzak beti ez daramala ekarpen bikoitzik.

behin-behineko datuen arabera, eta horrela bere balioak %11,8ko hazkundea izan du 2005arekiko. Zifra horrek EAEko BPGren %25,7 adierazten du, eta tasa hori askoz ere handiagoa da Estatuko Pentsio Planek eta Pentsio Fondoek pilaturiko ondarearen partaidetza baino, azken hori ez baita Estatuko BPGren %8ra iristen. Alabaina, ehuneko hori txikia da, Europako batez bestekoa (%30 baino handiagoa) kontuan hartzen badugu.

Modalitateen arabera, Enplegu modalitateko BGAEei dagokien ondarea guztizkoaren %50,3koa izan da 2006an, eta Banakako modalitateak ia gainerako guztia hartu du, beste modalitate batzuei loturiko ondarea oso txikia baita (%0,1, kapitulu honen hasierako laburpen-koadroan). 2006ko bilakaerari dagokionez, Banakako modalitateko BGAEek pilaturiko ondareak %14,5eko hazkundea izan du, eta Enpleguko modalitateak %9,3ko hazkundea.

Horrenbestez, elkartu bakoitzeko batez besteko ondarea 13.202 eurokoa izan da 2006an, aurreko urtean baino %6,7 gehiago. Enpleguko modalitatean, ondarea batez bestekoa baino nahiko handiago da (22.340€), eta Banakako BGAEen kasuan 10.861 eurokoa baino ez da izan, nahiz eta azken urtean %7,9ko hazkundea izan).

Bestalde, EAEko BGAEen ondarearen inbertsioa balio higigarrietan oinarritzen da. Higiezinen inbertsioak hazkunde iraunkorra izan zuen 1996ra arte, baina erakunde kopuru txikian oinarritzen zen. Erakunde horiek, 2000tik aurrera, formula hori baztertu eta higiezinetan egindako inbertsioak bideratu egin dituzte, higiezinen inbertsioan espezializaturiko sozietateetako partizipazioak eskuratuz. Errenta finkoaren eta aldagarriaren arteko inbertsioari dagokionez, BGAEek, hasiera-hasieratik, inbertsiorik kontserbadoreenak aukeratu dituzte; hala ere, finantza merkatuen bilakaerak errenta aldagarriko inbertsioetarako hurbilketa eragin du, eta oraindik ere urrun daude munduko pentsio plan handiek dituzten ehunekoetatik.

EAEko BGAEen inbertsioen balioa, 2004an (horri buruz dugun azken informazioa urte horretakoa da) 10.023 milioi eurokoa izan zen 2004an, 2003an baino %11 gehiago, eta horietatik 7.124 milioi (guztizkoaren %71, eta 2003an baino %11,7 gehiago) errenta finkokoak dira, 2.405 errenta aldagarrikoak (%24), 457 beste inbertsio batzuetakoak eta , azkenik, 37 milioi euro ondasun higiezinetan egindako inbertsioetakoak.

Inbertsioek erakunde motaren arabera duten balioa aztertuta ikusten denez, inbertsio horien %54 Enpleguko Erakundeetakoak dira eta %45 Banakako modalitateko BGAEetakoak; azkenik, beste erakunde mota batzuen inbertsioen balioa hondarrezkoa da.

4.1.3. Gastua pentsioetan

Gizarte Segurantzako sistemak emandako pentsioak aztertzean gertatzen den legez, BGAEek emandako pentsioen onuradunak aztertzean ikusten da horien %60 baino gehiago erretiroko pentsioak jasotzen dituztenak direla; talde horren atzetik, kopuruari dagokionez, heriotzako eta biziraupeneko prestaziok jasotzen dituzten pertsonak datoz. Oro har,ordaindutako pentsio kopuruak gora egin du 2004an, (urte horretakoa da daukagun azken informazioa) eta %14ko hazkundea egon da 2003arekiko.

2004an, pentsioen jasotzaile kopuru osoa 37.311 pertsonakoa izan zen, aurreko urtean baino %14,5 gehiago; horietatik 23.288k erretiroko pentsioa jaso zuten (+%15,9), 8.684k alarguntasuneko pentsioa (*%17), 4.653k ezintasunezkoa (+%17)eta 686k zurztasunekoa (–%37). Pentsio horiek guztiak Gizarte Segurantzako sistemak kontzeptu horietarako ordaintzen dituen pentsioen %9 dira.

BGAEen prestazioak modu hauetan gauzatu ahal dira:

- Kapital erako prestazioa; hau da, ordainketa bakarreko jasotzea.
- Errenta erako prestazioa, aldi baterako edo biziartekoa.
- Prestazio mistoak, edozein motatako errentak kapital erako kobrantza bakarrarekin konbinatzen dutenak.

Oro har, prestazioa errenta eran kobratzen duten onuradunei dagokienez, Enpleguko eta Elkartuko modalitateko BGAE bati atxikitakoen artean kopuru handiagoa dago Banakako modalitatekoen artean baino. Bestalde, orain arte oso gutxi ordaindu dira modu mistoan.

V.4.3. KOADROA. PENTSIOETAKO GASTUA, ERAKUNDE MOTAREN ARABERA. 2004 URTEA. EUROAK MILATAN

ERAKUNDEA	Enplegua eta elkartuak	Guztizkoaren %	Banakakoak	Guztizkoaren %
Erretiroa	125.103,5	68	58.392,0	68
Ezintasuna	21.817,7	12	9.179,2	11
Alarguntasuna	34.863,8	19	16.790,1	20
Zurztasuna	2.250,2	1	928,2	1
Guztira	**184.035,2**	**100**	**85.289,6**	**100**

V.4.4. GRAFIKOA. PENTSIO OSAGARRIETAKO GASTUAREN BILAKAERA, PRESTAZIO MOTAREN ARABERA



V.4.4. KOADROA. PRESTAZIO JASOTZAILEAK, BGAE MOTAREN ARABERA. 2004 URTEA.

	BGAE enplegua eta elkartuak		BGAE banakakoak	
KONTINGENTZIA	Prestazio kopurua	%	Prestazio kopurua	%
Erretiroa	13.686	61	9.596	67
Ezintasuna	2.784	12	1.869	13
Heriotza	6.005	27	2.834	20
Alarguntasuna	5.546	92	2.607	92
Zurztasuna	459	8	227	8
Kontingentziak guztira	**22.475**	**100**	**14.299**	**100**

Guztira, EAEko BGAEek 269 milioi euro ordaindu zituzten (+%12,6 2003arekiko), batez ere erretiroko pentsioetarako (gastuaren %68), gero alarguntasuneko pentsioetarako (%19), ondoren ezintasunekoetarako (%12) eta, azkenik, zurztasuneko pentsioetarako (%1). Horrenbestez, 2004an ordaindutako batez besteko prestazioa urteko 7.221,6 eurokoa izan da (2003an baino %1,2 gutxiago), eta zenbateko hori 9.140,9 eurokoa da urtean, Enpleguko eta Elkartuko BGAEen erretiroko prestazioen kasuan (+%3, 2003arekiko).

4.1.4. Araubide Fiskala

BGAEek EAEn izandako garapen itzela, neurri handi batean, aurrezpen formula horren erakarpena areagotu egin duen pizgarri fiskalaren eraginezkoa da, batez ere PFEZren bidezkoa (bazkideentzat), baina baita Sozietateen Gaineko Zergaren bidezkoa ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enpresen edo bazkide babesleen partizipazioa sustatzeko, enplegu planetan). EAEn, zerga arloko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiek eta Batzar Nagusiek dituzte.

Orokorrean, bazkideak emandako zenbatekoak kengarriak dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarritik[5]. Bestalde, diferituriko errentatzat hartzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (eta kontingentzia gertatu baino lehen ordaindutako erreskateak eta zenbatekoak ere bai) lan pertsonalaren errendimendutzat hartzen dira, baita atxikipenaren ondoreetarako ere[6].

[5] Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, elkartuaren eskubide finkatuak zerga horren aitorpena aurkeztu beharra ote dagoen jakiteko soilik hartzen dira aintzat; hala eta guztiz ere, salbuetsitako eskubidetzat hartzen dira, eta, beraz, ez dira horren zerga-oinarrian sartzen.

[6] Prestazioa kapital erako jasotzea bada, %40 murriztapena dauka; errenta izanez gero, berriz, oso-osorik sartzen da zerga-oinarrian.

PFEZren 2004ko likidazioari buruzko datuen arabera (Zerga-Kideketarako Sailaren datuak, eskura ditugun azkenak), BGAEei eta gainerako aurreikuspen formula guztiei egindako ekarpenen eraginezko murriztapena 973,5 milioi eurokoa izan zen, 2003an baino %7,1 gehiago, eta beraz, EAEko urte horretako BPGren %1,57koa izan da (2003an %1,83); guztira 462.154 aitorle izan dira, aurreko urtean baino %9,5 gehiago, eta aitorle guztien %44,8. Horrenbestez, batez besteko murriztapena 2.106 eurokoa izan da, 2003ko batez bestekoa baino %2,2 txikiagoa. Zenbateko hori Zerga Oinarriaren %4,9 da, eta gainera bigarren murriztapenik garrantzitsuena da, baterako zerga-ordainketaren murriztapenaren ostean; horrela, zerga-oinarriaren minorazioaren %10 inguru osatzen dute bien artean.

BGAEei ekarpenak egitearen eraginezko murriztapenek garrantzia handiagoa dute errenta ertainetan: 18.000 eta 30.000€ bitarteko likidazio-oinarrian (tarte horretan daude aitorpen guztien %26) sartzen da BGAEei ekarpenak egitearen eraginezko murriztapenaren %30,5 (guztira 297 milioi euro). Horren atzetik beheko errentak datoz, 6.000 y 18.000€ bitarteko likidazio-oinarria dutenak. Aitorpen kopururik handiena tarte horretan sartzen da (guztizkoaren %44); hala ere, murriztapen guztien zenbatekoaren %25,3 baino ez da biltzen.

Gainera, Foru Aldundiek PFEZren aitorpenei buruzko datu finkatuek agerian jarri dutenez, errentarik txikieneko aitorpenen %18ri (6.000€-tik beherako likidazio-oinarria) BGAEei egindako ekarpenen eraginezko murriztapenen %4,5 soilik dagozkio, hau da, 43.9 milioi euro.

Bestalde, grafikoan ikus daitekeen legez, aitortutako errentaren maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da (batez beste) BGAEei egindako ekarpenen eraginezko murrizketa PFEZren zerga-oinarrian.

V.4.5. GRAFIKOA. BGAEEI EKARPENAK EGITEAGATIKO MURRIZKETAK PFEZREN ZERGA OINARRI OROKORREAN ETA LIKIDAZIOAN



Iturria: Geuk egina, OCTEren datuetan oinarrituz.

6

garapenerako lankidetza EAEn

Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zen modu formalean pobretasunarekiko eta azpigarapenarekiko kezka, deskolonizazio prozesutik sortutako herrialde berriak agertu zirenean. Kolonia ohi horiei emandako garapenerako laguntza hasieran mendebaldeko herrialdeen interes estrategikoei, politikoei eta merkataritzakoei eusteko harreman finantzario eta merkataritzakoak mantentzea izan zen, baina, era berean, Nazio Batuen eremuan bestelako laguntza-moduak sortzen joan ziren.

Dena dela, laguntza mota hori oso partziala, zen eta, batez ere, garapenaren alderdi ekonomiko eta monetarioetara zuzenduta zegoen. 90eko hamarkadan nazioarteko lankidetzaren ikuspuntua aldatu egin zen, herrialde guztien garapenean oinarritutako hazkunde iraunkorra globalizazio prozesu baten barruan kokatutako politika ekonomikoko eredu komunen bidez lor zitekeela pentsatu zutelako. Baina ikuspuntu hori ere ez zen nahikoa izan, argi geratu zen enpirikoki, izan ere, ikuspuntu horrek pobrezia erauzteko alderdi ekonomikoa baino ez baitzuen kontuan hartzen, eta zeuden desberdintasunak iraun baino ez zuten egin. Horrela bada, 2000. urtetik, Milurteko Deklarazioarekin batera, garapen estrategietan garapenerako oinarrizko faktore gisa alderdi sozialak kontuan hartzen hasi ziren.

Oraindik ere, eta, nahiz eta azken mendean garapen ekonomikoari dagokionean orain arte izandako aurrerapen handiena gertatu den, goseak, pobreziak, gaixotasunak eta analfabetismoak milioika pertsonei eragiten dien mundu osoan. Mundu mailan dagoen berealdiko desberdintasun egoerak iraun egiten duenez, agenda politiko guztiak behartuta daude garapenerako lankidetza lehentasunezko tokian jartzera.

Milurtekoaren garapenerako helburuen elementu nagusietako bat honako hau da: pobreziaren kontrako borroka guztion zeregina dela, eta zeregin horren emaitzek herrialde guztiei egingo diela mesede onartzea da.

Helburuak betetzeko erantzukizun nagusiena garapen bidean diren herrialdeena da. Haatik, beharrezkoa da nazioarteko laguntza ematea, bereziki, pobreziak gehien jotzen dituen herrialdeei edota geografikoki isolatuenen dauden herrialdeei. Horretaz landa, elkarren mendeko mundu mailako ekonomia egoteak merkataritza bide berriak zabaltzea, nazioarte mailako egonkortasun finantzarioa egotea eta teknologia hedatzea eskatzen du, garapen bidean diren herrialdeek aukerak aprobetxa ditzaten garapen azkarra eta iraunkorra lortzeko.

Milurteko Deklarazioan garapen bidean diren herrialdeek konpromisoa hartu zuten onbideratutako ekonomiak izaten ahalegintzeko, beren garapena zaintzeko eta giza beharrei eta behar sozialei erantzuteko. Garatutako herrialdeek, berriz, herrialde pobreenei laguntzeko konpromisoa hartu zuten laguntzak emateari, merkataritzari eta

VI.1. GRAFIKOA. IGARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN DIBISETAN EGINDAKO DIRU-SARRERAK ETA ORDAINKETAK. 2002-03KO BATAZ BESTEKOA. MILA MILIOI US$



(*) Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak ken inportazioak, petrolioa izan ezik.
Iturria: NAZIO BATUAK. Milurtekoaren Garapen Helburuen 2005eko txostena.

zorra arintzeari dagokionean. Nazio Batuek, gainera, esan dute pobre eta aberatsen arteko betetako aliantzak kontuan izan behar duela garapen bidean diren herrialdeek teknologia, sendagaiak eta beren biztanleentzako lanpostuak izan behar dituztela, bereziki gateentzako, horiek osatzen baitute, geroz eta gehiagoan, biztanleen kopururik handiena.

Garapen bidean diren herrialdeak ere, ez dira guztiak berdinak eta ez dute guztiek laguntza bera behar: diru-sarrera txikienak dituzten herrialdeek laguntza gehiago behar dute gaixotasunei, analfabetismoari eta azpiegitura eskasiari aurre egiteko, izan ere, eragozpen horiek gainditzen ez dituzten arte, ezingo dituzte inbertsioak erakarri ez eta munduko merkataritzarekin lehian aritu ere. Herrialde aberatsen merkatuetarako sarbide justuago batekin, herrialde horiek munduko ekonomia lehiakorrean agertzen has daitezke. Era berean, diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeek ere atera dezakete etekina, horientzako jada garrantzizkoa da-eta oinarrizko produktuen eta produktu manufakturatuen merkataritza.

Milurtekoaren Garapen Helburuak lortzeko ezarritako denboraren erdia betetzear dela Nazio Batuek 2006an aurkeztu duten egoerari buruz esan, panorama oso urrun dagoela ezarritako aukerei erantzutetik:

- Muturreko pobrezia eta gosea erauzteko helburua (1. helburua) ez lortzeko aukera handia dago; gauza bera

gertatzen da haurren heriotza-tasa gutxitzeari (4. helburua) dagokionean ere. Gaur egungo proiekzioek diotenaren arabera, 2015ean 380 milioi pertsona baino gehiago izango dira egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi direnak, eta urte horretarako kopuru hori ez gainditzea erabaki zen (420 milioi).

VI.2. Grafikoa. Kanpoko zorraren urteko zenbatekoaren bilakaera, geografi eremuen arabera. 1998. Urtea=100



Iturria: Geuk egina, NMFaren datuetan oinarrituta.
Munduaren ikuspegi ekonomikoa. 2006ko iraila.

- Berriz ere, Saharaz azpiko Afrikak ditu sintomarik larrienak. 2005ean, muturreko pobrezian bizi den pertsona kopuruak gora egin zuen 140 milioitan, Mali, Etiopia, Djibouti edo Eritrea bezalako herrialdeetan lehen hezkuntzan matrikulatutakoen tasak ez zuen %50 gainditu, eta emakumeen %46k baino ez zuen laguntzarik izan erditzeetan.

Egoera horri aurre egiteko, nazioarteko komunitateak 2005ean itzuli egin zuen azken hamarkadan garapenerako emandako laguntza ofizialak izan zuen geldialdi joera, betiere, behin-behineko datuei jarraiki. CADeko kide diren emaile guztiek 106.367 milioi dolar eman zituzten garapenari laguntzeko, hau da, BPGren %0,33. Europar Batasunak emandako laguntza aipatu behar da, izan ere, guztira 55.592milioi dolar eman zituen, BPGren %0,44. Horretarako Norvegia, Suedia, Luxenburgo, Holanda eta Danimarkak ahalegin berezia egin zuten, %0,7ko muga gainditu egin baitzuten. Beste zazpi herrialdek (Frantzia, Austria, Belgika, Irlanda, Finlandia, Alemania eta Erresuma Batua) %0,33ko muga gainditu zuten, horixe jarri zuen EBk 2006rako muga.

Horretaz gain, etorkizunerako beste erronka batzuk hartu dira. Aipatzekoa, batez ere, EBk hartutako konpromisoa: 2010. urterako garapenerako laguntza ofizialei dagokienez, gutxienez BPGren %0,51 ematea EB15eko kide bakoitzak, eta BPGren %0,17 batasuneko hamar kide be-

VI.1. Koadroa. Herrialde guztietan milurtekoaren garapen helburuak (MGH) lortzeko kostuaren kalkulua. 2003ko milaka milioi dolar USA

	Kalkulua 2002	Proiekzioa 2006	Proiekzioa 2010	Proiekzioa 2015
Diru-sarrera txikiko herrialdeetan MGHak lortzeko inbertsio beharrak				
MGHen finantziazio-defizita	12	73	89	135
MGHak lortzeko gaitasunak sortzea	5	7	7	7
Zor handiak dituzten herrialdeei zorra aritzeko diru-laguntzak	—	7	6	1
Zorra arintzea	4	6	6	6
Emakida-maileguak ordaintzea	–5	0	0	0
Zati baten guztia	15	94	108	149
Diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeetan MGHak lortzeko inbertsio beharrak				
Gobernuei zuzenean emandako AODa	4	10	10	10
MGHak lortzeko gaitasunak sortzea	5	5	5	5
Emakida-maileguak ordaintzea	–6	–3	–4	–6
Zati baten guztia	3	12	11	9
MGHak nazioarte mailan lortzeko inbertsio beharrak				
Eskualde mailako lankidetza eta azpiegiturak	2	3	7	11
Mundu mailako ikerketa finantzatzea	1	5	7	7
Rioko Hitzarmenak ezartzea	1	2	3	5
Nazioarteko erakundeen lankidetza teknikoa	5	5	7	8
Zati baten guztia	10	15	23	31
HERRIALDE GUTZIETAN MGHak LORTZEKO KOSTUAREN KALKULUA	**28**	**121**	**143**	**189**

Iturria: Nazio Batuen Milurteko Proiektua (2005): garapenean inbertsioak eginez. Milurtekoaren Garapen Helburuak lortzeko plangintza praktikoa.

rriek. Horrela bada, laguntza horren baliabide gehigarriak Afrikarako erabiliko dira, eta, aldi berean, zorra gehiago arintzeko aukerak eta baliabideak izateko iturri berritzaileen aukerak aztertzen ari dira. Bestalde, "Parisko Deklarazioaren" bidez herrialde emaileek eta jasotzaileek konpromisoa hartu dute 2010. urterako laguntzaren eraginkortasuna hobetzeko jabetze, lerrokatze, bateratze eta kudeaketan emaitzei begira.

Giza garapena, zorra eta garapenerako laguntza mundu mailan

1.1. Giza garapenaren indizea. 2006ko emaitzak

Giza-garapena pertsonez eta horien aukerak zabaltzeaz arduratzen da, bizimodu osoa eta sortzailea askatasunean eta duintasunean izan dezaten. Hazkunde ekonomikoa, merkataritza eta inbertsioak handitzea, eta aurrerapen teknologikoak oso garrantzitsuak dira, baina bitartekoak dira eta ez helburu, bere horretan. Aukera horiek zabaltzeko, ezinbestekoa da giza gaitasunak garatzea, hau da, pertsonak izan daitezkeen gauzen aldaerak garatzea. Honako hauek dira giza garapenaren gaitasunik oinarrizkoenak: bizitza luzea eta osasungarria izatea, hezkuntza jasotzea, bizi-maila duina izatea eta askatasun zibilaz eta politikoak gozatzea parte diren komunitateko bizimoduan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Horrela, urtero Nazio Batuen Garapenerako Programak (PNUD) egiten duen Giza Garapenaren Indizearen (GGI) progresioa ez da nahi genukeenaren adinakoa. GGIk nazioen aurrerapena neurtzen du adierazle sozioekonomiko batzuei jarraiki. Adierazle horiek bizi-itxaropena, hezkuntza-maila, eta biztanleko izaten diren diru-sarrerak neurtzen dituzte. Dena dela, giza garapenerako neurri integral izateko badituzte mugak adierazle horiek, izan ere, ez ditu kontuan hartzen giza eskubideak errespetatzea, demokrazia edo berdintasuna bezalako alderdiak. Baina ikuspuntu zabala eskaintzen du giza aurrerapena zein den ikusteko eta diru-sarrera eta ongizatearen artean dagoen harreman konplexua zein den ikusteko.

VI.1.1. Grafikoa. Giza garapenaren joera gorantz, baina modu desberdinean



PNUDen "Giza Garapenerako Txostenak", 2006ko argitalpenean, geroz eta elkar konektatuago dagoen gure mundua zatitua duten ongizatearen eta bizi aukeren artean zer nolako aldeak dauden azpimarratu ditu. Norvegiako maila ertaineko herritarrak du GGI garaiena eta Nigeria bezalako herritar batek, berriz, GGI txikiena. Egia esan, bi herritar horiek "herri global" deitutakoaren garapen-"barruti" desberdinetan bizi dira, zinez. Norvegiarrak nigeriarrak baino 40 aldiz aberatsago dira, ia urte bikoitza bizi dira eta hezkuntza maila guztietan

matrikulazioa ia erabatekoa da; Nigerian, berriz, matrikulazio tasa %21 da.

Zehazki, 2006ko Txostenak dio 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera ia eskualde guztiek gora egin dutela GGIn modu progresiboan. Asia ekialdean eta hegoaldean azkartu egin da aurrerapena 1990 ezkero. Bestalde, 90eko lehen erdian beherakada katastrofikoa izan ondoren, Europa erdialdeko eta ekialdeko herrialdeak eta Estatu Burujabeen Erkidegoa (EBE) ere berreskuratze indartsua izan dute eta beren aurreko mailetara itzuli dira.

Aitzitik, Afrika azpisahararra da salbuespen nagusia: 1990etik gelditu egin da eskualde horren aurrerapena, alde batetik, ekonomiak atzera egin duelako, baina, batez ere, bizi-itxaropenean GIB/HIESak izan dituen ondorio latzengatik. Gaur egun hemezortzi herrialdek dituzte GGIko puntuazioak 1990ean baino baxuago, gehienak Afrika az-

VI.1.1. KOADROA. GARAPENERAKO EMANDAKO LAGUNTZA OFIZIAL GARBIAREN FLUXUEN LABURPENA, ZUZENEKO ATZERRITAR INBERTSIOAK ETA ZORRAREN ZERBITZUA

Ayuda oficial al desarrollo	Garapenerako jasotako laguntza ofizial garbia				Zuzeneko atzerritar inbertsioak		Zorraren zerbitzua	
	Milioi $	$ per capita	% BPG		% BPG		% BPG	
	2004	2004	1990	2004	1990	2004	1990	2004
GUZTIRA, MUNDUAN	**64.470**	**11,7**	..	..	**1,0**	**1,6**	..	..
Garapen bidean diren herrialdeak	53.287	10,5	1,4	0,5	0,9	2,7	4,4	4,9
Garapen txikiagoa duten herrialdeak	24.756	33,4	12,0	9,6	0,3	3,8	3,1	2,6
Estatu arabiarrak	11.163	35,9	2,7	0,6	0,5	1,5	..	..
Asia ekialdea eta Pazifikoa	6.490	3,3	0,7	0,2	1,7	3,4	..	..
Latinoamerika eta Karibe	5.635	10,3	0,4	0,3	0,8	3,0	4,0	7,8
Hego Asia	6.947	4,5	1,1	0,5	..	0,7	2,3	2,6
Saharaz azpiko Afrika	22.733	33,0	..	,,	0,4	2,0	..	..
Erdialdeko eta Ekialdeko eta EBE	10.697	26,4	..	,,	..	0,4	..	..
GGI ertaineko herrialdeak	31.704	7,2	1,1	0,4	0,6	2,1	4,1	4,4
GGI txikiko herrialdeak	17.186	30,1	9,8	7,5	0,6	2,9	6,6	3,5
Diru-sarrera ertainak dituzten herriald.	29.785	9,8	0,8	0,3	0,8	2,8	4,6	6,0
Diru-sarrera txikiak dituzten herriald.	33.954	14,4	4,0	2,5	0,4	1,4	3,8	2,8

Iturria: PNUD "2006ko giza garapenari buruzko txostena".

pisaharakoak. Gaur egun, giza garapen baxua duten 31 herrialdetatik 28 munduko eremu horretan daude. Egoera horrek argi jartzen digu, ahalegin nazionalek eta mundu mailako aliantzek duten garrantzia, Milurtekoaren Garapen Helburuek afrikarrek oinordetzan hartu eta gaur egun jasaten ari diren desabantaila handiak gaindi ditzaten.

Mundu mailan, esan dugunez, eta 2005eko txostenean jasotako datuak errepikatuz, Norvegiak du indizerik handiena, eta Nigeriak, berriz, txikiena. Urte honetako argitalpenak, gainera, egunean 20 litro ur garbi izatea giza eskubide gisa onartzeko deia egiten du, izan ere, 1.000 milioi pertsona baino gehiagok ez du ur garbia izateko eskubidea, eta 2.600 milioi pertsonak ez du saneamendu egokirik, eta horiek ez dira gertatzen ur falta dagoelako, kudeaketan akatsak daudelako baizik.

Honako hauek dira txostenean nabarmendutako beste alderdi batzuk: oraindik ere munduan 115 milioi haur dago eskolatu gabe, horietatik 62 milioi neskak dira, eta munduko 500 pertsona aberatsenek dituzten diru-sarrerak pobreenak diren 416 milioik irabaztea lortzen duten adina dira. Txostenean dei egiten da bidegabekeria horiek ezkutatzen dituen tolerantzia orokorra gutxi dadin.

Era berean, 2006ko Giza Garapenari buruzko Txostenak herrialde berean diru-sarrera desberdinak dituzten taldeen arteko aldeei buruzko ikuspegia ere eskaintzen digu. Txostean jasotzen denari jarraiki, Indonesian, adibidez, %20ko familia pobreenetan jaiotako haurrek diru-sarrera handienak dituzten %20ko familietan jaiotakoek baino lau aldiz arrisku gehiago dute 5 urte egin baino lehenago hiltzeko. Nikaraguan eta Perun, haurren heriotzen %40 gutxi gorabehera, %20ko familia txiroenetan gertatzen dira.

Baina, joera hori, herrialde aberatsenetan ere gertatzen da. Estatu Batuetako biztanleetatik aberatsen diren %20k giza garapenaren lorpenen zerrendaren buru dira, Norvegiarekin batera, baina bertako kintil pobreenak askoz ere beherago dagoz errenda horretan, eta Argentinak baino GGI txikiagoa du eta Kubak duenaren oso antzekoa (2006ko giza garapenaren rankingean 36. eta 50. postuan daude, hurrenez hurren).

1.2. Garapenerako laguntza ofiziala eta zorraren zama

Laguntza ofiziala da garapen txikiena duten herrialdeek pobreziaren tranpatik ihes egiteko duten finantziazio iturri nagusiena. Garapenerako laguntza ofizial honen zatirik handiena kanpo zorraren interesak ordaintzeko

VI.1.1. GRAFIKOA. GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEEI ZUENDUTAKO BALIABIDEAK



Iturria: Munduko Bankua.

VI.1.2. GRAFIKOA. ZORRARI LAGUNTZEA ETA ZERBITZEA



Iturria: Munduko Bankua.

erabiltzen da. Ia leku gehienetan, Sahara zazpiko Afrikan izan ezik, 70eko urteetatik gaur egun arte BPGaren ehuneko gisa emandako laguntzak behera egin duela ikus daiteke eta, zorra ordaintzeko erabili den laguntzak, berriz, gora egin duela. Aipagarria da, benetan, Latinoamerikaren eta Kariberen kasua: herrialde horiei emandako laguntzak %0,3 egin du behera, eta zorraren ordainketak, berriz, %5 gora, aipatutako epe horretan.

VI.1.3. Grafikoa. Zorraren zerbitzua eta osasunean egindako gastu publikoa



Iturria: Munduko Bankua.

NBEn Giza Garapenari buruzko Txostenean ageri diren datuen arabera, herrialderik aurreratuenek, Garapenari Laguntzeko Batzordeko (CAD) kideek, 2004ean 79.553 milioi dolar eman zituzten garapenari laguntzeko, aurreko urtean baino %15,2 gehiago. Kopuru hori herrialde multzo horren BPGaren %0,26 da, eta 91 dolarreko gastua *per cápita,* 2003an baino 21 dolar gehiago. Norvegia, Danimarka eta Luxenburgo dira, beste behin, garapenerako laguntzarik gehien ematen duten herrialdeak, bai BPGari dagokionean bai biztanleko. Hirurek beren adierazleak hobetu dituzte 1990. urtearekin alderatuta, baina ezin da gauza bera esan batzorde horretako kide diren gainerako herrialdeei buruz, izan ere, bi urte horien artean igaro diren 12 urteetan gutxitu egin dituzten garapenerako emandako laguntzak (BPGari dagokionez %0,33tik %0,26ra, eta biztanleko emandako laguntzari, berriz, eutsi egin diote eta 91 dolarrean dago).

Garapenerako emandako laguntza ofizialen bolumen horiei dagokienez, NBEk adierazi du, herrialde hartzaileek dituzten gaur egungo baldintzak ikusita, Milurteko Helburuak lortu nahi badira, herrialde emaileak 2006tik 2015era garapenerako laguntza ofizialaren eta BPGaren arteko ehunekoa bikoizteko prest egon beharko liratekeela, esku artean diren azken datuei begira.

VI.1.2. Koadroa. Herrialde aberatsek* garapenerako emandako laguntza ofizial garbia

GGIren araberako sailkapena	Milioi $	% BPG		$ Per cápita		Lotu gabeko AOD aldebikoa (guztiaren %a)	
	2004	1990	2004	1990	2004	1990	2004
1. Norvegia	2.199	1,17	0,87	396	477	61	100
3. Australia	1.460	0,34	0,25	70	73	33	77
4. Irlanda	607	0,16	0,39	26	152	..	100
5. Suedia	2.722	0,91	0,78	257	302	87	87
6. Kanada	2.599	0,44	0,27	103	81	47	57
7. Japon	8.922	0,31	0,19	94	70	89	94
8. Amerikako E. Batuak	19.705	0,21	0,17	61	67	..	..
9. Suitza	1.545	0,32	0,41	149	210	78	97
10. Herbehereak	4.204	0,92	0,73	244	258	56	87
11. Finlandia	680	0,65	0,37	174	130	31	..
12. Luxenburgo	236	0,21	0,83	101	524	..	..
13. Belgika	1.463	0,46	0,41	120	141	..	93
14. Austria	678	0,11	0,23	28	83	32	52
15. Danimarka	2.037	0,94	0,85	305	377	..	89
16. Frantzia	8.473	0,60	0,41	160	137	64	94
17. Italia	2.462	0,31	0,15	75	43	22	..
18. Erresuma Batua	7.883	0,27	0,36	70	131	..	100
19. Espainia	2.437	0,20	0,24	33	56	..	68
20. Zeelanda Berria	212	0,23	0,23	41	52	100	81
21. Alemania	7.534	0,42	0,28	124	91	62	92
24. Grezia	465	..	0,23	..	42	..	23
28. Portugal	1.031	0,24	0,63	25	100	..	99
GUZTIRA CAD	**79.553**	**0,33**	**0,26**	**91**	**91**	**..**	**..**

(*) CAD, Garaperenarko Laguntza Batzordea. Iturria: PNUD "Giza garapenari buruzko 2006ko txostena" www.undp.org/hdro
(**) PPME: zor gehien dituzten herrialde pobreen zorra gutxitzeko ekimena (PPME) zorra arintzeko mekanismoa da, eta Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF) eta Munduko Bankuak gainbegiratzen dute. Europar Batasunaren bidez egindako promesak hartzen ditu.

Garapenerako laguntza ofizialen arloan egiten diren beharren kalkuluek, beste laguntza kategoria garrantzitsu batzuk alde batera uzten dituztenez, zeinak seguruenera garrantzitsu izango diren etorkizunean, —hau da, azpiegituretarako proiektu garrantzitsuak, klima aldaketara egokitzeko gastua handitzea, gatazken ondoren berreraikitzeko izaten diren lanak eta saihestezinak diren beste lehentasun geopolitiko batzuk— herrialde emaileak 2015erako BPGren %0,7ra iritsi beharko liratekeela balioetsi da. Gutxi gorabehera, kopuru horren hiru laurden helburuak lortzeko erabiliko litzateke eta gainerakoa garapenerako laguntzaren beste behar batzuetarako.

1.3. Bidalketen munduko fluxua

Langile immigranteen bidalketak dira beren herrialdeko diru-sarrera nagusienetakoak. 70eko hamarkadatik nabarmen egin dute gora garapen bidean diren herrialdeetara zuzendutako bidalketa-fluxuek, eta Munduko Bankuaren aurreikuspenen arabera, 2006an, 200.000 milioi dolar gainditu zituzten, eta eremu hartzaile gehienetan %10eko tasara hazi ziren. Asia Ekialdea eta Pazifikoaren eta Latinoamerika eta Kariberen kasuak dira aipatzekoak, 45.000 eta 53.000 milioi dolar gainditu zituzten hurrenez hurren urte horretan. Herrialde horietako batzuetan jasotzen dituzten bidalketak BPGaren %10 inguru izaten dira.

VI.1.4. Grafikoa. EBko herrialde "bidaltzaile" nagusienak. Datuak milioi eurotan. 2004



Iturria: Europako Batzordea.

Gorantz doan bidalketen merkatua, orokorrean, banketxe ez diren operadore gutxi batzuk menderatzen dute, enpresa bidaltzaile deitutakoek, alegia. Horiek transakzioen %90 kontrolatzen dute. Azken urteetan, lehia handiagoa dagoelako eta aurrerapen teknologikoei esker, kostuak murriztu badira ere, bidalketak egiteko kostuak handiak direla uste da eta ez dira ez antzekoak ez berdinak ere, lekuaren arabera, hau da, transakzioak nondik nora egiten diren asko aldatzen dira kostuak. Hori merkatuaren ezaugarriak, emigranteen jatorri-herrialdea eta enpresa-bidaltzaileek duten espezializazio handia kontuan hartuz azal badaiteke ere, azken aldian erakunde finantzarioek geroz eta interes handiagoa dute bidalketen merkatuan sartzeko.

Espainiako Estatuan[1], bidalketen merkatuak gora egin du nabarmen, azken hamarkadan immigrazio prozesu handia izan delako, eta bidalketak egiteagatiko ordainketek %30 egin dute gora urteko, eta BPGaren puntu erdia gainditu da. Horrela bada, 2006ko datuak kontuan hartuta, urte horretan kanpora egin diren bidalketek gainditu egin dute Estatuak kontzeptu horregatik beragatik dituen diru-sarrerak, hau da, beste herrialde batzuetan bizi diren emigrante espainiarrek egiten dituzten bidalketengatik Estatuak jasotako kopurua. Zehazkiago, Espainiako Bankuak kalkulatu du Estatuan jatorria duten immigranteen bidalketen bolumena 6.250 milioi euro izan zela 2006an (2005ean baino 1.600 milioi gehiago); kopuru hori urte horretako BPGren %0,6 izan da, eta azken urteetan berriz %0,4[2]. 2004tik Europar Batasunean bidalketa gehien igortzen dituen herrialde bihurtu da, Alemania eta Frantziaren aurretik. Kontuan izan herrialde horiek immigrante asko hartu izan dituztela betidanik.

Funts horien jatorri-herrialde nagusienak, dudarik gabe, Estatuak jasotzen duen immigrazioaren jatorri-herrialde nagusienak dira, hau da, Ekuador (%22,5), Kolonbia (%21,3), Maroko (%6,2) eta Errumania (%5,6).

Bidalketak nora doazen aipatzeko, esan, Latinoamerika eta Karibe izan direla mundu mailan hartzaile nagusi.

[1] EAEko informaziorik ez dago.

[2] Igoera hori, immigrazioak izan duen hazkundeaz gain, Espainiako Bankuak 2006an bidalketen neurketak egiteko aldaketa metodologikoa egin duelako izan da, eta horrela bide informalen bidez, hau da, baimendutako enpresak esku hartu gabe, egindako bidalketak ere balioetsi dira.

VI.1.3. Koadroa. Immigrazioaren bidalketengatiko sarrerak (Milaka milioi US$)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	Nov. 2006	% 05/06	% 01/06
Garapen bidean diren herrialdeak	**85**	**96**	**117**	**145**	**163**	**188**	**199**	**6**	**107**
Diru-sarrera txikiko herrialdeak	22	26	32	40	41	46	47	2	81
Diru-sarrera ertaineko herrialdeak	63	70	85	105	123	142	152	7	116
Asia ekialdea eta pazifikoa	17	20	29	35	39	44	45	3	125
Europa eta asia erdialdea	13	13	14	17	23	31	32	5	149
Latinoamerika eta karibe	20	24	28	35	41	48	53	12	119
Ekialde erdia eta afrika iparraldea	13	15	16	21	23	24	25	5	64
Hegoaldeko asia	17	19	24	31	30	35	36	3	86
Saharaz azpiko afrika	5	5	5	6	7	7	7	0	62
Mundukoa, guztira	**132**	**147**	**170**	**205**	**230**	**257**	**268**	**3**	**83**

Iturria: Munduko Bankua.

VI.1.5. Grafikoa. Immigrazioagatik izandako bidalketen irteerak, herrialde bloke handika. Mila milioi US$



Iturria: Munduko Bankua.

2006an 45.660 milioi euroko funtsak jaso zituen. Kopuru hori eremu horretan izaten den atzerriko inbertsioaren adinakoa da, Munduko Bankuak emandako datuen arabera. Dena dela, iturri horrek esaten digu garapen bidean den eremu horrek jasotzen duen bidalketa-fluxuak apenas balio duela pobrezia murrizteko, bidalketak jasotzen dituztenak ez direlako pobreenak, klase ertainekoak baizik. Immigrazioa jasotzen duten herrialdeetatik egiten den diru-bidalketa horiek gabe pobreziak Latinoamerikako herritarren %28ri eragingo liokeela kalkulatzen da, gaur egungo %25i ordez.

Horrela bada, Munduko Bankuaren Immigrazioari buruzko Lan-taldeak dio, gaur egungo ikerketen arabera, ez dela ikusten epe luzera bidalketek zer eragin izango duten herrialde hartzaileen hazkundean. Argi dago, dena den, epe motzean hezkuntza eta osasun laguntza finantzatzea ahalbidetzen dutenez, hezkundearen gain eragin positiboak dituztela. Era berean, inbertsioa eta enpresak sortzea ere ahalbidetzen dute. Dena den, kontuan hartzen badugu langile kualifikatuak herrialde aberatsenetara doazela eta horrek eskulanaren eskaintzari eragiten diola negatiboki, eta emigratutako familiartekoak bidaltzen dizkieten funtsak jasotzen dituzten zenbait etxeetan lan egiteko nahia gutxitu daitekeela bidalketak jasota, azken emaitzak ez dirudi hain argia adituen begietarako.

EAE-ren garapenerako laguntza. Lankidetza fondoa eta garapenerako laguntza (FOCAD). 2006ko datuak

EAEn garapenerako lankidetza instituzionala Lankidetza Fondoa eta Garapenerako Laguntzaren (FOCAD) bidez bideratzen da. erakunde hori hornitzen Eusko Jaurlaritzak, udalen beste lankidetza programa batzuekin batera, eta Foru Diputazioek hartzen dute parte. Funtserako jarritako kopuruez gain kopuru gehigarriak ere ezartzen dira.

2006an Eusko Jaurlaritzak Garapenerako Lankidetzarako Funtserako egindako diru-hornidura 33,7 milioi euro izan zen. Horietatik 26,8 milioi deialdiaren dekretu arautzailearen[3] bideratu ziren. Gainontzeko funtsak garapenerako Eusko Jaurlaritzaren lankidetza-egitarauak osatzen dituzten beste subentzio-linea batzuen bidez burutu ziren.

2006an, "FOCAD Dekretua"ren nobedade gisa, adierazi behar dugu ezen, alde batetik, baliabideen gutxieneko kopurua (% 15a) ezarri dela lehen aldiz; kopuru hori Saharaz beheko Afrikara bideratu behar da, kontinente horrekiko euskal lankidetza bultzatzeko bide gisa. Horrela, Dekretuak erantzun egiten dio Afrikaren beharrizan larriak konpontzeko deialdiari, Eusko Jaurlaritzak modu formalean men egin dion Milurtekoaren Adierazpenak argi eta garbi adierazi duenez.

Era berean, lehen aldiz, emakumeei edo genero desberdintasuna ezabatzeari zuzendutako proiektuetarako kuota bat (%10a) ezarri da. Horrela ekimen horiek lehentasunezko lekuan finkatu dira, Eusko Jaurlaritzaren lankidetza-politikari dagokionean.

2006an, FOCADek 98 proiektu finantzatu zituen, guztira, 24 milioi euro erabili ziren. Kopuru hori —2005etik %7 gehitu da— funtsaren diru-horniketaren %71,4 da. 2006ko deialdira 216 proiektu aurkeztu ziren, eta 49,1 mi-

VI.2.1. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK LARRIALDIETARAKO EMANDAKO LAGUNTZEN KOPURUA. MILA EURO.

	2005	2006
Angola	120.000	
Aljeria		200.000
Boli Kosta		210.078,78
Kuba	210.038,69	
Txad	200.000	
El Salvador	90.012,92	
Guatemala	90.000	204.681,35
Haití	120.000	
India	399.170	
Indonesia		100.000
Irak	179.420	
Kenya		159.741,09
Líbano	120.000	119.840
Mexiko	127.865,62	120.000
Palestina	112.100	296.397
Pakistan		40.000
Kongoko Errepublika	259.227,7	180.000
Sierra Leona	200.000	
Sri Lanka	467.674	
Sudan	158.801	360.000
GUZTIRA	**2.952.309,93**	**1.990.738,22**

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Garapenaren Lankidetzarako Zuzendaritza.

[3] Otsailaren 28ko 50/2006 Dekretuak, FOCADen 2006ko deialdia arautzen du (06-03-13ko EHAA).

VI.2.2. KOADROA. FOCAD-EN GARAPENERAKO LAGUNTZEN PROIEKTUAK ETA KOPURUAK

		2003	2004	2005	2006	% 04-05	% 05-06
Proiektuak	Aurkeztuak	325	238	267	216	12,2	–19,1
	Onetsiak	130	110	107	98	–2,7	–8,4
	%onetsiak / aurkeztuak	40	46,2	40,1	45,4	–13,2	13,2
Kopuruak (mila euro)	Eskatuak	62.040	44.118	52.376	49.148	18,7	–6,2
	Emandakoak	23.735	21.142	22.496	24.079	6,4	7,0
	% emandakoak / eskatuak	38,3	47,9	43,0	49,0	–10,2	14,0
Kopurua bataz beste	Onartutako proiektuak	182,6	192,2	210,2	245,7	9,4	16,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza.

lioi euro eskatu zituzten. 98 proiekturi laguntzea ebatzi zen, eta, beraz, proiektu gehiago onartu dira urte horretan, %40,1 izatetik %45,4 izatera igaro dira onartutako proiektuak, eta funtsak, berriz, %43tik %49ra hazi dira. Proiektuko bataz beste ematea onartu den kopurua 245.700 euro izan dira, 2005ean emandakoa baino %16,9 gehiago.

Garapen proiektuetara zuzendutako 24 milioi euroz gain (Dekretuko I., II. Eta III. Kapituluak), 2006an 2 milioi euro erabili dira premiazko laguntzetarako. Kopuru hori laguntza humanitariorako behar zehatzen arabera gauzatzen da urtean zehar. Kopuru hori helburu horretarako 2005ean erabili zen kopurua baino %50 gutxiago izan da. Herrialdera, aipatzekoak Sudanerako emandako laguntzak (360.000 €), Palestinara zuzendutakoak (ia 300.000 €) eta Boli Kostara bidalitakoa (210.000 €).

Geografikoki, nabarmen daiteke FOCADen bidez bideratutako laguntzarik gehienak Amerikara bideratzen direla (%68 2006an eta %76 2005ean), eta premiazko laguntzak, berriz, Afrikako herrialdetara bideratzen dira (%77 2006an eta %62 2005ean). Asiak, bi kasu horietan ere hirugarren postua du.

VI.2.3. KOADROA. FOCADEN LAGUNTZAK NORA DOAZEN GEOGRAFI EREMUAK KONTUAN HARTUTA

Eremuak	Proiektu kop.		Kopurua (mila €)	
	2005	2006	2005	2006
Amerika Erdialdea-Karibe	34	33	8.701	10.267
Hego amerika	25	19	6.376	6.032
Afrika	12	14	3.582	4.134
Asia	2	3	705	712
Europa (eae izan ezik)	1	2	242	253
EAE	33	27	2.891	2.680
Guztira	**107**	**98**	**22.496**	**24.079**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Garapenaren Lankidetzarako Zuzendaritza.

7

legegintzako jarduera EAEn

Eusko Legebiltzarraren eta Jaurlaritzaren legegintza jarduera

EAEko legegintza jarduera 2006. urtean aurrekoan baino biziagoa izan da: Eusko Legebiltzarrak 10 lege onetsi ditu, 2005. urtean baino bi aldiz gehiago.

Jaurlaritzak onetsi dituen dekretuen kopurua, aldiz, 283 izan da: 2005ean baino 178 gutxiago onetsi dira.[1]

Beste urte batez, 2006an ere ez da onetsi ez legegintzako dekreturik ez lege-dekreturik.

Jarraian laburbildurik azalduko da Eusko Legebiltzarrak 2006. urtean onetsi dituen legeen edukia.

VII.1. Grafikoa. Eusko Legebiltzarraren eta Jaurlaritzaren legegintza jarduera



Iturria: geuk landua EHAAko datuekin.

[1] Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen ostean, 2005. urtean, dekretu asko onetsi ziren sailburuak eta Administrazio Publikoko goi mailako kargudunak izendatzeko eta kargutik kentzeko.

1

- **1/2006 LEGEA, ekainaren 23koa, Urari buruzkoa**

Uraren araubide juridikoaren inguruan araugintza-prozesu garrantzitsua egiten ari da, indarrean dagoen araudiari eragiten diona eta etorkizuneko arauketa ere aurreikusten duena, prozesu horretan egin beharreko ibilbidea eta mugarriak seinalatuz. Europar Batasunean uraren arloko politika gero eta zorrotzagoa da eta gero eta helburu argiago eta handinahiagoak ditu. Jadanik ez dira nahikoak helburu mugatuak dituzten politikak; ur ingurunea babesteko politika integrala antolatu nahi da. Politika hori betearazi eta gauzatzeko tresnak behar dira eta administrazio publiko guztiek dute zerikusirik horretan; zehazki, EAEko administrazioek ondasun natural horren kudeaketari buruzko zenbait erabaki hartu behar dituzte, eta horretarako beharrezkoa da Erkidegoko ordezkaritza organo gorenak esku hartzea; izan ere, Legebiltzarrak uraren araubide juridikoa erregulatu behar du lege baten bidez.

Uraren Legea uraren antolamendu juridikoaren arau nagusia izango da, eta administrazio guztien esku-hartze eremuak ezarriko ditu.

Hona hemen legearen beste osagai garrantzitsu bat: urarekin zerikusia duten zerbitzu publikoen elementu nagusi eta adierazgarrienak arautzea; hornidura, saneamendu, arazketa eta ureztapen zerbitzuez ari gara. Legeak irizpide orokorrak ezartzen ditu eta esparru-erregelamendu egokiek garatuko dituzte irizpide horiek.

Lege honek Uraren Euskal Agentzia sortu du, EAEn uraren arloko politika gauzatzeko tresna nagusi gisa. Uraren Euskal Agentziak, berrikuntza gisa, uraren administrazio-antolamendu zentzuzkoa dakar, ondasun publiko horren inguruan Europar Batasuneko antolamendu juridikoak ezarritakoaren ondorioz sortzen diren eskakizun gero eta zorrotzagoetarako egokia. Antolamendu bakarra izatea eta administrazioek nahiz erabiltzaileek hartan parte hartzea, toki erakundeen eskumenak ere errespetatuz, aurrerapausoa da, beharrezkoa sektorearen arauketarako.

Halaber legeak zehapen araubidea ezarri du, arauhausteen eta zehapenen tipologia eguneratuz; era horretara, horiek bat etorriko dira uraren araubide juridiko berrian jaso diren aurreikuspen substantiboekin.

Uraren kanon berriaren arauketak ondasun horren gaineko zerga-araubidea ixten du, eta berrikuntzarik azpimarragarrienetarikoa da.

- **2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa**

Lurraldearen antolamendu eta hirigintza arloko eskumen osoa hartu zuenetik, Autonomia Estatutuaren 10.31 artikuluaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak hirigintzaren arloko bere politika antolatzen eta betearazten du, lurzoruaren araubideari eta hiri antolamenduari buruzko legeria orokorra oinarri hartuta eta berari jarraituz.

Gaur egungo egoera ikusirik, ostera, beharrezkoa, egokia eta gomendagarria da Euskal Autonomia Erkidegorako lege-testu bat izatea beren beregi, bertako lurralde antolamenduaren, gizartearen eta hirigintzaren errealitateari eta arazoei erantzungo diena. Lege horren bidez tresna egokiak lortu behar dira Konstituzioaren 45., 46. eta 47. artikuluetan arlo honetako printzipio zuzentzaile gisa definitu diren helburuak betetzeko, lurraldearen egiturari, hiri antolamenduari eta gizarte batasunari dagokienez.

Horrela, bada, lege-testu hau ondoko koordenatuen barruan dago:

1. Legegintzarako eskumena erabat garatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion lekua hartzea, Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 20ko 61/1997 Epaiaren arabera, eta kontuan izanik Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko 6/1998 Legean dauden arauak, hirigintzaz kanpoko erreferentziamarko diren aldetik. Horregatik, lege honek autonomia erkidegoaren eskumeneko gaiei soilik ekiten die, baina betiere antolamendu osoa ezartzeko asmoarekin.
2. Hiri antolamendurako bitarteko eta teknika jakin batzuen multzo artikulatua ezartzea, funtsean, udal erakundeek tresnatzat erabili ahal izan dezaten hirigintza arloko udal praktikaren funtzionamendu zuzena sendotzeko, eta segurtasun juridikoaren marko egonkor eta integratua izan dezaten.

Hauek dira lege honen bidez lortu nahi diren helburuak:

– Ekimen publikoa berreskuratzea hirigintzako jardueretan, eta horretarako, batez ere, udal ekimenaz baliatzea.
– Higiezinen arloko espekulazio-praktikak eragoztea, alde batetik hiri antolamenduaren kudeaketa malguaren bitartez eta bestetik hirigintzako kudeaketarako eta betearazpenerako tresna eraginkorren bitartez.
– Konstituzioak herritarrei ematen dizkien eskubideak bermatzea: etxebizitza duina eta garapen pertsonalerako egokia izateko eskubidea, eta norbera bizi den hiri eta natur ingurunearen kalitaterako eskubidea.
– Esku-hartze administratiborako mekanismo berriak sartzea, administrazio publikoek lurraren eta higiezinen merkatuan esku har dezaten.
– Garapen iraunkorraren printzipioari jarraituz bideratzea hirigintza, printzipio hori hiri ereduei aplikatuta, ingurumenarekiko lotura eta herri eta hirien historia, arte eta kultur ondarearen zaintza direla bide.
– Herritarrei parte hartzeko eskubidea bermatzea, honako hauek direla bide: herritarrek parte hartzeko programak, nahitaezkoak egiturazko antolamendu planetan, eta Plangintzarako Aholku Kontseilua, nahitaezkoa zenbait udalerritan.

- **3/2006 LEGEA, irailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aldatzen dituena**

Maiatzaren 29ko 13/1998 Legean arau-esparru berria ezarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoetarako. Horrela, diru sarrera publiko horiei buruz ordura arte izan ziren arau guztiak eguneratu eta bateratu egin nahi ziren.

Lege hori indarrean jarri zenetik hainbat aldaketa egin dira, eta ez bakarrik Administrazioaren jardueran, baita autonomia erkidegoko eta estatu mailako arauetan ere.

Inguruabar horien garrantzia dela eta, komenigarria da lege-testu hori aldatzea, eta beharrizan horren ondorioz tasa berriak sortuko dira edota, halaber, indarrean dauden tasak aldatu edo kendu egingo dira.

Lege honek berriz definitzen du tasa kontzeptua, jurisprudentziak azkenaldian azaldu dituen irizpideei egokituz.

Preskripzioari dagokionez, Tasa eta Prezioei Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legean ezarritako epearen ordez lau urtekoa ezartzen du.

Halaber, zerga zorra bide telematikoetatik ordaintzeko aukera aurreikusten du, eta aldez aurretik errekerimendurik jaso gabe garaiz kanpo egiten diren aitorpenengatiko errekarguei buruzko arau berriak ezartzen ditu.

Gainera, Autonomia Erkidegoaren zenbait tasaren inguruan sortutako egoera argitzen du, behin betiko zehazteko zein elementuk osatzen duten tributua.

- **4/2006 LEGEA, azaroaren 10ekoa, Logopeden Elkargoa sortzekoa**

Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoari eskumen esklusiboa ematen dio lan-

bide elkargoen arloan eta tituludunen lanbide-jardueren inguruan, ezertan eragotzi gabe Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa. Eskumen hori erabiliz eman zen 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa. Lege horrek 29. artikuluan dioenez, lanbide elkargo berri bakoitza sortu ahal izateko beharrezkoa izango da Eusko Legebiltzarrak lege bat ematea, profesional interesdunek hala eskatuta, eta eskatzen duten horiek behar adinako eta behar bezala frogatutako ordezkaritza izan behar dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Logopeden Lanbide Elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoko Logopeden Elkargoa sortzeko eskatu zuen. Izapide egokiak egin ziren, egiaztatu behar baitzen eskaera bidezkoa zela eta lanbide horrek betetzen zituela elkargoa sortu ahal izateko legez eskatzen diren baldintzak.

Logopediak egungo gizartean gero eta garrantzi handiagoa du eta beharrezkoa da lanbide horren antolamendu egokia bermatu eta zaintzea eta gizartearen zerbitzurako erabiliko diren arau deontologikoak garatzea. Arrazoi horiek, besteak beste, nahikoa bidezkotzen dute lanbide elkarte bat sortzea, nahi duten profesionalak berari atxikitzeko.

- **5/2006 LEGEA, azaroaren 17koa, Euskadiko Ondareari buruzkoa**

Lege honek EAEko ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen araubide juridikoa ezartzea du xedea, eta hau da haren aplikazio eremu subjektiboa:

a. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, horren erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.
b. Eusko Legebiltzarra.
c. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
d. Arartekoa.
e. Euskal Herriko Unibertsitatea, bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.
f. Lan Harremanen Kontseilua.
g. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.
h. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.
i. Datuak babesteko Euskal Bulegoa.
j. Beste erakunde publiko batzuk, euren sorrerako legean hala xedaturik dutenak.

Aurreko atal horretan ageri diren erakundeen jabetzakoak diren edo haiei egozten zaizkien ondasun eta eskubide guztiek osatzen dute EAEko ondarea.

Ez dira ondare horretan sartzen goian aipatutako erakundeen diruak, baloreak, krediduak eta gainerako finantza-baliabideak, ezta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen diruzaintza osatzen duten baliabideak ere.

Lege honek eta hura garatu edo osatzen duten xedapenek arautuko dute EAEko ondarea.

- **6/2006 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen bigarren aldaketarena**

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legea Euskadiko Autonomia Estatutuaren 17. artikuluan ezarrita dagoen eskumena erabiliz eman zen. Lege horretan arauak ezarri ziren Ertzaintzako langileen ordezkaritzari buruz eta haien lan baldintzak zehazten parte hartzeko moduari buruz.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legeak 103. artikuluan xedatzen duenez, organoren bat izan behar da, lan baldintzen ezarpenean parte hartzeaz harantzago, organo horretan benetako negoziazioa egin dadin gai horri buruz Administrazioaren eta esparru horretan ordezkaritza duten antolakundeen artean.

Halaber, Ertzaintzako kideei eskubidea aitortzen die nahi dituzten sindikatu, federazio edo konfederazio sindikaletako kide egiteko, euren interes profesional, ekonomiko eta sozialak ordezkatu, babestu eta sustatu ditzaten.

Legearen aldaketa honen bitartez, behin betiko sendotu nahi da ordezkariren bat lortzen duten sindikatu-erakundeek izendatu ahal dituzten ordezkari sindikalen kopurua esleitzeko sistema, hauteskunde barruti bakoitzean. Esleipen sistema hori hauteskundeen emaitzetan soil-soilik dago oinarrituta.

- **7/2006 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Museoei buruzkoa**

Euskadiko Autonomia Estatutuak 10. artikuluko 20. idatz-zatian dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuaren titulartasunekoak ez diren agiritegi, liburutegi eta museoen gaineko eskumen osoa.

Halako eskumen-aitorpena, gure lurralde eremuan, Lurralde Historikoei buruzko Legearen bidez egindako eskumen-banaketaren arabera inkardinatu behar da, lurralde historikoei eskumen esklusiboa ematen baitie euren titulartasuneko museoei dagozkien gaietan.

Eskumen-mapa horri jarraituz, Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea eman zen eta, bertan, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko museoei buruzko araudiaren hastapenak finkatu ziren. Nahiz eta izaera orokorra izan eta kulturaren alorrean sartu ohi diren gai guztiak bildu, xedapen horrek museoei buruzko alderdi orokorrak finkatu zituen eta museoen sistema koordinatu bat, hau da, Euskadiko Museoen Sistema Nazionala izenaz ezagutzen dena, osatzeko oinarriak ezarri zituen. Dena dela, bildutako esperientziatik abiatuta eta sektore horren beharrak aztertu ondoren, egoki iritzi zaio berariazko arau bat egiteari, alderdi guztiak era global eta zehatzago batean erregulatzeko eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoak museo azpiegitura eta zerbitzu moderno eta koordinatuak izan ditzan, herritar guztiek erraz erabiltzeko modukoak. Horrela, gainera, optimizatu egingo dira herri-administrazioek establezimendu horietarako jartzen dituzten baliabide eta bitartekoak.

Lege honekin, arlo honetako ordenamendu juridikoa eguneratu eta, aldi berean, osatu nahi da, hala kontzeptuen alorrean nola antolaketa, kudeaketa edo plangintzarenean.

Sakondu egiten da Euskadiko Museoen Sistema Nazionalean, museoen inguruko jarduera politikoan diharduten sektore eta erakunde guztiak bateratu eta elkartzen dituenez, eta, legegintza-teknikei jarraituz, horri buruzko araudia eta zereginak gerora erregelamendu bidez zehazteko agintzen da.

Halaber, legean Euskadiko Museoen Aholku Batzordea sortzen da, museoen inguruko politikan Jaurlaritzaren aholkulari gisa. Horren osaketa, ordea, gerora erregelamendu bidez zehazteko uzten da.

- **8/2006 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Kooperatiben Legearen bigarren aldaketarena**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 Erregelamenduari jarraiki, nazioarteko kontabilitate-arauak Europar Batasunean aplikatzea erabaki zen.

International Accounting Standards Board (IASB) erakundeak, berriki, 32. nazioarteko kontabilitate-araua berrikusi du; gainera, kooperatibetako bazkideen ekarpenei nazioarteko kontabilitate-arau hori (32. nazioarteko kontabilitate-araua, alegia) aplikatzeari buruzko interpretazioa eman du Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak Interpretatzeko Komiteak (IFRIC 2). Hori dela eta, aurrerantzean ezingo dira baliabide propiotzat hartu kooperatiben baltzu-kapitalari egiten zaizkion ekarpenak, nahitaezkoak zein borondatezkoak, bazkideek ekarpen horiek berreskuratzeko eskubide baldintzagabea baitute.

2005eko urtarrilaren 1az geroztik, nazioarteko arau horiek kreditu-kooperatibei aplikatzen zaizkie, eta, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, merkatu araupeturen batean kotizaziorako onartutako errenta finkoko balioak jaulki dituzten kooperatibei aplikatuko zaizkie. Era berean, ziur aski hemendik lasterrera gainerako kooperatibei aplikatuko zaizkie, kontuan izanik kontabilitate-arloko merkataritza-legeria eraberritu eta egokitzeko aurre-proiektu bat dagoela, Europar Batasunaren arauetan oinarritutako nazioarteko harmonizatzea gauzatzeko.

Kontabilitate-arau horiek zuzenean talka egiten dute Euskadiko Kooperatiben Legearen 63. artikuluaren oraingo egituraketarekin. Hortaz, beharrezkoa da bazkideen berreskurapen-eskubidea kontabilitate-irizpide berriekin harmonizatzea.

Horretarako, Autonomia Estatutuaren 10.23 artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoari kooperatiben arloan ematen dion eskumen osoa erabiliz, aldatu egin dira Euskadiko Kooperatiben Legearen 57., 60., 62., 63., 94. eta 103. artikuluak.

- **9/2006 LEGEA, abenduaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2007. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena**

- **10/2006 LEGEA, abenduaren 29koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzkoa**

Lege honen xedea nekazaritza eta elikadura ekologikoaren arautze eta kontrol-araubide bat ezartzea da. Hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruaren eta geografia-esparruaren barruan egingo da.

Arautze eta kontrol erregimen horren menpe egongo dira Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduak (ekoizpen ekologikoa

arautzen du, bai eta nekazaritza- eta elikadura-produktuetan ekoizpen mota hori adierazteko modua ere) 1. artikuluan aipatzen dituen produktuetakoren bat ekoitzi, landu, biltegiratu, merkaturatu edo inportatzen dituzten operadoreak.

Europako araudietan ekoizpenari, produktuak lantzeari, inportazioari eta merkaturatzeari buruz ezarritakoa betetzen dela bermatzeko xedearekin, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua sortu da 4. artikuluaren bitartez.

Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien legegintza jarduera

EAEko lurralde historikoetako batzar nagusien legegintzako jarduera, 2006. urtean, onetsitako foru arauen kopuruaren arabera neurtuta, desberdina izan da, eta, oro har, 2005ekoa baino apalagoa.

Zehazki, Araban 15 foru arau onetsi dira 2006. urtean, 2005ean baino askoz gutxiago, urte horretan 27 onetsi baitziren.

Bizkaian ere legegintzako jarduera urriagoa izan da 2006. urtean aurrekoan baino. Izan ere, 6 foru arau onetsi dira, aurreko urtean onetsitakoen erdia, hain zuzen ere.

Gipuzkoan, ostera, onetsitako foru arauen kopuruak oso antzekoak dira bi urteetan: 2006an 11 onetsi dira eta 2005ean 13 onetsi ziren.

VII.2. GRAFIKOA. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONETSITAKO FORU ARAUAK



Iturria: geuk landua, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako aldizkari ofizialetako datuekin.

2